

DOKTORETZA-TESIA

**NAFARROAKO
IPAR-MENDEBALEKO
HIZKEREN EGITURA
GEOLINGUISTIKOA**

AMAIA APALAUZA OLLO

ZUZENDARIA: IÑAKI CAMINO LERTXUNDI

GASTEIZ, 2010

AURKIBIDEA

Atarikoa.....	1
1. Datu geografiko, historiko, demografiko eta ekonomikoak.....	7
1.1. Ibarrek eta herriak: kokapen geografikoa.....	7
1.2. Orografia eta komunikabideak.....	14
1.3. Demografia-datuak.....	20
1.4. Jarduera ekonomikoa.....	22
1.5. Azken oharrak.....	25
2. Harreman sozioekonomikoak.....	29
2.1. Sarrera.....	29
2.2. Imotz.....	31
2.3. Basaburu Nagusia.....	33
2.4. Larraun.....	37
2.5. Araitz-Betelu.....	39
2.6. Feriak.....	46
2.7. Erromeriak.....	51
2.8. Gaur egungo harreman-sareak.....	57
3. Euskara Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretan.....	65
3.1. Euskaldunen eta erdaldunen kopuruak: zenbait datu.....	65
3.2. Erdalduntzearen eta euskarari eustearren arrazoiak.....	71
3.3. Gaur egungo egoeraz bi hitz.....	76
4. Hizkuntzaren aldakortasuna eta dialektologia.....	79
4.1. Hizkuntzaren aldakortasunaz.....	79
4.2. Hizkuntzaren aldakortasuna eta dialektologia.....	85
4.2.1. Dialektoak eta dialekto-mugak.....	85
4.2.2. Dialekto-muga motak: bat-batekoak eta gradualak.....	92
4.2.3. Dialektologiaren langaia.....	97
4.3. Dialektologia eta geografia linguistikoa.....	99
4.4. Dialektologia kontrastiboaren ildoak.....	103
4.5. Gaur egungo dialektologia.....	106

5. Datu biltzea.....	111
5.1. Datu-biltzailea.....	111
5.2. Berriemailea.....	115
5.2.1. Berriemaile kopurua.....	115
5.2.2. Berriemaileen adina.....	118
5.2.3. Berriemaileen generoa.....	134
5.2.4. Berriemaileen beste ezaugarri batzuk.....	136
5.2.5. Zalantzazko berriemaileak: Ihabengo kasua.....	137
5.2.6. Berriemaileen zerrenda.....	140
5.3. Datuak biltzeko teknikak.....	147
5.3.1. Hizkera espontaneoaren bila.....	147
5.3.2. Elkarrizketa bideratua eta hizkuntza-inkesta.....	150
6. Irizpide metodologikoak.....	161
6.1. Hizkuntza-ezaugarriak aukeratu beharra.....	161
6.1.1. Berrikuntzez, arkaismoez eta hautuez.....	167
6.1.2. Gure eremua aztertzeko metodologia egokiena.....	172
6.2. Diakronia eta dialektologia historikoa.....	180
6.2.1. Imotz: Goldarazko testuak (1833, 1834 eta 1839).....	187
6.2.2. Larraun: Uitziko (1506), Etxarriko (1762) eta Arruizko (XVIII) testuak.....	192
6.2.3. Araitz-Betelu: Intzako testuak (1772 eta 1801).....	194
6.2.4. Gure eremu inguruko hizkera itzaliak.....	199
6.3. Oharmen-dialektologia.....	199
7. Gure eremua beste ikertzaile batzuen lanetan.....	213
7.1. Bonaparte printzea.....	213
7.2. Damaso Intza.....	215
7.3. Nicole Moutard.....	216
7.4. Pedro Irizar.....	216
7.5. Rosa Miren Pagola.....	220
7.6. Orreaga Ibarra.....	220
7.7. Koldo Zuazo.....	222
7.8. Beste lan batzuk.....	224

8. Gure eremuko hizkeren ezaugarriak.....	227
8.1. Fonologia: bokalak.....	227
8.1.1. Bokal luze edo geminatuak.....	227
8.1.2. Izenari mugatzailea gehitzean sortutako bokal-asimilazioak.....	234
8.1.3. <i>a > e</i> asimilazioa.....	247
8.1.4. <i>u > o</i> bokal-irekitzea.....	261
8.1.5. <i>i > e</i> bokal-irekitzea.....	267
8.1.6. <i>e > a</i> bokal-irekitzea.....	274
8.1.7. <i>u > i</i> palatalizazioa.....	277
8.1.8. Diptongo eta hiatotako asimilazio eta disimilazioak.....	279
8.1.9. Goranzko diptongoak.....	285
8.1.10. Monoptongazioa.....	287
8.1.11. Hiatoa murriztea.....	288
8.1.12. [g] epentesia.....	289
8.1.13. <i>-ee- > -ei-</i> bilakabidea.....	291
8.1.14. <i>o > u</i> eta <i>e > u</i> bilakabideak.....	292
8.1.15. Hitz hasierako <i>oa- > goa-</i>	296
8.1.16. Sinkopa eta aferesia.....	297
8.1.17. Bokal-epentesiak eta -anaptixiak.....	300
8.1.18. Zenbait bokal-txandakatze.....	301
8.2. Fonologia: kontsonanteak.....	302
8.2.1. Asimilaziozko palatalizazioa.....	302
8.2.2. /j/ hotsaren ebakera.....	307
8.2.3. <i>d > r</i> kontsonante-aldaketa.....	309
8.2.4. <i>f > p</i> kontsonante-aldaketa.....	312
8.2.5. Bokal arteko kontsonanteak galtzeko joera.....	314
8.2.6. <i>-nd-</i> eta <i>-nt-</i> kontsonante taldeak.....	315
8.2.7. <i>-st-</i> eta <i>-rtz-</i> kontsonante taldeak.....	317
8.2.8. Hitz hasierako herskari ahostunak eta ahoskabeak.....	320
8.3. Izenaren morfologia.....	323
8.3.1. Singularra eta plurala bereiztea.....	323
8.3.2. Erakusleak.....	330
8.3.3. Izenordain indartuen saila.....	338
8.3.4. Deklinabidea: ergatibo pluraleko morfema.....	339

8.3.5. Deklinabidea: instrumental kasua.....	340
8.3.6. Deklinabidea: soziatibo kasua.....	344
8.3.7. Deklinabidea: destinatibo kasua.....	345
8.3.8. Deklinabidea: ablatibo kasua.....	348
8.3.9. Deklinabidea: motibatibo kasua.....	351
8.3.10. Deklinabidea: adlatibo kasua.....	352
8.3.11. Adlatiboaren gainean eraikitako erakusleak.....	353
8.3.12. Balio semantikorik gabeko <i>-n</i> morfema.....	355
8.3.13. Deklinabidea: prolatibo kasua.....	357
8.3.14. Deklinabidea: muga-adlatibo kasua.....	358
8.3.15. Erdal <i>-on</i> atzizkia.....	360
8.3.16. <i>-ka(n)</i> modu-atzizkia.....	362
8.3.17. <i>-on bat</i> ‘-ren bat’ egitura.....	364
8.3.18. <i>-tto</i> eta <i>-txo</i> atzizki txikigarriak.....	366
8.3.19. “Nor” eta “zein” galdetzaileak.....	367
8.3.20. Partizipioa eratzeko morfemak: <i>-ta</i> , <i>-rik</i> eta <i>-a(k)</i>	369
8.3.21. Aditzondo errepikatuen deklinabidea.....	373
8.3.22. <i>-gi</i> , <i>-ki</i> modu-atzizkiak.....	377
8.3.23. <i>-kal</i> atzizkia.....	377
8.3.24. Berezko <i>-a</i> -ren egonkortasun-eza.....	377
8.4. Aditzaren morfologia.....	381
8.4.1. Lehen pertsona singularreko NORI morfema.....	381
8.4.2. Bigarren pertsona singularreko morfema.....	384
8.4.3. Bigarren pertsona pluraleko NOR morfema.....	386
8.4.4. Bigarren pertsona pluraleko NORK eta NORI morfemak.....	386
8.4.5. Hirugarren pertsona pluraleko NORK morfema.....	388
8.4.6. Hirugarren pertsona pluraleko NORI morfema.....	393
8.4.7. Nor-nori-nork saileko pluralgilea.....	395
8.4.8. “Izan” aditzaren erroa.....	399
8.4.9. “Edun” aditzaren erroa.....	399
8.4.10. NORI saileko <i>-ki</i> - erroa.....	400
8.4.11. Iraganeko adizkietako <i>ziñ-</i> , <i>giñ-</i> / <i>zend-</i> , <i>gend-</i>	402
8.4.12. Geroaldiko morfema.....	403
8.4.13. Nor-nork eta nor-nori-nork sailak nahastea.....	406
8.4.14. Komunztadura-eza aditzean.....	408

8.4.15. Zenbait adizki pleonastiko iraganean.....	410
8.4.16. Adizki trinkoen iraganekeo <i>-a-</i> eta <i>-e-</i>	412
8.4.17. “Joan” aditzaren forma trinkoak.....	414
8.4.18. “Egon” aditzaren forma trinkoak.....	417
8.4.19. “Ibili” aditzaren forma trinkoak.....	420
8.4.20. “Eduki” aditzaren forma trinkoak.....	421
8.4.21. “Heldu + izan” egitura.....	424
8.4.22. Aditzoinaren erabilera.....	424
8.4.23. Partizipio analogikoak.....	426
8.4.24. “Egin” aditz-indartzailea.....	428
8.4.25. “Izan” aditzaren hirugarren pertsona pluraleko adizkiak.....	430
8.4.26. Ohar bat nor-nori saileko 1. pertsona pluraleko adizkiez.....	432
8.4.27. <i>-ki</i> aditz-atzizkia.....	433
8.5. Perpausaren morfologia.....	434
8.5.1. Kausa-perpausetako morfema.....	434
8.5.2. Denbora-perpausetako morfema.....	436
8.5.3. “Uste + <i>-en</i> ” eta “uste + <i>-ela</i> ” egiturak.....	439
8.5.4. <i>-ela</i> / <i>-enik</i> ezezko perpausetan.....	441
8.5.5. Zenbait nominalizazio.....	443
8.5.6. <i>bait-</i> partikulaz osatutako kausa- eta erlatibo-perpausak.....	448
8.5.7. “Nola du izena?” eta “Nola zaio?” egiturak.....	451
8.5.8. <i>Al</i> galdera-partikula.....	452
8.5.9. <i>Ezin</i> partikulaz osatutako egiturak.....	453
8.6. Lexikoa.....	455
8.6.1. Atetz-Ultzama eta Imotz-Basaburu Nagusia elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.....	458
8.6.2. Muskitz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa.....	465
8.6.3. Goldaratz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa.....	477
8.6.4. Imotz eta Basaburu Nagusia alde batera, eta Larraun beste batera paratzen dituen lexikoa.....	486
8.6.5. Larraungo hego-ekialdea eta Larraungo ipar-mendebala elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.....	500
8.6.6. Larraun eta Araitz-Betelu elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.....	510

8.6.7. Nafarroa eta Gipuzkoa elkarrengandik banatzen dituen lexikoa.....	523
8.6.8. Ondorioak.....	524
9. Datuen analisi dialektologikoa.....	533
9.1. Gure eremuko ezaugarri banatzaileak eta ezaugarri bateratzaileak.....	533
9.1.1. Ezaugarri banatzaileak.....	541
9.1.1.1. Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdea, eta gainerako herriak elkarrengandik banatzen dituzten ezaugarriak.....	541
9.1.1.2. Ekialdeko ibarrak (Imotz eta Basaburu Nagusia) eta mendebaleko ibarrak (Larraun eta Araitz-Betelu) elkarrengandik banatzen dituzten ezaugarriak.....	544
9.1.1.3. Araitz-Betelu eta gainerako herriak elkarrengandik banatzen dituzten ezaugarriak.....	548
9.1.1.4. Basaburu Nagusiko iparraldea, Larraungo hego-ekialdea eta Araitz-Betelu gainerako herrietatik banatzen dituzten ezaugarriak	550
9.1.2. Ezaugarri bateratzaileak.....	551
9.2. Gure eremuko ezaugarriak hedadura geografikoaren arabera antolaturik.....	553
9.2.1. Euskara nafarraren ezaugarriak.....	554
9.2.2. Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarriak.....	555
9.2.3. Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko ezaugarriak.....	557
9.2.4. Euskal Herriko erdiguneko eta mendebaleko ezaugarriak.....	561
9.2.5. Euskal Herriko erdigune zabaleko ezaugarriak.....	563
9.2.6. Euskal Herriko erdiguneko eremu murrizteko ezaugarriak.....	565
9.2.7. Nafarroa Garaiko mendebaleko ezaugarriak.....	567
9.2.8. Beste ezaugarri batzuk.....	569
10. Gure eremuko hizkeren sailkapenaz.....	573
10.1. Zer den hizkerak sailkatzea.....	573
10.2. Euskara nafarra definitzen.....	574
10.3. Erdialdeko euskararen eragina: Larraun eta Araitz-Betelu.....	584
10.4. Gure eremuko lau ibarretako hizkeren kokapena: gure proposamena.....	589
11. Ondorioak.....	595
11.1. Gure eremua aztertzearen garrantzia.....	595
11.2. Dialektologia eta beste ikergai batzuk uztartu beharra.....	596

11.3. Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako euskararen banaketa.....	598
11.4. Nafarroako mendebaleko euskara: ikuspegi berri bat.....	601
11.5. Gure eremuko hizkeren etorkizunaz.....	605
11.6. Azken hitza.....	606
Bibliografia.....	609

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarren kokapena.....	7
2. irudia: Lau ibarrak eta haien mugakideak.....	8
3. irudia: Ipar-mendebaleko Nafarroa hezea.....	9
4. irudia: Iruñea eta Tolosa arteko bidea Erdi Aroan.....	17
5. irudia: Lizasoko aldaera.....	218
6. irudia: Intzako aldaera.....	219
7. irudia: Ultzamako aldaeraren baitako banaketa.....	221
8. irudia: Euskara nafarra.....	223
9. irudia: Erdialdeko euskara.....	224
10. irudia: <i>-ie</i> eta <i>-ii</i>	238
11. irudia: <i>-ue</i> eta <i>-uu</i>	240
12. irudia: Izena + mugatzailea.....	245
13. irudia: <i>u > o</i>	266
14. irudia: <i>u > i</i> palatalizazioa.....	278
15. irudia: [j] eta [x].....	307
16. irudia: <i>-nd-</i> eta <i>-nt-</i> kontsonante taldeak.....	315
17. irudia: Erakusle plural deklinatuak.....	337
18. irudia: Instrumental kasua.....	342
19. irudia: Destinatibo kasua.....	346
20. irudia: Bigarren pertsona singularreko morfema.....	385
21. irudia: Hirugarren pertsona pluraleko NORK morfema.....	392
22. irudia: Nor-nori-nork saileko pluralgilea.....	397
23. irudia: Geroaldiko morfema.....	405
24. irudia: Denbora-perpausetako morfemak.....	438
25. irudia: <i>iratze</i> , <i>iraztor</i> eta <i>garo</i>	469
26. irudia: <i>matel</i> eta <i>matail</i>	477
27. irudia: <i>soro</i> , <i>euntze</i> eta <i>barruti</i>	479
28. irudia: <i>irri egin</i> eta <i>parre egin</i>	482
29. irudia: <i>ebatsi</i> eta <i>ostu</i>	488
30. irudia: <i>zarre</i> eta <i>eskubere</i>	495
31. irudia: <i>kider</i> eta <i>kirten</i>	504
32. irudia: <i>alor</i> eta <i>soro</i>	512

33. irudia: <i>erde eta lerre</i>	521
34. irudia: Gure eremuko hizkeren banaketa.....	592
35. irudia: Euskara nafarraren azpieuskalkiak.....	594
36. irudia: Imotz ibarraren banaketa.....	599
37. irudia: Basaburu Nagusia ibarraren banaketa.....	600
38. irudia: Larraun ibarraren banaketa.....	601

ATARIKOA

Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa aztertu dugu tesi honetan. Zehatzago, lau ibarretan eta haien ingurumarian kokatu dugu gure ikerketa: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu. Ezagunak ditugu hizkera guztiok, hurbilekoak: Iruñeko alaba izanik, aspaldi ohartuak ginen ikastolan euskara mota bat erabiltzen genuela, eta beste bat gure gurasoen jaioterrietan, Goldaratzen eta Betelun. Guk etxekoa hartu genuen hasieran, eta ikastolakoa nagusitu zitzaigun ondoren, baina “beste euskara hori” aditzen genuen familiaretan, Goldaratzen eta Betelun.

Egiari zor, unibertsitatean sartu arte, ez ginen “beste euskara horren” balioaren handiaz jabetu. Batez ere Dialektologiako eskoletan, dialektoen eta herri-hizkeren gaineko kontzientzia hartzen hasi ginen nolabait, eta jakin-mina piztu zitzaigun gaiaren inguruan. Goldarazko eta Beteluko euskararen entzuten genituen hitz eta egitura “bitxiak” oharretan jasotzen hasi ginen, eta, unibertsitateko ikasketak egin heinean, bizi guztian inguruan izandako euskara horretan informazio-iturri aberatsa dagoela konturatu ginen. Iñaki Camino irakaslearekin harremanetan jarri ginen, eta gure alderdiko euskara aztertuz doktoretza-tesi bat osatzeko animoak eman zizkigun. Ordura arte euskal dialektologian egindako lanak irakurtzen hasi ginen, eta oso lan gutxi aurkitu genuen gure eremuko euskarari buruz: Orreaga Ibarrak Ultzama alderdiarekin alderatzeko baliatu zituen Imozko eta Basaburu Nagusiko euskara bere tesian, baina artean ere eremu horretan zer ikertua bazegoela iruditzen zitzaigun. Lehenik eta behin, gure eremuko hizkerak sakonki ezagutu beharrak ziren, eta Imozko herrietan datu biltzen hasi ginen. Hain zuzen, Imozko euskara gaitako hartuz osatu genuen Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria (IAZ) lortzeko ikerketa-lana, 2003-2004 ikasturtean, eta, urte batzuk geroago, 2008an, lan hura osatu eta liburu batean argitaratzeko aukera izan genuen, Nafarroako Gobernuak bultzatutako egitasmo bati esker. Ordurako, tesian buru-belarri murgilduak ginen, eta gure iker-eremua zabaldua genuen: Imoztik Araitz-Betelurainoko hizkerak aintzat hartuko genituen gure tesian. Aski ezezagunak ziren Imotz eta Basaburu Nagusia euskal ikerketetan, baina are ezezagunagoak ziren Larraun eta Araitz-Betelu; inguruko hizkeretako batzuk ordurako aztertuak zituzten beste ikertzaile batzuek (Leitza eta Areso, Ultzama aldea), eta horrek gure eremuan ikerketa dialektologiko bat egiteko beharra eta interesa areagotu zuen.

Eta halaxe hasi ginen lau ibarretako datuak biltzen. Denbora aurrera joan heinean, gure ezagutza handituz eta osatuz joan ginen, euskal hizkuntzalaritzako zein atzerriko hizkuntzalaritzako lanak irakurriz eta herriz herri datu biltzen bildutako esperientziaz ikasiz. Guretzat horixe izan baita tesia eginez osatu dugun ibilbidea: etengabeko ikasketa.

Ikasketa horretan, guretzat funtsezkoak izan dira ahozko tradizioaren eremuan 2001-2003 eta 2003-2005 urteetan egin genituen lanak: *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma* (2005), Maite Lakarrekin batera, eta *Araitz-Beteluko ahotsak. Ahozko tradizioaren bilduma* (2007), Kontxi Arraztiorekin batera. Gerora ere, tesiari lotutako zenbait lan argitaratzeko aukera izan dugu: “Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako lexikoaren azterketa” (*ASJU* XL-1, 2007) eta “Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu” (*FLV* 107, 2008).

Dialektologiaren esparruan kokatzen da, beraz, gure tesi-lana. Gaur egungo dialektologia egin nahi izan dugu, eta, horretarako, dialektologiaren hastapenetatik hasita gaurdaino ikerketa zertan aurreratu den ikasi dugu, ondoren gure ikerketa egiteko oinarri egokiak finkatzeko asmoz. Hasieratik garbi izan dugu ez genuela bilketa-lan soil bat egingo; dialektologia egin nahi izan dugu. Alegia, bildutako datuak dialektologiaren erakutsia baliatuz balioetsi, interpretatu eta aztertu ditugu.

Hamaika ataletan banatu dugu gure ikerketa. 1. atalean, “Datu geografiko, historiko, demografiko eta ekonomikoak”, hizkuntzaz kanpoko datuak emango ditugu: gure eremuko lau ibarretako hainbat ezaugarri bildu dugu geografiari, historiari, orografiari, demografiari eta ekonomiari buruz. Izan ere, garrantzitsua deritzogu ezaugarri guztiok aintzat hartzeari, hizkuntzan islatzen diren hainbat gertaera hobeki ulertzeko aukera ematen baitute.

2. atala, “Harreman sozioekonomikoak”, lau ibarretako jendeak azken ehun urteetan —gutxi gorabehera— izan dituen giza harremanei buruzkoa da, eta gaur egungo egoeraren argazkia ere egin nahi izan dugu. Ibarrez ibar aztertuko ditugu harremanok: hango biztanleen nondik-norakoen berri emango dugu, eta erakargune nagusiak zein diren deskribatuko. Arreta berezia emango diegu garai ez oso urrunetan garrantzi handia izan zuten bi eragilerik: feriak eta erromeriak. Atal horretan ikusiko dugu, batetik, gizakien arteko harremanek eragin betea dutela gizaki horiek erabiltzen dituzten

mintzoetan, eta, bestetik, ulertuko dugu harreman-sareak eta elkarrekin harremanetan izateko modua arras aldatu direla azken mendean.

3. atalean, “Euskara Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretan”, datu soziolinguistikoak emango ditugu. Ereku euskaldunean dira aztergai ditugun lau ibarrak, baina hango euskaldun kopurua nabarmen jaitsi da azken berrogei urtean. Zenbakiak emango ditugu, eta ikusiko dugu badela aldea gure eremuko ibar batetik bestera. Erdalduntzearen eta euskarari eustearren arrazoiez ere jardungo dugu, Sánchez Carrión eta Erize ikertzaileen ekarriaz baliatuz. Azkenik, gaur egungo egoeraren berri emango dugu.

4. atala da gure laneko atalik teorikoena: “Hizkuntzaren aldakortasuna eta dialektologia”. Dialektologia orokorraz eta hari lotutako hainbat gai buruz mintzatuko gara. Dialektologia egitea zertan datzan ulertzen saiatuko gara, eta, horretarako, maiz aipatuko ditugu azken urteotan irakurri ditugun hainbat lan, Euskal Herrikoak nahiz atzerrikoak. Gure ikerketa marko teoriko egoki batean kokatu nahi dugu, eta horrek orain arteko dialektologiaren nondik-norakoez jabetzeko beharra ekarri digu ezinbestean. Ikerketa gaztea da dialektologia, baina orain arteko ibilbidean hainbat egilek utzitako uzta ezagutu nahi izan dugu, ondoren gure eremuan ahalik eta ikerketa dialektologiko egokiena eta osoena egiteko asmoz. Hainbat gai jorratuko ditugu atal horretan: hizkuntzaren aldakortasuna, dialektoak, dialekto-mugak, isoglosak, trantsizio-hizkerak, continuum dialektalak, geografia linguistikoa, ildo kontrastiboa, eta abar. Amaieran, gaur egungo dialektologiaz arituko gara.

“Datu biltzea” eta haren inguruko hainbat kontu landuko ditugu 5. atalean. Dialektologiako lan bat ongi egiteko, ezinbestekoa da aztertu nahi dugun eremuan hizkuntza-datuak biltzea, eta lan hori arretaz egin beharrekoa da. Gure esperientziatik abiatuz eta hainbat lanetan irakurri duguna baliatuz, datu biltzean aintzat hartu beharreko hainbat alderdi landuko dugu: datu-biltzailea, berriemailea eta datuak biltzeko teknikak. Gure ibilbidean izan ditugun zailtasunen berri emango dugu, eta, horretaz gain, argi utziko dugu nolako datuak bildu nahi izan ditugun gure ikerketa osatzeko, zenbait erabaki hartu behar izan baitugu kasu batzuetan.

6. atalean, “Irizpide metodologikoak”, edozein ikerketa zientifiko gauzatzeko finkatu beharrak diren irizpide metodologikoen gaiari helduko diogu. Hizkera bat aztertzeko orduan, ikertzaileak

erabaki beharra du zein hizkuntza-ezaugarri aintzatetsiko duen lanerako, eta zein baztertuko duen; alegia, zenbait erabaki hartu behar ditu. Dialektologian, soka luzea ekarri du eztabaida horrek, baita euskal dialektologian ere; guk geronen ikuspegia emango dugu, eta gure ustez gure eremuko euskara aztertzeko irizpide egokienak zein diren azalduko. Hala, gure ikerketan zein ezaugarri kontuan hartuko dugun eta zein ez erabakiko dugu atal horretan. Gaur egungo hizkerak aztertzea da gure helburua, baina, ikerketa dialektologikoa egokia izango bada, beharrezkoa da iraganeko berri ere jasotzea; alegia, alderdi diakronikoa ere landuko dugu, betiere horrek —gure kasuan, behinik behin— dakartzan zailtasunez jabeturik. Oharmen-dialektologiaz ere jardungo dugu, eta gure eremuan arlo horretan egin dugun saio baten berri emango dugu.

7. atalean, “Gure eremua beste ikertzaile batzuen lanetan”, orain arte gure eremuko euskarari buruz idatzi duten ikertzaileen eta haien lanen berri emango dugu. Bonaparte printzearen lanetik hasita gaur egun arteko ibilbidea osatuko dugu.

8. atala da atalik luzeena: “Gure eremuko hizkeren hizkuntza-ezaugarriak”. Atal horretan, lau ibarretan ageri diren hizkuntza-ezaugarriak zein diren azalduko dugu. Atal deskriptiboa da, hizkuntza-ezaugarrien berri ematen duena. Ezaugarri bakoitza arretaz aztertuko dugu: ezaugarria gure eremuko zein herritan ageri den eta zein testuinguru morfofonologikotan, ezaugarriaren hedadura geografikoa, ezaugarriaren sistematikotasuna eta erabilera, ezaugarriaren antzintasuna, eta abar. Ezaugarri fonologikoak (bokalak eta kontsonanteak), morfologikoak (izena, aditza eta perpausa) eta lexikoak aztertuko ditugu.

9. atalean, “Datuen analisi dialektologikoa”, 8. atalean eman ditugun ezaugarriak dialektologikoki analizatuko ditugu. Ikusiko dugunez, zenbait hautu egin eta zenbait erabaki hartuko ditugu atal horretan, ezaugarri guztiek ez baitute balio analisi dialektologikoa egiteko. Bildutako datu guztiak interpretatuko eta balioetsiko ditugu, eta, horretarako, ezaugarriak multzoka bilduko ditugu: batetik, ezaugarri banatzaileak eta ezaugarri bateratzaileak bereiziko ditugu, eta, bestetik, ezaugarriak eremu geografikoaren arabera antolatuko ditugu. Modu horretan, gure eremuko hizkeren egitura geolinguistikoa zein den zehaztuko dugu.

10. atalean, “Gure eremuko hizkeren sailkapenaz” arituko gara. Ikusiko dugunez, euskal dialektologian, garrantzi handiko eremua da gurea, erdigune linguistiko bat eratzen duen heinean,

eta horrek eremu hori sailkatzeko zenbait arazo edo, hobeki esanda, zenbait ikuspegi ekarri ditu. Gai horren inguruan hausnartuko dugu, eta gure eremua, eta, orobat, Nafarroako mendebaleko euskara sailkatzeko proposamen bat egingo dugu.

Azkenik, 11. atalean, “Ondorioak”, gure tesiaren ondorio eta ideia nagusiak bilduko ditugu, eta aurrera begira ere jarriko gara, gure ikergaia ez baita tesi honekin amaitzen: badugu esperantza etorkizuneko lanek hainbat kontu argitzeko bidea emango dutela. Gure lanaren bitartez argi pixka bat egin nahi dugu bide horretan, baina, esan bezala, oraindik ere bada zer landua.

Eskerrak

Azken urteotan ez gara bakarrik ibili, eta hainbat laguni eskerrak ematea dagokigu orain. Lehenik eta behin, bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko pertsoneri, gure berriemaile izan direnei zein gure lana osatzen lagundu digutenei. Haiekiko zorra amaigabea da, dudarik gabe.

Iñaki Camino gure tesi-zuzendariari, hasiera-hasieratik eta uneoro gure lanarekin izan duen interesagatik eta gure lanak beti begi zorrotzez irakurtzeagatik, eta baita urte hauetan guztietan eman digun babesagatik eta laguntzagatik ere, esker mila.

Tesia egiteko, EHUko Euskara Errektoreordetzaren diru-laguntza jaso dugu azken lau urteetan. Erakunde horri eskerrak eman beharrean gara, beraz.

Gogoan ditugu gure herrietako datuak biltzen zein Euskal Herriko beste eremu batzuetako datuak biltzen lagundu gaituzten pertsona guztiak, eta haiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu: Mikel Olo (Imotz eta Basaburu Nagusia), Olo-Gorriti familia (Goldaratz), Sagrario Aleman (Etxaleku), Maite Saralegi (Baraibar eta Uitz), Lurdes Iriarte eta Ramon Astiz (Arruiz), Aitziber Iraizoz (Aldatz), Garbiñe Bernal (Gorriti), Maria Jesus Arraztio (Iribas), Juantxo Zabalo (Azpirotz), Kontxi Arraztio (Araitz-Betelu), Izaskun Ezkurdia (Uztegi), Bittorio Lizarraga (Basaburu Txikia eta Leitza), Bixente Gorostidi (Amezket), Karmele Etxabe (Zaldibia), Larraitz Garmendia (Zaldibia eta Ataun), Irene Aldasoro (Idiazabal), Juan Kruz Igerabide (Aduna), Mirentxu Larrañaga (Azkoitia), Maite Lakar (Malerreka, Bertizarana eta Baztan), Amaia Lasheras (Lesaka) eta Goizeder Taberna (Gamarte, Nafarroa Beherea).

EHUko eta NUPeko zenbait irakaslek ere gure zalantzak argitzeko laguntza eman digute hala behar izan dugunean: eskerrik asko, Patxi Salaberri, Orreaga Ibarra, Joseba Lakarra eta Edu Zelaieta¹.

Tesi-lan honetan ageri diren mapa-irudi guztiak Gorka Elarre adiskideak eginak dira; hari ere, eskerrik asko.

Askok eskertzen dugu, halaber, ordenagailu- eta maketazio-lanetan Edurnek eman digun laguntza.

Eta azkenerako utzi ditugu beti aurrera egiteko indarra eta, azken batean, maitasuna eman diguten gurasoak, senideak, familia eta lagun guztiak. Mila esker!

Pasai Antxon, 2010eko irailean

¹ Zenbait izen askotan aipatuko ditugu lan honetan, eta parentesi artean adieraziko ditugu izenon inizialak: Bittorio Lizarraga (B. L.), Bixente Gorostidi (B. G.), Karmele Etxabe (K. E.), Amaia Lasheras (A. L.), Goizeder Taberna (G. T.), Iñaki Camino (I. C.) eta Orreaga Ibarra (O. I.).

1. DATU GEOGRAFIKO, HISTORIKO, DEMOGRAFIKO ETA EKONOMIKOAK

1.1. Ibarrek eta herriak: kokapen geografikoa

Lau ibar ditugu aztergai tesi honetan: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu. Nafarroako ipar-mendebalean daude laurok, eta guztira 250 km² inguruko azalera hartzen dute. Euskal Herriko erdigunean daude lau ibarrotako herriak, Nafarroako ipar-mendebaleko ertz batean eta Iruñetik zein Gipuzkoatik hurbil, eta kokapen horrek, aurrerago ikusiko dugun bezala, eragin handia izan du lau ibarrotako ibilbide historiko eta soziogeografikoan.

Herri ugari biltzen da aztergai dugun eremuan. Imotz ibarra zortzi herrik osatua da: Eraso, Etxaleku, Goldaratz, Latasa, Muskitz, Oskotz, Urritza eta Zarrantz. Basaburu Nagusian, hamabi herri ditugu: Aizarotz, Arrarats, Beramendi, Beruete, Erbiti, Gartzaron, Ihaben, Igoa, Itsaso, Jauntsarats, Orokieta eta Udabe. Larraun hamasei herrik osatzen dute: Albiasu, Aldatz, Alli, Arruitz, Astitz, Azpirotz, Baraibar, Errazkin, Etxarri, Gorriti, Iribas, Lekunberri, Madotz, Mugiro, Oderitz eta Uitz. Administratiboki, udalerri beregaina da Lekunberri, 1995. urtean banandu baitzen Larraundik. Azkenik, zazpi herri ditugu Araitz-Betelun: Arribe, Atallu, Azkarate, Betelu, Gaintza, Intza eta Uztegi. Baina Betelu hiribildua da 1694. urteaz geroztik, eta harrezkero Araiztik bereiz ibili da arlo ekonomikoan eta administratiboan.

1. irudia: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarren kokapena



Herri guztiok Nafarroako beste herri batzuk dituzte beren mugetan, eta, Araitz-Beteluren kasuan, baita Gipuzkoako batzuk ere. Ibarrez ibar ikusiko dugu herri eta ibar mugakideak zein diren:

- Imotz: iparraldean, Basaburu Nagusia eta Ultzama; ekialdean, Atetz; hegoaldean, Txulapain, Gulibar eta Arakil; eta, mendebalean, Larraun.
- Basaburu Nagusia: iparraldean, Basaburu Txikia; ekialdean, Ultzama; hegoaldean, Imotz; eta, mendebalean, Larraun eta Leitza.
- Larraun: iparraldean, Leitza eta Areso; ekialdean, Basaburu Nagusia eta Imotz; hegoaldean, Arakil eta Aralar mendia²; eta, mendebalean, Araitz-Betelu.
- Araitz-Betelu: iparraldean, Areso eta Gipuzkoako Lizartza, Orexa eta Gaztelu; ekialdean, Larraun; hegoaldean, Aralar mendia³; eta, mendebalean, Gipuzkoako Amezketeta eta Bedaio (Tolosako auzoa).

2. irudia: Lau ibarrak eta haien mugakideak



² Aralarrez beste aldean, Sakana dago.

³ Aralarrez beste aldean, Zaldibia dago.

Gure lanaren helburua Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako euskara aztertzea da, baina haien mugetan diren herri eta ibarretako mintzoak ere aintzat hartuko ditugu ezinbestean.

Nafarroako mendialdean daude lau ibarrak; Torres Lunak “ipar-mendebaleko Nafarroa hezea” izendatutako eremuaren barnean, hain zuzen (1971: 26)⁴:

3. irudia: Ipar-mendebaleko Nafarroa hezea



Torres Lunak dioenez, ipar-mendebaleko Nafarroa hezeak ezaugarri bereziak ditu hainbat arlotan: klima, zuhaitz-landaredia, euntzeen hedadura, eta abar. Hala, urteko euri kopurua irudikatzen duen isohieta (800 mm) Imotz eta Atetz ibarren hegoaldean kokatzen da; handik behera, euri gutxiago egiten du (baita Odietan eta Anuen ere), eta handik gora, berriz, gehiago, 1.500 mm-ra iristeraino (1971: 5). Gainera, muga horretatik hegoaldera egin ahala, tenperatura igo egiten da

⁴ Hiru eremu nagusi berezi ohi dira Nafarroa Garaian: mendialdea, erdigunea eta Erribera. Mendialdeak baditu berezko geologia-ezaugarriak (Ardaiz 1980-1: 180): “Desde el punto de vista geomorfológico puede decirse que la Montaña coincide, en general, con el área de sedimentación marina mesozoicoecénica emergida y plegada con ocasión del movimiento tectónico alpino. Los límites con la Navarra Media quedan marcados por la Sierra de Urbasa y Andía y las cumbres de Sarbil, Perdón, Alaiz, Izco y Leyre”. Aldi berean, hiru eremu bereiz daitezke mendialdean (Ardaiz 1980-1: 180-181): ipar-mendebaleko Nafarroa hezea, Pirinioetako ibarrak eta Pirinioaurrea.

(1971: 15). Muga horrek euntze kopuruaren mugarekin bat egiten du: Araitzen, Larraunen, Basaburu Nagusian eta Ultzaman, nekazaritza-lurren % 71-99 euntzeak dira; kopuru hori nabarmen jaisten da Imotzen, Atetzen, Odietan eta Anuen (% 11-20), eta are nabarmenago jaisten da handik hegoaldera, labore-lurrak ugaritzearekin batera (1971: 5). Zuhaitz-landarediari dagokionez, pagoa erruz ageri da ipar-mendebaleko Nafarroa hezean, eta bakanduz doa handik hegoaldera (1971: 5).

Ardaizek batik bat klima, zuhaitz-landaredia, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak, eta herrien egitura aipatu ditu ipar-mendebaleko Nafarroa hezearen ezaugarritzat (1980-1: 180):

Abarca la porción más lluviosa de Navarra, la de clima más templado oceánico; en su flora predominan las frondosas atlánticas (robles, hayas), helechales y prados naturales. Es también un área de policultivo intensivo basado en la asociación de maíz, alubias y nabos; ganadería bovina, de campos cercados, de pequeñas aldeas y caseríos dispersos. Es el área donde más vivo se ha conservado el euskera.

Sus límites quedan determinados por el este, por el valle del Arga, el Sur de las Sierras de Urbasa y Andía y por el Sureste la Cuenca de Pamplona.

Hango abeltzaintzak baditu, halaber, zenbait berezitasun: esate baterako, latx arrazakoa da hango ardia, eta, Pirinioetan, aldiz, ile-zakar ardia izan ohi da (Ardaiz 1980-1: 180).

Lurraren jabegoaren egiturari begira, Imotzen hegoaldeko muga den Arakilen hasten da aldaketa, Iruñerriaren itxura hartzen hasten baita (Camino 2005a: 268, cf. García-Sanz Marcotegui 1985: 51):

Iruñerriarekin loturik dago Arakil: bertako herri txiki horiek, Iruñerriko herrixken egitura eta distribuzio berbera dute. Jabe txikien eskuetan dago lurra Sakanako erdialdean eta mendebalean, baina lurraren jabegoaren egitura aldatzen hasten zaigu Arakilen: bertan lur sail handien jabegoak ageri dira, eta ugari, gainera: euria ere bakanduz doa eremu honetan, Iruñerrira hurbilduz goazen heinean.

Ardaizek ere aipatu du Arakilek lotura handia duela Iruñerriarekin; funtzionalki Sakanaburundaren eta Iruñerriaren artean dagoela dio (1980-1: 188).

Ipar-mendebaleko Nafarroa hezeak berezko ezaugarriak badituela esan dugu; alabaina, Torres Lunak berak dioenez, dena ez da bat eremu horretan. Hain zuzen, bi eremu nagusi bereizi ditu, klimaren ezaugarrietan oinarrituz batez ere (1971: 26-28):

- Hegoaldeko ibarrak: Burunda, Barranka (alegia, Arakil eta Sakanako erdialdea), Ergoiena, **Larraun, Basaburu Nagusia, Imotz**, Ultzama, Anue, Atetz eta Odieta.

- Ibar kantauriarrek: Baztan, Bertizarana, Malerreka, Basaburu Txikia, Leitzaran (alegia, Leizta eta Areso), Urumea (Goizueta eta Arano), Bortziriak eta **Araitz-Betelu**.

Oro har, euri gehiago egiten du ibar kantauriarretan (1971: 18), eta horrek nekazaritzako lanak baldintzatzen ditu. Torres Lunak haietako bi eman ditu adibidetzat: belarra ebakitzea eta artoa ontzeko garaia. Oro har, urtean behin baizik ez dute belarra ebakitzen hegoaldeko ibarretan, eta maizago, aldiz, ibar kantauriarretan; artoari dagokionez, lehenago ontzen da hegoaldeko ibarretan, ibar kantauriarretan baino (1971: 18, cf. García-Sanz Marcotegui 1985: 50):

El número de cortes por año que reciben los prados, en primer lugar, y la fecha de maduración del maíz, en segundo, son a mi parecer las bases fundamentales para la distinción de climas comarcales. Efectivamente, al N. de la divisoria los prados se siegan por lo menos dos veces al año. En las Cinco Villas reciben tres cortes: el primero en mayo, el segundo en julio-agosto y el tercero a finales de septiembre; es lógico, por ser zona baja, de clima suave. En el resto de los valles cantábricos se siegan dos veces: una en junio y otra en septiembre; se nota un retraso del primer corte aquí respecto a Cinco Villas, pues tarda más en nacer la hierba: el distanciamiento del mar y la topografía más elevada pueden ser las causas. En el conjunto de estos valles destacan por un lado Goizueta y Arano —valle del Urumea— y por otro Leiza y Areso —valle del Leizarán—. También sus prados se cortan dos veces, pero la fecha del primero se adelanta a mayo y el segundo a agosto y primera mitad de septiembre. Son zonas muy próximas relativamente a la costa, que pueden ser consideradas en cuanto al corte de los prados como un apéndice de Cinco Villas donde el segundo y tercer corte de allí se refunden en el segundo de aquí. Todo el sector septentrional a que me estoy refiriendo cosecha el maíz durante el mes de noviembre; en algún fondo abrigado —Valle de Baztán por ejemplo— puede adelantarse a finales de octubre o primeros días de noviembre, pero no es lo normal.

Al S. de la divisoria las cosas cambian. Los prados se cortan una sola vez al año, aunque también existe matización en la fecha. Todo el sector de valles inmediatamente apoyados en la dorsal montañosa —Larraun, Basaburúa Mayor, Ulzama, Lanz y Anué— y parte de Imoz los siegan en la segunda mitad de junio y primera de julio, pues la humedad y las precipitaciones son todavía intensas. En el corredor de Araquil, parte de Imoz, en Atez y Odieta se siegan durante todo el mes de junio —entre el 24 y 30 generalmente— porque el tiempo es más seco y se adelantan. Algunos prados llanos se riegan y, a veces,

éstos reciben dos cortes. En cuanto a la recogida del maíz sí que se nota un neto adelanto de la estación vegetativa conforme se llega al S. y un retraso progresivo hacia el N. y E.: en Imoz, Atez y Odieta el maíz se recoge entre los últimos días de septiembre y los primeros de octubre; en el corredor del Araquil (27), Larraun y Basaburúa Mayor en todo el mes de octubre; en Ulzama a fines de octubre y principios de noviembre y en Anué y Lanz en noviembre.

Bestalde, Larraun eta Anue bitarteko eremuari trantsizio-kutsua hartu dio Torres Lunak (1971: 72):

Entre Larraun y Anué, entre las alturas de la divisoria de aguas atlántico-mediterránea y el límite meridional de la región estudiada en este trabajo, se dibuja otra gran comarca con una serie de afinidades y que realiza, en sentido S.-N., la perfecta transición hacia los valles cantábricos. Los prados son ya la principal dedicación del suelo, lo cual les liga al sector cantábrico, pero los cereales de invierno —sobre todo el trigo— ocupan después de las praderas lugar preferente y esto les emparenta con el corredor del Araquil y orla de valles en lo que se efectúa el paso a la Cuenca pamplonesa. La patata y la alfalfa siguen al trigo en cuanto a superficie cultivada, mientras la remolacha y el maíz todavía no han conquistado de preferencia. La remolacha y la patata se cosechan entre fines de septiembre y principios de octubre en la orla más meridional y durante octubre en el resto; incluso algunos concejos altos de la Ulzama y Anué hacen la recolección a fines de octubre y comienzo de noviembre.

En la porción de la Navarra húmeda que vierte al Cantábrico los cultivos no dejan libres las parcelas un sólo momento del año. Después de los prados, pieza maestra en la agricultura, se sitúa el maíz. Los cereales de invierno y primavera apenas cuentan, mientras que las plantas forrajeras —nabo, alfalfa, remolacha— y la patata están en pleno auge. La cosecha de maíz y remolacha se retrasa por lo general hasta noviembre, como en la comarca anterior.

Hegoaldeko ibarretan, tradizioz nekazaritza gailendu izan zaio abeltzaintzari, baina badirudi bi jarduerok berdintzera egin zutela duela hogeita bost bat urte (gaur egun, gainbeheran dira bi jarduerok; ikus 1.4.). Torres Lunaren ustez, ipar-mendebaleko Nafarroa hezearen batasun-irudia ematen du abeltzaintzaren nagusitasunak (1971: 153):

La común vocación ganadera refuerza la indiscutible unidad de conjunto que posee el Noroeste de Navarra aunque hasta hace pocos años la barrera de la divisoria haya separado los valles cantábricos, eminentemente ganaderos, de los meridionales, marcadamente agrícolas. Ahora unos y otros siguen el

mismo signo.

Las características geográficas del territorio, tanto físicas (topografía, clima, vegetación) como humanas (peculiar organización del territorio en valles, existencia de propiedad comunal y facerías, servidumbres tradicionales sobre la propiedad particular), han sido y son factor positivo para el desarrollo ganadero. Añádase a ello que se trata de una región equidistante de grandes ciudades como San Sebastián y Pamplona, centros de intensa demanda; tampoco hay que olvidar el papel de las áreas industriales próximas, en las que han decaído las actividades agropecuarias practicadas tradicionalmente y en cambio se han convertido en comarcas clientes de la región estudiada aquí.

Gure eremuko herriak batzen dituen beste ezaugarri bat da herriak nola dauden egituraturik. Bada aldea herri batetik bestera, baina, oro har, etxeak sakabanaturik egon ohi dira, bata bestetik urruti; bereziki deigarria da Intza eta Azkarate herrien egitura (Olza Zubiri 1979: 49, 50)⁵. Arakilgo herrietako populazioa ere herrigune txiki-txikietan sakabanaturik bizi da; Sakanako gainerako herriak, aldiz, handiagoak eta jendetsuagoak izan ohi dira (García-Sanz Marcotegui 1985: 41, 48).

Azken batean, tesi honetan aztergai ditugun lau ibarrek ez dute unitate administratibo bakarra osatzen, baina, aldi berean, bizimodu eta ohitura berak dituzte, eta, alde horretatik, homogeneotasuna badagoela esan daiteke (Olza Zubiri 32-33, 42)⁶.

Azken ohar bat gehitu nahi diegu arestiko datu geografikoei; hidrografiaz, hain zuzen. Imotz errekek ureztatzen ditu Imozko lurrak; Basaburuak Basaburu Nagusikoak, eta Larraunek Larraungo ekialdekoak (Azpirozko portutik ekialdera). Hiru erreka horiek Arakil ibaira isurtzen dituzte beren urak, Argara ondoren, Ebrora gero, eta, azkenik, Mediterraneo itsasora. Bestalde, Araxes ibaia igarotzen da Azpirozko portutik mendebalera dauden herri larraundarretatik eta Araitz-Betelutik; Araxes Oriarekin elkartzen da Tolosan, eta Kantaurin itsasoratzen da. Beraz, banaketa hidrografikoa bat dator Torres Lunak proposatutako banaketa geografikoarekin (eta banaketa horri jarraitu diote, funtsean, geroagoko geografia-atlasek ere). Ildo horretatik, Olza Zubirik ohartarazi du Azpirozko gainak bi ibar geografiko banatzen dituela —Larraun eta Araitz—; Azpirotz, Lezaeta eta Errazkin Araitzen barnean daude geografikoki, baina, aitzitik, Larraungo herriak dira administratiboki (1979: 45-46).

⁵ Intzan, mendia behera etorri da behin baino gehiagotan (XVIII. mendean, lehen aldiz), eta horregatik du herriak halako egitura sakabanatua (Olza Zubiri 1977, cf. Apalauza eta Arraztio 2007: 121-122).

⁶ Geografia, klima, abeltzaintza, nekazaritza, biztanle kopuru apala, habitata eta hizkuntza (euskara) aipatu ditu Olza Zubirik lau ibarren ezaugarri bateratzailatzat.

1.2. Orografia eta komunikabideak

Nafarroako mendialdean kokaturik daude lau ibarrak. Hango orografia menditsua da, beraz. Aginagako (Gulibar) Trinitatetik (1.088 m) Gipuzkoako Ataun-Zaldibia alderaino hedatzen da Aralar mendia, eta gure lau ibarrak bete-bete harrapatzen ditu. Larraunen eta Araitz-Betelun daude mendirik garaienak (Gipuzkoa eta Nafarroa banatzen dituen Irumugarrieta gailurrak 1.427 m ditu). Eremu menditsua izanik ere, herriak ongi komunikatuta daude elkarren artean. Jakina, geografikoki altuen dauden herrietarantzko errepideak geroago eraiki zituzten; esate baterako, Altadill-ek 1912an idatzi zuen Araitz-Beteluko Intza herriak ez zuela artean errepiderik (27. or.).

Errepide ondoko herriek kanpoko eragin handiagoa jaso ohi dute (cf. Olza Zubiri 1979: 29). Gure kasuan, honako herri hauek ditugu Iruñea eta Donostia lotzen dituen errepide nagusiaren ondoan: Latasa, Urritza, Lekunberri, Betelu, Arribe eta Atallu. Gainerakoak errepide nagusitik urrutiago gelditzen dira.

Gorago ere aipatu dugu gure eremuko lau ibarren kokapenaren garrantzia: Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko komunikabide nagusia dira, batez ere Imozko mendebala, Larraun eta Araitz-Betelu. Basaburu Nagusia eta Imozko ekialdeko herriak (Zarrantz, Etxaleku, Oskotz eta Muskitz) ardatz horretatik urrutiago gelditzen dira neurri batean.

Baina egin dezagun historian atzera. Hain zuzen, Gipuzkoatik hurbil egoteak eragin handia izan du Araitz-Betelun, Larraunen (mendebaleko herrietan batik bat), Leitzan edota Areson, eta baita, iparralderago, Bidasoa aldean ere. Urabaienek dioenez, antzinakoa da Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko harremana (1926: 554).

1200. urtean, Gipuzkoa Gaztela izatera igaro zen, eta Gipuzkoako mugaren ondoko herri nafarrek gipuzkoarren erasoei aurre egin behar izan zieten urte askoan, Gaztelak Nafarroa bereganatu zuen arte behinik behin (1512. urtean). Hona Urabaienen hitzak (1959: 64)⁷:

Por los valles del Bidasoa, Leizarán y Araxes solían algunas veces irrumpir los guipuzcoanos, pues los pueblos fronterizos de Guipúzcoa estaban casi siempre en guerra contra los de Navarra. De los de la

⁷ Geroago ere, XVIII. mendean, araitzarrek frantses eta espainiarren erasoak jasan behar izan zituzten (Elosegi 1972: 55): “En Araiz, las tropas francesas primero y las españolas a continuación, en flujo y reflujó guerrero, ocuparon durante largos meses el valle, cometiendo innumerables daños y latrocinios (...)”.

tierra de Araiz (que corresponde a la cuenca del río Araxes) decía el rey de Navarra en 1381 «que vivían en frontera de Guipúzcoa, con las gentes de la cual tierra habían siempre quiacer continuadamente». Lo mismo decía con respecto a los pueblos del valle de Larráun, que está sobre la cuenca del río Leizarán.

Tolosa hiriaren sorrerak (1256. urtean), Gipuzkoan ez ezik (cf. Garmendia Larrañaga eta Zabala 2007: 20), eragin nabarmena izan zuen muga ondoko herri nafarretan, bai ekonomian bai eguneroko bizimoduan (Olano 1998: 33)⁸:

... herri zahar ttiki hauentzat Tolosako sortze eta indartzea arras garrantzitsua gertatuko zen. Eta dirudienez, gertakizun honek ondorio arrunt desberdinak ekarri zituen. Batetik, Goizueta eta Burunda bitarteko eremua –Nafarroa eta Castilla arteko muga izaki– borrokaleku gordin bilakatu zen, eta gipuztek Tolosatik barrena bideratuko zituzten eraso bildurgarri haietarik asko. Bestetik —Tolosako jauntxoek Iruñera bitarteko komertzioidea gobernatzeko interes handia baitzuten—, inguru hau guztia salgaien pasabide garrantzitsua izanen zen.

Borrokaldiak borrokaldi, Iruñea eta Tolosa lotzen zituen bidea oso garrantzitsu bilakatu zen, eta, bide horretan, Gorriti herria nabarmentzen zen. Gaur egun arrastorik ez dagoen arren, gaztelu bat bazen han, begiraleku-funtzioa zuena (Olano 1998: 34; cf. Peña Santiago 1986: 54, 61-62):

... mugako gerrate eta ezinikusiak gorabehera, borrokaldi horrek guretzat badu bestelako zeresanik. Izan ere, gudaroste gipuzkoarrek honakoan nahiz nafarrek harakoan jarraitu zuten bidea gerora Nafarroa eta Gipuzkoa bitarteko pasabiderik nabarmenetakoa izanen baitzen: Iruñea eta Tolosa lotzen zituen errepeidea hain zuzen. Gorriti bera omen zen nafar mugako aterik behinena, zeinetan gaur egun arrastorik utzi ez duen gazteluak begiraleku funtzioa zuen.

Erdi Arotik hasita heldu zaigu Iruñea eta Tolosa arteko bide zaharraren berri. Recondok dioenez, mandazainek bide huraxe erabili zuten XIII. mendetik XVIII. mendera arte (2010: 276). Gorago esan dugunez, Gipuzkoa Gaztelaren menpe zen XIII. menderako, eta, ondorioz, Gipuzkoaren eta Nafarroako erresumaren arteko merkataritza-harremanak zergapeko bihurtu ziren handik aurrera. Horrek bi aldeetan aduana-postuak ezartzea ekarri zuen, eta gure eremuan ere baziren haietako batzuk (Recondo 2010: 276):

Gipuzkoako aldean ‘kai lehorrak’ deitu ziren, eta Tolosan, Ordizian eta Ataunen zeuden; Nafarroako aldean berriz, ‘taulak’ esaten zieten, eta Lekunberrin, Gorritin eta Atondon zeuden (...).

⁸ Leitza, Areso eta Berastegi herriez ari da Olano, baina aipua gure eremurako ere balio du.

Aduana garrantzitsuenak Tolosa, Lekunberri eta Gorritikoak ziren. Nafarroa eta Aragoi helburu, Donostia, Errenteria eta Getariatik zetozen salgai guztietarako aduana horiek erabili behar ziren (...).

Honako herri eta hiri hauek zeharkatzen zituen Erdi Aroko bide hark: Iruñea, Artika, Berriozar, Aitzoain, Berriobeiti, Elkartea, Oteitza, Saratsa, Eritze, Saratsate, Gulia, Aizkorbe, Irurtzun, Latasa, Urritza, Lekunberri, Azpirotz, Gorriti, Leitza, Areso, Berastegi eta Tolosa. Recondok dioenez, “bideak herriguneak zeharkatzen ohi zituen baina Artika, Berriozar, Aitzoain eta Oteitzan soilik udal dermioa zeharkatzen zuen. Bide honen beste ingurabide batek Gorriti hartzen zuen Lekunberritik pasa gabe. Xendrak Etxaleku, Etxarri eta Aldatz herriak zeharkatzen zituen” (2010: 276).

Lekunberritik Tolosara joateko, mandazainek bi bide zituzten aukeran (Recondo 2010: 276):

Bide zaharrari jarraitzen zioten mandazainek, Lekunberriira iristen zirenean, bi bideren artean hautatu behar zuten baldin eta Tolosaraino jarraitu nahi bazuten. Bide bat, erabiliena, Azpirozko herriraino iristen zen. Hor, bidaiariak bi bide zituen aukeran; horietako bat Leitza barna, Berastegi eta Tolosaraino iristeko; bestea Gorrititik igarotzen zen, eta Tolosara iristen zen Uli eta Gaztelu barna (...). Beste bidea gutxiagotan erabiltzen zen, eta Araitz barrena igarotzen zen Errazkin, Betelu, Uztegi eta Azkaratetik zehar. Hortik Zarateko mendatera eta Bedaioko Gipuzkoako mugara iristen zen. Hortik, Alzora eta Tolosara.

4. irudia: Iruñea eta Tolosa arteko bidea Erdi Aroan (Recondo 2010: 280)



Camino medieval de Pamplona a Tolosa. Fue la vía más importante de comunicación entre Navarra y Gipuzkoa durante los siglos XIII al XVIII. El camino carreteril que sustituyó a la vieja calzada seguía un itinerario paralelo a ésta, aunque ambas coincidían en los lugares de Erice, Irurtzun y Lekunberri. Dibujo E. Salvador y J.A. Recondo.

Iruñetik Tolosarako Erdi Aroko bidea. Gipuzkoa eta Nafarroa arteko garraibide garrantzi-tsuen izan zen XIII. eta XVIII. mende artean. Bide zaharra ordezkatu zuen gurdibidearen bideak ondotik egiten zuen, baina biek bat egiten zuten Eritzen, Irurtzunen eta Lekunberriin. E. Salvador eta J.A. Recondoren marrazkia.

Olanok dioenez (1998: 35), “garai hartan Tolosak, mugako gerrateak gorabehera, ausarki zaindu zuen Nafarroarekin lotzen zuen bide hau. Izan ere, Oria ibarrean ederki kokaturik, eta Probintziarako sarlekurik nagusienetako izaki, ez baitzen ttikia izanen mugasarien bitartez bertako jauntxoek eskuratuko zuten diruketa (...)”.

1784. urtean, Iruñea eta Tolosa arteko gurdibidea eraikitzen hasi ziren (Urabaien 1926: 332). Hiru urtean amaitu zuten, eta, gutxi gorabehera, gaur egungo NA-130 eta NA-240-A errepideak hartzen zituen (Recondo 2010: 24). Gurdibide hark mandabide zaharra ordezkatu zuen nolabait; alabaina, badirudi XIX. mendean artean maiz erabiltzen zela bide zaharra, bai Larraun eta Leitza arteko zatia behinik behin (Olano 1998: 39):

... Larraun eta Leitza bitarteko komunikazioari zegokionez, XIX. mendean biderik ohikoena oraindik hori bera izan zitekeela dirudi. Izan ere, zegokeen azpiegiturak bidaia errazteaz gainera, Pagozelaiko gaina –Gorriti eta Areso artekoa– Uitziko gaina baino beherago baitago.

XIX. mendearen erdialdean, zazpi gurdibide zeuden Nafarroan, eta haietako bat zen, hain zuzen, Iruñea eta Tolosa artekoa (Recondo 2010: 290). Recondoren lanean zehar irakur daitekeenez, garrantzi handia izan zuen; jendea erabat ibiltzen zen bide horretan gora eta behera, eta, pentsatzekoa denez, jende-mugimendu horrek arrastoa utzi zuen bideak zeharkatzen zituen herrietan. Besteak beste, benta ugari altxatu zituzten hainbat herritan (Recondo 2010: 186):

Iruñea eta Tolosa arteko bidean benta eta ostatu asko altxatu ziren. 26 bentak (sic) izan zirela baieztatu ahal izan dugu (...). Haietariko 18 oraindik zutik daude. Bakarrik Mugiroko Benta dago zabalik. Bentak oso denbora tarte handian ireki ziren. Lehena Atalluko Ostatu Aundia izan zen, 1791n. Azkena, Jacinto Ayestaranen Postetxea edo Ostatua, 1912an Lekunberrin zabaldu zena.

Lezaetako benta, esate baterako, bizi-bizi egon zen XIX. mendearen erdialdean (Recondo 2010: 148):

Lezaetako Benta edo Benta Zaharra Azpirozko mendatearen hasieran zegoen, eta Iruñerako bidea zeramaten orga zamatuak bertan gelditzen ziren aurrean idi-parea jartzeko, orga eta animaliak mendi pikotik gora eramateko. Benta Zaharrean giro bizia zegoen, beti jendez betea eta beti musika; kartetan jokatzeko zuten, apustuak egiten ziren... eta oso ondo jaten zen. Horregatik, jende askorentzako ezinbesteko geldialdia zen. Diligentziak ere bertan gelditzen ziren, bidaiariek, mendatearen igoera neketsua hasi baino lehen, atsedena hartu eta egin beharreko gauzak egin zituzten.

Merkatari eta salerostunen mugimendu handia bildu zuen, beraz, bide hark. Esate baterako, XIX. mendean indar handia izan zuen ardoaren salerosketak —Larraun eta Araitz ibarretan, batez ere—: larraundarrek eta araitzarrek Zangozan, Garesen edota Errioxan erosten zuten ardoa, eta gero Gipuzkoara eramaten zuten han saltzeko (Recondo 2010: 298-301). Baina, merkatarientzako bide ez ezik, aisiarako baliabide ere izan zen bide hura. Esate baterako, 1884an sortu zen Beteluko bainuetxea, eta bainuzale dirudun ugari biltzen zen han. Bainuzaleak trenez iritsi ohi ziren Tolosara edota Irurtzunera, eta handik, gurdibidea erabiliz, Betelura iristen ziren gurdiz, zalgurdiz,

omnibusez edo luxuzko autoz (Recondo 2010: 52, 74). Recondok dioenez, Beteluren kokapena izan zen bainuetxearen arrakastaren giltza (2010: 74):

Beteluko bainuetxearen arrakasta ez zen bakarrik lortu kalitate handiko ur eta instalazioak edukitzeagatik, baizik eta trenez eta errepidez oso garraio bide egokiak izan zituelako. Horri esker, osasunarekin kezkatuta zegoen hirietako burgesia dirudun eta zeregin gabekoak bere desioa bete ahal izan zuen, hau da Betelura urak hartzera joan ahal izan zuen.

Leitzarango, Larraungo eta Araitz-Beteluko herrien kokapen estrategikoak, beraz, eskualde horretako historia baldintzatu du: nafarren eta gipuzkoarren arteko harremanaren erakusgarri argia dira. Harreman horien guztien ondorio da, halaber, Gipuzkoako armarrria izatea gure eremuko zenbait etxetan, hala nola Gaintzan edota Gorritin.

Errepide-sareaz gain, gure eremuaren zati bat alderik alde zeharkatzen zuen **Plazaola trena** aipatu beharrean gaude. XX. mendearen hasieran sortu zen, 1902-1904 urteetan, eta Leitzarango aldeko meua Andoaina garraiatzeko erabiltzen zuten. Ondoren, Andoaindik Pasaiako portura garraiatzen zuten meua hura. Urte batzuk geroago, 1914 aldera, Plazaola trena Lasarteraino zabaldu zuten, salgaiak handik Donostiara lehendabizi eta Pasaiako portura ondoren garraiatzeko. Trenbide-sarea hedatzearekin batera, jendearentzako garraio bide ere bihurtu zen Plazaola trena. Tren hark Iruñean zuen lehen geltokia, eta, ondoren, Aitzoain, Saratsa, Gulia, Irurtzun, eta gure eremuaren barnean diren Latasa, Lekunberri eta Uitzu herrietan gelditzen zen. Handik, Leitzatik barrena Leitzarangoan sartu, eta Gipuzkoarantz egiten zuen, Donostiaraino. 1920. urterako, meategiek indarra galdu zuten, eta Plazaola trenak batik bat jendea, egurra edota aziendak garraiatzen zituen. Gerra-ondoan, estraperlorako ere erabiltzen zuten trena. Baina trena indarra galduz joan zen, eta, azkenean, haren jarduna eten egin zen 1958. urtean.

Historia laburreko komunikabidea dugu, beraz, Plazaola trena, baina igarotzen zituen herrien historian eta bizimoduan arrastoa utzitakoa. Gure eremuari dagokionez, Latasara eta Lekunberrira udatiar ugari etortzen zen trenean, eta horrek nolabaiteko estatusa eman zien bi herrioi. Altadillek dioenez, Lekunberriren hazkuntza trenaren eskutik etorri zen XX. mendearen hasieran, besteak beste (1912: 227). Azken batean, trenak Lekunberriko bizitza soziala eta ekonomia hauspotu zituen (Recondo 2010: 156-160):

Trenak Lekunberriko ekonomia eta bizitza soziala bultzatu zuen. Hogeiko urteetan, trenaren geltokia herritarrak biltzeko toki nagusia zen. Igandeetan, jendea dotore janzten zen kaietan paseatzeko, eta trenari harrera musikaz egiten zioten, eta musikaz agurtzen zuten gero. Geltokia eta herriaren arteko bidea argiez eta bankuez dotoretu zuten, eta bertako maiteminduen ibilbide gogokoenetako bat izan zen.

Bestalde, Sánchez Carrión ikertzaileak dio tren-geltokia Latasan ezartzeak herri horretara kanpoko jende asko etortzea ekarri zuela (geltokian lan egitera, besteak beste); kanpoko jende hori Latasan bizitzen gelditu zen azkenean, eta horrek herria erdalduntzea ekarri zuen (1972a: 156).

Azkenik, eliz-barrutien banaketa aipatuko dugu atal honetan. Caminok dioenez, Nafarroan behinik behin “aski ongi ezkontzen dira” hizkeren banaketa eta eliz-barrutien banaketa (2003a: 16). XIII-XIV. mendeetatik aurrera, Arakilgo barrutian kokatu zituzten gure eremuko lau ibarrak, honako hauekin batera: Gulibar, Sakana, Basaburu Txikia, Leitza, Areso, Goizueta eta Arano. Auzo-ibarrei dagokienez, Anueko barrutira bildu zituzten Ultzama, Atetz eta Txulapain, beste ibar batzuekin batera: Ezkabarte, Odieta, Olaibar, Anue, Lantz, Esteribar, Erroibar, Orreaga, Auritz eta Luzaide.

1.3. Demografia-datuak

Jende gutxi bizi da gure eremuko herrietan. Lekunberri da eremuko herririk haziena: 1.178 biztanle zituen 2007an. Hain zuzen, hazten ari den herria da Lekunberri, baina kontrako joera da nagusi gainerako herri gehientsuenetan. Gaur egun, bada hogeitaz inguru besterik biltzen ez duen herri multzo bat (Goldaratz, Zarrantz, Muskitz, Aizarotz, Beramendi, Udabe, Albiasu, Astitz, Madotz), eta gainerako herri gehienak ez dira ehun lagun izatera iristen. Gure eremuko demografia-datuak aztertuz gero, garbi ikusten da XIX. mendearen erdialdetik aurrera demografiak behera egin duela nabarmen gure eremuko lau ibarretan.

Hona Nafarroako Estatistika Institutuaren datuak (www.cfnavarra.es/estadistica)⁹:

Urtea	Imotz	Basaburu Nagusia	Larraun	Lekunberri	Araitz	Betelu
1857	1.209	1.755	3.889	---	1.947	690
1900	997	1.497	3.457	---	1.513	514
1940	1.023	1.612	3.179	---	1.301	444
1960	874	1.355	2.851	---	1.078	370
1970	592	1.115	2.403	---	987	375
1981	457	850	2.015	---	731	364
1991	429	736	1.762	---	568	309
1996	405	682	1.120	846	613	334
2001	396	667	1.075	861	608	350
2007	433	834	1.051	1.178	586	345

Datuetan ikusten denez, biztanle kopuruak behera egin du lau ibarretan. Beheranzko joera nabaritzen hasia zen XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen hasierara, baina bereziki nabarmena izan zen 1960-1981 urteen artean. Urte haietan, hain zuzen, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren gainbehera hasi zen, beste aukera batzuk zabaltzearekin batera: gure eremuko biztanle askok hiriguneetara jo zuten industriari eta zerbitzuei lotutako bizimoduaren bila (cf. Ugalde 2003: 2, 9 eta Ardaiz 1980-1: 200). Horren ondorioz, herriak husten ari dira, eta, Homobonok dioenez, biztanleria zahartzea, gero eta emakume gutxiago egotea eta nekazaritzan aritzen den populazioa zahartzea dakar horrek (1989: 414-415). Ugaldek beste ondorio bat ere aipatu du: jaiotze-tasa asko jaitsi da (2003: 7). Azken batean, aztergai dugun erkidegoaren egitura demografikoa errotik aldatu da.

Nolanahi ere, azken urteotan, demografia-indizea gora egiten ari da, oso apal bada ere, batez ere Basaburu Nagusian eta Lekunberrin. Lekunberriko kasua da argigarriena: badirudi Larraungo biztanle kopuruak behera egin ahala Lekunberrikoak gora egiten duela. Areago, gaur egun, jende gehiago bizi da Lekunberrin, Larraungo gainerako herri guztietan baino. Imotz eta Basaburu Nagusia ere gora doaz azkenaldian (Lekunberri baino apalago, betiere); izan ere, badirudi kontrako joera gertatzen ari dela gaur egun, jendea hirietatik herrietara bizitzera joaten hasia baita (oso joera berria da, nolanahi ere). Azkenik, Araitz-Betelun, biztanle kopurua behera doa urtetik urtera.

⁹ Gorago esan dugunez, Lekunberri 1995ean banandu zen Larraundik; demografia-datuak ere bereiz ageri dira ordutik aurrera, eta guk ere bereizkuntza horri eutsi diogu. Halaber, bereiz ageri dira Araizko eta Beteluko biztanle kopuruak.

1.4. Jarduera ekonomikoa

Tradizioz nekazaria eta abeltzaina izan den eskualde batean daude Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarrak¹⁰, baina egoera asko aldatu da azken berrogeita hamar urtean. Izan ere, nekazaritzak eta abeltzaintzak indarra galdu dute, eta gero eta langile gehiago aritzen da industrian eta zerbitzuen sektorean (cf. Olza Zubiri 1979).

Baina horrek ez du esan nahi industria eta zerbitzuak gure eremuan bizkor dabilzanik. Oro har, industria- eta zerbitzu-gune urriko eremua da gurea, eta gabezia horrek lau ibarrotako jendea beste gune batzuetara lanera (eta are bizitzera ere) joatea eragin du: Iruñera batik bat, baina baita beste herri txikiagoetara ere, hala nola Irurtzun, Altsasu, Arbizu, Leitza edota Gipuzkoako Tolosa, Andoain eta Hernani (batez ere Araitz-Betelutik)¹¹. Homobonok dioenez (1989: 413-414), Nafarroako eskualderik desegituratuenetako bat osatzen dute Imotz, Basaburua, Larraun, Anue, Lantz, Atetz, Ultzama eta Odieta ibarrek.

Industriari dagokionez, Lekunberri dugu herririk garatuena: gaur egun, hogeit hamar enpresa inguru biltzen ditu herriko industrialdeak, eta Lekunberriko eta inguruko herrietako langile askori ematen dio lana. Enpresa kopurua gora egiten ari da, gainera; industria arloak indar handia hartu du Lekunberri azken urteotan, batez ere 1995ean Larraundik banandu eta bere kasa funtzionatzen hasi zenetik. Gainerako herriei dagokienez, aipatzekoa da Beteluko Wisco Española fundizio-lantegia, 1965ean sortua. Batez ere araitarrak, beteluarrek eta inguru hurbileko langileak aritzen dira lantegi horretan. Gainerakoan, ia ez dago industriarik Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitzen: badira enpresa txikiak (granjak, zurgindegiak, gazta-ekoizleak, eta abar), baina jarduera txikiak dira betiere.

Zerbitzuen sektoreari dagokionez, berriz, Lekunberri du gure eremuko zerbitzu-hornidurarik handiena: baditu zerbitzu publikoak (kultura, osasuna, hezkuntza, administrazioa) zein pribatuak (jatetxeak, ostatuak, hotelak, kanpina, taxiak, bankuak, tailerrak, orotariko saltokiak, eta abar). Maila apalagoan, Betelu ere ongi hornituta dago: saltokiak, bankuak, taberna, eskola... baina

¹⁰ Baina beste jarduera batzuk ere baziren garai batean: berun-meatzeetako langileak, ikazkinak, jostunak, neskame eta morroiak, eta abar.

¹¹ Hauxe dio Olza Zubirik gure eremuaz (1979: 135): “Los jóvenes de los otros pueblos van a trabajar a Leiza, Lecumberri o Irurtzun, que son los tres pueblos principales de la zona. No hay en la zona industrias que elaboren los productos de la ganadería. La leche, recogida por camiones va a parar a fábricas de la Ulzama o Pamplona”.

Lekunberrin baino askoz zerbitzu gutxiago dago. Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitzen, aldiz, urria da zerbitzuen sektorea: hango herri gehienetan ez da ez dendarik ez tabernarik ere, eta, esate baterako, oraindik orain astero (edo astean bitan, zenbait kasutan) joan ohi da janari-saltzailea herri horietara, herritarrek oinarri-oinarrizko gaiak gutxienez eskura izan ditzaten, nahiz eta erosketa gehienak hurbileko gune handiagoetan egiten dituzten (Irurtzun, Iruñea, Tolosa...).

Aldaketak aldaketa, langile asko nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen da oraindik ere, eta jarduera ekonomiko garrantzitsuak dira gure eskualde osoan, batez ere Basaburu Nagusian eta Larraunen. Hona hemen Nafarroako Estatistika Institutuak gure eremuko jarduera ekonomikoari buruz emandako azken datuak (2001. urtea):

IMOTZ

Jarduera ekonomikoa	Langile kopurua
Nekazaritza eta abeltzaintza	52
Zerbitzuak	91
Industria	41
Eraikuntza	18
Energia	1

BASABURU NAGUSIA

Jarduera ekonomikoa	Langile kopurua
Nekazaritza eta abeltzaintza	95
Zerbitzuak	103
Industria	41
Eraikuntza	51
Energia	1

LARRAUN

Jarduera ekonomikoa	Langile kopurua
Nekazaritza eta abeltzaintza	96
Zerbitzuak	163
Industria	94
Eraikuntza	35
Energia	4

LEKUNBERRI

Jarduera ekonomikoa	Langile kopurua
Nekazaritza eta abeltzaintza	16
Zerbitzuak	245
Industria	98
Eraikuntza	46
Energia	4

ARAITZ

Jarduera ekonomikoa	Langile kopurua
Nekazaritza eta abeltzaintza	38
Zerbitzuak	88
Industria	77
Eraikuntza	19
Energia	2

BETELU

Jarduera ekonomikoa	Langile kopurua
Nekazaritza eta abeltzaintza	12
Zerbitzuak	74
Industria	36
Eraikuntza	14
Energia	2

Beraz, gaur egun, aztergai ditugun lau ibarretako langile gehienak zerbitzuen arloan aritzen dira, baina industrian aritzen direnen kopuruak ere oso gora daude, batik bat Larraunen, Lekunberrin eta Araitzen. Nekazaritzari eta abeltzaintzari dagokienez, Basaburu Nagusian eta Larraunen, ia-ia zerbitzuetan bezainbeste lagun aritzen dira bi arlo horietan, baina nekazari eta abeltzain kopurua behera egiten ari da urtetik urtera. Lekunberrin eta Araitz-Betelun, desagertze-bidean dira bi jarduerok, langile kopuru baxua biltzen baitute dagoeneko. Gainera, gaur egungo nekazari eta abeltzainak ez dira duela ehun urtekoak bezalakoak; hobekuntzak izan dituzte (makinak, ukuilu txukunagoak, pentsuak...), baina familia-esparruko jarduera izaten jarraitzen du (Olza Zubiri 1979: 44). Bestalde, kontuan izan behar da nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen direnak ez direla, oro har, arlo horietan bakarrik aritzen; alegia, industrian edo zerbitzuetan lan egiten dute, eta aldi berean etxeko azienda (esne-behiak, batik bat) zaintzen dute (Olza Zubiri 1979: 54):

... el ganadero ha compaginado el trabajo en la industria con el cuidado del ganado. Parecía la solución ideal. Mientras de una parte entraba en la familia un sueldo fijo, del trabajo del cabeza de familia en la industria, por otra se podían cuidar algunas vacas en la casa.

Horra hor, bada, Homobonok aipatzen duen desegitura- eta desoreka-egoeraren gako (1989: 413-414, gorago aipatua): alegia, Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko biztanle gehienak industrian eta zerbitzuetan aritzen dira, baina beren herrietatik kanpora jo behar izaten dute jarduera horietan aritzeko, egitura ekonomiko sendoagoa eta orekatuagoa duten gunetara, hain zuzen (cf. Olza Zubiri 1979: 136 eta Ardaiz 1980-1: 186). Batik bat Iruñera joaten dira lanera, baina Irurtzuna ere jotzen dute imoztar, basaburuar eta larraundarrek, Altsasura edota Arbizura imoztar eta basaburuarrek, Leitzara larraundarrek, Tolosara edo Donostiara araitz-beteluarrek, eta abar.

Breton-ek dioenez, garapen ekonomikoak erkidego bat desegituratzea ekar dezake, baina, aldi berean, erkidegoa sendotu egin dezake (1979: 56-57):

Y precisamente a menudo el desarrollo económico tendrá consecuencias gravísimas para la vida del grupo, su estructura social, su distribución espacial, ya sea porque se creen nuevas actividades en su territorio que motiven afluencias del exterior, o bien porque el grupo se vea atraído, aunque sólo sea en parte, hacia centros más alejados. De cualquier modo, la existencia o el nacimiento de una red urbana son elementos capitales para la solidez del grupo; asimismo la presencia de instituciones políticas, ya sean endógenas o bien creadas en el exterior; y, por último, la aparición de un centro de decisión en correspondencia con un centro urbano, es decir, una capital, una metrópoli.

1.5. Azken oharrak

Lekunberri da, gaur egun, aztergai dugun eskualdeko herrigunerik bizkorrena demografiari eta ekonomiari dagokienez. XX. mendearen hasieran hasi zen Lekunberri suspertzen; antza denez, orduan hasi ziren Iruñeko eta Donostiako familia aberatsak Lekunberrira uda pasatzera joaten, eta, Plazaola trenarekin batera, zerbitzuen sektorea indarra hartuz joan zen. Horixe ematen dute aditzera Altadillen (1912: 227) eta Urabaienen (1959: 343) aipuok, hurrenez hurren:

Este es el lugar que más avanza entre todos los del valle, como lo evidencian sus incesantes edificaciones y mejoras desde que hace un año disfruta los beneficios del ferrocarril y el consiguiente aumento de veraneantes y turistas.

Un caso de proliferación es el de Lecumberri (Larraún, Pamplona). El núcleo primitivo del pueblo está formado por casas separadas, grandes, distribuidas sin ninguna alineación. La edificación primitiva, de casas sueltas, se conserva, pues, igual. Es un pueblo más del Larraún. Más tarde, el siglo pasado, la carretera de Pamplona a San Sebastián pasó por un extremo del pueblo sin ejercer influencia sobre su núcleo. Pero antes de llegar a éste se establecieron después un convento, hoteles, el Ayuntamiento, una fábrica de harinas, comercios y viviendas, y éstas comienzan a extenderse ahora hacia la estación del ferrocarril del Plazaola, construido a principios del presente siglo. Este ferrocarril, que pasa cerca del pueblo, sólo ha originado dos o tres edificios, pero ha contribuido, indudablemente, a la formación del barrio nuevo a lo largo de la carretera, pues dicho barrio se encuentra entre la estación del ferrocarril y el pueblo. Hoy tiene mucha más importancia el tráfico a través de Lecumberri por la carretera que por el ferrocarril, hasta el punto de haber sido éste suprimido. Hay que notar, también, que Lecumberri es un lugar de veraneo.

Lekunberriko industriaren hazkuntza kontu berria dela ikusi dugu gorago, baina joera hori indartuz doa urtetik urtera, eta aintzat hartzeko kokagunea izango da Lekunberri aurrerantzean, bai behinik behin hurbileko herrien jarduera ekonomikoari begira. Ugaldek dio batik bat industriak salbuetsi duela Lekunberri —eta baita Irurtzun ere— gainbeheratik (2003: 2).

Maila apalagoan, Beteluk ere badu bilgune- eta erdigune-sena, eta hala izan da historian ere. 1694. urtetik aurrera, Araiztik bereiz ibili da administratiboki, eta, gainera, hiribildu-izaera lortu zuen urte hartan¹². XIX. mendearen hasieran Betelun eraiki zuten bainuetxeak ospe handia izan zuen (Alfonso XII.a erregeak berak han igarotzen zuen uda-sasoia, XIX. mendearen bukaeran; Recondo 2010: 88-96), eta Betelu aldera jende asko etortzea ekarri zuen horrek; horren adierazgarri, mende horren 40ko hamarkadan, gutxienez sei taberna izan ziren herrian (Recondo 2010: 100). Alabaina, 1936ko gerrarekin batera itzaliz joan zen bainuetxea, eta guztiz itxi zuten 1966an. Nolanahi ere, oraindik ere Beteluko ura ontziratzen jarraitzen dute bainuetxea zenaren gainean eraikitako lantegian.

Gainerantzean, ez da izan bereziki nabarmendu den herririk: Etxaleku dugu Imozko ibarburua, Jauntsarats Basaburu Nagusikoa, eta Arribe Araizkoa, eta herri horietan daude ibar bakoitzari

¹² Hiribildu-izaera lortzeko, Beteluk 500 dukat ordaindu zizkion Gaztelari. Nolanahi ere, Gaztelak Nafarroari eraso baino lehenago ere zenbait abantaila bazituen Beteluk: esate baterako, 1507an, Joan eta Katalina errege-erreginek hainbat zerga eta betebeharretatik salbuetsi zuten Betelu, eta Fernando V.a erregeak abantaila horiei eutsi egin zien 1514an. Beteluek kaparetasun-pribilegioak dituzte Nafarroako erregetzarekiko izandako leialtasun eta prestutasunagatik.

dagozkion udaletxeak, baina ez dira beste ezein arlotan gailentzen¹³. Bistan da, beraz, Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araithz-Beteluko bizilagunek beste erdigune batzuk bilatu behar izan dituztela beren beharrak asetzeko (etxean ez zutena kanpoan bilatu behar); hurrengo atalean aztertuko dugu zein izan diren erdigune horiek, nolako harremanak izan dituzten haiekin, eta abar.

¹³ Larrauni dagokionez, Lekunberri izan da hango ibarburua berriki arte, Lekunberri udalerri beregaina baita 1995. urtetik (ikus 1.1.); Larraungo Udala Mugiron jartzekotan dira, baina ezin esan dugu Mugiro Larraungo ibarburua denik, ez orain arte behinik behin.

2. HARREMAN SOZIOEKONOMIKOAK

2.1. Sarrera

Gizakien arteko harremanek garrantzi handia dute arlo askotan. Esate baterako, bideak edo errepedeak eraikitzeke orduan, erliebeari berari baino garrantzi handiagoa ematen zaie (Urabaien 1926: 295):

Pero nos engañaríamos si creyésemos que el relieve era quien imponía fundamentalmente el trazado. No. Lo fundamental es el fenómeno de relación entre unos y otros grupos humanos. Por eso las grandes montañas casi nunca son obstáculo suficiente para impedir esa relación. De ello tenemos abundantes ejemplos en Navarra. Las carreteras vencen a las montañas cuando éstas se les interponen.

Giza harremanak eta hizkuntza osotara loturik daude; Meilletek dioenez, “ez dago hizkuntza bat ulertzerik, erabiltzen duen jendearen bizi-baldintzen berri izan gabe; are gehiago, ezin da erlijiorik edo giza ohiturarik benetan ulertu, haien arabera bizi direnen hizkuntza ezagutu gabe” (2001 [1924]: 13-14). Giza harremanek, gainera, zuzenean eragiten dute hizkuntzan:

Estas peculiaridades lingüísticas se corresponden básicamente con relaciones socioeconómicas sedimentadas a través de los siglos. (Homobono 1989: 415)

... la lengua es producto de las relaciones sociales, políticas e históricas que tienen sus hablantes. De ahí que las características regionales y sociales de los hablantes puedan intervenir como factores que afectan al uso de la lengua y, eventualmente, al cambio lingüístico. (Hualde, Olarrea eta Escobar 2001: 330)

Bergs-ek erakutsi duenez, edozein garaitan izandako hizkuntza-aldaketak ulertzeko, lagungarri gerta daiteke garaiko komunikazio-sarearen —eta, horrenbestez, giza harremanen sarearen— ezaugarriei erreparatzea (“the human thread” kontzeptua darabil iker-eremu hori definitzeko); esate baterako, Ingalaterran, bide- eta ibai-sareari jarraituz hedatu ziren hizkuntza-berrikuntzak Erdi Aroan (2006: 13-25).

Gaur egungo gizartean, gainera, aldaketak azkarrago gertatzen dira, eta gero eta nabariagoa da gaurko belaunaldien eta atzeragokoen arteko etena (Dorian 2001 [1991]: 25-26):

Warfare and conquest, voluntary or involuntary migration, resource scarcity or resource abundance, intense trade contacts –all these can lead to great changes. (...) Over a long period of time, a people that was once distinct and cohesive can easily lose the memory of places in which their ancestors used to live, of lifeways their ancestors once followed, and of identities their ancestors formerly claimed.

Horregatik, gaur egungo dialektologia-lanetan (eta orobat hizkuntzalaritzan), ikertu nahi den esparru geografikoko pertsonen nolako harremanak (izan) dituzten aztertu ohi da, harreman horiek hizkuntzan berean islatzen baitira, eta horrixe erreparatuko diogu guk ere (cf. Camino 2003a: XVIII).

Harremanak eta komunikatzeko erak asko aldatu dira azken berrogeita hamar urtean. Gure eremuko herriak ongi komunikatuta egon dira beti, baina gaur egun errazagoa zaigu alde batera edo bestera mugitzea. Autorik edo errepiderik ez zenean, herritarrek ez zuten mugitzeko aukera handirik izaten, eta harreman gehienak herrian berean izaten zituzten. Nolanahi ere, gizakiak betidanik bilatu du beste gizakiekin harremanetan jartzeko modua; garai bateko mendi-bideak eta galtzadak dira horren adibide (San Sebastian «Latxaga» 1973: 26-27):

Lenengo gauza dakiguna da, garai aurrenekoetatik asita, galtzara zarrak eta mendi bideak garrantzi aundia zutela. Giza alkartea etzan ain bakardadean bizi. Inguruetakoekin arremanak eukitzen zituzten. Alkartzeko bideak bear eta ba zeuden ugari. Artaldeak berak ere irikitzen dituzte bideak; batetik bestera dijoaz eta aien atzetik artzaia.

Esate baterako, Txulapaingo Beorburutik Imozko Muskitza bazen galtzada erromatarra, eta Muskiztik Atondo aldera jarraitzen zuen gero (Linzoain 1979: 8). Herriak galtzadaz, mendi-bidez edo errepidez lotuta egon baldin badira, herri horien artean harremana bazegoen seinale izango da, ezbairik gabe.

Bideak bide eta errepideak errepide, zilegi da pentsatzea zenbaitetan herritik kanpora ateratzeko beharra izango zutela (aldian behin edo maiztxo): azoka eta merkatuetara joateko, erromerietara, ardiak edo beste aziendaren bat hartuta halako menditara uda-sasoia igarotzera, kontrabandora, festetara, eta abar. Herritik gutxi aterata ere, herritik kanpo egiten zituzten harremanak sakonak ziren (Camino 2003a: 6):

Gune batetik bestera dagoen distantzia, ez du denborak aldatu, baina lehen, beharbada, herri batetik bestera urtean bizpahiru aldiz joan ohi zen, oso eginkizun zehatza betetzeko eta agian, hamar egun iraganen zizuten horretan; egun, agian urtean hogeitun aldiz joan ohi gara, baina bertan, joaten garen aldioro, bi ordu baino ez dugu iragaten: giza hartu-emanetarako alde handia dago oraingo ereditik lehenagora, ez da berdina. Egun, mugikortasun handiagoa daukagu, etengabe ibiltzen gara harat-honat, baina ohiz ez dugu harreman sakonik lortzen hor zehar. Lehenagoko denboran, herritik arras guti ateratako jende franko izaten zen, emaztekietan bereziki: Iruñea ezkondukoan ezagutu zuena, bere bizi guztian urrunen Zaragozara edo Donostiara joandakoa. Bizimodua bera zen desberdina eta baita norberarenak ez diren hizkeretik hartu-emana ere.

Nekazaritza eta abeltzaintza bizibide hartan, inguru hurbilean zerbitzuak eskaintzen ziren ber, eskualdeak beregainagoak ziren, dialektalizaziorako eta bakartzerako aukera handiagoa zegoen egun baino, berezitasunerako jokaleku egokiagoa zen hura, oraingo baino.

Guk ibarrez ibar aztertuko ditugu giza harreman horiek guztiak, gure eremuko jendea nondik nora ibili den ezagutzera emateko. Aurreko atalean, zenbait datu historiko, geografiko, demografiko eta ekonomiko eman ditugu; atal honetan, azken ehun urteotako (gutxi gorabehera) giza harremanak nondik nora gauzatu diren eman nahi dugu aditzera. Lehenik, ibarrez ibar aztertuko dugu harreman horien nondik norakoa. Besterik adierazi ezean, aztergai ditugun herrietan gerok bildutako ahozko lekukotasunetan oinarritu gara atal horiek osatzeko. Ondoren, gure eremuko harreman sozioekonomikoetan garrantzi handia izan duten feriak eta erromeriak aipatuko ditugu, eta, azkenik, gaur egungo egoeraren berri emango dugu.

2.2. Imotz

Ibar txikia dugu Imotz (cf. Apalauza 2008a: 18), baina imoztarren harreman-sareak aztertzeak ondorio interesgarriak dakartza. Izan ere, hedaduraz hain txikia izanik ere, xehetasun ugari eman daitezke.

Imotzen berean, ez dago bereziki nabarmendu den herririk, baina handik oso hurbil dago **Irurtzun**, eta esan daiteke hari begira bizi izan direla imoztarrak, eta hala da gaur egun ere. Salerosketa- eta zerbitzu-gune garrantzitsua da Irurtzun, eta hala izan da gutxienez XX. mendetik hasita, feriarik esker batez ere (ikus 2.6.). Lanera ere Irurtzuna joaten da imoztar asko, Sapa (harako INASA) aluminio-lantegira batik bat, baina baita beste enpresa batzuetara ere. 2001eko erroldako datuen arabera, 2.175 biztanle zituen Irurtzunek, baina haietatik 64 besterik ez ziren herrian jaioak, eta 1.352 Nafarroako beste herriren batetik etorriak ziren. Pentsatzekoa denez, imoztarrak,

arakildarrak, basaburuarrak edota gulibartarrak izango dira haietatik asko, geografikoki hurbilen dauden heinean (cf. García-Sanz Marcotegui 1985: 266-267).

Bestalde, Imozko herrien arteko harremana ona izan da oro har (Apalauza 2008a: 21), baina, urte batzuk atzera eginez gero, ikusiko dugu imoztarrak ez direla beti eta arlo guztietan batera ibili. Ibarren bi ertzetan dauden Goldaratz eta Muskitz herriak dira horren erakusgarri garbia: bi herriotako euskara gainerakoetatik aldendu egiten da zenbait ezaugarritan, eta harreman-sareetan bilatu behar da horren arrazoia.

Goldaratzek Madotz, Oderitz, Astitz eta Arruitz herri larraundarrekin muga egiten du, eta harreman sendoak izan ditu haiekin, Oderitzekin batik bat. Mendiz joanez gero, Goldaratzik hurbilago dago Larraungo alderdi hori Imozko gainerako herriak dauden baino, eta jakina da errepiderik ez zenean mendi-bideak erabili ohi zituztela orduko gizakiek. Esate baterako, Oderizko eta Goldarazko larre eta barrutiak elkarren muga-mugan daude, eta horrek bi herriotako nekazari, artzain eta abeltzainen arteko harremana sendotu du. Maiz entzun dugu Oderizko aziendak noiznahi bazkatzen zirela Goldarazko larreetan, eta baita alderantziz ere; alegia, Goldarazkoak Oderizko larreetan. Ahaidetasunezko harreman estuak daude, gainera, Oderitzen eta Goldaratzaren artean, eta horrek maiz elkartzea dakar ezinbestean, festetan eta halako ospakizun garrantzitsuetan batez ere. Goldaratzar batek esan digunez, “Odoitz ta Goldaatz, erri et izain balitz bezala”. Lanean zehar ikusiko dugunez, Goldarazko euskarak badu Larraungo ekialdeko euskararako isuria.

Muskitzek, berriz, Gulibarko Zia eta Larunbe, Txulapaingo Otsakar eta Beorburu, eta Atezko Beratsain eta Beuntza ditu bere mugetan. Oskotz imoztarra ere ondoan du Muskitzek, baina herri horrek ez zuen itzal handirik egiten Muskitzen (Apalauza 2008a: 21), nahiz eta baden Oskoztik Muskitza ezkondukorik. Esate baterako, Oskozko eta Ziako festak batera izan ohi ziren, eta Muskiztik Ziara joaten ziren gehienetan, Oskotza joan beharrean. Muskiztar adinekoekin gazte-denborako kontuez hizketan aritu garenean, Zia, Aginaga, Beratsain eta Beorburu herrietako lagunak aipatu dituzte gehien-gehienean, harreman estua baitzuten haiekin. Besteak beste, Irurtzongo feriatik itzulera egiten zutenean, muskiztarrek Zian merendua hartzeko ohitura izaten zuten, eta, bestalde, ateztarrik eta ultzamarrrik ez zen falta izaten Muskizko bentan. Gorago esan dugunez, Beorbururekin ere bazuten harremana muskiztarrek. Altadillek dio beorburutarrak Muskiztik igarotzen zirela, handik Aizkorbera eta Irurtzuna joateko bidea hartzeko (1912-1: 211).

Muskiztik Beorbururako joera ere bazen: hain zuzen, urtero Beorburuko San Bartolome ermitara joateko ohitura zuten muskiztarrek (ikus aurrerago), eta hango festetara ere jotzen zuten. Gainera, Txulapaingo kofradiaren barnean zen Muskitz: Beorburu, Nuin, Otsakar, Larraiotz, Osinaga, Aristegi eta Muskitz biltzen zituen kofradiak. Horrek herrion arteko harreman sakona ekarri zuen; esate baterako, kofradiako kideren bat hiltzen zenean, kofradiako gainerako kideak hildako kidearen herrira joaten ziren hileta-elizkizunetara. Bukatzeko, Beorburu aldeko lurrak garia, zalkea edota oloa lantzeko aproposagoak zirenez, muskiztarrak hara joan ohi ziren lanera (segara, adibidez). Harreman horien guztien ondorioz, Muskizko euskara Imozkotik aldendu egiten da zenbait ezaugarritan, eta Atezkoiari eta are Gulibarkoiari eta Txulapaingoari hurbiltzen zaie (nahiz gutxi dakigun arestiko bi ibar horietaz).

Imozko gainerako herriei dagokienez, oro har, auzo-herriekin egoten ziren harremanetan, Basaburu Nagusiko hegoaldeko herriekin batez ere (Udabe, Beramendi, Ihaben, Gartzaron, Erbiti...).

2.3. Basaburu Nagusia

Hizkuntzaren aldetik, eremu berezia osatzen dute Basaburu Nagusiko iparraldeko herriek (Beruete, Arrarats, Igoa), gainerakoetatik bereiz baitabilta zenbait ezaugarritan. Hiru herriok bateratsu ibili dira beti, bai hizkuntzaz eta bai ohituraz¹⁴. Gainera, hiru herriok izan dira ibarreko euskaldunenak, bai lehen eta bai orain. Beste basaburuarrekin ere bazuten harremana, baina Orokieta, Gartzaron eta Erbiti herriekin batez ere; hara joaten ziren, esate baterako, festetan, baina ez zuten ohiturarik gainerako herrietara joateko.

Basaburu Nagusiko hegoaldeko herriek harreman sakona izan dute imoztarrekin, baina askoz apalagoa iparraldekoek; horren ildotik, arrarastar batek esana da “imoztarrakin ezkiñun ezta... bazenik ee Imoz”. Nolanahi ere, Beruetetik Etxalekura joanik daude ogi bila, eskasia-garaian.

Beruetek, Arraratsek eta Igoak Basaburu Txikiko herriak dituzte iparraldeko mugan, eta batik bat Eratsunekin eta Ezkurrearekin ibili dira hartu-emanen. Mendiz hurbil daude herri guztiok, eta horrek, besteak beste, artzainen arteko harremana indartu zuen artzaintza indartsu zebilen garaietan,

¹⁴ Halaber, Arraratsi loturik ibili da Aizarotz; izan ere, Aizarotz jaurerria zen antzina, eta gaur egun ere ez du kontzeju-izaerarik. Aizarotzen ez da ez elizarik ez hilerririk, eta Arraratsi loturik daude, besteak beste, eliza-kontuetan.

ardiak herriotako mugetan ibiltzen baitziren larrean. Bestalde, Torres Lunak bildu duenez, saldiastarrek Igoako gaztainadietara eramaten zituzten beren zerriak (1971: 130):

Los de Saldías tenían derecho a enviar 12 cerdos por vecino al castañal de Urrutiña en Igoa (Basaburúa Mayor) “durante la recolección de esta fruta” (...) aún siendo de particulares el castañal. Ya no lo ejercen.

Gainera, esanguratsua da Arraratsen “ezkurriarren kontuak” kontatzea; hain zuzen, ezkurrarrek ero-ospea dute Basaburu Txikian eta are Malerrekan ere (“ezkurriarrak eruak” epistola bildu genuen Malerrekan; ikus Apalauza eta Lakar 2005: 38), eta bada ahozko tradizioan oso hedatuta dauden txiste, pasadizo, kontakizun eta zirto mordo bat, ezkurrarren izaera bereziaren adierazle (Apalauza eta Lakar 2005: 160-163). Halakoak Malerrekan, Basaburu Txikian eta are Basaburu Nagusiko iparraldean dira ezagunak. Hizkuntzari dagokionez, batez ere lexikoan sumatu dugu guk bi Basaburuen arteko harremanen arrastoa¹⁵.

Baina, Basaburu Txikiaz gain, Beruetek Larraungo Uitzu, Etxarri eta Aldatz ditu mendebaleko mugan, eta haiekin ere izan da harremanetan, Aldatzekin batez ere. Bi herriotan entzun dugunez, elkarren ondoan daude beruetarren eta aldaztarren soroak, eta, haietan lanean aritzen zirenean, maiz topo egiten zuten. Hain zuzen, Berueteko euskarak badu Larraungorako isuria.

Basaburu Nagusiko ekialdeko herriei dagokienez, Gartzaronek, Erbitik eta Orokietak Ultzama dute beren mugetan, eta haiekin ere bazuten harremana, Orokietak batez ere. Erbitiko pertsona batek esan digunez, Orokietako euskarak Ultzamakoaren antz handia du, *frantseskoa* sartzen baitute han, euskara *frantsa* egiten baitute (alegia, Ipar Euskal Herriko hizkeren kutsua hartzen diola Orokietako eta horrenbestez Ultzamako euskarari). Ogia etxean egiten zuten garaietan, Orokietako eta Ilarregiko mugan zegoen errota, eta gartzarondarrak, erbitiarrak eta orokietarrak hara joaten ziren garia edo artoa ehotzera (geroago, Aizarozko errotara joaten hasi ziren). Bereziki Suarbe herri ultzamarra aipatzen dute berriemaileek, zerbitzu ugari baitzegoen han; *karnizerie*, besteak beste. Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietako euskarak, hain zuzen, badu Ultzamakoaren kutsua; besteak beste, hango azentuak eta doinuak Ultzamako euskara dakarkigute gogora. Hain zuzen, 60ko hamarkadan sortu zen Iraizozko Elordi industrialdea, eta alderdi horretako pertsona asko han

¹⁵ Ez dirudi Basaburu Nagusikoak Basaburu Txikitik iparralderako herritarrekin elkartzen zirenik, baina aizaroztar eta igoar kontrabandistak Donamariaraino behor eske joaten zirela kontatu digute Igoan.

arituak dira lanean, eta han aritzen dira oraindik ere; besteak beste, dagoeneko itxia den Danone lantegia edota automobilgintzarako piezetan espezializatua den Maier lantegia aipa daitezke. Bitxia ere bada kontua: Jauntsarastik ekialderako herrietatik (Erbiti, Gartzaron eta Orokieta) Iraizozko industrialdera joan ohi dira lanera, eta gainerako herrietatik, berriz, Irurtzuna eta Lekunberrira jotzen dute, salbuespenak salbuespen (Iruñera ere bai askok, jakina). Iruñera joateko ere (A-15 autobia egin aurretik, batez ere), Jauntsaratsa jaisten dira beruetar, arrarastar eta igoarrak, eta gero Urritzatik barna iristen dira hiriburura; Erbititik, Gartzarondik eta Orokietatik, aldiz, Ultzamatik barna sartzen dira Iruñera¹⁶. Bestalde, Lizasoko dendara joateko ohitura badute herri horietatik (beste herrietatik, berriz, Irurtzuna edo Lekunberrira joaten dira), eta ura Orokietatik eramaten dute Ilarregi herri ultzamarrera.

Garbi gelditu da, beraz, Basaburu Nagusiko ekialdeko herriek lotura izan dutela eta oraindik ere badutela Ultzamarekin. Tirabirak ere izan dituzte, ordea: muga-mugan egotearekin, Ultzamakoazienda Orokietako oihanera sartu ohi zen askotan, eta haserraldi ugari izaten zituztela kontatu digute.

Bestalde, ultzamarrak Jauntsarasko dantzaldietara joaten ziren, garai batean, igandeetan, soinu-jotzailea izaten baitzen; basaburuarrak eta ultzamarrak elkarrekin ibiltzen ziren, beraz (batez ere Eltzaburutik, Suarbetik eta Ilarregitik joaten zirela esan digute).

Elkarren ondo-ondoan daude Erbiti eta Gartzaron, eta harreman handia dute beren artean; Erbitin bizi den gartzarondar batek esan digunez, “Erbitti ta Gartzau, bat baiñe bezala”. Duela 50 bat urte arte, parrokia bakarra osatzen zuten bi herriok, nahiz herri bakoitzak bere eliza izan; gainera, gartzarondarrek Erbitiko meza entzutera joateko ohitura izan dute berriki arte. Eskolari dagokionez, Erbitiko eskolan biltzen ziren Erbitiko, Gartzarongo, Aizarozko eta Orokietako haurrak, gerra ondoan behinik behin; geroxeago, duela 50 bat urte, orokietarrek eskola sortu zuten beren herrian, eta bereiz ibiltzen hasi ziren geroztik.

Orokietak eta Erbitik kontzeju bakarra osatzen dute, eta, hori dela eta, bi herriok batera ibili dira kontu askotan. Zehatzago, Orokietako kontzejuak hiru “barrio” ditu: Ola (“goittiko barria”), Orokieta (“erdiko barria”) eta Erbiti (“beittiko barria”). Besteak beste, herri-lurrak, larreak eta

¹⁶ Bitxia dela diogu, 3 km-ko tartea besterik ez baitago Jauntsaratsen eta Erbiti-Gartzaronen artean.

oihan-ustiapenak partekatzen dituzte, eta, ondorioz, hartu-emana sakona izan da aspalditik. Izan ere, Orokietak oihan asko du, eta Erbitik, berriz, larre asko; behinola, duela 150-200 urte, mugak kendu eta bi herriok elkartzea erabaki zuten, eta elkarrekin egon dira harrezkero, nahiz mugarriak zutik dauden artean ere. Harreman horrek gaur eguneraino iraun du; esate baterako, oraindik orain elkarrekin egiten dituzte herriko lanak, auzolanak edota mendiko lanak. Dena dela, ez dira arlo guztietan batera ibili: herri bakoitzak badu bere eliza, eta festak ere ez dituzte elkarrekin ospatzen (ezta azken mendean ere, gutxienez). Irri-giroan, izaera zaila egozten diete erbitiarrek orokietarrei; “traste xamarrek” omen, eta, esan digutenez, “makill autsikin eztaiteke sartu Ookitaa” (alegia, ez dagoela nolana joaterik Orokietara).

Orokietak, bestalde, Basaburu Txikiko Labaienekin muga egiten du; muga zabala da, gainera. Alegia, bi herriok mendi zati zabala dute elkarren muga-mugan, eta horrek hango bizilagunak elkarrekin harremanean egotea ekarri zuen. Labaienenazienda asko izaten zen larreetan, eta Orokietan, aldiz,azienda gutxi zen, baina belar asko. Horregatik, labaiendarrek Orokietako larreetara eramaten zuten berenazienda (lehengo larreak ez baitzituzten hesiz ixten, orain bezala), eta arazo ugari sortzen zen; orokietarrek labaiendarrenazienda bahitu egiten zuten, eta aski tirabira izaten zuten hori dela eta. Den-dena ez zen tirabira-kontua, ordea; izan ere, badaude Labaiendik Orokietara ezkonduak aski.

Saldiasekin ez du mugarik Orokietak, baina mendiz hurbil daude, eta elkarrekiko hurbiltasunak haien arteko harremana ekarri zuen. Esate baterako, kontrabandoan elkarrekin ibiltzen ziren orokietarrak, saldiastarrak eta are urroztarrak. Harreman horrek gaur eguneraino iraun du¹⁷.

Pentsatzekoa denez, hizkuntzan bada harreman horien guztien isla; batez ere Orokietako euskarak Ultzamako kutsua duela esan dugu gorago, eta Basaburu Txikiaren eragina ere sumatzen da, lanean zehar ikusiko dugunez.

Basaburuarren elkarguneei dagokienez, Basaburu Nagusiko hegoaldeko herriek Irurtzuna jo izan dute batez ere, baina Lekunberri izan da urte askoan beruetarren, igoarren eta arrarastarren jomuga garrantzitsua: Lekunberrin zerbitzu ugari zegoen (trena, kooperatiba...), eta ilea moztera, esate baterako, hara joaten ziren herri horietatik, oinez. Eskasia zen garaietan —gerra-ondoan,

¹⁷ Esate baterako, maiz gertatzen dira elkarrekin orokietarrak, labaiendarrek eta saldiastarrak alderdi hartako mendietan, galdutako mendizaleen bila.

alegia—, Lekunberrira joaten ziren olio, azukre edota arropa eske, kooperatiba bai baitzen Lekunberrin. Gorago ere esan dugunez, ekialdeko herrietatik Ultzamako Iraizotza eta Lizasora joaten dira lanera edota enkarguak egitera, nahiz Irurtzuna ere jotzen duten.

Bestalde, Leitza herri hazia da inguru hartan, baina ez du eragin handirik izan Basaburu Nagusiko herrietan. Festetara noiz edo noiz joaten ziren beruetarrak Leitzara, eta Leitzatik Berueteko festetara ere bai, eta baita patata edota baba eske ere (Leitzan eskasia handiagoa baitzen), baina ez dirudi erakargune garrantzitsua izan denik.

2.4. Larraun

Lekunberri da Larraungo buru, baina ez du eragin handirik izan inongo esparrutan (duela urte gutxi arte), ez behinik behin Irurtzunek baino handiagoa. Azken urteotan, handitu egin da Lekunberri (ikus 1.4. eta 1.5.), eta elkargune garrantzitsu bihurtu da. Esate baterako, oderiztarrek Lekunberrira jotzen dute orain, gero eta gehiago, enkargutara edota beste kontuetarako; lehen, ohikoagoa zen Irurtzuna joatea. Bestalde, Gorritik eta Uitzik Leitza dute beren mugetan. Garai batean, leitzarren eta uitziarren bilgune izaten zen Uitziko Santa Engrazia ermitara ekainaren 16an izaten zen prozesioa. Gainera, Leitzako paper-lantegiak larraundar ugariri eman dio lana, Uitzi eta Gorriti aldekoiei batik bat. Gogoan dugu, halaber, NA-170 errepideak lotzen dituela Uitzi eta Leitza herriak (cf. Altadill 1912-1: 183).

1.1. atalean hidrografiaz egin dugun oharri jarraituz, bi eremu nagusi bereiz daitezke Larraunen: hego-ekialdea (Albiasu barne), Mediterraneoan itsasoratzen den Larraun ibaiak bustia, eta ipar-mendebala, Kantauriar itsasora iristen den Araxes ibaiak ureztatua. Banaketa hori zilegi da hizkuntza-kontuetan ere, lanean zehar ikusiko dugunez.

Larraungo hego-ekialdeko herriak bateratsu ibili dira beti, eta hori hizkuntzan ere islatzen da. Ipar-mendebalekoei dagokienez, Gorritik, Azpirotzek eta Errazkinek Araitz-Beteluko Arribe, Atallu eta Betelu herriak dituzte mendebaleko mugan, eta harreman estuak izan dituzte elkarren artean. Adibidez, Atalluko ume batzuk Gorritiko eskolara joaten ziren XX. mendearen hasieran. Horrez gain, inguruan ospe handia zuten Beteluko antzara-jokoek 1936ko gerraren aurretik (Apalauza eta Arraztio 2007: 138-139), eta gorritiarrek ere ez zuten hango hitzordura huts egiten. Errazkin Araitz-Beteluri oso loturik ibili da beti, hurbiltasun geografikoagatik seguruenik. Gaur egun ere, estua da

harremana, eta medikua ere Araitz-Betelun dute errazkindarrek. Albiasuk ere Betelurekin muga egiten du. Hego-ekialdeko herriekin batera jarri dugu, baina erdi-bidean dago nolabait: Larrauni atxikia ageri da ohiko bizimoduan (gaur egun, Lekunberriri erabat atxikia), baina, esate baterako, Beteluko errotara maiz joaten ziren artoa edo garia ehotzera. Hizkeraz ere erdi-bidekotzat sumatu dugu Albiasu. Oderiztarrek, arruiztarrek, aldaztarrek edota iribastarrek maiz aipatu ohi dute Araitz-Betelun bezalatsu hitz egiten dutela Gorriti, Azpirotz eta Errazkin herrietakoek.

Bestalde, Gorriti igarobide garrantzitsua izan da gipuzkoarrentzat (baita historian ere; ikus 1.2.)¹⁸: hain zuzen, gipuzkoarrek debozio handia izan diote Aralarko San Migeli, eta, hara oinez joaten zirenean (lehen ez baitzuten beste modurik), Gorrititik igarotzen ziren. Ongi gogoan dute hori gorritiarrek. Estraperloa ere bide horretan gauzatzen zen: Gorrititik Orexara, Berastegira eta Gaztelura garraiatzen zituzten estraperloko gaiak, behialako bide zaharrea barrena (Orexatik Ulira, handik Gorritira, handik Azpirotza, eta handik San Migel aldera). Hona gorritiar baten hitzak, estraperloaren indarraren erakusle: “Jexux! Emendik estraperlo asko zen. Emendik?! Emendik Orejaa belarra jaio itte ote emen tzen zean... garie jaiok biden!”.

Urabaienek dioenez, Larraundik, Burundatik eta Bidasoatik sartzen da Nafarroara Gipuzkoaren eragina (1926: 298):

Cada país influye en su vecino y aunque no nos es posible determinar el alcance de la influencia que Navarra ha ejercido y ejerce en los países comarcanos, podemos, en cambio, comprobar lo que éstos han ejercido y ejercen en Navarra. Así vemos extenderse la idiosincrasia guipuzcoana hacia la Burunda y el Larraun y mucho más intensamente a lo largo del Bidasoa.

Aralar mendiaren oinetan dago Larraun, eta, elurra hastearekin batera, ibar horretako larreetan ibili ohi ziren Araizko eta Gipuzkoako artaldeak, negu aurretik (Torres Luna 1971: 120):

... a prados particulares del Valle de Larraun acuden ganados de los pueblos del Valle de Araiz y algunos de la provincia de Guipúzcoa durante octubre y noviembre. Estos rebaños proceden de la Sierra de Aralar, bajan cuando empieza a nevar y se quedan estos dos meses antes de seguir hacia su punto de origen. Se ha dicho (...) que los aprovechaban gratuitamente a cambio del abono dejado en ellos, pero no es cierto en algunos pueblos, pues para cuando bajan de la Sierra ya tienen formalizado y pagado el contrato de permanencia en los prados aún dejando el estiércol.

¹⁸ Erdi Aroan, Euskal Herriko hainbat lekutatik heldu ziren zazpi bide elkartzen ziren Gorritin (Olano 1998: 36).

Aralarko atal bat osatzen dute Malloa malkartsuek, eta Larraungo herri batzuek ongi dakite zer den hango barrutietan belarra ebakitzen ibiltzea. Hain zuzen, Malloetan zotzak —lur zatiak— dituzten herriak honako hauek dira: Larraungo Baraibar eta Errazkin, eta Araitz-Beteluko Intza, Uztegi, Gaintza eta Azkarate. Horrek ere, jakina, elkartu egiten ditu Larraun eta Araitz-Betelu.

Aresorekin ere izan du hartu-emanen Larraunek. Hain zuzen, 1718. urtean, larre-elkarte edo fazeria bat osatu zuten Gorritik eta Aresok (lehenagotik ere bazen halako elkarte bat, nahiz hitzarmenik ez izan). Olanok dioenez, zera hitzartu zuten bi herriotako ordezkariak (1998: 42): “bi udalerrietako lursail mugatu eta jakin batzuk larretoki irikiak izatea, honela udalerrri bakoitzak bazkaleku zabalagoa izan dezan”. Liskar ugari sortu da fazeria horren harira, eta, gaur egun, ez du Aresoko ardirik biltzen. Gaur egungo harremanetan ere nabari da liskar haien oihartzuna; gorritiar batek esan digunez, “aixoarrak beti pleittun” ibiltzen omen dira.

Azkenik, Tolosan, azken mendean oso ohikoa izan da lasterkalarien artean norgehiagokak jokatzeko, eta entzute handia lortu zuten, bai Larraunen bai Gipuzkoa aldean ere, Arruizko Txikitok eta Aldazko Txikitok (Garmendia Larrañaga eta Zabala 2007: 51, cf. Recondo 2010: 180-185).

2.5. Araitz-Betelu

Gipuzkoa aldera dagoen azken bailara nafarra da Araitz-Betelu. Tolosarako eta Tolosaldeko herrietarako joera nabaria izan da azken hamarkadetan, eta hala da gaur egun ere.

Tolosa zerbitzu-gune garrantzitsua izan da Gipuzkoan, eta haren oihartzuna Araitz-Betelura ere iritsi zen, feriarri esker batez ere. Aurrerago mintzatuko gara sakonago Tolosako feria handiaz (ikus 2.6.).

Gaur egun, NA-130 errepidea hartuta irits daiteke Araitz-Betelutik Gipuzkoako mugara. Atallu da azken herri nafarra, eta Lizartza Gipuzkoako lehena, eta 10 km besterik ez dago bion artean. Baina, errepiderik ez zenean, mendi-bideek lotzen zituzten Gipuzkoa eta Nafarroa, eta Azkarate zen gakoa. Han berean esaten dutenez, Gipuzkoako atea zen Azkarate. Hona han bildutako pasarte bat (Apalauza eta Arraztio 2007: 54):

Atea; ba al dakizo zeati? Gipuzkoati sarrera emen, Beraion... Beraioke bireti zeara, Askaatea, atea; da, geo, Azkarate. (...) Gipuzkoako sarrera delako, emen zelako. Osea, beiko karreter oe ez... ez emen tzen artean. Orrek berreun urte-o exkak ditto. Emen, Tolosati... Illarratsuko zea orrek, Lizarzati t'Atalluko bire orrek... oe etzen bittartean, emen zona ontaa, Araitze zona ontaako, Beraioke bireti onea. Da San Inazio ta denak orti pasa zeen, bire ortati pasa zeen Naparroara.

Azkarateko atea igarota, Bedaio, Altzo eta Amezketa Tolosaldeko herriak daude, eta alderdi horretako herriekin harreman estua izan dute araitz-beteluarrek. Hain zuzen, XIV. mendetik hasita igaroleku garrantzitsua izan zen Zarate gaina, Azkarateko eta Bedaioke mugan (Recondo 2010: 318-320):

Zarate izeneko dermioan, Azkarate (Nafarroa) eta Altzo-Bedaio (Gipuzkoa) artean, Gipuzkoako Diputazioaren ariel-etxe bat izan zen 50eko hamarkadaren erdialdera arte. (...) Postuak Lekunberri eta Altzo lotzen zuen Erdi Aroko galtzadarriz zahararen igarobidea kontrolatzen zuen. XIV. mendetik, Nafarroako erresumaren eta Gipuzkoako lurraldearen arteko garraioke garrantzitsua izan zen. Gurdientzako Errege Bidea egin zenean, mandabide hauek garrantzia galdu zuten, artzainek, ikazkinek eta kontrabandistek bakarrik erabiltzen zituztelako. Horregatik esaten zioten "Kontrabandisten bidea".

Tolosaren itzala aipatu dugu gorago; alabaina, Araitz-Betelutik Tolosaldera joera bazen, baina baita alderantziz ere. Hain zuzen, gerra-ondoan, Uztegiko kooperatibara janari eske joaten ziren Bedaio, Amezketa, Tolosa, Abaltzisketa edota Zaldibia herrietako bizilagunak (Apalauza eta Arraztio 2003-2005: 265-267¹⁹). Izan ere, Gipuzkoan janari-eskasia handiagoa zen Nafarroan baino; industrian lana bazuten, baina sororik-eta ez, eskas. Gainera, ardoa merkeagoa eta lortzen errazagoa zen Nafarroan, eta ardoa eroatera ere joaten ziren Uztegiara muga ondoko gipuzkoarrak. Bestalde, gerra-ondoan hau ere, bedaioarrak Beteluko errotara joan ohi ziren irin eske, babaren truke, Bedaio baba-lekurik handiena zen eta (Apalauza eta Arraztio 2007: 123).

Ospe handia zuten Azkarateko San Fermin jaiek, eta gipuzkoarrak ere ez ziren falta izaten: Zaldibiakoak, Amezketakoak, Bedaiokeak... Hilario Nazabal Amundarain zaldibiarrak kontatua da Azkarateko San Ferminetara Larraiztik abiatuta oinez joateko ohitura zutela (Etxabe eta Garmendia 2003: 249-250). Badugu idatzitako beste lekukotasun bat: 1934ko uztailaren 13ko *El día* egunkarian argitaratu zuten gutun batean, Bedaiotik Azkarateko San Ferminetara zihoazela

¹⁹ 2007an argitaratu genuen *Araitz-Beteluko ahotsak. Ahozko tradizioaren bilduma* lana (ikus bibliografia), baina argitaratu gabe gelditu diren hainbat datu bildu genuen lan hartan, eta datu horietako asko baliatuko ditugu gure tesian.

gertatutako pasadizo baten berri ematen du bedaioar batek (“Bedayo’ko berriketetzaz”, *El día* 1937-07-13). Festaz gain, feria ere izaten zen Azkaraten, eta saltzaile gipuzkoar ugari izaten zen. Morroi-eta ezkontza-tratuak gauzatzeko ere baliatzen zituzten egun haiek tratulariek; tratu haien ondorioz, araztar asko Gipuzkoako herrietara joaten ziren morroi-lanetara, baita alderantziz ere. Errazkina ere bedaioar ugari joana da morroi-lanetara. Halaber, gipuzkoar ugari Araitza ezkondata dago San Fermin jaietan adostutako tratuei esker. Gaur egun, Azkarate eta Bedaio herrien artean dagoen Gurdillaundiko langa ireki egiten dute urtero-urtero San Fermin egunez, bedaioarrak aiseago irits daitezten Azkaratera beren ibilgailuetan (bestela, errepidez 30 km baino gehixeago egin behar dira Bedaiotik Azkaratera joateko).

Azkarateko jaiek bezainbesteko sonarik ez zuten, baina egun seinalatuak izaten ziren Beteluko maiatzeko igande-egunak. Igandero, txistua eta atabala izaten ziren herriko plazan, eta helduen denbora-pasarako eguna izaten zen: urdai-jokoa, piper-opil jokoa, eta abar (Apalauza eta Arraztio 2003-2005: 385-389, 2007: 148-149). Egun haietan, Tolosako *piparropillerak* joaten ziren Betelura, baita herriko festetan ere, noiz edo noiz.

Kontrabando-garaian ere maiz suertatu ziren elkarrekin muga ondoko nafar eta gipuzkoarrak: Zaldibiatik Araitza eta Sakanara joan ohi ziren (Etxabe eta Garmendia 2003: 30). Kontrolak nonahi izaten ziren garai haietan, eta nahitaezkoa izaten zen batzuk eta besteak elkarrekin hartu-emanen egotea: kamioiarekin kontrabandoan ibilia den uztegiar batek kontatu digu berak Lizartzan eta Tolosan izaten zituela “kontaktuak” edo “ixpik”, kontrolak non eta noiz jartzen ote zituzten abisatzeko (cf. Recondo 2010: 134-136). Beteluar baten lekukotasuna dakar Recondok (2010: 134):

Alejandro Yereguik dioenez, Tolosa, Andoain, Beasain eta beste herri batzuetatik bizikletaz etortzen ziren janari bila: babak, babarrunak, irina, artoa, olio eta abar. Oso ondo gogoan du Beasaingo morrosko bat, bizikletan 80 kilo inguru garraiatzeko gai zena. Bizikleta horretarako egokitua zeukan. Beteluko estraperlista saltzaileek herriaren sarreran eta bainuetxearen parean zegoen postuko guardia zibil bikotearen zaintza saihestu behar zuten. Horretarako, amarru ugari erabiltzen zituzten. Beste aldetik, erosleek Illarratzuko postuko mikeleteen zaintza burlatu behar zuten.

Araitz-beteluarrak Azkaratetik barrena Bedaiora eta handik Tolosara joaten ziren babarruna edo irina estraperloan eramanda, ezkutuan hango merkatuan saltzeko. Bedaioko sagardotegia zen estraperloko gai guztiak biltzeko gune nagusia. Hona Recondoren hitzak (2010: 134):

Azkarateko hainbat lagunek mando taldeak antolatzen zituzten Baraibarretik abiatu eta, Aralarko mendizerraren magalaren erditik, Bedaio eta Amezketara iristeko. Horrela saihesten zuten Azkarateko mikeleteen postua, menditik beherago baitzegoen.

Beteluri buruz ari dela, Altadillek dio “inguru hartako” etxeek Gipuzkoako etheen tankera bertsua dutela (1912-2: 132):

Los caseríos de esta zona, sin responder con toda identidad al tipo de los descritos en Baztán y Bertizarana, no desdican sin embargo del de la casa vasca, son más sencillos y se asimilan más al tipo del caserío guipuzcoano que al de la cuenca del Bidasoa. En comprobación de ello presentamos el de Ipiarrea.

Azkenik, bada muga ondoko nafar eta gipuzkoarrak belaunaldietan zehar elkarrekiko harremanean jarri dituen lokarri sendo bat: artzaintza. Garrantzi handiko lanbidea izan da artzaintza, duela gutxi arte, Aralar mendiaren inguruan dauden herrietan. Halaber, inguruko artzainek aspalditik erabili dituzte Aralarko mendi-bide zaharrak (San Sebastian «Latxaga» 1973: 26-27):

Berari [Manuel Lekuonari] askotan entzunda dakit, bide zarrak mendi lepoetatik lepoetara ibaiak igarota dijoaztela. Berari entzuna diot, aspaldiko mendi bidea Aralar'ko San Migel barrena dijoana izango zala; Sakana aldetik Amezketaruntz ain zuzen dijoakiguna. Jakiña udarako bakarrik balioko zuan eta artzaintzat izango zan. Bide ori, orduan, San Migel ingurutik barrena zijoan, ziurrena.

Izan ere, Aralarko San Migel gune ezin egokiagoa zen, antzina, Nafarroako zati handi bat Gipuzkoako mendialdearekin eta are itsasaldearekin ere lotzen zuten bide nagusiak kontrolpean izateko (Peña Santiago 1984: 13):

... cota que dominaba los caminos más importantes que unían a la navarra media, y cuenca de Pamplona y el Arakil, no sólo con la montaña guipuzcoana sino también con la mayor parte de sus puertos de mar.

Gure eremuari dagokionez, Aralarko Malloek Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko muga naturala marrazten dute. Hegoaldean, Larraun eta Arakil banatzen ditu Aralarrek. Nafarroako eremuan, berez, Araizko, Larraungo eta Lakuntzako artzainek dute ardiak Aralarra igotzeko eskubidea, nahiz Uharte Arakilgoek, Arbizukoek eta are Baztangoek ere (oso gutxi, ordea) igo izan

dituzten (Torres Luna 1971: 121). Artzaintzarako baliatzeaz gain, beste onura batzuk ere ematen dizkie Aralar mendiak sakanar, araitz-beteluar zein larraundarrei (Floristan 1978: 176-177):

... los Ayuntamientos de Echarri-Aranaz, Ergoyena, Arbizu, Lacunza, Arruazu e Irañeta y los concejos de Yábar y Villanueva (Ayuntamiento de Araquil), tienen, en unión con el Ayuntamiento de Betelu, los 6 concejos del valle de Aráiz y el de Errazquin (valle de Larráun), en el monte del Estado Sierra de Aralar (2.190 Has.), los mismos derechos de aprovechamiento que en Urbasa y Andía: leña y maderas para las propias necesidades, estiércol, helecho y hojarasca, construcción de chozas y apriscos, empleando para ello, así como para el fuego, leña o árboles secos y, en su defecto, ramaje verde, y sobre todo a pastar con sus ganados granados y menudos (salvo el cabrío, claro está) sin limitación de tiempo y gratuitamente.

Jakina, gipuzkoarrek ere Aralarra igotzen zituzten beren ardiak; beraz, ezinbestean, hartu-emanen izango ziren alde bateko eta besteko artzainak (cf. Eloseggi 1971-1972: 106). Zehatzago, Etxabe eta Garmendia ikertzaileek bildu dute ohikoa zela Aralarren Araizko eta Sakanako artzainak Tolosaldekoekin eta Goierrikoekin elkartzea (2003: 30). Guztion topaleku izaten ziren, halaber, Aralarko *peri-lekuak*: Igaratzako ordekan, hain zuzen, feria antolatzen zuten ardiak hara eramandako artzainek, eta hantxe biltzen ziren gipuzkoar zein nafar artzainak (Apalauza eta Arraztio 2007: 119).

Aralarra ez ezik, Urbasa eta Andia (*Aundimendi* izenez ezagutua) mendietara ere abiatu ohi ziren Araizko artzainak. Han ez zen, ohikoan, gipuzkoarrik izaten, baina bai, pentsatzekoa denez, Arakilgo, Sakanako erdialdeko, Ergoieneko eta Burundako artzain-jendea (Torres Luna 1971: 120):

A Urbasa y Andía acuden pastores del Valle de Araiz, y de muchos pueblos de la Barranca y Burunda, Lacunza, Arbizu, Echarri-Aranaz, Bacaicoa, Iturmendi, Urdiain, Alsasua, Olazagutía, Ciordia y el Valle de Ergoyena, Baztán dejó de enviar hara cinco años y del Valle de Imoz e Irañeta también subían hasta hace escaso tiempo. En los últimos días de abril y primera semana de mayo, los pastores, cada uno al frente de su rebaño, toman el camino de estas Sierras, en las que permanecerán hasta que los primeros fríos intensos, o las primeras nevadas, —por noviembre o diciembre— les expulsan de las alturas. Van acompañados de sus familias y enseres, utensilios y hasta animales: cerdos, gallinas, etc.

Urbasan feria bat ospatzen zuten Santiago egunez, eta Araitz-Beteluko artzainak ere hara joanik daude, kontatu digutenez.

Negua gogorra izan, ordea, Aralar, Urbasa eta Andia gainetan, eta artzainek leku epelagoen bila jotzen zuten, ardiek negualdi goxoagoa izan zezaten (cf. Olza Zubiri 1979: 43). Gaintzako Elizetxea etxetik, adibidez, Donostiako Altza auzoko larreetara joan izan dira urte askoan. Torres Lunak Bizkaiko zenbait herri ere aipatzen ditu (1971: 121):

En efecto, cada año y durante los meses de mayor rigor invernal, bastantes rebaños se dirigen hacia lugares más templados a aprovechar prados y pastos de particulares, mediante alquiler. Las provincias de Guipúzcoa —zona de Beasain y Amézqueta— y Vizcaya —regiones de Guernica, Lequeitio y Ondárroa— son las principales receptoras de los ganados del Valle de Araiz, Lacunza, Echarri-Aranaz, Bacaicoa, Iturmendi, Urdiain, Alsasua, Ciordia y Valle de Ergoyena. A estos centros se dirigían hasta hace 4 ó 6 años, andando por Oñate, Urquiola o el camino de Tolosa aguas abajo del río Araxes; más modernamente el traslado se hace en camiones con la consiguiente ganancia de tiempo y beneficio para los animales, que apenas se cansan ni pierden peso.

Cada pastor alquila a un particular de estos lugares determinada extensión de pastos por la temporada enero, febrero y marzo y allí suelta a sus ovejas y las guarda durante el día con ayuda de perros. Por la noche se recogen en los corrales del caserío a quien pertenecen los terrenos de pasto. A veces los caseríos están deshabitados y entonces los dueños se los alquilan también al pastor, que en ese caso acude con toda la familia como cuando va a las Sierras de Urbasa o Aralar. Si en los caseríos vive gente, los dueños o caseros atienden al pastor y le dan comida y cama mediante el pago de una pensión. El primer caso, lógicamente, es el preferido por los ganaderos. (...)

En estos meses las ovejas paren y antes de volver a Navarra venden los corderos al mes de nacer, hacen el queso y también lo venden en los mercados vecinos y, en contadas ocasiones, hacen cuajada o requesón o venden la leche directamente.

Beraz, Araitz-Beteluko, Larraungo Errazkingo²⁰ eta Sakana aldeko ardiek Aralarren, Urbanan edota Andian igaro ohi zuten uda-sasoia, eta handik Gipuzkoako edota Bizkaiko leku epelagoetara eramaten zituzten negualdia egitera (ibilbide ertaineko artzaintza deitu dio Olza Zubirik artzaintza mota horri, 1979: 43). Argigarria da Azkarateko adibide hau (Torres Luna 1971: 121-122):

Las ovejas de Azcárate (Valle de Araiz) apenas pasan algún tiempo en el pueblo; por estar situado al pie de la sierra de Aralar por su vertiente más abrupta, dispone de poco espacio destinado a pastos comunales y el que hay lo aprovechan las vacas de labor. Por otra parte, este pueblo, como los de todo el

²⁰ Larraungo gainerako herrietan, ardiak Aralarpean (edo, zehatzago, Mallopean) ibiltzen ziren, baina ez zen gora igotzeko ohitura handirik. Imozko eta Basaburu Nagusiko ardiak ere etxe edo borda inguruko larreetan ibiltzen ziren gauera arte, eta gaua bordan igarotzen zuten; ibilbide motzeko artzaintza deitu dio Olza Zubirik artzaintza mota horri (1979: 43). Errazkinen, aldiz, ardiak San Migelak arte goian egon ohi zirela kontatu digute. Neguan, Andoain, Donostia edota Hernani aldera eramaten zituzten; baina, horretarako, dirua behar izaten zen, eta denek ez zuten aukera hori izaten.

valle, se dedica cada vez más intensamente a la producción de leche para el mercado con lo cual todos los prados que tiene —que son la inmensa mayoría de las tierras de propiedad particular— son necesarios para el mantenimiento de las vacas. En consecuencia, las ovejas describen un movimiento pendular desde Sierra Aralar o Urbasa y Andía a Guipúzcoa y viceversa, a lo largo del año, con una cortísima etapa de permanencia en los prados, que muchas veces se hace en el vecino valle de Larraun pagando un alquiler. Los rebaños van hacia Aralar, pero sobre todo prefieren ir a Urbasa y Andía — porque dicen que el pasto es más fuerte y el queso que sale es mejor— a finales del mes de abril. Retornan por noviembre y tras sacarlos a pastar unos días a los prados particulares se dirigen en seguida hacia Guipúzcoa de donde no volverán hasta abril, para detenerse otro breve espacio de tiempo en el pueblo y continuar de nuevo el camino a la Sierra. Algunos ganaderos —los menos— a la vuelta de Guipúzcoa se quedan con las ovejas y corderos en casa, alimentándolos a pesebre con hierba, alfalfa y nabos. Y así están hasta que venden las crías y hacen el queso. Pero la mayoría prefieren desprenderse de los corderos antes de volver de Guipúzcoa y hacer el queso en Andía hasta agosto más o menos que es cuando se agotan las ovejas.

Zenbaitetan, artzainek artzain-mutilak bidaltzen zituzten Gipuzkoara, neguko ardi-lanak egitera; guk, esate baterako, Andoaina, Asteasura, Altzora, Usurbila, Iruna eta Hondarribira artzain-mutil joandako zenbait artzain ezagutu dugu Araitz-Betelun.

Artzaintzaren harira, Arakilgo, Sakanako erdialdeko, Larraungo eta Araizko zenbait herrik hitzarmen bat sinatu zuten, 1885. urtean, otsoa akabatzeko (Recondo 2010: 128):

Araizko artxiboan dokumentu bat aurkitu dugu: ‘Otsoak akabatzeko hitzarmena’. 1885ean sinatu zuten Aralar inguruko hainbat herrik, Pedro Lazcano Uharte Arakilgo alkatearen ekimenez.

Arakil, Lakuntza, Irañeta, Madotz, Oderitz, Baraibar, Errazkin, Araitz eta Beteluko ordezkariak Arakilgo udaletxean elkartu ziren 1885eko uztailaren 22an, ganaduzaleei kalte handia egiten zieten otsoen kontrako egitasmoa adosteko.

500 eta 50 pezetako sariak ezarri zituzten otsoak edo bederatzi hilabete baino gutxiagoko otsokumeak ehizatzeagatik. Herri bakoitzak dirua jarriko zuen sarietarako, nork bere bizilagunen kopuruaren arabera. Alli, Astitz eta Etxarri-Aranazko herriek hitzarmenean parte hartzeari uko egin ziotenez, bertako dermioetan garbitutako otsoengatik ez zela saririk emango erabaki zen. Sei urteko hitzarmena erabaki zen, baina badakigu hitzarmena gutxienez beste bi aldiz luzatu zela, 1903. urtera arte.

Ganaduzaleen artean etsipena handia izango zen horrelako dirutzak eskaintzeko. Ondorioz, otsoa harrapatzeko benetako sukarraldia piztu zen. Eta beste izurrite bat sortu zen: “otsoen bila” ari ziren bitartean mantenurako laguntza baserriz baserri eskatzen zuten ustezko ehiztariena. Azkenean, udalerrri

batzuek, esaterako Arraizkoak (sic), bandoa atera behar izan zuten debekatuz ustezko ehiztarien eskean ibili hori.

Ardiak ez ezik, zerriak ere mendira igotzen zituzten garai bateko abeltzainek. Ez zen ardiekin bezainbesteko mugimendurik izaten, baina badakigu Araitz-Betelutik Aralarra, Urbasara nahiz Andiarra eramaten zituztela (Torres Luna 1971: 129-130).

Garbi gelditu da Araitz-Beteluk harreman estua izan duela ondoko herri gipuzkoarrekin. Espero izatekoa zenez, hango euskarak badu hizkera giputzen eragina, eta eragin hori areagotzen ari da, gainera, hiztun gazteen eskutik. Hala ere, garbi utzi nahi dugu, beren burua nafartzat dute araitzar eta beteluarrek, ez baitira inondik inora ere giputz sentitzen. Gainera, nekazari- eta artzainkontuetan ezaugarri komun asko dituzten arren, badira desberdintasunak ere. Esate baterako, gipuzkoarrek eskuare desberdinak erabiltzen omen dituzte belarra biltzeko, Gaintzan kontatu digutenez (Apalauza eta Arraztio 2003-2005: 241):

Emen belarra jendeae gustatzen tzaio belarra txukun biltzea, da, or, Gipuzko aldean leku askotan baitaue belarrak, barroti zakar oitan-da belar aundik, da ortza bakanaoakiñ errexao biltzen due nonbatt; pixke at utziatik ez tie inportik.

Artzainen artean ere bazen alde; izan ere, gipuzkoarrek eta nafarrek desberdin izendatzen zituzten ardiei belarrarian egiten zizkieten markak: Nafarroan (Araitz aldean, behinik behin) *koxka* zena *aketxa* zen Gipuzkoan (Apalauza eta Arraztio 2007: 99).

2.6. Feriak

Iragan mendean, salerosketa-harremanak feria eta merkatuetan gauzatzen zituzten, eta ez, orain bezala, denda eta saltokietan. Astez aste, baratze eta alorretan jasotako uzta edota etxean hazitako azienda hartu, eta feriara jotzen zuten herritarrek, zeukatena salgai jartzera eta behar zituztenak erostera.

Gure eremuan, bi feria handi nabarmendu dira: Irurtzungoa eta Tolosakoa. Oraindik orain bizirik daude biok, baina ez dute, inondik ere, lehen zuten garrantzi eta eragin bera.

Irurtzungo feriarik dagokionez, Nafarroako mendebaleko feriarik garrantzitsuenak izatera iritsi zen, eta hori herriaren kokapen geografiko estrategikoari zor zaiola ondorioztatu dute Casas Torres eta Abascal Garayoa ikertzaileek (1948: 32-33) eta baita Recondok (2010: 214) ere; hona ikertzaileon aipuak, hurrenez hurren:

Creemos que la razón de ser de este mercado se debe a la muy favorable situación geográfica de Irurzun. La parte más nueva del mismo está construida sobre el cruce de varias carreteras, desde las cuales se puede llegar fácilmente a Pamplona, San Sebastián, Alsasua y Puente la Reina. Las comarcas inmediatas, por otra parte, alimentan gran cantidad de ganado de cerda, y las fáciles comunicaciones por carretera y ferroviarias, de las que se hace un intenso uso en los días de mercado, explican que éste haya ido a establecerse allí donde la encrucijada de los caminos —que tiene lugar precisamente en una zona de interferencia y contacto de comarcas bien definidas— hace más fácil la reunión de los hombres. Para nosotros, Irurzun es además, hasta cierto punto, un reflejo pamplonés, un mercado satélite de Pamplona, la cual abastece a través de él a los habitantes de las comarcas vecinas, quienes, no obstante, acuden también, como nuestro mapa indica, a la capital navarra.

Azkar garatu bazen, XIX. mendearen amaieratik garraiobideen arteko gurutze gisa eskuratu zuen kokapen estrategikoagatik izan zen. Udalerria lau errepidek eta bi trenbidek zeharkatzen zuten.

Urabaienek dioenez, Nafarroako feria nagusiak eremu menditsuetan eta herri txikietatik hurbil egon izan dira; alegia, merkataritzako jarduera eskasa eta komunikabide urriak zituzten guneetatik hurbil egonik, feriak ezinbesteko salerosketa-gune bihurtu ziren halako herrietako biztanleentzat (1959: 131). Horren adibide garbia da Irurtzungo feria.

Antzina ere herri garrantzitsua zen Irurtzun (cf. Altadill 1912-2: 41), eta Done Jakue bide zaharra ere handik igarotzen zen (Linzoain 1979: 6):

Ayer, como hoy, el pueblo ha sido lugar de paso de gentes pacíficas, o beligerantes, afectándole en mayor o menor grado algunos episodios de la historia de Navarra. (...) Uno de los Caminos de Santiago, el más antiguo de Navarra, usado en el siglo XI, salía de Pamplona y cruzaba Araquil y Burunda, para seguir por Alava.

Casas Torres eta Abascal Garayoa ikertzaileek diotenez, Irurtzunek 483 biztanle zituen, eta feria-egunetan 18.880 lagun biltzen ziren herrian. Ildo horretatik, bilgune-feriatzat hartu izan da. Erostenak Nafarroako alderdi askotatik etortzen ziren, eta, areago, baita beste leku batzuetatik ere,

hala nola Gipuzkoatik, Arabatik, Bizkaitik edota Espainiako hainbat lekutatik (1948: 31-32). Hona Recondoren hitzak (2010: 214):

Komunikazio paregabe hauei esker, 1900ra arte ia existitzen ez zen txerramaren ganadu feria Espainiako garrantzitsuenetako bat bilakatu zen (...). 1912tik 1960ra izan zuen goren aldia. Feria egunak ugaritzen joan ziren: hasieran hilean behin egiten zen, gero hamabostean behin, eta azkenean astean behin. Nafarroako Erribera, Lizarreria eta inguruko herrialdeetatik ez ezik, Leon, Aragoi, Katalunia eta Espainiako Levantetik tratulariak hurbiltzen ziren feriara.

(...)

Ehunka gurdi iristen ziren, eta autobus asko. Inguruko zortzi konpainia txikik zerbitzua ematen zuten feria egunetan. Konpainia hauek ziren: Imoztarra, Ulzamarra, Muguiorarra, Aresoarra, Patxikuarra, Atalloarra, Burundesa, Beriainesa, Valle de Olo autobusa eta La Roncalesa. Irurtzun feriagatik existitzen zen. Zeukan tamainarako, lokal kopuru guztiz neurrigabekoa zegoen herrian: zazpi denda, hiru burdindegi, taberna eta kafetegi asko, banku sukurtsal, hiltegi bat... Ofizialki, ostatu bakarra zegoen, baina ia etxe guztietan eskaintzen zituzten otorduak eta lotarako tokia.

(...)

Halaber, ostatuak baziren Berriobeiti, Saratsate, Eritze, Urritza, Latasa, Arruitz, Lekunberri, Azpirotz eta Gorritin.

Gure eremuko herriei dagokienez, Imoztik, Basaburu Nagusitik eta Larraundik joan ohi ziren astero (edo hamar egunetik) Irurtzongo feriara, eta askoz gutxiago Araitz-Betelutik²¹. Inguruko beste ibarretatik ere joaten ziren, hala nola Ateztik, Ultzamatik, Arakildik, Sakanako erdialdetik, Gulibartik, Goñerritik, Ollarandik edota Basaburu Txikitik. Berriemaileek kontatu digutenez, bazter guztietako jendearekin elkartzeko aukera izaten zuten feria-egunean, baina batik bat auzo-herrietakoekin igaro ohi zuten eguna. Oinez joan ohi ziren gehien-gehienean, harik eta autobus-zerbitzua jarri zuten arte.

1936ko gerraren aurretik, arrakasta handia izan zuen Irurtzongo feriak, baina orduz geroztik haren gainbehera etorri zen. Gaur egun, feria egin egiten dute, baina salgaien eskaintza asko murriztu da (ez da aztiendarik izaten), baita saltzaile eta erostun kopurua ere. Horren inguruko datu zehatzak eman ditu Floristanek (1978: 214. orrialdeko oin-oharra)²²:

²¹ Olanok dio Leitzarango, Araizko, Larraungo eta Imozko herritarrak Irurtzuni eta Tolosari begira bizi izan direla “orain berriro arte” (2000: 141), baina Tolosaren itzala ez zen Larraun gehienera eta Imotza iristen, ez behinik behin eguneroko ohiko bizimoduan, hango berriemaileek berretsi digutenez.

²² Floristanek adierazi duenez, J. M. Mutiloaren *El valle de Araquil* lan argitaragabea ageri dira datuok.

El mercado de Irurzun es sin duda, sucesor del que se celebraba en la ermita de Santiago de Ichasperri (lugar de celebración de las sesiones municipales del ayuntamiento de Araquil, al que pertenece Irurzun) desde la alta Edad Media; el traslado debió hacerse entre 1850 y 1866. Fue mercado mensual hasta 1872, quincenal (días 1 y 16) desde 1872 a 1921, decenal (días 10, 20 y 30) entre 1921 y 1945 y semanal a partir de esta fecha. Tuvo su época más brillante entre 1925 y 1936 y, como todos los mercados, su descenso rápido a partir de 1940, quedando reducido en la actualidad al ganado de cerda. Y aún han descendido considerablemente las ventas de éste último, en gran parte porque el cerdo baztanés —que es el corriente en estas regiones— es cada vez menos solicitado —por muy graso— por los compradores. Irurzun (sic) destaca hoy más por las industrias en él establecidas: serrería, tejería y sobre todo INASA, industria del aluminio.

Feriarik gabe ere, Irurtzun asko garatu zen ekonomikoki (industriari esker batik bat), eta horrek hango ingurumarian foko edo erakargune nagusia izatea ekarri du. Esan daiteke feriak emandako merkatari-senari eusten jakin duela Irurtzunek, eta, gaur egun ere, inguruko salerosketa-eta zerbitzu-gune garrantzitsuena da (Urabaien 1959: 131):

Irurzun, aunque originado por la agricultura, se ha acrecido y desarrollado considerablemente gracias a sus mercados. Y, en realidad, la que ha influido aquí ha sido la situación sobre el comercio y no al revés. Porque colocado Irurzun en la confluencia de la Burunda y la Barranca, los valles de Larráun, Imoz, Gulina, Atez y todas las tierras de la cuenca de Pamplona, sirve a una zona de pequeños pueblos donde el comercio no ha encontrado ocasión de desarrollarse y que van a Irurzun a hacer sus compras.

Aitzitik, **Tolosako** feriara joateko ohitura handiagoa izan dute Araitz-Beteluko bizilagunek, eta Larraungo mendebaleko herrietatik ere joanik daude, batez ere autobusa jarri zutenetik. Gorrititik, esate baterako, Arribera joaten ziren oinez, han Tolosako autobusa hartzeko. Nolanahi ere, Irurtzongo feria izaten zen larraundarren lehentasuna. Ondorio bera erdietsi du Erizek Uitziko hizkuntza-komunitatearen gainean egin duen ikerketan: uitziarrek Iruñeko, Irurtzongo eta Tolosako ferietara joaten ziren, baina lehentasuna Iruñeak eta Irurtzunek zuten betiere (1997: 334-335). Errazkin herri larraundarra da salbuespen bakarra, Irurtzuna baino maizago jotzen baitzuten Tolosara.

Casas Torres eta Abascal Garayoa ikertzaileen lanaren arabera, Tolosa da araitzar, beteluar, azpiroztar eta errazkindarren merkatugune behinena (1948: 111-112, 121-123); hala jaso dugu gerok ere hango berriemaileekin izandako elkarriketetan.

Tolosako feriak ospe handia zuen Gipuzkoan (Casas Torres eta Abascal Garayoa 1948: 189, cf. *EDEL II* laneko 100. testua), eta, XIX. mendera arte, astean hiru egunez izaten zen (Garmendia Larrañaga eta Zabala 2007: 20). Hurtadok dioenez, Gipuzkoako barnealdeko azokarik garrantzitsuena izan zen, nahiz Ordiziakoak hartu duen, gaur egun, haren lekua (2001: 27, cf. Etxabe eta Garmendia 2003: 31)²³. Areago, Lekuonak dio tolosarrei feriarri esker etorri zaiela hizketa garbirako dohaina (1956: 173):

Tolosa, merkatu-erri da. Eta merkatuak ba'du doai ori. Merkatariak, dendariak, beti ere iztun onak oi dira. Merkatariak itza erreza, itza garbia, itza leuna, itza gozoa...

Tolosako ferian, beraz, Araitz-Beteluko eta Larraungo mendebaleko herrietako jendea Gipuzkoako erostun eta saltzaileekin izaten zen harremanetan astero-astero, batez ere Tolosaldeko, Beterriko eta Goierriko herri batzuetakoekin.

Horiez gain, beste bi feria aipatu nahi ditugu hemen: Iruñeko San Fermin egunekoa eta Beteluko ostiraletakoa.

Iruñekoaazienda-feria handia izaten zen, eta urtean behin izaten zen, San Fermin egunez. Nafarroa osoko jendea joaten zen hara, eta, jakina, han izaten ziren Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko nekazari eta abeltzainak ere. Garrantzi handia du feria horrek, baina, giza harremanei begira, pentsatzekoa da eragin urria izango zuela herritarren bizimoduan, bai behintzat asteroko hitzordu ziren Irurtzunen eta Tolosaren ondoan.

Azkenik, **Betelun**, hileko azken ostiraletan antolatzen zuten feria. Denetatik saltzen zuten feria hartan, eta inguruko herrietako jendearen topagune izaten zen: araitzarrak, beteluarrak, larraundarrak eta are bedaioarrak, amezketarrak, gazteluarrak eta tolosarrak elkartu ohi ziren han hilero-hilero. Batez ere gipuzkoar saltzaileak joaten ziren feria hartara, araitzar berriemaileek esan digutenez. Jakina, Betelukoa feria txikia zen Irurtzungearen eta Tolosakoaren aldean, baina muga ondoko nafarren eta gipuzkoarren bilgune izaten zen; areago, hainbat araitzarrek esan digute Tolosakoa baino garrantzitsuagoa zela berentzat Beteluko ostiraletako feria.

²³ Ordiziarako joera txikia izan da Araitz-Betelun, baina denek ere feria handizat hartzen dute egun.

2.7. Erromeriak

Gizarte tradizionalan, pertsonak aukera gutxi izaten zuten beren herritik ateratzeko eta beste herri batzuetako pertsonekin harremanetan jartzeko. Homobonok dioenez, igandeetako dantzaldiak, nekazaritza-egutegiko jai-egunak (San Isidro, San Anton, Santa Luzia, eta abar) eta erromeriak izaten ziren gizon eta emakume gazteek elkarrekin topo egiteko une bakarretakoak (1989: 476). Azken batean, norberaren herriko edota beste herri batzuetako jendea ezagutzeko, haiekin hitz egiteko, ongi pasatzeko edota haserretzeko egunak izaten ziren erromeriak. Alegia, festa-kutsuko ospakizun bihurtzen zen berez erlijio-kutsuko ospakizuna zena. Jai-egunek eta ospakizun kolektiboek garrantzi handia dute erkidego guztietan, eta nortasuna eraikitzen edota finkatzen laguntzen dute (Homobono 1989: 409):

Toda fiesta es una síntesis de los condicionamientos impuestos al grupo social que la celebra por la estructura social y económica, el medio ecológico, sus valores y creencias.

Ez dugu honetan gehiegi sakonduko, baina interesgarria iruditzen zaigu azpimarratzea erromeriek eta halako erlijio-ospakizunek talde-identitatea indartu egiten dutela (Homobono 2006: 13):

La religiosidad popular, en concreto, se articula en torno a formas de experiencia y de imaginario propias, y se asocia a identidades colectivas vinculadas a las mismas. Religiosidad tradicional o popular, no oficial e informal, local o religión *folk*, cosmológica y salutífera; diferenciada de la oficial o canónica, jerárquica o eclesial, litúrgica e institucional; y siempre más cercana que ésta al universo de intereses y necesidades de los sectores populares. Creencias, símbolos, espacios, prácticas, rituales y fiestas de la religiosidad popular están tan vinculados a los agregados sociales que han sido definidos como epifanías de las identidades de éstos: grupales (cofradías y asociaciones, parroquias y sectas), familiares e individuales, vecinales y locales, o étnicas nacionales, políticas; e incluso de género, de edad o de grupo socio-profesional.

Gurean ere ez zen halako ospakizunik falta izaten, baina ohitura desberdinak izan dituzte ibar batetik bestera. Bost erromeria nagusi aipatuko ditugu:

- Trinitatea (Aizkorbe-Aginaga)
- Salvatore (Itsaso)
- San Urbano (Gaskue)

- San Bartolome Gorostietakoa (Beorburu)
- Aralarko San Migel

Aizkorbe (Arakil) eta Aginaga (Gulibar) herrien lurretan dago **Ergako Trinitatearen** ermita (halako lehia bat egon da, antzinatik, bi herrion artean, ermitaren kokapena dela eta; Linzoain 1979: 12, 20). Hango erromeria nagusia Trinitate egunean ospatzen da, eta aspaldi-aspaldiko usadioa da hara igotzea batez ere imoztar, arakildar, gulibartar, itzatar edota ateztar jendearentzat. Homobonoren datuetan, imoztarrak, larraundarrak, gulibartarrak, arakildarrak eta txulapaindarrak ageri dira Trinitatera erromeria-egunean joaten zirenen zerrendan (1989: 447).

Ermita bakoitzak bere ermitaua izaten zuen. Trinitateko ermitauak ermita garbitzeko eta zaintzeko ardura izaten zuen, eta, horrez gain, Gulibarko, Imozko eta Basaburu Nagusiko apezten kofradiako (San Pedro ad Vincula) ordezkari-lanak egiten zituen; esate baterako, kofradiako apezten bat hilez gero, hark ematen zien abisua gainerako kofradia-kideei (Linzoain 1979: 20-21)²⁴. Linzoainek dioenez, honako ibar eta herri hauetara joaten zen eskean Trinitateko ermitaua (1979: 23): Gulibar, Arakil (Uharte eta Irañeta barne), Ollaran, Txulapain, Atetz, Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Itza. XIX. mendearen hasieran, Ororbiaraino (Oltza) ere iritsi omen zen ermitaua, eta garia ekarri omen zuen handik.

Trinitatera joaten ziren erromesek ermitaren anai-etxeetan ostatu hartzen zuten; besteak beste, Baraibarko Juandurriazenean, Etxalekuko Itturrikoan eta Mikelenean, Erasoko Berakotxean, Goldarazko Dindean, Itsasoko Errandonean, Latasako Portunean, Muskizko Asiñerenan, Udabeko Palazioan eta Urritzako Auzetxean (Linzoain 1979: 24-25).

Trinitate astelehenekoa (izan) da erromeriarik ospetsuena, baina urtean behin baino gehiagotan izaten da (edo zen) Trinitaterako erromeria edo prozesioren bat. Honako hauek (izan) dira erromeria nagusiak (Linzoain 1979: 25-29):

- Mendekoste igandea: gulibartarren eta inguruko herrien erromeria.
- Mendekoste asteartea: arakildarren eta aginagarren erromeria. Arakildarrak Aralarko San Migela igotzen ziren Mendekoste astelehenean; San Migelen irudia hartu, eta biharamunean

²⁴ Kofradia horren egoitza nagusia Etxalekuko San Pedro ermita izan zen, baina kofradia desagertu eta Larraungo eta Araizko kofradiarekin elkartu ziren, 1953an.

Trinitatera joaten ziren, irudia hartuta. Han, aginagarrekin elkartzen ziren. 1960 aldera galdu zen ohitura hura.

- Trinitate astelehena: imoztarrek, irañetarrek eta, 1960tik aurrera, arakildarrek antolatzen zuten. Atezko Hiriberri etxaldeak ere parte hartzen zuen, Muskizko elizari atxikirik baitzegoen. Imozko herri guztietatik gurutze bana eramaten zuten, eta arakildarrek, berriz, San Migelen irudia. Gaur ere bizirik dago ohitura hori.
- Trinitate asteartea: gulibartarren erromeria. Gulibarko bost herrietatik gurutze bana eramaten zuten, eta, 1967tik aurrera, baita Txulapaindik ere²⁵.

Beraz, Trinitatera batez ere Imoztik, Gulibartik eta Arakildik joan izan dira, baina baita Basaburu Nagusitik, Larraundik edota Txulapaindik ere. Gure berriemaileek esan digute batez ere imoztarren eta gulibartarren ohitura izaten zela Trinitatera erromerian joatea; Aginagako gurutzebidean elkartzen ziren, hain zuzen, Imozko herritarrek Ziako, Guliako, Aginagako eta Aizkorbeke herritarrekin, denak elkarrekin Trinitatera igotzeko. Basaburu Nagusitik, berriz, joera handiagoa zuten Gaskueko San Urbanora joateko, edo, bestela, Itsasoko Salbatorera (ikus aurrerago). Larraundarren erromeria nagusia Aralarko San Migel izaten zen, baina Trinitatera ere joaten ziren, hego-ekialdeko herrietatik batez ere; gorago esan dugunez, gainera, Trinitatearen anai-etxeetako bat Baraibarren zegoen, eta Linzoainek Latasan bildu zuen larraundar ugari handik igarotzen zela Trinitatera bidean (1979: 25).

Erromeriez gain, errogatibak ere antolatzen zituzten Gulibarko eta Imozko herriek, euria edota eguzkia eskatzeko; gaur egun, galdua da ohitura hori (Linzoain 1979: 30).

Itsasoko **Salbatore** ermitako erromerian²⁶, maiatzean (Aszension egunaren hurrengo igandean, hain zuzen), Basaburu Nagusiko lagunak biltzen dira gaur egun. Ospitalea zen, aspaldian, ermita hori, eta usadio zaharra da hara erromerian joatea. Alabaina, basaburuarrak itsasoarrek haserreturik ibili dira urte askoan —duela 15 bat urte arte, behinik behin—, ermitako ezquila erori egin baitzen, eta itsasoarrek berentzat hartu baitzuten ezquila hura, Itsasoko elizan jartzeko, alegia. Urte luzez jo du haserraldiak, eta, areago, basaburuar gehienak (itsasoarrak, udabetarrak eta beramenditarrak izan ezik, Salbatorera joaten jarraitu baitzuten) Jauntsarasko ermitara erromerian joaten hasi ziren, harik eta liskarra konpondu eta berriz denak elkarrekin Itsasoko Salbatoreren biltzen

²⁵ 1967. urtea baino lehenago, hurrengo egunean joaten ziren txulapaindarrak; alegia, asteazkenean.

²⁶ “Muitz” ere esaten zaio.

hasi ziren arte. Gaur egun, urtean behin egiten dute erromeria basaburuarrek, eta herri bakoitzetik gurutze bana eramaten dute.

Gaskueko (Odieta) **San Urbanokoa** oso erromeria jendetsua (izan) da aspalditik, batez ere hara joaten zen orori barkamen osoa emateko erabakia hartu zutenetik 1884an (Homobono 1989: 427). Erromeria hori San Urbano egunean izaten da berez (maiatzak 25), baina, gaur egun, maiatzeko azken igandean ospatzen dute. Besteak beste, San Urbanoko ermitara erreuma eta halako gaitzak sendatzera joateko ohitura izan da tradizioan.

Bost bide nagusi daude San Urbanoraino iristeko: Gaskuekoa, Ziaurrizkoa (Odieta), Erripakoa (Odieta), Eguaraskoa (Atetz) eta Usikoa (Txulapain). Homobonok dioenez, batez ere Odietako, Atezko, Ultzamako, Basaburu Nagusiko eta Txulapaingo jendea bildu izan da erromeria hartan (1989: 447), baina beste leku batzuetatik ere joaten ziren, hala nola Imoztik, Larraundik, Gulibartik eta, apalago, Araitz-Betelutik, Leitzatik, Basaburu Txikitik, Arakildik, Sakanako erdialdetik, Esteribartik, Olaibartik eta are Tolosatik ere; 1.200 km-ko lur-eremua harrapatzera iritsi zen San Urbanoko erromeria (1989: 448-449). Baleztenak eta Astizek XX. mendearen erdialdeko datua dakarte: Ultzamako, Txulapaingo, Irurtzun aldeko eta are Larraungo jendea biltzen zen San Urbanon (1944: 101).

Denek ez zuten, jakina, helburu edo motibazio bera: hurbileko herrietako jendeak, besteak beste, identitatearen eta nortasunaren indargarritzat hartzen zuen erromeria-eguna; beste batzuk sinesmenak bultzatuta joango ziren; beste batzuk beren produktuak saltzera, eta abar. Izan ere, erlijio-ospakizunaz gain, beste jarduera batzuk ere izaten ziren egun hartan: merkatu txikia (lantresnak, etxe-tresnak, elikagaiak...), tabernak, musika eta dantza, bazkaria, eta abar. Gainera, ezkontza- eta salerosketa-tratuak adosteko egun aproposa izaten zen hura. Hona Homobonoren hitzak (1989: 408):

La de Gaskue es una equilibrada síntesis de prácticas de religiosidad popular y liturgia oficial, comitivas procesionales y desordenada afluencia, actos comensalísticos y lúdicos, singularidad local e inclusión en ámbitos supralocales.

1987an, inkesta bat egin zuen Homobonok, San Urbanoko erromeriara joaten zen jendea nongoa ote zen jakiteko: urte hartan, batez ere odietarrak, ateztarrak eta txulapaindarrak bildu ziren

San Urbano inguruan; bigarren maila batean, imoztarrak, basaburuarrak, larraundarrak eta arazitarrak; eta oso jaitsita zegoen gainerako lekuetatik etorritako jende kopurua (1989: 457). Haren ondorioa zera da: euskararen eremu geografikoa murriztearekin, San Urbanora joaten den herri kopurua ere murriztu egin da; alegia, euskara galdua den herrietatik gero eta gutxiago joaten dira San Urbanora (1989: 487).

Gure berriemaile adinekoengandik jaso dugunaren arabera, batez ere Imozko Muskiztik²⁷ eta Basaburu Nagusi gehienetik izan dute San Urbanora erromeria-egunean joateko ohitura. Gainerako herrietatik ez zen joera handirik: imoztarrak Trinitatera joaten ziren batik bat, eta larraundar zein araitz-beteluarrak, berriz, Aralarko San Migela. Horrek ez du esan nahi San Urbanora joaten ez zirenik, jakina; maiztasun-kontua besterik ez da.

Gipuzkoarren eta nafarren bilgune izan da **Aralarko San Migel** (cf. Jimeno Jurio 1970). Historian atzera eginez, Karlistaldian, esate baterako, nafarrek eta Tolosa aldeko gipuzkoarrek oinezko erregimentu bat osatu zuten liberalen aurka borroka egiteko. Leitzan bildu ziren, eta han sortu zen San Migel oinezko erregimentua. Hain zuzen, Aralarko San Migelen borrokatu ziren, eta mendiak balio sinboliko handia hartu zuen. Hona Baleztena eta Astiz ikertzaileen hitzak (1944: 189-219):

Y la montaña, sana, fuerte, alegre, trabajadora, se enfrentó con la ciudad incolora, rellena de odios, internacional, negativa, de la que ya había huído todo resto de espíritu. (...)

Después, a lo largo de la dura campaña, ¿quién sabe como nació el voto? Tal vez en medio de la batalla sangrienta, al calor de una invocación desesperada. Posiblemente en unos instantes de angustia, la voz del Aralar, el Patrono del País, llamó a sus corazones uno por uno trayéndoles la seguridad del triunfo, la esperanza del retorno victorioso a sus plantas... y prometieron:

—Cada año juntos, subiremos a la cumbre de San Miguel a darle las gracias. Por la victoria tuya una vez más sobre el mal. Por tu protección.

Honela jarraitzen du kontakizunak:

Los voluntarios de San Miguel, han cumplido su palabra. Cada año, por los caminos de Tolosa, Lecumberri, Huarte Araquil, Madoz o Lacunza, de las laderas de toda la sierra o desde los más lejanos

²⁷ Alabaina, Muskiztik baino gehiago Etxalekutik eta Zarranztik joaten zirela dio Homobonok (1989: 448).

destinos donde algunos han ido a parar, vuelven los mozos a los pies del Arcángel a cumplir su promesa de repetir a San Miguel las gracias por la Victoria.

Jende askoren igarobide, eta, ondorioz, harreman askoren iturri izan da urte askoan Aralarko San Migel (cf. 2.5.).

San Migel santuarenganako debozioa oso handia izan da beti, eta jendea urrutitik ere etorrira dago santutegira. Hala ere, deboziorik handiena inguruko lurraldeetan topatuko dugu: Arakil, Larraun, Araitz-Betelu, Tolosaldea... Ildo horretatik doaz Peña Santiagoren hitzok (1984: 18):

Años atrás, cuando todavía no estaba construida la carretera hasta San Miguel, ni abierta la pista de Uharte-Arakil, eran cientos los peregrinos que venían a pie hasta este templo levantado en las laderas de Altxueta. Las peregrinaciones más tradicionales eran las que llegaban desde Uharte-Arakil (por la ermita de Zamarze), de Madoz (por Agiri, o por el valle de Ata), de Iribas y Baraibar (por Burdingurutzeta y el valle de Ata), del valle de Araiz (por la Malloa de Errazkin y Beluta, o por la Malloa de Intza y Abateko lepoa), y de Amezketa y Abaltzisketa (por Ondarre e Igaratza, o por Irazustako lepoa e Igaratza). Naturalmente, no debemos olvidar los peregrinos que venían de la zona de Lakuntza, Etxarri-Aranaz, Ataun, Zaldibia, e incluso desde Tolosa, y de tantos pueblos más del valle de Larraun, la Sakana navarra y el Goiherri guipuzcoano.

Nagusiki bost ospakizun berezi izaten dira Aralarko San Migelen (Peña Santiago 1984: 17-18): Bestaberri eguna, San Migel kofradiaren eguna (ekaineko lehen igandea), Lakuntzako pertza (abuztuko hirugarren igandea), absoltzioaren eguna (abuztuko azken igandea) eta San Migel eguna (irailak 29). Gaur egun, toki askotako jendea joaten da halako ospakizunetara²⁸, baina guk azken ehun urteotako usadioari erreparatuko diogu.

Gure berriemaileengandik jaso dugunez, batik bat Larraungo, Araitz-Beteluko, Arakilgo eta Gipuzkoako Goierriko eta Tolosaldeko jendeak izaten zuen San Migela igotzeko ohitura, erromeria zela, aitortzak zirela, eta abar (salbu Lakuntzako pertzaren egunean, batik bat Sakana aldeko jendearentzako festa izaten baitzen). Imozko Goldaratz herritik ere bazuten ohitura, bezperan abiatuta, Madoztik barrena, Atako zelaia zeharkatu, eta San Migelaino joateko.

²⁸ Duela hamasei urtetik hona, Gurutze festa edo Larraungo artzapez-barrutiaren festa ospatzen dute San Migelen iraileko lehen igandean. Larraundik, Araitz-Betelutik, Imoztik, Basaburu Nagusitik eta Leitzatik eramaten dituzte gurutzeak.

San Migelen anai-etxeetako bat dugu Errazkingo Marteenea. San Sebastian «Latxaga»k dioenez, San Migelek herrira urteroko bisita egiten zuenean, apezek eta haren laguntzaileek anai-etxeetan lo egiten zuten. Ordainetan, diru-saria ematen zuten, eta, hiltzean, San Migelgo santutegian egiten zizkieten hileta-elizkizunak. Gainera, anai-etxeetako bizilagunek urtero-urtero gaztak eta gaztainak biltzen zituzten herrian, gero San Migela eramateko (San Sebastian «Latxaga» 1973: 24).

Bestalde, abuztuko bigarren igandean San Migelen irudia Igaratzako ermitara eramateko ohitura izan dute gipuzkoarrek (Peña Santiago 1984: 17-18), eta Araitz-Betelutik ere bazuten hara egun hartan joateko ohitura.

Horra, beraz, gure eremuko erromeria nagusiak. Horiez gain, badira erromeria txikiagoak ere, tokian tokikoak, herri mailakoak: besteak beste, aipagarriak dira Beteluko San Donatokia (errazkindarrek ere parte hartzen zuten), Uitziko Santa Engrazia edota Intzako Santa Krutzekoa.

2.8. Gaur egungo harreman-sareak

Gaur egungo harreman-sareak guztiz aldatu dira. Ezin emango genuke haien berri aurreko ataletan erabilitako irizpide berak erabilia; alegia, azken berrogeita hamar edo ehun urteetako giza harremanen sorburu nagusiak artzain eta abeltzainen arteko harremanak, erromeriak, feriak, kofradiak, kontrabandoa... eta halakoak izan dira, baina beste parametro batzuk erabili behar ditugu gaur egungo egoera zein den azaltzeko.

Gizartean azken urteetan izandako aldaketa sakonak gizarte horretako partaideen arteko harremanak ere aldatzea ekarri du. Lekunberriko salbuespena gora-behera, gure eremuko lau ibarretako herriek herri txiki izaten jarraitzen dute, baina herrietan bizi diren pertsonen bizimoduak ez du zerikusi handirik lehengoarekin. 1.4. atalean ikusi dugunez, egitura ekonomikoan nabaria da aldaketa hori: nekazaritzari, abeltzaintzari eta artzaintzari lotutako jarduerak gainbeheran dira (cf. Torres Luna 1971: 153).

Ildo horretatik, Nafarroako herriak eskualdeka sailkatu ditu Ardaizek, zenbait irizpide funtzionali jarraituz (1980). Hark dioenez, irizpide funtzionalen helburua da detektatzea zein diren Nafarroako eskualdeetako biztanleen harremanak eta are mendekotasun-harremanak; alegia, erakargune eta foko funtzional nagusiak zein diren aztertu nahi du eskualdez eskualde (1980-1:

181). Honako irizpide funtzional hauei jarraituz lan egin du (1980-1: 180-184): herritarrek nora jotzen duten erosketak egitera —handikako nahiz xehekako salmentak kontuan hartu ditu—, medikutara, garraio publikoa hartzera, lanera, eta zein egunkari irakurtzen duten. Gure eremuari dagokionez, Basaburua-Ultzama eskualdera bildu ditu Imotz eta Basaburu Nagusia, Atetzekin, Ultzamarekin, Anuerekin, Lantzekin, Odietarekin, Olaibarrekin eta Ezkabarterekin batera; eta Araxes-Larraun eskualdean kokatu ditu, aldiz, Araitz-Betelu eta Larraun. Ardaizek dioenez, funtzionalki Iruñera begira bizi dira Basaburua-Ultzama eskualdeko herriak, eta Iruñeari eta Gipuzkoari begira, berriz, Araxes-Larraungoak (1980-1: 186). Ingurumariko herriei dagokienez, Basaburu Txikian bildu ditu Leitza, Areso, Goizueta, Arano, Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaien; Leitza industria ugari dagoela eta inguruko jende asko hara lanera eta beste hainbat kontutara joaten dela dio, eta, aldi berean, Leitza Gipuzkoara begira dakusa (1980-1: 185). Imotzen hegoaldean diren herriak (Txulapain, Itza, Gulibar) Iruñerrian sartu ditu, Iruñearen mende baitaude erabat (1980-1: 187-188).

Alegia, gure eremuko herriak beste gune batzuen mende daude: Iruñearen mende Imotz eta Basaburu Nagusia, eta Iruñearen eta Gipuzkoaren mende, berriz, Larraun eta Araitz-Betelu (eta are gure eremutik hurbil den Leitza ere).

Gizarte mailako aldaketa horiek eragin zuzena dute hizkuntzan (Moreno Fernández 2004: 71):

... la situación que está atravesando la Europa del cambio de siglo se caracteriza por la movilidad de la población, el fácil acceso a los medios de comunicación social y la importancia de los movimientos migratorios nacionales e internacionales. Todo ello está multiplicando y diversificando los contactos entre variedades lingüísticas –dialectos y lenguas–, unos contactos que siempre han existido y preocupado a los investigadores, pero que ahora se revelan como más intensos y variados. Entre las consecuencias de tales contactos destacan los procesos de convergencia y divergencia lingüísticas.

Eta, horrenbestez, dialektoen arteko hizkuntza-desberdintasunak aztertzeke orduan, zilegi da faktore geografiko eta historikoak aintzat hartzea (Ivić 1962: 38):

... it will be possible to elaborate a definitive theory about the relative share of geographical and historical factors influencing dialectal differentiation under various circumstances. But even now it can be predicted that some particular types of differentiation will be connected with some particular historical or geographical situations.

Azken batean, Caminok dioenari jarraituz, “dialektoen errealitate sozio-historikoa aldatu bada, gizartea bera ere aldatu delako da neurri batean” (2009a: 201). Oro har, gainera, aldaera dialektala herriaren esparrura mugatuta gelditu ohi da, eta aldaera estandarra, aldiz, hiri-esparrura: “Dialektoak ez dira sortu egungo gizarte-egoerari erantzuteko, horretarako mintzo estandarragoa eta homogeneousagoa dago. Lagunarterako eta herri barreneko eguneroko jarduerarako balio du herriko mintzoak, etxean ikasi den dialektoak. (...) giro urbanoak, berriz, aldaera batuagoetara bultzatzen du hiztuna oharkabean” (2009a: 201).

Atal honetan, aztergai ditugun herrietan gaur egun bizi den jendearen harreman sozioekonomikoen berri eman nahi dugu. Oraingo bizimoduaren ezaugarriak zein diren aintzat hartuta, hiru alderdiri erreparatuko diegu: eskola eta hezkuntza akademikoa, aisialdia eta astialdia (batez ere gazteen kasuan) eta lana.

a. Eskola eta hezkuntza akademikoa

Hezkuntza asko aldatu da azken hamarkadetan. Eskola gutxi jasotzen zuten lehenago, eta edukiak eta ikasgaiak ere asko aldatu dira. Zer esanik ez, duela gutxi arte, gaztelaniaz izaten zen eskola, eta ez zegoen euskaraz ikasteko aukerarik. Orain, beste arlo batzuetan gertatu den bezala, hezkuntza-sistema ere zentralizatu egin da. Duela berrogei urte, herri gehienetan bazen eskola, edo, bestela, ondoko herriko eskolara joaten ziren. Imoztarrak, esate baterako, 1970. urtera arte, Latasako, Etxalekuko eta Oskozko eskoletan biltzen ziren (Gartzaron Zudaire 2005: 106). Handik aurrera, Irurtzungo eskolara joaten hasi ziren Imozko umeak, eta hala da gaur egun ere. Gaur egun, Irurtzungo eskolan ikasten duten ume gehienek D ereduan ikasten dute, baina gaztelaniazko A eredia ere bada aukeran. Imozko, Irurtzungo, Arakilgo, Gulibarko, Ollarango eta Itzako umeak biltzen dira Irurtzungo eskolan, 14 urteak arte, DBHko 1. eta 2. zikloak betetzen dituzten arte. Handik Iruñera joaten dira gero, eta, duela gutxi arte, Altsasura ere joaten ziren batzuk. Arakilgo Ihabar eta Hiriberri herrietatik, ordea, Irurtzuna joan beharrean, Uharte Arakila edota Etxarri Aranatza joaten dira batzuk, eta handik Altsasura.

Basaburu Nagusitik, berriz, Jauntsarasko eskolara joaten dira ume gehienak, lehen hezkuntza D ereduan jasotzera. Baina guraso batzuek A ereduan ikastera eramaten dituzte beren seme-alabak, Irurtzungo eskolara. Jauntsarastik Ultzamako Larraintzarra joaten dira gero, DBHko ikasketak

egitera, D ereduan han ere. Jauntsaratsen, beraz, basaburuarrak, ultzamarrak, ateztarrak eta odietarrak elkartzen dira. Handik Iruñera joaten dira gero.

Larraungo umeek Lekunberriko eskolara jotzen dute DBHko 1. zikloko ikasketak egitera, D ereduan. Salbuespen dira Errazkin eta Lezaeta, Beteluko eskolara joaten baitira hango umeak; hala izan da, gutxienez, 1970. urtetik aurrera (Sánchez Carrión 1972a: 70-71). Ondoren, Lekunberrietik Iruñera joaten dira gehienak, eta bakar batzuk Leitzara ere bai.

Araitz-Beteluko ume guztiak Beteluko eskolara joaten dira, eta baita, arestian esan dugunez, Errazkingoak eta Lezaetakoak ere. D ereduan ikasten dute han. Handik Tolosara joaten dira gehienak, baina batzuk Leitzara eta gero Iruñera ere joaten dira.

Gure eremuko ume gehienek, beraz, eskualdeko eskoletan jasotzen dituzte hezkuntzaren lehen urratsak, eta Iruñeko ikastetxeetan biltzen dira gero (Biurdana ikastetxea izan ohi da aukera nagusia, baina Burlata edota Barañain ere aukeratzen dute batzuek). Baina Errazkingo, Lezaetako eta Araitz-Beteluko gazteek Tolosan jarraitzen dituzte ikasketak, eta han, pentsatzekoa den bezala, Tolosaldeko herrietako gazteekin topo egiten dute. Hori nabaria da alderdi horretako gazteen hizkeran, haien herrietako euskararen ezaugarri batzuen orde ezaugarri giputzak erabili ohi baitituzte harreman jakin batzuetan (ikus 5.2.2.). Izan ere, institutuko harremanaz gain, harreman sakonagoak ere sortu ohi dira, adiskidetasunezkoak, eta, ondorioz, Gipuzkoako hizkeren eragina erabatekoa da Araitz aldeko gazteen euskararen. Imozko, Basaburu Nagusiko eta Larraungo gazteek, aldiz, Nafarroako beste hizkera batzuk eta euskara batua dituzte inguruan eskolako lehen urteetan, eta, Iruñean, euskara batua batik bat.

b. Aisialdia eta astialdia

Homobonok aisiari buruzko ikerketa batean dioenez, faktore kulturelek eragin handia dute jendearengan; esate baterako, herri-giroko jendeak nahiago izaten du (edo zuen) Azpirozko Malloak dantzalekura joan, Iruñera baino, Iruñea hurbilago egonda ere (1985: 239):

Es muy ilustrativo a este respecto que el ámbito de algunas salas de fiestas ubicadas en la Montaña Atlántica de Navarra (“Malloak”, “Bordatxo”, etc.) comprende núcleos rurales mucho más próximos a Pamplona / Iruñea que a tales centros de esparcimiento. Estos hechos ponen de manifiesto que la incidencia de factores culturales limita la actuación de la gravitación centrípeta.

Alegia, herri-giroko herri batekoa izateak eragin handia du aisian, harremanak desberdin gauzatzen baitira herri- eta hiri-giroetan (Homobono 1985: 239):

El análisis del ocio rural exige situarse en un contexto que conserva un cordón umbilical con el pasado, con la tradición, lo que supone la actuación de otros factores en presencia. En primer lugar, un mayor contacto con la naturaleza y la persistencia de rasgos culturales arcaizantes, a pesar de la irrupción de estilos de vida urbanos. También la existencia de agrupamientos sociales menores y mucho más homogéneos que los urbanos. Por otra parte, si bien rural no significa lo mismo que agrícola, las actividades laborales agrícolas y ganaderas son preferentes en el medio rural, condicionando la utilización del tiempo libre a los imperativos del ciclo productivo agrario.

Hain zuzen, ikerketa interesgarri bat egin zuen Olza Zubirik 70eko hamarkadan Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretan²⁹: *Psicosociología de una población rural vasca* (1979). Lan hartan, 25-49 urteko gizonak elkarrizketatu zituen, gehienak ezkonduak eta abeltzainak (1979: 35). Ondorio nagusia da aisirako denbora gutxi izaten zutela oraindik ere, etxeko lanak zirela eta³⁰, eta jarduera nagusiak herrian berean (tabernan, kalean...) edo inguruko herrietan egiten zituzten, hala nola Irurtzunen, Lekunberrin eta Leitzan (1979: 140). Alegia, herritar edo hiritar izateak eragin zuzena du aisia bizitzeko momentuan: herri-girokoek murriztagoa dute aisialdia, baina, oro har, nahiago dute herri-giroetan ibili (Irurtzun, Lekunberri, Leitzan). Ondorio bera erdietsi du T. del Vallek Gipuzkoako Aia, Amezketa, Ataun eta Errezil herrietan 1981-1983 urteetan egindako lan batean (Homobono 1985: 239).

Baina 30 urte igaro dira Olza Zubirik ikerketa hura egin zuenetik, eta, tarte laburra bada ere, egoera asko aldatu da. Gaur egungo imoztar, basaburuar, larraundar eta araitzar gazte gehienak ez dira ez nekazariak ez abeltzainak (salbuespenak salbuespen); hortaz, etxeko lanek ez dute gazteon aisialdia baldintzatzen. Areago, gazteek astialdirako aukera handiak dituzte, baita hara eta hona nahierara ibiltzeko aukera ere. Nolanahi ere, oraindik nabaria da herria / hiria banaketa, nahiz eta

²⁹ Aresoko eta Leitzako zenbait datu ere badakartza.

³⁰ Udan, batez ere, aisirako denbora gutxi uzten du abeltzaintzak (Olza Zubiri 1979: 134): “En los meses de invierno los trabajos de ganadería son reducidos, pese a la sujeción que llevan consigo, y la agricultura no ocupa a nadie. En primavera la ganadería no requiere todavía mucha dedicación y comienzan los trabajos agrícolas. De mediados de junio a mediados de agosto, la ganadería exige toda la dedicación, aunque sea en forma de recogida de hierba para el ganado, desde la mañana hasta la noche. En septiembre y octubre baja la actividad de la ganadería lo que lleva a prestar más atención a la agricultura.

La actividad, con estar centrada de lleno en la ganadería, sigue ciertas variables en función de las estaciones del año”.

gero eta txikiagoa den. Ez dugu horren inguruko ikerketa formalik egin, baina guk ezagutu dugunaren berri emango dugu hurrengo lerrootan. Oro har, lau ibarretako gazteek nahiago dute beste herri batera joan (parranda egitera, adibidez), hiriguneetara baino. Araitz-Beteluko gazteek nahiago izaten dute, esate baterako, Doneztebera edo Elizondora joan, Iruñera baino (kontuan izanik Iruñea askoz hurbilago dutela), han aurkitzen duten giroa gertuagokoa zaielako. Imozko eta Basaburu Nagusiko gazteek ohitura handia dute Iruñera joateko (erosketak egitera, ikastaroak egitera, eta abar), baina, parrandarako edo gozamenarekin lotutako beste jardueretarako, beste herri batzuetara jotzen dute, hala nola Irurtzuna, Lekunberrira, Leitzara, Etxarrira edota Altsasura (eta are Elizondora ere). Larraungo eta Araitz-Beteluko gazteek, berriz, Lekunberrira, Leitzara edota Tolosara (Araitz-Betelutik batez ere) jotzen dute.

Badira, jakina, aisialdia hirian (Iruñean edo Donostian) bilatzen dutenak, baina herri-giroaren bila ibiltzen dira gehien-gehienean. Nolanahi ere, herrietako eta hirietako bizimodua berdinduz doala iruditzen zaigu, eta bion arteko aldea gero eta txikiagoa da iragan mendearekin alderatuz, baina herri batean jaio eta bizi izanak asko baldintzatzen ditu oraindik ere pertsonen ohiturak, joerak, zaletasunak eta, azken batean, bizimodua.

c. Lana

1.4. atalean aipatu dugunez, lau ibarretako jarduera ekonomikoaren egitura asko aldatu da — eta aldatzen ari da—. Nekazaritzak eta abeltzaintzak behera egin dute, eta jende gehiena industrian edota zerbitzuetan aritzen da lanean gaur egun. Atal honetan, ez dugu aztertuko gaur egungo jendea zertan eta zein lekutan aritzen den lanean (aurreko ataletan aztertu dugu), baizik eta horrek nolako eragina duen herrietako biztanleengan. Izan ere, Olza Zubirik dioenez, halako aldaketek jendearen mentalitatea aldatzen dute, eta, horrekin batera, baita ohiturak eta munduarekiko ikusmoldea ere (1979: 57).

Ordena ekonomiko eta sozial berri bat sortu da, eta gizarte ruralak eta gizarte industrialak gero eta antza handiagoa dute elkarrekin (Olza Zubiri 1979: 122):

Está muriendo un orden social, una original organización social en el mundo rural vasco y está naciendo otro que va camino de pasar por la industrialización de la agricultura y de la ganadería. Es un problema de imaginación el buscar nuevas unidades de producción en las zonas rurales vascas, puesto que la casa-familia está a punto de dejar de serlo en su forma actual.

El mayor obstáculo sin duda, es el carácter independiente del vasco en cuanto a lo que a producción se refiere (que no es más que uno de los sectores en que se pone en claro su sentido de la independencia). Les va a costar mucho a los sujetos que hemos estudiado el dejar de cuidar sus propias vacas para cuidar las de todo un grupo y no poder decidir sobre la producción si no es mediante acuerdos, reuniones y negociaciones, siendo así que en muchos casos ésa será la solución normal a sus problemas.

De esta forma puede surgir un orden económico y de producción nuevo, más parecido al orden industrial, y que condicionará en parte el orden social y algunos principios morales y religiosos. La sociedad rural vasca cada vez se va a parecer más a la sociedad industrial de la que va a participar con sus ventajas e inconvenientes, aunque cabe esperar que participe más de las ventajas, puesto que tienen el modelo industrial por delante para imitarlo, evitando sus errores. Las reivindicaciones de ganaderos y agricultores empiezan a parecerse a las de los obreros de la industria, tanto en el fondo como en la forma. Su mayor problema va a ser acceder a los beneficios sociales de la sociedad industrial, principalmente en cuanto concierne a la cultura y a la formación, con grandes oportunidades.

Ezin esan dugu Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko gizartea industrialala eta hiritarra denik, inondik inora ere ez; aldakuntza sozial sakona gertatzen ari dela azpimarratu nahi dugu hemen. Azken batean, Olza Zubirik aurkitu zuen egoeraren jarraipena dugu gaur egungo egoera (1979: 14):

A lo largo de todo este trabajo, desde los primeros pasos contactando con los hombres de la zona, hasta las últimas interpretaciones, no hemos podido quitarnos la sensación de estar contemplando algo que se acaba, de estar presenciando una transformación en la que se ven los dos términos difusamente, apenas perfilada la nueva sociedad y muy desdibujada la sociedad tradicional.

3. EUSKARA IMOTZ, BASABURU NAGUSIA, LARRAUN ETA ARAITZ-BETELU IBARRETAN

Eremu euskaldunean daude aztergai ditugun lau ibarrak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen barnean. Hiru eskualde bereizi dituzte mankomunitate horretan:

- Larraunaldea: Larraun eta Araitz-Betelu.
- Leitzaldea: Leitza, Areso, Goizueta eta Arano.
- Ultzamaldea: Basaburu Nagusia, Imotz, Ultzama, Anue eta Odieta.

Eskualde bakoitzean euskara-teknikari bana aritzen da lanean; gurean, beraz, teknikari bat dugu Larraunen eta Araitz-Betelun, eta beste bat Imotzen eta Basaburu Nagusian, Ultzama, Anue eta Odieta ibarrekin batera.

Euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko datuak asko aldatzen dira herri eta ibar batetik bestera, eta horri erreparatuko diogu atal honetan.

3.1. Euskaldunen eta erdaldunen kopuruak: zenbait datu

Irizarrek 70eko hamarkadako datuak utzi zizkigun herriz herri eta ibarrez ibar (1981b). Hona gure eremuari dagozkionak:

IMOTZ³¹

Herria	Biztanle kopurua	Euskaldunak
Etxaleku	132	129
Eraso	53	15
Goldaratz	56	56
Latasa	68	20
Muskitz	55	53
Oskotz	121	90
Urritza	71	20
Zarrantz	28	28
Guztira	584	411 (%70,37)

BASABURU NAGUSIA

Herria	Biztanle kopurua	Euskaldunak
Aizarotz	18	18
Arrarats	110	110
Beramendi	50	30
Udabe	66	35
Beruete	293	280
Erbiti	47	40
Orokietta	106	80
Gartzaron	99	85
Itsaso	81	60
Igoa	118	117
Jauntsarats	49	17
Ihaben	70	28
Guztira	1.107	900 (%81,3)

³¹ Honako ohar hau dakar Irizarrek Imozko datuei buruz (193. or.): “Las cifras de vascófonos que hemos consignado en los citados tres pueblos son naturalmente las indicadas por nuestro colaborador, que además ha actualizado el número de habitantes de cada uno de estos lugares. En cuanto a los restantes pueblos, se han tomado como base las cifras proporcionadas por nuestro colaborador, sin más que acomodarlas a las poblaciones reales, ya que, por no disponer entonces de otros datos, se le facilitaron las de 1960, que en parte fueron rectificadas por el propio colaborador. ¡Admirable labor la de estos colaboradores!”.

LARRAUN

Herria	Biztanle kopurua	Euskaldunak
Aldatz	196	196
Alli	69	69
Arruitz	107	96
Astitz	66	66
Baraibar	145	145
Etxarri	116	116
Iribas	111	111
Lekunberri	685	170
Madotz	28	25
Mugiro	106	85
Oderitz	72	72
Albiasu	40	40
Azpirotz	117	117
Errazkin	128	128
Eraso (Errazkin)	18	18
Lezaeta	35	35
Gorriti	153	153
Uitzi	216	205
Guztira	2.408	1.847 (%76,7)

ARAITZ-BETELU

Herria	Biztanle kopurua	Euskaldunak
Arribe	277	200
Atallu	206	130
Azkarate ³²	150	136
Gaintza	136	136
Intza	144	144
Uztegi	95	95
Betelu	375	300
Guztira	1.383	1.141 (%82,5)

Datu horien arabera, lau ibarretako biztanle gehienak euskaldunak ziren 1970. urte inguruan: %70,37 Imotzen, %81,3 Basaburu Nagusian, %76,7 Larraunen eta %82,5 Araitz-Betelun. Gainera, guztiz edo ia guztiz euskaldunak ziren herri gehienak: Etxaleku, Goldaratz, Muskitz, Zarrantz, Aizarotz, Arrarats, Beruete, Erbiti, Gartzaron, Igoa, Aldatz, Alli, Arruitz, Astitz, Baraibar, Etxarri,

³² 136 biztanle eta 150 euskaldun dakar Irizarrek, baina errata bat delakoan gaude.

Iribas, Madotz, Oderitz, Albiasu, Azpirotz, Errazkin, Lezaeta (Azpirozko auzoa), Gorriti, Uitz, Azkarate, Gaintza, Intza eta Uztegi. Nolanahi ere, ordurako aski erdaldunak ziren zenbait herri, hala nola Eraso, Latasa, Urritza, Jauntsarats, Ihaben eta Lekunberri.

Garai bertsuko datuak ageri dira Sánchez Carriónen lan batean (1972a): *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*. Ibarrez ibar, herri erdaldunduak eta euskarari hobeki eusten diotenak zein diren zehaztu du lan horretan, eta gure eremuko datu ugari dakar. Hala, lan horren arabera, Latasa, Urritza eta Eraso dira Imozko herririk erdaldunenak, eta gainerako herrietan ongi eutsi diote euskarari (1972a: 154-160). Hona Goldarazko eta Etxalekuko adibideak (1972a: 158):

Quedan hoy 8 familias en Goldáraz. El vasco es lengua casi exclusiva en todos los sectores. Y las funciones litúrgicas son también en euskera. Pero con los pueblos vecinos (Eraso, Latasa, Urriza) han de expresarse en castellano. Contactos por lo demás exiguos como no sea con Irurzun.

(...)

Echalecu ejerce la capitalidad del valle de Imoz. Población de habla usual vasca, de las 26 familias que forman la villa 1 emigrante y 25 oriundas. Y es que hoy la migración es de signo centrífugo, pero la vitalidad del euskera es tan notable que de siempre los hijos de los emigrantes lo han aprendido en la calle (estos lo aprenden en contacto con sus compañeros de juego; sucede entonces que como ellos usan entre sí el tratamiento itano, familiar, los «kanpotarrak», pobricos, no aprenden a conjugar el verbo más que con este tratamiento y así se dirigen a una persona mayor con una forma que en vascuence resulta irrespetuosa).

Basaburu Nagusian, guztiz erdaldunduta ageri dira Jauntsarats eta Ihaben (1972a: 153-154):

Jaunsaras y Yaben son dos localidades castellanizadas en todos sus niveles.

(...)

En Jaunsaras el castellano es lengua usual de toda la población. Los vascófonos hay que buscarlos en sujetos de 50 años en adelante y, aun ellos, no lo suelen hablar prefiriendo el erdera. (...) También de total predominio del castellano es Yaben, única lengua conocida por niños y jóvenes. Los sujetos de 40 años en adelante suelen conocer el vasco, pero no lo usan.

Bestalde, erdalduntzen hasiak dira Beramendi, Udabe, Erbiti eta Orokieta (1972a: 151-153), erdibidean dira Gartzaron eta Itsaso, eta guztiz euskaldunak dira Arrarats, Igoa, Beruete eta Orokietako olako biztanleak (1972a: 142-147):

Prueba de la vitalidad del euskera en Igoa y Arrarás es que los hijos de los emigrantes durante mucho tiempo han aprendido el vasco incluso antes que el castellano (hijos de maestros, funcionarios, guardias civiles, «extremeños», etc.), pues la relación con los chicos de su edad les forzaba a desenvolverse en vasco. Si el fenómeno ya no se produce no es porque el euskera haya perdido en vitalidad, sino porque desgraciadamente la migración es ahora de signo contrario, centrífuga.

(...)

Beruete ha sido durante tiempo uno de los focos de más vitalidad vascófona, no solo en la Basaburúa, sino en toda la Navarra vasca.

Larraunen, Lekunberri eta haren ondoko Mugiro dira gune erdaldunduenak (1972a: 63-67):

Lecumberri, «aranburu» del Larráun, es un pueblo, como decimos, de fuerte predominio castellanófono. La castellanización es muy antigua y comenzó aproximadamente hace unos 90 años. Entendiendo que castellanización quiere decir introducción del castellano, no pérdida del vasco. Durante mucho tiempo aquél y éste coexisten en una situación real de bilingüismo sin peligro inmediato para la vida del vascuence. Por eso decir que la castellanización comenzó hace 90 años no quiere sino indicar que hasta esa fecha el pueblo, salvo una minoría burocrática y administrativa, era prácticamente monolingüe vasco y que a partir de ahí comenzó en determinados sectores a ser bilingüe.

(...)

[Mugiron] La introducción del castellano proviene de 20 años a esta parte pero irrumpe con una fuerza tal que va acompañada de una pérdida progresiva del euskera, hasta el punto de que los niños y los jóvenes por debajo de esa edad hoy no conocen ya el vasco. Por encima de los 20 años rige también entre los jóvenes el castellano, única lengua que hablan aunque algunos entiendan e incluso sepan todavía el euskera. Para encontrar sujetos realmente bilingües hay que acudir a individuos de 30 años en adelante, utilizando con más profusión el vasco hombres que mujeres. Pero aún entre aquéllos el castellano gana día a día terreno. Y es castellano el idioma que escuchamos a unos y otros en la calle.

Larraungo gainerako herriak euskaldunak direla dio Sánchez Carriónnek, bereziki Azpirotz, Gorriti eta Errazkin (1972a: 68-69).

Araitz-Beteluri dagokionez, Betelun euskararen transmisioa eteten hasia dela ohartarazten du ikertzaileak (1972a: 81), eta erdaldun ageri dira Arribe eta Atallu ere (1972a: 82-84):

... nos encontramos en el valle de Araiz con un esquema que nos es ya familiar: un centro castellanizado, o en proceso de castellanización, y una periferia euskaldun en mayor o menor medida.

Gainerako herriak oso euskaldunak direla dio, eta Azkaraten euskaldun elebakarrak ere badirela gaineratzen du (1972a: 86).

Inguruko herriei dagokienez, oro har, herri erdaldunak ageri dira Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretatik ekialdera (Atetz, Gulibar); hain zuzen, Imoztik eta Basaburu Nagusitik hurbilen diren herrietan iraun du euskarak, hala nola Zian, Aginagan edota Beratsainen (1972a: 163, 164). Hegoaldera, erdaldun ageri da Arakil ere, batez ere Irurtzunen eraginez (1972a: 60-63). Aitzitik, oso euskaldun ageri dira, gure eremutik iparraldera, Leitza eta Areso (1972a: 87-90) eta Basaburu Txikia (1972a: 90-94).

Baina zer gertatu da 70eko hamarkadatik hona? Nafarroako Estatistika Institutuak 2001eko erroldatik ateratako datuak ditugu orain arteko berrienak, eta ibarrez ibar emango ditugu³³:

- Imotz: 407 biztanle, 238 euskaldun (%58,47)
- Basaburu Nagusia: 674 biztanle, 485 euskaldun (%71,95)
- Larraun: 1.858 biztanle, 1.301 euskaldun (%70,02)
- Araitz-Betelu: 921 biztanle, 834 euskaldun (%90,5)

1970. urte inguruko eta 2001eko datuak alderatuz gero, garbi ikusten da euskaldun kopuruaren ehunekoak behera egin duela Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen, baina gora egin duela Araitz-Betelun. Galerarik handiena Imotzen gertatu da (%70,37tik %58,47ra). Basaburu Nagusiko eta Larraungo kopuruek ere behera egin dute, baina Imotzen baino apalago. Baina, euskaldun kopuruari buruzko zenbakiei erreparatuz gero, beherakada handia izan da lau ibarretan: jende gutxiago bizi den heinean, gero eta jende gutxiago dago euskaraz egiteko. Hala, Araitz-Betelun, igo egin da euskaldunen ehunekoa, baina euskaldun kopurua arrunt jaitsia da 70eko hamarkadatik 2001. urtera (1.141tik 834ra). Bereziki deigarriak dira Imozko eta Basaburu Nagusiko zenbakiak: 30 urteko tarte horretan, ia erdira jaitsi da euskaraz dakiten lagunen kopurua (411tik 238ra Imotzen, eta 900dik 485era Basaburu Nagusian). Besterik da euskaraz dakiten horietatik zenbatek erabiltzen ote duten eguneroko jardunean (oro har, ez ohi dira bat etorri ezagutzaren eta erabileraren datuak),

³³ Honako kategoria hauek hartu ditugu aintzat: euskaldun alfabetatuak, euskaldun ia alfabetatuak eta euskaldun alfabetatu gabeak (kanpoan utzi ditugu quasi euskaldun alfabetatuak, quasi euskaldun alfabetatu gabeak eta quasi euskaldun pasiboak).

baina ez diogu gai horri helduko. Zera azpimarratu nahi dugu: eskualdeotako euskarak oso hiztun gutxi ditu (lau ibarretakoak gehituta, 2.858 euskaldun ateratzen da), eta gero eta gutxiago, gainera.

2001eko azaroan, euskararen kale-erabilera neurtu zuen SEI erakundeak Lekunberrin. Bost neurralditan Lekunberriko herrigunean eta ikastetxe publikoaren inguruan behaketa bidez jasotako emaitzak dakartza ikerketa horrek. Guztira 665 hiztunen hizkuntza-erabilera neurtu zuten; alegia, 2001eko Lekunberriko biztanleen %80,8. Ikerketa horren arabera, Lekunberriko kaleko elkarrizketen % 31 euskaraz izan ohi da (2002: 7)³⁴. Adinaren arabera datuei erreparatu, batik bat haurrek eta adinekoek erabiltzen dute euskara kalean, eta gazteek ez dute ia erabiltzen (2002: 9). Herriko ikastetxeko jolas-orduetan egindako behaketaren arabera, euskararen erabileraren batez bestekoa %37,7 da (2002: 7-8)³⁵. Hona SEI erakundearen ondorioak (2002: 13-14):

Hortaz, tentuz hartu beharreko datua bada ere, kezkarria den egoera baten aurrean gaudela esateko moduan gaude. Izan ere, haurren ezagutza eta erabilera adin taldeetan altuenetakoa izanik haurren artean erabilera hainbeste jaistea larritzekoa da.

(...) Lekunberriko biztanleek haurrekin dituzten elkarrizketetan euskararen erabilera askoz altuagoa dela gainerakoetan baino. Hau da, euskara gehien erabiltzen da adinekoak, helduak eta gazteak haurrei zuzentzen zaizkienean edota haurrak beraiei hitz egiten dietenean. Haurrak bertan egoteak, aldiz, ez du baldintzatzen helduen, gazteen eta adinekoen elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz izatea.

3.2. Erdalduntzearen eta euskarari eustearren arrazoiak

Gure eremuko zenbait herri erdaldundu egin dira azken mendean, eta beste batzuek, berriz, euskarari ongi eutsi diote. Atal honetan, erdalduntzearen eta euskaldun irautearen arrazoiak zein izan diren argitzen saiatuko gara, eta nagusiki bi lani erreparatuko diegu: dagoeneko aipatua dugun Sánchez Carrión ikertzailearen *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)* lana, 1972. urtekoa, eta Xabier Erizeren *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza* lan soziolinguistikoa, 1997koa.

Sánchez Carriónnek, Estornés Lasaren iritzia jarraituz (cf. 1960: 12-13), isolamenduaren teoriaren bitartez azaltzen du euskarak zenbait herritan iraun eta beste batzuetan galdu izana (1972a: 201):

³⁴ Neurketak Lekunberriko kaleetan gauzatzen diren elkarrizketa guztiak aintzat hartu ditu, hiztunak Lekunberrikoak izan edo ez izan.

³⁵ D eredia dela kontuan izanik.

La razón primordial que preserva al vasco es el aislamiento, más que un género de vida tradicional agrícola-ganadero. Lo que ocurre es que aquél es consecuencia de éste. (...) debemos concluir que el factor principal que mantiene el vasco es el desconocimiento del castellano.

Hain zuzen, argudio horren bidez azaltzen du gure eremuko herrien euskaltasuna ere. Hona Araitz-Beteluko, Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietako eta Imozko adibideak (1972a: 85, 142, 156):

[Araitz-Beteluri buruz] En el Goyerri, por su aislamiento, su género de vida tradicional, el euskera tiene mucha más vigencia que en los pueblos a orillas del Araiz, mejor comunicados, con algunas industrias, y lugares de tránsito en la carretera de Pamplona a San Sebastián.

[Basaburu Nagusiko iparraldeaz] El aislamiento y un género de vida tradicional han mantenido al vascuence en estos pueblos en toda su primitiva vigencia. Pero son estos dos mismos factores los que provocan el éxodo de sus jóvenes hacia otros núcleos donde se les ofrecen horizontes más en consonancia con las necesidades modernas.

[Imotzi buruz] El primero [Imotz erdalduna] ha recibido la castellanización por influencia de la carretera general Pamplona-San Sebastián, del antiguo ferrocarril que accedía a Guipúzcoa por Lecumberri, y en fin del mercado de Irurzun. El segundo [Imotz euskalduna] ha preservado muy bien el vascuence, mejor incluso que pueblos de los valles de Basaburúa Mayor y Ulzama, más septentrionales. Quedan al interior, alejados de las vías nacionales de San Sebastián y Dancharinea. Representan en realidad el punto medio de una castellanización que ha comenzado por los extremos, irradiando desde Irurzun y la Cuenca de Pamplona por las vías nacionales. De ahí que mantengan bien el vascuence.

Haren iritziz, herria zenbat eta isolatuago egon, orduan eta hobeki eusten dio euskarari. Ildo horretatik, bizimodu tradizionalari zenbat eta gehiago atxiki, orduan eta euskaldunagoa izango da herri hori, eta alderantziz. Hala, Lekunberri herri modernizatua inguruan baserri gutxi duelako erdaldundu dela iradokitzen du (1972a: 64, 66):

... la diferencia lingüística que se observa, en la Navarra vasca, entre «capitalidades» rodeadas por un cinturón de caseríos (Vera, Elizondo) y aquellas que, como Lecumberri, no los tienen.

(...)

La crisis del vascuence en Navarra, corre en buena parte pareja a la crisis del caserío (...).

Beste herri batzuetan, aldiz, nekazari-giroak euskarari eusten lagundu du; Albiasun, esate baterako (1972a: 70):

... el aislamiento junto con un régimen de vida agrícola-ganadero favorecen la conservación de la lengua.

Erizek, ordea, beste ikuspegi bat dakarkigu, isolamenduaren teoria gainditzen duena. Haren ustez, nekazari-giroko herriek ez dute nahitaez herri isolatuak izan behar, eta, gaztelaniak bere lekua izan arren, horrek ez dakar nahitaez euskara galtzea; halaxe gertatu da, esate baterako, Uitzin (1997: 319):

... nekazari gizartea, gizarte arkaikoa ez bezala, hiriarekiko eta industri zibilizazioko guneekiko ukipenean bizi eta irauten dakien zerbait da (...) eta euskararen iraupenaren arrazoiak ez direla isolamenduaren hipotesian bilatu behar adierazten digute. Gainera, hor ditugu faktore erdalduntzaileak Uitzin luze eta iraunkor eragiten, baina euskararen inguruan eratutako bizimodu sistema egiazki kaltetu gabe.

Sánchez Carriónen lanean irakur daitekeenez, gaztelania indarrez sartu zen zenbait herritan, eskolaren bitartez eta kanpotik etorritako erdaldunen bitartez, eta horrek euskara galtzea edo gaztelania nagusitzea ekarri du. Hona Beteluko adibidea (1972a: 79):

Son vascófonos, en el sexo masculino, desde los 18 años en adelante. La edad crítica es de los 6 a los 16 en que dejan de hablar el vasco por influjo de la escuela, pues la temprana introducción del castellano al niño vasco parlante hace que éste encuentre progresivamente más facilidad para expresarse en castellano que en vasco.

Nolanahi ere, ikertzaileak berak onartzen du haurrak euskara berreskuratu ohi duela behin eskolatik ateraz gero (1972a: 81). Erizek dioenez, eskolak gaztelania zabaltzen lagundu zuen, baina ez zuen hiztun-erkidegoak erdalduntzeko adinako ahalmenik, ez behintzat zenbait herritan; Uitziko moja-eskola dakar adibidetzat (1997: 328-329):

... eskolaren eragin erdalduntzailea ez zen oso sakona gertatzen, handik atera eta gero denak berriro euskarara itzultzen ziren-eta (...).

(...)

Mojak hain erdaldunak izaki eta jendearekin hain harreman estu eta iraunkorrak edukita, umetxo

eta neskatoekin bereziki, harritzeko zen elkarrizketatuentzat nola mantendu den euskara Uitzin (...). Ez da galdu neskatoek, mutikoek bezalaxe, eskolatik atera eta etxean eta herrian dena euskaraz egiten zutelako (...).

(...)

Eskolen eragin erdalduntzailea ukaezina da, nahiz eta, ikusi bezala, erdalduntzea burutzeko indar nahikorik ez izan.

Kanpotik etorritako eragin erdalduntzaileari dagokionez, Arribe eta Atallu herrietako adibidea dakar Sánchez Carriónnek (1972a: 82-84): herritarrak gizartean gorago ikusi ohi dituen zenbait langile bi herriotan bizi zen, hala nola guardia zibilak, botikaria, maisua eta medikua. Gaztelaniaz mintzatzen ziren haiek, eta herriko jendeak haien ereduari jarraitu zien (1972a: 84):

El trabajador euskaldun ve opuestos su modo de vida —vinculado al euskera—, con el de estos profesionales, socialmente más considerados y de situación económica más holgada, que son todos ellos castellanófonos. Se crea entonces el complejo de que el vasco es «la lengua del rústico», y dejándola por la «lengua de la ciudad» se pretenden imitar los modos de vida de ésta. Lo que nosotros llamamos «complejo de rústico» alcanza particular importancia en las chicas, más llevadas por las apariencias, más sensibles a la moda, y psicológicamente más influenciables.

Halaber, Ihabenen, maistra, basozaina eta albaitaria bizi zirela dio ikertzaileak, eta haiek erdaldunak izateak herria erdalduntzen lagundu zuen (1972a: 154). Sánchez Carriónnek garrantzi handia ematen die faktore psikologikoei; izan ere, ama-hizkuntza gutxiestea ekar dezakete, gorago ikusi dugun bezala (1972a: 199-201).

Halako faktoreen eragina ukatu gabe, beste arrazoi batzuen bila jo du Erizek. Izan ere, herririk isolatuenak ere gaztelaniarekiko harremana izan dezake, eta guztiz erdaldundu daiteke ondorioz, harremana axalekoa izanda ere. Kontrakoa ere gerta daiteke, ordea; alegia, gaztelaniarekiko harreman sakona izan, eta euskarari eustea (1997: 346)³⁶:

Sare ahulen [gaztelaniazko sareen] eragin berritzailearena, bestalde, euskararen iraupena isolamenduagatik azaldu nahi duen teoriaren aurkako argudio sendoa da, Euskal Herriko herririk itxi eta isolatuenean ere halako erdararekiko harreman ahul baina kualitatiboki eraginkorrak ohikoak izan

³⁶ Erizek dioenez, “sare ahulen zeregina, ordea, kontrakoa da: berrikuntzak bideratzea. Taldea gizarte zabalarekiko harremanetan jartzen dute eta han nagusi diren ereduari —gaztelania, gure kasuan— erakarri eta talde barnera hedatu egiten dituzte sarritan” (1997: 346).

baitira. Harreman ahul horiek aski izan dira toki askotan sare trinkoaren balizko babes deuseztatu eta bertako biztanleei euskararen jarraipena belaunaldi gutxiren buruan etetera mugiarazteko, baina beste askotan ez, ordea, Uitzin bezala, non, gaztelaniarekiko harreman ugari —ahulak eta ez hain ahulak, badakigunez— izan arren, euskarari sendo eutsi zitzaion. Gakoa ez dago, hortaz, herriaren isolamenduan —kanpoko gizartearekiko loturen kopuruan, alegia— bertako hiztunen hizkuntzarekiko jarretan eta, azken finean, hizkuntz komunitatearen barne sendotasunean baizik.

Jakina, ezin ahaztu dugu Erizek aipatzen duen hizkuntza-komunitatearen barne-sendotasun hori aiseago eraiki daitekeela Uitzin, eragin erdalduntzailea handiagoa den beste herri batzuetan baino, hala nola Latasan, Arriben, Mugiron edota Ihabenen.

Hizkuntzaren kontzientzia izateak ere hizkuntzari eusten lagundu dezake; horixe gertatu da, Sánchez Carriónen hitzetan, Gorritin (1972a: 69, 203-204). Baina horrek ere ez du dena azaltzen, Erizeren ustez: Uitzin, euskarak ongi iraun du, eta ez da kontzientzia berezirik izan (Erize 1997: 339). Baliteke, ordea, Uitzin, inguru hurbilean herri euskaldunak baititu (Leitza jendetsua eta indartsua tarteko), kontzientzia berezirik ez behar izatea euskarari eusteko, ez baitzen horren beharrik (alegia, zertarako lan egin euskararen alde, euskarak deus ere kontrakorik ez duenean?).

Sánchez Carrión nagusiki isolamenduaren teoriari lotzen zaiola aipatu dugu gorago, eta hala da; baina, lanaren bukaera aldera, beste arrazoi batzuk ere egon daitezkeela dio, eta haien artean dago hizkuntza balioestea (1972a: 201). Hain zuzen, horrixe heldu dio Erizek, Uitzin eta halako herri euskaldunetan euskarak iraun izana azaltzeko (1997: 362):

... euskarak iraun du azpian gizarte edo komunitate egituratu bat izan duelako: bertan euskalduntasuna balore bat zen, prestigioa zuen, eta, oro har, hizkuntz portaera euskalduna —non erdara bigarren hizkuntza zen— garatzen eta transmititzen zuten.

Uitzira etorrita, Erizek dio harreman sakonenak herrian berean edo inguruan gauzatzen zituztela uitziarrek, eta azalekoagoak, berriz, gune erdaldunagoetan (erosketak, administrazio-kontuak, eta abar); euskarazko harreman-sarea trinkoa eta dentsitate handikoa zen, eta gaztelaniazkoa, berriz, dentsitate txikikoa (1997: 344). Horrek praktikotasunaren ideia dakar; alegia, uitziarrek euskaraz egiten zuten (eta dute) beren harremanetarako tresna baliagarria zelako, eta ez zuten gaztelaniaren beharrik (1997: 248-249):

Uitziarren jarreraren oinarriak ez ziren ideologikoak, bizipen sakonetan eta, aldi berean, behar praktikoetan sustraiturikoak baizik. Lehen hizkuntza euskara zuten eta hizkuntza horren gainean eraikitzen zuten euren izaera edo nortasuna. Orobat, euskaraz garatzen zuten pozgarria suertatzen zitzairen eta beren beharrak ongi asetzen zituen eguneroko bizimodua. Era honetan, orokorki mintzatuz, uitziarrek gizakien hiru lotura atabiko nagusiei —ama, lurra eta hizkuntza— eusten zietela esango genuke.

Baina ezin ahaztu dugu gaztelaniaren indarra oso handia zela, eta, Uitzin eta beste herri batzuetan euskarari eutsi zioten bezala, gaztelaniari heldu zioten beste herri batzuetan (1997: 363). Honela azaltzen du Erizek zenbait herri erdaldundu izana (1997: 363):

Nafarroako hainbat herriren erdalduntzea euskal hizkuntz komunitateak, sendotasunarekin batera, zuten barne ahultasun edo hauskortasun nabariarekin lotuta dago. Arazoa badakigu zein den: euskarak itxita aurkitzen zuen kultur garapenaren bidea —B bidea— eta horrela ez zegoen AB euskaldun osaturik sortzerik. Ia gune sinbolikorik gabeko egitura zen euskal hizkuntz komunitatearena (...).

(...)

Hala ere, gogoan izan behar dugu norabide bat zein bestea hartzea hiztunen hautaketa edo erabakia izan dela beti: hizkuntz portaerak aldatzen dira hiztunek baloreak aldatu dituztelako, izan nahia, erreferentziakoa taldea, erdaldunen taldean kokatzera igaro direlako.

Atzerakadaren muinean hiztunen autogorrotoa dagoela esan da gaiari buruzko azterketa gehienetan, eta autogorrotoa norberaren burua onestearen kontrakoa da, hain zuzen ere.

Sánchez Carriónen eta Erizeren lanen ekarriak balio handia duela iruditzen zaigu. Erizek bere lanean aipatzen dituen “bi errealitateak” (euskaldun iraun dutenak eta erdaldundu direnak) aurki daitezke gure eskualdean: batetik, Uitzin bezala, euskarazko hizkuntza-komunitate sendoa eraiki dute Etxalekun, Igoan, Aldatzen edota Gaintzan, eta, bestetik, euskaraz mintzatzen den komunitatea ahuldurik ageri zaigu Erason, Gartzaronen, Mugiron edota Arriben. Barne-ahultasun hori zerk eragina den da gakoa, eta, euskara galdua den lekuetan, ezin ukatuzkoa da erdarak izan duen eragina, Sánchez Carriónen ideiei eutsiz. Hain zuzen, eragin bortitz horren ondoriozkoak dira hiztunen faktore psikologikoak, hala nola autogorrotoa.

3.3. Gaur egungo egoeraz bi hitz

Euskaldun osoa AB euskalduna dela dio Sánchez Carriónek (1987); alegia, batetik, euskara etxeko, familiako eta lagunarteko giroan jasotzen duena (A bidea), eta, bestetik, kulturaren bidea

euskaraz osatzen duena (B bidea). Duela urte batzuk arte, B bidea falta zuen euskaldunak, baina bide hori ere gauzatua da gaur egun.

Nafarroako ipar-mendebaleko herrietan, haur guztiek D ereduan ikasteko aukera dute gaur egun (ikus 2.8.). Hala ere, gerok ere ezagutu ditugu beren seme-alabak Iruñera A ereduan (alegia, dena gaztelaniaz) ikastera eraman dituzten gurasoak; Imotzen eta Basaburu Nagusian, hain zuzen.

Hizkuntzaren kontzientzia ere asko garatu da azken urteetan, eta horrek euskarari kulturaren bidea irekitzea ekarri du hein handi batean. Gaur egun, denon eskura ditugu euskarazko telebista, egunkaria, aldizkariak, irratiak, literatura... Gure eskualdeari dagokionez, PULUNPE herri-aldizkaria eta ESAN ERRAN irratia ditugu Imotzen eta Basaburu Nagusian (Atetz, Ultzama, Odieta, Anue eta Lantz ibarrekin batera), eta MAILOPE aldizkaria eta ARALAR irratia Larraunen eta Araitz-Betelun. Euskara hutsean gauzatzen dira hedabideok. Ez dugu aztertuko zenbatek irakurtzen, ikusten edota entzuten dituen euskarazko produktuak, baina hor daude, denon eskura. Jakina, eztabaidatzekoa litzateke ea egiazki gaztelaniazko kultura-eskaintzarekin parekatu ote daitezkeen euskarazkoa; alegia, ea maila berean neurtu ote daitezkeen bataren eta bestearen eragin-ahalmena.

Hizkuntza-transmisioari dagokionez, bi joera sumatu ditugu guk gure eremuan: batetik, gurasoengandik (edo gutxienez guraso batengandik) euskara jaso eta seme-alabei ere euskaraz erakutsi dietenak, eta, bestetik, gurasoengandik (edo guraso batengandik) euskara jaso eta seme-alabei gaztelaniaz erakutsi dietenak. Kasu horietan, A bidea galdua du euskarak. Baina kasu guztiak ez dira zaku berean biltzekoak. Gerok gure eremuan ezagututako adibide batzuen berri emango dugu. Kasu batean, senar-emazte euskaldun garbi-garbiak ezagutu ditugu, seme-alabei txikitatik gaztelaniaz egin dietenak, eta, ondorioz, haiek ere (senar-emazteek) elkarren artean ere gaztelaniaz egiten dutenak gaur egun. Beste kasu batean, seme-alabek ez dute euskara etxean jaso, baina gerora alfabetatuak dira; gurasoek euskaraz egiten dute beren artean, baina seme-alabekiko harreman-hizkuntza gaztelania da; areago, seme-alabek ez dute gurasoen hizkera ulertzen, ez eta alderantziz ere. Ezagutu dugu, halaber, gurasoek beren artean euskaraz hitz egitea seme-alaba erdaldunak aurrean dituztela, esaten ari direna uler ez dezaten. 80 urteko emakume baten kasuan, bera da sei anai-arrebetatik euskaraz dakien (eta ederki erabiltzen duen) bakarra; aita euskalduna zuten, eta ama erdalduna, eta emakume hori aitarekin hazi zen batik bat, euskaraz, baina gainerakoek gaztelania

izan dute ama-hizkuntza. Badira euskara guztiz arbuiatzen dutelako euskaraz hitz egiteari uko egiten diotenak ere. Eta abar. Halakoak batik bat Imotzen eta Basaburu Nagusian ezagutu ditugu.

Ez dugu halako gaietan gehiago sakonduko, beste tesi baterako gaia bai baitago hor. Baina zinez interesgarria izango litzateke hizkuntza-jarreraren gaineko ikerketa bat gauzatzea, gure ustez.

4. HIZKUNTZAREN ALDAKORTASUNA ETA DIALEKTOLOGIA

4.1. Hizkuntzaren aldakortasunaz

Montes Giral dok dioenez, gauza ezina da dialektologian jardutea hizkuntza-aldakortasunari erreparatu gabe (1970: 5). Izan ere, hizkuntza etengabe aldatzen da; berezko ezaugarria du hori:

Hizkuntz gaitasuna naturazko, gizaizaerari zor zaion ezaugarrietarik, delarik ere, ezin ukatuzkoa da gaitasun horren —ez soilik ariketaren— nolakoa aldakorra dela; hots, hizkuntzak berezko du aldakortasuna, nahi eta nahiezko, ez zilegi edo debekaturiko, edergailu edo ustelketa iturri hizkuntzaz arduratu den anitzek mendeetan uste zuenaren kontra. (Lakarra 1997a: 517)

Hizkuntzak berezkoa du aldakortasuna, ezin ulertu dugu betiko geldirik dagoen izaki perfektua balitz bezala; ekintza da hizkuntza, ez da emaitza bukatua. (Camino 2009a: 32)

Coseriuk ezaugarri “axiomatikotzat” jotzen du hizkuntzaren aldakortasuna (1986 [1951]: 84-85); alegia, hizkuntza aldakorra da definizioz. Gainera, hizkuntzak mugarik gabe aldatzen dira, eta ezin iragarri dugu alde zuretik nola aldatuko diren: “Languages could differ from each other without limit and in unpredictable ways” (Joos 1957; Pinker 1994: 231-232 lanean aipatua). Edo, Bloomfield-ek idatzi bezala, “there must be endless infinitesimal variations” (1983 [1914]: 195).

Hiztunak etengabe erabiltzen du hizkuntza, eta, horrenbestez, hizkuntza etengabe berritzen dihardu (Coseriu 1978 [1957]: 69):

La lengua cambia justamente porque *no está hecha* sino que *se hace* continuamente por la actividad lingüística. En otros términos, cambia porque se habla (...).

Areago, hizkuntza aldatuko ez balitz, hil egingo litzateke (Coseriu 1978 [1957]: 283):

La lengua se hace mediante el cambio, y «muere» como tal cuando deja de cambiar.

Sistema fonologikoa, esate baterako, beti ari da aldatzen (Mitxelena 1986 [1963]: 11):

Limitándonos a los sonidos, el número de unidades distintivas está sujeto siempre a variación: variantes de un mismo fonema se escinden y cobran autonomía en el sistema, oposiciones que tenían valor diferencial la pierden, primero en unas posiciones y luego en todas, por fusión de fonemas. Y no

es sólo el número mismo de los fonemas lo que varía, sino también la frecuencia, la distribución y las posibilidades combinatorias de cada uno de ellos. Es como un juego de naipes en el que, además de ser barajado sin interrupción, se fuera cambiando el número y el valor de las cartas.

Meilletek dioenez, hizkuntza batzuek mendetan zehar ia aldatu gabe irauten dute; beste batzuk, berriz, abiada bizian aldatzen dira, baina horrek ez du esan nahi “hizkuntzaren funtsa horregatik aldatzen denik” (2001 [1924]: 49-50).

Hjelmslev-ek nahiago du esatea hizkuntza bera ez, baizik eta hizkuntza erabiltzeko modua aldatzen dela (1976 [1969]: 153). Batera edo bestera, Sapir-ek ongi erakutsi zuenez, ezin aurki daitezke inongo erkidegotan berdin-berdin mintzatzen diren bi hiztun (1986 [1921]: 169; cf. Petyt 1980: 188, Meillet 2001 [1924]: 64):

Todo el mundo sabe que el lenguaje es variable. Dos individuos de la misma generación, que viven en un mismo lugar, que hablan un mismo dialecto y que pertenecen al mismo ambiente social, nunca coinciden por completo en sus hábitos lingüísticos. Examinando minuciosamente el habla de esos dos individuos, se encontrarían innumerables diferencias de detalle en la selección de las palabras, en la estructura de las frases, en la relativa frecuencia con que emplean determinadas formas o combinaciones de palabras, en la pronunciación de ciertas vocales y consonantes, en todos aquellos rasgos que, como la velocidad, la acentuación y la entonación, dan vida al lenguaje hablado.

Horregatik guztiagatik, dialektoak aztertzea lan amaigabea da berez (Salvador 1987: 17):

... la investigación dialectológica se dirige a un objeto dinámico, cambiante y, desde luego, ilimitado, no sólo prácticamente infinito, sino teóricamente infinito, infinito por definición. Me explico: Concluido el estudio de un habla determinada, de una localidad de una comarca, inmediatamente podemos volver sobre ella, volver a estudiarla, y como en cualquier caso habrá transcurrido un tiempo, tendremos dos estados sucesivos del dialecto y, por consiguiente, una posibilidad de contraste, una ocasión, tal vez, de advertir esos cambios mínimos que pueden desencadenar la evolución. Es decir, en cualquier caso cabe —supuesto el improbable agotamiento espacial y social, o sea el estudio de todos y cada uno de los dialectos de una lengua—, en cualquier caso cabe, digo, volver a investigarlos, con lo que la dialectología se convierte necesariamente y por su propia naturaleza en el cuento de nunca acabar.

Historian atzera eginez gero, gizakia aspalditik ohartua da hizkuntzaren izaera aldakorraz, baina era askotara interpretatu du aldakortasun hori. Hizkuntzalaritza tradizionalan (positibistak,

neogramatikariak, eta abar), hizkuntzaren baitako fenomenotzat hartzen zuten hizkuntza-aldakortasuna, eta, horrenbestez, hizkuntzan bilatzen zituzten aldakortasunaren kausa eta azalpen guztiak, era guztiz mekanikoan. Baina hizkuntza hiztunei esker existitzen da, eta hiztunak elkarrekiko harremanean bizi dira gizartean. Hain zuzen, XX. mendean, hizkuntzaren alderdi sozialari erreparatzen hasi ziren, eta hizkuntza-aldakortasunari buruzko uste eta teoriak asko aldatu eta garatu ziren.

Hizkuntza gizartean mamitzen da, eta, harreman horretan, gizartea eta hiztuna guztiz loturik daude; hortaz, gizartean jazotzen diren gertakari guztiak —hizkuntza barne— gizakien arteko harremanei zor zaizkie (Coseriu 1978 [1957]: 43). Oro har, gaur egungo hizkuntzalari gehienek onartzen dute hizkuntza eta gizartea hertsiki loturik daudela (Hualde, Olarrea eta Escobar 2001: 330):

... la lengua es producto de las relaciones sociales, políticas e históricas que tienen sus hablantes. De ahí que las características regionales y sociales de los hablantes puedan intervenir como factores que afectan al uso de la lengua y, eventualmente, al cambio lingüístico.

Bloomfieldek dioenez, hiztunek “mezuak” trukutzen dituzte elkarrekin (hizkuntzazkoak, esan nahi baita), eta horri esker existitzen da hizkuntza: “Language has been developed in the interchange of messages, and every individual who has learned to use language has learned it through such interchange” (1983 [1914]: 17). Ildo horretatik, Radford-ek eta bestek Labov-en “heterogeneotasun egituratua” kontzeptua ekarri dute gogora (2000 [1999]: 96): hizkuntza ez da ausaz edo inoren borondatearen arabera aldatzen; faktore sozialek, hizkuntza-faktoreek eta orotariko eragin-trukeek zuzenean eragiten dute hiztunengan, eta hortxe dago hizkuntza-aldakortasunaren funtsa. Azken batean, gizakia eta gizartea aldakorak dira, eta, hizkuntza gizakiaren komunikazio-tresna denez, hizkuntza ere aldakorra da (Camino 2009a: 32):

Giza komunikazioaren tresna da hizkuntza, eta gizakia, gizartea eta bizitzako beharrak, higikorak, aldakorak eta dinamikoak dira.

Aldakortasuna norbanakoaren baitan hasten da; idiolektoan, alegia. Gauza jakina da hiztunak ez duela bizitza guztian zehar hizkera bera erabiltzen: “etengabe eginez, garatuz eta gauzatuz doa pertsona baten mintzoa eta baita, oro har, hizkuntza bera ere” (Camino 2009a: 32). Nolanahi ere,

hizkera, dialekto edo hizkuntza bat sortzeko, ez da aski norbanakoaren aldakortasuna; norbanakoen talde batek edo batzuek beren kasa hizkuntza-ezaugarri batzuk aldatu dituztelako sortzen dira dialektoak (Sapir 1986 [1921]: 172):

Si la variabilidad del lenguaje se manifiesta sólo en las variaciones individuales, en sentido horizontal, creo que no podríamos explicar cómo y por qué surgen los dialectos, por qué sucede que un prototipo lingüístico se va fraccionando poco a poco en una serie de lenguas ininteligibles las unas para las otras. Pero el lenguaje no es sólo una cosa que se extiende en el espacio (...). El lenguaje va avanzando a lo largo del tiempo, a través de una corriente que él mismo se crea. Fluye y se transforma sin cesar. (...) Ahora bien, los dialectos no surgen del simple hecho de la variación individual, sino de la circunstancia de que dos o más grupos de individuos se han separado lo suficiente para avanzar cada uno por su lado, independientemente, en vez de ir juntos. Mientras los individuos permanezcan unidos, es imposible que las variaciones individuales, por muchas que sean, lleven a la formación de dialectos.

Alegia, hiztun batek berrikuntza bat sortzen du, eta, berrikuntza hori jende gehiagorengana hedatuz gero eta, azken batean, gizarteratuz gero —alegia, guztiz finkatuz gero—, hizkuntza-aldaketa gertatua da (Camino 2009a: 33, 35; Coseriu 1978 [1957]: 78-80, 145³⁷). Jakina, ez da aise jakitea egokitzapena noiz gertatu den zehazki (Camino 1997: 288-289). Hiztun batzuek aldaketa batzuk txertatuko dituzte, beste batzuek beste batzuk —alegia, berrikuntzak ez dira hiztun guztiengana modu edo maila berean iristen—; modu horretan sortzen dira hizkeren arteko desberdintasunak, eta, azken batean, dialektoak (Francis 1983: 15; cf. Hualde, Olarrea eta Escobar 2001: 313, Petyt 1980: 31):

No language spoken by more than a very small number of people is homogeneous, and when changes occur, they characteristically affect the speech of only a part of the population of the total language community. Some speakers will adopt an innovation, others will either not be aware of it or will reject it, and in both cases the response may be conscious or unconscious. Some innovations, like slang, may be confined to a single social group and may remain completely unknown to others outside the group. It is seldom easy, and often impossible, to find a simple cause for a linguistic innovation, because the factors involved are many and complex. But whatever the motivation, it is normal for an innovation in language to be differentially accepted across the speech community. Thus each change that occurs is likely to increase the amount of variation in the language.

³⁷ Coseriu dio ezin jakin daitekeela zehazki zein norbanakok hasi duen berrikuntza jakin bat; alde horretatik, berrikuntzak “anonimoak” direla esan daiteke, baina horrek ez dakar berekin berrikuntzak “inpersonalak” edota “kolektiboak” izatea (1978 [1957]: 147-148, 151, cf. Coseriu 1986 [1951]: 99, 100).

Baina nork abiarazten ditu hizkuntza-berrikuntzak? Caminok dioenez, “hizkuntza-berrikuntza gehien biltzen eta erabiltzen duen jendea, bere bizigunetik kanpo harreman gehien duena edo arrotzekin jarduteko ohitura duena” da (2009b: 158).

Dialektalizazioa deritza dialektoak sortzeko prozesuari. Hain zuzen, dialektalizazioa gerta dadin, funtsezko faktoreak dira denbora eta distantzia: hizkuntza belaunaldi batetik bestera transmititzen da, eta hiztunak aldaketak (berrikuntzak) txertatu ohi ditu denboran zehar; nolana ere, aldaketa horiek ez dira hizkuntza-eremu guztietara iristen (Petyt 1980: 31).

Hiztunen arteko harreman motak baldintzatzen du hizkuntza-aldaketa jakin bat gertatzea edo ez gertatzea: aldaketa aise gauzatuko da ama baten eta haren seme-alaben artean, ezkontideen artean edota familia-giroan; distantzia geografikoa handitu ahala, aldaketa gauzatzea zailagoa izango da, hiztunen arteko hartu-emanak bakanduz doan heinean (Montes Giraldo 1970: 11).

Gaur egun, gainera, gizartea asko eta oso azkar aldatzen ari da. Horrek eragin zuzena du hizkuntzan; hizkerak eta dialektoak ere aldatzen ari dira (Veny 1991: 214):

Actualmente, a causa de la intercomunicación y del mayor desarrollo de la cultura, tan importantes como las diferencias geográficas (y el estudio de sus límites) son las variantes internas de los dialectos, condicionados por variables de orden social y por el contacto de lenguas.

Hizkuntzalari nagusi gehienek idatzi dute hizkuntza-aldakortasunaren arrazoiak bilatu beharraz; Coseriuk dio kontua ez dela hizkuntza-aldakortasuna zergatik gertatzen den (aldakortasuna hizkuntzaren berezko ezaugarria baita, 1978 [1957]: 108), baizik eta zergatik gertatu diren aldaketa jakin batzuk eta ez beste batzuk (1978 [1957]: 112, 1986 [1951]: 84-85). Hiztunek aukeratzen dute ezaugarri berri bat beren mintzoan txertatzea edo ez txertatzea (1978 [1957]: 84, 87-88):

¿Por qué de las muchas innovaciones que se dan en el hablar sólo algunas se adoptan y se difunden? La respuesta a esta pregunta se halla en parte implícita en la comprobación misma que ella enuncia: la adopción no es reproducción mecánica, sino que es siempre selección.

(...)

El oyente adapta lo que no sabe, lo que le satisface estéticamente, le conviene socialmente o le sirve funcionalmente. La «adopción» es, por lo tanto, un acto de cultura, de gusto y de inteligencia práctica.

(...)

De las innumerables innovaciones que se comprueban en el hablar, sólo algunas se adoptan y se difunden, porque sólo algunas responden a posibilidades y necesidades del sistema funcional o encuentran condiciones favorables en el estado del saber lingüístico interindividual.

Nolanahi ere, hizkuntza-aldaketa hiztunek bideratzen badute ere, ez da erabaki guztiz kontzientea, oharkabeen egiten dena baizik (Sapir 1986 [1921]: 177). Bloomfielden hitzetan, norbanakoak kontzienteki txertatzen ditu aldaketak hizkuntzan, baina aldaketa horiek era guztiz inkontzientean bereganatzen ditu hiztun-erkidegoak: “The change which occurs in language is thus never a conscious alteration by individuals, but an unconscious, gradual change in the habits of the entire community” (1983 [1914]: 17).

Beste egile batzuek beste arrazoi batzuk bilatu izan dituzte hizkuntza-aldakortasuna azaltzeko. Hjeltslevek eragile psikologikoak aipatu ditu hiztun-erkidegoek ezaugarri jakin batzuk erabiltzeko hartu ohi dituzten joerak azaltzeko (1976 [1969]: 164). Beste ikertzaile batzuek hizkuntza-aldakortasuna eta identitatea lotzen dituzte; norbanakoak talde-nortasuna bilatu ohi du, eta talde horretako kide izan nahiak eragiten du hizkuntza alde batera edo bestera aldatzea (Amorrortu 2003: 158-160). Petyten arabera, hizkuntza-aldaketa gauzatzeko, aldatzen diren ezaugarriek bi baldintza nagusi bete behar dituzte: batetik, ezaugarriak hedatzen dituztenek prestigioa izan behar dute, eta, bestetik, ezaugarriak hedatzen dituztenek eta jasotzen dituztenek elkarrekiko harremanean egon behar dute (1980: 63):

For linguistic features to spread from one area to another, there are two main prerequisites. First, there must be some sort of prestige attaching to the speech of one area which persuades speakers in another area to imitate it. Thus a focal area for linguistic change tends to be a centre of cultural, religious, economic, political or other influences. Second, there must be active communication between the two areas. Different types of geographical feature may either assist or hinder such communication; on the other hand a trade or migration route through the mountains may be the way linguistic influence spreads. Similarly with rivers: a wide or swift-flowing river *may* be a barrier; but a navigable river may be a major line of communication and thus a route for linguistic innovation. It has been demonstrated that the Danube valley, for example, has been a focal area for innovation in German dialects, and that the Rhone, a great highway of commerce, has played a similar role in French.

Jakina, hizkuntza aldakorra izateak ez du esan nahi hizkuntza-aldaketak bat-batean eta uneoro gertatzen direnik:

Horrek guztiak ez du esan nahi, halaz ere, hizkuntza beti-beti, anitz eta izugarritzko abiadan aldatzen ari denik: gizarteko osagai nagusia da hizkuntza eta gizakien artean elkar ulermena gauza beharra da; ulermen hori gerta dadin, hizkuntza-aldaketek pixkanaka gertatu behar dute eta ez hiztun bakar baten baitan, gizarteko hainbat ataletan baizik; ezin irudika dezakegu norbanako guztiak bakoitza bere erara eta desberdin mintzo diren gizarte edo erkidego bat. Hitzunak gizaraturik dagoen kode edo sistema bat baliatzen du bere kideekin, hori da hizkuntza, hori du bere mintzoa, eta egia da kode hori emeki-emeki aldatuz doala, baina ez erkidegoko jendeen arteko elkar ulertzea eragozteko bezainbat: kode edo sistema hori besterengandik bildu du eta besterekin mintzatu ahal izateko ikasi beharko du, eta gizartean pentsaera aldaketa handirik ez baldin badago bederen, haziko dituen haurrak heztean hizkuntza hori erakutsi beharko die. (Camino 2009a: 33)

Beraz, aldaketak gauzatzen direnean, talde osoan izan behar dute eragina, zatikatzerik ez eragiteko. Eta, izan ere, argi dago hizkuntz aldaketak hiztunen multzoari dagozkiola. Batasunari esker bizi da hizkuntza; hiztunek, nork bere erara aldatuko balute hizkuntza, honek ezingo luke aurrerantzean bere egitekoa bete. (Meillet 2001 [1924]: 83)

Areago, zenbaitetan, erkidego bateko hiztun bakar batzuek onartzen dute ezaugarri berri bat; gerora ikusiko da ea gainerako hiztunek ezaugarri hori bereganatzen duten edo ez (Sapir 1986 [1921]: 177). Ondorioz, adinaren, sexuaren, lanbidearen, klase sozialaren zein beste adierazleren baten araberrako aldaerak sor daitezke hizkuntza-erkidegoetan. Aldaketa, gainera, ez da berehalakoan gertatzen, eta ezaugarri berriek eta zaharrek batera iraun dezakete hizkuntza edo hizkera batean (Coseriu 1978 [1957]: 128).

4.2. Hizkuntzaren aldakortasuna eta dialektologia

4.2.1. Dialektoak eta dialekto-mugak

Gizakiak beti bilatu du beste gizaki batzuekin taldeka biltzeko modua —lan-harremanetan, familia-harremanetan, adiskidetasun-harremanetan, eta abar; gizarte-harremanetan, alegia—, eta hala da hizkuntza-kontuetan ere. Hau da, hiztunek hiztun-taldeak edo hiztun-erkidegoak sortzen dituzte, eta halako talde edo erkidego bakoitzari hitz egiteko modu bat dagokio. Jakina, gorago esan dugunez, erkidegoen baitan ere hiztun guztiak ez dira berdin mintzatzen —alegia, erkidegoak ez dira guztiz homogeenak—, hizkuntza aldakorra baita. Nolanahi ere, hizkuntzaren aldakortasuna ahaztu gabe betiere, badago guztiaren gainetik esistitzen den “zera” bat, erkidegoko kideak biltzen dituen: mintzo bat, hizkera bat, dialekto bat edo hizkuntza bat (Sapir 1986 [1921]: 170). Alegia, hizkuntzez, dialektoez edo hizkerez mintzatzen garenean, dibergentziaz ari gara ezinbestean; baina,

beste ikuspuntu batetik begiratuta, ezin ukatu dugu konbergentziaz ere ari garela aldi berean. Azken batean, elkarrekin komunikatzeko beharrak aldakortasuna gainditzen du nolabait (Petyt 1980: 32):

... individuals could have become more and more different, but a dialect represents some sort of unity among a group who need to communicate regularly.

Gernikako euskaldunak eta Hendaiako euskaldunak ez dira berdin mintzatzen, baina euskara da guztion hizkuntza; Durangoko eta Bermeoko hiztunen mintzoa ere ez da berdina, baina ez dugu zalantzarik mendebaleko euskaraz (garai bateko “bizkaieraz”) aritzen direla esateko; Otsagin eta Ezkarozen ere dena ez da bat, baina bada “ekialde linguistiko” bat —alegia, bada eremu horretako euskara definitzen duen hizkuntza-dinamika abstraktu bat (ikus Camino 2009b: 164-165)—, eta abar. Alegia, hizkuntza aldakorra da, baina bada aldakortasun hori gainditu eta mintzoak ezaugarri jakin batzuen arabera biltzen dituen indar bat. Eta hala sortu dira, hain zuzen, hizkuntzak, dialektoak, azpidialektoak, tokian tokiko hizkerak edota argotak. Meilleti jarraituz, “batasuna ezberdintasunean, eta ezberdintasuna batasunean da, beraz, «dialekto»-aren lehendabiziko ezaugarria” (2001 [1924]: 58).

Gaur egun, ia inork ez du zalantzan jartzen dialektoak izan badirenik; horren erakusgarri da hitz egiteko moduagatik antzeman diezaiokegula pertsona bati nongoa den. Pringle-k dioenez, herri, hiri edo eskualde bakoitzak badu bere dialektoa: toki batetik bestera mugitu ahala, ohartzen gara toki guztietan ez direla berdin mintzatzen, eta, maiz, tokiko mintzamoldera egokitu ohi dugu gurea (1986 [1983]: 220). Besterik da zehaztea zer den dialekto bat, zer azpidialekto bat, zer hizkera bat, zer hizkuntza bat, eta abar; dialektologian asko eztabaidatu den gaia da hori, baina ez da gure asmoa adigai guztiok definitzea eta elkarren artean bereiztea (horretarako, ikus, besteak beste, Meillet 2001 [1924]: 58, Camino 2009a, Mitxelena 1981, Alvar 1979, 1995a, 1995b eta 1996a, Montes 1988, Moreno Fernández 2004, Coseriu 1986 [1951] eta 1981 [1958], Chambers eta Trudgill 1980, Petyt 1980: 11-36).

Dena dela, hizkuntzalari gehienek onartzen dute dialektoen mugak ezartzea ez dela egiteko erraza (cf. Meillet 2001: [1924]: 58)³⁸. Paradoxa dirudi: dialektoak badira, baina zail zaigu esatea

³⁸ Greziako adibidea eman digu Meilletek: “... dialektoek ez dituzte, nahitaez, hizkuntza bateko hizkera guztiak biltzen. Grezieraz, adibidez, hizkerarik ezagunenak, atikerak, baditu jonierarekin batera zenbait berezitasun, baina ez da berez joniar dialektoaren barnean sartzen, eta are gutxiago beste edozeinetan. Elideko, Lokrideko, Fozideko hizkerak, ikuspegi askotatik dorieratik hurbil daude; baina ez dira zehazki doriarrak. Batzuetan ezinezkoa izaten da, bada, hizkuntza bateko hizkerak dialekto mugatueta biltzea”.

dialekto bat non hasten den eta non bukatzen den (eta gauza bera esan daiteke azpidialekto, hizkuntza-eremu, hizkera eta halakoez). Dialektologialariak hizkeren edo dialektoen mugak finkatu nahi izaten ditu, ordea (Breton 1979: 23):

Pero, volviendo al trabajo del lingüista, su finalidad en el terreno de la especialización sigue siendo la delimitación de áreas y la definición de las hablas propias de estas áreas. Es evidente que el lingüista se siente confundido por la delimitación de los dialectos, puesto que se encuentra, dentro de una lengua, ante un campo de variación continua de fenómenos vecinos que insensiblemente pasan de una a otra forma, pero cada uno de acuerdo con el carácter que le es propio. De ahí la dificultad para decir dónde acaba un dialecto y dónde comienza el siguiente. De ahí el servicio prestado por la evidenciación de los haces de isoglosas y la necesidad, no obstante, del veredicto del lingüista. Todo ello a sabiendas de que a medida que nos acercamos al terreno (de los hombres) y aumenta la escala, se hace más delicado y arbitrario trazar un límite claro. De hecho, entre dialectos se trata más a menudo de la existencia de unas zonas mixtas en donde los sistemas se interfieren, que de una solución de continuidad, que verdaderamente sólo aparece en el caso de una barrera geográfica y de vacío humano (*no man's land*, ecológico o político). Aunque el problema de la delimitación sigue estando planteado, el lingüista proporciona una primera respuesta al problema de saber cómo una lengua, que se considera como un sistema lingüístico individualizado, se descompone en subsistemas a los que llama *dialectos*, cuáles son estos dialectos, cuál es su grado de originalidad, cuáles son sus relaciones recíprocas y sus solidez respectivas. A este respecto la característica de la variación dialectal es que, a través de estos cambios de detalles, progresivamente subsiste la intercomprensión: los dialectos vecinos son mutuamente inteligibles para sus respectivos hablantes. Así pues, muchas veces las *áreas dialectales* tienen unos contornos bastante imprecisos, y están habitadas por unas poblaciones que pueden comprenderse sin esfuerzo a uno y otro lado de un límite.

Garbi ikusten dugu, hala ere, dialektoen mugek ez dutela nahitaez muga politiko eta administratiboekin bat egiten. Gaur egun euskararen dialektotzat jotzen ditugunak ez dagozkie zehatz-mehatz lurralde historikoei; esate baterako, euskal dialektologiaren tradizioan “bizkaiera” deitu izan dugun dialektoaren eremua ez da Bizkaia mugatzen, Gipuzkoako Deba ibarra eta Arabako gaur egungo alderdi euskalduna ere biltzen baititu. Hain zuzen ere horregatik proposatu du Zuazok “bizkaiera” beharrean “mendebaleko euskara” deitura erabiltzea, zehaztasunaren alde (1998c: 185, 1998a). Adibide garbia dugu Aragoien ere: Alvarrek dioenez, Aragoik ez du hizkuntza-batasunik, arrazoi historikoak direla eta (1996b: 289-290). Azken batean, ente geografiko edo administratiboa eta ente linguistikoa ez ohi dira bat etorri (Ivić 1962: 34):

Upon closer inspection, considering the multitude of isoglosses crossing one another in all possible

directions, territorial dialects have often proved to be fictitious entities, established on the basis of arbitrarily chosen features, or on the basis of extralinguistic criteria.

Gure eremura etorrita, muga administratiboak eta hizkeren mugak beti bat ez datozela erakutsi genuen 2008an (Apalauza 2008b: 101): badira Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraun ibarrak banatzen dituzten barne-isoglosa esanguratsuak, eta ezin esan dugu Imotzen hizkera bat dutenik, Basaburu Nagusian beste bat eta Larraunen beste bat, ez baitago homogeneousun (aski homogeneousoa da, aitzitik, Araitz-Beteluko euskara, baina hangoari oso loturik dakusagu Larraungo ipar-mendebaleko euskara ere). Alegia, ez dago imotzerarik, basaburuerarik, larraunerarik edota araitzerarik.

Nolanahi ere, hizkerak, dialektoak edo hizkuntzak sortzeko, baitezpadakoa da erkidego batean gutxiengo batasun edo homogeneousun bat egotea, bai ekonomikoki bai politiko-kulturaliki:

Los dialectos surgen ante todo en grupos sociales claramente circunscritos y lo bastante homogéneos para dar origen a aquellas reacciones y aspiraciones comunes que son necesarias para crear una norma. (Sapir 1986 [1921]: 171-172)

Las unidades geolingüísticas (lengua, dialecto, subdialecto, habla, etc.) que examinaremos más adelante se forman en estrecha dependencia de los mencionados factores: a la mínima unidad económica y político-cultural de la pequeña aldea con sus relaciones íntimas y constantes entre sus miembros corresponderá una forma idiomática mínimamente diferenciada, y a medida que aumentan el espacio, la distancia y la incomunicación, la diferenciación aumentará consiguientemente. (Montes Giraldo 1970: 13)

Any community of speakers of a language, with the possible exception of very small ones, will be found to be subdivided into groups according to various parameters, each of which will exhibit some linguistic features different from those of other groups. (Francis 1983: 42)

Hizkera jakin bat baliatzen duen erkidego bat badela aitortzen den kasuetan, partaide diren hiztunek batasun espazial, tenporal eta kulturala dutela esan ohi da: beren arteko gizartezko elkarreraginean maiztasun maila berdintsua dute hiztun horiek. (Camino 1998c: 117)

Gizakia erkidegoetan biltzen da, eta, erkidego bateko partaide izateko, pertsona ororentzako baitezpadakoa da hitz egiteko modu jakin bat erabiltzea (hizkera bat, dialekto bat...): “He must speak as the others do, or he will not be understood” (Bloomfield 1983 [1914]: 17).

Dialektoen mugak finkatzea eginkizun zaila da; aldiz, aise(ago) egin daitekeen gauza da hizkuntza-ezaugarrien hedadura geografikoa zehaztea:

Nadie duda que existen límites de rasgos (allí donde los dialectos mantienen su vigor), pero es cierto también —y me baso en mi experiencia del catalán— que es posible hablar de fronteras aproximativas de conjuntos de rasgos que, basados en su “simultanea presenza” y su “particular combinazione”, como quería Ascoli, permiten hablar de dialectos o variedades. Tratándose de hechos humanos, sociales, de extrema complejidad, no existen entre ellos fronteras matemáticas —como tampoco existen entre registros o entre niveles de lengua— sino franjas variables de transición que también pueden constituir dialectos. (Veny 1991: 213-214)

Pues al lingüista de hoy, que desea saber no dónde termina el dialecto vizcaíno y dónde empieza el guipuzcoano, sino los únicos límites que se pueden determinar, los de hechos lingüísticos concretos (el de *alabea* / *alaba* “la hija”, por ejemplo), de poco le sirve una clasificación de este género. (Mitzelena 1964a: 26)

Askotan galdetu izan da nola marratu dialektoen arteko mugak. Alde batetik, dialektoa, ezaugarri bereziak dituen eta beste dialekto batzuei kontrajartzen zaien multzo trinko baten modura agertzen zen. Bestetik, ez zegoen dialektoentzat muga zehatzik aurkitzerik. (...)

Hizkuntz gertakari bakoitzak bere mugak ditu. (Meillet 2001 [1924]: 67)

Hizkuntza-ezaugarriak aztertuz, isoglosak badaudela ohartzen gara; Caminok dioenez, “hizkuntza-ezaugarri bati dagokion jauzi edo eten batek isoglosa bat eratzen du”, eta, “isoglosa ugari elkartzen den gunean, edota elkarrengana biltzen diren isoglosa batzuen estatusa edo sistematikotasuna nabarmenak diren eremuan, ezaugarri dibergente deigarriak biltzen diren gunean, dialekto-muga dagoela pentsatu ohi dute ikertzaile nahiz hiztunek” (2004a: 73; cf. 1997: 26); hala da, esate baterako, Frantziako iparraldearen eta hegoaldearen artean (Meillet 2001 [1924]: 67-68). Coseriuk ere nahiago du isoglosa multzoez aritu, antzua baita, haren ustez, dialektorik eta dialekto-mugarik ba ote dagoen edo ez eztabaidatzen aritzea (1977 [1954]: 136-137):

Pero, en realidad, el subrayar que *no hay* límites dialectales revela la misma actitud fundamental de los que insisten en que los hay, pues implica pensar que debería haberlos: significa que se piensan los dialectos como *cosas concretas*, existentes de por sí, antes e independientemente de la comprobación de las áreas que presentan los varios hechos lingüísticos en un territorio. En efecto, la existencia de los dialectos no implica la existencia de límites dialectales, así como negar estos límites no implica afirmar la no existencia de los dialectos. Los dialectos no existen *antes* sino *después* de la comprobación de las áreas en las que se registran los fenómenos concretos del hablar; no son *cosas*, sino *abstracciones*, sistemas de isoglosas que se establecen por encima de la multiformidad del hablar.

Iritzi bertua biltzen dute bi aipuok:

... askotan, dialektoak talde hertsiak eta aldaezinak balira bezala tratatu dira eta ahantzi egin da dialektoak abstraktuak direla, ez daudela aldez aurretik eraikiak, isoglosen gainean kokatuak baizik, eta honen arabera, isoglosa adina dialekto daudela esango genuke. Badirudi, orokorrean ezaugarri multzoez mintzatzea posible dela, horrela beren aldibereko presentzian eta trukaketa berezian oinarriturik, hizkerak izango ditugu. Dударik gabe, gizarte ekintzak direnez, nahiko konplexuak dira eta zaila da haien artean muga matematikoak jartzea. (Ibarra 1995a: 47-48)

... las clasificaciones dialectales basadas en los límites geográficos regionales, administrativos o incluso históricos, son algunas veces disparatadas y casi siempre confundidoras, es algo más que una opinión personal. Creo que, si afianzamos ese convencimiento con datos lingüísticos incontrovertibles, los dialectólogos podremos ir prescindiendo de clasificaciones convencionales y puramente externas (dialecto andaluz, dialecto aragonés, dialecto murciano, dialecto extremeño, etc.) y centrarnos en la única dialectología real, la de las isoglosas. (Salvador 1987: 191)

Azken batean, isoglosak identifikatzea da dialektologiaren kezka nagusia (Chambers eta Trudgill 1980: 103). Ildo beretik, Mitxelenak dio, Bonaparteren sailkapenaren kontra, ez dagoela dialektoak zorrotz banatzerik, baina isoglosek hizkuntza-eremuak sortzen dituztela (1976a: 318-319):

Lo que los primeros autores de encuestas sobre el terreno rompieron fue la idea, de la que Bonaparte participaba plenamente, de que en un dominio determinado se puede proceder a separar y a agrupar dialectos, subdialectos y variedades. Bonaparte, por ejemplo, era prisionero de lo que Menéndez Pidal ha llamado «concepción unitaria de dialecto». Ahora bien, si no hay dialectos estrictamente diferenciados, y, sobre todo, no hay fronteras dialectales marcadas, sí hay isoglosas que, a pesar de todos los fenómenos de polimorfismo, encierran áreas y las separan de otras.

Isoglosak, ordea, ez dira beti leku berean biltzen, eta zeinek bere eremua du:

... un territorio lingüístico es un continuo en el que no se pueden dibujar subdivisiones dialectales bien recortadas, sino tan sólo líneas de isoglosas, cada una de las cuales posee su contorno propio que no tiene por qué coincidir en todo o en parte con las otras. (Mitzelena 1964a: 57)

... a la pregunta decimonónica de si existen límites tajantes entre los dialectos, los mapas autorizaron a contestar que no hay límites, sino haces de isoglosas que se cruzan y no suelen coincidir; que sólo existen límites definidos en el mar, en algunas fronteras políticas, etc. Esto, constatado básicamente a partir de fenómenos fonéticos, en el léxico resultaba tan llamativo que se concluyó que cada palabra tiene su propia historia, historia que no tiene por qué ir acorde siquiera con la de otras palabras de su misma familia. ¿Por qué? Porque un estado de lengua surge de un compromiso entre fuerzas conservadoras e innovadoras; no depende de una inercia evolutiva ciega, sino de un equilibrio derivado de la actividad misma de los hablantes, que buscan en su lengua un instrumento de comunicación rentable y prestigioso. (García Mouton 1996: 75)

Ondorioa da eremu dialektala mugatzea ez dela aise, eta egiten ditugun abstrakzio operatiboek nahi luketenaren alderantziz, hizkuntza-ezaugarriak nahaska —eta ez batera— gorde-ezkutuka edo jauzika bezala agertzen zaizkigula, eremuak elkargainka jartzen zaizkigula; xuxen eta lañoki esateko, dialektoen mugak ezartzea ez da aise. Hizkuntza ezaugarri batzuk hemen hasten dira, ezaugarri hauetarik batzuk horragoxe bukatzen, tartean beste berri batzuk sortzen zaizkigu, besteren bat desagertzen zaigu... hizkuntza-ezaugarrien konbinaketa gehiegi eta zinez konplexuak ageri dira geure begien bistan. (Camino 1999: 12)

Ohiko dialektologiak erakutsi digunez, isoglosak usu ez dira dialekto baten mugara biltzen, ez dira dialektoaren muga elkartzeko eta bateratzen; iduri luke beren distribuzioaren eredu zorizkoa dela eta isoglosa bakoitzak beregintasun erlatibo duela; gauza arrunta da dialektologian isoglosen edo berrikuntzen hedadura irudikatzen duten marrak usu elkarrekin gurutzatzea, espazio dialektalean *overlapping or crisscrossing isoglosses* agertzea, isoglosen guztizko batetortze geografikorik eza. (Camino 2008a: 220)

Instead of delineating well-defined dialect areas which were separated from one another in terms of major sound laws and lexical sets, isoglosses were usually found in an astounding profusion, making a wild variety of combinations in the dialect elements predominant from one place to the next. (...)

The pattern of criss-crossing isoglosses separating even contiguous villages from one another and apparently describing a bewildering variety of dialect feature combinations is now recognised as a typical pattern for any region that has a long settlement history. (Chambers eta Trudgill 1980: 106, 107)

... el perfil que dibujan las isoglosas de un grupo lingüístico (el de los hablantes de español, por ejemplo) no resulta geométrico ni regular, sino multidiversificado y complejo. (Abad 1983: 286)

Ideia horrixeko heldu zion, hain zuzen, Menéndez Pidalen ere XX. mendearen hasieran (Mitzelena 1964a: 30-31 lanean aipatua):

Pero sabido es que un dialecto no tiene un único límite fijo como el de una provincia o un partido judicial; los muy varios caracteres que distinguen ese dialecto de los vecinos, no tienen todos en masa una misma extensión, sino que cada uno de ellos alcanza por lo común un límite distinto del de los demás, siguiendo cada uno de ellos direcciones muy diversas... Casos hay en que una porción de límites lingüísticos coinciden entre sí; pero esto sucede, por lo común, no dentro de una misma lengua, sino cuando dos lenguas o dialectos colindantes se sienten como extraños el uno al otro. Si en el país vasco se hallan haces de varios límites lingüísticos coincidentes, este hecho indicará antiguo aislamiento o antagonismo de pueblo, separación profunda de una masa de población respecto de la otra.

4.2.2. Dialekto-muga motak: bat-batekoak eta gradualak

Bestalde, isoglosa mota ugari dago, eta, horren ondorioz, errazagoa da dialekto-muga batzuk identifikatzea beste batzuk baino. Oro har, isoglosa multzoak biltzen diren gunetan ezarri ohi ditugu dialekto-mugak (Petyt 1980: 117). Esate baterako, Zuberoan eta Euskal Herriko mendebalean, isoglosa multzo gotorrak badira, baina ez dago halakorik Euskal Herriko erdiguneko hizkeretan (Camino 2004a: 85); horregatik, errazagoa da Zuberoako edo Euskal Herriko mendebaleko dialektoak definitzea, erdigunekoa baino.

Badira bat-bateko dialekto-mugak; oztopo orografiko handiak dauden gunetan, esate baterako (Hualde, Olarrea eta Escobar 2001: 333). Baina hizkerak elkarrengana hurbiltzeko ahalmena ere badute eragile orografikoek (Coseriu 1977 [1954]: 106-107, 131-132; Veny 1991: 208, 209); gaur egun, gainera, eragile orografikoak ez dira oztopo izaten ezaugarriak zabaltzeko (Veny 1991: 209):

Estos agentes geográficos han actuado a lo largo de siglos y han condicionado el devenir, las vicisitudes de nuestra lengua histórica. Es razonable que nos esforcemos por conocerlos. Ahora bien, desde hace algunos decenios —depende de las áreas lingüísticas y de la fecha de su incorporación a los progresos técnicos y culturales—, los cambios se realizan no por vía geográfica, sino a través de los poderosos medios de comunicación y en el sentido de la convergencia, de la nivelación y no de la

divergencia. Una innovación de lengua se da a conocer tanto en un núcleo urbano importante como en la aldea más alejada, cosa que no había ocurrido nunca a lo largo de siglos.

Orografiaz gain, beste faktore batzuek ere eragina izan dezakete isoglosak sortzeko orduan; faktore politikoek edota kulturalak, esate baterako (Petyt 1980: 62-63, 64).

Nolanahi ere, dialekto edo hizkera batetik besterako jauzia graduala izan ohi da gehienetan. Schouten eta Van Reenen ikertzaileek diotenez, bi hizkeren arteko jauzia bat-batekoa (*abrupt*) edo graduala (*gradual*) izan daiteke; oro har, jauzia bat-batekoa denean, hiztunak aise ohartu ohi dira hizkuntza-jauziaz, baina jauzia oharkabean gelditu ohi da graduala denean (1989: 135).

Jauzia graduala denean, beraz, hizkerek continuum linguistikoa osatzen dute, eta, horrenbestez, trantsizio-eremuak sortzen dira³⁹:

Various focal areas will send out waves of change, whose isoglosses may bundle where they meet those from another focal area, or may overlap with these. In either case there will be areas which lack sharply-defined characteristics of their own, but share characteristics with two or more adjacent areas. These are called *transition areas*. (Petyt 1980: 61)

... al distinguir dialectos y zonas dialectales estamos idealizando. No concluimos nunca que hay un punto geográfico donde termina una zona dialectal y empieza otra (al contrario de lo que ocurre con las fronteras políticas entre países o provincias), sino que la lengua cambia de manera gradual de un extremo del territorio al otro. (Hualde, Olarrea eta Escobar 2001: 333).

Edozein dialektotatik beste batera interferentziak ageri dira anitzetan ordea. Usu, dialekto batetik besterako iragatea era gradualean gertatzen da; muga-marra bat ez dagoela esan daiteke, dialektoen arteko muga-eremu bat baizik. Goebel-ek esanen lukeen bezala, hizkuntz elkarreragintza mailarik handiena duen eremu baten aitzinean geundeke. (Camino 1997: 33)

... geografía-eremu baten barranean norabide beretsuan hedatzen diren hizkuntza-ezaugarriek eratzen dituzte *continua* hauek, baina garrantzizkoa da ezaugarriak mailaka iristen direla ikustea, batzuek hedadura gehixeago harrapatzen dute beste batzuek baino eta honela, mailaka-mailaka, berdintasun-eremuak gauzatzen dira, baina ezaugarri bakoitzaren eremu batetik bestera badaude

³⁹ Petyten iritziz, hizkeren continuumaz ez, baizik eta lekto edo aldaera indibidualen continuumaz hitz egin beharko genuke (1980: 190): “A dialect is supposed to be a variety shared by a number of speakers, and delimited from other varieties by a bundle of isoglosses of some sort. But in actual fact such a situation is rarely found; instead, there is a continuum of lects (individual varieties)”.

desberdintasun bakan batzuk eta ondorioz, hurbileko dialektoen arteko berdintasun mailakako hori, geografian gaindi higitzen garen ber, emeki-emeki desberdintasun bilakatuz doa hasierako eremutik urrunduz dialekto batetik beste batera goazen ber. (Camino 2009a: 170)

... en un gran espacio se da un “continuum” lingüístico de distanciamientos y desviaciones progresivas, aunque suaves. Para dar cuenta de esta transición de un dialecto a otro (o de una lengua a otra) se ha de partir de un alto número de isoglosas, una densa red de localidades y la confección de estadísticas que, según porcentajes, permiten el trazado de zonas y subzonas. De este modo las fronteras se convierten en *áreas de transición* con escalonamiento de rasgos que pasan de una a otra modalidad lingüística. (Veny 1991: 206)

... la diferenciación o «dialectalidad» interna en el ámbito de una lengua se produce a modo de *continuum*; no se trata —nos parece— de que la «lengua», frente al «dialecto», posea diferenciación y nivelación, y el hablar dialectal no: sin solución de continuidad se produce de mayor a menor diferenciación genética entre lengua, dialecto, hablas regionales y hablas locales. (Abad 1983: 293)

Aparte de todo esto, mirada la lengua en el espacio, se le ve organizarse en forma de variedades y subvariedades, formando los llamados dialectos y subdialectos. Un viajero conocedor y observador que recorriera Euskalerra desde los confines vizcaínos a los navarros más orientales iría oyendo toda una gama de diferenciaciones fónicas, léxicas y gramaticales. Ambos extremos serían como los polos de diferenciación. Pero las zonas dialectales no poseen nunca contornos tajantes sino que se difuminan al acercarse un dialecto al otro en espacios de transición. Pero entre líneas y líneas predomina un modo dialectal inconfundible y vigoroso que imprime relieve de trama al euskera. Hay que destacar que relieve físico del suelo y de la lengua andan, si no calcados, si relacionados íntimamente. (Estornés Lasa 1960: 26)

Continuum linguistikoan, beraz, gune batetik bestera zertxobait aldatzen da hizkuntza, eta, azkenean, eremu jakin bateko bi muturretako hizkerak oso desberdinak izan daitezke, nahiz eta tartean bat-bateko mugarik ez izan (Chambers eta Trudgill 1980: 6)⁴⁰:

If we travel from village to village, in a particular direction, we notice linguistic differences which distinguish one village from another. Sometimes these differences will be larger, sometimes smaller, but they will be CUMULATIVE. The further we get from our starting point, the larger the differences will become. (...) In other words, dialects on the outer edges of the geographical area may not be mutually intelligible, but they will be linked by a chain of mutual intelligibility. At no point is there a complete break such that geographically adjacent dialects are not mutually intelligible, but the cumulative effect

⁴⁰ Chambers eta Trudgill ikertzaileek diotenez (1980: 8), continuuma soziolektala ere izan daiteke (alegia, desberdintasun sozialek eragina), baina guk ez diogu horri erreparatuko.

of the linguistic differences will be such that the greater the geographical separation, the greater the difficulty of comprehension.

This type of situation is known as a GEOGRAPHICAL DIALECT CONTINUUM.

Izan ere, hizkuntza-aldakortasuna ulertzeko modu ezin hobea ematen du trantsizio-eremuaren kontzeptuak (Chambers eta Trudgill 1980: 142):

... we believe that transitions point the way to a deeper understanding of geographic variability than any other theoretical device posited so far. The discovery of mixed and fudged lects, which we have only begun to sort out, makes a plausible entry into figuring out how neighbours accommodate one another in an area of variability, and the reasonably coherent spatial patterns of the lects ranged side by side along a continuum raise anew the prospect that linguistics and geography can find some fecund common ground.

Beste hitz batzuekin adierazita, isoglosa ugari biltzen diren gunetan egon ohi dira, eskuarki, dialektoen arteko mugak; alabaina, isoglosen artean distantzia egonez gero, mugak ez dira hain garbi ageri, eta trantsizio-guneak sortzen dira (Veny 1991: 199-200)⁴¹.

Halaber, trantsizio-hizkeretan ez dugu topatuko beste ezein hizkeratan ageri ez den ezaugarririk; alde horretatik, trantsizio-hizkerak originalak ez direla dio Ivić-ek (1962: 43).

Euskarari dagokionez, Bonapartek oso modu hertsian banatu eta sailkatu zituen euskal dialekto, azpidialekto eta hizkerak (ikus, gorago, Mitxelenaren aipua, 1976a: 318-319), baina gaur egungo ikertzaileek guztiz barneraturik daukate trantsizio-hizkeren, continuumaren eta gradueltasunaren ideia. Mitxelenak dioenez, dialektoak elkarri eragiten ari dira etengabe, hala espazioan nola denboran, eta horren ondorioa da dialektoen artean bat-bateko mugarik ez egotea, eta mailakako eta gradueltasunaren araberako trantsizio-guneak agertzea (1976a: 311, cf. 1964a: 20). Continuuma erdiguneko hizkeretan da nabarmenen (Camino 2004a: 81-82):

Gipuzkoako mendebaleko Debatik Nafarroako erdiguneko Etxalekura bitarte, erdialdeko euskalkitik atera gabe goazela ohartzeko ohiturarik ez dugu izan orain artean, Bonaparte printzearen ikuspegia aski iltzaturik baitago gure baitan. Erdiguneko mintzoetan ez da erraza errealitatea

⁴¹ Azken batean, zenbait hizkuntza-ezaugarriren mugak ez dira bat-batekoak, gradualak baizik, eta horren ondorioz sortzen dira trantsizio-hizkerak. Bokalen adibidea eman dute Schouten eta Van Reenen ikertzaileek (1989: 5): "Many vowel variables in sociolinguistic studies are marked by gradual variation and the variants distinguished only seem to mark specific points or intersections in a phonetic space which is in fact gradual or continuous".

irudikatzea: erdialdeko euskalkitik mendebalekora edota nafar-lapurteratik zubererara dagoen aldeaz edo isoglosa-sailaz ohartzea, errazagoa da. Debatik abiatzen bagara, eta Azkoiti aldera jotzen baldin badugu, Azpeitia eta Tolosa bitarte Leitzaraino iristeko, eta hemendik Basaburuan barrena Imozko Etxalekura heltzen baldin bagara, aldi oro hizkuntza zertxobait aldatzen ari dela ohartuko gara, baina isoglosa ugari biltzen den eremu gardenik ez dela ageri ere sumatuko dugu. Antzekoa da hego-nafarreraren kasuan gertatzen dena ere, Ezkabarteko eta Odietako mintzoetara inguratzen garenean, ez baita isoglosa sail gotorrik ageri.

Nolanahi ere, gerta daitekeen gauza da hizkuntza-eremu baten ertzetan ere trantsizio-guneak agertzea; horixe gertatzen da, esate baterako, Nafarroa Behereko eta Zuberoako mugetan: Caminok aztertu duenez, alde bateko zein besteko ezaugarriak ageri dira bi herrialdeon artean den Pagola herrian (2009b: 213-214).

Erdiguneko hizkerez den bezainbatean, Euskal Herriko erdigunean daude tesi honetan aztergai ditugun herriak, eta, beraz, oso kontuan izango dugu gorago azpimarratutako ideia —trantsizio-hizkeren ideia, alegia—. Ildo beretik doaz Zuazoren hitzok ere (2003: 104):

Nafarroako bazter batetik bestera nabarmena da aldea. Etxalarko eta Mezkirizko euskara ez da inondik inora berdina, eta Arbizutik Eugira ere bada tarte. Baina kontua betikoa da: ertz batetik besterako bidean eten garbirik ez dagoela. Aldakuntza pixkanaka gertatzen da, bat-bateko jauzirik gabe.

Coseriuren ustez, ordea, horrek guztiak ez dakar dialektologia-jardunaren ezina, kontrakoa baizik (1981 [1958]: 26-27):

Los límites «dialectales» no son de antemano límites entre «dialectos». Acerca de estos últimos se ha observado que «no existen», pues los hechos lingüísticos presentan áreas y límites diferentes y el paso de un dialecto a otro es gradual. En efecto, salvo casos especiales (límites geográficos «naturales», fronteras políticas estables), no existen como «fronteras» entre modos de hablar uniformes. Pero ello no constituye ninguna dificultad para la dialectología; al contrario, en cierto sentido, es la condición que la justifica como tal. Desde el punto de vista de los dialectos, la no coincidencia entre los varios límites dialectales significa sólo que tienen muchas «fronteras» posibles, o sea, que entre los sistemas dialectales hay interferencias y que entre los dialectos mejor caracterizados suele haber dialectos intermedios o «de transición». Y dos dialectos pueden compararse con respecto a lo que tienen en común y a lo que tienen de diferente en sus «centros», aunque entre sus límites haya interferencia.

Areago, continuum dialektalaren baitan ere hizkuntza-etenak aurki daitezke, eta dialektomugak finkatzeko aukera ematen du horrek. Horixe ikusi du, esate baterako, Caminok Nafarroa Behereko eta Zuberoako mugetan (2009b: 181-182): “Arberoatik Zuberoarat Amikuzen gaindi *continuum* geolinguistiko nabarmena ageri da herririk herri joanez gero, baina etena ere sumatzen da (...)”.

4.2.3. Dialektologiaren langaia

Dialektologia egin egin daiteke, beraz. Baina zer da zehazki dialektologia? Zeren bila dabil dialektologialaria? Hizkuntza historikoen barne-aldakortasunean, hiru maila bereizi ohi dira (Coseriu 1981 [1958]: 12, 1981 [1973]: 303): a) diatopia edo espazio geografikoan hauteman daitezkeen hizkuntza-desberdintasunak, b) diastratia edo hizkuntza-erkidego bateko maila soziokulturalen arabera sortutako hizkuntza-desberdintasunak, eta c) diafasia edo egoeraren arabera sortutako hizkuntza-desberdintasunak. Dialektologiak diatopiari begiratzen dio: batetik, hizkuntza-ezaugarri eta isoglosa jakin batzuen hedadura geografikoari, eta, bestetik, dialektoen edo hizkeren arteko harremanari. Soziolinguistikak, berriz, aldaera diastratikoei erreparatzen die; alegia, hizkuntza-ezaugarrien gizarte-estratifikazioari. Azkenik, alderdi diafasikoa estilistikari dagokio. Banaketa horixe proposatu zuen Coseriu, baina zenbait soziolinguistak diote hiru mailok batera agertu behar dutela azterketa dialektologikoetan (López Morales 1983: 133):

La dialectología es el estudio de la variación en el uso de una lengua por los que la hablan. Esta variación tiene tres dimensiones: la estilística, la sociolingüística (la variación diastrática) y la geográfica (la variación diatópica).

Izan ere, ezin uka daiteke dialektologia eta soziolinguistika lotuta daudenik, hizkuntza-aldakortasuna baita bi diziplinon ikergaia. Baina, Moreno Fernándezek dioenez, komeni da biok bereiztea, eta dialektologia zeregin diatopikoetarako uztea (2004: 70-71):

... es preferible reservar el término “dialectología” para todo lo que tiene que ver con la variación diatópica, como sostenía Coseriu. De modo que, dentro de ese campo, sería posible realizar estudios con planteamientos distintos, que irían desde la geografía lingüística (principalmente, elaboración de atlas lingüísticos), hasta la historia de la lengua (estudios históricos y comparación de variedades), pasando por la lexicografía dialectal o la elaboración de monografías dialectales. En este último caso, si se atiende a factores diastráticos sin manejar métodos típicamente sociolingüísticos, podría decirse que se practica una “dialectología social”. Naturalmente, estos planteamientos afectan a los objetivos de las

disciplinas. La forma en que se organiza la variación lingüística propiamente dicha la interpretamos como la superposición de dos pares de ejes cruzados: los ejes geográfico y temporal, que constituyen las coordenadas básicas de la variación histórica y geográfica, y los ejes social y situacional, que operan en cada posible intersección de los dos anteriores (...).

Nolanahi ere, Coseriuri jarraituz, ongi zehaztu beharra da zer aztertu nahi dugun; alegia, noizko datuak erabiliko ditugun, zein hizkuntza-mailatakoak, eta abar (1981 [1958]: 27, 28). Izan ere, ezin jarri ditugu parez pare gaur egungo eta XIX. mendeko datuak, adinekoen eta gazteen datuak, edota lagunarteko hizkeraren eta hizkera formalaren datuak. Lanean zehar, kontu horiek guztiak zehazten eta azaltzen joango gara.

Moreno Fernándezen arestiko ideari helduz, guk ere diatopiari eman diogu lehentasuna Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko euskararen azterketa dialektologikoa gauzatzeko. Alegia, hizkuntza-ezaugarriak espazioan nola hedatzen eta banatzen diren, eta, azken batean, ezaugarriak noraino iristen diren aztertu nahi dugu. Hain zuzen, ikuspegi hori nagusitzen da gaur egungo hizkuntzalaritzan zein hizkuntzalaritza tradizionalen, ikertzaileek dialektologia definitzeko erabiltzen dituzten formulazioetan ikus daitekeenez. Hona dialektologiaren definizio batzuk:

La dialectología es el estudio de los dialectos. Y puesto que dialecto es ‘variante o ramificación territorial de una lengua dada’, la dialectología, al menos como se ha entendido tradicionalmente, es la disciplina que considera el hecho lingüístico en necesaria conexión con su dimensión espacial, geográfica (o social en la ‘dialectología social’). (Montes Giraldo 1970: 38)

... estudio científico de los dialectos, esto es, análisis e interpretación empírica de las modalidades dialectales de un dominio lingüístico. La Dialectología, en efecto, se ocupa del estudio de las variaciones espaciales, geográficas o diatópicas de la lengua dependientes de la distribución territorial de los hablantes, es decir, que consiste en el estudio de las variedades geográficas del código según la estructura espacial de la comunidad lingüística. Nos encontramos, pues, ante un análisis de los caracteres que diferencian a la lengua según su concreta circunscripción geográfica dentro de la comunidad idiomática global. (Abad 1983: 286)

En cuanto a la dialectología, su tarea primera no es la de establecer fronteras entre los dialectos, sino la de comprobar la configuración diatópica real de la lengua histórica: los límites efectivos de la uniformidad idiomática, que, naturalmente, pueden ser diferentes para los distintos fenómenos considerados. Las «fronteras», si se necesitan (por ejemplo, para finalidades prácticas o para estudios

«gramaticales»), podrán resultar de la coincidencia entre muchas isoglosas particulares o fijarse convencionalmente (por ejemplo, haciéndolas coincidir con ciertas isoglosas consideradas como particularmente significativas). (Coseriu 1981 [1958]: 26-27)

La disciplina que estudia la diferenciación regional de una lengua, y al mismo tiempo los varios sistemas menores que en ella se pueden distinguir desde el punto de vista geográfico, es la *dialectología*. Además de ser estudio de la variedad espacial de una lengua determinada, la dialectología puede ser también ciencia comparativa de los dialectos de varias lenguas pertenecientes a la misma «familia». Así, por ejemplo, se han hecho estudios de *dialectología comparada* románica, que tratan particularmente de las relaciones históricas entre dialectos italianos y dialectos de otros países románicos. (Coseriu 1986 [1951]: 106-107)

... l'étude des variations géographiques de l'idiome, afin de cerner les aires couvertes par les diverses variantes, étudier les rapports qu'elles entretiennent entre elles, établir les sous-systèmes propres à chaque unité socio-linguistique ou ethnolinguistique —ville, commune, hameau, ailleurs tribu— et chercher peut-être, en scrutant l'histoire des groupes humains et de leurs mutations sociales ou économique, certaines raisons de ces différences. (Allières 1981: 273)

4.3. Dialektologia eta geografia linguistikoa

Hizkuntza eta geografia uztartzen ditu, beraz, dialektologiak. XX. mendearen hasierahasieran, baina, Gilliéron-ek Frantziako hizkuntza-atlasa (*ALF*) osatu zuen Edmond Edmont datubiltzailearen laguntzaz, eta geografia linguistikoaren edo hizkuntza-geografiaren sortzailatzat hartzen da lan hori (ondoren, lan gehiago etorri ziren, hala nola Jaberg eta Jud ikertzaileen lana Italiako dialektoei buruz)⁴². Alegia, geografia eta hizkuntza uztartzen dituen arloa da geografia linguistikoa⁴³. Gauza bera ote dira, hortaz, dialektologia eta geografia linguistikoa? Izatez, dialektologiaren metodo bat da geografia linguistikoa, eta inkesta bidez bildutako aldaera fonetiko, lexiko eta gramatikalak mapetan islatzean datza haren jarduna (Coseriu 1977 [1954]: 103-104).

Abadek hiru adar bereizi ditu dialektologiaren baitan (1983: 286-287): a) dialektologia filologikoa; alegia, hizkera bat aztertzea testu zaharrak ikertuz edo inkesta bidezko lekukotasunak

⁴² Haren aurretik, baina, beste ikertzaile batzuek ere metodo horixe erabili zuten beren lanetan; besteak beste, Leibniz, Schmidt (uhinen teoria edo *Wellentheorie*), Schuchardt, Ascoli, Winteler, Wegener, G. Paris, Meyer, Rousselot eta Gauchat ikertzaileen lanak aipatzen ditu Coseriu, guztiak ere XIX. mendearen bukaerakoak (1977 [1954]: 115-117; cf. Bottiglioni 1986 [1954]: 5-6 eta Camino 2009a: 15-17). Bestalde, Bottiglioni dio lege fonetikoaren zurruntasunaren kontra egiteko balio izan zuela *ALF* lanak, nahiz eta geografia linguistikoak ere ez duen den-dena azaltzen (1986 [1954]: 8, 9, 10).

⁴³ “Geografia linguistikoa” izendapena ez da beti denen gustukoa izan. Dazatek, esate baterako, nahiago zuen “linguistika geografikoa” edo “hizkuntzalaritza geografikoa” erabili, eta “geolinguistika” ere erabiltzen da, zentzu berean (García Mouton 1996: 63-77).

bilduz, monografia dialektalak osatzeko, b) dialektologia geografikoa edo geografia linguistikoa; alegia, inkestetan bildutako datuak kartografiaren bidez irudikatzea, eta c) dialektologia soziologikoa edo soziolinguistika; alegia, faktore sozialak aintzat hartuz hizkuntzaren aldakortasuna aztertzea. Funtsean, beraz, gorago aipatu dugun bereizkuntza bera dakar Abadek: “ohiko” dialektologiak monografietan biltzen ditu datuak, eta geografia linguistikoak, berriz, mapetan.

Gaur egun, baina, monografia dialektaletan ere mapak agertu ohi dira, eta, beraz, ez du zentzu handirik dialektologia eta geografia linguistikoa gauza desberdinak direla esateak. Salvadorrek dioenez, ohiko monografia dialektalak geografia linguistikoaren metodoak erabiliz egitea da jokabiderik egokiena (1965: 255). Caminok ere zaku berera bildu ditu bi arloak (2009a: 13)⁴⁴. Gainera, geografia linguistikoaz ikertzaileek emandako definizioei erreparatzen badiegu, argi eta garbi ikusiko dugu bat eta bera dela dialektologiaren eta geografia linguistikoaren helburua. Hona geografia linguistikoaren definizio zenbait (cf. 4.2.3. atalean dialektologiaz emandako definizioak):

L'idée fondamentale de la géographie linguistique consiste à transposer l'étude de la langue du point dans l'espace, à ne plus envisager le fait linguistique comme strictement localisé, dans sa création et dans son évolution, mais à le placer dans son entourage géographique, à établir son *aire*. (Jabergen *Géographie linguistique et expressionisme phonétique* lanetik jasotako aipua, in Alvar 1991: 19)

El grupo lingüístico, es decir, los individuos de una misma lengua materna, está caracterizado, pues, por otros antecedentes étnicos (raza, origen tribal, nacionalidad étnica, ciudadanía, religión) cuya distribución no coincide forzosamente, y puede incluso presentar apreciables diferencias. Pero, como cualquier grupo humano, presenta igualmente otros aspectos más generales que permiten caracterizarlo, aquilatarlo, estudiarlo. Entre los caracteres básicos hay que señalar primeramente la distribución espacial, es decir, el territorio de cada grupo lingüístico, de cada habla, ya sea propio o esté compartido con otros, ya sea ininterrumpido o discontinuo, ya sea ancestral, de implantación immemorial o, por el contrario, histórico y reciente. La existencia de esta base territorial, sólida o precaria, es esencial en la vida del grupo humano surgida de sus interacciones con el medio. A la disciplina de la que se desprende este análisis la podemos llamar *geolingüística*, o geografía de las lenguas y de las etnias. (Breton 1979: 55)

Las relaciones que destaca la geografía lingüística, en el sentido que hemos llamado «técnico», no se entienden como relaciones directas entre el ambiente natural (geográfico) y el lenguaje, sino como relaciones entre el ambiente geográfico y la difusión y distribución espacial de los hechos lingüísticos. Y

⁴⁴ Alabaina, Chambersek eta Trudgillek nahiago dute dialektologia eta geografia linguistikoa bereiztea. Honela definitu dute geografia linguistikoa: "... a methodology or (more accurately) a set of methods for gathering evidence of dialect differences systematically" (1980: 17).

no se conciben como relaciones condicionadas política, social y culturalmente: más bien que a la geografía física, atañen a la geografía humana y política. Así, los «centros de irradiación» de los que ella habla no son los centros geométricos de los territorios estudiados, sino los centros políticos, administrativos, culturales y religiosos, los centros comerciales y de comunicación (...).

(...)

En otro sentido no técnico, la geografía lingüística puede entenderse simplemente como parte de la geografía, precisamente, como «geografía de las lenguas» (...). En efecto, *las lenguas*, es decir, las entidades en las que el lenguaje humano se realiza históricamente, o, mejor dicho, las *comunidades lingüísticas* que realizan concretamente en su hablar las entidades ideales llamadas «lenguas», se presentan con extensión y límites en el espacio terrestre y, por lo tanto, pueden registrarse en mapas y constituir objeto de la geografía: el estudio de la distribución de las «lenguas» (comunidades lingüísticas) sobre la tierra y de las fronteras entre ellas cabe dentro de la geografía política. (...) Caben dentro de este concepto de geografía lingüística los mapas lingüísticos que se encuentran en los atlas geográficos comunes y en los atlas históricos, como también gran parte de las indicaciones de los mapas que contienen las obras acerca de las lenguas del mundo, u otras obras que registran la distribución de las «lenguas» en ciertos territorios.

(...)

En cambio, la geografía lingüística, en el sentido técnico, es una geografía «interna» de las lenguas: no se ocupa de las fronteras entre «lenguas» (comunidades lingüísticas), sino de la *extensión y distribución espacial de fenómenos lingüísticos particulares* (fonemas, palabras, construcciones), dentro de una o más «lenguas», y de los *límites entre las áreas ocupadas por tales fenómenos*, que sólo en casos especiales pueden coincidir con los límites de la lengua o de las lenguas estudiadas. Por lo tanto, los *atlas lingüísticos* se distinguen de los atlas geográficos corrientes también porque no contienen mapas de varios territorios, sino una serie de mapas del mismo territorio, y precisamente un mapa para cada concepto o para cada fonema (o serie de fonemas) cuya expresión o cuya realización concreta se han comprobado por el investigador en una red de puntos (localidades) previamente establecida. (...) En otras palabras, *los atlas lingüísticos son colecciones cartográficas de material lingüístico*. (Coseriu 1977 [1954]: 106, 109-112)

Así, la geografía lingüística, que sustituye a la dialectología puntual, examina las relaciones entre hechos «equivalentes» (realizaciones diferentes de un mismo fonema, fonemas diferentes que proceden de la misma base, formas diferentes de la misma palabra, palabras diferentes para el mismo concepto, construcciones gramaticales diferentes con la misma función) tales como se dan en el espacio: ya no se trata de establecer sólo «cómo se dice aquí», en un punto determinado del espacio, pues se procura establecer la extensión y los límites de lo que aquí se dice y las relaciones espaciales entre eso que se dice aquí y lo que se dice para lo mismo en otras partes, en la misma lengua histórica y, eventualmente, también en más lenguas, lo cual puede conducir a importantes inferencias de orden general. (Coseriu 1981 [1973]: 79-80)

Bat datoz, beraz, dialektologiaren eta geografia linguistikoaren helburuak. Gainera, dialektologiaren arazo bertsuak ditu geografia linguistikoak ikergai; gorago aipatu dugun dialektomugen arazoa, esate baterako (García Mouton 1996: 75):

La Geografía lingüística removi6 también alguna de las bases te6ricas de la Dialectología: si no existen l6mites, fronteras, no existen dialectos. Al menos en un primer momento hubo quienes lo interpretaron as6 en sentido estricto. Sin embargo, los mapas lingüísticos nunca negaron, sino que matizaron, el concepto que est6 en la base misma de la investigaci6n —el de *dialecto*—, al tiempo que reconocieron al hablante su protagonismo en el cambio lingüístico. El dialecto pas6, de negarse, a considerarse como una abstracci6n necesaria. Ante la variaci6n en el espacio, la Geografía lingüística impuso el principio de que existe unidad en la variedad —por eso busca un informante para representar a toda una comunidad de habla—, lo mismo que el principio de la continuidad de 6reas —la lengua es un *continuum*, una realidad continuada—, que se da por supuesta, de ah6 que se estudie como significativa cualquier fragmentaci6n.

García Moutonek berak dio mapak direla geografia linguistikoaren ekarpen handiena, eta monografia dialektalak, aldiz, dialektologiarena; guztiok uztartzea da lan egiteko modurik egokiena. Mapak oso bisualak dira, eta, horrez gain, gizarte-harremanen eta hizkuntzaren arteko loturari buruzko argibideak ematen dituzte, bai eta ezaugarrien alderdi kronologikoari buruzkoak ere: berrikuntzak non eta noiz sortuak diren, nondik nora hedatu diren, eta abar (Coseriu 1977 [1954]: 114-115, cf. García Mouton 1996: 67). Coseriuren hitzak dira: “... en la distribuci6n espacial de los hechos lingüísticos, se refleja de alg6n modo su cronolog6a relativa”. Jakina, behar bezala lan egiteko, mapak zorrotz interpretatu behar dira, eta testuez lagundurik, ahal izanez gero.

Gilliéronen ondotik, beste metodo batzuk garatu zituzten, eta aipagarria da Italiako neolinguistikaren ekarria, batez ere Bartoliren eskutik zabaldua. Neolinguistek diakroniari erreparatu zioten, Bartoliren *norme areali* edo arau arealak/espazialak oinarrizatz hartuta (*Introduzione alla neolinguistica*, 1925): labur esateko, neolinguistikaren arabera, diakronian gertatutako prozesuen ondorio dira datu sinkronikoak. Esate baterako, “bazterretako guneen arauak” dio eremu bateko bazterretan ageri diren ezaugarri bateratzaileak zaharragoak direla erdigunean ageri direnak baino⁴⁵; ez gara gehiegi luzatuko neolinguistikaren metodoak aztertzen⁴⁶, baina oro

⁴⁵ Arau horrek lotura handia du XIX. mendean zabaldu zen *Wellentheorie* edo uhinen teoriarekin.

⁴⁶ Bartoliren arau espazialen berri sakonagoa izateko, ikus, besteak beste, Mitxelena 1976a, Abad 1983: 290-291, Chambers eta Trudgill 1980: 183-184, Coseriu 1977 [1954], Petyt 1980: 65-66, Mańczak 1963 eta 1988 eta Camino 2009a: 146-148.

har esan daiteke oso arau hertsia erabiltzen zituztela. Izan ere, Mitxelenak dioen bezala, dialekto guztiak dira aldi berean berritzaile eta gordetzaile (1976a: 311. orrialdeko oin-oharra), eta, beste modu batera esanda, “no dialect is either absolutely conservative or absolutely progressive” (Ivić 1962: 43).

4.4. Dialektologia kontrastiboaren ildo

Orain arte, beraz, bi ideia nagusi nabarmendu ditugu: bata, dialektologiak (edo geografia linguistikoak) diatopia du ikergai, eta hizkuntza-ezaugarriak espazioan nola banatzen diren aztertzen du; bigarrena, ezin ezarri dugu dialektoen edota hizkeren arteko muga zurrunik, hizkeren continuum linguistikoa osatzen baitute, eta hizkera batetik besterako jauzia graduzkoa eta mailakakoa izan ohi baita. Hirugarren ideia bat azpimarratu nahi dugu orain: dialektologiak helburu kontrastiboa izan behar du. Pringlek dioenez, XIX. mendearen bukaeran indartu zen Europan dialektologia, eta helburu “erromantikoa” zuen: hiri-hizkeretan ez dauden ezaugarri garbiak, antzinakoak eta autentikoak lehenbailehen biltzea (1986 [1983]: 222). Azken batean, dialektoa egitura hertsizat hartzen zuten, eta dena bildu eta deskribatu beharra zegoen (1986: 224). Ildo beretik doaz Salvadorren hitzok (1987: 17):

Así se explican esas entradas a saco, esas múltiples recolectas indiscriminadas, esas alegres tesis doctorales, cargadas a partes iguales de inexperiencia y de fácil información, esos batiburrillos y misceláneas dialectales que suelen constituir la bibliografía al uso en la dialectología de cualquier lengua. Sin mayores miramientos teóricos ni escrúpulos metodológicos. Cazando al ojeo y disparando a bulto.

Baina dialektologia ez da hizkerak deskribatzea soilik. Francis ikertzaileak dioenez, dialektologiaren eginbeharra ez da hizkuntza-bitxikeriak museo batean biltzea; haratago doa dialektologiaren funtzioa, eta hizkuntzalaritza orokorraren esparruan, eta, zehatzago, hizkuntza-aldakortasunarenean ekarpen teorikoa egitea du xede (1983: 145):

To some dialectologists, the responsibility of the discipline goes no further than this collection and display. Others, however, have felt that dialectology is not just a museum of linguistic oddities but a branch of the field of general linguistics, and hence responsible for developing theories of language variation and distribution which are compatible with or contributory to a general theory of language.

Hala, hizkera baten azterketa dialektologikoa egiteko, hizkera hori ingurukoekin alderatu behar da gutxienez:

Lo propio y esencial de un «dialecto» en cuanto tal es el constituir una forma de la variedad idiomática, el ser delimitado espacialmente (con respecto a otros dialectos) dentro de la lengua histórica, por lo cual no se lo estudia propiamente como «dialecto» (y, por ende, no se hace propiamente «dialektología») si sólo se lo describe en su homogeneidad y se descuida su aspecto de «variedad»: la delimitación dada por las relaciones interdialectales. Se llega, por tanto, a la conclusión aparentemente —pero sólo aparentemente— paradójica de que la dialektología sincrónica (o descriptiva), precisamente por atender a los dialectos en cuanto tales, no puede ser descripción de los dialectos: en efecto, debe ser descripción de la variedad dialectal (o diatópica) y, por consiguiente, de las relaciones interdialectales.

(...)

... los dialectos no se estudian como tales si se prescinde de sus relaciones con otros dialectos. Por ello, las descripciones gramaticales adquieren valor y sentido dialectológico sólo cuando, reunidas, logran mostrar la variedad diatópica de un idioma. (...) el único método enteramente adecuado para la dialektología es la geografía lingüística, que encara directa e inmediatamente la variedad idiomática. (Coseriu 1981 [1958]: 18-19)

Si la lingüística contrastiva sirve para calibrar las diferencias existentes entre dos o más lenguas y el grado de proximidad o lejanía en que se hallan sus correspondientes sistemas, no cabe duda de la posibilidad y, aún más, de la utilidad de una dialektología contrastiva que analice las diferencias o semejanzas entre variedades dialectales de la misma lengua y establezca, no con meras impresiones sino con datos objetivos y computables, una escala de relación entre esas variedades, independientemente de su mayor o menor desvío con respecto a la norma de la lengua estándar.

(...)

... la dialektología contrastiva debe establecer, a partir de los índices de coincidencia o discrepancia entre hablas, una escala de relación que permita clasificarlas en orden a su mayor o menor semejanza. (Salvador 1987: 190, 196)

Idea bera dakar Bottiglioni ere, eta, lexikologiako saio erakusgarri bat azaldu ondoren, honako ondorio hau erdietsi du (1986 [1954]: 8):

Areal comparison yields results not only in the field of lexicology, but is useful also in the fields of phonetics, morphology, and syntax.

Euskal Herrian ere ohartuak gara horretaz (cf. Camino 2009a: 249-250):

Hizkera bat ondoko ibarretako mintzoarekin alderatu gabe aztertzea edo deskribatzea, ez da dialektologiaren bete-beteko helburua, ez da dialektologiaren lehen urratsa baizik; honelako lan atomistak ugari egin dira eta egiten ere dira Euskal Herrian.

(...)

Deskribapena ez da bidearen eta lanaren lehen atala baizik: non eta ikuspegi atomista gainditurik dialektologia kontrastiboaren onura aitortzen ez dugun, ez gara deskribapenatarik haratago iritsiko. Eredu deskriptiboko dialektologia-lanak bikainak izan daitezkeela jabetzen gara, baina ikuspegi teoriko ahulean, metodologia atomistan eta ikusmira azaltzailerik gabeko eremu errepikakorrean leiratuko gara goxoki Euskal Dialektologian, lan sendo eta sakonen helmugara hurbildu ezinik, dialektologia kontrastiborantz urratsik egiten ez badugu. Dialektologiaren helburua lan geolinguistikoak dira, hizkuntzaren aldakortasuna —baita jarraitasuna eta batasuna ere, egia esan— geografian zehar aztertzen dutenak eta ematen du, honelakoak Euskal Herrian gehienik, azken garai honetan ari direla suspertzen.

Hizkera baten egitura aztertzeko, geolinguistikoki dituen loturak eta etenak ikusteko, mintzo horrek ondoan edo inguruka dituen beste hizkera guztiak, hein batez ezagutu beharra dago; ondoren alderatzea dator, hizkera horiekin guztiakin dituen berdintasun eta desberdintasun mailak ezagutzea. Horrezaz landa, ikertzen den geografia-eremu horretako hizkuntza-aldaerak, ez sinkronikoki bakarrik, diakronikoki ere aztertu behar dira funtsezko ondorioz aterako bazaigu. (Camino 2004a: 70)

Dialektologiaren helburuetariko bat da hizkera batek beste hizkerekiko zein konbergentzia eta dibergentzia maila duen neurtzea eta hizkerak nola egituratzen eta erlazionatzen diren jakitea. (Ibarra 2006: 495)

Hala, gaur egungo dialektologia-lan gehienek dialektologia kontrastiboaren ildoari heltzen diote, baita Euskal Herrian ere, eta esparru horretan kokatu nahi dugu gure lana ere. Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko euskara aztertu nahi dugu, eta, horrenbestez, inguruko hizkerak ere aintzat hartuko ditugu: ekialdean, Ultzama eta Atetz; hegoaldean, Txulapain, Gulibar eta Arakil; iparraldean, Basaburu Txikia, Leitza eta Areso; eta, mendebalean, Gipuzkoako Tolosaldeko herriak. Gure eremuan erabiltzen diren hizkuntza-ezaugarriak inguruko herrietan ere ba ote diren ikertuko dugu, baina alderantzizko bidea ere jorratuko dugu; alegia, xeheki ikertu nahi dugu ea baden ezaugarriak inguruko hizkeretan, gure eremuan ageri ez denik. Hizkera horiek guztiak maiz aipatuko ditugu gure lanean; azken batean, hizkera horiek eta gure eremukoak alderatuko ditugu. Ikuspegia pittin bat goratzea ere ona izaten da ikerketarentzat: batzuetan, Nafarroa osoari begiratu beharko diogu, Nafarroako erdiguneari beste batzuetan, baita Euskal Herriko erdiguneari ere, eta are Euskal Herri osoari. Orotariko ezaugarriak ageri dira gure eremuan

—berrikuntzak, arkaismoak, hedadura zabaleko ezaugarriak, hedadura murriztagokoak, eremu jakin bateko ezaugarriak, eta abar—, eta haien berri eman nahi dugu gure ikerketaren bitartez.

4.5. Gaur egungo dialektologia

Dialektologiaren edo geografia linguistikoaren eremuan egiten diren lanak gero eta zehatzagoak eta osatuagoak dira, bai nazioartean bai Euskal Herrian; horretaz ez dugu zalantzarik. Dialektoen inguruko kezak aspaldikoak dira, eta, Chambers eta Trudgill ikertzaileek diotenez, harrizkoa da XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera hasi izana dialektoak sistematikoki aztertzen (1980: 15). Alabaina, harrezkero garrantzi handia hartu du dialektologiak, batez ere XX. mendean eta handik aurrera:

... linguistic geography has become an essential part of linguistic science. We may say that there is no longer any scholar of historical-reconstructive linguistics who does not feel the need of recourse to areal comparison; (...) is always informative on problems not only of modern languages but even of the most ancient ones. (Bottiglioni 1986 [1954]: 14)

El método geográfico (...) constituye, indudablemente, una de las grandes conquistas de la ciencia del lenguaje de nuestro siglo. (Coseriu 1977 [1954]: 154)

Gaur egungo ikerketetan, dialektologiak badu bere lekua, baina soziolinguistikarekin konbinaturik ageri da maiz. AEBn sortu zen dialektologia berri hori, XX. mendearen erdialdean; “dialektologia soziala” edo “dialektologia urbanoa”, alegia. Funtsean, dialektologiako ikerketetan dimensio soziala aintzatesten dute dialektologia mota horren jarraitzaileek, eta, AEBn, aipagarriak dira William Labov ikertzaileak New York hirian edota Martha’s Vineyard irlan egindako lanak, besteak beste.

Europara etorrira, ildo horretatik jo dute gehien-gehienean XX. mendearen erdialdetik aurrerako lanek (Moreno Fernández 2004: 71):

Una parte de la dialectología europea actual ha convertido los procesos de convergencia y divergencia en su objeto de estudio predilecto y está planteando unos problemas que requieren investigación. La investigación lingüística que ahora se propone maneja principios teóricos de la dialectología y de la sociolingüística y accede al manejo combinado y complementario de métodos y técnicas de análisis geolingüísticos y sociolingüísticos. Por eso se pone un interés especial en romper las fronteras entre esas disciplinas o entre técnicas —cuantitativas y cualitativas— que en más de una

ocasión se han presentado como antagónicas, sin serlo realmente (Elizaincín, 1992; Villena Ponsoda, 1997; Moreno Fernández, 1999-2000).

Ingalaterran, “social dialectology” edo dialektologia soziala izena eman diote dialektologiaren joera berritzaile horri⁴⁷. Britain eta Cheshire ikertzaileek *Social dialectology* lanaren hitzaurrean diotenez (2003: 1-8), aldaera arkaiko eta ruralak aztertzetik aldaera garaikide urbano zein ruralak aztertzerara igaro da dialektologia. Aldakortasun soziolinguistikoa, hizkuntza-aldaketa, aldaera estandarren eragina, hizkuntzen edota dialektoen arteko kontaktua, dialekto berriak eratzea, hizkuntza-isolamendua eta halako gaiak ere badira dialektologia sozialaren ikergai. Bide horretatik jo du, hain zuzen, Trudgillek *Dialects in contact* lanean (1986)⁴⁸: hura hartzen da dialektologia mota berri horren sortzailetzat, giza geografiaren ereduak eta faktore soziolinguistikoa uztartzeko egin duen lanagatik. Trudgillen lanean irakur daitekeenez, dialektoak elkarrekiko harremanean daude (orain, inoiz baino gehiago), eta horrek dialekto berriak eratzea, tarteko forma eta are hizkerak sortzea, eta abar, ekarri du. Alegia, diatopia eta diastratia uztartzen dituzte gaur egungo metodoek, baina batik bat hizkuntzaren eta ezaugarri sozialen arteko harremanari erreparatzen diote (Chambers eta Trudgill 1980: 54-64)⁴⁹. Izan ere, Linn-en hitzak hartuz, iraganean, erkidego ruralak homogeenak eta egonkorak ziren, baina gaur egungo erkidego urbanoek heterogeenak eta mugikorak izateko joera dute (1983: 225), eta, beraz, hizkuntza-desberdintasunaren ikuspegitik, faktore soziologikoak garrantzitsuagoak dira faktore geografikoak baino (Trudgill 1974: 20). Horren ondorioz, dialektologiak herrigune ruraletatik hirietara jauzi egin du (Chambers eta Trudgill 1980: 55-56); aintzat hartzeko moduko datua da Ingalaterrako biztanleen % 90 hirietan bizi dela⁵⁰.

Hizkerak aztertzeko metodoak ere aldatu egin dira, eta estatistikaren ekarriak baliatzen dituzte ikertzaile askok hizkuntzaren aldakortasuna aztertzeko (ikus, besteak beste, Schouten eta Van Reenen 1989).

⁴⁷ Francisek “dialektologia soziolinguistikoa” terminoa erabili du (1983: 193).

⁴⁸ Lan horren aurretik, *The social differentiation of English in Norwich* lana argitaratu zuen (1974); hain zuzen, klase sozialen arabera Norwicheko ingelesa nola eta zertan aldatzen den aztertu zuen Trudgillek, Laboven metodoari jarraituz.

⁴⁹ Chambers eta Trudgill ikertzaileek diotenez, geografia linguistikoa, dialektologia urbanoa (Labovek 1966an urratua) eta giza geografia bildu beharko lituzkete gaur egungo lan geolinguistikoei (1980: 206-207).

⁵⁰ Gogoan izan behar dugu hiztunaren egoera ez dela bera herrian eta hirian (Camino 2009a: 78): “... desberdintasun nabarmena dago orain artean ezagutu ditugun tradizioko herri txikiak hiztunaren partaidetza moduaren, eta hirietan pertsona batek izan dezakeen partaidetza moduaren artean, lagun bata eta bestea inguratzen duen hizkuntza-errealitatea zinez desberdina baita: hiritarrena bereziki, dimentsio anitzekoa da”. Ildo beretik doaz hitz hauek ere (2009a: 257): “... hirietan erkidego konplexuagoak ageri zaizkigu herri txikietan baino: erkidego konplexuetan pertsonak hartu-eman gehiago dute, rol desberdin gehiagori aurre egin behar diote eta ondorioz, hirietan aldakortasun lektal handiagoa ageri da”.

Euskal Herrian, oraindik ere gutxi samar jorratutako bidea da hori. Ezinbestean loturik daude dialektologia eta soziolinguistika, eta dialektologiako lanetan ez da falta izaten soziolinguistikari buruzko daturik. Baina ikerketa linguistikoa dialektologiara bideratua da funtsean. Ikertzaile batzuek gero eta gehiago aintzatesten dituzte soziolinguistikaren ekarriak; Zuazok, esate baterako, garrantzi handia ematen dio hiztunen adinari, eta gaur egungo dialektologiak gazteen mintzoetan oinarritu behar duela defendatzen du (2008: 28-29). Baina ezin esan dugu hori dialektologia soziala egitea denik. Dialektologia sozialak beste metodologia bat erabiltzen du: eremu zabalak eta oso jendetsuak ditu aztergai, eta berriemaileak ausaz aukeratzen dituzte. Ondoren, zenbait aldagairen arabera kuantifikatzen, neurtzen eta sailkatzen dituzte bildutako datuak, eta ezaugarrien erabilerari buruzko portzentajeak eta grafikoak kalkulatzeko dituzte (Chambers eta Trudgill 1980: 59). Hain zuzen, metodologia horretatik hurbil sumatu ditugu azken urteotan argitaratutako lan batzuk: batetik, Garmendiak Zaldibian egindako ikerketa aipatu nahi dugu (2003, 2008). Aldagai soziolinguistikoak erabiliz (adina, generoa, bizilekua eta hizkuntza-arauarekiko hartu-eman), Zaldibiako hizkuntza-aldakortasuna aztertu du egileak, eta emaitza interesgarriak dakartza. Bestetik, aipagarria da EUDIA taldea Euskal Herri osoan gauzatzen ari den ikerketa: “Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa”. Batez ere adinaren araberrako desberdintasun dialektalei erreparatzen diete ikertzaileok, eta, ildo horretatik, aldaera estandarrak gaurko euskal mintzoetan nolako eragina duen neurtzen saiatzen ari dira (ikus Aurrekoetxea 2003, 2004a, 2006 eta 2008, Ormaetxea 2008). Areago, Aurrekoetxeak dio hori dela gaur egun dialektologia egiteko bide bakarra (2008: 23):

... dialektologia tradizionalaren metodologia baztertu behar dela ikerketa berriak planifikatzean defendatzen dugu. Hizkera batek bere barne kohesioa galdua duenean eta belaunaldi batetik bestera hain desberdintasun handia erakusten duenean, ez du zentzurik hizkera hori aztertzeak metodologia soziolinguistikoa kontuan hartu gabe. Zaharren hizkera jada ez da herri bateko hizkeraren ordezkatzailerik, ezaugarri soziolinguistiko batzuk dituzten hiztunena baizik.

Ohiko monografia dialektaletan erabiltzen den metodologia birplanteatu beharra dago, herri bateko hizkera osoki hartuz ikertu nahi bada behintzat.

Azkenik, aldagai soziolinguistikoak aintzat hartuz lan egiten dihardute zenbait ikertzailek; Gamindek; esate baterako, hiztunek generoaz eta adinaz duten pertzepzioari buruzko lan bat argitaratu du 2009. urtean, eta Santaziliak, berriz, Luzaideko hiztunen generoaren eta batez ere adinaren araberrako hizkuntza-bariazioa aztertu du urte berean (ikus bibliografia).

Gure ustez, ikerketa-lerro guztiak dira zilegi: zilegi da adinaren araberrako aldakortasuna neurtzea, eta zilegi da, halaber, ohiko dialektologia egitea. Irizpideak eta ikergeia ongi definitzean dago gako. Hizkuntzaren estandarizazioa gai soziolinguistiko interesgarria da, gaur-gaurkoa; alabaina, gaurko egoera ulertzeko, behar-beharrezko eta funtsezko lana da aurreko egoera ere ezagutzea. Ezin ahaztu dugu mintzo batean indar asko biltzen direla; antzinagoko eta oraingo indar askotarikoen emaitza da mintzo oro, eta ezin zaio horri muzin egin.

Soziolinguistikarekin ez ezik, beste diziplina batzuekin ere badu lotura dialektologiak, eta guztiak dira aintzat hartu beharrekoak (Alvar 1983: 19):

Por otra parte, negar a la dialectología —o a la lingüística en general— su entronque con otras disciplinas puede no ser motivo de progreso. Naturalmente que no pretendo olvidar que la dialectología es una disciplina lingüística; tan sólo quiero señalar cómo por muy cerrada que sea la estructura de una lengua siempre hay elementos o procesos íntegros que sólo se pueden explicar desde la historia o desde los otros integrantes culturales, a los que no se debe renunciar si no queremos mutilar nuestro propio conocimiento.

Euskaltzaindiak 2008an Iruñean antolatutako biltzarrean, Ramon Sistac ikertzaile katalanak aldarrikatu zuen dialektologiak hizkuntzaz haratago begiratzen ere jakin behar duela, eta historiaren, geografiaren, geologiaren eta beste diziplinen ekarriak ere aintzat hartu beharko lituzkeela. Azken batean, erkidego baten historia sozialaren atal bat da hizkuntza (Chambers eta Trudgill 1980: 123):

In the uniqueness of their approach to such things, the people of a particular region are able to create a sense of place and a sense of community. Language, it turns out, is another of these artifacts, and its regional variety contributes to the sense of community. As such, it would be surprising to discover that language did not correlate with other aspects of culture. The study of regional variety in language can thus be seen as one dimension of social history.

Horren guztiaren haritik, gure lanaren helburua dialektologikoa da osotara, baina ez ditugu beste arlo batzuk baztertu nahi izan: geografiari, historiari, demografiari eta ekonomiari erreparatu diogu atal batean (ikus tesi honen 1. atala), eta soziologiatik hurbil ibili gara beste atal batean, harreman sozioekonomikoei buruzko datuak eman ditugunean, hain zuzen (ikus 2. atala). Datu

guztiok dialektologiaren osagarri eta lagungarri dira, ezbairik gabe. Izan ere, Caminok dioen bezala, “hizkuntza gizarteari dagozkion errealitate ugari loturik dagoela jabetu behar dugu eta ondorioz, gizakiari ere loturik dagoela, jendearen kultura-modu batekin edo gehiagorekin harremanean; dialektologian jokabide diziplinartekoak on baizik ez dakarrela onetsi beharko dugu” (2009a: 233).

5. DATU BILTZEA

5.1. Datu-biltzailea

Aspaldiko kezka da datu-biltzaile bakarra ote den datuak biltzeko metodorik egokiena. Halaxe osatuak dira, hain zuzen, Europako lehen hizkuntza-atlasak (esate baterako, Frantziakoa). 1950. urte aldera, *Orbis* aldizkarian datu-biltzaile bakarraren aldeko aldarria egin zuten *ALEA* (Andaluziako atlasa) osatzeko, baina, lana zein handia zen ikusita, datu-biltzaile gehiagoren beharra ikusi zuten. Alvarrek dio datu-biltzaile bat baino gehiago lanean aritzeak arazoak ekar ditzakeela (datuak entzutean edo interpretatzean sor daitekeen homogeneotasun-falta, adibidez), baina denbora asko aurreratzen dela (1991: 221, cf. Francis 1983: 79-80). Gaur egungo atlasgintzan, datu-biltzaile bakarraren eredia erabat bazterturik gelditu da; horren adibide hurbila dugu Euskal Herriko hizkuntza-atlasa (*EHHA*). Alegia, Atwood-ek dioen bezala, “the use of multiple fieldworkers has become the rule rather than the exception” (1963: 80).

Gu ez gabilta atlas bat egin nahian; geografia-eremu jakin bateko azterketa linguistikoa egin nahi dugu, eta garbi dago datu-biltzaile bakarraren ereduari lotu gatzaizkiola (alegia, gu geroni izanik datu-biltzaile bakarra). Hala ere, maiz suertatu zaigu beste ikertzaile batzuek gure eremuan berean bildutako datuak ere aintzat hartzea gure ikerketarako, eta horrek badu arriskua. Egokiak ote dira datu horiek? Berriemaile egokiak baliatu ote zituzten datu-biltzaile haiek? Zuzen transkribatu ote zituzten datuak? Berriemaileek beren hizkeraren ezaugarriak eman ote zituzten? Halako galderak etorri ohi zaizkigu datu horiek erabiltzen ditugunean. Alegia, Alvarren hitzak erabiliz, ez dakigu esku artean dugun corpora homogeneoa den edo ez. Meilletek dioenez, hainbat ikertzailek bildutako datuak ezin alderatu dira elkarrekin, alde zuzenetik irizpide batzuk finkatu gabe (2001 [1924]: 64):

Inkesta ez bada nolabait antolatu, eta arakatu eskualde osoan arau jakin batzuen arabera egin, monografia bakoitza era ezberdinean aurkezten zaigu, eta batean aurkitzen diren gertakariak ezin daitezke beste batekoekin behingoan alderatu. Onik onenean —eta ez da erraz gertatzen—, inkesta antolatua izan denean eta monografiak eredu bakar baten arabera egin direnean ere, ikertzaileek nekez azter ez jaso zezaketen guztia era batera. Are ezinbestekoagoa da, inkestatzaile gehiago izatea zenbait eskualdetarako bestetarako baino. Eta datuen trinkotasuna ez da berbera.

Etxaidek ere halako datuek dakartzaten arriskuez ohartarazi du *Erizkizundi Irukoitza* lanean (1984: 33).

Esate baterako, Pagolak gure azter-eremuaren barnean diren Goldaratz, Beramendi, Arrarats eta Aldatz herrietako emaitzak dakartza *Euskal Fonetika Nafarroan* lanean (1992). Bina hiztun erabili zituen herri bakoitzean: 68 eta 27 urteko gizon bana Goldaratz, 44 eta 57 urteko gizon bana Beramendin, 52 eta 48 urteko gizon bana Arraratsen, eta 53 urteko gizona eta 57ko emakumea Aldatzen. Egileak ez dakar berriemaileen gaineko berri gehiagorik. Lan horretan ageri diren datuak arretaz aztertu ditugu, eta guk bildutakoekin alderatu. Hona ondorioa: Arrarasko eta Aldazko datuak gureekin bat datoz, baina Goldarazkoak eta Beramendikoak ez. Esate baterako, *erria*, *arria*, *eltxaurra* edota *zaña* ageri dira Beramendin, eta *iltzia*, *belea*, *bazkaria* Goldaratz; forma horiek ez dira inondik inora ere herri horietako errealizazioak (*errii*, *arrii*, *eltxaurre*, *zañe* ageri dira Beramendin, eta *iltzii*, *belii*, *bazkarii* Goldaratz). Okerrak dira Goldarazko zenbait adizki ere (cf. Apalauza 2008a: 32-33): *noa* (Gol. *nii*), *zoaz* (Gol. *zoazi*) edota *emango* (Gol. *emain*). Ez dakigu hiztunek nahita erabili ote zituzten forma horiek, elkarrizketatzaile arrotzaren aurrean berenak ez ziren formak eman ote zituzten, edota datuok gaizki transkribatu ote dituzten; badakigu, ordea, forma horiek ez dutela Goldarazko eta Beramendiko euskara islatzen. Arrarasko eta Aldazko datuak aldiz, fidagarriak dira.

Etxaideren lanean ere gure eremuko datu asko ageri da (1989): Muskitz, Etxaleku, Itsaso, Beruete, Uitz, Etxarri, Oderitz, Baraibar, Albiasu eta Azkarate. Muskitzen kasuan, Etxaidek 84 urteko Joaquín Olayeni egin zion lexikoari buruzko inkesta. Etxaidek berak dioenez, Arakilgo Etxeberri herrian jaioa eta sei urteak arte han bizitakoa zen hiztun hura; handik Gulibarko Aginagara joan zen, hogeita hiru urteak arte, eta ordutik Muskitzen bizi izan zen (1989: 397). Joaquín Olayenek Imozko euskara erabiltzen zuela diosku Etxaidek, baina Arakilgo eta Gulibarko euskararen ezaugarririk baliatuko al zuen inoiz? Ez jakin. Oro har, guk bildutako datuak eta Etxaidek bildutakoak bat datoz, eta horrek fidagarritasuna eta nolabaiteko bermea ematen die datuoi; beraz, datu baliagarritzat jo behar ditugu.

Azkaraten, aldiz, Atallun jaiotako Ines Liciagari egin zion inkesta Etxaidek. Hogeita lau urteez geroztik Azkaraten bizi izan zen, eta gurasoak Abaltzisketa eta Atallukoak zituen (1989: 398). Gurasoetako baten jatorri abaltzisketarrak sor lezakeen interferentzia gora-behera, datuetan Azkaratekoak ez diren ezaugarri asko dagoela ohartu gara; Azkaraten ezinezkoak dira *lengusuba* (1989: 224-225), *bizia luzea daukat* (1989: 239), *billatu dut billen nebilla gauza* (1989: 305),

lañua (1989: 133) edota *goaixiak* (1989: 185) errealizazioak. Ez dakigu berriemaileak bereak ez ziren ezaugarriak nahita eman ote zituen, edota datuok gaizki transkribaturik dauden, baina garbi dago ezin har daitezkeela Azkarateko euskararen ezaugarritzat.

Halaber, *EDEL* lanak (1983-1990) Allirako dakartzan ezaugarriek ez dute fidagarritasun handirik: *azi gera, zaartu dira, dauka, atia* ‘atea’, *burua, dijoa, dator...*

Arazoa larriagoa da dagoeneko euskara galdua den herrietan. Gaur egun ez dago Arakilgo, Gulibarko edota Txulapaingo euskararen datuak biltzerik, eta bibliografiara jo beste aukerarik ez dugu. Arakilgo kasua arretaz aztertu du Caminok (2005a: 277-283): Arakilgo datu bakan dago, osatu gabeak dira askotan, eta ez dira guztiak garai berekoak. Gainera, trantsizio-gunea izanik, polimorfismo handiko eremua zatekeen Arakil, eta horrek kontua zailtzen du (2005a: 277). Halako eremuetan, ezin kontrastatu ditugu ezaugarriak gaur egungo erabileran, ez dakigu datu fidagarriak diren edo ez, baina ez dugu besterik, eta datu horiek erabiltzen ditugu; alabaina, zorrotz jokatu beharra dago.

Adibide horiek guztiek garbi uzten dute kontu handiz ibili behar dugula beste datu-biltzaile batzuek bildutako datuak erabiltzen ditugunean, batez ere zenbait argibide esplizitu eman ez dituzten kasuetan.

Bestalde, asko eztabaidatu izan da aztergai duen eremuko edo kanpokoa izan behar ote duen datu-biltzaileak. Luzaroen, datu-biltzaile natiboaren aldeko jarrera zabaldu zen dialektologian (Bottiglioni 1986 [1954]: 11):

The advantages that a native fieldworker may have over a foreigner in the area under study have also been discussed; but since it is now agreed that the area should be well known by those who work in it, it is plain that a native collector, with training and other necessary qualifications, will always produce better results.

Alabaina, zenbait ikertzailek trabatzat jotzen dute datu-biltzailea eta berriemaileak hurbilekoak izatea; Mitxelenaren hitzak dira (1983: 250):

Ahaide hurbilekiko tratua ez da beti, ezta agian maizenik ere, lagungarri izaten, hurbiltasunaren kariaz, kaltegarri baizik. Konfiantza gehiegia sortzen baitigu, beti ernai eduki behar genukeen mesfidantza lokar araziz.

Francisek dio ez dela baitezpadakoa datu-biltzailea natiboa izatea, familia berekoa izatea eta berriemailearen mintzamolde bera erabiltzea, baina ezaugarri guztiok lagungarri dira, ezbairik gabe (Francis 1983: 80). Azken batean, batak zein besteak dituzte abantailak eta desabantailak (Montes Giraldo 1970: 92):

Se discute si es preferible el encuestador nativo o el foráneo. Uno y otro presentan ventajas y desventajas. Es obvio que el nativo tendrá en general acceso más fácil a las gentes, conocerá mejor la vida de su región y dejará escapar menos fácilmente hechos importantes, por el conocimiento previo que tiene de su existencia. Se arguye que en cambio puede estar menos preparado para captar detalles fonéticos o gramaticales que no percibe fácilmente por estar dentro de sus hábitos y no ser impresionado por ellos, mientras que un extraño tiene más probabilidades de notar tales peculiaridades por resultarle inusitadas. Pero en general un encuestador nativo con suficiente preparación previa parece preferible.

Gure kasuan, datu-biltzaile gisa ezaugarri egokiak biltzen ditugulakoan gaude. Izatez ez gara aztergai dugun erkidegoko partaide, baina hangoak ditugu gurasoak eta familia hurbila, eta, gainera, etengabeko hartu-emanen gaude erkidego horrekin. Hurbilekoa izateak berriemaileekin harremanetan jartzeko erraztasunak eman dizkigu; hizkera lauago batean esanda, halakoren alaba, biloba edo iloba izatearekin puntu asko irabazi ditugula esan genezake. Aldi berean, erkidegoan zuzen-zuzeneko partaide ez izateak halako ikerketak egiteko beharrezkoa izaten den distantzia eman digu, entzundako eta bildutako ezaugarriak behar bezala balioesteko batik bat, nahiz eta, Caminok dioen bezala, beti baden datuak oker interpretatzeko arriskua (2009a: 292, cf. Bottiglioni 1986 [1954]: 10).

Natiboa izan edo ez izan, datu-biltzaileak aztergai duen erkidegoa sakon ezagutu behar du (Alvar 1991: 298, cf. Francis 1983: 85):

Pero creo que es del mayor interés que un lingüista se ponga en contacto con la vida material y espiritual del pueblo. Y mucho más, si ese pueblo es el suyo. Sólo así llegará a conocer el fondo creador que hay en el alma humana: su imaginación, su sentido poético, su ironía, su interpretación de los fenómenos de la naturaleza, sus temores, su religiosidad o su ingenio. Y la lengua ha sido la piedra de toque capaz de desvelarnos tantas sutilezas.

Berriemaileekiko harremanari dagokionez, kasu gehienetan harrera ezin hobea izan dugula adierazi nahi dugu. Zenbaitek, baina, ez dute gure ikerketan parte hartu nahi izan: euskara gaitzesten dutelako hartaz deus ere jakin nahi ez dutenek, eta baita lotsagatik edota beren hizkera gutxien dutelako daturik eman nahi izan ez dutenek ere. Halakoetan, berriemailearen nahia errespetatu beste aukerarik ez dugu.

Adiskidetasun-giroan gauzatu nahi izan dugu berriemaileekiko harremana, baina betiere argi utzi diegu harremanon helburua zein den: gure lanaren nondik-norakoen berri eman diegu, zehazki zein informazio mota behar dugun, eskatu diegun informazioa zertarako erabiliko dugun, eta abar. Azken batean, berriemaileak badu eskubidea berak emandako informazioa zertarako erabiliko dugun jakiteko. Horri loturik dago berriemaileekiko gizabidetasuna eta etika zaindu beharra; Caminoren hitzak dira (2009a: 294):

Ikerketaren esperientziak berriemailearengan uzten duen irudia honelakoa beharko luke izan guti gorabehera: etorkizunean honelatsuko beste ikerketa batean berriemaile horrek berak parte hartzeko arazorik ez agertzeko modukoa. Bestalde, ikerketaren baldintzez esan ohi da, ikertzaileek beren senide zenbait bertan sarturik ikusteko eragozpenik ez izateko modukoa behar duela izan.

5.2. Berriemailea

Linnek dioenez, dialekto bat ikertu nahi denean, behar-beharrezkoa da zehaztea zein erkidego aztertu nahi den, zenbat berriemaile erabiliko diren, berriemaileok zeren arabera hautatuko diren, eta zein datu mota lortu nahi den (1983: 226). Ezaugarriok guztiok aintzat hartu ditugu gure ikerketan, eta horren berri emango dugu atal honetan.

5.2.1. Berriemaile kopurua

Atlasgintzan, berriemaile bakarraren emaitzak baliatu ohi dira, Gilliéronek hasitako tradizioari jarraituz (cf. Alvar 1983: 151). Alvarrek ere berriemaile bakarraren aldeko aldarria egin du, baina betiere onartzen du “beti badela bete beharreko hutsuneren bat” (1983: 151-152, cf. Salvador 1987: 54), eta, horretarako, beharrezkoa da berriemaile kopurua handitzea. Areago, muga-hizkeretan eta aldakortasun dialektal handiko gunetan bi sexuetakoko berriemaileen datuak erabili behar direla dio Alvarrek (1983: 152).

González Gonzálezek dioen bezala, herri jakin bateko hizkeraren ezaugarri orokorrak ezagutu nahi baditugu ezaugarri horiek beste herri batzuetakoekin alderatzeko, aski da herri bakoitzean berriemaile bakarra elkarrizketatzea; aitzitik, hizkera baten berri sakonagoa jaso nahi izanez gero, berriemaile gehiago behar ditugu (1991: 170-171). Ildo beretik, Montes Giraldo dio berriemaile bakarraren datuak erabiltzeak uste eta ondorio okerretara eramán gaitzakeela, eta, horrenbestez, egokiagoa dela berriemaile gehiagorengana jotzea datu bila (1970: 95).

Berriemaile bat baino gehiago aintzat hartzeak datu-biltzea distorsionatzea dakarrela pentsatu izan dute ikertzaile batzuek (Bottiglioni 1986 [1954]: 13), baina ikerketari onura besterik ez dakarkiola uste dugu guk (Camino 2009a: 301):

Ez da pentsatu behar lekuko bat baino gehiago baliatzeak herri bateko aldaera jatorren kaltetan aniztasuna nahitaez areagotuko duenik; lekukoak ongi hautatu badira, herriko bereko mintzoa ongi ematen dutenak badira, lekuko egokiaren baldintzak hein handian asetzen badituzte, hobe da horrela lekuko bakarraren datuak biltzea baino, lekuko horien erantzunen bidez herriko bereko aniztasun berezkoaren berri leialago bilduko baitu inkestak.

(...)

Usu gertatu da herri bateko berriemaile bakarra hizkuntzaren aldetik lekuko berexia izatea eta herri horretako mintzo orokorra egoki ez ordezkatzeari, aitetamak beste herri batzuetakoak zituelako edo.

Gure eremuan datu-biltzen osatu dugun ibilbidean, hasiera-hasieran garbi geneukan ahalik eta berriemaile gehien datuak bildu behar genituela. Imotzen hasi genuen gure ibilbidea, eta herri bakoitzeko berriemaile euskaldun gehienengana jo genuen datu-biltzera. Hango hizkeran mintzatzen direnak gero eta gutxiago direla jakiteak are eta beharrezkoago bilakatu zuen orduko gure helburua. Hala, guztira 34 berriemaile elkarrizketatu genituen batez ere 2002-2003 urteetan (ikus berriemaileen zerrenda 5.2.6. atalean). Ez genuen ikerketatik kanpo herri bakar bat ere utzi, eta Imozko zortzi herrietan ibili ginen horrenbestez.

Gure ikerketan aurrera egin ahala, ordea, gure azter-eremua zabaldu egin da, eta guztira 43 herritako euskararen berri jasotzea bihurtu da gure helburua; ezinezkoa zatekeen herri guztiguztietan sei edo hamar berriemailearen hizkeraren datuak biltzea. Horregatik, datuak biltzeko irizpideak aldatu beharra ikusi genuen: batetik, herri gehienetara iristen ahaleginduko ginela erabaki genuen, baina ez guzti-guztietara, eta, bestetik, herri bakoitzeko berriemaile kopurua bi edo hiru izatea hobetsi. Aztergai dugun hiztun-erkidegoa hurbilekoa dugunez, etengabe egoten gara hiztun

horiekiko harremanean, baita gure ikerketaren berriemaile “ofizial” ez direnekin ere. Baina, elkarrizketa eta hizkuntza-inkesta bideratuak edo gidatuak egiteko, berriemaile jakin batzuk hautatu ditugu, berriemaileon adina, generoa eta beste ezaugarri batzuk aintzat hartuz betiere (ikus 5.2.2., 5.2.3. eta 5.2.4.). Tesi honetan emango ditugun hizkuntza-ezaugarri gehienak, beraz, hautatutako berriemaile horiei jasoak dira.

Herri kopuruari dagokionez, bakar batzuk kanpoan gelditu zaizkigu (Basaburu Nagusiko Aizarotz eta Jauntsarats, eta Larraungo Alli, Etxarri, Lekunberri, Madotz eta Mugiro), hiztun egokirik aurkitu ez dugulako edota, gure ikerketa mugatu nahian, beharrezkotzat jo ez dugulako. Nolanahi ere, gure eremuko herriak ongi ezagutzen ditugula baieستeko moduan gaude, eta herri guztietako euskara behar bezala ordezkaturik gelditu da gure ikerketan. Muskiztik Imozko gainerako herrietara bada aldea hizkuntza-kontuetan, eta jokabide okerra litzateke Muskitzen daturik ez biltzea eta inkesta zehatzak ez egitea. Baina Etxarritik Aldatza edo Mugirotik Arruitza ez dago inolako hizkuntza-jauzirik, eta, horrenbestez, Aldazkoak eta Arruizkoak Etxarrirako eta Mugirorako ere balio dezake; alegia, Etxarrin eta Mugiron berariazko inkestarik ez egin arren, ez dugu galduko azterketa dialektologikoa egoki egiteko ezinbesteko daturik (cf. Meillet 2001 [1924]: 64).

Besterik da Araitz-Beteluko kasua. 2003. urtean, hango ahozko tradizioa biltzeko dirulaguntza bat jaso genuen hango udalen eskutik, eta zeregin horretan ibili ginen bi urtez, K. Arraztiorekin batera. Lan haren helburua etnografikoa zen, baina hango herrietako euskara sakonki ezagutzeko aukera eman zigun. Guztira, 59 berriemalerekin izandako elkarrizketak grabatu genituen, batez beste bi ordukoak, eta herri guztietan lau berriemaile baino gehiagorekin egon ginen (Apalauza eta Arraztio 2007: 17-18). Saio haiek dialektologiako gure helburuak betetzeko eta zalantzak argitzeko ere baliatu genituen, eta hizkuntzari buruzko galderak ere egin genizkien berriemaileei. Gure ustez, Araitz-Beteluko da izan daitekeen egoerarik onena herri edo ibar bateko hizkera goitik behera ezagutzeko; tamalez, ez dira beti halako egoera optimoak sortzen.

Atal honen bukaeran emango dugu berriemaileen zerrenda; gorago azaldutako arrazoiak direla eta, Imotzen eta Araitz-Betelun berriemaile kopuru handiagoa ageri da, Basaburu Nagusian eta Larraunen baino. Baina betiere garbi utzi nahi dugu berriemaileongandik jaso dugun datu kopurua aski izan dela dialektologia-lanerako behar genituen datuei dagokienez.

5.2.2. Berriemaileen adina

Dialektologiaren tradizioan eta atlasgintzan, oro har, adineko berriemaileak hobetsi izan dira. Jabergen ustez (1928), 40-60 urteko hiztunak dira halako lanetarako egokienak, eta, areago, gazteak desegokitzat jotzen ditu, haien hiztegia artean guztiz osatu gabe dagoelako eta lanari ikuspuntu objektiborik ematen ez diotelako (Montes Giraldo 1970: 94). Esate baterako, 70 urtekoak edo adin horretatik gorakoak ziren Ingalaterrako *LANE* atlaserako hautatutako berriemaileen % 72 (Linn 1983: 227). Espainiako atlasetan ere adineko berriemaileen alde egin dute oro har; adibide gisa, 50-60 urteko gizonak lehenetsi zituzten Andaluziako atlasa osatzeko (Alvar 1991: 225).

Dialektologiaz eta soziolinguistikaz diharduen lan batean, Arnulfo G. Ramírez ikertzaileak iradoki du berriemaileen adinean dagoela bi ikerketa-lerroon arteko aldearen gakoetako bat. Haren arabera, dialektologiako lanetan 60-70 urteko berriemaileak baliatzen dira, hizkuntza-ezaugarririk tradizionalenak eta beste ezein hizkera edo ereduk kutsatu gabekoak erabiltzen dituzten heinean. Baina, edozein erkidegotan, lekto bat baino gehiago baduten hiztunak izaten dira, eta beste faktore sozial batzuk sartzen dira jokoan, hala nola hizkuntzen edo hizkeren arteko kontaktua, hizkuntza-jarrerak, sexua, hezkuntza, lanbidea edota berriemailearen kultura-maila. Bada, faktore horiek guztiak aintzat hartzen ditu soziolinguistikak, baina ez hainbeste dialektologiak (1996: 40-41).

Euskal Herrira etorrita, Zuazok salatu du dialektologia beharrea “arkeologia” egitea gogoko dugula euskal dialektologian, eta horren erakusgarritzat hartu du adinekoen hizkera lanerako oinarritzat hartzea (2006a: 102-103)⁵¹. Areago, euskalkiak sailkatzeko bere azken lanean dio “zaharrek eta gazteek egiten duten horri” eman diola lehentasuna (2008: 28-29).

Gure lanaren helburua ez baita soziolinguistikoa, ez dugu hainbeste arakatu adinaren araberrako hizkuntza-aldakortasunean. Garbi dago adin talde guztietako hiztunak ez direla berdin mintzatzen, ez gure eremuko lau ibarretan, ez beste inon. Gure ikerketarako, batik bat adinekoen (eta helduen) euskarari erreparatu diogu, eta hautu hori zergatik egin dugun azalduko dugu orain.

3.1. atalean ikusi dugunez, Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko herrietan, gero eta jende gutxiago bizi den heinean, gero eta euskaldun gutxiago dago. Euskaldunak

⁵¹ O. Ibarak “arkeolinguistika” terminoa erabili du (1995a: 70), eta “arkeologia linguistikoa” aipatu izan dute beste ikertzaile batzuek: Chambers eta Trudgill 1980: 35, Coseriu 1977 [1954]: 145-146.

direnen artean ere, gero eta jende gutxiagok ezagutzen edota erabiltzen du bere herriko hizkera; esate baterako, euskalduntzen diren erdaldunek euskara batua ikasten dute, nahiz eta, kasu (gutxi) batzuetan, bizi diren herriko euskarara ere hurbiltzen diren. Horrez gain, kanpotik etorritako jende kopurua ere haziz doa urtetik urtera. 2001eko erroldaren arabera, gure eremuko lau ibarretan bizi diren biztanle gehienak beste herriren batetik etorriak dira, batez ere Nafarroako beste herriren batetik: Imotzen, 407 biztanletik 273 dira kanpotik etorriak (% 67); Basaburu Nagusian, 674tik 372 (% 55); Larraunen, 985etik 578 (% 59); Lekunberrin, 873tik 803 (% 92); Araitzen, 587tik 216 (% 37), eta Betelun, 334tik 169 (% 51).

Beraz, bertan jaiotakoak baino gehiago dira Nafarroako beste herriren batetik etorritakoak. Aztertzekoa da, gure ustez, horrek nolako arrastoa utzi duen herriotako euskarari: kanpotik etorri diren euskaldunek nolako euskara erabiltzen dute? Berenari eusten ote diote, edota bizi diren herrikoak hartzen ote dute? Zer eragin izan du horrek herri-euskarari?

Guk ezagutu dugunaren arabera, oro har, kanpotik gure eremuko herriren batera etortzen direnek ez dute herri horretako euskara ikasten, eta beste eredu batzuk erabiltzen dituzte: euskara batua, beren sorterrikoa edota gaztelania. Herriko hizkerak, beraz, gero eta toki gutxiago du eguneroko jardunean. Hori bete-betean gertatzen da Imotzen eta Basaburu Nagusian: han, ohikoagoa da hangoak ez diren hizketa-ereduak entzutea, hango hizkera baino.

Beren herriko hizkera gehien baliatzen dutenak adinekoak eta helduak dira; gehienetan, euskaraz alfabetatu gabeak izaten dira, eta, euskaraz aritzen direnean, etxean ikasi zuten bezala aritzen dira. Baina kasu guztiak ez dira zaku berean sartzekoak: esate baterako, badira, euskaraz alfabetatu ez, baina seme-alaben bitartez (eta beste eragile batzuen bitartez, hala nola euskarazko hedabideak) euskara batua ezagutzen dutenak eta zenbait esparrutan erabiltzen dutenak. Baina badira, halaber, euskara batuarekin ia inoiz topo egiten ez duten hiztunak ere, eta, jakina, inongo esparrutan erabiltzen ez dutenak; batzuek gaitzetsi egiten dute, gainera. Hiztun guztien hizkuntza-jarrerak ez dira bat eta bera, eta interesgarria litzateke aztertzea jarrera horiek nolako eragina duten hitz egiteko moduan, eta zergatik eusten dioten batzuek hobeki herriko hizkerari besteek baino, zergatik nahiago duten batzuek euskara batuan aritu herriko hizkeran baino, zeren arabera erabiltzen duten bata edo bestea, etxean erabiltzen den hizkuntza-eredua eta kalean erabiltzen dena bera ote den, eta abar.

Hiztun guztien artean, gazteena da, zalantzarik gabe, adin-talderik heterogeneoa. Araitz-Betelura joango gara. Hango gazte gehienek Tolosan egiten dituzte DBHtik aurrerako ikasketak, eta beste arlo askotarako ere Tolosa aldera jotzen dute (ikus 2.8.). Gipuzkoako euskararen eragina nabaria da Araitz-Beteluko gazteen euskarari; esate baterako, Araitz-Betelun ohikoak diren *gaa* ‘gara’, *zaa* ‘zara’, *dot* ‘dut’ edota *dozo* ‘duzu’ adizkien ordez *gea*, *zea*, *det* eta *dezu* giputzak erabiltzeko ohitura dute, edota *etorri zan* gisakoak *etorri zen* gisakoen partez, eta abar. Azken batean, Araitz-Beteluko hizkeraren ezaugarriak utzi, eta Gipuzkoako asko hartu dituzte. Baina Araitz-Beteluko gazte guztiak ere ez dira zaku berean sartzekoak. Batetik, herrian denbora gehiago pasatu duten gazteen hizkera “araitzarragoa” da, eta ez dira molde gipuzetara hainbeste makurtzen. Bestetik, gazte gehienek ohitura handia dute eredu giputza elkarren artean baliatzeko, baina etxean (gurasoekin, familiarrean) Araitz-Betelukoak erabiltzen dute. Alegia, kalean, lagunartean, *gea*, *zea*, *det* eta *dezu* erabiltzen dituzte, eta etxean, berriz, *gaa*, *zaa*, *dot* eta *dozo*. Badira, halaber, etxeko giroan ere eredu giputza erabiltzen dutenak.

Beste batzuek, berriz, euskara batuko forma ugari txertatzen dituzte beren hizketan; esate baterako, *dut* eta *duzu* adizkiak erabiltzen dituzte. Eta abar. 2008an, ikerketa-talde bateko kide baten deia jaso genuen, laguntza eske. Gaintzako hiztun gazte baten bila zebiltzan (25 urte ingurukoa), hizkuntza-inkesta bat egiteko. Baldintza jakin batzuk bete behar zituen hiztunak (oroz gain, Gaintzan jaioa eta Gaintzan bizi zena izan behar zuen), eta gure ustez baldintzok ongien betetzen zituen gaintzar hiztun batekin harremanetan jarri ginen. Hark ez zuen eragozpenik jarri, baina honako zalantza hau adierazi zigun: “Baina nik nola hitz egin behar dut?”. Ohikoan eta egunerokoan hitz egiten zuen bezala hitz egin behar zuela esan genion guk, eta hark erantzun zigun gurasoekin modu batera hitz egiten zuela (“Gaintzan bezala”), baina Gipuzkoako izeba etxean zutela azken hilabeteetan, eta hura etorri zenetik “Gipuzkoan bezala” hitz egiten zutela. Herriko lagunekin modu batera hitz egiten zuela, eta kanpoko lagunekin beste batera; askotan nahaste-borraste handia izaten zuela, eta hango eta hemengo formak nahasian erabiltzen zituela. Gure ustez, gazte haren kezkek ezin hobeki islatzen du zein den hango egoera; alegia, ez da erraz definitzea zer den Gaintzako gazteen euskara. Azken batean, beren herriko hizkera, euskara batua, gaztelania eta Gipuzkoako euskara dituzte inguruan araitz-beteluek, eta guztietatik jasotzen dute eragina, betiere garbi utziaz Gipuzkoako ereduak indar handia dutela. Imoztarrek, basaburuarrek eta

larraundarrek, berriz, beren herrikoa, euskara batua eta gaztelania dituzte inguruan; bada desberdintasuna.

Ildo horretatik, Agurtzane Altuna azkaratear gazteak artikulu adierazgarri bat argitaratu zuen *Mailope* herri-aldizkarian, 2008ko apirilean. Hona pasarte bat:

Euskea omen da euskaldun itten gattona ta hizkuntze ez omen da galtzen itten balenbaa. Ni Askaatekoa naiz ta eztau Bilbauko unibersidadea joan beharrik euskea ze difeentea den kontuatzeko. Baa aldea Askaatetik Gaintzea; Gaitzeti Madotze o Madoztik Uitzie. Denok daukuu goe punttue. Askotan eztakit oneako o txarreako den puntu hoi, baño abeatsak sentittu behar giñuke. Halai axolkabeatzuk geala iruitze zait askotan. Prankotan bai, etxean aldeatea ta kalean besteatea. Baakit muu hontaa hizketa ittean zalle'ala entenditzea, baño detalle ttikiet in nahi nion etxeko euskeai.

Gorago aipatu dugu Gaintzako gaztearen kasua, eta egoera bera islatzen da Altunaren hitzotan: euskaraz mintzatzen direnean, “etxean aldeatea ta kalean besteatea”.

Guk bi ondorio garbi atera ditugu egoera horretatik: lehena, soziolinguistikako ikerketa sakona egin beharra dago Araitz-Betelun, gazteek nolako euskara erabiltzen duten argitzeko, zein esparrutan, zeren arabera, eta abar. Bigarrena, badirudi eredu giputzek gero eta indar handiagoa dutela Araitz-Betelun, baina zikloa bukatu gabe dago oraindik. Alegia, ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den; ez dakigu gaur egun forma giputzak erabiltzen dituzten gazte horiek nola hitz egingo duten hamar-hamabost urte barru, eredu giputza guztiz nagusituko ote den, herrikoa esparru gehiagotan erabiliko ote duten edota haien hizkera estandarizatuz joango ote den. Zalantzarik gabe, etorkizunean ere joera bat baino gehiago izango da; gazte horiek bideratuko dituzten harremanetan egongo da gakoa.

Trudgillek dioenez, hizkuntza-ezaugarriak espazio geografiko batean hedatzea prozesu konplexua da, eta, hizkuntza-ezaugarri jakin bat hiztun-erkidego batean txertatzeko —alegia, hizkuntza-ezaugarri berri bat erkidego baten mintzoan ezaugarri iraunkorra izateko—, beharrezkoa da hizkuntza-ezaugarri hori ahalik eta hiztun gehienek hartzea, bai eta erkidegoen artean —ezaugarria hedatzen duen erkidegoaren eta ezaugarria hartzen duen erkidegoaren artean— harreman iraunkorra eta sendoa izatea ere (1986: 42).

Ildo beretik, Hualdek dio Bermeoko gazteek aditz-sistema guztiz berregituratu dutela, eta, ondorioz, *saran* ‘zinen’, *nai*en ‘nintzen’ gisako adizkiak sortu dituzte iraganerako (adinekoek *siñen*, *nitzen*); alabaina, ikertzaileak dioenez, ikusteko dago etorkizunean zer gertatuko den; alegia, sistema hori guztiz finkatuko ote den Bermeoko hizkeran edota jatorrizko formak gailenduko ote diren (2000: 19-25). Hualderen hitzak dira (2000: 25): “Gerta daiteke euskara batuaren (eta literatur bizkaieraren) eraginagatik berrikuntza erradikal edo iraultzaileenak atzera joatea”.

Alegia, gazteek aldaketak egiten dituzte beren mintzoan, baina denbora bat itxoin beharra dago ikusteko aldaketa horiek zertan geldituko diren, guztiz finkatuko ote diren beren herriko hizkeran edo iragankorrek izango ote diren; gure ustez, ez da zilegi amaitu gabe dagoen prozesu horretan sortutako aldaketak hizkera baten ezaugarritzat hartzea, ez behinik behin helburu dialektologikoa duten lanetan.

Jo dezagun orain Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraun ibarretara. Oro har, hango gazteek gaztelaniaz egiteko joera handia dute, salbuespenak salbuespen (Larraungo mendebaleko herriak dira euskaldunenak). Irurtzungo, Lekunberriko eta Larraintzarko eskoletan, D eredu da nagusi, baina euskara gutxi entzuten da han eskola-orduez kanpo (ikus SEI erakundearen neurketa, 3.1. atalean). Eta euskaraz aritzen direnean? Berriz ere hetereogeneotasuna nagusi: batzuek herriko euskara ikasi dute, baina etxean edo herrikoekin soilik erabiltzen dute; beste batzuek ez dute herriko euskararik ikasi, eta eredu estandarra erabiltzen dute euskarazko jardunean; batzuk erosoago ibiltzen dira herriko euskaraz mintzaturik, eta hura erabiltzen saiatzen dira ahalik eta esparru gehienetan; batzuek guraso euskaldunak dituzte, baina beste batzuek ez, edota bietako bat euskalduna eta bestea erdalduna; gurasoak herrikoak izan daitezke, euskaldunak edo erdaldunak, edota bietako bat beste herriren batekoa izan daiteke, eta abar⁵². Imoztar eta basaburuar gazteekin harremanetan egon gara, eta, oro har, zera ikusi dugu: etxeko edo herriko hizkerak gero eta leku txikiagoa du haien hizketan. Azken batean, eragile askok jokatzen dute pertsona baten hizkuntza-ohituretan, eta horren inguruko azterketa baten faltan gaude.

Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraun ibarrez ari garela, esan dugu denetatik badela, baina joera nagusia da euskaraz ari direnean euskara batua gero eta gehiago erabiltzea. Batzuetan,

⁵² Amak eragin handia izan ohi du seme-alaben hizkeran (Veny 1978: 33): “La mare sobretot exerceix una forta influència sobre el parlar dels fills; si no és autòctona, algunes de les seves habituds lingüístiques seran transmises als fills i encara que més tard trobin un agent anivellador en els contactes socials, escolars, etc., aquelles habituds poden deixar traces més o menys fondes”.

Hualdek dioenaren ildotik (2000: 14-16), halako hibridazio bat sumatzen da gazte horien hizkeran: euskara batua eta euskalkia nahasian erabiltzen dituzte, eta ez denek modu berean. Guk ez dugu horren inguruko azterketa sakonik egin, baina zertxobait arakatu nahi izan dugu, eta hemen aurkeztuko ditugu emaitza eta ondorio batzuk. Herriko euskararen erabilera neurtzeko saiotoxo bat egin dugu Imozko eta Basaburu Nagusiko gazteekin, gure oharmenaren arabera ateratako ondorioak inkesta bidez egiaztatzeko edo ezeztatzeko. Guztira hamar lagunek parte hartu dute; 18-30 urte bitartekoak dira, euskaldunak (euskaldun zaharrak zein euskara eskolan ikasi dutenak), eta 2008. urteko datuak dira hona dakartzagunak. Inkesta guztiz anonimoa izan da, eta bost atal nagusi ditu:

- Norberaren datuak: adina, jaioterria, non bizi den, gurasoak nongoak dituen eta euskaldunak ote diren, ikasketak, lanbidea eta aisialdiari buruzko zenbait galdera.
- Hizkuntza-ohiturak: zein hizkuntza-eredu erabiltzen duten gurasoekin, anai-arrebekin, familiaratean, lagunartean, herrian, herritik kanpoko lagunekin, jende ezezagunarekin... Hautazko hizkuntza-ereduak: euskara estandarra, euskara dialektala eta gaztelania. Ereduon gaineko iritzia.
- Beren herriko euskara erabiliz, gaztelaniazko esaldi batzuk itzultzea.
- Hitz-zerrenda luze bat eman, eta beren herrikoa zer den eta zer ez identifikatzea. Oharrak egiteko aukera eman diegu: hitzak nongoak diren, haiek erabiltzen dituzten edo ez, nola erabiltzen dituzten, eta abar.
- Gazteen euskara gaitzat hartuz, nahi duten guztia esateko aukera eman diegu.

Labur-labur azalduko dugu inkesta horietan zer erdietsi dugun. Lehenik, gurasoak erdaldunak dituzten latasar eta itsasoar gazte bana ditugu: esparru gehienetako harremanak gaztelaniaz izaten dituzte, eta, euskaraz aritzen direnean, eredu batua erabiltzen dute. Itzulpenetan, batuko formak erabili dituzte ia osotara; salbuespen dira itsasoarrak emandako *pendengi* eta *bulkatu*⁵³. Zerrendako hitz batzuk ezagunak egiten zaizkie, baina ez dute ongi bereizten zer den herrikoa edo ingurukoa, eta zer ez; esate baterako, latasarrak adierazi du *ebatsi* eta *goatze* bere herriko hitzak direla, baina *irazor*, *garo* eta *iratze* hirurak ere Latasakoak direla dio, eta baita *ondo* edota *babarrun* ere. Bestelakoa da arrarastar gazte baten egoera. Gurasoak euskaldunak ditu, arrarastarrak biak, baina etxean eta familiaratean gaztelaniaz aritzen dira. Hala ere, herriko euskara beti entzun izan du inguruan; esate baterako, haren gurasoak euskaraz aritzen dira elkarrekin, nahiz seme-alabekin

⁵³ Adibideak gazteek eman bezala idatziko ditugu kasu guztietan.

gaztelaniaz egin. Gazte horrek gaztelaniaz izaten ditu harreman gehienak, bai familian bai lagunartean, eta badu euskaraz mintzatzeko zailtasuna (akats gramatikal ugari egiten ditu). Nolanahi ere, aski zorrotza du belarria: itzulpenetan, Arrarasko egiturak erabili ditu, nahiz akats gramatikalak egiten dituen (adibidez, *ne eman diot liburu* ‘nik eman diot liburua’, *kendo ortek* ‘kendu hortik’), eta aski ongi bereizten du zer den Arraraskoa eta zer ez (adibidez, Arraratsen *banarra* esaten dutela dio, ez *babarrun*).

Inkestan parte hartu duten gainerako gazteek guraso euskaldunak dituzte. Batetik, gurasoak basaburuarrak dituen gartzarondar gazte bat eta gurasoak basaburuar-imoztarrak dituen oskoztar gazte bat ditugu. Gartzarondarra euskaraz zein gaztelaniaz aritzen da guraso eta anai-arrebekin, eta bi hizkuntzak tartekatuta erabiltzen ditu gainerako harremanetan ere. Itzulpenetan, Gartzarongo ezaugarri batzuk erabili ditu (*liburuk ekarri ttut* ‘liburuak ekarri ditut’, *goain ezberdiñe da* ‘orain ezberdina da’, *eraztun ok denak* ‘eraztun hauek denak’, *gero ta jende gehio tortzen da* ‘gero eta jende gehiago etortzen da’, *arraultzek eosi dittut* ‘arrautzak erosi ditut’, eta abar), baina baita eskolan ikasitako ugari ere (*hortik Miren dator be bizikletakin*, eta ez *eldu da; oparitu dizkio*, eta ez *ttio...*). Herriko edo eskualdeko hitzak ezagutzen ditu; baina, esate baterako, Gartzaronen ez dutela *erran* erabiltzen esan digu, eta hango heldu eta adinekoek hitzetik hortzera erabiltzen dute aldaera hori.

Oskoztarrari dagokionez, gurasoekin euskaraz zein gaztelaniaz aritzen da, eta anai-arrebekin gaztelaniaz. Gainerako harremanetan euskaraz egiten saiatzen dela adierazi du, eta etxeko aldaera eta estandarra nahasian erabiltzen ditu. Itzulpenetan, hitz-zerrendan eta bertatik bertara ikusi dugunaren arabera, Oskozko euskara oso ongi ezagutzen du, eta erabiltzen du, nahiz eta lagunartean euskara batuaren formak ere tartekatzen dituen. Itzulpenetan, Oskozko ezaugarriak erabili ditu gehien-gehienean: *zun arrebai eman ttot libruk* ‘zuen arrebari eman dizkiot liburuak’, *nei etzaie bate gustatzen janarie ittea* ‘niri ez zait batere gustatzen janaria egitea’, *librutegitik libruk karri ttut ta herriko umeai eman ttotet* ‘librutegitik liburuak ekarri ditut eta herriko umeei eman dizkiet’, *jakiñen du* ‘jakinen du’, *eunero oñez joaten naiz itxera* ‘egunero oinez joaten naiz etxera’, *ken zatte hortik, traba itten duzu ta* ‘ken zaitetz hortik, traba egiten duzu eta’, *urrezkuak de anillo guztiok* ‘urrezkoak dira anillo guzti hauek’, *zaharrendako obe da* ‘zaharrendako hobe da’, *nik eztakit ortaz jaerez* ‘nik ez dakit horretaz ja ere ez’, *pendientiak oparitu tto be amak* ‘pendienteak oparitu dizkio

bere amak’, *gue herrie ezagutzea geo ta jende geiau tortzen da* ‘gure herria ezagutzera gero eta jende gehiago etortzen da’...

Bestetik, hiru etxalekuarrek parte hartu dute gure inkestan. Hirurek dituzte guraso euskaldunak (anai-arrebak dira haietako bi), eta euskaraz aritzen dira familiarean. Gainerako esparruetan ere euskaraz aritzen dira gehien-gehienean; hirurek dute kontzientzia berezia herriko euskararen gainean, eta herriko egiturak erabiltzen saiatzen direla diote, baina lagunartean nahasi egiten dituzte estandarra eta herrikoa, eta herrian “herrikoagoa” erabiltzen dute. Hala ere, herrian eta familiarean daudenean ere batuaren eragin handia sumatzen zaie, bertatik bertara egiaztatu ahal izan dugunez. Haietako batek etxalekuarrak ditu gurasoak. Itzulpenetan, aldaera batua erabili du batik bat, baina hitz-zerrendan aski ongi bereizi du zer den Etxalekukoa eta zer ez; alabaina, guztiz arrotzat jo ditu Etxalekun oso ohikoak diren *kider* edota *onbata* hitzak, eta Etxalekukotzat jo ditu berez hangoak ez diren *itxoin*, *babarrun* edota *eskumin*. Beste bi etxalekuar gazteon ama larraundarra da; haietako batek euskara batuaren eragin handia du, eta besteak ez hainbeste. Gainera, euskara batuaren eragin txikiagoa duenak Larraundik hartuak diruditen ezaugarri batzuk ere erabiltzen ditu (*eosi ot* ‘erosi dut’, *bazkari* ‘bazkaria’, *traba eitteok* ‘traba egiten duk’...); hiztun horrek Etxalekuko eta Larraungo euskara, eta eredu estandarra darabiltza nahasian. Aipagarria da bi anai-arrebon artean sumatzen den aldea.

Azkenik, Goldarazko eta Berueteko kasu bana ekarriko dugu hona. Goldaraztar gazteak guraso euskaldunak ditu, goldaraztarrak biak. Herriko euskara oso ongi menperatzen du, eta horixe erabiltzen du gurasoekin, anai-arrebekin eta familia-kide batzuekin, baita herri-harremanetan ere; gainerako harremanetan, berriz, estandarrekin nahasian erabiltzen du etxeko euskara, eta baita familiako kide batzuekin ere. Goldarazko ezaugarri nagusiei eusten diela esan daiteke: -s instrumentala (nahiz badakien *eskuz* idatzi “behar” dela, eta ez *eskus*), *dozo* ‘duzu’ erakoak, *rezipienti* gzt. ‘recipiente’, eta abar. Goldarazko hizkuntza-aldakortasunari buruz egin genuen lan batean (Apalauza 2005), zera ondorioztatu genuen: bada aldea adinekoen, helduen eta gazteen hizkeran, batez ere eredu estandarretik hurbilago baitaude gazteak⁵⁴.

⁵⁴ Askok idatzi da aldaera estandarrek edo arauak hiztunengan duen eraginaz. Hiztun eta are hiztun-erkidego guztietan ez du modu berean eragiten; hiztunaren eta erkidegoaren ezaugarriek baldintzatzen dute hizkera bat gehiago edo gutxiago estandarizatzea. Hona Petyten hitzak (1980: 34): “When one dialect has become the standard variety of an area, the effects of this on the speakers may be of three broad kinds. Some will, unconsciously or deliberately, abandon the variety of their region in favour of the standard: such people are more likely to be those enjoying or desirous of obtaining a relatively high social status. A few others will be unaffected, and will continue to use the regional variety: these are most likely to be people of a relatively low status and limited contacts, the agricultural worker being the commonest example. In fact the number in this category is often smaller than might appear at first,

Berueteko gazteak basaburuarrak ditu gurasoak, euskaldunak biak ere. Euskaraz aritzen da gurasoekin, anai-arrebekin eta gainerako familia-kide guztiekin, eta baita hurbileko lagun gehienekin ere (norberaren ohituraren arabera, euskaraz ala gaztelaniaz hitz egin ohi dute lagunartean). Herriko euskara ezagutzen eta erabiltzen du, baina familiarartean erabiltzen du soilik. Alegia, Berueteko adin bereko lagunekin, eredu batua baliatzen du, baita Beruetekoak ez diren lagunekin ere. Merezi du beruetar gazte horrek idatzitako hitzak hona ekartzea: "... elkarrekin euskaraz hitz egiten dugunean, normalean gazte jendearen artean euskara batua erabiltzen da. Horren arrazoa zein den ez dakit, baina niregan ere horrelakorik gertatzen denez iruditzen zait aspalditik datorkigun kontua dela. Izan ere, gu txikitan eskolara joaten ginenean, gure artean euskara batuan komunikatzen ginen eta norberak bere herriko euskara izan arren oraindik ere ez gara gai elkarrekin etxeko euskaraz aritzeko. Euskara batuan aritzeko joera horrek gure etxeko euskaraz eragiten du. Ez da gure guraso eta aiton-amonek egiten dutenaren berdina".

Horra gaur egungo errealitatearen beste gako bat: zenbait herritan, gazteek herriko euskara erabiltzen dute familia-esparruan, baina euskara batua aukeratzen dute haien artean komunikatzeko. Beruetar gazte horrek herriko euskara menperatzen duela gauza ageria da itzulpenetan: *libruk eman ttiot zo arrebai* 'liburuak eman dizkiot zure arrebari', *tiendan arrautzek eose ttot* 'dendan arrautzak erosi ditut', *arropa eoseot lanea joateko* 'arropa erosi dut lanera joateko', *etzaie bate gustatzen sokalden aetzek* 'ez zait batere gustatzen sukaldean aritzea(k)', *bibliotekatek libruk ekarre ttot ta herreko umere eman ttiotet* 'bibliotekatik liburuak ekarri ditut eta herriko umeei eman dizkiet', *hango kotxe ube neree da* 'hango kotxe hura nirea da', *bizkarreko miñe baozo etzanda hooke eonen za* 'bizkarreko mina baduzu, etzanda hobeki egonen zara', *bihar examiñen nota ekostea joan ga* 'bihar esaminaren nota ikustera joanen gara', *nek eztaket dius, Mirenei galdetzaiozo, beak jakiñen do ta* 'nik ez dakit deus, Mireni galde iezaiozu, berak jakinen du eta', *bere, Miren bizikletan heldoa* 'begira, Miren bizikletan heldu da', *be amak belarritako atzuk errealato ttio* 'bere amak belarritako batzuk erregalatu dizkio'. Herriko hitzak eta aldaerak ere ederki identifikatu ditu: *onge* 'ongi', *hooke* 'hobeki', *ebatsi*, *eltxaur*, *goatze*, *matsutse*, *eke*, *irri in...*

for many people who do continue to use a regional variety also develop another form, showing a number of modifications in the direction of the standard, which they use for communication outside their local circles. Finally, the majority will continue to use a variety that is identifiable as typical of their region, but which has undergone various changes which make it more similar to the standard".

Laburbilduz, Imozko eta Basaburu Nagusiko gazteen artean heterogeneotasuna eta aldakortasuna dira nagusi. Denetatik dagoela esan dugu: euskaraz ongi ez dakitenak, euskaraz ederki egiten dutenak, herrikoa menperatzen dutenak, gehien-gehienean estandarra baliatzen dutenak, etxean ere gaztelaniaz aritzen direnak, eta abar. Oro har, euskarak gehien iraun duen herrietan dago gazteen euskara osasuntsuen, eta oraindik ere beren herriko euskararen ezaugarriak gordetzen dituzte gazte batzuek; alabaina, etxetik edo herritik kanpo hizkera hibridoa erabiltzea da joera nagusia —eredu estandarra eta eredu dialektala nahasian erabiltzea, alegia—.

Etena nabaria da, beraz. Ildo beretik doaz S. Alemanen hitz hauek ere (2008: 20):

Hamarkada horrez geroztik sortutakoek Etxalekun erabiltzen diren hainbat hitz ez dituzte inoiz erabiltzen, eta beste asko ez erabiltzeaz gain, ez dituzte ezagutzen. Eta guk, helduagook ere, gero eta gutxiago erabiltzen ditugu, gazteek eskolan ikasitakoa eta telebistan entzuten duguna, nahitaez, gurea baino hobea delakoan. Eta berriki arte esaten genituen hitzak inongo hiztegitan baztertuak utzi ditugu.

Alemanek batik bat euskara batuari (eskolaren eta komunikabideen bidez hedatua) egotzi dio herriko hizkerak itzaliz joatea (2008: 20-21):

... zuzentasunaren izenean eta euskara batuaren aitzakian, batuan horrela izan gabe gainera askotan, nonahi egiten dira aldaketa hauek, eta euskararen indarra galtzen ari den herrietan errazago, bertako hitzek laster uzten baitiete tokia eskola edo komunikabideetan aditzen dituzten beste hauei.

Ildo beretik, P. Salaberrik adierazi du Iruñeko unibertsitateko ikasle nafarrek *ondo* eta *hobeto* aditzondoak erabiltzen dituztela, euskal hedabideetan nahiz hezkuntzan dabiltzan euskaldunen eraginez (2008: 37):

Nik ere anitzetan entzuna dut Nafarroako herrietan, batez ere adineko jendeari, Tolosako euskara dela euskararik ederrena, baina gaur egun, Iruñean, holako konturik ez dut aditzen gehiago. Bai ordea, eta Tolosan hitz horiek xeheki nola diren ez dakit, usu entzuten ditugu gure ikasleen ahotik *ondo* eta *hobeto* bezalakoak, hauek Nafarroan, muga-mugako herriren batean ez bada, ibiltzen ez diren arren. Hemen, jakina, *de facto*-ko euskara batuaren eragina dago, irrati-telebistena hain zuzen, eta irakaskuntzan lanean ari diren Nafarroaz kanpoko zenbait euskaldunek dituzten ohiturena ere bai.

Eredu estandarra ere ez dute hiztun guztiek modu berean baliatzen: batzuek *emanen* erabiltzen dute, eta beste batzuek *emango*; batzuek *yan* eta beste batzuek *jan*; batzuek *joaten ahal naiz* eta beste batzuek *joan naiteke* (eta are *joan ahal naiz* berria ere), eta abar. Baten batek esango du euskara batuaren oinarrian Gipuzkoako hizkerak daudela; halaxe osatuz joan da euskara batua, baina ezin ahaztu dugu *emanen* eta *emango* biak direla euskara batua, baita *joaten ahal naiz* eta *joan naiteke* ere, eta abar. Alegia, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian erabiltzen diren formek ere badute beren lekua euskara batuan; kontua da euskarazko hedabideetan maizago entzun ohi dugula, oro har eta salbuespenak salbuespen, *emango* edota *joan naiteke*. Hitztunek aukera horiek guztiak dituzte eskura; besterik da zein hautatzen duten batzuek eta besteek, eta zeren arabera hautatzen duten. Areago, Iruñeko gazteen euskaran maiz entzun izan ditugu “Epa! Zelan?” gisakoak; alegia, mendebaleko euskararen ezaugarri hori lagunarteko mintzoan erabili ohi dute gazte batzuek, baina hortik ez dugu ondorioztatuko Iruñeko gaur egungo euskarak mendebalekoaren eragina jasotzen duenik. Besterik gabe, gaurko gazteek ezagunak dituzte beste hizkera batzuetako ezaugarriak ere; telebistatik, irratitik, idatzizko hedabideetatik edota elkarrekiko harremanetatik orotariko hizkuntza-egiturak iristen zaizkie, eta denak nahasian erabiltzen dituzte.

Adibide gehiago ere eman daitezke horren inguruan. Esate baterako, 90eko hamarkadako euskal talde baten kanta ospetsu batean, “... ta berriz izango gara / zoriontsu / edozein herriko jaixetan” esaldia ageri zen, eta, ondorioz, Iruñeko gazte jende askok “jaixetan” hori bereganatu zuen, eta beren ohiko mintzaeran erabiltzen hasi ziren. Hor ez dago mendebala-Iruñea interakziorik; besterik gabe, elkarren artean halako konplizitatea lortzeko (azken batean, gazteen taldea eta izaera indartzeko) keinua besterik ez da lagunarteko mintzoan “jaixetan” esatea. Halaber, izatez mendebaleko euskararen ezaugarri den “-t(z)en egon” egitura ere maiz entzun daiteke Iruñeko gazteen ahotan; alegia, *inglesa ikasten nago* (eta are *nago inglesa ikasten* edo *nago ikasten inglesa* egiturak ere), eta ez *inglesa ikasten ari naiz*. Halakoak ez dira Iruñera Bizkaitik sartu; segur aski, gaztelaniatiko kalkoaren ondoriozkoa izango da.

Egoera konplexua da, beraz. Dialektologiaren eremura etorrira, nahas-mahas handia sortuko litzateke Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko gazteen euskara dialektologia-azterketan oinarritzat hartuko bagenu, arlo hori behar bezala definitu eta deskribatu gabe baitago oraindik, eta, ikusi dugunez, gazteen taldea oso heterogeneoa baita. Goldaraztar gazteek instrumentaleko -s morfema apikaria erabiltzen dute, baina oskoztarrek eta etxalekuarrek

nekez erabiltzen dute morfema hori ohiko jardunean, -z lepokaria bereganatu baitute ia osotara. Nola jokatu beharko genuke ezaugarri horri dagokionez? Hiztun gehien-gehienek apikaria erabiltzen dute Imotzen, baina gazte batzuek lepokaria erabiltzen ere ikasi dute, eskolaren bitartez batez ere. Lepokaria hartu behar al dugu Imozkotzat? Gure herrietako euskara gero eta estandarragoa da gazteen ahotan, baina guk garbi ikusten dugu herriko euskara ez dela instrumentaleko lepokaria erabiltzen duenarena, baizik eta apikaria erabiltzen duenarena. Apika, berrogeita hamar urteren buruan, imoztar guzti-guztiek lepokaria erabiliko dute, eta ez da egongo apikaria erabiltzen duenik; orduan esango dugu ezaugarri hori desagertua dela herri-hizkeratik, eta eredu estandarrak hartu duela haren lekua.

Alegia, herri edo eremu bateko hiztun gehienek ezaugarri bati eusten badiote, ezaugarri hori ez dugu galdutzat joko zenbait gaztek ezaugarri hori aldatu dutelako. Gure ustez, ezaugarri bat galdutzat edo aldatutzat jotzeko —alegia, prozesua bukatutzat emateko—, gutxienez erkidegoko hiztun gehienek galdu behar dute, eta faktore asko hartu behar dira kontuan. Esate baterako, adineko eta heldu zenbaitek baizik ez dituzte gaur egun baliatzen *-tan > -tten* bilakabidearen ondorioz sortutako formak, hala nola *ttikitten*, *gutxitten* edota *izarditten* (ikus 8.1.3.f. eta 8.2.1.). Halakoen erabilera ez da sistematikoa; hiztun batzuek erabiltzen dituzte, baina asimilatu gabekoekin eta palatalizatu gabekoekin txandaka. Gazteek, jakina, ez dute halako formarik erabiltzen. Kasu horretan, garbi aski ikusten dugu ezaugarria galtze bidean dela, oso hiztun gutxik —gero eta gutxiagok, gainera— eta sistematikotasunik gabe erabiltzen baitute. Baina halako gertaerek ez dute parekotasunik gorago azaldu ditugunekin —alegia, estandarizazioaren ondorioz eta, azken batean, herri-hizkerak itzaltzearen ondorioz gazteek egiten dituzten aldaketekin—; beste joko-eremu batean ari gara, zalantzarik gabe.

Horregatik, Caminok dioen bezala, “... iragan berriari nahiz egungo gazteen mintzoari begiratzen diena, zilegi dira; zertan ez dute, bada, zilegi izan behar? Halaz ere, euskalkiak sailkatzeko oinarri nagusi bat gazteen erabilera baldin bada, argudioa bazter guztietan era berean baliatu beharko litzateke: euskara batuaren idurixea da eskualde edo hiri ugaritako egungo gazteen mintzoa (...)” (2009a: 354).

Azken urteotan, adinaren araberako hizkuntza-aldakortasunari buruzko zenbait ikerketaren berri iristen ari zaigu; aipagarria da EUDIA taldea egiten ari den lana. Orain artean,

Aurrekoetxearen, Ormaetxearen eta Santaziliaren lanak ezagutzeko aukera izan dugu, eta badira ondorio interesgarriak. Aurrekoetxeak Arratiako aldakortasunari erreparatu dio batik bat (2003, 2004a, 2006 eta 2008), eta Ormaetxeak Otxandiokoari (2008). Aurrekoetxearen ondorio nagusia da Arratiako euskara abiada handian ari dela estandarizatzen, gazteen mintzoaren ezaugarriek erakusten dutenez. Otxandion ere nabaria da aldaera estandarren eragina, baina ez Arratian bezainbeste (Ormaetxea 2008: 250). Bi ikertzaileek eman dituzte gazteen eta helduen hizkeren ezaugarriak, eta biek ondorioztatu dute badela aldea belaunaldi batetik bestera. Esate baterako, Dimako (Arratia) gazteen hizkeran *alaba* ageri da, eta helduenean, aldiz, *alabea* (Aurrekoetxea 2008: 20); *sauen* ‘zuen’ adizkia gazteenean, eta *eban* helduenean (2008: 21). Mendebaleko ezaugarri garbiak dira Dimako helduen mintzoan ageri diren *-a + -a > -ea (& -ia)* eta 3. pertsonaren \emptyset - morfema iraganean (Zuazo 2008: 70-71, 78-79), baina badirudi gazteek ez dituztela erabiltzen, ez gazte guztiek behinik behin. Hori hala izanik ere, inor gutxik eztabaidatuko luke Arratian mendebaleko euskara egiten dutenik. Otxandion ere badugu adibide argigarri bat: helduek *onek mutikuok* eta *oni mutikuoni* gisakoak ematen dituzte, eta gazteek, berriz, *mutiyonek* eta *mutiyonei* gisakoak (Ormaetxea 2008: 254). Mendebaleko euskararen ezaugarria da erakusleak izenaren ezkerrean kokatzea (Zuazo 2008: 81); baina, Otxandioko gazteek —edo gazte batzuek— erakuslea izenaren eskuinera eramaten ikasi badute ere, ez dugu esango Otxandiokoa mendebaleko hizkera ez denik.

Beste eremu batera jauzi eginez, zubereraren herskariak aztertu ditu Mounolek (2004), eta besteak beste ondorioztatu du herskari hasperendunak ez direla emankorrek gaur egungo zubereran, ez baitira hitz berrietara hedatu. Baina horrek ez du esan nahi herskari hasperendunak zubereraren ezaugarri ez direnik, eta hango ezaugarri bereizgarritzat jotzen ditugu zalantzarik gabe (Zuazo 2008: 48).

Ingalaterran, tankera horretako azterketa ugari egiten dituzte, baina garbi utzirik dialektologia sozialean jarduten dutela (ikus 4.5.). Hain zuzen, aldaera estandarren eragina da dialektologia sozialaren aztergaietako bat, eta eremu horretan egindako lan bat ekarri nahi dugu hona adibidetzat: Hernández Campoy-ren “Complementary approaches to the diffusion of standard features in a local community” (2003). Lan horri esker ikasi dugunez, Murtziako herri-hizkeretan gero eta eragin handiagoa eta sarbide errazagoa du gaztelania estandarrek, Murtzia hirian eta handik hurbil diren

herriguneetan batez ere. Estandarizazioa gradualki gertatzen ari da; ezaugarri batzuk aiseago sartzen ari dira beste batzuk baino, eta hiztunen adinak zerikusi handia du ezaugarri estandarren erabileran.

Gaur egungo ikerketetan, maiz irakurri ohi dugu mintzo dialektalak gainbeheran direla eta aldaera estandarra hartzen ari dela haien lekua. Honela mintzo zaizkigu, esate baterako, Schouten eta Van Reenen hizkuntzalariak, Alemaniako Nijmegen hiriko egoeraz ari direla (1989: 5):

Ever since the beginning of this century, a great many dialect features, both words and structural properties, have been disappearing in the every day language of people living in this town and, in general, the local dialect is marked by a strong social stigma. (...) This kind of development corresponds to the processes of decay going on in many dialects in Western Europe, in particular city dialects.

Errusian ere, adineko hiztunek gordetzen dute aldaera dialektala, eta gainerako belaunaldiek beren hizkera estandarizatzerara egin dute (Krause, Lublinskaja eta Sappok 2006: 32):

Russian dialects function in rural regions all over Russia, but the individuals that are in full possession of a dialect in the proper, objective sense are rare, their quantity is diminishing rapidly. Kasatkin (1999) observes a process of rapid degrading; the dialect spoken by the older generation loses its dialectal features in favor of standard Russian in the following generations.

Kontzeptu desberdinak dira, azken batean, hizkera batek ondoko beste batean izan dezakeen eragina eta aldaera estandarrak hizkera batean izan dezakeena. Flandriako Ghent hiri nagusiaren eta Mariakerke periferiako herriaren adibidea dakarkigu Taeldeman-ek (1989: 162):

From this we can conclude that the Mariakerke dialect is quite reluctantly moving in the direction of the Ghent dialect, but *only for those aspects where the Ghent dialect resembles more the standard language*. If the latter is not the case, the Ghent dialect can make no headway. Consequently we are inclined to suggest that the changes in the Mariakerke dialect are not primarily due to the influence of the Ghent dialect but to the standard language (which gains more and more influence throughout Flanders). At best, the Ghent dialect may to a certain extent be attributed an intermediating role, but for the average native of Mariakerke it is by no means a 'target language', however close the social contact between Mariakerke and Ghent may be. There is certainly no question of a dialect mixture (yet): a native of Mariakerke definitely does not want to speak like a Ghent townsman (yet)!

Halako ikerketak ontzat ematen ditugu, jakina, baina guk egin nahi dugun dialektologiatik urrutixko daude. Horregatik, guk nahiago izan dugu *dot*, *eltxaur*, *gaa* edota *goatze* erabiltzen dituenaren hizketa aztertu, eta ez *det*, *gea* edo *gara*, *oea* edo *goatze* guztiok nahasian erabiltzen dituenarena. Gure eremuan aldaera dialektalak bizi duen egoeraren isla dakusagu Caminoren aipu honetan (2009a: 73):

Hizkuntzaren estandarizazioa denboraren aldetik horren urruna ez den herrialdeetan, zaharren belaunaldiak izaten dira mintzo dialektala “garbien” gordetzen dutenak, hiztun zaharrenak dira mintzoa era estandar berriaren eraginetik gordeago dutenak: ardatz geografikoaren arabera hizkuntzaren erabilera tradizionalari gehien eusten diotenak dira. Beren ondoko belaunaldietan estandarrek eragin berrikuntzak eta aldaketak geroago eta nabarmenago dira eta dialektoaren izaera, nortasuna, doinua eta kolorea, emeki-emeki batzuetan eta lasterrago beste batzuetan, galduz doaz: hiru belaunaldi aski dira hizkuntza-sistema batetik guztiz bestelakoa den beste batera jauzi gaitza egiteko. Badira, dena den, hainbat eskualde beren mintzoaren izaera dialektalari hobeki eusten diotenak, jakina: non nola, noiz nola.

Egoera bertsua dugu Euskal Herriko hainbat lekutan. Nafarroan, ezagun dugu, besteak beste, Ultzamako kasua: Ibarrek dioenez, “«bertako hizkera» galtzeko zorian aurkitzen da, hiztun zaharrak izanik gordetzen duten bakarrak” (1995a: 681). Beolaren hitzetan, Euskal Herriko hainbat eskualdetan (Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, bereziki), adineko hiztunek baizik ez dute gordetzen herri-hizkera, eta gazteagoek, euskaraz alfabetatuak diren heinean, eredu batuagoak baliatzen dituzte (1995: 420, 423):

Nafarroan beste horrenbeste topatzen dugu, alegia, adindu taldeek osatuko dute euskaldungoaren talde nagusia, tarteko adin-taldeek adierazten duten beherakadaren ondoren, gazteek eta hurrek berriro jasotzen dutelarik hizkuntza. Adinduek osaturiko euskaldungoa alfabetatu gabea den bitartean, euskara jasotzen ari diren adin-taldeetan hizkuntza alfabetatuz bereganatzen dutela ikus dezakegu.

Alfabetatze eta euskalduntzea, maizegi bertako euskara baztertuz egingo da. Belaunaldi berriek argi adierazten digute halakorik gertatzen dela, euskal hiztun alfabetatuak izan arren, euskara "batua" edo euskalkiaren eta euskara batuaren arteko nahasketa gisakoa izango dutelako hizkeratzat.

(...)

Ondorengo urteetan halako dinamika jarraituz gero, ez al da hainbat hizkera galbide zorian? (...) Diferentzia nabaria da azken urteetan adin-talde diferenteek duten hizkeraren artean eta ematen ari dena Euskal Herriko zenbait eskualdetan (Zuberoa kasuko), adinduek bertako euskarari atxikitzen dioten bitartean, gazte eta hurrek askotan besterik ere jaso bait dute eta jasotzen ari direlako.

Gazteen euskarak euskararen etorkizunaren argibidea emango digu ez bairik gabe; haien eskuetan dago hizkuntzaren eta hizkeraren etorkizuna. Gizakiak etengabe aldatzen du hitz egiteko modua; berezkoa du hori. Baina ezin da gauza bera izan Erbitiko edota Mendaroko gazteen euskara aztertzea, Eltzaburukoa edo Bermeokoa, Mezkirizkoa edo Aramaiokoa, Mugerrekkoa edo Azpeitikoa, eta abar. Gazteak gazte dira toki guztietan, mugikortasun handia dute gaur egun, baina Azpeitiko gaztea 10.000-15.000 lagunek osatzen duten hiztun-erkidego euskaldun bateko kide da, eta erbitiarrak, berriz, hogeitaz lagunengatik inguruko “babesa” besterik ez du (cf. Camino 2009a: 74). Gure eremuan berean ere, Imoztik Araitz-Betelura asko aldatzen da euskararen egoera, eta ezin dira inolaz ere parekatu bi ibarrotako gazteen mintzoak; ez daude maila berean. Ezin erabili ditugu, beraz, parametro berak gazte guztion euskara aztertzeko, egoera oso aldakorra delako toki batetik bestera.

Adinaren araberrako aldakortasuna neurtzea zilegi da, baina dialektuez ari al gara halako alderaketak egiten ditugunean? Beste maila bateko azterketa dakusagu guk hor. Gazteen euskara arretaz aztertu beharreko eremua da, baina, dialektologiarako, batez ere adineko berriemaileak aintzatetsiko ditugu guk.

Venyk ere gazteen hizkera zeregin dialektologikoetarako baliatzeak dakartzan arriskuez ohartarazi du (1978: 31-32): alde batetik, adin desberdineko hiztunen datuak erabiliz gero, badago belaunaldien arteko desberdintasunak desberdintasun geografikotzat hartzeko arriskua, eta, bestetik, gazteen hizkera artean garatu gabea izan ohi da, eta kanpo-eragin asko izan ohi ditu (beraren herrikoak ez diren gurasoen hizkeraren eragina, eskolaren eragina, eta abar).

Ildo horretatik, mintzo estandarretik hurbil dagoen hizkera herri jakin bateko hizkeratzat hartzeak ekar ditzakeen arriskuez ohartarazi du Caminok (2009a: 297):

Arazoa korapilatsua da, izan ere, ez dago denboraren kateetarik aske dagoen geografiarik ezta hizkuntzarik ere: atlaseko galdeketa administrazioan edo hezkuntzan baliatzen den mintzo estandarra bazter geografiko gehienetan nagusituz doan garaian egiten baldin bada, herri edo hiri batean zaharrek ordu arte erabili duten aldaera ez, baizik eta aldaera estandar hedatu berria biltzen bada, helburua hizkuntzaren ardatz geografiko horizontala aurkeztea duen atlasak, alderdi diastratiko bertikalaren ondorio etorri berriak erakutsiko ditu gehiago ordu arteko geolinguistikoak baino.

Ikerketaren helburua zein den da kontua: guk arau estandarren eraginetik urrutien egon diren (eta dauden) berriemaileen euskara aztertu nahi dugu; adineko eta helduena, alegia.

5.2.3. Berriemaileen generoa

Dialektologian, gizonak hobetsi izan dituzte ikertzaile batzuek, baina, gaur egungo lanetan, gizon zein emakumeen datuak baliatu ohi dituzte ikertzaile gehienek. Emakumeak hizkuntza-kontuetan gordetzaileagoak dira zenbait kasutan; beste batzuetan, aldiz, berritzaileago ageri dira. Gaur egun, baina, ikuspuntu hori gainditua da, eta ez zaio pertsonaren generoari egozten gordetzaile edo berritzaile izatea (Alvar 1983: 74):

Por eso decir que el habla femenina es conservadora, neologista o ni una cosa u otra es, en verdad, no decir demasiado, por cuanto en su contexto social puede ser cada una de esas cosas o todas ellas, y fuera del ámbito al que pertenece no es nada.

Areago, hizkera berean ere emakume batzuk berritzaile izan daitezke, eta beste batzuk gordetzaile. Pertsonak nolako giza harremanak dituen, zein girotan bizi den, zer jarrera duen... halako kontuek baldintzatzen dute pertsona hori gordetzaile edo berritzaile izatea, eta ez pertsona horren generoak (Camino 2009a: 299):

Pertsonak bizitzaren aitzinean zer jokaera eta zer jarrera duen garrantzi handiko kontua da. Emazteak herriko gizarte-sareei guztiz atxikirik bizi baldin bada, familiako gora-beherei erne eta senideen ardura bere gain harturik badago, etxeko lanengatik edo haurrak hazi eta hezi behar izateagatik etxezulo baldin bada, edo kutsu berririk gabeko tradizioko mintzoa erabiltzen duten guraso xaharrak etxean zaintzen baldin baditu, ez da harritzeko izanen arkaismo gehien emaztekiengandik entzutea.

Euskal Herrian gizonak etxetik usu atera dira lan bila, gerran beste eskualdeetako euskaldunekin batean ibili ohi dira, ostaturako ohitura eduki dute, azokarako, bertsoetarako zaletasuna...; arruntago da beren mintzokoak ez diren hitzak eta moldeak gizonak ikastea. Etxetik atera direnak emaztekiak izan diren kasuetan, neskame joan behar izan dutelako edo sosa irabaztekotan ondoko eskualdean espartingintzan jardun behar izan dutelako, zaraitzuarrek eta erronkariarrek Maulen bezala, onartu beharko da zenbait berrikuntzaren hedarazle emaztekiak izan direla.

Beraz, berriz ere Caminoren hitzak hartuz, “berritzaile izatea ez dagokio norberaren generoari, pertsona bakoitzak duen jokabideari, rolari eta izaerari baizik, irekia edo irekizale izateari, bizi izan den egoerari eta errealitateari” (2009a: 299-300).

Gure ikerketan, gizon zein emakumeen hizkera aztertu nahi izan dugu. Oro har, ez dugu alde bortitzik nabaritu haien artean; hiztun batzuk beste batzuk baino gordetzaileago dira, baita adineko hiztunen artean ere, baina horren arrazoia ez da generoan bilatu behar, beste faktore batzuetan baizik.

Errazkingo emakume baten kasua heldu zaigu gogora. 1917. urtean jaio zen Errazkinen; Errazkingoak zituen, halaber, gurasoak, eta baita senarra ere. Etorri handiko hiztuna da, eta Errazkingo hizkera erabiltzen du. Alabaina, Errazkingo gainerako hiztunek erabiltzen ez dituzten ezaugarriak erabiltzen ditu, fonologian batez ere, hala nola $a > e$ asimilazioa *-ta* partizipioan (*einde, lotute, zaaldute...*), eta juntagailuan (*eosi, te, geo...*) eta *da* aditz laguntzailean (*izandu de*). Aitzitik, Errazkinen ohikoa da $u > o$ bokal-irekitzea (aditz laguntzaileetan, partizipioetan... ikus 8.1.4.), baina emakume hark asimilatu gabeko formak erabiltzen ditu, beste hiztunek ez bezala. Morfologian, ia sistematikoki instrumentaleko *-s* apikaria erabiltzen du, eta gainerako hiztunek apikaria zein lepokaria nahasian erabiltzen dituzte, baina lepokariaren alde betiere.

Gure ustez, errazkindar emakume horren hizkeran ageri diren berrikuntza batzuk ez dira hurrengo belaunaldietara iritsi, edota gainerako hiztunek ez dituzte hartu. Oro har, ez dira oso berrikuntza zaharrak, baina gehienak galduak dira Errazkingo hizkeran; gorago aipatutako inguruneetan ageri den $a > e$ asimilazioaz ari gara, esate baterako. $u > o$ bokal-irekitzeari dagokionez, Errazkinen ingurumari guztian ageri den ezaugarria da, eta Errazkinen bizi-bizi dabilena, baina emakume adindun horrek u darabil bere hizketan. Baliteke bokala irekitzea ezaugarri berri-berria izatea eta emakume hark horregatik ez erabiltzea —alegia, ezaugarri zaharrari eutsi dio emakume horrek, u -ri alegia—, edo prestigio-kontuak ere egon litezke tartean (alegia, u -dunak hobestea o -dunen aurrean). Azkenik, instrumentaleko morfemari dagokionez, Errazkingo hizkeran galdua den berrikuntza bat delakoan gaude; emakume horrek eutsi egin dio garai bateko ezaugarri horri —Larraungo ipar-mendebaleko gainerako herrietan ere *-z* da nagusi, baina badira *-s* bakan batzuk ere—, baina gainerako hiztun gehienek artean galdua da gaurgero. Besteak beste, kontuan izan behar dugu *-z* ageri dela ondoko Araitz-Beteluko herrietan; lanean zehar ikusiko dugu Errazkingo hizkerak Araitz-Betelukoaren isuri handia duela hainbat ezaugarritan (nahiz Larraungo eta ekialderagoko ezaugarri batzuei eusten dien oraindik ere), eta horren ondorio da, beraz, *-z* morfemak *-s* ordezkatu izana.

Antzeko kasu bat aurkitu zuen Salvadorrek Leongo Andiñuela herrian —antzeko diogu, ez baita guztiz pare-pareko kasua—. Hala, herritik ia inoiz atera gabeko emakume baten hizkera oso gordetzailea zen, eta, Salvadorrek dioenez, mendebaleko leoneraren azken arrastoa zatekeen (1965: 195-196). Errazkingo gure berriemailearen kasua ez da Andiñuelakoa bezain dramatikoa, ordea; emakume hura isolaturik bizi zen nolabait, bai hizkeraz bai bizimoduz, eta besteek bezala ez hitz egiteak lotsa eta konplexuak eragiten zizkion. Ez da hori Errazkingo emakumearen kasua: batetik, oso ospe ona du herrian, eta denek aipatzen dute oso dotore hitz egiten duela eta oso buru ona duela. Areago, *u > o* bokal-irekitzeaz galdetu diogunean, hizkera baldarraren ezaugarria dela esan digu; lotsa eta konplexuen arrastorik ez, beraz. Bestetik, Errazkingo emakumearen harreman-sarea zabalagoa izan da; Errazkinen egin du bizitza gehiena, baina Donostian urte batzuk bizitakoa da, ahizpa batenean. Ideologia modernoa duela ere esango genuke; horrenbestez, hizkeraz gordetzailea da zenbait ezaugarri dagokionez, baina guztiz kontrakoa da bizitzaren gainerako alderdietan.

5.2.4. Berriemaileen beste ezaugarri batzuk

Dialektologiaren hastapenetatik, berriemaileek bete beharreko ezaugarriak izan dira gurasoak eta ezkontidea —halakorik izanez gero— ere herrikoak berekoak izatea, bai eta bizitzako denbora gehiena herrian igarotakoa izatea ere (Jaberg 1928, cf. Montes Giraldo 1970: 94⁵⁵). Alegia, erreferentzia kultural eta linguistiko gehienak herrian jaso dituzten berriemaileak hobetsi izan dira. Gehienetan, gainera, nekazari-giroko (edo arrantzale-giroko) berriemaileen bila jo izan dute dialektologialariek; esate baterako, 1940an, Pop-ek nekazari-jendearen mintzoa islatu nahi izan zuen Errumaniako *ALR* atlasean (Jaberg 1995 [1940, 1954]: 78, Pringle 1986 [1983]: 223), eta ildo beretik jo zuten Andaluziako atlasean ere (Salvador 1987: 55).

Gaur egun, baina, gero eta zailagoa da baldintza horiek guztiak betetzen dituzten berriemaileak aurkitzea, jendeak aukera handiagoa baitu herritik ateratzeko eta beste toki batzuetako lagunekin harremanetan jartzeko. Herritik gutxien mugitu direnak adinekoak dira zalantzarik gabe; baina, hala ere, haien artean ere zail da (ez ezinezkoa) sekula herritik atera ez denik topatzea.

Gure ikerketaren oinarrian batik bat adinekoak eta baita helduak ere daudela esan dugu 5.2.2. atalean. Gehienak nekazari-girokoak dira, baina ez dira giro horretan isolaturik bizi; egungo gizarte-

⁵⁵ Montes Giraldek Jabergen *Der Sprachatlas als Forschungsinstrument* lanetik (1928) hartutako ideia.

dinamiketan txertaturik daude. Alegia, Guy Rocher-en definizioa aintzat hartuz (Erize 1997: 319), nekazari gizartea ez da gizarte mota arkaiko bat; aitzitik, hiriarekin eta industria-zibilizazioarekin harremanetan dagoen gizarte bat da, eta badaki haien ondoan bizitzen eta irauten. Horrela ulertzen dugu guk nekazari-giroa, eta ez, antzina bezala, kanpoko eraginetatik kanpo bizi den errealitate isolatu gisa (cf. Alvar 1991: 224-225).

Esan bezala, gure berriemaileak nekazari-girokoak dira gehienak, baina ez dugu uste baldintza hori ezinbestekoa denik; esan nahi baita, ez gara espreski nekazarien bila ibili, nahiz eta nekazariak diren gurekin lan egin duten hiztun gehienak. Azken batean, herriko hizkera hobekien islatzen zuten hiztunen bila ibili gara; Bottiglioniaren hitzak erabiliz, senaz eta eskarmentuaz baliatuz (1986 [1954]: 12). Hala, ezinbesteko ezaugarritzat jo dugu hiztuna herrian jaioa izatea eta gehien-gehienean herrian bizi izana. Gurasoen eta ezkontidearen jatorriari ere erreparatu diogu, halako datuek zenbait hizkuntza-gertaera azaltzen lagundu baitezakete. Esate baterako, Arribeko hiztun batek Baraibarkoa du emaztea, eta normaltasun osoz (alegia, hitza Arribekoa balitz bezala) erabiltzen du *banaar* hitza arribetar hiztunak (Arriben, *baba gorrik*, *baba txurik*... erabiltzen da); garbi dago bi hizkeren interferentzia gertatua dela kasu horretan.

5.2.5. Zalantzazko berriemaileak: Ihabengo kasua

Oro har, ez dugu arazorik izan gure eremuan berriemaile egokiak aurkitzeko, nahiz eta, gero eta jende gutxiago bizi den heinean, gero eta berriemaile gutxiago gelditzen den zenbait herritan; Basaburu Nagusian eta Imotzen batik bat (cf. 5.3.2.). Berriemaile egokiez ari garenean, aztergai dugun herrian jaioa izatea, gurasoak ere herrikoak berekoak izatea eta berriemaileak herriko aldaera dialektala erabiltzea dugu buruan.

Gure eremuko herrien ezaugarriak zein diren kontuan izanik, batzuetan zail suertatu zaigu gurasoak —eta are ezkontidea, halakorik izanez gero— herrikoak berekoak dituzten berriemaileak aurkitzea; nolana ere, kasu gehientsuenetan, bi gurasoetako bat gutxienez herrikoa izatea aintzatetsi dugu, eta bestea, kasu gehientsuenetan, ez da oso urrutikoa izaten.

Baina beste herri batzuetako euskara nekez bildu ahal izango dugu baldintza optimoetan. Ihabengo kasua aipatuko dugu. Aspaldi handitik erdaldundua da Ihaben (cf. Irizarren eta Sánchez Carriónen datuak 3.1. atalean), eta “Madrid txiki” izena ematen diote hango ingurumarian. Izan ere,

berriemaileek esan digutenez, herri ospetsua eta prestigioduna zen Ihaben: lau notario zituen, apez mordoia, maisu-maistra ugari han bizi zen, eskolarik dotoreena zeukan, eta abar. Besteak beste, Leyun ihabendarra Madrilen diputatu egon izanak asko lagundu zuen Ihaben hazten, hark eraiki baitzituen Ihabenen, 1920. urte aldera, errepeidea, trinketea edota eskola, inguruko herrietakoak baino dotoreagoak betiere.

Euskararen transmisioa etenda egon zen Ihabenen hainbat urtez; azken urteotan badirudi zenbait helduk euskara ikasteari ekin diotela, eta haurrak ere euskaraz eskolatzen dira, baina aldaera dialektalaren soka etenda dago guztiz. Nolanahi ere, adineko berriemaileen bila abiatu ginen — hango aldaera dialektalaren bila—, eta hiru berriemaileen berri eman ziguten. Haietako birekin egon gara harremanetan, eta, hiztun paregabeak diren arren, ez gaude ziur Ihabengo euskaratzat hartu ote daitekeen bi hiztunon mintzoa. Hain zuzen, 1926an Atezko Eguaratsen jaioa da haietako bat; handik urtebetera Ultzamako Larraintzarra eraman zuten, eta han bizi izan zen beste hamabi urtez; azkenik, Ihabena joan zen bizitzera hamahiru urte zituela, gaur arte. Larraintzarkoa zuen ama, eta Eguaraskoa aita; euskaldunak zirela esan digu gure berriemaileak, baina etxean gaztelaniaz aritzen omen ziren. Gure berriemailearen aitona Eltzaburukoa (Ultzama) zen, eta harekin ikasi zuen euskaraz, harreman estua baitzuten. Hamaika senide dira, eta gure berriemailea da euskaraz dakien bakarra, erdaldun elebakarrak baitira gainerako guztiak. Bestalde, Ihabengoa da gure berriemailearen andrea, eta erdalduna; haien seme-alabak gaztelaniaz hezi dituzte, eta, haietako batzuek gerora, helduaroan, euskara ikasi badute ere, gaztelaniaz aritzen dira elkarrekin.

Beste berriemaileari dagokionez, 1924. urtean jaio zen, Ultzamako Auza herrian. Hiru urte zituela ekarri zuten Ihabena, eta han bizi da harrezkero. Aita Oskozkoa zuen, eta ama, berriz, Atezko Beuntzakoa; euskaldunak biak ere. Etxean gaztelaniaz egiteko ohitura handia zutela esan digu; areago, bederatzi senideetan gazteenak ez zuen euskara ikasi, hura jaio zenerako gaztelaniaz aritzen baitziren denak, bai etxean bai kalean. Andrea Itsasokoa du gure berriemaileak, euskaldun garbia, baina gaztelaniaz aritzen dira elkarrekin, eta gaztelaniaz hezi dituzte beren seme-alabak ere.

Hirugarren berriemailea ezagutzerik ez dugu izan, Ultzaman jaioa baita, eta, adin handikoa izanik, ez baitago horrelako esperientzia baten partaide izateko moduan.

Hortaz, bi berriemaile besterik ez Ihabenen, eta ez, gainera, ihabendar peto-petoak: ez dira herrian jaioak (nahiz Ihabenen eman duten bizi gehiena, eta ihabendartzat jotzen duten beren burua, zalantzarik gabe), gurasoak beste herri batzuetakoak dituzte biek, eta, horrez gain, eguneroko bizitzan euskaraz baino gehiago gaztelaniaz aritzen diren hiztunak dira biak. Hala ere, euskaraz ongi aritzen dira, hitz-jario bete-betea dute, akatsik gabea, aberatsa. Aski esanguratsua iruditu zaigu, euskaldun garbiak izanik, beren artean ere gaztelaniaz aritzea, ohikoan, bi berriemaileok.

Beste berriemailerik ezean, hainbat saio egin ditugu bi pertsonokin, haien hizkeraren ezaugarriak aztertu nahian. Hala, saiootan erdietsi dugun ondorio nagusia da bi berriemaileon euskara ezin har daitekeela Ihabengotzat: batetik, bada aldea bion hizkeren artean, eta, bestetik, nabarmen Ihabengoak ez diren ezaugarriak ageri dira haien mintzoan. Hala, haietako batek [x] ahoskera darabil, eta [j] besteak; batek *esan*, eta *erran* besteak; batek *gutxi*, eta *gutti* besteak; batek *-ue* bukaera (*burue...*), eta *-uu* besteak (*moduu...*); batek *goai*, eta *goain* besteak; batek *asko*, eta *aunitz* besteak; batek *bagoa*, eta *pagoa* besteak, eta abar. Bataren hizkerak ultzamarragoa dirudi bestearenak baino; baina, nolana ere, ez gaude egoerarik onenean herri bateko —Ihabengo, kasu honetan— hizkera zehatz-mehatz aztertzeko. Ez dugu ahaztu behar hiztunok ez dutela hizkuntza-erreferenterik ia bildu Ihabenen; dituzten erreferente bakanak kanpoan bildu dituzte (txiki-txikitan, eta Ihabendik kanpo betiere, Atetzen eta Ultzaman), eta, egoera horretan, nekez aritu gaitezke Ihabengo mintzoaz.

Horregatik, Ihabengo hiztunengandik jasotako datuak gure ikerketatik kanpo uztea erabaki dugu, ez baitira datu seguruak. Nolanahi ere, oharmen-dialektologiako kontuak ere aipatu ditugu Ihabengo elkarrizketetan, eta datuok aintzat hartzea erabaki dugu (ikus 6.3. atala).

Besterik da Muskizko kasua. Han ere hiztun urri gelditzen da; alegia, Muskizko euskaraz aritzen den hiztun urri. Hala, lau pertsonarekin egon gara harremanetan; hiru gizonezko eta emakumezko bat. Hiztun gutxi dira, baina lauron gurasoetako bat gutxienez (edo biak) muskiztarra zen halaber, eta guztion hizkeraren ezaugarriak arretaz bildu eta aztertu ondoren erdietsi dugun ondorioa da Muskizko euskara erabiltzen dutela guztiek ere, ezaugarriak bat baitatoz elkarren artean. Beraz, Muskizko kasuan, hiztunen urritasuna ez da eragozpena izan hango euskara behar bezala ezagutzeko, eta bildutako datuak guztiz fidagarriak direla esateko moduan gaude.

5.2.6. Berriemaileen zerrenda

Lau ibarretako hiztun askorekin egon gara harremanetan, baina haietako batzuk hautatu ditugu gure ikerketarako. Zerrenda honetan, gurekin hizkuntza-kontuez mintzaten ordu gehien igaro dituzten berriemaileen izen-abizenak emango ditugu, baina betiere garbi utzi nahi dugu askoz ere jende gehiago ere badagoela lan honen atzean. Berriemaile bakoitzaren datuekin, fitxa bana osatu dugu. Honako informazio hau bildu dugu fitxa horietan: izen-abizenak, noiz eta non jaioa den, gurasoak nongoak zituen, ezkondua ala ezkongabea den, ezkontiderik izanez gero hura nongoa den, lanbidea, herritik kanpo atera ote den (nora, zenbat denbora, eta abar). Garrantzitsua baita biltzen duguna norengandik bildu dugun zehatz-mehatz jakitea (Salvador 1965: 255):

Y todo esto que sabemos —permítaseme que insista en ello porque es lo que considero más importante— lo sabemos en vivo, con seguridad, con nombre y apellido y condición del informante. Informantes a los que hemos hecho tomar conciencia de su propio sistema lingüístico. Ese es el único camino de la investigación dialectal, si no queremos caer en el folklore localista y en amontonamiento formal.

Datu horiek guztiak emateak zerrenda gehiegi luzatuko luke, berriemaile asko baitira. Horregatik, berriemaileen izen-abizenak eta jaiotze-urtea adieraziko ditugu soilik⁵⁶. Hona hemen datuok ibarrez ibar:

Imotz

Goldaratz

Xenona Astiz Arregi (1914)*

Agustin Iturralde Olaetxea (1929)

Jose Iturralde Olaetxea (1926)

Matias Legarra Astiz (1934)

Patxi Olaetxea Iturralde (1921)

Manuel Olaetxea Iturralde (1926)

Tomasa Bildarraz Otxandorena (1929)⁵⁷*

⁵⁶ Izartxoak berriemailea hila dela adierazten du.

⁵⁷ Jauntsaratsen jaioa eta Goldaratz ezkondua. Haren hizkera ez zen guztiz Goldarazkoa, baina laguntza handia eman zigun gure ikerketan.

Latasa

Mikaela Azpiroz Santillan (1919)

Luis Goñi Marroquin (1922)

Urritza

Ramon Beloki Arregi (1928)

Benita Etxarri Aldaz (1933)

Frantzisko Iriarte Zabalo (1935)

Eraso

Julia Jaunarena Urbistondo (1929)

Aszension Goldaraz Mikelarena (1919)*

Jose Zubieta Astiz (1920)

Zarrantz

Donato Urrea Jaunarena (1939)

Oskotz

Jesusa Azpiroz Lizaso (1918)

Eduardo Conde Bastero (1931)

Meliton Iribarren Ziganda (1925)*

Martina Gerendiain Irigoien (1924)

Juanita Pagoto Gartzaron (1915)

Frantzisko Gartzaron Ilarregi (1916)*

Etxaleku

Frantzisko Erbiti Aldaregia (1921)*

Puri Erbiti Lopetegi (1928)

Maria Antonia Aldaregia Azpiroz (1924)

Jose Angel Astiz Urriza (1918)

Aszension Astiz Urriza (1921)

Joxepa Aldaregia Igeltz (1922)

Isabel Igeltz Azpiroz (1936)

Asun Beloki Perkaz (1937)

Muskitz

Jose Antonio Garbisu Oraien (1941)

Nikasio Zubiria Armendariz (1930)

Migel Zenoz Argaña (1923)*

Joakina Zenoz Argaña (1921)

Basaburu Nagusia

Udabe

Juanito Bildarraz Iribarren (1936)

Gartzaron

Camino Telletxea (1950)

Jose Apeztegia Eskizabal (1942)

Itsaso

Manuel Ansorena (1925)*

Joxepa Sala Uharte (1930)

Bautista Auza Agirre (1934)

Erbiti

Josemari Jaunarena (1942)

Pakita Garro (1929)

Beruete

Teofila Azpiroz Garro (1931)

Inazia Etxarri Lopez (1925)

Fidel Barberena Deskarga (1917)

Arrarats

Kattalin Bengoetxea Etxegia (1920)

Migel Mariezkurrena Etxegia (1923)

Igoa

Joakina Etxegia Lasarte (1935)

Orokieta

Santiago Etxeberria Muguruza (1942)

Eusebio Ezkurra Eugi (1943)

Ihaben⁵⁸

Periko Munarriz (1926)

Jose Migel Mariñelarena (1924)

Larraun

Oderitz

Axio Biana Oderiz (1946)

Jose Martin Oderiz Zubillaga “Peña” (1942)

Iribas

Juana Mari Zubieta (1949)

Antonio Mitxaus Azpiroz (1920)

Baraibar

Mercedes Azpiroz Juanena (1925)

Jose Joakin Beraza Iriarte (1936)

Arruiz

Teresa Goldaraz Mendioroz (1924)

Manoli Azpiroz Goikoetxea (1921)

⁵⁸ Ikus Ihabengo berriemaileei buruzko oharra 5.2.5. atalean.

Albiasu

Joxe Okiñena Gorostegi (1929)

Margarita Argaña Mujika (1926)

Uitzi

Tomas Ijurko Astiz (1937)

Manuel Zabaleta Rekalde (1929)

Gorriti

Zezilia Goikoetxea Balda (1921)

Maria Teresa Abruza Maestruarena (1921)*

Aldatz

Jose Enrike Arregi Arregi (1928)

Ana Maria Arregi Arregi (1930)

Maixepa Arregi Arregi (1932)

Batiste Barberia Goikoetxea (1937)

Jose Migel Barberia Goikoetxea (1942)

Elena Aldaia Artsuaga (1937)

Errazkin

Mari Karmen Begiristain Matxain (1929)

Ildfonso Begiristain Matxain (1927)

Joxepa Buldain Elizalde (1917)

Azpirotz

Sebastian Etxetxikia Zabaleta (1927)

Mikaela Juanbeltz Elberdin (1931)

Araitz-Betelu

Betelu

Lontxo Zubillaga Zubillaga (1926)*
Maria Josefa Buldain Igerategi (1931)
Joxe Anjel Elizalde Marzol (1921)*
Nati Otxotorena Etxarri (1932)*
Dolores Goikoetxea Sotil (1937)
Pako Iriarte Estanga (1917)*
Feliziano Buldain Zubillaga (1932)
Maria Camino Estanga Iraola (1931)*
Simon Elizalde Marzol (1930)
Migel Ezkurdia Etxarri (1924)*
Alejandro Yeregi Lopez (1924)
Martina Estanga Otamendi (1907)*
Bautista Huarte Sorabilla (1932)*
Pepita Estanga Olarra (1925)
Teresa Latiegi Irigoien (1919)
Antton Arrizibita Ansorena (1929)
Anttoni Sorabilla Argiñena (1938)

Gaintza

Inazio Saralegi Goikoetxea (1929)
Dolores Arraztio Saralegi (1928)
Agustin Askarai Arsuaga (1927)
Rosario Saralegi Goikoetxea (1928)
Dolores Otamendi Otamendi (1933)
Juanito Saralegi Goikoetxea (1925)
Ramon Askarai Arsuaga (1928)*
Jose Mari Otermin Intxaurren (1925)
Mikaela Otamendi Otamendi (1930)
Martin Otermin Balda (1926)

Atallu

Engraxi Otamendi Urreaga (1923)*
Xefe Gorostiaga Diva (1927)
Maria Artola Aranzadi (1931)*
Maria Jesus Intxaurrenondo Intxaurrenondo (1925)
Bautista Saralegi Lasarte (1931)
Maria Anjeles Beraza Elordi (1918)*
Jose Otxotorena Huarte (1925)
Maria Luisa Otxotorena Huarte (1935)

Arribe

Nati Amondarain Gorostiaga (1929)*
Rosario Amondarain Gorostiaga (1931)
Martin Lopetegi Azpiroz (1926)*
Juanito Huarte Otegi (1923)
Nieves Lopetegi Azpiroz (1931)
Jose Otermin Gibelalde (1921)*
Maria Luisa Balerdi Gorostiaga (1919)

Intza

Martin Iriarte Otamendi (1927)
Isaac Ezkurdia Agirre (1921)*
Grazian Olasagarre Arrizubieta (1930)
Malen Goikoetxea Iriarte (1940)
Pedro Ezkurdia Agirre (1914)*
Migel Saralegi Iriarte (1927)*

Uztegi

Genaro Goikoetxea Berakoetxea (1930)*

Josefina Goikoetxea Berakoetxea (1926)

Mikaela Ezkurdia Arostegi (1933)*

Juan Jose Goikoetxea Otamendi (1925)

Azkarate

Maria Otermin Agirre (1929)

Jose Iriarte Arrizubieta (1927)

Antonia Zubeldia Zabala (1930)*

Jose Manuel Balda Otermin (1923)

Jose Inazio Goikoetxea Goikoetxea (1931)

Maria Goikoetxea Goikoetxea (1930)*

5.3. Datuak biltzeko teknikak

5.3.1. Hizkera espontaneoaren bila

Hizkera bat aztertzen dugunean, estilo arduragabekoaren bila jo ohi dugu. Alegia, hiztunak ohiko solasaldietan erabiltzen duen mintzoa bildu nahi izaten dugu: berezkoa, bat-batekoa eta zaindu gabea (cf. Chambers eta Trudgill 1980: 58). Alabaina, datu-biltzaileak berriemailearekin izan nahi duen topaketa ez da berez naturala; bilatutako egoera bat da. Datu-biltzaileak berriemaileari inkesta bat edo elkarrizketa bat egiteko proposamena egiten dion unetik beretik, datu-biltzailea egoera bat sortzen edo sortu nahian ari da. Soziolinguistikan eta dialektologian oso maiz erabiltzen den terminoa da Labovek XX. mendearen erdialdean aipatutako “the observer’s paradox” edo behatzailearen paradoxa. Paradoxa horren funtsa zera da: behatzaileak ahalik eta jardunik naturalena jaso nahi du berriemailearengandik, berez naturala ez den egoera batean. Alegia, behatzaileak nahi du berriemaileak joka dezala inork behatuko ez balu bezala, eta hortxe sortzen da, hain zuzen, egoera paradoxikoa. Paradoxa hori leuntzeko, baina, badira zenbait modu.

López Moralesek hiru bide nagusi eman ditu berriemailearengandik estilo arduragabekoa lortzeko (1994: 78):

- Ezkutuko grabazioa. Berriemailearekiko elkarrizketa grabatzean datza, baina berriemailea jakinaren gainean jarri gabe. Guk guztiz baztertu dugu aukera hori, berriemaileei zor diegun begiruneaz.
- Berriemailea emoziozko egoeretara bideratzea. Berriemailea hunkitzea lortuz gero, haren kontzientzia linguistikoa leundu egiten da. Beste hitz batzuetan esanda, berriemaileari ahaztu egiten zaio elkarrizketa batean parte hartzen ari dela, eta, momentuko emozioek lagunduta, hizkerarik berezkoena erabiltzen du. Ildo horretatik, Cedergren-ek dio (1973) berriemaileak estilo arduragabekoa erabili ohi duela esaten ari dena zuzen-zuzenean bere emozioei loturik baldin badago; aitzitik, hizketa-gaia berriemailearen esperientziatik kanpo dagoen zerbait baldin bada, estilo zainduagoa eta neutralagoa eman ohi du hiztunak (López Morales 1994: 81).
- Elkarrizketa berriemailearen inguruko pertsona baten bidez gauzatzea. Zenbait berriemailek segurtasun handiagoa sentitu ohi dute galderak hurbileko norbaitek bideratuak baldin badira; lasaiago egotearekin, hitz egiteko modua ere lasaitu egiten da.

Arestiko ideian dago, gure ustez, gakoa: berriemailea lasai egotea lortu behar dugu. Horretarako, oso garrantzitsua da datu-biltzaileak nolako jarrera duen; Caminok dioenez, “lekukoak halako hurbiltasuna behar du sentitu inkestatzailearengan” (2009a: 277). Gure kasuan, laguntza handia eman digu aztergai dugun erkidegoa sakon ezagutzeak; ezagunak ditugu eremuko herri eta jendeak, eta horrek nolabaiteko askatasuna ematen dio hiztunari hitz egiteko. Esate baterako, hiztunak bere herriko istorio edo gertaera bat kontatzen duenean, askotariko erreferentziak eman ohi ditu (lekuak, pertsona jakin batzuen izenak, etxeen izenak...), baina, datu-biltzailea hurbilekotzat hartzen ez badu, erreferentzia horietariko batzuk saihestu egin ditzake (nahita) berriemaileak, eta, horrekin batera, beste ezaugarri batzuk ere gal daitezke. Datu-biltzailea hurbilekoa baldin bada (edo hala sentitzen badu berriemaileak), berriemaileak lasai aski erabiliko ditu ohikoak dituen hizkuntza-formak; aitzitik, datu-biltzailea arrotza dela uste baldin badu, berarenak ez diren formak erabiltzera egin dezake. Horretan eragin handia du, halaber, hiztunak zenbateko “hizkuntza-segurtasuna” duen (cf. Hudson 1981 [1980]: 212); geronen kasuan, dena delako motiboagatik hiztunarengan segurtasun-falta sumatu izan dugu kasu batzuetan, eta, halakoetan, hiztunak zenbait hitz bere modura esateko zalantzak izan ohi ditu (esate baterako, Basaburu Nagusiko herri batean gertatu zitzaigun berriemaile batek uneoro zalantzan jartzen zuela esaten ari zena, eta gaztelaniazko

ordainak edota beraren hizkeraren ezaugarri ez ziren beste batzuk botatzen jardun zuen saio guztian zehar).

Azken batean, berriemaileak gudan konfiantza izatea lortu behar dugu. Jarrera aipatu dugu gorago: datu-biltzaileak jarrera irekia baldin badu, errazagoa izango da berriemailearen konfiantza lortzea. Konfiantza bi noranzkotan gauzatu beharra da, eta, horrenbestez, berriemaileak eskubide osoa du datu-biltzaileari ere galderak egiteko. Bestalde, datu-biltzaileak berriemailearen intereseko gaietan arakatu behar du; pentsatzekoa da artzain batek gustura emango duela artzaintzaren inguruko gaien berri, edota ikazkinak bere lanbidearen inguruko berri, baina datu-biltzaileak betiere garbi izan behar du berak proposatutako gaiak ez dutela zertan berriemailearen atsegingarri izan. Beharbada, hiztunak nahiago du beste edozein gairi buruz hitz egin, eta datu-biltzaileak erne ibili behar du elkarrizketaren haria alde baterantz edo besterantz mugitzeko (López Morales 1994: 77):

Lo preferible es que el entrevistador llegue a tener ideas bastantes precisas sobre los temas que interesan a su sujeto antes de iniciar en firme la entrevista. Pero a veces, a pesar de esto, se descubre sobre la marcha que el tema carecía realmente de interés para él, o que, a lo más, presentaba un interés muy limitado (aunque este haya sido seleccionado por el propio informante); en este caso, no tiene ningún sentido insistir sobre él. Lo más indicado es cambiarlo con rapidez. El entrevistador estará desperdiciando el entusiasmo y la actitud psicológica del informante si corta un tema de charla cuando aún está vivo.

Berriemailearekiko lehen hartu-emanak garrantzi handia du (Ander-Egg 1995: 23-232). Datu-biltzaileak hasiera-hasieratik garbi adierazi behar dio berriemaileari zer nahi duen. Berriemaile batzuek sarbide erraza ematen dute lehen unetik beretik, baina beste batzuk zorrotzagoak dira, eta azalpen gehiago behar dute. Helburu dugun elkarrizketa edo inkesta egiten hasi aurretik, komeni da pixka bat girotzea, berriemailea gustura senti dadin (López Morales 1994: 87):

En todos los casos, el contacto es clave para el buen éxito de la entrevista. Una porción de detalles minúsculos junto a aspectos de importancia sobresaliente serán responsables de una acogida positiva. Elementos de personalidad y de carácter se combinan con gestos y circunstancias de aspecto externo. Es necesario que el entrevistador examine previamente su población y que trate de amoldarse a ella, si acaso no es miembro de la misma. Un buen porcentaje de actitud osmótica será del todo beneficioso.

Antes de entrar propiamente en la entrevista, el encuestador aprovechará para construir una atmósfera cordial y al mismo tiempo para ir conociendo —si se trata de entrevista de tema libre— los

intereses del sujeto. Dentro de estas actividades previas a la entrevista, debe aprovecharse para asegurar al informante que la información que suministre se mantendrá anónima en todo momento. Esta sesión preparatoria tendría por última finalidad la de hacer desaparecer dudas, temores e inhibiciones que pudieran haber vivido en el sujeto.

Girotze-fase horri garrantzi handia eman diogu datu-biltzen jardun dugun urteotan. Malerrekan eta Araitz-Betelun ahozko tradizioa biltzen ibili ginenean, hiztunarekin goiz edo arratsalde oso bat ematen genuen “elkar ezagutzen”. Lehen topaketa hartan, ahozko tradizioaren eta zeinahi gairen inguruan hizketan aritzen ginen; hiztunari gure asmoen berri ematea, konfiantza-giroa sortzea eta hurrengo saiorako gaiak zein izan zitezkeen ezagutzea genuen helburu (Apalauza eta Lakar 2001-2003: 1-2⁵⁹, Apalauza eta Arraztio 2003-2005: 3). Gehienetan, lehen hartu-emanaz beste egun baterako utzi dugu hizkuntzazko helburua duen saioa, baina, zenbaitetan, aski izan da lekukoarekin telefonoz hitz egin eta gure asmoen berri ematea, elkarrizketa egiteko eguna finkatzeko. Jakina, aldez aurretik ezagunak genituen berriemaileekin egin ditugu halakoak.

5.3.2. Elkarrizketa bideratua eta hizkuntza-inkesta

Funtsean, elkarrizketa bideratua eta hizkuntza-inkesta erabili ditugu datuak biltzeko teknika gisa. Elkarrizketa bideratuan, berriemaileari gai bat proposatu ohi zaio, eta berriemaileak badu horretaz nahi duen guztia esateko aukera, baina betiere elkarrizketatzaileak bideratzen du saioa, gaiaren inguruko galderak eginez (cf. López Morales 1994: 76). Metodo hori baliatu genuen Imotzen datu-biltzen hasi ginenean, eta baita Araitz-Betelun ere, ahozko tradizioa biltzeko lanean. Hala, batez ere etnografiako gaietara joaz (dialektologia eta etnografia uztarturik baitoaz maiz, Alvar 1983: 160)⁶⁰, imoztar berriemaileekin orduak eta orduak eman genituen solasean; hiztunak zenbat eta gehiago hitz egin, hainbat hobeki, haren hizkeraren datu gehiago lortzen genuen heinean. Modu horretan, hiztuna lasai aritzen da hizketan, gustuko dituen gaiei buruz gehienetan, eta iturri ezin hobe da hizkuntza-ezaugarriak detektatzeko.

Nolanahi ere, hiztunarekin hainbat eta hainbat ordu igarota ere, beti ezin lortu dugu ikerketarako behar dugun informazio guztia, eta inkestara jo beharra dago. Inkestak erabiltzea

⁵⁹ 2005ean argitaratu genuen *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma* lana (ikus bibliografia), baina argitaratu gabe gelditu diren hainbat datu bildu genuen lan hartan (Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta datu horietako asko baliatuko ditugu gure tesian.

⁶⁰ Caminok dioenez, “galdetegiko gaiak eguneroko bizimoduari eta etnografiako atal arruntenei dagozkienak izan ohi dira hizkuntza-atlasetan; inoiz kritikak ere izan dira, sobera emana dela dialektologia etnografiari” (Camino 2009a: 280). Nolanahi ere, etnografiako ohiturak aztertzeak mesede ere egin diezaioke dialektologiari (Camino 1998c: 118).

behar-beharrezkoa da dialektologian (Francis 1983: 52-65). Jabergek dioenez, metodo guztiek badute eragozpenen bat, baina gauza ezina da inkestarik egin gabe hizkuntza-geografian jardutea (1995 [1940, 1954]: 81):

... todos los métodos de encuestas tienen sus desventajas, tanto el procedimiento de encuestas sobre el propio terreno lo mismo “directo” que “indirecto”, como el procedimiento de encuestas por correspondencia; y quisiera afirmar de nuevo, que lo ideal sería escuchar solamente el habla espontánea, pero este procedimiento no nos conduce al objeto al que el dialectólogo que hace geografía lingüística no puede renunciar: la acumulación de grandes masas de materiales que se ofrezcan sistemáticamente ordenadas a la comparación.

Inkestaren abantailetakoa bat da denbora gutxian datu ugari lortzea (Salvador 1965: 253):

... de una breve encuesta —tres horas faltaron para los cuatro días completos— hecha conscientemente y con método, se puede obtener tanto fruto como de una larga observación a la espera, «dejando hablar» que nos dicen los dialectólogos. Y que ese fruto tiene la ventaja, como ya adelantamos al anunciar nuestro método, de que lo obtenemos situado ya dentro de un sistema y adscrito a un hablante concreto y a una circunstancia determinada.

Ildo beretik doaz López Moralesen hitz hauek ere (1994: 75):

... las encuestas permiten recoger una gran cantidad de información (en nuestro caso, de carácter lingüístico) o un variado muestrario de actuaciones lingüísticas, procedentes de un buen número de sujetos, todo en relativamente poco tiempo y con esfuerzos limitados.

Gainera, inkesta bidez hainbat lekutan bildutako datuak elkarren artean alderatu daitezke, eta abantaila handia da hori (Chambers eta Trudgill 1980: 24).

Inkestak era askotakoak izan daitezke. Bottiglioni dioenez, inkesta bat egoki prestatzeko, beharrezkoa da aztertu nahi dugun eremuko ezaugarriak aldeztetik aztertzea (1986 [1954]: 11):

The drawing up of work sheets, or questionnaires, has also proceeded quite differently since Gillieron. (...) the best work sheets are those which fit the specific character of the area under study and which result from previous studies of that very area.

Ildo beretik, Popek eta haren aurrekoek diote, hizkuntza-atlasak hizpide hartuta, inkestako galderek berak izan behar dutela inkestagune guztietan, eta modu berean egin behar direla beti galderak; Bottiglioni, aldiz, inkesta egiteko inkestaguneko pertsonen kultura, ohiturak eta beste arlo batzuk aintzat hartzearen aldekoa da (1986 [1954]: 13). Jaberg eta Jud ikertzaileek inkesta bidez lortu zituzten Italiako eta Suitzako hegoaldeko atlasa (*AIS*) osatzeko datuak, eta, haien ustez, inkesta on batek honako ezaugarri hauek bete behar ditu (1928: 175; ikus Francis 1983: 53): a) Bildu nahi dugun hizkeraren ahalik eta hizkuntza-ezaugarri gehien bildu behar ditu, b) Aztertu nahi dugun eskualdearen kultura-ezaugarrietara egokitua izan behar du, eta c) Lortutako erantzunek espontaneoak eta hizkeraren bereizgarri indigenak izan behar dute, eta beste erantzun batzuekin alderatzeko balio behar dute.

Datu-biltzaileak begirunez eta arretaz jokatu behar du inkestagintzan. Halako konplizitatea edo gogokidetasuna sortu behar du berriemailearekin; alegia, berriemaileak sentitu behar du datu-biltzaileak ongi dakiela zer galdetzen ari den (Salvador 1987: 25):

Todo dialectólogo de experiencia ha tenido repetidas veces la impresión de que su informante de turno, ante la ingenuidad de sus preguntas, lo estaba tomando por un ignorante, cuando no por un imbécil. Eso es natural y es una de las servidumbres, digamos, del trabajo. Ahora bien, hay que cuidarse no de parecer un imbécil, cosa que no tiene importancia, sino de resultar serlo efectivamente, y empeñarse en hacer encajar la lengua del sujeto en los moldes propios, tal como se han establecido previamente en el cuestionario, en vez de intentar obtener los moldes del sujeto, sus estructuras de contenido, su verdadera lengua, si entendemos la lengua como un sistema de valores, lo que efectivamente es.

El informante acepta bien que el encuestador ignore las palabras, desconozca los significantes, pero siempre que se muestre seguro en los significados, que demuestre conocer las realidades por cuyos nombres pregunta. (...) Si advierte el sujeto ignorancia de esa realidad probablemente ya no tomará en serio al dialectólogo y la calidad de la encuesta quedará dañada, porque ni se preocupará de contestar derecho. La encuesta dialectal es un asunto de dos personas y se necesita un mutuo entendimiento, un acuerdo en el metalenguaje que se usa, para que el interrogatorio sea eficaz.

Gure kasuan, gure eremuko euskara (eta eremua bera) ezaguna genuen datu-biltzen hasi aurretik, eta, gure ezagueraz eta bibliografiaz lagunduta, ezaugarri jakin batzuen bila jo dugu inkesten bidez. Nolanahi ere, ez dago aldez aurretik jakiterik hizkera batean zer aurkituko dugun, eta inkestak behin eta berriz egokitzen eta moldatzen ibili beharra dago. Hortxe sortzen da, hain zuzen, beste paradoxa bat (Montes Giraldo 1970: 83):

... la paradoja de que el cuestionario ideal solo puede confeccionarse al final de la encuesta.

Alegia, hasiera-hasieran egindako inkestak osatu gabeak dira, eta bukaerakoak dira, alde horretatik, osatuenak. Inkestako galderak etengabe berrikusten ibili behar dugu; Caminok dioenez, “galdetegia ongi eta sakon prestatzen eta antolatzen galtzen den denbora, inkesta saio bakoitzeko jardunean berreskuratzen eta irabazten da; galdetegia arreta biziaz osatu beharreko gauza da” (2009a: 280). Esate baterako, Salvadorrek dio objektu bat seinalatuta “zer da hori?” galdetzea arriskutsua izan daitekeela, ñabardura semantikoak gal daitezkeelako (1987: 24-25); arretaz jokatu beharra dago, beraz. Datu-biltzailea etengabe ikasten ari da, eta, berriemaileei esker, saio guztietan ikasten da hurrengorako zerbait (Salvador 1987: 29):

Un dialectólogo de verdad acaba aprendiendo mucho de los sujetos de sus encuestas. Ellos son en definitiva los que le enseñan a preguntar, los que ayudan a perfilar el cuestionario, los que apuntan distinciones que el dialectólogo ignoraba, los que orientan el orden preciso del interrogatorio, los que ilustran acerca de la realidad representada por el sistema lingüístico que se averigua. Y alguna vez esto lo hace el sujeto conscientemente, convencido de su saber, sabiendo que instruye.

Inkesta bidez datuak biltzeak ez du beti dena bere alde izan. Izan ere, “naturaltasunik eta jatortasunik eza” egotzi izan diote (Camino 2009a: 276, cf. Chambers eta Trudgill 1980: 27-28), estilo arduragabekoaren kaltetan. Onartu beharra dago naturaltasuna eta jatortasuna arriskuan egon daitezkeela inkesta-saioetan, baina guk desabantaila baino abantaila gehiago ikusten dizkiogu inkestari. Inkestak egoki prestatzea, berriemaile egokiak aukeratzea eta galderak behar bezala egitea da gakoa. Gure esperientzian, hizketarako etorri handia duten baina inkestako galderak erantzuteko guztiz desgokiak diren berriemaileak izan ditugu, eta, alderantziz, kontuak esateko trebetasun handirik ez duten baina inkestako galderei zuzen eta zehatz erantzuten dieten lekukoekin ere lan egin dugu. Kasu bakoitza banaka aztertzea da, baina, oro har, inkesta bidezko saioetan, lekukoak ez du askatasunik gauzak nahi duen bezala azaltzeko, eta, horrez gain, inkesta zaila gerta dakioke berriemaileari (zenbaitetan, datu-biltzaileak ez duelako jakin galderak nola bideratu)⁶¹, bere burua irrieragingarri suma dezake, edota galderak serio ez hartzea ere gerta daiteke, itxuraz oso agerikoak diren kontuak galdetuz gero⁶² (Camino 2009a: 277).

⁶¹ Salvadorrek dioenez, inkestaren lorpen eta berezitasun handienetako bat da bai datu-biltzaileak bai berriemaileak metahizkuntza erabiltzera bideratzen dituela (1987: 22).

⁶² Esate baterako, hiztunari inozokeria gerta dakioke eguzkiaren kolorea zein den galdetzea.

Larraungo herri bateko berriemaile batekin izan dugun esperientzia heldu zaigu gogora. Hitz-jario handiko emakumea da, beti edozein gairi buruz edonorekin hitz egiteko prest, eta hala hartu gaitu gu ere. Alabaina, emakume horrek badu inkesta bidezko galderetan berarenak ez diren formak emateko ohitura; hala, 2006an egin genuen grabazio baten lehen orduan, *emain*, *esain* eta *izain* gisakoak erabili zituen emakume hark, eta, azken 45 minutuetan, inkestako galderak egiteari ekin baikenion, *emango*, *esango* eta *izango* gisakoak erabili zituen.

Aitortu behar dugu zenbait herritan zaila izan dela inkesta bidezko galderak egoki erantzungo zituzten berriemaileak aurkitzea. Izan ere, Muskitz, Udabe eta halako herrietan, hango hizkera erabiltzen duen hiztun bakan dago, herriak hustu edo erdaldundu direlako. Halako kasuetan, ez dugu aukera handirik izan berriemaile bat edo beste bat aukeratzeko; inkesta egiteko berriemailerik egokiena ez izanda ere, dagoen aukera urria izanik, dagoenari heldu behar. Izan ere, ez dugu beste aukerarik (Camino 1998c: 133):

Erkidego batean aldakortasuna gertatzen da, eta hiztun batetik bestera desberdinak izan daitezke aldaketarako joerak. Erkidego batean aldakortasun indibiduala hedatua denean —segurtasun linguistiko edo dialektal urriko eremu trantsizionaletan— soilik berriemaile edo informatzaile multzo baten eredia osatzen duten ezaugarriak har daitezke ziurtasunez bereizgarri dialektaltzat.

Horregatik, hutsuneak sor daitezke. Muskitzen, esate baterako, ez dugu lortu saguzaharraren euskarazko ordainik; *murtzielago* eman digute. Gaztelaniak interferentzia handia egiten du halako herrietan, eta hiztuna nahasi egiten da galdera jakin batzuen aurrean; esate baterako, Muskitzen berean esan digute *txirriñe*, *iñarea* eta *golondrina* hirurak erabiltzen dituztela, baina ez direla gauza bera; ez jakin, ordea, zer ote den zer. Ez dugu besterik, ordea, eta, erantzunen erabateko fidagarritasuna zalantzan jar badaiteke ere (Camino 2003a: 93), datu horien joko-eremuan ibili beharrean gara.

Zailtasunak zailtasun eta arazoak arazo, inkestaren helburua zein den ulertaraziz gero eta berriemailea prest eta ziur agertuz gero (cf. López Morales 1994: 84), oso emaitza onak lor daitezke inkesta bidez, eta gaur egungo dialektologian asko erabiltzen den teknika da (Mitzelena 1991).

Inkesta egiteak ez du esan nahi berriemaileak galdera bat bestearen atzetik erantzuten ibili behar duenik (Camino 2009a: 275):

Inkesta hertsia izateak ez du adierazten galdetzaile eta lekukoaren artean elkarrizketa libreetarako aukerarik ez dagoenik: hertsia, finkatua eta guztiz zehatza den alde aurreko galdera sorta bat ahalaz bete behar dela adierazten du; horrezaz landa hautazkoa da bi mintzakideen artean hainbat gairen inguruko elkarrizketak izatea eta bertan agertutako emaitzetarik batzuk hainbat azterketatan aintzat hartzea eta aztertzea.

Labovek dioenez (1996), honako egoera hauetan lortzen da hizkerarik espontaneoena (López Morales 1994: 79 lanean aipatua): berriemaileak datu-biltzaileari galdetegi “formalaz” kanpoko kontuak aipatzen dizkionean, berriemailea datu-biltzailea ez den hirugarren pertsona batekin mintzatzen denean (familiako kideren bat, gehienetan), berriemaileak inkestako galderez kanpo iritziren bat ematen duenean, berriemaileak bere burua hiltzeko arriskuan ikusi duen egoera bat kontatzen duenean, eta hiztunak haur-kantak, -poemak eta -jostetak aipatzen dituenen. Geroni ere gertatu zaigu hiztunak bereak ez diren formak ematea inkestan, eta beraren ohiko hizkera erabiltzea inkestaz kanpo edota ezkontidearekin edo senideren batekin ari denean. Datu-biltzaileak erne ibili behar du halako egoeretan.

Datu-biltzen egin ditugun saioetan, tartekatu egin ditugu elkarrizketa bideratuaren teknika eta hizkuntza-inkestak, hizkera bat jasotzeko elkarren osagarri baitira. Esan bezala, hasierako saioetan, elkarrizketa bideratua erabili genuen batik bat, baina, gerora, inkesta bidezko datuak eskuratzeari ekin genion, Imotzen berean lehenik, eta Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun ondoren. Nolanahi ere, berriemaile guztiekin egin ditugu elkarrizketa bideratuak; saioa hasteko modurik onena suertatu zaigu hori, hiztuna girotzen joateko eta ondoren inkestako galderei ekiteko. Batzuetan, hiztuna nekatu egiten da inkestako galderekin, aparteko interesik ez duenean batik bat, eta halakoetan komeni da galderak alde batera uztea eta beste gai bati heltzea, edota inkesta bertan behera uztea, beste saio baterako.

Gure inkestetan, askotariko galdera motak erabili ditugu. Ahalbait, gaztelaniatiko itzulpena saihestu dugu, baina oso baliagarri suertatu zaigu zenbait ezaugarri biltzeko, morfologiakoak batez ere. Artolak teknika horren alde onak eta txarrak aipatu ditu (2006: 396, cf. Meillet 2001 [1924]: 65):

... galderak erdaraz eginda egotean, erantzuleak bere burua estutu eta itzulpen bat egitera behartzen du halako moduan non, esan beharrekoa askatasun osoz —inolako galderari erantzunik eman behar izan gabe— bere kasa esan balu, kasu askotan oso beste era batera esango zukeen.

Alde ona, beti ere gure uste apalaren arabera, hainbat lagunek (...) gauza bati berari buruzko erantzuna ematen diotenekoa da, haien osteko zernahi erkaketarako biziki interesgarria eta are aberatsa gerta daitekeena. Horra, bada, geure iduriko, erdaraz prestatutako galdera-sorta hauetako txanpon bereko bi alderdiak.

Gehienetan erabili dugun teknika zera da: berriemailea bila gabiltzan hitza edo egitura erabiltzera bultzatzea (cf. “naming”, “talking”, “reverse”, “completing” eta “converting” motako galderak in Chambers eta Trudgill 1980: 25-27, eta “naming”, “supplying”, “completion”, “conversion” eta “translation” motakoak in Francis 1983: 62-65). Esate baterako, *izoa* edo *izeba* esaten ote duten jakiteko, honako galdera hau egin diegu hiztunei: “nire amaren ahizpa zer da niretako?”. Edo, *sartana* edo *danboliñe* erabiltzen ote duten jakin nahi izanez gero, “gaztainak non erretzen dira?”. Edo, *bizar* edo *bizer* bildu nahian, “nola da gizonei aurpegian ateratzen zaien ile hori?”. Edo, *idi* edo *iri* biltzeko, “nola esaten zaio osatutako zezenari?”. Halakoetan, ia ziurtaturik dugu berriemailearen erantzuna, baina, beste kasu batzuetan, zailagoa da bila gabiltzan hitz edo egitura horretara iristea, eta itzulinguruka ibili beharra dago (Videgain 1991: 562). Hala, *odolki* edo *tripota*, eta *solomo*, *solamu* edo *solemu* erabiltzen ote dituzten jakiteko, zerri-hiltzeari buruz hitz egiteko eskatu diegu berriemaileei; ia gauza ziurra da entzun nahi ditugun hitz horiek erabiltzea, nahiz eta batzuetan nahiko genukeen baino luzeago jotzen den holako kasuetan.

Batzuetan, berriemaileari kontrako adiera emateko eskatu diogu: “negar egitearen kontrakoa zer da?” (*parra in* edo *irri in*), “guapoa ez dena zer da?” (*zakar* edo *itsusi*), “triste ez dagoena nola egoten da?” (*konten* edo *kontentu*), “pobrea ez dena zer da?” (*aberats* edo *abrats*), eta abar. Egoerak ematea ere lagungarria da batzuetan: “lasterka hasiz gero, egiten zara...” (*izerdittu* edo *izardittu*). Gaztelaniatiko itzulpena erabili dugunean ere, egoera bat eman diegu hiztunei alde zurretik: “norbaitekin sesioan ari zara. Berak baietz, eta zuk ezetz. Azkenean, nazkaturik, zera esaten diozu: tú tienes la razón. Nola esanen zenuke?” (*arrazoi*, *arrazure*, *arrozore*...). Antzerkia egitea ere suertatu zaigu zenbait kasutan; adibidez, saltoka hasi, eta “zertan ari naiz?” (*saltoka* edo *saltokan*). Beste batzuetan, zuzen-zuzenean galdetu diegu ea hitz jakin bat erabiltzen duten: “zer da *barruti* zuretako?” (izan ere, hitz horren adiera aldatu egiten da herritik herrira). Arestiko datu horien

tankerakoak dira “ezezko datuak” deritzenak; alegia, hiztunari zuzen-zuzenean galdetzea ea hitz edo egitura jakin bat erabiltzen duten. Ezezko datuek arrisku handia dute, eta ahalbait gutxien erabili ditugu; berriemaile guztiak ez dira egokiak izaten halako datuez galdetzeko, baina batzuek oso datu baliagarriak ematen dituzte.

Zenbait ezaugarri biltzea, baina, zaila da. Aditz-forma jakin batzuk biltzeko izan dugu guk zailtasun gehien: aditz trinkoak, ahalera... Adibide bat emango dugu. Ahalera-adizkiak biltzeko, gaztelaniatiko itzulpena erabiltzen hasi ginen. “En la tele se pueden ver muchas cosas” itzultzeko eskatzen genien lekukoei, baina ez genuen behin ere bildu bila genbiltzan egitura, beste fraseologia mota bat erabiltzen baitzuten lekukoek. Arruitzen, esate baterako, *iñon deenak ikusten dee telebisioan* eman zigun hiztun batek. Halakoetan, garbi ikusten da hiztunei ezin diegula ziririk sartu; zalantzarik gabe, beste formula bat bilatu beharra dugu halakoak biltzeko. Gorago aipatu dugu *arrazoi*, *arrazure* eta halakoak biltzeko erabili dugun teknika (egoera bat ematea, alegia). Gehienetan, gure helburua bete dugu, baina, Errazkingo berriemaile batek *or konpon ai!* esango lukeela erantzun zigun. Saiatu ginen “razón” hori eman zezan, baina alferrik izan zen; azkenean, berriemaileak arrazoia (!). Beste behin, *txingokan* bildu genuen Oskotzen, eta forma hori *-ka / -kan* biltzeko erabili genuen, beste batzuen artean. Alabaina, beste aukera batzuk eman dizkigute beste herri batzuetan: *txingin* Igoan, *txingoan* Albiasun eta Iribasen, *txingen* Muskitzen, eta abar. Alegia, askotan ez datoz bat *a priori* espero duguna eta *a posteriori* biltzen duguna; zalantzarik gabe, inkesta-saio bakoitza hurrengo saiorako ikasbidetzat hartu beharra da.

Askotan, inkesta bidez jaso nahi dugun datu jakin horrez gain, beste datu asko ere jasotzen ditugu. Esate baterako, hiketa-adizkiak bildu nahian genbiltzala, *atzo eosi yittun nik esantako gauzek?* bildu genuen Igoan; batetik, bila genbiltzan adizkia jaso genuen, baina, bestetik, fonologiarako baliagarri zaigun *esantako* ere lortu genuen.

Berriemaile batzuek ziurtasun handiz erantzun ohi dituzte inkestako galderak, baina beste batzuek ez hainbeste; horregatik, komeni da zenbait kontu berriemaile bati baino gehiagori galdetzea, datuak egiaztatu aldera. Alabaina, datuak egiaztatu baino gehiago, korapilatu egiten dira batzuetan: *igo* edo *igen* bildu nahian genbiltzala, Berueteko berriemaile batek *io* eman zigun saio batean. Beste saio batean, aldiz, *ian* eman zigun. Beste beruetar bati galdetu eta *iyo* eman zigun; guk *iyen* proposatu, eta baiezkoa eman zigun. Zein ote da Berueteko aldaera? *ian* bada Basaburu

Nagusiko beste herri batzuetan, eta *io* ondoko Larraunen; beraz, bata zein bestea espero izatekoa litzateke Berueten. Baliteke, bestalde, bi formak erabiltzea, edo bietako bat berriki sartutakoa izatea. Etxaidek, hain zuzen, *iyán* bildu zuen (1989: 280-281), eta baliteke *io* geroago sartu izana. Gerora ere galdezka ibili gara, baina ez dugu ondorio garbirik ateratzea lortu.

Halako zalantzak argitzeko, kontrol-taldea erabili ohi da. Herri-hizkeren gainean gutxieneko kontzientzia eta ezaupidea duten pertsonak osatzen dute kontrol-taldea. Gure eremuan ere osatu dugu halako talde bat, eta laguntza handia eman digute berriemaileekin harremanetan jartzeko eta zenbait zalantza argitzeko. Jakina, herri guztietan ez da posible izaten lan hori betetzeko prest dagoen pertsonarik bilatzea. Gure eremuan, honako hauek osatu dute kontrol-taldea: Manoli, Txuri, Maxux eta Mikel Ollo anai-arrebak (Goldaratz), Sagrario Aleman (Etxaleku), Bea Dorai (Imotz eta Basaburu Nagusia), Maria Jesus Arraztio (Iribas), Maite Saralegi (Baraibar), Garbiñe Bernal (Gorriti), Juantxo Zabalo (Azpirotz), Maria Estanga (Gaintza), Izaskun Ezkurdia (Uztegi), Koldo Apalauza (Betelu), Kontxi Arraztio (Betelu).

Berriemaileekiko elkarrizketa bideratuak zein hizkuntza-inkestak grabatuta gelditu dira kasu gehienetan; aldiren batean, berriemaileak ez grabatzeko eskatu digu, eta guk haren hitza errespetatu dugu (cf. Camino 2009a: 287). Grabazioak onura asko ekarri dizkio hizkeren gaineko ikerketari, baina datu-biltzailearen belarria da lanabesik eraginkorra (Alvar 1983: 92):

Los aparatos aportan posibilidades de trabajo que la encuesta directa no puede ni soñar (conservación de la voz, utilización de la cinta en procedimientos experimentales, repetición, etc.), pero conviene no caer en el espejismo de que sólo los aparatos nos permiten un trabajo veraz. Porque, en la transcripción, la vista colabora con el oído y el aparato será un efficacísimo colaborador, pero no creo que pueda sustituir totalmente a la actividad del explorador.

Izan ere, grabazioak behin eta berriz entzun daitezke, eta abantaila eta berme handia da hori. Nolanahi ere, guk saio guzti-guztietan izan dugu koadernoan aldean, eta ahalik eta ohar gehien jaso dugu idatziz. Grabazioan, gainera, ñabardura asko galtzen dira (keinuak, jarrerak, zenbait jokaera...), eta xehetasun horiek oso lagungarriak izan daitezke berriemailea esaten ari dena ongi ulertzeko eta interpretatzeko.

Baina beste saio asko grabatu gabe gelditu dira. Elkarrizketa bideratua eta inkestak aipatu ditugu orain arte, baina behaketa parte-hartzailearen bidez ere datu asko eskuratu dugu (cf. Camino 1997: 58). Alegia, kalean edo etxean, besterik gabe honetaz eta hartaz mintzatuz, ordu asko igaro dugu gure eremuko herrietan; batzuetan, hizkuntza-gaiak hizpide hartuta, baina baita beste edozein gai ere. Ez dugu beti-beti koadernoan esku artean izan, baina berri asko jaso dugu hango jendearekin hitz egin bidenabar.

Elkarrizketa eta inkesta gehienak bakarka egin ditugu; nahiz eta berriemailearen ezkontidea edota familiako kideren bat ere saioan gurekin egon, berriemaile bakarrarekin osatu ditugu elkarrizketa eta inkesta gehienak. Batzuetan, baina, binakako eta taldekako saioak ere egin ditugu. Halako saioek badituzte bakarkako saioek ez dituzten zenbait abantaila. Oro har, ohikoan elkarrekin hitz egiten duten bi pertsona edo gehiago elkartzean, egoera naturalagoa sortzen da, eta datu-biltzailearen eta berriemaile bakarraren arteko topaketan ateratzen ez diren hizkuntza-ezaugarriak atera daitezke; hiketa, adibidez⁶³. Gainera, inkesta bidezko galderetan, eztabaida sor daiteke berriemaileen artean, eta oso datu interesgarriak lor daitezke. Berriemaileak segurtasun handiagoa senti dezake ondoan beraren erkidegoko beste berriemaile bat(zuk) izanez gero, baina halaber gerta daiteke berriemaileetako batek rol nagusia hartzea, eta bestea(k) itzalpean geratzea; horixe gertatu zitzaigun, hain zuzen, Larraungo herri batean binaka egindako saio batean. Binakako saioak honako herri hauetan egin ditugu: Erason, Etxalekun, Goldaratzen, Urritzan, Muskitzen, Ihabenen, Berueten, Orokietan, Oderitzen, Iribasen, Albiasun, Azpirotzen, Errazkinen, Betelun, Arriben, Gaintzan eta Azkaraten. Taldeka, berriz, Goldaratzen, Berueten eta Aldatzen bildu gara. Berueteko talde-saioetan, igoar batek eta bi beruetarrek parte hartu zuten, eta Aldazkoetan, aldiz, sei aldaztarrek, arrarastar batek eta baraibartar batek. Berriemaile guztiak herri berekoak ez izanik, oso saio aberasgarriak izan dira guztiok, maiz atera baitira hizpidera herrien arteko desberdintasunak (*guk Igoan ola esaten duu, eta emen Biutan ala*, eta abar) eta berriemaileen oharmenaren araberako ezaugarriak.

Berriemailearen etxean egin ditugu elkarrizketa eta inkesta gehienak; salbuespen dira Aldazko talde-saioak, herriko elkartean egon baiginen; Orokietako saioak, herriko ostatuan bildu baiginen, eta Beteluko beste bi berriemailekiko saioak, herriko elkartean bildu baikinaren berek hala eskatuta. Berriemailea eroso sentitzen da bere etxean; zalantzarik gabe, etxea da berriemaileekin biltzeko

⁶³ Nolanahi ere, bakarkako saioetan ere hiketa erabiltzen dute zenbait hiztunek gurekiko harremanean.

tokirik egokiena (Montes Giraldo 1970: 98), edo, bestela, berriemailearen hizkeraren ingurunerik jatorrizkoena bilatu behar da (Camino 2009a: 300).

Azkenik, saioen iraupenari dagokionez, denetatik izan dugu. Berriemaile batzuk nekaezinak dira, eta prest egoten dira bi edo hiru orduko saioak egiteko. Berriemaile batzuekin goiz edo arratsalde oso-osoak igaro ditugu; saioa bukatu eta gero, gainera, beren etxean bazkaltzera edo merendua hartzera gonbidatu gaituzte kasu askotan. Beste batzuk, ordea, lehenago nekatzen dira, eta datu-biltzaileak erne ibili behar du, ez baita zuzena berriemailea gehiegi nekatzea. Hobe da betiere saioa garaiz eta ongi bukatzea, ezen ez hiztuna gure galderekin gogaitzea. Espero ez ditugun egoerak ere sortzen dira. Behin, Arrarasko berriemaile batekin hizketan ari ginen haren etxean. Saioa ongi zihoan, baina, bat-batean, berriemaileak mikrofonoa kendu, aulkitik altxatu, *ardik atea bearrak dauzkit* esan, eta sukaldetik alde egin zuen. Gure trasteak jaso, eta haren atzetik atera ginen; eskerrak eman genizkion, eta hark beste egun batean etortzeko esan zigun. Beldur ginen ez ote zuen gutaz deus ere jakin nahi izango aurrerantzean, baina gerora ere beso zabalik hartu gaitu beti. Behin baino gehiagotan gertatu zaigun gauza bat da, berriemailearekin bilduta egon, haren bilobaren bat edo senideren bat azaldu, eta berriemailea gutaz guztiz ahaztea. Halakoetan, hobe izaten da saioa bukatutzat eman, eta beste baterako uztea. Basaburu Nagusiko herri batean, hiruzpalau saio egin genituen hiztun batekin (lehendik ere ezaguna genuen, gainera), baina handik aurrera gehiago ez joateko eskatu zigun haren ezkontideak. Azken batean, interesik ez duenak traba gehiago jartzen du beti, eta interesa baduenak, berriz, guk eskatzen dioguna baino gehiago ematen du maiz.

6. IRIZPIDE METODOLOGIKOAK

6.1. Hizkuntza-ezaugarriak aukeratu beharra

Lan zientifiko orok du lanerako irizpideak eta metodologia finkatu eta azaldu beharra, eta hala da dialektologian ere. Hain zuzen, dialektologiaren oinarri teorikoen faltaz jardun zuen Mitxelenak 70eko hamarkadan (1976a: 319):

Con todo, y aunque sería insensato negar que todo esto ha supuesto un progreso inmenso en las técnicas de encuesta, tanto por lo que se refiere a la recogida como a la representación gráfica de los materiales, uno se atrevería a afirmar que las bases teóricas de la dialectología no han mejorado, ni mucho menos, en la misma medida. Así no se está hoy más cerca que hace cien años por lo que respecta a la definición y medida de la divergencia dialectal: y, sin embargo, existe hace ya mucho tiempo una noción precisa de distancia que podría muy bien, con las adaptaciones necesarias, ser empleada en lingüística. No hay mayor acuerdo acerca de los hechos fundamentales en la fijación de convergencias y divergencias entre variedades: se emplean, en realidad, aquellos criterios que en la práctica se han demostrado más manejables, que no son necesariamente los mejores en teoría. Se sigue discutiendo sobre el papel que corresponde a la herencia y a la afinidad, sobre si desarrollos similares — innovaciones comunes— son en realidad el mismo o son independientes. No se ha adelantado gran cosa en cuanto al perfeccionamiento de los criterios que permitan distinguir subgrupos dentro de grupos cuando, aunque el campo no es de los mejor trabajados, todos siguen aceptando, con retoques mínimos, la clasificación de los dialectos vascos establecida por Bonaparte, mucho antes de Gilliéron, etc., y no precisamente con los mismos criterios que luego se han empleado en dialectología románica o germánica.

Ordutik hona, asko aurreratu da euskal dialektologian, eta gaur egungo lanetan gero eta ohikoagoa da irizpide metodologikoei eta alderdi teorikoei buruzko argibideak aurkitzea. Batez ere azken urteotan jorratua da gai hori, eta Iñaki Camino eta Koldo Zuazo nabarmendu dira batik bat. Horrek ez du esan nahi gainerako ikertzaileek irizpiderik erabiltzen ez dutenik; Caminoren hitzetan, “besterik da, gero, inplizituak izan daitezkeen irizpide horiek, bere lanean argi eta garbi aurkeztu gabe isilpean estali diren, baina horrek ez du esan nahi, lanaren funtsean irizpide horiek falta direnik edo abian jarrarazi ez direnik (...). Irizpideak badaude, erabiltzen dira, ikerketa batzuetan beste batzuetan baino egokiago, azterketa batzuetan beste batzuetan baino esplizituago, baina badaude: azalean ez baldin badaude, sakonean bederen bai” (2004a: 73).

Izan ere, intuitiboki, maiz aipatu ohi da dialektoen arteko hizkuntza-desberdintasunak ahulagoak edo indartsuagoak direla, baina hori frogatzeko eta balioesteko teknika objektiboen faltan gaude (Ivić 1962: 39).

Orain arteko ikerketa gehienetan, Euskal Herrian bederen, dialektologiaren irizpide metodologikoak aipatzen dituztenek datu-biltzeari buruzko irizpideak azaldu ohi dituzte: berriemailea, datu-biltzailea, datuak biltzeko teknikak, eta abar (ikus tesi honen 5. atala). Horrez gain, dialektologiaren alderdi teorikoak ere lantzen dituzte: dialektoa, azpidialektoa, isoglosa, dialektoen arteko mugak, dialektoak eratzeko prozesua, eta abar (ikus tesi honen 4. atala). Baina gutxitan azaltzen dute zeren arabera hautatzen dituzten hizkerak edo dialektoak definitzeko hizkuntza-ezaugarriak; zorionez, horretan ere aurrera egiten ari gara, arlo horretan ekarpen handia egin baitute arestian aipatutako Camino eta Zuazo ikertzaileek.

Izan ere, dialektologian, hizkuntza-ezaugarri guztiek ez dute balio edo garrantzi bera, eta dialektologialariak ongi erabaki beharra du zein ezaugarri erabiliko duen lanerako (Camino 2005b: 529):

Datu ugari bildu ohi da eta datu horiek irizpide ugariaren arabera bana daitezke: ezaugarri batzuk berrikuntzak dira, beste batzuk hautuak eta beste batzuk arkaismoak. Ezaugarrietan, lehen esan dugun bezala, batzuk garaikideak dira eta beste batzuk bospasei mende zaharragoak; berebat, ezaugarri batzuk eskualde batekoak dira bakarrik, hori dute beren muga, baina beste batzuk dialekto baten eremu guztira hedatzen dira eta beste batzuek, dialektoen mugak gainditzen dituzte, eremu zabalak harrapaturik. Sistematikotasunari dagokionez, hizkuntzaren gramatikaren eta egituraren barrenean ezaugarri batzuek duten sakontasuna eta inplikazioa handia da, fonologiako, morfologiako edo sintaxiko arauak eratzen dituztelako; hitz edo aldaera soil batek ez du araurik eratzen, ez dago sistemarekiko horren loturik. Badira, gainera, eguneroko mintzoan etengabe ageri eta errepikatzen diren osagaiak eta badira beste batzuk, inoizka besterik entzuten ez ditugunak. Gehiago dena, eta dialektometriaz arduratzen direnek diotena diotela, ezaugarri batzuek muga lektalak eratzen dituzte, desberdintasunak finkatzeko ahala eta gaitasuna dute eta beste batzuek ez: areago geografia-eskualde batera edo muga inguru batera ezaugarri ugari elkarrengana biltzen direnean; dialektologia tradizionalak gune horretan dialekto muga bat ikusteko ohitura du.

Uler dezakegunez, ezaugarrien izaeraren eta eremu dialektalen tipologia hauen aitzinean, dialektologialaria hautuak egitera beharturik dago eta erabaki bat baino gehiago hartu beharko du: datu guztien artean lanerako batzuk besteen aitzinetik ezarriko ditu, batzuk ia ez ditu aintzat hartuko eta beste batzuk garrantzi handikotzat joko ditu; zer hartu eta zer baztertu, hartzen denaren artetik zeri garrantzi

gehien eman eta zeri gutiago, dialektologian tradizio eta prestakuntza handia dagoen herrialdeetan hobeki jakin ohi da gurea bezalakoetan baino.

Mitxelenak zera erakutsi zuen Erronkariko eta Zaraitzuko euskara alderatzeko egin zuen saio batean (1964a: 51-58): lanerako erabiltzen ditugun irizpideen arabera, hizkuntza-ezaugarri batzuei edo beste batzuei ematen diegu lehentasuna, eta horrek hizkeren gaineko ikuspegi desberdinak sor ditzake. Hala, Bonapartek ezaugarri jakin batzuk lehenetsi zituen erronkaria aztertzeke, eta Zuberoarekin batera kokatu zuen; Mitxelenak, berriz, Zaraitzurekin lotuago zekusan Erronkari, bai baitago bi ibarrok partekatzen duten berrikuntza multzo bat. Ondorioa garbia da: “Todo depende de los rasgos lingüísticos, de las isoglosas, a los que se quiera atribuir, por simple comodidad o por otras razones, una precedencia sobre otros” (Mitxelena 1964a: 31). Horregatik da hain garrantzitsua lanerako irizpideak aldeztatik finkatzea.

Hizkuntza-ezaugarriak eta isoglosak daude dialektologiaren oinarrian, eta halakoen bila jo ohi du dialektologialariak. Caminoren arabera, dialektologialariaren lehen egin beharra da ezaugarriak biltzea, antolatzea eta ezaugarriok geografia-mugen arabera sailkatzea; ondoren, datuak balioetsi eta ponderatu behar dira (2004a: 81). Hizkera bat aztertzen hasten garenean, ezaugarri asko ibili ohi ditugu esku artean, eta, jakina, denek ez dute ez garrantzi bera, ez hedadura geografiko bera. 4.2.1. atalean ikusi dugunez, isoglosa bakoitzak bere eremua izan ohi du, eta horrek dialektologialariaren lana zaildu egiten du maiz. Zailtasun hori areagotu egiten da erdiguneko eremuetan —isoglosa ugari eta zeinahi bere gisara ageri diren eremuetan, alegia—; horregatik, inon baino beharrezkoago suertatzen da isoglosak mailakatzea eta balioestea (Camino 2003a: 68):

Hizkuntza-eremu bateko ezaugarriek sorta trinkoa eta gotorra osatzen dutenean, auzia ez da zaila izaten trenkatzen, baina eragin lektalak ugari diren erdiguneko hizkeretan, baitezpadakoa da elkartze espazialaren aldetik, hizkuntza-ezaugarriek zein baldintza bete behar dituzten edo ikertzaileak zein irizpideri jarraitu behar dien, aldeztatik jakitea, bai baitirudi frankotan, hizkera berezi bat egiten dela diogun eremuak, muga hautsiak dituela, ez direla ezaugarri guztien mugak ibar beretarik iragaten, bereziki erdiguneko hizkeretan.

Isoglosa guztiek ez dute garrantzi bera: batzuek dialekto bat baino gehiago harrapatzen dituzte, eta eremu zabalak banatzen dituzten isoglosak esanguratsuagoak dira eremu txikiak banatzen dituztenak baino (Coseriu 1977 [1954]: 137-138). Isoglosa batzuk esangura handikoak dira kulturalki, baina ez denak, eta batzuek denboran gehiago irauten dute beste batzuek baino

(Chambers eta Trudgill 1980: 112). Venyren arabera (1991: 205), isoglosak balioesteko, lau alderdiri erreparatu behar zaie: 1) Isoglosek banatzen dituzten ezaugarriak zein maiztasunez ageri diren hizkuntzan, 2) Ezaugarriok nolako desberdintasuna ageri duten hizkuntzan, 3) Ezaugarri fonetikoaren alderdi fisikoa (zenbateraino irekitzen den fonema jakin bat, adibidez), eta 4) Isoglosak harrapatzen duen eremu geografikoa (eremu zabalagoa, garrantzi handiagoa). Lüdtker-k, aldiz, ezaugarri *tribialak* eta *esanguratsuak* bereizi ditu (1977: 155): esate baterako, ezaugarri tribiala edo garrantzi apalekoa da itsasoak banatutako bi eremuren artean isoglosa ugari egotea, eta, aitzitik, esanguratsua da oztopo geografikorik ez dagoen gunetan isoglosak izatea edota bi eremuk berrikuntza bera partekatzea ageriko arrazoi garbirik egon gabe⁶⁴.

Chambers eta Trudgill ikertzaileek diotenez, dialektologiaren historian inork ez du artean lortu isoglosak balioesteko sistema egokirik ezartzea; saiakerak izan dira⁶⁵, baina guztiek badute hutsuneren bat (1980: 112). Ildo beretik doaz Ivić-en hitzok ere (1962: 48): “... it is not easy to find an appropriate method of evaluating the importance of linguistic features”.

Hain zuzen, hutsune hori betetzen saiatu da dialektometria: formula baten bidez hizkeren arteko distantzia dialektalaren indizea kalkulatzeko datza dialektometriako ikertzaileen lana. 1970. urte aldera sortu zen, eta arloko izen aipagarriak dira Séguy, Goebel, Atwood, Guiter, García Mouton edota Fossat. Euskal Herrian, Aurrekoetxea nabarmendu da dialektometriari (1992, 1995, 2004b). Nolanahi ere, dialektometriaren jardunak zalantza ugari eragiten du hizkuntzalarien artean, emaitzak ez baitira guztiz fidagarriak, eta eredu matematikoa hotz gertatzen baita dialektologiaz aritzeko.

Bestalde, isoglosak mugitu edota desagertu egin daitezke denboraren joanean. Horrenbestez, ezaugarri zaharrek eta berriek batera iraun dezakete hizkera jakin batean epe jakin batean, prozesu baten baitan ulertu behar baita aldaketa; ez dago bat-bateko aldaketarik. Ildo horretatik, Ibarrek Erroibarko eta Ultzamako testu zaharrak aztertuz egindako lan batean ondorioztatu du behinola hizkera horietan ohikoak ziren zenbait ezaugarri desagertuak direla edo desagertzeko bidean direla

⁶⁴ Portugalen, esate baterako, berrikuntza bera aurki daiteke itsasoaz haraindiko hizkuntza-eremuetan eta Portugalgo erdialde-mendebalean; halakoak ez dira zoriz gertatzen, eta, Lüdtker dioenez, bi eremuotan Portugalgo hiriburuak izan duen garrantziak eragin du egoera hori.

⁶⁵ Besteak beste, isoglosen kategoria estrukturalak ezartzeko saioak edota lexikoaren distribuzioari buruzkoak (Chambers eta Trudgill 1980: 112-116, 116-120).

gaur egungo mintzotik, hala nola osagarri zuzena genitiboan erabiltzea, ergatibo pluraleko *-ek* morfema edota *x-* ebakera (2003: 351-357).

Euskal Herrian, hizkuntza-ezaugarriak aukeratzeko bi eredu nagusi aipa daitezke (Aurrekoetxearen ekarria alde batera utzita): Zuazorena eta Caminorena. 1998an Euskal Herri osoko euskalkiak sailkatzeko egindako lanean, Zuazok adierazi zuen berrikuntzak direla dialektologiaren oinarri (1998a: 192), eta, hala, hautuak eta arkaismoak baztertu, eta soilik berrikuntzak kontuan hartuta lan egin du harrezkero (nahiz hautuak ere aipatzen dituen tarteka). Haren ustez, berrikuntzek hiru baldintza bete behar dituzte: hedadura zabala izan behar dute, emankorrak izan behar dute (alegia, maiztasunez eta erregularitasunez erabiliak), eta gaur egun bizirik egon behar dute (alegia, adinekoen zein gazteen mintzoetan bizirik).

Geroagoko lanetan ere sistema berari jarraitu dio Zuazok (2003: 17-21), baina beste bereizkuntza bat ere egin du 2006ko eta 2008ko lanetan. Hain zuzen, Deba ibarreko euskara aztertu du 2006an, eta Euskal Herri osorako irizpideak proposatu ditu (102-114): berrikuntzak dira dialektologiaren ardatza eta muina, baina berrikuntzek emankorrak eta garaian garaikoak izan behar dute. Baina, irizpide nagusi horiez gain, beste bereizkuntza bat ere badakar (52-56): batetik, arauak eta bitxikeriak bereizten ditu; bestetik, arau emankorrak eta ihartuak, eta, azkenik, garatu gabeko arauak. Deba ibarreko euskararen berri emateko, berrikuntza emankorrak eta sistematikoak erabili ditu batik bat, baina garatu gabeko arauak zein diren ere azaldu du, betiere guztiok bereizirik. 2008an, Euskal Herriko hizkerak sailkatzeari ekin dio berriz, eta ezaugarriak lau multzotan banatu ditu (18-22): 1) Arauak (bizirik daudenak arau emankorrak dira, eta gainerakoak arau ihartuak), 2) Garatu gabeko arauak (ez dira beti edo maiz gauzaten, eta ez dira emankorrak), 3) Aldaerak (zenbait hitz paretan gertatzen dira), eta 4) Bazterreko gertakariak (oraintsu samarrekoak dira, han-hemenka sortuak, eremu finkorik osatu gabe). Ohi duen bezala, bizirik dauden arau emankor eta sistematikoekin lan egin du batez ere, baina garatu gabeko arauak eta aldaerak ere aintzat hartu ditu zenbait kasutan.

Caminok sakonago eta zehatzago aztertu du gaia (ikus, batez ere, 2003a, 2004a, 2008a eta 2009a). Hark erakutsi duenez, hizkuntza-ezaugarriak sei irizpide nagusiren arabera sailka daitezke (2004a: 76-78): 1) Ezaugarrien eksklusibotasuna, 2) Geografiaren iragazkia, 3) Ezaugarrien hedaduraren zabaltasuna, 4) Ezaugarriak berrikuntzak, arkaismoak ala hautuak diren,

5) Kronologiaren baldintza, eta 6) Ezaugarrien sistematikotasuna. Haren hitzetan, dialekto bat ongien ordezkaten duten ezaugarriak dira “esklusiboak, bateratzaileak, sistematikoak eta garaikideak diren berrikuntzak” (2004a: 81), baina eremu guztietan ez da aise baldintza horiek betetzen dituzten ezaugarriak aurkitzea. Erdigunean kokatutako hizkeretan, esate baterako, zail da isoglosa sail finkorik hautematea; konbergentzia handiko eremuak izan ohi dira erdigunekoak (ertzetakoak ez bezala), eta irizpideak malgutzeak asko laguntzen du hizkera horiek aztertzeke orduan. Caminok ohartarazi du ezin erabili dugula metodologia bera dialekto dibergenteak eta dialekto konbergenteak aztertzeke, eta ezaugarrien konbinazioari erreparatzea proposatu du dialekto konbergenteak aztertzeke (2004a: 83):

Metodologiaren eta teknikaren aldetik, bestalde, dialekto dibergenteak eta konbergenteak desberdin aztertzea eskatzen ote du honek? Ez da gauza bera erdialdeko hizkerak aztertzea edo nortasun handiko ertzetako hizkerak aztertzea; metodologia bera erabil ote daiteke? Hizkuntza-ezaugarri eksklusiboen metodologia, ala ezaugarrien konbinazioarena ote da egokiagoa erdialdeko hizkerak aztertzeke? Ezaugarrien konbinazioaz dihardugunean, dialekto bat irudikatzeke edo definitzeke, ezaugarri guztiak eksklusiboak izatea ez da nahitaezkoa, ezaugarri eksklusibo batzuk eta eksklusiboak ez diren beste batzuk izan daitezke ezaugarri definitzaileak; metodologia honetan, eksklusibitatea ezaugarriek eratzen duten konbinazio jakin bati dagokio, ez lanerako hautatu diren ezaugarriek bakarrik. Lan egiteko beste molde bat da, dialektoak elkarrengandik banatzeko garrantzitsutzat jotzen diren hizkuntza-ezaugarrien konbinazioak bilatzen dira.

Hala, hego-nafarrera azpieuskalkia definitzeke, bost ezaugarri eksklusibo bateratzaile eman ditu Caminok (2003a: 65-68), baina, horiez gain, ia eksklusiboak diren beste sei ezaugarri bateratzaile ere badakartza (2003a: 68-70). Ondoren, beste ezaugarri batzuen berri eman du: ezaugarri pasiboak dira batzuk, banatzaileak beste batzuk, arkaismoak ere badira, eremu zabalagoan erabiltzen direnak ere aipatzen ditu, eta abar (2003a: 71-90). Guztiok konbinaturik egituratu da hego-nafarrera; ezaugarri eksklusibo bakan ageri da azpieuskalki horretan; baina, eksklusiboak direnak eksklusiboak ez direnekin eta beste baldintza batzuetan sortu diren beste batzuekin nahasirik —alegia, ezaugarriak modu eksklusibo batean konbinaturik—, hego-nafarrera deritzan azpieuskalkia taxutu da.

Ezaugarrien konbinazioari erreparatu dio, halaber, Nuño Álvarez ikertzaileak Espainiako Kantabriako hizkera aztertzeke: hark dioenez, Kantabriako kontsonanteetan eragiten duten bilakabideak ez dira hango eksklusiboak, gaztelania arruntean edota inguruko mintzoetan —mintzo

asturleondarretan batez ere— ere ageri baitira, baina kontsonanteen hango eta hemengo ezaugarriak batera biltzen dira Kantabrian, eta ezaugarrien konbinazio horrek nortasuna ematen dio hango mintzoari (1996: 186).

6.1.1. Berrikuntzez, arkaismoez eta hautuez

Dialektoak definitzeko ezaugarri egokienak, beraz, berrikuntza sistematikoak dira; horretan ados dira ikertzaile gehienak. Baina, horren harira, zenbait galdera datozkigu burura: Berrikuntza sistematiko ez diren ezaugarri guzti-guztiak al dira dialektologiako azterketa batetik baztertzeoak? Maila berean ote daude berrikuntza guztiak?

Hain zuzen, galdera horiek guztiak eta beste hainbat erantzuteko asmoz, lan mamitsu bat argitaratu du Caminok 2008an: aurreko urteetan esandakoa berretsiz eta indartuz, hizkuntza-ezaugarrien gaiari ikuspegi kronologikotik heldu dio (2008a; ikus, halaber, 2009a: 388-419). Haren arabera, berrikuntza sistematikoak hartu behar dira lan dialektologikoaren oinarritzat (2008a: 240), baina gainerako ezaugarriak ere aintzat hartzeoak dira, baldin eta ezaugarriok berrikuntza sistematikoen ondoan jarrita koherentzia geolinguistikoa gordetzen badute (2008a: 240, 241):

Gure ustean, geolinguistikoki aberats eta adierazgarri diren zenbait ezaugarri ez dira besterik gabe baztertzeoak “ez guztiz sistematikoak” eta “ez guztiz berriak” izateagatik, guk aintzat hartzen ditugu ezaugarri horiek ere, espazio linguistikoa den bezala itxuratzen, eratzen eta osatzen lagundu dutelako.

(...)

Gerta liteke, bestalde, zail izatea eskualde batean banaketa geolinguistikoa soilik ezaugarri berri eta sistematikoen arabera finkatzea, horren ugari ez direlako. Baina “ez guztiz sistematikoak” eta “ez guztiz berriak” diren ezaugarri batzuk eremu koherentetzat har ditzakegun alderdi batzuetara biltzen badira, eta hain zuzen ere, sistematikoak eta berriak diren beste ezaugarri bakan batzuekin alderdi horietara biltzen badira, ez da gure asmoa ezaugarri horiei ezikusiarrena egitea.

Beraz, zilegi da berrikuntza sistematiko partekatuez gain beste berrikuntza mota batzuk ere aintzat hartzea, hala nola berrikuntza negatiboak (Camino 2008a: 216-217), eta baita hautuak edota arkaismoak ere (Camino 2008a: 226-232, 232-239).

Idea bertsua dakar Watkins-ek ere (Lakarra 1996: 196 lanean aipatua); alegia, berrikuntza partekatuek garrantzi handia dute hizkuntzalaritzan, baina ezaugarri gordeak edo arkaismoak ere

hizkeren egitura sinkronikoaren atal dira, eta dialektologian aintzat hartzekoak dira horrenbestez (1966: 30):

The common innovation is so firmly anchored in traditional linguistic thinking that the question its utility smacks of *lèse majesté* (...). But one may be permitted to suggest that it is overemphasized. For to consider common innovations alone in subgrouping, and to ignore common retentions, is possible only if we consider language as a mechanical sum of linguistic features, some of which “change” and some of which do not —the atomistic view of the neogrammarians. It is inconsistent with the concept of language as a structured system, and of linguistic history as a succession of systems. At any given stage of a given language, retentions and innovations are part of the same synchronic structure. If two languages agree in maintaining the productivity of a given structural feature, rather than replacing it by something else, we may well have in this retention a primary dialectal datum.

Bestalde, berrikuntza guztiak ez daude maila berean. Esate baterako, badira antzina euskalki guztietara hedatutako berrikuntzak, hala nola artikulua, historiaurrean sortu baitzen, eta euskalki guztietara zabaldu baitzen, nahiz baden aldea hizkeratik hizkerara (erronkarieraz, esate baterako, *etxera* eta *etxeara* bereizten dituzte, ikus Manterola 2006: 667-668)⁶⁶; beste berrikuntza batzuk, ordea, euskalki edo hizkera bakar batzuetan gauzatu dira, testuak aztertuz ondoriozta daitekeenez (Lakarra 1996: 154-155 eta 1986: 668-669). Berrikuntza baterakideak edo partekatuak, eta berrikuntza bereizleak edo partikularrak bereizi behar dira, beraz.

Berrikuntzen antzinatasuna kontuan hartzekoa da. Ildo horretatik, goi- nafarrera zaharra (XVI-XVII. mendeak) eta goi- nafarrera klasikoa (XVIII-XIX. mendeak) aztertu ditu Aldaik, eta haren ondorio nagusia da goi- nafarrera klasikoan ageri diren berrikuntza gehienak oso berriak direla, XVI-XVII. mendeetatik aurrera sortuak diren heinean (1999a: 264). Aldaik berrikuntza modernoak eta berrikuntza zaharrak bereizi ditu, eta zalantzazko zenbait kasuren berri ere eman du, beti ez baita erraza izaten testuetatik abiatuta berrikuntzak noizkoak diren ebaztea (1999a).

Berrikuntza guztiek, gainera, ez dute aurrera egiten. Hala, aski ezaugarri berria da batez ere Gipuzkoako hizkeretan gauzatu den *f* > *p* kontsonante-aldaketa, aztergai dugun eremuan ere badena (cf. 8.2.4.), baina gaur egun ez da ezaugarri emankorra, hitz jakin batzuetan baizik ez baita garatu. Halako kontuak ere aintzat hartu beharrak dira dialektologian.

⁶⁶ Manterolaren ondorioen arabera, mendebaletik ekialdera zabaldu zen euskarazko artikulua (2006).

Gerta daiteke, bestalde, berrikuntza zahar bat galtzea, baina berrikuntza bera beste ingurune morfologiko edo fonologiko batzuetan agertzea geroago. Esate baterako, hasperena galtzearen ondorioz sortuak dira bokal geminatuak euskal hizkera askotan, baina bokal geminatuak soiltzera egin dute oro har hizkera gehienetan (horra, bide batez, beste berrikuntza bat; bokalak soiltzea, alegia); alabaina, bokal arteko kontsonanteak galtzearen ondorioz ere bokal geminatuak sortu dira, berrikiago, zenbait hizkeratan. Beraz, aspaldiko berrikuntza ditugu hasperena galtzearen ondorioz sortutako bokal geminatuak, baina berriagoak dira bokal arteko kontsonantea galtzearen ondoriozkoak (cf. 8.1.1.). Halako kontuak ongi bereizi beharrak dira dialektologian.

Berrikuntzak hedatzeko bi modu bereizten dira: batetik, berrikuntzak gune fokal batetik abia daitezke gainerako guneetara, baina halaber gerta daiteke hizkuntza-sistemaren barreneko arrazoiak direla-eta berrikuntza bera hainbat lekutan eta hainbat garaitan agertzea (Bergs 2006: 5-6):

... innovations do not occur simultaneously in a number of places, or even across whole landscapes. Rather, what we expect are more or less precisely localizable centers of origin for one or the other linguistic form. It is from these centers of origin that linguistic forms diffuse into other places, such as the surrounding countryside. Note, however, that this scenario is not the only possible one: H. Andersen has also suggested a pattern of *spread without diffusion*, in which linguistic forms may arise independently of each other for system-internal reasons at different places and at different times.

Berrikuntzak gune batetik beste batzuetara zabaltzen direnean, bi egoera suerta daitezke: erregulariki eta uhin baten gisan heda daitezke berrikuntzak (*wave-like spread*), edota hirigune batetik bestera jauzi egin dezakete denboran zehar (*city-hopping pattern*), eta gero eskualde batean barrena hedatu modu erregularragoan (Bergs 2006: 8).

Aitzitik, ez da hain erraza azaltzea zergatik edo zer dela-eta ageri den berrikuntza bera hizkuntza-eremu bateko bi lekutan (edo gehiagotan); alegia, ez dago guztiz garbi ea berrikuntzon artean loturarik ba ote den. Garai berean sortuak ote dira halako berrikuntzok, ala zein bere aldetik sortu ote da? Várvaro ikertzailearen hitzok ederki laburbiltzen dute arazoa (1995: 37):

Si aquest fenomen es produeix en un sol punt o en una àrea compacta, no trobarem dificultats per parlar de monogènesi, si, al contrari, es realitza en punts diversos o en àrees discontinues ens trobarem amb l'obstacle de decidir si es tracta de fenòmens paral·lels, però autònoms, o bé si ha existit una continuïtat, que ara se'ns escapa, entre totes dues àrees.

Beraz, halako egoeretan, bi aukera izan daitezke: alde batetik, baliteke bi tokitan ageri den ezaugarri bat garai batean hizkuntza orokorrean hedatutako ezaugarria izatea eta denborarekin bi tokitan baino ez agertzea; beste alde batetik, baliteke berrikuntza paralelo edo beregainak izatea; alegia, “elkarrekin erlaziorik ez duten bi berrikuntza, berdinak dira, baina ez dira bat eta bera” (Camino 2009a: 395). Kasu batzuetan, gainera, berrikuntza bera ager daiteke bi lekutan, baina ez garai berean, eta berrikuntzaren hedadura aldatu egin daiteke (Meillet 2001 [1924]: 53-54).

Arkaismoez den bezainbatean, esana dugu zenbait ikertzailek ez dietela inongo baliorik ematen dialektologiako ikerketetan. Baina esana dugu, halaber, dialektologiari onura ekar liezaiokeela arkaismoak ere aintzat hartzea, baldin eta arkaismoek eta gainerako ezaugarriek lotura eta koherentzia geolinguistikoari eusten badiote (xehetasun gehiago in Camino 2008a: 232-239 eta 2009a: 410-419)⁶⁷. Gure eremuan, esate baterako, *-da* morfema zaharra erabiltzen dute Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta aukera berriagoak ageri dira, ordea, Larraunen eta Araitz-Betelun (ikus 8.4.1.). Ezaugarri zahar hori Nafarroa Garaiko erdiguneko hizkeretan ageri da; eremu horretan gorde dute morfema zahar hori. Hain zuzen, erdigune horretako hizkerek beste hainbat ezaugarri partekatzen dituzte, berrikuntzak direnak (ikus 9.2.2.), eta gure eremuko zenbait hizkeretan ere badira ezaugarri horietako batzuk; ez dugu zalantzarik eremu horretan sortutako berrikuntzek garrantzi handiagoa dutela eremu horretan gorde dituzten ezaugarriek baino, baina eremua bera da kasu guztietan, eta bada, horrenbestez, lotura geolinguistikoa ezaugarri guztien artean. Gure ustez, *-da* ezaugarri zaharra aintzatestekoa da gure ikerketan, gainerako ezaugarrien ondoan paraturik bai baitu koherentzia geolinguistikoa; ezin ahaztu dugu eskualde jakin bateko euskara definitu nahian gabiltzala, eta, horregatik, ez zaigu iruditzen ezaugarri hori, berrikuntza ez delako, baztertzekoa denik.

Arkaismoez ari garela, beste kontu bati heldu nahi diogu orain. Izan ere, arkaismo guztiak ere ez daude maila berean: badira hizkuntza orokorrean eta dialekto gehienetan galduak diren ezaugarriak, baina dialektoren batean bizirik iraun dutenak; badira han-hemenka zenbait hizkeratan barreiatu ageri diren ezaugarri zaharrak; edota badira adineko hiztunek baizik gordetzen ez dituzten ezaugarriak (cf. Camino 2009a: 411-412).

⁶⁷ Hizkuntzalaritza historikoan ere aintzat hartu ohi dituzte arkaismoak.

Oro har, mintzo batean galduak diren ezaugarriak arkaismotzat jotzen dira, baita ezaugarri horiek berak beste mintzoren batean bizirik direnean ere, baina ongi zehaztu beharra dago zer den ezaugarri bat mintzo batean galdua izatea. Izan ere, zenbait kasutan, gerta daiteke ezaugarri bat galdua izatea hizkera baten hiztun batzuen mintzoan, baina ezaugarri hori bera bizirik egon daiteke hizkera bereko beste hiztun batzuen mintzoan, eta dialektologialariak aldez aurretik erabaki beharko du nola jokatu halako egoeretan. Alegia, ongi bereizi beharrak dira bizirik diren arkaismoak, galtzear diren arkaismoak, edota ezaugarri galduak eta galtzear diren ezaugarriak. Gure ikerketan, ezinbestekotzat jo dugu, ezaugarri bat galdutzat jotzeko, ezaugarri hori hiztun guztiek galdua izatea, edo, gutxienez, ezaugarria galtze bidean izatea. Esate baterako, $a > e$ asimilazioa ageri da *-tan* eta *-tara* atzizkietan gure eremuko zenbait hizkeratan, eta *-tten* eta *-ttea* bilakatu dira (ikus 8.1.3. ataleko f. eta g. azpiatalak), baina asimilatutako formak han-hemenka ageri dira, eta hiztun bakan batzuek —adinekoek, gehienetan— erabiltzen dituzte soilik, era ez sistematikoan eta asimilatu gabeko formekin txandaka, gainera. Halako atzizki asimilatuek ez dute ia indarririk gure eremuan, eta galtze bidean dira gaur egungo mintzoan; baliteke, ordea, aurreko urteetan ere ezaugarri ahula izatea gure eremuan —alegia, sendo iraun ez duen berrikuntza bat izatea—. Nolanahi ere den, halako ezaugarriak galdutakotzat edo galtzear diren ezaugarritzat joko ditugu.

Antzekoa gertatzen da Larraungo mendebalean instrumentaleko *-s* morfemarekin: adinekoek *-z* morfemarekin txandaka erabiltzen dute Uitzin, Gorritin eta Azpirotzen, eta *-z* ia gailendu egin zaio *-s*-ri Errazkinen. Haien mugetan, *-z* ageri da osotara Leitzan, Areson eta Araitz-Betelun, eta *-s*, aldiz, ekialderagoko hizkeretan. Ziur asko, *-s* hedatuagoa zatekeen garai batean, baina *-z* nagusituz joan da (ikus 8.3.5.). Ezbairik gabe, *-s* galtze bidean da Larraungo mendebalean.

Besterik da arau estandarraren eraginez ezaugarri dialektalak galtzea. Esate baterako, erdal *-on* atzizkiak *-on* eman du Imotzen eta Basaburu Nagusian, baina zenbait gaztek *-oi* ere erabiltzen dute, euskara batutik ikasirik (ikus 8.3.15.). Baina hortik ezin ondorioztatu dugu *-on* galtzen ari denik, mintzo horietako hiztun gehien-gehienek —baita gazte batzuek ere— baliatzen baitute. Imotzen eta Basaburu Nagusian, galtze bidean dira herri-hizkerak, gaztelaniaren eta euskara batuaren eraginez batez ere, baina halako gertaerak ezin hartu ditugu oinarritzat dialektologian, beste iker-eremu bati dagokion auzia baita (cf. 5.2.2.).

Azkenik, hautuei edo ezaugarri hautatuei dagokienez, “dialekto zenbaitek historiaren garai jakin batean hartu-eman dutela jabetzeko” balio dezakete, eta garbi dago “harreman geografikoa duten dialektoen artean hautu zenbait partekatzeak hartu-eman sozio-historikoa salatzen duela eta hau dialektologian aintzat hartu behar dela, batez ere dialektoen sailkapena egitean hizkuntza batuagoaren banaketa-garaiari horrenbeste begiratzen ez bazaio edo ezin begiratu bazaio” (Camino 2008a: 231, 232, cf. Camino 2009a: 403-410). Hain zuzen, hainbat alditan ikusiko dugu gure eremua bera hautuek zatikaturik: *-en / -go* geroaldiko morfemak, destinatiboko *-tako / -tzat* morfemak, *onata / onutza* erakusleak, eta abar. Ezaugarrien hedadura eta banaketa geografikoa gainerako ezaugarrien ondoan jarririk, koherentzia eta jarraitutasuna badela ohartuko gara; alegia, hautuok dakarten banaketa geografikoa bat dator beste ezaugarri batzuen banaketa geografikoarekin, eta, horrenbestez, hizkeren arteko harremanen nondik-norakoen berri eman dezakete. Areago, gure eremuko hizkeren sailkapenari begira hautuek garrantzi handia dutela ikusiko dugu (ikus, batez ere, 10.3. eta 10.4.).

6.1.2. Gure eremua aztertzeo metodologia egokiena

Gure eremuko hizkeren azterketara etorrita, berrikuntzak hobetsiko ditugu lanerako, Zuazok eta Caminok iradokitzen dutenaren ildotik (azken batean, biek azpimarratu dute berrikuntzak direla dialektologia-lanen oinarri). Baina soilik berrikuntzak baliatzen dituen sistema hertsiegi gertatzen da gure eremua aztertzeo; erdiguneko eremua izanik, alderdi askotako eraginak bildu dira bertan, eta ezaugarri eskusibo urriko eremua da, gainera. Berrikuntza ez diren ezaugarriak baztertuko bagenitu, hankamotz geldituko litzateke gure ikerketa, lanean zehar ikusiko dugunez. Horregatik, berrikuntza partekatuak ez diren zenbait ezaugarri ere aintzatetsiko dugu gure azterketan, gure hizkeren gaineko ikuspegia osatzeko baliagarri diren heinean betiere. Esate baterako, Larraungo mendebalean eta Araitz-Betelun, euskara nafarraren berrikuntza gehienak falta dira, baina ez dago Gipuzkoa aldeko berrikuntza sail nabarmenik ere; baitezpadakoa zaigu, beraz, beste ezaugarri batzuei erreparatzea, hizkeren kokapena zehazteko ahaleginean (ikus 10.3. eta 10.4.).

Dialektologian aski ezezaguna da oraindik ere gure eremuko euskara, eta gure lanaren helburuetako bat da hutsune hori betetzea. Horregatik, lehenik, hango euskararen ezaugarri nagusiak zein diren ikusiko dugu 8. atalean, hizkuntzaren maila guztietan: fonologia (bokalak eta kontsonanteak), izenaren morfologia, aditzaren morfologia, perpausaren morfologia eta lexikoa. Ezaugarri bakoitzaren hedadura geografikoa emango dugu, ezaugarriak gure eremuan banatzaileak

diren edo ez ere adieraziko dugu, eta alderdi diakronikoa ere aintzat hartuko dugu (ikus alderdi diakronikoari buruzko xehetasunak 6.2. atalean). Azken batean, gure eremuko hizkeren deskripzioa emango dugu 8. atalean. Atal hori osatzeko aukeratu ditugun ezaugarriak zeren arabera aukeratu ditugun azalduko dugu orain.

Hizkuntza-ezaugarri baten berri ematean, ezaugarri hori banatzailea edo bateratzailea den bereiziko dugu lehen-lehenik. Zenbait ezaugarri gure eremua banatzen dute; banaketa horren berri emango dugu, herri bakoitzean zein aukera ageri den azalduz, eta ezaugarri bakoitzaren hedadura geografikoa zehazten ahaleginduko gara. Gure eremuan ageri diren ezaugarri gehienak gure eremutik kanpo ere ageri dira, eta komeni da kasu bakoitzean zehaztea ezaugarriak noraino hedatzen diren, hizkeren arteko harremanak definitze aldera. Esate baterako, gure eremua erdiz erdi banatzen du nor-nori-nork saileko pluralgileak: *ttio* erakoak ageri dira Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean (Albiasu barne), eta *dazkio* erakoak, aldiz, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun (ikus 8.4.7.). *-it-* pluralgilea ezaugarri garrantzitsua da, nafarreraren berrikuntzat hartzen baita, duen hedaturagatik. Ezaugarri horrek, beraz, euskara nafarrarekin batera paratzen ditu Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraungo hego-ekialdea, eta beste alde batera, berriz, Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu. Baina xehetasun gehiago ere eman daiteke. Hain zuzen, *-zki-* ageri den hizkeretan bada beste berezitasun bat: *dazkio* adizkian ageri den *-a-* erroa. Inguruko hizkeretan arakaturaz, Leitza eta Areson ere badela ikasi dugu, baina ez da ageri gainerako hizkeretan (Tolosaldeko herrietan, *dizkiot* erabiltzen da). Ereku txikiko ezaugarria dirudi, beraz; sailkapen orokorrari begira, ezin erabili ditugu halako ezaugarriak, baina eremu jakin bati dagokion ezaugarria da, eta, gu eremu hori aztertzen ari garenez, iruditzen zaigu halako datuak datu orokorragoen osagarri izan daitezkeela (izan ere, ezaugarri horrek Leitza-Aresorekin biltzen ditu Araitz-Betelu eta Larraungo mendebala, eta ezaugarri banatzailea da Gipuzkoako hizkerekiko).

Bestalde, badira gure eremuko hizkerak eta ondokoak banatzen dituzten ezaugarri banatzaileak ere. Alegia, ezaugarri bateratzaileak dira gure eremuan, ez baita alderik herri batetik bestera, baina banatzaileak dira ondoko hizkerekiko. Esate baterako, zenbaitetan, Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko mugak ezaugarrien mugarekin bat egiten du; hona zenbait adibide: *gaa / gea*, *dot & dut / det*, *noaie & nie / nioa*, eta abar.

Beste batzuetan, ez dugu halako muga nabarmenik aurkituko; alegia, badira gure eremuan eta haren ingurumarian ageri diren ezaugarri bateratzaileak, eremu zabalxea hartzen dutenak. Ikusi batera, pentsa liteke halako ezaugarriak ez direla oso adierazgarriak dialektologiaren ikuspegitik, baina, zenbait kasutan, interesgarria iruditu zaigu haien berri ematea. Adibidez, *neone* saileko izenordain indartuak erabiltzen dira gure eremu osoan, baita inguruko hizkera gehienetan ere (ikus 8.3.3.). Itxura batean, espero izatekoa zen gure eremuan ere *neone* gisakoak agertzea, baina Basaburu Txikian *neune* eta *neurre* erakoak agertzen hasten dira; inguru hurbilean dator aldaketa, beraz (beste izenordain mota batzuk ageri dira handik iparraldera), eta uste dugu halako datuak ematea interesgarria izan daitekeela, nahiz ez den gure eremuko ezaugarri banatzailea.

Funtsean, beraz, eredu horri jarraituko diogu ezaugarriak aukeratzeko orduan. Baina beste hainbat kontu ere argitu nahi izan dugu 8. atalean. Esate baterako, gure eremuko euskaraz aritzean, hitz hasierako herskari ahoskabe edo ahostunen erabilera aipatu izan dute zenbait ikertzailek; erabilera horren nondik-norakoak aztertu ditugu, eta horri esker ondorioztatu dugu halako ezaugarriek argi gutxi egiten dutela zeregin dialektologikoetan (ikus 8.2.8.).

Batez ere sistematikoki eta erregulariki ageri diren ezaugarriak aintzatetsiko ditugu gure ikerketan, baina hor ere komeni da zenbait kontu argitzea. Izan ere, ezaugarrien berri ematean, maiz ohartuko gara askotan zail dela ezaugarrien erregularitasuna neurtzea. Ezaugarri batzuk guztiz erregularak dira beti; muskiztar batek beti esango du *musker* (eta ez *muskar*), *balkona* erabiliko du beti arruiztarrak (eta ez *balkoi* edo *balkobe*), eta abar. Baina beste kasu batzuetan ez da aise erregularitasunik izatea; igoarrak *euki* zein *iuki* esan dezake, edo goldaraztarrak *oketan* zein *otan* ‘hauetan’, edo itsasoarrak *baatzandako* zein *amaantzat*, eta abar. Halakoak hizkera guztietan gertatzen dira; *aizinik* eta *eizinik*, *eingiruak* eta *aingeruak* zerabiltzan, esate baterako, Ariako hiztun batek (Camino 1997: 312)⁶⁸.

Beste kasu batzuetan, bilakabide jakin bat hitz edo ingurune morfofonologiko batzuetan ageri da, eta beste batzuetan ez, eta aldea egon daiteke leku batetik bestera. Hala, dardakariaren aurreko *e* > *a* bokal-irekitzearen adibideak badira gure eremuko lau ibarretan, Muskiztik hasita Azkarateraino (ikus 8.1.6.). Baina, Muskitzen, hiru hitzetan baino ez da ageri: *asarre*, *baztar* eta *izardi*. Handik

⁶⁸ Besterik da hiztunak solaskidearen arabera aldaera bat edo beste bat erabiltzea; prestigio-kontuak ere izan ohi dira tartean, baina gu hiztun orok duen barne-aldakortasunaz ari gara, ez kanpo-eragin baten ondorioz sortutako aldakortasunaz.

mendebalera, hitz gehiagotan ere bada: *iztar, maiztar, muskar, puzkar*. Araitz-Betelun, gainera, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen ohikoak ez diren *eguardi, eguarrik, ear* eta *pipar* ere ageri dira. Mendebaleragoko hizkeretan, *basarri, bardin, garri* edota *okar* ere badira, baina guztiok ezezagunak dira gure eremuan, baita Araitz-Betelun ere. Bilakabide bera dugu toki guztietan, baina ez da hitz beretan ageri toki guztietan.

Antzekoa gertatzen da $u > o$ eta $i > e$ bilakabideekin (ikus 8.1.4. eta 8.1.5.). Araitz-Betelun, $i > e$ ez da ageri Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean ohikoak diren *iike* ‘ireki’, *barrendek* ‘barrenetik’ edota *miñeeken* ‘minarekin’ inguruneetan, baina bai datiboan: *nee* ‘niri’, *amae* ‘amari’, *azindae* ‘aziendari’, eta abar. Bide batez, Goldaratzen ez da ageri $i > e$ bokal-irekitzerik, baina zenbait salbuespen badira, eta forma horien berri ere emango dugu, ondoko larraundarreko harremanen arrastoaren erakusgarri baitira. Partizipioetako $u > o$ ere bizkorra da Araitz-Betelun, Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean (*aitto, paasto...*); Goldaratzen eta Itsason, baina, *dot, zaizo* gisako adizkietan edota *beando* eta halako hitz batzuetan ageri da $u > o$, baina ez partizipioetan.

Alegia, bilakabideek aldakortasun geografikoa izan dezakete, eta hori ohikoa da hizkuntza eta hizkera guztietan. Esate baterako, Puerto Ricoko gaztelanian, hitz barnean (kontsonante baten aurretik) zein hitz bukaeran (kontsonante nahiz bokal baten aurretik) hasperentzen dute /s/ fonema; Buenos Airesko gaztelanian, hitz barnean zein bi hitzen mugan hasperentzen dute, kontsonante baten aurretik; Madrilgo gaztelanian, *p* eta *k* kontsonanteen aurretik gertatzen da, eta gutxitan hitz bukaeran, baina lagunarteko giroan betiere; azkenik, Mexiko Hiriko gaztelanian, ez dute sekula hasperentzen (Hualde, Olarrea eta Escobar 2001: 313-317). Beraz, bilakabide bera ingurune desberdinetan ager daiteke eremutik eremura (cf. Coseriu 1977 [1954]: 138-139, Radford eta beste 2000 [1999]: 113).

Beste adibide bat dugu “egin” aditz-indartzailearen erabilera (ikus 8.4.24.). Gure eremu osoan ageri da, baita handik mendebalerako hizkeretan ere. Ekialdera egin ahala, ordea, gero eta askatasun handiagoa dago aditz-indartzaile horrekin osatutako egituretan: Gipuzkoan, arrotz gertatzen dira *oik itten tzien erosi* (Mus.) gisako egiturak, baina halakoak ohikoak dira gure eremuan eta baita Nafarroa Garaiko hainbat hizkeratan ere. Halako xehetasunek garrantzi handia dute, gure ustez.

Maiz aski errepikatu dugunez, dialektologialariaren neke handienetako bat izaten da ezaugarrien eta isoglosen mugak finkatzea, ezaugarriak ez baitira toki jakin batean hasten eta beste toki jakin batean bukatzen (cf. 4.2.1. eta 4.2.2.). Kasu askotan, ezaugarriak gradualki agertzen eta desagertzen dira espazioan, bereziki gurea bezalako trantsizio-eremuetan. Horregatik, gure eremuko hizkerak deskribatzean, askotan aipatuko dugu ezaugarri bat maizago edo bizkorrago ageri dela leku batzuetan beste batzuetan baino. Esate baterako, bokal arteko herskari ahostunak eta ttak kontsonantea galtzeko joera bada gure eremuan (ikus 8.2.5.); eremu osoko ezaugarria da, baina kontsonanteak egonkorxeagoak dira Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan. Ezin ezarri dugu muga garbirik —alegia, ezin esan dugu halako herritatik ekialdera kontsonanteak egonkorragoak direnik—; joerak dira, trantsizio-izaeraren ezaugarri, zalantzarik gabe. Ezaugarrien gradueltasuna, beraz, usu aipatuko dugu gure lanean.

Azkenik, garrantzi apalagoko ezaugarriak ere aipatuko ditugu noizean noiz. *-kal* atzizkia dugu haietako bat (ikus 8.3.23.). Arruitzen bildu dugu guk, kasu bakar batean, eta badakigu Oderitzen ere bildu izan dutela. Nafarroa Garaiko zenbait tokitako ezaugarria da, eta Larraun eremu horretara biltzeko balio lezake, ezaugarri horri dagokionez betiere; lekukotasun bakarra da, ordea, eta ia gauza ziurra da galtze bidean den ezaugarria dela. Jakina, sailkapen orokorrari begira, ezin aintzatetsi ditugu halako salbuespenak; baina, hizkerak deskribatzea denez 8. atalaren helburua, salbuespen zenbait ere aipatuko dugu atal horretan.

Badira, halaber, gure eremuan edo gure eremuko alderdi batean sistematikoak diren ezaugarriak, baina hedadura geografiko txikia dutenak. Esate baterako, Larraungo eta Araizko zenbait herritan, adlatiboko *-ara* eta *-era* atzizki berranalizatuak bildu ditugu: *ateara* ‘atera’, *leioara* ‘leihora’, eta abar (ikus 8.3.10.). Uste dugu ezaugarri aski berria dela, eta ez dute hiztun guztiek baliatzen; gainera, inguruko hizkeretan ez dute erabiltzen, ez guk dakigula behinik behin. Nolanahi ere, hango euskaran ageri den ezaugarria da, Araitz eta Larraun lotzen dituen; beste ezaugarri batzuetan ere bat egiten dute bi ibarrok, eta, beraz, ez zaigu iruditzen adlatibo horiek aipatzeak kalterik dakarkiokeenik gure ikerketari. Besterik da ezaugarri hori hizkerak kokatzeko eta sailkatzeko aintzatetsi behar den edo ez; 9. atalean jardungo dugu halako kontuez.

Ezbairik gabe, hedadura zabaleko eta sistematikotasun handiko ezaugarriek garrantzi handia dute dialektologian, baina gu eremu jakin bateko euskara aztertu nahian gabiltza, eta iruditzen zaigu

hedadura geografiko apalagoa duten gertaerek edota salbuespenek ere badutela tokia halako ikerketetan, betiere batzuk eta besteak bereizten baditugu. Izan ere, Jabergek zioen bezala, “coisas pequenas têm também a sua importância (De Paiva Boléo 1962: 437). Azken batean, ezaugarrien hedaturari erreparatzea oso lagungarria da hizkerak elkarrekin lotzeko; hedadura zabaleko ezaugarriek hizkerak kokatzen laguntzen dute, baina hedadura murriztekoak ere badira hizkeren ezaugarri, eta hizkeren arteko harremanak definitzen lagundu dezakete.

Bestalde, Euskal Herri osoan barreiatu dauden formak eta egiturak ere aurkitu ditugu gure eremuan, eta aipatu aipatuko ditugu, arestian esandakoa kontuan izanik betiere (alegia, sailkapen orokorrari begira baztertu beharreko ezaugarriak direla): ablatiboko *-ti* eta *-tik*, eta motibatiboko *-gati* eta *-gatik* formak ditugu horren adibide (ikus 8.3.8. eta 8.3.9.). Zaku berean sartzekoa da muga-adlatiboaren denborazko balioa, ez baitu eremu geografiko zehazturik (ikus 8.3.14.).

Beraz, 8. atalean, Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Betelu ibarretako euskararen ezaugarriak aztertuko ditugu, modu deskriptiboan eta ahalik eta informazio gehiena emanaz; azken batean, dialektologiarako interesgarri izan daitezkeen datuak emango ditugu.

Baina horren ondoren dator benetako azterketa dialektologikoa. Hain zuzen, 9. atalean erabakiko dugu zein ezaugarri hautatu gure eremuko euskara definitzeko edo ezaugarritzatzeko. Horretarako, ezaugarriak multzoka antolatuko ditugu; batetik, gure eremuan ageri diren ezaugarri banatzaileak eta ezaugarri bateratzaileak bereiziko ditugu (ikus 9.1.), eta, ezaugarri banatzaileetan, zein eremu bereiz daitezkeen emango dugu aditzera. Bestetik, ezaugarriak hedadura geografikoaren arabera multzokatuko ditugu (ikus 9.2.), gure eremuko hizkeren kokapenari eta norabideari buruz argi egiteko asmoz. Atal hori osatzeko, baina, ez ditugu aintzat hartuko 8. atalean deskribatutako ezaugarri guzti-guztiak, baizik eta dialektologia-azterketari begira esanguratsuak direnak soilik. 9. atalean azalduko dugu xeheki hori, baina aurreratuko dugu salbuespenek, sistematikoak eta erregularrak ez diren ezaugarriek, Euskal Herrian hedadura zabala duten ezaugarriek eta koherentzia geolinguistikorik ez duten ezaugarriek ez dutela lekurik izango atal horretan.

Oso aintzat hartuko dugu gure eremuan edo gure eremuko hizkera jakin batzuetan ageri diren ezaugarriak berrikuntzak, hautuak edo arkaismoak diren, non sortuak diren edo nondik nora hedatuak diren, sistematikoak diren edo ez, eta abar. Beste kontu bat da berrikuntzak noiz sortuak

diren ebaztea; euskararen egoera filologikoa ez da oso ona, oso testu berankorrek baititugu oro har, eta horrek berrikuntzak datatzeko zailtasuna dakar: “Zail da ezaugarri bakoitzaren sorrera garaia ezagutzea, azterketa berezia egin beharko litzateke bilakabide bakoitzaren agerpidearen berri edukitzeko” (Camino 2008a: 225). Nolanahi ere, 6.1.1. atalean azaldu dugunez, berrikuntza eta arkaismo guztiak ez daude maila berean: batzuk guztiz erregularrak dira, eta beste batzuk ez; ez dira guztiak garai berean sortuak izaten; batzuk oso orokorrak dira, eta abar. Guk koherentzia geolinguistikoa bilatuko dugu ororen gainetik; alegia, ezaugarri baten —berrikuntza izan, hautua izan edo arkaismoa izan— hedadura geografikoa koherentea baldin bada beste ezaugarri bat(zu)en hedadurarekin, gure ikerketan aintzat hartuko dugu, betiere behar bezala zehazturik ezaugarri bakoitzaren garrantzia zein den, ezaugarri guztiak ez baitaude maila berean.

Hala, esate baterako, aintzat hartuko ditugu Araitz-Betelun erabiltzen diren adizki pleonastikoak (*ziozun & ziozon* ‘zenion’, *giñakiun* ‘genekien’... ikus 8.4.15.). Baten batek esan dezake euskaraz ohikoa dela halako analogiak egitea, eta edozein tokitan sortzen direla⁶⁹, baina Araitz-Beteluko hiztunek, adineko zein gazte, halako adizkiak erabiltzea ez da kontu hutsala, halakoak ohikoak baitira (edo izan baitira) ondoko hizkera gipuzetan, hala nola Tolosaldean eta Goierriin. Larraunen, Basaburuan edota Imotzen ez dute halakorik erabiltzen, baina bai Araitz-Betelun; hain zuzen, ondoko bizilagun gipuzkoarrekin izandako harremanen ondorioz gertatu da hori. Baliteke adizki pleonastikook iraupen laburra izatea etorkizunean, baina Araitz-Beteluk Gipuzkoarekin izandako harremanen lekuko garbia dira ezbairik gabe. Hain zuzen, beste ezaugarri batzuetan ere Gipuzkoari begira sumatu dugu Araitz-Beteluko mintzoa, eta, beraz, haien ondoan jarririk, Gipuzkoako hizkeren eraginaren erakusgarri dira arestiko adizki pleonastikook. Halako kontuak 9. atalean zehaztuko ditugu.

Azken batean, gure eremuko hizkerak definitzen eta egituratzen dituzten ezaugarri nagusiak zein diren azalduko dugu atal horretan, betiere argi utziz zein den ezaugarri bakoitzaren estatusa eta garrantzia. Gure eremuko hizkeretan ezaugarriak nola konbinatzen diren emango dugu aditzera, hizkerak nongo ezaugarriak bildu dituzten ikusteko, betiere ezaugarri bakoitza behar bezala balioetsiz. Ezaugarrien konbinazioaren ideia garrantzi handikoa da gure ustez (ikus 6.1. atala), gure eremuko hizkerak kokatzeko eta egoki interpretatzeko aukera ematen baitu.

⁶⁹ Gogoan ditugu ikastola-garaian adizki analogiko horiek direla-eta ikasleok jasotzen genituen errietak.

Ildo horretatik, Imozko eta Basaburu Nagusiko euskara kokatzean sortzen den paradoxaren berri eman du Caminok (2004a: 83-84): euskara nafarraren arautzat jotzen diren ezaugarriak badira Imotzen eta Basaburu Nagusian eta are Larraungo ekialdean ere (aldeak alde), baina, hori horrela izanik ere, ez dira euskara nafarrean bete-betea sartzeko. Konbinazioaren eskusibotasunaren ikuspegitik, hauxe ebatzi du Caminok (2004a: 84): “Imotzen eta Basaburuan ageri diren ezaugarri «erdialdeko ez nafarren» konbinazioak eragin duke hori, baina Imozko eta Basaburuko euskarara, ezaugarri «nafar eksklusibo» guztiak biltzen dira”. Alegia, ezaugarri nafarrak eta erdialdeko ezaugarriak konbinaturik ageri dira bi ibar horietan (Larraungo ekialdea ere gehitu beharko genuke), eta egoera horrek eragin du hizkerok euskalki batera edo bestera biltzeko zailtasuna.

Areago, Imotzen kasuan, nafarrak eta erdialdekoak soilik ez, beste eremu batzuetako ezaugarriak ere bildu dira hango euskarara; guk bost multzo osatu genituen hango euskara aztertu genuenean (Apalauza 2008a: 162-167): a) Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko ezaugarriak, b) Euskal Herriko erdiguneko ezaugarriak, c) Nafarroa Garaian hedadura zabala duten ezaugarriak, d) Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarriak, eta e) Eremu murrizteko ezaugarri bateratzaileak. Zalantzarik gabe, lan horrek badu zer hobetua, baina Imozko euskarara alde askotako eraginak bildu direla erakusteko behinik behin balio duelakoan gaude; Nafarroan sortutako berrikuntza ugari badira Imotzen, baita mendebalerago sortutako batzuk ere, eta guztiak dira aintzat hartzekoak. Badira hedadura zabaleko ezaugarriak, badira hedadura txikiagokoak, badira berrikuntza zaharrak, badira berrikuntza berriagoak, badira berrikuntzak ez direnak, eta abar; berriz ere ezaugarrien konbinazioaren ideari eutsiz, ezaugarri guztiok batera agertzearen ondorioz egituratu da Imozko euskara.

Ildo horretatik jo nahi dugu Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako euskara aztertzeko. Ezaugarri bakoitzaren hedadura geografikoa, alderdi kronologikoa, eskusibotasuna, sistematikotasuna, emankortasuna eta erabilera neurtuko eta aintzat hartuko dugu, baina ez dugu ezaugarri diskriminatuko holako edo halako baldintza betetzen ez duelako; ez behintzat koherentzia geolinguistikoa gordetzen duen eta, azken batean, aztergai dugun eremuko euskararen gainean argia egin dezakeen ezaugarri. Besterik da euskalkiak sailkatzeko zein ezaugarri hobetsi beharko genukeen; eztabaidagarria da hori, baina gure helbururako egokitzat jotzen ditugun ezaugarri guztiak aintzatetsiko ditugu lan honetan. Ezbairik gabe, berrikuntza

sistematikoak zein diren eta nondik hedatu diren lehenetsiko dugu, baina gainerako ezaugarriak baztertu gabe eta betiere ezaugarri bakoitzaren estatusa eta garrantzia zein den azpimarratuz.

6.2. Diakronia eta dialektologia historikoa

Saussure hizkuntzalariak zioen hizkuntza bi ikuspegitatik azter daitekeela: ikuspegi sinkronikotik eta ikuspegi diakronikotik (Coseriu 1986 [1951]: 81). Sinkronia hizkuntzaren une jakin bati dagokio, eta diakronia, berriz, hizkuntzaren historiari. Hizkuntza etengabe garatzen ari da; horregatik, hizkuntzaren alderdi sinkronikoa egiazki abstrakzio zientifiko bat besterik ez da, baina, aldi berean, guztiz beharrezkoa da hizkuntzaren ezaugarriak eta funtzionamendua ezagutzeko (Coseriu 1986 [1951]: 81-82). Azken batean, Lakarrak dioenez, “bien arteko ezberdintasuna ez da, berriz, datuen hedadura denboran zehar, baizik eta hizkuntzalariaren jarrera denboraz, hizkuntzaren denboratasunaz” (1997a: 450).

Hizkera bat aztertzen dugunean, uneko berriemaileek darabilten hizkera aztertu ohi dugu, baina baitezpadakoa da hizkera horrek historian zehar izandako bilakaerari ere erreparatzea (cf. 4. atala). Dialektologiak mintzoen aldakortasun espaziala du aztergai; hizkuntzalaritza historikoa, berriz, denboran zehar izandako aldakortasuna; eta bi ikerkuntza-lerrook uztartzean datza dialektologia historikoa: alegia, mintzoez denboran zehar izandako aldakortasun espaziala ikertzen du (Pilch 1988: 417-418).

Iragan mendeetako hizkuntzaren berri izateko, idatzizko iturrietara jo beste aukerarik ez dugu. Zalantzarik gabe, ez da gauza bera gaur egun bizirik dagoen dialekto bat aztertzea testu zaharren laguntza baliatuta, edo itzalia den dialekto bat aztertzea testu zaharretatik abiatuta. Oro har, ikerketa diakronikoa egitea zaila da, arrazoia dena dela ere: testu urri izatea, testuen jatorriari edota datari buruzko informaziorik ez izatea, marko teorikoa edota ezagutza filologikoa eskasa izatea, aztergai dugun mintzoa gaurgero itzalia izatea, eta abar (ikus Fisiak 1988). Zailtasunak zailtasun, testuak ditugu hizkuntzaren historiaren berri izateko giltza (Lakarra 1997a: 456):

Beharrezko ditugu, beraz, testuak euskararen historia egin ahal izateko, bere eboluzioaz jabetzeko, gurea ere aldatuaz joan baita hizkuntza eta hizkera guztiak bezala. Gainera, ahalik eta testurik zaharrenek ditugu beharrezko, soilik haiek eraman baikaitzakete urrutienik denboraren katean barrena. Bakarrik testuak ongi miatu ondoren murgil gaitzke ur sakonagoetan, haietan ikasiaren arabera aitzinagoko garaietan zer zitekeen ikertzen (asmatzen) saiatuaz.

Izan ere, Lakarrak berak dioenez, “garai ezberdinetan idatzitako lekukotasunak hartzen baditugu (...), pentsa dezakegu orduko hizkuntzaren erakusgarriak direla testuok, beraietan islatzen direlarik garaiko erregela sinkronikoak. Honek esan nahi du lekukotasunetarik (baldin badira!) hizkuntzaren garai bakoitzeko egitura atera daitekeela, eta hortik beren gramatika sinkronikoak ezarri eta konparatu” (1997a: 451).

Nolanahi ere, ez da komeni hau ahaztea: “... lor daitekeen gauza bakarra, une batean, baldintza batzuetan, hizkuntza baten egoera zehaztea da. Testuen ikerketa, ezinezko bilakatu den azterketa zuzenaren ordezkoa besterik ez da” (Meillet 2001 [1924]: 21).

Testu zaharretan oinarritutako ikerketa linguistikoek hainbat gabezia izan ditzakete, ez baitute ahozko mintzoa zuzen-zuzenean islatzen, eta ñabardura ugari galtzen baitira (Schouten eta Van Reenen 1989: 136):

For older language stages we usually are confined to what has been conserved in texts. These texts reflect the spoken language defectively and are far from containing all the information we are interested in. Even if texts are dated and located properly, they usually do not mention the relevant dialectal or sociolinguistic properties of the scribes in which the modern linguist is interested. We cannot investigate whether speakers are aware of the existence of linguistic group markers by asking them. And very few indirect reports have been conserved.

From the preceding it follows that, in analyzing the nature of variation across medieval dialects, we may not expect results which are comparable in quality to those based upon contemporary language analysis.

Euskaraz, testu gutxi dugu, eta berankorrek dira, gainera⁷⁰. Askotan, testuak nongoak diren ere ez dugu jakiten, eta haien jatorria erabakitzeko zailtasunak izan ohi ditugu. Mitxelenak dioenez, hizkuntzaren historiaz jarduteko egoerarik egokiena data eta jatorri ezaguna duten testuekin lan egitea da; gainerako guztia estrapolazio hutsa da (1988 [1971]c: 711). Baina, gorago esan dugunez, euskarazko testu zaharren kasuan, ez da ohikoa izaten testuaren gaineko informazio nahikoa izatea (Camino 2009a: 316):

⁷⁰ Lakarrak gutxi gorabeherako datu baten berri eman du (1997a: 454-455): 1745. urtera arte, 500 folio baino gutxiago ditugu Hego Euskal Herrian, eta 5.000 inguru Ipar Euskal Herrian; gaztelaniarekin alderatuz, Lope de Vegak berak badu gehiago.

Batzuetan jakin ohi dugu testu bat noizkoa, nongoa, nork idatzia eta non predikatzeko den eta baita idazleak bere herriko edo bere eremuko euskara jatorrean idazteko borondaterik ba ote zuen ere, baina esan liteke baldintza horiek luxuzkoak direla Euskal Dialektologian. Anitzetan ez dakigu aurkitu berri dugun kristau-ikasbidea edo predikua, ezta noizkoa den ere (...). Ez dakigu nork idatzi zuen, ez dakigu idatzi zuenak bere herriko euskararen edo apez lanak betetzen zituen beste batekoan egin ote zuen, ez dakigu non predikatzeko zen eta ez dakigu deus ere. Inferentzia dialektologiko eta filologikoak baitezpadako ditugu honelakoetan.

Ez baitakigu zehatz-mehatz zein diren euskalki bakoitzaren ezaugarriak, are konplexuagoa da erabakitzea edo zehaztea testuak nongoak diren; esate baterako, testu batek mendebaleko euskararen eta euskara giputzaren ezaugarriak nahaska izan ditzake (Lakarra 1996: 156-157, cf. Camino 2009a: 315, 318). Horren adibide ugari dugu Mitxelenaren *TAVen* edo Sarasolaren *Contribución*-en. Zailtasun bertsuak dituzte beste hizkuntza batzuetan ere; “dialect mixture” egoeraz ari gara, Colman-en hitzetan (1988: 114).

Azken batean, idatzizko iturriak diren aldetik, era askotako hutsuneak izan ditzakete testuek (Lakarra 1997a: 463):

Testuek beste hainbat arazo dute, esaterako, beren ekoizpenean egile eta kopiagileen ahalegina arrotz zaien hizkuntz eredura hurbiltzeko, honek dakartzan huts, dialektu nahasketa eta hiperzuzenketekin. Lekukotasun zaharren iraupenaren halabeharrak lekukotzen ez denaren onargarritasun eta gramatikaltasuna erabakitzea zailtzen du: ezin esan harako edo honako egitura ezinezko zenik bildua ez izan arren.

Nolanahi ere, Colmanek ingeles zaharrari buruzko lan batean dioenez, nongoak diren ez dakigun testu zaharrak lantegizat hartuz gero, ezin erdietsiko dugu argibide diatopiko zorrotzik, baina horrek ez du esan nahi dialektologia historikoa baztertu behar dugunik: zorrotasunik ez, baina ondorio diatopiko erlatiboak lor ditzakegu (1988: 112-113)⁷¹.

Ikertzailearen helburua baldin bada testuen bidez ikertzea iragandako garai jakin batean toki jakin batean erabiltzen zen hizkera, egokiena da testu bat baino gehiago baliatzea, testu garaikideak erkatzea eta ezaugarri estilistiko bertsuak dituzten testuak lantegizat hartzea (Peters 1988: 408). Testu idatziek hizkuntzaren aldaera jaso islatu ohi dute, eta are gehiago erlijio-testua baldin bada

⁷¹ Zenbaitetan, garaiko ezaugarri sozio-politikoak ere lagungarri izan daitezke testuak interpretatzeko (Colman 1988: 116).

(erlijio-testuak dira, hain zuzen, euskaraz 1900. urtea baino lehenago idatzitako testuen % 95; Lakarra 1997a: 455); esate baterako, Muzkiko (Gesalatz) Elizalde jaunaren doktrinan ez dago $a > e$ asimilaziorik, nahiz badakigun ezaugarri hori ohikoa zela garai hartan Gesalatz (Salaberri 2000: 881). Zenbaitetan, gainera, toki bereko eta garai bereko testuak izanik ere, aldea izan ohi da testu batetik bestera: Muzkin jarraituz, XVIII. mendekoak dira, batetik, Elizalderen doktrina, eta, bestetik, herri berean agertutako testu sail bat, baina hizkera jasoagoa biltzen du Elizalderen doktrinak, han ez baita ageri gainerako testuetan ageri diren zenbait ezaugarri (Salaberri 1994).

Azken batean, hizkuntza idatzia eta hizkuntza mintzatua ez ohi dira bat etorri (Meillet 2001 [1924]: 21, 22):

Sarri hizkuntza idatzia finkatuta dago, eta aurkezten duen itxura ez da mendez mende ia aldatzen. Erabat finkatuta ez dagoenean ere, idatziz eskuarki lehenagoko formak, jadanik ezezagunak, nagusi dira neurri handi batean.

(...)

Bestalde, iraun duen hizkuntza eta idazten zena ez dira bat.

Esate baterako, Meilleten adibide bat ekarririk, latinez *os* ‘ahoa’ iritsi zaigu idatzirik, baina *bucca* izen arrunta gorde da gaurdaino.

Ikuspegi diakronikoa baztertuxe egon da hizkuntzari buruzko ikerketetan, hala Euskal Herrian nola nazioartean, baina zenbait egile hasiak dira diakroniaren alde aldarri egiten (Aldai 1999b: 388-390):

Creo que en las últimas décadas la lingüística internacional se ha volcado hacia estudios sincrónicos, quedando la lingüística histórica relegada a un plano muy secundario. Esta situación ha acabado lógicamente por influir también a la lingüística vasca, tradicionalmente muy centrada en estudios diacrónicos, pero hoy en día casi en el polo opuesto. No tengo problema en reconocer que en el estudio de una lengua los primeros esfuerzos deben estar encaminados a la descripción sincrónica de los hechos lingüísticos en su estado actual. Por ello, reconozco también que nuestros estudios tradicionales adolecen muchas veces de una falta de descripciones sincrónicas per-se.

Sin embargo, creo que la situación de la lingüística vasca actual está desequilibrada hacia el otro extremo. Por no hacer generalizaciones universales, que no suelen ser aconsejables, diré que al menos en morfología verbal vasca se puede probar, o como mínimo posee mucha evidencia de su lado, que los estudios sincrónicos no necesitan ni pueden ir más allá de la simple descripción de los hechos. Y ni tan

siquiera éstos son fáciles de establecer con exactitud, si lo que pretendemos es hacer clasificaciones asignando compartimentos estancos entre diferentes categorías y crear correspondencias biunívocas entre forma y significado. Basta con tener en cuenta las categorías que he mencionado anteriormente de irreal, subjuntivo, etc., para hacerse una idea de que ni siquiera la simple descripción-clasificación de los hechos es una tarea sencilla. En esos contextos nos encontramos habitualmente (no sólo en euskera) con una situación altamente intrincada, con numerosas variaciones entre las distintas lenguas e incluso interdialectales, de la que es muy difícil hacer generalizaciones sin caer en el simplismo.

(...)

Por todo ello, si queremos ir algo más allá de los meros hechos morfológicos y tratar de explicar o en alguna medida organizar estos datos, el recurso a la diacronía es imprescindible.

(...)

Los estudios históricos son de suma importancia, como acabo de defender, incluso por sus implicaciones en sincronía. Para ello debemos de trabajar en dos campos. Por un lado, en la comparación del euskera con otras lenguas, de la mano de la tipología y la teoría de gramaticalización, como acabo de exponer. Por el otro lado, no debemos descuidar nunca el estudio de los textos antiguos. Aunque no muy numerosos y con lagunas en la documentación, nuestros primeros textos constituyen un tesoro importantísimo al que no podemos de ninguna manera renunciar.

Euskararen historiaz, hain zuzen, batik bat hizkuntzaren etorkien gainean idatzi da iragan bi mendeetan, baina azterketa urri dugu testuetako hizkerari edota toki edo garai jakin bateko hizkerari buruz, eta urri ditugu, halaber, garaiak, testuak eta, azken batean, hizkerak alderatzen dituzten lanak (Lakarra 1997a: 448).

Euskal dialektologian artean gutxi landutako esparrua izan arren, gure ikerketan ardatz kronologikoa ere aintzat hartzea erabaki dugu. Gaur egun ere bizirik daude aztergai ditugun hizkerak, eta hizkerok bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dugu (ikus 5. atala), baina nolakoa ote zen gure eremuko euskara iragan mendeetan? Asko aldatu ote da? Zertan? Tamalez, ez dugu baliabide eta argudio askorik galdera horiek irmo erantzuteko, testu bakan baitugu gure eremuan, eta, gainera, ez dugu nahi adina berri testuon egileez. Hori horrela izanik ere, euskarari buruzko ikerketa diakronikoa ez dago guztiz antzu, eta gure ikerketa janzteko erabili nahi ditugu beste hizkera batzuen zein euskara orokorraren inguruan argitaratutako lanak. Alegia, gure eremuko euskara zaharraz zuzenki berri gutxi badugu ere, beste alderdi batzuetako berriek gure eremuan argia egin dezaketelakoan gaude.

Ikuspegi diakronikoa lantzeko, hiru informazio-iturri nagusi baliatu ditugu. Lehenik, corpora biltzen duten lanetan arakatu dugu: testu zaharren bildumak eta edizio kritikoak, hain zuzen. Ezinbestekotzat jotzen ditugu Mitxelenaren *TAV* (1990 [1964]) eta Sarasolaren *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos* (1990 [1983]) lanak, ikuspegi diakronikoaren oinarritzko ezagutza izateko eta batez ere XV., XVI. eta XVII. mendeetako euskarazko corpusaren berri zehatza lortzeko. Horiez gain, gure ikergaia Nafarroan kokatzen baita, ezinbesteko lanabes suertatu zaigu Satrustegiren *Euskal testu zaharrak I* bilduma (1987b), Nafarroa Garaiko testu ugari jasotzen dituen heinean, XVI. mendetik hasita XIX. mendera arte. Han-hemenka aldizkarietan argitaratuko testu zaharrak ere eskuartean izan ditugu, bai eta testu zaharrak iruzkinduz egindako edizio kritikoak ere; asko ikasi dugu, esate baterako, Lakarrak *RS* lanaren inguruan egindako edizio kritikoa irakurriz (1996). Esan beharra dugu faltan bota dugula nafarrera zaharraz idatzitako testuen bilduma osotua; nolana ere, I. Caminori esker jakin dugu halako bilduma bat abiatu zutela Lakarrak eta biok, eta argitaratzekoak ziren hainbat testu eskuratu ditugu hari esker.

Eskualde jakin bateko euskara zaharrari buruzko lanak izan ditugu bigarren informazio-iturri. Halako lanak urri ditugu artean ere euskal hizkuntzalaritzan, baina zenbait lan interesgarri loratu dira azken urteotan: Pikabeak lapurtera zaharra aztertu du (1993), Zuazok Deba ibarreko euskara zaharra (2006b) eta Caminok Nafarroa Behereko euskara zaharra (2008b). Hizkera horietako testu zaharrak oinarritzat hartuz (eta gaur egungo mintzoa kontuan hartuz, Zuazoren eta Caminoren kasuan), menderik mende hizkuntzan izandako bilakaera aztertu dute hiru ikertzaileok, hizkuntza-ezaugarriak zein mendetan (eta, batzuetan, zein lekutan) sortuak diren argi azalduz. Horiez gain, aski xeheki aztertua dugu bizkaiera zaharra (besteak beste, Lakarra 1984, 1986 edota Zuazo 1988, 1989b).

Hirugarrenik, oso baliagarri suertatu zaizkigu hizkuntzaren alderdi bat edo hizkuntza-ezaugarriak berariaz aztertzen dituzten ikerketa diakronikoak. Iruditzen zaigu eremu horretan lan asko dagoela egiteko: Lakarrak aldarrikatu duen bezala, XVII. mendeko goi-nafarreraren txistukariez, mende bereko Zuberoako aditzaz edota gipuzkera zahararen hitz-ordenaz diharduten lanak behar ditugu, besteak beste (1997a: 448). Gure kasuan, dialektologia-ikerketa osoa eta eraginkorra izan dadin, ezinbesteko zaigu jakitea gaur egungo euskararen ageri diren hizkuntza-ezaugarriak noizkoak diren eta historian zehar zein hedadura geografiko izan duten, eta, bestalde, halako lanak beharrezkoak dira hizkuntzalaritza historikoan aurrera egiteko. Egia esan, tankera

horretako lanen hutsune handia sumatu dugu, baina dagoen apurra gure lanerako baliatu nahi izan dugu. Hasteko, fonologia historikoa maisuki landu du Mitxelenak *FHV* lanean (1977 [1961]), eta badira arlo horretan lan zehatzagoak ere; hots edo ahoskeren historiari buruzkoak, esate baterako (Hualde 1987 eta 1991). Alderdi lexikoaren historiari dagokionez, mugarri dugu *OEH* hiztegia. Morfologia-gaietan, ikerketa historikoa ez dago hain aurreraturik, baina badira zenbait lan, hala nola aditz-morfemen historiari buruzko lanak (Aldai 1999a, Altuna 1995, Trask 1995, Trask 1997, Urgell 2006, Mounole 2006 eta 2007), aditz-atzizkien historiari buruzkoak (Iñigo, Salaberri eta Zubiri 1995) edota deklinabide-morfemen historiari buruzkoak (Lakarra 1984). Azkenik, azentuaren alderdi diakronikoa landu dute bereziki Mitxelenak, Hualdek eta Martinezek (Martinez Areta 2004), eta baita G. Elordietak ere (2010).

Gure helburutik urrutixe gelditzen direla ulerturik, ez ditugu oso aintzat hartuko aitzineuskararen eta berreraiketaren esparruko lanak (ikus, halako lanen egoeraz, Lakarra 1997a, 1997b, 2005, 2006, 2008a eta 2008b), ezta historiografiari buruzkoak ere (gramatikagintza, hiztegiagintza... ikus Gomez 1997 eta 2007); halakoak ezinbestekoak dira euskararen historiari jarduteko, baina ez ditugu hainbeste baliatuko gure ikerketan, ez bada kasu zehatzen batean.

Aitortu behar dugu eskarmentu gutxi dugula diakroniaren inguruko gaietan, baina era horretako lanak irakurriz zertxobait aurreratu dugulakoan gaude. Besterik ez bada, hizkera bat aztertzeke orduan maiz aski falta izaten dugun ikuspegi zabalagoa erdietsi dugula uste dugu: begi aurrean duguna egoki interpretatzeko, atzera begiratzen jakin behar da.

Hala, gure eremuko euskara zaharraren berri eskas dugun arren, zilegi da esatea beste eremu batzuetako idazki zaharrak ezagutzeari esker erabaki diatopiko erlatiboak hartzeko moduan gaudela. Esate baterako, instrumentaleko *-s* morfemari dagokionez (ikus 8.3.5.), gaur egun bada Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo ekialdean (Larraungo mendebalean, arrasto batzuk baino ez daude). Ez dugu Imozko eta Basaburuko testu zahar fidagarriarik (ikus aurrerago), baina badakigu Uitziko ezkon-zin zahar batean *-s* ageri dela 1506. urtean (Satrustegi 1992), eta *-s* eta *-z* biak nahaska ageri direla Leitzan 1626an (Satrustegi 1987b: 45-47). Bestalde, *-s* ageri da Urritzolan⁷² eta Urdanotzen (Goñerria) XVII. mendean, eta Nafarroa Garaiko toki askotan handik aurrera (ikus Satrustegi 1987). Beraz, morfema horrek gaur egun duen hedadura aintzat hartuz, pentsa daiteke

⁷² Satrustegik ez zuen zehaztu Arakilgo Urritzolakoa edo Ultzamako Urritzolakoa den testu hori, eta testuan ageri diren hizkuntza-ezaugarriek ere ez dute argibide ziurrik ematen nongoa den erabakitzeke.

Imotzen eta Basaburu Nagusian ere gutxienez XVI. mendean bazela -s, eta, gainera, Leitzako datua ezagutuz (gaur egun -z erabiltzen baitute), -s ahoskera hedatuxeago zegokeela ondoriozta dezakegu. Hori guztia, jakina, kontuan harturik testu bakan batzuetan ageri denari jarraituz ateratako ondorioa dela eta horrek dakartzan arriskuez jabeturik.

Ezin jakin dugu, ordea, Araitz-Betelun ere inoiz erabili ote zuten -s: Larraungo mendebaleko herrietan, -s-ren arrasto batzuk sumatu ditugu gaur egun (ikus 8.3.5.), baina -z bildu dugu beti Araitz-Betelun, eta hala ageri da hango lekukotasun zaharragoetan ere (Intzako XVIII. eta XIX. mendeetako testuetan, -s eta -z ageri dira, baina ez da datu guztiz fidagarria; ikus aurrerago). Beste daturik ez dugun bitartean, beharturik gaude pentsatzera Araitz-Betelura ez zela -s berrikuntza iritsi. Ez dakigu zehazki noiz sortu zen -s, baina badakigu XVI. mendean ezaguna zela jada Nafarroako zenbait lekutan (Uitziko, Espartza-Galarko eta Amenduxen testuetako lekukotasunak ditugu).

Era horretan lan egingo dugu, beraz; alegia, batez ere (baina ez soilik) Nafarroako euskara zaharrari begira jarriko gara, eta, ahal dugun neurrian, gure eremuko euskarari buruzko argibideak lortzeko baliatuko dugu handik erdietsitakoa. Gure eremua Gipuzkoatik hurbil izanik (areago, Gipuzkoarekin muga egiten du Araitz-Beteluk), aintzat hartuko ditugu orobat Gipuzkoako testu zaharrak; besteak beste, Azpeitiko gutuna (Satrustegi 1987b), Otxoa Arinen lana (Aranburu eta beste 1999), Irazustaren doktrina (klasikoak.armiarma.com), Oikiako doktrina (Lakarra 1987), Zegamako bi doktrina (Ondarra 1984, Aranburu eta beste 1999) edota Kardaberazen lanak (klasikoak.armiarma.com).

Gorago esan dugunez, testu bakan dugu gure eremuan, baina duguna aztertu nahi izan dugu. Baditugu Imozko, Larraungo eta Araitz-Beteluko zenbait testu (Basaburu Nagusian ez dago deus ere), eta haiei erreparatuko diegu hurrengo ataletan.

6.2.1. Imotz: Goldarazko testuak (1833, 1834 eta 1839)

Satrustegiri esker jakin genuenez, *Goldaraz* izena daramaten sermoi bilduma bat agertu zen Arruazuko parrokiari; alegia, Goldaratzen predikatutako sermoiak dirateke. Bilduma horretako hiru testu 1987b lanean argitaratu ditu Satrustegik (207-229. or.)⁷³, eta badugu beste testu bat egile

⁷³ 1839ko testuari izena aldatu zion egileak, *Eguilleta* ageri baita (besteetan, *Goldaraz* ageri da), baina ez da beste ezberdintasunik grafiari edota idazkerari dagokionez (Satrustegi 1987b: 318).

beraren 1987a lanean. Testuon egilea Joaquin Arbilla apez da; Arbilla madoztarra zen jatorriz, baina Goldaratzen jardun zuen apez-lanetan 56 urtez, 1834tik 1890era (1987a: 318).

Testuotan ageri diren hizkuntza-ezaugarriak dagokienez, oro har, irregulartasun handia dago. Satrustegik berak dioenez, Nafarroako eta Gipuzkoako ezaugarriak nahasian ageri dira (1987a: 318). Hala⁷⁴, *erorico dirala* (9), *viciceratenac* (28), *saludatuco degun* (50), *ezpadezu eguiten* (113), *sufritu cenduen* (124), *ecin acuditu badezu* (302-303) edota *erori danac* (598) aditz-forma giputzen ondoan, *ucacen zarataric* (28), *egonen zara* (114) edota *aditu duzun gucie* (307) gisakoak ageri dira. Euskara giputzaren eta nafarraren arteko nahasketa erabatekoa da adibide honetan: *izanen dezun* (493).

Testuetan badira Goldaratzen gaur egun ohikoak eta erabiliak diren hainbat hizkuntza-ezaugarri, baina badira, halaber, ohikoak ez direnak. Baliteke haietako batzuk ezaugarri zaharrak izatea, eta, horrenbestez, Goldarazko euskaran galdutako ezaugarriak izatea ([y] ahoskera, esate baterako), baina beste batzuk ez dira inolaz ere Goldarazko ezaugarri, ez oraingo ez iraganeko hizkeran (adizki giputzak, esate baterako). Beraz, idazkiok ez dira iturri guztiz fidagarria Goldarazko hizkera aztertzeko, baina ez diegu ezikusiarrena egingo.

Ez ditugu testuetan ageri diren ezaugarri guzti-guztiak xeheki aztertuko, baina ezaugarri nagusiei erreparatuko diegu. Lehenik, testuan ageri diren eta gaur egun Goldarazko hizkeran ere ageri diren ezaugarri fonologiko eta morfologikoak emango ditugu:

1. $a > e$ asimilazioa: *criature* (7), *gauze* (12), *Somiñe* (29), *egune* (34), *toquire* (96)...
Salbuespen ugari dago, hala ere, testuetan: *eguna* (59...)⁷⁵, *mendiac* (61-62), *illac* (70), *pecatarian causac* (75), *ciquina* (84), *pisua* (84), *repugnanci andibat* (97), *lecu batetic bestera* (347), *beguiac* (368), *consentituac* (443), *arzaia* (568), *ostua* (829)...
Bestalde, gaur egun Goldaratzen ohikoak diren *-ii* eta *-uu* bukaerak ez dira testuetan ageri (cf. 8.1.2. eta 8.1.3.).

⁷⁴ Satrustegi 1987b lanean bildutako testuetako adibideak emango ditugu. Hiru testu dira (1833, 1834 eta 1839koak), eta, elkarren jarraian daudenez, denak batera zenbatu ditugu: 1-340 lerroak 1833ko testuari dagozkio, 341-580 lerroak 1834koari, eta 581-861 lerroak 1839koari. Lerroak gerok zenbatu ditugu; ez datoz bat Satrustegik dakarren zenbaketaekin. Bestalde, 1834koa da Satrustegi 1987a lanean ageri den testua; hizkuntzaren aldetik ez du alderik beste testuekin alderatuz gero, eta, azalpena erraztu nahian, ez dugu horko adibiderik erabiliko.

⁷⁵ Adibide bera behin baino gehiagotan ageri den kasuetan, lehen agerraldiari dagokion lerro-zenbakia adieraziko dugu, eta eten-puntuak jarriko ditugu ondoren, adibide berak agerraldi gehiago ere badituela adierazi nahian.

2. *er > ar* (cf. 8.1.6.): *bazarretan* (228), *izardi* (804), *asarretasuna* (111).
3. Instrumentaleko -s morfema (cf. 8.3.5.): *gozos betea* (31), *egunas* (43), *ceñetas* (54), *ongarrisco* (90), *berris* (357), *gabas eta egunas* (369), *gutas* (573), *estalies* (664), *eguin esquerostic* (748-749), *anices gueiago* (775)...
4. Destinatibo-morfema: 1833ko testuan, *-tzat* da nagusi, eta *-tako* eta *-tzat* ageri dira 1834an eta 1839an (cf. 8.3.7.).
5. Prolatiboko *-tako* morfema (cf. 8.3.13.): *ridiculotaco zeuquiten* (185), *elegituzuen bere oacetaco* (413-414).
6. Erdal *-on > -on* (cf. 8.3.15.): *sermona* (130).
7. Berezko *-a* galtzea: *materi* (44), *graci* (48), *repugnanci* (97), *glori* (135), *penitenci* (146), *justici* (250), *sentenci* (259), *blasfemi* (320), *misericordi* (352), *auditori* (383), *picardi* (583), *malici* (625)... (cf. 8.3.24.).
8. Aditzondo errepikatuetan, absolutiboa ageri da adibide batean (cf. 8.3.21.): *erreparatu zuen cegoala Demonio bat, baño gueldi gueldie* (520).
9. Bigarren pertsona singularreko *y-* morfema (ikus 8.4.2.): *Jaungoicoaren semea baldin baiaiz* (474-475).
10. Bigarren pertsona pluraleko NORK eta NORI morfema *-zute* da: *atera bear duzuten* (24), *beguire dezazute* (36), *allegatuco zaizute* (167), *esanen dizute* (215-216), *badaquizute* (356), *allegatu bear bazaizute* (540), *cergatic iduricen zaizuten* (601)... *-zute* nagusi bada ere, *-zue* ere ageri da adibide batzuetan. Gaur egun, *-zte* erabiltzen da Goldaratzen (cf. 8.4.4.); testuetan, behin aurkitu dugu: *ezagucen duztenean* (603).
11. Hirugarren pertsona pluraleko NORK eta NORI morfema *-te* da: *guztiec nai dute* (375), *guertacen zaiote* (349), *iduricen zaiote* (616), *ezaiote barcacen* (618-619), *oc cerbait quencen badiote beren gurasoari* (773)... Gaur egun ere, *-te* dugu Goldaratzen (cf. 8.4.5. eta 8.4.6.).
12. *ditute* ‘dituzte’ eta *cituten* ‘zituzten’ adizkiak: *entregatuco ditute* (72), *izolico ditute* (73), *abandonatu cituten* (159), *guardacen baditute* (398), *salcen ditutenac* (706). Baina *dituzte* ere ageri da tarteka (350). Gaur egun, *ttute* eta *zittuten* erabiltzen dira Goldaratzen (cf. 8.4.5.).
13. Nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea: *eztitio emanen* (119-120), *paratuco ditiote* (484), *emanen citiola* (506), *aguindutizun* (510), *ostuce ditionac* (679), *eman citation alorrac* (740-741)... (cf. 8.4.7.).

14. Geroaldiko *-en* morfema (cf. 8.4.12.). Hala ere, gaur egun ohikoak diren *emain*, *izain*, *esain*, *joain*, *eoin* gisakorik ez da ageri testuetan, baizik eta *emanen* (10...), *izanen* (29...), *esanen* (85...), *joanen* (151...), *egonen* (156...), *eranzunen* (584...).
15. “Joan” aditzaren aldaera berranalizatuak, hala singularrean nola pluralean: *doaiela* (393, 395), *noaien* (512) & *noaiena* (690) erakoak ditugu singularrean, eta *doacila* (179) & *doaci* (763) erakoak, aldiz, pluralean (cf. 8.4.17.).
16. “Eduki” aditzaren aldaera *-i-dunak*: *ridiculotaco zeuquiten* (185), *disponituric dauzqui* (444). Baina *-e-dun* aldaerak ere badira testuetan. Bestalde, Goldaratzen gaur egun erabiltzen ez diren *daduqagu* (1), *daduquen* (53) gisakoak ere badira testuetan (cf. 8.4.20.).
17. Kausa-perpausetako *-lakos* morfema: *zuen redencioa urbil delacos* (23), *allegatu celacos* (120), *adisquidea delacos* (818), *berocen tiolacos* (819)... (cf. 8.5.1.).

Hona, orain, Goldarazko gaur egungo mintzoan agertzen ez diren baina testuetan ageri diren zenbait ezaugarri:

1. *ei > ai*. Hiru adibidetan baino ez da ageri (baina behin baino gehiagotan): *ogaita zorci urte* (215) & *iruetan ogaita amarurteco* (218) & *lautan ogaiturte* (219-220) & *berrogai* (454), *odai* (19, 154) & *odayec* (724), *eztai* (465). *ogai* eta *odai* ohikoak dira Larraunen; baliteke Arbillak Madotzen ikasiak izatea, edo baliteke Goldaratzen ere ezagunak izatea garai hartan (cf. 8.6.4.).
2. *oace* (414). Gaur egun, *goatze* dugu Goldaratzen (cf. 8.1.15.).
3. [y] ahoskera: *ioatea* (95), *ioanen* (174), *iarriric* (201), *iaquinduri* (205), *iarzaita* (555), *iaquinic* (641), *ianari* (675), *iocuen* (776)... Baina [x] ere ageri da, euskarazko hitzetan, maileguetan zein liturgia-izenetan: *joanen* (151), *juicioco* (151), *justoac* (192), *quejac* (728)... Gaur egun, [x] besterik ez da erabiltzen Goldaratzen eta orobat Imotzen (salbu Muskitzen), baina hurbil da [y]-ren eremua (Basaburu Nagusia, Ultzama...); beraz, baliteke Goldarazko euskaran aski berria izatea [x] (cf. 8.2.2.).
4. Lehen graduko *ebek* erakusle plurala eta haren deklinatuak: *Ebec dirade discipulu nereac* (20), *ebetati* (220), *dembora ebetan* (439), *cantidade chiqui ebec* (704), *ondasun ebetatic* (782-783)... Gaur egun, *ok* ‘hauek’, *oketan* & *otan* ‘hauetan’ erakoak ditugu Goldaratzen (cf. 8.3.2.).

5. Balio semantikorik gabeko *-n* morfema: *argatican* (43), *baicican* (144...) (baina *baicic* ere bada), *probechurican* (191), *erremediorican gabe* (253), *Izanican bada au zure fedea* (318), *orañican* (397), *Ezta izican* (437), *minican* (475), *oiengatican* (510), *lanican gabe* (523), *andican* (548), *eztut lorican ere eguiten* (767)... Halakorik ez dago Goldaratzen, baina *-tiken* bada Imozko gainerako herrietan eta Basaburu Nagusiko zenbaitetan (cf. 8.3.12.).
6. “Izan” aditzaren *-e-* erroa (cf. 8.4.8.): *viciceratenac* (28), *ariceradete* (544), *baterere muguicen eceratela* (364), *mantencen ceradela* (736-737)... Adizki hauek ere arrotzak dira Goldaratzen: *Ybillico dirade* (14), *bicitu ciraden* (101), *arquicen gueradenetaco* (236), *arquicen ceradetenac* (365-366), *gueldituciraden* (410), *iarcen dirade* (558)... Horiez gain, *cirate* (363), *ciradete* (367), *ecirade* (551...) formak ere badira testuetan. *-a-* erroa ere ageri da, gaur egun bezala: *Zu zara* (87), *egonen zara* (114). Nahasmena handia da, beraz.
7. “Edun” aditzaren *-e-* erroa: *saludatuco degun* (50), *ezpadezu eguiten* (113), *madaricatuac egon bear dezuen toquien* (290), *ecin acuditu badezu* (302-303), *baldin nai balinbadezu* (556), *negar eguiten degu* (575), *dezaquezularic ezpadezu eguiten* (837) ... Ez da beti ageri, ordea: *aditu duzun gucie* (307), *eguiten duzutelaric* (355)... (ikus 8.4.9.).
8. Nor-nork saileko adizkiak: *condenacen zaituen ura* (302), *pasarazten zaituzte* (365)... Ezaugarri hori galdua da Goldarazko hizkeran (8.4.13.).
9. *-a-* lotura-hizkia “egon” aditzaren forma trinkoetan: *ori cegoan pulpitura* (131), *cegoala* (114...), *prevenituric dagoana* (258), *cegoalaric* (361), *goseac dagoan batendaco* (418), *servizoan cegoan bati* (514), *presente dagoala* (622)... Halakorik ez dago gaur egun Goldaratzen.
10. Aditzoinaren erabilera: *alegra zaitezte* (23), *consolazaitezte* (33), *esca dizogun* (48), *Gueldigaitecen* (79), *minza bequiote* (377), *iar zaitea* (555), *procura beza* (859), *guerta dedille* (861)... Partizipioa ere ageri da zenbait kasutan: *ecusi dichaqueten guisan* (244-245), *artu dezagun* (338), *arrepentitunaitequela* (563)... Gaur egun, partizipioa da nagusi, baina aditzoina ere ageri da aginteran; zalantzarik gabe, behinola aditzoina erabiliko zuten Goldaratzen esparru ez erreal guztietan (8.4.22.).
11. Denbora-perpausetako *-larik* morfema: *minzacen delaric* (35), *alabacen dutelaric* (271), *botacen dituelaric hurrera* (387), *despreciacen ditugularic* (543)... Gaur egun, *-nean*

baizik ez dugu Goldaratzen, baina *-larik* bada Imozko gainerako herrietan eta Basaburu Nagusi gehienez (cf. 8.5.2.).

12. Adlatiboaz eraturako nominalizazioak⁷⁶: *ematentiotela adatera*, *uztendalocera*, *nola uzten dituen aztucera*, *uztendiote erorcera*. Gaur egun, absolutiboa ageri da Goldaratzen (cf. 8.5.5.).

Lexikoari dagokionez, oro har, kutsu nafarra duten hitz eta aldaera ugari dago testuetan. Haietako batzuk ohikoak dira Goldaratzen gaur egun ere: *deus* (269...), *equa* (432), *ezquillec* (343), *manatu* (170), *ongui* (381...), *ulien figuren* (515)... Beste batzuk ez dira gaur egun erabiltzen, baina baliteke inoiz Goldaratzen erabili izana: *aguiz* (256...), *aiciñean* (565), *aniz* (133...), *bida* (679), *erratea* (293...), *guti* (348...), *igorri* (130)... Nolanahi ere, lexikoan ere egoera nahasia dakusagu oro har: *izugarri* (6, 68) zein *izigarri* (71, 238, 239...) aldaerak ageri dira, *belaurico* (507) zein *belaunico*, *ebasi* zein *ostu* (480), *atari* zein *atea*, *pisquebat* (79) zein *pisco bat* (80) zein *piscabat* (746), *mortale* (636) zein *mortala* (637), *drecho* (794) zein *derecho* (797), *mii* (67) zein *mingaña* (304).

Guk azterketa dialektologiko zehatza egin nahi dugu, datu zehatzak eta seguruak erabiliz, eta Goldarazko testuek ez dituzte baldintza horiek betetzen. Baina ezaugarrien kronologia ezagutzeko behinik behin baliagarri izan daitezke testuetan ageri diren datuak.

6.2.2. Larraun: Uitziko (1506), Etxarriko (1762) eta Arruizko (XVIII) testuak

Larraunen, Uitziko XVI. mendeko ezkon-zin zahar bat dugu alde batetik, eta XVIII. mendeko lekukotasun bana Etxarrin eta Arruitzen, bestetik. Uitziko testua (1506. urtekoa) Satrustegik argitaratu zuen (1992), eta, ezkon-zin bat izanik, hizkuntzaren aldetik aski formulazio estatikoa dela esan daiteke. Nolanahi ere, testu laburra izanik ere, oso lekukotasun garrantzitsua da; batetik, aski zaharra delako, eta, bestetik, *dudanas eta duquedanas* ageri delako testuan (instrumentaleko -s, alegia), eta datu horrek balio handia du gure ikerketarako.

Beste bi testuak Satrustegiren bilduman argitaratuak dira (1987b: 122-128, 171-174). Etxarriko testua, *Jesusen bihotz sakratuaren debozioa* (sei orri dira), 1762. urtekoa da, eta, Satrustegik dioenez, ez dakigu nork idatzia den, baina baliteke Mendiburu izatea egilea, misioetan

⁷⁶ Satrustegi 1987a lanean ageri dira adibideok.

irakurtzen zituzten testuen tankera baitu, eta, gainera, Mendibururen kaligrafiaren antzekoa ageri da testuan, nahiz ez den batere datu ziurra (1987b: 122-123).

Testu horretako hizkera gaur egungoarekin alderatuz, garbi ikusten da Etxarrin eta orobat Larraunen gaur egun egiten dituzten bokal-asimilazio bilakabideak (-*ii*, -*uu*, -*ee*) ez direla testuetan ageri, nahiz baden $a > e$ bilakabidea, gaur egun bezala. Pentsatzekoa da bokal-asimilazio horiek geroagokoak direla, baina baliteke, halaber, orduko hizkeran erabili arren, testuan halakorik ez agertzea.

Morfologian, behin baino ez da ageri instrumentaleko -*s* morfema: *paraceas* (180). Gainerako adibide guztietan, -*z* ageri da: *siñezco* (36), *gutiz lenago* (68), *aciendaz* (104), *ganaduez* (104), *eusquerazco* (116), *memoriazco* (117)... XVIII. menderako, aski hedatua zen Nafarroan instrumentaleko -*s*, eta baditugu Uitziko eta Leitzako lekukotasunak XVI. eta XVII. mendeetan, hurrenez hurren; beraz, pentsatzekoa da -*s* izango zela Etxarrin eta orobat Larraun osoan ere (Etxarriko testuan, gainera, behin ageri da, esan dugunez). Bestalde, *eleiceraunz edo eleiza-aldera* ageri da testuan (159); gaur egun, *eliz alde(r)a* gisakoak ditugu Etxarrin eta inguruan.

Gainerakoan, aditzaren morfologian, aipagarria da nor-nori-nork saileko -*zki*- pluralgilea: *paratu cizquigun* (20), *eman cizquigun* (24), *eguiñen dizquio* (144), *emanen dizquio* (155)... Gaur egun, -*it*- ageri da Etxarrin; pluralgile hori XVIII. mendetik aurrera ageri da Nafarroako testuetan. Ez dakigu 1762. urterako pluralgile berria sartua zatekeen Etxarriko hizkeran; testuan -*zki*- ageri da, baina ezin jakin Etxarrin forma hori erabiltzen ote zuten oraindik edo testuaren egileak hangoak ez ziren formak erabili zituelako ageri ote den (cf. 8.4.7.). Geroaldiko -*en* morfema ageri da, ordea, kasu guztietan (gaur egun bezala; cf. 8.4.12.): *esanen* (28...), *izanen* (42...), *eguiñen* (60...), *enzunen* (85...), *iraunen* (114), *emanen* (155). Hirugarren pertsona pluraleko NORK morfemari dagokionez, -*te* ageri da testuan: *officioac dituztenac* (56), *componcen dutenac* (56-57), *emanen dizquio* (155)... Gaur egun, -*e* pluralgile zaharragoa (-*i* bihurturik) ageri da Etxarrin: *dui*, *ttui*, *ttioi* (cf. 8.4.5.). Alegia, -*te* berriagoa ez zen Etxarrira iritsi, nahiz horixe ageri den testuan. Azkenik, *zajea* ‘zaie’ adizkia ageri da testuan (175); Etxarrin ez dago halakorik, baina bada Leitzan eta Gipuzkoako zenbait tokitan (cf. 8.4.6.).

Arruizko testua ere XVIII. mendekoa da (ez dakigu urte zehatzik). Beltran de Galdurozek idatzitako bertso sorta bat da; Satrustegik dioenez, baliteke Galduroz jauna kopiatzailea baizik ez izatea; ez du zertan testuen egilea izan (1987b: 171). Hiru orri dira, eta Gurutze Bidearen ospakizuna jasotzen dute. Ez dago garbi nongo hizkera den, baina ez dirudi Arruizkoa denik. Bilakabide fonologiko gutxi-gutxi ageri dira (*tristia* behin, 25). Instrumentaleko -s behin ageri da: *guztis* (25). Baina -z da nagusi: *Beriz* (36...) & *berriz* (48...), *Odolez* (39), *irrir aldiz* (67). Azkenik, Nafarroako ezaugarri gutxi batzuk ageri dira: *doaie* (43), *merchedea* (33), *amecagarren* (73), *Zaticacen ereute* (85)⁷⁷.

Ez dugu, beraz, Larraungo euskara ordezkatzeko duen testu zahar fidagarrikerik: ez dugu egileen berri zehatzik, eta testuetako hizkera ezin har daiteke Larraungotzat.

6.2.3. Araitz-Betelu: Intzako testuak (1772 eta 1801)

Satrustegiren bilduman ditugu Intzako 1772. eta 1801. urteetako erlijio-testu bana (1987b: 131-133, 177-186). Guztira 132 orrialde dira, baina dena ez dago argitaraturik. Ez dugu egile(ar)en berrikerik (*Elordi* ageri da 1801eko testuaren bukaeran, baina ez dugu beste daturik).

1772ko testua laburra da, eta, halakoetan ohikoa izaten denez, hizkera jasoan idatzita dago. Intzako hizkeran emana dirudi, nahiz jabetzen garen arriskutsua dela holako erabakiak hartzea. Testua hain laburra izanik, ez dugu argudio askorik testua Intzako dela frogatzeko, baina kontrako frogarik ere ez dugu.

Hala, fonologian, $a > e$ asimilazioa da aipagarriena, gaur egun ere bizirik dagoena (cf. 8.1.3.): *adiñe* (2), *decencie* (6), *Parroquie* (9), *Cappillanie* (10), *doctriñe* (13), *diruten* (18), *contue* (20), *gauze bat* (27), *laburre* (47), *bi erriteco* (61), *Araize* (73), *Larraune* (74)... Gainera, gaur egun erabiltzen ez den zenbait inguruetan ere bada: *publica dezagule* (81), *nolabaite* (27), *cargue* (39), *geiego* (54...), *zeiñbeitetan* (56). Gaur egun Araitzen eta inguruko zenbait tokitan ohikoak diren $u > o$ eta $i > e$ bilakabideak ez dira, ordea, testuan ageri (cf. 8.1.4. eta 8.1.5.), baina uste izatekoa da bilakabide berriagoak direla, eta, gainera, halakoak ez ohi dira testu jasoetan agertu.

⁷⁷ Caminok ohartarazi gaituenez, *zaticacen ereute* erako egiturak Iruñerriko testu zaharretan ere ageri dira, hala nola Iberon; horrek iradoki lezake apezik apez ibilitako testua izango dela Arruizkoa, baina ez dugu esan nahi ezinezkoa denik era horretako egiturak Arruizen erabiltzea garai hartan.

Izenaren morfologian, gaur egun bezala, -z dugu instrumentaleko morfema: *medioz* (3), *bataz beste* (20)... (cf. 8.3.5.). -k gabeko forma zaharrak ageri dira ablatiboan eta motibatiboan: *oetati* (3), *parazeagati* (4), *premicieti* (59), *amarreneti* (60)... nahiz baden *errentetatic* (22) adibidea ere (cf. 8.3.8. eta 8.3.9.). Erakusleei dagokienez, *ok* gisakoak ageri dira lehen graduan: *oc* (5...), *demboraotan* (49).

Aditzari dagokionez, gaur egun bezala, -e morfema zaharra dugu hirugarren pertsona pluraleko NORK kasuan (cf. 8.4.5.): *zer obligacio duen* (37), *animen cargue duenac* (39), *erri guzietan nola ez baitue igual balio gauzec* (50), *Abadeac nola baitue carga eta trabaju geiego* (53-54), *errenta erebear duela geiego* (54), *ezpadue nai escumeca dizela* (78)... Bestalde, *datozen* adizkia dugu testuan: *odol bidez datozen oc zer cargaduen* (41). Gaur egun halakoak guztiz arraroak ez badira ere, Intzan ohikoagoak dira “heldu” aditzaz osatutako egiturak (cf. 8.4.21.). Testu zaharretan ohi den bezala, aditzoinaren erabilera zuzena da: *alimenta ditezen* (5-6), *manten ditezquean* (25), *señaladiezela* (53), *añadi daquiola* (58), *acudidezela* (78)...

Azkenik, Araitz-Beteluko gaur egungo mintzoan guztiz ohikoa den *bi illebeteren barrunen* (67) egitura ageri da testuan (cf. 8.6.6.); gaur egungo datuei kasu eginez, aski egitura lokala dirudi, eta esanguratsua da Intzako testu horretan agertzea.

Beraz, ez dugu froga handirik 1772ko testuko hizkera Intzakoa dela esateko, aipatu ditugun ezaugarriak ez baitira Intzakoak edo Araitz aldekoak soilik (*barrunen* analogikoa salbu), baina kontrakorik ere ezin esan dugu; zilegi da, hortaz, testua Intzakotzat hartzea, baina kontuan izanik kontu handiz jokatu beharra dagoela halakoetan.

1801eko testua nahasiagoa da. Izan ere, euskara giputzaren adizki ugari ageri da, baina euskara giputzarenak ez direnekin nahaska; esate baterako, *pensacen dezue* (39-40), *jaiocen dala* (40), *jaiocen dan orduen* (50), *logracen degun ateracea* (55), *izandu zala* (67), *Zu cerade* (149), *aplacacen dezune* (153), *jaiio zanean* (168), *pasacen baguera* (174), *ez degu arquituco* (175-176), *cergatic Zu ceran Sacerdoten glorie* (199), *alegracen guera* (119), *deseacen degu* (220) gisakoak ageri dira batetik, eta, bestetik, *esanen direzue* (11), *Norc esanen du* (23), *Arrazoia izanen da* (74), *interesacen dugun bezala* (75), *epacen dut* (106), *eguiñen dugu* (172), *Arrazoiarequin zara deitue* (198), *erregucen duzu* (235), *Cer eguinen dut* (235), *erorico oteceren* (321), *izala dela* (325),

escusacen derela (328). Gaur egun, ez da arraroa Araitz aldean adizki giputzak entzutea (ikus 8.4.8 eta 8.4.9.), ondoko gipuzkoarrekin dituzten harremanen eraginez, eta, ikusi dugunez, 1801eko testu horretan ere nabaria da eragin hori. Bestalde, geroaldiko *-go* morfema erabiltzen da Araitz-Betelun (ikus 8.4.12.), eta *-en* nahiz *-go* ageri da testuan. Arazo bera dugu begi aurrean: *-en* erabiliko ote zuten duela bi mende Araitz aldean? Hurbil dago *-en* formaren eremua (Larraun, Leitza), baina aski ote da testuan *-en* agertzea forma hori hangotzat hartzeko? Testuaren ezaugarriak zein diren kontuan harturik, iruditzen zaigu ez dela batere segurua halako erabakien alde egitea.

Bietariko formak ageri dira, halaber, instrumental kasuan (*-s* eta *-z*), are esaldi berean ere: *llagas, enfermedades, dolores, miseris, desdichez, eta lastimez beterik* (82-83). Gaur egun, *-z* ageri da Araitz-Betelun, eta hala ageri da 1772ko testuan ere (arestian aztertua). Tentazioa izan daiteke pentsatzea *-s* baliatuko zutela Araitz-Betelun XIX. mendearen hasieran: 1801eko testua dugu horren lekuko, eta ondoko Larraunen eta handik ekialdera *-s* agertzeak hipotesi hori indartu lezake. Baina hipotesi arriskutsua da, gure ustez: ez dakigu nor idatzia den testua, ez dugu froga aski Intzako euskaran idatzia dela esateko (gorago esan dugunez, hango eta hemengo ezaugarriak nahaska ageri dira), eta *-z* ageri da 1772ko testuan (aski fidagarria dirudiena, baina erabateko frogarik gabe). Beraz, ezin esan dugu Araitz-Betelun *-s* baliatu zutenik inoiz (ezta baliatu ez zutenik ere).

Kontraesanak kontraesan, testuan ageri diren beste ezaugarri batzuei begiratuz gero, badirudi testua Intzakotzat (edo hurbilekotzat) har daitekeela. Hain zuzen, gaur egun, Araitz-Betelun, Larraungo ipar-mendebalean, Leitza eta Areson erabiltzen dituzte *dazkio* ‘dizkio’ gisako formak (ikus 8.4.7.); eremu aski murriztean, beraz. Bada, aztergai dugun testuan badira halakoak: *apliquecen badazquiogu* (173), *zuri ematen dazquizuguleric* (242-243). *-i-* erroa ageri duten formak ere badira: *eman dizquiegun guztio* (207). Ezaugarri horren gaurko hedadura zein den aintzat harturik, baliagarritzat jo daiteke pentsatzea 1801ean gutxienez bazela Intza aldean; ezin jo dugu, aitzitik, datu erabat ziurtzat, gorago eman ditugun arrazoiengatik.

Bestalde, *-ki-* aditz-erroaren arrastoak aurkitu ditugu gaur egun Araitz-Beteluko euskaran (ikus 8.4.10.), eta testuan ere badugu lekukotasun bat: *manifestatu ciñequion mundu guztiri* ‘zenion’ (228-229). Berriz ere, ezin har dezakegu datu ziurtzat, baina ez diogu ezikusiarena egingo, eta halako formak Intzan 1801ean ere ezagunak izan zitezkeen aukera zabalik utziko dugu.

Testua interpretatzean aurkitu ditugun arazoen berri eman dugu, eta testuan ageri diren gainerako ezaugarriei erreparatuko diegu orain. Hona, lehenik, testuan ageri diren eta gaur egun ere erabiltzen diren ezaugarriei buruzko iruzkina:

1. $a > e$ asimilazioa. Gaur egun erabiltzen ez den zenbait ingurunetan ere ageri da testuan (cf. 8.1.3.): *izen* (11) & *izenic* (9), *Au de egune* (34), *cigune* (133), *correspondicen zazune* (222), *uqui dizezule* (241), *visitatu te regalazen zuen* (295).
2. Mugatzailea ezkutatzea. Bietariko adibideak ageri dira testuan: *ceruec* (73) & *escuc* (108), *gauce guztiec* (138) & *gauce gucic* (310), *graciec* (207) & *gracic* (178), *gucien* (147) & *guztin* (232)⁷⁸. Antzeko bilakabidea dugu *zun* & *zuen*, *citun* & *cituen* bikoteetan.
3. $er > ar$: *ifarnuco* (264...), *bastar* (85). Baina bada *infernuen* (90) ere.
4. $oa- > goa-$ bilakabiderik ez: *oacea* (221).
5. $d > r$: *erocin* (50), *acordari* (324).
6. $-ti$ eta $-gati$ forma zaharrak: *parteti* (9), *artati bereti* (20), *ceñetati* (33), *bateti* (42), *onen gati* (103)... Baina bada $-tik$ ere, urriago bada ere: *Santuetatic* (12), *ceñetatic* (36), *comprendiceagatic* (38) *instantetic* (45)...
7. oc lehen graduko erakusle singularra.
8. Berezko $-a$ galtzea: *ascendenci* (6), *miseri* (143), *alegri* (61), *pacienci* (84).
9. $-txo$ atzizki txikigarria: *aurcho* (19...).
10. Hirugarren pertsona pluraleko $-e$ morfema zaharra NORK kasuan: *pronosticatu ciguen* (29), *dichosoac Zu aciceco bularra eman zuen pechuaec* (195-196), *dichosoac zure aurtasunean Zuri musu, eta laztan amorosoaz gozatu zuen ezpaiñe aiec* (196-197), *bediquecen zatue* (233), *billecen zatue* (233).
11. Nor-nori saileko 1. pertsona pluraleko adizkiak: *manifestacen zaicu* (5-6) & *manifestacen zacu* (57), *etorri bacicecun* (163). Gaur egun, *zaiu* eta *zitaiun* formekin txandaka (baina urriago) ageri dira halako formak Araitz-Betelun (cf. 8.4.26.).
12. Objektuarekiko komunztadura-eza: *San Quirinoc uzi zun ebaquizen oñec, eta escuc* (316-317). Gaur egun ere badira halakoak Araitz-Betelun (cf. 8.4.14.).

⁷⁸ Zenbait kasutan, ezin osatu dugu halako parerik: esate baterako, baditugu *ceruen* (53) eta *munduen* (159) gisakoak, baina ez dugu mugatzailea ezkutatutako adibiderik.

Hona, orain, testuan ageri diren baina gaur egun Araitz-Betelun ageri ez diren ezaugarriak:

1. Balio semantikorik gabeko *-n* morfema: *oraindiquen* (18), *baiciquen* (42...) & *baiciquan* (156). Gaur egun ez da halakorik Araitz-Betelun, baina badira handik ez oso urruti (cf. 8.3.12.).
2. Aditzoinaren erabilera: *alegra zateste* (64), *proseguir dezan* (212-213), *allega gatecen* (216), *begire dezazu* (237), *uqui dizezule* (241), *mugui ditecen* (241-242), *galditecela* (331)... Baina partizipioa ere ageri da: *ezcutatu nateque* (105), *etorri zateala* (223), *galdu dedille* (306), *Ecusi zagun* (309). Gaur egun, ia galdua da aditzoina Araitz-Betelun eta inguruan (cf. 8.4.22.).
3. Denbora-perpausetako *-larik* morfema: *motibo onen gati izeguiten zularic Prof. Erregueac bere Jaungoicoarequin esaten zion humildade aundi batequin* (103-104), *iceguiten zularic alcarren artean* (170)... Testuan bada *-nean* ere; gaur egun, *-nean* besterik ez dago Araitz-Betelun (cf. 8.5.2.).
4. Modu-perpausetako *-larik* morfema: *amenazacen ciolaric furiric aundienarequin biurtu bear zuela ecerecera* (95-96), *zuri ematen dazquizuguleric veneracioac* (242-243)... Gaur egun, *-ela* morfema erabiltzen da Araitz-Betelun.
5. Perpaus konpletiboetako *-(e)na* morfema: *Badaquit correspondicen zazune abitacio garbie* (222), *badaquit galcen naicena* (231). Halakoak ez ditugu gure eremukotzat jotzen. Zuazok Euskal Herriko mendebaleko berrikuntzat hartu du (2006a: 130, 2008: 80-81).
6. “Utzi + adlatiboa” egitura: *uzu zuenac bere burue viciric jatera* (315). Baina inesiboa ere ageri da adibide batean: *uzi zun ebaquizen oñec* (316-317). Gaur egun, inesiboa dugu Araitz-Betelun, baina baliteke garai batean adlatiboa erabili izana, Nafarroako toki askotan bezala (cf. 8.5.5.).

Laburbilduz, ezin esan dugu 1801eko testua Intzako euskaran emana denik, inolaz ere hangoak ez diren ezaugarri ugari baitauka, baina badira hango hizkera isla dezaketen zenbait ezaugarri; beraz, betiere iturria zein den argi utziz, aintzat hartuko dugu testua.

6.2.4. Gure eremu inguruko hizkera itzaliak

Gure eremuko hizkeren azterketa dialektologikoa egiteko, baitezpadakoa zaigu inguruko hizkerei ere erreparatzea; hain zuzen, bizirik dira haietako batzuk, baina itzaliak dira gure alderditik hegoaldera dauden mintzoak: Arakil, Gulibar eta Txulapain. Guztiz itzaliak ez, baina itzaltze bidean dira Atezko eta Ultzamako zenbait herritako hizkerak ere. Mintzo horien berri izateko, beraz, diakroniara jo beste aukerarik ez dugu. Duela urte gutxi batzuk itzali ziren hizkerok, eta, zorionez, baditugu beste ikertzaile batzuek bildutako ahozko datuak; ez dugu beti aurkituko behar dugun guztia, eta datu guztiak ez dira zorroztasun berarekin jasoak, baina dagoenari heldu behar (cf. 5.1.). Gainera, zorte handia dugula uste dugu, aipatutako hizkerok beste ikertzaile batzuek dialektologikoki ikertuak baitituzte: Atetz eta Ultzama aztertu ditu Ibarak (1995a), Arakil Caminok (2005a eta 2006), eta Gulibar eta Txulapain ere maiz ditu aipagai Caminok berak 2003ko lan batean (ikus Camino 2003a eta 2003b). Lanok maiz aski baliatuko ditugu gure ikerketan.

6.3. Oharmen-dialektologia

Mitxelenak dioenez, hiztun orok du bere hizkeraren eta hurbileko zein urruneko hizkeren ezaugarrien gaineko kontzientzia, nahiz askotan horretaz ohartu ere ez egin (1976a: 313).

Oro har, dialekto edo hizkera baten hiztun oro ohartzen da herri, eskualde eta are etxe batetik bestera ere badela aldea mintzatzeko eran, eta hala da euskaraz ere. Itsasoko berriemaile batek esan zigunez, *iuskea iñon ee bada iguala?* Ildo beretik, iritzi hau bildu dugu Gartzaronen: *erri betean ee eztakit iual-iuala itz eitten den*. Zenbaitetan, hiztunek ez dakite zehazki aldaketa non dagoen, zer aldatzen den, zertan den desberdina hizkera bat beste batetik, baina aldea badela ohartzen dira betiere.

Gaur egungo dialektologian, hiztunek hizkeren gainean dituzten iritziak ere aintzat hartzen dira hizkerak aztertzeko orduan; izan ere, “hizkuntzaren aldaera geografikoez hizkuntzalari ez den jendeak zein uste multzo duen jakitea eta xeheki biltzea guztizko interesa duen eginkizuna da. (...) hiztunaren balorazioen eta hiztunak dituen hizkuntza-jarreraren eta hizkuntza-jokabidearen azterketa esplizituak, beharbada inkesta arruntean agertuko ez litzatekeen hainbat argitasun eskainiko du” (Camino 2009a: 304).

Hainbat ikerketak frogatu dute hiztunek oro har “asmatu” egin ohi dutela hizkerei buruzko oharrak ematean. Errusian egindako ikerketa baten adibidea dakargu (Krause, Lublinskaja eta Sappok 2006: 35):

... the subjects exhibit a fairly good orientation within the dialectal division of the Russian language area. They confirm the main division of Russian territory into north and south. The threefold division posited by dialectology matches the image of the naive speakers.

Oharmen-dialektologia deritza hiztunen oharmenaren arabera hizkeren gainean sortzen diren iritziak aztertzeari, eta guk ere dialektologiaren atal horri erreparatu nahi izan diogu gure ikerketan. Izan ere, dialektologia egiteko beste metodoen osagarri izan behar du oharmen-dialektologiak (Preston 1989: XII):

They derive from a combination of my own interests in dialectology and sociolinguistics, a few previous studies in the perception of areal differences, and some specific tools used by cultural geographers to tease out nonlinguistic areal impressions from nongeographers. I am certain, however, that a host of ethnographic techniques, some more quantitatively oriented than the heretofore prized participant-observer strategy, can help provide a better understanding of the regard for and classification of language and language use among ordinary speakers.

Areago, gure eremua trantsiziozkoa izanik, are lagungarriagoa izan daiteke hiztunengandik jasotako iritziei erreparatzea (Taeldeman 1989: 162):

Especially in transitional areas fieldworkers should not only inquire for the primary dialect data but also for the lectical awareness and the overall linguistic attitudes of the informants. Such subjective information is often indispensable if we want to explain the situation of a particular dialect area.

Gure eremuko herriak non dauden eta haien herri mugakideak zein diren kontuan hartuta, lekuan lekuko inkestak prestatu ditugu, hiztunek hizkeren arteko harremanez duten iritzia ezagutzeko asmoz. Espero izatekoa da hiztunen usteak eta ikerketa bidez erdietsitako ondorioak bat etortzea, baina gogoan izan behar da hiztunen pertzepzioa kontu konplexua dela; alegia, norberak bere bizitzan bizitako eta ezagututako esperientziaren arabera egiten ditu hizkeren gaineko juzkuak (Camino 2009a: 305):

Hiztun arruntak dialektoen mugak non sumatzen dituen interesatzen zaio hizkuntzalariari, baina honek jabetu behar du, usu hiztunak bere eguneroko bizitzan elkarreragiten duten edo sumatzen dituen erkidegoen mugekin arabera ikusten dituela dialektoen mugak ere, dialektoen mugak erkidegoen mugekin identifikatzeko joera duela eta ezin ahantzi dugu bizi-erkidegoa hizkuntzaz kanpoko eragilea dela.

Gure eremuan egin ditugun inkestetan bildutako iritziak ikerketa dialektologikoan ateratako ondorioekin alderatu ditugu, eta ondorioztatu dugu oro har badela koherentzia eta irizkidetasuna; alegia, hiztunak ez dira oker egoten beren usteak adierazteko orduan. Nolanahi ere, hiztunek esaten digutena ez da beti guztiz fidagarria edo, hobeki esanda, zeregin dialektologikoetan aintzat hartzeko modukoa. Zenbaitetan, herri jakin bateko hizkera pertsona bakar batekin lotzen dute hiztunek —alegia, pertsona horri guztiz loturik dakusate hizkera hori—, eta pertsona horren ezaugarriak —ez nahitaez hizkuntzazkoak— aipatzen dituzte hizkeraren ezaugarri gisa. Esate baterako, Oskozko emakume batek esan digu Etxalekuko mintzoa arras desberdina iruditzen zaiola, oso “r” bortitzak ahoskatzen baitituzte. Emakume haren senarra etxalekuarra zen, eta baliteke —ez baikenuen ezagutu— hark oso “r” nabarmenak ahoskatzea: emakume oskoztarrak Etxalekuko mintzoaren ezaugarritzat hartua du berez bere senarraren ezaugarri fisiko bat besterik ez dena. Halako iritziak ez dira dialektologian aintzat hartzeko modukoak.

Beste kasu batzuetan, berez dialektologiari ez dagozkion kontuak aipatzen dituzte: Arraratsen esan digute Eratsungo mintzoa oso desberdina dela Arraraskoaren aldean, Eratsunen hiketan egiten baitiete kanpotik heldu diren pertsona arrotzei ere. Iritzi bera bildu dugu Berueten, Aldazko mintzoaz: aldaztarrek den-denei —baita pertsona ezezagunei ere— hiketan egiten dietela eta horregatik asto samarrak direla eta hizkera traketsa dutela entzun dugu han. Bestalde, gartzarondar gizon batek esan digu iruditsuak direla Gartzarongo eta Leitzako mintzoak; honatx arrazoia: *mintzaira berdin-berdiñe duu, erdaasko itzek e kasi leku berean sartzen ttuu*. Alegia, gaztelaniazko hitz bertsuak erabiltzea da bi mintzook berdin-berdintzat jotzeko arrazoia.

Inoiz gertatu zaigu hiztun batek herri jakin bateko hizkeraren ezaugarri bat aipatzea herri horren bereizgarri gisa, eta gero ohartzea herri horretan ez dutela aipatutako ezaugarri hori erabiltzen. Esate baterako, Orokietan aipatu digute *mallu* hitza erabiltzen dutela berek, eta *malluke*, aldiz, Arraratsen, gauza bera esateko. Kontua ere kontatu digute, gainera; Arrarasko apez baten zirto moduko bat. Hona kontua: bakarren batek esan du iltzea gogorra dela, eta Arrarasko apezaren erantzuna: *iltzii goorra? Goorragoa malluke!*. Alegia, *malluke* hitza Arrarasko bereizgarritzat jotzen

dute. Alabaina, Arraratsen esan digute *mallu* esaten dutela berek ere; bada *malluxke* ere —alegia, mailu ttikia—, baina ez *malluke* (cf. 8.6.4.).

Antzekoa gertatu zaigu Igoan ere. Honako esaera hau bildu dugu han (Berueten ere bildu dugu): *Erbitti, gizon prestu gutti*. Hala, *gutti* aldaeragatik galdetu, eta igoarrak esan digu Ultzaman bezala *gutti* esaten dutela erbitiarrek ere, eta hortik esaera. Gero, Erbitira joan, eta *gutxi* entzun dugu; erbitiarrei berariaz galdetu diegu ea *gutti* esaten duten, eta ezetz esan digute beti, eta beren gurasoek ere *gutxi* esaten zutela. Nolanahi ere, baliteke aspaldi-aspaldikoa izatea esaera, eta garai batean *gutti* aldaera erabiltzea Erbitin ere, baina datuak ez digu balio gaur egungo hizkeraren ezaugarritako.

Beste aldi batean, oskoztar hiztun bat Baztango mintzoaz ari zitzaigula, zera aipatu zigun: *azule, galtzetiñek, pantalonak* eta *atorra* erabiltzen dituztela Oskotzen, eta Baztanen, aldiz, *urdiñe, galtzerdik, galtzak* eta *alkandora*. Ez da zalantzarik euskara batutik bildu dituela Baztangotzat hartzen dituen hitz horiek; gure hiztuna Irati aldean ibilia da basomutil, eta han baztandar ugarirekin suertatu zen elkarrekin lanean. Haien mintzoa oso garbia eta zuzena zela dio, eta horren adibidetzat jarri ditu arestian aipatutako hitzak. Gure ustez, Baztango euskara zuzena delako eta euskara batua zuzena delako usteak gurutzaturik ageri dira nolabait gure hiztunaren oharmenean. Alegia, Baztango euskara zuzena da; euskara batua zuzena da; beraz, euskara batuaren formak Baztango euskararenak dira.

Gerta daiteke, halaber, hiztunek uste okerrak izatea: Orokietako gizon batek esan digu Ultzaman *esnatu* esaten dutela, eta Orokietan, berriz, *iatzarri*. Betelun, berriz, Larraunen *ximaurre* erabiltzen dutela esan digu hiztun batek, eta Betelun, *ongarrie* (Gipuzkoakoa da *ximaurre* hitza, eta *ongarri* erabiltzen dute Larraunen, Nafarroa gehienez bezala). Halakoak hizkera guztietan gertatzen dira; Nafarroa Behereko ekialdeko mugan den Sorhapürü herriko adibidea dakar Caminok (2009b: 181): “larribartar batek, bestalde, Sorhapürüko mintzoa zuberera dela diosku, horko mintzoak Zuberoara jotzen duela, baina Sorhapürün bildu ditugun datuek ez dute ideia hori deusetarako bermatzen (...)”.

Oharmen-dialektologiari buruzko datuak lortzeko, ibarka antolatu ditugu inkestak; alegia, inkesta bat ibar bakoitzeko, herri eta ibar bakoitzak ondoan zer duen aintzat harturik betiere. Gure

ikerketan parte hartu duten berriemaile ia guztiei egin diegu oharmen-dialektologiako inkesta. Kasu batzuetan, binakako edo taldekako saioak egin ditugu; herri bereko hiztunekin zein herri bat baino gehiagoko hiztunekin, eta adierazi nahi dugu halako saioak oso aberasgarriak direla oharmen-dialektologiako datuak erdiesteko, hainbat lagunen artean errazagoa baita halako kontuez mintzatzea. Honako galdera hauek egin ditugu ibar bakoitzean⁷⁹:

Imotz:

- ◆ Ba al da aldaketarik Imozko herrien artean? Non? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Imoztik Basaburura? Eta Basaburuaren barrenean ba al da aldaketarik herri batetik bestera? Non? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Imoztik Larrauna? Eta Larraunen barrenean ba al da aldaketarik herri batetik bestera? Non? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Imoztik Atetza? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Imoztik Ultzamara? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Imoztik Arakil-Zia-Gulina aldera? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Imoztik Txulapaina? Zertan?
- ◆ Non dago aldaketarik handiena? Zein da ingurumari honetan Imoztik gehien urruntzen dena? Zertan?
- ◆ Beste batzuk: Basaburu Txikia, Araitz-Betelu, Leitza, Baztan, Sakanako erdialdea...
- ◆ Inguru honetan, non ikusten duzu aldaketarik handiena hizkerari dagokionez?

Basaburu Nagusia:

- ◆ Ba al da aldaketarik Basaburuko herrien artean? Non? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Basaburutik Imotza? Eta Imotzen barrenean ba al da aldaketarik herri batetik bestera? Non? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Basaburutik Ultzamara? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Basaburutik Atetza? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Basaburutik Larrauna? Zertan?
- ◆ Ba al da aldaketarik Basaburu Nagusitik Basaburu Txikira? Zertan?

⁷⁹ Inkesta egiten hasi ahala, hiztunak beren kasa hasi ohi dira beren usteak adierazten, eta, horregatik, maiz, ez diogu inkestako galderen hurrenkerari jarraitu, ez baita beharrezkoa izan. Nolanahi ere, saio guztien helburua izan da inkestako galdera guztiak erantzunda gelditzea.

◆ Beste batzuk: Araitz-Betelu, Leitza, Baztan, Arakil-Zia-Gulina aldea, Sakanako erdialdea...

◆ Inguru honetan, non ikusten duzu aldaketarik handiena hizkerari dagokionez?

Larraun:

◆ Ba al da aldaketarik Larraungo herrien artean? Non? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Larraundik Basaburu Nagusira? Basaburuaren barrenean ba al da aldaketarik herri batetik bestera? Non? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Larraundik Araitza? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Larraundik Leitza? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Larraundik Basaburu Txikira? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Larraundik Imotza? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Larraundik Gipuzkoara? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Larraundik Sakanako erdialdera? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Larraundik Arakila? Zertan?

◆ Beste batzuk: Zia-Gulina aldea, Ultzama...

◆ Inguru honetan, non ikusten duzu aldaketarik handiena hizkerari dagokionez?

Araitz-Betelu:

◆ Ba al da aldaketarik Araizko herrien artean? Non? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Araiztik Larrauna? Larraunen barrenean ba al da aldaketarik herri batetik bestera? Non? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Araiztik Leitza-Aresora? Zertan?

◆ Ba al da aldaketarik Araiztik Gipuzkoara? (Amezketeta, Bedaio, Lizartza, Orexa, Tolosa...). Zertan?

◆ Beste batzuk: Sakana, Basaburu Nagusia, Imotz, Basaburu Txikia...

◆ Inguru honetan, non ikusten duzu aldaketarik handiena hizkerari dagokionez?

Ibarrez ibar azalduko ditugu saioetatik atera ditugun ondorioak. Imotzen, berriemaileek adierazi digute iruditsua dela ibarreko herri guztietako euskara, ez baitute aldaketa bortitzik sumatzen inon ere. Aldaketa bortitzik ez, baina aldea bada herri batetik bestera, eta gehientsuenek aipatu dute Oskotzen dagoela aldaketa nabariena, *erran* esaten baitute han. Doinua, “dejea”... ere

Oskotzen aldatzen hasten dela diote gainerako imoztarrek. Muskitz ez dute hain maiz aipatzen, baina Erason esan digute Ultzamakoaren kutsu handia duela Muskizkoak. Goldarazko bi hiztunek ere Muskizkoa jo dute desberdinentzat: doinua, *erran* aldaera eta [j] ahoskera nabarmendu dituzte. Hain zuzen, azterketa dialektologikoan ikusiko dugunez (ikus 8. eta 9. atalak), Muskitzen bada Imozko gainerako herrietan ageri ez den ezaugarri sail bat, oro har Ultzama aldera begira jartzen duena. Goldaratzen ere badituzte gainerako herrietan ez dituzten zenbait ezaugarri —fonologikoak, batik bat—, baina badirudi hiztunen oharmenetik kanpo gelditzen direla, ez baitituzte ia inoiz aipatzen. Salbuespen gisa, Goldaratzen hitz-bukaera bereziak zituztela aipatu digu Erasoko berriemaile batek: Erason *esenea* esaten dute, eta Goldaratzen, aldiz, *esenii*. Horrez gain, Erason *irrik* eta Goldaratzen *parrak* erabiltzen dutela ere adierazi du erasoar hiztun horrek. Goldaratzen berean ere, haien hizkeraren iruditsu sumatzen dute Imozko gainerako herrietako euskara, salbu Oskozkoa eta Muskizkoa.

Bestalde, Imotzen jarraituz, oro har Imozkoaren berdintsua iruditzen zaie Basaburu Nagusiko euskara, baina gehienek aipatu dute herri guztietan ez direla berdin mintzatzen: Beruete, Arrarats eta Igoa herrietako mintzoa da bereziena, Beruetekoa batik bat. Hizketa-doinua eta lastertasuna aipatu ohi dituzte hango hizkeraren bereizgarritzat. Bestalde, Erbiti, Gartzaron eta Orokieta aldekoa ere desberdinxegoa dela diote, eta Ultzamakoaren kera hartzen diotela, doinuan batez ere. Gainera, imoztarrek maiz aipatzen duten kontu bat da [j] ebakera (*yoan, yakin, yarri...*), Basaburuko zenbait herritan erabiltzen baita.

Ingurumariko mintzo guztietan desberdinena Ultzamakoa dela baietsi digute imoztar berriemaileek. Horren erakusgarri, etxalekuar emakume batek kontatu digu apez ultzamarra egokitu zitzaiola lehen jaunartzea ospatu zuenean, eta ez ziola deus ere ulertzen. Atezkua, aldiz, ez dute Ultzamakoarekin lotzen, eta Imozkoaren tankerakoa iruditzen zaie. Bitxia da kontua; izan ere, Ibarak Ultzama aldean oharmen-dialektologiaz egindako saioan dioenez, alderdi hartako hiztunek batera ikusten dituzte Atetz, Ultzama eta Anue ibarrak, Imoztik eta Basaburu Nagusitik bereiz (1995a: 598).

Larraungo euskarari dagokionez, gehienek esan digute ez dutela asko ezagutzen, baina oro har Gipuzkoakoaren kutsua hartzen diote, eta euskara edertzat dute. Goldaratzen, Larraunekin muga egiten baitu, aldea badela esan digute: *-ziii* luzeak egiten dituztela nabarmendu digute, eta

nekazaritzako tresnen izenak ere desberdin esaten dituztela, hala nola *eskuberii*, Goldaratzen *zarrii* esaten baita. Errazkina orduko, kutsu giputzagoa hartzen diote hango euskarari, baita Araizkoari ere.

Azkenik, Arakilgo, Ziako eta Gulibarko mintzoei buruz ere galdetu dugu, baina gehienek ez dute gogoan nolakoa zen hango euskara. Muskitzen, baina, Beorburuko lagunekin harremana bai baitzuten, herri horretako euskara Muskizkoaren iruditsua zela kontatu digute.

Basaburu Nagusiari dagokionez, hiztun guztiak bat datoz ibarreko herrietako euskara aldatu egiten dela herritik herrira. Batetik, Erbiti, Gartzaron eta Orokieta berezitat jo ohi dituzte, Orokietakoa batik bat. Hala, erbitiar gizon batek esana da Orokietan Ultzamakoa sartzen dutela, eta hangoa euskara *frantsa* dela; alegia, *frantseskoa* sartzen dutela. Nolanahi ere, Ultzamakoa beren hizkeratik urrutisko sumatzen du, eta adibide gisa jarri ditu honako hitz hauek: Ultzamakoak dira *ortzillera*, *gutti*, *altziñea* eta *gibelea*, eta Erbitikoak eta orobat Basaburukoak, aldiz, *ostiela*, *gutxi*, *aurrea* eta *atzeakan*. Orokietan, aldiz, beren mintzotik oso urruti dakusate Ultzamakoa; diotenez, Ultzamara asko aldatzen da, han *altziñe* eta halakoak esaten baitituzte. Erbitiko beste hiztun baten ustez, berriz, gaztelaniaren kutsu handia du Ultzamako hizketak, eta horregatik da hain desberdina. Hiztun gehienek arestiko hitz horiek nabarmendu ohi dituzte Ultzamako ezaugarri gisa, eta baita *erran* ere. Itsason, gainera, Ultzamakoak Baztango mintzoaren antza duela esan digute. Oro har, Ultzamakoaren zaku berean sartzen dute Atezkoa ere, nahiz gehienek adierazi diguten ez dutela hango euskara ia ezagutzen. Erbitiko hiztun batek, gainera, Ultzamakoarekin bildu du Odietako mintzoa ere.

Bestetik, basaburuarrei berei berezia iruditzen zaie Berueteko, Igoako eta Arrarasko euskara ere: doinua desberdina delako, ahoskera berezia dutelako, hitzak jan egiten dituztelako... Hala, Itsason esan digute *-zuuu* “luzeak” egiten dituztela Berueten: Itsason *in duzte* ‘egin duzue’ dena *in duzuu* da Berueten. Gartzaronen, Berueteko *e* eta *o* irekiak aipatu dizkigute hango bereizgarri gisa: *beotarra zaa zo* eta halakoak esanez hartzen dituzte beruetarrak. Beste iritzi batzuk ere jaso ditugu Berueteko mintzoaren inguruan: hain zuzen, Orokietan esan digute Leitzakoaren kutsua duela, eta Gartzaronen, berriz, Aldazkoaren antza duela. Baina bai Berueten bai Igoan esan digute Aldazkoa eta Leitzakoa urruti daudela haienetik; Berueten *yon* ‘joan’ eta Aldatzen *jon* erabiltzen dutela jarri digute adibidetzat. Garbi dago berezia dela Basaburu Nagusiko iparraldeko hiru herrietako mintzoa, hiztun gehienek baitiote hori; baina, herri horietan, hain zuzen, haien mintzoak elkarren artean oso

desberdinak direla jaso dugu aho batez. Esate baterako, beruetarrekin irri-giroan halako kontuak askotan aipatzen dituztela kontatu digu Igoako emakume batek, Berueten bizi baita: haren arabera, alde handia dago bi herrion artean, eta berak betidanik kontzientzia izan du Igoako euskarari eusteko eta Beruetekoaren kutsurik ez hartzeko. Honako hitz hauek eman dizkigu adibide gisa: Beruetekoak dira *belartogi*, *okullu*, *beorra*, *odolki* eta *ataa* ‘atera’, eta Igoakoak, aldiz, *ganbara*, *beitti*, *biorra*, *tripota* eta *atea*. Horrez gain, bi herriotako doinua ere desberdina dela dio, eta Berueteko hizkera “torpeagoa” dela. Bestalde, Berueten ere desberdin sumatzen dute Igoako hizketa; esate baterako, Igoan *arre at* eta Berueten *arri et* esaten dela aipatu digute.

Basaburu Txikiko herriei dagokienez, Berueten esan digute iruditsuak direla Berueteko eta Ezkurrako hizkerak, baina Igoan, aldiz, Ezkurra eta Eratsun haienetik oso desberdinak direla entzun dugu. Arraratsen ere desberdintzat jo dituzte Ezkurra eta Eratsun, baina Etxalekukoa baino hurbilagokotzat betiere.

Bestalde, Leitzako euskara goraiatu digute Berueten eta Igoan: *propioogoa* eta *konpletoana* omen da hangoa.

Imozko euskarari buruz basaburuarrek duten pertzepzioari dagokionez, oro har, aldaketa zerbait badela ohartzen dira, baina aldaketa txikia dela diote. Ekialdeko herrietan (Gartzaron, Erbiti, Orokieta), [x] ahoskera eta *esan* aldaera aipatu dizkigute Imozko bereizgarri gisa, berek [j] eta *erran* baliatzen baitituzte. Erbitiko gizon batek, gainera, barrezka esan digu Etxalekun *yan* erabiltzen dutela ‘edan’ esateko; haientzat, hain zuen, ‘jan’ adierazten du *yan*-ek. Baina Itsason eta Ihabenen bildu dugu ez dagoela alderik Imotzen eta Basaburuaren artean: Itsasoko berriemaileak Goldarazkoa jarri du adibidetzat, Itsasokoaren berdina baita haren ustez, eta Ihabengo hiztunek, berriz, Etxalekukoa, beren hizketa bera egiten dutela iruditzen baitzaie. Basaburuko iparraldeko herrietan, Imotzen aldaketa badela esan digute, eta, gorago adierazi bezala, Arraratsen entzun dugu aldaketa handiagoa sumatzen duela Etxalekura, Ezkurra eta Eratsun herrietara baino.

Larraungo euskara gutxi ezagutzen dute, oro har, basaburuarrek, salbu muga-mugan dauden herrietan. Erbitin eta Itsason jaso dugu Gipuzkoako hizkeren kutsua duela Larraungoak, eta oso doinu polita duela azpimarratu digute bi herriotan. Itsason, berezitat jo dituzte Larraungo *ze in duzii?* ‘zer egin duzue?’ gisako ahoskerak. Gartzaronen, gainera, Aldatzen eta Berueten berdina hitz

egiten dutela esan digute, baina, gorago esan dugunez, beruetarrentzat oso desberdina da Aldazko hizketa, baita alderantziz ere.

Mintzo desberdinena zein den galdetuta, basaburuarrek erantzun digute Ultzama eta Sakana (Barranka, haien hitzetan) sumatzen dituztela beren hizketatik urrutien.

Larraungo berriemaileen oharren dialektologikoaz arituko gara orain. Larraungo herrietako euskarari buruz galdetuta, oro har, bi multzo bereizi ohi dituzte hiztunek: batetik, ekialdetik hasita, Lekunberri-Baraibar lerrorainoko herriak daude, eta, bestetik, lerro horretatik mendebalerakoak. Ekialdeko herrietan esan digutenez, Lekunberrietik mendebalera dauden herriek kutsu giputza dute, Araizkoaren antzekoa. Nolanahi ere, ekialdeko herrien artean ere desberdintasuna badela diote: Iribasen esan digute Oderizkoa aski desberdina dela, *ai zai* ‘ari zarete’ gisakoak esaten baitituzte han (Iribasen, *ai zaate*). Arruitzen, Aldazkoa ere berezia dela bildu dugu berriemaile batengandik, eta ekialdeko gainerakoak multzo berean kokatu ditu. Baraibarren, Albiasun dakusate aldaketa handiena, eta Alli-Iribas aldekoa Baraibarkoaren antzekoa dela esan digute. Iritzi bera bildu dugu alderantziz ere: Aldatzen kontatu digute beren hizkeratik urrutisko sumatzen dituztela Alli-Iribas aldeko hizkerak, eta hurbilago, aldiz, Etxarrikoa. Mendebaleko herrietan, berriz, Larraungo gainerako herrietan dena *-i* egiten dutela iruditzen zaie, eta haien hizketatik urruti sumatzen dituzte. Hain zuzen, Araizkoa hurbilago sumatzen dute, Larraungo ekialdekoa baino. Albiasun ere hurbilago sumatzen dituzte Azpirozko, Errazkingo eta Araizko hizkerak, Larraungo ekialdeko herrietakoak baino; adibide gisa esan digute *bidii* ahoskatzen dutela ekialdekoek, *bidea* Azpirotzen eta Errazkinen, eta *bidee* Albiasun. Uitzikoak kutsu berezia duela esan digute Gorritin eta Aldatzen: Gorritiko berriemaile batek esan digu uitziarrek *garagardoa limonaikin* eskatu ohi dutela (Gorritin, *limonaakin*), *dakeu* ‘daukagu’ eta *dake* ‘dauka’ gisako formak erabiltzen dituztela (Gorr. *daukeu*, *dauke*), eta baita *an tzeren* ‘han zeuden’ ere (Gorr. *an tzein*). Aldatzen, berriz, Uitzin *banoatz* ‘banoa’ esan ohi dutela nabarmendu dute berriemaileek.

Ondoko Araitzi buruz, oro har kutsu giputza duela entzun dugu Larraunen. Iribasko emakume batek zehaztu digu araitzarrek *ein duzue* esaten dutela, eta berek, berriz, *ein dozui*. Gainera, Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen esan digute hurbilago sentitzen dutela Araizko euskara, Larraungo gainerako herrietakoa baino. Bestalde, Albiasun nabarmendu digute Araizkoa euskara perfektua dela, onena eta garbiena.

Leitzakoa ere euskara jatortzat dute gehienek, baina desberdina da Larraungoaren aldean. Batez ere doinua eta [j] ahoskera aipatu dizkigute Leitzako bereizgarri gisa.

Azkenik, Imozko eta Basaburu Nagusiko euskara “beste mundu bat” dela sentitzen dute larraundarrek. Nolanahi ere, Goldarazkoa eta Arruizkoa berdintsuak direla aipatu digute Arruitzen, baina Etxaleku, aldiz, guztiz desberdina dela. Berueteko mintzoari dagokionez, haren ondoan dagoen Aldatzen esan digute oso desberdina dela; besteak beste, [j] ahoskera erabiltzen dutelako. Arraraskoa ere desberdin dakusate Aldatzen: *aata* eta *onata* erabiltzen dituzte, eta haiek, berriz, *auntza* eta *onontza*. Aldiz, Baraibarko emakume batek adierazi digu beren hizkeraren antzekoa dela Beruetekoa ere, alderdi hartako gainerakoak ez bezala.

Araitz-Beteluko hiztunen oharmenari buruzko datuak emanez amaituko dugu atal hau. Bailarako herrietako euskarari buruz galdetu dugunean, herri guztietan hizkera bera dutela esan digute oro har. Nolanahi ere, *goierrie* (goi-herria: Intza, Uztegi, Gaintza eta Azkarate) eta *beierrie* (behe-herria: Betelu, Arribe eta Atallu) bereizi ohi dituzte behe-herriko hiztunek; Beteluko bi hiztunek esan digutenez, goi-herrian azkarrago eta petralago hitz egiten dute, eta adibide gisa jarri dute *-zo* bukaera: Betelun *emango azkiozu* dena *emango azkiozo* da goi-herrian (nolanahi ere, *-zo* ere erabiltzen dute Beteluko hiztun askok). Goi-herrian, berriz, behe-herriko euskara “pobreagoa” eta “eskasagoa” dela jaso dugu oro har. Gaintzan esan digute, bestalde, Azkaratekoak kutsu giputza duela, eta badituztela esanera desberdinak; esate baterako, *anre* ahoskatzen omen dute “andre” hitza.

Hizkerarik desberdinena zein ote den galdetuta, Larraun aipatu digute berriemaile gehientsuenek. Betelun, esate baterako, hiztegi-kontuak aipatu dituzte: Betelun *barruti*, *soro*, *garo*, *arto* dena Larraunen *euntzi*, *alor*, *iaztor*, *maiz* dela esan digute, hain zuzen. Bestalde, Larraunen *banoaie* eta Betelun *banoa* erabiltzen dituztela nabarmendu dute. Hiztun gehienek aipatzen duten kontu bat da Larraungo *-zii* bukaera: *bauzii*, *ekarriuzii*, *ekarrikoittuzii*, eta abar. Kontu gisa, sorginen ipuin bat kontatzen ari zitzaigun Atalluko berriemaile bat, eta sorginak behin eta berriz errepikatzen zuen formula bat zen honako hau: *non da nere buruko orraxii?* Bada, formula hori errepikatzearekin batera, sorgina larraundarra izango zela errepikatzen zuen Atalluko berriemaileak, irriz. Zalantzarik gabe, Larraungo euskararen fonologia deigarri zaie gainerako herrietako

berriemaileei. Salbuespen gisa, Errazkin herria Araiztik hurbil sumatzen dute araitz-beteluarrek, nahiz baduen Larraungo kutsua: *izain da* gisako egiturak aipatu dizkigute Betelun (Bet. *izango a*).

Tolosaldeko herriak ondo-ondoan dituzte araitz-beteluarrek, eta haiekiko hartu-eman etengabeen bizi izan dira eta bizi dira, gainera (ikus 2.5. eta 2.8.). Hango hizkeraz galdetuta, aldea badela diote hiztun gehienek, baina aldea txikia dela iruditzen zaie. Betiere, Gipuzkoako ereduak goersten dituzte: garbiagoa dela, finagoa dela, ederragoa dela... Hango euskararen bereizgarrietan arakatuz, Betelun aipatu digute *goitikan* eta *betikan* esaten dituztela Tolosan-eta, eta hiztegi-kontuak ere aipatu ohi dituzte: *ximaurra* (Araitz-Betelun, *ongarrie*), *belar-soraa* (Araitz-Betelun, *barrutie*), eta abar. Hari beretik, esanguratsuak iruditzen zaizkigu Agurtzane Altuna azkaratear gazteak *Mailope* aldizkarian idatzitako hitz hauek (2008): “Gipuzkoako muan eotean, Tolosako eskolan beti napar tankera seittun hartzen ziguen. Iruñea lanea joan, da han berriz dena “gipuzkoanotuk” giñaudela. Muan eotea baño gauze zallegoik...”.

Inguruko gainerako hizkerez denaz bezainbatean, Leitzakoa desberdinxe sumatzen dute, baina ez Larraungoa bezainbeste. Gainerako hizkerak urrutixe gelditzen zaizkie oro har: Imotz, Basaburua, Ultzama... Azkenik, Sakanakoak (*barrankesa*) doinu berezia duela aipatu digute; beteluar hiztun baten hitzetan, *bero xamarra*, *biño noblea da*.

Oharmen-dialektologiari buruzko atal hau bukatu aurretik, ez ditugu aipatu gabe utzi nahi hizkeren prestigioari buruzko kontuak. Maiz irakurri dugu Tolosako euskara dela euskararik garbiena eta politena (ikus, besteak beste, Olano 1998: 53; Olano 2000: 125-128 eta 140-142; Zuazo 2003: 116-120, 134-135; Hurtado 2001: 43-50). Gure eremuan ere entzun dugu dagoeneko “mito” bihurtua den baieztapen hori, eta badirudi aspalditik heldu den ohitura dela. Goldaritzen, esate baterako, hiztun batek esan digu berek beti entzun dutela Tolosako hizkera dela garbiena eta finena, baina egiazki ez dutela hango euskara ia ezagutzen. Berueten, bestalde, Tolosako euskara goretsi digute bi ahizpak, eta, Tolosako euskara nondik ezagutzen duten galdetuta, “telebisiotik” eta “radiotik” esan digute. Alegia, gaur egungo hiztunek ez dute hartu-eman zuzenik izan gipuzkoar hiztunekin —salbu araitz-beteluarrek—, baina badirudi atzeragoko garaietatik heldu den esanera dela, inondik ere. Ez dugu ahaztu behar imoztarrek eta basaburuarrek moztua dutela, nolabait esateko, ekialderagoko eta hegoalderagoko euskararen oihartzuna, galdurik edo galtzear baita euskara hori, eta mendebaleragoko hizkeren oihartzuna jasotzen dute horrenbestez.

Leitzako euskarak ere ospe ona du oro har. Larraunen eta Basaburu Nagusian entzun dugu batik bat ederra dela Leitzako euskara: *propioogoa* dela, *konpletoana* dela, eta abar.

7. GURE EREMUA BESTE IKERTZAILE BATZUEN LANETAN

Atal honetan, gure eremuko euskara aintzat hartu duten orain arteko lanak aipatuko ditugu.

7.1. Bonaparte printzea

1869. urtean sailkatu zituen behin betikoz Bonaparte printzeak euskararen dialektoak (lau sailkapen egin baitzituen, 1861-1869 artean), Euskal Herrira hainbat bidaia egin ondoren. Gauza jakina denez, Bonaparte ahozko zein idatzizko lekukotasunez baliatu zen euskalkiak sailkatzeko. Hain zuzen, erlijio-lanak beren hizkerara itzultzeko eskatzen zien berak hautatutako pertsona jakin batzuei, eta lanok oinarritzat erabili zituen euskalkien ezaugarri nagusiak ezagutzeko, belarriz bildutako datuekin batera. Haren lanak euskal dialektologiaren abiaburutzat jotzen ditugu (Zuazo 1995a: 13).

Bonapartek datu asko bildu zituen, eta ezin ukatu da haren lanaren balioa, baina ekarpen teoriko urria egin zuen dialektologia-gaietan (Mitxelena 1964a: 26):

Siempre fue prisionero, muy particularmente, del “concepto unitario arcaico de los dialectos”, para emplear una expresión de Menéndez Pidal.

Batez ere morfologiari erreparatu zion, aditzaren morfologiari zehazki, eta fonetikako eta fonologiako ezaugarriarik ez zuen ia erabili, dialektologia erromanikoan eta germanikoan ez bezala (Mitxelena 1991: 182). Hizkerak talde batera edo beste batera biltzeko erabili zituen irizpideak ere ez ziren egokienak izan. Esate baterako, Irizarrek (1981a: 110-111) lehenengo eta Ibarrek (1995a: 28-29) eta Zuazok (1998a: 192, 2003: 102, 2008: 94-95) ondoren aipatu izan duten bezala, hiru ezaugarritan oinarritu zen Basaburuko, Larraungo eta Araizko euskara euskalki nafarrean edo euskalki giputzean sailkatu behar ote zen erabakitzeko (Bonapartek Etxenikeri bidalitako gutuna, 1864koa; ikus Urkixo 1910: 280):

- *naiz, zare / zara, da, gare / gara, zarate / zarete, dire* edo *naiz, zera, da, gera, zerate, dira* erabiltzen ote diren.
- *dut, duzu, dugu, duzue / duzute* edo *det, dezu, degu, dezute / dezue* erabiltzen ote diren.
- *zeren ona baita* edo *zeren ona dan* erabiltzen ote den.

Ez dirudi hiru ezaugarriok egokienak direnik hizkera horiek talde batera edo bestera biltzeko, ezta aski direnik ere.

Caminok eta Gomezek ondorioztatu dutenez, printzea ez zen oso fin ibili Aezkoako, Zaraitzuko eta Erronkariko ezaugarriak aurkezteko orduan; esate baterako, bada aldea hark bere laguntzaileengandik jaso zituen eskuizkribuetatik gero argitaratutako lanetara (1992).

Nolanahi ere, hutsuneak hutsune eta akatsak akats, lan handia egin zuen Bonapartek, eta haren sailkapena oinarritzat hartu dugu orain dela gutxi arte euskal dialektologian.

Bonapartek bi euskalki bereizi zituen Nafarroa Garaian: iparraldeko goi-nafarrera eta hegoaldeko goi-nafarrera. Gure eremuko lau ibarrak iparraldeko goi-nafarreran sartu zituen, baina ez denak batera. Hain zuzen, sei azpieuskalki bereizi zituen iparraldeko goi-nafarreran, eta aldaera bana egokitu zion azpieuskalki bakoitzari (Irizar 1981 [1949]c: 119):

- Ultzama (Lizasoko aldaera)
- Baztan (Elizondoko aldaera)
- Bortziriak (Berako aldaera)
- Arakil (Uharte Arakilgo aldaera)
- Araitz (Intzako aldaera)
- Gipuzkoa (Irungo aldaera)

Imotz eta Basaburu Nagusia Lizasoko aldaeran sartu zituen, Ultzama, Atetz eta Anue ibarrekin batera. Larraungo ipar-mendebala (Albiasu barne) eta Araitz-Betelu, berriz, Intzako aldaeran sailkatu zituen, Leitza eta Areso herrieekin batera. Azkenik, Larraungo hego-ekialdea Uharte Arakilgo aldaeran kokatu zuen, Arakilgo eta Sakanako erdialdeko hizkera batzuekin batera (Uharte, Irañeta, Murgindueta, Arruazu, Arbizu eta Lakuntza).

Gure eremuko lau ibarren inguruko hizkerari dagokienez, batetik, Berako aldaerara bildu zituen Basaburu Txikiko herriak, alderdi hartako hizkerekin batera (Bortziriak, Malerreka, Bertizarana eta Oronoz). Bestetik, azpimarragarria da gure eremuaren mugetan daudela Bonapartek bereizitako zenbait euskalkiren mugak. Alegia, hegoaldean, Imotzen hegoaldean kokatu zuen

iparraldeko goi-nafarreraren eta hegoaldeko goi-nafarreraren arteko marra: Imoztik hegoalderako hizkerak hegoaldeko goi-nafarreraren sailkatu zituen, Iruñeaz haratagoko azpieuskalkiaren barnean. Hiru aldaera bereizi zituen azpieuskalki horren baitan: Oltzakoa, Zizurkoa eta Guliakoa. Hain zuzen, Oltzakoan sartu zituen Arakilgo herri gehienak⁸⁰, Ollaran, Oltza, Itza, Antsoain, Goñerria, Gesalatz, Etxauri eta Girgillao, eta Guliakoan, aldiz, Gulibar eta Txulapain. Beraz, hegoaldeko goi-nafarreraren sartu zituen Imotzekin muga egiten duten Arakil, Gulibar eta Txulapain, eta kontuan hartzeko datua da hori.

Bestalde, Araitz-Betelu ibarraren eta Gipuzkoaren artean kokatu zuen Bonapartek iparraldeko goi-nafarreraren eta gipuzkeraren arteko muga-marra. Araitz-Beteluko herriekin muga egiten duten Tolosaldeko herriak iparraldeko gipuzkeran sartu zituen, Tolosako aldaeraren barnean, eta Aralarrez beste aldean den Zaldibia, aldiz, hegoaldeko gipuzkeran kokatu zuen, Zegamako aldaeraren baitan (Irizar 1991a: 5).

7.2. Damaso Intza

Damaso Intzak ez zuen sailkapenik egin, baina Nafarroa Garaiko aditz laguntzaileari buruzko lan bat osatu zuen 1921. urtean, eta hizkerak aditz laguntzailearen ezaugarrien arabera multzokatu zituen. Hala, multzo batean jarri zituen Araitz, Bera eta Etxalar (1921: 73), eta herriotan euskara giputzaren ezaugarriak badituztela nabarmendu zuen, hala nola *due* ‘dute’ edota *die* ‘diote’⁸¹.

Beste multzo batean sartu zituen Imotz, Basaburu Nagusia eta Arakil, Irañeta barne (1921: 73-74), eta bigarren pertsona pluraleko *-zte* morfema azpimarratu zuen hango bereizgarri gisa: *natzaizte* ‘natzaizue’, *zaizte* ‘zaizue’, *duzte* ‘duzue’, *dizte* ‘dizute’. Zenbait desberdintasun ere aipatu zituen multzo horren baitan: Arakilen *detxozu*, eta Imotz-Basaburu Nagusian *detxazkiozu*. Bestalde, Imotzen eta Basaburu Nagusian nor-nori-nork saileko *-it-* eta *-zki-* bi pluralgileak erabiltzen dituztela zioen⁸². Azkenik, beste hizkera batzuetan ere (Oltzako aldaeran, Larraunen, Basaburu Txikian, Zubietan) baden *-ee-* aipatu zuen: *dee* ‘dira & dit’, *ziñeen* ‘zenidan’, *balee* ‘balira & balit’.

Larraungo euskararen batasuna ikusi zuen Intzak (1921: 74-75, cf. Intza 1957), nahiz eta Araitzi loturik ikusten zituen mendebaleko herriak —alegia, Lezaeta, Azpirotz, Uitzu eta Gorriti (Errazkin

⁸⁰ Arakilgo banaketaz, ikus Camino 2005a: 269-270.

⁸¹ Intzak hala idatzi bazuen ere, *dute* eta *diote* ageri dira Beran eta Etxalarren, eta ez *due* eta *die*.

⁸² Baina *-it-* erabiltzen da Imotzen eta Basaburu Nagusian (ikus 8.4.7. atala).

ez du aipatzen, ordea)—. Larraungo euskararen bereizgarri, bigarren eta hirugarren pertsona pluraleko adizkiak aipatu zituen: *zaati, dizui, nizuin, dioi, dii...* (ikus 8.4.3., 8.4.4., 8.4.5. eta 8.4.6.).

Inguruko hizkerari dagokienez, Leitza eta Areso batera kokatu zituen, eta Basaburu Txikikoa ere haietatik hurbil zekusan (1921: 75-76). Azkenik, beste multzo bat osatu zuen Ultzama, Odieta, Anue eta Txulapain ibarrekin (1921: 80), eta bigarren pertsona pluraleko *-zie* morfema eta hirugarren pertsona pluraleko *-te* aipatu zituen bereizgarri gisa. Talde horretako hizkerak Basaburu Nagusiko, Imozko eta Arakilgo hizkerekin kidetasunak badituztela ere gaineratu zuen.

7.3. Nicole Moutard

Moutardek ere ez zuen sailkapenik egin, baina Euskal Herri osoan barna ibili zen hizkeren bereizgarriak biltzen, eta, Bonaparteren sailkapena oinarritzat harturik, emaitzak hiru artikulutan argitaratu zituen, 1975ean (ikus Moutard 1975a, 1975b eta 1976). Gure eremuan ere ibili zen, eta Albiasuko eta Etxalekuko datuak bildu zituen. Ez ditugu hemen aipatuko datu guztiok, baina bakar batzuk gogora ekarriko ditugu. Albiasun (1975b: 177-180), nabarmentzekoak dira ezaugarri hauek: *a > e* asimilazioa (*intxaurre, mille*), bokal geminatuak (*semee, eskuu, argii, eurii, buruu*), hasperentzearen ordeztok bokal artean *-g-* sartzea (*agoa*), *-st-* kontsonante taldea (*bost, beste*), palatalizazioa (*itturri, pollite & politte, ill, ibilli, billatu, sillarra, piñu, erreñe*), *f > p* kontsonante-aldaketa (*pesta, apari, naparra*) eta [x] ahoskera (*jende, jeinkoa, jakin, jarri*).

Etxalekun, berriz, ezaugarri hauek dira aipagarrienak (1975b: 180-184): *a > e* asimilazioa (*untze, zakurre*), *-e + -a > [ja]* eta *-o + -a > [ua]* asimilazioak (*semia, fedia, biarra, agua, bagua, atsua*)⁸³, *eltxaur* aldaera, palatalizazioa (*makille, eskille, sillarra, mille, illoba, ladrillu, piñu, laño, soñu, matalla, erreñe*) eta [x] ahoskera. Etxalekuko adibideak Ultzamako Auzakoekin batera ageri dira Moutarden lanean, eta, zenbaitetan, ez dago guztiz argi zein dagokion herri bakoitzari. Nolanahi ere, batzuetan, garbia da bereizkuntza: Etxalekun *euri*, eta Auzan *iguri*.

7.4. Pedro Irizar

Ezaguna da Irizarrek aditzaren gainean egindako lan mardula. Hura ere Bonaparteren sailkapenean oinarritu zen, baina zenbait aldaketa interesgarri proposatu zituen. Bonaparteri jarraituz, hain zuzen, Lizasoko aldaeraren barnean kokatu zituen Imotz eta Basaburu Nagusia,

⁸³ Gaur egun, batik bat *-ea* eta *-oa* (ikus 8.1.2. atala).

Ultzama, Atetz eta Anue ibarrekin batera (1992a: 15), baina xehetasun interesgarriak eman zituen hango hizkeren gainean. Oro har, ekialdetik mendebalera zenbait desberdintasun badirela nabarmendu zuen; alegia, Lizasoko aldaeran dena ez dela bat. Honako banaketa hau proposatu zuen (1992a: 32):

- Ultzama, Atetz, Muskitz eta Lantz
- Mendebala: Imotz (salbu Muskitz) eta Basaburu Nagusia
- Anueko iparraldea: Olague, Aritzu eta Etxaide etxaldea
- Anueko hegoaldea: Leazkue, Egozkue, Burutain, Etsain eta Etulain

Aditzaren morfologian oinarriturik proposatu zuen Irizarrek banaketa hori, baina fonologiako ezaugarri bati ere erreparatu zion; izenari mugatzailea eranstea sortzen diren bokal-asimilazioei, hain zuzen. Ezaugarri horrek agerian uzten du Atetz-Ultzama-Anue alderdiaren, Imotzen eta Basaburu Nagusiaren arteko aldea (1992a: 26-27, 31-32). Gainera, *erran* eta *esan* aldaeren hedaduraz ere ohartu zen: Muskitzen eta handik ekialdera, *erran* ageri da, eta mendebalera, berriz, *esan* (1992a: 32-33, 222; cf. 8.6.2.).

Interesgarria da, halaber, Muskitz Atetzekin eta Ultzamarekin batera kokatu izana (1992a: 28; cf. 1992a: 222):

... las formas verbales de Múzquiz se apartan sensiblemente de las de los restantes pueblos de Imoz y en general de las subvariedades occidentales y se asemejan a las de las subvariedades orientales.


Horrez gain, Basaburu Nagusiko euskara guztiz homogenea ez dela ondorioztatu zuen, eta bi azpimultzo osatu zituen: Basaburu Nagusiko iparraldea eta Basaburu Nagusiko hegoaldea (1992a: 277-278). Artola bera ere ohartua zen bi alderdion arteko aldeaz, Irizarrek berak dakarrenez:

Miguel Muguiro honek dioenez, Aizarotz, Gartzaron eta Orokietako haurrak Erbitira joaten ziren eskolara, haien arteko mintzamoldea berdintsua zelarik. Berdintsua omen zen, era berean, Jauntsarats, Itsaso, Beramendi, Udabe eta Ihabengoa ere, Jauntsarats eta Ihabenen euskara gutxiago egiten zen arren.

Igoa, Arrarats eta Beruetekoa, aldiz, diferentexegoa iruditzen zaio eta, hauen artean, Berutekoa beste pixka bat aldetzen dela dio, Larraungo Aldaztik edo, nonbait, datorkion kutsua kausa dela, hainbat bukaeratan *i* aldera dextente jotzen omen delako.

Irizarrek gehiago zehaztu zuen kontua (1992a: 278, 325): Igoak du Basaburu Nagusiko gainerako herrien antza handiena, eta Beruete da, aldiz, gehien aldentzen dena, eta tartean dago Arrarats.

5. irudia: Lizasoko aldaera (Irizar 2008: 216)



Bestalde, 7.1. atalean esan dugunez, Bonapartek bitan banatu zuen Larraun: hego-ekialdeko herriak Uharte Arakilgo aldaeran sartu zituen, eta ipar-mendebalekoak, berriz, Araizko aldaeran. Irizarrek dioenez, banaketa hori ez da bidezkoa (1992a: 4-5). Izan ere, nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea ageri da hego-ekialdeko herrietan, eta *-zki-*, aldiz, ipar-mendebalekoetan; ezaugarri horretan oinarritu zen Bonaparte hego-ekialdea Uharte Arakilgo aldaerara biltzeko (hango hizkeretan ere *-it-* baitago), eta ipar-mendebala Araizko aldaerara biltzeko (*-zki-* baitago Araitzen, Leitzan eta Areson). Baina, Irizarren arabera, ezaugarri hori ez da aski halako banaketa proposatzeko (1992a: 4-5):

Es cierto que las formas transitivas tripersonales con objeto directo en plural de los pueblos de Larraun incluidos por Bonaparte en la variedad de Huarte-Araquil (a los que habría que añadir Albiasu) son semejantes a las de los pueblos de La Barranca, del tipo *ttio* (flexión IV-11-i), frente a las de los restantes pueblos del valle de Larraun, que son del tipo *dazkio*, *dizkio*, pero esta diferencia (que, junto a otras, hemos tomado como base para establecer una subvariedad) no justifica, por sí sola, la inclusión de aquellos pueblos de Larraun en la variedad de Huarte-Araquil. Debe tenerse en cuenta además que estas formas verbales del tipo *ttio* son usuales también en las subvariedades de Imotz y Basaburúa Mayor, de

la variedad de Lizaso, colindantes con Larraun, con cuyas conjugaciones tiene mucha mayor semejanza la de este valle que con las de los pueblos de La Barranca.

Horretaz ohartarazirik, Araizko, Leitzako eta Aresoko hizkerekin bildu zituen Larraungo herriak, Sakana aldeko hizkerekin duten baino antzekotasun gehiago baitute alderdi horrekin.

Hala ere, Araizko aldaeran ere dena ez da bat, eta honako banaketa hau proposatu zuen Irizarrek (1992b: 117):

- Araitz-Betelu
- Larraungo hego-ekialdea (Etxarri, Lekunberri, Aldatz, Baraibar, Iribas, Alli, Mugiro, Arruitz, Astitz, Oderitz, Madotz eta Albiasu)
- Larraungo ipar-mendebala (Gorriti, Lezaeta, Uitz, Azpirotz eta Errazkin)
- Leitza
- Areso

6. irudia: Intzako aldaera (Irizar 2008: 280)



Bestalde, Bonapartek ipar-mendebalean zekusan Albiasuko euskara, baina Irizarrek hego-ekialdean txertatu zuen (1992b: 117). Azkenik, Irizarrek ohartarazi zuen Araitz-Betelutik gero eta hurbilago dagoela Errazkin, aditz-formei dagokienez (1992b: 121).

Inguruko hizkeren banaketari dagokionez, Irizarrek Bonaparteren sailkapenari eutsi zion funtsean (Basaburu Txikia Berako aldaeran, Tolosaldeko herriak Tolosako aldaeran, eta abar), baina bazuen zalantza iparraldeko goi-nafarreraren eta hegoaldeko goi-nafarreraren arteko mugarekin. Hain zuzen, iparraldeko goi-nafarreraren baitako herri batzuek hegoaldeko ezaugarri batzuk badituztela ohartarazi zuen, eta Olaibar-Gulibar aldean mugak zehaztu beharra dagoela ondorioztatu (1992c: 1)⁸⁴.

Irizarren ekarpena oso aintzat hartzekoa dela iruditzen zaigu, bai aditzaren gainean dakarren informazioagatik, bai hizkeren sailkapenaz egindako oharrengatik ere.

7.5. Rosa Miren Pagola

Nafarroako euskara aztertu du Pagolak, alderdi fonetikoa aintzat harturik (1992). Tartean, Goldaratz, Beramendi, Arrarats eta Aldatz herrietako lekukotasunak bildu ditu. Datu fidagarriak dira guztiok, Goldarazkoak izan ezik (Apalauza 2008a: 34-35). Haren ondorioak ez dira guztiz zehatzak, baina badira zenbait ideia interesgarri (1992-I: 285). Lehenik, Basaburu Nagusia eta Ultzama banatu beharrak direla dio, eta Ultzama Atetzekin eta Baztanekin batera dakusa. Bestalde, Muskitz Imozko gainerako herrietatik aparte kokatu du, Atetzi loturik (nahiz ez dakarren Muskizko daturik). Azkenik, oso era orokorrean dio Goldarazko, Arrarasko, Beramendiko eta Aldazko datuek bat egiten dutela oro har.

7.6. Orreaga Ibarra


Ultzamako aldaerako euskara aztertu du Ibarrak (1995a), Ultzamako euskara ardatz nagusizat harturik, eta Ultzama-Atetz-Anue alderdia Imozko eta Basaburu Nagusiko euskararekin alderatu du. Gure eremuko datu ugari dakar, beraz, eta ezinbesteko lantzat jotzen dugu gure helburua aurrera eramateko.

Ibarraren ondorio nagusia da bi multzo nagusi bereizi beharra dagoela Ultzamako aldaeraren baitan (1995a: 682-683, cf. Ibarra 1996a): A eremuan sartu ditu Ultzama, Atetz eta Anue, eta B eremuan, berriz, Imotz eta Basaburu Nagusia. Nolanahi ere, egileak dioenez, B eremua “ez da

⁸⁴ Gerora ere hainbat ikertzailek zalantzan jarri dute euskara nafarra bitan banatu behar ote den (Ibarra 1995a: 693, Camino 2003a: 146-148). Gainera, Bonapartek berak zioenez, tarteko dialektotzat hartu beharra da iparraldeko goi-nafarrera (Irizar 1981 [1949]c: 120).

zeharo trinkoa eta isomorfikoa”, eta trantsizio-eremutat jo ditu Imotz (salbu Muskitz) eta Basaburu Nagusiko ekialdea.

7. irudia: Ultzamako aldaeraren baitako banaketa (Ibarra 1995a: 683)



Baina zehaztasun gehiago ere eman du Ibarrak. Esate baterako, haren arabera, Basaburu Nagusiko hizkera ez da homogenea, “hizkera itxiagoa eta garatuagoa” erabiltzen baitute mendebaleko herrietan (Arrarats, Beruete, Igoa, Itsaso). Imotzen ere dena ez da bat: Muskitz A eremuan kokatu du, Ultzama-Atetz-Anue alderdiarekin batera, eta Goldaratzek Basaburu Nagusiko mendebaleko herriekin bat egiten duela dio. Alegia, B eremuan aldakortasun handia dago, A eremuan ez bezala.

Horren guztiaren frogagarri, fonologiako eta morfologiako ezaugarri ugari eman du Ibarrak (ikus, bereziki, 1995a: 683-690), eta garbi utzi du zein diren A eta B eremuak banatzen dituzten ezaugarriak⁸⁵.

Hizkeren arteko harremani begira, Ibarrak dio A eremuko euskara hegoaldeko goi-nafarrerari loturik dagoela, eta B eremukoa, berriz, Larraungo eta mendebaleragoko hizkerei loturik. Ildo horretatik, Bonaparteren sailkapena gainditu, eta Nafarroa Garaiko euskararentzako beste sailkapen

⁸⁵ Lanean zehar ikusiko dugu ezaugarri horiek zein diren.

bat proposatu du (1995a: 693-694). Hain zuzen, iparraldea eta hegoaldea bereizi beharrean, ekialdea eta mendebala bereiztea proposatu du; hala, ekialdeko goi-nafarrerara bildu ditu Ultzama, Atetz, Anue, Bortziriak, Sunbilla, Malerreka, Baztan eta hegoaldeko goi-nafarrera, eta mendebaleko goi-nafarrerara, aldiz, Imotz, Basaburu Nagusia, Arakil eta Araitz (Larraun ez du aipatzen, baina bigarren talde horretan legoke).

7.7. Koldo Zuazo

Zuazok ez du ikerketarik egin gure eremuan, baina Euskal Herriaren ikuspegi orokorra ematen duen sailkapena egin du 1998, 2003 eta 2008 urteetan, eta gure eremuari buruzko zenbait berri badakar.

1998ko sailkapena aurrerapauso handia izan zen euskal dialektologian. Saio hartan, Bonaparteren ikuspegia gainditu, eta zortzi euskalki beharrean sei aurkeztu zituen Zuazok (1998a: 228-230). Lanaren berrikuntza aipagarrienetako bat da euskalkien izenei dagokiena: mendebaleko euskalkia proposatu zuen harako “bizkaiera”ren ordeztu, eta erdialdeko euskalkia “gipuzkera”ren ordeztu. Gure eremuari dagokionez, erdialdeko euskalkian sailkatu zituen Imotz (salbu Muskitz), Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu, Gipuzkoa gehienarekin eta Nafarroako mendebaleko beste hizkera batzuekin batera (1998a: 218, 228). Muskitz, aldiz, euskara nafarrean sartu zuen, Nafarroako beste hizkera batzuekin batera (1998a: 215, 228).

2003ko sailkapenean, ildo bertsutik jo du Zuazok, baina bada zenbait berritasun. Araitz-Betelu eta Larraungo mendebala (ez dago garbi zehazki zein herri) erdialdeko euskararen sartu ditu bete-betean, eta erdialdeko euskararen eta euskara nafarraren tarteko hizkeratzat hartu ditu Larraungo ekialdea, Basaburu Nagusia eta Imotz (salbu Muskitz). Muskitz, aldiz, euskara nafarrean sartu du.

Zuazoren ustez, gure eremuko hizkerak erdialdeko euskarara lerratuz joan dira, Gipuzkoaren hurbiltasuna eta Iruñearen erdaltasuna dela-eta, eta euskara nafarretik urrunduz (2003: 100, 102, 132-134).

Azkenik, 2008ko sailkapenak berritasun gutxi ekarri du gure eremuko hizkeren sailkapenari dagokionez. 2003an egin bezala, euskara nafarrean sartu du Muskitz (erdiguneko azpieuskalkian, hain zuzen), tarteko hizkeratzat hartu ditu Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraungo ekialdea, eta

erdialdeko euskararen sartu ditu Larraungo mendebala eta Araitz-Betelu. Berriz ere, Iruñearen urruntasuna eta Gipuzkoaren hurbiltasuna aipatu ditu banaketa horren arrazoi nagusitzat (2008: 92, 94-95, 130-132).

Garrantzi handia dute Zuazok egindako sailkapenok, baina zenbait arazo konpondu gabe daude oraindik. Erdialdeko euskararen eta euskara nafarraren mugak zehaztea lan zaila da, bereizgarri gutxiko eremuak baitira, Euskal Herriaren erdigunean dauden heinean. Hala, Zuazok euskara nafarraren ezaugarritzat jotzen dituenak ez dira euskara nafarra osatzen duten hizkera guztietan ageri, eta, bestalde, euskara nafarretik kanpo dauden beste hizkera batzuetan ere ageri dira ezaugarri horiek (cf. Camino 2004a: 83-84, Apalauza 2008a: 161-171). 10. atalean helduko diogu gai horri.

8. irudia: Euskara nafarra (Zuazo 2008: 99)



9. irudia: Erdialdeko euskara (Zuazo 2008: 135)



7.8. Beste lan batzuk

Badira Euskal Herri osoa aintzat harturik edota hizkuntzaren atal jakin bat aztertu nahian gure eremuko datuak bildu dituzten ikertzaileak. Ez dute gure eremua zehazki lantzen, baina oso datu baliagarriak dira dialektologiarako. Ez ditugu denak hona ekarriko, baina bai garrantzitsuenak:

◆ *Erizkizundi Irukoitza (EI)*. 1922-1925 urteetako datuak bildu ditu lan horrek, eta 1984an argitaratua da. Gure eremuari dagokionez, honako herri hauetako datuak ageri dira: Beruete, Gartzaron, Aldatz, Lekunberri, Lezaeta-Azpirotz eta Betelu. Jakina denez, 100 koaderno galduak dira; tartean, gure eremuko Oskotz, Ihaben, Beramendi, Uitz, Azpirotz eta Intza herrietakoak.

◆ *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)*. 80ko hamarkadan, gure eremuko honako herri hauetan ibili ziren Aranzadi elkarteko kideak datu biltzen: Muskitz, Gartzaron, Uitz, Alli eta Intza. Ohar gisa, Alliko datuak ez dira batere fidagarriak, hangoak ez diren ezaugarri mordoa ageri delako, hala nola *azi gera*, *zaartu dira*, *dauka*, *atia* ‘atea’, *burua*, *dijoa*, *dator*, eta abar.

◆ *Nafarroako euskaldunen mintzoak*. Gure alderdiko zenbait testu eta grabazio bildu ditu lan horrek: Orokieta, Ihaben, Etxaleku, Iribas eta Intza.

◆ *Aditza ipar goi nafarreraz*. Gamindek iparraldeko goi-nafarrera osatzen duten herrietako aditza bildu du, eta tartean dira gure eskualdeko herri asko: Imozko Goldaratz, Eraso, Etxaleku, Oskotz eta Muskitz; Basaburu Nagusiko Igoa, Arrarats, Beruete, Gartzaron, Jauntsarats

eta Beramendi; Larraungo Oderitz, Arruitz, Etxarri, Baraibar, Lezaeta, Uitzu eta Gorriti; eta Araitz-Beteluko Betelu, Uztegi eta Azkarate. Halaber, Gamindek perpausaren morfologiari zein azentuerari buruzko datu ugari bildu eta argitaratu ditu (ikus bibliografia).

8. GURE EREMUKO HIZKEREN EZAUGARRIAK

8.1. Fonologia: bokalak

8.1.1. Bokal luze edo geminatuak

Euskaraz, hizkera batetik bestera alde handia dago bokal luzeen eta soilen erabileran. Hizkera askotan ez dago bokal luzeen eta soilen arteko oposizioirik; beste batzuetan, ordea, halako oposizioek eragin handia dute fonologian, eta item lexikoak zein kategoria gramatikalak bereizteko ahalmena izan dezakete (Hualde 1991: 615).

Bokal geminatu zaharrenak hasperena galtzearen ondorioz sortutakoak dira (*VhV* → *VV*): *zaar*, *maats*, *zuur*... Alabaina, ezaugarri hori galtzear da hizkera gehienetan, bokala soiltzeko joera nagusitu baita: *zar*, *mats*, *zur*... (Hualde 1991: 615). Gure eremuan ere bokal soila ageri da gehien-gehienean ingurune horretan, baina zenbait hiztunek bokal luzea ahoskatu ohi dute oraindik ere⁸⁶: *zaar* ‘zaharra’ (Gol.), *naasi* ‘nahasi’ (Lat., Ar.-Bet.), *iñaalak* ‘eginahalak’ (Gol., Etxal.), *aari* ‘aharia’ (Gol.), *aarikoa* ‘aharikoa’ (Gai.), *aalbaitt* ‘ahalbait’ (Bet.), *ool* ‘ohola’ (Bet.).

Zaharrak dira, halaber, Euskal Herriko mendebaleko zenbait hizkeratan ageri diren bokal luzeak; esate baterako, *obraac* eta *messaan* erakoak ageri dira Orozkon 1739an (Ulibarri 2008: 203), *jaáteko* erakoak Oñatiko Uribarri auzoan XX. mendean (Izagirre 1970: 141, cf. Ataungo datuak in Azurmendi 1996: 57-65). Halakoak galduak dira hizkera gehienetan, baina Oñatin, esate baterako, gaur eguneraino iraun dute.

Baina ingurune fonologiko jakin batzuetan ere sortu dira bokal geminatuak zenbait hizkeratan, hala nola gure eremuan, eta horixe erreparatuko diogu. Bi ingurune fonologiko nagusitan sortutako bokal geminatuak bereiziko ditugu: a) bi bokal berdinen arteko kontsonantea galtzearen ondorioz sortutakoak, eta b) bokal-asimilazioaren ondorioz sortutakoak. Aztertzen ari garen eremu ia osoan ageri dira bokal luzeak, baina ezaugarri ahula da eremuko ekialdeko herrietan; alegia, Imozko Muskitzen eta Basaburu Nagusiko Erbitin, Gartzaronen eta Orokietan. Aitzitik, indartsua da Araitz-Betelun, Larraunen, Muskitz ez beste Imozko herrietan eta Basaburu Nagusi gehienean. Gainera,

⁸⁶ Herri-izenak laburdura bidez adieraziko ditugu lanean zehar: Im. (Imotz), Era. (Eraso), Etxal. (Etxaleku), Gol. (Goldaratz), Lat. (Latasa), Mus. (Muskitz), Osk. (Oskotz), Urr. (Urritza), Zarr. (Zarrantz), Bas. Nag. (Basaburu Nagusia), Arrar. (Arrarats), Bera. (Beramendi), Beru. (Beruete), Er. (Erbiti), Gar. (Gartzaron), Ig. (Igoa), Iha. (Ihaben), Its. (Itsaso), Oro. (Orokietan), Ud. (Udabe), Larr. (Larraun), Alb. (Albiasu), Ald. (Aldatz), Arru. (Arruitz), Ast. (Astitz), Azp. (Azpirotz), Bar. (Baraibar), Erra. (Errazkin), Gorr. (Gorriti), Iri. (Iribas), Mad. (Madotz), Od. (Oderitz), Ui. (Uitzi), Ar.-Bet. (Araitz-Betelu), Arri. (Arribe), At. (Atallu), Azk. (Azkarate), Bet. (Betelu), Gai. (Gaintza), In. (Intza), Uzt. (Uztegi).

ikusiko dugu bokal soilen eta luzeen bereizkuntzak balio morfologikoa ere izan dezakeela zenbait lekutan (ikus b.3. atala).

a. Bi bokal berdinaren arteko kontsonantea galtzearen ondorioz sortutakoak (VCV → VV)

Hasperena galtzearen ondorioz sortutakoak ez bezala, bi bokalen arteko kontsonantea galtzearen ondorioz sortutako bokal luzeak bizirik dira hizkera askotan; bilakabidea berriagoa da (Hualde 1991: 619). Gure eremuan, bokal arteko kontsonante mota hauek erortzearen ondorioz sortzen dira bokal luzeak: ttak edo *tap*⁸⁷ (-r-), igurzkari ezpainkari ahostuna (-b-), igurzkari horzkari ahostuna (-d-), igurzkari belar ahostuna (-g-) eta sudurkari hobikaria (-n-). Nolanahi ere, Hualdek ohartarazi duenez, kontsonante horiek ez dira beti-beti galtzen hizkera horietan, eta, horrenbestez, ez dira beti bokal luzeak sortzen (1991: 618):

Tal alternancia, sin embargo, no suele ser general; sino que está léxicamente marcada. Ciertas palabras pueden pronunciarse sin la continuante sonora, y ciertas otras no; aunque el contexto fonológico sea el mismo.

Esate baterako, gure eremuan, ohikoa da *akabatu* > *akaatu* ahoskatzea, baina ez dugu inoiz entzungo *alaba* > **alaa*; baizik *alaba* beti.

Hitz barnean, hitz bukaeran zein bi hitzen artean sortutako bokal luzeen adibideak ikusiko ditugu:

a.1. VrV → VV:

- -a hizkiaz bukatutako hitz bati adlatibo-marka eranstean, oso arrunta da bokal luzea sortzea. Singularrean, pluralean, mugagabeen zein izen berezietan gertatzen da: *-ara* > *-aa*, *-(e)tara* > *-(e)taa*. Hona zenbait adibide: *mezaa* ‘mezara’ (Gol., Etxal.), *plazaa* ‘plazara’ (Gol.), *ikastolaa* ‘ikastolara’ (Lat.), *bere artaa* ‘bere hartara’ (Ig.), *dantzaa* ‘dantzara’ (Arru.), *bordaa* ‘bordara’ (Azk., Gai.), *errekaa* ‘errekara’ (Gai., At.), *errotaa* ‘errotara’ (Gai., At., Bet.), *depositu etzutaa* ‘depositu batzuetara’ (Lat.), *oittaa* ‘horietara’ (Bet., At., In.), *erritaa* ‘herrietara’ (Oro.), *potetaa* ‘poteetara’ (Bet.), *arditaa* ‘ardietara’ (Azk.), *nesketaa* ‘nesketara’ (Gai.), *oliotaa* ‘oliotara’ (Bet.), *Tolosaa* ‘Tolosara’ (Ar.-Bet.), *Latasaa* ‘Latasara’ (Gol., Zarr., Oro.).

⁸⁷ Oñederrak fonetika-fonologiarako proposatutako terminologia hobetsiko dugu lan guztian zehar (2004).

- -o hizkiaz bukatutako hitz bati *-on bat* ‘-ren bat’ egitura gehituz gero, *-oon bat* sortzen da: *armarioon batzuk* ‘armairuren batzuk’ (Lat.), *balazoon bat* ‘balazoren bat (< gazt. balazo)’ (Urr.), *insultoan bat* ‘insultoren bat (< gazt. insulto)’ (Osk.), *ollaskoon bat* ‘oilaskoren bat’ (Gol.), *astoon bat* ‘astoren bat’ (Gol.), eta abar. Adibide horietan, ttak kontsonantea galdu ondoren, aurreranzko asimilazioa gertatu da; alegia, *o* bokalak *e* bokala asimilatu du, eta *-oo-* bokal geminatua sortu da (cf. Hualde 1991: 619). Halakoak *-on bat* egitura erabiltzen duten eremuan entzun daitezke; alegia, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen (ikus 8.3.17.).

- *-i-z* bukatutako aditz bati *-(r)ik* partizipio-morfema gehituz gero, *-irik* > *-iik* gertatzen da: *jarririk* ‘jarririk’, *bizirik* ‘bizirik’, *eosirik* ‘egosirik’, *geldirik* ‘geldirik’, eta abar. Salbuespen dira zenbait herritan sortzen diren *-eik* errealizazioak (ikus 8.1.5.a.).

- “Arazi” aditzaz osatutako aditz arazleetan, *arazi* > *aazi* gertatu da: *iñaazi* ‘eginarazi’ (Gol., Its.), *joanaazi* ‘joanarazi’ (Its., Ald.), *janaazi* (Gai.) & *yanaazi* (Ig.) ‘janarazi’, *galaazi* ‘galarazi’ (Azk.), *sekaazi* ‘sekarazi (< gazt. secar)’ (In.), *etzanaazi* ‘etzanarazi’ (Uzt.), *ateaazi* ‘aterarazi’ (Bet., Ig.), *paazi* ‘pagarazi’ (In.), eta abar.

- Pertsona-izenordainetatik eratorritako formak: *nee* ‘nire’, *ii* ‘hire’, *zoo* ‘zure’, *goo* ‘gure’, *bee* ‘bere’, *been* ‘beren’, eta haien eratorriak (*neekin* ‘nirekin’, *zootzat* ‘zuretzat’, *googana* ‘guregana’, eta abar). Nolanahi ere, *ie* ‘hire’, *zoe* & *zue* ‘zure’ eta *goe* & *gue* ‘gure’ formen gisakoak ere ageri dira eremu osoan (alegia, guztiz asimilatu gabeak), batik bat Goldaratz ez beste Imozko herrietan eta Basaburu Nagusiko ekialdean.

- Beste adibide batzuk: *Goldaatz* ‘Goldaratz’ (Gol.), *Juantsaas* (Gol.) & *Yuantsaats* (Beru., Ig.) ‘Jauntsarats’, *Askaate* (Ar.-Bet.) & *Axkaate* (Ar.-Bet.) ‘Azkarate’, *patxaana* ‘patxarana’ (Mus.), *baatza* ‘baratza’ (Its.), *paatu* ‘paratu’ (Its.), *euskaa* ‘euskara’ (Erra.), *erdaa* ‘erdara’ (Erra.), *ganbaa* ‘ganbara’ (Gorr., Azp.), *txikaatu* ‘zikiratu’ (Gorr.), *baatxuri* ‘baratxuria’ (Ald.), *gaai* ‘garai’ (At., Azk.), *prepaatu* gazt. ‘preparar’ (Arri.), *batee* ‘batere’ (Gol.), *difeentzi* ‘diferentzia’ (Gol.), *beendatu* gazt. ‘merendar’ (Lat.), *geezi* ‘gerezia’ (Ud.), *obeenen* ‘hoberenean’ (Azp.), *seenoa* gazt. ‘sereno’ (Gai.), *deetxoa* gazt. ‘derecho’ (In.), *iiñe* ‘irina’ (Erra.), *ziike* ‘zirika’ (In.), *koosti* ‘gorostia’ (Gol.,

Arru.), *Ookita* ‘Orokieta’ (Beru.), *guutze* ‘gurutzea’ (Gol.), *inguun* ‘inguruan’ (Azk.), *buu* ‘burua’ (Ar.-Bet.)⁸⁸, *gaa* ‘gara’, *zaa* ‘zara’, *dee* ‘dira’⁸⁹, eta abar.

Ttak kontsonantea galdu ondoren, atzeranzko asimilazioa gertatu da bi adibide hauetan: *Amiiketaa* ‘Ameriketara’ (Uzt.), *matiilitako* ‘materialtako’ (Gai.).

a.2. VbV → VV:

• *-a + bat* egitura (eta haren eratorriak): *neska at* ‘neska bat’ (orok.), *pala atekiñ* ‘pala batekin’ (Gol.), *bala atzuk* ‘bala batzuk’ (Azp.), eta abar.

• “Ibili” aditzaren adizki trinkoetan, orainaldian nahiz iraganean: *naa(i)lle* ‘nabil’, *daa(i)lle* ‘dabil’; *naa(i)llen* ‘nenbilen’, *zaa(i)llen* ‘zebilen’, eta abar. Adibide horiek aski bereziak dira, jatorrian ez baitira ageri berdinak diren bi bokal; Hualderi jarraituz, kontsonantea galdu da lehenik, kontsonantea galdutako silabako bokala semibokal bihurtu da ondoren, eta, azkenik, aurreko bokala luzatu egin da horrenbestez (*dabille* > *daille* > *da-ille* > *daa(i)lle*). Gure eremuko lau ibarretan ageri dira adizki horiek orainaldian; iraganeko adizkietan, baina, *-ea-* bokal multzoa ageri da Araitz-Betelun (ikus 8.4.16.).

• Beste adibide batzuk: *akaatu* ‘akabatu’ (Gol.), *Baraar* ‘Baraibar’ (orok.), *baa* ‘baba’ (Azp.), *zaaldo* ‘zabaldu’ (Gai.), *taakoa* ‘tabakoa’ (Ar.-Bet.), *iilli* ‘ibili’ (orok.), eta abar.

Aurreranzko asimilazioa dugu bi adibide hauetan: *taarna* (Osk., Gar., Ar.-Bet.) & *traana* (In.) ‘taberna’, *kontriizioa* ‘kontribuzioa’ (Gai.). Atzeranzko asimilazioa dugu, aldiz, hiru adibide hauetan: *Irees* ‘Iribas’ (orok.), *illeete* ‘hilabetea’ (Gol.), *autuusa* ‘autobusa’ (At.).

a.3. VdV → VV:

• “Jakin” aditzaren forma trinkoetan, adizkiari aurretik *ba-* partikula erantsiz gero: *baakit* ‘badakit’, *baaki* ‘badaki’, *baakiu* ‘badakigu’...

⁸⁸ Euskaraz, ez da oso ohikoa *buru* > *buu* egitea, baina Araitz-Betelun askotan entzun dugu: *buuti* ‘burutik’ (Azk.), *buuz beira* (In.) & *buuz bera* (Gai.) ‘buruz behera’, *buun* ‘buruan’ (Gai., In.), *been buuk* ‘beren buruak’ (Azk.), *buue gora* ‘burua gora’ (In.), *buuko orraxie* ‘buruko orraxia’ (At.), *zee buutik* ‘zure burutik’ (Gai.), *buuko pañoloa* ‘buruko pañueloa (< gazt. pañuelo)’.

⁸⁹ Ikus halako aditz-formen hedadura 8.4.25. atalean.

• *-kada > -kaa* atzizkia: *palakaa* ‘palakada’ (Gol.), *kazulkaa* ‘kazolakada’ (Bet.), *atzaparkaa* ‘atzaparkada’ (Bet.)...

• Beste adibide batzuk: *aarra* ‘adarra’ (Bet., Azk., Gai.), *beeinketu* ‘bedeinkatu’ (At.), *eerki* ‘ederki’ (orok.), *oolki* ‘odolkia’ (Arru.), *oola* ‘odola’ (Ar.-Bet.), *suurre* ‘sudurra’ (Gol.), eta abar.

Kontsonantea galdu ondoren sortutako atzeranzko asimilazioa dugu bi adibide hauetan: *deete* ‘didate’ (Im., Bas. Nag.), *aurrea itteko muun* ‘aurrera egiteko moduan’ (Bet.).

a.4. VgV → VV:

• *-o* hizkiaz bukatutako hitz bati *-(o)go(a)* konparazio-morfema eranstea, bokal luzea sortzen da; zenbaitetan, gainera, *-o* ez beste bokal batez bukatutako hitzetan ere gertatzen da, atzeranzko asimilazioaren ondorioz. Hona adibideak: *beandoo* (Gol.) & *beanduo* (Mus.) ‘beranduago’, *siuroo* ‘seguruago’ (Gol.), *aixoo* ‘aiseago’ (Era., Oro.), *mantsoo* ‘mantsoago’ (Urr.), *geroo* ‘geroago’ (Ig.), *fiñoo* ‘finagoa’ (Ald.), *gozooa* ‘gozoagoa’ (Azk.), *sekoa* ‘sekoagoa’ (Gai.), *peligrosooa* ‘peligrosoagoa (< gazt. peligroso)’ (Bet.), *gaiztooa* ‘gaiztoagoa’ (Bet.). Baina honelakoak ere ageri dira gure eremuan: *tontoau* ‘tontoago’ (Osk.), *astoau* ‘astoago’ (Osk.), *beroau* ‘beroago’ (Osk.).

• Beste adibide batzuk: *saar* ‘sagarra’ (orok.), *izanaati* ‘izanagatik’ (At.), *penaarri* ‘penagarria’ (Etxal.), *nazkaarri* ‘nazkagarria’ (Era.), *paatu* gazt. ‘pagar’ (Urr.), *garaartzarrea* ‘garagartzarrea, ekaina’ (Ig.), *leena* ‘legena; azaleko gaitza’ (Od.), *eeñ* ‘egin’ (Ar.-Bet.), *gooratu* ‘gogoratu’ (Ig.), *goor* ‘gogorra’ (Ald., Oro.), *duu* ‘dugu’ (orok.), eta abar.

Azkenik, atzeranzko asimilazioaren ondorioz sortuak dira *aal* ‘hegala’ (Gol.) eta *naar in* ‘negar egin’ (Gol., Urr.) adibideak.

a.5. VnV → VV:

Ingurune morfologiko jakin batean gertatzen da; *-n-z* bukatutako aditzei *-en* geroaldiko morfema gehitzean, hain zuzen. Basaburu Nagusiko iparraldean bildu ditugu honelako adibideak (cf. Hualde 1991: 621): *emaan* ‘emanen’, *izaaan* ‘izanen’, *esaaan* ‘esanen’, *yoaaan* ‘joanen’, eta abar (ikus adibide gehiago 8.4.12. atalean)⁹⁰.

⁹⁰ Gaur egungo euskaran ez da ohikoa VnV → VV bilakabidea; horregatik, baliteke disimilazioz *-n-n-* → *-r-n-* bihurtu izana, eta ondoren galdu izana ttak kontsonantea, euskaraz ohikoagoa den moduan.

b. Bokal-asimilazioen ondorioz sortutakoak

Ingurune morfologiko jakin batzuetan sortzen dira, eta, horrenbestez, erregela sinkronikotzat har daitezke (Hualde 1991: 620). Hiru sail bereiziko ditugu:

b.1. -a mugatzailea asimilatzearen ondorioz sortutakoak:

Bada aldea herri batetik bestera, baina, oro har, bokal luzeak sortzen dira, mugatzailea asimilatzearen ondorioz, Imozko Goldaratzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdeko herrietan (ikus adibide eta xehetasun gehiago 8.1.2. atalean). Batzuetan, *-ee* da emaitza (Larraunen —salbu Azpirotz eta Errazkin—, eta Basaburu Nagusiko Berueten, Arraratsen eta Igoan): *otee* ‘otea’, *labee* ‘labea’, *goree* ‘gurea’, *pakete* ‘paketea’, *alkatee* ‘alkatea’, *ekartzee* ‘ekartzea’, *sartzee* ‘sartzea’. Beste batzuetan, *-ii* dugu (Imozko Goldaratzen, Basaburu Nagusi gehiengan eta Larraungo hego-ekialdean): *goldii* ‘goldea’, *tristii* ‘tristeia’, *meza-kantazalii* ‘meza-kantazalea’, *itturrii* ‘iturria’, *epurdii* ‘ipurdia’, *kantatzii* ‘kantatzea’, *asmatzii* ‘asmatzea’. Azkenik, *-uu* ere badago (Goldaratzen, Basaburu Nagusi gehiengan eta Larraungo hego-ekialdean): *mantenuu* ‘mantenua’, *razionatuu* gazt. ‘racionado’, *ostatuu* ‘ostatua’, *prestatuu* ‘prestatua’.

Beste euskal hizkera batzuetan ere antzekoak bildu izan dituzte; esate baterako, Ondarroan *beruu* gisakoak erabiltzen zituzten XX. mendearen hasieran, baina, gaur egun, bokala soildu eta *beru* nagusitu da (Hualde 1991: 620). Gure eremuan, ingurune horretan bokal luzea duten hizkeretan aski ongi iraun dute bokal luzeak, nahiz eta hizkera horiek erabiltzen dituzten hiztun gazteenetako batzuek bokalak soiltzera egin duten (ikus atal honen bukaeran emandako azalpena eta adibideak).

b.2. Zenbait adizkitan sortutakoak:

Larraungo hego-ekialdeko herrietan, 2. eta 3. pertsonen *-e-* pluralgilea asimilatu eta *-i-* bihurtzen da: *duzui* (& *dezui* & *dozui*) ‘duzue’, *ziñuin* ‘zenuten’, *diozui* ‘diozue’, *zaizkizui* ‘zaizkizue’, *dui* ‘dute’, *zuin* ‘zuten’, *ttui* ‘dituzte’, *zittuin* ‘zituzten’, eta abar. Bada, adizki horietan, atzeranzko asimilazioaren ondorioz, pluralgilearen aurreko *-u-* asimilatu egiten da batzuetan, eta orduan sortzen dira bokal luzeak: *duzii* (& *dezii* & *dozii*), *ziñiin*, *diozii*, *zaizkizii*, *dii*, *ziin*, *ttii*, *zittiin*... (beraz: *-ue* > *-ui* > *-ii*).

Alderantziz, aurrerantz gauzatu da asimilazioa Basaburu Nagusiko Berueteko adibide hauetan: *duu* ‘dute’ *ttuu* ‘dituzte’ eta *duzuu* ‘duzue’, *zaizuu* ‘zaizue’ gisakoak (-ue > -ui? > -uu).

Adizki guztion erabilera eta hedadura zehatz-mehatz aztertuko dugu aditzaren morfologiaren atalean (ikus 8.4.4. eta 8.4.5.).

b.3. Deklinabidean:

Bokal soilen eta luzeen oposizioak balio morfologiko bereizlea du gure eremuko hizkera gehienetan (ekialdeko herriak dira salbuespena). Izan ere, deklinabide-kasu gehienetan, singularra eta plurala bereizteko baliatzen da oposizio hori: *launeeekin* ‘lagunarekin’ / *launekin* ‘lagunekin’, eta abar (ikus 8.3.1. atala).

Ondorioak

Hasperena galdutako hizkeretan, ohikoa izan da berdinak diren bi bokal elkartu eta bokal geminatuak sortzea, baina ezaugarri hori ia galdutzat jo daiteke hizkera gehienetan. Berriagoak dira bokal arteko ttak kontsonante bat edo igurzkari bat galtzearen ondorioz eta bokal-asimilazioen ondorioz sortutako bokal geminatuak. Gure eremuan, bizkorra da bokal soilen eta bokal geminatuen arteko bereizkuntza, eta, ikusi dugunez, balio morfologikoa ere izan dezake, deklinabideko singularra eta plurala bereizteko erabiltzen baita. Ekialderantz egin ahala, ordea, bokal luzeen maiztasuna jaitsi egiten da, bokal arteko kontsonanteei tinkoago eusten dieten heinean (ikus 8.2.5.) eta beste azentuera bat erabiltzen duten heinean (ikus 8.3.1.); Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdean, hain zuzen. Ibarrek ere erreparatu dio horri Ultzamako eta Imotz-Basaburu Nagusiko hizkerak alderatzean (1995a: 169):

Asimilazioaren ondorioz, askotan, bokal geminatuak sortzen dira. Esate baterako, Basaburua eta Imozko hizkeran oso arrunta da bi bokal berdinak elkarren jarraian aurkitzea. Ultzaman bokal arteko herskari ahostunak eta dardarkari biguna ere, tinkotasun handiagoz mantentzen dira, eta horregatik, fenomeno hau ez da horrelako maiztasunez aurkitzen. Badirudi, gainera, bokalarteko frikapen hau areagotzen dela bokal berdinen artean.

Esan dugunez, aldaketa Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan hasten da. Ultzamatik ekialdera, are urriagoak dira bokal geminatuak ingurune horretan, hala nola Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 53-54) edota Aezkoan (Camino 1997: 305-306).

Gure eremuko herrietan, maiztasun handiz erabiltzen dira bokal luzeak; aski da hango hizkera minutu batzuez entzutea horretaz ohartzeko. Nolanahi ere, herriko hizkera erabiltzen duten gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dituzte bokal luzeak; Goldaratzen, esate baterako, *maní* gazt. ‘manía’, *rabí* gazt. ‘rabia’, *zurí* ‘zurea’, *semí* ‘semea’, *piñú* ‘pinua’, *ortá* ‘horretara’, *mensají* gazt. ‘mensaje’, *allatzi* ‘ailegatzea’, *iñen dú* ‘eginen dugu’, *joain gá* ‘joanen gara’ gisakoak entzun ditugu gazteen artean; bokal luzerik gabeko formak, alegia (azentuera ere aldatzen ari da, eta lotuta dakuskigu bi gertaerok; ikus 8.3.1.). Nolanahi ere, aztertzekoa litzateke kontua; izan ere, Araitz-Betelun aski ongi iraun dute bokal geminatuek gazteen mintzoan ere.

Bokal luzeen gaur egungo hedadurari erreparatuz (hasperena galtzearen ondorioz sortutakoak alde batera utzita), aldeak alde, gure eremuaren antzera jokatzen dute Euskal Herriko erdigune zabalean. Ingurune tankeratsuetan ageri dira bokal luzeak Basaburu Txikiko Eratsunen eta Ezkurran (Apalauza eta Lakar 2001-2003), Leitzan eta Areson (Olano 1998: 70-71), Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 110-119, cf. Arbizuko datuak in Hualde 1991)⁹¹, Lizarraga Ergoienean (Navarro, Navarro eta Andueza 2008: 493) eta baita Gipuzkoako Tolosaldean eta Goierriin ere (ikus: Tolosalde hegoaldeko eta Goierriko datuak in Hurtado 2001: 52-53; Zaldibiakoak in Etxabe eta Garmendia 2003: 50; Ordiziakoak in Etxabe eta Garmendia 2004: 53; Ataungoak in Azurmendi 1996: 57-65; Zegamakoak in Azurmendi 1998: 25-28; Beasaingoak in Agirrebeña, Alberdi, Mendigure eta Sarasua 2007: 31). Gipuzkoako iparraldean, bokal luzeak ohikoak dira Oiartzungo hizkeran (Fraile eta Fraile 1996: 28-29) edota Zarautzen (Agirrebeña, Maiz, Muniozguren, Sarasua eta Zabaleta 2007: 34), eta badira, halaber, Lapurdiko hego-ekialdean (Epelde 2004a: 279). Oro har, hizkera gehienetan, belaunaldi gazteenek bokalak soiltzera egin dute, eta gero eta indar ahulagoa du, horrenbestez, bokal luzeen eta soilen arteko bereizkuntzak.

8.1.2. Izenari mugatzailea gehitzean sortutako bokal-asimilazioak

Izenari mugatzailea gehitzean, errealizazio mota bat baino gehiago sortu da gure eremuko herri eta ibarretan barrena. Oro har, bokal-asimilazio ugari gertatzen da eremu osoan, baina aldea nabarmena da herri eta ibar batetik bestera. Bokal-asimilazio horiek kolore berezia ematen diete aztertzen ari garen hizkerari: esate baterako, inguruko hiztunek maiz aski esaten dute larraundarrek dena *-i* egiten dutela. Alegia, hiztunen oharmenean iltzaturik ageri da nolabait ezaugarri hori.

⁹¹ Zuazok dioenez, Burundan ez dira Sakanako erdialdean bezain ohikoak (2010: 54).

8.1.2.1. -e + -a(k)

Lau bukaera mota erabiltzen dira gure eremuan -e hizkiaz bukatutako hitz bati -a mugatzaile singularra eranstea: -ia, -ii, -ee eta -ea. Pluralean, berriz, -iak, -ik, -ek eta -eak ditugu.

-ia bukaera Imozko Muskitzen entzun dugu; eremuaren ekialdeko muturrean, alegia. Basaburu Nagusiko ekialdean (Erbiti, Gartzaron, Orokieta) ere entzun dugu, baina -ea aukerarekin txandaka ageri da, eta gero eta ohikoagoa da, gainera, -ea. Moutardek Etxalekun ere bildu zuen -ia (1975b: 181); guk -ea entzun dugu han gehien-gehienean, baina -ia ere ez da guztiz arrotza, ezta Oskotzen ere. Hona -ia bukaeraren adibideak: *eltzia* ‘eltzea’ (Mus.), *umia* ‘umea’ (Mus.), *obia* ‘hobea’ (Mus.), *antxumia* ‘antxumea’ (Mus.), *tenedoria* gazt. ‘tenedor’ (Mus.), *otia* ‘otea’ (Mus.), *katia* ‘katea’ (Mus.), *yendia* ‘jendea’ (Er., Gar.), *erlia* ‘erlea’ (Mus.), *bailia* gazt. ‘baile’ (Gar.), *galdetzia* ‘galdetzea’ (Gar.), *ematia* ‘ematea’ (Gar.), *beria* ‘berrea’ (Oro.). -ia ohikoa da beste euskal hizkera batzuetan ere (Gipuzkoako ipar-ekialdean, Nafarroako ekialdean edota Ipar Euskal Herriko hizkera batzuetan). Hain zuzen, -ia dago Muskitz ondoko Atetz eta Ultzama ibarretan (Ibarra 1995a: 340-345), eta -ia(k) zegoen, halaber, Txulapaingo Usin 1980. urtean (Camino 2003a: 246); eremu horri lotuta dakusagu, beraz, gure eremuaren ekialdea.

-ii bukaera Imozko Goldaratzen, Basaburu Nagusi gehienez (ekialdeko herriak dira salbuespena) eta Larraungo hego-ekialdean (salbu Albiasun) erabiltzen dute: *umii* ‘umea’ (Gol.), *gazta-inzalii* ‘gazta-eginzalea’ (Gol.), *potajii* gazt. ‘potaje’ (Gol., Bar.), *omenajii* gazt. ‘homenaje’ (Gol.), *rezipientii* gazt. ‘recipiente’ (Gol.), *pasadorii* gazt. ‘pasador’ (Gol.), *klientii* gazt. ‘cliente’ (Gol.), *ejii* gazt. ‘eje’ (Gol.), *bestii* ‘bestea’ (Bera.), *gaztii* ‘gaztea’ (Its.), *derramii* gazt. ‘derrame’ (Ig.), *sarii* ‘sarea’ (Iri.), *tristii* ‘tristea’ (Arru.), *rentablii* gazt. ‘rentable’ (Arru.), *txokolatii* ‘txokolatea’ (Arru., Gol.). Aditz-izenetan ere ageri da: *iltzii* ‘hiltzea’ (Gol.), *etzaie beñ ee okurrittu eskatzii* ‘ez zait behin ere okurritu eskatzea’ (Gol.), *esatii* ‘esatea’ (Its.), *liurtzii* ‘neurtzea’ (Arru.), *eamatii* ‘eramatea’ (Bar.), *Latasan polizi iotii* ‘Latasan polizia egotearekin’ (Gol.), *konpleto ez esatiikin* ‘konpleto (< gazt. completo) ez esatearekin’ (Ig.), *ama angoa izatiikin* ‘ama hangoa izatearekin’ (Arrar.)⁹².

⁹² -ii bukaera ageri da, halaber, Berueten 1950 aldera bildutako otoitz batzuetan: *eguniin* ‘egunean’, *batiin* ‘batean’, *tristii* ‘tristea’, *yabi* ‘jabea’, *Kreadorii* ‘Kreadorea (< gazt.)’, *Salbadorii* ‘Salbadorea (< gazt.)’, *miserikordii* ‘miserikordia’... (Donostia 1956: 39-42, 48-49).

-*ee* Basaburu Nagusiko iparraldean, eta Azpirotz eta Errazkin ez beste Larraungo herrietan erabiltzen dute: *korralee* gazt. ‘corral’ (Beru.), *azidentee* gazt. ‘accidente’ (Beru.), *sardee* ‘sardea’ (Beru.), *yendee* ‘jendea’ (Ig., Arrar.), *masajee* ‘masajea (< gazt. masaje)’, *andree* ‘andrea’ (Ui.), *subee* ‘sugea’ (Ui., Ald.), *Mikelenee* ‘Mikelenea (etxe-izena)’ (Ui.), *paketee* ‘paketea (< gazt. paquete)’ (Ald.), *mentalidadee* gazt. ‘mentalidad’ (Alb.), *gosee* ‘gosea’ (Gorr.), *bizkortzee* ‘bizkortzea’ (Beru.), *eittee* ‘egitea’ (Ig.), *dantzatzee* ‘dantzatzea’ (Ig.), *yoatee* ‘joatea’ (Arrar.), *eotee* ‘egotea’ (Od.), *galdetzee* ‘galdetzea’ (Gorr.), *uztee* ‘uztea’ (Ui.). Gorago adierazi dugunez, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean, -*ii* bukaera ere bada; hain zuzen, txandaka erabiltzen dituzte -*ee* eta -*ii*. Gure eremuko hizkeren ingurumarian ez da ageri -*ee* bukaerarik.

Gainerako herrietan, -*ea* erabiltzen dute: Goldaratz eta Muskitz ez beste Imozko herrietan, Basaburu Nagusiko ekialdean (-*ia*-rekin txandaka), Larraungo Azpirotzen eta Errazkinen, eta Araitz-Betelun. Adibideak: *kablea* ‘kablea’ (Era.), *umea* ‘umea’ (Etxal.), *kafea* ‘kafea’ (Etxal.), *semea* ‘semea’ (Gar.), *esenea* ‘esnea’ (Gar.), *sardea* ‘sardea’ (Er.), *yendea* ‘jendea’ (Er.), *etortzea* ‘etortzea’ (Etxal.). Bukaera horrek jarraipena du Araitz-Beteluk mendebalean dituen ondoko hizkera giputzetan (-*ia* ageri da, ordea, Tolosaldeko, Deba ibarreko edota Beterriko herri zenbaitetan), eta baita, iparraldean, Areson eta Leitzan ere.

-*e* + -*a* ingurune fonologikoaz ari garela, lexema jakin batzuetan, diptongoa desagertu eta bokala soildu egin da. Gartzaronen, Orokietan eta Etxalekun bilduak dira adibide hauek: *itxa* ‘etxea’ (Gar.) & *iruarren itxa* ‘hirugarren etxea’ (Oro.), *itxan* (Oro., Etxal.) & *atte ta ama nittun itxan* ‘aita eta ama nituen etxean’ (Gar.), *illa* ‘ilea’ (Gar.). Ultzaman ohikoa da bilakabide hori: *itza* ‘egitea’, *illa* ‘illea’, *kotxa* ‘kotxea’, *kisuskilla* ‘kisuskilea’, *itxa* ‘etxea’, *sekoxago* ‘sekoxeago’ eta *orraxa* ‘orraxea’ adibideak bildu ditu Ibarak (1995a: 163-164). Imoztik hegoaldera, *itxan* ageri da Txulapaingo Usin 1980. urtean (Camino 2003a: 246). Gure eremuaren ekialdea Ultzama aldeari loturik dakusagu ezaugarri horretan, baina gurean ez dago han bezain zabaldua; esan bezala, *illa* eta *itxa* adibideak baino ez ditugu guk entzun. Bestalde, Usiko datuak iradokitzen du hegoalderagoko hizkeretan ere ezaguna izango zela ezaugarri hori.

Azter ditzagun orain pluraleko errealizazioak. Honako aukera hauek daude gure eremuan: -*iak*, -*ik*, -*ek* eta -*eak*. Gutxi gorabehera, singularrerako ikusi ditugun formen hedadura geografikoarekin bat egiten dute pluralekoek ere.

-iak Muskitzen erabiltzen dute, eta baita, *-eak* aukerarekin txandaka, Basaburu Nagusiko ekialdean ere: *makumiak* ‘emakumeak’ (Mus.), *semiak* ‘semeak’ (Mus.), *maindderiak* ‘maindireak’ (Mus.), *antxumiak* ‘antxumeak’ (Mus.), *iotiak* ‘ihoteak’ (Gar.), *ardi-bidiak* ‘ardi-bideak’ (Gar.).

-ik Goldaratz, Basaburu Nagusi gehienez (salbu ekialdeko herriak) eta Larraungo hego-ekialdean (salbu Albiasun) erabiltzen dute: *pesta aurreko txukundadik* ‘festa aurreko txukundadeak’ (Gol.), *interbentorik* gazt. ‘interventor (pl.)’ (Gol.), *luzik* ‘luzeak’ (Its.), *aberik* ‘abereak’ (Arrar.), *fazilidadik* gazt. ‘facilidad (pl.)’ (Arru.), *atxakik* gazt. ‘achaque (pl.)’ (Arru.), *trastik* ‘trasteak’ (Arru.), *mikeletik* ‘mikeleteak’ (Arru.), *maindderik* ‘maindireak’ (Bar., Gol.), *bestik* ‘besteak’ (Bar.), *bidik* ‘bideak’ (Od., Arrar.).

-ek bukaera Berueten, eta Azpirotz eta Errazkin ez beste Larraungo herrietan entzun dugu: *txerrikumek* ‘txerrikumeak’, *aitagurek* ‘aitagureak’ (Ald.), *ordeñadorek* gazt. ‘ordeñadora (pl.)’ (Alb.), *umek* ‘umeak’ (Ui.), *urtek* ‘urteak’ (Ui.), *lotek* ‘(egur-)loteak’ (Ui.), *eltzek* ‘eltzeak’ (Gorr.), *gaztek* ‘gazteak’ (Od., Ald., Alb., Ig.), *mainddarek* ‘maindireak’ (Beru., Gorr.), *tomatek* ‘tomateak’ (Beru.). Larraungo hego-ekialdean, *-ik* bukaerarekin batera ageri da *-ek*, baina *-ek* da aukera bakarra Berueten, Albiasun, Gorritin eta Uitzin.

Azkenik, *-eak* dugu Muskitz eta Goldaratz ez beste Imozko herrietan, Basaburu Nagusiko ekialdean (*-iak*-ekin txandaka), Larraungo Azpirotzen eta Errazkinen, eta Araitz-Betelun: *tomateak* ‘tomateak’ (Era.), *floreak* ‘loreak’ (Era., Etxal.), *emakomeak* ‘emakumeak’ (Etxal.), *illeak* ‘ileak’ (Bet.), *launtzaleak* ‘laguntzaileak’ (Gai.), *gazteak* ‘gazteak’ (Azp.).

8.1.2.2. *-i + -a(k)*


Singularrean, bi aukera daude gure eremuan: *-ie* eta *-ii*. Pluralean, berriz, *-iek* eta *-ik* ageri dira.

-ie Goldaratz ez beste Imozko herri guztietan, Basaburu Nagusiko Orokieta herrian, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun erabiltzen dute: *burnie* ‘burdina’ (Lat.), *atarie* ‘ataria’ (Era.), *txikie* ‘txikia’ (Zarr.), *obie* ‘ogia’ (Osk.), *afarie* ‘afaria’ (Etxal.), *erbie* ‘erbia’ (Etxal.), *ardie* ‘ardia’

(Mus.), *ferie* ‘feria’ (Ui.), *erdie* ‘erdia’ (Ui.), *aundie* ‘handia’ (Gorr.), *iturrie* ‘iturria’ (Azp.), *garie* ‘garia’ (Erra.), *esie* ‘hesia’ (Bet.), *bustie* ‘bustia’ (Gai.), *ebakie* ‘ebakia’ (Gai.).

-ii, aldiz, Goldaratz, Basaburu Nagusian⁹³ eta Larraungo hego-ekialdean (Albiasu barne) baliatzen dute: *obii* ‘ogia’ (Gol.), *argezarii* ‘argizaria’ (Gol.), *maiorii* gazt. ‘mayoría’ (Gol.), *alegrii* gazt. ‘alegría’ (Gol.), *karizii* gazt. ‘caricia’ (Ig.), *bijilii* gazt. ‘vigilia’ (Its.), *burnii* ‘burnia’ (Od.), *azpizurii* ‘azpizuria’ (Iri.), *parrokii* ‘parrokia (< gazt. parroquia)’ (Ald.), *inorantzii* gazt. ‘ignorancia’ (Arru.), *azikii* gazt. ‘acequia’ (Arru.), *ongarrii* ‘ongarria’ (Alb.), *sorgiñ-aparii* ‘sorgin-afaria’ (Bar.), *manii* gazt. ‘manía’ (Bar.).

10. irudia: *-ie* eta *-ii*



Basaburu Txikiko Ezkurran ere bada *-ii* (B. L.), baina, inguruko beste hizkeretan, *-ie* da aukera bakarra: Atetz eta Ultzama ibarretan (Ibarra 1995a: 346-347), Leitzan eta Areson (Olano 1998: 61), eta Araitz-Betelu ondoko Gipuzkoako hizkeretan (Tolosaldeko hegoaldekoak).

Pluralean, batetik, *-iek* dago Muskitzen, eta, bestetik, *-ik* eremuko gainerako herrietan. Hona Muskizko adibideak: *ttikiak* ‘tikiak’, *bi anai bixkiak* ‘bi anaia bixkiak’, *pantalona txuriek* ‘pantalón txuriak’, *erosiek* ‘erosiak’, *axuriek* ‘axuriak’, *nekazariak* ‘nekazariak’, *letanien* ‘letaniak’. Gainerako herrietako adibideak: *belarrik* ‘belarriak’ (Gar.), *aundik* ‘handiak’ (Gol., Osk., Ui.),

⁹³ Orokietan ere bada *-ii*, baina ohikoagoa da *-ie*.

aizkolarik ‘aizkolariak’ (Its.), *kattaorrik* ‘katagorriak’ (Its.), *zurik* ‘zuriak’ (Ud.), *manik* gazt. ‘manía (pl.)’ (Bar.), *arrik* ‘harriak’ (Azk.). Muskizko emaitzak bat datoz Atetz eta Ultzama ibarretakoekin (Ibarra 1995a: 346-347).

8.1.2.3. -u + -a(k)


Singularrean, bi aukera daude gure eremuan: *-ue* eta *-uu*. Pluralean, *-uek* eta *-uk* ditugu.

-ue bukaeraren hedadurak *-ie*-renarekin bat egiten du: Goldaratz ez beste Imozko herrietan, Orokietan, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun erabiltzen dute. Adibideak: *lisue* ‘lisua, lixiba; arropa garbitzeko aspaldiko era’ (Etxal.), *erron-lekue* ‘errun-lekua’ (Etxal.), *fistue* ‘txistua’ (Osk.), *zementue* ‘zementua’ (Etxal.), *ostatue* ‘ostatua’ (Osk.), *antxue* ‘antxua; hiru-lau hilabeteko ardia’ (Mus.), *burue* ‘burua’ (Oro.), *santue* ‘santua’ (Ui.), *mallue* ‘mailua’ (Gorr.), *sue* ‘sua’ (Erra., Gai., Era.), *dirue* ‘dirua’ (Uzt.), *komentue* ‘komentua’ (Bet.), *prestatue* ‘prestatua’ (Era.), *izandue* ‘izan(du)a’ (Arri.).

-uu, aldiz, Goldaratzan, Basaburu Nagusian⁹⁴ eta Larraungo hego-ekialdean (Albiasu barne) erabiltzen dute: *ipuruu* ‘ipurua’ (Gol.), *sube-larruu* ‘suge-larrua’ (Gol.), *edadetuu* ‘edadetua, adinekoa’ (Beru.), *diruu* ‘dirua’ (Gar.), *otorduu* ‘otordua’ (Arrar.), *ostatuu* ‘ostatua’ (Ig., Bar.), *pekatuu* ‘bekatua’ (Arrar.), *litxuu* ‘letxuga’ (Od., Gol.), *mantenuu* ‘mantenua’ (Arru.), *komentuu* ‘komentua’ (Ald.), *kenduu* ‘kendua’ (Gol.), *artuu* ‘hartua’ (Gol.), *prestatuu* ‘prestatua’ (Iri.), *ekulluu* ‘ukuilua’ (Alb.).

⁹⁴ Orokietan ere bada *-uu*, baina ohikoagoa da *-ue*.

11. irudia: *-ue* eta *-uu*



Basaburu Txikiko Ezkurran ere bada *-uu* (B. L.), baina *-ue* da nagusi inguruko gainerako hizkeretan, hala nola Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 347-349), Leitzan eta Areson (Olano 1998: 61), eta Araitz-Betelu ondoko Gipuzkoako hizkeretan.

Pluralean, *-uek* eta *-uk* aukerak daude gure eremuan. *-uek* Muskitzen erabiltzen dute: *litxuek* ‘letxuak’, *soldaduek* ‘soldaduak’, *antxuek* ‘antxuak’, *ardi-buruek* ‘ardi-buruak’, *apustuek* ‘apustuak’, *neguek* ‘neguak’, *eskuek* ‘eskuak’. Bestalde, *-uk* entzun daiteke eremuko gainerako herrietan: *artuk* ‘hartuak’ (Gol.), *ostatuk* ‘ostatuak’ (Gol.), *eskuk* ‘eskuak’ (Etxal.), *santuk* ‘santuak’ (Ui.), *garbantzuk* ‘garbantzuak’ (Azk.), *prejittuk* ‘frijituak’ (Bet.).

8.1.2.4. *-a* + *-a(k)* eta *-o* + *-a(k)*

Eremuko herri guztiak batera doaz ezaugarri horiei dagokienez. Hala, batetik, *-a* eta *-ak* ditugu (*alaba* / *alabak*), eta, bestetik, *-oa* eta *-oak* (*astoa* / *astoak*). Salbuespenak baitira, bereziak dira Goldaratzen eta Larraungo hego-ekialdean *-o* + *-a(k)* ingurunean jaso ditugun adibide hauek: *arduu* (orok. *ardoa*) ‘ardoa’ (Gol.), *peskaduu* gazt. ‘pescado’ (Arru., Gol.), *adebuu* gazt. ‘adobo’ (Gol., Era., Arru.)⁹⁵, *karduu* gazt. ‘cardo’ (Gol.), *zipilluu* gazt. ‘cepillo’ (Gol.), *peligruu* gazt. ‘peligro’

⁹⁵ Basaburu Nagusian ere bada hori.

(Gol.). Nolanahi ere, ohar gaitzen maileguak direla *arduu* ez beste adibide guztiak; baliteke, horregatik, hiztunaren oharmenean *-u-z* amaitua izatea mailegatutako hitza.

-a eta *-ak* inguruko hizkera guztietan ageri dira; baina, *-oa* eta *-oak* bukaerei dagokienez, isoglosa nabaria dago Imotz-Basaburu Nagusiaren eta Atetz-Ultzamaren artean. Izan ere, Atetzen eta Ultzaman, *-ua* eta *-uak* erabiltzen dituzte (Ibarra 1995a: 344-345). Moutardek Etxalekun ere bildu zuen *-ua* (1975b: 181), baina guk *-oa* baizik ez dugu entzun han.

Ondorioak

Gure eremua oso nabarra dela da ondorio nagusia, bai eremua osotasunean hartuta eta bai ibarrak banaka aztertuta ere. Hala, Araitz-Betelu dugu homogeneo ageri den ibar bakarra; izenari mugatzailea gehitzean sortzen diren emaitzak berak dira ibarreko herri guztietan. Hona Araitz-Beteluko errealizazioak taula batean bildurik:

ARAITZ-BETELU

	<i>-e + -a</i>	<i>-i + -a</i>	<i>-u + -a</i>	<i>-e + -ak</i>	<i>-i + -ak</i>	<i>-u + -ak</i>
Araitz-Betelu	<i>-ea</i>	<i>-ie</i>	<i>-ue</i>	<i>-eak</i>	<i>-ik</i>	<i>-uk</i>

Gainera, Araitz-Beteluko errealizazioekin bat egiten dute Larraungo Errazkinak eta Azpirotzek; izan ere, administrazioz larraundarrak badira ere, geografikoki oso hurbil daude bi herri horiek Araitz-Betelutik.

Larraunen, bi eremu bereizi ditugu nagusiki: hego-ekialdea eta ipar-mendebala. Honako herri hauek daude hego-ekialdean: Madotz, Oderitz, Astitz, Arruitz, Aldatz, Iribas, Alli, Mugiro, Etxarri, Lekunberri, Baraibar eta Albiasu. Ipar-mendebalean, aldiz: Uitz, Gorriti, Azpirotz eta Errazkin. *-e-z* bukatutako hitzetan, *-ee / -ek* eta *-ii / -ik* aukerak ditugu hego-ekialdeko herrietan: Oderitzen, Iribasen, Baraibarren eta Aldatzen, biak ageri dira, baina maizago ageri dira *-ee* eta *-ek*; Arruitzen, *-ii* eta *-ik* baino ez dugu entzun; eta Albiasun, *-ee* eta *-ek* baino ez⁹⁶. Horrek adierazten du badela aldea herri batetik bestera *-e-z* bukatutako hitzetan, eta baita hiztun batetik bestera ere; nolanahi ere, zaku berera bildu ditugu herri guztiak, azalpena errazteko asmoz. Bestalde, ipar-mendebaleko herrietan ere bada aldea arestian aipatutako ingurune morfologikoari dagokionez: batetik, *-ee* eta

⁹⁶ Bukaera horiexek dakartza Moutardek ere Albiasurako (1975b: 177).

-ek egiten dute erabat Uitzin eta Gorritin, eta, bestetik, *-ea* eta *-eak* emaitzak ditugu Azpirotzen eta Errazkinen. Esan daiteke Uitzik eta Gorritik zubi-lana egiten dutela nolabait Azpirotz-Errazkin-Araitz-Betelu eskualdearen eta Larraungo hego-ekialdearen artean. Hona Larraungo errealizazio guztiak taula batean laburbildurik:

LARRAUN

	<i>-e + -a</i>	<i>-i + -a</i>	<i>-u + -a</i>	<i>-e + -ak</i>	<i>-i + -ak</i>	<i>-u + -ak</i>
Hego-ekialdea	<i>-ee</i> (eta <i>-ii</i>)	<i>-ii</i>	<i>-uu</i>	<i>-ek</i> (eta <i>-ik</i>)	<i>-ik</i>	<i>-uk</i>
Ipar-mendebala (Uitzi, Gorriti / Azpirotz, Errazkin)	<i>-ee / -ea</i>	<i>-ie</i>	<i>-ue</i>	<i>-ek / -eak</i>	<i>-ik</i>	<i>-uk</i>

Basaburu Nagusia aski homogenea da: *-e + -a* ingurunean izan ezik, gainerako inguruneetan bat egiten dute hango herriek (*-ii*, *-uu*, *-ik*, *-uk*)⁹⁷. Bi eremu nagusi bereizi ditugu: ekialdeko herriak eta gainerakoak. Ekialdeko herriak (Gartzaron, Erbiti, Orokieta)⁹⁸ gainerakoetatik bereiz ageri zaizkigu *-ea(k)* eta *-ia(k)* bukaerak direla eta; alabaina, han ere gero eta arruntagoa da *-ea(k)*, eta, horrenbestez, badirudi Ultzamako joeratik urruntzen ari direla herri horiek, eta Imozkoari (eta, orobat, euskara batuarenari) hurbiltzen. Multzo horretan, bereiz samar ageri zaigu Orokieta: han ez dira arrotzak *-ii* eta *-uu* bukaerak, baina nabarmen ohikoagoak dira *-ie* eta *-uu*. Gainerako herriei dagokienez, Beruete beste herrietatik aldentzen da *-e + -a(k)* ingurunean, eta, datuak ikusita, nabaria da ondoko Larraungo hizkerari hurbiltzen zaiola, han ere *-ee* eta *-ek* bukaerak erabiltzen baitituzte. Arraratsen eta Igoan ere ezaguna da *-ee*, baina *-ii* bukaerarekin batera ageri da; pluralean, berriz, *-ik* dugu beti arestiko bi herrietan. Azken batean, aipatu ditugun desberdintasun horiek gorabehera, batasun handia dago Basaburu Nagusiko herri guztien artean. Hona Basaburu Nagusiko datuak taula batean bildurik:

⁹⁷ Ibarak Basaburu Nagusiko datuak dakartza (1995a: 338-354); oro har, gure datuekin bat datoz harenak, salbu Erbiti, Gartzaron eta Orokieta herrietakoak, bestelakoak jaso baititugu guk. Hain zuzen, Ibarren datuek Irizarrenekin bat egiten dute (1992a: 26-27); baina, esan bezala, bestelakoak bildu ditugu guk.

⁹⁸ Talde horretan sar daiteke, halaber, Aizarotz herria (ikus Gaminde 1998a: 214).

BASABURU NAGUSIA

	-e + -a	-i + -a	-u + -a	-e + -ak	-i + -ak	-u + -ak
Ekialdeko herriak (Gartzaron, Erbiti / Orokietak)	-ea & -ia	-ii / -ij & -ie	-uu / -uu & -ue	-eak & -iak	-ik	-uk
Gainerakoak	-ii (ip. -ee)	-ii	-uu	-ik (Beru. -ek)	-ik	-uk

Imotzen, azkenik, hiru eremu argi bereizi ditugu: eskuineko muturrean dugu Muskitz, beste muturrean Goldaratz, eta tartean gainerako herriak. Basaburu Nagusiko ekialdeari, Atetz-Ultzamari eta orobat ekialdeari loturik ageri da Muskitz, eta Goldaratzek Basaburu Nagusi gehienarekin eta Larraungo hego-ekialdearekin bat egiten du (nahiz Goldaratzek ez dagoen *-ee* bukaerarik). Ikus taula:

IMOTZ

	-e + -a	-i + -a	-u + -a	-e + -ak	-i + -ak	-u + -ak
Goldaratz	-ii	-ii	-uu	-ik	-ik	-uk
Tarteko herriak	-ea	-ie	-ue	-eak	-ik	-uk
Muskitz	-ia	-ie	-ue	-iak	-iek	-uek

Multzo berezia osatzen dute Goldaratzek, Basaburu Nagusiak eta Larraungo hego-ekialdeak: *-ee*, *-ii* ‘-ea’ eta *-ek*, *-ik* ‘-eak’ bukaerak gora-behera, gehienetan bat egiten dute hiru eremu horiek, atal honetan aztertzen ari garen ezaugarriari dagokionez. Aski bereziak dira alderdi horretako herrietako errealizazioak, eta errealizazio horiexek ematen diete, hain zuzen, hizkera horiei kutsu berezia, “dena *-i* eta *-u* egiten baitute”; Hualde eta Gaminde ikertzaileei jarraituz, “Total Progressive Assimilation” bilakabidearen ondorio dira guztiok (1997: 234). Ezaugarri horren indarraren erakusgarri, Irizarrek honako esaera hau bildu zuen Lekunberrin, Jesus Jaimerena kolaboratzailearen eskutik: *goizeko ordubatiin Lekunberriko Trinkitiin atsoak eta guzi baltsiin* (1992b: 252). Gainera, *-a* hizkiaz bukatutako zenbait hitzetara ere hedatu da *-i* bukaera hori Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan, eta *osasunii* ‘osasuna’, *pastillii* ‘pastilla’, *kartik* ‘kartak’ edota *ospitali* ‘ospitalea’ adibide bereziak sortu dira (Ibarra 1995a: 338-339). Guk beste lau adibide gehituko dizkiogu Ibarrek bildutako sailari: *eskaatzii* (Beru.) & *ezkaatzii* (Arrar.) ‘ezkaratza’, *kamañii* ‘kamaina’ (Ig.), *otzikari* ‘hotzikara’ (Gol.), *dardari* ‘dardara’ (Gol.). Esan daiteke, beraz,


alderdi horretan iritsi dela urrutien bokal-asimilazioaren bilakabidea. Irizar bera ere ohartua da berezitasun horretaz (1992a: 32):

Estas diferencias en la pronunciación son, como hemos indicado, muy destacadas y claramente perceptibles en la conversación. A mi juicio, constituyen la causa fundamental —más aún que las diferencias en la conjugación, aunque éstas no sean despreciables— de que los habitantes de los pueblos vecinos consideren que los de los mencionados lugares tienen un habla peculiar.

Saltsa handia dagoela irudi badu ere, beste ondorio argigarri bat ere badakarte datuek: aldaketak ekialdea-mendebala norabidean gauzatzen dira. Badirudi gure eremuko hizkerak multzoka antolatuta daudela —atal honetan aztertzen ari garen ezaugarriari dagokionez—, eta multzo horiek isoglosa bertikalen arabera sortuak dira. Hizkera multzo horien artean, trantsizio-guneak ere badira. Funtsean, sei multzo nagusi bereiz daitezke, trantsizio-guneak ere aintzat hartuta (ikus 12. irudia):

1. Muskitz (Atetz-Ultzamari loturik, baina ez erabat)
2. Basaburu Nagusiko Gartzaron, Erbiti eta Orokieta (trantsizio-gunea)
3. Imozko tarteko herriak (trantsizio-gunea)
4. Basaburu Nagusia (salbu ekialdeko herriak), Larraungo hego-ekialdea eta Imozko Goldaratz (-ee / -ii ‘-ea’ eta -ek / -ik ‘-eak’ ezaugarriak gora-behera)
5. Larraungo Uitzu eta Gorriti (trantsizio-gunea)
6. Larraungo ipar-mendebaleko Azpirotz eta Errazkin, eta Araitz-Betelu

12. irudia: Izena + mugatzailea



Muskitzek Atetz-Ultzamaren eta Imotzen arteko zubi-lana egiten du; Basaburu Nagusiko ekialdeko herriek (2. multzoa), berriz, Atetz-Ultzamaren eta Basaburu Nagusiaren artekoa, eta 5. multzoko Uitz eta Gorriti herriek, azkenik, 4. eta 6. multzoen artekoa; trantsizioak dira horiek. 4. multzoa ez da erabat homogeneoa (gogoratu $-e + -a(k)$ inguruneaz esan duguna), baina herri guztiak multzo bakar batera bildu ditugu, talde berezia osatzen baitute hango emaitzek, lehenago ere esan dugun bezala. Bestalde, 3. eta 6. multzoko emaitzek bat egiten dute, baina egokiagoa iruditu zaigu bi multzoak bereiz agertzea, isoglosen arabeko banaketa garbiago ikus dadin.

Azken batean, Ibarrek Atetz, Ultzama, Imotz eta Basaburu Nagusia ibarren artean ikusi duen trantsizio gradualaren jarraipena ikusi dugu guk gure eremuan. Hona Ibarren hitzak (1995a: 352):

Honainokoa laburbilduz, izen morfologiari dagokion atal honetan ikusten da argi eta garbi trantsizioaren gradualtasuna. Ekialdetik mendebaldera joanez har daiteke «continuum» baten inpresioa, lehenengo elementu batzuk, eta, ondoren, beste batzuk asimilatzen doazelako, eskala batean bezala.

Datuetan ikusi dugu bokal-asimilazio ugari dagoela gure eremuko hizkeretan: Imozko Goldaratz, Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusi gehiengan, oso nabarmenak eta

adierazgarriak dira (gogoan izan ezaugarri honen azalpenaren hasieran egindako oharra, hiztunen oharmenari buruz). Absolutibo kasuari dagozkion adibideak aztertu ditugu, baina deklinabideko gainerako kasuetan ere gauza bertsua gertatzen da (cf. 8.3.1.). Esate baterako, inesiboan, *-e-z* bukatutako hitzetan, *-ian* dago Muskitzen (*goizian* ‘goizean’, *arratsian* ‘arratsean’, *emen berian* ‘hemen berean’), *-i(i)n* dago Goldaratzen, Basaburu Nagusi gehianean eta Larraungo hego-ekialdean (*itxi(i)n* ‘etxean’, *lani(i)n* ‘lanean’), *-e(e)n* Berueten, Larraungo hego-ekialdean, eta Gorritin eta Uitzin (*lurre(e)n* ‘lurrean’, *labe(e)n* ‘labean’), eta *-ean* Imozko tarteko herrietan, Larraungo Azpirotzen eta Errazkinen, eta Araitz-Betelun (*gañean* ‘gainean’, *atsaldean* ‘arratsaldean’). *-i-z* bukatutako hitzetan, *-ien* dago Muskitzen (*denbo guzian* ‘denbora guztian’, *agerien* ‘agerian’, *lendaixien* ‘lehendabizian’)⁹⁹, eta *-i(i)n* gainerako herrietan (*erri(i)n* ‘herrian’, *aldiñ-aldiin* ‘aldian-aldian’, *aspaldiin* ‘aspaldian’, *urtiin eun betiin* ‘urtean egun batean’). Azkenik, *-u-z* bukatutako hitzetan, *-uen* dago Muskitzen (*ostatuen* ‘ostatuan’, *neguen* ‘neguan’, *orduen* ‘orduan’), eta *-u(u)n* gainerako herrietan (*mundu(u)n* ‘munduan’, *modu(u)n* ‘moduan’).

Diakroniari erreparatuz, *-ia* ‘*-ea*’ bukaera Euskal Herriko testu askotan ageri da; Nafarroan, XVII. mendetik aurrera gutxienez bada, eta, beste adibide bat ematearren, Nafarroa Behereko testuetan ere bada, XVI. mendetik hasita gutxienez (Camino 2008b: 129, cf. Hualde eta Gaminde 1997: 216). Gainerako errealizazioak berriagoak dira (*-ii*, *-ee*, *-uu*), zalantzarik gabe; dauzkagun testuetan ez dira ageri, baina baditugu XX. mendearen hasierako datuak, eta ordurako behinik behin gauzatua zen berrikuntza (EI 1984: 60, 64): esate baterako, *luzee* dugu Lekunberrin, *luzii* Berueten, *egii* Lekunberrin eta Berueten, eta abar. Beste hizkera batzuetan ere badira gure eremukoen antzeko errealizazioak (Getxon eta Ondarroan, esate baterako), baina bilakabide beregainak dira guztiok ere; alegia, gure eremukoek eta Bizkaiko alderdi horretakoek ez dute lotura geolektalik¹⁰⁰.

Bada horri guztiari loturik aipatu nahi dugun kontu bat. Izan ere, bokal-asimilazio horien ondorioz, mugatzailea galdu edo ezkutatu egin ohi da zenbait hizkeratan. Hau da, mugatzailearen aurreko bokalak asimilatu egiten du mugatzailea bera, hura galtzeraino. 4. multzoko hizkeretan da ezaugarria indartsuen; nolana ere, herri batzuen eta besteen arteko desberdintasunak gora-behera, bizkorra da bilakabidea gure eremu osoan, salbu Muskitzen (Mus. *lanian* vs. Gain. *lanin*). Oskotzen, mugatzailea ezkutatzea da joera nagusia, baina ezkutatu gabeko formak ere entzun

⁹⁹ Oskozko hiztun batzuek ere *-ien* erabili ohi dute.

¹⁰⁰ Hualdek eta Gamindek argitu dutenez, *semea* > *semia* > *semie* > *semi* bilakaera izan da Ondarroan, eta *semea* > *seme* Getxon (1997: 215).

daitezke *-i-z* bukatutako hitzetan (*ardiek* ‘ardiak’, *mendien* ‘mendian’, *bee bizi guzien* ‘bere bizi guztian’). Euskal Herriko eremu zabaleko ezaugarria da hori: Araitz-Betelu ondoko Tolosaldeko hegoaldean eta Goierrin, esate baterako, are indartsuagoa da (Hurtado 2001: 63-64)¹⁰¹. Esate baterako, *-oak* dugu Araitz-Betelun eta gure eremu osoan (*astoak*, *besoak*...); Tolosaldeko hegoaldean eta Goierrin, berriz, *astok*, *besok* erabiltzen dituzte. Zuazok dioenez (2008: 185-187), Euskal Herri osoan ageri dira mugatzailea asimilatutako formak: Bizkaiko itsasaldeko hizkera batzuetan, Nafarroako alderdi batean, Gipuzkoako kostaldean, eta abar. Ezaugarri banatzailea da gure eremuan: ekialdean, Muskitzen ez dago halakorik (ikus adibideak), ezta handik ekialderagoko hizkeretan ere; isoglosa nabaria dugu, beraz, hor.

8.1.3. *a > e* asimilazioa

Aztertzen ari garen eremu osoan ageri da *i* eta *u* bokalen eraginez sortutako *a > e* asimilazioa. Ez da, ordea, ingurune beretan gertatzen herri guztietan; ikusiko dugun bezala, bada aldea ibar batetik bestera. Asimilazioa agertzen den hamalau ingurune morfofonologiko aztertuko ditugu, morfema barnean zein morfema-mugaz gaindi.

a. *-i, -u* (C) + *-a*

Euskarazko hitzetan zein maileguetan ageri da: *millon erdie* ‘milioi erdia’ (Osk.), *su-arrie* ‘suharria’ (Bet., Gai.), *jarrie* ‘jarria’ (Uzt.), *apike* ‘apika’ (Era., Osk., Etxal.), *txuikiñe* ‘txurikina’ (Gol.), *aañe* ‘hagina’ (Gol.), *Urritze* ‘Urritza’ (Gol.), *Intze* ‘Intza’ (orok.), *Gaintze* ‘Gaintza’ (orok.), *Zie* ‘Zia’ (Im.), *Erripe* ‘Erripa’ (Osk.), *makille* ‘makila’ (Iri.), *giltze* ‘giltza’ (Ui.), *kuartille* gazt. ‘cuartilla’ (Alb.), *ozpiñe* ‘ozpina’ (Erra.), *sagradue* ‘sokratua’ (Oro.), *dirue* ‘dirua’ (Gorr.), *burue* ‘burua’ (Gorr.), *ezkondue* ‘ezkondua’ (At., Oro.), *izturie* ‘ehiztaria’ (Osk.), *betarrie* ‘betagarria’ (Osk.), *karraxkille* ‘karraxkila; belar mota’ (Etxal.), *karrike* ‘karrika’ (Zarr.), *basauntze* ‘basahuntza’ (Osk.), *belaune* ‘belauna’ (Beru.), *iune* ‘eguna’ (Od.), *zure* ‘zura’ (Ui.), *euskaldune* ‘euskalduna’ (Ud.), *eurre* ‘egurra’ (Ui.), *musike* ‘musika’ (Gol.), *koperatibe* ‘kooperatiba’ (Osk.), *firme* gazt. ‘firma’ (Osk.), *kabiniste* gazt. ‘cabinista’ (Osk.), *figure* gazt. ‘figura’ (Era.), *fabrike* ‘fabrika’ (Lat., Osk.), *pinture* gazt. ‘pintura’ (Lat.), *bromiste* gazt. ‘bromista’ (Urr.), *alture* gazt. ‘altura’ (Era.), *trufe* ‘trufa (jatekoa)’ (Era.), *multe* gazt. ‘multa’ (Mus.), *falanjiste* gazt. ‘falangista’ (Arri.), eta abar.

¹⁰¹ Hurtadok dioenez, beste mota bateko disimilazioak (*e + V > i* eta *o + V > u*) eta epentesiak ageri dira Tolosatik eta Ibaratik iparraldera (2001: 64).

Hitza kontsonantez amaitzen denean, eremu osoan ageri da asimilazioa; alegia, Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun. Hitza *-i* edo *-u* bokalez amaitzen denean ere eremu osoan ageri da, baina asimilazioa haratago doa Imozko Goldaratzan, Basaburu Nagusi gehienez eta Larraungo hego-ekialdean; izan ere, *-ii* eta *-uu* izateraino iristen da han (ikus 8.1.2.2. eta 8.1.2.3.): *azarii, arrii, jarrii, diruu, buruu, ezkonduu*, eta abar.

Izen berezietan, gainerako herrietan bezalatsu jokatzan dute arestiko herri horietan ere, bukaerako *-a* hori ez baita mugatzailea, baizik eta izen bereziari dagokion hizkia; alegia, *Zie* ‘Zia’ ageri da kasu guztietan (eta ez ***Zii*).

b. Diptongoak (-ai, -ei, -oi, -au (C) + -a)

-a mugatzailea asimilatu egiten da *-ai, -ei, -oi* eta *-au* diptongoen atzetik. Eremu osoko herrietan ageri da. Adibideak: *atte* (orok.) & *aite* (Mus.) ‘aita’, *urdaie* ‘urdaia’ (Zarr.), *gaztañe* ‘gaztaina’ (orok.), *andaitze* ‘andaitza; gurdiaaren ardatz-makila edo lema’ (Gol.), *medalle* gazt. ‘medalla’ (Gol.), *bear aña indarra* ‘behar adina indarra’ (In.), *anaie* ‘anaia’ (Its.), *akaña* ‘akaina’ (Er.), *andregaie* ‘andregaia’ (Gai.), *zaie* ‘zahia’ (Azk.), *maaie* ‘mahaia’ (Iri.), *aleie* ‘alegia’ (Etxal.), *giribeie* ‘gari-bahea’ (Era.), *beie* ‘behia’ (Ald.), *loie* ‘lohia’ (Gol., Its.), *sasoie* ‘sasoia’ (Gol.), *gauze* ‘gauza’ (orok.), *kristaue* ‘kristaua’ (Etxal.), *sakristaue* ‘sakristaua’ (Gai.), *autse* ‘hautsa’ (Etxal.), *jaune* ‘jauna’ (orok.), *entxaurre* ‘intxaurre’ (Beru.).

c. Morfema barnean

Hitz barneko *a > e* asimilazioaren adibideak eremu osoan entzuten dira, baina ez maiztasun berarekin: eremuaren ekialdean da bilakabidea bizkorren (Basaburu Nagusiko Gartzaron, Erbiti eta Orokieta, eta Imozko Etxaleku, Oskotz eta Muskitz herrietan), baina indarra du, halaber, Basaburu Nagusiko gainerako herrietan eta Larraungo Gorritin, Uitzin eta Errazkinen. Nolanahi ere, askotan, idiolektoaren mailan aztertu beharko litzateke asimilazio hori gertatzea edo ez gertatzea, aldea egon baitaiteke hiztun batetik bestera, are herri berean ere.

Batetik, hitz arruntak ditugu: *ostiel* (Larr., Er., Gar., Ar.-Bet.) & *osteel* (Gol., Era.) ‘ostirala’, *launbeta* ‘larunbata’ (Gol., Era., Bas. Nag., Larr., Ar.-Bet.), *iende* ‘igandea’ (Osk., Mus.), *i(r)etze* ‘iratzea’ (Osk., Mus.), *iteie* ‘igitaia’ (Osk.), *auzelan* ‘auzalana’ (Mus.), *abitezio* gazt. ‘habitación’ (Mus.), *obligezio* gazt. ‘obligación’ (Mus.), *isets* ‘isatsa’ (Era., Osk., Ud.), *sukelde* ‘sukaldea’ (Osk.,

Mus.), *telletu* ‘teilatua’ (Oro.), *estimezio* ‘estimazio’ (Azp.), *uela* ‘uhala’ (Bar.), *amurretue* ‘amorratua’ (Gorr.), *ordueta* ‘ordubata’ (Bar., Gol.), *irekin* ‘irakin’ (Arru.), *ikesi* ‘ikasi’ (Lat., Era.), *uzterri* ‘uztarria’ (Mus.), eta abar.

Bestetik, *-tu* partizipio-morfemaz eraikitako aditzetan ere bada adibide sail handixko bat, eta haietako asko maileguak dira, gainera: *bataietu* ‘bataiatu’ (Era.), *giltzetu* ‘giltzatu’ (Ui.), *sumetu* ‘sumatu’ (Lat., Osk.), *gisetu* gazt. ‘guisar’ (Ui.), *zipilletu* gazt. ‘cepillar’ (Gol., Osk.), *alkiletu* gazt. ‘alquilar’ (Er.), *makinetu* ‘makinatu; makina pasatu’ (Mus.), *eliminetu* gazt. ‘eliminar’ (Mus.), *kruzetu* gazt. ‘cruzar’ (Mus.), *dutxetu* ‘dutxatu’ (Mus., Oro.), *izendu* ‘izandu’ (Osk., Mus.), *saludetu* gazt. ‘saludar’ (Etxal.), *kastigetu* gazt. ‘castigar’ (Mus., Osk., Etxal.), *billetu* ‘bilatu’ (Era., Zarr., Osk.), *juntetu* gazt. ‘juntar’ (Osk., Etxal.), *piketu* gazt. ‘picar’ (Etxal.), *urretu* ‘urratu’, *abisetu* ‘abisatu’ (Era., Etxal.), *kanbietu* gazt. ‘cambiar’ (Era., Osk., Its., Oro.), *muetu* ‘mugatu’ (Oro.), *kontuetu* ‘konturatu’ (Etxal., Ui.), *kuretu* gazt. ‘curar’ (Ui.), *estudietu* gazt. ‘estudiar’ (Era.), *libretu* gazt. ‘librar’ (Era.), *retietu* gazt. ‘retirar’ (Etxal.), *akostunbretu* gazt. ‘acostumbrar’ (Etxal.), *okupetu* gazt. ‘ocupar’ (Etxal.), *pilletu* ‘pilatu’ (Etxal.), *jubiletu* gazt. ‘jubilar’ (Osk., Etxal.), *prejubiletu* gazt. ‘prejubilar’ (Oro.), *afeitetu* gazt. ‘afeitar’ (Osk.), *fumetu* gazt. ‘fumar’ (Osk.), *gustetu* ‘gustatu’ (Osk., Mus., Ud.), *duretu* gazt. ‘durar’ (Osk.), *usetu* gazt. ‘usar’ (Osk., Etxal.), *apuntetu* gazt. ‘apuntar’ (Osk.), *kutsetu* ‘kutsatu’ (Osk.), *organizetu* gazt. ‘organizar’ (Osk.), *kuidetu* gazt. ‘cuidar’ (Osk., Etxal.), *kakamuñetu* ‘kaka pilatu’ (Etxal., Mus.), *txupetu* gazt. ‘chupar’ (Mus.), *miretu* gazt. ‘mirar’ (Er.), eta abar.

d. *-ka(n)* adberbio-morfema (*-ka(n)* > *-ke(n)*)

Gure eremuko lau ibarretan ageri dira adibideak (cf. 8.3.16.): *arriken* ‘harrika’ (Gol., Lat., Etxal., Its., Ui.), *aldiken* ‘aldika’ (Bar.), *txintziliken* & *zintziliken* (Ui.) & *zintzilike* (Gar.) ‘zintzilika’, *oiuken* (Azp.) & *uiuke* (Arrar.) & *oiduke* (Ar.-Bet.) & *oiduken* (Azp.) ‘oihuka’, *burruken* ‘borroka’ (Gol.), *maingike* ‘mainguka’ (Osk.), *kurruxke* ‘kurruxka; zerriaren soinua’ (At., Gol.), *izkutuke* ‘ezkutuka’ (Arri., Gai.), *ziike* ‘zirika’ (In.), *karraxike* ‘garraxika’ (In., Bet.), *zilipurdike* ‘zilipurdika’ (Gai.), *zaunke* (orok.) & *saunke* (Gol., Gai.) ‘zaunka’, *marruke* ‘marruka’ (Arri., Gai.), *muturke* ‘muturka’ (Bet.), eta abar.

e. *-ra* adlatibo-morfema *-(r)a > -(r)e*

Bizi-bizirik dugu *a > e* asimilazioa ingurune horretan, eta izen berezietan, izen arruntetan, zein morfema barnean *-(r)a + -ko > -(r)eko*, *-(r)aino > -eño*) agertzen da. Adibideak: *Etxalukure* ‘Etxalekura’ (Gol.) & *Itxalekure* (Era.), *Madride* ‘Madrila’ (Lat.), *Gorritie* ‘Gorritira’ (Arru.), *Kalifornire* ‘Kaliforniara’ (Etxal.), *Gartzaune* ‘Gartzarona’ (Etxal.), *Drendaiñe* ‘Gerendiaina’ (Etxal.), *Iurtzune* ‘Iurtzuna’ (Lat., Osk., Bar., Arru.), *ferire* ‘feriara’ (Lat.), *Bilbaure* ‘Bilbora’ (Lat.), *Beamendire* ‘Beramendira’ (Etxal.), *eizire* ‘ehizara’ (Etxal.), *dirue daun tokie* ‘dirua dagoen tokira’ (Ui.), *beste mundure* ‘beste mundura’ (Etxal.), *medikure* ‘medikura’ (Etxal.), *Astitze* ‘Astitza’ (Bar.), *Gaskure* ‘Gaskuera’ (Era.), *errire* ‘herrira’ (Osk.), *Erbittire* ‘Erbitira’ (Gar.), *mataderie* ‘mataderiara’ (Bet.), *ostature* (Gol., Er.) & *ostature* (Osk., Oro.) ‘ostatura’, *Eroskie* ‘Eroskira’ (Er.), *errin konture* ‘herriaren kontura’ (Er.), *beittire* ‘beheitira, ukuilura’ (Oro.), *kanposantue* ‘kanposantura’ (Iri.), *ekullue* ‘ukuilura’ (Iri.), *perratokie* ‘ferratokira’ (Arru.), *zerbitzure* ‘zerbitzura’ (Urr.), *aiuntamenture* ‘aiuntamentura (gazt. ayuntamiento), udaletxera’ (Era., Oro.), *aoztue* ‘abuztura’ (Ud.), *eguerdieko* ‘eguerdirako’ (Its.), *na’uzun lekure* ‘nahi duzun lekura’ (Gar.), *ordueko* ‘ordurako’ (Lat., Etxal., Gol., Ud.), *urte guzieko* ‘urte guztirako’ (Ud.), *sueko autse* ‘surako hautsa’ (Etxal.), *belarrireko* ‘belarrirako’ (Etxal.), *negueko* ‘negurako’ (Lat.), *erri guzieko bat* ‘herri guztirako bat’ (Gorr.), *andregaien atarieño* ‘andregaiaren atariraino’ (Era.), *errieño* ‘herriraino’ (Ud.), *zubieño* ‘zubiraino’ (Its.), *apal ordueño* ‘afal orduraino’ (Bar.), *gerrieño* ‘gerrirainoko elurra’ (Ui.), eta abar.

Halako asimilazioa bada Intzan 1772an: *Araitze* ‘Araitza’, *Larraune* ‘Larrauna’, *Araquil guzire* ‘Arakil guztira’ (Satrustegi 1987b: 133).

Eremu osoan entzun ditugu halako formak, baina, Goldaratzen eta Basaburu Nagusian, forma asimilatuak eta asimilatu gabeak txandaka erabiltzen dituzte.

Bestalde, Larraunen, Araitz-Betelun eta Basaburu Nagusi gehiengan (ekialdera jo ahala, desagertu egiten da joera), *-i* hizkiak bukatutako hitzei adlatibo-marka eranstea, adlatibo-marka bera ez ezik, hitzari dagokion *-i* hori ere asimilatu egiten da batzuetan, eta *-ee* ahoskatzen da (*-i + -ra > -i(r)e > -ee*); alegia, asimilazioa atzerantz gauzatzen da. Hizketa laxoan gertatzen da hori. Hona guk jasotako adibideak: *Uitzee* ‘Uitzira’ (Arru., Bar., Beru.), *Lekunberree* ‘Lekunberrira’ (Ald., Beru.), *Donostee* ‘Donostiara’ (Beru.), *ataree* ‘atarira’ (Beru.), *itturree* ‘iturrira’ (Beru.), *mendee* ‘mendira’ (Bar., Its., Beru., Azk.), *karnizeree* ‘karnizeriara’ (Bar.), *ferree* ‘feriara’ (Beru.),

pelukeree ‘pelukeriara’ (Beru.), *Ezkurree* ‘Ezkurrara’ (Beru.), *saskee* ‘saskira’ (Gai.). Imotzen, adibide bakar bat jaso dugu; Goldaratzzen, hain zuzen ere: *Frantzee* ‘Frantziara’. Ez dugu ahaztu behar $i > e$ bokal-irekitzea bizkorra dela eremu horretan (ikus 8.1.5.); badirudi $a > e$ eta $i > e$ bilakabideak gurutzatu egin direla errealizazio horietan.

Are gehiago: zenbait kasutan, *-i-rik* egon gabe ere gertatu da asimilazioa, arestiko adibideekiko analogiaren ondorioz segur aski. Larraunen eta Araitz-Betelun entzun ditugu adibide hauek: *San Miele* ‘San Migela’ (Ui., Ald., Gorr., Erra.), *Baraarre* ‘Baraibarra’ (Alb., Erra., Bet.), *Oskotze* ‘Oskotza’ (Ui.), *Aralarre* ‘Aralarra’ (Erra.), *Ireese* (Ui.) & *Iribese* (Bet.) ‘Iribasa’, *Jaunsarase* ‘Jauntsaratsa’ (Arru.), *Aldatze* ‘Aldatza’ (Bet.), *Azpiotze* ‘Azpirotza’ (Azp., Arri.), *Atalloarre* ‘Atalloarrara’¹⁰² (Arri.), *Burgose* ‘Burgosa’ (Uzt.), *Estelle* ‘Estellara, Lizarrara’ (Bet.), *treenee* ‘trenera’ (Od.), *trinketee* ‘trinketera’ (Ald.), *balsee* ‘baltsera (baltz dantza)’ (Alb.), *eskee* ‘eskera’ (Alb.), *akelarre* ‘akelarrera’ (Gai.), *kamione* ‘kamioira’ (Arri.), *Benidorre* ‘Benidormera’ (Bet.).

f. *-tan* inesibo-morfema (*-tan > -t(t)en*)

Inesiboko mugagabeko morfeman ere asimilazioa gertatzen da. Honako adibide hauek bildu ditugu: *ttikitten* (Od., Bar., Ald., Alb., Gorr., Azp., Bet., Uzt.) & *ttiki-ttikitten* (Bar.) & *ttikiten* (Arru., Ui.) & *txikitten* (Iri.) ‘ttikitan’, *gutxitten* (Iri., Bar., Arru., Alb., Gorr., Erra., In., Gai., Bet.) & *gutxiten* (Mus., Arru., Bar., Ald., Ui., Azp., Bet.) ‘gutxitan’, *euzkitten* (Iri., Arru., Ald., Alb., Ui., Gorr., Azp., Erra., Bet., At., Gai.) & *iuzkitten* (Gol., Arrar., Ig., Beru., Od.) ‘eguzkitan’, *izarditten* (Era., Etxal., Bet.) & *izerditen* (Mus.) ‘izerditan’, *bi-iru tokitten* ‘bi-hiru tokitan’ (Bar.), *bi alditten* ‘bi alditan’ (Erra.), *meikuten* (Od., Gorr., Azp., Erra.) & *medikuten* (Ald., Alb.) ‘medikutan’, *eozin lekuten* ‘edozein lekutan’ (Ald.), *eskuten* ‘eskutan’ (Mus.), *suten* ‘sutan’ (Mus., Era., Bet.), *berritten etzun ezautuko* ‘berritan ez zuen ezagutuko’ (Gai.), *tokiten* ‘tokitan’ (Ui.), *olako tokitten* ‘holako tokitan’ (Bet.), *zazpitten* ‘zazpitan’ (Uzt.).

Hizketa arduragabekoan jasotako adibideak dira horiek guztiak. Izan ere, inkesta bidez datu hori egiaztatzen saiatu garen aldietan, asimilatu gabeko formak eman dizkigute hiztunek, nahiz eta ohiko jardunean asimilatuak erabili.

¹⁰² Atallun dagoen taberna baten izena da Atalloarra.

Eremu osoan entzun ditugu halako forma asimilatuak, baina atzera egiten ari den ezaugarria da inondik ere. Adineko hiztunek baliatzen dute batez ere, eta asimilatu gabeko *-tan* morfemarekin batera, gainera.

Atzera begira, *argitten* ‘argitan’ ageri da Larraunen (ez dakigu zehazki zein herritan) 1945 inguruan bildutako otoitz pagano batean (Donostia 1956: 35)¹⁰³: *Agur, eguzki ederra / Jetxirik zerutik lurrera / Illuna desterratzera / Ta gu argitten paratzera*. Bestalde, *diruten* eta *bi erriteco* adibideak ditugu Intzan 1772an (Satrustegi 1987b: 132, 133), eta *diruten* 1801ean herri berean (Satrustegi 1987b: 287).

g. Beste deklinabide-morfema batzuk

Beste deklinabide-morfema batzuetan ere gertatu da asimilazioa: *-tara* > *-t(t)ea* adlatiboko mugagabeen, *-tako* > *-teko* prolatiboan eta *-ta-* > *-tte-* artizkia. Eremu osoan entzun ditugu halakoak, baina oso bakanka; oso indar apala du bilakabideak. Hona guk bildutako adibideak: *meikutea* ‘medikutara’ (Od., Arru., Bar., Erra.), *euzkittea* (Gol., Ui., Ud., Its., Bet.) & *iuzkittea* (Era., Gar., Gol., Etxal.) & *iruzkittea* (Mus.) ‘eguzkitara’, *zenbait tokittea* ‘zenbait tokitara’ (Mus.), *sutea* ‘sutara’ (Bet., Uzt., At.), *suteako* ‘sutarako’ (At., Gai.), *suteako modun* ‘sutarako moduan’ (Bet.), *aragittekoak* ‘haragitakoak’ (Its.), *kamainteko* ‘kamainatako’ (Mus.), *azitteako* ‘hazitarako’ (Bet., At.), *lautetik bat* ‘lautatik bat’ (Bet.).

h. Konpletibo-morfema *-(e)la* > *-le*

Imozko Muskitz herrian baizik ez dugu entzun. Adibideak: *emendi(k) goazile*, *eskuiñetaa* ‘hemendik goazela, eskuinetara’, *tokatu zaigule* ‘tokatu zaigula’, *in bar dugule* ‘egin behar dugula’, *atzo aittu iñen erraten erain bear duule* ‘atzo aritu ginen erraten erein behar dugula’, *Berasain aldea goazile* ‘Beratsain aldera goazela’.

Gainerako herri eta ibarretan, *-(e)la* erabiltzen dute kasu guztietan; asimilatu gabea, beraz.

Nolanahi ere, *publica dezagule* adibidea ageri da Intzan 1772an, eta *uqui dizezule* herri berean 1801ean.

¹⁰³ Egileak dioenez, Don Nicolas Buldain Berueteko erretoreari hartua da zehazki. Otoitza Larraungotzat jotzen duenez, pentsatzekoa da larraundarra izango zela erretorea, baina ez dakigu, ordea, nongoa.

Era horretako asimilazioak erabilera oparoa du Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 116).

i. -tik(an) ablatibo-morfema eta -larik(an) denbora-morfema (-tikan > -tiken, eta -laikan > -laiken)

Ablatiboari eta denbora-perpausetako -larik morfemari balio semantikorik gabeko -n morfema gehitzean, asimilazioa gertatzen da: *erritiken* ‘herritik(an)’ (Era.), *andiken* ‘handik(an)’ (Era., Etxal.), *ortiken* ‘hortik(an)’ (Etxal.), *grifotiken* ‘grifotik(an)’ (Etxal.), *Igoatiken* ‘Igoatik(an)’ (Arrar.), *emendiken* ‘hemendik(an)’ (Beru.), *asi giñelaiken* ‘hasi ginelarik(an)’ (Lat.), *umea nitzelaiken* ‘umea nintzelarik(an)’ (Osk.), *loditzen tzeliken* ‘loditzen zelarik(an)’ (Etxal.), *jendi Iruñea joaten zelaiken* ‘jendea Iruñera joaten zelarik(an)’ (Its.), *soldado yoan giñelaiken* ‘soldadu joan ginelarik(an)’ (Arrar.).

Bilakabide horiek, jakina, aipatutako morfemak erabiltzen dituzten herrietan gertatzen dira; alegia, Imotzen eta Basaburu Nagusian batik bat (ikus 8.3.12.).

j. -i, -u + -ta, -da partizipio-morfema (-ta > -t(t)e, -da > -d(d)e)

-i edo -u hizkiez bukatutako aditzari -ta edo -da partizipio-morfema eranstea, asimilazioa gertatzen da, eta -t(t)e edo -d(d)e bihurtzen da morfema hori. Larraungo Errazkinen soilik entzun ditugu halakoak, eta hiztun bakar bati, gainera (adin handiko hiztuna, hain zuzen)¹⁰⁴. Hona adibideak: *sekatu, te paper sedaskotan bildute* ‘sekatu, eta paper sedazkotan bilduta’, *gelditzen da ongi lotute* ‘gelditzen da ongi lotuta’, *ongi inddekoa zen* ‘ongi egindakoa zen’, *mainddereak-eta oso latzak baitzeen; latzak, etxean einddekoak* ‘maindereak-eta oso latzak baitziren; latzak, etxean egindakoak’, *aoa zaaldute* ‘ahoa zabalduta’, *eseitte eoten tzen* ‘eserita egoten zen’, *ue beti mozkortute alleatzen zen* ‘hura beti mozkortuta ailegatzen zen’, *au etorri zen umeak utzitte* ‘hau etorri zen umeak utzita’, *alde indde* ‘alde eginda’, *gazta nasite oso goxoa da* ‘gazta nahasita oso goxoa da’, *jantzitte dao* ‘jantzita dago’, *emen eskolaa etorritte, ikasitte negoan* ‘hemen eskolara etorrita, ikasita nengoen’.

k. -i, -u (C) + bat zenbatzailea (bat > bet)

Asimilazioaren ondorioz, (b)et bihurtzen da bat zenbatzailea (baita haren eratorriak ere), -i-z edo -u-z bukatutako hitzaren ondoren. Adibideak: *itxi berri et* ‘etxe berri bat’ (Gol.), *meezin betzuk*

¹⁰⁴ Ikus 5.2.3. atalean emandako arrazoibidea.

‘medizina batzuk’ (Lat.), *alderdi etea* ‘alderdi batera’ (Era.), *bonbil bet* ‘bonbilla bat’ (Etxal.), *saardi et* ‘sagardi bat’ (Osk.), *ziri etzuk* ‘ziri batzuk’ (Mus.), *erentzi et* ‘herentzia bat’ (Ui.), *ardien larru bet* ‘ardiaren larru bat’ (Mus.), *lapur betzuk* ‘lapur batzuk’ (Mus.), *alki bet* ‘aulki bat’ (Er.), *lur betzuk* ‘lur batzuk’ (Oro.), *depositu etzutaa* ‘depositu (< gazt. depósito) batzuetara’ (Lat.), *botil bet* ‘botila bat’ (Ud.), *kuadril bet* ‘koadrila bat’ (Ud.), *eskin betea* ‘izkina batera’ (Oro.), *beste toki eten* ‘beste toki batean’ (Gorr.), *zazpi et urte* ‘zazpi bat urte’ (Alb.), *burni etekin* ‘burdin batekin’ (Gai.), *umealdi et* ‘umealdi bat’ (At.), *ungendu et* ‘ukendu bat’ (Lat.), *maixtru et* gazt. ‘maestro’ (Osk.), *ordu etes* ‘ordu batez’ (Mus.), *iun bet* ‘egun bat’ (Gar.), *antiojodun bet* ‘antiojodun bat’ (Oro.), *kontzeju bet* ‘kontzeju bat’ (Oro.), *katu et* ‘katu bat’ (Iri.), *trapu et* ‘trapu bat’ (Bar.) & *trapu etekin* ‘trapu batekin’ (Lat.), *enkargatu et* ‘enkargatu bat’ (Azp.), *ukendu etekin* ‘ukendu batekin’ (At.), *alanbrezko arku et* ‘alanbrezko arku bat’ (Bet.), *kastigu et* ‘kastigu (zigor) bat’ (Arri.), *zain betzuk* ‘zain batzuk’ (Ui.), *mutil bet* ‘mutil bat’ (Azp.), *sail bet* ‘sail bat’ (Azp.), *beste tonu et* ‘beste tono (< gazt.) bat’ (Bet.), eta abar.

Eremu osoan ageri da asimilazioa ingurune horretan: Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun. Bilakabidea sistematikoa da osotara. Alabaina, *-i* edo *-u* bokalaren ondoren kontsonante bat dagoenean, errealizazio ezberdinak ditugu Imozko Goldaratz herrian; izan ere, han, izenak berak jasotzen du asimilazioa, eta zenbatzailea bere horretan gelditzen da, asimilatu gabe. Ikus dezagun, garbiago, adibideetan: *suurre at* (*suur bet* da orokorra) ‘sudur bat’, *laune at* (orok. *laun bet*) ‘lagun bat’, *botille at* (orok. *botil bet*), *bonbille at* (orok. *bonbil bet*) ‘bonbilla bat’, eta abar.

Bestalde, bada beste berezitasun bat Basaburu Nagusiko Itsason eta Igoan, eta Imozko Goldaratzen: *-e* hizkiak bukatutako hitzei *bat* zenbatzailea eranstean, hitz amaierako *-e* hori *-i* bihurtzen da, eta zenbatzailea asimilatu egiten da horrenbestez. Hona adibideak: *itxi etea* ‘etxe batera’ (Gol.), *lezi et* ‘leize bat’ (Gol.), *besti et* ‘beste bat’ (Gol.), *urti etin* ‘urte batean’ (Gol.), *urti eten difeentzi* ‘urte baten diferentzia’ (Gol.), *tenedori etekin* ‘tenedore batekin’ (Gol.), *semi et* ‘seme bat’ (Gol.), *gurutzi etzuk* ‘gurutze batzuk’ (Gol.), *soka luxi et* ‘soka luxe bat’ (Its.), *miñe fuerti et* ‘min fuerte bat’ (Ig.), eta abar. Hizkera horietan, *-e + -a > -ii* egiten dute, eta badirudi hitz amaierako bokala asimilatu egin dela lehenik, eta ondoren gehitu zaiola *bat* zenbatzailea. Alegia: *leze + -a > lezii* lehenik, eta *lezi + bat > lezi (b)et* ondoren¹⁰⁵. Gerok frogatu dugunaren arabera, ez

¹⁰⁵ Izenari erakuslea gehitzean ere sortzen dira halakoak. Goldaratzen bildu ditugu adibide hauek: *ambienti ue* ‘ambiente (< gazt. ambiente) hura’, *jendi ue* ‘jende hura’, *berdi ue* ‘berde hura’.

dago halako bilakabiderik gure eremuko beste herrietan, ezta Larraungo hego-ekialdean ere, nahiz $-e + -a \rightarrow -ii$ egiten duten han ere.

Basaburu Nagusiko Berueten, Larraungo hego-ekialdeko herri batzuetan eta Araitz-Beteluko goi-herrian (eta Goldaratzen, behin edo beste), bestalde, honelako formak sortu dira: *opatu utela azare et* ‘topatu dutela azeri bat’ (Beru.), *alderde eten* ‘alderdi batean’ (Bar.), *pertz aunde et* ‘pertz handi bat’ (Gol., Bar.), *alde etean* ‘aldi batean’ (Gai.)¹⁰⁶, *obe et* ‘ogi bat’ (Gai.), *jarri arre et-eo gañean* ‘jarri harri bat-edo gainean’ (Gai.), *arde et pasten balen bada beira* ‘ardi bat pasatzen baldin bada behera’ (Gai.). Alegia, *azari bat* > *azari (b)et* > *azare et* gertatu da. Ildo horretatik, Ibarrak *obet* ‘ogi bat’, *goostet* ‘gorosti bat’, *garet* ‘gari bat’, *bazkaret* ‘bazkari bat’ eta *belarret* ‘belarri bat’ bildu ditu Itsason eta Goldaratzen (1995a: 119). Antzeko bilakabidea bildu dugu Arraratsen, $-u-z$ bukatutako hitzetan: *orduut an pastii* ‘ordu bat han pasatzea’, eta Ibarrak *liburuut* ‘liburu bat’ adibidea bildu du Berueten (1995a: 119). Ez daukagu garbi $i > e$ bilakatu ote den lehenik (*azari* > *azare*), eta *bat* zenbatzailea gehitu ondoren (*azare + bat* > *azare at* > *azare et*); edota *bat* gehitu ote dioten lehenik (*azari + bat* > *azari et*), eta $i > e$ bihurtu ondoren (*azari et* > *azare et*). Nolabait ere, gurutzaturik ageri dira $a > e$ eta $i > e$ bilakabideak.

Azkenik, aurretik i edo u bokalik egon gabe ere (aurretik e bokala egonda, hain zuzen), $a > e$ asimilazioa bete da arestian aipatutako eremuan: *salbe et* ‘salbe bat’ (Gol., Beru.), *aizpe (e)t* ‘ahizpa bat’ (Etxal.), *azidente et* ‘akzidente (gazt. accidente) bat’ (Its.), *etxe et* ‘etxe bat’ (Iri.), *urdai puske et* ‘urdai puska bat’ (Azk.), *urte etea bota* ‘urte batera bota’ (Gai.), *liste et* ‘lista (< gazt. (zerrenda) bat’ (Arri.), *urte etean* ‘urte batean’ (Azk.), *beste alde etea* ‘beste alde batera’ (Azk.).

1. $-i, -u$ (C) + *eta* juntagailua

$-i$ edo $-u$ bokalaren eraginez, *eta* asimilatu eta *te* bihurtzen da. Imozko Muskitzen (eta, kasuren batean, baita Oskotzen, Etxalekun eta Orokietan ere) eta Larraungo Errazkinen entzun dugu bilakabide hori. Hona adibideak: *drogerietan eosi, te, geo, segoakiñ irakiñaazi* ‘drogerietan erosi, eta, gero, seboarekin irakinarazi’ (Mus.), *umiak an utzi te Iruñea etorri zen* ‘umeak han utzi eta Iruñera etorri zen’ (Mus.), *sekatu te ondoan* ‘sekatu eta ondoan’ (Mus.), *pastu, te beotu* ‘pasatu, eta berotu’ (Mus.), *bazkaldu, te itxea* ‘bazkaldu eta etxera’ (Mus.), *gosaldu, te buelta itxea* ‘gosaldu, eta buelta etxera’ (Mus.), *berroi o berroite bost gradu* ‘berrogei edo berrogeita bost gradu’ (Mus.), *oeite*

¹⁰⁶ Hitzuna denboraz ari zen; beraz, ‘aldi batean’, eta ez ‘alde batean’.

lau ordus euki ‘hogeita lau orduz eduki’ (Mus.), *oeite bost* ‘hogeita bost’ (Osk.), *berroite bedratzi* ‘berrogeita bederatzi’ (Etxal.), *lauetan oeite amazazpi urte* ‘lauretan hogeita hamazazpi urte’ (Oro.)¹⁰⁷, *gaixo eondu nitzen bein, anjinakin, de oso ikaatu orduun* ‘gaixo egon(du) nintzen behin, anjinekin, eta oso ikaratu [nintzen] orduan’ (Erra.), *iiñean tapatu te utzi* ‘irinean tapatu eta utzi’ (Erra.), *ondata, te gelditzen dee jostorrazak bezala* ‘hondatu, eta gelditzen dira jostorrazak bezala’ (Erra.), *biltzen nittun, te aikiñ, gañes gaiñ, bordaa, atengana* ‘biltzen nituen, eta haiekin, gainez gain, bordara, aitarengana’ (Erra.), *puxkatu te buelt(a) ematen tzion* ‘puskatu eta buelta ematen zion’ (Erra.), *osto frexko-frexkoak moztu, urritze o lizarra moztu, te ue garbi-garbi sartu* ‘hosto frexko-frexkoak moztu, urritza edo lizarra moztu, eta hura garbi-garbi sartu’ (Erra.), *artu te bordaa* ‘hartu eta bordara’ (Erra.), *arrosarioa errezatu te ostoak kimatu* ‘errosarioa errezatu eta hostoak kimatu’ (Erra.), *apezak aittu zun, de: “nola, nola esan duzu?”* ‘apezak aditu zuen, eta: “nola, nola esan duzu?”’ (Erra.), *denak juntatu te parrez* ‘denak juntatu eta barrez’ (Erra.), *bazkaldu, te ordun kuadrille joaten giñen Betelue, asko, iru eunetan* ‘bazkaldu, eta orduan kuadrilla joaten ginen Betelura, asko, hiru egunetan’ (Erra.), *ukullun astoa ta auntze o ola zittun, de ezkerrea, berriz, bastidore at* ‘ukuiluan astoa eta ahuntza edo horrela zituen, eta ezkerrean, berriz, bastidore bat’ (Erra.), *ausi te oso txikittu* ‘hautsi eta oso txikitu’ (Erra.).

m. -i, -u + da aditz laguntzailea (da > de)

-i-z edo -u-z bukatutako aditzaren ondoko *da* aditz laguntzailea asimilatu egiten da zenbait kasutan (*da > de*). Larraungo Errazkinen bildu dugu guk: *lana eitteko modue asko kanbiatu de* ‘lana egiteko modua asko kanbiatu da’, *erdaa izandu de Betelun* ‘erdara izan(du) da Betelun’, *egie baitte oi* ‘egia baita hori’.

Ibarrak asimilazio mota horren arrastoak bildu ditu Basaburu Nagusian (1995a: 120-122). Guk halakorik ez dugu bildu han; guk entzun dugunaren arabera, Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan arruntagoak dira *i > e* bokal-irekitzearen ondorioz sortutako forma hauek: *etorre a* ‘etorri da’ (eta ez ***etorri de*), *yarre a* ‘jarri (eseri) da’ (***yarri de*), eta abar (ikus 8.1.5.). Hala, guk Larraungo Errazkinen baizik ez dugu entzun *da > de*, eta, 5.2.3. atalean genioen bezala, adin handiko emakume baten jardunean besterik ez.

¹⁰⁷ Orokietan, era horretako zenbakietan baizik ez dugu entzun *te* forma asimilatua.

Diakroniari dagokionez, *nolabaite au gauze bat aiñ importanzie andicoa* adibidea ageri da Intzako 1772ko testuan, eta *au de egune* gisakoak badira behin baino gehiagotan herri berean 1801ean.

Bestalde, oso ohikoa da Atetz-Ultzama aldean, Ibarrek berak dakarrenez.

n. Zenbait adizki

-iCa- > *-iCe-* (> *-eCe-* > *-ee-*) asimilazioa gauzatu da zenbait adizkitan. Eremu osoko adibideak dakartzagu hona, baina ohar bat egin beharrean gaude: Imozko Muskitz ez beste herri guztietan, azken muturreraino eraman dute asimilazioa (alegia, atzerantz gauzatu da, *-ee-* lortu arte); Muskitzen, aldiz, *-i(C)e-* izan da azken emaitza (cf. 8.4.25.). Ikus ditzagun, lehenik, Muskizko adibideak: *di(r)e* ‘dira & dit’, *zi(r)en* ‘ziren & zidan’, *bali(r)e* ‘balira & balit’, *di(r)ete* ‘didate’, *zi(r)eten* ‘zidaten’, *bali(r)ete* ‘balidate’, *li(r)eke* ‘lirateke’. Eta hona eremuko gainerako herrietakoak: *dee*, *zeen*, *balee*, *deete*, *zeeten*, *baleete*, *leeke*. Imozko eta Basaburu Nagusiko adibideak dira arestiko horiek; Larraungo eta Araitz-Beteluko herrietan, badira *dee*, *zeen* eta *balee*, baina *-e* edo *-i* da 3. pertsona pluraleko ergatiboa, eta, beraz, *die* & *dii* ‘didate’, *zien* & *ziin* ‘zidaten’, *balie* ‘balidate’ ageri dira (ikus 8.4.5.).

Bestalde, eremu guztian bete da asimilazioa honako adizki hauetan: *nitzeke* ‘nintzateke’, *litzeke* ‘litzateke’, *ziñeke* ‘zinateke’, *giñeke* ‘ginateke’.

Ondorioak

Garbi geratu da *a > e* asimilazioa bizkorra eta indartsua dela gure eremuko lau ibarretan. Indartsua dela diogu, batetik, euskarazko hitzetan zein maileguetan ageri delako, eta, bestetik, ingurune fonologiko askotara hedatu delako. Alabaina, bada aldea herrien artean.

Lehenik, ikusi dugunez, eremuko gainerako herrietan ageri ez den bi ingurunetan ageri da asimilazioa Imozko Muskitzen (ikus l. eta h.), Errazkingo salbuespena gora-behera. Gainera, Basaburu Nagusiko ekialdeko eta Imozko ekialdeko herrietan (Etxaleku, Oskotz, Muskitz) ere indar berezia du bilakabideak c. ingurunean. Hain zuzen ere, ondoko Atetz eta Ultzama ibarretan ere oparoa da asimilazioa hiru ingurune horietan (Ibarra 1995a: 115-116); ezaugarri horretan, beraz, alderdi horrekin bat datoz Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko hizkerak, Muskitz batik bat.

Txulapaingo Usin ere bazen asimilazioa ingurune horietan: *berotu... te... ongi garbitu* ‘berotu eta ongi garbitu’, *lixuen egosite* ‘lixuan egosita’ (Camino 2003a: 246). Eta baita Odietako Latasan ere: *baki te dena* ‘ebaki eta dena’, *kordeonista bat karri te orduen* ‘akordionista bat ekarri eta orduan’ (Camino 2003a: 242). Konpletibo-morfema asimilaturik ageri da, halaber, Uharte Arakilgo doktrinan (Arakama 1994: 572).

Bestalde, Errazkinen, inguru(hurbile)ko hizkeretan ageri ez den hiru ingurune fonologikotan topatu dugu asimilazioa (ikus j., l. eta m.), baina hiztun bakar bati bildu dizkiogu halakoak. Adin handiko emakume batek erabiltzen ditu forma asimilatu horiek, baina ez Errazkingo gainerako hiztunek; hurrengo belaunaldietara hedatu ez den berrikuntza zahar baten aurrean gaude, segur aski (ikus 5.2.3.).

Alegia, *eta > te* dugu gaur egun Muskitzen eta Errazkinen, baina ez dago halakorik bi herrion tarteko eremuan. Hala, alde batetik, Muskitzek Atetz-Ultzamari (eta baita hegoalderagoko hizkerari ere) loturik iraun du, han ere oparoa baita *eta > te* bilakabidea (Ibarra 1995a: 123). Beste alde batetik, Errazkingo kasuari dagokionez, Errazkinen berean gertaera sistematikoa ez dela kontuan harturik (areago, Errazkinen ohikoagoa da asimilatu gabeko *ta* forma entzutea), pentsa daiteke duela gutxi galdutako ezaugarria izango dela, hiztun batek gorde duena, baina gainerakoek hizketan indarra galdu duena. Errazkindik hurbil, Leitzan ere bada (Olano 1998: 62); berrikuntza beraren emaitzak baditugu gaur egun, beraz, Muskitzen (eta Ultzaman), Errazkinen eta Leitzan.

Atzera begira, Intzako 1772ko testuan bada asimilazioa ingurune horietan; horregatik, pentsatzekoa da hedadura zabalagoa izango zukeela garai batean. Ezin jakin dugu ziurtasun osoz asimilazioa ingurune gehiagotara iritsi ote zen Imotzen, Basaburu Nagusian edota Larraunen, ez baitugu hori frogatzeko testurik; baina, zenbait ingurunetan asimilazioa atzera egiten ari dela ikusirik (ikus, esate baterako, f. eta g. inguruneak), pentsatzekoa da garai batean ingurune gehiagotan eta leku gehiagotan beteko zela asimilazioa.

Azkenik, forma berezi-bereziak ikusi ditugu a., e. eta k. inguruneetan. Bereziak diogu, aztertzen ari garen hizkeren ingurumarian bere-berezko ezaugarriak direlako. a. inguruneak 8.1.2. atalean aztertu ditugu (-*ii* eta -*uu* bukaerak Goldaratzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hegoekialdean); ez dugu azalpenik gehituko. Baina, e. eta k. inguruneetan ikusitakoaren arabera, batez

ere Goldaratzen, Basaburu Nagusian (ekialdeko herriak izan ezik), Larraunen eta Araitz-Betelun bokal-dantza handia dagoela ondoriozta daiteke: *e*-ranzko joera erabatekoa da gure eremuan (cf. 8.1.5.)¹⁰⁸.

Gure eremuaz gaindi, $a > e$ asimilazioa hedadura zabaleko ezaugarria dela erakusten digute datuek. Imoztik ekialdera, indar handia du Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995a: 110-131, cf. Bonaparte 1881). Gogoan izan lotura berezia sumatu dugula, $a > e$ asimilazioari dagokionez, gure eremuko ekialdeko herrien eta Atetz, Ultzama eta Anue ibarren artean (c., h. eta l. inguruneetan batez ere). Are ekialderago, asimilazioa indartsu ageri zaigu Esteribarren eta Erroibarren (Ibarra 2000: 41-43). Ibarrek berak dioenez, Erroibarko Aurizberrin, Auritzen, Artzibarren eta Aezkoan dagoeneko ez dago $a > e$ asimilaziorik; hortxe dugu, beraz, bilakabidearen muga. Alabaina, Artolak argitaratutako Artzibarko datuetan, han asimilazioaren arrastoak badirela ikus daiteke (2006: 393-428). Caminok Erroibarren ikusi du bilakabidearen muga (1997: 224); nolana ere, Arrietako (Artzibar) eta Orotz-Beteluko salbuespenez ohartarazi du.

Muskiztik mendebalera, maiztasuna jaitsi egiten da ingurune morfofonologiko batzuetan, baina igo egiten da beste batzuetan. Esate baterako, c. ingurunean ahula da asimilazioa ekialdeko herriak ez beste Basaburu Nagusiko herrietan, Imozko mendebalean, Larraungo hego-ekialdean eta Araitz-Betelun, baina eremu horretan asimilazioak indarra du, aldiz, e. eta k. inguruneetan. Mendebalerantz jarraituz, Sakanako herri gehienetan ere badu indarra, baita Irañetan ere (Erdozia 2001: 97-107). Aldaketa bizkorrena Araitz-Betelutik mendebalerako hizkeretan dakusagu guk: asimilazioak behera egiten du Tolosaldeko eta Goierriko hizkeretan (ikus Hurtado 2001: 54-57). Hau da, egon badago, baina, esate baterako, Amezketan, a. eta b. inguruneetan baizik ez (B. G.). Areago, B. Gorostidi amezketarrak esan digu haiek hizkera nafarrarekin¹⁰⁹ lotzen dituztela *garraxike* ‘garraxika’, *mendie* ‘mendira’ edota *ordu et* ‘ordu bat’ gisako errealizazioak. Ezin ezarri dugu, ordea, isoglosa garbirik; aldaketa graduala da, ibar batetik bestera jaitsi edo igo egiten da asimilazioaren maiztasuna, baina gradualki nolabait, ez baitago bat-bateko aldaketarik. Hurtadok nola-halako isoglosa bat ezarri du Gipuzkoako ekialdean (2001: 54):

Gaur egun, eremu honetatik ezar daiteke bilakabide honen isoglosa: Goierri osoa, Tolosaldeko hegoaldea —Alegia, Ikaztegieta, Orendain, Baliarrain, Abaltzisketa, Amezketa, Altzo—, Nafarroarantz

¹⁰⁸ Hona, *e*-ranzko joeraren erakusgarri, Berueten bildutako adibide bat: *emendek Lekunberree pelukeree, oñes* ‘hemendik Lekunberrira pelukeriara, oinez [joaten ginen]’.

¹⁰⁹ Hizkera *napparra* Araizko eta Leitzako euskara da amezketarrentzat.

dagoen eremua —Lizartza, Oresa, Gaztelu, Berrobi, Elduain, Berastegi—, Leaburu, Belauntza eta Albiztur. Tarteko eremua osatzen dute Ibarrek, Izaskunek eta Tolosako zenbait auzok (Olarraín, San Blas...), horietan hainbat bilakabideren arteko lehia dagoelako.

Gure eremutik iparraldera, asimilazioa bada Leitzan eta Areson (Olano 1998: 60-63), eta Basaburu Txikiko Ezkurra eta Eratsun herrietan, baina ez Beintza-Labaienen eta Saldiasen, ezta Malerreka aldean ere (Apalauza eta Lakar 2001-2003).

Imoztik hegoaldera dauden hizkeren berri jakiteko, diakroniara eta toponimiara jo beste aukerarik ez dugu, nahiz eta, kasu batzuetan, badiren ahoz bildutako datu bakan batzuk. Hala, Salaberrik toponimiaz egindako lan batean irakurri dugunez, $a > e$ bada Ollaranen, Atetzen, Txulapainen eta Gulibarren; badira arrastoak Iruñerrian, Arangurenen eta Mañeruibarren, eta ez dago Oibarren, Urraulbeitin, Ibargoitin, Orban eta Elortzibarren (1991: 620-621). Egile berak beste lan batean ondorioztatu duenez, Iruñetik iparraldera bazen, eta baita hego-mendebalera ere (Muzki, Uterga), baina ez hego-ekialdera (2000: 885). Bestalde, Artolaren datuen arabera (1992), honako herri hauetan ere ezaguna zen asimilazio hori: Larunben, Beorburun, Usin (cf. Txulapaingo datuak in Arana 2006: IV-V), Anotzen, Ziaurritzen, Olaitzen, Inbuluzketan, Urniztan eta Ilurdotzen (cf. Ezkabarteko datuak in Artola 1985). Azkenik, Olaibarren (Artola 2001: 491, 512) edota Itzarbeibarren (Arana 2002) ere bazen.

Badirudi, ordea, bilakabide aski berria dela $a > e$ asimilatzea, bai Nafarroa Garaian behinik behin. Ondorio horixe erdietsi du, esate baterako, Ibarrek Ultzamako eta Erroibarko testu zaharrak aztertuta (1999: 87, cf. 2003: 358), edota Pagolak hegoaldeko goi-nafarreraz idatzitako testuak aztertuta (1995: 280). Gerok irakurritako testuen artean, Urritzolakoa da asimilazio mota hori ageri duen testurik zaharrena, XVII. mendekoa (Satrustegi 1987: 50-52)¹¹⁰, eta ez dugu ahaztu behar Intzako 1772ko testuan ere ageri dela.

Datuetan ikusi dugunez, Nafarroako alderdi zabal batean bada edo izan da ezaugarri hori, baina baita Nafarroaz gaindiko beste hainbat lekutan ere. Zuazok Hego Euskal Herriko ezaugarritzat hartu du (2008: 239-240), eta haren erabilera-eremua zehaztu: ia Bizkai osoan, Arabako eremu euskaldunean, Gipuzkoako hegoalde osoan eta Nafarroa Garaiko eremu zabalean

¹¹⁰ Ez dakigu Arakilgo edo Ultzamako Urritzola ote den, Satrustegik ez baitakar halako zehaztasunik, eta, testuan ageri diren hizkuntza-ezaugarriak aztertuta, ezin erabaki dugu nongoa den testua.

erabiltzen da. Eremitik kanpo daude Gipuzkoako iparraldea, eta Nafarroa Garaiko honako eskualde hauek: Arano eta Goizueta, Basaburu Txikiko Saldias eta Beintza-Labaien, Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana, Aurizberri, Auritz, Artzibar (gogoan izan gorago Artzibarko hizkeraz egindako oharra) eta Aezkoa-Erronkari bitarteko hizkerak. Horixe da, beraz, asimilazio mota horren gaur egungo eremua, kontuan izanik hizkera guztietan ez dela ageri ingurune morfofonologiko beretan, ez eta indar berarekin ere.

8.1.4. *u > o* bokal-irekitzea

Zenbait ingurunetan, *u* bokala ireki, eta *o* ahoskatzen da. Alabaina, berezia da *o* bokal hori: ez da, esate baterako, *astoa* hitzean ageri den *o* bezalatsukoa; irekiagoa da nolabait, eta ahoskera horrek kutsu berezia ematen die hura erabiltzen duten hizkerari. Nolanahi ere, hemen aurkeztuko ditugun datuetan, *o* transkribatuko dugu. Eremitu guztiko ezaugarria da, baina bada aldea herri eta ibar batzuetatik besteetara. Oro har, eremuko ekialdeko herrietan ez da hain ohikoa; gutxi gorabehera, Etxalekutik eta Gartzarondik ekialdera.

u > o zein ingurunetan gauzatzen den aztertuko dugu, eta ezaugarriaren hedadura geografikoa zein den zehaztuko.

a. 1., 2. eta 3. pertsona singularreko adizki trinkoak eta aditz laguntzaileak

Orainaldiko adizkietan ageri da: *dot* ‘dut’, *ttot* ‘ditut’, *dok* ‘duk’, *don* ‘dun’, *dozo* ‘duzu’, *ttozo* ‘dituzu’, *dizot* ‘dizut’, *dizo* ‘dizu’, *zaizo* ‘zaizu’, *za(i)zkizo* ‘zaizkizu’, *zazo* ‘ezazu’, *daukezo* & *daukizo* ‘daukazu’, *do* ‘du’, *tto* ‘ditu’, eta abar. Iraganekoetan, *-u-* erroa ageri da kasu guztietan: *nun* (***non*) ‘nuen’, *zun* (***zon*) ‘zuen’, eta abar.

Hona bertatik bertara jasotako adibide batzuk:

- 1. pertsona singularra (ni): *afizioa baot* ‘afizioa badut’ (Gol.), *etxea eaman bea’ot* ‘etxera eraman behar dut’ (Bar.), *nik eztot bein ee izandu* ‘nik ez dut behin ere izan(du)’ (Gol.), *udaan atorra kentzen dot* ‘udan atorra kentzen dut’ (Gol.), *majiñe at near in dot* ‘makina bat negar egin dut’ (Urr.), *iñalak eitten ttot* ‘eginahalak egiten ditut’ (Urr.), *au untture arrekin sendatue dot* ‘hau untura (ukendu) harekin sendatua dut’ (Era.), *eztot aittu izando* ‘ez dut aditu izan(du)’ (Bar.), *estraperloko denboan nik eztot ezaoto Albisue gipuzkoanoik etortzen* ‘estraperloko denboran nik ez dut ezagutu Albiasura gipuzkoarrik etortzen’ (Alb.), *izoak kontatu ttot* ‘izebak kontatu ditut’ (Ald.),

jarriko ttot zapetak ‘jarriko ditut zapatak’ (Its.), *eztittot sentittu personak artzen* ‘ez ditu sentitu pertsonak hartzen’ (Azk.), *aitzea baot* ‘aditza badut’ (Uzt.).

• 2. pertsona singularra (hi eta zu): *eztok goo ama* ‘ez duk gure ama’ (Gol.), *nai bazo paatu* ‘nahi baduzu paratu’ (Era.), *nai dozo primera komonioa in?* ‘nahi duzu primera komunioa egin?’ (Bar.), *nai balen bauzo* ‘nahi baldin baduzu’ (Ui.), *ezpaozo entenditzen* ‘ez baduzu entenditzen (ulertzen)’ (Lat.), *ette ttozo paperak* ‘egiten dituzu paperak’ (Gai.), *eakutsiko izot* ‘erakutsiko dizut’ (Gol.), *esango azkizot* ‘esango dizkizut’ (Gai.), *arritzen zaizo* ‘harritzen zaizu’ (Iri.), *minbeatzen zazkizo* ‘minberatzen zaizkizu’ (Gai.), *au Ultzamakoa izaan dok* ‘hau Ultzamakoa izanen duk’ (Ig.), *espea’zo* ‘espera ezazu’ (Arrar.), *paa zazo* ‘para ezazu’ (Beru.), *ez al dok akaato?* ‘ez al duk akabatu?’ (Ald.), *zok jakiñen dozo* ‘zuk jakinen duzu’ (Ald.), *emaiozo* ‘emaiozu’ (Ald.), *asko ezautze’ozo* ‘asko ezagutzen duzu’ (Alb.), *osiñ-ure emaiozo* ‘osin-ura emaiozu’ (Azk.), *eaman zaizkiozo* ‘eraman iezazkiozu’ (Ig.), *goo iuskea bakizo* ‘gure euskara badakizu’ (Gol.), *atzenduik daukezo* ‘atzendurik daukazu’ (Arrar.).

• 3. pertsona singularra (hura): *iuzkik ateatzen bado* ‘eguzkiak ateratzen badu’ (Era.), *tratorik eamaten do* ‘traktoreak eramaten du’ (Gol.), *iotzeko arrii bear baito* ‘ehotzeko harria behar baitu’ (Its.), *orrek izain tto lautan ogei pasa* ‘horrek izanen ditu lauetan hogeia pasa’ (Its.), *ardik bi titi izaten tto* ‘ardiak bi titi izaten ditu’ (Ud.), *puxke asko tto* ‘puska asko ditu’ (Gol.), *batto orrek...* *izain tto oita zortzi urte* ‘baditu horrek... izanen ditu hogeita zortzi urte’ (Era.), *iiltzen tto* ‘ibiltzen ditu’ (Alb.), *buelta eman do* ‘buelta eman du’ (Alb.), *zenbat urte izaen tto?* ‘zenbat urte izanen ditu?’ (Ald.), *arrek erreziiboak batto zorra paatutakoak been izenakin* ‘hark erreziiboak baditu zorra pagatutakoak beren izenekin’ (Gai.).

Halako adizkiak oparo erabiltzen dituzte batez ere Imozko Goldaratzen, ekialdeko herriak ez beste Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun. Ekialdera joan ahala, adizkion maiztasuna jaitsi egiten da, eta oso-oso bakanka ageri dira Erbitin, Gartzaronen, Orokietan edota Muskitzen. Ez dago esaterik halako herritatik ekialdera agertzen ez direnik; maiztasuna jaitsiz doa, baina ez bat-batean, gradualki baizik.

Larraungo Errazkinen, bestalde, ohikoa da $u > o$, baina ez dirudi beti hala izan denik. Izan ere, hango adin handiko emakume batek ez du sekula erabiltzen, eta horretaz ohartua da, gainera: berak

esana da Larraunen dena *i* egiten dutela, eta Araitz-Betelun, aldiz, dena *o*. Berak Araizkotzat dauka $u > o$ ezaugarria, eta Errazkingo arrotzat. Inguruko herrietan, indarra du, gaur egun, bokal-irekitzeak, bai Larraunen bai Araitz-Betelun; horregatik, espero izatekoa zen Errazkinen ere indarra izatea (eta hala da, izan). Baina Errazkingo emakume horren lekukotasunak agerian uzten du aski berria izan daitekeela bilakabidea (cf. 5.2.3.).

Larraungo errealizazioekin jarraituz, berezia da hego-ekialdeko herrietan erabiltzen duten *dozii* ‘duzue’ adizkia; eremuko gainerako herrietan, *u*-duna ageri da beti (*duzie* Imozko Muskizen, *duzte* Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta (*du*)*zue* Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun).

Askotan, aldea izaten da hiztun batetik bestera. Sakonago aztertu beharko litzateke kontua, baina hiztun batzuek erabat sistematikoki erabiltzen dituzte *o*-dun aldaerak, eta beste batzuek, berriz, *u*-dun aldaerekin txandaka baino ez. Prestigio-kontua izan liteke horren arrazoia, baina, esan bezala, beste mota bateko ikerketa bat eskatzen du horrek.

b. “Zu” eta “gu” pertsona-izenordainak eta haien eratorriak (*zu-*, *gu-* > *zo-*, *go-*)

Hona adibideak: *goe atte* ‘gure aita’ (Gol.), *goo aurrekoak* ‘gure aurrekoak’ (Gol.), *goi yatii ematen tziun amaxik* ‘guri jatera ematen zigun amaxik’ (Ig.), *goree* ‘gurea’ (Od., Bar., Gorr.), *goe ama* ‘gure ama’ (Bar.), *bizkorra zen go ama* ‘bizkorra zen gure ama’ (Bar.), *gore Domingo* ‘gure Domingo’ (Gorr.), *goe katu beltza* ‘gure katu beltza’ (Bet.), *zoo edadin* ‘zure edadean (adinean)’ (Gol.), *zoo pañuloan sartzen bazen* ‘zure painueloan sartzen bazen’ (Gol.), *zootzat* ‘zuretzat’ (Ig.), *zoe zakurre* ‘zure zakurra’ (Beru.), *zoi* ‘zuri’ (Beru.), *zok esan ziñuna* ‘zuk esan zenuena’ (Arri.), *zoe ondotik* ‘zure ondotik’ (Gai.), eta abar.

Eremu osoan ageri dira halako aldaerak, baina ezaugarria desagertzen hasten da ekialdera egin ahala, eta *o*-dun formak urritan entzun daitezke Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan.

a. ingurunerako esan dugun bezala, ezaugarria ez da bat-batean desagertzen, gradualki baizik.

c. *-tu* eta *-du* partizipio-morfemak (*-tu*, *-du* > *-to*, *-do*)

-tu eta *-du* partizipio-morfemetan, *u* bokala ireki egiten da gure eremuko zenbait hizkeratan, *-to* eta *-do* bihurtzeraino. Basaburu Nagusiko Arraratsen, Igoan eta Berueten, Larraungo hego-ekialdeko herrietan eta Araitz-Betelun bildu dugu. Ezaugarriaren eremutik kanpo daude Imotz osoa,

Basaburu Nagusi gehiena (salbu iparraldeko herriak) eta Larraungo ipar-mendebala. Larraungo Albiasun, *-to* eta *-do* formen maiztasuna jaitsi egiten da, *u*-dunak ere maiz erabiltzen baitituzte. Bestalde, Arruizko eta Errazkingo hiztun batzuek badute *u*-dunak erabiltzeko joera, *o*-dunak baino gehiago.

Hona zenbait adibide: *sekato* gazt. ‘secar’ (Arrar., In.), *ezkondo* ‘ezkondu’ (Arrar., Gai., Azk.), *infaato* gazt. ‘enfadar’ (Arrar.), *kontoato* ‘konturatu’ (Ig., Beru.), *eskriitto* gazt. ‘escribir’ (Ig.), *adotato* gazt. ‘adoptar’ (Ig.), *zuiitto* ‘zuritu’ (Ig.), *galdeto* ‘galdetu’ (Ig.), *paato* ‘paratu’ (Beru.), *ostu* ‘ostu’ (Beru.), *yakindo* (Beru.) & *jakinddo* (Ald.) ‘jakin(du)’, *aldato* ‘aldatu’ (Bar., Ald., Uzt., Gai.), *preokopato* gazt. ‘preocupar’ (Bar.), *aklarato* gazt. ‘aclarar’ (Bar.), *asemato* ‘asmatu’ (Od.), *rekisato* gazt. ‘requisar’ (Ald.), *ainddo* ‘agindu’ (Ald.), *ozkato* ‘hozkatu’ (Bar.), *mozto* ‘moztu’ (Od.), *nabaitto* ‘nabaritu’ (Iri.), *ukitto* ‘ukitu’ (Iri.), *aitto* ‘aditu’ (Iri., Arrar.), *paasto* ‘pasatu’ (Od.), *eukitto* ‘eduki(tu)’ (Od.), *bazkaldo* ‘bazkaldu’ (Bar.), *apaldo* ‘afaldu’ (Bar., Ald.), *barrato* ‘barreiatu’ (Erra.), *kurato* gazt. ‘curar’ (Gai.), *dorato* gazt. ‘dorar’ (Gai.), *alleato* (Od., Ig.) & *allaato* (Gai.) ‘ailegatu’, *leerto* ‘lehertu’ (Od., Gai.), *izando* ‘izandu’ (Beru., Bar., Alb., Iri., Uzt., Gai., Azk., Bet.), *eldo* ‘heldu’ (Od., Alb., Gai., In., Bet.), *kendo* ‘kendu’ (Gai.), *zaaldo* ‘zabaldu’ (Gai.), *usteldo* ‘usteldu’ (Gai.), *estoto* ‘estutu’ (Gai.), *belaunekato* ‘belaunikatu’ (Arri.), *izoto* ‘izutu’ (In.), eta abar.

Aditz-partizipioari beste morfemaren bat gehitzean ere gertatzen da: *kendoazi* ‘kendarazi’ (Bar.), *urtoazi* ‘urtuarazi’ (Gai.), *sartoazi* ‘sarrarazi’ (At.), *kendota* ‘kenduta’ (Gai.), *epeldota* ‘epelduta’ (Uzt.), *zaaldota* ‘zabalduta’ (Gai.), *lotota* ‘lotuta’ (Ig., Od.), *beotota* ‘berotuta’ (Gai.), *oztotzen* ‘hozten’ (Ig.), *oztotzeko* ‘hozteko’ (Gai.), *piztotzeko* ‘pizteko’ (Gai.), *eztot uste tokatoko enik* ‘ez dut uste tokatuko denik’ (Ig.), eta abar.

u-dunak edo *o*-dunak erabiltzea askotan prestigioari lotuta dagoela uste dugu guk. Araitz-Betelun, esate baterako, nabaria da baserria / kalea banaketa goi-herriko eta behe-herriko bizilagunen artean, eta hizkeran berean islatzen da hori. Hala, behe-herriko hiztun kaletarrek urriago darabiltzate *o*-dun formak, *u*-dunak baino. Askotan entzun dugu, gainera, behe-herriko hiztunek esanda, goi-herrikoen hizkera traketsagoa eta aldrebesagoa iruditzen zaiela.

d. Hitz barnean eta hitz solteetan

Hitz batzuetan, eremu osoan ageri da: *sokalde* ‘sukaldea’ (Gol., Arru., Bar., Ui., Gorr., Alb., Ar.-Bet.), *beando* ‘berandu’ (Gol., Iri., Bar., Ald.), *etziama* ‘etzidamu’ (Gol.), *emakome* (Gol., Its., Ud., Beru., Iri.) & *makome* (Er., Gar.) ‘emakumea’, *txer(ri)kome* ‘txerrikumea’ (Gol., Urr., Zarr., Its., Bar.), *barroti* ‘barrutia’ (Gol., Iri., Bar., Arru., Ald., Erra., Bet., At., Gai., Azk.).

Bizkorrago ageri da, ordea, Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraungo hego-ekialdean eta Araitz-Betelun: *moteko* (Od.) & *motiko* (Ui.) ‘mutikoa’, *motill* ‘mutila’ (Ig., Ud., Iri., Alb.), *ao* ‘hau’ (Iri., Ar.-Bet.), *ezaoto* (Iri., Bar., Ui.) & *izaoto* (Arrar., Ig., Od.) ‘ezagutu’, *laonarte* ‘lagunartea’ (Bar.), *preokopato* gazt. ‘preocupar’ (Bar.), *kostonbrii* gazt. ‘costumbre’ (Arrar.), *barkato* ‘barkatu’ (Arrar.), *txormio* ‘txurmioa, orkatila’ (Arrar., Ud.), *kisolabe* ‘kisolabea, karobia’ (Arrar.), *azofrii* ‘sufrea (< gazt. sufre)’ (Ig.), *saoxar* ‘saguzaharra’ (Ig.), *izoarri* ‘izugarria’ (Ig.), *lao(e)tan oeita bi* ‘lautan hogeita bi’ (Beru.), *eakotsi* ‘erakutsi’ (Gai.), *onontza* ‘honantza’ (Gorr., At., Bet., Gai., Azk.), *eskobere* (Od., Iri., Erra., Uzt., Gai.) & *eskoare* (Bar., Arru.) ‘eskuarea’, *ao daoke* ‘hau dauka’ (Bar., Beru.), *baoket* ‘badaukat’ (In.), *baoke* ‘badauka’ (Uzt., Gai.), *baokezo* ‘badaukazu’ (Gai.), *biorrirtu* ‘bihurritu’ (In.), *daore* ‘daude’ (Gai.), *zeaoren* ‘zeuden’ (Gai.), *eoki* ‘eduki’ (Gorr.), *daoket* (Gai., Azk.), *zeoken* (Uzt.) & *zeaoken* (In., Gai., At., Azk., Uzt., Bet.) ‘zeukan’, *sekoleko* ‘sekulako’ (Azk.), *komona* ‘komuna’ (Uzt., Gai., Arri.), *atxor* ‘aitzurra’ (Gai., Uzt.), *zolo* ‘zuloa’ (At.), *gaor* ‘gaur’ (Gai., In., Azk.), *zakor* ‘zakurra’ (Gai., Uzt., Azk., In.), *makortuta* ‘makurtuta’ (Gai.), *motur* ‘muturra’ (In.), *ontatu* gazt. ‘untar’ (Bet.). Diptongoetan ere ageri da, gainera: *gaoze* ‘gauza’ (Azk.), *iru-lao minoto* ‘hiru-lau minutu’ (Gai.).

Azkenik, Igoan, Berueten eta Azpirotzen jaso ditugun ale berezi batzuk ekarriko ditugu hona. Bereziak dira ingurumariko hizkeretan ez delako ohikoa halakoetan *u* bokala irekitzea. Hona adibideak: *ordo at* ‘ordu bat’ (Ig.), *negu at* ‘negu bat’ (Ig.), *ne neon lekua* ‘ni nengoen lekura’ & *nee lekua* ‘nire lekura’ (Ig.), *ostatoa* ‘ostatura’ (Ig.), *Betelo* ‘Betelu’ (Ig., Beru.) & *Beteloa* ‘Betelura’ (Ig.), *akulloa* ‘akuilua’ (Beru., Azp.). Hain zuzen, honako forma hauek ohikoagoak dira hango ingurumarian: *ordu et*, *negu et*, *ne (ni) neon lekue*, *ostatue*, *Betelu* & *Betelue*, *akullue* & *akulluu*. Ildo horretatik, Ibarrek *esko bat* ‘esku bat’, *iru kato* ‘hiru katu’, *iru porro* ‘hiru porru’ eta *eskora* ‘eskura’ bildu ditu Arraratsen (1995a: 102-103). Haren arabera (eta Pagolaren kontra, cf. 1992-I: 91), forma horiek ez dira hiperzuzenketaren¹¹¹ ondorioz sortuak; izan ere, beste ingurune batzuetan


¹¹¹ “Ultrazuzenketak” terminoa darabil Ibarrek, baina ohikoagoa da “hiperzuzenketak”.

ere bada $u > o$ Arraratsen (eta ingurumarian), eta hortik etorriak dirateke arestiko forma horiek¹¹². Hualde ados dago Ibarrekin, baina gehitzen du balitekeela analogiaz sortuak izatea Arrarats aldeko errealizazioak; alegia, baliteke aldaketa mugagabeko aldaeretan (“uninflected nominals”) hasi izana analogiaz (Ondarroan, Azpeitian, eta abar, gertatzen den bezala), eta, ondoren, beste ingurune batzuetara zabaldu izana, hedadura lexikoaren bidez (2006b: 459-460).

Ondorioak

Araitz-Betelun, Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean da indartsuen $u > o$ bokal-irekitzea. Larraungo ipar-mendebalean, Basaburu Nagusian oro har eta Imozko mendebalean ere bada; baina, ikusi dugun bezala, han ez da *-tu* eta *-du* partizipio-morfemetara hedatu, eta urriago ageri da hitz barnean eta hitz solteetan ere. Hain zuzen, Imozko mendebalean, Basaburu Nagusian eta Larraungo ipar-mendebalean, bokal-irekitzea bizkorra da a. eta b. inguruneetan, baina ezaugarriaren indarra urrituz doa ekialdera egin ahala, Muskitzen eta Orokietan desagertzeraino (cf. Irizar 1992a: 29, 222).

13. irudia: $u > o$



$u > o$ indartsua da Nafarroa Garaiko zenbait eskualdetan: Leitza (Olano 1998: 64-68), Goizueta (Zubiri eta Perurena 1998: 32), Basaburu Txikiko herri batzuk (Apalauza eta Lakar 2001-

¹¹² Aitzitik, berranalisiaren ondorioz sortuak dira Bortzirietako adibide hauek (Zelaieta 2004: 236): *merkato* ‘merkatua’, *kato* ‘katua’, *diro* ‘dirua’... (alegia, *astua* → *asto* denez, hiztunak *merkatua* → *merkato*, *katua* → *kato*, *dirua* → *diro* berranalizatzen du).

2003) edota Malerrekako hizkera batzuk (Apalauza eta Lakar 2001-2003). Beraz, ez dagokio soilik gure eremuari, gure mugez haratago ere ageri baita, nahiz, ikusi dugun bezala, aldea baden haren erabileran. Nafarroako mendebaleko ezaugarritzat hartu du Zuazok (1997: 410).

Azken ondorio gisa, aldaketa oso garbia da Araitz-Beteluko eta Tolosaldeko mugan: Araitz-Betelun, oparoa da $u > o$ ezaugarria, eta, Gipuzkoara orduko, berriz, (ia) erabat desagertzen da. Hurtadok adibide bakan batzuk bildu ditu Goierriko zenbait herritan (2001: 65-66), baina bilakabide ahula da inondik ere. Horren haritik, B. Gorostidi amezketarrak esan digu beren belarrietan “nafarrak” direla o -dun adibideak, eta batik bat Leitzarekin lotzen dituztela. Isoglosa garbia dugu, beraz, hor. Ekialdera, ez dago isoglosa tinko eta garbirik finkatzerik, aldaketa graduala baita Imozko eta Basaburu Nagusiko herrietan zehar: ekialdera joan ahala, gero eta urriagoa da ezaugarria, baina ezin ezar dezakegu muga garbirik. Handik ekialdera, ordea, ez dago bokal-irekitzearen arrastorik ez Atetzen ez Ultzaman (Ibarra 1995a: 98-104), ezta handik ekialdera ere.

8.1.5. $i > e$ bokal-irekitzea

Gure eremuko hizkera batzuetan, i bokala ireki eta e bihurtzen da. Ez da, ordea, ohiko e bokala: *seme* hitzean ageri dena baino irekiagoa da nolabait. Nolanahi ere, e erabiliko dugu transkribatutako adibideetan. Geroago zehaztuko dugu non erabiltzen den eta non ez, baina aurreratuko dugu isoglosatik kanpo daudela, salbuespenak salbuespen, Imotz osoa, Basaburu Nagusiaren zati bat eta Larraungo ipar-mendebala. Hona bokal-irekitzea zein ingurunetan gertatzen den:

a. Hitz bukaera

Larraungo hego-ekialdeko herrietan (Albiasun ez) eta Basaburu Nagusiko iparraldean (Arrarats, Igoa eta Beruete), $-e$ bihurtzen da hitz bukaerako $-i$. Lehenik, $-i$ -z bukatutako aditz sail bat emango dugu, eta hitz solteak ondoren. Hona hango herrietan bildutako aditz sorta: *jarre* ‘jarri’ (Od.), *itzale* ‘itzali’ (Od., Ald., Beru.), *ase* ‘hasi’ (Od., Ald., Arrar.), *utze* ‘utzi’ (Od., Beru.), *etorre* ‘etorri’ (Iri.), *autse* ‘hautsi’ (Iri.), *iille* ‘ibili’ (Iri.), *iitxe* (Iri.) & *itxe* (Ald.) ‘itxi’, *iike* ‘ireki’ (Iri.), *ekarre* ‘ekarri’ (Ald.), *ixike* ‘izeki, piztu’ (Ald.), *iraaze* ‘irabazi’ (Arrar.), *yarre ae* ‘jarri hadi’ (Arrar.), *bize* ‘bizi’ (Arrar., Beru.), *biale* ‘bidali’ (Beru.), *yetze* ‘jetzi’ (Beru.), *eatzarre* ‘iratzarri’ (Beru.), *yauntze* ‘jantzi’ (Beru.).

Gainera, halako aditzei *-rik* partizipio-morfema eranstea, *-eik* sortu da, eta ohikoan *i > e* egiten ez duten Goldaratza eta Basaburu Nagusiko zenbait herritara ere iritsi da forma hori, gainera (Larraungo ipar-mendebalean ere entzun dugu, baina oso bakanka). Hona zenbait adibide: *jarreik* ‘jarririk’ (Gol., Od.), *bizeik* ‘bizirik’ (Gol., Ig., Od., Ald.), *ioseik & ioseik* ‘egosirik’ (Gol., Od.), *geldeik* (Gol., Its., Arrar., Ig., Beru., Ud., Od., Ald., Ui.), *iikeik* ‘irekirik’ (Od.), *azeik* ‘hazirik’ (Gol.), *itsaseik* ‘itsatsirik’ (Gol.), *naseik* ‘nahasirik’ (Ig.), *earreik* ‘egarririk’ (Ald.), *beantetseik* ‘berantetsirik’ (Im., Larr., Oro.)¹¹³.

Hitz soilak ikusiko ditugu orain: *barrote* ‘barrutia’ (Od.), *gutxe* ‘gutxi’ (Od., Arrar.), *amabe* ‘hamabi’ (Od., Ig., Beru.), *amazazpe* ‘hamazazpi’ (Od.), *emezortze* ‘hemezortzi’ (Od., Ig.), *Lekunberre* ‘Lekunberri’ (Od.), *bete* ‘beti’ (Od., Bar., Ald., Ig.), *zazpe* ‘zazpi’ (Od.), *elkarre jokan* ‘elkarri joka(n)’ (Od.), *onge* ‘ongi’ (Iri., Beru.), *oe* ‘hori’ (Bar., Beru.), *arrek bezin garbe* ‘hark bezain garbi’ (Bar.), *naske* ‘noski’ (Ald.), *lore ore ateken* ‘lore hori batekin’ (Arrar.), *iru erre otan* ‘hiru herri hauetan’ (Arrar.), *asko yoaten nitzen ne* ‘asko joaten nintzen ni’ (Ig.), *beatze* ‘bederatzi’ (Ig.), *ooke* ‘hobeki’ (Ig., Od.), *gorre-gorre* ‘gorri-gorri’ (Ig.), *mainge* (orok. *maingi*) ‘maingu’ (Beru.), *Urteberre* ‘Urteberri’ (Beru.), *etze* ‘etzi’ (Beru.).

Halako hitz soilei adlatibo-marka erantsiz gero, *-e(r)a* forma ageri da Basaburu Nagusiko iparraldean diren Arraratsen eta Igoan (Berueten ez): *Berasteera* ‘Berastegira’ (Arrar.), *mendea* ‘mendira’ (Arrar., Ig.), *Frantzea* ‘Frantziara’ (Arrar.), *errea berea* ‘herrira berera’ (Ig.), *Uitzea* ‘Uitzira’ (Ig.), *Lekunberrea* ‘Lekunberrira’ (Ig.), *ferrea* ‘feriara’ (Ig.), *pelukerea* ‘pelukeriara’ (Ig.), *atarea* ‘atarira’ (Ig.), *Donostea* ‘Donostiara’ (Ig.)¹¹⁴. Alegia, hitz bukaerako *i* bokala ireki egin da lehenik (*atari > atare*), eta ondoren gehitu diote adlatibo-marka (*atare + -(r)a > atarea*).

Eremuko gainerako herrietan, eskuarki ez dago halako bokal-irekitzerik; nolana ere, *oe* ‘hori’ forma aski hedatua da Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun ere. Imotzen eta iparraldeko herriak ez beste Basaburu Nagusiko herrietan, *i* bokalari eutsi diote, baina bokal-irekitzearen arrastoak topatu ditugu Goldaratzen, Erason eta Itsason: *ni bete akordatze naiz* ‘ni beti akordatzen naiz’ (Gol.), *antxe bi arre aundi bazeen* ‘han bi harri handi baziren’ (Gol.), *bi txore emen tzain kantari ta kantari* ‘bi txori omen zeuden kantari eta kantari’ (Gol.), *bi txorekume oso*

¹¹³ Halako adibideen analogiaz sortuak dirudite partitiboan deklinatutako adibide hauek: *txapiñeik* ‘zapinarik’ (Gol.), *miñeik* ‘minik’ (Od.), *obeik* ‘ogirik’ (Gol., Ald.). Ibarrak Arraratsen ere bildu ditu halakoak (1995a: 376-377).

¹¹⁴ Gainerako herrietan, *mendi(r)e*, *Frantzi(r)e*, *erri(r)e*, *pelukeri(r)e* tankerakoak erabiltzen dituzte (ikus 8.1.3. ataleko e. azpiatala).

polittek ‘bi txorikume oso politak’ (Gol.), *amar obe* ‘hamar ogi’ (Era.), *bost erre gaa* ‘bost herri gara’ (Its.). Goldaratz ondoko Oderitz herri larraundarrean, indar handia du bilakabideak; beraz, ez da harritzekoa Goldaratzen ere azaltzea, oso bakanka bada ere.

b. Ablatibo-morfema (-tik > -tek)

Maiz-maiz ageri da bilakabide hori Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean. Adibideak: *Imoztek* ‘Imoztik’ (Od.), *Beuntzetek* ‘Beuntzatik’ (Od.), *giñenetek* ‘ginenetik’ (Od.), *Betelutek* ‘Betelutik’ (Od.), *ostatutek* ‘ostatutik’ (Od.), *kotxetek* ‘kotxetik’ (Od.), *aurritek* ‘aurretik’ (Od.), *barrendek* ‘barrendik’ (Od.) & *barrendek kanpoa* ‘barrenetik kanpora’ (Iri.), *amaostetek* ‘hamabostetik’ (Od., Ald.), *txenda aitateg* ‘xenda haietatik’ (Od.), *azpittek* (Iri.) & *azpetek* (Beru.) ‘azpitik’, *justotek atea da biziik* ‘justutik atera da bizirik’ (Iri.), *etxetek* ‘etxetik’ (Iri., Bar.), *emendek* ‘hemendik’ (Bar.), *andek atea* ‘handik atera’ (Bar.), *zenbatete* ‘zenbatetik’ (Bar.), *leku guzitate* ‘leku guztietatik’ (Bar.), *beste erritate* ‘beste herrietatik’ (Etxarri)¹¹⁵, *kanpotek* ‘kanpotik’ (Ald.), *andek* ‘handik’ (Ald., Arrar.), *amarrettek* ‘hamarretik’ (Ald.), *errettek* ‘herritik’ (Arrar.), *itxe bakoitxetek* ‘etxe bakoitzetik’ (Arrar.), *Itsasotek* ‘Itsasotik’ (Beru.), *Larragatek* ‘Larragatik’ (Beru.), *Leitzetek* ‘Leitzatik’ (Beru.), eta abar.

Larraungo ipar-mendebalean, Imotzen, Basaburu Nagusi gehienez eta Araitz-Betelun, *i*-ri eutsi diote eskuarki, baina baditugu salbuespen bakan batzuk Araitz-Betelun (elkarren oso antzekoak dira adibide guztiak): *ande aurrea* ‘handik aurrera’ (Gai.), *ande aurreao* ‘handik aurrerago’ (In.), *emende aurrea* ‘hemendik aurrera’ (Gai.).

c. Soziatibo-morfema (-kin > -ken)

Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean ageri da. Adibideak: *anaieken* ‘anaiarekin’ (Od.), *eseni zopak* ‘esnea zopekin’ (Od.), *alkiiken* ‘aulkiarekin’ (Od.), *zaldikoaken* ‘zaldikoarekin’ (Od.), *elkarreken* ‘elkarrekin’ (Iri., Ig.), *inguruko erriken* ‘inguruko herriekin’ (Iri.), *oi zeeken etten ziñuin?* ‘hori zerekin egiten zenuten?’ (Iri.), *eskuukeñ* ‘eskuarekin’ (Iri.), *elduken* ‘helduekin’ (Iri.), *ardiken* ‘ardiekin’ (Bar.), *kanpokoaken* ‘kanpokoekin’ (Ald.), *miñeeken* ‘minarekin’ (Ald.), *atari aundi eteken* ‘atari handi batekin’ (Ald.), *aiken* ‘haiekin’ (Ald., Ig.), *lore ore ateken* ‘lore hori batekin’ (Arrar.), *aziendaken* ‘aziendarekin’ (Ig.), *edadekoaken* ‘edadekoekin, adinekoekin’ (Ig.), *letra guziken* ‘letra guztiekin’ (Ig.), *arreken* ‘harekin’ (Ig.), *beieken* ‘behiarekin’

¹¹⁵ EHHAn bildua (1999: 91).

(Ig.), *otxentaiotxooken* gazt. ‘con ochenta y ocho’ (Ig.), *Igoan itxe gutxi izatiiken* ‘Igoan etxe gutxi izatearekin’ (Ig.), *Leitzeeken* ‘Leitzarekin’ (Beru.), *Ezkurreeken* ‘Ezkurrarekin’ (Beru.), *sukoaken* ‘sukoarekin’ (Beru.).

Isoglosatik kanpo daude Larraungo ipar-mendebala, Imotz, Basaburu Nagusiko herri gehienak eta Araitz-Betelu; alabaina, adibide bat jaso dugu Arriben (*ziarro-argieken* ‘zigarro-argiarekin’), eta beste bi Intzan (*egualdi onaaken* ‘eguraldi onarekin’, *ortzaken* ‘hortzekin’).

d. Datibo-morfema (-ri > -re)

Larraungo hego-ekialdeko herrietan, Basaburu Nagusiko iparraldean eta Araitz-Betelun (goi-herrian, batik bat) ageri da, singularreko nahiz pluraleko formetan. Adibideak: *alkatee* ‘alkateari’ (Od.), *arree* ‘hari’ (Od.), *bee buruure* ‘bere buruari’ (Od.), *belarree buelta emateko* ‘belarrari buelta emateko’ (Od.), *arree emateko* ‘hari emateko’ (Bar.), *eltze orre errepaatu* ‘eltze horri erreparatu’ (Bar.), *senarrae* ‘senarrari’ (Bar.), *pertzae* ‘pertzari’ (Bar.), *zenbitte* ‘zenbaiti’ (Ald.), *pago asko daun tokire nola?* ‘pago asko dagoen tokiari nola?’ (Arrar.), *latz aire* ‘latz haiei’ (Arrar.), *umiire* ‘umeari’ (Ig.) & *umire* ‘umeei’ (Arrar.), *ardire* ‘ardiari’ (Ig.), *gazti-gaztiire* ‘*letxal*’ esaten diote ‘gazte-gazteari “letxal” esaten diote’ (Ig.), *bi semire iketan eitten diote* ‘bi semeei hiketan egiten die’ (Ig.), *frailiire* ‘fraileari’ (Ig.), *bestere bezala* ‘besteei bezala’ (Ig.), *begiire launtzen dio* ‘begiari laguntzen dio’ (Ig.), *odolkiire Igoan esaten diu tripota* ‘odolkiari Igoan esaten diogu tripota’ (Ig.), *goittiire esaten diu ganbara* ‘goitiari esaten diogu ganbara’ (Ig.), *beittiire okullu emen* ‘behitegiari ukuilu hemen [esaten diote]’ (Ig.), *aire ooke entendiazteko, batua inñes asi dee gurasoak* ‘haiei hobeki entendiartzeko, batua eginez hasi dira gurasoak’ (Ig.), *semiire askotan esaten diot* ‘semeari askotan esaten diot’ (Ig.), *aizpere* ‘ahizpari’ (Beru.), *ne anaiere estropeatu zaiote kotxee* ‘nire anaiei hondatu zaie kotxea’ (Beru.), *ez diotet beittu florere* ‘ez diet begiratu loreei’ (Beru.), *semeere* ‘semeari’ (Beru.), *illoare* ‘ilobari’ (Beru.), *aitzen tzen kontuk kontatzen umiire* ‘aritzen zen kontuak kontatzen umeari’ (Beru.), *eman tzaiozo eaten umeere* ‘eman iezaiozu edaten umeari’ (Beru.), *amae laune itten* ‘amari laguntzen’ (Beru.), *eitten tzion arree tanto por tziento at* ‘egiten zion hari tanto por ziento bat’ (Beru.), *goe attuna zena* ‘gure aitona zenari’ (Gai.), *Askaateko atee* ‘Azkarateko bati’ (Gai.), *urrutxee moztotzen tzaie* ‘urritxei mozten zaie’ (Gai.), *antxumeae ta aurreako uzten zitzaienae* ‘antxumeei eta aurrerako uzten zitzaienei’ (Gai.), *zintzarrik-eta jartzen iiltzen tzen auntzee* ‘zintzarriak-eta jartzen ibiltzen zen ahuntzeei’ (Gai.), *gutxi galdu zeen nee* ‘gutxi galdu zitzaidan niri’ (Gai.), *lanea joan bear etzuenae* ‘lanera joan behar ez zutenei’ (Gai.), *suee guutzea*

itten giñion ‘suari gurutzea egiten genion’ (Gai.), *arkume at eaman abogaduee* ‘arkume bat eraman abokatuari’ (Gai.), *beste gurdi et seketaioae* ‘beste gurdi bat sekretarioari’ (Azk.), *azindae* ‘aziendari’ (Azk.), *soka eantsiko zioa(t) nik maiee* ‘soka erantsiko zioat nik mahaiari’ (Azk.), *urruna bestea botatzen tzion* ‘hurrena besteari botatzen zion’ (Azk.), *anae zarrenae* ‘anaia zaharrenari’ (Uzt.), *goe attee aittu izandu nion* ‘gure aitari aditu izan(du) nion’ (Uzt.), *alako eztaka ttiki etee jarri trapu et lotuta punten* ‘halako eztaka ttiki bati jarri trapu bat lotuta puntan’ (In.), *jezteae utzizkeo* ‘jezteari utziz gero’ (In.), *arree ure bota* ‘hari ura bota’ (In.), *zakorree ots ein tzion* ‘zakurrari hots egin zion’ (In.), *geok eskatu beikoe telefonoti* ‘gerok eskatu behekoiei telefonotik’ (In.), *ezta librea oliboae aarra kentzea* ‘ez da librea oliboari (mahastiari) adarra kentzea’ (In.).

Isoglosatik kanpo daude Imotz, Basaburu Nagusi gehiena eta Larraungo ipar-mendebala.

e. Partitibo-morfema (-rik > -(r)ek)

Adibide gutxi-gutxi batzuetan baino ez dugu bildu: *mandoek etzen* ‘mandorik ez zen’ (Beru.), *diruek* ‘dirurik’ (Beru.), *ezer e kasoe iñork ee* ‘ezer ere kasurik inork ere’ (Azk.).

Partitiboan ez, baizik eta *-rik* partizipio-morfemarekin bildu dugu bilakabidea Berueten eta Arraratsen, hurrenez hurren: *geldeek zegoan* ‘geldirik zegoen’, *osoek ekarri zuten* ‘osorik ekarri zuten’. Bestalde, *-enik* morfema *-enek* bihurtu da Berueteko adibide honetan: *etzakin pelukeree yoan nitzenek eta* ‘ez zekien pelukeriara joan nintzenik eta’.

f. Diptongoak (-ai, -oi, -ei > -ae, -oe, -ee)

Araitz-Betelun da bilakabidea indartsuen, baina Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean ere ageri da noiz edo noiz. Hitz bukaeran gauzatzen da eskuarki, baina baita, tarteka, hitz barnean ere. Hona adibideak: *eztot anbeste nabaetzen* ‘ez dut hainbeste nabaritzen’ (Iri.), *zaet* ‘zait’ (Bar., Ald.), *iruitzen al tzaeñ?* ‘iruditzen al zain?’ (Ald.), *eroe* ‘erori’ (Ald.), *yarre ae* ‘jarri hadi’ (Arrar.), *beere* ‘begira’ (Ig.), *geiee* ‘gehiegi’ (In.), *ostotsa asten tzen garaean* ‘ostotsa hasten zen garaian’ (Azk.), *beak nae zun garaean* ‘berak nahi zuen garaian’ (Gai.), *ze esan nae ote zun* ‘zer esan nahi ote zuen’ (Uzt.), *elizeko lanak een naeko zittun* ‘elizako lanak egin nahiko zituen’ (Gai.), *lo en nae izate men tzun* ‘lo egin nahi izaten omen zuen’ (At.), *noiznae* ‘noiznahi’ (Bet.), *noanae* ‘noranahi’ (In.), *nola basoan nola nonae* ‘nola basoan nola nonahi’ (Gai.), *bae* ‘bai’ (Ar.-Bet.), *anae-arrebak* ‘anai-arrebak’ (Azk.), *anaea zarrena* ‘anaia zaharrena’ (Azk.), *anaen bat*

‘anaiaren bat’ (Gai.), *anaea ez enteatzeati* ‘anaia ez enteratzeagatik’ (In.), *jezten ae dela* ‘jezten ari dela’ (In.), *bi aldetati tiraka aetzen deen oik* ‘bi aldetatik tiraka aritzen diren horiek’ (In.), *aldiko bat beira allaatzen zenean, bestea goien ae* ‘aldiko bat behera ailegatzten zenean, bestea goian ari’ (In.), *an ae men tzeen* ‘han ari omen ziren’ (Gai.), *pasa ae emendi barrune* ‘pasa hadi hemendik barrura’ (Gai.), *sasoe earra nun* ‘sasoi ederra nuen’ (In.), *sasoea* ‘sasoi’ (Bet.), *arrazoe txarra artukok* ‘arrazoi txarra hartuko duk’ (Bet.), *goe etxeko morroea baitzen* ‘gure etxeko morroia baitzen’ (Uzt.), *morroe bat* ‘morroi bat’ (At.), *morroea* ‘morroia’ (Bet., Gai.), *an eroetzen da* ‘han erortzen da’ (Azk.), *eroe* ‘erori’ (In., Azk., Gai.), *atxoen-lekue* ‘itxoin-lekua, itxoiteko lekua’ (Gai.), *obee metro birean* ‘hogei metro bidean’ (Gai.), *eseeta* ‘eserita’ (Arru., In., Gai.), *een & een* ‘egin’ (Ar.-Bet., Beru.), *rantxeroak eetten zittun denak* ‘rantxeroak egiten zituen denak’ (In.), *bota ezin eengo zo ba ue* ‘bota ezin egingo duzu ba hura’ (In.).

Halakorik ez dago, beraz, Imotzen, Basaburu Nagusi gehianean eta Larraun gehianean¹¹⁶.

g. Hitz barnean

Hitz barnean ere gertatzen da, Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean batik bat: *amar aldes* ‘hamar aldiz’ (Od.), *bakarrek* ‘bakarrik’ (Od.), *moteko* ‘mutikoa’ (Od., Beru.), *eaketa* ‘ebakita’ (Od.), *nek asko izaten nittun* ‘nik asko izaten nituen’ (Iri.), *amika aldes* ‘hamaika aldiz’ (Bar.), *bi aldes* ‘bi aldiz’ (Bar.) & *iru aldes* ‘hiru aldiz’ (Beru.), *mendes* ‘mendiz’ (Arrar.), *errekoak* ‘herrikoak’ (Arrar.), *gurdetan* ‘gurdietan’ (Arrar.), *betere* ‘betiere’ (Ig.), *irres* ‘irriz’ (Beru.).

Halakoak ez dira ohikoak Imotzen, Basaburu Nagusi gehianean, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun. Bi salbuespen bildu ditugu, hala ere, Araitz-Betelun: *Arrebe* ‘Arribe; herri-izena’ (Gai., Uzt., Azk.) eta *dexemolo* gazt. ‘disimulo’ (Gai.).

Bestalde, “jakin” aditzaren adizkietan ere ageri da: *baaket* ‘badakit’ (Iri., Beru.), *ezbainaken* ‘ez bainezien’ (Iri.), *baneken* ‘banekien’ (Iri.), *bagiñaken* ‘bagezien’ (Iri.), *dius eztaket* ‘deus ez

¹¹⁶ Ibarak antzeko bilakabidea dakar Erroibarko eta Esteribarko hizkeretarako (2000: 57-58). Bokal artean *-i*-dagoenean gertatzen da han: *amorraea* ‘amuarraina’, *geago* ‘gehiago’, *maetza* ‘maiatza’, *sasi oetan* ‘sasi horietan’, eta abar. Halakoak Aezkoan, Auritzen, Orreagan eta Artzibarren ere badira. Bestalde, Artolak *anaëa*, *artzaëa*, *aragëa*, *errotazaëa*, *loea* eta *bea* bildu ditu Artzibarko Arrietan (2006: 397). Ez da gure eremuan ageri den bilakabide bera, inondik ere, baina atal honetan gogorarazi nahi izan dugu, bi bilakabideek duten antzekotasunagatik.

dakit' (Iri.), *etzakela josten* 'ez zekiela josten' (Ald.), *nakena* 'nekiena' (Ald.), *zakena* 'zekiena' (Ald.), *eztaket* 'ez dakit' (Beru.), *banake* 'baneki' (Arrar.), *etzekeat* 'ez zekiat' (Bet.).

-*ogo(a)* konparazio-morfemaren aurreko *i* bokala ireki egin da adibide hauetan: *gutxeo* 'gutxiago' (Arrar.), *aundeogoa* 'handiagoa' (Beru.), *lodeogoa* 'lodiagoa', *gaizkeo* 'gaizkiago' (Ald.).

Azkenik, honako aditz-forma hauetan ere bildu dugu bilakabidea Araitz-Betelun: *arrapatu bear deau* 'harrapatu behar diagu' (At.), *tteat* 'ditiat' (Bet.), *nean* 'nian' (Bet.), *deat* 'diat' (Gai.).

h. Hitz hasiera

Eremu osoan bildu ditugu adibideak, baina apika Araitz-Betelun eta Larraunen du indar gehien. Hona hemen guk bildutako adibideak: *eatzarre* (Beru.) & *eatzarri* (Ud., Its., Arrar., Ig.) & *etzarri* (Mus., Oro.) 'iratzarri', *eaxtor* 'iraztorra' (Ui.), *ebazi* (Etxal., Er., Gar.) & *ebaazi* (Its.) 'irabazi', *eiki* 'ireki' (Erra., In.), *eilli* 'ibili' (Arrar., Ig., Ald., Gorr., Arri., Bet., At.), *eiñaa* 'enara' (Arru.), *eio* 'igo' (Ui.), *ekullu* 'ukuilua' (Gol., Iri., Ald., Alb., Gorr., Azk.), *ekusi* 'ikusi' (Gol., Lat., Era., Osk., Its., Beru., Larr., Ar.-Bet.), *ekuttu* 'ukitu' (Bet.), *epurdi* 'ipurdia' (Gol., Its., Beru., Larr., Ar.-Bet.)¹¹⁷, *erruti* 'urruti' (Ald., Erra., Azp., Gai.)¹¹⁸, *eurtzi* 'igurtzi' (Etxal., Bar., Ald., Arru., Ui., Ar.-Bet.).

Hitz baten lehen silabaren barnean ere agertzen da inoiz: *leburu* 'liburua' (Gol., Ar.-Bet.), *tepul* 'tipula' (Gol., Larr. gehiena, Ar.-Bet.).

Badakigu jakin gorago emandako adibideetako batzuk aldaera zaharrak direla. Esate baterako, euskal testu zahar gehienetan ageri da *ekusi* aldaera: hala Gipuzkoan eta Bizkaian (*OEH*) nola Zaraitzun (Camino 1997: 201), esate baterako. Halaber, *eratzarri* eta haren kidekoak (*erazarri*, *etzarri*...) Ultzaman, Zuberoan, Uztarrozen zein Lizarraga Elkanokoaren, Duvoisinin, Harrieten edota Larramendiren idatzietan ageri dira. Mitxelenak dioenez, halako bikoteetan, *e*-duna izan ohi da aldaera zaharrena (1977 [1961]: 65; cf. Camino 2008b: 137-138)¹¹⁹:

¹¹⁷ *epurdi* eta haren eratorriak: *epur-matalle* (Larr.), *epur-tranka* 'ipur-tranka' (Alb.), *iñaa eporzurii* 'enara ipurzuria' (Iri.), *epur-gañe* 'ipur-gaina' (Ald.), *epurtargik* 'ipurtargiak' (Erra.), *epur-trankazoa* 'ipur-trankazoa' (Alb.), *epurdipen* 'ipurdipean' (Gorr.); *epordie* (Ar.-Bet.), *eportalkie* 'ipurtaulkia' (In.), *gaztañ-epurdie* 'gaztain-ipurdia' (Arri.), *kandeleru-epurdi* 'kandeleru-ipurdi' (Bet.), *epurdiz gora* (Azk.)...

¹¹⁸ *u*- dago hitz horren hasieran (ez *i*-), baina gainerako adibideen multzo berean jar daitekeela iruditzen zaigu.

¹¹⁹ Mitxelenak dioenez, **e*- zaharra dagoke hasieran *e*-, *i*-, *j*- eta \emptyset - duten aditzen jatorrian (cf. Trask 1995: 208, 211-

Que *e* era la vocal original está asegurado no sólo por variantes (*ekusi*, *ekuzi*), por lo general menos difundidas, sino sobre todo por el vocalismo de las formas personales (*d-a-kus(a)-t* ‘lo veo’, etc.) y de los causativos: *e-ra-ku-tsi* ‘mostrado’ está mucho más extendido que *irakutsi*.

Alabaina, ezin ukatu dugu *e*-dun aldaerak sortzeko joera dagoenik gure eremuan, eta horregatik bildu ditugu aldaera guztiok atal honetara. Inguruko hizkeretan arakaturaz, ez dago adibide askorik gure eremutik ekialdera (salbuespen da *ekusi* aldaera), baina mendebalera eta iparraldera badira adibideak: Leitzan, *ekusi*, *ebilli*, *eurtzi*, *ekullu*, *epuru* eta *epurdi* bildu ditu Olanok (1998: 68); Basaburu Txikian, *ekuse*, *epurdi* eta *tepul* erabiltzen dituzte (B. L.); eta, azkenik, Gipuzkoako Amezketan, *ekusi* besterik ez da *e*-duna (B. G.).

Ondorioak

Lehenik, gure eremuaz ari garela, isoglosa nabaria dugu Imozko Goldaratz eta Larraungo Oderitz herrien artean. Salvuespenen bat edo beste entzun dugu Goldaratzan, baina, oro har, Imotz guztian bezala, han ez dago *i > e* bokal-irekitzerik, eta Oderitzen, aldiz, bizkorra da, adibideetan ikusi dugunez. Ikusi dugu, halaber, bokal-irekitzea indartsua dela Larraungo hego-ekialde osoan (Albiasun ez) eta Basaburu Nagusiko iparraldean. Araitz-Betelun ere indar berezia du, baina d. eta f. (eta h.) inguruneetan soilik; nolana ere, kutsu berezia ematen dio bilakabide horrek hango hizkerari. Gainera, haren ondoko hizkera gipuzetan ez da halakorik ageri (B. G.); isoglosa tinkoa dugu hor ere. Azkenik, isoglosatik kanpo daude Imotz, Larraungo ipar-mendebala eta Basaburu Nagusi gehiena.

Nafarroa Garaiko beste alderdi batzuetan ere ageri da *i > e* bokal-irekitzea: oso nabaria da Basaburu Nagusiaren ondoko Ezkurran eta Eratsunen (B. L.), eta baita, apalago, Leitzan (Olano 1998: 68-69) edota Bortzirietan (Zelaieta 2004: 236) ere. Zuazok Nafarroako mendebaleko ezaugarritzat hartu du (1997: 410).

8.1.6. *e > a* bokal-irekitzea

Euskal Herriko mendebaleko hizkeren berrikuntzatzat jo izan da dardarkari hobikariak eragindako *e > a* bokal-irekitzea. Mitxelenak jakinarazi zigunez, hurrengo silaban bokal itxiren bat dagoenean gertatzen da, eta hala sortuak dira *barri* ‘berria’, *garri* ‘gerria’, *txarri* ‘txerria’ edota

217).

garnu ‘gernua’ adibideak (1977 [1961]: 60). Baina bokal-irekitze hori ohikoa da beste euskal hizkera askotan ere, eta baita beste ingurune fonologiko batzuetan ere (1977 [1961]: 62).

Gure eremuan, esate baterako, zenbait adibidetan ohikoa da dardarkari hobikariaren aurreko *e* bokala *a* bihurtzea, baita hurrengo silaban bokal itxirik egon gabe ere. Muskitzen dator aldaketa, segituan erakutsiko dugun bezala. Hasteko, gure eremuko herri guztietan (Muskitz barne) erabiltzen diren hiru adibide aipatuko ditugu: *asarre* ‘haserre’, *baztar* ‘bazterra’ eta *izardi* ‘izerdia’. Adibide horiez gain, beste hauek ere badira Muskitz ez beste herri guztietan: *iztar* ‘izterra’, *maiztar* ‘maizterra’, *muskar* ‘muskerra’, *puzkar* ‘puzkerra’. Muskitzen ez dago halakorik, eta *izter*, *maizter*, *musker* eta *puzker* erabiltzen dituzte.

Zenbaitetan, mugak ez daude oso garbi. Esate baterako, Imotzen arrotzak dira *eguardi* ‘eguerdia’ eta *eguarrik* ‘eguberriak’ formak, eta *eguerdi* eta *eguerrik* baliatzen dituzte. Alabaina, Basaburu Nagusiko eta Larraungo herrietan, bietatik bildu dugu, eta *-ar-*dunak dira nagusi Araitz-Betelun. *ear* ‘ederra’ adibidearen kasuan, Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraunen eta Araitz-Betelun entzun dugu (*eer*-ekin txandaka). Azkenik, Araitz-Betelun baizik ez dugu entzun *pipar* ‘piperra’ (*piper*-ekin txandakaturik)¹²⁰.

Nolanahi ere, *-er-* ere entzun daiteke, noiz edo noiz, ohikoan *-ar-* ageri den adibideetan: *bazter* (Bet., Gai.), *izerdi* (Gol., Gar., Oro.), *aserre* (Gai.), *puzker* (Beru., Ig.), *eguerdi* (Bet., Gai.).

e > a bilakabideak, beraz, badu nolabaiteko indarra gure eremuan, eta Muskitzen hasten da ahultzen. Areago, beste hitz batzuetara ere hedatu da Muskitzen *a* eta *e* bokalak nahastea, eta gainerako herrietan *a* ageri den hitz batzuetan *e* dugu han: *bizer* ‘bizarra’, *bizker* ‘bizkarra’, *iller* ‘ilarra’, *illergi* ‘ilargia’, *inder* ‘indarra’, *izer* ‘izarra’, *muxer* ‘muxarra’, *uzterri* ‘uztarria’, *ziller* ‘zilarra’. Arestiko adibideak *a > e* asimilazioaren ondorioz sortuak dira (ikus 8.1.3.), aurretik *i* edo *u* bokalak daudenean ageri baita, baina nahiago izan dugu atal honetan aztertu, *-ar-* / *-er-* isoglosa garbiago erakusteko asmoz.

Azkenik, horri loturik, beste fenomeno bat entzun dugu gure eremuko zenbait herritan. Araitz-Betelun, hain zuzen, gorago adierazi dugun bezala, *eguarrik* (& *egoarrik*) eta *eguardi* ahoskatu ohi

¹²⁰ *eansube* ‘herensugea’ adibidea ere bildu dugu Betelun; berez ez da dardarkaririk, baina *e > a* irekitzearen adibide dugu nolanahi ere.

dute, baina beste hauek ere jaso ditugu han: *ebarrik* (In., Bet.), *ebardieño* ‘eguerdiraino’ (In.) & *ebardin* ‘eguerdian’ (In.). Adibide horiez gain, *ebaldi* ‘eguraldia’ adibidea entzun genuen Intzan, eta *eberdi* ‘eguerdia’ adibidea bildu dugu Larraungo Gorritin. Bilakabidea garbia da: bokal arteko igurzkariak galtzeko joera du euskarak; igurzkaria galdu, eta kontsonantizatu egin da *-ue-* (Araitz-Betelun, *-ua-*) diptongoa (alegia: *egue-* > *eue-*, *eua-* > *ebe-*, *eba-*).

Ondorioak

Dardarkari hobikariak eragindako *e > a* bilakabidea gure eremutik mendebalera nola ekialdera ageri da: Leitzan (Olano 1998: 69), Amezketan (B. G.), Zaldibian (Etxabe eta Garmendia 2003: 53), Ordizian (Etxabe eta Garmendia 2004: 55), Orion (Iturain eta Loidi 1995: 27), Oiartzunen (Fraile eta Fraile 1996: 33), Deba ibarrean (Zuazo 2006a: 61-62), Ultzaman (Ibarra 1995a: 87-90), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 45), Aezkoan (Camino 1997: 301), eta abar. Zuazok dio Euskal Herri osoko ezaugarria dela, baina erdigunean dela indartsuen (2008: 146).

Bilakabidearen hedadura ez da bera eskualde guztietan; esan nahi baita ez dela hizkera guztietan hitz beretan gauzaten. Hala, gure eremuan *-er-* > *-ar-* ageri den hitz multzo bat osatu dugu; horrek esan nahi du ez dagoela beste eskualde batzuetan erabiltzen den beste hitzik, eta, horrenbestez, gurean arrotzak dira beste hizkera batzuetako *basarri* ‘baserria’, *bardin* ‘berdina’, *txarri* ‘txerria’, *barri* ‘berria’, *agartu* ‘agertu’, *akar* ‘akerra’, *okar* ‘okerra’, *garri* ‘gerria’ edota *eskar* ‘eskerra’.

Ez dago isoglosa garbirik, baina Muskitzen aldaketa sumatu dugu. Han, *-ar-* duten adibideak ere badira, baina beste herrietan *-ar-* ageri den adibide batzuetan *-er-* dugu han, eta, horrez gain, ikusi dugu beste hitz sail batera ere hedatu dela *-ar-* > *-er-* bilakabidea, *a > e* asimilazioaren eraginez. Hain zuzen, *a > e* asimilazioak gainerako herrietan baino indar handiagoa du Muskitzen zenbait inguruetan, eta asimilazio horren ondorioz sortuak dira *bizker* eta halako adibideak. Halakoen tankerakoak Muskiztik ekialdera ere ageri dira, hala nola Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995a: 88-89), Esteribarren eta Erroibarren (Ibarra 2000: 45), edota Irañetan, Txulapaingo Usin eta Lekarotzen (*EAEL*), eta behinola Oskotzen edota Ihabenen ere erabiltzen zituzten, *Elren* arabera (1984: 107). Areago, Etxaideren emaitzei tiraka, *ziller* ‘zilarra’ ageri da Muskitzen, Atetzen, Ultzaman, Anuen, Esteribarren eta Baztanen (1989: 25), eta *illergi* ‘ilargia’ Muskitzen, Atetzen, Ultzaman, Esteribarren, Erroibarren, Murginduetan, Sakanan eta Baztanen (1989: 38).

8.1.7. *u > i* palatalizazioa

Gure eremuko ekialdeko muturrean ageri da *u > i* palatalizazioa, Imozko Muskitzen batik bat. *-tu, -du* partizipio-morfeman gauzatzen da, honako bi ingurune morfologiko hauetan:

a. *-tu, -du* partizipio-morfema + *-ko* geroaldiko morfema (*-tuko, -duko > -tiko, -diko*)

Imozko Muskitzen gertatzen da palatalizazioa ingurune horretan: *artiko* ‘hartuko’, *allatiko* ‘ailegatuko’, *kendiko* ‘kenduko’, *geldittiko* ‘geldituko’, eta abar. Bi adibide bildu ditugu Etxalekun, “ailegatu” aditzaz osatuak biak: *biar allatxiko da* ‘bihar ailegatuko da’, *allatxiko ote gaa!* ‘ailegatuko ote gara!’. Garbi utzi nahi dugu, nolana ere, geroaldikoak ez diren formetan ere *allatxi* ahoskatu ohi dutela Etxalekun aditz hori (Oskotzen ere entzun dugu *allatxi*, kasuren batean).

Baina forma palatalizatuak palatalizatu gabeko formekin txandakaturik ageri dira Muskitzen; gure ustez, atzera egiten ari den ezaugarria da. Eremuko gainerako herri guztietan, *-tuko, -duko* erabiltzen da.

b. *-tu, -du* partizipio-morfema + *behar* (*-tu, -du + behar > -tiar, -diar* asimilazioa)

Imozko Etxalekun, Oskotzen eta Muskitzen entzun dugu (eta baita Erbitin ere, kasu bakan batzuetan), hizkera zaindugabeen betiere. Hona adibideak: *zuk arti arra ziñauken* ‘zuk hartu beharra zeneukan’ (Osk.), *etzuten eskati arrik, ematen tzuten* ‘ez zuten eskatu beharrik, ematen zuten’ (Osk.), *apezak beeiketi ar du* ‘apezak bedeinkatu behar du’ (Osk.), *ateati*¹²¹ *ar tzuten* ‘atera(tu) behar zuten’ (Osk.), *esan tzeeten an gelditi ar nula* ‘esan zidaten han gelditu behar nuela’ (Osk.), *kendi ar duu* ‘kendu behar dugu’ (Etxal.), *amabik pasti ar tzuten ure ekartzeko* ‘hamabiak pasatu behar zuten ura ekartzeko’ (Etxal.), *manati ar zun* ‘manatu behar zuen’ (Etxal.), *prokureti*¹²² *ar tziñun* ‘prokuratu (< gazt. procurar) behar zenuen’ (Etxal.), *allaatxi bar tziñun ongi* ‘ailegatu behar zenuen ongi’ (Etxal.), *junteti ar ziñulaik* ‘juntatu (< gazt. juntar) behar zenuelarik’ (Mus.), *paati ar ttut* ‘paratu behar ditut’ (Mus.), *itxea sarti ar tziñun* ‘etxera sartu behar zenuen’ (Er.).

Halakoekiko analogiaz sortuak dirudite Oskotzen eta Muskitzen bildu ditugun bi adibide hauek (palatalizazioa gertatu baita *-tu* edo *-du* partizipio-morfemarik egon gabe): *martxoan betti ar*

¹²¹ *ateratu* partizipioa ez da ohikoa Imotzen, nahiz horixe agertu adibidean.

¹²² *prokureti ar* beharko luke beharbada, *prokuretu* baita aditza, baina halaxe jaso dugu guk, eta behin baino gehiagotan, gainera.


ttut lautan oeite zazpi urte ‘martxoan bete behar ditut lauretan hogeita zazpi urte’ (Osk.), *beti arra* ‘bete beharra’ (Mus.).

Eremuko gainerako herrietan, *-tu (be)ar*, *-du (be)ar* erabiltzen dute.

Ondorioak

Ikusi dugunez, Imozko Muskitzen (a. eta b. inguruneetan), eta Oskotzen eta Etxalekun (b. ingurunean) ageri da $u > i$ palatalizazioa. Erbitin ere bildu dugu (b. ingurunean), baina bakan. Hain zuzen ere, Atetz eta Ultzama ibarretatik hurbilen dauden herrietan ageri da; indar handia du han palatalizazioak bi ingurune horietan, baita ekialderagoko Anuen ere (Ibarra 1995a: 80-83).

14. irudia: $u > i$ palatalizazioa



Caminok zehaztu du zein den *-tiko*, *-diko* berrikuntzaren hedadura (2003a: 71): haren arabera, Nafarroa Garaiko erdigunean ageri da, alegia, Txulapain, Ezkabarte, Odieta, Ultzama, Olaibar, Anue, Baztan, Esteribar, Erroibar eta Baigorri (Nafarroa Beherea) ibarretan; ez da ageri, aldiz, Sakanan, Goizuetan, Bortzirietan, Malerrekan, Leitzan, Aezkoan, Eguesibarren, Itzarbeibarren, Oltzan, Ollaranen, Goñerrian eta Gesalätzen. Artolak Artzibarko Arrietan ere bildu du (Artola 2006: 400), eta badago, halaber, Nafarroa Behereko Amikuzen edota Zuberoako Domintxainen (Camino 2004b: 450).

Ez dakigu zehazki noiz sortuak diren *-tiko*, *-diko* formak, baina badira gutxienez 1888an Gerendiainen (Satrustegi 1987b: 325-330), eta 1906an Ultzaman (Ibarra 1992). Ibarren arabera, Erroibarko testuetan ez da halakorik ageri XIX. mendean, eta hizkera horretan iragan mendean sartutako ezaugarritzat jo du horrenbestez (2003: 360).

-tiar errealizazioari dagokionez, Imozko ekialdean eta handik ekialderako hizkera batzuetan ageri da: Imotz ondoko Atetz, Ultzama eta Anue ibarretan (Ibarra 1995a: 82), Odietan (Artola 2001: 513), Erroibarko eta Esteribarko herri batzuetan (Ibarra 2000: 195), Aezkoan (Camino 1997: 300) eta Baztanen (Lakar eta Telletxea 2003-2004). Ez da ageri ez Aezkoatik ekialdera ez Ipar Euskal Herrian (I. C.).

Zuazok euskara nafarraren ezaugarritzat hartu du $u > i$ palatalizazioa; ez da, ordea, euskara nafarraren eremu osoko ezaugarria, eremu txikikoa baizik (2003: 112, 2008: 109). Beste ikertzaile batzuek, ordea, ez dute garbi ikusten bilakabide hori euskara nafarraren ezaugarri definitzailetzat har daitekeenik; Caminok, esate baterako (2009a: 348).

8.1.8. Diptongo eta hiatotako asimilazio eta disimilazioak

a. *e(C)u > iu* asimilazioa

Hiru ingurune fonologiko bereiziko ditugu:

eu- > iu- eta *-eu- > -iu-*:

Bilakabidea Imozko Goldaritzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean da indartsuen, baina eremu osoan ageri dira adibideak. Hitz hasieran zein hitz barnean ageri da. Hona adibideak: *iuri* ‘euria’ (Gol., Its., Arrar., Ig., Beru., Od., Iri., Arru., Ald.), *iuntze* ‘pentzea’ (Gol., Od., Bar.), *iuskea* ‘euskara’ (Lat., Gol., Era., Osk., Beru.) & *iuskaas* ‘euskaraz’ (Ald.), *iun* ‘ehun; 100’ (Gol., Urr., Etxal., Gar., Iri.) & *iun da pixko at* ‘ehun eta pixka bat’ (Ald.) & *iun kilo* ‘ehun kilo’ (Era.), *iun* ‘ehuna’ (Gol., Arrar.) & *iuneskoa* ‘ehunezkoa’ (Ig.) & *iunezkoa* (Azk.) & *iunki* ‘ehunkia’ (Arrar.), *berriun* ‘berrehun’ (Urr., Etxal.), *iruiun* ‘hirurehun’ (Etxal.), *liun* ‘leuna’ (Gol., Ig.), *liurri* (Arru.) ‘neurria’ & *liurtu* (Od., Bar.) & *liurto* (Ig.) & *liurritu* (Gol., Era., Ald.) ‘neurtu’, *dius* ‘deus’ (Gol., Urr., Ig., Beru., Iri., Arru., In., At.) & *diuse* ‘deus ere’ (Gol., Etxal., Ud., Its., Gar.) & *yius ee* ‘deus ere’ (Od.) & *yius ez* ‘deus ez’ (Ig.) & *diustako* ‘deusetarako’ (Gar.), *iutsi* ‘eutsi’ (Gol.) & *eziñ iutsis* ‘ezin eutsiz’ (Od.), *iru iuro* ‘hiru euro’ (Gol.).

Kontrako bilakabidea dugu *Eurtzun* ‘Irurtzun’ (Lat., Urr., Ud.) adibidean; hiperzuzenketaz sortua dirudi.

eCu- > iu- eta -eCu- > -iu-:

Bokala arteko *d*, *g* edo *r* kontsonantea galdu ondoren, *eu > iu* asimilazioa gertatzen da. Hitz hasieran zein hitz barnean ageri da, eta *eu > iu* asimilazioaren hedadura geografiko bera du. Adibideak: *iur* ‘egurra’ (Gol., Era., Gar., Arrar., Bar., Gai., Azk., In., Arri.), *iun* ‘eguna’ (Gol., Era., Osk., Etxal., Ud., Gar., Oro., Ig., Bar., Gai., Uzt. Bet.) & *iunero* ‘egunero’ (Gol., Era., Oro., Bar., Ald., Uzt.) & *iuneko* ‘eguneko’ (Arrar.) & *San Jos iune* ‘San Jose eguna’ (Od.) & *San Miel iunin* ‘San Migel egunean’ (Bar.) & *iunes* ‘egunez’ (Iri.), *iuzki* ‘eguzkia’ (Gol., Era., Osk., Gar., Arrar., Beru., Od., Bar., Bet., Azk.), *siuro* gazt. ‘seguro’ (Gol., Ig., Arru.), *ostiun* ‘osteguna’ (Gol., Arrar., Od., Iri., Arru., Bar., Ald., Gai., In.), *attiutxi* ‘aitabitxia’ (Gol., Arru.), *iuki* ‘eduki’ (Lat., Arrar., Uzt., Gai., In., Azk.) & *iukittu* ‘eduki(tu)’ (Urr., Osk.) & *bordan iukitzen zittun* ‘bordan edukitzen zituen’ (Gol.) & *iukitzen (do)zo gatzean* ‘edukitzen duzu gatzean’ (Era.) & *ikatzakin-ta iukitzen tzuten sue* ‘ikatzarekin-eta edukitzen zuten sua’ (Etxal.) & *usaie iukitze ute* ‘usaina edukitzen dute’ (Lat.), *dezakiu* ‘dezakegu’ (Etxal.), *Biute* (Gol., Etxal.) & *Biuta* (Ig.) ‘Beruete’ & *biutarrak* ‘beruetarrak’ (Its.), *Xiunda* ‘Segunda (pertsona-izena)’ (Gol.).

-e-nd-u- > -iu-:

Adizki jakin batzuetan betetzen da, aditz nagusiaren eta aditz laguntzailearen mugan. Asimilazioa gerta dadin, zenbait baldintza bete behar dute adizki horiek: iragankorrek izan behar dute, orainaldikoak zein geroaldikoak, NOR objektuak singularra izan behar du (alegia, 3. pertsona singularra), eta, orainaldiko adizkietan, [+ perfektua] izan behar du aspektuak (geroaldiko adizkiek ez baitute aspekturik). Baldintza horiek betetzen dituzten adizkietan, erori egiten dira aditz nagusiaren azken kontsonantea (-*n*) eta aditz laguntzailearen lehenbizikoa (*d-*); ondorioz, *-eu-* sortzen da, eta, azkenean, *-iu-* izateraino asimilatzen da (adibidea: *paratzen dute > paatze ute > paatzi ute* ‘paratzen dute’). Goldaratzen eta Basaburu Nagusian da bilakabidea indartsuen; Larraungo hego-ekialdean, oso-oso bakanka ageri da (ez dugu sekula entzun ****emati ui** gisakorik), eta ez dugu behin ere entzun ez Larraungo ipar-mendebalean ez Araitz-Betelun.

Hona adibideak: *paatzi ute pasilloan paper bat* ‘paratzen dute pasilloan paper bat’ (Gol.), *ematti ute* ‘ematen dute’ (Gol.) & *emati utenin* ‘ematen dutenean’ (Ig.), *seitzi ute* ‘segitzen dute’

(Urr.), *denak alde itti ute* ‘denek alde egiten dute’ (Gol.), *beti oi esati ut* ‘beti hori esaten dut’ (Etxal.), *esati ute* ‘esaten dute’ (Lat., Arrar., Ig.), *itti ute* ‘egiten dute’ (Lat., Beru., Gar.), *or beste iuskea at itti ute* ‘hor beste euskara bat egiten dute’ (Its.), *eamati ute* ‘eramaten dute’ (Beru.), *eatti ute* ‘edaten dute’ (Beru.), *aprobetxatzi ute* ‘aprobetxatzen dute’ (Ig.), *eztakit zar guzik berdin pentsatzi uten* ‘ez dakit zahar guztiek berdin pentsatzen duten’ (Gol.), *errati ute* ‘erraten dute’ (Gar.), *jati ute* ‘jaten dute’ (Era., Ud.), *izati ute* ‘izaten dute’ (Gol.), *iotzi uten* ‘ehotzen duten’ (Arrar.), *goaiñ ee seitzi ute igual* ‘orain ere segitzen dute igual’ (Er.), *itti ut* ‘egiten dut’ (Gar.), *errati ut* ‘erraten dut’ (Gar.), *errati ute* ‘erraten dute’ (Gar.), *Itsason “ii” o eztaikit ze ibiltzi uten* ‘Itsason ii edo ez dakit zer ibiltzen duten’ (Gar.), *aguantatzi ut* ‘aguantatzen (< gazt. aguantar) dut’ (Era.), *iñi ute* ‘eginen dute’ (Gar.) & *gutxi bizi dee, baño bizi deenak iuskeas iñi ute an* ‘gutxi bizi dira, baina bizi direnek euskaraz eginen dute han’ (Gol.), *iñi ut* ‘eginen dut’, *jakiñi ute* ‘jakinen dute’, *jakiñi uzu* ‘jakinen duzu’, eta abar. Adibide bakarra jaso dugu Baraibarren: *ze oti un* ‘zer ote duen’¹²³.

b. e(C)o > io disimilazioa

a.-n aztertutako asimilazioa ageri den egoera beretan gauzatzen da. Hiru ingurune fonologiko bereiziko ditugu oraingoan ere:

-eo- > -io-:

Adibide gutxi batzuk baino ez ditugu bildu, hitz barnean guztiak ere: *bior* ‘behorra’ (Gol., Mus., Ig.), *pion* ‘peoia’ (Era., Osk., Etxal., Its.), *Biorburu* ‘Beorburu’ (Mus.). Nolanahi ere, ez dira oso adibide esanguratsuak; esate baterako, aski orokorra da *bior* beste hizkera batzuetan ere.

eCo- > io- eta -eCo- > -io-:

Tarteko *d*, *g* edo *r* kontsonantea erori ondoren, *eo* > *io* disimilazioa gertatzen da. Imozko Goldaritzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean da bilakabidea bizkorren, eta hitz hasieran zein hitz barnean ageri da. Adibideak: *io* ‘edo’ (Od.), *iozin* ‘edozein’ (Gol., Urr., Etxal., Od.), *iondu* ‘egon(du)’ (Gol., Ald.) & *ioin* ‘egonen’ (Urr., Gar., Its., Arru.) & *tximelduta ioten da* ‘zimelduta egoten da’ (Bar.) & *gaztik bildurtuik iotii* ‘gazteak beldurturik egotea’ (Gol.) & *entxufetuik ioteakin* ‘entxufaturik egotearekin’ (Lat.) & *ollatasin ioten tzen* ‘oilatasian egoten ziren’ (Etxal.) & *ez gaa batee ioten* ‘ez gara batere egoten’ (Etxal.), *iosi* ‘egosi & erosi’ (Gol., Lat., Etxal.), *biotu* ‘berotu’ (Gol., Its.) & *arbakin bakarrik etzen biotzen* ‘arbeekin bakarrik ez zen berotzen’ (Era.),

¹²³ Adibide horretan, ez dago *-nd-* kontsonante multzorik, baina atal horretan ematea iruditu zaigu zuzenena, adibideen antzekotasunagatik.

eenio ‘herenegun’ (Gol., Gar.), *nione* ‘neroni’ & haren eratorriak (Gol.), *ziorre* ‘zerori’ & haren deklinatuak (Gol., Osk.), *gio* ‘gero’ (Gol., Era., Osk., Arrar.), *gioztik* ‘geroztik’ (Gol.), *-(e)xkio* ‘-(e)z gero’ (*ikasi exkio* ‘ikasi gero’(Lat.), eta abar), *-on bat* ‘-ren bat’ egiturarekin (*urtion bates* ‘urteren batez’ (Ud.), *tratantion bat* ‘tratanteren bat’ (Its.), *erlion bat* ‘erleren bat’ (Gol.), *bestion batek* ‘besteren batek’ (Era.)¹²⁴, *torpion bat* ‘torperen (< gazt. torpe) bat’ (Etxal.), eta abar).

-ago konparazio-morfemarekin eratutako egituretan ere ageri da, baina halakoak ohikoak dira beste euskal hizkera batzuetan ere: *geixio* ‘gehixeago’ (Its.), *difeentixio* ‘diferentexegoa’ (Its.), *zaarxio* ‘zaharxeago’ (Lat.), *gaistio* ‘garestiago’ (Urr.), *merkio* ‘merkeago’ (Gol.), *mattio* ‘maiteago’ (Gol.), *betio(o)* ‘beteago’ (Gol.), *luzexio* ‘luzexeago’ (Er.). Gainera, zenbaitetan, bere horretan gelditzen da *-ago* morfema disimilatutako formaren ondoren: *aundixiogoak* ‘handixeagoak’ (Arrar.), *difeentixiogoak* ‘diferentexegoa’ (Its.), *obiogoa* ‘hobeagoa’ (Its.).

-e-nd-o- > -io-:

-e-nd-u- > -iu- asimilaziorako eman ditugun baldintza berak betetzen dituzten adizkietan gertatzen da. Jakina, aditz laguntzaileetan *u > o* bokal-irekitzea emankorra den hizkeretan gertatzen da (ikus 8.1.4.). Adibideak: *sentitzi ozo* ‘sentitzen duzu’ (Urr.), *belaxe gastatzi ozo* ‘berehalaxe gastatzen duzu’ (Gol.), *atte usti ot jaio zela Oskotzen* ‘aita uste dut jaio zela Oskotzen’ (Gol.), *pentsatzi ozo* ‘pentsatzen duzu’ (Gol.), *esati ozo* ‘esaten duzu’ (Gol.), *alde itti ot* ‘alde egiten dut’ (Gol.), eta abar.

Bestalde, disimilazioa dago “egon” aditzaren adizki trinkoetan ere: *nion* ‘nengoen’ (Gol.), *ionen & ioken* ‘hengoen’ (Gol.), *atte kontentu zion* ‘aita kontentu zegoen’ (Urr.).

c. *e(C)a > ia* disimilazioa

-ea- > -ia-:

Adibide gutxi batzuk baino ez ditugu bildu, hitz barnean: *biatz* ‘behatza’, *miar* ‘meharra’ (Urr., Etxal.), *biar* ‘beharra’, *bialdiko elurre* ‘berealdiko elurra’ (Gol.), *erdias* ‘erdaraz’ (Etxal.). *-ia-* ez, baizik eta *-ie-* da emaitza Arribeko adibide honetan: *ziero siñistatuta* ‘zeharo sinetsita’.

¹²⁴ Gure eremuan, *-on bat* bihurtu da *-ren bat* egitura (ikus 8.3.17.); beraz, adibide horretan, *besteren batek > besteon batek > bestion batek* gauzatu da.

eCa- > ia- eta -eCa- > -ia-:

Tarteko *d*, *g* edo *r* kontsonantea galdu, eta *-ia-* forma disimilatua sortzen da, hitz hasieran zein hitz barnean. *eCu > iu* asimilazioaren hedadura geografiko bera du, baina adibide gutxiago bildu ditugu: *ian* ‘edan’ (Gol.) & *iateko* ‘edateko’ (Od.), *iantzun* ‘erantzun’ (Gol.), *iaman* ‘eraman’ (Gol., Urr., Era., Etxal., Od.), *iakutsi* ‘erakutsi’ (Gol., Etxal.), *Biamendi* ‘Beramendi’ (Gol.), *iarreik* ‘egarririk’ (Gol.), *iauntsi* ‘erauntsia’ (Its.), *iaki* ‘ebaki’ (Its., Od.). Imotzen eta Basaburu Nagusian ageri dira adibide horiek nagusiki.

d. *-e-nd-u- > -au-* disimilazioa

-e-nd-u- > -iu- asimilaziorako deskribatutako baldintzak (a. atala) betetzen dituzten adizkietan gauzatzen da *-e-nd-u- > -au-*, Imozko Etxaleku, Oskotz eta Muskitz herrietan, eta, kasu bakan batzuetan, baita Erbitin eta Gartzaronen ere (Orokietan, aldiz, ez dugu *-au-* entzun, baina *kartzote* ‘ekartzen dute’, *pentsatzote* ‘pentsatzen dute’, *erratote* ‘erraten dute’, *kantatzote* ‘kantatzen dute’ entzun izan dugu, eta are *yotzoute* ‘jotzen dute’ ere¹²⁵; baliteke forma horiek *-au-*tik eratorriak izatea). Hizkera arduragabeen ageri da kasu guztietan. *-nd-* kontsonante taldea galtzearen ondorioz, *-eu-* sortu da lehenik, eta, ondoren, *-au-* bilakatu da. *-e-nd-u- > -iu-* bilakabidearen kontrakoa da nolabait. Zenbait kasutan, bere horretan gelditu da aditzari dagokion *-e-* bokala.

Hona adibideak: *pentsatzeaut* ‘pentsatzen dut’ (Etxal.), *plazako ortan jartzeaute* ‘plazako horretan jartzen dute’ (Etxal.), *atenditzaute ongi* ‘atenditzen (< gazt. atender) dute ongi’ (Etxal.), *naiko lan ibiltzaute* ‘nahiko lan ibiltzen dute’ (Etxal.), *pastauzulaik* ‘pasatzen duzularik’ (Mus.), *goai pastauzun bezala* ‘orain pasatzen duzun bezala’ (Mus.), *goai re ala ittau* ‘orain ere hala egiten dugu’ (Mus.), *ze ustauzu?* ‘zer uste duzu?’ (Mus.), *guk “yan” esatau* ‘guk “yan” esaten dugu’ (Mus.), *beste atzuk “jetsi” esataute* ‘beste batzuek “jetsi” esaten dute’ (Mus.), *denak beak ittaute* ‘denak berek egiten dute’ (Mus.), *ikustaut eunero* ‘ikusten dut egunero’ (Mus.), *gazteak na’utena itteaute* ‘gazteek nahi dutena egiten dute’ (Gar.), *nik errataut asko iñela* ‘nik erraten dut asko ginela’ (Er.), *esataute asko* ‘esaten dute asko’ (Gar.) & *esataute* ‘esaten dute’ (Etxal.), *nik uste guk bezalatsu ittauten* ‘nik uste guk bezalatsu egiten duten’ (Etxal.), *gaitze in nai badiote neegatiken, ill iñaute* ‘gaitza egin nahi badiote niregatik(an), hil eginen dute’ (Etxal.), *gazteak fumetzaute asko* ‘gazteek fumetzen (< gazt. fumar) dute asko’ (Osk.), *kantatzaute* ‘kantatzen dute’ (Osk.), *artzaut* ‘hartzen dut’ (Osk.), *afaltzauzu* ‘afaltzen duzu’ (Osk.), *nastaute dena* ‘nahasten dute dena’ (Osk.),

¹²⁵ Hona esaldia: *kordiona re majo yotzoute bi neska oiek* ‘akordeoia ere majo jotzen dute bi neska horiek’.

Corte Inglés iñauten tokien ‘Corte Inglés eginen duten tokian’ (Mus.), *iendean iñaute* ‘igandean eginen dute’ (Osk.), eta abar.

Hitz soiletan, ez da ohikoa *eu > au* gertatzea, baina salbuespen dira *daus* ‘deus’ (Mus., Lat.) eta *yaus* (Lat., Urr., Osk., Its.) adibideak.

Eremuko gainerako herrietan, a., b. eta c. ataletan azaldutako bilakabideak ageri dira eskuarki.

Ondorioak

Ez da erraza isoglosa tinkoak ezartzea diptongo eta hiatuetan gertatzen diren asimilazio- eta disimilazio-bilakabideei begira, baina badirudi era bateko bilakabideak ageri direla gure eremuko ekialdeko herrietan (Etxaleku-Gartzaron lerrotik ekialdera), eta beste era batekoak mendebalekoetan (Etxaleku-Gartzaron lerrotik mendebalera).

Batetik, gure eremuaren ekialdean baizik ez dugu entzun aditz laguntzaileetako *-e-nd-u- > -au-* disimilazioa. Halakoak ohikoak dira Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 153-155, cf. *EAEL*), Anueko Aritzun (Gaminde 1994: 230), eta baita Odietan eta Olaibarren ere, baina ez Ezkabarten (Artola 2001: 513). Gure eremutik hegoaldera, *itauten* ‘egiten duten’, *yatagun* ‘jaten dugun’ eta *errataute* ‘erraten dute’ adibideak ditugu Txulapaingo Usin 1980. urtean (Camino 2003a: 246), eta *errátaizút* ‘erraten dizut’ dakar Artolak ibar bereko Beorbururako (1992: 216); aldiz, *ateatze ute* ‘ateratzen dute’, *garbitze utelaik* ‘garbitzen dutelarik’, *paatze ute* ‘paratzen dute’ eta *pusketze ute* ‘puskatzen dute’ ageri dira Gulibarko Larunben 1980. urtean (Camino 2003a: 247). Ultzamatik iparraldera, Baztanen ere ezagunak dira halakoak (Lakar eta Telletxea 2003-2004, Zelaieta 2008: 191)¹²⁶.

Bestalde, Nafarroa Garaiko testu zaharrak irakurriz ikus daitekeenez, hainbat eremutan ohikoa da hitz soiletan *eu > au* gertatzea; Goñerrian, esate baterako, *auri*, *auli*, *aun*, *aundu*, *berraun*, *daus*, *naurritu* eta halakoak ageri dira (Camino 1999: 40). Antzeko adibideak daude Aezkoan (Camino 1997: 315-316) eta orobat ia hego-nafarrera guztian eta Sakanan, baina ez Arakilen (Camino 2003a: 68, cf. Salaberri 2000: 886). Gure eremuan, tankera horretako *daus* (Mus., Lat.) eta *yaus* (Lat., Urr., Osk.) baino ez dugu bildu, gainerako adibideetan *eu* ageri baitzaigu kasu guztietan (edo,

¹²⁶ Zelaietak dakarrenez, *errataute* erakoak badira Baztanen, nahiz ohikoagoak diren *errateute* gisakoak; *errateunte* erakoak erabiltzen dituzte, aldiz, Bortzirietan, Malerrekan, Bertizaranan eta Hondarribian.

asimilazioaren ondorioz, *iu*). Beraz, hitz soiletan erruz ageri zaigu *eu > au* bilakabidea Nafarroan, baina ez hainbeste aditz laguntzailearekiko egituretan: badugu lekukotasun bat Erroko testu batean (*itauteilaic*) XIX. mendean (Satrustegi 1987b: 273); Ultzaman badira adibideak 1863an (Ibarra 1992: 922); Oltzan (*ikustaunt*) edota Aezkoako Abaurregainean (*ermata'uzu*) bildu izan dute (Camino 1997: 362), eta Uharte Arakilgo doktrinan ere ageri da (Arakama 1994: 573).

Bestetik, gure eremuan mendebalera egin ahala, ohikoagoa da *e(C)u > iu*, *e(C)o > io* eta *e(C)a > ia* bilakabideak entzutea (horrek ez du esan nahi Etxaleku aldean halakorik ez dagoenik). Ez dago isoglosa garbirik, aldaketa graduala baita: ekialdera egin ahala, gutxituz doa bilakabidea, eta ez da ageri handik ekialderagoko Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 152-153)¹²⁷. Mendebalera, aldiz, maiztasun-jaitsiera dago, gure ustez, Larraunen eta Araitz-Betelun, baina tarteka ere ageri da; ezin esan, beraz, hango ezaugarria ez denik. Are mendebalerago, ez da ohikoa Gipuzkoako hizkeretan, baina Amezketan ez da guztiz arrotza, nahiz eta ez den oso ohikoa ere (B. G.). Gure mugez iparraldera, bilakabideok ez dira ohikoak ez Basaburu Txikian ez Leitzan (B. L.). Indar handia dute, hortaz, Imotzen eta Basaburu Nagusian (batez ere mendebaleko herrietan), eta, gure eremutik kanpo, baita Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 58-61, 89) eta Burundan (Zuazo 2010: 41-44) ere.

Laburbilduz, batetik, gutxienez Atetz, Ultzama, Anue, Txulapain, Oltza, Aezkoa eta Baztan ibarretan hedatutako berrikuntza baten partaide ditugu Etxaleku-Gartzaron lerrotik ekialdera dauden herriak (alegia, *-e-nd-u- > -au-*), eta, bestetik, Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun, Araitz-Betelu (ahulago) eta Sakana biltzen dituzte a., b. eta c. ataletan aztertu ditugun bilakabideek. Imozko erdiguneko herriak ditugu gakoa (Zarrantz, Oskotz, Etxaleku), bietarikoak erabiltzen baitira han, baina era batekoak handik ekialdera, eta beste era batekoak mendebalera.

8.1.9. Goranzko diptongoak

Euskaraz, oro har, goranzko diptongoak ez dira oso ohikoak. Nolanahi ere, intentsitate handiko azentuera duten hizkeretan, usu ageri dira. Batez ere Nafarroa Garaiko Pirinio aldean erabiltzen dira —Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan—, baina baita beste eremu batzuetan ere, hala nola Sakanan (Erdozia 2001: 86-93)¹²⁸ edota Ultzaman (Ibarra 1995a: 159-162). Ipar Euskal Herrian ere badira goranzko diptongoak —bai, behinik behin, Nafarroa Beherean eta, batez ere,

¹²⁷ Erbitiar hiztun bati oso deigarria egiten zitzaion Etxalekun *ian* 'edan' esatea, haientzat 'jan' baita ahoskera bertsua duen *yan* forma.

¹²⁸ Lizarraga Ergoiena barne (Navarro, Navarro eta Andueza 2008: 19).

Zuberoan—, baina beren ahoskeran ez da horrenbesteko intentsitaterik, eta ez dira, beraz, hain nabarmenak (I. C.). Euskara nafarraren ezaugarritzat har daitezke, beraz, goranzko diptongoak nahiz ez diren hizkera nafar guztietan agertzen; nafarreran hedadura handia duen ezaugarria da (Camino 2009a: 351).

Gure eremuari dagokionez, ekialdeko herrietan entzun ditugu; alegia, Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan. Hain zuzen, bi azentu-eredu mota nahaska erabiltzen dituzte herri horietan: batetik, gure eremuko gainerako herrietan ohikoa den azentuera, eta, bestetik, ekialderagoko azentuera (ikus, azentuari buruz, 8.3.1.). Hala, gure eremuko ekialdeko herrietan, ohikoa da *óntakoà* ‘honetako’ (eremuko gainerako herrietan bezala) zein *ontákoa* (ekialderagoko hizkeretan bezala) azentu-ereduak entzutea.

Ekialdeko azentuera erabiltzen dutenean sortzen dira, hain zuzen, goranzko diptongoak. Hitz bukaeran, hitz barnean zein hitz-mugan ageri dira. Guk honako hauek bildu ditugu (kontuan izanik, betiere, beti-beti ez dituztela goranzko diptongoak ahoskatzen): [ea] & [ja], [je], [oa], [jo], [ju] eta [we]. Hona adibideak banan-banan:

[ea]: *Joankón[ea]* ‘Joankorena (etxe-izena)’ (Mus.), *bid[eá]n* ‘bidean’ (Mus.), *lurr[eá]* ‘lurrera’ (Mus.), *min[eá]la* ‘minerala’ (Mus.), *erd[eá]s* ‘erdaraz’ (Osk.), *gerra ondor[eá]n* ‘gerra ondorenean’ (Osk.), *íltz[ea]k* ‘iltzeak’ (Etxal.), *fuért[ea]* ‘gazt. fuerte’ (Etxal.), *itzal[eá]n* ‘itzalean’ (Etxal.), *kótx[ea]k* ‘kotxeak’ (Gar.), *iót[ea]k* ‘ihoteak’ (Gar.), *trást[ea]k* ‘trasteak’ (Er.), *puske biltz[ea]* ‘puska biltzea’ (Gar.), *sém[ea]* ‘semea’ (Er.), *kártz[ea]* ‘ekartzea’ (Er.), *lúrr[ea]* ‘lurrera’ (Gar.), *áurr[ea]* ‘aurrera’ (Gar.), *zarr[eá]kin* ‘zarrearekin’ (Gar.), *arroltz[eá]kin* ‘arrautzekin’ (Gar.), *autobus[eá]n* ‘autobusean’ (Er.).

[ja]: *zálk[ja]* ‘zalkea’ (Mus.), *ár[ja]* ‘area’ (Mus.), *érd[ja]s* ‘erdaraz’ (Etxal.), *ibiltz[já]* ‘ibiltzea’ (Etxal.), *yát[ja]* ‘jatea’ (Gar.).

[je]: *ittúrr[je]* ‘iturria’ (Mus.), *erós[je]k* ‘erosiak’ (Mus.), *beitt[jé]n* ‘beheitian’ (Mus.), *id[jé]ki* ‘idiarekin’ (Mus.), *estrás[je]* ‘estrasia (garia lantzeko tresna)’ (Mus.), *ongárr[je]* ‘ongarria’ (Mus.), *alúb[je]* ‘gazt. alubia’ (Mus.), *gár[je]* ‘garia’ (Mus.).

[oa]: *kuart[oa]k* ‘koartoak (< gazt. cuartos)’ (Mus.), *illésk[oa]* ‘ilezkoa’ (Mus.), *zurésk[oa]k* ‘zurezkoak’ (Mus.), *ttikiáug[oa]* ‘ttikiagoa’ (Mus.), *gazté[oa]k* ‘gazteagoak’ (Osk.), *oll[oa]* ‘oiloa’ (Osk.), *lán[oa]* ‘lainoa’ (Etxal.), *otzág[oa]* ‘hotzagoa’ (Etxal.), *itsás[oa]* ‘itsasoa’ (Etxal.),

modérn[oa] ‘moderno’ (Gar.), *eméng[oa]* ‘hemengoa’ (Er.), *itxe onták[oa]* ‘etxe honetakoa’ (Gar.), *goorráuk[oa]* ‘gogorragokoa’ (Oro.), *zurésk[oa]k* ‘zurezkoak’ (Er.), *ast[oá]kin* ‘astoarekin’ (Gar.), *katarr[oá]kin* ‘katarroarekin’ (Gar.), *ollesk[oá]kin* ‘oilaskoarekin’ (Gar.), *mand[oá]kin* ‘mandoarekin’ (Oro.), *fáldatt[oa]t* ‘faldatto bat (< gazt. falda)’ (Gar.), *kulérott[oa]t* ‘kulerotto bat (< gazt. culero)’ (Gar.).

[jo]: *kalefáz[jo]a* ‘kalefakzioa (< gazt. calefacción)’ (Mus.), *júl[jo]an* ‘gazt. en julio’ (Mus.), *amalau urteak bittárt[jo]* ‘hamalau urteak bitarteraino’ (Osk.), *bakaz[jó]tan* ‘bakazioetan (< gazt. vacaciones)’ (Gar.), *g[jó]* ‘gero’ (Er.), *subéntz[jo]ak* ‘subentzioak (< gazt. subvención)’ (Oro.).

[ju]: *errat[jú]te* ‘erraten dute’ (Gar.), *itt[jú]t* ‘egiten dut’ (Gar.).

[we]: *nég[we]n* ‘neguan’ (Mus.), *aózt[we]n* ‘abuztuan’ (Mus.), *oitair[wé]n* ‘hogeita hiruan’ (Osk.).

8.1.10. Monoptongazioa

Beste euskal hizkera askotan gertatzen den bezala, gure eremuko hizkeretan ere diptongoak bokal bat galdu ohi du batzuetan, eta monoptongo bihurtzen da.

Batetik, herskari sabaikari ahoskabearen aurreko *-ai-* diptongoa monoptongatu egiten da zenbait adibidetan (*-ai-* > *-a-*). Oso bilakabide orokorra da euskaraz (Mitxelena 1977 [1961]: 103), eta gure eremu ia osoan ageri da, honako adibide hauetan: *zerbatte* ‘zerbait ere’ (eta haren deklinatuak), *norbatte* ‘norbait ere’ (eta haren deklinatuak), *nonbatte* ‘nonbait ere’, *noapatte* ‘norabait ere’, *nolabatte* ‘nolabait ere’, *zatte(z)* ‘zaitez’, *atte* ‘aita’, *matte* ‘maite’. Imozko Muskitzen, baina, palatalizazioa ahula da ingurune horretan, eta monoptongatu gabeko aldaerak ageri dira horrenbestez: *zerbaite*, *norbaite*, *aite*, eta abar (ikus 8.2.1.). Bestalde, Larraungo mendebala eta Araitz-Betelu da adibide hauen eremua: *zat* ‘zait’ (Ald., Azp., Ui., Gorr., Erra., Bet., Gai., Uzt.), *zazo* ‘zaizu’ (Gai., Azk.), *zitzazon* ‘zitzazun’ (Gai.), *zizaten* ‘zitzaidan’ (Gai.), *zattu* & *zatto* ‘zaitu’ (Ar.-Bet.), *zattue* ‘zaituzte’ (Ar.-Bet.).

Beste ingurune batzuetan, *-ai-* > *-i-* monoptongazioa gertatu da. Adibide gutxi batzuetan jaso dugu bilakabidea (cf. Mitxelena 1977 [1961]: 104-105): *amika* ‘hamaika’ (Im.¹²⁹, Bas. Nag., Larr., Ar.-Bet.), *amiru* ‘hamahiru’ (Im., Bas. Nag., Ald.), *oeditiru* ‘hogeita hiru’ (Gol., Ud.), *iruroitiru* ‘hirurogeita hiru’ (Od.), *berroitamiru* ‘berrogeita hamahiru’ (Oro.), *bizpiru* ‘bizpahiru’ (Etxal.),

¹²⁹ Salbu Muskitzen (ikus 8.6.2.).

bezin & beziñ ‘bezain’ (Im., Bas. Nag., Larr., Ar.-Bet.), *zinbitt & zenbitt* ‘zenbait’ (Gol., Oro., Ald., In.)¹³⁰, *eskiñi* ‘eskaini’ (Gol., Urr., Its.).

-ei- > *-i-* bilakabidearen ondorioz sortuak dira beste hauek: *eozin* ‘edozein’ (Im., Bas. Nag., Larr., Ar.-Bet.), *beinpiñ* (Urr.) & *biñepin* (Urr.) & *beñepin & biñipin* (Era., Bar., Gorr.) ‘behinik behin’, *noizepin* (Urr.) & *noizipin* (Urr.) ‘noizik eta behin’ & *noizen biñ* ‘noizean behin’ (Etxal.).

Baina bilakabide horiek ez dira inolaz ere sistematikoak eta emankorrak; alegia, *-ai-* guztiak ez dira *-i-* bihurtzen (***norbit* ‘norbait’, ***zerbit* ‘zerbait’, ***zittut* ‘zaitut’, ***ni zu* ‘nahi duzu’, ***bita* ‘baita’...), ezta *-ei-* guztiak *-i-* ere (***bi* ‘behia’, ***zin* ‘zein’, ***sigarren* ‘seigarrena’...), eta abar.

Monoptongazioak ez du hedadura geografiko zehatzik, Euskal Herriko hainbat hizkeratan ageri baita; oso bilakabide orokorra da euskaraz. Besteak beste, monoptongazioaren adibideak badira Esteribar-Eroibar alderdian (Ibarra 2000: 58-60), Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 147-148), Goizuetan eta Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 38-39), Burundan (Zuazo 2010: 57-58), Ataunen (Azurmendi 1996: 70), Nafarroa Beherean (Camino 2004b: 455) edota Aramaion (Ormaetxea 2006: 116-121). Hortaz, monoptongazioa berez ez da bilakabide “berezia”, baina bai haren ondorioz gure eremuan sortu diren aldaera zenbait (*amika*, *amiru*...).

8.1.11. Hiatoa murriztea

Zenbaitetan, galdu egiten da hiatoa osatzen duten bi bokaletatik bat; alegia, hiatoa murriztu egiten da. Eremuko hizkera gehienetan bildu ditugu bilakabide horren adibideak: *-ue-* > *-u-* bilakabidearen ondoriozkoak alde batetik, eta *-ie-* > *-i-* bestetik.

-ue- > *-u-* “edun” aditzaren adizkietan ageri da, Muskitz ez beste herri guztietan: *nun* ‘nuen’, *yun & un* ‘huen’¹³¹, *zun* ‘zuen’, *giñun* ‘genuen’, *ziñun* ‘zenuen’, *nittun* ‘nituen’, *yittun & ittun* ‘hituen’¹³², *zittun* ‘zituen’. Muskitzen, aldiz, honako forma hauek erabiltzen dituzte: *nuen*, *yuen*, *zuen*, *giñuen*, *ziñuen*, *nittuen*, *yittuen*, *zittuen*. Murrizte bera gertatu da *zuk* ‘zuek’ izenordainean eta haren eratorrietan: *zukin* ‘zuekin’, *zungana* ‘zuengana’, *zungatik* ‘zuengatik’, eta abar. Bestalde,

¹³⁰ Hona adibideak: *zinbittek ee txakurrekin manejatzen ttute* ‘zenbaitek ere txakurrekin manejatzen dituzte’ (Gol.), *zenbitt erritan* ‘zenbait herritan’ (Oro.), *zenbittek buelta eman* ‘zenbaitek buelta eman’ (In.).

¹³¹ Ikus *yun* eta *un* adizkien banaketa geografikoa 8.4.2. atalean.

¹³² Ikus *yittun* eta *ittun* adizkien banaketa geografikoa 8.4.2. atalean.

mugatzailea asimilatu eta ondoren ezkutatzearen ondorioz, deklinabidean ere ageri da bilakabidea, Muskitz ez beste herrietan: *litxuk* (orok.) / *litxuek* (Mus.), *soldaduk* (orok.) / *soldaduek*, eta abar (ikus adibide gehiago 8.1.2.3. atalean).

-ie- > *-i-* murrizten da *-i* hizkiaz bukatutako hitzari *-ena* superlatiboaren morfema gehitzean: *txikina* & *ttikina* ‘txikiena’ (orok.), *aundina* ‘handiena’ (orok.), *gutxina* ‘gutxiena’ (Ald.), *geina* ‘gehiena’ (orok.), eta abar. “Jakin” aditzaren adizki trinkoetan ere bada: *nakin* (orok.) & *neakin* (Ar.-Bet.) ‘nekien’, *zakin* (orok.) & *zeakin* (Ar.-Bet.) ‘zekien’, *giñakin* (orok.) & *giñeakin* (Ar.-Bet.) ‘genekien’, eta abar. Muskitzen, baina, *-ie-* hiatoari eusten diote eskuarki: *txikiena*, *nakien*, *giñakien*, eta abar. Deklinabidean ere nabaria da murriztea, mugatzailea asimilatu eta galtzearen ondorioz: *gurdik* (orok.) / *gurdiak* (Mus.), *nekazarik* (orok.) / *nekazariak* (Mus.), eta abar. Azkenik, hirugarren pertsona pluraleko *aik* ‘haiek’ izenordain murriztua ageri da aztertzen ari garen eremu ia osoan; Muskitz da salbuespena, *aiek* ahoskatzen baitute han, eta baita, murriztutako formarekin txandaka, Oskotzen, Etxalekun eta Orokietan ere.

Isoglosa garbi aski ageri zaigu, beraz: Muskitzen, hiatoak beren horretan gelditu dira eskuarki, Atetz eta Ultzama ibarretako joerari (Ibarra 1995a: 165-168) eta baita, segur aski, hegoalderagoko mintzo galduei jarraituz (cf. esate baterako, Ezkabarteko Anotzen *giñuen* ‘genuen’ ageri da, Artola 1985; eta Txulapaingo Usin *zuen* eta *giñuen* 1980. urtean, Camino 2003a: 246); Imozko gainerako herrietan, Basaburu Nagusian eta oro har handik mendebalera, berriz, murriztera egin dute hiatoek. Ezaugarri horrek badu zerikusia mugatzailea ezkutatzearekin (ikus 8.1.2.); bi ezaugarri banaketa geografikoa bera da (Muskitzen, *soldaduek*, *nekazariak*, *nuen*, *ttikiena*; gainerakoetan, *soldaduk*, *nekazarik*, *nun*, *ttikina*). Gure eremuko hizkeretatik mendebalera ere aski ohikoa da hiatoa murriztea.

Hiatoa murriztea euskal hizkera askotan gertatzen den bilakabidea da; esate baterako, bada Oiartzunen (Fraile eta Fraile 1996: 37-38), Antzuolan (Larrañaga 1998: 27), eta abar. Gure eremuan ezaugarri banatzailea delako ekarri dugu hona (Muskitz vs. gainerakoak).

8.1.12. [g] epentesia

Hiatoa hausteko, [g] epentesia erabiltzen dute zenbait herritan, *-oa-* hiatoa hausteko batik bat. Gure eremuari dagokionez, Imotzen eta Basaburu Nagusian da indartsuen berrikuntza hori, baina

bada adibideren bat edo beste Larraunen eta Araitz-Betelun ere. Honako adibide hauek bildu ditugu guk: *agoa* ‘ahoa’ (Gol., Osk., Mus., Bas. Nag., Larr., Ar.-Bet.), *oligoa* ‘olioa’ (Gol., Era., Etxal., Its., Arrar., Gar., Iri.), *arregoa* (Lat., Beru.) & *arrigoa* (Era., Its.) ‘arreo’, *ooldigoa* ‘goroldioa’ (Gol.).

[g] epentesia ez, baizik eta [b] tartekatu da adibide honetan: *aboa* ‘ahoa’ (Beru., Bar., Gorr., Azp.). *OEH*ren arabera, berria eta erabilera urrikoa da *abo* aldaera; Larramendiren hiztegian badago, eta XX. mendeko hainbat egilek erabili zuten: Orixé, Lizardi, Lauaxeta, Kirikiño, Arrese...

Bestalde, *adegu* gazt. ‘adobo’ bildu dugu Arraratsen; alabaina, *-b-* eta *-g-* kontsonanteak txandakatzearen ondoriozko bilakabidea delakoan gaude, *adegu* eta *adobo* jaso baitugu gainerako herrietan, eta ez ***adeu* edota ***adou* (ez dago, beraz, hiatorik). Zalantza dugu *segoa* gazt. ‘sebo’ (Etxal., Arri.) adibidearekin, *seboa* nahiz *seoa* ahoskatzen baitute gainerako herrietan; beraz, baliteke [g] epentesia tartekatu izana *-oa*-hiatoa hausteko. Ildo beretik doa hurrengo adibidea ere: *xegora* bildu dugu Betelun, eta baliteke *xerora* > *xeora* > *xegora* bilakatu izana.

Esan bezala, batik bat Imotzen eta Basaburu Nagusian ageri dira forma horiek, baina, *agoa* hitzaren kasuan, eremu osora zabaldu da. Hain zuzen, Nafarroa Garai gehiengan oso hedaturik dago aldaera hori (Altuna 2006: 56, cf. *OEH*)¹³³, eta lehenbiziko testuetatik hasita ageri da; esate baterako, Iruñeko olerkietan bada 1609. urtean, baita Beriainen lanetan ere (1621, 1626).

Caminok Nafarroa Garaiko erdiguneko hizkeren eta hego-nafarreraren ezaugarritzat hartu du tarteko *-g-* kontsonantea, nahiz eta hedadura zabalagoa izan dezakeela ere aitortu duen (2003a: 86); beste euskalki batzuetan *-h-* ageri den adibideak eman ditu berak (*ago* ‘ahoa’, *leigo* & *lego* ‘leioa’, *igo* ‘eho’, eta abar), baina guk *-h-*ren ordezkotik ez diren adibideak ere topatu ditugu gurean (lehenago, Mitxelenak berak aipatu zituen tankera horretako adibideak; ikus 1977 [1961]: 88).

Beraz, bilakabidea arrunta da gure eremutik kanpo ere, baina ez da adibide beretan agertzen hizkera guztietan. Esku artean ditugun datuak aintzat hartuta, Imotzen eta Basaburu Nagusian baino hedadura zabalagoa du bilakabideak handik ekialderagoko eskualdeetan: Atetz, Ultzama eta Anue ibarretan (Ibarra 1995a: 150-152, 192), Aezkoan (Camino 1997: 164) edota Zaraitzun (Camino 1997: 164). Esate baterako, *negurri* ‘neurria’, *egurri* ‘euria’ erako formak sortu dira Ultzaman, baina

¹³³ Nolanahi ere, mendebaleragoko testuetan ere ageri da, hala nola Landucciren edo Betolatzaren lekukotasunetan, eta, XX. mendean, Orixek, Lizardik, Lauaxetak edota Iratzederrek erabili zuten (*OEH*).

halakorik ez dago gure eremuan; bada nola-halako isoglosa bat, beraz, Ultzamaren eta gure eremuko ibarren artean.

8.1.13. *-ee-* > *-ei-* bilakabidea

-ee- hiatoa ez da batere egonkorra euskaraz (Mitxelena 1977 [1961]: 110-111), eta, eskuarki, bi bokaletatik bat galdu, eta murriztu egiten da (*me(h)etu* → *metu*, eta abar). Gure eremuari dagokionez, *-ei-* (diptongoa) bihurtu ohi da hiato hori zenbait adibidetan. Lau adibidetan topatu dugu guk: *mee* > *mei* ‘mehea’ (Gol., Urr., Era., Etxal., Ig., Bar., Arru., Gorr., Ui., Bet., Uzt.) & *meetu* > *meittu* ‘mehetu’ (Gol., Etxal.), (*t)xee* > *txei* ‘xehea’ (Gol., Era., Etxal., Ud., Its., Ig., Od., Bar., Alb., Azp., Erra., Bet.), *ke* > *kei* ‘kea’ (Alb., Ui., Gorr., Azp., Erra., Ar.-Bet.)¹³⁴, *bee* > *bei* ‘behea’ (orok.)¹³⁵. Muskitzen, bietatik entzun dugu (*meia* & *mea*, baina *euri xea* ‘euri xehea’).

-ei- diptongoaren ondoko *-a* mugatzailea asimilatu egiten da eremu osoan (*beie* ‘behia’, *seie* ‘seia’, eta abar), baina, goiko adibideetan, *-a* bere horretan gelditu da, asimilatu gabe: *meia*, *txeia*, *keia*. Salbuespen bat bildu dugu, ordea, Betelun: *bai txeie* ‘bahe xehea’.

Bereiz eta arretaz aztertu beharrekoa da *bee* > *bei* adibidea. Larraunen eta Araitz-Betelun, oso maiz erabiltzen dituzte *bei* aldaeraz osatutako adibideak: *beiran nion* ‘behean nengoen’ (Od.), *beiko karretera* ‘beheko karretera’ (Od.), *beiko ekullue* ‘beheko ukuilura’ (Iri.), *beirakoan* ‘beherakoan, beherako bidean’ (Bar.), *urek beira itten dun bezala* ‘urak behera egiten duen bezala’ (Ald.), *beiko barrio ontakoak* ‘beheko barrio (auzo) honetakoak’ (Ui.), *beiko txaoia* ‘beheko txabola’ (In.), *beiko zelaieaño* ‘beheko zelairaino’ (Azk.), *beiko estardatik* ‘beheko estradatik’ (Bet.), *beiko zulo artati gora* ‘beheko zulo hartatik gora’ (Arri.), *beian aitzen tzen* ‘behean aritzen zen’ (Gai.), *beian iltzea sartu* ‘behean iltzea sartu’ (Gai.), *beiran badao kantera bat* ‘behean badago kantera (harrobi) bat’ (Bet.), *gorabeirak* ‘gorabeherak’ (Gai.), *beirakoa* ‘beherakoa, kakeria’ (Larr., Ar.-Bet.), *beiran nau* ‘= beherakoarekin nago’ (Iri.).

Imotzen eta Basaburu Nagusian, *bei* gisako formak ez dira guztiz ezezagunak, baina *bee* gisakoekin txandakaturik ageri dira. Hona *bei-* osagaia duten zenbait adibide: *bi borda giñuzen: bat*

¹³⁴ Ikus 8.6.5.

¹³⁵ Bilakabide hori ez da nahasi behar beste hizkera batzuetan ageri den beste bilakabide batekin. Lekeition, esate baterako, *-e* hizkiak bukatutako silaba bakarreko hitzei *-a* mugatzailea gehitzean, *-eya* amaiera sortzen da (*meya* ‘mehea’, *keya* ‘kea’, *teya* ‘tea’). Baina, esan bezala, hitzari mugatzailea gehitzean soilik sortzen dira forma horiek (Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994: 38). Hala sortua da Bergara aldeko *keia* ere (Elexpuru 2004: 357). Gurean, mugatzailea erantsi gabe ere sortzen da *-ei*.

beian, ta bestii goien, iixtordin ondo-ondoan ‘bi borda genituen: bat behean, eta bestea goian, iraztordiaren ondo-ondoan’ (Gol.), *bei artan* ‘behe hartan’ (Era.), *beiko exkiñetik goitiraño* ‘beheko izkinatik goitiraino’ (Era.), *beiko erreka* (Gar.), *beiko ortan* ‘beheko horretan’ (Arrar.), *beiko puntetik* ‘beheko puntatik’ (Ig.), *geo, denboan buruun atea, beitik* ‘gero, denboraren buruan atera, behetik’ (Ig.), *beian izaten tzun txorrota at* ‘behean izaten zuen txorrota bat’ (Ig.), *beian* ‘behean’ (Ud.), *beiko* ‘beheko’ (Ud.).

Gure eremuaren mugetan, Leitzan eta Areson ezagunak dira *mei, txei, kei* eta *bei* (Olano 1998: 75); Basaburu Txikian, ordea, ez dituzte erabiltzen (B. L.). Mendebalera, Amezketara orduko ez dago halakorik (B. G.); isoglosa trinkoa dugu, beraz, Araitzen eta Gipuzkoako alderdi horren artean.

8.1.14. *o > u* eta *e > u* bilakabideak

Gure eremuko herri batzuetan adibide jakin batzuetan ageri den bilakabide baten berri emango dugu. Hain zuzen, zenbait hitzetan, *o > u* eta *e > u* bokal-aldaketak gertatzen dira Larraungo eta Basaburu Nagusiko herri batzuetan, eta Araitz-Betelun, batik bat.

a. *o-u > u-u*

Bilakabide hori ez da sistematikoa, eta, gainera, adibide batzuk txandaka ager daitezke, baita hiztun beraren mintzoan ere. Beste adibide batzuk, ordea, beti ageri dira *u*-rekin.

Esate baterako, *urdun* ‘orduan’ forma oso ohikoa da Araitz-Betelun, nahiz *ordun* ere erabiltzen den. Halaber, *urdun* bildu dugu Basaburu Nagusiko Itsaso, Arrarats eta Beruete herrietan, eta Larraungo Baraibar, Arruitz, Iribas, Albiasu eta Gorriti herrietan. Oinarri bera dute Gaintzako adibide hauek: *urdukoxe* ‘ordurakoxe’, *urdueko* ‘ordurako’, *urduti* ‘ordutik’, *urdutixe* ‘ordutikxe’. Mota berekoa dugu Azkarateko *urdungo* ‘orduango’ adibidea ere.

“Modu” hitza eta haren eratorriak ere *u*-dunak dira Araitz-Betelun: *aurrea itteko muun* ‘aurrera egiteko moduan’ (Bet.), *naasteko muun* ‘nahasteko moduan’ (Gai.), *eoizin muuz* ‘edozein moduz’ (Azk.), *ze muz?* ‘zer moduz?’ (orok.). Baina, forma horiekin batera, *modu* eta *mou* (& *moukoa, moun...*) *o*-dunak ere ageri dira.

“Ostu” aditzari dagokionez, *ustu* zein *ostu* entzun dugu Araitz-Betelun, baina apika ohikoagoa da *o*-dun aldaera. Larraunen, aldiz, *ustu* erabat ohikoa da Baraibarren, Albiasun, Arruitzen, Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen, eta *ostu* esateko joera handiagoa dute Astitzen, Oderitzen, Aldatzen, Iribasen eta Uitzin. Berueten ere erabiltzen da aditz hori, baina *osto* ahoskatzen dute; han ez dugu behin ere entzun *usto* edo *ustu* erakorik.

“Oihu” hitza dugu gure eremuan ageri den beste adibide bat. Hain zuzen, *uiu* bildu dugu Udaben, Itsason, Arraratsen, Igoan, Aldatzen, Albiasun, Gorritin eta Errazkinen. Gorritin, *oiuken* ere entzun dugu, eta, Errazkinen, *oidu in* ere erabiltzen dute. Hain zuzen, *oidu* erabiltzen da ondoko Araitz-Betelun ere, *oiu*-rekin batera. *u*-dunik ez dugu sumatu Imozko herrietan, Erbitin, Gartzaronen, Berueten eta Arruitzen, *oiu* bildu baitugu herriotan kasu guztietan.

Gainerako adibideak Araitz-Betelun bilduak dira: *kuntuk* ‘kontuak’ (Gai.), *purru* ‘porrua’ (Gai.) & *purru-(u)stoa* ‘porru-hostoa’ (Gai.) & *purrusalda* ‘purrusalda’ (Azk.), *atea bearku u, bille joan bearku duu* ‘atera beharko dugu, bila joan beharko dugu’ (Gai.). *kuntuk* adibideari dagokionez, Gaintzan bakarrik entzun dugu, baina han ohikoagoa da betiere *o*-dun aukera (*kontu*). Arreta handiagoa merezi du *purru* errealizazioak. Izan ere, *porru*-rekin batera erabiltzen da, eta, mugatzailea gehituta, *porrue* ahoskatzen da Araitz-Betelun gehien-gehienetan. *u*-dun aldaera bildu dugunean, ordea, *purrua* ‘porrua’ eta *purruari* ‘porruari’ ere bildu ditugu, eta hortxe dago, gure ustez, berezitasuna. Araitz-Beteluko euskararen ezaugarriak aintzat hartuta, *purru*e eta *purru*ei & *purru*ee espero izango genuke, baina *-a*-dunak ageri dira. Azkeneko adibideari dagokionez (*bearku u*), halabeharrez sortua dirudi, baina badu lotura atal honetan lantzen ari garen bilakabidearekin, ingurune fonologiko berean gauzatu baita.

b. *u-e* > *u-u*

Atal honetara dakartzagun adibideak Araitz-Betelun bilduak dira. Batetik, han oso ohikoa da *urrun* ‘hurrena’ forma. Forma horretatik eratorriak dira honako hauek: *urrungu urteako* ‘hurrengo urterako’ (Gai.), *urrungo unean* ‘hurrengo egunean’ (Bet.), *urrungu unean* ‘hurrengo egunean’ (In., Azk., Bet.), *urrungo ille* ‘hurrengo hila’ (In.), *urrunguan* ‘hurrengoan’ (Gai.), *urrungu guizean* ‘hurrengo goizean’ (Azk.). *urrena*, *urringoa*... erakoak ere erabiltzen dituzte, baina *u-u* dutenak dira ohikoenak. Bestetik, *aurruna* ‘aurrena, lehendabizikoa’ ere entzun dugu Gaintzan; baliteke *urruna* erakoetatik analogiaz sortu izana.

c. o > u

Banan-banan ikusiko ditugu adibideak. Araitz-Betelun, oso ohikoa da *guiz* ‘goiza’ aldaera, baina *goiz* ere erabiltzen da. Gainera, Baraibarren eta Uitzin ere jaso dugu *guiz*. Araitz-Betelun bilduak dira, halaber, *azkonarra* ‘azkonarra’ (Azk.) eta *txikuri-belarra* ‘txikoria-belarra’ (Bet.) adibideak, baina *azkonarra* eta *txikori-belarra* ere oso ohikoak dira han. Intzan bildu dugu *umeste* ‘honenbeste’ adibidea, baina kasu bakarra da. Larraunen, *amurretue* ‘amorratua’ eta *amuna* ‘amona’ adibideak bildu ditugu Gorritin.

Bitxiagoa da orain azaltzera goazen kontua. Imotzen, oro har, aldaera *u*-dun aldaera gutxi topatu dugu, baina Erasoko berriemaile batek sistematikoki erabiltzen ditu honako aldaera hauek: *elurri* ‘elorrria’, *usari* ‘gosaria’, *susten* gazt. ‘sostén’ eta *puzal* gazt. ‘pozal’. Ez dakigu nondik nora hartuak dituen aldaera horiek Erasoko emakume horrek, gainerako erasoar eta imoztarrek ez baitute halakorik erabiltzen, baina datua hor dago. Salbuespena da *elurri* adibidea, Goldaratzen ere entzun baitugu.

Besterik da kontsonante sudurkariaren aurreko *o* bokala *u* bihurtzea. Ipar Euskal Herriko hizkeren ezaugarria da (Mitzelena 1977 [1961]: 55-57, Camino 2004b: 450, Zuazo 2008: 230), eta Nafarroa Garaiko hizkera batzuetara ere iritsi da, hala nola Luzaidera (Salaberri 2000: 230) edota Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana eta Baztan ibarretara (Zelaieta 2004: 237). Berrikuntza zaharra dugu: esate baterako, XVI. mendetik aurrera ageri da Nafarroa Behereko testuetan (Camino 2008b: 129-130).

Guk Basaburu Nagusiko iparraldeko Arraratsen entzun ditugu bilakabide horren ondorioz sortutako adibide zenbait, *n* kontsonantearen aurretik kasu guztietan: *aur unek atteen planta du* ‘haur honek aitaren planta du’, *unea* ‘hona’, *uneaño* ‘honaino’, *ungi* ‘ongi’. Ondoko Igoa eta Beruete herrietan, berriz, *o* entzun dugu beti; baina *mundu untan* eta *gau santu untan* adibideak ageri dira 1950 aldera Berueten bildutako otoitz batean (Donostia 1956: 48-49)¹³⁶. Orokietan, adibide bakar batean entzun dugu: *atoz unea!* ‘atoz hona!’. Handik iparraldera, Basaburu Txikiko herrietan ezaguna da bilakabide hori (Apalauza eta Lakar 2001-2003)¹³⁷, eta hortik heldu zaio eragina, gure ustez, Basaburu Nagusiko iparraldeko euskarari.

¹³⁶ Baliteke, ordea, aurreko *u*-k eraginak izatea sudurkariaren aurreko *o > u* horiek.

¹³⁷ Eratsunen, esate baterako, *unge pasa* ‘ongi pasa’ aldarria idatzi ohi dute festetako txosnan (B. L.).

Ondorioak

Kontsonante sudurkariaren aurreko $o > u$ bilakabidearen nondik-norakoak garbi aski gelditu dira (c. atala), baina gainerakoak ez daude hain garbi. Izan ere, adibide jakin batzuetan baino ez ditugu bildu a. eta b. (eta c.) ataletako adibideak, eta ez dugu ikusten ezaugarriaren eremu geografikoa finkatzeko modurik. Egia da Araitz-Betelun bildu dugula adibide kopuru handiena, baina eremu osoan ageri dira, modu batera edo bestera, adibideak.

Aitortu behar dugu gure belarriak kutsu giputza hartzen diela *urdun*, *urrungo* edota *aurruna* gisako errealizazioei, eta hortik hasi nahi dugu gure azalpena. Araitz-Betelu ondoko Amezketan, ohikoak dira *urdun*, *urrungo*, *urruna*, *urduti*, *muun* eta *unuzkeo*, baina ez dirudi bilakabidea adibide gehiagotara hedatu denik (B. G.). Goierri eskualdean ere badira adibideak, baina bada aldea herri batetik bestera. Hain zuzen, Zaldibian eta Ordizian, *urrungo* ‘hurrengo’ eta *urdun* ‘orduan’ adibideak bildu dituzte Etxabe eta Garmendia ikertzaileek (2003: 53 eta 2004: 56). Gainerako adibideak bi ikertzaileekin egiaztatze aukera izan dugu; haien arabera, Zaldibian ohikoak dira *urdun*, *urdutik* & *ordutik*, *muun*, *muz*, *urrungo* ‘hurrengo’ & *urrungon* ‘hurrengoan’, *urruna*, *trunko*, *umeste* & *unbeste* eta *unuzkeo* ‘honezkerok’, baina ez besterik. Alabaina, Goierriko beste herri batean, Idiazabalen hain zuzen, *unuzkeo* adibidea soilik egiaztatu digute; gainerako adibideetan, *o* bokala ageri da kasu guztietan¹³⁸. Hurtadok ez dakar bilakabidearen berri, baina *urrungoa* transkribatu du Beasainerako (2001: 167), *urduko bizitzea* Ataunerako (2001: 171) eta *urdun* Tolosarako (2001: 189). Orexan, *urruna* eta *urrungoako* bildu ditu *EHHAk* (1999: 79), eta *azkunar* dugu Bedaioko testu batean (*EAEL*: 133. testua).

Gipuzkoako beste hizkera bati helduz (gure eremutik urrutixeago), I. Caminok ahoz esan digu Donostian ohikoak direla *urdun*, *urrunguan*, *onuzkeo* eta *uju* ‘oihua’, baina ez gainerakoak. Handik hurbil, Oiartzunen, *urruna* eta *urrungun* adibideak bildu dituzte Fraile ahizpek (1996: 24). Tolosaldeko iparraldean den Adunan, aldaera *u*-dunak ditugu *urdun* (*ordun* gehiago erabiltzen den arren), *unuzkeo*, *muun* (*moun*-ekin batera), *muuz*, *urruna* eta *urrungo*, baina *o*-dunak dira gainerako adibideak¹³⁹. Azkoitian, *unuzkeo*, *urrune*, *urrungue*, *urrungun* eta *urrungo eunin* eman dizkigu M.

¹³⁸ Honako aldaera hauek eman dizkigu I. Aldasoro idiazabalarrak: *orduun* ‘orduan’, *orduko* ‘orduko’, *ordutik* ‘ordutik’, *onezkeo* & *unuzkeo* ‘honezkerok’, *porru* ‘porrua’, *moduun* ‘moduan’, *mooz* ‘moduz’, *oiu* ‘oihua’, *urruna* ‘hurrena’, *urrungo* ‘hurrengo’, *aurruna* ‘aurruna’, *goiz* ‘goiza’, *azkonar* ‘azkonarra’, *kontuuk* ‘kontuak’.

¹³⁹ J. K. Igerabide adunarrak emandako datuak.

Larrañaga azkoitiarrak. Are urrutiago, *kumun*, *kumunio*, *kunfundiu* gazt. ‘confundir’, *urrungo* & *urrungo* adibideak bildu dituzte Antzuolan (Larrañaga 1998: 19-20).

Atal honetan ikusi dugun bilakabideak badu, beraz, nolabaiteko indarra Araitz-Betelu ondoko Gipuzkoako hizkeretan, eta baita, oro har, Gipuzkoako beste hizkera batzuetan ere. Ez dakigu erabat zuzena den bilakabidea Gipuzkoakotzat hartzea, baina ezin ukatu dugu adibide jakin batzuk behinik behin ohikoak direla hango hizkera askotan.

Nafarroara etorritz, gure eremuaren ondoko Nafarroako hizkerak ere kontuan izan ditugu. Hala, Basaburu Txikiko Ezkurran, zenbait adibide bildu genuen: *urdun*, *urduko mantenua* ‘orduko mantenua’, *urruna* ‘hurrena’, *uiu* ‘oihua’ eta *trunku* & *trunko* (Apalauza eta Lakar 2001-2003). Horrez gain, *unuzkero* ageri da eratsundar batek kantatutako kanta batean. Leitzan eta Areson ere bada horretatik zerbait; adibide gutxi batzuk dakartza Olanok (1998: 64): *ullarra* ‘oilarra’, *ulluke* ‘oihuka’, *elurri* ‘elorrria’, *bulada* ‘bolada’ eta *uker* ‘okerra’. Gure ingurumaritik haratago, Burundan ere zenbait adibide bildu ditu Zuazok (2010: 56-57).

Laburbilduz, aldaera bakoitzak bere hedadura duela da ondorio nagusia. Batzuek hedadura handi samarra dute, eta Nafarroako mendebaleko hizkera batzuetan eta Gipuzkoako beste askotan ageri dira (*urdun* eta haren eratorriak, *urrungo*), baina gainerakoak han eta hemen ageri dira, lotura geografiko argirik gabe, eta batzuk idiolektoaren mailan aztertzeak dira, gainera (gogoan izan Erasoko berriemailearen kasua).

8.1.15. Hitz hasierako *oa-* > *goa-*

Euskaraz, oso adibide gutxitan ageri da *oa-* bokal multzoa hitz hasieran. Bada, agertzen den adibide urrietan, *g-* kontsonantea eransten zaio gure eremuko zenbait hizkeretan, eta *goa-* ahoskatzen da. Areago, batzuetan, *goa-* ahoskatu beharrean, *gua-* ahoskatzen da.

Ezaugarria hainbat aldaerataraz zabaldu da Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan; aldaera kopuru urriagoa dugu Larraunen, eta are urriagoa Araitz-Betelun. Hona adibideak: *goatze* ‘ohatzea, ohea’ (Im., Bas. Nag., Od., Bar., Ald.), *goazal* ‘ohe-azala’ (Gol., Urr., Osk.), *goartu* (Im., Bas. Nag., Od.) & *goarto* (Ald., Ig.) ‘ohartu’, *goarkaben* ‘oharkabeen’ (Od.), *goaiñ* (Im., Bas. Nag., Od.) &

goai (Mus.) ‘orain’, *goaiñik* (Im., Bas. Nag.) & *guandio* (Bet.) ‘oraindik’. Horiek guztiak g-gabekoekin txandaka ageri dira.

Gure eremutik ekialdera, Ultzaman ezaguna da *goa-*, baina indar apala du (Ibarra 1995a: 162). Are ekialderago, Erroibar eta Esteribar ibarretan bada (Ibarra 2000: 48), eta, Artzibarren, *goatze* eta *guatze* baziren (Arana 2004: 77, 80). Nafarroako ipar-ekialdean ere ezaguna da (Baztan, Malerreka... ikus Izeta 1996: 93, eta Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta indartsua da Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 65, 87), baina ez Arakilen (Camino 2005a: 276). Gure eremutik hegoaldera, *oatze*, *goatze* eta *guatze* erabiltzen ziren Txulapainen (Arana 2006: 49, 50, 80), eta Artolak g-dunak dakartza Ihabar, Urritzola, Larunbe, Beorburu, Usi, Anotz, Ziaurritz, Olaitz, Inbuluzketa, Urnitza, Ilurdotz, Espotz, Arrieta eta Azparren herrietarako (1992: 191). *EDEL*ko datuetan, *goatze* ageri da Nafarroa Garaiko Ziganda, Urritzola, Usi, Abaurregaina, Auritz, Etxarri-Aranatz, Irañeta, Lekarotz, Lesaka, Lizarraga, Mezkiritz, Saldias, Sunbilla eta Xuarbe herrietan.

Ezaugarria ia desagertu egiten da Larraungo ipar-mendebalean, Araitz-Betelun eta handik mendebalera; kontuan izan, hala ere, *guaiñ* adibidea ez dela arrotza ez gure eremuko mendebaleko herrietan, ez eta Gipuzkoako Tolosaldean edota Goierriin ere.

Ezaugarriaren hedadura ikusita, badirudi Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarritzat har daitekeela, Imotzen eta Basaburu Nagusian bizkor dirauena baina Larrauna eta Araitz-Betelura orduko ahultzen dena. Zuazok euskara nafarraren eremura bildu du, eta garatu gabeko arauen sailean kokatu du (2008: 20, 109-110). *OEH*ko datuen arabera (ikus *ohatze* eta *ohartu* sarrerak), *goa-* edo *gua-* duten aldaerak batez ere goi-nafarreran, Baztanen eta Zaraitzun ageri dira, eta badira adibideak halaber Aezkoan, Nafarroa Beherean, Zuberoan eta Oiartzun aldean. Ezaugarriaren antzinatasunari dagokionez, Beriainek *goa-* zein *oa-* erabili zituen 1626an; beraz, ordurako gutxienez sortua zen berrikuntza, baina ez dakigu noiz sartu zen gure eremuan.

8.1.16. Sinkopa eta aferesia

Sinkopa eta aferesia ez dira bete-beteko ezaugarriak gure eremuko hizkeretan, baina kasu gutxi batzuetan behintzat ageri dira. Azentuaren eraginez sortzen dira bi bilakabideok.

Alde batetik, gure eremuan ohikoak dira honako aldaera sinkopatu hauek: *arpatu* ‘harrapatu’ (Im., Bas. Nag.), *pa(a)stu* ‘pasatu’ (Im., Bas. Nag., Larr., Ar.-Bet.¹⁴⁰), *burko* ‘burukoa; gazt. almohada’ (Im., Bas. Nag., Od., Alb., Azp.)¹⁴¹, *Trintete & Trintate* ‘Trinitatea’ (Im., Bas. Nag.). Ez dira, hala ere, sinkoparen erakusgarri handiak. Lehenik, *burko* hitza erabat lexikalizatua da, adiera horretan baizik ez baita erabiltzen: inon ez baita esaten ****burko kalparra**, baizik eta *bu(r)uko kalparra* kasu guztietan. Gainera, gaztelaniazko “almohada” adierazteko, *burukoa* erabiltzen dute Errazkinen (sinkopatu gabea, beraz). Beste euskal hizkera batzuetan ere erabiltzen da *burko*, gainera; Bizkaian, esate baterako (Mitxelena 1977 [1961]: 318). Halaber, *Trintete* adibidea, izen berezia den aldetik, ez da adibide esanguratsua.

Adierazgarriagoak dira gure eremuko ekialdeko herrietan (Imozko Etxaleku, Oskotz eta Muskitz, eta Basaburu Nagusiko Erbiti, Gartzaron eta Orokieta) bildu ditugun adibide hauek: *atera* ‘atera’ (Etxal., Osk., Mus., Er., Gar., Oro.) & *atraera* ‘aterera’ (Oro.), *abrats* ‘aberatsa’ (Osk., Mus., Gar., Er.), *bedratzi* ‘bederatzi’ (Osk., Etxal., Mus., Gar.), *biarna* ‘bigarrena’ (Osk., Etxal.), *iruarna* ‘hirugarrena’ (Osk., Etxal.), *abre* ‘aberea’ (Etxal., Gar.) & *abreanak* ‘aberearenak’ (Lat.) & *idikin ta abreakin* ‘idiekin eta abereekin’ (Oro.), *libru* ‘liburua’ (Osk., Etxal.), *orgatik* ‘horregatik’ (Gar.) eta *batrez* (Mus., Er.) & *batreez* (Oro.) ‘batere ez’. Betiere sinkopatu gabeko aldaerekin batera ager daitezke adibide horiek.

Sinkoparen adibide dira, halaber, aditz nagusiaren muga sortzen diren bilakabideak, aditz bukaerako *-i* galtzearen ondorioz sortuak. Halakoak oso orokorrak dira euskaraz, eta beste ingurune batzuetan sinkoparik ageri ez duten hizkeretan ere badira (cf. Azurmendi 1998: 90, Hurtado 2001: 66, Ormaetxea 2006: 113, Holmer eta Abrahamson 1968 edota Zuazo 2008: 187-188). Hona gure eremuan bildutako zenbait adibide: *etor tzen* ‘etorri zen’ (Gol., Lat., Etxal., Ud., Its.), *etor zien* ‘etorri ziren’ (Mus.), *etorko zen* ‘etorriko zen’ (Etxal.), *etor zelaik errire* ‘etorri zelarik herrira’ (Etxal.), *gutxitan ikus dut itsasoa* ‘gutxitan ikusi dut itsasoa’ (Etxal.), *etor zela* ‘etorri zela’ (Era.), *etorko zela* ‘etorriko zela’ (Its.), *kar zun* ‘ekarri zuen’ (Osk.), *ikusko banittuke* ‘ikusiko banitu’ (Era.) & *kusko ttuzu bi itxe* ‘ikusiko dituzu bi etxe’ (Oro.), *atarire (e)kartzen tzittuten* ‘atarira ekartzen zituzten’ (Er.), *karko du* ‘ekarriko du’ (Oro.), *ikasko nun* ‘ikasiko nuen’ (Etxal.), *ibilko zeen* ‘ibiliko ziren’ (Etxal.), *ekar giñuzen* ‘ekarri genituen’ (Its.), *ikus nittun* ‘ikusi nituen’ (Ud.). Ez da gertaera sistematikoa; hiztun batetik bestera aldatzen da, eta lastertasunari lotutako ezaugarria dirudi.

¹⁴⁰ Araitz-Betelun, *pasa(tu)* ere bada.

¹⁴¹ *bulko* jaso dugu Erason eta Aldatzen.

Bestalde, hitz bukaerako *-ta* galdu egin da “bota” aditzaren forma hauetan: *botzen* ‘botatzen’ (Era., Osk., Mus., Ud., Its., Gar., Er., Oro., Arrar., Ig., Beru.)¹⁴² & *botzeko* ‘botatzeko’ (Osk.).

Aferesiari dagokionez, honako adibide hauek bildu ditugu: *makome* (Osk., Er., Gar.) & *makume* (Osk., Mus., Oro.) ‘emakumea’, *karri* ‘ekarri’ (Mus., Oro.), *kusi* ‘ikusi’ (Mus., Er., Gar., Oro.), *torri* ‘etorri’ (Er., Gar., Oro.), *zautu* ‘ezagutu’ (Gar., Er., Oro.), *man* ‘eman’ (Oro.) & *su man* ‘su eman’ (Ud., Gar.), *baki* ‘ebaki’ (Osk.), *kordioniste* gazt. ‘acordeonista’ & *kordiona* ‘akordeoia’ (orok.).

Azkenik, sinkopei eta aferesiei loturik, Igoan *irauzi* ‘irabazi’ adibidea entzun genuen behin. Hain zuzen, Bortzerrietan, Sunbillan eta Malerrekako hizkera batzuetan, ohikoa da silaba postonikoan herskari ezpainkariak irristari bihurtzea: *akautu* ‘akabatu’, *eskautu* ‘eskapatu’, *arrautu* ‘harrapatu’, *irauzi* ‘irabazi’, *irautsi* ‘erakutsi’, *illaute* ‘hilabete’, *kalauza* ‘kalabaza’ (Zelaieta 2004: 235, cf. Zuazo 2008: 108). Esan bezala, adibide bakar batean bildu dugu guk, eta ezin esan dugu, beraz, ohiko ezaugarria denik; nolana ere, Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan Basaburu Txikiko euskarak duen eragina islatzen du.

Ondorioak

Imotz eta Basaburu Nagusi ondoko Atetzen, Ultzaman eta Anuen, gure eremuan baino pittin bat indartsuagoak dira sinkopa eta aferesia (Ibarra 1995a: 131-138), baina bilakabide ahulak dira beste hizkera batzuen aldean (Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Malerreka, Bortziriak... cf. Mitxelena 1977 [1961]: 160-165 eta Salaberri 2000: 887). Zuazok euskara nafarraren ezaugarritzat hartu ditu sinkopa eta aferesia (1998a: 215-216, 2003: 111 eta 2008: 107-108), baina ezaugarriok badira hurbileko beste hizkera batzuetan ere (cf. Camino 2009a: 346). Hona Zuazoren hitzak (1998a: 216):

Ahul, baina sinkopa bada Oiartzun-Irun bitartean, Imotzen, Basaburu Handian eta Basaburu Txikiko hizkera batzuetan (Beintza-Labaienen, Goizuetan eta, ahulago, Aranon). Sakanari dagokionez, Uharte Arakildik sortaldera (izan) da arrunta. Ekialdean, oster, Erronkariraino iristen zen eta oso indartsua (izan) da, gainera, ibar honetan eta Zaraitzun. L-ri dagokionez eta NB-ri dagokionez, lexikalizatuta dauden aldaera jakin batzuen berri bagenuen (...) baina berrikitan Beskoitzeko hizkeraz argitara eman den liburuxkan herri horretan, behintzat, sinkopak badaukala nolabaiteko indarra ikus daiteke.

¹⁴² EHHAk zorti *botzen da* ‘zortea botatzen da’ bildu du Igoan (1999: 96).

Aferesia, berriz, euskara nafarrean, Errenteria-Irun bitartean, Luzaiden eta Zugarramurdin ageri da gaur egun (Zuazo 1998a: 216). Leitzan ere bada, baina urri; Olanok dioenez, biziagoa da Ezkurratik eta Goizuetatik ekialdera (1998: 72).

Sinkopa eta aferesia aspalditik ageri dira idatzizko dokumentuetan; Nafarroa Beherean, XVI. mendetik hasita badira lekukotasunak (Camino 2008b: 131), eta, Nafarroa Garaian, badira adibideak Beriainen lanetan (1621, 1626) edota Elizalderen doktrinan (1735), esate baterako.

8.1.17. Bokal-epentesiak eta -anaptixiak

Zenbait kasutan, silabaren egitura aldatu, eta bokal bat tartekatu ohi da bi kontsonanteren artean. Hona gure eremuan bildutako adibideak: *esene* ‘esnea’ (Gol., Era., Osk., Its., Er., Gar., Arrar., Beru., Ig., Iri., Arru., Bar., Ui., Gorr., Bet., Gai., Azk., In.) & *kafesene* ‘kafesnea’ (Gol., Era., Its., Ui., Ald., Gai.) & *esene-beiek* ‘esne-behiak’ (Ud., Arru.) & *eseneketa* ‘esneketa’ (Arru.), *azukeri* (Gol., Era.) & *azokeri* (Gol.) & *azukure* (Lat., Urr., Osk., Beru., Ig., Iri., Ald.) & *azokare* (Urr.) & *azukare* (Urr., Its.) & *azukere* (Er., Gar., Bar.) & *azukore* (Ald.) ‘azukrea’, *magara* gazt. ‘magra’ (Gol.), *burruse* ‘brusa’ (Gol., Ig.), *xokeleak* (Era.) & *txokolek* (Era.) ‘xokleak, eskalapoiak’, *esenatu* ‘esnatu’ (Azp.).

Etxaideren datuei tiraka, Imotzen, Larraunen, Atetzen, Esteribarren, Murginduetan eta Bakaikun ageri da *esene* (1989: 154), eta *Elk* Azpirotzen, Uitzin, Urdiainen, Bakaikun eta Iturmendin bildu zuen (1984: 294). Bestalde, *EALk esene* bildu du Irañetan, Urdiainen eta Urritzolan, eta *esene* eta *esinia* dakartza Erdoziak Ergoienarako (2001: 125). Halaber, *esénea* eta *esénia* daude, Artolaren arabera, Ihabar, Urritzola, Larunbe eta Beorburu herrietan (1992: 191), eta Caminok *e[ž]enia* bildu zuen 1982an Odietako Latasan (ahoz esana). Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, *esnia* bildu du Ibarrak Atetz, Ultzama eta Anue ibarretan (1995a: 142), baina *azukurea* bada Ultzaman (1995a: 142), eta *azukeria* Esteribarren. Araiztik mendebalera, *esne* eman digute Tolosaldeko Amezketan eta Goierriko Zaldibian, baina *kafesene* ez da ezezaguna Zaldibian (K. E.). Azkenik, Mitxelenak *esene* aldaeraren Azpirozko, Uitziko, Urdiaingo, Bakaikuko eta Iturmendiko lekukotasunen berri eman zigun, eta aldaera berantiarizat hartu zuen (1977 [1961]: 163)¹⁴³.

¹⁴³ Lan horren eranskinean, Altsasuko, Etxalekuko eta Amaiurko (Baztan) *esene* gehitu zuen Mitxelenak (1977 [1961]: 512).

Gutxi dakigu gainerako adibideez: *burruse* Eugin eta Usin bildu du *EAELk*, eta Txulapainen ere bazen (Arana 2006: 27).

8.1.18. Zenbait bokal-txandakatze

Maiz gertatzen da hitz berean bi bokal edo gehiago txandaka erabiltzea. Ere mu osoan entzun daitezke halakoak, eta baita, jakina, gure eremuaz gaindiko hizkeretan ere. Hiztunaren arabera izaten dira askotan, eta ezin sailka daitezke bilakabide mota jakin batean. Azken batean, adibide solteak dira. Aipatu besterik ez ditugu egingo:

zapeta (Gol., Era., Osk., Etxal., Mus., Ud., Its.)¹⁴⁴ / *zapata* (orok.) ‘zapata’

pateta (Gol., Era.) / *patata* (orok.) ‘patata’

aal (Gol.) / *eal* (orok.) ‘hegala, hegoa’

naar (Gol.) / *near* (orok.) ‘negarra’

noski (Erra., Bet., Arri., At., Gai.) / *naski* (Arru., Ald., In., Bet., Arri., Gai.) / *neski* (Gol., Lat., Era., Osk., Etxal., Its., Er., Gar., Ud., Beru., Alb., Gorr., Azp.) ‘noski’

arropa (Gol., Arri., At.) / *arrapa* (Bar., In., Bet., Gai., Uzt.) / *arropa* (orok.) ‘arropa’

eskriittu (Gai.) / *iskriittu* (Urr., Etxal.) / *eskreittu* (Gol.) gazt. ‘escribir’

omen / *emen* ‘omen’ (orok.)

balaun (Bet.) / *belaun* (orok.) ‘belauna’

giñaakoan (Gol.) / *gañeakoan* (orok.) ‘gainerakoan’

ooki & *ooke* (Im., Bas. Nag., Od., Bar. Ui.) / *oeki* (Mus., Alb., Azp., Erra., Ar.-Bet.) ‘hobeki’

mainddere (orok.) / *mainddare* (Beru.) ‘maindireak’

istimatu (Bet.) / *estimatu* (orok.) ‘estimatu’

Odoitz (orok.) ‘Oderitz’

jauna (Its., Gol.) / *jaona* (orok.) ‘xaboia’

paxauna (Its.) & *paxaune* (Arrar., Beru.) & *patxaona* (Gol., Ud., Ig., Arrar.) & *paxaona* (Era.) / *patxaana* (Mus., Osk., Etxal., Er., Gar.)

¹⁴⁴ Alliko testu batean ere *zapeta* ageri da (*EAEL*, 167. testua).

8.2. Fonologia: kontsonanteak

8.2.1. Asimilaziozko palatalizazioa¹⁴⁵

Indartsua da asimilaziozko palatalizazioa eremu osoan, baina urritzen hasten da Imozko Muskitza orduko. Hitz barnean zein hitz bukaeran, eta euskal hitzetan zein maileguetan ageri da. Eskuarki, hiru kontsonante motari eragiten die asimilaziozko palatalizazioak: hain zuzen, sabaikari bihurtzen dira herskari horzkaria, sudurkari hobikari edo horzkaria, eta albokari hobikaria. Hona adibideak:

- *t* → *tt*: *garbittu* ‘garbitu’, *aittu* ‘aditu, entzun’, *prejittu* ‘frijitu’, *seittu* ‘segitu’, *elejittu* gazt. ‘elegir’, *puntte* ‘punta’ (Gol., Bet., Gai., Uzt.), *untture* gazt. ‘untura; ukendua’ (Era.), *juntto jarri ardik* ‘junto jarri ardiak’ (Azk.) & *junttoan* ‘juntoan’ (In.), *produzittu* gazt. ‘producir’ (orok.), *eztakitt* ‘ez dakit’ (Azk.), *albaitt* ‘albait’ (Gai.).

- *n* → *ñ*: *oñaze* ‘oinazea’, *piñu* ‘pinua’, *zikiñe* ‘zikina’, *tipuliñe* ‘tipulina’ (Etxal.), *atseiñ* ‘atsegina’ (Etxal.), *iakiñ* ‘irakin’, *jakiñ* ‘jakin’, *beziñoak* gazt. ‘vecino (pl.)’ (Arrar.).

- *l* → *ll*: *ezkille* ‘ezkila’, *illun* ‘iluna’, *makille* ‘makila’, *zalle* ‘zaila’, *killo* ‘kiloa (neurria)’ (Etxal.), *tellefono* ‘telefonoa’ (Etxal.), *familli* ‘familia’ (Gol., Its., Arrar., Erra.) & *famille at* ‘familia bat’ (Ig.) & *familliarrak* ‘famiarrak’ (Bar.) & *famillikoak* ‘familiakoak’ (Gai.), *motxille* gazt. ‘mochila’ (Bar., Gol.) & *motxilleekin* ‘motxilarekin’ (Alb.), *difizille* gazt. ‘difícil’ (Zarr.), *ill* ‘hil’, *bill-bill eeñ* ‘bil-bil egin’ (Gai.), *teill puxke* ‘teila puska’ (At.).

Bereziki esanguratsuak dira *beziñoak*, *killo*, *tellefono*, *familli*, *motxille* eta *difizille* adibideak: aldaera neutroak dira, eta maileguak izanik ez da ohikoa era horretako palatalizazioa gauzatzea, nahiz betiere ohikoagoak diren palatalizatu gabeko aldaerak. Palatalizazioa, ordea, ez da mailegu guztietara hedatu: *gasolina* (***gasoliñe*), *aspirina* (***aspiriñe*), *bitamina* (***bitamiñe*), *ofizina* (***ofiziñe*).

Eremu osoan ageri da bilakabidea, baina, gorago esan bezala, Imozko Muskitza orduko jaitsi egiten da palatalizazioaren maiztasuna lexema jakin batzuetan. Izan ere, *aite*, *zerbait ee*, *nonbait ee* salbuespenak bildu ditugu han; palatalizatu gabeak, alegia. Oskotzen, *aite* eta *atte* biak entzun

¹⁴⁵ “Asimilaziozko palatalizazioa” terminoa erabiltzea gomendatu du Oñederrak, eta ez “bustidura” edota “bustikuntza” (2004: 44).

ditugu. Hain zuzen, antzeko adibideak daude Imotz ondoko Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 306).

Igurzkari horzkaria (/d/) ere palatalizatu egiten da zenbait kasutan, baina adibide bakan batzuetan baino ez dugu entzun: *onddoak* ‘onddoak’ (Era.)¹⁴⁶, *jakinddo* ‘jakin(du)’ (Ald.), *ainddo* ‘agindu’ (Ald., Gai.), *bilddu* (Gorr., Erra., At., Azk.), *eindde* ‘eginda’ (Erra.), *inddar* ‘indarra’ (Iri., Erra.), *oandd(i)o* ‘oraindik’ (Larr., Ar.-Bet.), *mainddere* (orok.), *menddin* ‘mendian’ (Gai.). Intzako ahozko testu batean, *apaindduik* ‘apaindurik’ adibidea ageri da (*EDEL*, 163. testua).

Bestalde, zenbait deklinabide-atzizki ere palatalizatu egin da gure eremuan. Hona adibideak (cf. 8.1.3.f. eta 8.1.3.g.):

- *-tan* > *-tten* ‘-tan’: *euzkitten* (Iri., Arru., Ald., Alb., Ui., Gorr., Azp., Erra., Bet., At., Gai.) & *iuzkitten* (Gol., Arrar., Ig., Beru., Od.) ‘eguzkitan’, *ttikitten* (Od., Bar., Ald., Alb., Gorr., Azp., Bet., Uzt.) & *ttiki-ttikitten* (Bar.) & *txikitten* (Iri.) ‘ttikitan’, *gutxitten* ‘gutxitan’ (Iri., Bar., Arru., Alb., Gorr., Erra., In., Gai., Bet.), *izarditten* ‘izerditan’ (Era., Etxal., Bet.), *bi-iru tokitten* ‘bi-hiru tokitan’ (Bar.), *bi alditten* ‘bi alditan’ (Erra.), *berritten etzun ezautuko* ‘berritan ez zuen ezagutuko’ (Gai.), *olako tokitten* ‘holako tokitan’ (Bet.), *zazpitten* ‘zazpitan’ (Uzt.).

- *-ta-* > *-tta-* ‘-eta-’: *aragittekoak* (Its.) & *aragittakoak* (Od.) ‘haragitakoak’, *azitteako* ‘hazitarako’ (Bet., At.).

- *-tara* > *-ttea* ‘-tara’: *euzkittea* (Gol., Its., Ud., Ui., Bet.) & *uzkittea* (Gol.) & *iuzkittea* (Gol., Era., Etxal., Gar.) & *iruzkittea* (Mus.) ‘eguzkitara’, *zenbait tokittea* ‘zenbait tokitara’ (Mus.).

- *-ti(k)* > *-tti(k)* ‘-tik’: *azpittik* (Arrar., Od., Arru., Ald., Ui., At.) & *azpittek* (Bar., Iri.) & *azpitti* (Alb., Azp., Erra., Arri., Gai., In., At., Azk.) ‘azpitik’, *errittik* ‘herritik’ (Ud.), *mendittik* ‘menditik’ (Arru.), *txerritti(k)* ‘txerritik’ (Alb.), *Lekunberritti* ‘Lekunberritik’ (Erra.), *txikitti* ‘txikitik’ (Gai.), *zortzitti zortzie* ‘zortzitik zortzira’ (At.), *nausitti* ‘nagusitik’ (Azk.), *berritti* ‘berritik’ (Bet.), *errutittik* ‘urrutitik’ (Gai.), *argitti argie* ‘argitik argira’ (In.), *eporditti ziike* ‘ipurditik zirika’ (In.) & *eporditti ustelduta* ‘ipurditik ustelduta’ (Gai.), *Donostitti* ‘Donostiatik’

¹⁴⁶ *ontto* baita ohiko ahoskera.

(Azk.), *sasi guzin gañetti* ‘sasi guztien gainetik’ (At.), *ezkerreko belarritti* ‘ezkerreko belarritik’ (Gai.), *erd-erditti* ‘erdi-erditik’ (In.), *Balerdittik* ‘Balerditik’¹⁴⁷ (Gai.).

Halaxe bildu ditugu adibide horiek, baina palatalizatu gabeko formekin txandakatuta erabiltzen dira betiere. Are gehiago, badirudi atzera egiten ari den ezaugarria dela deklinabide-atzizkiotan gertatzen den palatalizazioa.

Bestalde, partizipio-atzizkia palatalizaturik ageri da Errazkingo adibide hauetan: *eukitte* ‘edukita’, *eindde* ‘eginda’, *inddekoa* ‘egindakoa’, *eseitte* ‘eserita’, *jantzitte* ‘jantzita’, *etorritte* ‘etorrira’, *ikasitte* ‘ikasita’. Lekuko bakar bati jaso dizkiogu halakoak; adin handiko emakume bat da, hizkera gordetzaile samarra darabilena oro har (cf. 5.2.3.).

Palatalizazio adierazkorra

Esaten denari nolabaiteko goxotasun- eta txikitasun-kutsua emateko, palatalizazioa erabiltzen da euskaraz, eta erabilera hori bizirik dago gure eremuko herrietan ere. Haur-hizkeran, esate baterako, maiz baliatzen da, baina baita beste egoera batzuetan ere. Hala, oro har, [j], [λ], [c] eta [tʃ] hotsak erabiltzen dira hurrekiko tratuan. Goldarazkoak dira adibideok: *atox* ‘zatoz’, *artu xapeta!* ‘hartu zapata!’, *polliki-polliki lloien sartu gai* ‘poliki-poliki lohian sartu gabe’, *soñeko pollitte* ‘soineko polita’, *non da kattuu?* ‘non da katua?’, *jo ttalo-ttalo!* ‘jo txalo-txalo!’, *pottolo* ‘maitasunezko hitza’, *soñeko beltz-beltza jauntzita* ‘soineko beltz-beltza jantzita’. Badira, halaber, hurrekin soilik erabiltzen diren zenbait hitz: *ttotto pottorrak* ‘goxokiak’ (Osk.), *txotxoak* ‘goxokiak’ (Etxal., Mus.).

Goxotasuna eta hurbiltasuna adierazten da, halaber, izen berezietan palatalizazioa erabiliz: *Kaxinto* ‘Jazinto’ (Bet.), *Gurutxe* ‘Gurutze’ (Gol.), *Atxiber* ‘Aitziber’ (Gol.), *Xiunda* ‘Segunda’ (Gol.), *Jexux* ‘Jesus’ (Gol.), *Mañoli* ‘Manoli’ (Gol.), *Maxux* ‘Maria Jesus’ (Gol.), *Auxtiñ* ‘Agustin’ (Gol.), *Nikaxio* ‘Nikasio’ (Mus.), *Iñaxio* ‘Ignazio’ (Gol., In., Gai.), *Xefe* ‘Zeferina’ (At.), *Andrex* ‘Andres’ (At.), *Joxeakiñ* ‘Jose Joakin’ (Bar.), *Maixepa* ‘Maria Josefa’ (Ald.), *Teexa* ‘Teresa’ (Ald.), *Axio* ‘Anastasio’ (Od.), *Anttonio* ‘Antonio’ (Iri.), *Maateexa* ‘Maria Teresa’ (Gorr.), *Xexilia* ‘Zezilia’ (Gorr.), *Engraxi* ‘Engrazia’ (At.), *Anttoni* ‘Antonia’ (Bet.), *Graxian* ‘Grazian’ (In.). Familia- eta lagun-giroan erabiltzen dira horrelako formak.

¹⁴⁷ Mendi baten izena da.

Azkenik, txikitasuna edo gutxitasuna adierazten dute honako adibide hauek: *aixtin* ‘arestian’ (Gar.) & *aixtinxe* ‘arestianxe’ (Bet.), *ttantte* ‘ardo pixka bat’ (Gol.), *gixona* ‘gizon txikia’ (Gol.), *txuloa* ‘zulo txikia’ (Bar.), *muti(l) koxkorra* ‘mutikoa’ (orok.), *xostaka* ‘adartxo’ (Gai.), *monttona* ‘pila txikia’ (Era.), *dexpaxio-dexpaxio* gazt. ‘despacio-despacio; poliki-poliki’ (Alb.), *beatx* ‘beratza’ (Azk., Gai., Bet.), *ttontteri bet* ‘tontakeria txiki bat’ (Azk.), *poliki-poliki* ‘poliki-poliki’ (Gai.), *axala kendu* ‘azaltxo kendu’ (Bet.), *ttantto-ttantto at* ‘tantatxo bat’ (Gai.).

Arestiko hiru paragrafoetan eman ditugun adibideak adierazkorak dira: forma horiez gain, batere adierazkortasunik ez duten aldaera neutroak erabiltzen dira; palatalizatu gabeak, alegia. Mitxelenak dioen bezala, forma palatalizatuak adierazkorak dira, baldin eta haiekin batera palatalizatu gabeko forma neutroak erabiltzen badira (1977 [1961]: 180-181, cf. Mitxelena [1957]b: 169):

El valor expresivo de la serie palatalizada no podrá, claro es, manifestarse plenamente más que cuando con la forma “normal” o “fuerte” de la palabra conviva la forma “débil”, y desaparece por lo general cuando la forma originalmente marcada ha quedado como única. Por otra parte, el contraste será tanto mayor cuanto menor sea la frecuencia del fonema palatalizado, que muchas veces se emplea sin valor expresivo y ni siquiera es de ese origen.

Kontrako erabilera ere zilegi da gure eremuan; alegia, despalatalizazioa erabiltzea handitasuna edo zakartasuna adierazteko. Esate baterako, Goldaritzen, aldaera neutroa *ixtar* ‘izterra’ da, eta markatua, berriz, *iztar*. Hala, *a ze iztarrak dauzkizon* esatean, norbaitek izter lodi edo gizenak dauzkala esaten ari gara, irainaren zentzuan betiere. Agerikoa da, halaber, *ikaarri pozoloa* ‘ikaragarri potzoloa’ esapidearen konnotazioa, Intzan bildua. Hona beste adibide bat: *zakur* hitza erabiltzen da *zakur* zikina edo nolabait traba egiten duena izendatzeko (*alde, zakurre!*), eta *txakur* dugu aldaera neutroa. Bada aldea, ordea, herri batetik bestera: Gorritin, *gixona* hitzak mespretxua adierazten du, eta, beste herri batzuetan —Goldaritzen, esate baterako—, goxotasuna edo txikitasuna adierazten du.

Azkenik, Berueten, *atxe* ‘aita’ jaso dugu, *atte*-rekin batera. *atte* forma neutroa da kasu guztietan, eta, gure ustez, hala da *atxe* ere, baina baliteke forma adierazkorra izatea. *EAE*Lk *aitxe*

eta ama adibidea jaso du Gartzaronen, eta baita *aitxu du* ‘aditu du’ ere; *atxe* bildu du, halaber, Ibarrek Arraratsen, Beramendin eta Ultzamako zenbait herritan (1995a: 306-309).

Ondorioak

Asimilaziozko palatalizazioaren hedadura geografikoari dagokionez, eremu banaketa nabarreko ezaugarrien sailera bildu du Zuazok (2008: 243-247). Haren hitzetan, palatalizazioa bereziki indartsua da mendebal gehienez, erdiguneko hizkeretan eta euskara nafarrean, nahiz eta badiren tokian tokiko berezitasunak. Nolanahi ere, Mitxelenari jarraituz, dialekto guztietan izango ziren behinola kontsonante palatalizatuak (1977 [1961]: 179-202); gainera, dirudienez, *-in-* kontsonante taldearen ondotik bokal bat dagoenean sortzen den palatalizazioa da zaharrena (1990 [1964]: 197): “Es al menos la palatalización más extendida y no parece demasiado atrevido afirmar que, en alguna época, fue común a todas las variedades de la lengua”. Ondoren, dialekto edo hizkera bakoitzak modu batera edo bestera jokatu du; alegia, bada aldea leku batetik bestera (Lapurdi aldeko hizkerak, esate baterako, hitz hasierako *x-* gorde dute, eta, bestalde, despalatalizazioa gauzatu da beste mintzo batzuetan, hala nola Aezkoan¹⁴⁸).

Gorago esan dugunez, gure eremura etorrira, Muskitzen, Atetzen eta Ultzaman hasten da palatalizazioaren erabilera urritzen. Han hasten da, nolabait, trantsizioa: Anuera orduko, urriagoa da palatalizazioa (Ibarra 1995a: 321; cf. Irizar 1992a: 28), eta are urriagoa Odietako Ziaurritzik hegoaldera (Artola 2001: 515), edota Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 72-78).

Caminok kontsonante ozenen palatalizazioaren hedadura zein den zehaztu du (2003a: 84): ez dago palatalizazio nabarmenik Erroibar-Esteribarren, Eguesibarren, Garesen (Itzarbeibar) eta Artzibarren (soilik diptongoaren *-i* osagaiaren ondotik). Aldiz, bada Gesalaten, Goñerrian, Itzarbeibarren, Oltzan, Ollaranen, Arakilen, Sakanako erdialdean, Larraunen, Imotzen, Txulapainen, Ezkabarten, Ultzaman, Malerrekan eta Bortzirietan. Aitzitik, despalatalizazioa dago Aezkoan eta Burundan, eta bereziak dira Baztango errealizazioak.

Beraz, gure eremuko hizkerak mendebaleragoko joerarekin batera ikusten ditugu gaur egun; oro har Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako beste alderdi batzuetako hizkerekin batera, alegia.


¹⁴⁸ Honela dio Caminok: “Despalatalizazioa aezkeraz gertatu dela nabarmena da, egun despalatalizazio bilakabidea emankor ez bada ere; baina bestalde, palatalizazio automatikoko kasu horien iraupen asistematikoa palatalizazio horren galeraren bilakabidea bukatu gabea dela edo gertakari ez urruna dela adieraz dezake” (1997: 334).

Muskitzen ere oparoa da bilakabidea, baina palatalizazioa ahultzen hasten da han: handik ekialdera, ahulagoa da Atetzen, Ultzaman eta Anuen, eta are urriagoa handik ekialdera.

8.2.2. /j/ hotsaren ebakera

/j/ hotsak bi ebakera mota eman ditu gure eremuan: [j] herskari sabaikari ahostuna eta [x] igurzkarri belar ahoskabea. [j] ebakera honako herri hauetan erabiltzen dute: Imozko Muskitzen, eta Basaburu Nagusiko Erbitin, Gartzaronen, Berueten, Arraratsen, Igoan eta Orokieta. Bestalde, Oskotzen ere entzun dugu, baina oso-oso bakanka, eta hitzun bakar batzuengandik soilik. [x], aldiz, Imotzen (salbu Muskitzen), Larraunen, Araitz-Betelun eta Basaburu Nagusiko hegoaldean entzun daiteke¹⁴⁹.

15. irudia: [j] eta [x]



Hona [j] ebakera erakusten duten zenbait adibide: *yakiñ* ‘jakin’ (Mus.), *yan* ‘jan’ (Mus., Arrar.) & *yatii* ‘jatea’ (Ig.) & *etzen yaten e an* ‘ez zen jaten ere han’ (Oro.), *yosten* ‘josten’ (Mus.), *yoera* ‘joera’ (Gar.), *mutur yoka* ‘mutur joka’ (Oro.), *yar zatte* ‘jar zaitetz’ (Gar.), *kukusos yosita* ‘kukusoz josita’ (Gar.), *yaietan* ‘jaietan’ (Gar.), *yende* ‘jendea’ (Er., Oro., Arrar., Beru.), *yorra* ‘jorra’ (Er.), *yarrita* ‘jarrita, eserita’ (Oro.), *yaio* ‘jaio’ (Ig., Er., Oro.), *yostune* ‘jostuna’ (Ig.), *yezten* ‘jezten’ (Ig.), *yolasa itten* ‘jolasa egiten, hitz egiten’ (Beru.) & *eztuu yolasa itten* ‘ez dugu jolas egiten’ (Oro.), *yauntze* ‘jantzi’ (Beru.), *yoan* (Mus., Er., Gar., Arrar., Ig., Oro.) & *yon* (Beru.) ‘joan’.

¹⁴⁹ Olanok dio Uitzin [j] ahostuna ere erabiltzen dela (2000: 137); guk ez dugu halakorik bildu.

Ezaugarri markatua da hori: hiztunei herrietako hizkeren arteko desberdintasunez edo antzekotasunez galdetu diegunean, horixe aipatu digute kasu askotan.

[j] ahoskatzen duten tokietan ere, [x] erabiltzen dute maileguetan: *garaje* gazt. ‘garaje’, *ejemplo* gazt. ‘ejemplo; adibidea’, *elejitu* gazt. ‘elegir’, *majo* ‘gazt. majo; ongi, gustura’, *koneju* gazt. ‘conejo’, *biaje* gazt. ‘viaje’, *jaon & jaun* ‘xaboia’.

Izen berezietan ere, [x] erabiltzen da eskuarki: *Joxe* (orok.), *Joakintxo* (Gol.), *Jabier* (Gol.), eta abar¹⁵⁰. “Jauntsarats” herriaren izenari dagokionez, bi hotsak txandaka ageri dira [j] erabiltzen den herrietan: *Juantsaats* (Arrar., Beru.), *Juantsaas* (Beru.), *Juantsaats* (Ig.), *Jaunsaras* (Beru.). Azkenik, *jainko* hitza [x]-duna da herri guztietan (cf. Mitxelena 1977 [1961]: 170).

Ondorioak

Hego Euskal Herriko ezaugarria da [x] ebakera (Zuazo 1998a: 213-214), eta badirudi erdialdetik hedatu dela (Zuazo 2008: 141). Bizkaiko ekialdean, Aramaion, Gipuzkoa osoan, eta Nafarroako Aranon (Zubiri eta Perurena, 1998: 47-48), Areson (Olano 1998: 13), Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 162-163), eta gure eremuko Araitz-Betelu eta Larraun ibarretan, Basaburu Nagusiko hegoaldean eta Imotzen (salbu Muskitz) entzun daiteke.

[x] hotsak gero eta hedadura zabalagoa du: esate baterako, Muskitzen, gero eta maizago erabiltzen da, [j]-ren kaltetan. Joera horren berri aspaldi eman zuen Mitxelenak (1977 [1961]: 170, cf. Hualde 1987):

La frecuencia de *x* sigue aumentando en nuestros días en los dialectos españoles. La influencia de la lengua oficial se manifiesta naturalmente en préstamos de nueva introducción y en la sustitución de *š* o *j* por *x* en los antiguos, de acuerdo con el modelo castellano.

Areago, *El*ren arabera, Larraunen, adinekoek *yan* gisakoak erabiltzen zituzten XX. mendearen hasieran, nahiz *jan* nagusitzen hasia zen (*El* 1927a: 165).

[j] ebakeraren hedadurari dagokionez, Muskitz-Gartzaron-Erbiti-Orokietan lerrotik ekialdera

¹⁵⁰ [j] ahoskera ageri da *Jon*, *Josu*, *Joseba* eta halako izenetan, euskaraz ohikoa den bezala.

ageri da: Ultzama, Atetz eta Anue ibarretan (Ibarra 1995a: 243-246), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 79-82), Odieta eta Ezkabarte ibarretan (Artola 2001: 512)¹⁵¹, eta abar. Imoztik hegoaldera, Txulapainen *x*- ebakera sabaiaurrekoa ere bazen, eta Arakilen *x*- zegoen XX. mendearen bigarren erdira arte, eta [x] handik aurrera (Camino 1999: 45 eta 2005a: 272, *EI* 1984: 63, 240-241, cf. Salaberri 2000: 889 eta 2008: 271)¹⁵². Gure eremutik iparraldera, [j] ageri da Leitzan (Olano 1998: 13), Basaburu Txikian (Apalauza eta Lakar 2001-2003), Goizuetan (Zubiri eta Perurena 1998: 47-48), Malerrekan (Apalauza eta Lakar 2001-2003) eta Bortzirietan (Zelaieta 2004: 240), eta baita Ipar Euskal Herrian ere.

Zehatzak eta argigarriak dira, berriz ere, Mitxelenaren hitzok (1977 [1961]: 169-170, cf. Hualde 1987):

La zona más conservadora, pronunciación [j], está constituida por la mayor parte del a.-nav. septentrional hablado en Navarra y el meridional de Erro y Burguete; la misma pronunciación, casi sin africación, predomina también en labortano. (...) Es una fricativa velar sorda, [x], es decir, el sonido de esp. *j*, en la totalidad del área guipuzcoana, incluido el llamado por Bonaparte guipuzcoano de Navarra (Ergoyena, Burunda y parte de la Barranca), en el a.-nav. septentrional de Guipúzcoa (Fuenterrabía, Irún y Oyarzun) y de Araiz (valles de Araiz y Larraun), y en el a.-nav. meridional de Puente la Reina. Lo mismo ocurre en el vizcaíno hablado en territorio guipuzcoano y, ya dentro de Vizcaya, en Ondárroa y zonas de Marquina y Guernica. (...) En el límite de [j-] y [x-] están Irún y Oyarzun, que van con el guipuzcoano, frente a Vera y Goizueta en Navarra y Hendaya en el Labort, que tienen [j-]. En Arano (Navarra), había vacilación entre ambos sonidos ya en tiempos de Bonaparte.

8.2.3. *d > r* kontsonante-aldaketa

Euskaraz, ohikoa da bokal artean *d* eta *r* kontsonanteak nahastea. Mitxelenak berak eman zuen bilakabidearen berri (1977 [1961]: 227-229):

... cumplido consecuentemente entre vocales en zonas vizcaínas, guipuzcoanas y alto-navarras. (...) La tendencia, llevada a cabo sistemáticamente, hubiera tenido como consecuencia la confusión de /d/ y /r/ en un solo fonema con realizaciones condicionadas por el contexto: [r] entre vocales (tras diptongo no es raro oír en Rentería *eudi* ‘lluvia’ < *huri*, *aude*, *oide* ‘éste, ése también’ < *au (e)re*, *ori (e)re*; *audio* junto a *aguro* ‘pronto, luego’ < *agudo*, etc.: el sul. mod. tiene *d > r* tras diptongo, vid. Infra

¹⁵¹ Nahiz eta, Artolak berak dakarrenez, *ssauchi*, *ssabea* gisakoak ageri diren testu zaharretan (*x*- ahoskeraren lekuko, segur aski).

¹⁵² *x*- ahoskerak eremua galdu du azken mendeotan; Erroibarko eta Oلابarko testu zaharretan, ahoskera hori ageri da, baina *y*- nagusitu da hizkera horietan, eta baita *j*- ere azkenaldian (Ibarra 2003: 356-357).

17.2) y [d] en inicial y tras consonante. Sin embargo, no parece haberse llegado en ninguna parte a la confusión total, sino que al menos en algunos casos se sigue manteniendo la distinción, no siempre fácil, de *d*, fricativa de articulación muy abierta entre vocales, y *r*, también frecuentemente fricativa en esa posición, con ultracorrecciones como vizc. *agidaka* ‘riñendo’ < *agiraka*, *idu* ‘tres’ < *iru*, *kalbadio* ‘calvario’, etc. Parece seguro que a la influencia de la lengua oficial, unida a la de la predicación en vascuence, se debe la conservación, precaria, de la distinción en las zonas mencionadas.

Hay también ejemplos más antiguos y extendidos. (...) El fenómeno parece, pues, tener raíces muy antiguas.

Euskaraz aspaldi sortutako bilakabidea da, beraz. Gure eremuan ere entzun dugu: ahul samar Larraunen, eta bizkorxeago Araitz-Betelun. Honako adibide hauetan baino ez dugu entzun Larraunen: *iri* ‘idia’ (Od., Iri., Bar., Arru., Alb., Ui., Gorr., Azp., Erra.), *bire* ‘bidea’ (Azp., Erra.), *auro* ‘agudo’ (Bar.¹⁵³, Arru., Alb., Ui., Gorr., Azp.), *orai* ‘hodeia’ (Iri., Arru., Ui.), *usario* ‘usadioa’ (Iri., Arru., Alb., Gorr.), *pa(g)ari* ‘pagadia’ (Iri., Azp., Erra.), *gaztañeri* ‘gaztainadia’ (Od., Iri., Bar., Arru., Ald., Alb., Ui., Gorr., Azp., Erra.), *piñuri* (Gorr.) & *piñuari* (Azp.) ‘pinudia’, *lori* ‘lodia’ (Erra.), *edarekoak* ‘edadekoak’ (Azp.).

Forma horiek *d*-dunekin txandaka ageri dira herri gehienetan. Aldaketa graduala da: Imotzen eta Basaburu Nagusian, ez dugu bildu *r*-dun formarik; Goldaratzen ondo-ondoan den Oderitzen, *iri* besterik ez dugu jaso (*idi*-rekin batera), *d* ageri baita gainerako adibideetan. Larraungo herrietan mendebalera egin ahala, *r*-dunen maiztasuna igo egiten da (Iribas, Arruitz), baina *d*-dunak ere entzuten dira; azkenik, Araitz-Betelutik hurbilen dauden herrietan —alegia, Azpirotzen eta Errazkinen—, maizago erabiltzen dituzte *r*-dunak, nahiz eta *lodi* edota *auda* ahoskera ere entzun daitekeen.

Araitz-Betelura ezkerreko, *r*-ranzko joera erabatekoa da. Arestikoez gain, honako adibide hauek bildu ditugu han: *garari* ‘garadia, garo-lekua’ (Arri.), *Beraio* ‘Bedaio’ (orok.), *bolara* ‘bolada’ (Gai.), *pasara* gazt. ‘pasada’ (Bet.), *inbiri* ‘inbidia’ (Bet.), *gisaru* ‘gisadua’ (Gai.), *sagrarue* gazt. ‘sagrado’ (Gai.), *maldare* gazt. ‘maldad’ (Bet.), *bireko girariik obena* ‘bideko gidaririk hoberena’ (Gai.), *durik eztao jongo zela* ‘dudarik ez dago joango zela’ (Azk.), *bee kirekoak* ‘bere kidekoak’ (Uzt.), *Santa Aera* ‘Santa Ageda’ (Arri.) & *Santa Ager’unean* ‘Santa Ageda egunean’ (Arri.) & *Santa Aera eunean* ‘Santa Ageda egunean’ (Arri.), *diruri* ‘dirudi’ (Azk.)¹⁵⁴, *laune re itxoitten eongo*

¹⁵³ Ez da datu segurua. Izan ere, *auda* entzun izan dugu Baraibarren, baina behin *auro* entzun izana iruditu zitzaigun.

¹⁵⁴ Kanta batean ageri da: ...*etxe ontako etxeoandreak / amabirjiñe diruri*.

ra ‘laguna ere itxoiten egongo da’ (Gai.), *jan berdea beti ra belaxkaoa* ‘jan berdea beti da belaxkagoa’ (Azk.), *oañ plastikoa[k] taore* ‘orain plastikoak daude’ (Gai.), *antxe daore, sokaldean* ‘hantxe daude, sukaldean’ (Gai.), *arren ingurun bazeaoren zeak, iur kozkorrak-eta bazeaoren* ‘haren inguruan bazeuden zerak, egur kozkorrak-eta bazeuden’ (Gai.) & *beorran kakak zeaoren* ‘behorren kakak zeuden’ (Gai.), *kiretsukoak* ‘kidetsukoak’ (Bet.).

Zuazok euskara giputzaren ezaugarritzat hartu izan du $d > r$ egiteko joera (1998a: 217-218, 1997: 415, 2006a: 67), baina badirudi atzera egiten ari den ezaugarria dela. Ezbairik gabe, indarra du bilakabideak Gipuzkoa aldean: besteak beste, badu indarra Araitz-Betelu ondoko Tolosaldean eta Goierrin (ikus: Zaldibiako datuak in Etxabe eta Garmendia 2003: 57; Ordiziakoak in Etxabe eta Garmendia 2004: 58; Tolosaldeko hegoaldekoak in Hurtado 2001: 67-68; Ataungoak in Azurmendi 1996: 78; Zegamakoak in Azurmendi 1998: 41; Beasaingoak in Agirrebeña, Alberdi, Mendiguren eta Sarasua 2007: 32), eta baita beste zenbait eskualdetan ere (ikus: Pasaiako datuak in Agirretxe, Lersundi eta Olaetxea 2000: 65-66, 129, 189; Oriokoak in Iturain eta Loidi 1995: 38; Antzuolakoak in Larrañaga 1998: 31; Deba ibarrekoak in Zuazo 2006a: 67, eta abar). Horrek guztiak iradokitzen du hizkera gipuzetatik sartua dela joera hori gure eskualdeko hizkeretara; badira holako aldaerak, hain zuzen, Nafarroako mendebaleko beste hizkera batzuetan ere: Leitzan (Olano 1998: 88-89), Goizuetan eta Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 45), eta Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 143).

Gipuzkoatik eta Nafarroako mendebaletik kanpo, baina, badira $d > r$ erakusten duten adibideak: hego-nafarreraren eremuan (Camino 2003a: 62; cf. Camino 1999: 52), Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 190-191), Esteribar-Erroibarren (Ibarra 2000: 66), edota Aezkoan (Camino 1997: 351-353). Gainera, Caminok diosku Erroko, Utergako, Urizko, Ultzamako, Zugarramurdiko nahiz Altsasuko testuetan ere ageri dela bilakabidea (1997: 351-352). Bibliografiari tiraka, *erozein* eta *iruki* adibideak dakartza Aranak Artzibarrerako (2004: 55, 88), eta, *EDEL*ko datuetan, *eran* ‘edan’ bada Txulapaingo Usin, Atezko Zigandan eta Irañetan, eta *gerrán dauré* ‘gerran daude’ Ultzamako Urritzolan.

Fonikoki espero izatekoa da d eta r nahastea (Mitzelena 1977 [1961]: 227-229), eta ez da harriztekoa ezaugarri hori alde bateko zein besteko hizkeretan agertzea. Nolanahi ere, Gipuzkoako eta Nafarroako mendebaleko adibideek badute nolabaiteko koherentzia geolinguistikoa elkarren artean, aldeak alde, tankeratsukoak baitira eremu horretako adibideak. Imotzen eta Basaburu

Nagusian ez dugu halakorik bildu, baina badaude adibideak handik ekialderako hizkeretan; ez dira, ordea, Gipuzkoa aldean sortuak diruditen adibide berak.

Kontrako bilakabidea ere bada euskaraz: $r > d$. Gure eremuari dagokionez, adibide bakan batzuetan baino ez da ageri, Araitz-Betelun eta Larraunen. Hona adibideak: *de(e)* ‘ere’ (Iri., Bar., Arru., Ald., Alb., Ui., Gorr., Erra., Ar.-Bet.) & *alai de* (Arru.) & *ala de* (Ar.-Bet.) ‘hala ere’ & *betide* ‘betiere’ (Gorr., Ar.-Bet.) & *baita de* ‘baita ere’ (Erra., Ar.-Bet.), *aide* ‘airea’ (Ar.-Bet.), *ude* ‘ura’ (Gai., Bet.), *beida* ‘behera’ (In., Azk.)¹⁵⁵, *komedi* ‘komeria’ (Bet.)¹⁵⁶. Imotzen eta Basaburu Nagusian ez da halakorik, baina badugu adibide berezi bat, Berueten jaso: *adana* ‘arana’.

Ondoko hizkera gipuzetan badira $r > d$ bihurtutako adibideak, hala nola Amezketan (K. E.), Tolosaldeko hegoaldean (Hurtado 2001: 67-68), Zaldibian (Etxabe eta Garmendia 2003: 57) edota Ordizian (Etxabe eta Garmendia 2004: 58). Gipuzkoako iparraldean ere bada bilakabide hori: Pasaian (Agirretxe, Lersundi eta Olaetxea 2000: 66), Orion (Iturain eta Loidi 1995: 38) edota Donostian (I. C.). Bizkorra da, halaber, Areson, eta apalagoa Leitzan (Olano 1998: 94-95), eta Sakanako erdialdean ere badira zenbait adibide (Erdozia 2001: 302, 304). Bestalde, nafarreraz ere ezaguna izan da bilakabide hori; Gesalazko Muzkiko testuetan bada, esate baterako, XVIII. mendearen erdialdean (Salaberri 1994: 9-10).

Beraz, $d > r$ eta $r > d$ bilakabideak adibide jakin batzuetan besterik agertzen ez badira ere, eta betiere atzera egiten ari direla kontuan izanik, Larrauna eta Araitz-Betelura euskara gipuzetik sartutako bilakabideak dira.

8.2.4. $f > p$ kontsonante-aldaketa

Eremu osoan ageri dira $f > p$ bilakatutako adibideak, baina bilakabidea indartsuagoa da apika Araitz-Betelun. Honako adibide hauek jaso ditugu Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen: *desapio* gazt. ‘desafio’ (Gol.), *apaldu* ‘afaldu’ (Gol., Bar., Ald., Gorr., Azp.)¹⁵⁷ & *apari* ‘afari’ (Bar.)¹⁵⁸, *pesta* ‘festa’ (orok.) & *pestondo* ‘festa-ondoa, biharamuna’ (Gol.), *prexko* gazt. ‘fresco’ (Gol.), *alperrik* ‘alferrik’ (Gol.) & *alper* ‘alferra’ (Era., Its., Gar., Ig., Beru.), *praile* (Gol.) & *pralle*

¹⁵⁵ Beste hizkera batzuetan (Amezketan eta Zaldibian, esate baterako), ‘begira’ esan nahi du *beida*-k; Araitz-Betelun, *bere* da ‘begira’, eta *beida* edo *beira* erabiltzen da ‘behera’ adierazteko.

¹⁵⁶ Gaztelaniazko “comedia” hitzetik etorria da euskaraz orokorra den *komeria* hitza ere; *komeri* erabiltzen da gure eskualdean ere, baina *komedi* entzun genion behin Beteluko hiztun bati.

¹⁵⁷ *Elk apaldu* dakar Gartzaronerako (1984: 148).

¹⁵⁸ Moutardek Albiasun ere bildu zuen *apari* (1975b: 179).

(Era.) gazt. ‘fraile; fraidea’, *prantses* ‘frantsesa’ (Lat.), *konpesatu* gazt. ‘confesar’ (Gol.), *perratu* ‘ferratu’ & *perrazale* ‘ferratzailea’ & *perra* ‘ferra’ (orok.), *teleponoa* ‘telefonoa’ (Urr.), *prejittu* ‘frijitu’ (Its., Gar., Ig., Ui.)¹⁵⁹, *pardela* ‘fardela’ (Ui.).

Araitz-Betelun, arestikoez gain, honako adibide hauek ere bildu ditugu: *pamili* ‘familia’ (Uzt.), *pantasie* gazt. ‘fantasia’ (Gai.) & *pantasio* gazt. ‘fantasioso’ (Arri., Gai.), *palta* ‘falta’ (At.) & *paltato* ‘faltatu’ (Azk.), *pulamentu* ‘fundamentua’ (orok.), *San Preiñ* ‘San Fermin’ (Azk.), *preskure* gazt. ‘frescura’ (Bet.), *plakato* ‘flakatu’ (Gai.), *paxe* gazt. ‘faja’ (Uzt., Azk.)¹⁶⁰, *plojo* gazt. ‘flojo’ (Gai.), *portunatu* ‘fortunatu, suertatu’ (Gai.), *porma* ‘forma’ (Gai.), *supritzen* ‘sufritzen’ (Gai.), *perie* ‘feria’ (In.).

Zenbait hitzetan, egonkortu egin da nolabait bilakabidea; esate baterako, Araitz-Betelun, erabat zabaldu da *apa(r)i*, eta gazteek ere erabiltzen dute. Baina, oro har, gero eta gutxiago erabiltzen dira *p*-dun aldaerak, eta mailegu berrietara ere ez dira hedatu.

Ezaugarriaren hedadura geografikoari dagokionez, euskara giputzaren ezaugarritzat hartu izan du Zuazok (1998a: 217-218), baina atzera egiten ari den ezaugarria dela aitorturik. Haren arabera, Gipuzkoa osoan, Bizkaiko ekialdean eta Nafarroako Areson, Leitzan, Aranon eta Goizuetan ageri da; Euskal Herriko erdiguneko berrikuntza da, horrenbestez (cf. Mitxelena 1977 [1961]: 263).

Hizkera giputzen aldean, ez zaigu iruditzen bilakabidea ahulagoa edo indartsua (izan) denik gure eremuan, adibide gutxi batzuetan baizik ez baita ageri hizkera gehienetan (ikus: Tolosaldeko hegoaldeko eta Goierriko datuak in Hurtado 2001: 69-71; Ataungoak in Azurmendi 1996: 78-79; Beasaingoak in Agirrebeña, Alberdi, Mendiguren eta Sarasua 2007: 33).

Mitxelenak oraintsuko berrikuntzatzat hartu du bilakabidea (1977 [1961]: 263):

La situación es diferente en guipuzcoano y áreas próximas alto-navarras y vizcainas. Aquí *f* en préstamos está representado normalmente por *p* (*paltsu* ‘falso’, *peria* ‘feria’, *pesta* ‘festa’, *inpernu* ‘infierno’, etc.), salvo en *fede* ‘fe’ y algún otro, y alguna vez alterna facultativamente con *f*, al menos en

¹⁵⁹ Berueten, *frejittu* entzun dugu.

¹⁶⁰ Imotzen eta Basaburu Nagusian, *jainkoan paxa* ‘ortzadarra’ bildu dugu (ikus 8.6.4.); baina lexikalizatutako adibidea da, *faja* erabiltzen baita han gaztelaniazko “faja” adierazteko.

ciertas localidades (...). Pero esto no representa probablemente nada antiguo, sino un proceso secundario relativamente reciente.

Goierriko eta Tolosaldeko datuei erreparatuz, Hurtadok dio XX. mendearen hasieran bizkor zegoela $f > p$ egiteko ohitura, baina, Orixeren arabera, ordurako f sartua zen maileguetan, eta p -dun adibide gutxi ageri dira Izagirrek Tolosan 1967an jasotako hiztegian; Hurtadok berak dio p -dun aldaera bakan bildu duela eremu horretan, eta halakoak adineko gizonezkoek erabiltzen dituztela batik bat (2001: 69-71).

8.2.5. Bokal arteko kontsonanteak galtzeko joera

Gure eremuan, desagertzeko joera dute bokal arteko herskari ahostunek (b , d , g) eta ttak (r) kontsonanteak, beste euskal hizkera askotan bezala. Zenbaitetan, bi bokalak berdinak direnean, bokal luze edo geminatuak sortzen dira (ikus 8.1.1.). Eremu osoko ezaugarria da. Batetik, hitz barnean gerta daiteke:

- $b \rightarrow \emptyset / V_V$: *illeete* ‘hilabetea’, *ooki* ‘hobeki’, *akao* ‘akabo’, *eaki* ‘ebaki’, *atreittu* gazt. ‘atrever’, *iilli* ‘ibili’...
- $d \rightarrow \emptyset / V_V$: *aittu* ‘aditu’, *aar* ‘adarra’, *euki* & *iuki* ‘eduki’, *baakit* ‘badakit’, *iruittu* ‘iruditu’, *biali* & *bialdu* ‘bidali’, *añe* ‘adina’...
- $g \rightarrow \emptyset / V_V$: *saardi* ‘sagardia’, *berroi* ‘berrogei’, *eun* ‘eguna’, *eondu* ‘egon(du)’, *eur* ‘egurra’, *entreatu* gazt. ‘entregar’, *sauxarra* ‘saguzaharra’...
- $r \rightarrow \emptyset / V_V$: *beotu* ‘berotu’, *bea* ‘bera’, *arrosaio* ‘arrosarioa’, *atea* ‘atera’, *goatu* ‘goratu’, *aittu* ‘aritu’, *bezpea* ‘bezpera’, *Ookita* ‘Orokietia’ (Beru.)...

Bestetik, izenari “bat” zenbatzailea gehitzean, maiz herskaria desagertzen da: *mapa at* ‘mapa bat’ (Gol.), *ratotto at* ‘tartetto bat; gazt. rato’ (Etxal.), *liburu et* ‘liburu bat’ (Gar.), *neskato at* ‘neskato bat’ (Od.), *trapu et* ‘trapu bat’ (Bet.), *manddere garbi etzuk* ‘maindire garbi batzuk’ (At.), *leku etzutan* ‘leku batzuetan’ (Gai.).

Aditz nagusiaz eta aditz-laguntzaileaz osatutako egituretan ere ohikoa da kontsonanteak galtzea¹⁶¹: *bize a* ‘bizi da’ (Beru.), *etorre a* ‘etorri da’ (Ig.), *itte a* ‘egiten da’ (orok.), *artze o* & *artze*

¹⁶¹ Aditz-forma horien hedadura zehatza ezagutzeko, ikus 8.4. atala. Ikus, baita ere, bokalen atalean, *-nd-* kontsonante taldea desagertzearen ondoriozko bilakabideak (8.1.8.).


u ‘hartzen du’, *esate ute* (Im., Bas. Nag.) & *esati ute* (Im., Bas. Nag.) & *esate ue* (Larr. ipar-mendebala, Ar.-Bet.) ‘esaten dute’...

Alabaina, gauzak aldatzen hasten dira Imozko ekialdean. Izan ere, han, bokal arteko kontsonanteak egonkorragoak dira, eta, ekialderago ere, kontsonanteak egonkorragoak dira Ultzama, Atetz eta Anue ibarretan (Ibarra 1995a: 176-190). Gure eremutik mendebalera, oro har, areagotu egiten da bokal arteko kontsonante igurzakariak galtzeko joera. Ez dago bat-bateko aldaketarik inon; aldaketa graduala da, poliki-poliki gauzatzen dena.

8.2.6. *-nd-* eta *-nt-* kontsonante taldeak

-n-z bukatutako aditzari *-ta* partizipio-morfema gehitzean, herskari ahostuna ageri da herri batzuetan (*-nda*), eta ahoskabea, aldiz, beste batzuetan (*-nta*). Gure eremuari dagokionez, ahostuna dugu Imozko Goldaratzen, Basaburu Nagusiko Berueten (salbuespenak salbuespen), Larraunen eta Araitz-Betelun. Ahoskabea, berriz, Goldaratz ez beste Imozko herrietan, eta Beruete ez beste Basaburu Nagusiko herrietan entzun dugu.

16. irudia: *-nd-* eta *-nt-* kontsonante taldeak



Hona neutralizatu gabeko adibide saila: *ikastolaa joanta ikesi ute* ‘ikastolara joanda ikasi dute’ (Lat.), *bijilatzen eonta, etzen arpatzen* ‘bijilatzen egonda, ez zen harrapatzen’ (Lat.), *autsekin inta* ‘hautsarekin eginda’ (Urr.), *ardi-illeakin inta* ‘ardi-ilearekin eginda’ (Urr.), *itxin intakoa* ‘etxean

egindakoa' (Era.), *orko iriñekin intako obie* 'horko irinarekin egindako ogia' (Etxal.), *bee ontako intako tellek dee* 'bere honetarako egindako teilak dira' (Etxal.), *nik kausi inta juan bear nun* 'nik kasu eginda joan behar nuen' (Etxal.), *su emanta* 'su emanda' (Etxal., Osk.), *errenta paatu ar tzuten, ttikittoak izanta re errentak* 'errenta pagatu behar zuten, ttikittoak izanda ere errentak' (Etxal.), *aata bide batetik juanta* 'harata bide batetik joanda' (Etxal.), *buelta emanta* 'buelta emanda' (Osk.) & *amabi ordus buelta emanta* 'hamabi orduz buelta emanda' (Mus.), *paseora joanta* 'paseora joanda' (Osk.), *Lekunberritik goitti joanta* 'Lekunberritik goiti joanda' (Osk.), *lenau intako launek* 'lehenago egindako lagunak' (Osk.), *etzanta* 'etzanda' (Osk., Gar., Arrar., Ig., Oro.), *ordu etes o geiau euki oi emanta* 'ordu batez edo gehiago eduki hori emanda' (Mus.), *itxan intako kajonak* 'etxean egindako kaxoiak' (Mus.), *autoan joanta re* 'autoan joanda ere' (Mus.), *komunioa intakoan* 'komunioa (jaunartzea) egindakoan' (Gar.), *bi edo iru iun pasten men tzittuten igual pestaa yoanta* 'bi edo hiru egun pasatzen omen zituzten igual festara joanda' (Gar.), *asper-asper einta* 'asper-asper eginda' (Gar.), *iuskeas yakinta atea dee* 'euskaraz jakinda atera dira' (Gar.), *errin eonta* (Gar.) & *erriin eonta* (Ig.) 'herrian egonda', *aragii yanta* 'haragia janda' (Gar., Ig.) & *aragie yanta iruitzen tzaie ooki naola* 'haragia janda iruditzen zait hobeki nagoela' (Oro.), *lanak inta yoaten nitzen* 'lanak eginda joaten nintzen' (Oro.), *ardoa eanta* 'ardoa edanda' (Gar., Ig., Arrar., Its., Oro.), *lan asko inta* 'lan asko eginda' (Arrar.), *yoanta* 'joanda' (Arrar.), *yanta* 'janda' (Arrar.), *asko zeen emen intakoak* 'asko ziren hemen egindakoak' (Ud.), *atzo eosi yittun nik esantako gauzek?* 'atzo erosi hituen nik esandako gauzak?' (Ig.), *ttikik izanta re belarrea joaten giñen* 'ttikiak izanda ere belarrera joaten ginen' (Its.), *peskaduu janta biño ooki* 'peskadua (< gatz. pescado) janda baino hobeki' (Its.).

Berueten, ahostuna entzun dugu kasu gehienetan, bai inkesta bidez datua lortzen saiatu garenetan bai hizkera arduragabekoan ere, baina ahoskabea entzun genuen adibide batean: *gezurrek esanta eztizu lana emaan* 'gezurrak esanda ez dizute lana emanen'.

-nda / -nta adibideak eman ditugu orain arte, baina *-lta* dugu honako adibide hauetan: *denak ilta daude* 'denak hilda daude' (Osk.), *ilta zeola* 'hilda zegoela' (Gar.), *bi bei ilta zauden* 'bi behi hilda zeuden' (Its.).

Bestalde, Gartzarongo bi adibide bildu ditu *EAELk*: *ilta dao* 'hilda dago', *nee zakurre eta zue launena nekatuik daude onbeste laister inta* 'nire zakurra eta zure lagunarena nekatuik daude

hainbeste laster eginda'. Badugu, gainera, Igoako beste bat *EHHAn* (1999: 96): *beste atzuk pakotxa beantzat emanta* 'beste batzuk bakoitzak berarentzat emanda'.

-nta eta *-lta* forma neutralizatu gabeak Nafarroako hainbat hizkeratan erabiltzen dira: besteak beste, Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 202), Odietako Latasan (Camino 2003a: 242-244), Aezkoan (Camino 1997: 351)¹⁶², Goizuetan (Zubiri eta Perurena 1998: 158), eta Bortzirietan, Malerrekan, Bertizaranan, Baztanen, Zugarramurdi eta Saran (Zelaieta 2005a: 288). Gipuzkoan, Donostiatik eskuin ere ager daiteke (Camino 2000b: 72), baita Oiartzunen ere (Fraile eta Fraile 1996: 51). Aitzitik, forma neutralizatua dute Gipuzkoako gainerako hizkerek eta baita Nafarroako zenbaitek ere: Leitza eta Areso (Olano 1998: 90), Arano (Zubiri eta Perurena 1998: 158), Sakana...

Morfofonologiari erreparaturik, zaharragoak dira neutralizatu gabeko formak (*sukalte*, *igante* eta halako formen ildotik; ikus Mitxelena 1977 [1961]: 230, eta baita *hilko* eta halako aldaera ahoskabeen ildotik ere), baina, haien hedadura geografikoari begira, badirudi berrikuntzak direla, aski eremu definitua baitute. Alegia, ezaugarria zaharra da berez, baina badirudi gure eremuan eta orobat Nafarroa Garaian berriak direla. Lapurdi aldean bada *eman (e)ta* denborazko egitura, eta handik Nafarroa Garaia sartuak dirateke *emanta* erako partizipio modalak; aldaeron jarraipen geografikoaren baldintza aski ongi betetzen da, beraz: Lapurdiko denborazko *eman (e)ta* erakoak Nafarroa Garaiko iparraldera sartu dira eta adiera modala hartu dute *emanta* bihurturik (eta handik sartu dira ondoren gure eremura), garai batean hedatuago zatekeen *-(r)ik*-en ordainetan edo (Nafarroa Garaiko testu zaharretan, *-(r)ik* agertu ohi da gehien-gehienean)¹⁶³.

8.2.7. *-st-* eta *-rtz-* kontsonante taldeak

Euskaraz, nagusiki bost hitzetan txandakatu ohi dira *-st-* eta *-rtz-* kontsonante taldeak, eta kasu horiek aztertu nahi ditugu hemen. Oro har, Nafarroako ekialde eta ipar-ekialdeko hizkeren, eta Lapurdiko eta Nafarroa Behereko zenbait mintzoren ezaugarritzat har daiteke *-rtz-* (Zuazo 1998a: 222). Gure eremuari dagokionez, *-st-* da nagusi, baina *-rtz-* kontsonante talde zaharra ere bada ekialdeko zenbait herritan. Bost lexema bikote aztertuko ditugu: *beste / bertze* 'beste', *bost / bortz* 'bost', *este / ertze* 'hestea', *ostegun / ortzegun* 'osteguna' eta *ostiral / ortzilleria* 'ostirala'.

¹⁶² Aezkoan, hala ere, gehiago baliatzen dira *-nik* eta *-lik*.

¹⁶³ Eskerrak eman nahi dizkiegu Caminori eta Lakarrari auzi hori argitzeko emandako jarraibideengatik. Beste aukera bat ere bada, ordea: *emanta* erakoak Gipuzkoatik hedatuak izatea, *ikusita* erakoen analogiaz. Kontua da Gipuzkoa aldean *emanda* erakoak ageri direla (eta ez *emanta* erakoak), eta, *ikusita* erakoetatik Nafarroa Garaian analogiaz *emanta* erakoak sortu direla baiesteko, Nafarroa Garaian Gipuzkoakoak ez bezalako aldaera berriztatu ahoskabe analogikoak sortu direla postulatu beharko genuke.

beste bildu dugu nagusiki gure eremuan, baina *bertze* ageri da Basaburu Nagusiko ekialdean den Orokieta herrian: *batean ure dela, bertzean ezta zer dela* ‘batean ura dela, bertzean ez dakit zer dela’, *banas bertze* ‘banaz bertze’, *ainbertze* ‘hainbeste’, *bertzenas* ‘bertzenaz, bestela’. Gartzaronen eta Erbitin, *beste* bildu dugu kasu guztietan, eta gure berriemaileek ziurtasunez esan digute forma horixe erabiltzen zutela beren gurasoek ere; alabaina, Erbitin bada *Etxebertzea* izeneko etxe bat, eta baliteke, beraz, behinola ezaguna izatea *bertze* aldaera ere. Hain zuzen ere, aldaera hori baliatzen dute Imozko eta Basaburu Nagusiko mugetan den Ultzaman (Ibarra 1995a: 230, Etxaide 1989: 344-345). Badirudi Atetzen hasten dela bi aldaeren trantsizioa: Etxaidek *beste* bildu du han, baina *berste* trantsizio-formaren berri eman digu Ibarrak (1995a: 224-227). Handik ekialdera, Ultzaman bezala, *bertze* dugu Anuen (Etxaide 1989: 344-345), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 71), Artzibarren (Arana 2004: 34)¹⁶⁴, Aezkoan (Camino 1997: 339-340)¹⁶⁵, eta handik ekialdera, Zaraitzuraino gutxienez (ikus Etxaideren datuak)¹⁶⁶. Basaburu Nagusitik iparraldera, *beste* dago Basaburu Txikiko Ezkurran eta Eratsunen, eta *bertze* eta *bestze* Saldiasen eta Beintza-Labaienen (B. L.); handik iparraldera, *bertze* gisakoak erabiltzen dituzte Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Bertizarana aldean. Hegoaldera, *béztzëak* eta *bertzëa* dakartza Artolak Imotzekiko mugan den Txulapaingo Beorbururako (1992: 215-216). Are hegoalderago, *-rtz-* zegoen Goñerrian eta Ollaranen (Camino 1999: 46), eta *beste* eta *bertze* Itzarbeibarren (Arana 2002: 23-24). Larraundik iparraldera eta mendebalera, *beste* da nagusi Leitzan eta orobat Bizkai-Gipuzkoetan.

bost / *bortz* bikoteari dagokionez, *bost* entzun dugu gure eremu osoan (baita Orokietan ere), eta, guretik ekialdera, *bortz* dago Atetzen, Ultzaman, eta orobat handik ekialdera zein ipar-ekialdera (ikus: Atezko eta Ultzamako datuak in Ibarra 1995a: 230; Esteribarkoak eta Erroibarkoak in Ibarra 2000: 71; Artzibarkoak in Arana 2004: 114; Nafarroa Garaikoak in Etxaide 1989: 350). Gure eremuaren mugetan, *bost* dugu Leitzan eta Basaburu Txikian, nahiz *bortz* ere entzuten den bakanka Beintza-Labaienen (B. L.). Hegoaldera, *bortz* dakar *EAELk* Txulapaingo Usirako, eta Aranak, berriz, *amaborz*, *bortz* eta *bos* ibar bererako (2006: 6, 26); are hegoalderago, *amabortz* eta *bortz* zeuden Itzarbeibarren (Arana 2002: 7, 27).

¹⁶⁴ *bertze*, *bertzenas*, *bertzenaz* eta baita *beste* ere dakartza Aranak Artzibarrerako.

¹⁶⁵ Caminok dio inoizka *bestze*, *beste* eta *berze* ere agertzen direla Aezkoako mintzoan.

¹⁶⁶ Alabaina, *besce* ageri da Zaraitzuko testu zahar batean (Camino 1997: 340).

este / *ertze* bikoteari dagokionez, *este* dugu gure eremuko herri gehienetan; Orokieta da salbuespena, *ertze* ageri baita han. Ibarrek *ertze* bildu du Imozko Muskitzen; guk, ordea, Etxaidek bezala (1989: 140), *este* entzun dugu han ere. Handik ekialdera, *ertze* dago Atetzen, Ultzaman, eta orobat handik ekialdera eta ipar-ekialdera (ikus: Nafarroako datuak in Etxaide 1989: 140; Atezkoak eta Ultzamakoak in Ibarra 1995a: 230; Erroibarkoak eta Esteribarkoak in Ibarra 2000: 71; Artzibarkoak in Arana 2004: 59). Basaburu Nagusiaren ondoko Basaburu Txikian, *ertze* da nagusi Ezkurra ez beste herri guztietan, eta *este* ageri da Ezkurran eta Leitzan (B. L.). Imoztik hegoaldera, *éstxiak* trantsizio-aldaera bildu du *EAE*Lk Txulapaingo Usin, eta, are hegoalderago, Iribarrenek *ercemiñes* eta *escemín* dakartza Iruñerako eta orobat Iruñerrirako (1984: 227, 230):

ERCEMIÑES. O *escemines*: Intestino delgado de cordero o carnero que se emplea para hacer longanizas. [Pamplona, Cuenca y Valles próximos a Pamplona].

ESCEMÍN. Intestino delgado del cordero o carnero. [Pamplona, Añorbe, Cuenca, Montaña]. || Intestino largo que se utiliza para hacer longaniza. [Pamplona, Montaña].

osteun eta *ostiun* erabiltzen dira, gaur egun, gure eremuko herri gehienetan, baina *ortzegun* erabiltzen dute Orokietan. Alabaina, Etxaidek *orseune* bildu du Etxalekun, eta *EIk ortzegun* dakar Gartzaronerako (1984: 334). *ortzegun* gisakoak Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera ageri dira, Zaraitzuraino gutxienez (Etxaide 1989: 51). Basaburu Nagusitik iparraldera, *ostegun* da nagusi Basaburu Txikian ere, baina *ortzegun* ere bada Beintza-Labaienen, eta *ostzegun* trantsizio-aldaera Saldiasen eta Beintza-Labaienen (B. L.). Handik iparraldera, *ortzegun* eta halakoak erabiltzen dira Bortziriak-Malerreka alderdian. Gure eremutik hegoaldera, *ortzegun* bildu zuen *EIk* Txulapaingo Nabatzen (1984: 334). Larraundik iparraldera, *ostegun* dugu Leitzan, eta horixe bera mendebaleragoko hizkeretan ere.

Azkenik, *ostiel* eta *osteel* entzun daitezke eremu osoan, baina *ortzilleria* bildu dugu Muskitzen, eta *ortzillera* Oskotzen, Etxalekun eta Orokietan. Hain zuzen, tankera horretako adibideak daude handik ekialdera ere, Ateztik hasita Erronkariraino, eta baita Nafarroako ipar-ekialdean ere (Etxaide 1989: 52). Basaburu Txikian, *ortzila* eta *ostiral* daude Beintza-Labaienen, eta *ostiral* gainerako herrietan, Leitzan bezala (B. L.). Imoztik hegoaldera, *EIk ortzilleria* bildu du Txulapaingo Nabatzen (1984: 334-335), eta Aranek *ortzillere* dakar ibar hartarako (2006: 85). Gure eremutik mendebalera, *ostiral* erakoak dira nagusi.

Beraz, *-st-* kontsonante taldea da nagusi gure eremuan, nahiz *-rtz-* bakan batzuk ere aurkitu ditugun Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan. Bi kontsonante taldeen muga gaur egun gure eremuaren mugetan dagoela ikusi dugu: Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, *-rtz-* da nagusi, eta, iparraldera, bi aukerak ageri dira Basaburu Txikiko hegoaldean (are iparralderago, *-rtz-* da nagusi). Hain zuzen, *-rtz-* da nagusi Beintza-Labaienen ondoan den Orokietan ere. Hegoaldera, zenbaitetan trantsizio-kutsua hartu diogu Txulapain ibarrari ere; Sakana aldean, *-st-* erabiltzen da, baina *-rtz-* bada Uharte Arakilen (Zuazo 1995b: 323). Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdean badira *-rtz-* gutxi batzuk, eta ezaugarri hori aintzat hartzekoa iruditzen zaigu; *-st-* da nagusi handik mendebalerako hizkeretan.

8.2.8. Hitz hasierako herskari ahostunak eta ahoskabeak

Hitz hasieran, herskari ahostunak zein ahoskabeak ager daitezke euskaraz. Oro har, ez da izaten bataren edo bestearen aldeko erregulartasun geografikorik (Mitxelena 1977 [1961]: 239):

Ya se ha entrevisto, y los ejemplos podrían multiplicarse, que no es raro que una voz vasca con oclusiva sonora inicial tenga a su lado una variante con sorda, aunque casi siempre en una misma localidad se emplea tan sólo una de ellas, sin vacilaciones: no hay ninguna regularidad, sino a lo sumo mayores o menores frecuencias, en su distribución geográfica. Las formas con sonora son desde luego las más características y, tratándose de préstamos antiguos, se hallan probablemente más extendidas.

Mitxelenari jarraituz, herri bakoitzak beti aukera bera egin ohi du; esan nahi baita, Goldaratzen *koosti* esaten dute beti, eta arraroa da han *goosti* entzutea, edota *kooldio* erabiltzen dute beti Basaburu Nagusiko herri gehienetan, eta ez *gooldio*. Alabaina, beste kasu batzuetan, banaketa ez da hain garbia: *katxari* nahiz *gatxari* entzun dugu guk gerok Arruitzen, edota *konbiatu* nahiz *gonbiatu* Gaintzan.

Ikertzaile batek baino gehiagok ekin diote hitz hasierako herskari ahostunak eta ahoskabeak txandakatzearen arrazoiak bilatzeari. Hualdek Martineten eta Mitxelenaren (1988 [1957]b) proposamenak aztertu ditu (1997c: 411-424): Martinetek eta Mitxelenak proposatu dute aitzineuskararen leherkarien sistema eta gaurko euskararena oso desberdinak direla, eta horregatik sortzen dira, haien ustez, halako txandakatzeak. Baina Hualdek beste hipotesi bat proposatu du (1997c: 419, 423; cf. Martínez Areta 2006)¹⁶⁷:

¹⁶⁷ Hualde mailegu zaharrez ari da batik bat.

Nire iritziz ez dago ebidentzia garbirik azken 2000 urteetan leherkari ahostun eta ahoskabeen izate fonetikoaren erabat aldatu dela pentsatzeko. Leherkari ahostun eta ahoskabeen (edo, nahi badugu ahul eta bortitzen) banaketa erabateko itxuraldaketarik proposatu gabe azal daiteke. (...)

... euskaraz kontsonante-atzetik gertatzen diren asimilazioen ondorioz, hitz-hasieragunean *k-* / *g-* kontrastea galtzeko zorian zegoen garai batean. Geroago, alboko hizkuntzen eraginez, kontrastea indartu da berriro.

Dialektologiari dagokionez, maiz irakurri izan dugu hitz hasieran herskari ahostuna erabiltzeko joera sumatzen dela, oro har, ekialdeko hizkeretan, eta ahoskabea erabiltzekoa, aldiz, mendebaleragoetan. Ildo horretatik, Ibarrek ekialdeko multzora bildu ditu Atetz, Ultzama eta Anue ibarrak, eta mendebalekora, berriz, Imotz eta Basaburu Nagusia (Ibarra 1995a: 195-199)¹⁶⁸. Antzeko parekotasuna ikusi du Zelaietak Bortzirietan (2004: 239): ekialdekoekin batera sailkatu du Bortzirietakoa, Atetz, Ultzama eta Anue ibarrekin batera, eta mendebalera jarri ditu Imotz, Basaburu Nagusia, Goizueta eta Arano.

Bi ikertzaileok emandako adibideetan, ongi aski betetzen da hipotesia: zuzena da *pago*, *pake*, *pozik*, *korputz* edota *koosti* ageri direla Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta *bago*, *bake*, *boxik*, *gorputz*, *gorosti* Atetzen, Ultzaman, Anuen eta Bortzirietan¹⁶⁹. Baina, esate baterako, *gorputz* ere bada Imotzen, *korputz*-ekin batera.

Gainera, beste hitz batzuetan zer gertatzen den aztertuta, kontuak ez daude hain garbi, bietatik, bai ahostun bai ahoskabe, entzun baitugu eremu osoan. Hona, lehenik, hitz hasieran herskari ahoskabea duten adibideak: *prasa* ‘brasa’ (Gol., Etxal., Gai., Azk., In.), *potona* ‘botoia’ (Mus., Beru.), *paltsa* gazt. ‘balsa’ (Oro.), *pertigoa* gazt. ‘vértigo’ (Ig.), *kooldio* ‘goroldioa’ (Er., Gar., Arrar., Ig., Ud., Beru.), *korputz* ‘gorputza’ (Era., Bet., Arri., In., At.), *koosti* ‘gorostia’ (Gol., Era., Etxal., Mus., Beru., Arru.), *konbietu* (Etxal., Ig.) & *konbiatu* (Era., Beru., Gai.) & *konbittu* (Mus.) & *konbidatu* (Gol., Uzt.) ‘gonbidatu’, *karraxi* ‘garrasia’ (Gol., Etxal., Ud., Beru., Bar., Od., Arru., Alb., Bet., In., Gai.), *kurpille* ‘gurpila’ (Gol., Era., Urr., Etxal., Bar., Azp., Bet., Gai., In.), *katxari* ‘gatzagia’ (Arru.), *bee kise usteltzen da* ‘bere gisa usteltzen da’ (Bet.) & *zize kixea* ‘ziza gisara’ (Gai.), *piztu* & *pizto* ‘piztu’ (Ar.-Bet.), *pazko* ‘pazkoa’ (orok.).

¹⁶⁸ Nahiz salbuespenak ere badirela onartzen duen.

¹⁶⁹ Horren ildotik, Moutardek *bago* ‘pagoa’, *bake* ‘bakea’, *bistudut* ‘piztu dut’, *gurutz* ‘gurutzea’ eta *gorputz* ‘gorputza’ dakartza Ultzamako Auza herrirako, eta *pago* eta *pake*, aldiz, Imozko Etxalekurako (1975b: 182).

Hona, orain, hitz hasieran herskari ahostuna dutenak: *gooldio* ‘goroldioa’ (Etxal., Its., Ald., Ui., Gorr., Alb., Erra., Ar.-Bet.), *gorputz* ‘gorputza’ (Gol., Ud.), *gonbittu* (Era.) & *gonbiatu* (Gai.) ‘gonbidatu’, *gurpil* ‘gurpila’ (Mus.), *gatxari* (Gol., Osk., Its., Od., Iri., Arru., Ald., Azp., Erra.) & *gatxeri* (Era., Ui.) & *gatzari* (Ig., Beru., Ud.) & *gatzai* (Erra., Ar.-Bet.) ‘gatzagia’, *gaamelo* gazt. ‘caramelo’ (Gol., Azk.), *gosta(tu)* ‘kostatu’ (Gol., Era., Er., Bar., Gorr., Bet.), *ganbiatu* gazt. ‘cambiar’ (Gai.)¹⁷⁰ & *ganbio* gazt. ‘cambio’ (Azk.) & *asko ganbiatzen da* ‘asko kanbiatzen da’ (Ig.), *biztu* (Gol., Etxal., Its., Er., Gar., Iri., Bar., Ui.) & *bizto* (Ig., Beru., Ald., Gai.) & *bixtu* (Gar.) ‘piztu’, *budiñe* ‘budina’ (Od.), *bexkixen* ‘peskizan’ (Ald.)¹⁷¹, *bikor* ‘pikorra’ (Bet., Gai., In.), *balenka* ‘palanka’ (Gai.), *bazko* ‘pazkoa’ (Mus.), *gonbersazio* gazt. ‘conversación’ (Azk.).

Beraz, ez da zuzena esatea zenbat eta mendebalerago orduan eta ohikoagoa dela hitz hasieran herskari ahoskabea agertzea; horren erakusgarri dira, esate baterako, Araitz-Betelun bildu ditugun *gonbiatu*, *gaamelo*, *gostatu*, *ganbiatu*, *gonbersazio*, *bikor*, *balenka* edota *bizto* aldaerak, ahostundunak guztiak ere. Ildo beretik, kontsonante belar ahostunak zein ahoskabeak bildu ditu Makazagak Elgoibarren (2009: 64-65): *ganbixau* & *kanbixau*, *gonbidau* & *gonbirau* & *konbidau* & *konbirau*, *gonbestazio* & *konbestazio*, *ganbiona* & *kanbiona* & *kamioia*, *kindak* & *gindak*, eta abar.

Hitz hasieran ez ezik, hitz barnean ere txandakatu ohi dira herskari ahostun eta ahoskabeak, baina ez da oso ohikoa (Hualde 1997c: 414). Gure eremuan, *b* / *p* txandaka ageri diren ale batzuk bildu ditugu: *illunbetan* ‘ilunpetan’ (Bar., Gai.), *irakazki* (Gai.) / *iraazki* (Bet.) ‘iragazkia’, *zerpait* (Gar., Er.) & *zerpatte* (Beru., Er., Etxal.) & *zerpattee* (Ui.) / *zerbatte(e)* (orok.) ‘zerbait (ere)’, *noapattea* (Gol., Urr.) & *noapatte* (Ui.) & *noapattee* (Ig., Arru.) / *noabatte* (orok.) ‘norabait (ere)’, *nolapatte* (Oro., Ui.) & *nolapattee* (Arru.) / *nolabatte* (orok.) ‘nolabait (ere)’, *azaripuztana* (Etxal.) ‘azeribuztana (belar mota)’ / *buztan* (orok.) ‘buztana’.

¹⁷⁰ Intzako testu batean ere *ganbiatuz* adibidea ageri da (EAEL, 163. testua).

¹⁷¹ *meikun bexkixen* ‘medikuaren peskizan’ bildu dugu Aldatzen, baina ez dugu hitz horren beste adibiderik, ez herskari ahostunaz ez ahoskabeaz.

8.3. Izenaren morfologia

8.3.1. Singularra eta plurala bereiztea

Atal honetan, gure eremuko hizkeretan deklinabideko singularra eta plurala nola bereizten dituzten aztertuko dugu. Eremua ez da homogenea, eta, ikusiko dugunez, joera bat baino gehiago bereiz daitezke.

Lehenik, eremuko ekialdeko herrietako joera dugu; alegia, Basaburu Nagusiko Erbiti, Gartzaron eta Orokieta, eta Imozko Muskitz biltzen dituen. Herri horietan ez dago singularra eta plurala bereizten laguntzen duen ezaugarririk. Hain zuzen, ekialderagoko joerari lotzen zaizkio herri horiek; Atetz eta Ultzama ibarrei, alegia. Ibarrek berak ondorioztatu du bi ibar horietan erabatekoa dela singularraren eta pluralaren arteko sinkretismoa, eta talde berean sartu du Muskitz herria (1995a: 386-387). Sinkretismo hori honako deklinabide-kasu hauetan ikus daiteke: ergatiboan, datiboan, genitiboan, destinatiboan eta sozietiboan. Hala, gure eremuko ekialdean eta handik ekialderagoko hizkeretan ez dago ezberdintasunik singularraren eta pluralaren artean, eta berdin ahoskatzen dituzte bata zein bestea.

Esate baterako, alorreko lana *idiéki* ‘idiarekin’ egiten zutela kontatu zigun muskiztar batek, eta gazta *eskuéki zapaka* ‘eskuekin zapaka’ prentsatsen zutela. Adibidea garbia da, gure ustez: singularrean zein pluralean, *-éki* da sozietiboko morfema Muskitzen, biek ere azentu bera dutela. Azentuaren kokagunea ez da batere egonkorra; posible da *idiéki* edo *eskuéki* ere ahoskatzea, hala singularrean nola pluralean. Sinkretismoa garbia da Muskizko beste bi adibide hauetan ere: *ezta ona ardiendáko* ‘ez da ona ardiarendako’ eta *ardiendáko korrarea* ‘ardiendako korrara (< gazt. corral)’. Bide beretik doaz Erbitiko, Gartzarongo eta Orokietako errealizazioak ere: esate baterako, Gartzaronen, *semeákin* ‘semearekin’ nahiz *arroltzeákin* ‘arrautzeekin’ bildu dugu, edota *senarrandáko* ‘senarrarendako’ nahiz *bezinoandáko* ‘bezinoendako (< gazt. vecino)’. Nolanahi ere, Erbiti eta Gartzaron ez zaizkio beti-beti eredu horri lotzen, Basaburu Nagusian orokorra den ereduarekin bat egiten baitute batzuetan.

Baina esan dezagun zerbait azentuari buruz. Hualdek ekialdeko azentueraren baitan bildu ditu Ultzamako, Baztango, Esteribarko, Zaraitzuko, Erronkariko, Luzaideko, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako azentuerak (1997a: 73-108). Haren arabera, eskualde horietako azentua

paroxitonoa da oro har; alegia, 2] ereduari jarraituz, azentua azken aurreko silaban ezartzen dute¹⁷². Gamindek sailkapen bera erabili du urtebete geroago, eta Nafarroa Garaiko beste hizkera batzuk gehitu dizkio multzo horri, Imozko Muskitz herria tartean (1998a: 24). Gamindek hiru talde bereizi ditu ekialdeko azentueraren barnean: zuberera, erdi ekialdekoa eta itsas lapurtera (1998a: 20-26). Hain zuzen, erdi ekialdekoaren barnean txertatu du Muskizkoa, eta, haren arabera, azentua txertatzeko eremua talde klitiko da han. Hark dioenez, azentuak ez du balio bereizlerik erdi ekialdeko hizkeretan (1998a: 25):

Pluralari dagokionez, singularraren bide beretik azentuatzen dela esan dezakegu, izan ere, pluraletan ez dago inongo desberdintasunik singularraren aldean. Deklinabidean kasu markek ez daukate inongo eraginik (...).

Ibarrak Etxalekun ezarri du azentuera mota horren muga (1995a: 536); guk, esan bezala, ekialdeko azentuerarako isuria sumatu dugu Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan ere. Halaber, gure datuak bat datoz Hualdek, Gamindek eta Ibarrak jasotako oharrekin. Bestalde, azentuera mota hori Mitxelena III. taldea izendatutakoarekin pareka daiteke (1972: 113-115; cf. Mitxelena 1976b), eta, Martinez Aretaren arabera, II. taldeko azentueratik eratorria dateke (2004: 165-168, cf. G. Elordieta 2010: 15).

Gure azter-eremuko gainerako herrietan, ordea, beste azentuera mota bat erabiltzen dute. Hualdek erdialdeko azentueraren barnean txertatu ditu Imotz eta Basaburu Nagusia, baina ez du argibiderik eman Larraungo eta Araitz-Beteluko azentueraz (1997a: 109-147). Honako hizkera hauek bildu ditu erdialdeko azentueran: Gipuzkoa gehiena, Nafarroako mendebala (Bidasoa), Bizkaiko zenbait eskualde, eta hego-mendebaleko goi-nafarrerara bildu dituen Sakana, Imotz, Basaburu Nagusia eta Basaburu Txikia (1997a: 109-110). Haren arabera, azentuera mota horren arau orokorra [2 da; hau da, azentuaren kokagunea bigarren silaba da gehienetan. Baina, “hego-mendebaleko” hizkera nafar horiek erdialdeko azentuera motan sailkatu baditu ere, eskualde horrek bere-berezko ezaugarriak badituela ohartarazi du Hualdek (1997a: 109-110):

Hemen azentua oso aldakorra da, baina orohar lehen edo bigarren eta azken silaban ezartzen da. Sistema honek antz handiagoa du Erdialdeko sistemekin Ekialdekoekin baino, eta horregatik sartu dugu

¹⁷² Ibarrak argitu du bokalez amaitutako hitz markatugabeetan azken aurreko silaban kokatzen dutela azentua Ultzaman; kontsonantez amaitutakoetan, aldiz, azken silaban kokatzen dute (1995a: 562).

kapitulu honetan. Baina, egia esan, kapitulu berezi bat mereziko luke, arau nagusia desberdina baita. Erdialdeko azentueran *gizóna* dugun bitartean, Nafarroako eskualde honetan *gízoná* dugu normalean.

Gamindek ere erdialdeko azentueraren barnean txertatu ditu gure eremuko hizkerak, baina beste bereizkuntza bat ere egin du berak: erdialdeko azentueraren baitan, erdiko eredura bildu du Araizko Gaintza herria, Gipuzkoako hizkerekin eta Nafarroako ipar-ekialdeko hizkerekin batera, eta hego-mendebaleko nafarreraren multzora, berriz, Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraun ibarrak, Sakanako, Arakilgo, Burundako eta Basaburu Txikiko hizkerekin batera (1998a: 27-29). Hark ere gure eskualdeko azentueraren berezitasunak azpimarratu ditu, eta, haien artean, azentua bereizlea izatea aipatu du. Gamindek dioenez, multzo horiek ez dira batere homogeneousak, eta hizkera bakoitza banaka aztertzekoa litzateke. Mitxelenaren sailkapenean, I. motako azentuera izango litzateke Gamindek aipatzen duen erdialdeko azentuera (1972: 111-112): haren ustez, mota horretakoa erabiltzen dute Gipuzkoa gehienez, Bizkaiko zati handi batean eta Gipuzkoa ondoko hizkera nafarretan.

Araitz-Beteluko, Larraungo, Basaburu Nagusiko eta Imotz gehieneko azentuerari erreparatuko diogu. Gamindek adierazi duen bezala, hizkera horietan, azentuak badu balio bereizlea: besteak beste, morfologian singularra eta plurala bereizteko balio du. Hualdek honela deskribatu du azentuera mota hori (1997a: 141):

Eskualde honetan, normalean azentua hitzaren lehen eta azken silaban ezartzen da, hitz isolatuetan: *álabá*, *éskolatik*. Azentua bigarren silaban egon daiteke, lehendabizikoan ezarri ordez: *eskólatik*. Antza denez, [+1, -1] patroia, [+2, -1] patroia baino erabiliagoa da, edo maiztasun handiagoa du (cf. Hualde 1991: 173, Gaminde 1995e eta Artola 1992, Ihabarko datuak batez ere). Bi azentuak, hasierakoa eta bukaerakoa, maila berean egon daitezke, *álabá*; lehendabizikoa bigarrena baino prominenteagoa izan daiteke, *álabà*; edo alderantziz, *àlabá*. Bi azentuetarik bat bakarrik entzun daiteke gainera. (...)

Gerok entzun eta bildu dugunez, oro har, bi azentu mota bereiz daitezke Imotzen (salbu Muskitz), Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun: lehen mailakoa edo prominentzia (´) eta bigarren mailakoa (˘). Hualderen hitzak erabiliz, guk entzun eta bildu dugunaren arabera, [+2, -1] ereduari jarraitzen dion azentuera mota da nagusi gure eskualdean, nahiz eta bigarren mailako azentua mugikorra den (aurrerago zehaztuko dugu hori; cf. Hualde 1997a: 141).

Hala, oro har, singularreko formetan, lehen mailako azentua hitzaren lehen silaban kokatzen da, eta bigarren mailakoa, berriz, azken silaban; pluraleko formetan, lehen mailako azentua azkeneko edo azken-aurreko silaban dago, eta bigarren mailakoa, berriz, lehenbizikoan (ikus, aurrerago, adibideak). Dena den, Hualdek dioen bezala (ikus arestiko aipua), alderantzizkoa ere gerta daiteke —alegia, lehen mailakoa azken silaban eta bigarren mailakoa lehenbizikoan—, eta halaber gerta daiteke bi azentuak maila berean egotea, bietariko bat nabarmendu gabe.

Baina eremu horretan bada deklinabideko singularra eta plurala bereizteko beste modu bat ere: bokal soilak eta bokal luzeak. Azentuerekin batera, bokal soil eta luzeen bitartez singularra eta plurala bereizten dituzte Imozko Goldaratzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun: bokal luzea erabiltzen dute singularreko formetan, eta soila, aldiz, pluralekoetan. Goldaratz ez beste Imozko herrietan ez dago halakorik, eta soilik azentuerearen araberakoa da bereizkuntza (salbu Muskitzen, gorago esan dugunez ez baitago bereizkuntzarik). Alde horretatik, trantsizio gune ditugu Imozko tarteko herriak. Singularrean bokal luzeak agertzea atzera egiten ari den ezaugarria da; gure eremuan, oraindik orain badu indarra, baina galtzera egin du beste leku batzuetan: esate baterako, XX. mendearen hasieran, absolutibo singularrean baziren *arreebaa* eta *neskaa* erakoak Gipuzkoako hainbat lekutan, eta *arreebaak* eta *neskaak* pluralean (EI 1926: 46), baina gaur egun galdua da ezaugarri hori.

Kasuz kasu egiaztatuko dugu goian esandakoa, gerok bildutako adibideekin. Ergatiboan, honako adibide hauek ditugu singularrean: *álkatiik manatzen tzuna* ‘alkateak manatzen zuena’ (Arrar.), *érrriik zer nai zun* ‘herriak zer nahi zuen’ (Arrar.), *oi itten tzun érrrotariik* ‘hori egiten zuen errotariak’ (Arrar.), *oan bezalako usaie izando balu ordun óngarriik* ‘orain bezalako usaina izan(du) balu orduan ongarriak’ (Beru.), *jéndeèk ematen tzuna* ‘jendeak ematen zuena’ (Iri.), *pérsonaàk aurre izan ondorean* ‘pertsonak haurra izan ondoren’ (Arri.). Pluralean, berriz, hauek ditugu: *bèiék itten tzuten lan oi* ‘behiek egiten zuten lan hori’ (Gol.), *sèmik eamaten ttiote* ‘semeek eramaten dizkiote’ (Ud.), *màxúk itten tzuen liste* ‘maisuek egiten zuten lista’ (Arri.).

Datiboan, *be ándriiri* ‘bere andreari’ (Gol.), *józaliiri* ‘jotzaileari’ (Gol.), *úkulluùri* ‘ukuiluari’ (Bar.), *txérriri* ‘txerriari’ (Alb.), *sókaàì emán* ‘sokari eman’ (Gorr.), *ámaàì* ‘amari’ (At.), *ártzài béteèì* ‘artzain bati’ (In.) ditugu singularrean, eta pluralean, berriz, *nèskái* ‘neskari’ (Gol.), *gàztañéì* ‘gastainei’ (Arrar.), *òndokoái* ‘ondokoei’ (Bet.), *árdlii* ‘ardiei’ (Gai.), *txèrrli* ‘txerriei’ (Azk.).

Genitibo kasuan, *miure bille úrritzeèna* ‘mihura bila urritzarena’ (Gol.), *zun ámandriìn àmà* ‘zuen amandrearen ama’ (Gol.), *érremalatxaàn ázalà* ‘erremolatxaren azala’ (Gol.), *Juán Joxeèn áttè* ‘Juan Joxeren aita’ (Arrar.), *mórkotsaàn úrè* ‘morkotsaren ura’ (Iri.), *trípeèn páriìn* ‘triparen parean’ (Arru.), *txékorraàn íztarrà* ‘txekorraren izterra’ (Uzt.), *élorriìn gáñeàn* ‘elorriaren gainean’ (Arri.) dira singularreko formak, eta *ùmínak* ‘umeenak’ (Ig.), *gàrostoának* ‘garo-hostoenak’ (Gai.) gisakoak, aldiz, pluralekoak.

Destinatiboan, *ándriìndako* ‘andrearendako’ (Ud.), *álabaantzàt* ‘alabarentzat’ (Ig.), *átteentzàt* ‘aitarentzat’ (Iri.), *bákoitzeèntzat* ‘bakoitzarentzat’ (Alb.), *píxeentzàt* ‘pixarentzat’ (In.) ditugu singularrean, eta *màixúntzat* ‘maisuentzat’ (Gol.), *txèrríntzat* ‘txerrientzat’ (Ui.), *bèsténtzat* ‘besteentzat’ (Erra.), *bìxikéntzat* ‘bixikentzat’ (In.) pluralean. Bigarren mailako azentuaren kokagunea ez da oso finkoa destinatibo singularraren kasuan, eta, horregatik, *bákoitzeèntzat* nahiz *bákoitzeentzàt* gisakoak entzun daitezke.

Soziatibo kasuan, singularreko adibideak ditugu *taátuluùkin* ‘daratuluarekin’ (Gol.), *lúrreèkin* ‘lurrarekin’ (Its.), *bázkariìkin* ‘bazkariarekin’ (Arrar.), *bízikletaàkin* ‘bizikletarekin’ (Beru.), *otxéntaiotxookèñ* gazt. ‘con ochenta y ocho’ (Ig.), *éskuukèñ* ‘eskuarekin’ (Iri.), *síukìn* ‘suarekin’ (Arru.), *árraultzeèkin* ‘arraultzarekin’ (Arru.), *bélauneèken* ‘belaunarekin’ (Ald.), *kárrakaàkin* ‘karrakarekin’ (Gai.), eta pluralekoak, berriz, *pòrrúkin* ‘porruekin’ (Ud.), *èskúkiñ* ‘eskuekin’ (Iri.), *bùuxikin* ‘guraizeekin’ (Arru.), *òsiñekín* ‘osinekin’ (At.). Kasu horietan ere, bigarren mailako azentua mugikorra da singularreko formetan, eta, beraz, *bázkariìkin* nahiz *éskuukèñ* gisako azentuerak entzun daitezke.

Adibide gehiago erakuts genitzake, baina iruditzen zaigu emandako horiekin aski dela gure eremuko azentuaren ezaugarriez jabetzeko. Muskitz ez beste herrietako ereduaz orain arte esandakoa laburbilduko dugu:

Batetik, singularraren eta pluralaren bereizkuntza garbia da bokalen ezaugarri nabarmen batean: bokal luzeak ageri dira singularreko formetan, eta bokal soilak pluralekoetan. Bestetik, singularreko formetan, lehen mailako azentua (´) lehenbiziko silaban dago, eta bigarren mailakoa (˘), berriz, bokal luzeetatik bigarrenengan kokatu ohi dute, nahiz eta hitzaren azken silaban ere joan

daitekeen; pluraleko formetan, lehen mailako azentua azken edo azken-aurreko silaban dago, eta bigarren mailakoa, berriz, lehen silaban. Gorago ere esan dugunez, eredu horri jarraitzen diote Imozko Goldaratzek, Basaburu Nagusiak, Larraunek eta Araitz-Beteluk. Gure ondorioek Ibarrak Imotz eta Basaburu Nagusia ibarrez esandakoekin bat egiten dute (1995a: 369).

Honela interpretatu ditu Hualdek halako errealizazioak (1997a: 142):

Adibideotan, singularrean bokal luze bat dugu, baina eskualde honetako azentuera markatugabea da. Pluralean, aldiz, bokala laburra da eta azentua kontrazioa jasotzen duen silaban kokatzen da. Ziur asko, singularraren bokal luzeak pluralaren kontrazioa baino berriagoak dira. Hau da, *porruak* > *porrúk* bilakaera pluralean, *porrua* > *porruu* asimilazioa baino zaharragoa da. Agian garai batean pluralean ere bokal luzeak aurkitzen ziren, singularrean sortu baino lehen, eta bokal luze horiek azentua erakarri zuten historikoki: *porruak* > *porruuk* > *porrúk*.

Imozko tarteko herriak trantsizio gune direla esan dugu. Izan ere, azentua bereizlea da hango hizkeran, baina ez dago bokal luzeen eta soilen arabera bereizkuntzarik. Gainera, zenbaitetan, bi azentuerak —ekialdekoa eta erdialdekoa— gurutzatu egiten dira han, eta hiztun berak, solasaldi berean, azentuera batetik bestera salto egiten duela irudi du batzuetan.

Bokal luzeen eta soilen bereizkuntza ergatiboan, datiboan, genitiboan, destinatiboan eta sozietiboan gauzatzen dela esan dugu; gainerako deklinabide-kasuetan —alegia, leku-denborazko kasuetan—, ez dago bokal luze eta soilik, *-eta-* ohiko morfema ageri baita pluralean (adibidez, *belar-metan* ‘belar-metan’ / *belar-metetan* ‘belar-metetan’). Nolanahi ere, inesibo kasuan, bokal luzea ahoskatzen dute maiz Goldarazko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko hiztunek, nahiz singularra eta plurala bereizteko ez izan: *musiin* ‘musean’ (Gol.), *bakotxak bee itxiin* ‘bakoitzak bere etxean’ (Gol.), *sartaniin* ‘sartanean’ (Arrar.), *gabiin* ‘gauean’ (Arrar.), *laniin* ‘lanean’ (Arrar.), *beanduun* ‘beranduan’ (Ig.), *ordun ematen tzen moduun* ‘orduan ematen zen moduan’ (Ig.), *ostatuun* ‘ostatuan’ (Beru.), *baztarreen* ‘bazterrean’ (Beru.), *ultziin* ‘ultzian’, *bi orduun* ‘bi orduan’ (Beru.), *joan den urtiin* ‘joan den urtean’ (Its.), *goiziin* ‘goizean’ (Od.), *doñuun* ‘doinuan’ (Iri.), *aldapeen* ‘aldapan’ (Iri.), *go etxeen* ‘gure etxean’ (Bar.), *bi gizonan erdiin* ‘bi gizonen erdian’ (Bar.), *Azpikoetxeen* ‘Azpikoetxean’ (Ald.), *atzeneko orduun* ‘azkeneko orduan’ (Ald.), *eskasiin* ‘eskasian’ (Arru.), *suun* ‘suan’ (Arru.), *aspaldiin* ‘aspaldian’ (Alb.), *eskeen* ‘eskean’

(Ui.), *sokaan* ‘sokan’ (Gorr.), *arriin* ‘harrian’ (Erra.). Halakoak erruz ageri ziren Ataunen XX. mendearen hasieran (Azurmendi 1996: 62).

Ohar gisa adierazi nahi dugu, Araitz-Betelun, *-i-z* edo *-u-z* amaitutako hitzetan, bokal luzeen eta soilen araberako bereizkuntzaren ordeztu, mugatzailea bera ageri dela singularreko formetan (eta ez bokal luzea): *su-arriekin* ‘su-harriarekin’ (Gai.), *burniekin* ‘burdinarekin’ (Arri.), *obiekin* ‘ogiarekin’ (Arri.), *gatza larriekin* ‘gatz larriarekin’ (At.), *tellatuekin* ‘teilatuearekin’ (In.), *ardiena* ‘ardiarena’ (Gai.), *errien erdie* ‘herriaren erdia’ (Azk.), *ardien estea* ‘ardiaren hestea’ (Gai.), *gariantzat* ‘gariarentzat’ (Gai.), *jende guzientzat* ‘jende guztiarentzat’ (In.), *razionamentuentzat* ‘errazionamenduarentzat’ (Uzt.), *ubelduentzat* ‘ubelduarentzat’ (In.), eta abar. Joera bera sumatu dugu Larraungo ipar-mendebaleko herrietan ere: *ardi-larruekin* ‘ardi-larruarekin’ (Ui.).

Bestalde, azentuaren balio bereizlea eta bokal luze eta soilen araberako bereizkuntza galtzen ari da gazteen mintzoan. Sakonago aztertu beharko litzateke hori; baina, gerok ezagutu eta entzun dugunaren arabera, gazteen artean gero eta handiagoa da singularreko eta pluraleko formen sinkretismoa (ikus 8.1.1. atalean bukaera aldera Goldarazko gazteen hizkeraz egindako oharra: *màniì / maní, iñen duù / iñen dú*, eta abar). Joera horixe bera sumatu dute Gamindek eta Hualdek Euskal Herriko beste eskualde batzuetan ere (1995: 176):

Zenbait eskualdetan azentubidea aldatzen ari da. Orduan, kasu batzuetan gerta daiteke ematen dugun azentuera ez izatea bakarria herri horretan. Eskuarki, azentua aldatzen ari den eskualdeetan, aldakuntza kontraste fonologikoak murriztearen aldekoa da. Hau da, gero eta azentuzko bereizketa fonologiko guttiago egiten dira.

Zehazki, Azpeitiko eta Errenteriako kasuak aipatu dituzte (cf. Hualde 1997b: 439-441).

Laburbilduz, bi talde nagusi bereizi ditugu gure eremuan: batetik, ekialderagoko joerarekin batera dugu Imozko Muskitz (eta baita, nahiz ez erabat, Basaburu Nagusiko ekialdeko herriak ere), ekialdeko azentuera mota duena eta singularraren eta pluralaren artean bereizkuntza morfologiko agerikorik ez duena. Bestetik, erdialdeko azentueran sailka daitezke gainerako herriak (Imotz gehiena, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu), baina betiere kontuan izanik azentuera berezia dela talde horren barnean, bi azentu mota bereizten baitituzte oro har; horrez gain, bokal soil

eta luzeen araberako bereizkuntza morfologikoa du ezaugarri eremu horrek. Eredu horrek kidetasun handiak ditu Sakana aldeko, Basaburu Txikiko, Leitzako edota Goizuetako ereduarekin.

Singularra eta plurala bereiztea

	Azentuaren bitartez	Bokal soilen eta luzeen bitartez
Muskitz (eta Basaburu Nagusiko ekialdea)	EZ	EZ
Imozko tarteko herriak	BAI	EZ
Goldaratz, Basaburu Nagusi gehiena, Larraun eta Araitz-Betelu	BAI	BAI

Gure eremuko azentuak azterketa sakonagoa merezi luke; horixe azpimarratu izan dute beste ikertzaile askok ere (Gaminde eta Hualde 1995: 177-178; Hualde 1997a, 1997b eta 2006a; Gaminde 1998a eta 1998b). Gure eremutik hurbil, Goizuetako azentuera aztertu dute Hualde eta Lujanbio ikertzaileek (2008), eta ondorio interesgarriak ekarri dituzte; on litzateke halako ikerketa bat gure eremuan ere egitea. Baina gure helburua izan da gure eremuan singularra eta plurala nola bereizten dituzten ebaztea, eta, horretarako, baitezpadakoa suertatu zaigu azentuaren balio bereizlea eta ez-bereizlea aipatzea. Alabaina, ez gara haratago joan, azentuaren alderdi guztiak aztertzeak tesi oso baterako gaia emango bailiguke.

8.3.2. Erakusleak

a. Lehen eta bigarren graduko erakusleak

Lehen graduko erakusleak *au* ‘hau’ eta *ok* ‘hauek’ dira gure eremuko lau ibarretan (kasu batzuetan, *au* > *ao* bihurtu da). Forma horiexek berak ageri dira, gainera, inguruko hizkeretan ere. Nafarroa Garaiko testu zaharretan, ohikoa da *ok* forma, bai behinik behin Iruñeaz gorako testuetan (cf. Camino 1999: 57-58); Nafarroa Beherean, XVI. mendetik aurrera ageri da *ok*, Lapurdin ez bezala, *hauk* gisakoak baitaude han (Camino 2008b: 132).

Bigarren gradukoetan, *oi* eta *oe* ‘hori’ ditugu singularrean, eta *oik* eta *oiek* ‘horiek’ pluralean. *oi* eremu osoan erabiltzen da, eta *oe*, berriz, *i* > *e* bokal-irekitzea bizkorra den herrietan —alegia, Basaburu Nagusiko zenbait herritan, Larraunen eta Araitz-Betelun (ikus 8.1.5.)—. Hona *oe*

erakuslearen zenbait agerraldi: *oe paa zazo* ‘hori para ezazu’ (Beru.), *oe txarra da osasuneako* ‘hori txarra da osasunerako’ (Bar.), *salto itten dun oe da* ‘salto egiten duen hori da’ (Ui.), *azinda klase oe* ‘azienda klase hori’ (Ui.), *argizari ori oe etxea ekartzen tzenean* ‘argizari hori hori etxera ekartzen zenean’ (Gai.), *nik oe ezautut etxean d’iñe* ‘nik hori ezagutu dut etxean-eta egina’ (Azk.), *espartzu-sok oe itten tzuen* ‘espartzu-soka hori egiten zuten’ (Bet.).

Bigarren graduko erakusle pluralari dagokionez, orokorra *oik* da gure eremuan, baina *oiek* murriztu gabea ere entzun daiteke gure eremuko ekialdeko Oskotz, Etxaleku, Muskitz eta Orokieta herrietan (cf. 8.1.11.). Forma horixe erabiltzen dute, hain zuzen, Imoztik ekialdera dauden Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 327-328).

Lehen eta bigarren graduko erakusleek, beraz, ez dute berezitasun handirik, inguruko hizkeretan ageri diren forma bertsuak ageri baitira gure eremuan ere.

b. Hirugarren graduko erakusleak

ue ‘hura’ da gure eremuko lau ibarretan gaur egun gehien entzuten den hirugarren graduko erakusle singularra (Gorritiko adibidea: *ue izeten tzen letxeroa* ‘hura izaten zen letxeroa (esneketaria)’), eta *ure* ere bada, hala nola Orokietan (*ure gizaki ona zen* ‘hura gizaki ona zen’). Baina ez da aukera bakarra. Izan ere, *ore* ere bildu dugu Goldaratz ez beste Imozko herrietan eta Basaburu Nagusiko Itsason, Gartzaronen, Erbitin eta Orokietan. Alegia, eremuko ekialdeko herrietan jaso dugu *ore*. Hona adibideak¹⁷³: *ore neskazar geldittu zen* ‘hura neskazahar gelditu zen’ (Lat.), *putzu in, ta, geo, ore pozalakiñ ustu ta amorraie arpatu* ‘putzu(a) egin, eta, gero, hura pozalarekin hustu eta amuarraina harrapatu’ (Lat.), *gio andik Madrیده joan tzen famili ore* ‘gero handik Madrila joan zen familia hura’ (Lat.), *ore zen parientea* ‘hura zen parientea’ (Era.), *neetako etzen ona ore* ‘niretako ez zen ona hura’ (Etxal.), *Donostin eondu nitzen beste amaost iunes ola, aizpe at gaiskittu ta ore sendatu bittartean* ‘Donostian egon(du) nintzen beste hamabost egunez hola, ahizpa bat gaizkitu eta hura sendatu bitartean’ (Etxal.), *ore ospitalea iaman izain tzuten* ‘hura ospitalera eraman izanen zuten’ (Etxal.), *guk ore ikusten giñun laixterrean Arralde bera* ‘guk hura ikusten genuen laisterrean Arralde behera’ (Etxal.), *ore nik uste audogo zen* ‘hura nik uste agudoago zen’ (Etxal.), *gizon ore ona zen* ‘gizon hura ona zen’ (Etxal.), *ore etzen iñongana atreitzen joatea* ‘hura ez zen inorengana atrebitzen joatea’ (Etxal.), *zementue bezala in, ta ore kerte guzitan jarri*

¹⁷³ Oharra: ez dugu nahasi behar gorago azaldu dugun *oe* ‘hori’ bigarren graduko erakusle-formarekin.

‘zementua bezala egin, eta hura kerte¹⁷⁴ guzietan jarri’ (Etxal.), *ore zen lixuondoa* ‘hura zen lixuondoa’ (Etxal.), *ore eamatea joan nitzen ni aldi betes Goldaatza* ‘hura eramatera joan nintzen ni aldi batez Goldaratza’ (Osk.), *meiku ona zen ore* ‘mediku ona zen hura’ (Osk.), *suen itten tzen auts oi bildu, ta arrai betzuk ore botzen giñun sorotan* ‘suan egiten zen hauts hori bildu, eta arrai (marra) batzuk hura botatzen genuen soroetan’ (Mus.), *ore zen ttikiaugoa* ‘hura zen ttikiagoa’ (Mus.), *olloan arrotza bota urea, ta, ore goa asten tzelaik, aski zen* ‘olloaren arrautza bota urera, eta, hura gora hasten zelarik, aski zen’ (Mus.), *apeza biño makurreo zen alkatea; ore zen makurrena* ‘apeza baino makurragoa zen alkatea; hura zen makurrena’ (Mus.), *ore da Mendurro* ‘hura da Mendurro (mendi-izena)’ (Mus.), *ore zen kofradiena* ‘hura zen kofradiarena’ (Mus.), *ore... puuxi zen ure* ‘hura... guraizea zen hura’ (Its.), *goitixko da, e! Itxe ore da* ‘goitixko da, e! Etxe hura da’ (Gar.), *aotza, pues, gari... makill oi, ta autse, beis, auts ore* ‘agotza, pues, gari... makila hori, eta hautsa, berriz, hauts hura’ (Gar.), *toki ore* ‘toki hura’ (Gar.), *gero ezkondu zen ore* ‘gero ezkondu zen hura’ (Er.), *bander ore in tzuten erre eskolako atarin* ‘bandera hura egin zuten erre eskolako atarian’ (Er.), *ore paatu zuten gie bezala* ‘hura paratu zuten gida bezala’ (Er.), *ore urtero gukin yoaten tzen* ‘hura urtero gurekin joaten zen’ (Er.), *ore yoan tzen, ta gero izandu giñuzen iru-lau maestra* ‘hura joan zen, eta gero izan(du) genituen hiru-lau maistra’ (Er.), *gero kendu dena ore ta bildu pikorra dena* ‘gero kendu dena hura eta bildu pikorra dena’ (Er.), *ore lan itteko ona da* ‘hura lan egiteko ona da’ (Oro.). Gainera, *EAELk gizon ore* ‘gizon hura’ adibidea dakar Gartzaronerako.

Caminok Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarritzat hartu du *ore* erakuslea, eta ederki zehaztu du haren hedadura (1999: 56-57 eta 2003a: 86): Goñerrian, Ollaranen, Arakilen, Oltza zendea, Txulapainen, Atetzen, Odietan, Ezkabarten, Ultzaman eta Anuen ageri da, eta ez da ageri hegoalderagoko Eguesibarren, Itzarbeibarren eta Gesalätzen, ez eta ekialderagoko Erroibarren, Artzibarren eta Aezkoan ere. Beraz, Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera eta hegoaldera erabiltzen dute, baina baita, gerok egiaztatu dugunez, Imozko eta Basaburu Nagusiko zenbait herritan ere. Caminok berak dio *ore*-rekin batera *ure* ageri dela Goñerrian (1999: 57), eta gauza bera dakar Ibarrek Ultzamarako (Ibarra 1995a: 327-328); Imotzen eta Basaburu Nagusian, ikusi dugunez, *ue*-rekin batera ageri da. Larraundik eta Araitz-Betelutik iparraldera, *ue* dugu Areson, eta *ure* Leitzaan (Olano 1998: 125-126, 141). *ore* formari dagokionez, *OEHk* Ultzama-Gulibar aldekotzat jotzen du, eta XVIII. mendean hasten da testuetan agertzen¹⁷⁵.

¹⁷⁴ ‘arteka, artesia’ esan nahi du.

¹⁷⁵ Irigoienek dioenez, Bergara aldean iraun duen *aura* formarekin loturik dago *ore*; alegia, (*h*)*aura* > *aure* > *ore* (1981: 392); K. Etxabek esan digunez, Bergaran *aura* eta Azkoitian *aure* erabiltzen dira gaur egun.

Bestalde, *ube* ere entzun dugu Berueten, eta *ube* eta *obe* Betelun. Hona bi herri horietan bildutako zenbait adibide: *ube oso ona zen* ‘hura oso ona zen’ (Beru.), *ube zea ateken* ‘hura zera batekin’ (Beru.), *ube Tafallan zen* ‘hura Tafallan zen’ (Beru.), *miñ ube geigo enun izando* ‘min hura gehiago ez nuen izan(du)’ (Beru.), *ez itz eitteko beiñ ee ube* ‘ez hitz egiteko behin ere hura’ (Beru.), *beatz obe* ‘behatz hura’ (Bet.), *bend obe* ‘benda hura’ (Bet.), *ur obe esaten due dela ona korrimentue kortatzeko* ‘ur hura esaten dute dela ona korrimentua (beherakoa) kortatzeko (mozteko)’ (Bet.), *salda obe* ‘salda hura’ (Bet.). Baraibarren ere bildu izan dute aldaera hori (Nafarroako Gobernua 2005: 68-71): *ube nasteko* ‘hura nahasteko’, *esne ube eose* ‘esne hura egosi’, *osiñek jartzin zittuin*, *ube garbitzeko* ‘osinak jartzen zituzten, hura garbitzeko’. Halakorik ez dago inguruko hizkeretan, eta aldaera fonikotzat hartu behar delakoan gaude.

Pluralean, *aik* ‘haiek’ da gure eremuko aukera orokorra, baina badira salbuespenak. Imozko Goldaratzen, *orek* bildu dugu behin, eta Latasan *orik*, beste behin: *denboa izaten tzen mozteko orek* ‘denbora izaten zen mozteko haiek’ (Gol.), *tabernan itten tzen orik* ‘tabernan egiten ziren haiek’ (Lat.). Gorago azaldutako *ore* singularrarekiko analogiaz sortuak dirudite forma horiek. Esan bezala, bi adibide horietan baino ez dugu entzun; izan ere, *aik* erabiltzen dute Imotzen, eta *aiek* ere entzun daiteke ibarraren ekialdean dauden Oskotz, Etxaleku eta Muskitz herrietan, eta baita Basaburu Nagusiko ekialdean ere (cf. 8.1.11.). Hain zuzen, Ultzamatik hurbilen dauden herrietan ageri da forma “osoa”, *aiek* baitago Ultzaman ere (Ibarra 1995a: 327-328). Larraunen, *aik* bildu dugu kasu guztietan, eta, Araitz-Betelun, *aik* eta *aek* erabiltzen dituzte (*i > e* bokal-irekitzearen ondorioz sortua da *aek*; alegia, *aiek > aik > aek*).

c. Hirugarren graduko erakusle singular deklinatua

Hirugarren graduko erakuslea deklinatzean, dardarkari hobikaria duten formak erabiltzen dituzte eremu osoan: *arren partes* ‘haren partez’ (Lat.), *arren saldaakin* ‘haren saldarekin’ (Gol.), *eztakit nola dun izena arrek* ‘ez dakit nola duen izena hark’ (Mus.), *mazaakin jo arrei* ‘mazarekin jo hari’ (Ud.), *arrei beire* ‘hari begira’ (Oro.), *arrendako izain tzen* ‘harendako izanen zen’ (Its.), *arrek nola zun izena?* ‘hark nola zuen izena?’ (Beru.), *arrek izena zun Jexuxa* ‘hark izena zuen Jexuxa’ (Od.), *iriñ obeen arrekin* ‘irin hoberen harekin’ (Bar.), *amak askotan eosten tzion arrei* ‘amak askotan erosten zion hari’ (Ald.), *bizie ematen tzion etxe arrei* ‘bizia ematen zion etxe hari’ (Ui.), *arrei eurre sartzen tziñion* ‘hari egurra sartzen zenion’ (Azp.), *arrei zulo at eiñ* ‘hari zulo bat egin’

(At.), *su atea zun beor-kaka arreakiñ* ‘su atera zuen behor-kaka harekin’ (Gai.).

Alabaina, ttak-ez osatutako (eta hura galdutako) formak ere ageri dira Larraunen eta Araitz-Betelun: *a(r)en apellidoa nola zen ue?* ‘haren apellidoa (< gazt. apellido) nola zen hura?’ (Gorr.), *arek kantatzen tzun* ‘hark kantatzen zuen’ (Gorr.), *aekin galtzerdik eiñ* ‘harekin galtzerdiak egin’ (In.), *pregon in, da, geo, aengana joan* ‘pregoi egin, eta, gero, harengana joan’ (Gai.), *tresnak ona ekartzen zittun aen attek* ‘tresnak hona ekartzen zituen haren aitak’ (Bet.).

Euskal Herriko eremu zabalean erabiltzen dira bai hobikariaz bai ttak-ez osatutako formak; ez dute eremu finkorik. Gure eremuko inguruko hizkeretan ere, bietatik erabiltzen dituzte. Diakroniari dagokionez, Pagolak dio XVII. mendeko testuetan beretan ageri direla Nafarroa Garaiko testuetan *arren* gisako formak (1995: 287).

d. Erakusle plural deklinatuak

Erakusle plural deklinatuetan, pluralari dagokion *-k-* morfema bere horretan gelditu da Imotzen eta Basaburu Nagusiko herri batzuetan (*oketan, oiken, aikengana...* ikus adibideak aurrerago). Imozko herri guztietan bildu ditugu halako adibideak, eta, Basaburu Nagusiari dagokionez, isoglosatik kanpo daude iparraldeko herriak; alegia, Igoa, Arrarats eta Beruete. Hiru graduetako erakusle pluralen adibideak ikusiko ditugu, herriz herri:

- *ok* ‘hauek’ deklinatua:

erri oketan ee txerri gutxi iltzen da ‘herri hauetan ere txerri gutxi hiltzen da’ (Gol.), *itxe oketakoak* ‘etxe hauetakoak’ (Gol.), *ume okei* ‘ume hauei’ (Gol.), *oken ama* ‘hauen ama’ (Gol.), *oken aitte* ‘hauen aita’ (Urr.), *okei* ‘hauei’ (Urr.), *erreka aundi oketan ez, ordea* ‘erreka handi hauetan ez, ordea’ (Lat.), *joan den bi o iru urte oketan* ‘joan den bi edo hiru urte hauetan’ (Zarr.), *lau urte oketan* ‘lau urte hauetan’ (Era.), *eun oketan* ‘egun hauetan’ (Osk.), *joatekoak gaa iun oketan* ‘joatekoak gara egun hauetan’ (Osk.), *azkeneko urte oketako* ‘azkeneko urte hauetako’ (Osk.), *erri oketan* ‘herri hauetan’ (Osk.), *ume okeri beti euskeas itten diotet* ‘ume hauei beti euskaraz egiten diet’ (Osk.), *inguru oketan* ‘inguru hauetan’ (Etxal.), *San Juan oketan* ‘San Juan hauetan’ (Etxal.), *oketatik* ‘hauetatik’ (Etxal.), *oken atte joan tzen* ‘hauen aita joan zen’ (Etxal.), *urte oketan* ‘urte hauetan’ (Mus.), *okei* ‘hauei’ (Mus.), *inguru oketaa* ‘inguru hauetara’ (Mus.), *etzen beste oketan bezala obligazioa* ‘ez zen beste hauetan bezala obligazioa’ (Mus.), *erri oketan* ‘herri

hauetan' (Its.), *liburu oken ondoan* 'liburu hauen ondoan' (Its.), *ume oken atte* 'ume hauen aita' (Its.), *iun oketan* 'egun hauetan' (Gar.), *pest oketan* 'festa hauetan' (Er.), *azkeneko urte oketan subentzioak izaten dee* 'azkeneko urte hauetan subentzioak izaten dira' (Oro.), *itxe zar oketan* 'etxe zahar hauetan' (Oro.), *itxolan ezta iñor eoten emen inguru oketan* 'etxolan ez da inor egoten hemen inguru hauetan' (Oro.), *nik neonek eman nun abisoa erri okei* 'nik neronek eman nuen abisua herri hauei' (Oro.), *oketakoa* 'hauetakoa' (Ud.), *oken atte izain da* 'hauen aita izanen da' (Ud.).

- *oik* 'horiek' deklinatua:

oiken atte 'horien aita' (Gol.), *bara oiken gañin* 'bara horien gainean' (Gol.), *sala de fiestas ta oiketaa yoaten tziñen* 'sala de fiestas eta horietara joaten zinen' (Gar.), *karretera baztar oiketana* 'karretera baztar horietan' (Gar.), *zen pariente zerbate oikena* 'zen pariente(a) zerbait ere horiena' (Er.), *oiken gurasoak* 'horien gurasoak' (Ud.), *oiken arreba* 'horien arreba' (Ud.).

- *aik* 'haiek' deklinatua:

aikena zen 'haiena zen' (Gol.), *aikeni denai bazkarii eman bea[r]* zitzaioten 'haiei denei bazkaria eman behar zitzaien' (Gol.), *aiken ama* 'haien ama' (Gol.), *ume aiken abitazioa* 'ume haien habitazioa (< gazt. habitación)' (Era.), *aikeni bazkari paatu* 'haiei bazkaria paratu' (Era.), *usari patu aikendako* 'gosaria paratu haiendako' (Era.), *aiken ama oso ona yun* 'haien ama oso ona zuan' (Its.), *aikekin* 'haiekin' (Gar.), *erriko bi-irru gizon aikeni eakustea* 'herriko bi-hiru gizon haiei erakustera' (Ud.).


Izenordain indartuarekin ere jaso dugu ezaugarri hori: *geokekin* 'geronekin' (Osk.), *geoken iuntzin* 'geronen pentzean' (Gol.), *geoken denbo guzin izautu ut ori* 'geronen denbora guzian ezagutu dut hori' (Etxal.), *geokena* 'geronena' (Oro.), *geoken terrenoa* 'geronen terrenoa' (Ig.).

Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraunen eta Araitz-Betelun, aldiz, *-k-* morfemarik gabeko formak erabiltzen dituzte: *iru erre otan* 'hiru herri hauetan' (Arrar.), *gaizki iñon ee, erri otan* 'gaizki inon ere, herri hauetan' (Arrar.), *beñ edade otaa eskeo* 'behin edade (adin) hauetara ezker' (Arrar.), *Illarregi ta oitaa eskeo* 'Ilarregi eta horietara ezker' (Arrar.), *denbo aitan* 'denbora haietan' (Arrar.), *itxe zaar ootan* 'etxe zahar hauetan' (Ig.), *erri otako yendee* 'herri hauetako jendea' (Ig.), *oiñ azpiin* 'horien azpian' (Ig.), *denbo aitan* 'denbora haietan' (Beru.), *aitakoa* 'hauetakoa' (Beru.), *aiñ ama* 'haien ama', *erri otakoa* 'herri hauetakoa' (Beru.), *on atte* 'hauen aita' (Bar.), *airi*

‘haiei’ (Bar.), *iñok etzun erriin nai izaten aiñ arraultzek* ‘inork ez zuen herrian nahi izaten haien arrautzak’ (Bar.), *neskato okin* ‘neskato hauekin’ (Iri.), *on* ‘hauen’ (Ald.), *belar aiken prestatzen tzuin* ‘belar haiekin prestatzen zuten’ (Ald.), *otan* ‘hauetan’ (Alb.), *laun okin* ‘lagun hauekin’ (Ui.), *oingatik gaizki itz eittee* ‘horiengatik gaizki hitz egitea’ (Ui.), *aikin* ‘haiekin’ (Ui.), *mille duro aitatik* ‘mila duro haietatik’ (Gorr.), *on osabak* ‘hauen osabak’ (Bet.), *airi txirie sartu* ‘haiei ziria sartu’ (Arri.), *okin* ‘hauekin’ (At.), *goi-erriko erri otan* ‘goi-herriko herri hauetan’ (Uzt.), *belar otan jartzen due polena* ‘belar hauetan jartzen dute polena’ (Bet.), *oin parean* ‘horien parean’ (At.), *leorpea[k] ba baitee mendi oitan* ‘lehorpeak bai baitira mendi horietan’ (In.), *aitan kaka asko itten due* ‘haitan kaka asko egiten dute’ (Gai.), *aiñ aldeako* ‘haien alderako’ (In.), *beotzen zen arri aikin* ‘berotzen zen harri haiekin’ (Gai.).

Nolanahi ere, *-k-* bere horretan gordetzen duten herrietan, *-k-* gabekoak ere erabiltzen dituzte, besteekin txandaka: *erri otan* ‘herri hauetan’ (Gol.), *denbo aitan* (Era.) & *denbo aietan* (Oro.) ‘denbora haietan’, *aitan iruetan jartzen tzeen iru laun* ‘haitan hiruretan jartzen ziren hiru lagun’ (Gol.), *ongi etortzen giñen aikin* ‘ongi etortzen ginen haiekin’ (Mus.), *erri otako jendik* ‘herri hauetako jendeak’ (Its.), *aikiñ ongi paasten nun* ‘haiekin ongi pasatzen nuen’ (Its.), *asko izaten tzen aitatik* ‘asko izaten zen haietatik’ (Ud.), *umi oiñ atte* ‘ume horien aita’ (Oro.), *bide aietan* ‘bide haietan’ (Oro.), eta abar. Ez dago garbi zeren arabera erabiltzen dituzten batzuk ala besteak, baina badirudi, hiztuna zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen dituela *-k-*rik gabeko formak. Goldaratzen, esate baterako, hiztun adinekoenak *oketan* erabiltzen dute, baina helduek *otan* gehienetan; alabaina, zenbait forma adinekoek zein gazteek erabiltzen dituzte, hala nola *aiken* edota *okei* Goldaratzen.

17. irudia: Erakusle plural deklinatuak



Ezaugarriaren banaketa geografikoari dagokionez, *-k*-dunak badira Ultzaman ere, baina lehen graduko erakusle pluraletan soilik (Ibarra 1995a: 328-330). Artolak *oketaik* bildu du Odietako Latasan (2001: 200), eta *EAELn* bada Atezko Zigandako adibide bat: *nor tor tzen atzo itxi oketara* ‘nor etorri zen atzo etxe hauetara’. Iparralderago, halakoak ezagunak dira Basaburu Txikiko Saldiasen eta Beintza-Labaienen —baina ez dituzte erabat erabiltzen (B. L.)—, eta batez ere hirugarren graduko erakusle pluraletan ageri dira Malerrekan eta Bertizaranan (Apalauza eta Lakar 2001-2003)¹⁷⁶; bestalde, Zelaietaren arabera, halakoak badira Baztan gehienez ere, baina ez hainbeste Bortzirietan (2004: 241)¹⁷⁷, eta Ipar Euskal Herriko Saran, Ainhoan, Bidarrain eta Baigorriin bederen ere ezagunak dira (2008: 179). Bestalde, Hondarribian eta Irunen ere ageri dira, Sagarzakuk bildu duenez (2005: 69). Gure eremuan, isoglosa garbia da: Imoztik eta Basaburu Nagusitik mendebalera, ez dago *-k*- morfemaz eraikitako erakusle plural deklinaturik Larraunen, Araitz-Betelun, Leitzan eta Areson (Olano 1998: 126, 141), eta orobat Gipuzkoako hizkeretan.

¹⁷⁶ Hona eremu horretako zenbait adibide (Apalauza eta Lakar 2001-2003 lan argitaragabetik hartuak): *itxe oketan* ‘etxe hauetan’ (Saldias), *eken ura* ‘haien ura’ (Saldias), *eieken artean* ‘haien artean’ (Saldias), *arrop eken gañin* ‘arropa haien gainean’ (Donamaria), *fedia ekena zena da* ‘fedea haiena zena da’ (Donamaria), *eken azal ura* ‘haien azal hura’ (Donamaria), *oiekendako* ‘horiendako’ (Donamaria), *eken bieleko aldin* ‘haien gibelego aldean’ (Donamaria), *aur eken atta* ‘haur haien aita’ (Urrotz), *eken gañin añarra patu* ‘haien gainean ainarra paratu’ (Zubieta), *eken sortetxera* ‘haien sortetxera’ (Sunbilla), *eiki man* ‘haiei eman’ (Narbarte), *lau eken izenak* ‘lau haien izenak’ (Legasa).

¹⁷⁷ Zelaietak ahoz argitu digunez, Baztan-Bidasoa osoan *-k*- duten formak daude “nor”, “nori”, “noren”, “norekin”, “norentzat” eta “norengan” galderetan; baina, gainerakoetan, *oketan* eta *oketaik* gisakoak daude Baztanen, eta *otan*, *otara*, *otik* gisakoak Bidasoako hizkeretan.

Testu zaharretan arakatur, ondorioztatu dugu *oketan* gisakoak ez direla oso maiz ageri: badugu *hoquen* Baztanen 1750ean, baina badira *hotarat*, *hotaric* eta *hequin* gisakoak ere (Ondarra 1982); bada *equen* goi-nafarrerazko katezismo batean XVIII. mendean (Irigarai 1961); badira *oquen* eta *equen*, eta baita *oquin*, *otaz*, *etaz*... ere Zugarramurdin 1875ean (Satrustegi 1987b: 291-309); eta, azkenik, Ultzamako testuetan maiz ageri dira *oketan* motakoak XIX. mendetik aurrera: Gerendiainen 1888an (Satrustegi 1987b: 325-330), Asteteren doktrinaren itzulpenetan 1863an eta 1906an (Ibarra 1992: 927) edota Larraintzarren XX. mendearen hasierako testuetan (Satrustegi 1988 eta 1995).

8.3.3. Izenordain indartuen saila

Gure eremu osoa homogenea da izenordain indartuen sailari dagokionez: *ne(r)oni*, *eorri*, *ze(r)orri*, *ge(r)ok*, *zeok* motakoak erabiltzen dituzte eremu osoan. Hona zenbait adibide: *nionek prestatuko ttot* ‘neronek prestatuko ditut’ (Gol.), *neonek banakin balio nula* ‘neronek banekien balio nuela’ (Etxal.), *aitze iñen geen kontue* ‘aritzen ginen geronen kontura’ (Ud.), *gu lau laun giñen; geok bakarrik eoten giñen* ‘guk lau lagun ginen; gerok bakarrik egoten ginen’ (Ud.), *nik neonek eman nun abisoa erri okei* ‘nik neronek eman nuen abisua herri hauei’ (Oro.), *ni neone paketeakiñ iillik nau* ‘ni neroni paketearekin ibilirik nago’ (Oro.), *nik neonek e majiñe at arpatu izandu ttut* ‘nik neronek ere makina bat harrapatu izan(du) ditut’ (Oro.), *geokena kalparra [da], ta ardina illa* ‘geronena kalparra da, eta ardiena illea’ (Oro.), *neonek saludoa in nion* ‘neronek saludoa (agurra) egin nion’ (Ig.), *ok neonentzat dee* ‘hauek neronentzat dira’ (Od.), *neonek eamaten nittion* ‘neronek eramaten nizkion’ (Arru.), *ni neoni* ‘ni neroni’ (Gorr.), *neonei eman tzien* ‘neroni eman zidaten’ (Erra.), *neonek eiñ izandu ut* ‘neronek egin izan(du) dut’ (Arri.), *ni neone majiñe at aldiz eamanda nao* ‘ni neroni makina bat aldiz eramanda nago’ (Azk.), *guk geok pare at izaneskeo* ‘guk gerok pare bat izanez gero’ (Arru.), *guk geok ez giñun ardiik* ‘guk gerok ez genuen ardirik’ (Arru.), *buukete, geok eiñe* ‘burukotea, gerok egina’ (Gorr.), *geen musikeekin* ‘geronen musikarekin’ (Alb.), *geen interesak earki elkarri zea itten giñion* ‘geronen interesak ederki elkarri zera egiten genion’ (Ui.), *neonek eztot ezautu* ‘neronek ez dut ezagutu’ (Azp.), *geen denboan* ‘geronen denboran’ (Gai.), *geen kontue* ‘geronen kontura’ (In.), *zeorrek e bazkizo* ‘zerorrek ere badakizkizu’ (Arru.), *zeorrek in batean buelta atzuk eeñ* ‘zerorrekin batean buelta batzuk egin’ (Gai.), *zeoken etxe aldeko koxkan* ‘zeron etxe aldeko koxkan’ (Bet.).

XX. mendearen hasieran, *neori* eta *zeoyek* bildu zituen *EIk* Oskotzen (1984: 220, 226), baina *ne(r)oni* eta *zeok* zabaldu dira gaur egungo mintzora.

Halakoak erabiltzen dituzte gure eremu inguruko hizkeretan ere: Ultzaman (Ibarra 1995a: 324-325)¹⁷⁸, Basaburu Txikiko Ezkurran (B. L.), Areson eta Leitzan (Olano 1998: 124, 140), Tolosaldean eta Goierriko ekialdean (Hurtado 2001: 87-88)¹⁷⁹. Basaburu Txikiko gainerako herrietan, berriz, *neune* eta *neurre* sailekoak agertzen hasten dira (B. L.), eta *niaurre*, *neurre*, *niaune* gisakoak ditugu Malerrekan eta Bertizaranan (Apalauza eta Lakar 2001-2003). Ekialderantz, *niaur* gisakoak daude, Lapurdin, Hazparnetik eskuinera, baina *nioni* gisakoak ageri dira Larresoro aldean (Epelde 2004a: 288-289).

Gure eremutik hegoaldera, lehen pertsona singularrean *nerau*, *neronek*, *neroni* formak bildu zituen Bonapartek Goñin, eta antzekoak bildu izan dituzte hango ingurumarian ere (ikus, zehatzago, Camino 1999: 58-59). Mendebalerantz, *neu* erakoak erabiltzen dituzte Zegama, Gabiria eta Legazpi aldean, *neroni* erakoekin lehian betiere (Hurtado 2001: 87-88).

Neu erakoak aspaldiko testuetatik hasita agertzen dira; Hurtadok dioenez, *EIk* halakoak bildu zituen Goierriin XX. mendearen hasieran, eta alderdi hartako idazle zaharrek ere baliatzen zituzten (halakoak ageri dira Otxoa Arinen lanean 1713an, Zegamako 1741eko doktrinan edota Otaegiren testuetan XIX. mendearen hasieran), baina *neroni* ageri da hizkera horietan gaur egun. Gipuzkoako gainerako testu zaharrei erreparatuz, *neroni* sailekoak ageri dira Kardaberaz hernaniarraren edota Mendiburu oiartzuarraren lanetan (XVIII. mendean), eta baita Juan Bautista Agirre asteasuarraren lanetan ere (XIX. mendean)¹⁸⁰. Ez dakigu, ordea, bi sailetan zein den zaharragoa eta zein berriagoa, eta baliteke, bestalde, garai batean egindako hautuak izatea; bi izenordain sailen datu kronologiko eta geografikoak falta ditugu.

8.3.4. Deklinabidea: ergatibo pluraleko morfema

Espero zitekeenez, *-ak* da ergatibo pluraleko morfema gure eremu osoan. Adibideak: *beorrak eztute arpatzen oi* ‘behorrek ez dute harrapatzen hori’ (Lat.), *ankak eztute seitzen* ‘hankek ez dute

¹⁷⁸ Ultzamakoak ez dira gure eremukoek guztiz berdinak: absolutiboan, *nerau*, *neroni* eta *nerori* daude lehen pertsona singularrean; *eori* eta *erori* bigarren pertsona singularrean (hi); *zeori*, *zerori* eta *zeroi* bigarren pertsona singularrean (zu), eta *zeok*, *ze(r)ok* eta *ze(r)oiok* bigarren pertsona pluralean.

¹⁷⁹ Zuazok dioenez, *neu* gisakoak ageri dira Goierriko mendebalean, hala nola Legazpian eta Zegaman (1998c: 155).

¹⁸⁰ Genitibo singularreko *neure* eta *heure*, aldiz, Euskal Herri gehienean ageri dira aspaldiko testu zaharretatik hasita, eta badirudi **ni-haur-e* eta **hi-haur-e* (edo **hi-hor-e*) formatatik heldu direla (Camino 2008b: 119-120).

segitzen' (Lat.), *umeak eztute yaus onik itten* 'umeek ez dute deus onik egiten' (Osk.), *Beramendikoak ezpaitzakiten* 'Beramendikoek ez baitzekiten' (Its.), *iabendarrak irri itten tzuten* 'ihabendarrek irri egiten zuten' (Its.), *dena ekartze zuten astoak* 'dena ekartzen zuten astoek' (Beru.), *denak oi esaten tzuin-da* 'denek hori esaten zuten-eta' (Iri.), *olako tratoak itten tzittuen gizonak* 'holako tratuak egiten zituzten gizonak' (Ui.), *gurasoak aintzen tzuen* 'gurasoek agintzen zuten' (Ui.), *beteluarrak eztakit nola duen* 'beteluek ez dakit nola duten' (Azp.), *zotzak Gaintzekoak bazittuen emana(k)* 'zotzak Gaintzakoek bazituzten emanak' (Gai.), *gaintzetarrak Astunaldeko zotzak galdu zittuen* 'gaintzatarrek Astunaldeko zotzak galdu zituzten' (Gai.), *gipuzkoanoak makillekin artu men tzittuen naparrak* 'gipuzkoarrak makilekin hartu omen zituzten nafarrek' (Azk.).

Horrenbestez, morfema bera ageri da ergatibo pluralean eta absolutibo pluralean: *imoztarrak eskatzen tzuten* 'imoztarrek eskatzen zuten' / *imoztarrak etortzen tzeen* 'imoztarrak etortzen ziren'.

-ak dugu, halaber, gure inguruko hizkera guztietan. *-ek* morfema Nafarroa Garaiko ekialdean eta Ipar Euskal Herriko zati handi batean baliatzen dute, eta *-ak* gainerako hizkeretan (Zuazo 2008: 219). Zehatzago, *-ek* eta *-ak* morfemak txandaka ageri dira Anuetik ekialdera, Erroibarren eta Artzibarren (Ibarra 1995a: 701), eta bi morfemok bereizi egiten zituzten Itzarbeibarren, Eguesibarren eta handik eskuinera (Camino 1999: 59-60, cf. Camino 2003a: 82 eta Salaberri 2000: 893). Nolanahi ere, badirudi iragan mendeetan hedadura handiagoa zukeela *-ek* morfemak; izan ere, morfema horixe ageri da Erroibarko, Olaibarko eta Ultzamako testu zaharretan (XIX. mendean), nahiz *-ak* zabaldu den gerora (Ibarra 2003: 352-353).

8.3.5. Deklinabidea: instrumental kasua

Kasu instrumentaleko atzizki txistukaria apikaria (-s) da Imotz eta Basaburu Nagusi osoan, eta Larraun gehienez. Hain zuzen, lepokaria (-z) entzun daiteke, apikariarekin txandaka, Larraungo ipar-mendebaleko Uitz, Albiasu, Azpirotz eta Errazkin herrietan. Araitz-Betelura ezkerreko, lepokaria besterik ez dute erabiltzen.

Trantsizioa, beraz, Larraungo mendebalean hasten da: han, apikaria eta lepokaria nahaska ageri dira, batez ere adinekoen mintzoan. Izan ere, eremu horren iparraldean diren Leitzan eta Areson, lepokaria besterik ez dute erabiltzen (Olano 1998: 124-157), eta, gorago esan dugunez,

lepokaria dago, halaber, Larraungo mendebaleko mugan den Araitz-Betelun. Horrez gain, idatzizko arau estandarrak ere lagundu du lepokariaren erabileran, gure ustez.

Hona, lehenik, txistukari apikariaren adibideak: *kurrixkes* ‘kurrixkaz’ (Gol.), *naasis naasis* ‘nahasiz nahasiz’ (Gol.), *iru o lau iunes* ‘hiru edo lau egunez’ (Gol.), *beretas etorri zizaien afizioa zurgintzena* ‘beretaz etorri zitzaidan afizioa zurgintzarena’ (Gol.), *sorgiñetas* ‘sorginez’ (Gol.), *kartas botatzen tzen* ‘kartaz botatzen zen’ (Gol.), *marrakas* ‘marrakaz’ (Lat.), *tripas bueltan* ‘tripaz bueltan’ (Lat.), *burlas* ‘burlaz, trufaz’ (Era.), *ezin entendittus* ‘ezin entendituz (ulertuz)’ (Era.), *eun betes o bies* ‘egun batez edo biz’ (Era.), *eskus aitze giñen* ‘eskuz aritzen ginen’ (Era.), *aldion bates* ‘aldiren batez’ (Zarr.), *eun betes* ‘egun batez’ (Osk.), *telefonos* ‘telefonoz’ (Osk.), *jendeak kapritxos artzen du* ‘jendeak kapritxoz hartzen du’ (Osk.), *nearres* ‘negarrez’ (Etxal.), *amaost iunes* ‘hamabost egunez’ (Etxal.), *urte ates berroei eunes eon giñen elurreki* ‘urte batez berrogei egunez egon ginen elurrarekin’ (Mus.), *iende atsalde bates* ‘igande arratsalde batez’ (Mus.), *atsalde ates* ‘arratsalde batez’ (Ud.), *karraxis* ‘garrasiz’ (Ud.), *bestenas* ‘bestenaz, bestela’ (Its.), *oñes* ‘oinez’ (Its., Er., Oro.), *kukusos yosita* ‘kukusoz josita’ (Gar.), *arren medios* ‘haren medioz’ (Gar.), *banas bertze* ‘banaz bertze’ (Oro.), *iun betes o bies* ‘egun batez edo biz’ (Oro.), *erdeasko itzek* ‘erdarazko hitzak’ (Oro.), *tiros* ‘tiroz’ (Oro.), *emanas emanas* ‘emanez emanez’ (Arrar.), *mendes* ‘mendiz’ (Arrar.), *ezin gooratus* ‘ezin gogoraturaz’ (Ig.), *irres* ‘irriz’ (Beru.), *karas* ‘karaz, aurpegiz’ (Od.), *amar aldes* ‘hamar aldiz’ (Od.), *gutxis gorabera* (Od., Oro.) & *gutxis gorabeira* (Bar.) ‘gutxiz gorabehera’, *baies* ‘baheaz’ (Od.), *euskaas* ‘euskaraz’ (Iri.), *garaies* ‘garaiz’ (Iri.), *gabes* ‘gauetz’ (Bar.), *ures betii* ‘urez betea’ (Bar.), *jaiotzes ta bizitzes* ‘jaiotzez eta bizitzez’ (Bar.), *kamios* ‘kamioz’ (Arru.), *inbidis* ‘inbidiaz’ (Arru.), *beltxes* ‘beltzez’ (Arru.), *beatzi eunes* ‘bederatzi egunez’ (Ald.), *eskus* ‘eskuz’ (Alb., Erra.), *autos* ‘autoz’ (Azp.), *kotxes* ‘kotxez’ (Azp.), *gañes gain* ‘gainez gain’ (Erra.), *erdaas* ‘erdaraz’ (Erra.), *debosios* ‘debozioz’ (Erra.). Bestalde, -s ageri da Intzak Madotzen jasotako bi esaeratan: *aos (aoz) eskatuta baño geiago eman dit* (1974: 35), *gau on, ta biar arte Jainkoak ones* (1974: 40). Alliko adibideak ere baditugu (EAEL, 166. testua): *beréskoa*, *erdéras*, *nearres*.

Txistukari apikariak ari garela, ‘zerezkoa’ *zereskoa* bihurtu da Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraun gehiengan: *zinkesko oi(e)tatiken* ‘zinkezkoko horietatik(an)’ (Etxal.), *miiseskoak* ‘mihisezkoak’ (Etxal.), *eunesko tela* ‘ehunezko tela’ (Etxal.), *gomaskoak* ‘gomazkoak’ (Etxal., Od.), *ojalataskoa* ‘hojalatazkoa’ (Mus.), *illeskoak* ‘ilezkoak’ (Mus.), *zureskoa* ‘zurezkoa’ (Gar., Er.),


eurreskoa ‘egurrezkoa’ (Oro.), *ariskoa* ‘harizkoa’ (Ig., Arru.), *txokolateskoa* ‘txokolatezkoa’ (Iri.), *burniskoa* ‘burdinazkoa’ (Iri., Arru.), *kobreskoak* ‘kobrezkoak’ (Bar.), *arriskoa* ‘harrizkoa’ (Bar.), *iunesko maindderik* ‘ehunezko maindireak’ (Bar.), *lurrezkoak* ‘lurrezkoak’ (Bar.), *motoreskoa* ‘motorrezkoa’ (Alb.), *eskuskoa* ‘eskuzkoa’ (Erra.), *ooleskoa* ‘oholezkoa’ (Erra.), *geieiskoa* ‘gehiegizkoa’ (Erra.), *paper sedaskotan* ‘paper sedazkoetan’ (Erra.).

Azkenik, *-lako*s eta *-eskeo(s)* egituretan ere ageri da *-s* (ikus 8.5.1.).

Adibide horiez gain, zenbait hiztunek *es* ahoskatzen dute ‘ez’ partikula. Berez ez da kasu instrumentalik hor, baina halakoekiko analogiaz sortua dirudi. Guk Goldaratzan, Oskotzen, Iribasen, Gorritin eta Igoan entzun dugu.

Araitz-Betelun, lepokaria dugu kasu guztietan: *eunez* ‘egunez’ (Bet.), *ola eiñez da esanez* ‘horrela eginez eta esanez’ (At.), *ezin kontseittuz* ‘ezin kontsegituz (lortuz)’ (Arri.), *itxurez jarri* ‘itxuraz jarri’ (Gai.), *mantaz ta gauzez ongi* ‘mantez eta gauzez ongi’ (At.), *ozpiñez unta-unta in* ‘ozpinez unta-unta egin’ (Bet.), *zurezko abatza* ‘zurezko abatza’ (Gai.), *ormionezkoa* ‘hormigoizkoa’ (Bet.), *lurrezko eltzeak* ‘lurrezko eltzeak’ (Uzt.), *aaitzezkoa* ‘haritzezkoa’ (Uzt.), *zakuzko poltsa* ‘zakuzko poltsa’ (Gai.), eta abar. Gorago esan bezala, lepokaria ageri da, gero eta maizago, Larraungo ipar-mendebaleko herrietan ere.

18. irudia: Instrumental kasua



Nafarroako hainbat hizkeratako ezaugarria da instrumentaleko txistukari apikaria; euskara nafarraren ezaugarritzat hartu du Zuazok, nahiz eta berak euskara nafartzat hartzen duen eremuaren iparraldea (Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan) isoglosatik kanpo egon (1998a: 216, 2003: 111 eta 2008: 108). Gure eremuan, Larraungo mendebalean ezarri dugu ezaugarriaren muga; handik ekialdera, apikaria erabiltzen dute Basaburu Nagusian eta Imotzen, eta, ekialderago, baita Ultzaman eta Atetzen ere (Ibarra 1995a: 259). Apikaria dugu are ekialderago ere (Artzibar, Erroibar, Esteribar, Aezkoa), baita orobat hego-nafarreraren eremuan ere, nahiz eta lepokariarekin txandaka ageri den zenbait hizkeratan (Camino 2003a: 86-87). Caminok Nafarroako erdiguneko ezaugarritzat hartu du -s apikaria, eta zuzen deritzogu (2003a: 86-87). Imoztik hegoaldera, lepokaria zegoen Txulapainen (Camino 1999: 64 eta 2003a: 87). Gure mugez iparraldera, lepokaria dugu Basaburu Txikian¹⁸¹, Areson eta Leitzan (B. L.).

XVI. menderako gutxienez gauzatua zen berrikuntza: -s dugu, izan ere, Espartza-Galarren 1557an (Satrustegi 1987b: 27-28), Amenduxen olerkian 1567an (Mitxelena 1990 [1964]: 107-110, Satrustegi 1987b: 28-31, Kerejeta 1991) eta Uitziko ezkon-zin batean 1506an (Satrustegi 1992). Aitzitik, -z ere bada mende berean Nafarroako zenbait tokitako testuetan, hala nola Agoitzen 1551ean eta Artzibarko Arizkurenen 1536an (Satrustegi 1992). XVI. mendetik aurrera, hainbat lekukotasun zaharretan ageri da apikaria: Iruñeko olerkietan 1609an (Mitxelena 1990 [1964]: 111-118, Kerejeta 1991)¹⁸², Leitzan -z-rekin batera 1626an (Satrustegi 1987b: 45-47), Beriainen lanetan 1621ean eta 1626an, Elizalderen doktrinan 1735ean (Salaberri 1994), eta abar. Gure eremuko testu urri eta zalantzazkoei begira, Etxarrin bada -s bat -z askoren ondoan 1772an (Satrustegi 1987b: 122-128), Intzan -z 1772an eta biak 1801ean (Satrustegi 1987b: 131-133, 177-186), eta Goldaratzen -s 1830 aldera (Satrustegi 1987a eta 1987b: 207-229). Beraz, bi ondorio erdietsi ditugu: -s berrikuntza bazen XVI. mendean (besteak beste, gure eremuaren barrenean den Uitzin), eta, Leitzan ere -s ageri denez XVII. mendean (gaur egun ez bezala), pentsa daiteke hedatuago zegokeela eta zenbait mintzotan galduz joan dela; Larraungo ipar-mendebaleko herrietan ere -z nagusitzen ari da gaur egun, -s-ren kaltetan.

¹⁸¹ Salbuespen gisa, *bees* ‘berriz’ ere esaten dute Ezkurran (B. L.).

¹⁸² Hain zuzen, Mitxelenak ezaugarri horri erreparatu dio olerki horiek hegoaldeko goi-nafarrerakotzat hartzeko (117): “... constituye una buena muestra del alto-navarro meridional, tal como se hablaba en la parte central de Navarra. Dentro de esa variedad, es normal *gogos*, v.6, con -s y no -z en el instrumental, pero no p. ej. *amenbatez*, por *bates*, v.15.”.

8.3.6. Deklinabidea: soziatibo kasua

Oro har, *-kin* morfema erabiltzen dute gure eremuan (baita *-ken* ere Larraungo eta Basaburu Nagusiko zenbait herritan; ikus 8.1.5.c.). Eremuko ekialdeko muturrean, baina —alegia, Imozko Muskitzen—, *-ki* nahiz *-kin* morfemez osaturiko adibideak entzun ditugu. Hona *-ki* morfemaren adibideak: *engantxatu kateaki* ‘engantxatu katearekin’, *eskueki zapaka* ‘eskuarekin zapaka’, *patu balde atean gatza ureki* ‘paratu balde batean gatza urarekin’, *urte ates berroei eunes eon giñen elurreki* ‘urte batez berrogei egunez egon ginen elurrarekin’, *geiena makineki itten zen* ‘gehiena makinarekin egiten zen’, *erruedaki* ‘erruedekin; gurplekin’, *altzurreki* ‘aitzurrarekin’, *idieki* ‘idiarekin’.

-ki morfema Atetzen, Ultzaman eta Anuen ere erabiltzen dute, *-kin* aukerarekin batera (Ibarra 1995a: 280-282). Caminok dioskunez, hego-nafarreraren ezaugarritzat hartu izan da *-ki* morfema, baina, hark dioenez, *-kin* ere bada hego-nafarreran, eta, gainera, hego-nafarreratik kanpo dauden beste hizkera batzuetan ere ageri da *-ki*, hala nola Sakanako erdialdean, Txulapainen, Ezkabarten, Atetzen, Odietan, Ultzaman eta Anuen (2003a: 78, cf. Salaberri 2000: 897). Ikertzaile berak argitu du ez dela *-ki* morfemarik Gulibarren, eta badela, ordea, Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan, Nafarroa Behereko Baigorri inoizka eta Zuberoan. Azken datu bat gehitzeagatik, bietarikoak bildu dituzte Artzibarren (Arana 2004: 140 eta Artola 2006: 400). Aski morfema zaharra dirudi; Amenduxen olerkian bada, esate baterako, 1567an. Zuazok eremu-banaketa nabarreko ezaugarrien sailera bildu du *-ki / -kin* (2008: 247).

Bestalde, singularrean, *-(a)ikin* bildu dugu gure eremuko zenbait herritan: Muskitzen, Baraibarren, Uitzin eta Azpirotzen, hain zuzen. Horren ildotik, gorritiarrek segituan antzematen diote uitziarri uitziarra dela, *garagardoa limonaikin* ‘garagardoa limoiarekin’ eskatzen baitute. Hona zenbait adibide: *amaikin* ‘amarekin’ (Mus.), *artoakin* ‘artoarekin’ (Bar.), *apezak ematen tzazkion amenzaikin o bildurreikin* ‘apezak ematen zizkion amenazekin (< gazt. amenza) eta beldurrekin’ (Ui.), *ze lasaitasuneikin* ‘zer lasaitasunarekin’ (Ui.), *bi neskazarraikin* ‘bi neskazarrekin’ (Ui.), *orbelaikin* ‘orbelarekin’ (Azp.), *bee tranpaaikin* ‘bere tranparekin’ (Azp.), *meikuikin* ‘medikuarekin’ (Azp.).

Gainera, *otieikin* ‘otearekin’ adibidea ageri da 1945 inguruan Berueten bildutako kontakizun batean (Donostia 1956: 36)¹⁸³.

-aiki(n) forma barreiatuak ageri da nolabait: arestiko herriez landa, Erroibarren (Ibarra 1995b: 294-295 eta 2000: 101-102), Artzibarren (Arana 2004: 5), Aezkoan (Camino 1997: 379-380) edota Zuberoan (Zuazo 2008: 204) behintzat erabiltzen dute, eta Odietako Latasan ere bildua da (Camino 2003a: 243).

Baditugu ezaugarri horren XIX. mendeko lekukotasunak Erron (Satrustegi 1987b: 261-273), Luzaiden (Satrustegi 1987b: 273-285) edota Orreagan (Satrustegi 1987b: 285-291)¹⁸⁴.

Zuazok genitibo-kasuko *-aren* > *-ain* bilakabidearekin lotu du *-aiki(n)*, eta euskara nafarraren eta nafar-lapur-tarraren ezaugarritzat jo, baina betiere garbi utzi du han-hemenka gertatzen den ezaugarria dela (2008: 204, cf. 2010: 78-79).

8.3.7. Deklinabidea: destinatibo kasua

Destinatibo kasuaren bi morfema aurki daitezke gure eremuan: *-tako* eta *-tzat*. Banaketa aski garbia da: *-tako* Imotz eta Basaburu Nagusi gehiengan erabiltzen dute, baina *-tzat* morfemarekin txandaka; Larraunen eta Araitz-Betelun, aldiz, *-tzat* dugu kasu guztietan.

¹⁸³ Hona testua osorik: *Gizon bat eldu emen tzen zamaat otieikin. Da esan emen zion illargiri: “Earki yao or”. Ta illargiak esan emen zion: “Ator iree nai balin bauk”. Ta orrengatik illargik emen du gizona zama otieikin”.*

¹⁸⁴ *Elren* arabera, gainera, XX. mendean *amaina* eta *amaintzat* erabiltzen zituzten Azpirotzen (1984: 186, 187).

19. irudia: Destinatibo kasua



Hona bietariko zenbait adibide: *itxeoandako* ‘etxeoendako’ (Gol.), *senedi guzintzat* ‘senide guztientzat’ (Gol.), *iitako* ‘hiretako’ (Gol.), *purgatorioko animendako* ‘purgatorioko animendako’ (Urr.), *errota zen maizendako* ‘errota zen maizarendako (< gazt. maíz)’ (Era.), *aotza beiendako* ‘agotza behiendako’ (Era.), *itxea aiendako zela* ‘etxea haiendako zela’ (Osk.), *beiendako jana* ‘behiendako jana’ (Osk.), *prestatuko duu tokie iitako* ‘prestatuko dugu tokia hiretako’ (Osk.), *gazurendako* ‘gazurarendako’ (Osk.), *neetako etzen ona ore* ‘niretako ez zen ona hura’ (Etxal.), *eakindako ta zea nee koñatak itten zittun* ‘ebakiendako eta zera nire koinatak egiten zituen’ (Etxal.), *zutako arrazure!* ‘zuretako arrazoia!’ (Etxal.), *kontratiste batendako* ‘kontratista batendako’ (Mus.), *baatzandako oso ona da* ‘baratzarendako oso ona da’ (Its.), *atte ta amaantzat* ‘aita eta amarentzat’ (Its.), *errindako* ‘herriarendako’ (Ud.), *zutako* ‘zuretako’ (Gar.), *bezinoandako* ‘bezinoarendako’ (Gar.), *diputazioandako itten du lana* ‘diputazioarendako egiten du lana’ (Er.), *guetako errie gauze sagradue da* ‘guretako herria gauza sakratua da’ (Oro.), *in bea’ute afari et makumeandako bakarrik* ‘egin behar dute afari bat emakumeendako bakarrik’ (Oro.), *in duu emen paltsa at ielandako* ‘egin dugu hemen baltsa bat (< gazt. balsa) igelendako’ (Oro.), *ardindako borda izaten da* ‘ardiendako borda izaten da’ (Oro.), *neonentzat* ‘neronentzat’ (Ig.), *kemadurentzat* ‘kemadurentzat (erredurentzat)’ (Ig.), *bakotxeentzat bat* ‘bakoitzarentzat bat’ (Arru.), *askos e polittegoa netzat lengoa zen* ‘askoz ere politagoa niretzat lehengoa zen’ (Bar.), *mojantzat izaten tzen* ‘mojentzat izaten zen’ (Ui.), *soldaduntzat* ‘soldaduentzat’ (Erra.), *jartzen zitzaion arrapaantzat eur bet* ‘jartzen

zitziaion arroparentzat egur bat' (Gai.), *emengo zotzak beentzat, eta Astunalde Uzteikoantzat* 'hemengo zotzak berentzat, eta Astunalde Uzteigikoentzat' (Gai.), *oi tristea da neetzat* 'hori tristea da niretzat' (In.), eta abar.

Esan bezala, bi morfemak txandaka ageri dira Imotzen eta Basaburu Nagusian; Berueten eta Igoan ez beste herri guztietan entzun ditugu bietariko adibideak, baina aldaketa graduala da, geografian mendebalerantz egin ahala gero eta gutxiago entzuten baita *-tako* morfema, eta, alderantziz, ekialderantz jo ahala, gero eta gutxiago entzuten da *-tzat*.

Hain zuzen, *-tako* da nagusi Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, Atetz, Ultzama eta Anue ibarretan (Ibarra 1995a: 379-381), eta baita Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 105), Artzibarren (Arana 2004: 141), Aezkoan eta Zaraitzun (Camino 1997: 380-382) ere. Trantsizioa, beraz, Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan hasten da; handik mendebalera, *-tzat* da nagusi Larraunen eta Araitz-Betelun, eta baita handik iparraldera diren Leitzan eta Areson (Olano 1998: 155) ere. Basaburu Nagusitik iparraldera den Basaburu Txikian, *-tzat* da nagusi Ezkurran, Eratsunen eta Saldiasen, eta biak ageri dira Beintza-Labaienen (B. L.). Gure eremutik hegoaldera, *-tako* zegoen Txulapainen (Camino 1999: 63), eta horixe dago Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 212-213) ere. Azkenik, Nafarroatik kanpo ere bada *-tako* morfema (Zuazo 2006a: 123, cf. 2008: 247-248): Debagoiengan, Deba ibarreko erdigunean, Mallabian, Durangaldean, Legazpian, Zerainen, Zegaman, Legution eta Ipar Euskal Herriko hizkera gehienetan.

Bestalde, Uitzin, Gorritin eta Araitz-Betelun, *-tzako* morfema ere baliatzen dute: *auzokoantzako* 'auzokoentzako' (Ui.), *ardintzako ona zen* 'ardientzako ona zen' (Ui.), *Ikerrentzako* 'Ikerrentzako' (Ui.), *neitzako* (Ui.) & *netzako* (Gorr.) 'niretzako', *illoantzako* 'ilobarentzako' (Gorr.), *erlekirtenantzako ta ointzako de ona da* 'erlakirtentzako eta horientzako ere ona da' (At.), *zorzi gurdi etxeako, bat apezanzako, ta bestea seketaioantzako* 'zortzi gurdi etxerako, bat apezarentzako, eta bestea sekretarioarentzako' (Azk.).

Bi morfemok aski zaharrak dirudite, aspaldiko testu zaharretan ageri baitira biak ere. Esate baterako, Debako euskara zaharrea, bi morfemak ageri dira XVII. mendean, soilik *-tzat* XVIIIan, eta *-tako* erabiltzen da gaur egun (Zuazo 2006b: 1012).

8.3.8. Deklinabidea: ablatibo kasua

a. *-tik* eta *-ti*

Singularrean, *-tik* eta *-ti* formak erabiltzen dituzte gure eremuan¹⁸⁵. Ez dago esaterik morfema bat hemen hasi eta han bukatzen denik, gehienetan biak batera erabiltzen baitituzte, gutxiago edo gehiago, gure eremuko hizkeretan. Ibarrez ibar emango ditugu datuak.

Imotzen eta Basaburu Nagusian, *-tik* da nagusi, baina *-ti* ere entzun dugu Goldaritzen, Urritzan eta Erason: *andi atea* ‘handik atera’ (Gol.), *Iurtzundi* ‘Irurtzundik’ (Gol.), *an azpeti paatu gauze txuri et* ‘han azpitik paratu gauza txuri bat’ (Gol.), *meza aurreti, erronda* ‘meza aurretik, erronda’ (Gol.), *beste zea batzutati etorri* ‘beste zera batzuetatik etorri’ (Gol.), *amarretati amiketaa* ‘hamarretatik hamaiketara’ (Gol.), *kendu andi, ez arpatzeko txerrii* ‘kendu handik, ez harrapatzeko txerria’ (Gol.), *kanpoti etortzen tzeen* ‘kanpotik etortzen ziren’ (Gol.), *kantera ortati eamaten tzuten* ‘kantera horretatik eramaten zuten’ (Urr.), *tubo ortati ateatzen zen* ‘tubo horretatik ateratzen zen’ (Era.), *zortzi euneti o amarreti o ola itten giñun* ‘zortzi egunetik edo hamarretik edo horrela egiten genuen’ (Era.).

Larraunen, *-tik* soilik entzun dugu Oderitz, Baraibar, Iribas, Uitz eta Azpirotz herrietan; *-tik* zein *-ti* Arruizen, Aldatzen, Gorritin eta Errazkinen; eta *-ti* soilik Albiasun. Hona *-ti* morfemaren zenbait adibide: *Latasati ona* ‘Latasatik hona’ (Arru.), *emendi area* ‘hemendik hara’ (Arru.), *kanpoti eaman bear* ‘kanpotik eraman behar’ (Arru.), *Goldaazti Iurtzune* ‘Goldaraztik Irurtzuna’ (Arru.), *andi ekartzen giñun gazure* ‘handik ekartzen genuen gazura’ (Arru.), *Tolosaa etzen emendi alako...* ‘Tolosara ez zen hemendik halako...’ (Arru.), *mezati etortzeako* ‘mezatik etortzerako’ (Ald.), *Beuteti ona* ‘Beruetetik hona’ (Ald.), *Larraun guziti* ‘Larraun guzitik’ (Ald.), *Ameiketati etorri giñenen* ‘Ameriketatik etorri ginenean’ (Gorr.), *Iurtzundi* ‘Irurtzundik’ (Gorr.), *errotati ure ekarri* ‘errotatik ura ekarri’ (Erra.), *Lekunberritti* ‘Lekunberritik’ (Erra.), *eskolati ateata* ‘eskolatik aterata’ (Alb.), *nonbatteti zintzilike jarri* ‘nonbaitetik zintzilike(a) jarri’ (Alb.), *emendi* ‘hemendik’ (Alb.), *gu etxeti eamaten tzittuen* ‘gure etxetik eramaten zituzten’ (Alb.), *segun nondi etorrii den* ‘segun nondik etorria den’ (Alb.).

Araitz-Betelun, bi morfemak entzun daitezke, baina *-ti* maizago ageri da. Hona adibide batzuk: *emendi uelaakin lotu* ‘hemendik uhalarekin lotu’ (In.), *garai beteti aurea* ‘garai batetik

¹⁸⁵ Zenbaitetan, *-tik* > *-tek* bihurtu da. Ikus 8.1.5.b.

aurrera' (In.), *goraxaoti eette'ue* 'goraxeagotik egiten dute' (Gai.), *txaolati atea* 'txabolatik atera' (Azk.), *andi artu* 'handik hartu' (At.), *azpitti erre bai* 'azpitik erre gabe' (Gai.).

Zenbait kasutan, balio semantikorik gabeko *-n* morfema eransten diote ablatiboko morfemari (ikus 8.3.12.).

-ti eta *-tik* aldaeren antzinatasunari dagokionez, forma zaharra da *-ti*, eta berria, aldiz, *-tik*, *-ti* + *-ka* atzizkiak elkartzearen ondorioz sortua (Mitzelena 1977 [1961]: 236-237, Lakarra 1996: 162), baina ez dirudi hedadura geografiko jakina dutenik batak eta besteak¹⁸⁶.

Ez dakigu, beraz, zein den *-ti* eta *-tik* aldaeren kronologia zehatza, nahiz badakigun *-tik* berriagoa dela. Gaur egungo erabilerari erreparatuz, Zuazok *-ti* jaso du Deba aldeko adinekoengandik, eta *-tik* gazteengandik (2006a: 76), eta halako zerbait jaso dugu guk ere gure eremuan —alegia, hiztuna zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta maizago erabiltzen du *-tik*—, nahiz eta Araitz-Beteluko gazteek *-ti* ere erabiltzen duten, *-tik*-ekin batera. Ondorio bertsua erdietsi dute Etxabe eta Garmendia ikertzaileek ere, Zaldibiako euskarari dagokionez; alegia, adinekoek *-ti* eta *-tio* erabiltzen dituzte nagusiki, eta gazteek, berriz, *-tik* (2003: 62). Euskal hizkera askotan ageri dira *-ti* eta *-tik* biak batera: besteak beste, Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 222-223), Amezketan (K. E.), Deban (Zuazo 2006a: 76), Goñerrian (Camino 1999: 66-67) edota Nafarroa Beherean (Camino 2004b: 468)¹⁸⁷.

b. *-tio*

Singularreko *-tio* morfema ere bildu dugu zenbait herritan, baina "oraindik" aditzondoaren kasuan soilik; hau da, ablatiboko atzizkiaz deklinatutako hitz arruntetan ez dago halakorik (ez dugu inon entzun ***etxetio*, ***emendio* eta halakorik). Hala, Basaburu Nagusiko Itsason (behin baino ez), Berueten, Larraungo Baraibarren, Iribasen, Arruitzen, Aldatzen, Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen, eta Araitz-Beteluko herri guztietan bildu ditugu aldaera horren adibideak: *asko in bear al dozo oainddio?* 'asko egin behar al duzu oraindik?' (Its.), *oaindo re izaten da* 'oraindik ere izaten

¹⁸⁶ Lakarrari esker, aski ongi ezagutzen dugu euskararen ablatiboaren historia (1984, 1996: 158-163): bizkaiera zaharrea, 1600. urtea baino lehenagoko testuetan, *-rean* ablatiboa ageri da, eta balio prosekutiboa du *-ti(k)* morfemak (alegia, 'non zehar'). Handik aurrera, *-rik* ageri da ablatiborako (*-reanik* tarteko forma pleonastikoa ere ageri da testuetan), eta *-rean* desagertuz joan zen. 1700. urtetik aurrera, *-rik* eta *-ti(k)* (prosekutiboa) nahasirik ageri dira bizkaierazko testuetan, eta, azkenean, ablatibo balioa hartu zuen *-ti(k)* morfemak, gaur arte.

¹⁸⁷ Nafarroa Behereko euskara zaharrea, ekialdeko idazleek *-ti* darabilte —alegia, Zuberotatik hurbil direnek—, eta *-tik*, aldiz, gainerakoek; nolahi ere, zuberotarrek *-ti* nahiz *-tik* erabiltzen dute (Camino 2008b: 146-147).

da' (Beru.), *erreka-zintzurre ttikiogoa da uanddio* 'erreka-zintzurra ttikiogoa da oraindik' (Iri.), *oanddo de an dao ue* 'oraindik ere han dago hura' (Ald.), *oanddo de an tzeon noski (e)txe ue* 'oraindik ere han zagon noski etxe hura' (Ald.), *ezautzen ttot oanddio bizi deenak* 'ezagutzen ditut oraindik bizi direnak' (Gorr.), *salan an dau uandio* 'salan han dago oraindik' (Gorr.), *oandio ganban an dau konporta* 'oraindik ganbaran han dago konporta' (Gorr.), *oanddo ez tik arto* 'oraindik ez dik hartu' (Gai.), *oanddo urte asko ez teta* 'oraindik urte asko ez dela' (At.), *oainddo beitan dauket* 'oraindik begietan daukat' (Uzt.).

-tio aldaera berria indartsua da Gipuzkoako Goierrin, eta ahulxeagoa Tolosaldeko hegoaldean (Hurtado 2001: 82-85, cf. Zuazo 2008: 191). Otxoa Arinek ez zuen baliatu 1713an, baina Gerrikoren doktrinan, ordea, bada *oraindio* adibidea, 1858an (Aranburu eta beste 1999: 87). Nafarroan, gaur egun, ezaguna da Areson, baina ez Leitzan (Olano 1998: 14). Haiekin batera doaz, beraz, Araitz-Betelu eta Larraungo eta Basaburu Nagusiko herri batzuk, nahiz eta gure eremuan ez den Gipuzkoako hizkeretan bezain indartsu ageri; esan bezala, aldaera bakar batean baizik ez da ageri (cf. 8.6.4. atala).

c. *-tatic eta -taik*

Ablatibo pluraleko eta mugagabeko morfemak bi aldaera ditu gure eremuan: *-tatic* erabiltzen dute Imotz gehiengan, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun¹⁸⁸, baina *-taik* ageri da Muskitzen, eta biak txandaka erabiltzen dituzte Oskotzen eta Etxalekun.

Hona *-taik* aldaeraren adibideak: *gazteak giñelaik, denetaik itten giñun* 'gazteak ginelarik, denetarik egiten genuen' (Osk.), *ttiki-ttikitaik ikesi giñun oi* 'ttiki-ttikitarik ikasi genuen hori' (Etxal.), *baztar guzitaik ateatzen tzeen* 'bazter guzietarik ateratzen ziren' (Etxal.), *oai dao denetaik, kalefazioa-ta* 'orain dago denetarik, kalefakzioa-eta' (Mus.), *beittien beiek, txerriek, ollo-ta, oietaik* 'beheitian (ukuiluan) behiak, txerriak, oilo-eta, horietarik' (Mus.), *ta arbie eraitteko re bai, mineala ta geo auts ortaik* 'eta arbia ereiteko ere bai, minerala eta gero hauts horretarik' (Mus.), *gauz oietaik denetaik* 'gauza horietarik denetarik' (Mus.), *bietaik* 'bietarik' (Mus.), *amar euntaik izaten tzen* 'hamar egunetarik izaten zen' (Mus.), *azari ta oietaik* 'azeri eta horietatik' (Mus.), *arbol asko zauden oketaik* 'arbola asko zeuden hauetatik' (Mus.).

¹⁸⁸ *-tati* ere bada.

-ta(r)ik aldaera zaharrak hedadura zabala du Nafarroa Garaian: gure eremutik ekialdera, bada Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 400-404), Artzibarren (Arana 2004: 149) edota Aezkoan (Camino 1997: 397); ipar-ekialdera, Baztanen ere bada (Salaburu 1984-2: 180); hegoaldera, Txulapainen (Arana 2006: 81, 84, cf. *EDEL*)¹⁸⁹, Odieta Latasan (Camino 2003a: 242-244) eta Ezkabarteko Anotzen (Artola 1985) ere bazen, eta baita hego-nafarrera osatzen duten hizkera askotan ere (Camino 2003a: 81-82, cf. Salaberri 2000: 896). Nafarroa Garaiko mugetatik haratago ere bada; Lapurdin eta Nafarroa Beherean (Camino 2004b: 468, cf. *EDEL*), esate baterako.

Zuazok Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ekialdeko ezaugarritzat jo du *-taik* gordetzea (2008: 220). Izan ere, pentsatzekoa da morfema horrek hedadura zabalagoa izango zuela mende batzuk atzera: Bizkaiko testu zaharretan bada pluraleko *-taik* morfema XVIII. mendetik aurrera, nahiz gerora galdua den (Lakarra 1984: 168-187, 1996: 161).

8.3.9. Deklinabidea: motibatibo kasua

a. *-gatik* eta *-gati*

-gati atzizki zaharra zein *-gatik* berriagoa erabiltzen dituzte gure eremuan. Ablatibo kasurako esan dugun bezala, bi atzizki horiek ere ez dute eremu finkorik osatzen. Hona zenbait adibide: *argii bero ioteati iukitzen tzuten* ‘argia bero egoteagatik edukitzen zuten’ (Gol.), *zengati an erittuta gelditzen deenak* ‘zerengatik han herituta (< gazt. heridos) gelditzen direnak’ (Gol.), *ikastolaa bialdu ttuu ikesteatik* ‘ikastolara bidali ditugu ikasteagatik’ (Lat.), *itten duu iru illeetetik ola gosarie, biltzeatik lenaokoak eta* ‘egiten dugu hiru hilabetetik (edo) horrela gosaria, biltzeagatik lehenagokoak eta’ (Oro), *diru pixko at artzeati(k) eitten tzuin* ‘diru pixka bat hartzeagatik egiten zuten’ (Arru.), *orrengati esaten tzuen* ‘horrengatik esaten zuten’ (Alb.), *jendengatik itz eittee* ‘jendearengatik hitz egitea’ (Ui.), *arroo jartzeati* ‘harroago jartzeagatik’ (Gai.), *eztai[t] zeati izango den oi* ‘ez dakit zergatik izango den hori’ (At.), *aizeik ez gelditzeati* ‘haizerik ez gelditzeagatik’ (At.).

Bestalde, arestiko adibide horietan argi ikusten da motibatiboak esanahi bat baino gehiago izan dezakeela gure eremuan. Batetik, “zertaz” galderari erantzuten dio honako adibide hauetan: *orrengati esaten tzuen* ‘= horretaz (horri buruz) esaten zuten’ (Alb.), *jendengatik itz eittee* ‘= jendeaz (jendeari buruz) hitz egitea’ (Ui.), *apez orrengatik esaten tzuten* ‘= apez horretaz (horri

¹⁸⁹ Baina (*b)atzutatik* bildu zuen Artolak Usin, 1980. urtean (Camino 2003a: 246). Halaber, *itxetatik* ageri da Gulibarko Larunben urte berean (Camino 2003a: 247).

buruz) esaten zuten’ (Gol.). Bestetik, “zertarako” ere adieraz dezake: *argii bero ioteati iukitzen tzuten* ‘= argia bero egoteko edukitzen zuten’ (Gol.), *ikastolaa bialdu ttuu ikesteatik* ‘= ikastolara bidali ditugu ikasteko, ikas dezaten’ (Lat.), *biltzeatik lenaokoak* ‘= biltzeko lehenagokoak’ (Oro.), *diru pixko at artzeati(k)* ‘= diru pixka bat hartzeko’ (Arru.), *arroo jartzeati* ‘= harroago jartzeko’ (Gai.), *aizeik ez gelditzeati* ‘= haizerik ez gelditzeko’ (At.), *kea ematen zitzaion kolorea emateati* ‘= kea ematen zitzaion kolorea emateko’ (Gai.). Azkenik, ohikoa den adiera kausala ere izan dezake, “zergatik” galderari erantzunez: *eztai[t] zeati izango den oi* ‘ez dakit zergatik izango den hori’ (At.).

Zenbait herritan, balio semantikorik gabeko *-n* morfema gehitu diote *-gatik* atzizkiari, eta *-gatischen* sortu da (ikus 8.3.12.).

b. *-gatio*

-gatio forma Berueten, Gorritin eta Araitz-Betelun entzun dugu. Berueten, *zengatio* ‘zerengatik’ bildu dugu behin, eta *orregatio* beste behin: *kantu asko ikasten tzuten umek, baño orregatio, e!* ‘kantu asko ikasten zuten umek, baina horregatik, e!’. Nolanahi ere, *-gatek* erabiltzen dute han gehien-gehienean. Araitz-Betelun, baina, adibide gehixeago bildu ditugu: *arkume batengatio* ‘arkume batengatik’ (Gai.), *zeengatio* ‘zerengatik’ (Azk.), *kentzen tzion jalkitzeatio anbeste at* ‘kentzen zion jalkitzeagatik hainbeste bat’ (Gai.), *amonak orratio libratu* ‘amonak horratik libratu’ (In.), *arre[k] bee malizikin orreatio* ‘hark bere maliziarekin horratik’ (Bet.), *il duk orratio!* ‘hil duk horratik!’ (Gai.), *arraotze-txuringoa naastu eusteatio* ‘arrautza-txuringoa nahasi eusteagatik’ (Gai.). Azkenik, honako adibide hau jaso dugu behin Gorritin: *zeatio emen eurie maiz baita* ‘zergatik hemen euria maiz baita’.

-gati, *-gatik* eta *-gatio* atzizkien hedadura geografikoari dagokionez, ikus ablatibo kasua aztertu dugun atalean esandakoa, ondorioak berak baitira bi kasuetan.

8.3.10. Deklinabidea: adlatibo kasua

Adlatibo singularreko morfema *-(r)a* da gure eremu osoan; bokalen atalean ikusi dugunez, morfema hori *-(r)e* bihurtzen da batzuetan, eta *-aa*, *-etaa* gisako bokal luzeen adibideak ere ikusi ditugu (ikus 8.1.3.e. eta 8.1.1.).

Alabaina, Larraungo Baraibar, Arruitz, Uitz, Albiasu eta Errazkin herrietan, eta Araitz-Beteluko Gaintzan, Azkaraten eta Intzan, *-ara* eta *-era* adlatibo berranalizatuak bildu ditugu: *kanpoara* ‘kanpora’ (Bar., Ui., Gai.), *zuloara* ‘zulora’ (Bar.), *Lekunberriera* ‘Lekunberrira’ (Arru.), *Uitziera* ‘Uitzira’ (Erra.), *ateara* ‘atera’ (Alb.), *eskeara* ‘eskera’ (Ui.), *jokuera* ‘jokora’ (Ui.), *basoara* ‘basora’ (Ui.), *gureara* ‘gurera’ (Erra.), *erriera* ‘herrira’ (Erra.), *errutiera* ‘urrutira’ (Erra.), *sokaldeara* ‘sukaldera’ (Erra.), *ukulluera* ‘ukuilura’ (Erra.), *errekaara* ‘errekara’ (Erra.), *agoara* ‘ahora’ (Erra., Gai.), *astoara* ‘astora’ (Erra.), *jeztokiera* ‘jeztokira’ (Gai.), *bateti besteara* ‘batetik bestera’ (Gai.), *illeaz azpiera* ‘ileaz azpira’ (Gai.) & *Zuitako azpiera* ‘Zubietako azpira’ (In.), *Etxetxikiera* ‘Etxetxikira (Gaintzako etxe-izena)’ (Gai.), *leioara* ‘leihora’ (Gai.), *bordaan ondoara* ‘bordaren ondora’ (Gai.), *sekoara* ‘sekora (lehorrera)’ (Gai.), *altureara* ‘alturara (altuerara)’ (Gai.), *txokoara* ‘txokora’ (Gai.), *trunkoara* ‘trunkora’ (In.), *txerri-aspilleara* ‘txerri-azpilera’ (In.), *aiuntamentuera* ‘aiuntamentura’ (Azk.), *pisoara* ‘pisura’ (Gai.), *Iruñeko estazioara* ‘Iruñeko estaziora (geltokira)’ (Gai.), *fabrikeara* ‘fabrikara’ (Gai.). Betelun, adibide bakarra entzun dugu: *goiko koartoara* ‘goiko koartora (gelara)’. Forma horiekin batera, baina, gainerako herrietan orokorrak diren formak ere ageri dira; esan nahi baita, Gaintzan, esate baterako, *leioara* bildu badugu ere, *leioa* ‘leihora’ ere esaten dute, eta, beste adibide bat ematearren, Arruitzen, hiztun berak *Lekunberriera* eta *Lekunberrie* ‘Lekunberrira’ erabili zituen solasaldi berean.

Forma horiek berranalisiaren bidez azal daitezke: lehenik, hitzari adlatiboko morfema gehitu diote, eta, hizkera horien ezaugarri fonologikoen arabera, ohikoak diren *kanpoa* ‘kanpora’, *Lekunberrie* ‘Lekunberrira’, *errekaa* ‘errekara’ edota *sokaldea* ‘sukaldera’ sortu dira. Ondoren, forma horiei berriz gehitu diete adlatiboko *-ra* morfema, eta halaxe sortu dira *kanpoara*, *Lekunberriera*, *errekaara* edota *sokaldeara* aldaera pleonastikoak. Beraz: *kanpora* > *kanpoa* lehenik, eta *kanpoa* > *kanpoara* ondoren.

Guk dakigula, ez dago halakorik inguruko hizkeretan: ez Araitz-Betelu ondoko Amezketan (B. G.), ezta Basaburu Txikian edota Leitzan ere (B. L.). Aski forma berriak dirudite, gainera¹⁹⁰.

8.3.11. Adlatiboaren gainean eraikitako erakusleak

Adlatibo-morfema *-ra* da gure eremuko hizkera guztietan; ez dago beste hizkera batzuetako

¹⁹⁰ Erronkarieraz, *etxera* eta *etxeara* semantikoki bereizten zituzten: *etxera* ageri da norberaren etxea denean aipagai, eta *etxeara*, aldiz, gainerako kasuetan (Manterola 2006: 667-668). Baina bereizkuntza horrek ez du, ordea, zerikusirik gure eremuan bildu dugunarekin.

-rat morfemarik. Alabaina, morfema horixe ageri da ‘nora aldera, norantz’ adierazten duten erakusleotan: *onata* ‘honata, honantza’, *orrata* ‘horrata, horrantza’ eta *a(r)ata* ‘harata, harantza’. Hurbiltze-adlatiboaren adiera bera dute forma horiek, eta erakusleetan baizik ez dira erabiltzen (ez dago ****errirata** edo ****itxerata** erakorik, ez eta *errirat* edo *itxerat* ere; halakoetan, *aldea* ‘aldera’ posposizioa erabiltzen da)¹⁹¹.

Ezaugarriaren muga garbia da: *onata* gisakoak Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan erabiltzen dituzte (Berueteko adibidea: *aatako menditik audo sartzen da Ezkurrea* ‘haratako menditik agudo sartzen da Ezkurrara’). Handik mendebalera, Gipuzkoan eta Bizkaian bezala, *-runtz* morfema erabiltzen dute Larraunen eta Araitz-Betelun: *onontza* (Iri., Gorr., Erra., Bet., At., Gai., Azk.) & *onuntza* (Ald., Arru., Erra., Bet., At., Gai.) ‘honantza’ & *onuntzao* ‘honantzago’ (Od.) & *onuntzaxio* (Arru., Ui.) & *onuntzaxeo* (Alb.) ‘honantzaxego’ & *onuzko aldea* ‘honanzko aldera’ (Gorr.), *auntza* ‘harantza’ (Ast., Iri., Ald., Ui., Gorr., Erra.) & *auntzau* (Od.) & *auntzao* (Iri., Arru.) ‘harantzago’ & *auntzaxio* (Arru., Ui.) & *auntzaxeo* (Alb.) ‘harantzaxego’ & *auzko alde artan* ‘haranzko alde hartan’ (Bar.) & *auzko aldea* ‘haranzko aldera’ (Arru., Gorr.) & *auzko alde artaa* ‘haranzko alde hartara’ (Ui.) & *auzko karretera artaño* ‘haranzko karretera hartaraino’ (Ui.) & *auzko alden* (Gorr.) & *auzko aldean* (Azp.) ‘haranzko aldean’ & *auzkaldeo* ‘haranzko alderago’ (In.) & *auzkaldeko malkorrean* ‘haranzko aldeko malkorrean’ (Bet.) & *an auzko erreka* ‘han haranzko erreka’ (Gai.). Morfema hori erakusleetan soilik erabiltzen dute Larraunen eta Araitz-Betelun, inoiz ez izen arruntei lotuta (****etxeruntz**, ****erriruntz**).

Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera ageri da erakusleetako *-rata*: Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 399-400), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 123) edota Aezkoan (Camino 1997: 402). Basaburu Nagusitik iparraldera, Basaburu Txikian bada *-rata*, baina baita *a(r)uztik* ere (B. L.). Nafarroako ipar-ekialdean, ohikoa da *-rat* morfema (ikus: Bertizaranako eta Malerrekako datuak in Apalauza eta Lakar 2001-2003; Baztango datuak in Lakar eta Telletxea 2003-2004)¹⁹². *-runtz* morfemaz osatutako formak, berriz, Larraungo eta Araitz-Beteluko iparraldeko mugan diren Leitzan eta Areson (Olano 1998: 128, 145), Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 221) eta orobat Gipuzkoako eta Bizkaiko hizkeretan erabiltzen dituzte¹⁹³.

¹⁹¹ Azkueri esker jakin genuenez, ordea, Orixek esana zion *-antz* atzizkia erabiltzen zutela garai hartan Uitzin (Gomez 2005: 275-280; cf. Azkue 1969 [1923-1925]).

¹⁹² Hala ere, ez dute ingurune beretan erabiltzen hizkera guztietan.

¹⁹³ *-runtz* ez da, ordea, edozein ingurune morfologikotan erabiltzen; adizlagunetan soilik ageri da, esate baterako, Gipuzkoako hizkeretan (Hurtado 2001: 85-86 eta Zuazo 1998a: 205). Mendebaleko euskararen egoera ere ez da bat eta bera morfema horri dagokionez, *-(e)ranta* baitago mendebalean, eta *-(e)rutz* ekialdean (Zuazo 1998a: 205).

8.3.12. Balio semantikorik gabeko *-n* morfema

-n morfema *-tik* eta *-gandik* ablatibo kasuei, *-gatik* motibatibo kasuari, *-rik* partitibo kasuari eta *-larik* denbora-morfemari erantsita ageri da gure eremuko zenbait hizkeratan. Imozko eta Basaburu Nagusiko zenbait herritan entzun dugu; Imotzen maizago Basaburu Nagusian baino. Morfema horrek ez dakar inolako aldaketa semantikorik, eta, erabiltzen duten tokietan, morfema hori gabeko formekin txandaka ageri da. Gainera, haren maiztasuna aldakorra da hiztun batetik bestera. Bestalde, $a > e$ asimilazioaren ondorioz, *-tiken*, *-gandiken*, *-gatischen*, *-riken* eta *-lariken* formak sortu dira gure eremuko bi ibar horietan (ikus 8.1.3.i.).

Imotzen eta Basaburu Nagusian bildutako adibideak ikusiko ditugu. Hona, lehenik, ablatibo kasuari dagozkionak (*-tiken*, *-diken* & *-gandiken*): *guaiñiken* (Lat., Its.) & *goaiñiken* (Arrar.) & *goañiken* (Ig.) ‘oraindik(an)’, *andiken* ‘handik(an)’ (Era., Etxal., Beru.), *emendiken Iurtzune* ‘hemendik(an) Irurtzuna’ (Era.), *erritiken* ‘herritik(an)’ (Era.), *gaiñetiken* ‘gainetik(an)’ (Era.), *ateatzen tzo gatzetiken* ‘ateratzen duzu gatzatik(an)’ (Era.), *ortzak zittun azpitiken* ‘hortzak zituen azpitik(an)’ (Era.), *erri guzitatiken* ‘herri guztietatik(an)’ (Zarr.), *geoztiken* ‘geroztik(an)’ (Osk.), *izenetiken* ‘izenetik(an)’ (Etxal.), *grifotiken* ‘grifotik(an)’ (Etxal.), *ortiken atea giñun* ‘hortik(an) atera genuen’ (Etxal.), *tximiñetiken* ‘tximiniatik(an)’ (Etxal.), *atea zen mezatiken* ‘atera zen mezatik(an)’ (Etxal.), *etzakin nondiken zeatu* ‘ez zekien nondik(an) zeratu’ (Etxal.), *librutiken* ‘liburutik(an)’ (Etxal.), *guegandiken* ‘guregandik(an)’ (Etxal.), *Igoatiken* ‘Igoatik(an)’ (Arrar.), *emendiken* ‘hemendik(an)’ (Beru.).

Motibatibo kasuari dagozkion adibideak honako hauek dira (*-gatischen*): *euskeangatischen* ‘euskararengatik(an)’ (Etxal.), *zeatiken guk izandu duu tratoa Aginagakoakin eta Ziekoakin* ‘zergatik(an) guk izan(du) dugu tratua Aginagakoekin eta Ziakoekin’ (Etxal.), *ezta beste diusengatischen* ‘ez da beste deusengatik(an)’ (Osk.), *zergatischen kerte guzik tapatu in tzittuten* ‘zergatik(an) kerte guziak tapatu egin zituzten’ (Etxal.), *zergatischen nik berroite bedratzi urte beste illean zazpin in bea`ittut ezkonduik* ‘zergatik(an) nik berrogeita bederatzi urte beste hilaren zazpian egin behar ditut ezkondurik’ (Etxal.), *zeatiken erdi-erdiñ ardatza sartzen tziraion arrei* ‘zergatik(an) erdi-erdian ardatza sartzen zitzaion hari’ (Etxal.), *gaitze in nai badiote neegatischen* ‘gaitza egin nahi badiote niregatik(an)’ (Etxal.).

-larik denbora-morfemak *-laiken*, *-liken* eman du: *eskolan asi giñelaiken* ‘eskolan hasi ginelarik(an)’ (Lat.), *itten zittutelaiken* ‘egiten zituztelarik(an)’ (Lat.), *ni umea nitzelaiken*, *beiei kasu ittea ta idi kasu ittea goizean argittu orduko*, *geo uztarrin lotu ta lanea eramateko* ‘ni umea nintzelarik(an), behiei kasu egitera eta idiari kasu egitera goizean argitu orduko, gero uztarrin lotu eta lanera eramateko’ (Osk.), *nik amabi urte banittun oi il zelaiken* ‘nik hamabi urte banituen hori hil zelarik(an)’ (Osk.), *biarren aldin joan nitzelaiken*, *amalau urte nittun* ‘bigarren aldian joan nintzelarik(an), hamalau urte nituen’ (Osk.), *ikusi zulaiken amestiñoko familie eldu zela* ‘ikusi zuelarik(an) hainbesterainoko familia heldu zela’ (Osk.), *plaza in tzutelaiken* ‘plaza egin zutelarik(an)’ (Osk.), *gaizkittu nitzeliken* ‘gaizkitu nintzelarik(an)’ (Etxal.), *oso txikie nitzeliken* ‘oso txikia nintzelarik(an)’ (Etxal.), *loditzen tzeliken* ‘loditzen zelarik(an)’ (Etxal.), *dena botatzen tziñuliken* ‘dena botatzen zenuelarik(an)’ (Etxal.), *jendi Iruñea joaten zelaiken* ‘jendea Iruñera joaten zelarik(an)’ (Its.), *soldado yoan giñelaiken* ‘soldadu joan ginelarik(an)’ (Arrar.).

Hona, azkenik, partitiboari dagozkion adibide gutxi batzuk (*-riken*): *floriken* ‘lorerik(an)’ (Lat.), *nik eztauket tentsioiken* ‘nik ez daukat tentsiorik’ (Lat.), *etzen beste santuiken* ‘ez zen beste santurik(an)’ (Osk.).

Basaburu Nagusian baino adibide gehiago ditugu Imotzen, baina bada aldea herri batetik bestera: Imotzen berean, oso-oso gutxitan entzun dugu Goldaratzen eta Muskitzen, eta gauza bera esan dezakegu Basaburu Nagusiko Erbiti eta Gartzaron herriez.

Ezaugarri horren hedadura geografikoari dagokionez, haren erabileran aldea badela ikus daiteke. Gaur egun, Basaburu Nagusitik iparraldera, partitiboan, ablatiboan, motibatiboan eta modudenborazko perpausetan ageri da Basaburu Txikian, Malerrekan, Bertizaranan eta Bortzirietan, eta partitiboan Baztanen (Zelaieta 2004: 244). Larraunen eta Araitz-Betelun ez dugu halakorik entzun, baina ablatiboan *-tik*, *-tiken* eta *-tike* eta motibatiboan *-gatik*, *-gatiken* eta *-gatike* aukerak daude handik iparraldera dagoen Leitzan (Olano 1998: 14); Goizuetan eta Aranon, ablatiboko *-tik*, *-tikan* eta partitiboko *-rik*, *-rika* eta *-rikan* daude, baina *-gatik* motibatiboan (Zubiri eta Perurena 1998: 70, 117, 120, 122). Sakanan, berriz, partitiboan bildu du Erdoziak (2001: 206). Bestalde, halakorik ez da ageri guretik ekialderako Atetz, Ultzama eta Anue ibarretan (Ibarra 1995a: 401). Nafarroatik kanpo, Gipuzkoako iparraldean ere badu indarra (Zuazo 2008: 191); Gipuzkoan jarraituz, Goierri ez da ageri, baina bai Tolosaldeko zenbait hizkeratan, nahiz ez Beterrin adina (Hurtado 2001: 83-

85), eta, mendebalerago, Elgoibarren ere bada (Makazaga 2009: 92-93). Nolanahi ere, Otxoa Arinek berak erabili zuen 1713an; beraz, baliteke Goierriin berean hedatuxeago egotea denbora haietan.

Diakroniari erreparatuz, ablatiboko (-*tikan*), partitiboko (-*rikan*) eta motibatiboko (-*gantikan*) formak dira zaharrenak, eta berriagoak, aldiz, ablatibo bizidunari dagozkionak (-*gandikan*) eta ezezko perpausetako (-*enikan*) formak (Zuazo 2008: 191); esate baterako, *Vizcaitican* adibidea bada euskara giputzean idatzitako Britainiako kantuan, XV-XVI. mendeetan (Sarasola 1990 [1983]: 78), eta, Otxoa Arinen doktrinan, 1713. urtean, partitiboari, ablatiboari eta motibatiboari erantsirik ageri da (Aranburu eta beste 1999: 87). Baina testu zaharrak irakurriz ikasi dugu batez ere -*rik* morfemaz eratutako partizipioetan ageri direla halako formak Nafarroan; esate baterako, -*rik*, -*rika* eta -*rikan* formak irakur daitezke Beriainen lanetan (1621 eta 1626); gerora hedatuak dirudite, horrenbestez, gainerako formek (-*larikan*, -*tikan*...). Bestalde, Nafarroa Beherean adiera kontzesiboa dute *izanikan ere* gisakoek, eta ablatiboko eta partitiboko adibideak ere ageri dira XIX. mendetik aurrera (Camino 2008b: 141)¹⁹⁴; adiera kontzesiboa ezaguna da, gaur egun, Lapurdiko Larresoro aldean (Epelde 2004a: 283) edota Aezkoan (Camino 1997: 390) ere. Gaur egun, esan bezala, ez dugu partizipioetako -*rikan* gisakorik entzun gure eremuan (ezta adiera kontzesiboa ere, jakina); batez ere ablatiboko, motibatiboko eta denbora-perpausetako adibideak bildu ditugu, baita partitiboko bakan batzuk ere.

Irudi konplexua du, beraz, ezaugarriak; baina, gaurko erabilerari erreparatuz, badirudi Gipuzkoako iparraldetik Bidasoa aldera eta Goizueta-Leitzara, handik Basaburu Txikira, eta handik Basaburu Nagusira eta Imotza zabaldutako ezaugarria dela.

8.3.13. Deklinabidea: prolatibo kasua

Destinatibo kasuarekin lotura handia du prolatiboak (morfema bera da, azken batean), eta, dirudenez, gero eta gutxiago baliatzen da, beste deklinabide-kasu batzuk erabiltzen baitira haren ordean, gero eta gehiago (Zuazo 2008: 248).

Gure eremuan, Nafarroa Garaian eta Zuberoan ohikoa den -*tako* morfema bildu dugu¹⁹⁵: *tratatu deete tontatako* ‘tratatu didate (naute) tontatako’ (Er.), *artu zeen erotako* ‘hartu zidan (ninduen) erotako’ (Er.), *errin zaukiten gaiztotako* ‘herrian zeukaten gaiztotako’ (Er.), *artu deete*

¹⁹⁴ Nolanahi ere, -*n* gabeko formak dira nagusi Nafarroa Beherean.

¹⁹⁵ Inkesta bidez bildu ditugu Gaintzakoak ez beste adibide guztiak.

tontotako ‘hartu didate (naute) tontotako’ (Oro.), *zauketen gaiztotako* ‘zeukaten gaiztotako’ (Oro.), *tontotako tratatu deete* ‘tontotako tratatu didate (naute)’ (Etxal.), *erotako tratatu zeeten* ‘erotako tratatu zidaten (ninduten)’ (Etxal.), *gaiztotako zauketen* ‘gaiztotako zeukaten’ (Etxal.), *artu deete tontotako* ‘hartu didate (naute) tontotako’ (Mus.), *txorotako o ergeltako artu* ‘txorotako edo ergeltako hartu’ (Ald.), *tontotako arrapatu naue* ‘tontotako harrapatu naute’ (Ui.), *tontotako artu* ‘tontotako hartu’ (Gorr.), *artu naue tontotaako* ‘hartu naute tontotako’ (Erra.), *aako gizon ue eukitzen tzuen gaiztotaako* ‘harako gizon hura edukitzen zuten gaiztotako’ (Erra.), *tontotako arto niñuen* ‘tontotako hartu ninduten’ (Gai.), *alfonbretako [erabiltzeko] igual kuratzen tzittuen* ‘alfonbratako [erabiltzeko] igual kuratzen zituzten’ (Gai.), *nik ette ’tosten oik esoletako jartze’ azkiot* ‘nik egiten ditudan horiek hesi-oholtako jartzen dizkiot’ (Gai.).

Bakanago, baina *-tzat* ere bildu dugu: *tontotzat artu* ‘tontotzat hartu’ (Gol.), *artu naue tontotzat* ‘hartu naute tontotzat’ (Erra.), *artu niñuen txorotzat* ‘hartu ninduten txorotzat’ (Erra.).

Azkenik, *-rako* dugu Muskizko adibide honetan: *errien zauketen gaiztorako* ‘herrian zeukaten gaiztorako’.

Aski forma zaharrak dira *-tako* zein *-tzat*, aspaldiko testu zaharretan ageri baitira biak ala biak. Esate baterako, Nafarroan, gaur egun *-tako* nagusi bada ere, *-tzat* ageri da hainbat testu zaharretan: Utergan 1547an, Olaztin 1548an, Zufian 1552an, Espartza-Galarren 1557an, Agoitzen 1551ean (Satrustegi 1987b) edota Beriainen *Tratadoan* 1621ean. Ipar Euskal Herriari dagokionez, bi morfemak badituzte Nafarroa Behereko idazle zaharrek, eta *-tzat* Lapurdikoek (Camino 2008b: 122); Zuberoan, *-tako* baliatzen dute¹⁹⁶.

8.3.14. Deklinabidea: muga-adlatibo kasua

Bi balio ditu *-raino* morfemak gure eremuan: lekua nahiz denbora adieraz dezake. Alegia, “noraino” eta “noiz arte” galderei erantzuten die. Bi erabilerok aski zabaldurik daude beste hizkera batzuetan ere (ikus, besteak beste, Erroibarko eta Esteribarko datuak in Ibarra 2000: 122).

¹⁹⁶ *guincotaco eçagutcen* adibidea ageri da, esate baterako, Zuberoako pastoral batean, XIX. mendean (Loidi 1996: 574).

Hona lekua adierazten duten zenbait adibide: *auzko karretera artaño* ‘haranzko karretera hartaraino’ (Ui.), *Latasaaño jetsi* ‘Latasaraino jaitsi’ (Gol.), *eroe ta goitti beira beiko zelaieaño etorri zen* ‘erori eta goitik behera beheko zelairaino etorri zen’ (Azk.).

Denbora adierazten dutenak hauek dira: *nai duzuneaño* ‘nahi duzun arte’ (Etxal.), *umik gabin bealdeko denbotaaño telebisioan eoten deela* ‘umeak gauean berealdiko denborak arte telebistan egoten direla’ (Gol.), *apal ordueño* ‘afal orduraino’ (Bar.), *afaldu, ta berris baileta plazaa, gauerdieño* ‘afaldu, eta berriz bailera plazara, gauerdiraino’ (Alb.), *ebardieño* ‘eguediraino’ (In.), *mas ue atzea iriñean utzi, biamoneaño* ‘masa hura atzera irinean utzi, bihamuneraino’ (At.), *iraun asko, igual apirilleaño* ‘iraun asko, igual apirileraino’ (Arri.), *oañ urte otaaño* ‘orain urte hauetaraino’ (Gai.), *oi ganbaran jarrita re martxoaaño earki eoten da* ‘hori ganbaran jarrita ere martxoraino ederki egoten da’ (Bet.), *sei-zazpi urteaño ezautzen zaio* ‘sei-zazpi urteraino ezagutzen zaio’ (Bet.), *urrungo euneaño utzi* ‘hurrengo eguneraino utzi’ (Bet.), *jaiean euerdieño lana eetten giñun* ‘jaian eguediraino lana egiten genuen’ (In.), *primaeraño* ‘primaberaraino (udaberriraino)’ (Azk.).

Bestalde, “arte” posposizioak muga-adlatiboaren morfema hartu du gure eremuaren ekialdean: *artiño*, *artio*, *arteo* bildu dugu Imozko herrietan, *artio* Gartzaronen, *arteo* Orokietan, *arteño* Itsason, eta *artiño* Oderitzen. Hona adibideak: *gras ue kendu artiño* ‘grasa hura kendu arteraino’ (Gol.), *danak jaio artiño* ‘dena jaio arteraino’ (Gol.), *neskame joan artiño* ‘neskame joan arteraino’ (Gol.), *sekatu artiño* ‘sekatu arteraino’ (Gol.), *amalau urteak artio* ‘hamalau urteak arteraino’ (Lat.), *goain dela urte atzuk arteo* ‘orain dela urte batzuk arteraino’ (Lat.), *goain dela bi urte artio iilttu naiz eizin ni* ‘orain dela bi urte arteraino ibili(tu) naiz ehizean ni’ (Lat.), *ze in, ze patu, o noiz artiño eon* ‘zer egin, zer paratu, edo noiz arteraino egon’ (Era.), *kamiona kargatu artio* ‘kamioia kargatu arteraino’ (Osk.), *bi orduk artio* ‘bi orduak arteraino’ (Mus.), *amalau urtik artiño* ‘hamalau urteak arteraino’ (Its.), *ordu artio* ‘ordu arteraino’ (Er.), *gabeartio* ‘gaua arteraino’ (Gar.), *eondu giñen argittu arteo kantari* ‘egon(du) ginen argitu arteraino kantari’ (Oro.), *gu itxea kartzen tzun iriñe beandu arteo* ‘gure etxera ekartzen zuen irina berandu arteraino’ (Oro.). Bestalde, *arteño* ere bildu dugu Araitz-Betelun: *arrek nae zun arteaño* ‘hark nahi zuen arteraino’ (Gai.), *goiz arteaño* ‘goiz arteraino’ (Gai.).

Forma horiekin batera, baina, *arte* eta *arti* ere erabiltzen dituzte eremu osoan: *allatu arti* ‘ailegatu arte’ (Gol.), *oztu arti* ‘hoztu arte’ (Gol.), *bi orduk arti* ‘bi orduak arte’ (Ud.), *amabik arti* ‘hamabiak arte’ (Ud.), *ertsi arte* ‘hetsi arte’ (Oro.), *nai zun arti* ‘nahi zuen arte’ (Arru.), *argittu arte* ‘argitu arte’ (Gai.), *goizeko zazpi-zortzik arte* ‘goizeko zazpi-zortziak arte’ (Gai.).

artiño gisakoak adineko hiztunek erabiltzen dituzte batik bat, heldu eta gazteek *arti* eta *arte* erabiltzen baitituzte. Ibarrek dio *arte* eta *arti* besterik ez dagoela Imotzen eta Basaburu Nagusian (1995a: 405); ikusi dugunez, beste aukera batzuk ere bildu ditugu guk bi ibarrotan.

Gure eremutik ekialdera, ohikoa da *artio* forma; esate baterako, Ultzama, Erroibar eta Esteribar ibarretan bildu du Ibarrek (1995a: 405 eta 2000: 122), eta Aezkoan Caminok (1997: 236). Caminok berak gaineratu du goi- nafarreraz badela *artio*, eta *artio* eta *artino* daudela Nafarroa Beherean. *EAE*Lko datuetan, *artio* ageri da Zigandan, Suarben, Eugin, Mezkitzen, Auritzen, Abaurregainean eta Nafarroa Beherean. Goñerrian eta inguruko hizkeretan ere bazen (Camino 1999: 69); baita Ezkabarteko Anotzen ere (Artola 1985), eta ezaguna da Sakanako erdialdean (Erdozia 2004a: 38). Basaburu Nagusitik iparraldera, *artiño* nahiz *artio* bildu genuen Basaburu Txikian, Malerrekan eta Bertizaranan (Apalauza eta Lakar 2001-2003).

8.3.15. Erdal *-on* atzizkia

-on eman du gure eremu osoan erdal *-on* atzizkiak: *erle-kajonak* ‘erle-kaxoiak’ (Gol.), *salmona* gazt. ‘salmón’ (Gol.), *sermona* ‘sermoia’ (Gol.), *salona* gazt. ‘salón’ (Osk.), *saxofona* ‘saxofoia’ (Mus.), *montona* (Gol., Lat., Od., Arri.) & *monton bat* (Era.) & *sasi montona* (Etxal.) & *montoniin* (Ig.) gazt. ‘montón’, *frontona* ‘frontoia’ (Lat., Gar.), *garrafona* gazt. ‘garrafón’ (Lat.), *botona* (Lat., Iri.) & *potonak* (Beru.) ‘botoia(k)’, *pabellon bat* ‘pabilioi bat’ (Urr.), *ordun etzen pantalonik* ‘orduan ez zen pantalonik (galtzarik)’ (Urr.) & *pantalonak* gazt. ‘pantalones’ (Ui., Bet.), *turrona* ‘turroia’ (Urr.), *jabona* ‘xaboia’ (Era., Arru., Bet.), *orejonak* gazt. ‘orejón; lehortutako fruta’ (Era.), *fanfarrona* ‘fanfarroia’ (Era.), *algodona* ‘kotoia (gast. algodón)’ (Era., Bet.), *abiona* ‘abioia’ (Osk., Iri., Ui.), *millon erdie* ‘milioi erdia’ (Osk.) & *berreun millon* ‘berrehun milioi’ (Etxal.), *rekesona* gazt. ‘requesón’ (Osk.), *follona* gazt. ‘follón’ (Osk.), *kañonak* ‘kainoiak’ (Etxal.), *balkona* ‘balkoia’ (Etxal., Gol., Arru., Ui.) & *balkonetik* ‘balkoitik’ (Od., Bar.), *flemona* gazt. ‘flemón’ (Etxal.), *ure marrona atea bittarte* ‘ura marroia atera bitarte’ (Etxal.), *koltxona* ‘koltxoia’ (Mus., Alb., Gai.), *kollarona* gazt. ‘collarón’ (Arrar.), *kamiona* ‘kamioia’ (Beru., Od., Uzt.), *kordiona* (Ud.)

& *akordeona* (Arru.) & *akordiona* (Bar.) ‘akordeoia’, *makarronak* ‘makarroiak’ (Ud., Erra.), *balona* ‘baloia’ (Od., Ui.), *melona* ‘meloia’ (Iri., Gorr.), *alkona* gazt. ‘halcón’ (Arru.), *bidona* gazt. ‘bidón’ (Ald.), *peona* (Ald.) & *pion* (Era., Osk., Etxal., Its.) gazt. ‘peón’, *limona* ‘limoia’ (Gai.), *pre(g)ona* ‘pregoia’ (Gai.), *tablonak* gazt. ‘tablón (pl.)’ (Gai.), *puntzonaakiñ* gazt. ‘punzón (soz.)’ (Gai.), *listona* gazt. ‘listón’ (Gai.), *letxona* gazt. ‘lechón’ (Bet.) *tiburonak* gazt. ‘tiburón (pl.)’ (Bet.), *jergona* gazt. ‘jergón’ (Uzt.), *pitxona* gazt. ‘pichón’ (At.), *patrona* ‘patroia’ (Azk.), *pilonak* gazt. ‘pilón (pl.)’ (In.).

Nafarroa Garai gehieneko ezaugarria da *-on* bukaera (Zuazo 2008: 108), eta XVIII. mendearen amaieran gutxienez bazen; hain zuzen, *tablonac*, *amazonac* eta *balconac* adibideak ageri dira Ultzamako testu batean 1796. urtean (Bidador 2001). Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko isoglosa nabaria da gure eremuko mendebalean: Araitz-Betelu ondoan dauden hizkera giputzetan (Tolosaldean, Goierriin, eta orobat Gipuzkoan), *-oi* erabiltzen dute eskuarki, nahiz *kamiona* eta *abiona* erabiltzen dituzten Amezketan, salbuespen gisa (B. G.).

Bestalde, latinezko *-onem* atzizkia duten hitzetan, *-ore* eta *-ure* bukaera antihiatikoak ditugu Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen (salbu Errazkin). Isoglosatik kanpo daude, beraz, Errazkin eta Araitz-Beteluko herriak. Honako adibide hauetan bildu dugu guk: *arrazore* (Gol., Gar., Arrar., Ig., Beru., Od., Arru., Alb., Ui., Gorr., Azp.) & *arrazoe* (Oro.) & *arrozore* (Ud., Iri., Azp.) & *arrazure* (Era., Etxal.) ‘arrazoia’, *arratore* (Gol., Its., Gar., Arrar., Ig., Ud., Oro., Arru., Ald., Alb., Ui., Gorr., Azp.) & *arrotore* (Beru., Od., Iri.) & *arrature* (Mus.) ‘arratoia’.

arratore aldaera (edo haren tankerakoak) gure alderdiko hiru ibar horietan eta, Etxaideren arabera, Atetzen eta Ultzaman ageri da (1989: 117); hegoalderago, Txulapainen ere bazen (Arana 2006: 10)¹⁹⁷. *EAEL*ko datuei tiraka, *arratore* ageri da Eugin, Saldiasen eta Urritzolan. Basaburu Txikiari dagokionez, *arratore* ageri da gaur egun Saldiasen eta Beintza-Labaienen, eta *arratobe*, aldiz, Eratsunen eta Ezkurran, Leitzan eta Areson bezala (B. L.).

arrazore edo haren kidekoak, berriz, Ultzaman ere badira (Ibarra 1995a: 286), eta, Etxaidek dakarrenez, baita Areson ere (1989: 79). Basaburu Txikian, *arrazoi* dugu, gaur egun, Saldiasen eta

¹⁹⁷ Txulapaingo aldaera eskusibotzat hartu du Aranak *arratori*; datuek garbi erakusten dute ez dela ondorio zuzena.

Beintza-Labaienen, baina *arrazobe* ageri da Saldiasko doktrinan (1881. urtekoa); hain zuzen, *arrazobe* erabiltzen dute Eratsunen eta Ezkurran, Leitzan eta Areson bezala (B. L.).

Bestalde, *arrazoña* ‘arrazoia’ bildu dugu Muskitzen eta Itsason, eta *arrazoñe* Orokietan (Orokietan, *arrazoe* ere bai): *zuk duzu arrazoña!* ‘zuk duzu arrazoia!’ (Mus.). Halakoak ohikoak dira Ateztik hasita Erroibarreraino gutxienez, eta baita Urdazubin eta Zugarramurdin (Etxaide 1989: 79) edota Artzibarren (Arana 2004: 16) ere. Areago, euskara nafar-lapurtarraren ezaugarria da *-in* bukaera (Zuazo 2008: 166-167).

Gorago adierazi dugunez, *arrazobe* eta *arratobe* aldaerak erabiltzen dituzte, gaur egun, Leitzan eta Areson (Olano 1998: 76-77), eta aldaera horiek Basaburu Nagusiko Arraratsen eta Larraungo Albiasun ere entzun ditugu (*arrazore* eta *arratore*-rekin batera bi kasuetan). Bukaera hori Uharte Arakilen ere bildu dute (Arakama 1994: 578).

Azkenik, *arrazoi* eta *arratoi* erabiltzen dituzte Errazkinen eta Araitz-Betelun, baita handik mendebalera dauden eskualde giputzetan ere; gainera, *arrazoi* erabiltzen dute Larraungo Aldatzen eta Iribasen ere (Iribasen, *arrozore*-rekin batera). Intzak *arratore* bildu zuen Iribasko esaera batean (1974: 49): *katue kanpoan denean arratorik pesta*. *-oi* ageri da Sakanako erdialdean ere, baina *arrazore* eta *arratore* (baita *matore* ‘gaztanbera’ ere) daude Arbizun (Erdozia 2001: 83-84).

Diakroniari erreparatuz, Leitzan *razoe* ageri da 1626an (Satrustegi 1987b: 45-47), Sakanan *arrazore* 1833an (Satrustegi 1987b: 186-207), Goldaratzen *arrazobe* 1830 aldean (gogoan izan Goldarazkoak ez direla oso testu fidagarriak, ikus Satrustegi 1987b: 207-229), eta *arrozobe* Gastesi irañetarraren testuetan 1850 aldera (Ulayar 1987). *razoe* erakoak beste eskualde batzuetan ere ageri dira, ordea; Otxoa Arinen doktrinan ageri da, esate baterako, 1713. urtean (Aranburu eta beste 1999: 79)¹⁹⁸. Horregatik, pentsatzekoa da harako hiato bat hausteko sortuak direla *-ore*, *-ure* eta halako formak.

8.3.16. *-ka(n)* modu-atzizkia

-kan atzizkia bildu dugu Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraun ibarretan, baina baita, urriago bada ere, *-ka* ere. Alabaina, Imozko Muskitzen eta Basaburu Nagusiko Igoan, Arraratsen eta

¹⁹⁸ Gaur egun, Euskal Herriko mendebalean ere badira *-oe* eta *-oa*; esate baterako, *milloa* ‘milioia’ da Zornotzan.

Orokietan, maizago ageri da *-ka*. *a > e* asimilazioaren eraginez, *-ke(n)* bihurtu da (ikus 8.1.3.d.).

Hona *-kan* atzizkiaren adibideak: *txintxilekan* (Gol.) & *zintzelekan* (Beru., Od., Iri., Bar., Arru., Ald.) & *txintxiliken* (Ui.) & *zintzilikan* (Azp.) ‘zintzilik(an)’, *bueltakan-bueltakan* ‘bueltaka(n)-bueltaka(n)’ (Gol., Era.) & *bueltakan* ‘bueltaka(n)’ (Iri., Ui.), *laixterkan* ‘lasterka(n)’ (Gol., Gar., Beru., Arru., Ui.), *pillekan* ‘pilaka’ (Gol., Ud., Ui.), *kuadrillekan* ‘koadrilaka(n)’ (Gol.), *saltokan* ‘saltoka(n)’ (Gol., Its., Gar., Arru., Alb., Gorr., Azp., Erra.), *ostikokan* ‘ostikoka(n)’ (Gol., Etxal.), *arriken* ‘harrika(n)’ (Lat., Its., Ui.), *makillekin zirikekan ta jokan* ‘makilarekin zirikaka(n) eta joka(n)’ (Era.), *banakan-banakan* ‘banaka(n)-banaka(n)’ (Etxal., Osk.) & *banakan* ‘banaka(n)’ (Beru.), *tartekan-tartekan* ‘tarteka(n)-tarteka(n)’ (Etxal.) & *tartekan* ‘tarteka(n)’ (Beru.), *tirekan* ‘tiraka(n)’ (Etxal.), *txingokan* ‘txingoka(n)’ (Osk., Azp.), *montonkan* ‘pilaka (< gazt. montón)’ (Osk.), *amenazakan* ‘mehatxuka (< gazt. amenaza)’ (Osk.), *botakan* ‘botaka(n)’ (Its.), *tirokan* ‘tiroka(n)’ (Gar., Ud., Arru., Ui.), *arraxtakan* ‘arrastaka(n)’ (Ud.), *biñekan* ‘binaka(n)’ (Ud.), *irunekan* ‘hirunaka(n)’ (Ud.), *launekan* ‘launaka(n)’ (Ud.), *ealkan* ‘hegalka(n)’ (Ud., Beru., Iri., Ald., Ui., Azp.), *atzeakan* ‘atzeraka(n)’ (Er.), *mutur yokan* ‘mutur joka(n)’ (Er.), *burruken* ‘borroka(n)’ (Oro.), *tximistekan* ‘tximistaka(n)’ (Ig.), *pixkekan* ‘pixkaka(n)’ (Beru.), *presakan* (Beru., Arru., Alb., Erra.) & *prisakan* (Urr.) & *prisekan* (Od.) ‘presaka(n)’, *azkan ein* ‘hazka(n) egin’ (Od.) & *azkan ez ibiltzeko* ‘hazka(n) ez ibiltzeko’ (Alb.), *potekan* ‘poteka(n)’ (Od.), *elkarre jokan* ‘elkarri joka(n)’ (Od.), *apokan-apokan* ‘apoka(n)-apoka(n)’¹⁹⁹ (Iri.), *oñazturekan* ‘oinazturaka(n)’ (Bar.), *tantakan* ‘tantaka(n)’ (Bar.), *oso aldiken* ‘oso aldika(n)’ (Bar.), *atokan* ‘atoka(n)’²⁰⁰ (Arru.), *kojokan* ‘mainguka (< gazt. cojo)’ (Ui.), *ixilkekan* ‘isilkaka(n)’ (Ui.), *seikan* ‘segika(n)’ (Ui.), *oiuken* (Gorr., Er., Osk.) & *oiduken* (Azp.) ‘oihuka(n)’.

Araitz-Betelun, aldiz, *-ka* (> *-ke*) jaso dugu kasu guztietan: *muturke* ‘muturka’ (Bet.), *usainka-usainka* ‘usainka-usainka’ (Arri.), *marruke* ‘marruka’ (Arri.), *izkutuke* ‘ezkutuka’ (Arri., Gai.), *zintzilike* (Bet., Arri., Gai., In., Azk.) & *txintxilike* (Bet., At., In.) ‘zintzilik(a)’, *arrike* ‘harrika’ (Uzt., Gai.), *eporditti ziike* ‘ipurditik zirika’ (In.), *oiuke* ‘oihuka’ (In.), *karraxike* ‘garrasika’ (In., Bet.), *irrintzike* ‘irrintzika’ (Gai.), *zilipurdike* ‘zilipurdika’ (Gai.), *banaka-banaka* ‘banaka-banaka’ (Gai.), *ozkaka* ‘hozkaka’ (Gai.), *dozenaka* ‘dozenaka’ (Gai.), *paxoka-paxoka* ‘paxoka-paxoka’²⁰¹ (Bet.), *bultzaka* ‘bultzaka’ (Bet.), *metroka* ‘metroka’ (Bet.), *atzeaka* ‘atzeraka’ (In.). Imozko Muskitzen ere

¹⁹⁹ Makurtuta oinez ibiltzea da *apokan-apokan* ibiltzea.

²⁰⁰ Haur-joko baten izena da.

²⁰¹ ‘multzoka’ edo ‘sortaka’ esan nahi du; adibidez, garia edo lihoa bildu, eta, lehortu zedin, *paxoka-paxoka* jartzen zuten (badirudi gaztelaniazko *fajo* hitzetik datorkeela).

maizago entzun dugu *-ka*: *arriekka* ‘harrika’, *tiroka* ‘tiroka’, *laisterka* ‘lasterka’, *saltoka* ‘saltoka’, *bueltaka* ‘bueltaka’.

-kan atzizkia Nafarroa Garaiko erdiguneko eta mendebaleko ezaugarritzat jo du Caminok (2003a: 86 eta 2006: 61). Haren arabera, bada Burundan, Ergoienean, Arakilen, Irañetan, Sakanako erdialdean, Imotzen eta Basaburuan; Gesalazko, Goñerriko eta Oltza zendeako testu zaharretan; eta beharbada baita Txulapainen ere. Ez dago, ordea, Ollaranen, Gulibarren, Odietan, Ezkabarten eta Ihabartik eskuinera. Ekialderago, *-ka*, *-ke* dago Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 144), baina *elekan* adibidea dakar Aranek Artzibarrerako (2004: 95). Gure eremuko Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraun ibarretan *-kan* dagoela ikusi dugu, baina *-ka* Araitz-Betelun; gure mugetatik kanpo, *-ka* dago Leitzan (Olano 1998: 169-170) eta Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan (K. E.)²⁰², eta *lasterkan* bada Basaburu Txikian, baina *-ka* da han nagusi (B. L.). Gainera, Euskal Herriko ekialdean eta Amikuzen ere bada *-kan* (Camino 2009b: 198).

Beriainek ez zuen *-kan* erabili, baina *-kan* dugu Juan Martin de Ibero munarriztarrak (Goñerria) 1758an idatzitako testu batean (Camino 2003a: 86, Satrustegi 1987b: 91-111).

8.3.17. *-on bat* ‘*-ren bat*’ egitura

-on bat bihurtu da *-ren bat* egitura Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen. Araitz-Betelun ez da erabat erabiltzen, baina zenbait adibide bildu ditugu. Ez du ingurune fonologiko jakinik eskatzen, edozein bokal edo kontsonanteren ondoren ager baitaiteke.

Hona zenbait adibide: *iunon batin* ‘egunen batean’ (Gol.), *dantzaldion bat* ‘dantzaldiren bat’ (Gol.), *kostunbrion bat* ‘kostunbreren (< gazt. *costumbre*) bat’ (Gol.), *afizioa zunon bat* ‘afizioa zuenen bat’ (Gol.), *axurion bat* ‘axuriren bat’ (Gol.), *ezurron batekin* ‘hezurren batekin’ (Gol.), *itxion batin* ‘etxeren batean’ (Gol.), *bakarron batek* ‘bakarren batek’ (Lat.), *bordaon bat* ‘bordaren bat’ (Lat.), *berreunon bat* ‘berrehunen bat’ (Lat.), *txondorron bat o beste* ‘txondorren bat edo beste’ (Lat.), *basurdeon bat* ‘basurderen bat’ (Lat.), *aldion batean* ‘aldiren batean’ (Lat.), *beste txekorron bat* ‘beste txekorren bat’ (Urr.), *aarion bat* ‘ahariren bat’ (Urr.), *sardinzarron bat* ‘sardinzarren bat’ (Urr.), *orduon bates* ‘orduren batez’ (Era.), *pikorron bat* ‘pikorren bat’ (Era.), *ollo pareon bat* ‘oilo pareren bat’ (Zarr.), *putzuon bat* ‘putzuren bat’ (Osk.), *ezpalon batzuk* ‘ezpalen batzuk’ (Osk.),

²⁰² Gainera, *eztulka* eta *isilka misilka* adibideak dakartza Elk Orexa eta Bedaio herrietarako (1984: 205-207).

sonbreru zarron bat ‘sonbreru zaharren bat’ (Osk.), *urtion bates* ‘urteren batez’ (Ud.), *amarron bat* ‘hamarren bat’ (Oro.), *tratantion bat* (Its.) & *tratanteon bat* (Arrar.) ‘tratanteren bat’, *karro zarron bat* ‘karro (gurdi) zaharren bat’ (Its.), *orduon bates* ‘orduren batez’ (Arrar.), *zeaon bat* ‘zeraren bat’ (Beru.), *dozenaon bat* ‘dozenaren bat’ (Beru.), *itzon bat edo beste* ‘hitzen bat edo beste’ (Gar.), *letraon bat* ‘letraren bat’ (Gar.), *kuluxkeon bat* ‘kuluxkaren bat’ (Od.), *erdaldunon bat* ‘erdaldunen bat’ (Iri.), *liburuon bat* ‘libururen bat’ (Iri.), *gurdion bat* ‘gurdiren bat’ (Iri.), *Katrenin bizi zenon bat* ‘Katrenean bizi zenen bat’ (Bar.), *gizonon batek* ‘gizonen batek’ (Bar.), *axuriomat saltzea* ‘axuriren bat saltzera’ (Bar.), *bakarron bat* ‘bakarren bat’ (Arru., Ald., Gorr., Erra., Er., Ig.), *kuarto zarron batin* ‘kuarto (gela) zaharren batean’ (Arru.), *besteon bat* ‘besteren bat’ (Arru.), *ziudadeon bat* ‘ziudaderen bat’ (Ald.), *etxeon baten* ‘etxeren batean’ (Alb.), *pastaon batzuk* ‘pastaren batzuk’ (Alb.), *launon bat o beste* ‘lagunen bat edo beste’ (Ui.), *mantaon bat* ‘mantaren bat’ (Ui.), *olokon bat* ‘holakoren bat’ (Ui.), *launtzaon baten esperoan* ‘laguntzaren baten esperoan’ (Ui.), *paiton bat* ‘paretaren bat’ (Gorr.), *etxeon batzutan* ‘etxeren batzuetan’ (Azp.), *maixtarron bat* ‘maixtarren bat’ (Azp.), *bakarron bat eo beste* ‘bakarren bat edo beste’ (Azp.), *amarron bat* ‘hamarren bat’ (Erra.).

Araitz-Betelun, gorago esan bezala, *-n bat* egitura bere horretan gelditu da, nahiz eta baden salbuespenen bat edo beste (*bateon bat*, esate baterako). Adibideak: *auntzen bat* ‘ahuntzaren bat’ (Azk.), *gerran batetik* ‘gerraren batetik’ (Azk.), *ordu paren bat* ‘ordu pareren bat’ (At.), *eulin bat* ‘euliren bat’ (Bet.), *plateraon bat* ‘plateraren bat’ (Gai.), *batzarren bat* ‘batzarren bat’ (Uzt.).

-on bat egiturak Nafarroa Garaiko erdigunekoa dirudi: gure eremuan bada, eta, handik ekialdera, baita Ultzaman (Ibarra 1995a: 325-326)²⁰³, Odieta Latasan (Camino 2003a: 242-244) eta Erroibar-Esteribarren (Ibarra 2000: 46) ere, baina ez dago Aezkoan²⁰⁴. Gure eremutik iparraldera, *-on bat* ez da guztiz ezezaguna Basaburu Txikian eta Leitzan, baina han ohikoagoa da *-(e)n bat* (B. L.), mendebaleragoko hizkera giputzetan bezala. Nolanahi ere, Segurako *bateonbat* eta Zegamako *bationbat* adibideen berri eman du Hurtadok (2001: 91).

Diakroniari begira, aski ezaugarri berria dirudi; guk arakatutako testuetan, *-on bat* ageri da Ultzaman 1863an eta 1903an (Ibarra 1992: 928), baina ez dugu beste lekukotasunik aurkitu.

²⁰³ 1863ko doktrinan bada, gainera (Ibarra 1992: 928).

²⁰⁴ I. Caminok ahoz agitu digunez, *-ren bat* ere ez dute Aezkoan baliatzen, *zemeit* ageri baita haren ordez.

8.3.18. -tto eta -txo atzizki txikigarriak

-tto atzizki txikigarria oso maiz erabiltzen dute Imotzen eta Basaburu Nagusian. Larraunen, adibide gutxi-gutxi batzuk jaso ditugu, eta, Araitz-Betelun, -txo erabiltzen dute. Mitxelenak zioenez, ez dago garbi morfema beraren aldaerak ote diren -tto eta -txo (eta -ño) atzizkiak (1977 [1961]: 186-187):

Es difícil decidirse sobre la prioridad. No es seguro que -t(t)o y -txo sean variantes de un mismo morfema (que estaría además relacionado con el oriental -no, -ño, de sentido análogo), porque ya en aquitano hay dos sufijos distintos que parecen corresponder a éstos: -t(t)o, gen. -t(t)onis y -x(s)o, gen. -x(s)onis. [Gero, oin-ohar batean, zera dio:] El suf. -txo puede estar relacionado con el vize. txo (reduplicado txotxo) ‘palabra con que se llama a los muchachos’. Para -t(t)o, cf. com. to ‘toma’ ‘voz con que se llama al hombre y a algunos animales domésticos’ (RS; tho en *Eliçara* 82). La misma coincidencia se da entre el suf. -no y no ‘toma (fem.)’ ‘palabra con que se llama a una mujer’ conservado en dialectos orientales con su variante ño. Téngase además en cuenta el ronc. ño, ñotto ‘pequeño, pequeñito’.

Hona -tto atzizkiaren adibideak: *beste aldari ttikitto at paatzen tzuten* ‘beste aldare ttikitto bat paratzen zuten’ (Gol.), *besti etek zun saskittoa* ‘beste batek zuen saskittoa’ (Gol.), *Ttikitton* ‘Ttikitton; txakur-izena’ (Gol.), *zakutto* ‘zakuttoa’ (Lat.), *palankattoa* ‘palankattoa’ (Urr.), *andiken ateatzen zenean bero-berottoa* ‘handik(an) ateratzen zenean bero-berottoa’ (Urr.), *karamelottoak* ‘karamelottoak’ (Urr.), *masatto at* ‘masatto bat’ (Urr.), *obi puxke ttiki-ttikitto atekin* ‘ogi puxka ttiki-ttikitto batekin’ (Urr.), *erreka ttikitto at* ‘erreka ttikitto bat’ (Era.), *erlakumea polikitto-polikitto artu* ‘erlakumea polikitto-polikitto hartu’ (Era.), *erreondottoa dute ostoa* ‘erredondottoa (< gazt. redondo) dute hostoa’ (Era.), *kearra pixkitto at* ‘kedar pixkatto bat’ (Era.), *olaxetto* ‘horrelaxetto’ (Osk.), *ezkilttoa* ‘ezkilattoa’ (Etxal.), *erruedatto at* ‘erruedatto (< gazt. rueda) bat’ (Etxal.), *txaatile, alako iurto at* ‘txaratila, halako egurtto bat’ (Etxal.), *olaxeko gurutzetto at* ‘holaxeko gurutzetto bat’ (Etxal.), *ttikittoa nitzelaik* ‘ttikittoa nintzelarik’ (Mus.), *ostotto at* ‘hostotto bat’ (Mus.), *faldattoa* ‘faldattoa (< gazt. falda)’ (Gar.), *errekatto onei* ‘errekatto honi’ (Gar.), *zulotto at* ‘zulotto bat’ (Gar.), *zata ttikitto atzuk* ‘zata ttikitto batzuk’ (Gar.), *urkiltto at* ‘urkilatto bat’ (Gar.), *aldapatto artan* ‘aldapatto hartan’ (Gar.), *beste dejetto at dute* ‘beste dejetto (< gazt. deje) bat dute’ (Gar.), *bakar-bakarttoa* ‘bakar-bakarttoa’ (Er.), *txulo ttikitto at* ‘xulo ttikitto bat’ (Oro.), *trozotto at* ‘trozotto (< gazt. trozo)’ (Beru.), *saltotto at* ‘saltotto bat’ (Od.), *ganbaatto at* ‘ganbaratto bat’ (Bar.), *saskittoa* ‘saskittoa’ (Bar.), *ttikittoa* ‘ttikittoa’ (Iri.), *alkittoa* ‘aulkittoa’ (Ald.).

Larraunen, *-tto* gutxi bildu dugu, baina *-txo* ere ez dute erabiltzen (adibideren bat edo beste jaso dugu, ordea; esate baterako, *ganbaatxo at* ‘ganbaratxo bat’ Baraibarren).

Araitz-Betelun, *-txo* atzizkiaren adibideak bildu ditugu: *alkitxo at bezala* ‘aulkitxo bat bezala’ (Gai.), *ezertxo re* ‘ezertxo ere’ (Gai.), *artzaitxo bati* ‘artzaintxo bati’ (Gai.), *ermitatxo bat* ‘ermitatxo bat’ (Gai.), *Mieltxo* ‘Migeltxo; pertsona-izena’ (Uzt.), *kilo erditxo at* ‘kilo erditxo bat’ (Bet.), *errekatxo at* ‘errekatxo bat’ (Bet.), *loalditxo at* ‘loalditxo bat’ (Bet.), *bueltatxon bat* ‘buelatxoren bat’ (Bet.), *gasatxo atean* ‘gasatxo batean’ (Bet.), *mordoxkatxo at* ‘mordoxkatxo bat’ (Bet.), *kapilletxo ue* ‘kapillatxo (< gazt. capilla) hura’ (Bet.), *aartxoak* ‘adartxoak’ (Arri.), *txabol(a)txo at* ‘txabolatxo bat’ (Arri.), *propinatxo at* ‘propinatxo (< gazt. Propina) bat’ (Arri.), *papertxo atzuk* ‘papertxo batzuk’ (Arri.), *jornaltxoa* ‘jornaltxoa’ (Azk.), *txarteltxo ana* ‘txarteltxo bana’ (Azk.), *Joxetxo* ‘Joxetxo; pertsona-izena’ (Azk.), *Kattalintxo* ‘Kattalintxo; pertsona-izena’ (Azk.), *Ferminatxo* ‘Ferminatxo; pertsona-izena’ (At.).

-tto atzizkiak eremu zabala hartzen du: gure eremutik ekialdera, bada Ultzama, Atetz eta Anue ibarretan (Ibarra 1995a: 315-316, 414), Odieta Latasan (Camino 2003a: 243), Esteribarren eta Erroibarren (Ibarra 2000: 146), Artzibarren (Arana 2004: 74) eta Aezkoan (Camino 1997: 429). Imoztik hegoaldera, Txulapainen ere bazen (Arana 2006: 98), baita Bonapartek “Iruñetik honatakoa” deitu zuen aldaeran ere (Ibarra 1995b: 298; cf. Ezkabarteko datuak in Artola 1985), eta *-tto* eta *-txo* daude Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 240). Bestalde, Nafarroako ipar-ekialdean, *-tto* ohikoa da Baztanen (Lakar eta Telletxea 2003-2004), eta *-tto* zein *-txo* daude Malerrekan (Apalauza eta Lakar 2001-2003). *Elko* datuen arabera, Ipar Euskal Herriko zenbait hizkeratan ere bada *-tto* (1984: 139-140).

Gure eremutik iparraldera, berriz, *-txo* dugu Leitzan (Olano 1998: 175), eta biak ageri dira Basaburu Txikian (B. L.).

8.3.19. “Nor” eta “zein” galdetzaileak

Imotzen eta Basaburu Nagusian, “nor” galdetzailea eta haren deklinatuak erabiltzen dituzte. Trantsizioa Basaburu Nagusiko iparraldean eta Larraungo hego-ekialdean hasten da: eremu horretan, bietatik jaso dugu, bai “nor” bai “zein”. Mendebalera egin ahala, “zein” gero eta gehiago

entzuten da Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun; mendebaleragoko hizkera giputzekin bat egiten dute hizkera horiek.

Hona “nor” galdetzailearen adibideak: *nor tzaa?* ‘nor zara?’ (Ud.), *noona?* ‘norena?’ (Its., Arru.), *nor da?* ‘nor da?’ (Its., Gar., Ig., Beru.)²⁰⁵, *nork erran du?* ‘nork erran du?’ (Gar.), *nor etorre a?* ‘nor etorri da?’ (Iri.). Baina beste hauek ere jaso ditugu Basaburu Nagusiko iparraldean eta Larraungo ipar-mendebalean: *anilloa zeñek zun bagiñakin* ‘anilloa zeinek zuen bagenekien’ (Ig.), *eztakit zeñ atea izaan zit Zion* ‘ez dakit zein atera izanzen zitzaion’ (Ig.), *letra zeñek eta zeñek politteoa iñ* ‘letra zeinek eta zeinek politagoa egin’ (Ig.), *zeñena da?* ‘zeinena da?’ (Od.), *zeñek esan do?* ‘zeinek esan du?’ (Iri.), *zeñek bete bear tzun* ‘zeinek bete behar zuen’ (Arru.). Esan bezala, bi galdetzaileen erabileraren trantsizioa adierazten dute adibide horiek.

Gorago esan bezala, mendebalera egin ahala, “nor” desagertu egiten da, eta “zein” nagusitu: *zein da?* ‘zein da?’ (Ald., Alb., Erra.)²⁰⁶, *segun zeñekin ai zaan* ‘segun zeinekin ari zaren’ (Ald.), *zeñek etorri bea ’u?* ‘zeinek etorri behar du?’ (Ald.), *lengoan ba al dakizo zeñek kantatzen tzun bat?* ‘lehengoan ba al dakizu zeinek kantatzen zuen bat?’ (Gorr.), *zu zein tzaa oi esateko?* ‘zu zein zara hori esateko?’ (Ui.), *eztakit zein tzen eaman tzuna* ‘ez dakit zein zen eraman zuena’ (Ui.), *ta zu zein tzaa nei andreami bet, zea, aukeratzeko?* ‘eta zu zein zara niri andregai bat, zera, aukeratzeko?’ (Ui.), *alaba ezkondu bear zit Zionen eztaki(t) zeñekin* ‘alaba ezkondu behar zitzaionean ez dakit zeinekin’ (Ui.), *nik ein bea nun bijilantzie aber koarteleti zeñ ateatzen tzen* ‘nik egin behar nuen bijilantzia aber kuarteletik zein ateratzen zen’ (In.), *zeñek pasa bear zittun kilometro aik oñez?* ‘zeinek pasatu behar zituen kilometro haiek oinez?’ (In.), *zeñ erritan zeñ afusilatu bear tzuen* ‘zein herritan zein fusilatu behar zuten’ (Arri.), *zeñek apartego bota* ‘zeinek aparteago (urrutiago) bota’ (Arri.), *zeñek geina eitten tzun* ‘zeinek gehiena egiten zuen’ (Uzt.), *ordun zeñek ibiltzen giñun kaltzontzilloa(k)!* ‘orduan zeinek ibiltzen genuen (genituen) galtzontziloak!’ (Bet.), *zeñek bertsoa aldrebasa bota zen oi* ‘zeinek bertsoa aldrebasa bota zen hori’ (At.), *zeñek esaten do egie?* ‘zeinek esaten du egia?’ (Gai.).

Zuazok erdialdeko euskararen ezaugarritzat hartu du “zein” galdetzailearen nagusitasuna (2008: 148). Hala, gaur egun, “zein” dugu Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 185-186), Aranon

²⁰⁵ Telefonoa hartzean esaten dute.

²⁰⁶ Telefonoa hartzean esaten dute.

(Zubiri eta Perurena 1998: 60), Bortzirietako Arantzan, Igantzin eta Lesakan (Zelaieta 2004: 241), Basaburu Txikiko Ezkurran eta Eratsunen (B. L.)²⁰⁷, eta biak daude Areson (Olano 1998: 13).

8.3.20. Partizipioa eratzeko morfemak: *-ta*, *-rik* eta *-a(k)*

Euskarak hiru morfema ditu partizipioak eratzeko: *-ta*, *-rik* eta *-a(k)*²⁰⁸. Aukera horiek guztiak baliatzen dituzte gure eremuko lau ibarretan; baina *-rik* maizago entzuten da Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan, Larraunen eta Araitz-Betelun baino. Aldaketa graduala da: zenbat eta ekialderago, orduan eta maizago entzuten da *-rik*, eta, zenbat eta mendebalerago, orduan eta maizago *-ta*. Banan-banan emango ditugu adibideak.

-rik morfema “izan”, “egon” eta “eduki” aditzekin ager daiteke. Hona lau ibarretako adibide saila: *gelditzen da asentatuik* ‘gelditzen da asentaturik’ (Lat.), *dena arraspatuik eta dena arramaxkatuik* ‘dena arraspaturik eta dena arramaskaturik’ (Lat.), *txondorra iñik zeola ta ekea botatzen tzula zeola* ‘txondorra eginik zegoela eta kea botatzen zuela zegoela’ (Lat.), *erbik illik eoten tzeen joateako* ‘erbiak hilik egoten ziren joaterako’ (Lat.), *kasi tapatuik dao oi dena* ‘kasi (< gazt. casi) tapaturik dago hori dena’ (Lat.), *katxarro atzuk bazittuten jarriik* ‘katxarro batzuk bazituzten jarriik’ (Lat.), *utziik baitaukit* ‘utzirik baitaukat’ (Lat.), *gurdik, gañea, prestatuik ortaako* ‘gurdiak, gainera, prestaturik horretarako’ (Gol.), *dena aziik daukit* ‘dena hazirik daukat’ (Gol.)²⁰⁹, *oittuik nau ni* ‘ohiturik nago ni’ (Gol.), *dena kruzatuik izaten tzen* ‘dena kruzaturik (< gazt. cruzado) izaten zen’ (Gol.), *emen dau akaatuik* ‘hemen dago akabaturik’ (Gol.), *ez bazauken lekuik billatuik, igual eoten tzen bi iunes mordoxkan* ‘ez bazeukan lekurik bilaturik, igual egoten zen bi egunez mordoxkan’ (Gol.), *konbentzituik nau* ‘konbentziturik nago’ (Gol.), *oi dau ezkonduik* ‘hori dago ezkondurik’ (Gol.), *joan zen beiek eske, ta aizartuik lau bei!* ‘joan zen behiak eske, eta haizaturik lau behi!’ (Gol.), *zeon mantxatuik* ‘zegoen mantxaturik (< gazt. manchado)’ (Gol.), *animatuik neon* ‘animaturik nengoen’ (Gol.), *an tzeon itsaseik* ‘han zegoen itsatsirik’ (Gol.), *itxi berri in, aspaldiñ akaatuik, eta itxe zar artan bizitzen dee* ‘etxe berria egin, aspaldian akabaturik, eta etxe zahar hartan bizitzen dira’ (Gol.), *etzen agarratuik dantzatzen* ‘ez zen agarraturik (< gazt. agarrado) dantzatzen’ (Gol.), *bakotxek beak eiñik kajonak* ‘bakoitzak bereak eginik kaxoiak’ (Gol.), *goortuik eoten dee* ‘gogorturik egoten dira’ (Gol.), *oola ateatzen ezpazen, ya ioseik tzeen* ‘odola ateratzen ez bazen, ya egosirik ziren’ (Gol.), *denak illik dee* ‘denak hilik dira’ (Gol.), *jaiotzeako,*

²⁰⁷ B. Lizarragak esan digunez, Eratsungo eta Ezkurrako adinekoek oraindik orain bereizi egiten dituzte bi galdetzailak, baina “zein” ari da nagusitzen.

²⁰⁸ *-a(k)* berez ez da partizipio-morfema, baina partizipio-balioa hartu du.

²⁰⁹ *azeik* bildu dugu Goldaratzen gehienetan; baina, adibide horretan, *aziik* erabili zuen hiztunak.

iñik eoten tzeen aik ‘jaiotzerako, eginik egoten ziren haiek’ (Gol.), *beak, amautxik, jaijo baño len* *iñik iukitzen tzuten* ‘berek, amabitxiek, jaijo baino lehen eginik edukitzen zuten’ (Gol.), *erriko denak* *iñik daela* ‘herriko denak eginik daudela’ (Gol.), *iitaiak beak ekartzen ttute kierrak iñik* ‘igitaiek berek ekartzen dituzte kiderrak eginik’ (Urr.), *aztuik dauket* ‘ahazturik daukat’ (Etxal.), *oik tenak eraiñik dauzkit goaiñ* ‘horiek denak ereinik dauzkat orain’ (Etxal.), *guaiñiken eztu denbo asko emendiken botaik, zea, kuboa* ‘oraindik(an) ez du denbora asko hemendik(an) botarik, zera, kuboa’ (Etxal.), *emen itxe asko botaik e badaude guaiñ* ‘hemen etxe asko botarik ere badaude orain’ (Etxal.), *eztakit quartu zaan atakak nola dauken paratuik izena* ‘ez dakit ohartu zaren atakak nola daukan paraturik izena’ (Osk.), *barrera botaik* ‘barrera botarik’ (Mus.), *nago nekatuik belarra bakitzen* ‘nago nekaturik belarra ebakitzen’ (Mus.)²¹⁰, *gauz oik denak pastuik gaude gu* ‘gauza horiek denak pasaturik gaude gu’ (Its.), *ni paatuik nau* ‘ni paraturik nago’ (Ud.), *goseik zauden* ‘goserik zeuden’ (Ud.), *zeruu zerratuik daolaik* ‘zerua zerraturik (< gazt. cerrado) dagoelarik’ (Ud.), *tardatuik nau* ‘tardaturik (< tardado) nago’ (Ud.), *oittuik daude* ‘ohiturik daude’ (Ud.), *dau ezkonduik* ‘dago ezkonduirik’ (Gar.), *taarna ertsik eoten tzen* ‘taberna hertsirik egoten zen’ (Gar.), *iñik tau* ‘eginik dago’ (Gar.), *men tzauskiten sabaian sartuik* ‘omen zeuzkaten sabaian sarturik’ (Er.), *oiek giñauzkin retiretuik sabaian* ‘horiek geneuzkan erretiraturik sabaian’ (Er.), *lan guzik iñik taude* ‘lan guziak eginik daude’ (Oro.), *zauden bi bei illik* ‘zeuden bi behi hilik’ (Oro.), *atzenduik daukezo* ‘atzendurik daukazu’ (Arrar.), *alaba baduu ezkonduik Saldisen* ‘alaba badugu ezkonduirik Saldiasen’ (Arrar.), *eosiik zeon* ‘egosirik zegoen’ (Ig.), *gazta itten e aittuik nau* ‘gazta egiten ere ariturik nago’ (Ig.), *dena tapatuik dau* ‘dena tapaturik dago’ (Ig.), *jaiuik tau* ‘jaiorik dago’ (Bar.), *lenaokoa botaik zeoan* ‘lehenagokoa botarik zegoen’ (Bar.), *axuriomat saltzea partikular joanik* ‘axuriren bat saltzera partikular joanik’ (Bar.), *gurdion bat plazan sartuik* ‘gurdiren bat plazan sarturik’ (Iri.), *maie jarriik dau* ‘mahaia jarririk dago’ (Arru.), *denak andek pastuik kai* ‘denak handik pasaturik gaude’ (Ald.), *urte asko tto joanik* ‘urte asko ditu joanik’ (Alb.), *enaiz akordatzen aittuik ee* ‘ez naiz akordatzen aditurik ere’ (Alb.), *eiñik tai* ‘eginik daude’ (Ui.), *geldittu nitzen erotuik* ‘gelditu nintzen eroturik’ (Gorr.), *garie jaiuik biden* ‘garia jaiorik bidean’ (Gorr.), *nasiik nao* ‘nahasirik nago’ (Erra.), *billetea artuik dauke* ‘billetea harturik dauka’ (Erra.), *ni juanik nau* ‘ni joanik nago’ (Bet.), *nik ikusiik* ‘nik ikusirik’ (Bet.), *kaja oitatik beexiik* ‘kaxa horietatik bereizirik’ (Bet.), *atten denboan-da ikusiik* ‘aitaren denboran-eta ikusirik’ (Bet.), *amabi mandere beteik* ‘hamabi maindire beterik’ (Bet.), *prepatuik daude* ‘preparaturik daude’ (Bet.), *goien sartuik pazauken* ‘goian sarturik bazeukan’ (Bet.), *utziik battuu bos bat urte* ‘utzirik baditugu bost bat urte’

²¹⁰ Gamindek bildua (1993: 85).

(At.), *arrapatu zuen bataietuik* ‘harrapatu zuten bataiatuik’ (At.), *aztuik dauzket* ‘ahaztuik dauzkat’ (Arri.), *arto-zorroakin eiñik* ‘arto-zorroarekin eginik’ (Gai.), *oi sortuik ez emen da urte asko re oainddio* ‘hori sortuik ez omen da urte asko ere oraindik’ (Gai.), *ue izanik urte batzuk badie* ‘hura izanik urte batzuk badira’ (Gai.), *umeak eiñik* ‘umeak eginik’ (In.).

-ta morfemari dagokionez, “eduki”, “egon” edo beste aditzen batekin batera ager daiteke, baina inoiz ez “izan” aditzarekin. Hona adibideak²¹¹: *eerki ertsita* ‘ederki hetsita’ (Lat.), *ipurdin josita ongi* ‘ipurdian josita ongi’ (Gol.), *itxea joaten giñen, gurdiñ arrepak artuta* ‘etxera joaten ginen, gurdian arropak hartuta’ (Gol.), *paetan itsasita jartzen giñun ue* ‘paretan itsatsita jartzen genuen hura’ (Gol.), *bilduta ioten deen telak* ‘bilduta egoten diren telak’ (Gol.), *ola jauntzita ortaako* ‘hola jantzita horretarako’ (Gol.), *lotuta paatzen tzeen guutzik* ‘lotuta paratzen ziren gurutzeak’ (Gol.), *leioa iikita utzi* ‘leioa irekita utzi’ (Gol.), *an erittuta gelditzen deenak* ‘han herituta (< gazt. heridos) gelditzen direnak’ (Gol.), *ilda zeon bezala, baño etzeon ilda* ‘hilda zegoen bezala, baina ez zegoen hilda’ (Gol.), *aik ezkonduta zain* ‘haiek ezkonduta zeuden’ (Gol.), *atzenduta dauzkit denak* ‘atzenduta dauzkat denak’ (Osk.), *beste atzuk ezinduta daude* ‘beste batzuk ezinduta daude’ (Etxal.), *eosita dau* ‘egosita dago’ (Ud.), *eskiñi ziuten geixio, biño oben-obenak beixita* ‘eskaini ziguten gehixeago, baina hoberen-hoberenak bereizita’ (Its.), *kukusos yosita* ‘kukusoz josita’ (Gar.), *alkilatuta zaukiten* ‘alkilatuta zeukaten’ (Arrar.), *mendiin gordeta nola zaen paketik* ‘mendian gordeta nola zeuden paketeak’ (Arrar.), *attuna ta amandrii oso zartuta il tzen* ‘aitona eta amandrea oso zahartuta hil ziren’ (Arru.), *denak preokupatuta* ‘denak preokupatuta’ (Ui.), *dena kolletuta zeok* ‘dena koilatuta zegok’ (Ui.), *an dai eskriittuta aik* ‘han daude eskribituta (< gazt. escritos) haiek’ (Gorr.), *bi beor-zaldi artuta* ‘bi behor-zaldi hartuta’ (Gai.), *sasik artuta zeoan* ‘sasiak hartuta zegoen’ (Gai.), *apezak an eskriittuta zeaoken* ‘apezak han eskribituta (< gazt. escrito) zeukan’ (Gai.), *ezpalen bazeon prepaatuta* ‘ez baldin bazegoen preparatuta’ (Gai.), *baozket eenda or saatsakin* ‘badauzkat eginda hor sahasarekin’ (Gai.), *eskopeta artuta* ‘eskopeta hartuta’ (At.), *mainddere puxkek-eta zartuta-ta geitzen tzeen* ‘maindire puskak-eta zahartuta-eta gelditzen ziren’ (Uzt.), *elbarrittuta zegoala* ‘elbarrittuta zegoela’ (Uzt.), *begi[k] tapatuta eote nintzen ni* ‘begiak tapatuta egoten nintzen ni’ (Arri.), *tapatuta eukitzen giñun* ‘tapatuta edukitzen genuen’ (Arri.), *makurtuta jarri* ‘makurtuta jarri’ (Bet.), *eamate’tue bertsolari pare at paatuta* ‘eramaten dituzte bertsolari pare bat pagatuta’ (Bet.), *landarea jaiota daun lekun* ‘landarea jaiota dagoen lekuan’ (Bet.), *bitxon batek ozk einda* ‘bitxoren batek hozka eginda’ (Bet.), *ue einda balen baukie*

²¹¹ Ikus Imozko eta Basaburu Nagusiko adibide gehiago 8.2.6. atalean.

‘hura eginda baldin badaukate’ (Bet.), *anka[k] lotuta jarri lurrean* ‘hankak lotuta jarri lurrean’ (In.), *jarri trapu et lotuta puntan* ‘jarri trapu bat lotuta puntan’ (In.), *oatzean ilda agertze men tzen* ‘ohatzean hilda agertzen omen zen’ (In.), *etxea eamanda earki* ‘etxera eramanda ederki’ (Azk.), *eezin gauze izanda de* ‘edozein gauza izanda ere’ (Azk.), *ilda zeeoan* ‘hilda zegoen’ (Azk.).

Batzuetan, hiztun berak *-rik* zein *-ta* erabil ditzake esaldi berean: *txondorron bat o beste jarriik daola ikusi ut, beño ixikita daola* ‘txondorren bat edo beste jarririk dagoela ikusi dut, baina izekita dagoela’ (Lat.), *bezpean iukitzen giñuzen prestatuik, tepule txikittuta, baatxurii, perrexille, porruk...* ‘bezperan edukitzen genituen prestaturik, tipula txikituta, baratxuria, perrexila, porruak...’ (Gol.).

Azkenik, *-a(k)* morfema “izan” eta “egon” aditzekin ager daiteke, baina ez da ohikoa “eduki”-rekin batera agertzea, nahiz adibideren bat edo beste jaso dugun. Hona zenbait adibide: *au untture arrekin sendatue dot* ‘hau untura harekin sendatua dut’ (Era.), *ango amañikin jaiok gaa* ‘hango amañirekin jaiok gara’ (Gol.), *semik bestiinak ya aundittuk bazeen laneako* ‘semeak bestearenak ya handituak baziren lanerako’ (Gol.), *dena txuloakiñ izaten tzeen koltxonak, ya prestatuu* ‘dena zuloarekin izaten ziren koltxoak, ja prestatua’ (Gol.), *ardi-illii, ongi konserbatuu, e!* ‘ardi-ilea, ongi kontserbatua, e!’ (Gol.), *majiñe at zea pastuk bagaa gu* ‘makina bat zera pasaturik bagara gu’ (Gol.), *alaba re dau oso ongi kolokatuu* ‘alaba ere dago oso ongi kolokatua’ (Gol.), *oeitamasei urtes gu maixtar eonduk gaa* ‘hogeita hamasei urtez gu maizter egon(du)ak gara’ (Gol.), *ezinduu naiz* ‘ezindua naiz’ (Gol.), *denak or azik dee* ‘denak hor haziak dira’ (Gol.), *ordun karretera iñe zeon* ‘orduan karretera egina zegoen’ (Gol.), *guain joana da emendik* ‘orain joana da hemendik’ (Osk.), *lenau joanak badee* ‘lehenago joanak badira’ (Osk.), *alkiletuk dauzkiu* ‘alkilatuak dauzkagu’ (Its.), *Malloetan iillik kaa gu asko* ‘Malloetan ibiliak gara gu asko’ (Oro.), *bazun eurrezkoa paatue anka* ‘bazuen egurrezkoa paratua hanka’ (Oro.), *frontona aspaldi iñe da* ‘frontoia aspaldi egina da’ (Gar.), *iñe dau* ‘egina dago’ (Arrar.), *irtsii dau* ‘hetsia dago’ (Arrar.), *eillii zen* ‘ibilia zen’ (Arrar.), *eosii dau* ‘egosia dago’ (Arrar.), *zarrak illek dee* ‘zaharrak hilak dira’ (Beru.), *nek ezautu nittunak bat ez beste illek tee denak* ‘nik ezagutu nituenak bat ez beste hilak dira denak’ (Beru.), *majiñe a(t) karta eskriittuu naiz ni* ‘makina bat karta eskribitua naiz ni’ (Arru.), *denak andek pastuk gai* ‘denak handik pasatuak gaude’ (Ald.), *gaur jende guzii enpleatuu dau* ‘gaur jende guzia enpleatua dago’ (Alb.), *jaolak iñek zeen* ‘jaulak (< gatz. jaula) eginak ziren’ (Ui.), *dena artasittue zeok* ‘dena artesiua zegok’ (Ui.), *amarretan ni zokin zite iñe balen banau* ‘hamarretan ni zurekin zita egina

baldin banago' (Ui.), *aztuk dauzket* 'ahaztuak dauzkat' (Gorr.), *oik illek tee* 'horiek hilak dira' (Gorr.), *ille da* 'hila da' (Azp.), *kargatue joaten tzen ue* 'kargatua joaten zen hura' (Erra.), *earki ikasik dee* 'ederki ikasiak dira' (Erra.), *majiñe at beaje eiñe nao* 'makina bat biaje egina nago' (Erra.), *askotan eillie nao ni de* 'askotan ibilia nago ni ere' (Erra.), *ni Gorritie joana nao txerrikiñ* 'ni Gorritira joana nago txerriarekin' (At.), *salmuera iñe dau* 'salmuera egina dago' (At.), *aparte asko joanak e badie azindak* 'aparte asko joanak ere badira aziendak' (Arri.), *gaztaiñekin eiñe zen* 'gaztainarekin egina zen' (Arri.), *ni goatzen naiz trapue jarrie* 'ni gogoratzen naiz trapua jarria' (Bet.) *oi ille da* 'hori hila da' (Bet.), *berdetan eiñe balen bazegoan* 'berdetan egina baldin bazegoen' (Bet.), *propio iñe ormionezkoa* 'propio egina hormigoizkoa' (Bet.), *bear añe sekatie etzegoalako* 'behar adina sekatia ez zegoelako' (Bet.), *sasik-da artue dao* 'sasiak-eta hartua dago' (Bet.), *an bizittue zen* 'han bizi(tu)a zen' (Bet.), *buue gora lotue eukitzen tzuen* 'burua gora lotua edukitzen zuten' (In.), *tabernati beotue joaten baita jendea* 'tabernatik berotua joaten baita jendea' (In.), *or belarrean aittue nau ni* 'hor belarrean aritua nago ni' (In.), *miñ artue izango a* 'mina hartua izango da' (Gai.), *gorrik ikusie naiz* 'gorriak ikusia naiz' (Gai.), *amika olakoak ikusik kaa* 'hamaika holakoak ikusiak gara' (Gai.).

-ta morfemaz eratutako egiturak Bizkaikotzat eta Gipuzkoakotzat hartu izan dira (Zuazo 1998a: 220-221 eta 2006: 89), baina beste euskal hizkera askotan ere ageri dira gaur egun halakoak. Esate baterako, Caminok Aezkoan bildu du *-ta* (*-rik* aukerarekin batera), eta, egile beraren arabera, Nafarroa Beherean ere badira adibideak (1997: 421-422). *-rik* morfemari dagokionez, Zuberoan eta Aezkoa-Erronkari bitarteko hizkeretan bada, baina baita Aramaion ere (Zuazo 2006a: 89), eta, ikusi dugunez, gure eremu osoan aurki daitezke adibideak. Gure eremuko datuak ikusita, atal honen hasieran esandakoa berretsiko dugu: mendebaleko herrietan —alegia, Larraunen eta Araitz-Betelun—, *-ta* maizago entzuten da, eta, alderantziz, ekialdekoetan —alegia, Basaburu Nagusian eta Imotzen—, *-rik* da aukerarik erabiliena; baina bata zein bestea posible direla ahaztu gabe betiere. Aldaketa gradualki gauzatzen da ekialdea-mendebala norabidean.

8.3.21. Aditzondo errepikatuen deklinabidea

Euskaraz, aditzondoak indartzeko, aditzondook errepikatu egiten ditugu. Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeretan, mugagabeen edo partitiboan deklinatu ohi dituzte halako errepikapenak, eta absolutiboan, aldiz, gainerakoetan. Gure eremuari dagokionez, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen, absolutiboan deklinatutako zenbait adibide jaso dugu, nahiz

mugagabea eta partitiboan ere agertzen diren. Araitz-Betelun, aldiz, mugagabea eta partitiboa jaso dugu gehien-gehienean.

Hona absolutiboan deklinatutako adibideak: *dena arro-arroa jartze zen koltxona* ‘dena harro-harroa jartzen zen koltxoia’ (Gol.), *beltz-beltza jarri naiz or etzanda* ‘beltz-beltza jarri naiz hor etzanda’ (Gol.), *atte... juxto-juxtoa akordatze naiz* ‘aita... justu-justua akordatzen naiz’ (Gol.) & *nik juxto-juxtoa izautu nun* ‘nik justu-justua ezagutu nuen’ (Gol.) & *juxto-juxtoa bizeik atea zeen* ‘justu-justua bizirik atera ziren’ (Gol.) & *juxto-juxtoa ibilliko zeen* ‘justu-justua ibiliko ziren’ (Od.) & *kilometro at juxto-juxtoa dao Lekunberritik* ‘kilometro bat justu-justua dago Lekunberritik’ (Etxarri), *gaixo-gaixoa dau kotxin sartuta* ‘gaixo-gaixoa dago kotxean sartuta’ (Gol.), *estik ee garbi-garbii inda iuki* ‘hesteak ere garbi-garbia eginda eduki’ (Gol.), *estu-estuu re etzuten ion bear* ‘estu-estua ere ez zuten egon behar’ (Gol.), *saskitto at beti-betii intxaurre* ‘saskitto bat bete-betea intxaurra’ (Gol.), *lau aizpe gai beltz-beltza jauntzita* ‘lau ahizpa gaude beltz-beltza jantzita’ (Gol.) & *beti beltz-beltza jauntzita* ‘beti beltz-beltza jantzita’ (Etxal.), *ixi-xille egon bear izaten tzen* ‘isil-isilik egon behar izaten zen’ (Gol.) & *ixi-ixille eondu zeen* ‘isil-isilik egon(du) ziren’ (Er.), & *ixi-ixille* ‘isil-isilik’ (Ig.) & *ixi-ixille eon bearra dauki* ‘isil-isila egon beharra dauka’ (Bar.), *joan gaa hotelea xuxen-xuxena* ‘joan gara hotelera xuxen-xuxena’ (Gol.)²¹², *pues gu koperatiben gu asi (g)iñen, pues, umill-umille* ‘pues gu kooperatiban gu hasi ginen, pues, umil-umila’ (Osk.), *eon geldi-geldie* ‘egon geldi-geldia’ (Etxal.), *gantza txiki-txikie in* ‘gantza txiki-txikia egin (txikitu)’ (Etxal.), *asi zeen aurrin joaten aik eta, lenbizi mantso-mantsoa, geo laisterrin...* ‘hasi ziren aurrean joaten haiek eta, lehenbizi mantso-mantsoa, gero laisterrean...’ (Its.), *bakar-bakarttoa nau* ‘bakar-bakarttoa nago’ (Er.), *emendi yoaan gaa, mantso-mantsoa* ‘hemendik joanen gara, mantso-mantsoa’ (Ig.), *txaal-txaala jarri* ‘zabal-zabala jarri’ (Bar.), *mozkor-mozkorra in* ‘mozkor-mozkorra egin (mozkortu)’ (Alb.).

Berezia da “bakarrik” aditzondoa gure eremuan: absolutiboan deklinaturik ageri da, errepikapenetan nahiz bakarrik doanean. Hona adibideak: *bakar-bakarria gelditzen naiz* ‘bakar-bakarrik gelditzen gelditzen naiz’ (Gol.), *bi bakarrak bizi gaa* ‘bi bakarrik bizi gara’ (Era.), *mezaa ta arrosarioa joateko bakar-bakarria denboa izaten tzuten* ‘mezara eta arrosariora joateko bakar-bakarrik denbora izaten zuten’ (Etxal.), *emen, bi itxetan bakar-bakarria daude beiek* ‘hemen, bi etxetan bakar-bakarrik daude behiak’ (Its.), *bakar-bakarttoa nau* ‘bakar-bakarttoa nago’ (Er.), *ortaa*

²¹² 55 urteko goldaraztar batek idatzitako sms-a.

bakarra joaten tzen ‘horretara bakarrik joaten zen’ (Bar.), *emakume orrek bakarra zekin oi* ‘emakume horrek bakarrik zekien hori’ (Alb.), *pestakoan bakarra eitten giñun* ‘festakoan bakarrik egiten genuen’ (Alb.), *gosarii, ta bazkarii, ta aparii itten tzittuen, baño motillek bakarra, e!* ‘gosaria, eta bazkaria, eta afaria egiten zituzten, baina mutilek bakarrik, e!’ (Alb.), *urte atean bakarra aittu nitzen* ‘urte batean bakarrik aritu nintzen’²¹³ (Azp.), *Iurtzuen amalau kilometro bakarra dai* ‘Iurtzuna hamalau kilometro bakarrik daude’ (Azp.), *nik ordun zortzi urte bakarra nittun* ‘nik orduan zortzi urte bakarrik nituen’ (Erra.), *bakar-bakarra joaten nitzen* ‘bakar-bakarrik joaten nintzen’ (Erra.), *biok bakar-bakarra gaude* ‘biok bakar-bakarrik gaude’ (Erra.), *garie bakarra gelditzen tzen* ‘garia bakarrik gelditzen zen’ (Erra.). Halakoak ohikoak dira Nafarroako beste hizkera batzuetan ere, hala nola Bortzirietan.

Bestalde, Goldarazko adineko lekuko batekin telefonoz ari ginela, hitzordua jartzeko asmotan genbiltzan, eta lekukoari galdetu genion ea ez ote genion paseo-ordua galaraziko, eta *trankille!* erantzun zigun hark (alegia, absolutiboan). Adibide horretan ez dago aditzondo errepikaturik, baina esanguratsua da adibidea, aditzondoa absolutiboan deklinaturik ageri delako.

Araitz-Betelun, halako errepikapenak mugagabeen edo partitiboan deklinatzen dituzte ia beti: *zabal-zabalik iuzkie artzen* ‘zabal-zabalik eguzkia hartzen’ (Bet.), *dena txukun-txukun lando* ‘dena txukun-txukun landu’ (Bet.), *bero-bero sartzen bazu* ‘bero-bero sartzen baduzu’ (Bet.), *fuerte-fuerte sartu* ‘fuerte-fuerte sartu’ (Bet.), *alporjetan txaal-txaal jarri* ‘alforjetan zabal-zabal jarri’ (Gai.), *jartze zuen txuxen-txuxen* ‘jartzen zuten zuzen-zuzen’ (Gai.), *lasai-lasai aitzeko* ‘lasai-lasai aritzeko’ (Bet.), *bizi-biziik sartu men tzuen lurpean* ‘bizi-bizirik sartu omen zuten lurpean’ (Gai.), *estu-estu jarri* ‘estu-estu jarri’ (At.). Baina badugu absolutiboan deklinatutako adibideren bat: *beitti jartzen zuen zabal-zabala* ‘behetik jartzen zuten zabal-zabala’ (Bet.)²¹⁴, *juxto-juxtoa jarri, ta kitto!* ‘justu-justua jarri, eta kito!’ (Gai.), *bonbille juxto-juxtoa moitzen... zea, ikusten tzela* ‘bonbilla justu-justua mugitzen... zera, ikusten zela’ (Bet.), *junto-junto-junto-juntoa aurrena jartzen tzun illea* ‘juntu-juntu-juntu-juntua aurrena jartzen zuen ilea’ (In.).

Hala ere, “bakarrik” aditzondoa mugatzailearekin ageri da maiz Araitz-Betelun ere: *ue bakarra, besteik ez emen tzien aittu* ‘hura bakarrik, besterik ez omen zioten aditu’ (Bet.), *etzela geio*

²¹³ Alegia, urte bakar batez.

²¹⁴ Adjektiboa errepikatzen denean, mugatzailearekin ager daiteke: *olioa batxuriekien prejittu, ta bero-beroa bota* ‘olioa baratxuariarekin frijitu, eta bero-beroa bota’ (In.), *olioa garbi-garbie eoten da* ‘olioa garbi-garbia egoten da’ (Gai.). Baina baita mugatzailearik gabe ere: *garbi-garbi geitzen da* ‘garbi-garbi gelditzen da’ (At.).

azaldo, eun artantxe bakar-bakarra ‘ez zela gehiago azaldu, egun hartantxe bakar-bakarrik’ (Gai.), *txurie bakarra; berdea ezkiñon botatzen* ‘txuria bakarrik; berdea ez genion botatzen’ (Bet.), *bi laun bakarra bazen, deskargatu* ‘bi lagun bakarrik baziren, deskargatu’ (Gai.), *pentsatzea bakar-bakarra emate* ‘izu otzikara’ ‘pentsatzea bakar-bakarrik ematen dizu hotzikara’ (Bet.). Baina partitiboan ere maiz erabiltzen dute: *beste atzuk itte’ie atzeti bi bakarrik* ‘beste batzuk egiten diete atzetik bi bakarrik’ (In.), *Elokemutse joate nitzen goizero-goizero, bakar-bakarrik* ‘Elokemutsera joaten nintzen goizero-goizero, bakar-bakarrik’ (Gai.), *denuntzie jarri bakarrik ez* ‘denuntzia jarri bakarrik ez’ (Uzt.), *kamioanean tzezoana bakarrik arrapatu zien* ‘kamioian zegoena bakarrik harrapatu zieten’ (Uzt.).

Zuazok Ipar Euskal Herriko mintzoen eta euskara nafarraren ezaugarritzat hartu du halako errepikapenetan mugatzailea erabiltzea (2008: 210-211). Caminoren arabera, ezaugarri hori oso ohikoa da Aezkoan, Nafarroa Beherean, Elkanoko Lizarragaren idatzietan edota Esteribarko Eugin (1997: 517-519), eta baita Lapurdin (2004b: 469) ere²¹⁵. Altsasun ere bildu zuen Izagirrek 1967an (Zuazo 1995b: 329). Zelaietak muga aldeko hizkeren berri eman du (2004: 244-245): errepikapenetan mugatzailea erabiltzea ohikoa da Baztanen, Zugarramurdin eta Saran, eta ez dago halakorik Bortzirietan, Sunbillan eta Malerrekan. Azkenik, mugatzailea duten errepikapenak ez dira guztiz ezezagunak Gipuzkoako Hondarribian eta Irunen (Sagarzazu 2005: 72-73).

Gure eremuko hizkerari dagokienez, aditzondo errepikatuetan mugatzailea ageri duten Imozko, Basaburu Nagusiko eta Larraungo adibideak ekarri ditugu hona (baita Araitz-Beteluko baten bat ere). Baina halako adibideak mugagabeen edo partitiboan deklinatutako adibideekin batera ageri dira. Horrek adierazten du Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeren eta ekialdeko eta Ipar Euskal Herriko hizkeren trantsizioguna dela gurea.

Testuei begira, *guelde gueldie* adibidea ageri da Goldaratzen 1834. urteko testu batean (Satrustegi 1987b: 220), nahiz ez den testu aski fidagarria (ikus 6.2.1.).

²¹⁵ Pikabearen hipotesia da lapurterara behe-nafarreratik sartutako berrikuntza dela; izan ere, batez ere XIX. mendetik aurrera ageri da lapurteraz, eta ekialdeko idazleen testuetan batik bat; Nafarroa Beheretik hurbilenekoetan, alegia (1993: 123-129).

8.3.22. *-gi, -ki modu-atzizkiak*

ongi eta *obeki* (& *ooki*) aditzondoak erabiltzen dira gure eremuko lau ibarretan. Alabaina, Araitz-Beteluko hiztun batzuek (gazteek batik bat) *ondo* eta *obeto* erabiltzeko ohitura hartu dute, ondoko hizkera giputzen eraginez. Izan ere, Araitz-Beteluren eta Tolosaldearen artean dago ezaugarri horren muga: Amezketan, Bedaion, Orexan, Lizartzan eta orobat Tolosalde osoan, *ondo* eta *obeto* erabiltzen dituzte (Hurtado 2001: 92). Nafarroa Garai gehienez erabiltzen dira *ongi* eta *obeki* (baina Burunda, esate baterako, salbuespena da). Nolanahi ere, *-to* eta *-do* atzizkiak ez dira beste ezein hitzetara zabaldu.

8.3.23. *-kal atzizkia*

-kal atzizkia Nafarroa Garaiko ekialdean erabiltzen dute, eta baita beste hizkera batzuetan ere: Oltza zendean, Eguesibarko Elkanon, Nafarroa Beherean, Erronkarin eta Zuberoan (Camino 2003a: 79), eta Artzibarren (Arana 2004: 109). Caminok berak Larraungo bi lekukotasunen berri dakar 2003ko lanean (2003a), eta, hain zuzen, Larraungo Arruitzen entzun dugu guk atzizki hori. Hala, arruiztar batekin zerri-hiltzeaz hizketan ari ginela, aipatutako atzizkia erabili zuen gure hiztunak, inesiboan deklinaturik. Hona nola joan zen elkarrizketa:

Eosi, ta, geo, itten giñuzen oolkik partittu, etxekalin; etxekalin oolkii partitzen giñun etxetan, etxe guzitan.

[Gure galdera] *Etxekalin esan dozo?*

Bueno, etxekalin, etxekalin; esan nai do dena.

Ez dugu beste adibiderik entzun gure eremuko herrietan datu biltzen ibili garenetan; Arruizko lekukotasun hori besterik ez dugu, eta Caminok aipatutako beste biak (Oderitzen eta Arruitzen). Ez dakigu hedadura handiagoa izango ote zuen atzizki horrek garai batean; ez dakigu Larraunen erabiltzeaz gain Imotzen edo Basaburu Nagusian erabiltzen ote zuten; datuak falta ditugu, baina ditugunek adierazten dute beharbada lehen zabalduago egongo zela *-kal* atzizkia.

8.3.24. *Berezko -a-ren egonkortasun-eza*

-a organikoa edo berezkoa galdu egin da zenbait inguruetan. Gure eremuko lau ibarretako adibideak bildu ditugu, baina berezko *-a* galdu gabeko adibideekin batera ageri dira betiere. Lau ingurune morfoloogiko bereiziko ditugu:

a. Izena + determinatzailea

Hona adibideak: *meezin betzuk* ‘medizina batzuk’ (Lat.), *makiñ ue* ‘makina hura’ (Gol.) & *oi aittu duu makin bat aldiz* ‘hori aditu dugu makina bat aldiz’ (Urr.), *botil bakotxai papeleta at* ‘botila bakoitzari papeleta bat’ (Era.) & *botil bet anix* ‘botila bat anis’ (Osk.) & *botil betin* ‘botila batean’ (Ud.) & *botil bet* ‘botila bat’ (Od.), *denak kazol batin* ‘denak kazuela batean’ (Era.), *bonbil bet* ‘bonbilla bat’ (Osk.), *tipul goizek* ‘tipula goizak’ (Etxal.) & *tepul pixko atekin* ‘tipula pixka batekin’ (Bet.), *zapatil politt oiek* ‘zapatila polit horiek’ (Etxal.), *gauz bet* ‘gauza bat’ (Its.) & *dexente gauz* ‘dezente gauza’ (Oro.), *beste gauz bet* ‘beste gauza bat’ (Bet.) & *gauz pet* ‘gauza bat’ (Gai.) & *gauz txarrik ezer ez* ‘gauza txarrik ezer ez’ (Gai.) & *gauz espeziala* ‘gauza espeziala’ (Bet.) & *eozin gauz* ‘edozein gauza’ (Bet.) & *gauz airi* ‘gauza haiei’ (In.) & *gauz oi* ‘gauza hori’ (Gai.) & *ezta gauz onik* ‘ez da gauza onik’ (Uzt.), *kuadril bet* ‘koadrila bat’ (Ud.) & *kuadril gaitze giñen ordun* ‘koadrila gaitza ginen ordun’ (Etxal.), *txabol bat* ‘txabola bat’ (Ud.), *bi teill puxke* ‘bi teila puska’ (At.), *rai bet* gazt. ‘raya’ (Bet.) & *arrai betzuk* ‘(gazt. raya) batzuk’ (Lat.), *tamain betekoak* ‘tamaina batekoak’ (Bet.), *eozin person* ‘edozein pertsona’ (Uzt.) & *person bati* ‘pertsona bati’ (Gai.) & *person distinton bat* ‘pertsona distintoren (< gazt. distinto) bat’ (Gai.) & *person guzik ezka igualak* ‘pertsona guztiak ez gara igualak’ (Bet.) & *person bat* ‘pertsona bat’ (Uzt.) & *pertson bate(k) besteai* ‘pertsona batek besteari’ (Gai.), *bi attun oik* ‘bi aitona horiek’ (Bet.) & *gue attun orri[k]* ‘gure aitona horrek’²¹⁶ (Gai.) & *attun onek* ‘aitona honek’ (Gai.) & *gu attun oi* ‘gure aitona hori’ (Bet.), *amon bat* ‘amona bat’ (In.) & *oso amon ona* ‘oso amona ona’ (In.).

b. -keria eta -ia atzizkiak

Adibideak: *trastekeri aundik* ‘trastekeria handiak’ (Gol.) & *trastekeri terribleak* ‘trastekeria terribleak’ (Era.), *ergelkeri bet* ‘ergelkeria bat’ (Etxal.), *aberi ttikittoa* ‘abergia (gazt. avería) ttikittoa’ (Etxal.), *gaiztakeri et* ‘gaiztakeria bat’ (Bet.), *zenbat astakeri* ‘zenbat astakeria’ (Ud.) *astakeri goorrak* ‘astakeria gogorrak’ (Oro.) & *astakeri izugarrie* ‘astakeria izugarria’ (Arri.), *tonteri aundik* ‘tonteria (< gazt. tontería) handiak’ (Gol.), *mixeri makurrek* ‘miseria makurrak’ (Urr.), *beti mani orrekiñ* ‘beti mania (< gazt. manía) horrekin’ (Bet.), *saarrak dauken porkeri guzie* ‘sagarrak daukan porkeria (< gazt. porquería) guztia’ (Bet.), *desgrazi* gazt. ‘desgracia’ (At.), *penitzentzi zalltxagoa* ‘penitentzia (< gazt. penitencia) zailxeagoa’ (Bet.), *malezi asko* ‘malizia (< gazt. malicia) asko’ (Gai.), *pazentzi ikaarrie* ‘pazientzia (< gazt. paciencia) ikaragarria’ (Gai.).

²¹⁶ *orrek* behar luke, baina, antza, hiztuna nahasi egin zen. Hona esaldia osorik: *gue attun orri[k] diruik ez tik ematen batee* ‘gure aitona horrek dirurik ez dik ematen batere’.

c. Izena + partitibo-morfema

Adibideak: *ordun etzen makiñik izaten* ‘orduan ez zen makinarik izaten’ (Gol.), *mezik gai* ‘mezarik gabe’ (Gol.), *etzen txabolik* ‘ez zen txabolarik’ (Lat.), *eziñ eosi gauzik* ‘ezin erosi gauzarik’ (Lat.), *tiendik ez* ‘dendarik ez’ (Era.), *etzen patatik botatzen* ‘ez zen patatarik botatzen’ (Era.), *denbo artan etzen bromik* ‘denbora hartan ez zen bromarik’ (Etxal.), *nik enun kulpik* ‘nik ez nuen kulparik’ (Etxal.), *taxistik gai* ‘taxistarik gabe’ (Etxal.), *etzutenak finkik* ‘ez zutenak finkarik’ (Etxal.), *pestik etzuten itten* ‘festarik ez zuten egiten’ (Etxal.) & *ezta pestik itten* ‘ez da festarik egiten’ (Zarr.) & *pestik* ‘festarik’ (Arrar.), *orduen etzen patatik* ‘orduan ez zen patatarik’ (Mus.), *dantzik etzen* ‘dantzarik ez zen’ (Mus.), *gripik* ‘griperik’ (Its.), *karreterik etzeon* ‘karreterarik ez zegoen’ (Its.), *beak etzun eskolik bate* ‘berak ez zuen eskolarik batere’ (Its.) & *eskolik etzen ordun* ‘eskolarik ez zen orduan’ (Er.) & *eskolik enun utzi* ‘eskolarik ez nuen utzi’ (Bet.) & *eskolik e asko etzuen izango* ‘eskolarik ere asko ez zuten izango’ (Gai.), *e(zi)tzeen markik gelditto* ‘ez zitzaidan markarik gelditu’ (Ig.), *etzen dantzik izaten* ‘ez zen dantzarik izaten’ (Ud.), *arrek etzun beiñ ee izaten presik itxera bialtzeko* ‘hark ez zuen behin ere izaten presarik etxera bidaltzeko’ (Er.), *arrek eztu bueltik* ‘hark ez du bueltarik’ (Iri.), *eztao problemik* ‘ez dago problemarik’ (Bar.), *dudik ez* ‘dudarik ez’ (Erra.) & *oi dudik eztaona da* ‘hori dudarik ez dagoena da’ (Bet.) & *dudik eztena* ‘dudarik ez dena’ (Gai.) & *dudikabe* ‘dudarik gabe’ (Arri.), *oi esateko oitturik etzen emen* ‘hori esateko ohiturarik ez zen hemen’ (Erra.), *eztao presik* ‘ez dago presarik’ (Erra.), *tintik etzun bear* ‘tinterik ez zuen behar’ (Gai.), *etzen prentsik* ‘ez zen prentsarik’ (Gai.), *etzen gañakoan beste markik* ‘ez zen gainerakoan beste markarik’ (In.), *konportik etzen eamaten arreoan* ‘konportarik ez zen eramaten arreoan’ (Gai.), *ezpaito grasik* ‘ezpaitu grasarik’ (Gai.), *eztao fetxik* ‘ez dago fetxarik’ (Gai.), *zapatik-eta etzeaoken ezer ee* ‘zapatarik-eta ez zeukan ezer ere’ (Azk.), *eztu itxurik* ‘ez du itxurarik’ (Bet.).

d. Izena + erakuslea edo posposizioa

Adibideak: *sok ue* ‘soka hura’ (Gol.), *gras ue* ‘grasa hura’ (Gol.), *txap ue* ‘txapa hura’ (Gol.), *pelot ue* ‘pilota hura’ (Gol.), *bander ore* ‘bandera hura’ (Er.), *pest oketan* ‘festa hauetan’ (Er.), *bord oi* ‘borda hori’ (Er.), *bras ue* ‘brasa hura’ (Arrar.), *pusk ue* ‘puska hura’ (Arrar.), *pomad ue* ‘pomada hura’ (Ig.), *kak ue* ‘kaka hura’ (Arru.), *txap ue* ‘txapa hura’ (Ald.), *tel oi* ‘tela hori’ (Erra.), *arrap oe* ‘arropa hori’ (Gai.), *orrantz ue* ‘orantza hura’ (At.), *errek ondoan* ‘erreka ondoan’ (Uzt.), *mas ue* ‘masa hura’ (At.), *zerg oi* ‘zerga hori’ (Bet.), *mez ondoan* ‘meza ondoan’ (Uzt., Arri.), *pusk oiri*

‘puska horiei’ (Gai.), *tanker ortakoa* ‘tankera horretakoa’ (Arri.), *fatur ue* ‘faktura hura’ (Bet.), *letxad oi* ‘letxada (< gazt. lechada) hori’ (Bet.), *metx ue* ‘metxa hura’ (Gai.), *punt ue* ‘punta hura’ (In.), *karg erdikoak* ‘karga erdikoak’ (Gai.), *gerr ondoan* ‘gerra ondoan’ (Uzt.), *anim oik* ‘anima horiek’ (Bet.).

Atal honen hasieran esan dugun bezala, *-a* berezkoaren egonkortasun-eza ez da erabatekoa gure eremuan. Izan ere, a. eta c. inguruneetan ikusi ditugun adibideekin batera, berezko *-a* galdu gabeko adibideak ere badaude: *tepule bat* ‘tipula bat’ (Bet.) & *tepule pixko at* ‘tipula pixka bat’ (At.), *gauze at* ‘gauza bat’ (Gol.), *koadrille at* ‘koadrila bat’ (In., Azk.), *botille at saardo* ‘botila bat sagardo’ (Bet.), *iru txaola zeauen* ‘hiru txabola zeuden’ (In.) & *txaola ttiki et* ‘txabola ttiki bat’ (In.), *telle puxke at* ‘teila puska bat’ (Uzt.), *amona guzik* ‘amona guztiak’ (At.), *txistorra puske at* ‘txistorra puska bat’ (Azk.), *dudeik ez* ‘dudarik ez’ (Gol.), *eztai problemaik* ‘ez dago problemarik’ (Gol.), eta abar. Bestalde, d. inguruneak (eta c.-koak) ez dira osotara berezko *-a*-ren egonkortasun-ezaren erakusgarri; askotan, fonologiari edo lastertasunari lotutako gertaerak dira, eta, gainera, beste hizkera askotan gertatzen dira halakoak.

Zuazok euskara giputzaren ezaugarritzat hartu izan du berezko *-a*-ren egonkortasun-eza (1998a: 217). Nafarroa Garaiko zenbait hizkeratan ere bada; indar handia du, esate baterako, Bortzirietan (Zelaieta 2004: 240)²¹⁷ eta Ergoienean (Solís 1993: 99), eta ahulxeagoa da Esteribarren eta Erroibarren (Ibarra 2000: 127-128). Hurtadok dioenez, Tolosaldeko hegoaldean eta Goierriin badira adibideak, baina, Tolosan, zehazki, berezko *-a* egonkorragoa zen Izagirrek hango hiztegia osatu zuenean; alegia, 1967. urtean (2001: 50-52). Nolanahi ere, bilakabidea indartsuagoa da Gipuzkoako ipar-ekialdean, Hurtadok berak dioenez. Hain zuzen, Goierriko Zaldibiako eta Ordiziako datuak eman dituzte Etxabe eta Garmendia ikertzaileek: bietariko adibideak ageri dira han, baina *-a* gabeak adinekoen mintzoan ageri dira batez ere (2003: 52 eta 2004: 55).

Gure eremuari dagokionez, berezko *-a* galdutako adibide esanguratsuak bildu ditugu; ezaugarri horrek badu, beraz, nolabaiteko indarra gure eskualdean. Nolanahi ere, berezko *-a* galdu gabeko adibideekin batera ageri dira *-a* galdutakoak. Ezaugarri hori gure eremuan baino maiztasun handiagoz ageri da Nafarroa Garaiko Bortzirietan aldean edota Gipuzkoako ipar-ekialdean, baina gure eremura ere iritsi da haren oihartzuna.

²¹⁷ Kontrako bilakabidea ere gauzatu da Bortzirietan: *apeza unek, tren bat...*

8.4. Aditzaren morfologia

8.4.1. Lehen pertsona singularreko NORI morfema

Batetik, Imozko eskuin muturrean dagoen Muskitzen, *-da* (> *-de*, *-re*) morfema erabiltzen dute: *zaide* ‘zait’, *zaizkide* ‘zaizkit’, *dire* ‘dit’, *direzu* ‘didazu’, *direte* ‘didate’, *zitzairen* ‘zitzaidan’, *ziren* ‘zidan’, *zireten* ‘zidaten’. Hona bertatik bertara jasotako zenbait adibide: *etzaide gustetzen* ‘ez zait gustatzen’, *ala iruitzen zaide* ‘hala iruditzen zait’, *aztu zaide* ‘ahaztu zait’, *beak eman dire nei* ‘berak eman dit niri’. Bestalde, Gamindek bildutako adibide bat ere badugu (1994: 229): *iruitzen zaire agudo inñen dutela* ‘iruditzen zait agudo eginen dutela’. Oskotzen ere entzun dugu morfema horren adibideren bat edo beste, nahiz *-e* den han nagusi (ikus beherago): *etorri zairen eskerrak ematea* ‘etorri zitzaidan eskerrak ematera’.

zaire eta *zaide* gisakoak ezagunak dira Muskiztik ekialderako hizkeretan (Atetz, Ultzama, Anue; ikus Ibarra 1995a: 422-427), baina apika hedatuxeagoak izango ziren garai batean Imotzen eta Basaburu Nagusian ere: Irizarrek, esate baterako, *zaizkide* bildu du Erason, Oskotzen eta Muskitzen (1992a: 249), *zitzaiden* Itsason (1992a: 305) edota *zitzairen* Orokietan (1992a: 305), eta *Elk zaide* Gartzaronen (1984: 249-250). Gaur egun, baina, Muskitzen dute muga adizki horiek.

Hain zuzen, Muskiz ez beste Imozko herrietan, Basaburu Nagusian eta Larraungo Oderitzen, *-e* bildu dugu (alegia, *-da* > *-de* > *-e*): *zaie* ‘zait’, *zaizkie & zazkee* ‘zaizkit’, *dee* ‘dit’, *tee* ‘dizkit’, *zitzaien* ‘zitzaidan’, *zeen* ‘zidan’. Hona zenbait adibide: *suurre tapatu zaie* ‘sudurra tapatu zait’ (Gol.), *etzaie beiñ ee okurrittu eskatzii* ‘ez zait behin ere okurritu (< gatz. occurir) eskatzea’ (Gol.), *beretas etorri zizaien afizioa zurgintzena* ‘beretaz etorri zitzaidan afizioa zurgintzarena’ (Gol.), *besteon bat ateko ote zaie ba nei?* ‘besteren bat aterako ote zait ba niri?’ (Era.), *etzaie akordatzen* ‘ez zait akordatzen’ (Era.), *pena ematen dee* ‘pena ematen dit’ (Era.), *Jainkoak kastigatu dee* ‘Jainkoak kastigatu dit (nau)’ (Era.), *aztu in zazke* ‘ahaztu egin zaizkit’ (Era.), *nei pastu zitzaien kaso at* ‘niri pasatu zitzaidan kasu bat’ (Era.), *oi nei re gutxi tokatu zaie* ‘hori niri ere gutxi tokatu zait’ (Osk.), *etorko zaie* ‘etorriko zait’ (Osk.), *nei geigo gustatzen tzaie itzalean* ‘neri gehiago gustatzen zait itzalean’ (Etxal.), *pixke-pixke ateatzen zaizke* ‘pixka(na)-pixka(na) ateratzen zaizkit’ (Etxal.), *esan dee oso ongi naula* ‘esan dit oso ongi nagoela’ (Etxal.), *gustatzen zaie* ‘gustatzen zait’ (Its.), *nei gustatzen tzaie Gipuzkoako euskea* ‘niri gustatzen zait Gipuzkoako euskara’ (Oro.), *iruitzen tzaie ooki naola* ‘iruditzen zait hobeki nagoela’ (Oro.), *atendu zaizkie* ‘atendu zaizkit’ (Gar.), *eman dee diruu* ‘eman dit dirua’ (Gar.), *nei asko gustatzen zizaien* ‘niri asko gustatzen

zitzaidan' (Gar.), *au ta au pastu zaie* 'hau eta hau pasatu zait' (Gar.), *gustatzen tzaien dantza-ta* 'gustatzen zitzaidan dantza-eta' (Er.), *ia akordatzen tzaien zerpatte geio* 'ea akordatzen zaidan zerbait ere gehiago' (Er.), *urtego urtean il tzaien ama* 'hurrengo urtean hil zitzaidan ama' (Er.), *ipoa etorri zaie* 'hipoa (< gazt. hipo) etorri zait' (Arrar.), *Leitzeko euskera asko gustatzen tzaie* 'Leitzako euskara asko gustatzen zait' (Ig.), *etzaen tokatu* 'ez zitzaidan tokatu' (Ig.), *gaur eman dee* 'gaur eman dit' (Ud.), *aztu zaie* 'ahaztu zait' (Beru.)²¹⁸, *beatza goortzen asi zitzeen* 'behatza gogortzen hasi zitzaidan' (Beru.), *goatzen zaie* 'gogoratzen zait' (Od.).

Caminok Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarritzat jo du *-da* morfema (2003a: 88-89). Haren datuen arabera, ezaugarri horretan batera doaz honako eskualde hauek: Gesalatz, Goñerria, Ollaran, Oltza zendea, Itzarbeibar, Eguesibar, Elortzibar, Gulibar, Txulapain, Odieta, Ezkabarte, Ultzama, Atetz, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar eta Aezkoa. Arakil ibarrean, *-ki(d)e* eta *-de* morfemak ageri dira, eta Irañetan hasten da *-t* morfemaranzko trantsizioa. Ikusi dugunez, Imotzen eta Basaburu Nagusian ere badira *-da* morfemaren aldaerak: *-de*, *-re* Muskitzen, eta *-e* Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo Oderitzen. Basaburu Nagusiko iparraldeko muga, *-re* eta *-t* nahaska ageri dira Basaburu Txikiko Labaienen eta Saldiasen, eta *-t* da nagusi Eratsunen eta Ezkurran (Gaminde 1985c: 301-324). XVIII. mendeko testuetan badira *zaide* formaren tankerakoak, hala nola Juan Martin de Ibero munarriztarraren testuetan 1758an (Satrustegi 1987b: 91-111). Nolanahi ere, ezaugarri zaharra dirudi, antzina hedadura handiagoa zuena; esate baterako, 1596ko *RS* lanean, *daminda* erako formak ageri dira. Nafarroa Garaian, beraz, datiboan iraun du morfema horrek²¹⁹.

Oderitz ez beste Larraungo herrietan, oraindik ere lehian dira *zaie* eta *zait* (& *zaet*) 'zait' formak hego-ekialdeko herrietan (baita Berueten ere), baina *dit* (& *det*) 'dit' ageri da kasu gehienetan, nahiz eta *dee* ere entzun dugun Errazkinen. Irizarren datuetan, *-t* morfema duten adizkiak ageri dira nagusiki, baina bada *zaie* 'zait' Madotzen (1992b: 298), *zazkee* 'zaizkit' Errazkinen eta *zazke* Madotzen (1992b: 220, 299), eta *dee* 'dit' Madotzen, Oderitzen eta Errazkinen (1992b: 230, 311). Hona Larraunen bildu ditugun zenbait adibide: *berdee gustatzen tzait* 'berdea gustatzen zait' (Iri.), *esain baziñee* 'esanen bazenit' (Iri.), *etzae gustatzen* 'ez zait gustatzen' (Iri.), *bein gertatu izandu zaie* 'behin gertatu izandu zait' (Bar.), *eman det* 'eman dit' (Bar.), *illundu zait* 'ilundu zait' (Arru.), *eman dit diruu* 'eman dit dirua' (Ald.), *eroi zaet* 'erori zait' (Ald.), *eman ttit*

²¹⁸ Berueten, *-t* eta *-e* morfemak txandaka ageri dira.

²¹⁹ Jakina, "dudan" (< dut + *-(e)n*) erako formetan ere iraun du morfema horrek.

‘eman dizkit’ (Alb.), *sekulen etzat okurrittu* ‘sekula(n) ez zait okurritu (< gazt. ocurrir)’ (Ui.), *galdetzen badee* ‘galdetzen badit’ (Erra.). Iraganeko adizkietan, *zitzeen* (& *zitziin*) ‘zitzaidan’ bildu dugu Larraungo herri guztietan; baina, Errazkinen, *zitzaten* eta *zitzetan* ere bildu dugu: *etzeen tokatu* ‘ez zitzaidan tokatu’ (Iri.), *paastu zitzen* ‘pasatu zitzaidan’ (Arru.), *ia ze pasten tzitziin* ‘ea zer pasatzen zitzaidan’ (Ald.), *urte aten enitzen joan soldau tokatu zitzaielako* ‘urte batean ez nintzen joan soldadu tokatu zitzaidalako’ (Alb.), *etzitzen tokato izando* ‘ez zitzaidan tokatu izan(du)’ (Erra.), *alleatu zitzeten* ‘ailegatu zitzaidan’ (Erra.), *aizpe gaizki geldittu zitzetan* ‘ahizpa gaizki gelditu zitzaidan’ (Erra.). “zitzaidan” adizkiari dagokionez, *zitzaten* gisakoak ez dira erabat arrotzak Errazkinez gainerako Larraungo herrietan ere; esate baterako, Gamindek *zizaten* ‘zitzaidan’ eta *zazkiten* ‘zizkidan’ dakartza Gorritirako (1985c: 122), eta Irizarrek *zitzaten* Gorritirako eta *zateen* Errazkinerako (1992b: 221).

Araitz-Betelun, *-t* morfema erabiltzen dute kasu guztietan: *za(i)t*, *zazkit*, *dit*, *dazkit* ‘dizkit’, *zi(t)za(i)ten* & *ziten* ‘zitzaidan’. Adibideak: *etorriko zait memorie* ‘etorriko zait memoriara’ (Bet.), *ortxe geitto zat beorra ez atzea eta ez aurrea* ‘hortxe gelditu zait behorra ez atzera eta ez aurrera’ (Gai.), *nee orduko bersoak gustatzen tzazkit* ‘niri orduko bertsoak gustatzen zaizkit’ (Uzt.), *zergati esan dit orre[k] liburuik ez zaaltzeko?* ‘zergatik esan dit horrek libururik ez zabaltzeko?’ (Gai.), *beste gizon batek ee ustu izandu azkit nei* ‘beste gizon batek ere hustu izan(du) dizkit niri’ (At.), *iruitzen bazizaten pixko at azala beztutzen asi zaiela* ‘iruditzen bazitzaidan pixka bat azala belzten hasi zitzaizela’ (Gai.), *arrittu in tzitzaiten* ‘harritu egin zitzaidan’ (Bet.), *Bitorie nei tokatu ziten* ‘Bitoriara (< gazt. Vitoria) niri tokatu zitzaidan’ (In.). Alabaina, *zeen* nahiz *ziten* ‘zidan’ formak entzun ditugu; *zeen* adinekoek erabiltzen dute batik bat, eta gazteen artean hedatuz doa *ziten*, nahiz adinekoek ere erabiltzen duten. Hona bietariko adibideak (adineko berriemaileengandik jasotakoak dira guztiok): *arrexek[k] sendatu zeen nee* ‘harexek sendatu zidan (ninduen) niri (ni)’ (Gai.), *nei ein tzeena* ‘niri egin zidana’ (In.), *esan tzeen* ‘esan zidan’ (Gai.), *nei esaten tzitena zegoan ziero siñistatuta an sorgiñek ai ziela lixue jotzen* ‘niri esaten zidana zegoen zeharo sinistuta han sorginak ari zirela lixua jotzen’ (Arri.), *oi Don Blasek esan tziten* ‘Hori Don Blasek esan zidan’ (In.).

-t morfema ageri da, halaber, Larraundik eta Araitz-Betelutik iparraldera eta mendebalera: Leitzan eta Areson (Olano 1998: 178-215), Sakanan (Camino 2003a: 88-89), eta orobat Gipuzkoan. Gainera, Nafarroako ipar-ekialdean ere bada (Baztan, Bortzirriak, Malerreka). *-da* (> *-de*, *-re*, *-e*), aldiz, gorago esan dugun bezala, ekialderagoko eta hegoalderagoko hizkeren ezaugarria da.

Fonologiari erreparaturik, diptongoa murrizturik ageri da *zat* ‘zait’ adizkia nagusiki Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun, baita beste adizki batzuetan ere (*zazo* ‘zaizu’, *zitzazon* ‘zitzaizun’), nahiz diptongoa murriztu gabekoak ere badauden (cf. 8.1.10.). Murriztutakoak badira ondoko Tolosaldean eta Goierriin ere (Hurtado 2001: 93-94). Zuazok dio erdialdeko euskararen ezaugarria dela, bereziki mendebalekoa; alegia, Goierri eta Urola aldekoa (2008: 145).

8.4.2. Bigarren pertsona singularreko morfema

Nafarroa Garaian ohikoa denez, bigarren pertsona singularreko morfema *y-* da Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean: *yaiz* ‘haiz’, *yitzen* ‘hintzen’, *yun* ‘huen’, *yittun* ‘hituen’, *yion* ‘hengoan’, *yau* ‘hago’, *bayakin* ‘bahekien’, eta abar. Hona zenbait adibide: *ik, al bayu, salduko yukek andrea re!* ‘hik, ahal bahu, salduko hukek andrea ere!’ (Osk.), *arpatu yun erbi?* ‘harrapatu huen erbia?’ (Its.), *gezurre erran yan* ‘gezurra erran hidan’ (Gar.), *non iondu yaiz?* ‘non egon haiz?’ (Gar.), *artzai-itxola izaten yun aparte* ‘artzain-etxola izaten huen aparte’ (Oro.), *bayoa?* ‘bahoa?’ (Od.) & *noa yii?* ‘nora hoa?’ (Ald.), *noa yizin?* ‘nora hindoan?’ (Od.), *kinkilleroa de etortzen yun ba* ‘kinkilleroa ere etortzen hunan ba’ (Ald.), *i akordatzen al yaz Joxefermiñen arreba nola etortzen tzen sardiñekin?* ‘hi akordatzen al haiz Joxeferminen arreba nola etortzen zen sardinekin?’ (Ald.), *eroi in yatteke* ‘erori egin haiteke’ (Ald.). Halaber, *yao* ‘hago’ ageri da Berueten 1945 aldera (Donostia 1956: 36).

Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun, aldiz, *Ø-* da morfema: *aiz* ‘haiz’, *itzen* ‘hintzen’, *uen* ‘huen’, *ittuen* ‘hituen’, *ao* ‘hago’, eta abar. Adibideak: *mutilzarra geldittu uen* ‘mutilzaharra gelditu huen’ (Ui.), *auro etorri aiz!* ‘agudo etorri haiz!’ (Ui.), *arraio, zikiñe, or ao!* ‘arraio, zikina, hor hago!’ (Gai.), *nee etxea joango ittuen, gañea, oik* ‘nire etxera joango hituen, gainera, horiek’ (At.), *etxean izandu aiz aspaldin?* ‘etxean izan(du) haiz aspaldian?’ (Bet.), *noa oa, ordea, orti!* ‘nora hoa, ordea, hortik!’ (Gai.). Basaburu Nagusiko iparraldean ere entzun ditugu halakoak: *noiz etorre aiz?* ‘noiz etorri haiz?’ (Beru.).

Irizarren datuetan, *Ø-* ageri da Larraungo ipar-mendebalean: *aiz, itzen, uen*, (1992b: 219, 236). Hego-ekialdean, aldiz, nahasixeagoa da egoera, eta *Ø-* zein *y-* dakartza Irizarrek hango herrietarako: *yaiz* Etxarrin eta Oderitzen, baina *aiz* Albiasun, Arruitzen, Astitzen, Baraibarren, Etxarrin, Lekunberrin, Madotzen eta Aldatzen (1992b: 295); *yun* gisakoak Aldatzen, Baraibarren, Madotzen,

Arruitzen, Astitzen eta Lekunberrin, baina *un* Albiasun (1992b: 297), eta *yittun* Madotzen, baina *ittun* Albiasun, Arruitzen, Astitzen, Baraibarren, Aldatzen eta Lekunberrin (1992b: 298). Emaizta bertsuak ditugu Gaminderen lanean ere (1985c: 91-132). Gorago esan bezala, hego-ekialdeko herrietan *y-* eta ipar-mendebalekoetan *Ø-* bildu dugu guk eskuarki.

20. irudia: Bigarren pertsona singularreko morfema



Nafarroa Garaiko hizkera gehienetan bada *y-* morfema, baina isoglosatik kanpo daude gure eremuko Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu, eta baita Leitza eta Areso (Olano 1998: 178-224) ere; bestalde, bi aukerak daude Goizuetan eta Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 79, 129), eta Sakanan ere badira zenbait salbuespen (Erdozia 2001)²²⁰. Euskara nafarraren ezaugarri berezkozat hartu du *y-* morfema Zuazok (2008: 108), eta Gipuzkoako ipar-ekialdean ere bada.

Ez dakigu zehazki noiz sortua den *y-* morfema, baina gutxienez XVIII. menderako sortua zen, *baiaiz* adibidea ageri baita Goñerrin 1743an aurkitutako testu batean (Ondarra 1989: 100): *baldin Jang(oicoare)n semea baiiaiz*. Baliteke, ordea, *ba-* aurretik izateak eragin izana *iaiz* forma.

²²⁰ Esate baterako, Sakanako erdialdeko herri guztietan edo gehienetan ageri dira *yeiz* ‘haiz’ (Erdozia 2001: 249), *gue* edo *goye* ‘hoa’ erakoak (2001: 277) edo *ya(z)kiyen* ‘hekien’ (2001: 282), baina badira, halaber, *ago* & *au* & *ao* ‘hago’ (2001: 276), *a(b)ill(e)* ‘habil’ (2001: 275) edota *etteke* & *aitteke* & *(y)aittike* ‘haiteke’ (2001: 251) ere.

8.4.3. Bigarren pertsona pluraleko NOR morfema

La eremu osoan, *-te* morfema erabiltzen da: *za(a)te* ‘zarete’, *ziñeten* ‘zineten’. Larraungo hego-ekialdeko herri batzuk dira salbuespena: orainaldian, *zae*, *zai* zaharragoak eta *zatti* ‘zarete’ formak bildu ditugu Oderitzen; *zaati* Arruitzen; eta *zae*, *zaati* eta *zatti* Baraibarren. Iraganari dagokionez, *ziñiin* ‘zineten’ jaso dugu Larraungo hego-ekialdeko herri guztietan. Albiasu herria Larraungo ipar-mendebalarekin batera dugu, *zaate* eta *ziñeten* jaso baitugu han.

Antzeko emaitzak dakartza Irizarrek bere lanean; *za(a)te* eta *ziñeten* daude eremu osoan, baina salbuespen dira Larraungo zenbait adizki: orainaldiko *zaati* Lekunberrin, *zati* Baraibarren eta Etxarrin, *zae* Madotzen eta *zai* Oderitzen (1992b: 296), eta iraganeko *ziñi(i)n* Arruitzen, Astitzen, Baraibarren, Madotzen, Lekunberrin eta Oderitzen (1992b: 297).

Larraungo adizki zaharrago horiek alde batera utzita, *za(a)te* eta *ziñeten* ohikoak dira gure eremuko gainerako herrietan, eta baita gure eremuaren mugetan ere. Zuazoren arabera, Euskal Herriko erdiguneko eremu zabaleko ezaugarria da, eta isoglosatik kanpo daude mendebala, Sakana, Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzu (2008: 191). Ikusi dugunez, salbuespen da Larraungo hego-ekialdea ere, ezaugarri zaharra gorde baitu.

8.4.4. Bigarren pertsona pluraleko NORK eta NORI morfemak

Batetik, *-zie* morfema erabiltzen dute Muskitzen: *duzie* ‘duzue’, *ttuzie* ‘dituzue’, *zaizie* ‘zaizue’, *zaizkizie* ‘zaizkizue’, *dizie* ‘dizue’, *ttizie* ‘dizkizue’. Adibideak: *prestatu duzie* ‘prestatu duzue’, *atera ttuzie* ‘atera dituzue’, *emain dizie* ‘emanen dizue’.

Morfema hori Muskiztik ekialdera eta hegoaldera ageri da oro har: Atetzen, Ultzaman, Anuen, Odietan, Erroibarren, Esteribarren, Artzibarren, Aezkoan, Ezkabarten, Txulapainen, Eguesibarren, Oltza zendean, Goñerrian eta Ergoienean (Camino 2003a: 76); Ipar Euskal Herrian ere bada, Uztaritze aldetik hasi eta Zuberoaraino (Zuazo 2008: 160).

Aldaik ondorioztatu du aski berrikuntza modernoa dela *-zie* morfema (1999a: 265): ez da ageri hegoaldeko goi- nafarrera zaharrean (alegia, Beriainen idatzietan, XVI-XVII. mendeetan), eta XVIII. mendeaz geroztik hasten da agertzen (Lizarraga Elkanokoaren testuetan, esate baterako).

Bestetik, Imozko gainerako herrietan eta Basaburu Nagusian, *-zte* morfema ageri duten adizkiak ditugu: *duzte* ‘duzue’, *ttuzte* ‘dituzue’, *zaizte* ‘zaizue’, *zaizkizte* ‘zaizkizue’, *dizte* ‘dizue & dizute’, *ttizte* ‘dizkizue & dizkizute’, *diztet* ‘dizuet’. Adibideak: *emain diztet mukitako at!* ‘emanen dizuet mukitako bat!’ (Gol.), *joan zaizte beie* ‘joan zaizue behia’ (Etxal.), *eskatzen ezpauzu, ez dizte ematen* ‘eskatzen ez badizute, ez dizute ematen’ (Etxal.), *ze in bea’uzte?* ‘zer egin behar duzue?’ (Gar.), *beien aurrea yoan bea’uzte* ‘behien aurrera joan behar duzue’ (Arrar.), *ze in diozte?* ‘zer egin diozue?’ (Ud.), *esan dizten lekutik* ‘esan dizuedan lekutik’ (Ud.), *ikusi duzte elurre oianin?* ‘ikusi duzue elurra oihanean?’ (Its.), *gustatzen zaizkizte banarrak?* ‘gustatzen zaizkizue banabarrak?’ (Its.), *irutan ogei ematen dizte subentzioa* ‘hiruretan hogeia ematen dizute subentzioa’ (Oro.), *erretzen ttuzte [gaztainak] Goldaatzen?* ‘erretzen dituzue [gaztainak] Goldaratzen?’ (Oro.), *oiek denak eskatzen ttizte?* ‘horiek denak eskatzen dizkizute?’ (Oro.).

Caminok *duzte* adizkiaren hedaduraren berri eman du (2003a: 76): haren arabera, bada Gulibarren, ekialdeko Arakilen, Imotzen eta Basaburu Nagusian. Bestalde, *-zte* Goizuetan ere bada, baina beste morfema batzuk ageri dira Leitzan eta Basaburu Txikian (ikus beherago). Beste morfema batzuk baliatzen dituzte Sakanako erdialdean ere (Erdozia 2001: 260-261). Nafarroatik kanpo, *-zute* ageri da Gipuzkoako ipar-ekialdean, Donostia-Hernani lerrotik hasita Iruneraino (Zuazo 2008: 194), eta baita tarteka Tolosa aldean ere (Irizar 1991a: 188-195 eta 1991b: 86-118; cf. Hurtado 2001: 100). Nolanahi ere, badirudi bilakabide beregainak direla Nafarroako *-zte* eta Gipuzkoako *-zute* (nahiz bilakabidearen sorrera bera den), ez baitute lotura geografikorik —aski eremu finkatua dute hala bata nola besteak—, eta ez du ematen ezaugarri zahar gordeak direnik ere (testuak begiratu, XVIII. mende aldera hasten da *-zte* Nafarroan agertzen; Gipuzkoan, berriz, geroxeago²²¹).

Basaburu Nagusiko Berueten, baina, *-zu(u)* morfema ere erabiltzen dute: *duzu(u)* ‘duzue’, *zaizu(u)* ‘zaizue’, *zaizkizu(u)* ‘zaizkizue’, eta abar. Hona Berueten bildutako adibide bat: *gezurrek esanta eztizu lana emaan* ‘gezurrak esanda ez dizute lana emanen’. Ibarrak bezala, *-zte* morfemarekin txandaka entzun dugu guk ere *-zu(u)* Berueten (1995a: 432). Morfema hori bera erabiltzen dute Basaburu Txikiko Ezkurran ere (B. L.; cf. Gaminde 1985c: 301-324)²²².

²²¹ Ikus Hurtado 2001: 100.

²²² Berueten entzun dugun *-zu(u)* morfemak ez du zerikusirik euskara zaharraren *-zu* morfema pluralarekin (Lakarra 1996: 173-176); gure ustez, ondoko Larraunen erabiltzen duten *-zue* > *-zui* morfemaren asimilazioz sortua da *-zu(u)*, eta halaber asimilazioz sortuak dira *du(u)* (< *dui* < *due*) ‘dute’ eta *ttu(u)* (< *ttui* < *ttue*) ‘dituzte’ formak ere (cf. 8.4.5.). Gainera, bilakabide berbera gertatu da *-u-z* bukatutako hitzei *-a* mugatzailea eranstea ere (*suu* ‘sua’, *munduu* ‘mundua’... ikus 8.1.2.3.).

Mendebalera eginez, Larraungo hego-ekialdean, *-zui* eta *-zii* morfemak ditugu: *dozui & dozii & dezii* ‘duzue’, *ttuzui & ttuzii* ‘dituzue’, *zaizui & zaizii* ‘zaizue’, *zazkizui & zazkizii* ‘zaizkizue’. Hona zenbait adibide: *ze in bea’uzii?* ‘zer egin behar duzue?’ (Bar.), *jartzazui* ‘jar ezazue’ (Bar.), *ein dozui* ‘egin duzue’ (Iri.), *beti oi esaten dezii* ‘beti hori esaten duzue’ (Od.), *Aldazkoak esan deziila* ‘Aldazkoek esan dizutela’ (Ald.), *ze esaten diozii orrei?* ‘zer esaten diozue horri?’ (Ald.).

Larraungo hego-ekialdeko adizkiak bereziak dira ezaugarri fonologikoak direla eta; *-zii* eta *-zui* bukaerek berehala ematen dute belarrira, eta horrek kutsu berezia ematen dio hango hizkerari. Aldaketa Albiasu herrian hasten da: han, *-zue* palatalizatu gabea ageri zaigu. Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun ere *-zue* dugu: *duzue* ‘duzue’, *ttuzue* ‘dituzue’, *zaizue* ‘zaizue’, *zazkizue* ‘zaizkizue’, *dizue* ‘dizue’. Hain zuzen, morfema horixe da nagusi ondoko Gipuzkoako hizkeretan edota Leitzan eta Areson (Olano 1998: 179-185, 202-205).

Morfema berak ditugu iraganean ere (*-zie, -zte, -zui & -zii* edo *-zue*), baina, “zenuten” adizkiari dagokionez, *ziñuten* dugu Imotz eta Basaburu Nagusi osoan, *ziñuin* eta *ziñiin* Larraungo hego-ekialdean, eta *ziñuen* Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun.

8.4.5. Hirugarren pertsona pluraleko NORK morfema

Hirugarren pertsona plurala ergatiboa denean, *-te* morfema erabiltzen dute Imotzen eta Basaburu Nagusian: *dute* ‘dute’, *ttute* ‘dituzte’, *zuten* ‘zuten’, *zittuten* ‘zituzten’, *deete* ‘didate’, *zeeten* ‘zidaten’, eta abar. Adibideak: *aizii bea[r] zuten* ‘haizea behar zuten’ (Gol.), *iitaiek beak ekartzen ttute kierrak iñik* ‘igitaiek berek ekartzen dituzte kiderrak eginik’ (Urr.), *bazittuten ganbelak porlaneskoak iñek* ‘bazituzten ganbelak porlanezkoak eginak’ (Lat.), *beak eamaten zittuten saskik* ‘berek eramaten zituzten saskiak’ (Lat.), *beiek gustoa jaten tzuten* ‘behiek gustora jaten zuten’ (Era.), *aotza auntzek e jati ute* ‘agotza ahuntzek ere jaten dute’ (Era.), *arpatu zittuten* ‘harrapatu zituzten’ (Etxal.), *lineak kortatu itten zittuten* ‘lineak kortatu (< gazt. cortar) egiten zituzten’ (Etxal.), *iñaalak in tzittuten* ‘eginahalak egin zituzten’ (Etxal.), *aiek engañatuta biali zittutela onea* ‘haiek engainatuta bidali zituztela hona’ (Etxal.), “*yan*” *erran bearrean*, “*jan*” *errati’ute neski* ““yan” erran beharrean, “jan” erraten dute noski’ (Gar.), *taerna giñauken, ta an itten tzuten bazkari ta dena* ‘taberna geneukan, eta han egiten zuten bazkaria eta dena’ (Gar.), *biek itten ttute, biek batean* ‘biek egiten dituzte, biek batean’ (Gar.), *atarire kar tzittuten* ‘atarira ekarri

zituzten' (Er.), *esan tzeeten* 'esan zidaten' (Oro.), *galde in bar deete non den zakurre* 'galde egin behar didate non den zakurra' (Oro.), *eamatan tzuten mandoakin* 'eramaten zuten mandoarekin' (Oro.), *aurten beteko ttute lauetan oitamar urte* 'aurten beteko dituzte lauetan hogeita hamar urte' (Oro.), *pestak itten tzittuten* 'festak egiten zituzten' (Oro.), *beiek izaten ttute akañek* 'behiek izaten dituzte akainak' (Oro.), *errota len tzena bere artan utzi ute* 'errota lehen zena bere hartan utzi dute' (Ig.), *bidii in dute* 'bidea egin dute' (Ig.), *biorrak-eta pasatzen tzittuten* 'behorrak-eta pasatzen zituzten' (Ig.), *gabes pasatzen tzittuten* 'gauzez pasatzen zituzten' (Ig.), *biorrak-eta esaten tzuten* 'behorrak-eta esaten zuten' (Beru.), *beiek-eta eamati'utenin* 'behiek-eta eramaten dutenean' (Beru.), *gauzek gordeto bea'ute onge* 'gauzek gorde(tu) behar dute ongi' (Beru.)²²³, *maixtrak geo kanbiatu zittuten* 'maestrar gero kanbiatu zituzten' (Beru.).

Berueten, baina, *-te* morfemarekin batera, *-u(u)* ere ageri da maiz: *du(u)* 'dute', *ttu(u)* 'dituzte'. Hona zenbait adibide: *batzuk esaten du emen "amatxi"* 'batzuek esaten dute hemen "amatxi"', *izenak battu* 'izenak badituzte', *ola esaten du, bai, batzuk* 'horrela esaten dute, bai, batzuek', *"noaie" beste atzuk esaten du* "'noaie" beste batzuek esaten dute', *oañ e itten du taloa* 'orain ere egiten dute taloa', *radiotik dena kontatzen duu* 'radiotik (irratitik) dena kontatzen dute', *"erran" esaten duu asko* "'erran" esaten dute asko'. Ibarrek bezala, *-u* eta *-te* biak txandakaturik entzun ditugu guk (Ibarra 1995a: 432). Halako forma asimilatuak ezagunak dira Basaburu Txikiko Ezkurran ere (B. L.).

Aipagarriak dira pluraleko *ttute* eta *zittuten* aldaerak; Caminoren arabera, Nafarroa Garaiko erdigunean ageri dira, hala nola Arakilen, Goñerrian, Oltza zendean, Gulibarren, Txulapainen, Odietan, Ultzaman, Anuen, Esteribarren eta Erroibarren, baina ez Aezkoan (2003a: 87-88). Artolak dakarrenez, Ezkabarten eta Olaibarren ere baziren *zituten* eta *zittuten* adizkiak, *zituzten* formarekin batera (2001: 503). Haiekin batera doaz Imotz eta Basaburu Nagusia ere. Testuei begira, XIX. mendetik aurrerako testuetan baizik ez ditugu ikusi halako adizkiak, hala nola Hiriberri Arakilen 1850 aldera (Salaberri 2008: 266, 277), Lakuntzan 1838an (Satrustegi 1987b: 234), Goldaratzen 1830 aldera (Satrustegi 1987a eta 1987b) eta Ultzaman 1863an eta 1906an (Ibarra 1992).

²²³ Joskera berezia da hori: 'gauzak ongi gorde behar dira' esan nahi du. Antzekoa da Orokietan bildu dugun hau ere: *gauzek esan bea'ute deen bezala*. Alegia, 'gauzak esan behar dira diren bezala'. Beste hizkera batzuetan ere ezaguna da joskera hori, hala nola Zuberoan, Nafarroa Beherean, Aezkoan, Erroibarren eta Esteribarren, eta testu zaharretatik hasita ageri den ezaugarria da, gainera (I. Caminok ahoz esana; cf. Camino 1997: 462-463).

Ez dakigu, ordea, *ditue* → *dituzte* → *ditute* edo *ditue* → *ditute* → *dituzte* gertatu ote den. Morfologiaren ikuspegitik, forma zaharrak dirudite *ditute* eta *zituten* adizkiek, -z- pluralgilea baino lehenagokoak betiere; nolana ere, Lakarrak ohartarazi gaitu beharbada ez dela kontu morfologikoa (bestela **dituzgu* edo **dituzuzte* erakoak sortu izango baitziren), fonikoa baizik: alegia, baliteke -z- horrek elkarrengandik hurbil diren bi herskari horzkarien gertutasuna saihestea, *guzti* edo *bizkar* hitzen kasuan gertatzen den bezala²²⁴. Izanak izan, badirudi aditz-forma zaharrak diratekeela *dittute* eta *zittuten*; beste kontu bat da erabakitzea formok noiz sortu ote ziren gure eremuan.

-te morfema Imozko eta Basaburu Nagusiko hizkeren ingurumarian ageri da, batez ere ekialdera eta hegoaldera (iparraldera ere bai, hala nola Basaburu Txikiko Beintza-Labaien eta Saldias herrietan, eta handik iparraldera). Zuazok dio Euskal Herriko erdigune zabaleko berrikuntza dela (2008: 191-194, cf. 1998a: 199), eta isoglosatik kanpo kokatu ditu mendebala (Deba barrena izan ezik), Zuberoa, Nafarroa Behereko hizkera batzuk, Erronkari, Zaraitzu, Gipuzkoa gehiena (iparraldea da salbuespena) eta Nafarroa Garaiko Sakana (Burunda barne), Araitz-Betelu, Larraun eta Basaburu Txikiko alderdi bat (Leitza, Areso eta Arano barne).

Hain zuzen, Larrauna orduko bada aldaketa. Larraungo hego-ekialdean, -i da morfema (Albiasun ez): *dui & dii* ‘dute’, *zuin & ziin* ‘zuten’, *ttui & ttii* ‘dituzte’, *zittuin & zittiin* ‘zituzten’, *dauzkii* ‘dauzkate’. Hona zenbait adibide: *bota dii* ‘bota dute’ (Od.), *or ein tziina* ‘hor egin zutena’ (Od.), *etziila billatzen* ‘ez zutela bilatzen’ (Od.), *pixko at aldatzen dui or* ‘pixka bat aldatzen dute hor’ (Iri.), *amar urte ttui illik* ‘hamar urte dituzte hilik’ (Iri.), *dena emengoa eitten dui* ‘dena hemengoa egiten dute’ (Bar.), *laonartekoak zeen neskan etxitan jotzen tzittuin iru pieza-io, etxiin* ‘lagunartekoak ziren nesken etxeetan jotzen zituzten hiru pieza-edo, etxean’ (Bar.), *ardatza emen eukitzen tzuin* ‘ardatza hemen edukitzen zuten’ (Bar.), *ure bea iiltzen tzuin bueltaka* ‘ur bera ibiltzen zuten bueltaka’ (Bar.), *arrapa txeiak garbittuko zittuin astero* ‘arropa xeheak garbituko zituzten astero’ (Bar.), *sasiin barratzen tzittuin* ‘sasian barreiatzen zituzten’ (Bar.), *oik asko jakiñen ttui* ‘horiek asko jakinen dituzte’ (Bar.), *ze parrak itten tzittuin* ‘zer barreak egiten zituzten’ (Bar.), *gue etxin ala kontatzen tziuin* ‘gure etxean hala kontatzen ziguten’ (Bar.), *beste tono at tui itz eitten* ‘beste doinu bat dute hitz egiten’ (Bar.), *or erdaa geigo eitten tzuin garai betin* ‘hor erdara gehiago egiten zuten garai batean’ (Bar.), *ekartzen tzuin izketa at* ‘ekartzen zuten hizketa bat’ (Bar.), *ama*

²²⁴ Eskerrak eman nahi dizkiogu Caminori auzi hori argitze aldera eman digun laguntzarengatik.


daukii erdaldune ‘ama daukate erdalduna’ (Bar.), *natural aski itz eitten dui* ‘natural aski hitz egiten dute’ (Bar.), *lau errik eitten tzuin prozesioa* ‘lau herrik egiten zuten prozesioa’ (Bar.), *gurasoak euskaldunek dauzkii* ‘gurasoak euskaldunak dauzkate’ (Bar.), *gaztik eztakii* ‘gazteek ez dakite’ (Arru.), *difeente itz eitten dui* ‘diferente hitz egiten dute’ (Ald.), *gerrakoan, zea, zitudadeon bat artzen tzuinin nazionalak, ezkille(k) joazten tzittiin* ‘gerrakoan, zera, zitudaderen bat hartzen zutenean nazionalek, ezkilak joarazten zituzten’ (Ald.), *zea ateatzen tzela esaten tzuin, infernuko demonioa* ‘zera ateratzen zela esaten zuten, infernuko demonioa’ (Ald.).

Morfema bera baina palatalizatu gabe (alegia, -e) erabiltzen dute Albiasun, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun: *due* ‘dute’, *zuen* ‘zuten’, *ttue* ‘dituzte’, *zittuen* ‘zituzten’, *baakie* ‘badakite’. Adibideak: *Betelun euskara perfektogoa due emen baño* ‘Betelun euskara perfektuagoa dute hemen baino’ (Alb.), *aik eitten tzittuen denak* ‘haiek egiten zituzten denak’ (Alb.), *oik baakizo nola zeatu zittuen, afusilatu in zittuen* ‘horiek badakizu nola zeratu zituzten, afusilatu egin zituzten’ (Gorr.), *ekartzen tzittuen kanpotik ee eskolaa onea* ‘ekartzen zituzten kanpotik ere eskolara hona’ (Gorr.), *ze apellido due aik?* ‘zein apellido (< gazt.) dute haiek?’ (Gorr.), *aik ekartzen tzazkiuen* ‘haiek ekartzen zizkiguten’ (Gorr.), *gerraakoan alde in bear izandu zuen* ‘gerrarakoan alde egin behar izan zuten’ (Gorr.), *oik eaman tzittuen mendiz; emengo mutillek eaman tzittuen, e!* ‘horiek eraman zituzten mendiz; hemengo mutilak eraman zituzten, e!’ (Gorr.), *kamionetan partitzen tzittuen erritaa* ‘kamioietan partitzen zituzten herrietara’ (Gorr.), *etzizuen uzten da* ‘ez zizuten uzten eta’ (Gorr.), *gutxi eskeintzen bazizuen* ‘gutxi eskaintzen bazizuten’ (Ui.), *autobuse jartzen tzuen* ‘autobusa jartzen zuten’ (Ui.), *olako tratoak itten tzittuen gizonak* ‘holako tratuak egiten zituzten gizonek’ (Ui.), *gurasoak aintzen tzuen* ‘gurasoek agintzen zuten’ (Ui.), *an opatu due, tronko atean sartuta* ‘han topatu dute, tronko (< gazt. tronco) batean sartuta’ (Ui.), *“karakoles” esaten tziuen* ‘“karakoles” esaten ziguten’ (Azp.), *batean arrapatu in tzittuela or zibillek* ‘batean harrapatu egin zituztela hor zibilek’ (Azp.), *gazte ok eztakie gauz on berri* ‘gazte hauek ez dakite gauza hauen berri’ (Azp.), *eukitzen due alako like at barrunen* ‘edukitzen dute halako lika bat barruan’ (At.), *mugarrik battue* ‘mugarriak badituzte’ (Bet.), *eskolik e asko etzuen izango* ‘eskolarik ere asko ez zuten izango’ (Gai.), *zotzak Gaintzekoak bazittuen emana(k)* ‘zotzak Gaintzakoek bazituzten emanak’ (Gai.), *gauze[k] saltzeko aña bazeakien erdaaz* ‘gauzak saltzeko adina bazeakiten erdaraz’ (In.).

Intzak ezaugarri horri erreparatu zion Araitz-Beteluko euskarak kutsu giputza duela esateko (1921: 73):

Araitz'en eta beste bi efi oietan itz egiten den euskera, gipuzkoerara asko ematen duana da. Gipuzkoa'ko *zute* esaten dute *zue*, *t* galtzen dula. Gipuzkoa'ko *dute* emen esaten da *due*.

21. irudia: Hirugarren pertsona pluraleko NORK morfema



Aipatzekoak dira Larraunen (salbu Errazkinen) “haiek niri hura” eta “haiek niri haiek” adizkiak eratzean sortu diren forma bereziak: *dei* ‘didate’, *ttei* ‘dizkidate’ edota *zein* ‘zidaten’ gisakoak ditugu Larraungo hego-ekialdean (Albiasu barne), eta *deie*, *dazkeie* eta *zeien* Errazkin ez beste Larraungo ipar-mendebaleko herrietan. Badirudi Larraunen sortutako adizkiak direla horiek, ez baitago halakorik inguruko hizkeretan. Hona zenbait adibide: *esan dei* ‘esan didate’ (Iri.), *eskolan gaizki tratatzen tzein tuertoa nitzelakos* ‘eskolan gaizki tratatzen zidaten (ninduten) tuertoa nintzelakoz’ (Arru.), *ok eztakit examinatu izaien den, beño nei sekulen eztei examinatu* ‘hauek ez dakit examinatu izanen diren, baina niri (ni) sekula ez didate (naute) examinatu’ (Ald.), *aiuntamentutik ots ein dei* ‘aiuntamentutik hots egin didate’ (Ald.), *bizikleta eosi zein* ‘bizikleta erosi zidaten’ (Alb.), *nei ezteie iñongo gurasoak oi esan* ‘niri ez didate inongo gurasoek hori esan’ (Ui.), *nei gurasoak utzi azkeie [lurrek]* ‘niri gurasoek utzi dizkidate [lurrak]’ (Ui.), *leen etzeien uzten nei dantzatokie joaten, e!* ‘lehen ez zidaten uzten niri dantzatokira joaten, e!’ (Ui.), *denak*

burle itten tzeien ‘denek burla egiten zidaten’ (Gorr.), *aik eaman zeien, kotxino aik, liburu et* ‘haiek eraman zidaten, kotxino haiek, liburu bat’ (Gorr.).

Aldiz, *die* ‘didate’, *dazkie & dazkee* ‘dizkirate’ eta *zien* ‘zidaten’ dira Errazkingo eta Araitz-Beteluko ordainak kasu horietan: *eman dazkee* ‘eman dizkirate’ (Erra.), *nei bost eman dazkie* ‘niri bost eman dizkirate’ (Bet.), *atzo esan tzien* ‘atzo esan zidaten’ (Gai.).

-e morfema Gipuzkoako Tolosalde eta Goierri gehienez bada, nahiz *-te* ere baden Tolosaldeko zenbait herritan (Hurtado 2001: 99), eta *-e* ageri da Leitzan eta Areson (Olano 1998: 204) edota Basaburu Txikiko Eratsunen (B. L.) ere. Beste behin ere, Larraungo hego-ekialdeko *-i* palatalizatuak kutsu berezia ematen dio hango hizkerari, eta XX. mendearen hasierarako gutxienez gauzatu zen, *El*n ageri denez (1984: 227).

Lakarrari jarraituz, euskara zaharrez, *-Ø* zen NORK singularreko morfema, eta *-e*, berriz, pluralekoa; gerora sortua da *-te* pleonastikoa²²⁵ (1996: 166, cf. Altuna 1995: 220, Camino 2009a: 59-60). Ez dakigu zehazki noiz sortu zen *-te*, baina berrikuntza zaharra dirudi, aspaldikoa, aspaldiko testuetan ageri denez.

8.4.6. Hirugarren pertsona pluraleko NORI morfema

Hirugarren pertsona pluraleko datiboaren morfema eratzeko, singularreko formari *-te* morfema gehitzen diote Imotzen eta Basaburu Nagusian: *zaiote* ‘zaie’, *zitzaieten* ‘zitzaien’, *diote* ‘die’, *dietet* ‘diet’, *giñioten* ‘genien’, eta abar. Hona zenbait adibide: *erle-kajonak esaten tzioten goo attek* ‘erle-kaxoiak esaten zien gure aitak’ (Gol.), *nik goaiñ esaten dietet gaztiri* ‘nik orain esaten diet gazteei’ (Gol.), *arriken ematen giñioten* ‘harrika(n) ematen genien’ (Gol.), *aise nabaitzen tzaioite* ‘aise nabaritzen zaie’ (Gol.), *isatsa re mozten zitzaieten* ‘isatsa ere mozten zitzaien’ (Lat.), *mozten ttiote* ‘mozten dizkiete’ (Lat.), *ze gaizki itten diote?* ‘zer gaizki egiten die?’ (Lat.), *itxean attek eakusten baitzioten* ‘etxean aitak erakusten baitzien’ (Lat.), *kasu in bar zaiote* ‘kasu egin behar zaie’ (Era.), *erdaas itz eitten nioten* ‘erdaraz hitz egiten nien’ (Era.), *erdaa eskapatzen tzaioite* ‘erdera eskapatzen (< gazt. escapar) zaie’ (Era.), *aotza auntzek e jati ute, nik ematen dietet* ‘agotza ahuntzek ere jaten dute, nik ematen diet’ (Era.), *eaman giñioten jana* ‘eraman

²²⁵ Alegia, **-de* zaharrak kontsonante igurzkaria galdu, eta *-e* bilakatu zen; baina, Euskal Herriko erdiguneko mintzo batzuetan, kontsonantea ahoskabetu egin zen ingurune foniko jakin batzuetan, eta *-te* sortu zen, horrenbestez (eskerrak eman nahi dizkiegu Caminori eta Lakarrari kontu horren inguruan emandako argibideengatik).

genien jana' (Osk.), *nik ee fabore asko in ttiotet oiri* 'nik ere fabore asko egin dizkiet horiei' (Osk.), *Hijas de María esaten giñioten* 'Hijas de María esaten genien' (Etxal.), *ori kontatu nioten* 'hori kontatu nien' (Etxal.), *errestan ematen nioten nee koñadoai ta* 'errietan ematen nien nire koinatuari eta' (Etxal.), *kupelak erraten giñioten* 'kupelak erraten genien' (Mus.), *pentsue ematen baziñioten* 'pentsua ematen bazenien' (Mus.), *itten zioten dibujoak eta denak* 'egiten zien (zizkien) dibujoak (< gazt. dibujo) eta denak' (Urr.), *ue zen premiao ematen zaiotena* 'hura zen premiao (< gazt. premio) ematen zitzaiena' (Ud.), *nee atte zenak eman zioten puxke zeatzeko, eskola emateko* 'nire aita zenak eman zien puska zeratzeko, eskola emateko' (Its.), *nik atte ta anaiei entzun diotetenagatik* 'nik aita eta anaiari entzun diedanagatik' (Gar.), *txikitan nik beti (i)uskeas itten nioten* 'txikitan nik beti euskaraz egiten nien' (Gar.), *nik erraten diotet gazte oiri* 'nik erraten diet gazte horiei' (Er.), *nik beti euskeas itten diotet* 'nik beti euskaraz egiten diet' (Er.), *iruitzen zaiotenen urrea zutela itxe oiek* 'iruditzen zitzaien urrea zutela etxe horiek' (Er.), *erosi zioten nere aitei ta amai telebista* 'erosi zien nire aitari eta amari telebista' (Er.), *iruitzen zaiotenen zutela el oro y el moro* 'iruditzen zitzaien zutela el oro y el moro' (Er.), *nik erraten ttiotet ikaarrik, e!* 'nik erraten dizkiet ikaragarriak, e!' (Er.), *tokatzen zaiotena* 'tokatzen zitzaiena' (Oro.), *batzui iruitzen zaoite baserrin lan ittea aixe dela* 'batzuei iruditzen zaie baserrian lan egitea aixe dela' (Oro.), *yoalek esaten diote* 'joaleak esaten diete' (Beru.), *ez diotet beittu florere* 'ez diet begiratu loreei' (Beru.), *angoakin eoten naizenin artzen ttiotet* 'hangoekin egoten naizenean hartzen diet' (Ig.), *torpegoa arpatzen zaiote* 'torpegoa harrapatzen zaie' (Ig.).

-te morfema ageri da handik ekialdera eta hegoaldera ere, eta Lapurdiraino gutxienez iristen da (Epelde 2003: 133, cf. Salaberri 2000: 901).

Handik mendebalera, ordea, *-i* dugu Larraungo hego-ekialdean: *zayi* 'zaie', *zitziin* 'zitzaien', *dii* 'die & diete', *ziin* 'zien & zieten', *ziain* 'zioten & zieten'. Adibideak: *ze manii sartu zayin* 'ze mania sartu zaien' (Bar.), *ezitziin gustatzen maxtarrak joatee* 'ez zitzaien gustatzen maizterrak joatea' (Bar.), *elkarri ola beittu ziin* 'elkarri horrela begiratu zioten' (Bar.), *eskortii esaten zioin* 'eskortea esaten zioten' (Bar.), *esaten dii* 'esaten diote' (Etxarri)²²⁶.

Larraungo ipar-mendebalean (Albiasu barne), *-e* da morfema, baita Araitz-Betelun ere: *matrona esaten zaien* 'matrona esaten zioten' (Gorr.), *emigranteak o ze esaten zaien?* 'emigranteak

²²⁶ EHHAn bildua (1999: 91).

edo zer esaten zaie?’ (Azp.), *zerratt(e) paatuko zien* ‘zerratt ere pagatuko zioten’ (Azp.), *gatza eman bar zaie* ‘gatza eman behar zaie’ (At.), *alporjak esaten zitzaien* ‘alforjak esaten zitzaien’ (Gai.), *zerratik ematen diene orri?* ‘zerratik ematen dioten orri?’ (Gai.), *erreuxek esaten giñiena* ‘erreuxek²²⁷ esaten geniena’ (Arri.), *zea emango zien antza!* ‘zera emango zieten antza!’ (In.).

Ondoko hizkera giputzetan, *-e* dago nagusiki; baina, Tolosan eta Ibarra, *-te* ere bildu izan dute (Hurtado 2001: 100; cf. Irizar 1991a: 188-195). Larraundik iparraldera, *-e* dago Areson, baina *-a* elementuaz osatutako adizki pleonastikoak erabiltzen dituzte Leitza: *zaioa, dioa...* (Olano 1998: 179-180, 202, cf. Irizar 1992b: 121, Altuna 1995)²²⁸. Halako forma pleonastikoak Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan ere badira; esate baterako, *multe jarri izea* ‘multa (isuna) jarri diete’ eman digute Amezketan (B. G.), eta Hurtadok ere badakar ezaugarriaren berri (2001: 101; cf. Berastegiko datuak in Irizar 1991a: 226-249, eta Amezketakoak in Irizar 1991b: 86-118 eta in EHHA 1999: 73).

-te morfemari dagokionez, XVII. menderako gutxienez bada; esate baterako, Beriainek erabili zuen 1621ean eta 1626an. Geroxeago, Elizalderen doktrinan ere ageri da 1735ean (Salaberri 1994), eta, gure alderditik hurbilago, Ultzaman bada XIX. mendean (Ibarra 1992, Satrustegi 1995).

8.4.7. Nor-nori-nork saileko pluralgilea

Nor-nori-nork saileko adizkietan, bi pluralgile mota erabiltzen dituzte gure eremuko hizkeretan: batetik, *-it-* dago Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean (Albiasu barne), eta, bestetik, *-zki-* dago Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun.

Hona *-it-* pluralgilearen zenbait adibide²²⁹: *mozten ttiote* ‘mozten dizkiete’ (Lat.), *nik goantzik emain ttiot* ‘nik goraintziak emanen dizkiot’ (Era.), *atea zitteeten plakak* ‘atera zizkidaten plakak’ (Osk.), *nik ee fabore asko in ttiotet oiri* ‘nik ere fabore asko egin dizkiet horiei’ (Osk.), *besteak atzetik tiroak nola tietzen tzittioten* ‘besteak atzetik tiroak nola tiratzen zizkioten’ (Etxal.), *eztakit ze esaten tzittioten* ‘ez dakit zer esaten zizkioten’ (Etxal.), *kendu ttiote arri ta dena(k)* ‘kendu dizkiote harria eta dena(k)’ (Its.), *erran ttee* ‘erran dizkit’ (Gar.), *regalatu ttio* ‘erregalatu dizkio’ (Gar.), *nik*

²²⁷ Sagar klase bat da.

²²⁸ Azkaraten ere bildu izan dituzte era horretako forma pleonastikoak (Altuna 1995: 238-239), baina gaur egun behinik behin *-e* erabiltzen da Azkaraten.

²²⁹ Ibarra *-zki-* eta *-it-* biak jo ditu Imozkotzat eta Basaburu Nagusikotzat (1995a: 443), baina *-it-* da hango forma nagusia. Besterik da euskara batuaren eraginez hiztun gazteenek *-zki-* ere erabiltzen ikasi izana.


erraten ttiotet ikaarrik, e! ‘nik erraten dizkiet ikaragarriak, e!’ (Er.), *baakizu ze iñ tzittioten?* ‘badakizu zer egin zizkieten?’ (Oro.), *andik armak sartu zittioten Apezetxea* ‘handik armak sartu zizkieten Apezetxera’ (Oro.), *oiek aise errain ttizuula* ‘horiek aise erranen dizkizugula’ (Oro.), *oiek denak eskatzen ttizte?* ‘horiek denak eskatzen dizkizute?’ (Oro.), *an esaen ttizte* ‘han esanen dizkizute’ (Ud.), *erruedan kontra arpatu zittion anakak* ‘erruedaren kontra harrapatu zizkion hankak’ (Er.), *arrek eman zittean* ‘hark eman zizkidan’ (Arrar.), *umire oporrak ematen zittioten bezalaxe* ‘umeei oporrak ematen zizkieten bezalaxe’ (Arrar.)²³⁰, *botzen ttiot* ‘botatzen dizkiot’ (Ig.), *radiografik atea zittean* ‘erradiografiak atera zizkidan’ (Ig.), *gezurrek esaten nittiola arrei* ‘gezurrak esaten nizkiola hari’ (Beru.), *zittiuten* ‘zizkiguten’ (Beru.), *attunak kontatzen tzittiu* ‘aitonak kontatzen zizkigun’ (Bar.), *eman bea’ittiozo* ‘eman behar dizkiozu’ (Arru.), *esan ttei* ‘esan dizkidate’ (Ald.).

Hona, orain, *-zki-* pluralgilearen adibideak: *nik zoi eiñ (n)azkizun erentzi oik* ‘nik zuri egin nizkizun herentzia horiek’ (Ui.), *nik zoi kafe ematen nizun, ta zuk nei ollaskoak ematen ziñazken* ‘nik zuri kafea ematen nizun, eta zuk niri oilaskoak ematen zenizkidan’ (Ui.), *ordaindu bear dazkek* ‘ordaindu behar dizkidak’ (Ui.), *amak esan dazkitenak* ‘amak esan dizkidanak’ (Ui.), *oik esango nazkizuke nik* ‘horiek esango nizkizuke nik’ (Ui.), *paperak ematen tzazkizuen aurrena* ‘paperak ematen zizkizuten aurrena’ (Gorr.), *lezioak-eta ematen tzazkien maixuk* ‘lezioak-eta ematen zizkien maixuak’ (Gorr.), *aik ekartzen tzazkiuen* ‘haiek ekartzen zizkiguten’ (Gorr.), *kontatu azkit* ‘kontatu dizkit’ (Azp.), *an eitten emen tzazkien paperak* ‘han egiten omen zizkieten paperak’ (Azp.), *etxeai jarri dazkien izenak* ‘etxeai jarri dizkieten izenak’ (Erra.), *arbolae asko ekosiko azkiozue* ‘arbolari asko ikusiko dizkiozue’ (Gai.), *udalak emate’azkion abixoak* ‘udalak ematen dizkion abisuak’ (Bet.), *apezae eman nazkion nik bi ollo* ‘apezari eman nizkion nik bi oilo’ (Uzt.).

Beraz: *ttio* vs. *dazkio* ‘dizkio’, *ttiot* vs. *dazkiot* ‘dizkiot’, *ttiu* vs. *dazkiu* ‘dizkigu’, *nittion* vs. *nazkion* ‘nizkion’, eta abar.

²³⁰ Zehazki, ‘umeei oporrak eman bezain laster’ esan nahi du.

22. irudia: Nor-nori-nork saileko pluralgilea



Irizarrek diosku Damaso Intzak *ttio* zein *dizkio* adizkiak eman zizkiola Araitz-Beteluko Intza herrirako (1981b: 257); gaur egun, behintzat, *dazkio* besterik ez da erabiltzen han.

Pluralgile horri aparteko garrantzia eman zaio euskal dialektologian, eta iparraldeko goi-nafarreraren ezaugarritzat jo izan dute hainbat ikertzailek (Irizar 1981b: 256, cf. Intza 1921: 73-74):

Quizá la característica más señalada del conjunto del dialecto alto-navarro septentrional sea la pluralización de objeto directo, que da lugar a formas verbales del tipo *ttio* (...), que están presentes, más o menos, en todas sus variedades (...).

Areago, Bonapartek ezaugarri horri erreparatu zion Larraungo hego-ekialdeko herriak sailkatzeko orduan: herri horiek Larraungo gainerako herriein batera bildu beharrean (Intzako aldaeraren barnean, alegia), Uharte Arakilgo aldaeran sartu zituen, Sakana aldeko hizkerekin batera, *-it-* pluralgilea baitago Uharte Arakilgo aldaera osatzen duten hizkeretan ere, eta *-zki-*, aldiz, Intzako aldaerakoetan. Alabaina, Irizarren ustez, ezaugarri hori ez da aski hizkera horiek horrela sailkatzeko, eta guk zuzen deritzogu haren arrazoibideari (ikus 7.4.). Ezaugarriak duen garrantzia ukatu gabe, argudio sendoak eman ditu Irizarrek: Larraungo hego-ekialdeak eta Uharte Arakilgo aldaerak biek *-it-* badute ere, gainerako hizkuntza-ezaugarrietan (fonologian, esate baterako),

Larraungo hego-ekialdeak antzekotasun handiagoa du Larraungo ipar-mendebalarekin, Uharte Arakilekin baino (Irizar 1992a: 4-5). Horregatik, Intzako aldaeran dakusa Irizarrek Larraun osoa, nahiz eta bi eremu ikusten dituen haren barrenean (hego-ekialdea eta ipar-mendebala):

... se aprecia que el tipo de pluralización empleado en la subvariedad de Larraun sudoriental (formas con *tt-*) es distinto del utilizado en las otras cuatro subvariedades (formas con *-zk-*). Este hecho, según hemos indicado, ha sido decisivo en la consideración de dos subvariedades en el valle de Larraun. (Irizar 1992b: 121)

Urte batzuk geroago, euskara nafarraren ezaugarritzat hartu du Zuazok *-it-* pluralgilea (2008: 108-109). Caminok zehaztu du Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarria dela (2003a: 88): haren arabera, Nafarroa Garaiko iparralderaino eta Bidasoaldeko Irun eta Hondarribiraino iristen da. Hego-nafarrera osoan bada, salbu Gesalätzen; eta baita Arakilen, Ergoienean (*-zki-*rekin batera), Gulibarren, Txulapainen, Odietan, Ezkabarten, Atetzen, Ultzaman eta Anuen ere (cf. Salaberri 2000: 900). Zerrenda horri Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraungo hego-ekialdea (Albiasu barne) gehitu behar zaizkio. Egile berak dioenez, *-zki-* dugu Baztanen, Aezkoan, Zaraitzun eta Artzibarren. Sakanan, *-it-* da nagusi, baina salbuespen da Etxarri, *-zki-* erabiltzen baitute (Erdozia 2001: 269, 295).

Aldaik ondorioztatu duenez, berrikuntza modernoa da nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea (1999a: 265-266): hegoaldeko goi-nafarreran, XVIII. mendetik aurrera ageri da (Beriainek, esate baterako, *-zki-* dauka).

-zki- pluralgileak hedadura zabala du Euskal Herriko erdigunean (Zuazo 2008: 194-195), baina eremu murrizteko ezaugarria da Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun ageri den *-a-* erroa (*dazkio*). Ondoko Leitzan eta Areson bada (Olano 1998: 182-185, 214-215), baina *-i-* ageri da Tolosaldean eta Goierrin (Hurtado 2001: 98). Araitz-Betelu ondoko Amezketan, *dizkiot* ‘dizkiot’, *dizkiue* ‘dizkigute’ eta halakoak erabiltzen dituzte (B. G.). Testu zaharretan arakaturaz, *-a-* erroa Intzan aurkitu dugu 1801eko testu batean, baina argi utzi nahi dugu testu hori ezin har daitekeela zorrozki Intzakotzat (ikus 6.2.3.). Bestalde, Lakuntzan apez egondako intzar batek idatzitako testu batean ere ageri da, 1878an (Satrustegi 1987b: 229-234).

8.4.8. “Izan” aditzaren erroa

“Izan” aditzaren orainaldiko erroa *-a-* da gure eremuko lau ibarretan: *gaa* ‘gara’, *zaa* ‘zara’, *za(a)te* ‘zarete’. Ezaugarriaren muga Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko mugan dago: Araitz-Betelutik ezker, *-e-* erroa ageri da Tolosaldeko eta orobat Gipuzkoako hizkeretan (*gea*, *zea*, *zeate*).

Nolanahi ere, *-e-* erroa duten adizkiak ere entzun daitezke Araitz-Betelun, gazteen mintzoan batik bat. Nafarroako beste zenbait tokitan ere bada erro hori: Areson (Olano 1998: 178-179) eta Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 158), esate baterako. *-e-* erroa erdialdeko euskararen —bereziki euskara giputzaren— ezaugarritzat jo du Zuazok (2008: 144). Ez dakigu zehazki noiz sortuak diren halako adizkiak, baina gipuzkera zaharreko testuetatik hasita ageri dira, hala nola Azpeitiko gutunetan (1622), Otxoa de Arinen lanean (1713), Irazustaren doktrinan (1737), Oikiako doktrinan (1759) edota Zegamako 1741eko doktrinan, eta baita geroagoko Gerriko eta Amundarain idazleen lanetan eta Zegamako 1858ko doktrinan ere (Aranburu eta beste 1999: 98-99).

8.4.9. “Edun” aditzaren erroa

“Edun” aditzaren erroa *-u-* da eremu osoan (zenbait kasutan, *-o-* bihurtu da; ikus 8.1.4.): *dut* & *dot* ‘dut’, *ttut* & *ttot* ‘ditut’, *duk* & *dok* ‘duk’, *dun* & *don* ‘dun’, *ttut* & *ttot* ‘ditut’, *ttuk* & *ttok* ‘dituk’, *ttun* & *tton* ‘ditun’, *du* & *do* ‘du’, *ttu* & *tto* ‘ditu’, *duu* ‘dugu’, *ttuu* ‘ditugu’, *duzu* & *dozo* ‘duzu’, *ttuzu* & *ttozo* ‘dituzu’, eta abar.

Erro horixe erabiltzen da, hain zuzen, Nafarroa Garai gehienez: Gipuzkoara ezker, *-e-* erroa erabiltzen da adizki jakin batzuetan (*det* ‘dut’, *dek* ‘duk’, *den* ‘dun’, *dezu* ‘duzu’, *dezue* ‘duzue’, *deu* ‘dugu’). Halakoak Araitz-Beteluko gazteek ere erabiltzen dituzte, baina ez erabat; eta Nafarroako beste hizkera batzuetan ere bada erro hori, hala nola Areson (Olano 1998: 180-182) eta Etxarri Aranatzen (Erdozia 2001: 260-261). Zuazok erdialdeko euskararen —bereziki euskara giputzaren— ezaugarritzat hartu du *-e-* erroa (2008: 144). Ez dakigu noiz sortuak diren halako formak, baina XVI. eta XVII. mendeko testuetan jada ageri dira (ikus Mitxelena 1990 [1964] eta Sarasola 1990 [1983]²³¹), eta baita geroago ere, hala nola Otxoa de Arinen testuetan (1713), Oikiako doktrinan (1759), Zegamako doktrinatan (1741 eta 1858) edota Gerrikoren eta Amundarainen lanetan (Aranburu eta beste 1999: 100).

²³¹ Ikus, zehatzago, honako testu hauek: Mitxelena 1990 [1964]: 118-122, 127-131, 151, 165-167; Sarasola 1990 [1983]: 224-231, 258-276.

8.4.10. NORI saileko *-ki-* erroa

Nor-nori saileko iraganeko adizkietan, *-ki-* erroa ageri da gure eremuko eskuin muturrean; alegia, Muskitzen: *zaikiden* ‘zitzaidan’, *zaikion* ‘zitzaion’, *zaikizun* ‘zitzaizun’, eta abar. Hona Muskitzen bildutako zenbait adibide: *gustatzen zaikien* ‘gustatzen zitzaidan’, *nei tokatu zaikien* ‘niri tokatu zitzaidan’, *buelta ematen tzaikion* ‘buelta ematen zitzaion’, *lenau etzaikion abonui botzen* ‘lehenago ez zitzaion abonorik (< gazt. abono) botatzen’, *gustatze zaikion* ‘gustatzen zitzaion’, *etzaikion gustetzen* ‘ez zitzaion gustatzen’. Oskotzen ere bildu dugu aleren bat, baina *-tza-* erroa duten formekin txandakaturik ageri da betiere: *tokatu zaikion txanda soldado joateko* ‘tokatu zitzaion txanda soldadu joateko’, *gustetzen tzaikion goorki leitzea* ‘gustatzen zitzaion gogorki leitzea (= irakurtzea)’, *gustetzen tzaikion repasoa ematea* ‘gustatzen zitzaion errepassoa ematea’.

Erason ere bildu izan dituzte halakoak (Ibarra 1995a: 425), baina *-tza-* erroa baliatzen dute han gaur egun, eremuko gainerako herrietan bezala. Goldarazko XIX. mendeko testuetan, *cequizquion* adibide bakarra ageri da (Satrustegi 1987a: 324), baina ez da testu guztiz ziurra (ikus 6.2.1.).

Iraganeko *-ki-* morfema Nafarroa Garaiko erdiguneko hizkeretan bildu da: Imozko Erason eta Muskitzen, Sakanako erdialdean, Burundan, Atetzen, Ultzaman, Odietan, Anuen, Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren, Txulapainen, Goñerrian, Eguesibarren, Oltza zendean, Garesen, Gesalatzen eta Ezkabarten (Camino 2003a: 89)²³². Nolanahi ere, Atetzen eta Ultzaman, *-tza-* erroarekin txandaka erabiltzen dute (Ibarra 1995a: 425-426), eta, gaur egun, erabat desagertu da Erasoko mintzotik. 2008an, euskara nafarraren ezaugarritzat hartu du Zuazok, nahiz ezaugarri arrotza den Bidasoa aldean, Baztanen, Goizuetan eta Aezkoan (2008: 109).

Nafarroa Garaiaz haratago, Bizkaiko zenbait hizkeratan ere erabiltzen dute (Irizar 1981b: 258).

Aldaik hegoaldeko goi-nafarrerari buruzko lan batean dioenez, badira arazoak morfema horren antzintasuna zehazteko; izan ere, aldi klasikoan usu ageri da (alegia, XVIII-XIX. mendeetan), baina ez dakigu zer egongo zen aldi zaharrean (XVI-XVII), aldi hartako testu zaharretan (Beriain) ez baitago adibiderik, ez *-ki-* ageri duenik ez *-ki-* gabekorik (1999a: 266-267). Aldairen arabera, Mitxelenaren iritziz nor-nori aoristoaren morfema da *-ki-*, eta berrikuntza

²³² Gainera, *eztakie akordatzen* ‘ez zait akordatzten’ adibidea bildu du Artolak Ihabarren (Camino 2003a: 248).

modernotzat jotzen du, hortaz (1970: 291, 18. oharra)²³³. Azkuek kontrakoa pentsatzen zuen, ordea: haren ustez, jatorrizko formak dira *zekio* eta are orainaldiko *dakio* erakoak; *zitzaion* eta *zaio* formen aurrekoak, alegia (1923-1925: 574-576). Aldairen ustez, Mitxelenaren hipotesiak badu arazo bat: oso epe laburrean kontrako norantzako bi aldaketa gertatu zirela proposatu behar dugu; lehenik, aoristoa galtzea (XVI. mende aldera), eta, ondoren, nor-nori aoristoa azaltzea (XVIII. menderako). Aldairen proposamena da *-ki-* “arkaismo baten kontserbazio partzialtzat” hartzea.

Araitz-Betelun, oro har, ez da *-ki-* errorik ageri, baina zenbait salbuespen jaso dugu: *rantxeroae jana guk ekartzen giñikion* ‘rantxeroari jana guk ekartzen genion’ (In.), *aize gorrik esaten geñikiun* ‘haize gorriak esaten genien’ (Gai.), *kea ematen giñakiun* ‘kea ematen genion’ (Gai.). Bestalde, Gaintzako beste adibide bat ere badugu *Esnea: prozesua eta ohiturak* lanean (Nafarroako Gobernua 2005: 79): *ta gañean jartzen giñakion tako ol oi* ‘eta gainean jartzen genion tako ohol hori’. Gainera, Intzako 1801eko testu batean, *ciñequion* forma ageri da (ikus 6.2.3.); testua ez da guztiz fidagarria, baina datua aipatua da behinik behin. Alabaina, nor-nori-nork saileko adizkiak dira arestiko horiek, eta baliteke, beraz, *zekarkion* erakoen analogiaz sortu izana.

Orainaldiko adizkietan ere bada erro hori zenbait hizkeratan (*dakit* ‘zait’). Esate baterako, Imoztik eta Larraundik hurbil diren Arakilen eta Sakanako erdialdean ageri da, eta Irurtzunen ere bildu zuen Bonapartek (Camino 2003a: 89, cf. Intza 1921-2: 71-72). Halakorik ez dago gure eremuan.

Imozko Etxalekun baino bildu ez dugun ezaugarri baten berri eman nahi dugu orain. Han, *-tza-* erroa *-ra-* bihurturik ageri da maiz: *ziraien* ‘zitzaidan’, *ziraion* ‘zitzaion’, *ziraioten* ‘zitzaien’, eta abar. Hona zenbait adibide: *ze esaten tziraion?* ‘zer esaten zitzaion?’, *ongarri parean or patzen ziraioten ollatasie* ‘ongarriaren parean hor paratzen zitzaien oilatasia’, *ta, gero, bera, jartzen ziraizkioten arroltzeak itteko kajonak* ‘eta, gero, behera, jartzen zitzaizkien arrautzak egiteko kaxoiak’, *kurpil-bolanteak esaten ziraioten* ‘gurpil-bolanteak esaten zitzaien’, *erdi-erdiñ ardatza sartzen tziraion arrei* ‘erdi-erdian ardatza sartzen zitzaion hari’, *oi pastu ziraien* ‘hori pasatu zitzaidan’ (Etxal.). Halakoak *-tza-* erroa dutenekin txandaka erabiltzen dituzte Etxalekun.

²³³ Hona Mitxelenaren hitzak, zehatz-mehatz: “en alguna [zona] alto-navarra, como se ve ya en Mendiburu, la distribución original, independiente de *-iz(a)* y *-di* se mezcló, por decirlo así, haciéndose complementaria, de manera que al unipersonal *zen* ‘era’ podía corresponderle, en cuanto bipersonal [...] *zekion* ‘le era’ etc”.

Azkenik, fonologiak eraginda, *zitzion* ‘zitzaion’, *zitziun* ‘zitzaigun’ gisako adizkiak sortu dira Larraunen eta Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan. Adibideak: *ateatzen asten zitzion* ‘ateratzen hasten zitzaion’ (Bar.), *ama il zitziin* ‘ama hil zitzaien’ (Arru.), *tokatu zetziola* ‘tokatu zitzaiola’ (Ui.), *paats belarra esaten zitzion* ‘paats belarra esaten zitzaion’ (Erra.), *gañin gelditzen zitzion aotza* ‘gainean gelditzen zitzaion agotza’ (Ig.), *gutxi faltza zitziola yaiotzeko* ‘gutxi falta zitzaiola jaiotzeko’ (Ig.).

8.4.11. Iraganeko adizkietako *ziñ-*, *giñ-* / *zend-*, *gend-*

Gure eremu osoan, nor-nork saileko iraganeko adizkietan *ziñ-* eta *giñ-* erabiltzen dituzte bigarren eta hirugarren pertsona plurala ergatiboa denean: *ziñun* & *ziñuen* (Mus.) ‘zenuen’, *ziñuten* (Im., Bas. Nag.) & *ziñuin* (Larr. hego-ekialdea) & *ziñuen* (Larr. ipar-mendebala, Ar.-Bet.) ‘zenuten’, *giñun* (orok.) & *giñuen* (Mus.) ‘genuen’. *ziñ-* eta *giñ-* ohikoak dira Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko hizkeretan (zehatzago, *zin-* eta *gin-* ageri dira Ipar Euskal Herrian).

Ezaugarri horren muga Gipuzkoako mugan dago: Amezketan, *zendun*, *zenduen* eta *gendun* erabiltzen dituzte (B. G.), orobat Gipuzkoan bezala (Bähr 1972a: 246-249)²³⁴. Bizkai aldean ere era horretakoak erabiltzen dituzte. Araitz-Beteluri dagokionez, *zendun* erakoak ere entzun daitezke (*ziñun* erakoekin batera), nahiz besteekin lehian diren. Hala jaso dute beste ikertzaile batzuek ere, hala nola Gamindek (1985c: 147), Irizarrek (1992b: 117-181) eta Olanok (2000: 139). Nolanahi ere, euskara batuaren eraginez, *zenun* eta *genun* gisakoak ere erabiltzen dituzte Araitz-Betelun, gazte jendeak batik bat. *zend-* eta *gend-* erabiltzeko joera dute Areson ere, baina singularreko adizkietan soilik (Olano 1998: 182).

Gipuzkoako testu zaharretan arakaturaz, *zenduan*, *guenduan* formak ageri dira, hala nola Otxoa Arinen doktrinan 1713an, Zegamako doktrinatan 1741ean eta 1858an, eta Gerrikoren eta Amundarainen lanetan (Aranburu eta beste 1999: 97, 101; cf. Aranburu eta beste 1994 eta 1998, Ondarra 1984).

²³⁴ Hala ere, Gipuzkoako zenbait tokitan ere badira *ziñun* eta *giñun*, hala nola Aginagan (I. Caminok ahoz emandako datua); gainera, *ziñuzen* ‘zenituen’ eta *giñuzen* ‘genituen’ ohikoak dira eremu zabalagoan (Goierrin edota Tolosaldean, gutxienez).

8.4.12. Geroaldiko morfema

-n-z bukatutako aditzetan, geroaldiko *-en* morfema erabiltzen dute Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean, eta *-ain* eta *-aen* bukaerak sortu dira²³⁵: *iñen* ‘eginen’, *joain & yoain & joaen & yoaen* ‘joanen’, *emain & emaan* ‘emanen’, *izain & izaen & izein* (Mus.) ‘izanen’, *jakiñen & yakiñen* ‘jakinen’, *eoin & ioin* ‘egonen’, *esain & errain & esaen & erraen* ‘esanen, erranen’, *eamain & iamain & eamaen* ‘eramanen’, *iain* ‘edanen’. Horiez gain, *illen* ‘hilen’ ere entzun dugu Gartzaronen (*aurten bat illen duu* ‘aurten [zerri] bat hilen dugu’, baina *ilko* da ohikoena herri gehienetan.

Hona zenbait adibide: *oeitiru urtetan joan izain nitzen* ‘hogeita hiru urtetan joan izanen nintzen’ (Gol.), *eztakit non eoin deen ee* ‘ez dakit non egonen diren ere’ (Lat.), *nik goantzik emain ttiot* ‘nik goraintziak emanen dizkiot’ (Era.), *beti oi esati’ut eta oi esain dut* ‘beti hori esaten dut eta hori esanen dut’ (Etxal.), *luze iñen tzaizu* ‘luze eginen zaizu’ (Etxal.), *ore ospitalea iaman izain tzuten* ‘hura ospitalera eraman izanen zuten’ (Etxal.), *motoa ez nuen izein* ‘motoa ez nuen izanen’ (Mus.), *yoain naiz iturrirre* ‘joanen naiz iturrira’ (Gar.), *errain dizut noiz* ‘erranen dizut noiz’ (Er.), *norbatte yoaten izain tzen* ‘norbait ere joaten izanen zen’ (Oro.), *oi errain dizte* ‘hori erranen dizute’ (Oro.), *oso gutxi esaen nittun* ‘oso gutxi esanen nituen’ (Iri.), *orrek esaen dio besteon batei* ‘horrek esanen dio besteren bati’ (Ald.), *eztakit ze pastu izain tzen* ‘ez dakit zer pasatu izanen zen’ (Bar.), *itz bet eo beste akaso kanbiatzen izaen dee* ‘hitz bat edo beste akaso kanbiatzen izanen dira’ (Bar.).

Forma horiez gain, *-aan* ere bildu dugu Basaburu Nagusiko iparraldean: *gañeakoan, iñor etzen yoaan* ‘gainerakoan, inor ez zen joanen’ (Arrar.), *emendi yoaan gaa* ‘hemendik joanen gara’ (Ig.), *Goldaatzen ee izaan da epaitze* ‘Goldaratzen ere izanen da epaitza’ (Arrar.), *etortzen izaan tzeen onea* ‘etortzen izanen ziren hona’ (Ig.), *denbo aten area yoaten izaan tzeen* ‘denbora batean hara joaten izanen ziren’ (Beru.), *esaan* ‘esanen’, *emaaen* ‘emanen’, eta abar. Halakoak badira Basaburu Txikian (Apalauza eta Lakar 2001-2003), Leitzan (Olano 1998: 14, 71, 96) edota Arbizun (Hualde 1991: 621) ere.

-ain gisakoek eremu zabala harrapatzen dute Nafarroa Garaian: badira, Imoztik ekialdera, Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995a: 279, 502-503), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 194), Olaibarren (Artola 2001: 513) edota Aezkoan (Camino 1997: 166). Nafarroako ipar-

²³⁵ Bokal arteko kontsonante sudurkaria galdu, ondoren *-oe-* eta *-ae-* diptongoak sortu, eta, azkenik, *-oi-* eta *-ai-* forma disimilatuak eratu dira (cf. Mitxelena 1977 [1961]: 66).

ekialdean ere ezagunak dira: Malerrekan eta Bertizaranan (Apalauza eta Lakar 2001-2003), Baztanen (Lakar eta Telletxea 2003-2004) edota Goizuetan eta Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 76)²³⁶. Gure eremutik hegoaldera, forma horiek ageri dira Txulapainen (*EI* 1984: 240-241, cf. *EAEL*), Gulibar aldean (Artola 1992: 198) eta Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 245-246); baita Burundan ere (Zuazo 1998c: 159, cf. Izagirre 1967 eta Zuazo 2010: 124). Bestalde, Artolak *joáin* bildu du Larunben, Usin, Inbuluzketan, Ilurdotzen eta Arrietan, *yoáin* Beorburun, Anotzen eta Ziaurritzen, *fáin* Olaitzen eta Espotzen, eta *féin* Urnitzan (1992: 198), eta *Elk eluke yain* eta *eluke xain* adibideak dakartza Txulapaingo Nabatzerako (1984: 240-241). *EAEL*k datuetan, *izain* ageri da Goizuetan, Lekarotzen, Sunbillan, Zugarramurdin, Eugin, Auritzen, Mezkitzen, Abaurregainean eta Nafarroa Behereko hizkera batzuetan (cf. Salaberri 2000: 905).

Ipar Euskal Herrian ere ezagunak dira halakoak: Lapurdiko Larresoro aldean (Epelde 2004a: 279), Nafarroa Behereko eremu zabalean eta Lapurdiko barnealdean (Camino 2004b: 461), eta baita Zuberoako Arbailan ere²³⁷.

Caminok dioenez, XVIII. mendean hasi zen galtzen tarteko *-n-* Nafarroa Beherean, eta guztiz galdua zen XIX. menderako (2008b: 137). Nafarroa Garaian ere garai bertsuan koka daiteke berrikuntza; guk arakatutako testuetan, *-nen* ageri da XVIII. mendera arte, eta handik aurrera hasten dira *-ain* eta *-ein* gisakoak: Muruzabalgo bildumako testuetan 1751ean (Satrustegi 1987b: 82-91), Juan Martin de Iberoren testuetan 1758an (Satrustegi 1987b: 91-111), Elizalderen doktrinan behin 1735ean eta Muzkiko 1750 inguruko testuetan maiz (Salaberri 1994: 10-11), Erron XIX. mendean (Satrustegi 1987b: 261-273), Zugarramurdin 1875ean (Satrustegi 1987b: 291-309), Goizuetan 1897an (Satrustegi 1996), eta Ultzaman 1863an (Ibarra 1992: 930) eta halaber XX. mendean (Satrustegi 1995 eta Ibarra 1992). Pentsatzekoa da halatsu izango zirela kontuak gure eremuan ere, nahiz ez dugun testurik halakorik frogatzeko.

Gure eremuan mendebalera eginez, Albiasun hasten da *-en* eta *-go* morfemen trantsizioa. Izan ere, bietatik bildu dugu han, eta baita Larraungo ipar-mendebaleko herrietan ere, baina *-go* nagusitzen ari da ia osotara. Esate baterako, Uitzin, hitzun berari *-en* zein *-go* morfemak bildu genizkion solasaldi berean: *uexe bakarra izaen tzen Uitzin* ‘huraxe bakarra izanen zen Uitzin’,

²³⁶ Hala bildu zuen Bonapartek, nahiz gaur egun *-go* morfema ari den nagusitzen Aranon.


²³⁷ Arbailan, hain zuzen, bokal sudurkaria galdu gabeko formak zein bokal hori galdutakoak ageri dira, Iñaki Caminok ahoz argitu digunez.

sekulen etziñun jakiñen igoal ‘sekula(n) ez zenuen jakinen igual’, *bee garai artan azkar samarra izaen tzen-eo* ‘bere garai hartan azkar samarra izanen zen-edo’, *eune motxa iñen zit Zion* ‘eguna motxa eginen zitzaion’, baina: *esan eingo zion* ‘esan egingo zion’, *azkar xamarra izango zen* ‘azkar samarra izango zen’, *emendik ia auzko karretera artaño esango izut* ‘hemendik ia haranzko karretera hartaraino esango dizut’.

Errazkinen, *-go* entzun dugu guk kasu guztietan, baina Olanok *izaen* gisakoak ere bildu ditu han (2000: 127). Gaur egun, gero eta gehiago, *-go* erabiltzeko joera dago Larraungo ipar-mendebal osoan, ondoko Araitz-Betelun bezala: *ingo, emango, izango, joango, jakingo...*

Hona Araitz-Beteluko zenbait adibide: *lengo zarran iruittue izango zen* ‘lehengo zaharren iruditua izango zen’ (At.), *arrik eengo o oe* ‘harriak egingo du hori’ (Gai.), *jakingo zue nolakoa den zaaie* ‘jakingo duzue nolakoa den zahagia’ (Arri.), *batek bostekoa emango zizun, besteak amar pezta...* ‘batek bostekoa emango zizun, besteak hamar pezeta...’ (Bet.), *zeorre gañean joango da aurretik* ‘zerorren gainean joango da aurretik’ (Gai.), *zakun sartu ta eamango zattue* ‘zakuan sartu eta eramango zaituzte’ (Bet.), *baietz esango ziozon* ‘baietz esango zenion’ (Uzt.).

23. irudia: Geroaldiko morfema



-go erabiltzeko joera beste hizkera nafar batzuetara ere hedatu da: hala, morfema hori erabiltzen dute Areson (Olano 1998: 14), eta, Aranon, Bonaparteren garaian *-en* bazegoen ere, *-go*

da nagusi gaur egun (Zubiri eta Perurena 1998: 123). Euskal Herri osoa aintzat hartuz, oro har, *-go* dago mendebalean eta erdialdean, eta *-en* Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian (Zuazo 2008: 212).

Bestalde, *-nko* bukaerari dagokionez, gure eremuan ez da ohikoa, baina *joanko*, *esanko* eta halakoak entzun ditugu Oskozko helduen (ez adinekoen) ahotan, eta *erranko* eta *yoanko* Gartzaronen (Gartzarongo adibideak: *eoziñek erranko lizuke emen* ‘edozeinek errango lizuke hemen’, *berris yoanko nitzeke* ‘berriz joango nintzateke’). Betiere, zenbait hiztunek forma okertzat hartzen dituzte *-nko* bukaeraz osatutako formak. Koldo Artolak *eonko* bildu du Latasan (*EDEL*, 191. testua), eta Ibarrek ere halako aleren bat jaso du Erbitin (1995a: 202). Halakoak ohikoak dira Imotz eta Basaburu Nagusi inguruko hizkeretan, hala nola Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995a: 202-203), Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 135), eta Arakilen, Burundan edota Erroibarren (Camino 2003a: 87); Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarritzat hartu du Caminok.

8.4.13. Nor-nork eta nor-nori-nork sailak nahastea

Hego Euskal Herriko hizkera askotan bezala, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraun gehiengan, hirugarren pertsonari dagozkion adizkietan baino ez dituzte erabiltzen nor-nork saileko formak, nor-nork-ekoak nor-nori-nork-ekoek ordezkatu baitituzte. Hona zenbait adibide: *ez deete arpatu izandu zibillek* ‘ez didate (naute) harrapatu izan(du) zibilek’ (Lat.), *nola engañatzen ziuten goo gurasoak* ‘nola engainatzen ziguten (gintuzten) gure gurasoek’ (Gol.), *kastiatzen tziuten* ‘kastigatzen (zigortzen) ziguten (gintuzten)’ (Gol.), *nai dizot* ‘nahi dizut (zaitut)’²³⁸ (Gol.), *goo amai izautzen baitzioten erleak* ‘gure amari (ama) ezagutzen baitzioten (baitzuten) erleek’ (Era.), *enpresa atek bota zien* ‘enpresa batek bota zidan (ninduen)’ (Osk.), *Madriden giñaudelaik eaman tziuten Murtzire* ‘Madrilen geundelarik eraman ziguten (gintuzten) Murtziara’ (Osk.), *anaie zarrenak asko nai zeen nei* ‘anaia zaharrenak asko nahi zidan (maite ninduen) niri (ni)’ (Osk.), *makume onei izautu bear zaio pixko at* ‘emakume honi (hau) ezagutu behar zaio (da) pixka bat’ (Osk.), *emen balkonean kusten deelaik erraten dee “egunon”* ‘hemen balkoian ikusten didalarik (naularik) erraten dit “egunon”’ (Osk.), *modu ortan jendeai tratatzea* ‘modu horretan jendeari (jendea) tratatzea’ (Etxal.), *arpatu izot* ‘harrapatu dizut (zaitut)’ (Ud.), *banun ilusioa joateko, ta eaman tziuten* ‘banuen ilusioa joateko, eta eraman zidaten (ninduten)’ (Ud.), *denai prejubiletu in tziuten* ‘denei (denak) prejubilatatu egin ziguten (gintuzten)’ (Oro.), *asko estutzen tziun* ‘asko estutzen zigun (gintuen)’ (Oro.), *soldado eaman zeetelaik* ‘soldado eraman zidatarik (nindutelarik)’ (Arrar.), *kontratistek artzen tzioten*

²³⁸ Alegia, ‘maite zaitut’.

pionai ‘kontratistek hartzen zieten (zituzten) peoiei (peoiak)’ (Arrar.), *eunes e bialtzen tziuten* ‘egunez ere bidaltzen ziguten (gintuzten)’ (Beru.), *enizun izaotzen* ‘ez nizun (zintudan) ezagutzen’ (Ig.), *nei sekulen eztei examinatu* ‘niri (ni) sekula ez didate (naute) examinatu’ (Ald.), *eskolan gaizki tratatzen tzein* ‘eskolan gaizki tratatzen zidaten (ninduten)’ (Arru.), *botatu bear deek* ‘bozkatu behar didak (nauk)’ (Ui.). Badira, ordea, nor-nork adizkia egoki erabilitako adibideak ere: *klasifikato edo premiatzen bazattii* ‘klasifikatu edo premiatzen (saritzen) bazaituzte’ (Bar.)²³⁹.

Nolanahi ere, nor-nork sailekoak bildu izan dituzte beste ikertzaile batzuek bai Goldaritzen, bai Basaburu Nagusian, bai Larraunen (ikus Gaminde 1985c: 325-360, 91-13, Irizar 1992a: 217-272, 275-359, Irizar 1992b: 185-331); baina, Irizarrek gure eremua aintzat hartuz garbi adierazi zuenez, Araitz-Betelun (eta baita Leitza eta Areson ere) gorde dituzte nor-nork adizkiak hobekien, Larraunen bietatik erabiltzen baitzuten beraren garaian ere, eta nor-nori-nork sailekoak zeuden ia erabat Imotzen eta Basaburu Nagusian:

... se recopilan flexiones de *significado bipersonal* (...), pero para las cuales, como se observará, se emplean en esta variedad [Ultzamako aldaeraz ari da], con raras excepciones, formas de estructura tripersonal. (1992a: 28)

... parece desprenderse que en las subvariedades propia [Intzako aldaeraz ari da], de Leiza y de Areso —que son las más próximas al dialecto guipuzcoano— se emplean, para dicha flexión, únicamente las formas propias bipersonales (*naue, nauea*), mientras que en las dos subvariedades de Larraun se utilizan tanto las formas de este tipo (*naue, naui*) como las tripersonales (*dee, deie, dei, deei*), sin que nada rotundo pueda afirmarse en este movedizo terreno. (1992b: 121-122)

Errazkinen eta Araitz-Betelun, bi sailetako adizkiak ongi bereizten dituzte gaur egun ere: *belauneko jarri niñun* ‘belauniko jarri ninduen’ (Erra.), *ni eaman niñuen estudiantzea* ‘ni eraman ninduten estudiantzera’ (Erra.), *jo itten giñuen* ‘jo egiten gintuzten’ (Erra.), *zee buutik izketan ekosi zattot* ‘zeure burutik hizketan ikusi zaitut’ (Gai.), *bele aik ezpanaue eamaten* ‘bele haiek ez banaute eramaten’ (Gai.), *non eamango nazo, ba?* ‘non eramango nauzu, ba?’ (Bet.), *amak euki nae zattue, ta eamango al zattuet?* ‘amak eduki nahi zaituzte, eta eramango al zaituztet?’ (At.), *tiroteatu niñuen* ‘tiroteatu ninduten’ (Uzt.), *gu bijilatuk izaten giñuen* ‘gu bijilatuak izaten gintuzten’ (In.). Nolanahi ere, nor-nori-nork sailekoak nor-nork-ekoak ordezkatzten ari dira Araitz-Betelun ere, gazte jendearen mintzoan batik bat (cf. Arraztio 2010).

²³⁹ Nafarroako Gobernua 2005: 70.

Testu zaharrei erreparatuz, argi ikusten da bi sailok nahastea aski gertaera berankorra dela, ez baita halakorik ageri ezein idazkitan. Gure eremutik hurbil, Ultzaman, esate baterako, bi sailotako formak ageri dira 1863ko doktrinan, erabilera egokian (Ibarra 1992: 931), eta baita Suarbeko sermoietan ere 1827an (Ibarra 1999: 95). Ez dakigu noiz sortu izango zen nahastea, baina gogoan izan Irizar datu-biltzen ibili zen garaian bazirela nor-nork-eko adizkien arrastoak gure eremuan; ordutik aurrera finkatu da, beraz, aldaketa guztiz.

Bi sailok nahastea gaztelaniaren eraginari egotzi diote zenbait ikertzailek (Ibarra 1995a: 428):

... itxura guztien arabera, aditz sistema hau galtzen hasi zen euskara pobretzen joan zen haranetan, alegia, erdaldunenetan, hain zuzen ere, Muskitz, Beratsainen eta abarretan. Euskaldunagoetan, aldiz, bere osotasunean denbora gehiago mantendu da, oraingo Basaburuko arrastoei iradokitzen dutenez (*aut, zaittot*).

Euskara ohiko hizkuntza den zenbait hizkeratan ere bada nahasketa, hala nola Sakanan (Erdozia 2001: 261-263); eta, alderantziz, euskara urritu den zenbait hizkeratan ez dago nahasketarik, hala nola Ipar Euskal Herriko hizkera jakin batzuetan. Areago, sintaxilariak “datibo osagarri bitxiak” izenez deitzen dituzte halako egiturak; Fernández eta Rezac hizkuntzalariak Differential Object Marking (DOM) fenomeno orokorrarekin —orokorra baita munduko beste hizkuntza batzuetan— uztarturik aztertu dituzte euskarazko hainbat hizkeratako datibo osagarri bitxiak (2010).

8.4.14. Komunztadura-eza aditzean

Adizki jakin batzuetan, komunztadura galdu egin da Araitz-Betelun eta Errazkinen. Ez da erabat sistematikoa, komunztatutako adibideak zein komunztatu gabeak erabiltzen baitira nahaska.

Batetik, nor-nork saileko adizkietan, aditza eta objektu plurala ez dira beti komunztatzen: *kursillo atzuk ein giñun* ‘kursillo (< gatz. cursillo) batzuk egin genuen (genituen)’ (Erra.), *ostoak jartzen zitzion* ‘hostoak jartzen zitzaion (zitzaizkion)’ (Erra.), *txekorrak e bagiñun* ‘txekorrak ere bagenuen (bagenituen)’ (Erra.), *artoan zorroa sartu eta eetten zuen koltxonak* ‘artoaren zorroa sartu eta egiten zuten (zituzten) koltxoiak’ (Gai.), *ekartzen giñun zakuk* ‘ekartzen genuen (genituen) zakuak’ (Bet.), *gu biok ze borrokak ibiltzen giñun!* ‘guk biok ze borrokak ibiltzen genuen

(genituen)!’ (At.), *oik eskobaakiñ-eo kentzen giñun* ‘horiek eskobarekin-edo kentzen genuen (genituen)’ (Azk.), *batzuk ezautzen giñun, e!* ‘batzuk ezagutzen genuen (genituen), e!’ (Bet.), *Betelukoak etziñun ekosiko zapatillekin d’ola* ‘Betelukoak ez zenuen (zenituen) ikusiko zapatilekin eta hola’ (Gai.), *guk parienteak bagiñun* ‘guk parienteak bagenuen (bagenituen)’ (Bet.), *barrikek ustu itten giñun* ‘barriak hustu egiten genuen (genituen)’ (Uzt.), *biaje osoak ibiltzen giñun guk* ‘biaje osoak ibiltzen genuen (genituen) guk’ (Uzt.), *billatu giñun balak* ‘bilatu genuen (genituen) balak’ (Bet.), *ordun trunkoak botatze giñun andi goiti beira* ‘orduan trunkoak (< gazt. tronco) botatzen genuen (genituen) handik goitik behera’ (Bet.), *komerik ibiltzen giñun* ‘komerik ibiltzen genuen (genituen) (Uzt.), *ordun zeñek ibiltzen giñun kaltzontzilloa(k)!* ‘orduan zeinek ibiltzen genuen (genituen) galtzontziloak!’ (Bet.), *goitti sartzen ziñun arrapak* ‘goitik sartzen zenuen (zenituen) arropak’ (Gai.), *arrekin eitten giñun zatan sokak* ‘harekin egiten genuen (genituen) zatan sokak’ (Gai.), *jotzen zuen ezkillak* ‘jotzen zuten (zituzten) ezkilak’ (Bet.), *emen izandu giñun gipuzkoanoak asko* ‘hemen izan(du) genuen (genituen) gipuzkoarrak asko’ (Bet.), *aidean ibiltzen giñun belarrak* ‘airean ibiltzen genuen (genituen) belarrak’ (Gai.), *itzek eman giñun* ‘hitzak eman genuen (genituen)’ (Gai.), *been izketa klaseak ekarriko zuen* ‘beren hizketa klaseak ekarriko zuten (zituzten)’ (Bet.), *aik bereala sartzen bazu* ‘haiek berehala sartzen baduzu (badituzu)’ (Bet.).

Bestetik, nor-nori saileko adizkietan, datiboarekiko komunztadura galdu da zenbait kasutan: *eman bear tziñun bazkarie denai* ‘eman behar zenuen (zenien) bazkaria denei’ (Bet.), *aik eurre itten tzuen, eurre in tzuen naparrai* ‘haiek egurra egiten zuten, egurra egin zuten (zieten) nafarrei’ (Azk.), *labea eraman tzun orree* ‘labea eraman zuen (zian) horri’ (In.), *attee eman bear izate nun denak* ‘aitari eman behar izaten nuen (nizkion) denak’ (Gai.), *arrek ekartzen tzun gui mateela* ‘hark ekartzen zuen (zigun) guri materiala’ (Bet.), *arrek irrazi zun gezurretan nee* ‘hark irabazi zuen (zidan) gezurretan niri’ (Gai.), *da elorrien gañean azaldu zan*²⁴⁰ *artzaitxo bati* ‘eta elorriaren gainean azaldu zen (zitzaion) artzaitxo bati’ (Gai.), *eman ingo nuke gustoa bakarren bati* ‘eman egingo nuke (nioke) gustura bakarren bati’ (Gai.).

Komunztadura-eza aski ezaugarri zaharra da, eta Euskal Herriko bazter askotan ageri da. Batetik, Bizkaiko, Gipuzkoako zein Arabako testu zaharretan ageri da, eta leku askotan iraun du gaur egunera arte (Lakarra 1986: 662-664). Lurralde bakoitzaren baitan ere bada aldea, ez baita ageri testu guztietan; eremuka doa nolabait (Lakarra 1996: 188-190). Bestetik, Euskal Herriko

²⁴⁰ *zen* erabiltzen da Araitz-Betelun, baina berriemaileak Gipuzkoako *zan* erabili zuen adibide horretan.

ekialdean ere aspalditik gauzatu da datiboarekiko komunztadura-eza (Kerejeta 1991: 169): besteak beste, Etxepareren lanean, Nafarroa Behereko testu zaharretan (cf. Camino 2008b: 150-151), Lapurdin XIX. mendean, Beriainen lanetan (XVII) eta Elizalderen gutunetan (XVIII) ageri da (cf. Pagola 1995: 292). Erronkariko doktrina zahar batean ere bada komunztadura-eza, bai objektu pluralarekikoa bai datiboarekikoa (Gomez 1991: 413-414).

Hurtadok dioenez, Goierrin aspaldiko berrikuntza da objektu pluralarekiko komunztadura-eza; datiboarekiko komunztadura-ezaren adibideak bildu ditu berak gehienbat (2001: 103-104). Etxabek eta Garmendiak ere datiboarekiko komunztadura-falta sumatu dute Zaldibiako eta Ordiziako hizkeretan (2003: 73 eta 2004: 70). Gipuzkoan jarraituz, Deba ibarrean (Zuazo 2006a: 86) edota Oiartzunen (Fraile eta Fraile 1996: 107) ere ohikoa da komunztadura galtzea. Irizarrek Bergara aldean, Gatzaga aldean eta Zegamako aldaeran (Araitz-Betelutik oso hurbil diren Bedaion, Amezketan, Altzon, Alegian...) bildu ditu komunztatu gabeko adibideak (1981b: 369-372 eta 1991b: 14-16). Mendebalerago, Lekeition ere gertatzen da (Fernández 2001, cf. Gomez 2001). Nolanahi ere, ez da soilik Euskal Herriko mendebal aldeko ezaugarria, beste hizkera batzuetan ere gal baitaiteke komunztadura; Ipar Euskal Herriko mintzo gehienetan eta Nafarroako ekialdeko batzuetan, esate baterako, hautazkoa da datiboarekiko komunztadura (Zuazo 2003: 192; cf. Camino 1997: 465-466, Camino 2008b: 150-151, Epelde 2003: 167, 213-214 eta Pikabea 1993: 110-114).

Gure eremuko gainerako herrietan —Larraun, Basaburu Nagusia, Imotz—, komunztadura gorde dute kasu guztietan, baina badugu komunztadura galdutako adibide bat Orokietan: *nik neonek eman nun abisoa erri okei* ‘nik neronek eman nuen (nien) abisua herri hauei’.

8.4.15. Zenbait adizki pleonastiko iraganean

Araitz-Betelun, adizki pleonastikoak sortu dira iraganeko lehen pertsona plurala eta bigarren pertsona singularra zein plurala NORK direnean: *jartzen ziozon trapu et* ‘jartzen zenion trapu bat’ (Gai.), *gañeti botatzen tziozon ue* ‘gainetik botatzen zenion hura’ (Gai.), *su ematen ziozun* ‘su ematen zenion’ (At.), *guk ez giñakiun erdaaz zipitzik e* ‘guk ez genekien erdaraz zipitzik ere’ (Gai.), *oi dena[k] pagiñakiun* ‘hori denek bagenekien’ (Arri.), *iriñe zakun bagiñaukiun* ‘irina zakuan bageneukan’ (Uzt.), *oik emango zazkiozun apezai* ‘horiek emango zenizkion apezari’ (Bet.), *galdue zeaukezun* ‘galdua zeneukan’ (Azk.), *ziñukezunakin* ‘zeneukanarekin’ (Bet.), *eskun infezioa baziñaukezun eo eozin gauze ziñaukezula* ‘eskuan infekzioa bazeneukan edo edozein gauza

zeneukala' (At.), *bazaukezun or eride* 'bazeneukan hor herida (< gazt. herida)' (At.), *gañeti baziñaokezon* 'gainetik bazeneukan' (Gai.), *ezpazeaokezon* 'ez bazeneukan' (Azk.), *nola zeaokezon* 'nola zeneukan' (Gai.), *emen koñadoa giñaukiun* 'hemen koinatua geneukan' (Bet.).

Halakoekin batera, baina, pleonasmorik gabeko formak ere erabiltzen dituzte Araitz-Betelun: *ez baziñion diruik aintzen* 'ez bazenion dirurik agintzen' (At.), *jartzen tziñion txanpon bat gañean* 'jartzen zenion txanpon bat gainean' (Bet.), *bota bear tziñion txistorrai konserbatzeko* 'bota behar zenion txistorrari kontserbatzeko' (Bet.), *gaur ematen baiñion atsaldean salmuera* 'gaur ematen bagenion arratsaldean salmuera' (At.), *malatxa esaten giñion* 'malatxa esaten genion' (Gai.), *koxka esaten giñion* 'koxka esaten genion' (In.), *noa joan bear giñun ezkiñakin* 'nora joan behar genuen ez genekien' (In.), *gu[k] zer giñeakin zer tzen!* 'guk zer genekien zer zen!' (Azk.), *erdaaz ez giñeakin* 'erdaraz ez genekien' (Gai.), *kastigu earra bagiñaukela* 'kastigu ederra bageneukala' (Gai.), *ez giñauken batee* 'ez geneukan batere' (Arri.).

Araitz-Betelu ondoko Amezketan, antzeko adizki pleonastikoak erabiltzen dituzte: *bagiñikiun* 'bagenekien', *ziazun* 'zenion', *zeaukezun* 'zeneukan', *ziazun* 'zenien' (K. E.). Halakoak ezagunak dira Tolosaldeko hizkera gehienetan, eta baita Goierri aldean ere (Irizar 1991a eta 1991b); Irizarrek Gipuzkoako hizkeren ezaugarritzat hartu ditu (1992b: 122; cf. Bähr 1972a: 266-269):

El otro aspecto interesante de estas formas es consecuencia del anterior, y consiste en que, al no tener el prefijo de segunda persona *ziñ-*, agregan el sufijo *-zun*, que es en realidad el *-zu* de presente, al que añaden la *-n* final de pretérito, procedimiento, como es bien sabido, muy generalizado, sobre todo en el dialecto guipuzcoano.

Araitz-Beteluri dagokionez, ikusi dugu zenbaitetan *ziñ-* eta *-zun* bi osagaiak batera erabiltzen dituztela (*ziñaukezun*).

Eremuko gainerako herrietan ez dago halako adizki pleonastikorik, eta *ziñion* 'zenion', *giñion* 'genion', *ziñauken* & *ziñaukin*, *ziñioten* (Im., Bas. Nag.) & *ziñiin* (Larr. hego-ekialdea) & *ziñien* (Larr. ipar-mendebala) 'zenien' gisakoak erabiltzen dituzte. Ildo horretatik, esanguratsua da Gorritin bizi izan genuen pasarte. Hizketan ari ginen Gorritiko neska gazte bat, haren izeba eta hirurok. Izeba gorritiarra zen izatez, baina Azkaraten bizi zena ezkonduz geroztik. Bada, hizketan ari ginela,

izebak *bagiñakiun* bota zuen, eta haren ilobak atentzioa eman zion berehala, aditz hori Gorritikoa ez zela esanez. Izeba berehala ohartu zen Azkaraten ikasia zuela hori, eta Gorritikoa *bagiñakin* zela.

8.4.16. Adizki trinkoen iraganeko *-a-* eta *-e-*

Askotan irakurri dugu adizki trinkoetan *-e-* ageri dela Euskal Herriko mendebalean eta erdialdean, eta *-a-*, aldiz, ekialderagoko hizkeretan (cf. Zuazo 1998b: 13). Baina, Caminok ohartarazi gaituenez (2003a: 63), hori ez da erabat egia. Izan ere, Deba ibarrean eta Gipuzkoako iparraldean ere bada *-a-*, eta *-e-* eta *-a-* lehian dira Nafarroa Garaiko toki askotan. Ildo horretatik, Hurtadok biak bildu ditu Tolosaldeko hegoaldeko hizkeretan (2001: 98). Zuazok dio *-a-* duten adizkiak zaharragoak direla *-e-* dutenak baino (2006a: 83), baina Lakarrak beste modu batera dakusa kontua: *-e-* da zaharra (horixe ageri da, esate baterako, Ipar Euskal Herriko testu zaharretan ere), eta orainaldiko formen analogiaz sortua da *-a-*²⁴¹.

Gure eremuari dagokionez, oro har, *-a-* ageri da, baina zenbait ñabardura egin beharrean gaude. “Ibili”, “jakin” eta “eduki” aditzen trinkoetan, beti *-a-* ageri da Imotzen eta Basaburu Nagusian: *na(a)llen* ‘nenbilen’, *za(a)llen* ‘zebilen’, *giñailtzen* ‘genbiltzan’, *ziñailtzen* ‘zenbiltzan’, *ziñailtzetzen* ‘zenbiltzaten’, *zailtzen* ‘zebiltzan’; *nakin* ‘nekien’, *zakin* ‘zekien’, *giñakin* ‘genekien’, *ziñakin* ‘zenekien’, *ziñakiten* ‘zenekiten’, *zakiten* ‘zekiten’; *naukin* ‘neukan’, *zaukin* ‘zeukan’, *giñaukin* ‘geneukan’, *ziñaukin* ‘zeneukan’, *ziñaukiten* ‘zeneukaten’, *zaukiten* ‘zeukaten’. Kasu bakar batean bildu dugu *-e-*, Igoan: *etzekitenak* ‘ez zekitenak’.

Larraunen, kontuak ez daude hain garbi. Izan ere, *-a-* nagusitzen da hango adizki trinkoetan, baina *-e-* ere ageri da maiz aski, ipar-mendebaleko herrietan batik bat, baina baita, tarteka, hego-ekialdekoetan ere. Hala, esate baterako, *banauken* zein *neuken* ‘neukan’ bildu dugu Iribasen, baina *zauken* ‘zeukan’ eta *zauzkiin* ‘zeuzkaten’ *-a-*-dunak betiere. Badirudi bien arteko lehia dagoela Larraunen; areago, Uitzin eta Azpirotzen, esate baterako, “jakin” aditzaren trinkoetan, ia erabateko nagusitasuna dute *-e-*-dunek.

Araitz-Betelun, ez bat eta ez bestea, baizik eta bien arteko nahasketa bat egiten dute: *-ea-*. Itxura zaharra du erro horrek; testu zaharretan arakatuz, ikusi dugu hainbat idazle lapurtarrek badituztela halakoak, hala nola Haranederrek (XVII. mendea), Gazteluzarrek (XVII), Etxeberri

²⁴¹ Eskerrak eman nahi dizkiegu Caminori eta Lakarrari, kontu horren gainean emandako argibideengatik.

Sarakoak (XVII-XVIII) edota Etxeberri Ziburukoak (XVI-XVII), eta Leizarragak ere (XVI) badu *zeakiat* forma. Bestalde, Jose Antonio Uriarte bizkaitarrak ere baditu adibide batzuk (XIX).

Honelako aditz-formak bildu ditugu han: *neallen* ‘nenbilen’, *zeallen* ‘zebilen’; *neakin* ‘nekien’, *zeakin* ‘zekien’, *giñeakin* ‘genekien’, *zeakien* ‘zekiten’; *neauken* ‘neukan’, *zeauken* ‘zeukan’, *zeaukuen* ‘zeukaten’, eta abar. Hala ere, *-a-* duten formak ere erabiltzen dituzte, eta baita *-e-* dutenak ere. *-ea-* dunak Errazkinen ere erabiltzen dituzte, eta Uitzin ere entzun dugu aleren bat edo beste: *zeazken* ‘zeuzkan’, *zeaken* ‘zeukan’. Hona Araitz-Beteluko adibideak: *ekosita neaozken ni[k] nun zeauen* ‘ikusita neuzkan nik non zeuden’ (In.), *etzeaoken beste zeaik* ‘ez zeukan beste zerarik’ (Bet.), *zein tzeallen berandu jakittek* ‘zein zebilen berandu jakiteko’ (Uzt.), *sorgin zeallen orre* ‘sorgin zebilen horri’ (Gai.), *nik artean eneakin zer tzen e* ‘nik artean ez nekien zer zen ere’ (Azk.), *denak ba emen zeakien aren izena* ‘denek ba omen zekiten haren izena’ (Gai.). Elren arabera, *baneakin* bazen XX. mendearen hasieran Intzan (1984: 236).

Bereiz aztertuko ditugu “egon” aditzaren trinkoak (ikus 8.4.18.). Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen, *-e-* ageri da singularreko formetan, eta *-a-*, aldiz, pluralekoetan: *neon* & *nion* ‘nengoen’, *yion* ‘hengoen’, *zeon* & *zion* & *zegoan* (Larr.) ‘zegoen’, baina *ziñaen* & *ziñain* & *ziñauden* ‘zeunden’, *giñaen* & *giñain* & *giñauden* ‘geunden’, *zaen* & *zain* & *zauden* ‘zeuden’. Alabaina, Uitzin, *zere(e)n* ‘zeuden’ dugu (Areson bezala), eta *zein* ‘zeuden’ Gorritin. Araitz-Beteluri dagokionez, badira *-a-* dunak, baina batez ere *-e-* eta *-ea-* ageri da: *neon* & *ne(g)oa*n ‘nengoen’, *zeon* & *zegoan* & *zeaoan* ‘zegoen’, *ziñauden* ‘zeunden’, *giñauden* & *geaunden* ‘geunden’, *zeauen* ‘zeuden’. Hona Araitz-Beteluko bi adibide: *or geaunden esperoan* ‘hor geunden esperoan’ (In.), *zerbatten etorkizuna ba ote zeaoan* ‘zerbaiten etorkizuna ba ote zegoen’ (Azk.).

Ondoko Tolosaldeko hegoaldean eta Goierrin, *-e-* da nagusi, baina *-a-* ere bada Tolosaldean (Hurtado 2001: 97-98). Gure eremutik iparraldera, *-a-* ohikoa da Areson, baina *-e-* da nagusi Leitzan (Olano 1998: 224), eta, Basaburu Txikiari dagokionez, *-a-* da nagusi, baina *-e-* ere ageri da tarteka Ezkurran, eta, bakanago, Eratsunen (B. L.). Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, berriz, *-a-* dago Ultzaman (Ibarra 1995a: 503).

8.4.17. “Joan” aditzaren forma trinkoak

Bi multzo nagusi bereiz daitezke gure eremuan. Batetik, singularrean, *n(o)aie* erako adizki berranalizatu epentesidunak erabiltzen dituzte eremuko ekialdean —alegia, Goldaratz ez beste Imozko herrietan eta Basaburu Nagusi gehienez (iparraldeko herriak dira salbuespena)—, eta *g(o)azi* erakoak pluralean. Hona Imotz eta Basaburu Nagusi gehieneko orainaldiko aditz-paradigma osoa:

n(o)aie ‘noa’

goaie ‘hoa’

d(o)aie ‘doa’

g(o)azi ‘goaz’

z(o)azi ‘zoaz’

z(o)azte ‘zoazte’

d(o)azi ‘doaz’

Halako adizkiek hedadura zabala dute Nafarroa Garaian: badira Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995a: 476-479), Basaburu Txikian (Gaminde 1985c: 301-324), Irañetan eta Uhartan (Gaminde 1985c: 79-90)²⁴², Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 183), Odieta-Olaibar-Ezkabarte aldean (Artola 2001: 509) eta Nafarroako ipar-ekialdean (Gaminde 1985c: 175-300). Gure eremutik hegoaldera, Txulapain ibarrari dagokionez, *Elko* datuetan, *naie* ageri da Nabatzen (1984: 85-86), *naye* sailekoak bildu ditu Gamindek Beorburun (1985c: 453), eta, *EAE*Ln, *badaye* dugu Usin (cf. Salaberri 2000: 910). Testurik zaharrenetatik hasita badira halako formak: Beriainen lanetan (1621 eta 1626), Elizalderen doktrinan (1735), eta beste hainbat testu nafarretan (ikus Satrustegi 1987b). Ipar Euskal Herrian ez dago *noaie* gisakorik singularrean; baina, pluralean, *goaza* erakoak ohikoak dira hango hainbat hizkeratan. Esate baterako, Ithurriren gramatikak *goazi*, *zoazi*, *zoazte* eta *doazi* adizkiak dakartza Lapurdirako (1895: 192).

Bestetik, *nii* gisako adizkiak bildu ditugu singularrean Goldaratzen²⁴³, Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraun gehienez eta Araitz-Betelun, nahiz eta, bigarren pertsona singularrean, *goaie* adizki berranalizatu epentesiduna ageri den Goldaratzen eta Basaburu Nagusiko iparraldean, Imotz eta Basaburu Nagusi osoan bezala. Pluralean, berriz, *goazi* gisakoak daude Goldaratzen eta

²⁴² Baina Sakanan ez (Gaminde 1985c: 37-78).

²⁴³ Baina Goldaratzen ez dira arrotzak *n(o)aie* gisakoak.

Basaburu Nagusiko iparraldean; Imozko eta Basaburu Nagusiko gainerako herrietan bezala, beraz, eta *goaz* erakoak, aldiz, Larraunen eta Araitz-Betelun (*goazi*²⁴⁴ vs. *goaz*; ikus adibideak). Nolanahi ere, bi aukerak baliatzen dituzte, hirugarren pertsona pluralean, Goldaratzen eta Basaburu Nagusiko iparraldean. Gero eta gehiago, *noa* gisakoekin txandaka ageri dira *nii* eta *nie* gisako adizkiak, batez ere Larraunen eta Araitz-Betelun. Bi zutabetan erakutsiko ditugu alderdi horretako adizkiak:

<u>Goldaratz, Basaburu Nagusiko iparraldea</u>	<u>Larraun, Araitz-Betelu</u>
<i>nii</i>	<i>nii & nie (& noa)</i>
<i>goaie</i>	<i>yii (Ald.) (& yoa (Od.) & oa)</i>
<i>dii</i>	<i>dii & die (& doa)</i>
<i>goazi & goaze</i>	<i>goaz</i>
<i>zoazi & zoaze</i>	<i>zoaz</i>
<i>zoazte</i>	<i>zoazte</i>
<i>doaze & diizte & dize</i>	<i>di(i)zte & dize & diezte</i>

Adibideak: *Easoa dien karreteran* ‘Erasora doan karreteran’ (Lat.), *emendik goazila, eskuinetaa* ‘hemendik goazela, eskuinetara’ (Lat.), *mendea nii* ‘mendira noa’ (Ig.), *amazazpi urte ya betetzea dii zarrena* ‘hamazazpi urte ja betetzera doa zaharrena’ (Ig.), *noa ote dizte?* ‘nora ote doaz?’ (Beru.), *onge diila operazioa!* ‘ongi doala [joan dadila] operazioa!’ (Beru.), *baniik Goldaazko mendie* ‘banoak Goldarazko mendira’ (Od.), *bayoa?* ‘bahoa?’ (Od.), *gazte guzik kanpoa diezte oan* ‘gazte guziak kanpora doaz orain’ (Iri.), *gu de aurea goaz* ‘gu ere aurrera goaz’ (Bar.), *ni banii* ‘ni banoa’ (Bar.), *raza meioratzen dii* ‘arraza meioratzen (hobetzen) doa’ (Bar.)²⁴⁵, *noa yii?* ‘nora hoa?’ (Ald.), *eurrekin dii* ‘egurrekin doa’ (Alb.), *ama ekustea diela* ‘ama ikustera doala’ (Ui.), *nola zien martxa* ‘nola zihoan martxa’ (Azp.), *zintzarri aundi etzuk jartzen tzazkiola (sic) bidean diezteneako* ‘zintzarri handi batzuk jartzen zitzaizkiola bidean doazenerako’ (Azk.).

Zenbaitetan, bi sistemetako adizkiak nahaska ageri dira. Esate baterako, Itsason, *doaie* zein *die* ‘doa’ bildu diogu hiztun berari, eta berdin Berueten. Bietarikoak ageri dira Gamindek Berueten bildutako adizkietan ere: *noaye*, *goaye*, *dii*, *goaze*, *zoaz*, *zoazte*, *dize* (1985c: 359). Gaminderen datuekin jarraituz, bi sistemetako formak dakartza Goldaratzeko ere (1985c: 383): *naye / nie*,

²⁴⁴ *goaze* eta *zoaze* daude Arraratsen, Igoan eta Berueten, *i > e* bokal-irekitzearen ondorioz (ikus 8.1.5.).

²⁴⁵ Nafarroako Gobernuak 2005: 68.

goaye, daye / die, goazi, zoazi, zoazte, doazi / dize. Azkenik, honako hauek dakartza Gamindek berak Eratorako (1985c: 365): *nie, goaye, die, goazi, zazi, zazte, dize*.

Larraunen ere bietatik bildu du Gamindek, baina guk gaur egungo mintzoan ez dugu entzun *noaie* eta *goazi* gisakorik. Hona Gamindek Larraunen jasotako adizkiak (1985c: 91-132):

- Oderitz: *nii, yii, dii, gize, zize, zoazti, dize*.
- Arruitz: *noaye, goaye, dii, goaze, zoaz, zaozti, dize*.
- Etxarri: *noa, yoa, die, goaze, zoaz, zoazte, dizte*.
- Baraibar: *noaye, (g)oaye, dii, goaze, zoaz, zoazti, dize*.
- Uitz: *noa, oa, die, goaz, zoaz, zoazte, dize*.
- Gorriti: *noa, oa, die, goaz, zoaz, zoazte, dizte*.
- Lezaeta: *noa, oa, die, goaz, zoaz, zoazte, diezte*.

Gainera, *noaie* bildu zuen XX. mendearen hasieran *Elk Lekunberrin* eta *Aldatzen* (1984: 85).

Ohar gisa, inguruko hizkeretan ageri ez den forma bat erabiltzen dute Uitzin lehen pertsona singularrean: *noatz* ‘noa’ (adibidea: *oatzea noatz* ‘ohatzera noa’)²⁴⁶. Halakoak ohikoak dira Gipuzkoako zenbait hizkeratan, hala nola Goierriin. Hiketan, baina, *niek* bildu dugu han: *mendie niek* ‘mendira noak’.

nii eta *nie* erakoek eremu murrizteko berrikuntza dirudite. Leitzako eta Aresoko paradigmak gure eremurako ikusi ditugunen antzekoak dira, baina ez berdin-berdinak (Olano 1998: 192, 217): han, *die* eta *dizte* dira hirugarren pertsonako morfemak, eta iraganeko formek ere badute antzekotasuna (*nien, zien, zizten...*), baina *noa* dago han, eta ez *nie* edo *nii*. Gauzak antzera daude Basaburu Txikiko mendebalean ere: *nii* erakoak ageri dira Ezkurran, eta *nie* erakoak, berriz, Eratsunen (B. L.).

Hurtadok dioenez, *noa* eta *nijoa* gisakoak ageri dira Gipuzkoako Tolosaldean eta Goierriin (2001: 111-112)²⁴⁷. Hain zuzen, Zuazok erdialdeko euskararen —bereziki euskara giputzaren—

²⁴⁶ Hitz bukaerako txistukari igurzkaria afrikatu bihurturik ageri da, halaber, *berritz* ‘berriz’ adibidean; Araitz-Beteluko herrietan maiz entzun dugu.

²⁴⁷ Zehazki, honako adizki hauek dakartza Hurtadok, bai baita aldea herri batetik bestera: Legazpian, *ba’noa, ba’doa*; Gabirian, *nijo, dijo, dijoz*; Lazkaon eta Zaldibian, *nijoa & noa, dijó & doa, dijozte*; Legorretan, *banijoa & banoa*,

ezaugarritzat hartu ditu *nijoa* gisakoak (2008: 144). Isoglosa garbia dugu, beraz, Nafarroako eta Gipuzkoako mugan; alabaina, gero eta maizago, hizkera gipuzetako formak baliatzen dituzte Araitz-Betelun; gauza bera gertatu da Nafarroako beste hizkera batzuetan ere, hala nola Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 161). Gipuzkoako testu zaharretan arakaturaz, gutxienez XVIII. mendetik aurrera ageri dira *dijoa* gisako formak: Otxoa Arinen doktrinan 1713an, Oikiako doktrinan 1759an, Zegamako doktrinan 1741ean eta 1858an, eta Gerrikoren eta Amundarainen lanetan (Aranburu eta beste 1999: 109; cf. Altuna 1992: 582, Aranburu eta beste 1994 eta 1998, Ondarra 1984).

8.4.18. “Egon” aditzaren forma trinkoak

a. Orainaldian

Goldaritzen, Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan, Larraunen eta Araitz-Betelun erabiltzen dituzten pluraleko *dai & dae* ‘daude’, *zai & zae* ‘zaude’ eta *gai & gae* ‘gaude’ forma murriztuak ditugu berezitasun nagusia. Gainerako herrietan —alegia, Imotz eta Basaburu Nagusi gehienez—, murriztu gabeko aldaerak erabiltzen dituzte: *gaude*, *zaude*, *daude*. Nolanahi ere, Errazkinen eta Araitz-Betelun, murriztu gabeko formak ere erabiltzen dituzte, murriztutakoekin batera. Singularreko formak berak dira eremu osoan (*y*- morfemari buruz, ikus 8.4.2.). Hona forma murriztuen eta murriztu gabeen orainaldiko paradigma osoa²⁴⁸:

<u>Murriztuak:</u>	<u>Murriztu gabeak:</u>	
<i>nau & nao</i>	<i>nau & nao</i>	‘nago’
<i>(y)au & (y)ao</i>	<i>(y)au & (y)ao</i>	‘hago’
<i>dau & dao</i>	<i>dau & dao</i>	‘dago’
<i>gai & gae</i>	<i>gaude</i>	‘gaude’
<i>zai & zae</i>	<i>zau(d)e</i>	‘zaude’
<i>zaute & zauti</i>	<i>zaute</i>	‘zaudete’
<i>dai & dae</i>	<i>dau(d)e</i>	‘daude’

Hona hemen forma murriztuen adibide batzuk: *guaiñ familli motxak baitai* ‘orain familia

baijoo, *badijozte*; Ikaztegieta, *nijoa & noa*, *dijoa*, *zijoaz*, *zijoazte*, *dijoaz*; Amezketa, *banijoa & banoa*, *baijoo & badoa*; Alegia, *nijoa & noa*, *baijoo*; Gaztelun, *bánua & banjúa*; Tolosan, *nijoa & banoa*, *dijoa*; Izaskunen, *dijoazte*.

²⁴⁸ Bigarren pertsona pluraleko adizkiak *zaute* eta *zauti* dira; ez dira forma murriztuak, baina ez ditugu paradigmatik kanpo utzi nahi izan.

motxak baitaude’ (Gol.), *denak igual dai oaiñ itxik* ‘denak igual daude orain etxeak’ (Gol.), *errekak aundik daenin* ‘errekak handian daudenean’ (Arrar.), *ezpazai gustoa* ‘ez bazaude gustura’ (Arrar.), *ooki gaela* ‘hobeki gaudela’ (Ig.), *alanbrik autsik zaenak komondo* ‘alanbreak hautsirik zeudenak konpondu’ (Ig.), *txekorrak-eta daen lekun* ‘txekorrak-eta dauden lekuan’ (Beru.), *zai pixko at* ‘zaude pixka bat’ (Iri.), *an daenin* ‘han daudenean’ (Bar.), *amar laun gae* ‘hamar lagun gaude’ (Alb.), *oain bankuk badai* ‘orain bankuak badaude’ (Ui.), *an dai eskriittuta aik* ‘han daude eskribituta (< gazt. escritos) haiek’ (Gorr.), *gauz oiri utzita gai* ‘gauza horiei utzita gaude’ (Azp.), *Iurtzune amalau kilometro bakarra dai, ta Tolosaa badai oeita geigo emendik* ‘Iurtzuna hamalau kilometro bakarrik daude, eta Tolosara badaude hogeita gehiago hemendik’ (Azp.), *utzita antxe dae* ‘utzita hantxe daude’ (Bet.), *ez al tzae ongi?* ‘ez al zaude ongi?’ (At.).

Hona, orain, murriztu gabekoen adibideak: *emen itxe asko botaik e badaude guaiñ* ‘hemen etxe asko botarik ere badaude orain’ (Etxal.), *beste atzuk ezinduta daude* ‘beste batzuk ezinduta daude’ (Etxal.), *iun bagaude?* ‘ehun bagaude?’ (Etxal.), *bertze bi badaude, aurten beteko ttute lauetan oitamar urte* ‘bertze bi badaude, aurten beteko dituzte lauetan hogeita hamar urte’ (Oro.), *errin balen bazaude* ‘herrian baldin bazaude’ (Oro.), *piko ta palakin aitzeko onak daude!* ‘piko(a) eta palarekin aritzeko onak daude!’ (Oro.), *ixturen daoenean* ‘itxituran daudenean’ (In.), *iru malkor dao or segidan* ‘hiru malkor daude hor segidan’ (Azk.), *miñez-o balen bazaude* ‘minez-edo baldin bazaude’ (Bet.), *oan luzeak badaue* ‘orain luzeak badaude’ (Gai.), *denak konproatuta daue* ‘denak konprobatuta daude’ (Gai.).

b. Iraganean

Iraganeko pluraleko formetan ere, murriztu gabeko formak erabiltzen dituzte Imotz eta Basaburu Nagusi gehienez (*giñauden* ‘geunden’, *ziñauden* ‘zeunden’, *zauden* ‘zeuden’), eta murriztutakoak gainerako herrietan (*giñain & giñaen*, *ziñain & ziñaen*, *zain & zaen* ‘zeuden’).

Hona, lehenik, iraganeko forma murriztuen adibideak: *makik tzain emen* ‘makiak zeuden hemen’ (Gol.), *mendiin gordeta nola zaen paketik* ‘mendian gordeta nola zeuden paketeak’ (Arrar.), *enaiz kontoato or ziñaenik* ‘ez naiz konturatu hor zeundenik’ (Beru.), *ue etortzeako, ya zaen bi meikuk etxiin* ‘hura etortzerako, ja zeuden bi medikuak etxean’ (Bar.), *urduko bazaiñ emen* ‘ordurako bazeuden hemen’ (Alb.), *ongi itxik zeaen o etzaen* ‘ongi itxiak zeuden edo ez zeuden’ (Bet.).

Gorritin, asimilazioaren ondorioz, *zein* ‘zeuden’ forma sortu da (*zain* > *zein*): *ganbaan baztartuta zeinak* ‘ganbaran baztertuta zeudenak’, *eun zaku irin tzein, da guardia zibillek zein emen, etortzen baitzeen ikustea ta* ‘ehun zaku irin zeuden, eta guardia zibilak zeuden hemen, etortzen baitziren ikustera eta’ (Gorr.). Bestalde, Uitzin, *zeren* ‘zeuden’ adizkia erabiltzen dute: *Casa Caminero ta Casa Capataz zeren or* ‘Casa Caminero eta Casa Capataz zeuden hor’, *ordueko nonbatte alde inek zeren* ‘ordurako nonbait ere alde eginak zeuden’, *launtzaon baten esperoan tzeren* ‘laguntzaren baten esperoan zeuden’. Areson, hain zuzen, *zeen* erabiltzen da (Olano 1998: 191), eta forma hori ez da ezezaguna hizkera giputzetan.

Murritzitu gabeko iraganeko formak Imotzen (salbu Goldaratz) eta Basaburu Nagusian (salbu iparraldeko herriak) bildu ditugu, baina baita Araitz-Betelun ere: *itxeak beteik zaudela denak, itxe guzik beteik baitzauden* ‘etxeak beterik zeudela denak, etxe guziak beterik baitzeuden’ (Osk.), *an zauden posizioak* ‘han zeuden posizioak’ (Etxal.), *esaten tzun iruun pertsona zaudela emen* ‘esaten zuen hirurehun pertsona zeudela hemen’ (Etxal.), *tropak zauden Oskotzen* ‘tropak zeuden Oskotzen’ (Etxal.), *makurreo giñauden* ‘makurrago geunden’ (Ud.), *goseik zauden* ‘goserik zeuden’ (Ud.), *zauden bi bei illik* ‘zeuden bi behi hilik’ (Oro.), *kargatuta balen bazeauen* ‘kargatuta baldin bazeuden’ (In.), *zibillek or zeauden* ‘zibilak hor zeuden’ (Bet.), *or geaunden esperoan* ‘hor geunden esperoan’ (In.), *mendi goien geandenean* ‘mendi(an) goian geundenean’ (In.), *earki ikaatota emen tzeaoden* ‘ederki ikaratuta omen zeuden’ (At.).

Iraganeko singularreko formei dagokienez, eta, zehatzago, lehen eta hirugarren pertsonen dagokienez, *ne(g)oan* eta *ze(g)oan* formak bildu ditugu Berueten, Larraunen eta Araitz-Betelun: *ze tratu zegoan* ‘zer tratu zegoen’ (Beru.), *ue an tzegoalala il tzen* ‘hura han zegoela hil zen’ (Bar.), *famili izateko zegoan* ‘familia izateko zegoen’ (Bar.), *ordun ostatuu zegoan* ‘orduan ostatua zegoen’ (Alb.), *au, ezkondu giñenen, alkate zegoan emen* ‘hau, ezkondu ginenean, alkate zegoen hemen’ (Alb.), *sokaldea nai ta nai ez sartu bearra zegoan* ‘sukaldera nahi eta nahi ez sartu beharra zegoen’ (Ui.), *ni gordeta neoan an* ‘ni gordeta nengoen han’ (In.), *Zulotan morroi neoan* ‘Zulotan morroi nengoen’ (Gai.), *bazeaoan ordo erdi eteko birea* ‘bazegoen ordu erdi bateko bidea’ (Gai.), *ordun diruik etzegoan* ‘orduan dirurik ez zegoen’ (Bet.). Gainerako herrietan, *neon* & *nion* eta *zeon* & *zion* gisakoak erabiltzen dituzte.

negoan eta *zegoan* ez dira inguruko hizkera gehienetan erabiltzen, baina badira Leitzan, eta ez Areson (Olano 1998: 191, 216), eta baita Ezkurran eta Eratsunen ere (B. L.). Halako formak, gainera, Gipuzkoako eta Bizkaiko testu zaharretan ageri dira usu; esate baterako, badira Otxoa Arinen lanean eta Zegamako 1848ko doktrinan (Aranburu eta beste 1999: 109), Zegamako 1741eko doktrinan (Ondarra 1984: 12), eta baita Oikiako doktrinan ere (Lakarra 1987: 533).

Gure ingurumarira begiratzuz, forma “osoak” gure eremutik ekialderako hizkeretan ageri dira, hala nola Atetzen, Ultzaman edota Anuen (Ibarra 1995a: 484-486). Mendebalera egin ahala, forma murriztuak agertzen hasten dira, eta aski sistematikoak dira Goldaratzan, Basaburu Nagusiko iparraldean eta Larraunen. Hain zuzen, forma murriztuak daude Aresoko hizkeran ere, baina ez Leitzan (Olano 1998: 191), ezta Basaburu Txikian ere (Gaminde 1985c: 301-324). Araitz-Betelun ere badira forma murriztuak, baina gero eta urriago erabiltzen dira. Ez dakigu noiz sortuak diren forma murriztuok, baina aski berriak dirudite, eta aski eremu murriztekoak. Gipuzkoako mugan, beste adizki mota batzuk erabiltzen dituzte, hala nola Amezketako *gare* ‘gaude’, *zare* ‘zaude’, *dare* ‘daude’, eta abar. Nolanahi ere, han, forma murriztuak ez dira ezezagunak (izan): esate baterako, *gerran dae* ‘gerran daude’ bildu du *EAELk* Alegian.

8.4.19. “Ibili” aditzaren forma trinkoak

Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian ohi den bezala, gure eremuko hizkeretan, bokal bat erantsi ohi diete “ibili” aditzaren forma trinko singularrei orainaldian (berranalisiaren ondorioz sortuak dira, horrenbestez): *kanpoko jende asko dabile* ‘kanpoko jende asko dabil’ (Osk.), *maingidaalle* ‘maingu dabil’ (Gar.), *gaizkio naille* ‘gaizkiago nabil’ (Ui.), *ego-aizea balen badalle* ‘hegohaizea baldin badabil’ (Arri.).

Alabaina, bokal hori gabekoak ere erabiltzen dituzte zenbait hiztunek. Esate baterako, *naill* ‘nabil’ eta *daill* ‘dabil’ entzun ditugu oro har hizkera gordetzailea duen Errazkingo adin handiko emakume baten mintzoan. Gamindek *nabill* eta *dabill* dakartza Gorritirako, baina *abile*, *gabiltze*, *zabiltze* eta *dabiltze* (1985c: 123); Betelurako, *nabill & nabile*, *abill*, *dabill & dabile* eta *gabiltze*, *zabiltze* eta *dabiltze* dakartza (1985c: 137); Azkaraterako, *nabill*, *abill*, *dabill*, eta *gabiltze*, *zabiltze* eta *dabiltze* (1985c: 149). Gipuzkoara ezkerre, bukaerako *-e* gabeko formak nagusitzen dira, hala nola Amezketan (B. G.) edota Zaldibian (K. E.). Nafarroako beste hizkera batzuetan ere ageri dira

-e gabekoak: Ezkurran (Gaminde 1985c: 319), Leitzan (Gaminde 1985c: 155; cf. Olano 1998: 216) edota Aranon (Gaminde 1985c: 173).

Amaieran bokal bat erantsitako formak aski zaharrak dira Nafarroa Garaian behinik behin. Esate baterako, *dabilla* erabili zuen Iruñeko Ioan de Elizalde 1609. urtean (Mitzelena 1990 [1964]: 111-118, Kerejeta 1991).

8.4.20. “Eduki” aditzaren forma trinkoak

Lehenik, Nafarroako beste hizkera batzuetan bezala, Imotzen, Basaburu Nagusian (salbu Berueten) eta Larraungo hego-ekialdean, *-i-* bokala ageri da “eduki” aditzaren erroan, hala orainaldian nola iraganean: *daukit* ‘daukat’, *dauzkit* ‘dauzkat’, *dauki* ‘dauka’, *dauzki* ‘dauzka’, *daukiu* ‘daukagu’, *dauzkiu* ‘dauzkagu’, *daukizu* & *daukizo* ‘daukazu’, *dauzkizu* & *dauzkizo* ‘dauzkazu’, *naukin* ‘neukan’, *zauzkin* ‘zeuzkan’, *giñaukin* ‘geneukan’, eta abar.

Ez dakigu halako adizkien hedadura zehatza zein den, baina iparraldeko goi-nafarreraren hizkera batzuetan behintzat bildu du Gamindek (1985c): Arakilen (pluralean soilik), Goizuetan, Aranon, Malerreka aldeko hizkera batzuetan, Basaburu Txikian, Ultzaman (pluralean), Atetzen (pluralean), Anuen (pluralean), Odietan (pluralean) eta Txulapainen (pluralean). Horrez gain, Etxaidek Nafarroan egin zuen inkesta ezagunaren 203. galderari erreparatuz gero, ohartuko gara halakoak Zaraitzuraino hedatzen direla (1989: 248-249); Ibarrek Esteribarko Usetxin ere bildu ditu (2000: 182), baina ez dago halakorik Sakanan (Erdozia 2001: 280-282). Nafarroatik haratago, Gipuzkoako iparraldean den Oiartzunen ere ezagunak dira (Fraile eta Fraile 1996: 32). Nafarroako testu zaharrenetatik hasita ageri dira *-i-*dun formak, hala nola Beriainen lanetan, 1621 eta 1626 urteetan (ikus testu gehiago Satrustegi 1987b lanean). Geroago, Ultzaman badira halakoak 1863an (Ibarra 1992).

Hona gure eremuan bildutako zenbait adibide: *dauzkiun medioakin da dauzkiun modukin* ‘dauzkagun medioekin (< gazt. medio) eta dauzkagun moduekin’ (Gol.), *sueldoak izugarrik dauzkite* ‘sueldoak (< gazt. sueldo) izugarriak dauzkate’ (Gol.), *ondoan dauzkin sozioak* ‘ondoan dauzkan sozioak’ (Lat.), *orrek dauzki propiedade asko garbitasunek itteko itxean* ‘horrek dauzka propietate asko garbitasunak egiteko etxean’ (Urr.), *zazpi kilometro giñauzkin* ‘zazpi kilometro geneuzkan’ (Era.), *bi [alaba] dauzkit Zizur Mayorren* ‘bi alaba dauzkat Zizur Mayorren’ (Osk.),

emezortzi urte betetzeko nauzkin ‘hemezortzi urte betetzeko neuzkan’ (Osk.), *pal año kuarenta banauzkin eztaikit zenbat bei saltzeko* ‘para el año cuarenta (< gazt.) baneuzkan ez dakit zenbat behi saltzeko’ (Osk.), *pareta onak men tzauzkin* ‘pareta onak omen zeuzkan’ (Osk.), *oik tenak eraiñik dauzkit goaiñ* ‘horiek denak ereinik dauzkat orain’ (Etxal.), *nik ezin utzi bainittun bi ume zauzkiten ardik* ‘nik ezin utzi baintuen bi ume zeuzkaten ardiak’ (Etxal.), *andrii erdi bearra daukit* ‘andrea erdi beharra daukat’ (Ud.), *goain pixke-pixke zortzi dauzkit* ‘orain pixka(na)-pixka(na) zortzi dauzket’ (Ud.), *goain paratuik daukiu orrengatik, motibo orrengatik* ‘orain paraturik daukagu horrengatik, motibo horrengatik’ (Oro.), *kukusoak dauzki* ‘arkakusoak dauzka’ (Gar.), *ba men tzauzkin txekorrak* ‘ba omen zeuzkan txekorrak’ (Er.), *men tzauzkiten sabaian sartuik alubik-eta, zaku alubik* ‘omen zeuzkaten sabaian sarturik alubiak (< gazt. alubias) eta, zaku alubiak’ (Er.), *oiek giñauzkin retiretuik sabaiean* ‘horiek geneuzkan erretiraturik sabaian’ (Er.), *bi seme ttu ta biek ezkonduik dauzki* ‘bi seme ditu eta biak ezkonduirik dauzka’ (Er.), *ardik dauzkit atea bearrak* ‘ardiak dauzkat atera beharrak’ (Arrar.), *enaukin gooan* ‘ez neukan gogoan’ (Ig.), *gok Ookieta urbil giñaukin* ‘guk Orokieta hurbil geneukan’ (Ig.), *guaingo gaztik daukite dena nastuik* ‘oraingo gazteek daukate dena nahasirik’ (Ig.), *asteroko rekadiste daukiu au* ‘asteroko rekadista (< gazt. recadista) daukagu hau’ (Arru.), *mutille bauki(i)* ‘mutila badaukate’ (Bar.).

-i-dun adizkiak *-e*-dunekin txandaka ageri dira maiz. *-e*-dunak, hain zuzen, asimilazioz sortuak dira (*daukat* > *dauket*). Gure eremuan mendebalera egin ahala, gero eta ohikoagoa da *-e*- entzutea. Aldatz herrian jarriko genuke guk muga: han eta handik mendebalera, *-e*- bildu dugu kasu guztietan, baita Araitz-Betelun ere. Hona zenbait adibide: *ao daoke eta eztake erremedioik* ‘hau dauka eta ez dauka erremediorik’ (Bar.), *Markoxek emana auket nik* ‘Markoxek emana daukat nik’ (Ald.), *saarrak dauken porkeri guzie* ‘sagarrak daukan porkeria (< gazt. porquería) guzia’ (Bet.), *oainddo beitan dauket* ‘oraindik begietan daukat’ (Uzt.), *ezkuntzeko gooa daukezola* ‘ezkontzeko gogoia daukazula’ (In.), *amairu ttitteen neauken loka at* ‘hamahiru txitarekin neukan loka bat’ (In.).

Ohar gisa, subjektua hirugarren pertsona plurala denean, *-i*- ageri da Araitz-Betelun ere: *Errazkingo errota beiran baitaukie* ‘Errazkingo errota behean baitaukate’ (Bet.), *antxe bertan zeaukien* ‘hantxe bertan zeukaten’ (Gai.). Baina *-i* horrek beste jatorri bat duelakoan gaude; gure ustez, *dauke-e* formatik sortua litzateke *daukie* forma, eta *zauke-en* formatik, berriz, *z(e)aukien* (kontuan izan *-e* dela hirugarren pertsona pluraleko morfema Araitz-Betelun). Areago, *dakee*

‘daukate’ bildu dugu Larraungo Azpirotzen. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *daukite* ‘daukate’, *zaukiten* ‘zeukaten’ erabiltzen dira, eta Larraunen, berriz, *daukii* eta *zaukiin* dira ohikoenak.

Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan, *-e-* ageri da eremu zabalean (Hurtado 2001: 55-56), eta *-e-* dugu, halaber, Leitzan eta Areson (Olano 1998: 192, 217-218).

Zenbait kasutan, *-au-* diptongoa monoptongatu egin da (*-au-* > *-a-*), eta honako forma hauek sortu dira: *daket*, *dake*, *dakeu* & *dakiu*, *dakezu* & *dakezo*... Etxalekun, Baraibarren, Uitzin eta Azpirotzen bildu ditugu forma horiek, baina diptongoa zein monoptongoa biak nahaska ageri dira herri horietan, baita hiztun beraren jardunean ere. Hona monoptongatutako zenbait adibide: *seme at take* ‘seme bat dauka’ (Etxal.), *orrek Iruñen dake pisue* ‘horrek Iruñean dauka pisua’ (Etxal.), *Ernanin daket aizpet* ‘Hernanin daukat ahizpa bat’ (Etxal.), *etzakiula autoik* ‘ez daukagula autorik’ (Etxal.), *flemona balin baziñaken* ‘flemona (< gazt. flemón) baldin bazeneukan’ (Etxal.), *beroa daket* ‘beroa daukat’ (Bar.), *zuk ziñaazken ollo atzuk* ‘zuk zeneuzkan oilo batzuk’ (Ui.), *etzaken besteik* ‘ez zeukaten besterik’ (Ui.), *balen bazeaken onek zakurren epurdin bordan bat* ‘baldin bazeukan honek zakurraren ipurdian bordaren bat’ (Ui.), *azkure dakezonen* ‘azkura daukazunean’ (Ui.), *baazket moned oik, danak baazket nik oik* ‘badauzkat moneda (< gazt. moneda) horiek, denak badauzkat nik horiek’ (Ui.), *joan bearra kezo* ‘joan beharra daukazu’ (Ui.). Gamindek Uitzin, Areson eta Berueten bildu ditu halakoak (1985c: 119, 161, 359), eta *Elk* Uitzin eta Azpirotzen (1984: 234), baina beste euskal hizkera batzuetan ere antzeko monoptongazioa gertatu da; esate baterako, Gipuzkoako ipar-ekialdean, ohikoak dira *dakat*, *dakazu* eta halako formak.

Azkenik, Larraungo Aldatz eta Albiasu herrietan, eta Araitz-Betelun entzun dugu orainaldiko lehen pertsona pluraleko adizki hau: *dauku(u)* ‘daukagu’. Herri horietan, *daukeu* eta *daukiu* ere erabiltzen dituzte, eta, gure ustez, *-eu-* (> *-iu-*) > *-u(u)-* murrizketa gertatu da hor. Hona Aldatzen bildutako adibide bat: *falta de costumbre (d)aukuu guk* ‘falta de costumbre (< gazt.) daukagu guk’. Gamindek herri gehiagotan bildu du forma hori: Oderitzen (1985c: 95), Baraibarren (1985c: 113), Lezaetan (1985c: 131), Betelun (1985c: 137), Uztegin (1985c: 143), Azkaraten (1985c: 149), Leitzan (1985c: 155), Beramendin (1985c: 341) eta Etxalekun (1985c: 341). Olanok *dauku* dakar, halaber, Leitzarako (1998: 79). Gipuzkoako hainbat hizkeratan ohikoak dira halakoak, hala nola Zaldibian (K. E.).

8.4.21. “Heldu + izan” egitura

Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ohi den bezala, “etorri” aditzaren forma trinkoen ordez, “heldu + izan” egitura erabiltzen da gure eremu osoan: *eldu a* ‘heldu da; badator’. Ezaugarri horren muga Gipuzkoako mugan dago: Araitz-Beteluren ondoan den Amezketan, *nator* gisakoak erabiltzen dituzte, eta berdin Gipuzkoako hizkera gehientsuenetan (baina salbuespena da, esate baterako, Oiartzun; Fraile eta Fraile 1996: 127).

Kontuan izanik euskara zaharrearan oro har gaur egun baino adizki trinko gehiago zegoela (Azkarate eta Altuna 2001: 154, Gomez eta Sainz 1995: 238), pentsatzekoa da berria dela “heldu + izan” egitura. Hain zuzen, *nator* sailekoak ageri dira idazle nafarren testu zaharretan ere, hala nola Iruñeko olerkietan 1609an edota Beriainen lanetan 1621ean eta 1626an.

Araitz-Betelun, hiztun gehienek “heldu + izan” egitura baliatzen badute ere, *nator* saileko adizkiak ere entzun daitezke. Batez ere gazteek erabiltzen dute sail trinkoa, baina adineko eta helduen ahotan ere entzun izan dugu ezaugarri hori. Inoiz galdu ote zen guztiz *nator* saila Araitz-Betelun? Ez dugu zalantzarik “heldu + izan” egitura berriak sarbidea izan zuela Araitz-Betelun, baina ez gaude ziur adizki trinkoak guztiz galdu izango ote ziren. Nolanahi ere, ondoko Gipuzkoako herrietara ez zen egitura berri hori iritsi, eta *nator* sailak iraun du gaurdaino; horrek eragin du, gure ustez, batez ere gazteek *nator* erakoak gehiago erabiltzea. Alegia, baliteke sail trinkoa inoiz ez galdu izana Araitz-Betelun, baina garbi dago, alde batetik, “heldu + izan” (ia?) nagusitu egin zitzaiola (hiztun gehienek baliatzen baitute), eta, bestetik, Tolosaldeko herrietan adizki trinkoek iraun izanak Araitz-Beteluko gazteek (batez ere) ere adizki horiek erabiltzea ekarri duela.

Larraunen ere entzun ditugu *nator* erakoak kasuren batean; Intzak berak *nator* sailekoak bildu zituen Larraunen, baina ez dugu uste berak zioen bezain zabaldua daudenik (1957: 103-104).

8.4.22. Aditzoinaren erabilera

Gaur egun, Euskal Herriko ekialdeko ezaugarria da partizipioa eta aditzoina zuzen bereiztea (Zuazo 2008: 220). Zuazok dioenez, aditzoina guztiz galdua da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoako mendebalean; Nafarroako mendebalean eta Gipuzkoako ekialdeko hizkera batzuetan, berriz, aditzoina egon badago, baina ez dituzte zuzen bereizten aditzoinaren eta partizipioaren esparruak. Lakarrari jarraituz, euskara zaharrearan bereizkuntza egiten zen; bizkaieran, XVI. mendean hasi zen

aldaketa, eta, gipuzkeran, XVIIan, eta aldaketa guttiz gauzatua zen XVIIIrako (1996: 185-188). Nafarroa Garaian, XVII. menderako gutxienez hasia zen aldaketa; Beriainek, esate baterako, bietarikoak erabili zituen 1621ean eta 1626an.

Gure eremuari dagokionez, oro har, partizipioa erabiltzeko joera dago, baina aditzoina ere ageri da zenbait kasutan. Agintera-perpausetan, askotan entzun dugu aditzoina —gehienetan, esango genuke—, nahiz eta badiren partizipioaz eratutako egiturak ere. Eremuko lau ibarretan bildu ditugu aditzoinaren adibideak: *espea zazo* ‘espera ezazu’ (Gol.) & *espea zan* ‘espera ezan’ (Ald.), *eskaiozo* ‘eskatu egiozu’ (Gol.), *etor zatte* ‘etor zaitez’ (Osk.) & *etor zattez audo* ‘etor zaitez agudo’ (Iri.), *paa zazu* ‘para ezazu’ (Its.) & *oe paa zazo* ‘hori para ezazu’ (Beru.), *baja zaiezu* ‘baja (< gazt. bajar) iezadazu’ (Gar.), *yar zatte* ‘jar (eseri) zaitez’ (Ig.), *gosal zazu* ‘gosal ezazu’ (Bar.), *bazkal zazu* ‘bazkal ezazu’ (Bar.), *artzazo* ‘har ezazu’ (Iri.), *pentsa zazo* ‘pentsa ezazu’ (Alb.), *geldi ai* ‘geldi hadi’ (Ui.), *kentzak* ‘ken ezak’ (Ui.), *kentzezu arropa oik* ‘ken itzazu arropa horiek’ (Erra.), *sar ai emen* ‘sar hadi hemen’ (Gai.), *bei zazo* ‘begira ezazu’ (Azk.), *erregu zazo* ‘erregu ezazu’ (Gai.), *ekartzak ik!* ‘ekar ezak hik!’ (Uzt.), *onezkoa balen baaiz, mintzai, ta gaiztozkoa balen baaiz, ondai* ‘onezkoa baldin bahaiz, mintza hadi, eta gaiztozkoa baldin bahaiz, honda hadi’²⁴⁹ (Bet.), *lurpean sar nazazue* ‘lurpean sar nazazue’ (Uzt.)²⁵⁰. Horiekin batera, partizipioa ere bildu dugu agintera-perpausetan: *jarri ai or* (Arru.) & *jarre ai or* (Ald.) ‘jar hadi hor’, *etorri zaitte* ‘etor zaitez’ (Erra.), *moztu zak* ‘moztu ezak’ (In.).

Ahalera-perpausetan, partizipioa sumatu dugu gehien-gehienean eremu osoan: *kendu dezaket txaketa?* ‘ken dezaket txaketa?’ (Gol.), *yauntzi dezazket* ‘jantz ditzaket’ (Gar.), *eosi dattike* ‘eros daiteke’ (Beru.), *Biuta etorri zaizke* ‘Beruetera etor zaitezke’ (Ig.), *eosi dizakiu* ‘eros dezakegu’ (Ig.), *ekusi zitezkek* ‘ikus daitezkek’ (Od.), *maternidadin ama geittu itteke neskatoakin?* ‘maternidadean (< gazt. maternidad) ama geldi daiteke neskatoarekin?’ (Bar.), *jarre al dezazket?* ‘jar al ditzaket?’ (Ald.), *aurrea etzittekean seittu* ‘aurrera ez zitekeen segitu’ (Erra.), *ez nezake esplikatu* ‘ez nezake esplika’ (Azk.), *eztezake muittu* ‘ez dezake mugitu’ (At.), *ez ditteke edifikatu ezer ee* ‘ez daiteke edifika(tu) ezer ere’ (In.), *zabaldu leike* ‘zabal(du) liteke’ (Bet.). Aditzoina ez da ohikoena ahalera-perpausetan, baina bada adibideren bat edo beste: *sar dattike* ‘sar daiteke’ (Beru.), *gue lanak espea dezake* ‘gure lanak espera dezake’ (Iri.), *jar ditteke go(g)or* ‘jar daiteke gogor’ (Bet.), *suerte txarra ekar zezakelako* ‘zorte txarra ekar zezakeelako’ (Gai.).

²⁴⁹ Ipuin-formula bat da, eta baliteke egitura fosildua izatea.

²⁵⁰ Ipuin-formula bat da, eta baliteke egitura fosildua izatea.

Azkenik, subjunktibo-perpausetan (kontuan izanik oso gutxitan baliatzen dela subjunktiboa), batik bat partizipioa erabiltzen da, baina bada aditzoinaren adibideren bat ere: *paas daila* ‘pasa dadila’ (Etxal.), *ikas zala* ‘ikas dezala’ (Erra.), *gei daiela* ‘geldi dadila’ (Uzt.), *onda daila* ‘honda dadila’ (Bet.); baina *sendatu deilla neskato au* ‘senda dadila neskato hau’ (Bar.), *eosi deiztela* ‘egos daitezela’ (Bet.).

8.4.23. Partizipio analogikoak

Partizipio analogikoak Euskal Herriko erdigune zabalean ageri dira (Camino 2003a: 84): Gipuzkoan, Lapurdiko mendebalean, Nafarroa Garaiko Bortzirietan, Leitzan, Sakanan edota Ultzaman, eta baziren hegoalderago dauden Gesalitzen, Goñerrian, Ollaranen, Oltzan edota Eguesibarren ere, besteak beste. Ez dira, ordea, ageri ez Baztanen ez Aezkoan. Aski ezaugarri zaharra da, XVII. mendetik aurrera behinik behin ageri baita.

Gure eremu osoan bildu ditugu partizipio analogikoak, baina bada aldea herri batetik bestera. Badira herri guzti-guztietan ohikoak diren formak: *izandu* (& *izando*) ‘izan’, *eondu* & *iondu* (& *eondo* & *iondo*) ‘egon’ eta *bizittu* & *bizitto* ‘bizi’.

Baina gainerako formen hedadura ez da bera, eta hori zehazki azaltzen saiatuko gara hemen. Banan-banan emango ditugu gure eremuan bildu ditugun partizipio analogikoak:

- *jakindu* ‘jakin’: Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen bildu dugu, baina *jakin* erabiltzen dute Araitz-Betelun. Honako aldaera hauek bildu ditugu: *jakindu* (Etxal., Ud., Od., Iri., Arru., Alb., Ui., Gorr., Azp., Erra.), *yakindu* (Ig.), *yakindo* (Beru.), *jakinddo* (Ald.).
- *eukittu* ‘eduki’: aski sistematikoki entzun dugu Urritzan, Oskotzen, Etxalekun, Itsason, Oderitzen, Baraibarren, Gorritin eta Azpirotzen. Gainerako herrietan galdetu dugunean, *euki* & *iuki* eman digute beti. Hauek dira jasotako aldaerak: *eukittu* (Etxal., Gorr., Azp.), *iukittu* (Urr., Osk., Its., Bar.), *eukitto* (Od.). Araitz-Betelun, *euki* da ohiko aldaera, baina behin gutxienez entzun dugu *eukittu* Gaintzan (*pisko aten berotzen eukittu* ‘pixka batean berotzen eduki(tu)’), eta *eukittuko zun bildurre* ‘eduki(tu)ko zuen beldurra’ eta *eukittutakon bat* ‘eduki(tu)takoren bat’ adibideak ere bildu ditugu Arriben eta Atallun,

hurrenez hurren.

- *gordetu* ‘gorde’: Goldaratzen, Urritzan, Etxalekun, Itsason, Gartzaronen, Udaben, Igoan, Berueten eta Aldatzen bildu dugu. Hona aldaerak: *gordetu* (Gol., Urr., Etxal., Its., Gar., Ud.), *gordeto* (Ig., Beru., Ald.).
- *ibilttu* ‘ibili’: Latasan, Etxalekun, Berueten eta Uitzin entzun dugu. Aldaerak: *ibilttu* (Etxal.), *iilttu* (Lat., Ui.), *iildu* (Ui.), *iillo* (Beru.). Gorritin, *iillitu* jaso genuen behin, baina *iilli* da hango aldaera orokorra. Aldatzen esan digute etxarriarrek *iilttu* esaten dutela, eta deigarria zaiela, *iilli* erabiltzen baitute berek.
- *iraundu* ‘iraun’: Goldaratzen, Muskitzen eta Oderitzen bildua.
- *bialdu* ‘bidali’: Arraratsen, Gorritin, Azpirotzen, Errazkinen eta Araitz-Betelun bildu dugu. Latasan eta Itsason ere entzun dugu, baina *biali* aukerarekin batera. Gainerako herrietan, *biali* edo haren aldaeraren bat bildu dugu: *biali* (Lat., Gol., Era., Etxal., Gar., Ud., Its.), *bieli* (Osk., Mus.), *biale* (Beru.). Etxaideren datuetan, *bialdu* eta halakoak ageri dira (1989: 338-339): Beratsainen (Atetz), Etxalekun, Itsason, Berueten, Uitzin, Oderitzen, Aldatzen, Azkaraten, Areson, Sakanan, Eratsunen (Basaburu Txikia), Iturenen (Malerreka), Lesakan, Arantzan eta Aezkoan. Banaketa zurruna egin du Ibarak (1995a: 494): *bigeli* eta *igorri* Ultzaman vs. *bialdu* Imotzen eta Basaburu Nagusian. Horren harira, ez dugu esango *bialdu* entzuten ez denik Imotzen eta Basaburu Nagusian, baina, zalantzarik gabe, *biali* gisakoak dira han nagusi.

Badirudi, beraz, eremu osoan erabiltzen direla partizipio analogikoak, baina Araitz-Betelu bereiz ageri da *jakindu*, *gordetu*, *iilttu* eta *iraundu* formetan, halakorik ez baita ageri han. Larraun aukera batetik bestera dantzan dabilela ematen du.

Kontrako bilakabidea gertatu da Errazkinen eta Araitz-Beteluko herrietan erabiltzen den *zapali* ‘zapaldu’ partizipioan. Eremuko gainerako herrietan, beste aukera batzuk erabiltzen dituzte adiera horretan: *zamatu*, *zapatu*, *zanpatu*... *zapaldu* ere entzun dugu inoiz. Ez dakigu zein den *zapali* aldaeraren hedadura, baina inguruko hizkeretan galdezka ibili gara (Leitza, Basaburu Txikia, Amezketa), eta ezezkoa jaso dugu beti.

-*tu*, -*du* partizipioari -*t(z)en*, -*t(z)eko*, -*t(z)eagatik* eta halako atzizkiak gehitzean, -*tutze* forma pleonastikoa sortu da gure eremu osoan: *moztutzen* ‘mozten’, *artutzen* ‘hartzen’, *urtutzen* ‘urtzen’,

beztutzen ‘belzten’, *ondutzeko* ‘ontzeko’, *moztutzeko* ‘mozteko’, *ustutzeko* ‘husteko’, *oztutzeako* ‘hozterako’. Caminok argitu duenez, Euskal Herriko erdigune zabaleko ezaugarria da hori (2003a: 85). -i partizipioetan, aldiz, pleonasmorik gabeko formak bildu ditugu oro har (*erakusten*, eta ez ***erakutsitzen*), salbu adibide hauetan: *azitzen* ‘hazten’ (orok.), *ertsitzeko* ‘hesteko’ (Oro.), *eroitzen* ‘erortzen’²⁵¹ (Ar.-Bet.).

8.4.24. “Egin” aditz-indartzailea

Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeren ezaugarria da “egin” aditz-indartzailea erabiltzea (Zuazo 2008: 216).

Eremu horrekin batera doaz aztergai ditugun lau ibarrak ere. Hona zenbait adibide: *Gaztelak nasi itten do* ‘Gaztela (haizea)k nahasi egiten du’ (Gol.), *zize-larreak desaparezittu in dee* ‘zizal- larreak desaparezitu (< gazt. desaparecer) egin dira’ (Lat.), *sega eosi itten tzen, ta geo bakotxak beak pikatu* ‘sega erosi egiten zen, eta gero bakoitzak berak pikatu’ (Lat.), *ama bota iñ emen tzun* ‘ama bota egin omen zuen’ (Urr.), *ordun ee ez giñun ikusiko, biño esan itten tzuten* ‘orduan ere ez genuen ikusiko, baina esan egiten zuten’ (Era.), *oik plantatu itten dee* ‘horiek plantatu egiten dira’ (Era.), *aztu in zazke* ‘ahaztu egin zaizkit’ (Era.), *nik ordun zaplastekoak sentittu in nittun* ‘nik orduan zaplastekoak sentitu egin nituen’ (Etxal.), *komentuk-eta erre itten zittuten* ‘komentuak-eta erre egiten zituzten’ (Etxal.), *zergatiken kerte guzik tapatu in tzittuten* ‘zergatik(an) kerte guziak tapatu egin zituzten’ (Etxal.), *lineak kortatu itten zittuten* ‘lineak kortatu (< gazt. cortar) egiten zituzten’ (Etxal.), *denuntzietu itten tzuten* ‘denuntziatu (< gazt. denunciar) egiten zuten’ (Mus.), *kastigatu itten tziuten* ‘kastigatu (< gazt. castigar) egiten ziguten (gintuzten)’ (Arrar.), *kantatu itten tzuten* ‘kantatu egiten zuten’ (Arrar.), *elurre urtu itten tzen* ‘elurra urtu egiten zen’ (Ud.), *gorde itten da aixe kattaorrii, e!* ‘gorde egiten da aise katagorria, e!’ (Ud.), *denai prejubiletu in tziuten* ‘denei (denak) prejubilatatu egin ziguten (gintuzten)’ (Oro.), *nekatu itten tzaa* ‘nekatu egiten zara’ (Oro.), *ardoa eanta mozkortu re itten naiz* ‘ardoa edanda mozkortu ere egiten naiz’ (Oro.), *eroi in yatteke* ‘erori egin haiteke’ (Ald.), *belar aik jan itten giñuzen* ‘belar haiek jan egiten genituen’ (Ald.), *ferie joan da gosaldo eitten tzuen gizonak* ‘feriara joan eta gosaldtu egiten zuten gizonak’ (Alb.), *errotak e itxi in tzittuen* ‘errotak ere itxi egin zituzten’ (Gorr.), *afusilatu in tzittuen* ‘afusilatu egin zituzten’ (Gorr.), *kendu in bearoko izot* ‘kendu egin beharoko dizut’ (Ui.), *batean arrapatu in tzittuela or zibillek* ‘batean harrapatu egin zituztela hor zibilek’ (Azp.), *beeinketu itten tzien aurrena*

²⁵¹ Imotzen eta Basaburu Nagusian (salbu Beruete), *bota* erabiltzen dute adiera horretan (ikus 8.6.4.).

‘bedeinkatu egiten ziren aurrena’ (At.), *bi ordu iñ in bear tzuen an* ‘bi ordu egin egin behar zuten han’ (In.), *kastigue, belauneko jarrita, iñ iñ bearco ziñun aik esaten tzuen artean!* ‘kastigua (< gazt. castigo), belauniko jarrita, egin egin beharko zenuen haiek esaten zuten artean!’ (At.).

Baina aditz nagusiaren aurretik ere joan daiteke “egin” indartzailea gure eremuan, eta, horren ondorioz, honako egitura hauen tankerakoak sortu dira: *sekatzen bada audo, itten da lertu; lertu itten da* ‘sekatzen bada agudo, egiten da lehertu; lehertu egiten da’ (Urr.), *bei bet in tzen gaizkittu* ‘behi bat egin zen gaizkitu’ (Urr.), *belaxe in tzen mutilatu* ‘berehalaxe egin zen mutilatu’ (Gol.), *elurrii eitten tzen ataitan paatu* ‘elorrria egiten zen atarietan paratu’ (Gol.), *itxean eraitten baittuzu, gero itten ttuzu trasplantatu* ‘etxean ereiten badituzu, gero egiten dituzu trasplantatu’ (Etxal.), *oik itten tzien erosi* ‘horiek egiten ziren erosi’ (Mus.), *batzuk itten tzioten bota gatza* ‘batzuek egiten zioten bota gatza’ (Mus.), *in tzaa pastu re?* ‘egin zara pasatu ere?’ (Ud.), *lenau iñ emen tzen asarretu* ‘lehenago egin omen ziren haserretu’ (Er.), *bander ore in tzuten erre eskolako atarin* ‘bandera hura egin zuten erre eskolako atarian’ (Er.), *in tzen gaixoto* ‘egin zen gaixotu’ (Gai.), *itten giñun zimittioan bota* ‘egiten genuen zimiterioan bota’ (Gai.), *ardi-illea in bear da garbittu* ‘ardi-ilea egin behar da garbitu’ (Gai.), *guk eitten giñun deskargatu* ‘guk egiten genuen deskargatu’ (Gai.), *eitten giñun eur batzu(k) sartu* ‘egiten genuen egur batzuk sartu’ (Gai.), *aurrena itten giñun laan atekin artu arrastan-arrastan* ‘aurrena egiten genuen laban batekin hartu arrastan-arrastan’ (Gai.), *in bear tzen orratxakin txule-txule-txula iñ* ‘egin behar zen orratxarekin zula-zula egin’ (At.), *pixke at itten tzen zea bota, brasa atea bota* ‘pixka bat egiten zen zerara bota, brasa batera bota’ (At.), *aurrena itten da tripe(k) garbittu* ‘aurrena egiten da tripak garbitu’ (At.), *urdaiek ein bear dee oztu* ‘urdaiak egin behar dira hoztu’ (Bet.), *bakoitzek berea in bear zun itxi* ‘bakoitzak berea egin behar zuen itxi’ (Bet.), *txondor oi ein bear da eosi* ‘txondor hori egin behar egosi’ (Bet.), *urte guzin eitten tzen zikindu* ‘urte guzian egiten zen zikindu’ (Bet.), *eitten tzen oliotan sartu* ‘egiten zen oliotan sartu’ (Bet.), *eitten tzen orri erditik artesi bat in* ‘egiten zen orri erditik artesi bat egin’ (Arri.).

Gipuzkoan, salbuespenak salbuespen, halako hurrenkeran emandako egiturak ez dira arruntak, baina guztiz ohikoak dira gure eremuan eta Nafarroa Garaiko beste hainbat lekutan, hala nola Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 221-222), Altsasun eta Sakanako hizkera batzuetan

(Zuazo 1995b: 340-341) edota Malerreka aldean, eta baita Oiartzunen ere (Haddican 2006, A. Elordieta 2010)²⁵².

8.4.25. “Izan” aditzaren hirugarren pertsona pluraleko adizkiak

Bilakabide fonologiko bati erreparatuko diogu. Muskitz ez beste herri guztietan, *dee* ‘dira’ eta *zeen* ‘ziren’ formak erabiltzen dituzte hirugarren pertsona pluralerako; Muskitzen, aldiz, *die* eta *zien* bildu ditugu guk. Araitz-Betelun ere badira *die* eta *zien*, besteekin txandaka, eta Orokietan *dire* eta Erbitin *die*, *zien* formak ere entzun ditugu, *dee* formarekin batera. Larraungo Oderitz, Iribas, Arruitz eta Aldatz herrietan, *dee* eta *zeen* formekin batera, *dii* eta *ziin* ere entzun ditugu: *eoten tziin* ‘egoten ziren’ (Ald.).

Gaminderen datuetan, *dee* eta *zeen* daude Imozko eta Basaburu Nagusiko herri gehienetan; salbuespen dira Muskizko, Oskozko eta Jauntsarasko *dire* eta *ziren* (1985c: 385, 373, 331), eta Beramendiko *dere* (1985c: 337). Larrauni dagokionez, *dee* eta *zeen* dakartza Gamindek, salbu Gorritiko eta Lezaetako *die* eta Lezaetako *zien* (1985c: 121, 127). Hain zuzen, *die* eta *zien* dakartza Araitz-Beteluko herrietarako, baita Leitzarako eta Aresorako ere.

Irizarrek honako forma hauek dakartza Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretarako (1992a: 17):

- Muskitz: *dire* & *dee*, *ziren* & *zeen*.
- Oskotz: *dire*, *ziren*.
- Etxaleku: *dere* & *de*, *zen*.
- Eraso: *dee*, *zeen*.
- Goldaratz: *dee* & *de*, *zeen* & *zen*.
- Orokieta: *dee*, *zeen*.
- Gartzaron: *dee* & *de* & *die*, *zeen* & *zen* & *zien*.
- Jauntsarats: *dire*, *ziren*.
- Itsaso: *dire*, *ziren*.
- Beramendi: *dere*, *zeen*.
- Igoa: *dee*, *zeen*.

²⁵² Gai horrek joko handia ematen du sintaxian, baina ez dugu horretan sakonduko (ikus Haddican 2006, A. Elordieta 2010).

- Arrarats: *dee & die, zeen*.
- Beruete: *dee, zeen*.

Larraungo hego-ekialdean, *dee* eta *zeen* daude Irizarren datuetan, eta *zien* ere bada Etxarrin (1992b: 296-297); Larraungo ipar-mendebalean, *dee* eta *zeen* dira nagusi, baina *die* ere bada Lezaetan eta Gorritin, eta *zien* Lezaetan (1992b: 219-220). Araitz-Beteluko datuetan, *dee & dere & die & dire* eta *zeen & zien & ziren* ageri dira (1992b: 160-161).

Adibide horietan, *dira > dire* bihurtu da lehenik, *a > e* asimilazioaren ondorioz. Ondoren, *dire* horretatik *die* sortu da zenbait tokitan, eta, beste batzuetan, aldiz, *dere* eta *dee* (alegia, atzeranzko asimilazioa gertatu da). Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, *dire* eta *ziren* daude Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995a: 416-417), eta Artolak *diré* bildu du Txulapaingo Beorburun eta Usin, Anotzen, Ziaurritzen, Olaitzen, Inbuluzketan, Urnitzan, Ilurdotzen, Espotzen, Arrietan eta Azparrenen (1992: 198). Gaur egun, *die* eta *zien* dira Muskitzen nagusi (Oskotzen ere forma horiek ageri dira tarteka), eta *dee* eta *zeen* daude Imozko eta Basaburu Nagusiko gainerako herrietan; baina, ikusi dugunez, Basaburu Nagusiko ekialdean ere bildu izan dira *die* eta *zien* gisakoak (Gartzaron, Jauntsarats). Ezaugarri horretan, beraz, ekialderagoko eta hegoalderagoko hizkerekin batera doa Muskizkoa (eta, apika, baita Oskotz edota Basaburu Nagusiko ekialdea ere), hara ez baitira iritsi *dee* eta *zeen* adizki berriagoak —adibideren bat bada, baina ahul—.

dere eta *zeren* gisakoak Nafarroa Garaiko erdiguneko berrikuntzat hartu ditu Caminok (2003a: 87): badira Altsasun, ekialdeko Arakilen, Gulibarren, Ezkabarten, Odietan, Olaibarren, Txulapainen (behin edo beste), Goñerrian, Ollaranen, Oltzan, Eguesibarko Elkanon, Agoitzen, Longidako Mugetan eta Artzibarko Uritzen. Gulibarko Zian eta ibar bereko Larunbe herriko Oraien auzoan ere ageri dira (Camino 2009a: 402-403). Haiekin batera doaz Imotz eta Basaburu Nagusi gehiena, Larraun eta Araitz-Betelu. Ez dago halako aditz-formarik, aldiz, Gesalätzen, Garesen, Esteribar-Erroibarren, Aezkoan, Elortzibarren edota Utergako eta Ukarko doktrinatan (Camino 2003a: 87).

Ez Gamindek ez Irizarrek ez dakarte Larraungo *dii* eta *ziin* formen berri. Guk, esan bezala, *dee* eta *zeen* formekin batera entzun ditugu. Baina bai Gamindek bai Irizarrek *die* eta *zien* formak bildu dituzte Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun; guk ere entzun izan ditugu, baina

betiere *dee* eta *zeen* nagusi direla. Hain zuzen, hizkera horien ingurumarian *die* eta *zien* ageri dira (Leitza eta Areso, Gipuzkoako hizkerak).

8.4.26. Ohar bat nor-nori saileko 1. pertsona pluraleko adizkiez

Araitz-Betelun, ahoskabea da bokal arteko herskari belarra honako adizki hauetan: *zaku* ‘zaigu’, *zitzakun* & *zakun* ‘zitzaigun’. Adibideak: *tokatu izandu zaku txikiatu txerrie, da kanpotik deus etzauken* ‘tokatu izan(du) zaigu zikiratu txerria, eta kanpotik deus ez zeukan’ (At.), *gertatzen zakun... ez askotan, biño gertatu zitzakun gañezka itten tzula* ‘gertatzen zitzaigun... ez askotan, baina gertatu zitzaigun gainezka egiten zuela’ (Bet.), *etorri zakun* ‘etorri zitzaigun’ (Bet.).

Gutxi-gutxitan entzun ditugu halakoak (eta lehen pertsona pluraleko adizkietan baino ez), baina euskara giputzaren tankera ematen diote hango euskarari. Hain zuzen, Irizarrek Gipuzkoako hainbat hizkeratan bildu zituen halakoak: Berastegin (Irizar 1991a: 226-249), Bidanian (Irizar 1991a: 258-295), Amezketan (Irizar 1991b: 86-118), Zegaman (Irizar 1991b: 24-78), Urretxu-Zumarragan (Irizar 1991b: 126-140), Zaldibian (Irizar 1991b: 148-161), Legazpin (Irizar 1991b: 170-181), eta abar. Hurtadok dio Goierrin egon badaudela halako formak, baina atzera egiten ari direla; izan ere, Azkuek Tolosaldean ere bildu zituen XX. mendearen hasieran, baina han gaur egun ez dago halakorik (2001: 93-94). Bestalde, Amezketan gaur egun arrotzak direla esan digu B. Gorostidi amezketarrak. Alabaina, Gipuzkoako eta Bizkaiko hizkera batzuetan, beste adizki batzuetan ere ageri da *-k-* hori erroan; esate baterako, Zarautzen ohikoak dira *zaio* & *zako* ‘zaio’, *zaiok* & *zakok* ‘zaiok’, *zaion* & *zakon* ‘zaion’, *zaigu* & *zaku* ‘zaigu’, *zitzaion* & *zitzakon* ‘zitzaion’, *zitzaioen* & *zitzakoien* ‘zitzaien’, eta abar (Agirrebeña, Maiz, Muniozguren, Sarasua eta Zabaleta 2007: 71).

Gipuzkoako testu zaharrak arakatuz, Otxoa Arin ordiziarrak *zacu* gisakoak baliatu zituen 1713an (Altuna 1992: 578), eta *Izar-eder-bat-etorri-zaku* adibidea ageri da Deba aldekoa dirudien testu batean XVII. mendean (Sarasola 1990 [1983]: 76-77). Aranburuk eta bestek dakartenez, *natzaco* & *nazaco* ‘natzaio’, *zacu*, *zaizcu*, *citzacon* & *cizacon* eta halako adizkiak ageri dira Otxoa Arin, Gerriko eta Amundarain idazle gipuzkoarren lanetan, eta baita Zegamako 1848ko doktrinan ere (1999: 99-100). Halaber, *zaka* & *zako* ‘zaio’ eta *zaku* ‘zaigu’ adizkiak ageri dira Zegamako 1741eko doktrinan (Ondarra 1984: 12).

8.4.27. *-ki* aditz-atzizkia

Iparraldeko goi-nafarreran, hegoaldeko goi-nafarreran eta handik ekialdera ageri da *-ki* aditz-atzizkia (Iñigo, Salaberri eta Zubiri 1995: 279); euskara nafarraren eta nafar-lapurarraren ezaugarritzat hartu du Zuazok (2008: 206). Hain zuzen, idazle lapurtarrek eta nafarrek erabili izan dute batik bat; aski berandu ageri da, ordea, testuetan, eta gramatikan, esate baterako, oso gutxi (eta berandu) aipatu izan dute. Ekialdeko ezaugarritzat jotzen da eskuarki; alegia, iparraldeko eta hegoaldeko goi-nafarreraz eta ekialderagoko hizkeretan ageri da, eta itzaliak diren zenbait hizkeratan ere izango zen, Lizarraga Elkanokoak bai baitzerabilen, esate baterako (Iñigo, Salaberri eta Zubiri 1995: 250). Hiru erabilera nagusi ditu:

- a. Perpaus oso bat hanpatzeko: *zulo artan sartua egoki azeria!* ‘= zulo artan sartua egon azeria!’
- b. Puntukaritasuna adierazteko: *an egoki* ‘= han zegoen’
- c. Diosal egiteko: *zer, egoki?* ‘= zer, egonean?’

Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan eta Imozko Etxalekun (behin) bildu dugu *-ki* aditz-atzizkia. Orokietan, b. erabilera islatzen duten bi adibide entzun ditugu: *guk ez yakinki erdeas, ta zenbat aldis lotsatu!* ‘guk ez jakinki (= genekien) erdaraz, eta zenbat aldis lotsatu!’, *ta besteak yakinki ez* ‘eta besteak jakinki ez (ez zekien)²⁵³. Horrez gain, a. erabilera ere entzun dugu Orokietan.

Gartzaronen eta Erbitin, berriz, a. erabilera sumatu dugu batik bat: *ori kasualidadea, aizu, guk ardik bordan izaki!* ‘hori kasualitatea, aizu, guk ardiak bordan izaki!’ (Gar.), *ue etorri, ta ni ez itxean izaki!* ‘hura etorri, eta ni ez etxean izaki!’ (Gar.), *oi pastu, ta guk ez yakinki, aizu!* ‘hori pasatu, eta guk ez jakinki, aizu!’ (Gar.). Gartzaronen, *yoaki* eta *eoki* arraroak direla esan digute, eta beste hauek eman dizkigute: *enakin senarra non tzeon, ta, ara, Iruñean eon!* ‘ez nekien senarra non zegoen, eta, hara, Iruñean egon!’, *elurre eon, ta, ala(i) re, ni yoan!* ‘elurra egon, eta, hala ere, ni joan!’. Erbitin ere arrotza zaie *yoaki*, baina *eoki* bada: *txakurre bille ta bille ta bille, ta itxean eoki!* ‘txakurra(ren) bila eta bila eta bila, eta etxean egoki!’. Bestalde, b. erabilera ageri da Erbitiko adibide honetan: *ore alkate izaki, ta andik artu amaarjiñe bizkarriin, ta Erbitiko elizara* ‘hura

²⁵³ Bigarren adibide hori ongi ulertzeko, hona hemen testuingurua: bi lagun solasean ari ziren, herrian apez egondako pertsona bati buruz, eta hari bestek egindako makurkeria bat aipatu zuten; batak makurkeria kontatu zuen, eta besteak, orduan, zera gehitu zuen, “ta besteak yakinki ez”. Alegia, makurkeria hura egin zioten, eta apezak ez zekien.

alkate izaki, eta handik hartu amabirjina bizkarrean, eta Erbitiko elizara [eraman zuen]’. Beraz, c. erabilerarik ez dugu bildu Basaburu Nagusiko ekialdean.

Etxalekun, berriz, a. erabilera islatzen da adibide honetan: *Joanek bezala, iruitzen baakitela, ta denak ez jakinki!* ‘Joanek bezala, iruditzen badakitela, eta denak ez jakinki!’. Nolanahi ere, *ta denak ez jakin* gisakoak ere ohikoak dira Etxalekun.

Iñigo, Salaberri eta Zubiri ikertzaileek a. eta c. erabileretan bildu dute *-ki* Erbitin, eta a. erabileran Itsason eta Berueten²⁵⁴ (1995: 290-291). Inguruko hizkerei dagokienez, Ultzamako Alkotzen eta Iraizotzen (1995: 282-283), Atezko Beuntzan (1995: 289-290), Basaburu Txikiko Ezkurran, Eratsunen eta Saldiasen (1995: 287), eta Leitzan (1995: 286) ere ageri da, baina ez Basaburu Nagusitik mendebalerako hizkeretan.

8.5. Perpausaren morfologia

8.5.1. Kausa-perpausetako morfema

Euskara nafarraren eta Ipar Euskal Herriko hizkeren ezaugarria da *-laktz* gisako kausa-morfemak erabiltzea (Zuazo 2008: 216). Gure eremuan, *-lakos* morfema erabiltzen dute Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean²⁵⁵. Hona adibideak: *etzutelakos eunero ibiltzeko espartziñik* ‘ez zutelako(z) egunero ibiltzeko espartinik’ (Osk.), *euskeas itten tzutelakos eskoletan kastigetuta dena itten tzittuten* ‘euskaraz egin zutelako(z) eskoletan kastigatu eta dena egiten zituzten’ (Etxal.), *itseskie eraitten tziñun prezisamente bear tziñulakos ortako* ‘itsaskia ereiten zenuen prezisamente (< gazt. precisamente) behar zenuelako(z) horretarako’ (Etxal.), *ikas du estudiatu dulakos ta gustatzen zaiolakos* ‘ikasi du estudiatu duelako(z) eta gustatzen zaiolako(z)’ (Etxal.), *oso baldarra zelakos “Eskalaproiñ” esaten*²⁵⁶ *tzioten* ‘oso baldarra zelako(z) “Eskalaproiñ” esaten zioten’ (Gar.), *izautzen ttutelakos, gañeakoan...* ‘ezagutzen ditudalako(z), gainerakoan...’ (Gar.), *[ezkille] artu ta Itsasoa karri zutelakos asarretu zeen* ‘ezkila hartu eta Itsasora ekarri zutelako(z) haserretu ziren’ (Er.), *presakan aitzen delakos* ‘presaka(n) aritzen delako(z)’ (Beru.), *maiztarra ziñelakos* ‘maizterra zinelako(z)’ (Oro.), *lotsa ematen deelakos* ‘lotsa ematen didalako(z)’ (Oro.), *aik debalde yoaten deelakos* ‘haiek debalde joaten direlako(z)’ (Beru.), *geoken terrenoa*

²⁵⁴ Oskotzen ere bildu dute, baina Migel Ziganda aukeratu zuten berriemiletako, eta hura ez zen oskoztarra, Atezko Beuntzan jaioa eta gerora Oskotza ezkondua baitzen. Beraz, ez da datu ziurra.

²⁵⁵ Zuazok *-koltz* eta *-tektz* ere aipatzen ditu euskara nafarraren eta Ipar Euskal Herriaren ezaugarri gisa (ez dira kausazkoak), baina guk, horrelakoetan, *-ko* eta *-teko* bildu dugu gure eremukoko herri guztietan.

²⁵⁶ *erran* ohikoagoa da Gartzaronen, baina hiztunak *esan* erabili zuen adibide horretan.

paasten tzeelakos ‘geronen terrenora pasatzen zirelako(z)’ (Ig.), *Ireese joaten giñen parientik giñuzelakos* ‘Iribasa joaten ginen parienteak genituelako(z)’ (Od.), *bota zuin etxetik paatzen etzulakos* ‘bota zuten etxetik pagatzen ez zuelako(z)’ (Arru.), *joaten giñen [Aralarra] etxeko beorrak an iiltzen tzeelakos* ‘joaten ginen etxeko behorrak han ibiltzen zirelako(z)’ (Bar.), *etorri naiz ots ein ditelakos* ‘etorri naiz hots egin didalako(z)’ (Arru.), *eskolan gaizki tratatzen tzein tuertoa nitzelakos* ‘eskolan gaizki tratatzen zidaten (ninduten) tuertoa (< gazt. tuerto) nitzelako(z)’ (Arru.)²⁵⁷, *nasi deelakoz gauzek* ‘nahasi direlako(z) gauzak’ (Alb.), *ordaintze etziñulakoz* ‘ordaintzen ez zenuelako(z)’ (Ui.).

Arraratsen, *-lakos* morfemarekin batera, *-lasko* ere jaso dugu, hiztun adineko zein helduen mintzoan.

Trantsizioa Larraungo ipar-mendebalean hasten da. Albiasun eta Uitzin, *-lakoz* zein *-lako* entzun dugu, baina *-lako* besterik ez dago Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen. *-lako* dugu, halaber, Araitz-Betelun ere. Herri horiek, beraz, Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkerekin bat egiten dute. Adibideak: *etxeko beorrak an iiltzen tzeelako* ‘etxeko behorrak han ibiltzen zirelako’ (Bar.), *beandu delako* ‘berandu delako’ (Ui.), *altzak zea obea ematen tziolako, kolore obea ematen tziolako gaztae* ‘haltzak zera hobe ematen ziolako, kolore hobe ematen ziolako gaztari’ (Gai.), *ez eskerrak eman ekarri zulako* ‘ez eskerrak eman ekarri zuelako’ (Uzt.), *ematen etzuelako zen oi* ‘ematen ez zutelako zen hori’ (Bet.).

Gamindek *-lako* dakar Oderitz eta Uitzi herrietarako, eta *-lakoz* Arruitzerako (1994: 233): *beandu etorri naiz trena galdu otelako* ‘berandu etorri naiz trena galdu dudalako’ (Od.), *ezta etorri beandu delakoz* ‘ez da etorri berandu delako(z)’ (Arru.), *ezta etorri beandu delako* ‘ez da etorri berandu delako’ (Ui.).

Gure eremuko hizkeren ingurumarian, *-lakos* erakoak ditugu Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, hala nola Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 511-512), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 216-217) edota Artzibarko Arrietan (Artola 2006: 421). Gorago esan dugu morfema hori ohikoa dela euskara nafarrean eta Ipar Euskal Herrian; nolana ere, badira *-lakoz*-en arrastoak Gipuzkoako iparraldeko Oiartzunen, Erreterian, Lezon eta Hondarribian ere (Camino 2000b: 72).

²⁵⁷ Arruizko adibideak inkesta bidez jasoak dira.

Gure eremutik hegoaldera, bi aukerak baziren Txulapainen (Arana 2006: 66), eta *-lakos* baliatzen dute Sakanan (Erdozia 2001: 332). Gure eremuaren iparraldeko mugan, *-lakoz* dugu Basaburu Txikian (B. L.), eta *-lako* Leitzan, nahiz *-lakoz* ere baden tarteka (Olano 1998: 263). Azkenik, *-lako* dago Araitz-Betelu ondoko Gipuzkoan.

Nolanahi ere, pentsatzekoa da antzina hedadura zabalagoa izango zuela ezaugarri horrek Euskal Herrian; esate baterako, *-kutz*, *-tekoz* eta *-lakotz* badira Deba aldeko XVII. mendeko testuetan, gaur ez bezala (Zuazo 2006b: 1014); *escribicecoç* eta *orducoç* adibideak ageri dira Azpeitian 1622an (Satrustegi 1987b: 43); *-teracotz* morfema erabili zuen Otxoa Arinek 1713an (Aranburu eta beste 1999: 93); eta *elejaracoz* ‘para la yglesia’ eta *ezconçaracoz* ageri dira RS lanean, 1596. urtean (Lakarra 1996: 286).

8.5.2. Denbora-perpausetako morfema

Denbora-perpausetan, *-larik* eta *-nean* morfemak erabiltzen dituzte gure eremuan²⁵⁸.

-larik (> *-laik*) Goldaratz ez beste Imozko herrietan, eta Beruete eta Igoa ez beste Basaburu Nagusiko herrietan ageri da: *enkarguk zittulaik*, *itxean itten zittun* ‘enkarguak zituelarik, etxean egiten zituen’ (Urr.), *pagoa*, *sekatzen delaik*, *ariñe da* ‘pagoa, sekatzan delarik, arina da’ (Urr.), *ni allatu nitzen txondor oi kargatuik zeolaik ikusten* ‘ni ailegatu nintzen txondor hori kargaturik zegoelarik ikusten’ (Urr.), *Ramonita ezkondu zelaik* ‘Ramonita ezkondu zelarik’ (Era.), *gerra asi zelaik*, *zortzi urte nittun*, *eta*, *akaatu zelaik*, *amika* ‘gerra hasi zelarik, zortzi urte nituen, eta, akabatu zelarik, hamaika’ (Era.), *Latasaa etorri giñelaik* ‘Latasara etorri ginelarik’ (Zarr.), *bei gorrik giñuzelaik* ‘behi gorriak genituelarik’ (Osk.), *eldu zelaik gaztañe lurrea*, *ordun bildu* ‘heldu zelarik gaztaina lurrera, orduan bildu’ (Osk.), *Madriden giñaudelaik eaman tziuten Murtzire* ‘Madrilen geundelarik eraman ziguten (gintuzten) Murtziara’ (Osk.), *emen balkonean kusten deelaik erraten dee “egunon”* ‘hemen balkoian ikusten didalarik (nauelarik) erraten dit “egunon”’ (Osk.), *etor zelaik errire* ‘etorri zelarik herrira’ (Etxal.), *iote-ta itten tzelaik* ‘ihote-eta egiten zelarik’ (Mus.), *elurre itten tzuelaik* ‘elurra egiten zuelarik’ (Mus.), *ttikittoa nitzelaik il tzen ama* ‘ttikittoa nintzelarik hil zen ama’ (Mus.), *geo*, *ondorean*, *Eugikoa etorri zelaik*, *orrek dena euskeas kantatzen tzuen* ‘gero, ondoren, Eugikoa etorri zelarik, horrek dena euskaraz kantatzen zuen’ (Mus.), *epaitze-ta botzea joaten tzelaik*, *ez*; *igual*, *emen*, *errien*, *auzelanean ai ziñelaik-eta*, *ordun bai* ‘epaitza-eta

²⁵⁸ *-ela* ere bada: *garie gu ttikik giñela dexente izaten tzen* ‘garia gu ttikiak ginela dexente izaten zen’ (Oro.).


botatzera joaten zelarik, ez; igual, hemen, herrian, auzalanean ari zinelarik-eta, orduan bai' (Mus.), *olloan arrotza bota urea, ta, ore goa asten tzelaik, aski zen* 'olloaren arrautza bota urera, eta, hura gora hasten zelarik, aski zen' (Mus.), *baba eraitten giñuelaik* 'baba ereiten genuelarik' (Mus.), *zerbatte in bearra daolaik* 'zerbait egin beharra dagoelarik' (Arrar.), *tragoa itten tzelaik, yornalik etzen izaten* 'tragoa (< gazt. trago) egiten zelarik, jornalik ez zen izaten' (Arrar.), *soldado eaman tzeetelaik* 'soldadu eraman zidatarik (nindutelarik)' (Arrar.), *Igoatik Arraatsa etorri giñelaik* 'Igoatik Arraratsa etorri ginelarik' (Arrar.), *elur-lapatxa da elurre mei-meia botzen dulaik* 'elur-lapatxa da elurra mehe-mehea botatzen duelarik' (Ud.), *gaztik giñelaik* 'gazteak ginelarik' (Ud.), *ezkondu giñelaik, emen bizi zen, Udaben* 'ezkondu ginelarik, hemen bizi zen, Udaben' (Ud.), *fabriken asi nitzelaik* 'fabrikan hasi nintzelarik' (Ud.), *zeruu zerratuik daolaik* 'zerua zerraturik (< gazt. cerrado) dagoelarik' (Ud.), *anaie il zitzaiolaik* 'anaia hil zitzaiolarik' (Ud.), *ezkille area karri giñulaik, erritatik yende asko etzen yoan* 'ezkila hara ekarri genuelarik, herrietatik jende asko ez zen joan' (Er.), *tratorean zallelaik il tzen* 'traktorean zebilelarik hil zen' (Er.), *nere anaie yoan tzen Mejikora, ta torri zelaik lenbixko gauze erosi zioten nere aitei ta amai telebista* 'nire anaia joan zen Mexikora, eta etorri zelarik lehenbiziko gauza erosi zien nire aitari eta amari telebista' (Er.), *il tzelaik tia eon nitzen* 'hil zelarik tia (< gazt. tía) egon nintzen' (Er.), *juergak itten giñuzen, ola, atratzen giñelaik kuadrillen* 'juergak egiten genituen, hola, ateratzen ginelarik koadrilan' (Er.), *San Migel tortzen delaik, juntatzen gaa Gartzauan, Erbitti ta Ookita* 'San Migel etortzen delarik, juntatzen gara Gartzaron, Erbiti eta Orokieta' (Gar.), *neskatoak etortzen dielaik* 'neskatoak etortzen direlarik' (Oro.), *gazteak giñelaik bidi aietan asko ibiltzen giñen* 'gazteak ginelarik bide haietan asko ibiltzen ginen' (Oro.).

Zenbait kasutan, *-laik* morfemari balio semantikorik gabeko *-n* morfema eransten diote, eta, ondorioz, *-laiken* eta *-liken* formak sortu dira (ikus 8.3.12.).

-nean (zenbaitetan, > *-ni(i)n*, *-nen*) morfema dugu, aldiz, Goldaratzen, Berueten, Igoan, Larraunen eta Araitz-Betelun: *atzo itxea etorri giñenin* 'atzo etxera etorri ginenean' (Gol.), *oi ikusi zunin* 'hori ikusi zuenean' (Gol.), *Venezuelan iondu nitzenin* 'Venezuelan egon(du) nintzenean' (Gol.), *txerrikomik iamaten tzittunin beak* 'txerrikumeak eramaten zituenean berak' (Gol.), *an tzeola ikusi zutenin* 'han zegoela ikusi zutenean' (Ig.), *gerra akaatu zenin* 'gerra akabatu (bukatu) zenean' (Ig.), *persona at ezaotzen eztozenin* 'pertsonek bat ezagutzen ez dudanean' (Beru.), *elurre itten tzunin, gizonak or iiltzen tzeen, laniin* 'elurra egiten zuenean, gizonak hor ibiltzen ziren,

lanean' (Bar.), *ni gaztee nitzenin* 'ni gaztea nitzenean' (Bar.), *bapore txuri ateatzen (zi)tzionin* 'bapore txuria ateratzen zitzaionean' (Bar.), *gerrakoan, zea, zitudadeon bat artzen tzuinin nazionalak, ezkille(k) joazten tzittiin* 'gerrakoan, zera, zitudaderen bat hartzen zutenean nazionalek, ezkilak joarazten zituzten' (Ald.), *aik alde in tzuela esan tzuenen, eskolaa joan tzeen* 'haiek alde egin zutela esan zutenean, eskolara joan ziren' (Gorr.), *republika jarri zuenen* 'errepublika jarri zuenean' (Gorr.), *aik billetu zittuenen* 'haiek bilatu zituztenean' (Gorr.), *erreka au sekatzzen zenen, komerik!* 'erreka hau sekatzzen zenean, komeriak!' (Gorr.), *Ameiketati etorri giñenen* 'Ameriketatik etorri ginenean' (Gorr.), *kuretzen tzenen berde-berde eoten tzen* 'kuratzen zenean berde-berde egoten zen' (Ui.), *nonbatte eaman tzun alako frakaso at ezkondu zeneen* 'nonbait ere eraman zuen halako frakaso bat ezkondu zenean' (Ui.), *kontriuizioa paatzea joaten tziñenen* 'kontribuzioa pagatzera joaten zinenean' (Ui.), *tankea jarri giñunean* 'tankea jarri genuenean' (At.), *pixko at beotzen tzenean ue, geo gañeti botatzen tziozon ue* 'pixka bat berotzen zenean hura, gero gainetik botatzen zenion hura' (Gai.), *alako seboa arrapatu baiñu jaona itten giñunean!* 'halako seboa harrapatu bagenu xaboia egiten genuenean!' (Bet.), *gañe erretzen denean, azpie ezta ekosten, biño gañe bae* 'gaina erretzen denean, azpia ez da ikusten, baina gaina bai' (Gai.).

24. irudia: Denbora-perpausetako morfemak



Horixe da banaketa nagusia, baina, nolana ere, oso ohikoa da Imotz eta Basaburu Nagusi osoan ere soilik *-nean* morfemaz osatutako egiturak entzutea (alderantzizkorik ez dugu entzun,

ordea; alegia, soilik *-nean* ageri den herrietan, ez dute *-laik* erabiltzen). Geuri gertatu zaigu hiztun berak bi morfemak txandaka erabiltzea solasaldi berean. Areago, inkesta bidez galdetzen saiatu garenean, *-nean* eman digute kasu gehienetan, nahiz ohikoan *-laik* erabili. Gamindek berak *-nean* bildu du Arraratsen (*-laik*-ekin batera), Etxalekun eta Muskitzen (1990: 168-170).

Oro har, Ipar Euskal Herriko hizkeren eta euskara nafarraren ezaugarria da *-laik* (Zuazo 2008: 216). Nolanahi ere, antzina hedatuago izango zen beste hizkera batzuetan ere; esate baterako, Otxoa Arinek 1713an erabili zuen, modu-, denbora- eta kausa-perpausetan, eta baita adiera kontzesiboarekin ere (Aranburu eta beste 1999: 115, 120-121; cf. Altuna 1992: 587). Gurean gertatzen den bezala, gaur egun, *-laik* erabiltzen duten beste euskal hizkera batzuetan ere ohikoa da *-nean* ere agertzea, morfema hori orokorra eta hedatua baita euskaraz: Aezkoan (Camino 1997: 495), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 205-206), nahiz Lapurdin eta Nafarroa Beherean (Camino 2004b: 470). Gure eremuko ibarren inguruko hizkerei dagokienez, Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, *-laik* da nagusi Ultzaman (Ibarra 1995a: 506-507); hegoaldera, *-laik* gisakoak bildu ditu Artolak Txulapainen (1992: 215), eta *-nean* dago Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 332); iparraldera, *-laik* ezaguna da Basaburu Txikiko Beintza-Labaienen eta Saldiasen, eta *-nean* da nagusi Ezkurran eta Eratsunen (B. L.); azkenik, *-nean* ageri da Larraungo eta Araitz-Beteluko ingurumari guztian.

8.5.3. “Uste + *-en*” eta “uste + *-ela*” egiturak

“Uste”-rekiko egituretan, oro har, *-en* baliatzen dute Ipar Euskal Herrian eta euskara nafarrean, eta *-ela*, aldiz, erdiguneko eta mendebaleko hizkeretan (Zuazo 2008: 214). Aspaldiko testuetatik hasita ageri da “uste + *-en*” egitura, Etxeparek, Axularrek eta bestek erabili baitzuten; nolanahi ere, *OEHK* dakarrenez, batez ere XIX. mendearen erdialdetik aurrerako testuetan ageri da Ipar Euskal Herrian, eta *-ela* aukerarekin txandaka betiere.

Imotzen eta Basaburu Nagusian (salbu Berueten), *-en* da nagusi, baina *-ela* ere baliatzen dute. Hona *-en* ageri duten adibideak²⁵⁹: *nik uste oi esan nai dun* ‘nik uste hori esan nahi duen’ (Gol.), *nik uste ballen beti-beti geina euskeras emen itz ein duun* ‘nik uste ballean (ibarrean) beti-beti gehiena euskaraz hemen hitz egin dugun’ (Etxal.), *nik uste patzen tzun* ‘nik uste paratzen zuen’ (Etxal.), *ore nik uste audogo zen* ‘hura nik uste agudoago zen’ (Etxal.), *guain nik uste iñik dauden* ‘orain nik uste

²⁵⁹ Ikus ezezko perpausen adibideak 8.5.4. atalean.

eginik dauden' (Etxal.), *nik uste belaunekoa zen* 'nik uste belaunekoa zen' (Etxal.), *nik uste guk bezalatsu ittauten* 'nik uste guk bezalatsu egiten duten' (Etxal.), *nik uste Santurbanoa asko joaten*²⁶⁰ *tzen* 'nik uste San Urbanora asko joaten zen' (Mus.), *eldu en asteen nik uste etorko den* 'heldu den asteen nik uste etorriko den' (Mus.), *nik uste atzo izandu zen* 'nik uste atzo izan(du) zen' (Its.), *nik uste erriin bizi den* 'nik uste herrian bizi den' (Its.), *nik uste ez gaan joain* 'nik uste ez garen joanen' (Its.), *tratantion bat nik uste etortzen zen* 'tratanteren bat nik uste etortzen zen' (Its.), *nik uste bi alaba zittun* 'nik uste bi alaba zituen' (Its.), *nik uste elurre in tzun* 'nik uste elurra egin zuen' (Its.), *nik uste errati uten Ultzama alde ortan* 'nik uste erraten duten Ultzama alde horretan' (Gar.), *Biute nik uste berdintsu den Arraas ta Igoakin* 'Beruete nik uste berdintsu den Arrarats eta Igoarekin' (Gar.), *nik uste gezurre den* 'nik uste gezurra den' (Gar.), *nik uste guain arreglatu uten bord oi alabak* 'nik uste orain arreglatu duten borda hori alabek' (Er.), *nik uste nere amak izain zittun atte ta ama erdaldunek* 'nik uste nire amak izanen zituen aita eta ama erdaldunak' (Er.), *nik uste esaten dioten* 'nik uste esaten dioten' (Ig.), *nek uste ur oi botata iukitzen giñun, ur orreken* 'nik uste ur hori botata edukitzen genuen, ur horrekin' (Ig.). Bestalde, Gamindek adibide hau bildu du Muskitzen: *nik ustet kanpoan dagon* (1994: 236).

Hona, orain, *-ela* duten Imozko eta Basaburu Nagusiko adibideak: *atte Odoizkoa uste ot zela* 'aita Oderizkoa uste dut zela' (Gol.), *nik uste maixtrekin enaizela ibilli sekule* 'nik uste maistrarekin ez naizela ibili sekula' (Etxal.), *uste dut izendu izein tzela* 'uste dut izan(du) izanen zela' (Mus.), *uste dut bi aldetara esaten giñuela* 'uste dut bi aldetara esaten genuela' (Mus.), *uste ut urteon bates eondu iela oiek* 'uste dut urteren batez egon(du) direla horiek' (Mus.), *usti ut enaizela ooittuko* 'uste dut ez naizela oroituko' (Gar.), *nik uste lentxoo yoaten dela ortik* 'nik uste lehentxeago joaten dela hortik' (Gar.), *nik uste beittin badula zuloa* 'nik uste beheitian baduela zuloa' (Er.), *nek uste ala esaten giñiola* 'nik uste hala esaten geniola' (Arrar.).

Berueten, Larraunen eta Araitz-Betelun, beti *-ela* entzun dugu "uste"-rekin: *uste nun erdaas zela* 'uste nuen erdaraz zela' (Beru.), *uste diat bee izenes eztozela akordatu bear* 'uste diat bere izenez ez dudala akordatu behar' (Od.), *nik uste i(g)ualtsu itz eitten tzula* 'nik uste igualtsu hitz egiten zuela' (Bar.), *uste dot gezurretan ai dela* 'uste dut gezurretan ari dela' (Ui.), *uste ot ordun beak zeatzen zizuela oi paatzea* 'uste dut orduan berek zeratzen zizutela hori pagatzea' (Ui.), *uste ozo pena ela?* 'uste duzu pena dela?' (Alb.), *nik uste ongina itten dela iketza* 'nik uste ongiena

²⁶⁰ Muskitzen, ohikoagoa da *yoaten* ahoskera, baina ez da arraroa [x] ere ahoskatzea (ikus 8.2.2.).

egiten dela ikatza' (Azp.), *oi nik uste arrik zeatzen dola* 'hori nik uste harriak zeratzen duela' (Gai.), *oañ tripotxa uste ot noiznae etten duela* 'orain tripotxa uste dut noiznahi egiten dutela' (Gai.), *oaiñ eitten dien talo oik uste al duzu garai artan jango ziela?* 'orain egiten diren talo horiek uste al duzu garai hartan jango zirela?' (Bet.), *nik uste buelta beiñ-eo ematen giñiola* 'nik uste buelta behin-edo ematen geniola' (Arri.). Hala ere, *-en* bildu genuen behin Oderitzen, eta beste behin Betelun: *nik uste lenau baño ooki(o) gauden* 'nik uste lehenago baino hobeki gauden' (Od.), *nik uste beroa bear tziñun* 'nik uste beroa behar zenuen' (Bet.).

Badirudi, beraz, Imotzen eta Basaburu Nagusian hasten direla gauzak aldatzen. Bi ibar horietan, 'uste + *-en*' egitura da nagusi (nahiz *-ela* ere ageri den, gorago esan dugunez), eta, handik mendebalera, 'uste + *-ela*' dugu Larraunen eta Araitz-Betelun, eta orobat Gipuzkoan eta mendebalean. Leitzak eta Aresok eremu horrekin bat egiten dute, *-ela* baitago han ere (Olano 1998: 275-276), eta bi aukerak baliatzen dituzte Basaburu Txikian (B. L.). Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, Ibarrek dio *-en* dagoela Atetzen eta Ultzaman, baina *-ela* zabaltzen ari dela (Ibarra 1995a: 515-516). Gainera, Etxalekun eta Basaburu Nagusian *-ela* nagusi dela dio Ibarrek, baina, gorago zehaztu dugun bezala, *-en* bildu dugu guk han nagusiki.

8.5.4. *-ela* / *-enik* ezezko perpausetan

Perpau nagusia ezezkoa denean, mendeko konpletibo-perpauak *-ela* morfema hartu ohi du Ipar Euskal Herrian eta euskara nafarrean, eta *-enik*, aldiz, Euskal Herriko mendebalean eta erdigunean (Zuazo 2008: 214, cf. Camino 1997: 485).

Gure eremuari dagokionez, oro har, *-enik* bildu dugu, bai ekialdeko herrietan bai mendebalekoetan. Hona hizketa laxoan entzundako zenbait adibide: *etziñakin erretelak izaten tzeenik?* 'ez zenekien erretelak izaten zirenik?' (Lat.), *etzaie iruitzen bearreskoa denik* 'ez zait iruditzen beharrezkoa denik' (Gol.), *eztut uste iñen dunik* 'ez dut uste eginen duenik' (Gar.), *eztot uste oaiñiken orren audo denik* 'ez dut uste oraindik(an) horren agudo denik' (Its.), *beiei itten diotenik enakin* 'behiei egiten dienik ez nekien' (Ig.), *etzakin pelukeree yoan nitzenek eta* 'ez zekien pelukeriara joan nintzenik eta' (Beru.), *enaiz kontoato or ziñaenik* 'ez naiz konturatu hor zeundenik' (Beru.), *nek eztot gooan dius esaten etzuinik* 'nik ez dut gogoan deus esaten ez zutenik' (Iri.), *enaiz goarto emen tziñenik* 'ez naiz ohartu hemen zinenik' (Ald.), *eztut uste nik ezer jokatu zuenik* 'ez dut uste nik ezer jokatu zutenik' (Arri.), *oañ eztue esaten iñun baenik* 'orain ez dute esaten inon

badenik’ (Gai.), *oañ eztot jakin nai olakoik izatea... esistitzen denik* ‘orain ez dut jakin nahi holakorik izatea... existitzen denik’ (Gai.), *desaparezittu zenik da etzenik, andik aurrea eztakit* ‘desaparezitu zenik eta ez zenik, handik aurrera ez dakit’ (Bet.).

Inkesta bidez galdetu dugunean, honako erantzun hauek jaso ditugu²⁶¹: *eztut uste joain gaanik* ‘ez dut uste joanen garenik’ (Its.), *eztot uste biar Iruñea joan bear duunik* ‘ez dut uste bihar Iruñera joan behar dugunik’ (Ud.), *eztut uste yoain gaanik* ‘ez dut uste joanen garenik’ (Gar.), *eztot uste yoaan gaanik* ‘ez dut uste joanen garenik’ (Arrar.), *eztot uste Iruñea yoaan gaanik* ‘ez dut uste Iruñera joanen garenik’ (Beru.), *eztiat uste biar Iruñea joaen gaanik* ‘ez diat uste bihar Iruñera joanen garenik’ (Od.), *eztot uste biar Iruñea joaen gaanik* ‘ez dut uste bihar Iruñera joanen garenik’ (Iri.), *etzait iruitzen biar Iruñea joango*²⁶² *gaanik* ‘ez zait iruditzen bihar Iruñera joango garenik’ (Arru.), *etzait iruitzen biar joaen gaanik* ‘ez zait iruditzen bihar joanen garenik’ (Ald.), *eztiat uste joango gaanik* ‘ez diat uste joango garenik’ (Ui.), *eztut uste biar Iruñea joango gaanik* ‘ez dut uste bihar Iruñera joango garenik’ (Gorr., Alb.). Orokietan, adibide hau bildu dugu inkesta bidez: *eztut uste lana akaatuko duunik* ‘ez dut uste lana akabatuko (bukatuko) dugunik’.

Bestalde, Gamindek *-enik* morfemaren honako adibide hauek bildu ditu gure eremuan (1994: 237): *eztit uste akaatu dutenek* ‘ez diat uste akabatu dutenik’ (Arrar.), *eztozu uste etorriko deenik?* ‘ez duzu uste etorriko direnik?’ (Od.), *enakien emengoa zenik* ‘ez nekien hemengoa zenik’ (Arru.), *eztot uste ekarri dunik* ‘ez dut uste ekarri duenik’ (Ui.).

Baina *-ela* ere bildu du Gamindek (1994: 229-230): *ezta egii etorri dela* ‘ez da egia etorri dela’ (Od.), *eztut uste ekarri dula* ‘ez dut uste ekarri duela’ (Beru.), *enaiz konturetu eztela emen* ‘ez naiz konturatu ez dela hemen’ (Gar.), *eztut aittu torri dela* ‘ez dut aditu etorri dela’ (Mus.).

Beraz, badirudi gure eremuan hasten direla gauzak aldatzen. *-enik* lau ibarretan erabiltzen da, nahiz *-ela* morfemaren arrastoa ere baden. Egoera bera aurkitu du Olanok Leitzan eta Areson (1998: 276-277); izan ere, *-enik* da han nagusi, baina *-ela* morfema ere bildu du han Gamindek. Basaburu Txikiari dagokionez, bi morfemak daude Beintza-Labaienen eta Saldiasen, eta *-enik* da nagusi Ezkurran eta Eratsunen (B. L.). Larraunen eta Araitz-Betelun barna, eta baita handik

²⁶¹ Esaldi hau itzultzeko eskatu diegu hiztunei: “no creo que mañana vayamos a Pamplona”.

²⁶² Arruitzen, *joaen* erabiltzen da eskuarki, baina, kasu horretan, hiztunak *joango* erabili zuen.

mendebaleragoko Gipuzkoan ere, *-enik* erabiltzen dute osotara, eta morfema horixe dago Sakanako erdialdean ere (Erdozia 2001: 306).

8.5.5. Zenbait nominalizazio

“Utzi”, “ausartu”, “eman” eta halako aditzekin batera joan ohi den aditz-izenaren deklinabideari erreparatuko diogu. Oro har, *-t(z)en* inesiboa ageri da Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeretan, eta *-t(z)era* adlatiboa, aldiz, ekialderagokoetan (Zuazo 2008: 211).

Gure eremua osatzen duten lau ibarretan, absolutiboa eta inesiboa erabiltzen dituzte halako egituretan. Oro har, *-t(z)ea* absolutiboa²⁶³ dago Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hegoekialdean, eta *-t(z)en* inesiboa, aldiz, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun. Lau aditz aztertuko ditugu hemen: “utzi”, “eman”, “atrebitu” (< gazt. *atrever*) eta “jarri & paratu”.

- “Utzi” aditza:

“Utzi” aditzak absolutiboa eskatzen du Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hegoekialdean. Honako adibide hauek hizkera laxoan bildu ditugu: *enfermerak eztee utzi paseora joatii* ‘enfermerak ez dit utzi paseora joatea’ (Gol.), *etzioten utzi joatii* ‘ez zioten utzi joatea’ (Gol.), *utzi zen dena kablea ittea* ‘utzi zen dena kablea egitea’ (Lat.), *ez dute uzten botatzea* ‘ez dute uzten botatzea’ (Urr.), *ez baitziun uzten joatea* ‘ez baitzigun uzten joatea’ (Osk.), *utzi zioten pastea* ‘utzi zioten pasatzea’ (Gar.), *etziun uzten euskeas ittea* ‘ez zigun uzten euskaraz egitea’ (Er.), *ez emen zioten uzten itxetik atratzea erraten tzun gu amak* ‘ez omen zioten uzten etxetik ateratzea erraten zuen gure amak’ (Er.).

Inkesta bidez, honako hauek jaso ditugu²⁶⁴: *etzeen uzten dantzaa joatea* ‘ez zidan uzten dantzara joatea’ (Its.), *uztaiai bueltatto at eittii* ‘utzidak bueltatto bat egitea’ (Its.), *etzeeten uzten dantzaa atratzia* ‘ez zidaten uzten dantzara ateratzea’ (Gar.), *uztaiezu buelta at ematia* ‘utzidazu buelta bat ematea’ (Gar.), *etzeeten uzten dantzatzea yoatii* ‘ez zidaten uzten dantzatzera joatea’ (Ig.), *etzeeten uzten iendetan dantza ateatzea* ‘ez zidaten uzten igandetan dantzara ateratzea’ (Ud.),

²⁶³ *-e + -a > -ea* ahoskatzen duten herrietan, hiztunak *utzi joatea* esaten duenean, ez dakigu zehazki ‘utzi joatea’ ala ‘utzi joatera’ esaten ari ote den, herrietan ohikoa baita bokal arteko ttak kontsonantea galtzea (horregatik, ‘joatea’ nahiz ‘joatera’ izan daiteke *joatea*). Nolanahi ere, *-ee* eta *-ii* egiten duten herrietan, *utzi joatee* edo *utzi joatii* gisakoak bildu ditugu; kasu horietan, garbi dago horren azpian *-tea* absolutiboa dagoela (adlatiboa balitz, *-tea* ahoskatuko lukete), eta, horrenbestez, *joatea* horiek ere absolutibokoak direla pentsatuko dugu, baina adlatibokoak izateko aukera erabat baztertu gabe.

²⁶⁴ Honako esaldi hauek itzultzeko eskatu diegu hiztunei: “antes no me dejaban salir a bailar los domingos”, “déjame dar una vuelta en tu coche nuevo”.

uztaiezo buelta at ittea ‘utzidazu buelta bat egitea’ (Ud.), *uztaiezu buelta at ematea* ‘utzidazu buelta bat ematea’ (Oro.), *etziuten uzten dantzaa ateatea* ‘ez ziguten uzten dantzara ateratea’ (Oro.), *nee attek eta amak etzeeten uzten iandetan dantzatea joatee* ‘nire aitak eta amak ez zidaten uzten igandetan dantzatera joatea’ (Arrar.), *etzeeten uzten iandetan dantzan iiltzee* ‘ez zidaten uzten igandetan dantzan ibiltzea’ (Beru.), *etzeen uzten dantzaa ateate* ‘ez zidaten uzten dantzara ateratea’ (Od.), *utzeek buelta at ematee* ‘utzidak buelta bat ematea’ (Od.), *etzeiñ uzten nei dantzaa ateate* ‘ez zidaten uzten niri dantzara ateratea’ (Arru.), *etzeen uzten dantzaa joatee* ‘ez zidaten uzten dantzara joatea’ (Iri.), *etziun uzten dantzaa joatee* ‘ez zigun uzten dantzara joatea’ (Ald.), *utziek buelta at ematee* ‘utzidak buelta bat ematea’ (Ald.).

Gamindek “utzi + -t(z)ea” bildu du Arruitzen, Berueten, Arraratsen, Gartzaronen, Etxalekun eta Muskitzen (1993: 89-90).

Aldaketa Albiasun hasten da, inesiboa bildu baitugu, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun bezala: *etzeen ateaten uzten dantzaa* ‘ez zidaten ateratzen uzten dantzara’ (Alb.), *uztaiezo buelta at ematen* ‘utz zaidazu buelta bat ematen’ (Alb.), *leen etzeien uzten dantzan ibiltzen* ‘lehen ez zidaten uzten dantzan ibiltzen’ (Ui.), *uztaiek buelta at ematen* ‘utz zaidak buelta bat ematen’ (Ui.), *etzeen uzten ateaten* ‘ez zidaten uzten ateratzen’ (Gorr.), *uztaazo buelta at ematen* ‘utz zaidazu buelta bat ematen’ (Gorr.), *nee gurasoak etzeen uzten dantzaa joaten* ‘nire gurasoek ez zidaten uzten dantzara joaten’ (Erra.), *utzi buelta at ematen* ‘utzi buelta bat ematen’ (Erra.), *utzi bear tzaie berriz ee asentatzen* ‘utzi behar zaie berriz ere asentatzen’ (Bet.), *goe pasatzen utzi bear tziun guardia zibill ue* ‘guri pasatzen utzi behar zigun guardia zibil hura’ (Uzt.), *alabae ara joaten utzi zielako* ‘alabari hara joaten utzi ziotelako’ (At.), *ardii pasten ez utzi ette men tzien aarik* ‘ardiei pasatzen ez utzi egiten omen zien ahariak’ (Gai.), *uzten tziñun oztutzen* ‘uzten zenuen hozten’ (Bet.), *etzuen uzten pasatzen* ‘ez zuten uzten pasatzen’ (Arri.), *etzu uzten ixten* ‘ez du uzten ixten’ (Bet.).

- “Eman” aditza:

“Eman” aditzaren kasuan, -t(z)ea bildu dugu Imotzen eta ia Basaburu Nagusi osoan: *sealii, oi da jatea emateko* ‘segalea, hori da jatea emateko’ (Era.), *nausik ematen tzioten bazkaltzea* ‘nagusiek ematen zioten bazkaltzea’ (Etxal.), *etziuten eman afaltzea re!* ‘ez ziguten eman afaltzera ere!’ (Mus.), *jatea*²⁶⁵ *emanez* ‘jatea emanez’ (Mus.), *yatea ematen tziun* ‘jatea ematen zigun’ (Gar.), *yatii*

²⁶⁵ *yatea* erabiltzen da Muskitzen, baina, adibide horretan, *jatea* erabili zuen hiztunak (ikus 8.2.2.).

eman ‘jatea eman’ (Ig.), *goi yatii ematen tziun amatxik* ‘guri jatea ematen zigun amatxik’ (Ig.), *gui amañik ematen tziun jatea* ‘guri amañik ematen zigun jatera’ (Ud.), *gui abuelak maten tziun yatea* ‘guri abuelak (amonak) ematen zigun jatea’ (Oro.), *emantziozo eatea umeai* ‘emaiozu edatea umeari’ (Oro.), *goi ematen tziun yatee amandrek* ‘guri ematen zigun jatea amandreak’ (Arrar.).

Arraratsen eta Berueten, *-t(z)en* inesiboa bildu dugu honako adibide hauetan: *eman tzaiozo eaten umeere* ‘eman iezaiozu edaten umeari’ (Arrar.), *ematen tziun yaten* ‘ematen zigun jaten’ (Beru.).

Larraungo datuek zalantza sortu digute. Izan ere, *-tea* bildu dugu Oderitzen, Iribasen, Aldatzen eta Errazkinen, eta, herri horietako fonologia-ezaugarriak zein diren kontuan hartuta, adlatiboa da *-tea* hori; absolutiboa balitz, *-tee* edo *-tii* izango bailitzateke. Hona hiru herri horietan bildutako adibideak: *emaioz eatea* ‘emaioz edatera’ (Od.), *jatea ematen tziun* ‘jatera ematen zigun’ (Iri.), *emaiozu eatea* ‘emaiozu edatera’ (Iri.), *ematen tziun jatea* ‘ematen zigun jatera’ (Ald.), *emaiozo eatea* ‘emaiozu edatera’ (Ald.), *emaiozu jatea umeai* ‘emaiozu jatera umeari’ (Erra.). Gainera, Gamindek *-tera* bildu du Oderitzen eta Uitzin (1993: 90).

Araitz-Betelun, ez dugu era horretako nominalizaziorik lortu. *Araitz-Beteluko ahozko tradizioa* lanean ageri diren adibideetan ikusten da nominalizazioa saihestera egiten dutela hango hiztunek (Apalauza eta Arraztio 2003-2005): *jana eman* ‘jana eman’ (Azk.), *ematen tziun jana kasi urte guztiñ Mitxikonean* ‘ematen zieten jana kasik urte guztian Mitxikonean’ (Bet.), *ardii jana emateko, beste atzuk izaten tzeen* ‘ardiei jana emateko, beste batzuk izaten ziren’ (Gai.), *perratu ta janak airi man* ‘ferratu eta janak haiei eman’ (In.), *ta ematen tziun jana* ‘eta ematen zieten jana’ (Arri.). Inkesta bidez galdetu dugunean ere, nominalizazioaz besteko egiturak eman dizkigute: *gui amonak ematen tziun jana* ‘guri amonak ematen zigun jana’ (Bet.), *emaiozu zeozer eateko umeai, earrrik dao-ta* ‘emaiozu zer edo zer edateko umeari, egarriak dago-eta’ (Bet.), *jana geok ematen giñion* ‘jana gerok ematen genion’ (Gai.).

- “Atrebitu” aditza:

“Atrebitu” aditzari dagokionez, absolutiboaz osatutako egiturak bildu ditugu gure eremuko lau ibarretan²⁶⁶: *iñor etzen atreitzen itxetik ateatzii* ‘inor ez zen atrebitzen etxetik ateratzea’ (Gol.), *ore*

²⁶⁶ Goldarazkoa eta Itsasokoa ez beste adibide guztiak inkesta bidez jasoak dira.

etzen inõngana atreitzen joatea ‘hura ez zen inorengana atrebitzen joatea’ (Etxal.), *eniok atreittu esatii* ‘ez nauk atrebitu esatea’ (Its.), *enaiz atreittu galdetzia* ‘ez naiz atrebitu galdetzea’ (Gar.), *enaiz atreittu galdetzea ama nola dauken* ‘ez naiz aterbitu galdetzea ama nola daukan’ (Oro.), *enaiz atreitto galdetsee ia nola daun zea, zo ama* ‘ez naiz atrebitu galdetzea ea nola dagoen zera, zure ama’ (Beru.), *enaiz atreittu galdetzii ama nola daun* ‘ez naiz atrebitu galdetzea ama nola dagoen’ (Arru.), *enaiz atreittu galdetsee* ‘ez naiz atrebitu galdetzea’ (Ald., Alb., Ui.), *enaiz atreittu galdetzea* ‘ez naiz atrebitu galdetzea’ (Erra.), *enaiz atreittu ama nola daun galdetzea* ‘ez naiz atrebitu ama nola dagoen galdetzea’ (Bet.), *enaiz atreitzen gabez ateatzea* ‘ez naiz atrebitzen gaez ateratzea’ (Bet.), *ez gaa atreittuko araaño iotzea* ‘ez gara atrebituko haraino igotzea’ (Bet.). Alabaina, adlatiboa jaso dugu Itsason behin (absolutiboa *-t(z)ii* baita Itsason): *etzen atreittu gizon ue ateatzea axurikin* ‘ez zen atrebitu gizon hura ateratzera axuriekin’.

- “Jarri & paratu” aditza:

“Jarri” eta “paratu” aditzekin, *-t(z)en* inesiboa bildu dugu eremuko lau ibarretan²⁶⁷: *ure irakitten jarri ot makarronak prestatzeko* ‘ura irakiten jarri dut makarroiak prestatzeko’ (Gol.), *paatu ut ure beotzen* ‘paratu dut ura berotzen’ (Its.), *ure irakitten jarri* ‘ura irakiten jarri’ (Ud.), *ure irakitten paatu ot makarronak eosteko* ‘ura irakiten paratu dut makarroiak egosteko’ (Oro.), *ure irakitten jarri ot* ‘ura irakiten jarri dut’ (Iri.), *jarri ot ure irakitten makarronak eitteko* ‘jarri dut ura irakiten makarroiak egiteko’ (Arru.), *irakitten jarri ot* ‘irakiten jarri dut’ (Ald.), *ure jarri ot irakitten* ‘ura jarri dut irakiten’ (Alb.), *ure eosten jarri* ‘ura egosten jarri’ (Ui.), *jarri makarronak eosten* ‘jarri makarroiak egosten’ (Gorr.), *oe sekatzan jarri* ‘hori sekatzan jarri’ (Azk.), *txintxilike sekatzan jarri* ‘zintzilik(a) sekatzan jarri’ (At.), *udeekin beatzen jarri* ‘urarekin beratzen jarri’ (Gai.), *berbenak jarri zartariñ eitten* ‘berbenak jarri zartagian egiten’ (Bet.).

Ondorioak

Batetik, herri guztietan inesiboa erabiltzen dute “jarri & paratu” aditzekin (*irakitten jarri & paatu*); Larraungo ipar-mendebalean (Albiasu barne) eta Araitz-Betelun, inesiboa ageri da, halaber, “utzi” aditzarekin (*joaten utzi*); eta, Arraratsen eta Berueten, “eman” aditzarekin (*eaten eman*). Bestetik, herri guztietan absolutiboa ageri da “atrebitu” aditzaren ondoan (*galdetzea & galdetsee & galdetzii atreittu*); eta, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen (ez beti), “utzi” eta “eman” aditzekin (*joatea & joatee & joatii utzi, jatea & jatee & jatii eman*). “Eman” aditzari dagozkion

²⁶⁷ Inkesta bidez jasoak dira Araitz-Betelukoak ez beste adibide guztiak.

Larraungo adibideek zalantza sortu digute absolutiboaren eta adlatiboaren artean, eta Araitz-Betelun ikusi dugu nominalizazioa saihestu egiten dutela “eman” aditzarekin.

Kontu bat behinik behin badugu argi: *-t(z)en* inesiboa ageri da eremuko mendebaleko herrietan (Larraungo ipar-mendebala, Basaburu Nagusiko iparraldea, Araitz-Betelu), eta, gainerako herrietan, badirudi absolutiboa dela aukerarik erabiliena, baina badira adlatiboaz eratutako adibideak ere.

Ibarrak “utzi, eman + adlatiboa” bildu du Muskitzen, Atetzen eta Ultzaman, eta Imotzen eta Basaburu Nagusian absolutiboa dagoela dio (1995a: 516-517). Handik ekialdera, adlatiboa da nagusi halako nominalizazioetan, eta Ipar Euskal Herrian ere adlatiboa erabiltzen dute, hala nola Lapurdin eta Nafarroa Beherean (Camino 2004b: 470). Gure eremutik hegoaldera, *edatera man* dakar Aranak Txulapainerako (2006: 30), eta, Sakanan, “utzi + inesiboa & absolutiboa”, “eman + adlatiboa” eta “atrebitu + adlatiboa” egiturak daude (Erdozia 2001: 312-313)²⁶⁸. Basaburu Txikian, adlatiboa erabiltzen dute “eman” aditzarekin gutxienez (B. L.), eta hala da handik iparraldera ere, hala nola Malerreka aldean (Apalauza eta Lakar 2001-2003). Adlatiboa erabiltzea aspaldiko ezaugarria da: esate baterako, bada Beriainen testuetan (1621, 1626) edota Elizalderen doktrinan (1735).

Larraundik iparraldera, inesiboa dago Leitzan eta Areson (Olano 1998: 277), baita gure eremutik mendebalerako hizkera giputzetan ere. Beraz, Euskal Herri osoa aintzat harturik, badirudi ekialdeko joeraren (*-t(z)era*) eta mendebalekoaren (*-t(z)en*) tartean daudela gure eremuko herriak: inesiboranzko joera ikusi dugu mendebaleko herrietan (Araitz-Betelu, Larraungo ipar-mendebala, Basaburu Nagusiko iparraldea), eta badira adlatiboaren zantzuak gainerako herrietan, baina betiere absolutiboa gailen dela.

Azken ohar gisa, zenbait kasutan, absolutiboa, inesiboa edo absolutiboa ez, baizik eta bestelako kasu batzuk erabiltzen dira: *-t(z)eko*, *-t(z)etik*, *-t(z)ez*, eta abar. Hona zenbait adibide: *utzi nun fumatzetik* ‘utzi nuen fumatzetik (< gazt. fumar)’ (Gol.), *eman eateko umiire* ‘eman edateko umeari’ (Ig.), *uztaiek buelta at emateko* ‘utz zaidak buelta bat emateko’ (Beru.), *goi amonak ematen tziun jatez* ‘guri amonak ematen zigun jateaz’ (Ui.), *enaiz atreittu galdetzes* ‘ez naiz atrebitu

²⁶⁸ *maten tzuten yatera* dugu Ezkabarteko Anotzen (Artola 1985: 108).

galdetzeaz' (Od.), *urtero joaten gaa San Mielea, ta eztuu uzten joatez* 'urtero joaten gara San Migela, eta ez dugu uzten joatez' (Bet.). Beste hauek Gaminderenak dira (1993: 80-81): *utzi du fumetzetik* (Gar.), *utzi dute garie eraites* (Etxal.), *gari eraitzez utzi dii* (Arru.), *utzi due garie eraittez* (Ui.).

8.5.6. *bait-* partikulaz osatutako kausa- eta erlatibo-perpausak

Euskara giputza eta goi-nafarrera banatzeko Bonapartek aintzat hartu zuen irizpideetako bat izan zen *bait-* erabiltzea edo ez erabiltzea (Irizar 1981b: 255, cf. Urkixo 1910). Alabaina, Gipuzkoan barna ere bada *bait-* kausazkoa, hala nola Tolosaldean, Goierriko ekialdean, Beterrin eta Gipuzkoako ipar-ekialdean (Hurtado 2001: 117-118). Hurtadok Beasainen ezarri du ezaugarri horren isoglosa: handik mendebalera, ez da ohikoa *bait-* erabiltzea. Zuazok dio Zarautz, Orio, Larraul, Legorreta eta Abaltzisketa herrietan barrena datorrela isoglosa, eta Oiartzunen eta handik ekialdera hartzen duela *bait-* partikulak erlatibozko balioa (1997: 400).

Gure eremuko lau ibarretan, erlatibozko zein kausazko balioa duten *bait-* perpausak bildu ditugu. *bait-* erlatibozkoen muga Araitz-Beteluren eta Gipuzkoaren artean dago, gainera; Araitz-Betelun, gure eremuko beste herrietan bezala, ohikoak dira halako egiturak, eta ezaugarri hori arrotz zaie ondoko hiztun giputzei. Esate baterako, ohikoa da hiztunek, erantzunik ez dakiten galdera baten aurrean, *ezpaitakit* esatea; gipuzkoar batek *eztakit ba*, edo antzeko zerbait esango luke (adibidea: *ze ordutan izaten tzen illunezkille? Ezpaitakit!*).

Hona hemen gure eremuan bildu ditugun adibideen erakusgarri bat:

- Kausa-perpausak²⁶⁹: *nik uste oaiñ geigo denbo atean biño, nik uste baietz, gazteak beti baitute enpeñu geixau ikesteko re* 'nik uste orain gehiago denbora batean baino, nik uste baietz, gazteak beti baitute enpeño (< gazt. empeño) gehixeago ikasteko ere' (Lat.), *Hijas de María esaten giñioten, ordun izaten baitzeen gauz betzuk erdeas esaten tzeenak* 'Hijas de María esaten genien, ordun izaten baitziren gauza batzuk erdaraz esaten zirenak' (Etxal.), *aritze etzen ona, aritzek tinte baitu ba* 'haritza ez zen ona, haritzak tinte (< gazt. tinte) baitu ba' (Mus.), *Oskotza ez giñen joaten, or peligrosoak bai baitzen Oskotzen-ta, arrike-ta ematen baitzuten* 'Oskotza ez ginen joaten, hor peligrosoak bai baitziren Oskotzen-eta, harrika-eta ematen baitzuten' (Mus.), *kendu ttiote arrii ta*

²⁶⁹ Zenbaitetan, zaila da bereiztea kausazkoa edo esplikatihoa ote den.

dena(k), iotzeko arrii bear baito, iotzeko ‘kendu dizkiote harria eta dena(k), ehotzeko harria behar baitu, ehotzeko’ (Its.), *geinin erdeas; klaro, beak euskeas geiski baitaki* ‘gehienean erdaraz; klaro, berak euskaraz gaizki baitaki’ (Ud.), *lenau yoaten giñen belarrea, eskus itten baitzen lan guzie, ta orrengatik ba, motibo ori* ‘lehenago joaten ginen belarrera, eskuz egiten baitzen lan guzia, eta horrengatik ba, motibo hori’ (Oro.), *geo, geo izaan tzeen, zengatik ni akordatzen bainaiz* ‘gero, gero izanen ziren, zerengatik ni akordatzen bainaiz’ (Ig.), *mira qué puñetera, bai baitzakin beak!* ‘mira qué puñetera, bai baitzekien berak!’ (Beru.), *nola bee ontan eitten baitzen gauze* ‘nola bere honetan egiten baitzen gauza’ (Iri.), *artu-emana gutxi daket nik orrekin, zengatik traste xamar oitakoa baita* ‘hartu-emana gutxi daukat nik horrekin, zerengatik traste samar horietakoa baita’ (Ui.), *zengatik eskolaa umek ara joaten baitzeen* ‘zerengatik eskolara umeak hara joaten baitziren’ (Ui.), *arrapa garbitzen tzen emen, erreka etortzen baizen; erreka au sekatzzen zenen, komerik!* ‘arropa garbitzen zen hemen, erreka etortzen baitzen; erreka hau sekatzzen zenean, komeriak!’ (Gorr.), *eun zaku irin tzein, da guardia zibillek zeñ emen, etortzen baitzeen ikustea ta* ‘ehun zaku irin zeuden, eta guardia zibilak zeuden hemen, etortzen baitziren ikustera eta’ (Gorr.), *emen aitze nitzen, emen eitten tzen lan... lurrek-eta aldapa(k) baitee ba emen, da laien* ‘hemen aritzen nintzen, hemen egiten ziren lan... lurrak-eta aldapak baitira ba hemen, eta laiean’ (Azp.), *enaiz alleatu Gorrittie, erruti baitao oi* ‘ez naiz ailegatu Gorritira, urruti baitago hori’ (Erra.), *ue de gelditzen zen lurre dena koxkortue, autse bear baitzun ba lurrek, landare eraitteko, ta ue gelditzen zen dena koxkortue* ‘hura ere gelditzen zen lurra dena koxkortua, hautsa behar baitzuen ba lurrak, landarea ereiteko, eta hura gelditzen zen dena koxkortua’ (Erra.), *illeakin igual eitten zen, goorra izaten baitzen oe* ‘ilearekin igual egiten zen, gogorra izaten baitzen hori’ (Gai.), *atalgañean Uarten... urdun asko zeen-da atreak, familik aundik izaten baitzeen* ‘atalgainean Uharten... orduan asko ziren-eta atreak, familiak handiak izaten baitziren’ (Uzt.), *zeatik arrek bee ama baitzun aindu ziona* ‘zergatik hark bere ama baitzuen agindu ziona’ (At.), *inpernukoa sartu zaiela esan tzeen, zakurrek etxea alde ein baitzun* ‘infernukoa sartu zitzaizela esan zidan, zakurrak etxera alde egin baitzuen’ (Gai.), *ardoa barriketan ekarri bearrean, zekarren garie. Bai, garie re ekartzen baigiñun barriketan sartuta* ‘ardoa barriketan ekarri beharrean, zekarren garia. Bai, garia ere ekartzen baikenuen barriketan sartuta’ (Uzt.), *guardik ez, emen alemanak, emendi gora or minak baitzeen Gipuzkoako mendi ortan, ta araa zerbatt ba ote zeon* ‘guardiak ez, hemen alemaniarrek, hemendik gora hor minak (< gazt. mina) baitziren Gipuzkoako mendi horretan, eta hara zerbait ba ote zegoen’ (Azk.). Ikusi dugunez, zenbaitetan, “zergatik” edo “nola” galdetzaileekin batera erabiltzen da *bait-* partikula.

• Erlatibo-perpauzak: *zun itxiko Itxiberri-o, oaiñ in baitute zea, casa rural, an eondu giñen gu* ‘zuen etxeko Etxeberri-edo, orain egin baitute zera, casa rural, han egon(du) ginen gu’ (Gol.), *Latasan bizi den seme orrek, aistin esan baituu, orrek iozin gauze zula orrekin itten tzun* ‘Latasan bizi den seme horrek, arestian esan baitugu, horrek edozein gauza zuela horrekin egiten zuen’ (Etxal.), *Zarrantza seittu karretera, eta or baitau eskuiñetaa... aitzen dee eurre mozten-da karretera baztarrean, pues andik berreun metrota zozila* ‘Zarrantza segitu karretera, eta hor baitago eskuinetara... aritzen dira egurra mozten-eta karretera bazterrean, pues handik berrehun metrota zozela’ (Osk.), *burrusek, tratanteak-eta ibiltzen baitzittuten, olakoak* ‘brusak, tratanteek-eta ibiltzen baitzittuten, holakoak’ (Osk.), *dena iualtsu baitao, pues eztozo izautzen* ‘dena igualtsu baitago, pues ez duzu ezagutzen’ (Ig.), *gariei kaxkala kentzen baitzaio, pues menudilloa erraten tzaion arrei* ‘gariari kaxkala kentzen baitzaio, pues menudilloa erraten zitzaion hari’ (Er.), *guaiñ Orozek itten baittu dibujo oiek, etzaa quartu periodikoan? Bueno, estilo ortaa* ‘orain Orozek egiten baititu dibujo (< gazt. dibujo) horiek, ez zara ohartu periodikoan? Bueno, estilo horretara’ (Er.), *txirriñek, kabik itten bait’tute itxe zarretan ta* ‘txirrinak, habiak egiten baitituzte etxe zaharretan eta’ (Oro.), *oain daun parroko oi, San Mielen, emen eondue baita, ikaraarri majoa da!* ‘orain dagoen parroko hori, San Migelen, hemen egon(du)a baita, ikaragarri majoa da!’ (Gorr.), *patata zuittu-ta, olakoak rantxeroai, rantxeroa bizkaitarra baitzen, Bilbaon ondokoa* ‘patata zuritu-eta, holakoak arrantxeroari, arrantxeroa bizkaitarra baitzen, Bilboren ondokoa’ (Bet.), *geo, barriek ustu itten giñun, zulo at aundie izate’maitue ba erdiñ kortxo aundi (b)atekin-da, ue ustu, da zakutan jarri* ‘gero, barririk hustu egiten genuen (genituen), zulo bat handia izaten baitute ba erdian kortxo handi batekin-eta, hura hustu, eta zakutan jarri’ (Uzt.).

Gorago zehaztu dugu zein den *bait-* kausazkoaren hedadura geografikoa Gipuzkoan. Caminok dioskunez, Nafarroa Garaiko eremu zabaleko ezaugarria da *bait-* kausazkoa eta erlatibozkoa erabiltzea; zehatzago, eremu zabaleko ekialdeko ezaugarria da (2003a: 83). Ipar Euskal Herrian ere bada (Zuazo 2008: 214). Gure eremuko hizkeren inguruan, kausa- eta erlatibo-balioa du *bait-*ek Atetzen, Ultzaman eta oro har handik ekialdera (Ibarra 1995a: 510-512), Basaburu Txikian, eta Leitzan eta Areson (Olano 1998: 262). Burundan ez da ageri, eta, Gipuzkoara ezkerre, kausazko balioa besterik ez du *bait-*ek, Tolosaldea eta Goierriko ekialdea barne (Zuazo 2008: 213-214).

Nolanahi ere, bizkaiera zaharrea badira *bait*-en adibideak, eta pentsatzekoa da, beraz, euskararen garai zaharragoen ezaugarria dela. Bizkaian eta Gipuzkoa gehienez galdu da, eta Lakarraren galdera da ea mendebaletik ekialderantz gertatu ote den galera (1996: 191).

8.5.7. “Nola du izena?” eta “Nola zaio?” egiturak

Norbaiten edo zerbaiten izena aipatzeko, bi egitura mota erabiltzen dira gure eremuan. Batetik, *nola zaio neska orri?* motako egitura dugu Goldaratz ez beste Imozko herrietan eta Basaburu Nagusiko ekialdean. Zenbaitetan, *nola zaio izena* erakoak ere ageri dira. Hona zenbait adibide: *eztaikit nola zitzaion kajon arrei* ‘ez dakit nola zitzaion kaxoi hari’ (Era.), *konporta zaion izena* ‘konporta zitzaion izena’ (Era.), *nola zaio orrei?* ‘nola zaio horri?’ (Zarr.), *kinke o... nola zizaion?* ‘kinka edo... nola zitzaion?’ (Etxal.), *nola zaion izena?* ‘nola zitzaion izena?’ (Etxal.), *itxeai zaio Petxenia* ‘etxeari zaio Petxenea’ (Mus.), *nola zaizu izena?* ‘nola zaizu izena?’ (Gar.), *nola zaio Itsasoko ermittei izena?* ‘nola zaio Itsasoko ermitari izena?’ (Gar.), *Pedrito, Boni, ta besteai eztaikit nola zaion* ‘Pedrito, Boni, eta besteari ez dakit nola zaion’ (Gar.), *nola zitzaioten oiri?* ‘nola zitzaion horiei?’ (Jau.).

Nolanahi ere, *nola du izena?* motako egitura eremu osora zabaltzen ari da. Esate baterako, behin, Gartzarongo hiztun batek bi aukerak baliatu zituen solasaldi berean: *erdeas nola do izena orrek? Nola zaio onei, errekatto onei...?* ‘erdaraz nola du izena horrek? Nola zaio honi, errekatto honi?’. Imotzen ere baliatzen dituzte *nola du izena* erakoak: *nee aizpek do izena* ‘nire ahizpak du izena’ (Lat.), *ez naiz akordatzen nola don izena* ‘ez naiz akordatzen nola duen izena’ (Era.), *eztaikit nola dun izena arrek* ‘ez dakit nola duen izena hark’, *Matias zun izena* ‘Matias zuen izena’ (Osk.), *Maitonea du borda onek izena* ‘Maritonea du borda honek izena’ (Osk.).

Bestetik, *nola du izena* erako adibideak besterik ez daude Goldaratz, Basaburu Nagusi gehienez, Larraunen eta Araitz-Betelun. Adibideak: *ze izena duk?* ‘zer izena duk?’ (Its.), *itxik do izena Miltxo* ‘etxeak du izena Miltxo’ (Its.), *nola du izena?* ‘nola du izena?’ (Ud.), *baie do izena* ‘bahea du izena’ (Ig.), *arrek nola zun izena?* ‘hark nola zuen izena?’ (Beru.), *nola izena o itxe orrek?* ‘nola izena du etxe horrek?’ (Arrar.), *arrek izena zun Jexuxa* ‘hark izena zuen Jexuxa’ (Od.), *ze izena ozo?* ‘zer izena duzu?’ (Iri.), *oaiñ aztu zaie ze izena zun* ‘orain ahaztu zait zer izena zuen’ (Bar.), *eztaikit nola zun izena* ‘ez dakit nola zuen izena’ (Bar.), *tripeki-zopak izena o orrek* ‘tripaki-zopak izena du horrek’ (Arru.), *“Ollarra” izena zun* ““Oilarra” izena zuen’ (Arru.), *ze izena zun* ‘zer

izena zuen' (Ald.), *ze izen zun arrek* 'zer izen zuen hark' (Alb.), "*Errekalde*" *etxe orrek izena o* "Errekalde" *etxe horrek izena du* (Ui.), *Lezaeta du izena* 'Lezaeta du izena' (Azp.), *goattie zuen izena* 'goattie²⁷⁰ zuten izena' (Gai.), *gatzarie do orrek izena* 'gatzagia du horrek izena' (Gai.), *eztakit ze izena zun, txapeta-o* 'ez dakit zer izena zuen, txapeta-edo' (Bet.), *goe txaolak zea zun izena: Desaomalkor* 'gure txabolak zera zuen izena: Desaomalkor' (Gai.), *oañ e ala o izena* 'orain ere hala du izena' (Azk.).

Beramendin bizi den arrarastar bati jaso da *nola zaio orrei?* adibidea; alabaina, Arraratsen, *nola izena o itxe orrek?* 'nola izena du etxe horrek?' gisakoak bildu ditugu.

"Nola zaio izena" gisakoak ezagunak dira beste euskal hizkera batzuetan ere. Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, ohikoak dira Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 500), eta *EAE*Lk era horretakoak dakartza Irañetarako (*berai dakio* 'berari zaio'), Atezko Zigandarako (*bera zaio* 'bera zaio'), Txulapaingo Usirako (*berai zayo* 'berari zaio'), Eugirako (*arrei zaio* 'hari zaio'), Mezkiritzerako (*berai zayo*) eta Urdiainerako (*beai zazkiyo* 'berari zaizkio'). Erdoziak dakarrenez, Sakanan ere bada egitura hori (2001: 256-257), eta, ekialderago, baita Aezkoan ere (Camino 1997: 467). Imoztik eta Basaburu Nagusitik mendebalera eta iparraldera, baina, "nola du izena" egitura nagusitu da: horixe dugu Larraunen eta Araitz-Betelun, Leitzan eta Areson (B. L.)²⁷¹, Basaburu Txikian (B. L.) eta orobat Euskal Herriko erdiguneko hizkeretan. Baina, mendebalerago, datiboaz osatutako egiturak azaltzen dira berriz ere, hala nola Deba ibarreko erdigunean (Zuazo 2006a: 127) edota Azkoitian (K. E.). Horregatik, pentsatzekoa da antzina leku gehiagotan erabiliko zituztela halako egiturak.

8.5.8. *Al galdera-partikula*

Gure eremu osoan ageri da galdera-perpausak osatzeko *al* partikula, baina ez da oso ohikoa Imotzen eta Basaburu Nagusian²⁷². Nolanahi ere, esan bezala, lau ibarretan entzun dugu. Hona zenbait adibide: *akaatu al duzu?* 'akabatu al duzu?' (Etxal.), *nai al do goiko larrii beikatu?* 'nahi al du goiko larrea bedeinkatu?' (Gol.), *asko in bear al dozo oainddio?* 'asko egin behar al duzu oraindik?' (Its.), *ain goorrak al tzaate ba zuk kontseitzeko?* 'hain gogorrak al zarete ba zuek

²⁷⁰ Zatak lotzeko sokak dira *goattik*.

²⁷¹ Leitzan, baina, B. Lizarragak esan digu *zer zaio orrei* egitura erabiltzen dutela 'zer inporta dio horri' edo 'zer esan behar du horrek' adieran.

²⁷² Golarazko hitzun batek esan digu berarentzat ez dutela balio *bera joan al ziñen?* eta *joan ziñen?* esaldiek; haren arabera, *al*-dunak indar gehiago du besteak baino.

kontsegitzeko (lortzeko)?’ (Oro.), *asko al dae?* ‘asko al daude?’ (Arrar.), *ez al duzte aittu?* ‘ez al duzue aditu?’ (Ig.), *kendo al dezazket?* ‘kendu al ditzaket?’ (Od.), *uste al dok aurten tokatuko zaiula loterii?* ‘uste al duk aurten tokatuko zaigula loteria?’ (Od.), *ez al tzae ongi?* ‘ez al zaude ongi?’ (Bar.), *banaarrak gustatzen al zaskizui?* ‘banabarrak gustatzen al zaizkizue?’ (Iri.), *i akordatzen al yaz Joxefermiñen arreba nola etortzen tzen sardiñekin?* ‘hi akordatzen al haiz Joseferminen arreba nola etortzen zen sardinekin?’ (Ald.), *ez al dok akaato?* ‘ez al duk akabatu?’ (Ald.), *ez al dakizo?* ‘ez al dakizu?’ (Ald.), *ez al yakin?* ‘ez al hekien?’ (Ald.), *lengoan ba al dakizo zeñek kantatzen tzun bat?* ‘lehengoan ba al dakizu zeinek kantatzen zuen bat?’ (Gorr.), *aukeratzek ba al dau, ba, aukeratzek?* ‘aukeratzerik ba al dago, ba, aukeratzerik?’ (Ui.), *oaiñ atsaldean jartze al due ba ezer ee?* ‘orain arratsaldean jartzen al dute ba ezer ere?’ (Erra.), *Juanagorrik ba al dakizu(e) ze itten tzun?* ‘Juanagorrik ba al dakizu(e) zer egin zuen?’ (Bet.), *ez al duzue beiñ ee ekosi?* ‘ez al duzue behin ere ikusi?’ (In.), *aragie ekartzeko re diruik ba al tzen goe denboan?* ‘haragia ekartzeko ere dirurik ba al zen gure denboran?’ (Uzt.), *Urdilloko lepoa-ta, ez al dakizue zuuk?* ‘Urdilloko lepoa-eta, ez al dakizue zuek?’ (Azk.).

al galdera-partikula erdialdeko euskararen ezaugarritzat hartu du Zuazok (2008: 141). Esan bezala, Imotzaino ere iritsi da ezaugarria —ahul, inondik ere—, baina ez dirudi Atetz eta Ultzama ibarretaraino hedatu denik. Aski berria dirudi; Otxoa Arin ordiziararak, esate baterako, ez zuen erabili (1713. urtean).

8.5.9. *Ezin* partikulaz osatutako egiturak

“Ezin + aditz nagusia + aditz laguntzailea” hurrenkera erabiltzen da gure eremuko lau ibarretan. Adibideak: *giñailtzen lanetan ezin ibilli giñuzen* ‘genbiltzan lanetan ezin ibili genituen’ (Etxal.), *nik ezin utzi bainittun bi ume zauzkiten ardik* ‘nik ezin utzi baintuen bi ume zeuzkaten ardiak’ (Etxal.), *oi eziñ esan dut* ‘hori ezin esan dut’ (Etxal.), *eziñ ekarri zittun ardi guzik batea* ‘ezin ekarri zituen ardi guztiak batera’, *eziñ in da ola* ‘ezin egin da hola’ (Gol.), *oaiñ urdai gizena ezin jan dut* ‘orain urdai gizena ezin jan dut’ (Ud.), *eziñ etorri gaa* ‘ezin etorri gara’ (Arrar.), *eziñ azaldu zu* ‘ezin azaldu duzu’ (Iri.), *eziñ entendittu diot* ‘ezin entenditu (< gazt. entender) diot’ (Erra.), *arnasa eziñ arto bao* ‘arnasa ezin hartu badu’ (Gai.), *eziñ eaman bao, uztak* ‘ezin eraman badu, uztak’ (In.), *ezin brinkatu nauk!* ‘ezin brinkatu nauk!’ (Gai.).

Nolanahi ere, “Ezin + aditz laguntzailea + aditz nagusia” hurrenkera ere sumatu dugu Araitz-Betelun, eta gero eta maizago erabiltzen da, gainera: *ezin ttuzu muittu* ‘ezin dituzu mugitu’ (Bet.), *gaor ezin balen battozo ein* ‘gaur ezin badituzu egin’ (Gai.).

Geroaldian, baina, beti ageri da aditz nagusia aurretik, baita Araitz-Betelun ere: *atzeaka eziñ eamango zo aldarea* ‘atzeraka ezin eramango duzu aldarera’ (In.), *eziñ esango zo juramentu et* ‘ezin esango duzu juramentu bat’ (In.), *bota ezin eengo zo ba ue* ‘bota ezin egingo duzu ba hura’ (In.).

Hain zuzen, Araitzen du muga “Ezin + aditz nagusia + aditz laguntzailea” hurrenkerak, Gipuzkoara ezkerreko aditz laguntzailea aurretik ezartzen baitute gaur egun. Egitura zaharra dirudi, ordea, eta Gipuzkoan berean ere erabili izan da; Agirre Asteasukoak erabili zuen, esate baterako, XIX. mendean²⁷³. Horren haritik, Goenagak dio hurrenkera horixe dela, hain zuzen, “usadiozko erabilera” (2002: 266, 268). Erabilera horren arrastoa izan daiteke geroaldiko formetan Gipuzkoako hainbat tokitan oraindik orain erabiltzen den hurrenkera; aditz nagusia aurretik paratzen duena, alegia (EI 1984: 274).

Badirudi, ordea, batik bat Nafarroa Garaian iraun duela egitura horrek (cf. Camino 2003a: 83). Gure eremutik ekialdera, hurrenkera hori ohikoa da Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 497); Basaburu Nagusitik iparraldera, bi moduak ezagutzen dituzte Basaburu Txikian (B. L.), eta Leitzan ere bietatik bildu du Olanok, baina badirudi aditz laguntzailea aurretik duen egitura dela nagusi (1998: 282).

Ipar Euskal Herriari dagokionez, *ezin* partikulaz osatutako egiturak ez dira maiztasun handiz erabiltzen, beste egitura mota batzuk erabiltzen baitira usuago (Goenaga 2002: 270):

Bestalde, *ezin*-en erabilera murriztuz joan da Iparraldean [*ezin* + *ahalera*] esamoldearen ordeztuz, *ez ezeztapen partikularen bidez osatuak* erabiltzen baitira gaur nagusiki: Hegoaldean *ezin dut egin* edo *ezin dezaket egin* esango litzatekeen lekuan Iparraldean *ez dut egiten ahal* da nagusi.

Baina, nolanahi ere, aditz nagusia aurretik duen egituraren adibideak badira Ipar Euskal Herriko testuetan, hala nola Lafitteren, Barbierrren edota Hiriart Urrutiren testuetan (Goenaga 2002:

²⁷³ Agirre Asteasukoaren adibide bat: *ezin eskura ditue* (Goenaga 2002: 271).

266) edota Zuberoako pastoraletan²⁷⁴.

Sintaxiaren ikuspegitik, Goenagak dioenez, “hurrenkeran gertatzen ari diren aldaketa nabarmenek *ezin*-en adiztasuneranzko bidea erakusten dute” (2002: 269).

8.6. Lexikoa²⁷⁵

Oro har, lexikoa baztertuxe egon da dialektologian. Mitxelenaren hitzok ditugu horren lekuko (1981: 304):

No creo que la distribución del léxico tiene el valor que algunos (...) le reconocen como criterio de demarcación dialectal.

Nolanahi ere, Mitxelenak berak dioenez, dialektoen arteko harremanari zor zaio lexikoan bat egitea, nahiz bat-egite horiek kontu handiz aztertzeak diren (1976a: 323):

... uno tiene la impresión de que los componentes del léxico se distribuyen dentro de una familia de dialectos como los genes de una población: a veces se tiene la impresión de que se están extrayendo bolas de una urna.

Y, aunque las coincidencias de vocabulario den testimonio de contacto entre dialectos, estas coincidencias, lo mismo que las divergencias, no tienen por qué ser antiguas.

Izan ere, Martínez Álvarezek dioenez (1996: 120), hizkuntzaren atalik aldakorrena da lexikoa, gizartean gertatzen diren aldaketek zuzenean eragiten baitute lexikoan: hitz tradizionalak galdu egiten dira hitzok izendatzen dituzten objektu edo kontzeptuak desagertzearekin batera, eta, aldi berean, hitz berriak sortzen dira. Gainera, Meilletek dioenez, “jatorrizko hiztegiari hitz berriak gainera dakizkioke eta are inoiz zaharrak baino ugariago izan: adibidez, ingelesaren hiztegi germanikoari honen besteko latinezko eta frantseseko osagarri bat gainjarri zaio” (2001 [1924]: 41).

²⁷⁴ Honako adibide hauek ageri dira, esate baterako, *Sainta Catherina* pastoraletan (Loidi 1996): *ecin eguiten badut* (529), *oray ecin emaiten deiçut* (538), *ecin salvacen beiguira* (539), *ecin salbatcen guira* (566).

²⁷⁵ Lexikoaren azterketari buruzko artikulu bat argitaratu genuen 2007an *ASJU* aldizkarian (ikus Apalauza 2007). Artikulu horixe dago 8.6. atal honen oinarrian, baina zenbait ale lexiko gehitu ditugu, eta aldakortasun lexikoari buruzko hausnarketa ere egin nahi izan dugu.

Beste kasu batzuetan, hitz zahar bat kontzeptu berri bat izendatzera igarotzen da, baina ideia zaharrak bere horretan iraun dezake (Jaberg 1959: 81). Ingeleseztan, esate baterako, *gay* hitzaren esanahia aldatu egin da: ‘mutikoa’ izatetik ‘homosexuala’ izatera igaro da (Radford eta beste 2000 [1999]: 362). Gaztelaniari buruzko ikerketa batean, Hualde, Olarrea eta Escobar ikertzaileek ondorioztatu dute itxuraz deigarriak diren desberdintasun lexikoak badirela Madrilgo, Mexiko Hiriko, Buenos Aireseko eta San Juan de Puerto Ricoko gaztelanian; nolani ere, desberdintasunok lagunarteko hizkeran gertatzen dira batez ere, eta eremu semantiko jakin batzuetan (gastronomian, esate baterako: *frijoles / habichuelas / porotos / judías* ‘babarrunak’). Desberdintasun nagusiak mota hauetakoak direla diote: beste hizkuntza batzuetatik maileguak, arkaismoak, eta esanahia aldatutako ale lexikoak (2001: 319).

Geografia linguistikoa indarra hartzen hasi zenean, baina, lexikoari erreparatzen hasi ziren (cf. Camino 2009a: 44-46). Jabergek dioenez, “hitzek emigratu egiten dute” (1959: 26). Hitz bakoitzak bere historia propioa du (García Mouton 1996: 67): alde batetik bestera “mugitzen” dira, oztopoak edo erraztasunak izaten dituzte alde batera edo bestera iristeko, batzuk desagertu egiten dira eta beste batzuk indartu, gune jakin batzuetatik zabaltzen dira hitz batzuk, zenbait tokitara oso ale lexiko gutxi iritsi ohi da, eta abar.

Mugimendu eta ezaugarri guztiok aztertzea ez da kontu hutsala, gure ustez. 2007an erakutsi genuenez (Apalauza 2007), lexikoa aztertzeak asko lagundu dezake dialektologiako ikerketan; azken batean, lexikoa aztertuz erdietsitako ondorioak eta gainerako hizkuntza-ataletan erdietsitakoak alderatuz gero koherentzia badagoela ikusiz gero, guztiz aintzatestekoak dira lexikoari buruzko xehetasunak ere (Apalauza 2007, cf. Pagola 2008). Azken urteotan, hain zuzen, lexikoa bere tokitxoan egiten ari da euskal dialektologian (ikus Hurtado 2001: 135-141, Camino 2001: 445-470, Camino 2003a: 91-118, Zelaieta 2008: 111-113). Alabaina, dialektologiako azterketa gehien-gehienetan, hitz- eta aldaera-bildumak osatu ohi dituzte, eta batez ere galbidean diren edo kutsu tradizionala duten aleak erakutsi ohi dituzte. Ildo horretatik sortuak dira, halaber, azkenaldian ugaritzen ari diren tokian tokiko euskal hiztegiak; besteak beste, *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia* (2007), *Luzaideko euskararen hiztegia* (2007), *Aio, Leitze!* (2005), *Bergara aldeko hiztegia* (2004), *Sakanako hiztegi dialektologikoa* (2004), *Lizarraga Ergoieneko euskara. Lizerraa Ergoienako auskera* (2008), Gamindek Bizkaian egindakoak (1999, 2000, 2001a, 2001b, 2001c, 2001d, 2001e, 2003, 2004, 2006), eta abar. Ezbairik gabe, balio handia dute halako lanek,

baina dialektologiak beste ikuspegi batetik heldu behar dio gaiari: kontua ez da galtzear diren hitzak biltzea, baizik eta egunerokotasunean erabiltzen diren hitz eta aldaeren banaketa geografikoa aztertzea. Alvarrekin ados gaude (1991: 359):

Que es necesario salvar las antiguallas antes de su desaparición, no seré yo quien lo discuta, pero un atlas es mucho más que eso: si en la mente de Gilliéron nació como un principio para mostrarnos la vida del lenguaje, el estado actual —aún no historia— de una realidad y los principios activos que hacen actuar a ese cuerpo vivo, evidentemente, poco sacaremos en limpio recogiendo unos materiales arqueológicos que servirán para una diacronía inoperante ya, no para una sincronía válida para nuestra circunstancia de hoy, y válida también para los futuros investigadores de la lengua.

Guk ere bide horretatik jo nahi dugu; alegia, ez dugu erakutsiko lanbide jakin bati lotutako hitz sortarik, desagertzear den hitz-altxorrik edo dokumentu zaharretan bildutako ale eksklusiborik. Zinez interesgarria deritzogu halakoak biltzeari, baina guk egunerokoan erabiltzen den lexikoari emango diogu arreta, hitz arruntei, bizirik direnei. Gure eremuko lau ibarretan barne-isoglosa lexikorik ba ote den aztertuko dugu, bai eta gure eremuan erabiltzen den lexikoa inguruko hizkerekin alderatuko ere. Azken batean, gure tesiaren helburuarekin bat egiten du lexikoari buruzko saio honen helburuak ere: aztergai dugun eskualdeko euskara ingurukoekin alderatzeko eta hizkeren arteko mugak finkatzeko aukera ematen duen lexikoa aztertzea da gure helburua.

Ezin ahaztu, ordea, lexikoa aztertzean sortzen diren arazoak. Menéndez Pidali jarraituz, zail da zehazki jakitea hitz eta aldaera lexikoak historian zehar zein lekutan erabili izan diren, eta, horregatik, gaur egungo datuak erabiltzen dira batik bat (1979: 28; Lakarra 1996: 152 lanean aipatua):

Las mudanzas del léxico son ciertamente considerables, más rápidas y más frecuentes que las alteraciones fonéticas; por eso su estudio es más rico en hechos. Pero los estudios de geografía léxica hallan grandes dificultades de documentación para conocer el estado antiguo de la distribución territorial de los vocablos, ya que los documentos primitivos manejan un léxico muy escaso; por esto los estudios suelen ceñirse al estado moderno de la nomenclatura, acaso juzgándola estacionaria y antigua, lo cual es muy aventurado.

Gu ere gaur egungo mintzoan erabiltzen den lexikoan oinarritu gara atal hau osatzeko, baina ikuspegi historikoa ere aintzat hartuko dugu, ahal dugun neurrian betiere; *OEHi* begira, batik bat.

Lexikoaren azterketa zazpi atal nagusitan banatu dugu:

- Atetz-Ultzama eta Imotz-Basaburu Nagusia elkarrengandik banatzen dituen lexikoa
- Muskitz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa
- Goldaratz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa
- Imotz eta Basaburu Nagusia alde batera, eta Larraun beste batera paratzen dituen lexikoa
- Larraungo hego-ekialdea eta Larraungo ipar-mendebala elkarrengandik banatzen dituen lexikoa
- Larraun eta Araitz-Betelu elkarrengandik banatzen dituen lexikoa
- Nafarroa eta Gipuzkoa elkarrengandik banatzen dituen lexikoa

Atal bakoitzean, hitzen eta aldaeren sorta bana emango dugu, eta banan-banan aztertuko ditugu: gure eremuan bildutako formen berri emango dugu, eta baita forma horien hedaduraren gaineko zernahi argibide ere.

Azkenik, beste atal batera ekarriko ditugu azterketa honen ondorio nagusiak.

8.6.1. Atetz-Ultzama eta Imotz-Basaburu Nagusia elkarrengandik banatzen dituen lexikoa

Atal honetara dakartzagun hitz eta aldaerek garrantzi handia dute, eremu zabalak banatzen dituzten aleak baitira. Bi eremu nagusi bereiziko ditugu: batetik, Atetz eta Ultzama ibarrak, eta, bestetik, Imotz eta Basaburu Nagusia. Hain zuzen, bi eremu horiek banatzen dituzte hemen emango ditugun ale lexikoek. Basaburu Nagusia eta Imotz batera doaz eskuarki, baina Basaburu Nagusiko ekialdeko herriak (Erbiti, Gartzaron eta Orokieta) Atetz eta Ultzamari loturik ageri zaizkigu zenbait kasutan, eta ondoko Basaburu Txikiaren arrastoa ere nabari da Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan (Arrarats, Igoa eta Beruete).

Guztira zazpi hitz bikote eta bederatzi aldaera bikote aztertuko ditugu. Atetz eta Ultzama ibarretarako emango ditugun ale lexiko gehienak Nafarroako eremu zabalean eta Ipar Euskal Herrian ere erabiltzen dira; Imotzek eta Basaburu Nagusiak, aldiz, mendebaleragoko hizkerekin bat egiten dute eskuarki (Larraun, Araitz-Betelu, Leitza, Gipuzkoa). Nolanahi ere, ezaugarri batzuen hedadura murriztagoa da.

Hitzak

aitutxi, aitatxi, aitetxi / attuna 'aitona':

aitatxi eta *aitutxi* bildu ditu Etxaidek Atetzen eta Ultzaman (1989: 216), eta *aitetxi* dakar Ibarrak (1995a: 676). Basaburu Nagusiko zenbait herritan ere bada forma hori: *aittutxi* eta *atautxi* bildu dugu Arraratsen, eta *atautxi* Igoan. Erbitin eta Gartzaronen, *aitatxi* erabiltzen da gaur egun, baina Gartzarongo bi hiztunek esan digute berria dela hitz hori eta haiek *abuelo* esan eta entzun izan dutela han beti²⁷⁶. Gartzarongo datuak dakartzate, hain zuzen, *EAELk* eta *Elk*, baina ez dira oso argigarriak: *EAELk aitautxi* eta *attune* dakartza, eta *Elk*, berriz, *attune* (1984: 350-352). Orokietan, *abuelo* baizik ez dugu entzun. Imotzen, Larraunen eta Araitz-Betelun, *attuna* erabiltzen da, baita Basaburu Nagusiko Itsason (*attune*) eta Berueten ere. Bestalde, gure eremuaz haratago, *aitatxi* eta haren kidekoak ageri dira Basaburu Txikian (B. L.) eta handik ipar-ekialdera (Malerreka, Baztan, Bertizarana), Nafarroako ekialdean oro har, eta baita Ipar Euskal Herriko zenbait tokitan ere (ikus *EAEL*); gure eremutik mendebalera, berriz, *attuna* erakoak erabiltzen dituzte Gipuzkoa aldean (cf. *Elko* datuak), eta baita Leitzan eta Goizuetan ere (B. L.).

altzin / aurre 'aitzin, aurre':

altziñe bildu du Ibarrak Atetzen, Ultzaman eta Anuen (1995a: 627). Etxaideren datuetan, *altziñ(e)* ageri da Ultzaman eta handik ekialdera eta ipar-ekialdera, eta bi formen trantsizioa (*altziñ(e)* eta *aurre*) sumatzen da Atetzen (1989: 262-263). *OEHko* datuen arabera, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako ekialdean ageri dira *aitzin* eta haren aldaerak. Baina, Atetz-Ultzamatik mendebalera, *aurre* erabiltzen da Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun; hala da Leitzan eta Areson, Basaburu Txikian (nahiz, B. Lizarragak esan digunez, *ai(n)tzin* ere baden Beintza-Labaienen) eta orobat handik mendebalera ere. Gainera, *aurre* erabiltzen zen Imotzekiko hegoaldeko mugan den Txulapainen ere (Arana 2006: 13).

anitz, aunitz / asko 'anitz, asko':

Atetzen eta Ultzaman, *anitz* eta *aunitz* aditzondoak erabiltzen dira (Ibarra 1995a: 626); handik mendebalera, berriz, Imotzen, Larraunen, Basaburu Nagusian eta Araitz-Betelun, *asko* hitza ageri da. *anitz* eta haren kidekoak ohikoak dira Nafarroako ipar-ekialdean (Baztan, Malerreka,

²⁷⁶ Caminok dioenez, “ahalaz, eginahala egin behar da alderatzen diren hitz desberdinak hizkuntzaren jatorrizko lexikoiko atalak izan daitezen, maileguen sarrerak hizkuntza baten banaketa lexiko-semantikoa erruz distorsionatzen baitu (...)” (2009a: 382); horren jakitun gara, baina, beste ordainik lortu ezean, mailegua eman beste irtenbiderik ez dugu izan zenbait kasutan, gutxitan bada ere.

Bortziriak...) eta ekialdean, eta baita Ipar Euskal Herrian ere (cf. *EAEL*). Gure eremuaren mugetan, *asko* dugu Basaburu Txikian —nahiz *aunditz* eta *asko* biak erabiltzen diren Beintza-Labaienen (B. L.)—, eta *asko* dago, halaber, Leitzan eta Areson (Olano 1998: 164) eta orobat gure eremutik mendebalera. Imoztik hegoaldera, *aunitz* gisakoak zeuden Txulapaingo Beorburun eta Usin (Artola 1992: 216, *EAEL*).

etxola / txabola ‘artzainek mendian duten txabola edo etxola’:

etxola eta *itxola* aukerak baliatzen dituzte Ultzaman (Ibarra 1995a: 642). Imotzen, Larraunen eta Araitz-Betelun, berriz, *txaola* da aukera bakarra. Basaburu Nagusiari dagokionez, *txa(b)ola* bildu dugu Itsason, Udaben, Erbitin eta Gartzaronen; Igoan eta Orokietan, *txaola* zein *itxola* ezagutzen dituzte; Arraratsen, *itxola* eman digu berriemaile batek, eta beste batek esan digu artzainenak *txaolak* izaten direla, eta mendian lanean aritzen den jendearenak, berriz, *itxolak*; azkenik, *etxaola* eta *etxoala* formak jaso ditugu Berueten. Berueteko forma gora-behera, bi formen trantsizioa ikus daiteke Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan: hain zuzen ere, *itxola* ageri da haiekin muga egiten duen Basaburu Txikian (B. L.) eta handik ipar-ekialdera (Malerrekan, adibidez). Ultzamatik ekialdera, *etxola* eta *itxola* erabiltzen dituzte Esteribarren, baina ezaguna dute *txabola* hitza ere (Ibarra 2007: 55). Ipar Euskal Herriko berri eskas dugu, baina G. Tabernak *etxola* bildu du Garazi aldeko Gamarten (Nafarroa Beherea). Gure eremutik mendebalera, *txa(b)ola* dugu Gipuzkoan, baita Larraungo mugetan den Leitzan ere (B. L.). Berueteko *etxoala* formari dagokionez, aldaera eksklusiboa da hango ingurumarian, baina *etxabola* bada Aezkoan (I. C.) edota Erroibarren (Ibarra 2007: 55), eta baita mendebaleragoko Bergara aldean (Elxepuru 2004: 244) ere.

gainare / saguzar ‘saguzaharra’:

Ibarrak *gabinario* dakar Ultzamarako (1995a: 637). Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun, *sauxar* eta *saoxar* (Ig.) bildu dugu; Muskitzen, baina, gaztelaniatiko *murtzielago* eman digute, eta ez dugu lortu euskarazko ordainik jasotzea. Etxaidek *kaenari* dakar Berueterako, eta *inarea* Muskitzerako (1989: 110), baina guk, esan bezala, *sauxar* baizik ez dugu entzun Berueten, eta *murtzielago* Muskitzen. *gainare* gisakoak Sakanan, Bortzirietan eta Baztanen ageri dira Etxaideren datuetan, eta hego-nafarreraz ere badira (Camino 2003a: 101). Areago, *Elren* arabera, *iñedia* eta *iñede* zeuden Txulapaingo Nabatzen (1984: 362, cf. Arana 2006: V)²⁷⁷. Gainera, Ipar Euskal Herrian ere erabiltzen dira *gainare* erakoak (*EAEL*), eta Euskal Herriko mendebalean

²⁷⁷ Aranak Txulapaingo hitz eksklusibotzat hartu du *iñedi*; gure ustez, garbi dago *enara*, *inare* eta halakoen aldaera dela Txulapaingoa ere, eta ez da, beraz, hango eksklusiboa.

ere ezagunak ziren Landuccioaren garaian behinik behin, *gau enarea* baitakar haren hiztegiak (Zuazo 1998c: 171). *saguxar* hitzari dagokionez, Basaburu Txikian eta Leitzan bada (B. L.), eta orobat Gipuzkoan.

gibel / atze ‘gibel, atze’:

Isoglosa garbia da: Atetzen eta Ultzaman, *gibel* ageri da (Ibarra 1995a: 627); Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun, berriz, *atze*. *gibel* hitza oso hedatua da Nafarroako ipar-ekialdean eta ekialdean (baita Ipar Euskal Herrian ere), eta Txulapainen ere bazen (Arana 2006: 48-49). Gure eremuaren ingurumarian, *atze* da nagusi Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta orobat mendebaleragoko hizkeretan (Gipuzkoa).

katapurtxintxe, katapunttite / kattagorri ‘katagorria’:

katapurtxintxe eta *katapunttite* aldaera interdialektalak²⁷⁸ daude Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 637), eta *katta(g)orri* jaso dugu Imotzen, Larraunen, Basaburu Nagusian eta Araitz-Betelun. Ildo horretatik, Ibarrek Ultzamako muga ezarri du *katagorri* hitzaren muga: Ultzamatik mendebalera erabiltzen da, baina ez ekialdera (2006: 493). Ultzaman bezala, *katapurtxintxe* edo *burtxintxe* erakoak daude Baztanen (Izeta 1996: 111-112, 175), Bortziriak-Sunbilla-Malerreka-Bertizarana alderdian (Zelaieta 2005: 298), Goizuetan (B. L.), Erroibar-Esteribarren (Ibarra 2007: 39, 146) eta orobat hego-nafarreran (Camino 2003a: 99). Gure eremuko hizkeren inguruan, *kattagorri* dugu Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta orobat Gipuzkoako hizkeretan. Euskal Herriko erdigunekoa dirudi *kattagorri* hitzak, mendebaleko euskalkira orduko beste aukera batzuk (*katamixar...*) ageri baitira (OEH).

Aldaerak

bearri / belarri ‘belarria’:

Etxaideren arabera, *bearri* eta *biarri* aldaerak erabiltzen dituzte Atetzen eta Ultzaman (nahiz tarteka *belarri* ere agertzen den); Ibarrek *biarri* dakar Ultzamarako (1995a: 233). Handik mendebalera, *belarri* da Imozko, Larraungo, Basaburu Nagusiko eta Araitz-Beteluko aldaera. *bearri* eta haren kidekoek hedadura zabala dute: badira Nafarroako ekialde zabalean (Etxaide 1989: 125), Bortzirietan (Zelaieta 2005: 300), Malerrekan (Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta hego-nafarreran edota Ipar Euskal Herrian (Camino 2003a: 101). Gure eremuaren mugetan, *biarri* zegoen

²⁷⁸ Alegia, *kattagorri* eta (*b*)*urtxintxa* hitzak gurutzatu dira *katapurtxintxe* aldaeran (cf. Camino 2009a: 160).

Imoztik hegoaldera den Txulapainen (Arana 2006: 23, cf. *EAEL*), eta *belarri* dago Leitzan, Sakanan eta orobat Gipuzkoan. Basaburu Txikiari dagokionez, *bearri* dago Saldiasen eta Beintza-Labaienen, eta *belarri* Eratsunen eta Ezkurran (B. L.).

bida / bi ‘bi’:

bide aldaera erabiltzen dute Atetz-Ultzaman eta orobat Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean (Etxaide 1989: 347), eta baita Ipar Euskal Herrian (*biga...*) ere (*OEH*). Hegoaldera, Eguesibarren ere bazen *bida*, baina Goñerrian *bi* erabiltzen zen (Camino 2003a: 95). Atetz-Ultzamatik mendebalera, *bi* erabiltzen da Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun, baina *bide* ere entzun dugu Erbitiko berriemaile batengandik. Gure eremuko ibarren mugetan, *bida* zegoen Txulapainen (Arana 2006: 23, cf. *EAEL*), eta *bi* ageri da Basaburu Txikian — nahiz *bida* ere ageri den tarteka Beintza-Labaienen eta Saldiasen— (B. L.), Leitzan eta orobat Gipuzkoan.

edeki / i(r)iki ‘ireki’:

Ultzaman, *edeki* da ohiko forma (Ibarra 1995a: 191), eta *idiki* eta *iriki* dakartza Etxaidek Atetzerako (1989: 284). Imotzen, *iiki* bildu dugu herri guztietan (Oskotzen, *ereki* ere bai); Basaburu Nagusian, *iiki* (Its., Arrar., Ud., Ig., Beru., Gar.) eta *eike* (Beru.); Larraunen, *iiki* (Ast., Od., Bar., Iri., Ui., Gorr., Arru., Ald., Alb.), *iike* (Iri.) eta *eiki* (Erra.); eta, Araitz-Betelun, *iiki* eta *eiki* (In.). *edeki* gisakoak Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean ageri dira Etxaideren datuetan (1989: 284), eta *OEHn* ikus daiteke Ipar Euskal Herrian ere badirela halakoak. Gure eremuaren mugetan, *idiki*, *idike* eta *iriki* daude Basaburu Txikian, eta *iriki*, *irike* Leitzan (B. L.). *i(r)iki* dago, halaber, Gipuzkoako hizkeretan.

guti, gutti / gutxi ‘gutxi’:

Garbia da isoglosa: Atetzen eta Ultzaman, *guti* eta *gutti* daude (Ibarra 1995a: 307); Imotzen, Larraunen, Basaburu Nagusian eta Araitz-Betelun, berriz, *gutxi*. *guti* eta haren kidekoak Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean ageri dira: Anuen (Ibarra 1995a: 307), Erroibar-Esteribarren (Ibarra 2000: 137), Bortzirietan (Zelaieta 2005: 300), eta abar (cf. *EAEL*). *guti* dago, halaber, hego-nafarreran (Camino 2003a: 99), eta bada Ipar Euskal Herrian ere (*OEH*, cf. *EAEL*). Imoztik hegoaldera, *guti* eta *gutti* dakartza Artolak Txulapaingo Beorburu eta Usi herrietarako (1992: 197,

cf. *EAEL*). Gure eremuko ibarren ingurumarian, *gutxi* da nagusi Basaburu Txikian —baina *gutti* ere bada Beintza-Labaienen— eta Leitzan (B. L.), eta hala da Gipuzkoan ere²⁷⁹.

igen / igo ‘igo’:

iyen eta *igen* aldaerak erabiltzen dituzte Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 241 eta Etxaide 1989: 280-281). Imotzen, Larraunen eta Araitz-Betelun, *i(y)o* aurkitu dugu (Uitzin, *eio*), baina *ian* ere bada Etxalekun. Basaburu Nagusiari dagokionez, honako aldaera hauek bildu ditugu: *i(y)o* (Its.), *io* (Ud.), *ien* (Oro.), *ian* (Ud., Arrar., Ig., Er., Gar., Beru.) eta *iyen* (Beru.)²⁸⁰. Basaburu Nagusiaz aldaera horri buruz idatzi dena ikusirik, badirudi bi aukerak nahaska ageri direla: *iyen* jaso du Etxaidek Berueten (1989: 280-281), *EAELk iyo* dakar Gartzaronerako, eta *Elk*, aldiz, *ian* Gartzaronerako, eta *ien* Ihabenerako (1984: 66-67). Bestalde, *Elk* berak *ien* dakar Oskotzerako, baina guk *i(y)o* entzun dugu han beti. *igen* gisakoak Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean ageri dira Etxaideren datuetan (1989: 280-281), eta Caminok diosku halakoak daudela hego-nafarreran (*igen & igan*) eta Ipar Euskal Herrian (*igan*) ere (2003a: 101). Gure eremuaren mugetan, Imoztik hegoaldera, *ion* zegoen Txulapaingo Nabatzen (*EI* 1984: 66-67), eta *ien* Usin (*EAEL*). Basaburu Txikian, *iy*o eta *goittu* erabiltzen dituzte —*ian* ere ageri da Ezkurran, bakanka— (B. L.), *iy*o Leitzan (B. L.), eta *io* gisakoak Gipuzkoan.

legen / igel ‘igela’:

legen aldaera nagusitzen da Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995a: 629), Atezko Beratsain herriko *elena* aldaera kontuan hartuz betiere (*lerena* ere bada Beratsainen, Ibarra 1995a: 234). Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun, *iel* eta *ial* (Its., Beru., Ui.) aldaerak bildu ditugu. Eremu murriztekoa dirudi *legen* formak; izan ere, Anuetik ekialdera, beste aukera batzuk gailentzen dira: *urigel* Erroibarren (Ibarra 2007: 145), *igel* Aezkoan (I. C.), *igal* Zaraitzun (I. C.), *negel* Ituren, Zubieta eta Bera herrietan (*EI* 1984: 363-366), *negal* Baztanen (Izeta 1996: 136), eta abar. Basaburu Txikian ere bada *neel*, baina *igel* da han nagusi, Leitzan bezala (B. L.). Gipuzkoan, *igel* erabiltzen da eskuarki (nahiz eta *OEHk negal* dakarren Beterrirako), baita Ipar Euskal Herrian ere (*OEH*).

²⁷⁹ Bizkaiko eta Gipuzkoako egile batzuek ere erabili izan dute *gut(t)i* (*OEH*), baina oro har Nafarroako ekialde (Ultzamatik ekialdera), ipar-ekialde eta Ipar Euskal Herriko aldaeratzat har daiteke.

²⁸⁰ Ez dago erabat garbi horiek ote diren Berueteko aldaerak. Izan ere, hiztun berak *io* eman zigun lehen saioan, eta *ian* bigarrenean; beste hiztun batek ere *iy*o eman zigun lehenik, eta, guk *iyen* proposatuta, biak izan daitezkeela esan zigun.

neskato / neskame 'neskamea, zerbitzaria':

Atetzen eta Ultzaman, *neskato* bildu du Ibarrek adiera horretan (1995a: 678), baita Anuen ere. Handik mendebalera, aldiz, *neskame* jaso dugu Imotzen, Larraunen, Basaburu Nagusian eta Araitz-Betelun²⁸¹. Imozko Muskitzen ere *neskame* bildu dugu; gaur egun behintzat ez dago Etxaidek han bildutako *neskato* formaren arrastorik (1989: 231). *neskato* ohikoa da Baztan-Malerreka aldean (Izeta 1996: 136, Apalauza eta Lakar 2001-2003) edota Erroibarren (Ibarra 2007: 107), eta Ipar Euskal Herrian ere bada (Camino 2003a: 101). Gure eremuaren mugetan, *neskame* da nagusi Basaburu Txiki gehiengan eta Leitzan (B. L.), eta orobat Gipuzkoan.

neurtu, neurri / leurtu, leurre 'neurtu, neurria':

Atetz-Ultzamarako, *neurtu* dakarte bai Ibarrek (1995a: 234) bai Etxaidek (1989: 78). Imotzerako, *neurtu* dakar Etxaidek, baina guk *leurre*, *liurre* 'neurria' eta *leurrutu*, *liurrutu* 'neurtu' bildu dugu Oskotz ez beste herri guztietan (Oskotzen, *neurrutu*). Imozko aldaera bera aurkitu dugu Larraunen eta Araitz-Betelun ere; salbuespen dira Uitziko hiztun batek eman dizkigun *nebrut* eta *nebrutu* formak (nahiz beste uitziar bati *leurtzen* eta *leurre* jaso diogun). Hain zuzen, Leitzan eta Areson, *leurre*-rekin batera, *lebrut* erabiltzen da (Olano 1998: 79); beraz, baliteke Uitzikoak hango eragina jaso izana²⁸². Basaburu Nagusiari dagokionez, *leurre*, *liurre* dugu Itsason, Udaben, Arraratsen, Berueten eta Igoan, eta *neurtu*, aldiz, Erbitin eta Gartzaronen. Badirudi, beraz, Atetz-Ultzamararekin bat egiten dutela arestiko bi herri horiek. *neurri* erakoak orokorrak dira euskaraz, baina, *leurre* aldaerari dagokionez, badirudi eremu txikia hartzen duela: gure eremuko hizkeren ingurumarian, *neurri* zein *leurre* ageri dira Basaburu Txikian (B. L.), eta *leurre* eta *lebrut* Leitzan eta Areson (gorago esan dugunez), baina *neurri* dago gainerako hizkeretan, hala nola Araitz-Betelun ondoko hizkera gipuzetan (K. E.). Bestalde, *liurre* ageri da Sakanako erdialdean eta *liurre* Altsasun, Urdiainen eta Irañetan (Erdozia 2004a: 189). Mitxelenak goi-nafarreraren aldaeratzat hartu zuen *leurre* (1977 [1961]: 324), eta *OEhk* Ultzamako, Larraungo eta Arakilgo aldaeretan bildu du, baina ez dakigu beste inon erabiltzen den edo erabili izan den.

ogi / obi 'ogia':

Ibarrek *ogie* dakar Ultzamarako eta Atezko Beuntzarako (1995a: 192-193). Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun, *obi* aldaera erabiltzen da. Gipuzkoara ezkerre, aldiz, *ogi* ageri zaigu Amezketan edota Zaldibian (K. E.). Gure mugetan, *obi* ezaguna da (baina ez aukera

²⁸¹ *neskato* ere bada ibar horietan, baina 'neskatxa, neskatala' esan nahi du.

²⁸² Gainera, *lebrut* aldaera bildu du *Elk* Azpirotzen, Uitzin eta Lekunberrin (1984: 116).

bakarra) Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), baina *ogi* ageri da inguruko gainerako hizkeretan, hala ekialdera nola mendebalera. *EAE*Lko datuetan, *obi* aldaera bada Intzan, Leitzan eta Arakilgo Urritzolan²⁸³, eta Artolak *obie* bildu zuen Ezkabarteko Anotzen (1985: 105). *OEH*k goi-nafarreran kokatzen du *obi* aldera, baina Bizkai aldean ere bada, baita Aramaion ere (Ormaetxea 2006: 170).

8.6.2. Muskitz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa

Imozko euskara ez da homogenea (cf. Apalauza 2008a), eta hori garbi ikusten da lexikoan ere. Atal honetan, Muskitz Imozko gainerako herrietatik aldentzen duen lexikoaren berri emango dugu. Guztira hamabost hitz bikote eta zazpi aldaera bikote ikusiko ditugu. Ondorio nagusia zera da: ondoko Atetz eta Ultzama ibarrei loturik ageri da Muskitz, eta orobat handik ekialderagoko, Nafarroako ipar-ekialdeko eta, zenbaitetan, Ipar Euskal Herriko euskarari loturik. Imozko gainerako herriek, berriz, mendebaleragoko hizkerekin bat egiten dute, baina Oskotz eta Etxaleku salbuespen dira kasu batzuetan, Muskitzi hurbiltzen baitzaizkio. Basaburu Nagusia Imotzekin batera dugu eskuarki, baina hango lexikoan nabaria da, batetik, Atetzen eta Ultzamaren eragina, eta, bestetik, Basaburu Txikiarena, ekialdeko eta iparraldeko herrietan batik bat. Batik bat hedadura zabaleko ale lexikoak ikusiko ditugu atal honetan, baina badira hedadura txikiagokoak ere.

Hitzak

amatxi (& *abuela*) / *amandre* ‘amona’:

Muskitzen, gaur egun, gaztelaniazko *abuela* da formarik erabiliena, baina lehenago *amatxi* esaten zutela aipatu digute hango hiztunek. Imozko gainerako herrietan, ez dago *amatxi*-rik: *amandre* bildu dugu Goldaratzen eta Etxalekun, eta gaztelaniazko *abuela* Erason eta Oskotzen. Basaburu Nagusiari dagokionez, ez dago homogeenotasunik: batetik, *amatxi* bildu dugu Erbitin, Gartzaronen, Arraratsen eta Igoan, eta, bestetik, *amandre* dago Berueten, Igoan (*amatxi*-rekin batera), Itsason eta Udaben (Orokietan, *abuela* eman digute). Larraunen eta Araitz-Betelun, *amandre* erabiltzen da.

amatxi Muskitz ondoko Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 218), eta Basaburu Txikian (B. L.) ere bada, eta antzeko formak daude Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean, eta baita, *EAE*Ln ikus daitekeenez, Lapurdin eta Nafarroa Beherean ere. Ereku horrekin guztiarekin batera ditugu, beraz, Muskitz eta Basaburu Nagusiko herri batzuk. *amandre* hitzari dagokionez, Sakanan ere bada (Etxaide 1989: 218)²⁸⁴, eta, *OEH*ren arabera, Bizkaiko, Gipuzkoako (salbu Beterri) eta Larraungo

²⁸³ Baina Urritzolako datua ez da guztiz fidagarria, larraundarra baitzen lekukoaren ama.

²⁸⁴ Erdoziak, ordea, *amin* bildu du Sakanako erdialdean, eta *amandre*, aldiz, Burundan (2008: 337).

hitza da. Araitz-Betelu ondoko Gipuzkoan, *amandre* ere bada, baina *amona* da hango aukera nagusia (K. E.). Gainera, gero eta hedadura handiagoa du hitz horrek gure eremu osoan: hartaz galdetuta, *amona* izan ohi da, maiz aski, hiztunen lehen erantzuna, nahiz berria dela ohartzen diren gero. Hala ere, Larraungo Gorritin, esate baterako, *amuna* hangotzat dute bai adinekoek bai gazteek ere: hitz horrek duen indarraren erakusgarri da adibidea, gure ustez. Gainera, Gorriti ondoko Leitzan ere *amona* da nagusi (B. L.), eta horrek eragina izan lezake Gorritiko aukeran.

Bestalde, norberarena *amañi* da Imozko Goldaratzen eta Etxalekun, Basaburu Nagusiko Udaben eta Berueten, eta Larraungo hego-ekialdeko herrietan (Albiasu barne); forma adierazkorra da betiere (ikus 8.6.5. atalaren bukaeran egindako oharra). Guk dakigula, forma hori ez da ageri gure eremuaz haratago; Izaban (Erronkari) eta Zuberoan bada (*OEH*), baina ez dugu ikusten bi eremuon artean lotura geolektalik dagoenik.

are / landar 'area':

Lurra lantzeko tresna hori *are* izendatzen dute Muskitzen; Imozko gainerako herrietan, berriz, *landar* nagusitzen da. Salbuespena dugu Oskotz, *are xaal* entzun baitugu han. Basaburu Nagusian, *are* dugu Erbitin, Gartzaronen, Arraratsen, Igoan eta Berueten; Itsason eta Udaben, aldiz, *landar* jaso dugu. Larraunen, *landar* bada Astitzen, Oderitzen, Iribasen, Baraibarren eta Arruitzen, eta *are*, berriz, Aldatzen, Uitzin, Albiasun, Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen (ikus 8.6.5. atalaren bukaeran egindako oharra). Ohar gisa, Arruitzen esan digute *landar* dela bertakoa, baina ez digute ukatu *are* ere erabiltzen dutenik. Iribasen eta Baraibarren, *landarrare* aldaera ere bildu dugu, *landar*-ekin batera. Mendebalerago, *arre* aldaera erabiltzen dute Araitz-Betelun (ikus 8.6.6. atalaren bukaeran egindako oharra), Gipuzkoako Amezketan edota Zaldibian bezala (K. E.). Gure eremuaren mugetan, *are* hitza bada Muskitz eta Basaburu Nagusi ondoko Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 651), eta Basaburu Txikian (B. L.), eta Txulapainen ere bazen (Arana 2006: 9); jakina, hitz arrunta da beste euskal hizkera batzuetan ere. Baina ez dakigu nahi adina *landar* aukerari buruz: *OEH*ren arabera, Burundako, Etxarri Aranazko eta Irun aldeko (Gipuzkoa) hizkeretan bada, eta, Iribarrenen datuak ikusita, badirudi Iruñerrian eta handik hegoaldera ere erabiltzen zela (1984: 311). Horrez gain, Arakilgo Urritzolan eta Hiriberrin ere ageri da (Erdozia 2004a: 29).

armimau / armiarma 'armiarma':

Muskitzen eta Oskotzen, *armimau* bildu dugu; aitzitik, *armiarma*, *ermiarma* eta *irmiarma* aldaerak entzun ditugu Imozko gainerako herrietan. Halakoak daude Basaburu Nagusian ere:

ermearma (Its.), *ermiarma* (Ud., Gar., Arrar.), *armiarma* (Er., Gar., Oro.²⁸⁵), *irmiarma* (Arrar., Ig.). Salbuespentzat (edo aldaera berezitzat) har daitezke Berueten jaso ditugun *irmearmoa* eta *ermiarmoa* adibideak. Larraunen ere jaso ditugu arestiko aldaeren antzekoak; hain zuzen, *armia(r)moa* (Od., Iri., Ald.), eta *armearma* (Bar., Arru.), *armiarma* (Ui., Gorr., Alb., Erra.) aldaerak bildu ditugu han. Handik mendebalera, *armiarma* erabiltzen da Araitz-Betelun. Gure eremuaren mugetan, *armimau* bada Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Etxaide 1989: 112 eta Ibarra 1995a: 626), eta bazen Imoztik hegoaldera den Txulapainen ere (Arana 2006: 9-10, cf. *EAEL*). Baina, inguruko gainerako hizkeretan, *armiarma* edo haren aldaerak erabiltzen dira, hala nola Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.). *armiarma* beste euskal hizkera batzuetara ere hedatzen da, baina murriztagoa da *armimau* hitzaren hedadura: gorago zehaztutako eremutik kanpo, ohikoa da hego-nafarreraren eremuan (Camino 2003a: 99) edota Arakilgo Urritzolan eta Irañetan (I. C.), baina badirudi hortxe duela muga hitz horrek²⁸⁶.

erreka / erreka & ugalde ‘ibaia’:

Nafarroa Garaiko toki gehientsuenetako toponimian ageri da *ugalde* hitza (Salaberri 1991: 645), baina, gaur egun, ez da toki guztietan (eta modu berean) erabiltzen. Hala, Imozko Muskitzen eta Etxalekun, ez dute erabiltzen, eta *erreka* izendatzen dituzte erreka handi zein txikiak. Imozko gainerako herrietan, aldiz, *ugaldera* doana da *erreka*; hots, *erreka* txikiagoa da *ugaldea* (Goldaritzen, *ualdii*) baino. Basaburu Nagusian, *ugalde* eta *erreka* bereizi egiten dituzte ekialdeko herrietan; alegia, Erbitin, Gartzaronen eta Jauntsaratsen; gainerakoetan, *erreka* erabiltzen dute ‘erreka’ adierazteko, eta *ualde* ere ezagutzen dute Itsason, Arraratsen eta Igoan, baina erreka ur-handiturik heldu dela adierazteko erabiltzen dute. Larrauni dagokionez, Oderitz, Arruitz, Iribas eta Albiasu herrietan, *erreka* eta *ualde* bereizten dituzte, baina *erreka* soilik dugu Baraibarren, Aldatzen, Uitzin, Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen. Arestiko azken hiru herrietan, *ualde* hitza ere erabiltzen dute, baina errekek gainezka egiten duenean sortzen dena adierazteko. Hain zuzen, adiera horixe bera du *ualde*-k Araitz-Betelun ere (ikus 8.6.5. atalaren bukaeran egindako oharra).

Semantika-kontuak alde batera utzita, gure eremutik ekialdera, *ugalde* ezaguna da Ultzaman (Ibarra 1995a: 654), eta Imoztik hegoaldera den Txulapainen ere bazen (*EAEL*). Hitz hori Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean bada: Malerrekan (Apalauza eta Lakar 2001-2003), Baztanen (Izeta 1996: 171), Erroibarren (Ibarra 2007: 144), Aezkoan (Camino 1997: 615) eta orobat

²⁸⁵ Oroketan, *armimau* ere erabiltzen dute zenbait hiztunek.

²⁸⁶ Caminok *EHHAn* bildutako zenbait daturen berri eman digu: *armiarmo* ageri da Itsasun, *armimau* Armendaritzen, *abimau* Irisarrin, eta *amiamau* Izturitzen eta Landibarren.

hego-nafarreran (Camino 2003a: 101). Ezaguna da, halaber, Sakanako erdialdean (Erdozia 2004a: 282). *EAEL*ko datuen arabera, *ugalde* hitza ez da Nafarroa Garaitik kanpora ageri ibaiaren adieran. Badirudi, beraz, gure eremuan hasten direla gauzak aldatzen. Bitxia da Muskitzen eta Etxalekun *ugalde* hitza ez ezagutzea eta bai, ordea, Imozko gainerako herrietan eta Larraungo hegoaldean; izan ere, Nafarroako ekialdean oso hedatuta dago *ugalde*, eta, Muskitzek behintzat, Imoztik urruntzen denean, ekialdearekin batzeko joera erakusten du beste hitz eta aldaera askotan, eta ez alderantziz.

eskalapoin / xokle ‘eskalapoa’:


Zurezko oinetako mota horri *eskalapuiñ* esaten diote Muskitzen, eta *xokle*, *xokele* (Era.) & *txokole* (Era.) Imozko gainerako herrietan. Muskitzekin batera dugu Basaburu Nagusi gehiena: *eskalapriñ* (Its., Arrar.), *eskalaproiñ* (Its.), *eskalapruñ* (Its., Gar.), *eskalapuiñ* (Ig.), *eskalapoiñ* (Er., Beru.). Forma horiez gain, *xokle* ere bildu dugu Berueten, *txokille* Arraratsen, eta *xokle* Udaben. Larraunen, *xokle* eta *txokle* bildu dugu, eta *xokle* Araitz-Beteluko herri guztietan. *eskalapoin* gisakoak ohikoak dira gure eremutik ekialdera (baita Lakuntzan ere; Erdozia 2004a: 108), baina *txokle* eta *tzokle* ere erabiltzen dira, esate baterako, Aezkoan (I. C.), eta *txokle* ezaguna da Erroibarko gaztelanian (O. I.). Hain zuzen, gaztelaniazko “choclo” hitzetik eratorria da forma hori: Iribarrenek Nafarroako eremu zabalean bildu du (1984: 189), eta *OEH*k Bizkaiko eta Gipuzkoako adibideak dakartza. Gure hizkeren ingurumarian, *eskalapoin* ezaguna da Leitzan eta Basaburu Txikian, baina gutxi-gutxi erabiltzen da (B. L.). Mendebalera, berriz, *xokle* formatik oso urruti ez dagoen *txokolo* dugu Amezketan eta Zaldibian (K. E.), eta antzekoak badira Bizkaiko eta Gipuzkoako beste hizkera batzuetan (*OEH*).

iratze / iraztor ‘iratzea, iraztorra, garoa’:

iratze bildu dugu Muskitzen eta Oskotzen, eta *iaztor*, aldiz, Imozko gainerako herrietan (Goldaraten, *i(i)xtor*). Basaburu Nagusian, *iratze* jaso dugu herri guztietan (Itsason, *iretzik*)²⁸⁷. Larraun gehiena Imotz gehienarekin bat dator: *iaztor* bildu dugu Errazkin ez beste herri guztietan (Uitzin, *eaxtor*). Errazkinen, hain zuzen, *garo* erabiltzen da, ondoko Araitz-Betelun bezala (ikus 8.6.6. atalaren bukaeran egindako oharra). Gauza bera adierazteko, hiru forma baliatzen dira, beraz, gure eremuan: *iratze*, *iraztor* eta *garo*.

²⁸⁷ Ibarak *i(d)aztorra* eta *ixtorra* bildu ditu Basaburu Nagusiko Udaben eta Berueten (1995a: 633), baina guk *iratze* entzun dugu bi herriotan. Areago, Beruetetik hurbil dagoen Aldatz herrian aipatu digute kontua: aldaztarrentzat, ezaugarri markatua da Berueten *iratze* erabiltzea.

25. irudia



Inguruko hizkeretan, *iratzor* dugu Ultzaman (Ibarra 1995a: 633) eta Basaburu Txikian (B. L.), eta *iratzor* edo haren aldaerak daude Leitzan (B. L.); Araitz-Betelu ondoko Gipuzkoan, *garo* hitza erabiltzen dute (Hurtado 2001: 140). *iratzor* hitza Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean erabiltzen da (Bizkai aldeko *ira* ahaztu gabe). *iratzor* hitzari dagokionez, gure eremutik haratago, Sakanako erdialdean bada (Erdozia 2004a: 155), eta, *OEHk* dakarrenez, ezaguna da Gipuzkoako zenbait hizkeratan ere (Azpeitia, Beterri, Tolosaldea). Gipuzkoan, baina, *garo* ere bada: Azpeitian, Goierrin, Tolosaldean eta Bizkaiko hizkera batzuetan ageri da (*OEH*). Ez dugu Ipar Euskal Herriko berri zehatzik, baina, Garazi aldeko Gamarten (Nafarroa Beherea), *iratzor* esaten zaio landareari, eta *iratzor*, berriz, iratzor-zelaiari (G. T.). Adiera horixe bera jaso du *OEHk* ere Arakilgo, Aezkoako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako mintzoetan, eta halaxe bildu du Ibarrek Erroibarren ere (2007: 72).

kanebeta / laban ‘ganibeta, labana’:

Muskitzen, *kanebeta* hitza erabiltzen da, nahiz eta *laban* hitza erabiltzen den gero eta gehiago. Muskitz ez beste Imozko gainerako herrietan, *laana* nagusitzen da, eta, *kanebeta* eta *kanebeta* ezagunak zaizkien arren, kanpokotzat hartzen dituzte. Basaburu Nagusian eta Larraunen, gaur egun, *la(b)an* erabiltzen dute; nolahi ere, lehenago *kanebeta* erakoak erabiltzen dituztela esan digute herri askotan, baina denak ez datoz bat hitzaren esanahia azaltzeko orduan. Hala, labanari *kanebeta*,

kaneeta esaten zioten Itsason, Arraratsen, Berueten, Arruitzen, Mugiron, Aldatzen eta Errazkinen, eta *kanaitte* Gartzaronen; Igoan, biltzen den labanari esaten zioten *kaneeta*; Uitzin, laban muturmotz eta puntagabea izaten zen *kaneeta*, *laana* baino txikiagoa betiere; Gorritin, kiderra ere burdinazkoa zuen labana zen *kaneeta* (*laana*-k zurezkoa izaten baitzuen), eta abar. Nolanahi ere, hitz hori galdua da gaurgero, *la(b)an* nagusitu baita Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun; Muskitzen dago hitzaren azken arrastoa, nolabait esateko, gaur egun ere ohikoa baita han *kaneita* entzutea.

Gure eremuko lau ibarren inguruan, *kanabite* gisakoak badira Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 663), eta baziren Txulapainen ere (*EAEL*); gainerakoan, *laban* da nagusi Basaburu Txikian, Leitzan (B. L.) eta orobat Gipuzkoan. Etxaideren datuetan, Nafarroako ekialde zabalean ageri dira *ganibet* eta haren aldaerak (1989: 180). Nafarroako ipar-ekialdean ere bada hitz hori (*nabal*-ekin batera betiere): Bortzirietan (Zelaieta 2005: 299) edota Baztanen (Izeta 1996: 109). Gainera, Ipar Euskal Herrian ere ezaguna da *ganibet* (*EAEL*). Euskal Herriko erdiguneko hizkeretan, *laban* da nagusi; baina, Oñatin, *gainueta* eta *kainubeta* ditugu (Zuazo 2006a: 165). Badirudi, beraz, Euskal Herriko erdigunetik zabaltzen ari dela *laban* hitza, eta, gure eremuan behinik behin, lekua kentzen ari zaio *kanieta*-ri. XVIII. eta XIX. mendeko Gipuzkoako eta Bizkaiko literaturan ere erabili izan da *ganibet*; beraz, pentsatzekoa da hitz horrek hedadura handiagoa zukeela garai batean, baina *laban* nagusitu da denborarekin. Prestigioa izan daiteke horren arrazoia: Errazkingo emakume batek, esate baterako, forma makurtzat dauka *kanieta*, eta “zuzena” *laana* dela dio.

kukuso / *arkakuso* ‘arkakusoa’:

kukuso dugu Muskitzen, eta *arkakoso* Imozko gainerako herrietan. Basaburu Nagusia bitan banatzen du hitz bikote horrek: *arkakusoa* eta *arkakosoa* ditugu Itsason, Udaben eta Berueten, eta *kukusoa*, aldiz, Erbitin, Gartzaronen, Orokietan, Arraratsen eta Igoan. Mendebalera, *arkakuso* eta *arkakoso* ditugu Larraunen eta Araitz-Betelun. Mugako hizkereri dagokienez, *kukuso* hitza ageri da Imotz eta Basaburu Nagusi ondoko Atetz eta Ultzama ibarretan, Basaburu Txikian ere bada (B. L.), eta bazen Txulapaingo Usin (*EAEL*). Mendebalerantz egin ahala, ordea, *arkakuso* nagusitzen da, hala nola Leitzan (B. L.) eta Gipuzkoa aldean. *EAEL*ko datuen arabera, *kukuso* Nafarroa gehiengan, Hondarribian, Oiartzunen eta Ipar Euskal Herrian erabiltzen da.

mandar / mantal ‘(aurreko) mantala’:

Muskitzen, *mandar* esaten diote aurreko mantalari; Imozko gainerako herrietan, *mantal* dugu. Oskotzen ere *mantal* jaso dugu, baina Goldarazko hiztun batek esan digu haren amak, Oskozkoa baitzen, *mandar* esaten zuela. Basaburu Nagusia banatuta ageri zaigu: *mandar* dugu Udaben, Beramendin, Erbitin, Gartzaronen eta Orokietan, eta *mantal*, berriz, Itsason, Berueten, Arraratsen eta Igoan. Handik mendebalera, *mantal* dugu Larraunen²⁸⁸, Araitz-Betelun eta oro har Gipuzkoako hizkeretan. *mantal* dugu, halaber, Leitzan eta Basaburu Txikiko Ezkurran eta Eratsunen, eta *mandar* Saldiasen eta Beintza-Labaienen (B. L.). Iribarrenen datuen arabera, Nafarroako eremu zabalean erabiltzen da (eta zen) *mandar* (1984: 331)²⁸⁹; badirudi hitz hori dela ohikoena gure eremutik ekialderako hizkeretan, eta horixe zegoen Ollaranen ere (Bidador 1992: 294). Areago, Iribasko hiztun batek esan digu “kokoerrikoa” dela *mandar* hitza (Iruñerriari esaten diote “kokoerria”).

martuxa / matxutxa, matusta, masusta ‘masusta’:

Batetik, *martuxe* bildu dugu Muskitzen (*mastutxe* bildu izan da, ordea, Muskitzen; ikus Ibarra 1995a: 223 eta Etxaide 1989: 96), eta *martuxe* eta *mastutse* Oskotzen. Imozko gainerako herrietan eta Basaburu Nagusian, *matxutxe* erabiltzen da; Goldaratz da salbuespena, *matuste* baitago han. Larraunen eta Araitz-Betelun, *masuste* entzun dugu; Aldatzen, baina, *matuste* dugu, Goldaratz bezala. Bost forma ditugu, beraz, gure eremuan, gauza bera adierazteko. Inguruko hizkeretan, *martuxe* gisakoak daude Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Etxaide 1989: 96), *mazurtze* gisakoak Basaburu Txikiko Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaien herrietan (B. L.), eta *masuste* da nagusi Leitzan eta Ezkurran (B. L.), Gipuzkoa aldean eta baita Sakanako erdialdean ere, baina *martutse* ageri da Irañetan (Erdozia 2004a: 205). *martuxe* erakoak ekialderago ere badira (ikus Etxaide 1989: 96 eta Ibarra 2007: 99), baita Baztanen ere (Izeta 1996: 128). *matsuts* aldaerari dagokionez, ezaguna da Bortzirietako Lesakan (A. L.) edota Aezkoan (I. C.), baina ez dakigu zein den beraren hedadura zehatza. Beraz: Muskitzek eta Oskotzek ekialderagoko hizkerek bat egiten dute; Goldaratzek, Larraunek eta Araitz-Beteluk, mendebaleragokoekin; eta tartean gelditzen dira Imozko tarteko herriak eta Basaburu Nagusia.

oroitu & akordatu / akordatu ‘oroitu, gogoratu’:

ooittu esaten da, *akordatu*-rekin batera, Muskitzen, Oskotzen eta Etxalekun. Imozko gainerako herrietan, ez dute *oroitu* erabiltzen, *akordatu* baizik. Basaburu Nagusian, biak bildu ditugu: *ooittu*

²⁸⁸ Baina Oderizko hiztun batek esan digu *mandar* erabiltzen zuela beraren amak, oderiztarra baitzen.

²⁸⁹ Atorraren adieran ere erabiltzen da zenbait herritan.

iparraldeko eta ekialdeko herrietan (Er., Gar., Ig., Arrar., Oro.) eta *akordatu* besteetan (Ud., Its., Beru.). Larraunen eta Araitz-Betelun, *akordatu* da nagusi. Gure ibarren inguruan, *oroitu* ageri da Atetzen eta Ultzaman (O. I.), Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta Txulapainen ere bazen (Arana 2006: 84); Imotzen eta Basaburu Nagusian du muga hitz horrek, handik mendebalera ez baita agertzen. *oroitu* Nafarroako ekialde eta ipar-ekialde zabalean ageri da, baita Ipar Euskal Herrian ere (*OEH*); nolana ere, Gipuzkoan ere erabili izan da. Bestalde, beste egitura mota batzuk ere entzun daitezke gure eremuan, hala nola *eztauket gooan* ‘ez daukat gogoan’ edota *enaiz goatzen* ‘ez naiz gogoratzen’.

sobra / sobra & geiei ‘sobera, gehiegi’:

sobra hitza erabiltzen dute, Muskitzen, ‘gehiegi’ adierazteko. Imozko gainerako herrietan, Basaburu Nagusian eta Larraunen ere ezaguna da *sobra*, baina maizago erabiltzen dute *geiei*. Badugu Araitz-Beteluko Gaintzako adibide bat ere, baina zalantza dugu ‘gehiegi’ esan nahi ote duen²⁹⁰. Ez dirudi, bestalde, Gipuzkoa aldean badenik. *sob(e)ra* gure eremutik ekialdera eta iparraldera ageri da adiera horretan: Ultzaman (Ibarra 1995a: 332), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 137), Artzibarren (Arana 2004: 146), eta orobat Malerreka-Bortziriak alderdian. Basaburu Txikian, biak erabiltzen dira, eta Leitzan ere bada *sobra*, baina ‘nahikoa’ esan nahi du (B. L.)²⁹¹. Bestalde, Ipar Euskal Herrian ere bada *sobera* (*OEH*). Gure eremuan, apika hedadura handiagoa izango zuen *sobra*-k garai batean; gaur egun, adinekoek baino ez dute erabiltzen, eta gero eta urriago, gainera. Nolanahi ere, aztertzekoa litzateke kontua, mailegua baita *sobera*, eta jatorrizko hitza *geiegi*; beraz, pentsatzekoa da geroago sartua datekeela mailegua.

txilko / txilbor ‘zilborra’:

txilko bildu dugu Muskitzen, eta *txilbor* Imozko gainerako herrietan. Basaburu Nagusian, *txilbor* (Its., Beru., Er., Gar., Oro., Arrar.), *zilbor* (Arrar.) eta *xilbor* (Ig.) aldaerak bildu ditugu; Etxaidek *zilkoa* dakar Itsasorako (1989: 135), baina guk *txilbor* bildu dugu han, eta, bestalde, Erbitin esan digute aziendaren zilborrari *txilko* deitzen diotela. Larraunen eta Araitz-Betelun, *txilbor* erabiltzen da. Gure eremutik ekialdera, *zilko* gisakoak daude Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 670),

²⁹⁰ *Araitz-Beteluko ahozko tradizioa* lan argitaragabea (Apalauza eta Arraztio 2003-2005: 118) ageri da adibidea. Honako galdera hau egin genion Gaintzako hiztunari [gaztelaniaz ez jakiteak sortzen zizkien mugez ari ginela]: *Biño etziñeten lotsatuko, ez?* ‘Baina ez zineten lotsatuko, ez?’. Eta hark zera erantzun zigun: *Sobra! Bae, bae, bueno, bueno, burle itte baizue, aixe lotsato, ai[k] esate’tuen kuntukin!* ‘Sobera! Bai, bai, bueno, bueno, burla egiten badizute, aise lotsatu, haiek esaten dituzten kontuekin!’. Baliteke Sakanan edota Goierrin erabiltzen den *sobrare* ‘dirudienez, antza denez’ adierarekin lotura izatea.

²⁹¹ Berueten ere jaso dugu adiera hori: [Galdera] *Oaiñ ezate yoaten?* [Beruetarraren erantzuna] *Sobra gutxe, e!*

eta *zilbor* erabiltzen da Basaburu Nagusiaren iparraldeko mugan den Basaburu Txikian, baita Leitzan ere (B. L.). Bi aldaeron banaketa garbia da: *txilko* eta haren kidekoak Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean ageri dira (ikus Etxaide 1989: 135), badira hego-nafarreraz eta Ipar Euskal Herriko hizkeretan (Camino 2003a: 101), eta baziren Txulapainen ere (Artola 1992: 193, cf. *EI* 1984: 72); Imotz-Basaburu Nagusian (salbu Muskitz) eta handik mendebalera, aldiz, *zilbor* nagusitzen da (cf. Hurtado 2001: 141).

urrin / usain ‘usaina’:

Usain mota guztiei *urrin* esaten diete Muskitzen, nahiz *usai* dakarren Etxaidek (1989: 132). Imozko beste herrietan, salbu Goldaratzen, *usaie* eta *urriñe* bereizten dituzte: usain txarra edo zikina da *usaie*, eta usain goxoa, berriz, *urriñe*. Goldaratzen ez dituzte bereizten, eta *usai* erabiltzen dute kasu guztietan. *usai* dugu, halaber, Basaburu Nagusi gehienez, baina bi hitzak nahaska ageri dira Erbitin eta Gartzaronen. Larraunen eta Araitz-Betelun, *usai* bildu dugu kasu guztietan. Gure ibarren ondoko hizkeretan, Atetzen eta Ultzaman ere ezagutzen dute *urrin* (Ibarra 1995a: 664), eta forma horixe zegoen Txulapainen ere (*EAEL*); bestalde, *usai* dago Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.) eta orobat Gipuzkoan. *urrin* hitza ezaguna da Nafarroako eremu zabalean eta Ipar Euskal Herrian (ikus *EAEL* eta *OEH*).

yautsi / jetsi ‘jaitsi’:

Muskitzen, *yautsi* egiten dituzte eskailerak, eta Muskiztik ezker, aldiz, *je(i)tsi* eta *je(i)txi* aldaerak ditugu Imozko gainerako herrietan, Larraunen eta Araitz-Betelun bezala. Basaburu Nagusian, bietatik bildu dugu: *je(i)tsi* Itsason eta Udaben, *yautsi* eta *yetsi* Erbitin eta Gartzaronen, *yautsi* eta *yeutsi* Arraratsen, *yutxi* Igoan, eta *yetsi* Berueten; gainera, Etxaidek *yutxii* dakar Berueterako (1989: 277)²⁹². Handik ekialdera, *yautsi* dago Atetzen eta Ultzaman (ikus Etxaide), eta, iparraldera, *yeutsi* Ezkurra ez beste Basaburu Txikiko herrietan (B. L.), eta *yetsi* Ezkurran eta Leitzan (B. L.). Gipuzkoa aldean, *jetsi* edo *ja(i)tsi* erakoak erabiltzen dira. Nafarroako ekialdeko eta ipar-ekialdeko kutsua du *yautsi*-k (ikus Etxaide), eta, *EAEL*ren arabera, Txulapaingo Usin ere bazen, eta bada Lapurdin eta Nafarroa Beherean ere.

²⁹² Orokietan, *bajatu*.

Aldaerak

ameka / amika 'hamaika':

ameka erabiltzen da Muskitzen eta baita, tarteka, Oskotzen ere; Imozko gainerako herrietan, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun, berriz, *amika* dago. Gure eremuaren ekialdeko eta hegoaldeko mugetan ageri da *ameka*: Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 356), Arakilgo Egiarretan (I. C.), eta Txulapainen eta Gulibarren (Camino 2005a: 276). Inguruko gainerako hizkeretan, *am(a)ika* ageri da. *ameka* aldaera euskara nafarraren eta Ipar Euskal Herriko aldaeratzat hartu du Zuazok (1999b: 251); hor zehar irakurri dugunaren arabera, Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean gutxienez bada (cf. Etxaide, *EDEL*). Eremu horrekin guztiarekin bat egiten du, horrenbestez, Muskitzek.

bago / pago 'pagoa':

bago esaten diote pago zuhaitzari Muskitzen, eta *pago*, aldiz, Imozko gainerako herrietan, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun. Salaberrik Imozko Oskotz eta Atezo Beuntza herrien artean ezarri du bi aldaera horien muga (1991: 643). Ibarrek bi aldaerak topatu ditu Atetzen, eta *bago* soilik Ultzaman (1995a: 196); Muskitzen hegoaldeko muga, *bagadi* 'pagadia' dugu Txulapainen (Arana 2006: 15). Inguruko gainerako hizkeretan, *pago* da nagusi Basaburu Txikian eta Leitzañan, nahiz *bago* ere baden Beintza-Labaienen (B. L.). Aldaera ahostunduna Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean ageri da (Etxaide 1989: 84), eta hego-nafarreran ere bada (Camino 2003a: 101). Gainera, Iribarrenen *Vocabulario navarro* lanari tiraka, *baburrin* dakar berak Ororbiarako, eta interesgarria da haren azalpena (1984: 73):

Nombre que dan al aire cierzo. [Ororbia]. En otras aldeas de la cuenca *bagurrin*. Del vasco *bagoa*: haya, porque el cierzo arrastra olor a bosques de haya.

Beraz, Iruñerrian ere ezaguna izango zen, hiriburua euskalduna zen garaietan, *bago* aldaera. Aldaera hori mendebaleragoko hizkeretan ere ezaguna izan da, hala nola Arabako ekialdean (Zuazo 1998c: 141).

deitxi / je(i)txi, yetzi, je(i)tzi 'jetzi':

deitxi eta *detzi* aldaerak bildu ditugu Muskitzen eta Oskotzen, eta *jetxi* eta *jetsi*, berriz, Imozko gainerako herrietan. Basaburu Nagusia banaturik ageri zaigu: *deitzi* dago Erbitin, Gartzaronen eta Orokietan, eta *yetze* Berueten eta Igoan, *yetzi* Arraratsen, *je(i)txi* Udaben eta Itsason. Larraunen,

jetxi dugu Astitzen eta Oderitzen, eta *jetzi* gainerako herrietan. *jetzi* dago, halaber, Araitz-Betelun. Nafarroako ekialdekoa eta ipar-ekialdekoa dirudi *deitxi* aldaerak: *deiztogi*, *deiztegi* dakar Ibarrak Ultzamarako (1995a: 642), eta *deitzi* erakoak badira Odietan (Camino 2003a: 242), Erroibarren (Ibarra 2007: 41) edota Baztanen (Izeta 1996: 68), baina *yaitzi* gisakoak ere badira Erroibarren (Ibarra 2007: 151). Bestalde, Lapurdin eta Nafarroa Beherean ere bada *deitzi* (OEH). *jetzi* edo *yetzi* erakoak daude, aldiz, Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta orobat Gipuzkoa aldean.

erran / *esan* ‘esan’:

erran eta *esan* biak txandakaturik ageri dira Muskitzen, guk entzun dugunez. Oskotzen ere bietatik entzun dugu: adinekoen artean, hiztun batzuek *erran* erabiltzen dute beti, eta beste batzuek, berriz, beti *esan*. Gainera, hala batzuek nola besteek guztiz ziur esaten dute berena dela Oskotzen betiko denboran erabili izan den forma. Hiztun gazteagoek, berriz, *esan* erabiltzen dute ia osotara. Bat gatoz Sánchez Carriónek (1974: 261-262):

Múzquiz, al oriente de la línea, es ya pueblo de *erran*, mientras que el resto de las localidades del valle utilizan *esan*. Osoz, que originariamente parece haber tenido la forma labortana (*erran*), era localidad donde, hasta hace muy poco tiempo, confluían las dos formas. Finalmente ha sido *esan* la que ha acabado por imponerse.

Basaburu Nagusian, *erran* bildu dugu ekialdeko herrietan —alegia, Erbitin, Gartzaronen eta Orokietan—, eta *esan*, berriz, gainerako herrietan. Larraunen eta Araitz-Betelun, *esan* da nagusi, baita handik mendebalera ere. Gure ibarren mugetan, *esan* dago Beintza-Labaien ez beste Basaburu Txikiko herrietan (B. L.; cf. Sánchez Carrión 1974: 261); *erran* dugu Atetzen, Ultzaman nahiz Odietan (Sánchez Carrión 1974: 263) eta Txulapaingo Beorburun (Artola 1992: 215), eta *esan* Leitzan eta orobat Gipuzkoan. Arakili dagokionez, auzia ez dago batere garbi (ikus Camino 2005a: 281). Oro har, Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean, eta Ipar Euskal Herrian ageri da *erran*; beraz, alderdi horrekin bat egiten dute Muskitzek eta Basaburu Nagusiko ekialdeak.

gatzakoi / *gatzari* ‘gatzagia’:

Gazta egitean esnari loditzeko botatzen zaion gaia *gatzakoi* da Muskitzen eta Etxalekun, eta *gatzari*, *gatzari* Imozko gainerako herrietan. Basaburu Nagusiari dagokionez, Muskitzekin batera ditugu Gartzaron eta Orokieta, eta gainerako herriak Imozko herri gehienekin batera doaz. *gatzakoi*

aldaera Muskiztik ekialdera ageri da, hala nola Ultzaman (Ibarra 1995a: 666), baina ez dirudi hedadura handia duenik, Esteribar-Erroibarrera orduko *gatzegi* ageri baita (Ibarra 2007: 63), eta antzekoak daude handik ekialdera ere. Alabaina, *gatzakoye* bada Irañetan, eta *gatzikoya* Unanun (Erdozia 2004a: 127). *gatzari* erakoek, bestalde, hedadura zabala dute Imoztik mendebalerako hizkeretan.


iruzki / euzki ‘eguzkia’:

iruzki aldaera bildu dugu Muskitzen; *euzki* (& *iuzki*) Imozko gainerako herrietan, eta bi formok entzun ditugu Oskotzen, txandakaturik. Imotz gehienarekin bat datoz Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu. Muskiztik ekialdera, *iduzki* dago Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 86), eta, hegoaldera, aldaera hori bera zegoen Txulapainen (Arana 2006: 53, cf. *EAEL*). Baina hortxe dute muga aldaera horiek: Basaburu Txikian eta Leitzaan, gure eremuan bezala, *euzki* da nagusi, baina eratsundar batzuek *iruzki* ere erabiltzen dute (B. L.). *iruzki* eta *iduzki* aldaerek Nafarroako ekialdeko eta ipar-ekialdeko kutsua dute; esate baterako, halakoak daude Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 46), edota Baztanen (Izeta 1996: 100), baina baita mendebalerago dagoen Sakanan ere (Erdozia 2004a: 151). Gure eremutik mendebalera, *euzki* dugu Gipuzkoako hizkeretan; alabaina, *iruzki* dago Pasai Donibanen (Camino 2000b: 68) edota Irun aldean (*OEH*).

matel / matail ‘masaila’:

matela esaten diote, Muskitzen, aurpegiko zein ipurdiko masailari (*matel-ipurdie*), eta *matalle* dugu, aldiz, Imozko beste herrietan, Basaburu Nagusian, Larraunen (Uitzin, *matelle*) eta Araitz-Betelun. *matel* Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko eta iparraldeko mugetan ageri da; alegia, Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 130), eta Basaburu Txikian (B. L.). Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean erabiltzen da *matel* aldaera, baita hego-nafarreran ere (Camino 2003a: 101). *matail* aldaerak, berriz, Araitz-Betelun du muga, *masail* edo *matrail* ageri baitira handik mendebalera, hala nola Amezketan (B. G.). Hala, *OEHk* dakarrenez, Bortzirietan, Arakilen, Ultzaman eta Larraunen erabili izan da *matail* aldaera.

26. irudia



8.6.3. Goldaratz Imozko gainerako herrietatik banatzen duen lexikoa

Imozko euskararen homogeneousun-ezaren erakusgarri —gorago aipatu dugu—, Goldaratz Imozko gainerako herrietatik bereiz ageri den hitz eta aldaera multzo bat dakargu atal honetara. Hamaika hitz bikote eta sei aldaera bikote aztertuko ditugu. Oro har, Goldaratz Larrauni loturik ageri zaigu, eta, batzuetan, baita mendebaleragoko hizkerari ere, baina badira eremu txikiagoa harrapatzen duten aleak ere, ikusiko dugunez. Imozko gainerako herriek handik ekialderagoko hizkerekin bat egiten dute eskuarki, baina batzuetan salbuespena da Eraso. Basaburu Nagusia konplexua da: batzuetan, iparraldeko herriak (Beruete batez ere) Goldaratzi hurbiltzen zaizkio, eta Imotzi gainerakoak; beste batzuetan, Basaburu Nagusi osoa Imotzekin batera dugu, edo Basaburu Nagusi osoa Goldaratzekin batera.

Hitzak

bana(b)ar / alubi ‘banabarra, babarruna’:

banaar hitza erabiltzen dute Imozko Goldaratzen eta Erason, Imozko gainerako herrietako *alubi* maileguaren aldean. Basaburu Nagusian eta Larraun osoan (salbu Errazkinen) entzun daiteke *banaar*. Araitz-Betelun eta Errazkinen, aldiz, *baa beltza* ‘baba beltza’, *baa txurie* ‘baba zuria’ eta forma horien tankerakoak erabiltzen dituzte adiera horretan²⁹³ (ikus 8.6.6. atalaren bukaeran

²⁹³ Kontuan izanik *baba* ere badela, gaztelaniazko ‘haba’ adierazteko.

egindako oharra). Basaburu Txikian eta Leitzan ere bada *bana(b)ar*, nahiz *eltzari* ere baden Saldiasen eta Beintza-Labaienen (B. L.). *bana(b)ar* ezaguna da Nafarroako ipar-ekialdean, hala nola Baztanen (Izeta 1996: 56) eta Malerrekan (Apalauza eta Lakar 2001-2003). Ez dirudi Imoztik ekialdera *bana(b)ar* erabiltzen denik, baina *EAELk banabarrek* dakar Atezko Zigandarako; baliteke garai batean hedadura zabalagoa izatea, baina, gaur egun, gaztelaniatiko *alubi* mailegua sartu da Nafarroako eskualde askotan. Gure eremutik mendebalera, *babarrun*, *baborron* dugu Amezketan (B. G.) eta orobat Gipuzkoan (baina *indaba* erakoak ageri dira Gipuzkoako mendebalean, Hurtado 2001: 136), eta hitz horixe ari da zabaltzen, gainera, Araitz-Betelun ere; nolahi ere, *baa beltz* gisakoak ere ezagunak dira Gipuzkoan (K. E., cf. Elexpuru 2004: 129).

errero / arotz ‘burdina lantzen duena; errementaria’:

Imozko Goldaratzen eta Erason, *errero* erabiltzen da eskuarki; ez dute *arotz* hitza ezagutzen. Imozko gainerako herrietan, aldiz, *a(r)otz* da ohikoa. *errero* darabilte, halaber, Larraunen²⁹⁴ eta Araitz-Betelun, baita Gipuzkoako Amezketan ere (K. E.)²⁹⁵. Basaburu Nagusian, *errero* dugu Udaben eta Igoan, *errero* eta *aotz* Itsason eta Berueten, eta *aotz* Erbitin, Gartzaronen eta Arraratsen. Basaburu Nagusiaren iparraldeko mugan den Basaburu Txikian, *errero* erabiltzen da adiera horretan, eta etxegintzako langileei esaten diete *aotz* (B. L.). *a(r)otz* hitza ohikoa da errementariaren adieran Nafarroako eskualde askotan: besteak beste, Sakanan (Erdozia 2004a: 32), Baztanen (Izeta 1996: 43), Malerrekan (Apalauza eta Lakar 2001-2003), Artzibarko Arrietan eta Esteribarko Ilurdotzen (Artola 2006: 408), Atezko Zigandan eta Txulapaingo Usin (*EAEL* eta Arana 2006: 10) eta Aezkoan (I. C.). Ipar Euskal Herrian ere bada *arotz* (*EAEL*).

euntze / soro ‘pentzea; belarrak egiteko erabiltzen den lur-eremu itxi eta partikularra’:

iuntzi deitzen diote, Goldaratzen, belarrak egiteko erabiltzen den lur-eremu itxi eta partikularrari. Imozko gainerako herri guztietan, berriz, *soro* entzun dugu adiera horretan, baita Basaburu Nagusian ere. Larraunen, *euntze* bildu dugu hego-ekialdeko herrietan²⁹⁶; *soro* Uitzin eta Gorritin²⁹⁷, eta *barruti* (& *barroti*) Azpirotzen eta Errazkinen. *barruti* dago, halaber, Araitz-Betelun (ikus 8.6.5. eta 8.6.6. atalen bukaeran egindako oharra). Beraz, batetik, *euntze* (& *iuntzi*) dugu

²⁹⁴ Oderizko hiztun batek dio bere amak *aotz* erabiltzen zuela (oderiztarra zuen ama).


²⁹⁵ Gipuzkoako beste hizkera batzuetan, *errementari* ageri da.

²⁹⁶ Hona Larraunen jasotako lekukotasunak: *iuntzii* (Od.), *euntzii* eta *euntzee* (Iri.), *iuntzii* eta *euntzii* (Bar.), *euntzik* (Arru.), *euntzek* (Alb.); Aldatzen, herritik aparte dauden lur jakin batzuk dira *euntzik*, belarrak egiteko erabiltzen direnak eta partikularrak, eta *soroak*, berriz, herrian berean eta toki zelaian dauden lurak. Badugu Alliko adibide bat ere: *èuntzitan izaten tzeé* (*EAEL*ko 166. testua).

²⁹⁷ Gorritiko gazteek *belatso* ere esaten dute gaur egun; Leitzako hizkeraren eraginez, seguru aski.

Goldaratzen eta Larraungo hego-ekialdean; bestetik, *soro* Imotz gehiengan, Basaburu Nagusian, Uitzin eta Gorritin, eta, azkenik, *barruti* Azpirotzen, Errazkinen eta Araitz-Betelun.

27. irudia



Gure azter-eremuko hizkeren ingurumarian, *soro* dago Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Etxaide 1989: 102), eta Basaburu Txikian (B. L.). Imozko hegoaldeko mugan, *euntze* erabiltzen zen Txulapainen (Arana 2006: 41). Araitzekiko mugan, *belaza* erabiltzen da Amezketan, eta *belardi* edo *larre* gisakoak Zaldibian (K. E.). *pentze* hitzari dagokionez, bada Erroibar-Esteribarren (Ibarra 2000: 48), Artzibarren (Arana 2004: 62, 136) edota Ipar Euskal Herriko zenbait hizkeratan (ikus Camino 2004b: 453 eta *OEH*). Beraz, Nafarroako ekialdean eta Ipar Euskal Herrian ere baden hitza dugu *pentze*, eta, ohiko jokaera ez den arren, eremu horrekin bat egiten dute *euntze* edo *iuntzi* duten Goldaratzek eta Larraunek.

ganbara / sabai 'ganbara':

Garbia da bi hitzonen banaketa geografikoa: *ganbaa* dago Goldaratzen, eta *sabai* Imozko gainerako herrietan. Basaburu Nagusian, *sabai* dugu Erbitin, Gartzaronen, Orokieta eta Beramendin, eta *ganbaa*, aldiz, Itsason, Udaben, Arraratsen, Igoan eta Berueten; *ganbaa* dago, halaber, Larraunen eta Araitz-Betelun. Araitz-Betelu ondoko hizkera gipuzetan eta Leitzan, *ganbaa* ageri da, eta hitz horixe baliatzen dute Basaburu Txiki gehiengan ere; Beintza-Labaien da salbuespena, *sabai* esaten baitute han (B. L.). *sabai* dago, hain zuzen, gure eremutik ekialdera:

Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 650), eta baita ekialderago ere. Hegoalderago, *sabaiao* dago Ollaranen (Bidador 1992: 294), eta *safei* Irañetan (Erdozia 2004b: 495). Gainera, Malerreka aldean ere bada *sabai* (Apalauza eta Lakar 2001-2003). Nafarroan hedadura zabala du *sabai* hitzak, adiera horretan (Iribarrenek *sabaya* dakar Nafarroako erdigunerako, 1984: 473), baina Azkoitian ere bada (Del Castillo eta beste 2001: 106), eta, *OEH*ri tiraka, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hizkeretan ere erabili izan da.

mendi / oian ‘mendia; gazt. monte’:

oiana ‘mendia’ da Imotz gehiengan; hala, gaztelaniazko “voy al monte” esateko, *oiana* *naie* esaten dute. Goldaratzen, zerbait izatekotan, ‘basoa’ da *oiana*; nolahi ere, *arboladi* da hango ohiko forma ‘basoa’ adieran. Hala, Goldaratzen eta Latasan, ‘mendia’ adierazteko, *mendi* erabiltzen dute. Basaburu Nagusian, *oian* bildu dugu herri gehienetan (Ud., Its., Er., Gar.), baina, iparraldeko herrietan, *mendi* erabiltzen dute (Arrar., Ig., Beru.), baita Orokietan ere. Larraungo eta Araitz-Beteluko forma orokorra ere *mendi* da, baina, Oderitzen, Uitzin eta Gorritin, mendiaren adiera berean erabiltzen da *baso* hitza ere; Araitz-Betelun eta Errazkinen, arboladia izendatzeko erabiltzen da *baso* (ikus 8.6.6. atalaren bukaeran egindako oharra). Inguruko hizkerari dagokionez, *oian* dugu Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialderako Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 318), eta Txulapaingo Usin ere bazen (*EDEL*), eta *mendi*, aldiz, Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta orobat Gipuzkoan (K. E.). *oian* hitzak —mendiaren adieran— hedadura zabala du: Nafarroan, gure eremutik ekialdera ageri da (Etxaide 1989: 318), eta orobat hego-nafarreran (Camino 2003a: 101), eta ezaguna da Ipar Euskal Herrian ere (*EDEL*). Bestalde, Larraungo herri batzuetan *baso* hitzak ‘mendia’ adierazten duela esan dugu; adiera hori ezaguna da Sakana aldean (Erdozia 2004a: 63; cf. Etxaide 1989: 319), eta baita Bergara aldean (Elexpuru 2004: 140) edota Bizkaiko zenbait hizkeratan ere.

oinaztura / tximista ‘tximista’:

oinaztura bildu dugu Goldaratzen eta Erason, eta *tximiste* Imozko gainerako herrietan; alabaina, Etxaidek *oinaztura* dakar Muskitzerako, eta *oinaztura* zein *tximiste* Etxalekurako²⁹⁸ (1989: 28-29). Basaburu Nagusiari dagokionez, *oinaztura* eman digute Itsason, Erbitin, Gartzaronen (baina *EDEL*k *ximista* dakar Gartzaronerako), Arraratsen eta Berueten, eta *tximiste*, aldiz, Igoan, Orokietan eta Udaben; Etxaideren datuetan, *tximista* dugu Itsason, eta *tximista* eta *oinaztura* Berueten, biek ere

²⁹⁸ Zehatzago, gaztelaniazko ‘rayo’ adiera eman dio *tximiste*-ri, eta ‘relámpago’ *oinaztura*-ri.

esanahi desberdina dutela (1989: 28-29). Larraunen, *oñazture* jaso dugu hego-ekialdeko herrietan²⁹⁹ (Albiasu barne), eta *tximiste*, berriz, ipar-mendebalekoetan (ikus 8.6.5. atalaren bukaeran egindako oharra). *tximiste* dugu, azkenik, Araitz-Betelun ere.

Gure eremuaren inguru guztian, *tximiste* hitza ageri da: Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 28-29), Txulapainen (*EDEL*), Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta Gipuzkoako Amezketan (K. E.). *oñazture* gisakoek hedadura dute Nafarroan, hala nola Sakanan (Olaztiraino; Erdozia 2004a: 147), Aezkoan (Camino 1997: 603), Erroibarren (Ibarra 2007: 110-111), Artzibarren (Artola 2006: 406 eta Arana 2004: 86), hego-nafarreran (Camino 2003a: 101) edota Baztanen (Izeta 1996: 142). Gipuzkoa aldean, *tximista* gailentzen da, baina *oinaztu* eta *oinaztarri* daude Debagoienean, Deba ibarreko erdigunean eta mendebaleko euskalkian (Zuazo 2006a: 139); beraz, badirudi Euskal Herriko erdigunean ageri dela *tximista*. Beraz, gure eremuaz ari garela, ekialdean aski hedatua den *oñazture* hitza darabilte Imozko Goldaratzan eta Erason, Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusi gehienez; *tximiste*, berriz, Imotz gehienez, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun entzun daiteke. Ez da ohikoa Goldaratz ez beste Imozko herriak ekialdetik bereiz agertzea, eta Goldaratz, aldiz, ekialdeari lotuta agertzea; izan ere, Goldaratz bereizi ohi da eskuarki ekialdetik, eta ez alderantziz.

ordubata / oronbata ‘ordubata’:

Goldaratzan, *ordueta da* ‘ordubata da’ erakoak entzuten dira; Imozko gainerako herrietan, aldiz, *onbata da* ‘oronbata da’ da nagusi. Basaburu Nagusian, *onbata* entzun dugu Itsason (*ordueta*-rekin batera), Udaben, Erbitin, Gartzaronen eta Orokietan, eta *ordueta*, aldiz, Arraratsen, Igoan eta Berueten. *ordueta* eta *ordoata* gisakoak ditugu Larraunen eta Araitz-Betelun ere. *onbata* erakoak Ultzaman ere badaude (Ibarra 1995a: 655), eta baita are ekialderago ere, hala nola Erroibarren (Ibarra 2007: 114) eta Aezkoan (I. C.). Gainera, Ipar Euskal Herrian oso ohikoa da *oren* ‘ordua’ hitza (ikus *OEH*). Gure eremuaren inguruko gainerako hizkeretan, *ordueta* gisakoak ageri dira.


parra egin / irri egin ‘barre egin’:

parra in esaten dute Goldaratzan, eta *irri in*, berriz, Imozko gainerako herrietan. *irri* bildu dugu, halaber, Basaburu Nagusi osoan. Goldaratzetik mendebalera, *parra in* entzun dugu Larraunen eta Araitz-Betelun. *irri in* bada Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 671), Ezkurra ez beste

²⁹⁹ Hona Larraungo hego-ekialdean bildutako aldaerak: *oñazture* (Ast., Bar., Arru., Ald.), *oñezture* (Iri.), *iñazture* (Od., Iri.), *iñezture* (Bar.), *iñuzture* (Alb.).

Basaburu Txikiko herrietan (B. L.), eta bazen Txulapainen (*EAEL*). *irri*-k hedadura zabala du Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean, eta Ipar Euskal Herrian.

28. irudia



triku / sagarroi ‘trikua, sagarroia’:

triku bildu dugu Goldaratzan, eta *saarroi* Imozko gainerako herrietan. Basaburu Nagusiak Imotz gehienarekin bat egiten du (*saarroi*), salbu Itsasok, *triku* erabiltzen baitute han. Handik mendebalera, *triku* ageri da Larraunen eta Araitz-Betelun, eta orobat Gipuzkoako Tolosaldean eta Goierrin, baina *kiriki(x)o* gisakoak daude Bizkaira orduko (Hurtado 2001: 141). Gure eremuko ibarren mugetan, *sagarroi* erakoak ditugu Ultzama aldean (Ibarra 1995a: 637) eta Basaburu Txikian (B. L.), eta *triku* ageri da Leitzan (B. L.). *sagarroi* hitzak hedadura zabala du Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, eta Euskal Herriko erdiguneko hizkeretan ageri da, aldiz, *triku* (OEH).

xongatillo, txonkatille / (t)xurmio ‘orkatila’:

Orkatilari *xongaatillo* esaten diote goldaraztarrek; Imozko gainerako herrietan, berriz, *txurmio* (Etxal., Mus.) eta *xurmio* (Osk.) bildu ditugu. Basaburu Nagusian, *txurmio* (Its., Er., Gar., Ig.) eta *txormio* (Ud., Arrar.) ditugu nagusiki; Beruete dugu salbuespena, *xorgaatille* eta *txorgatilloa* bildu baititugu han, Larraunen antzera. Hain zuzen, aldaera mordoia topatu dugu Larraunen: *txongatillo* (Od.), *xongastillo* (Iri.), *xongaatillo* (Bar.), *txorgatille* (Arru.), *txorgaatille* (Arru.), *txoongatille* (Ui.), *txorgaatillo* (Ui.), *xongatillo* (Ald., Gorr.), *txongaatille* (Alb.), *txongatille* (Azp.) eta

txonkatille (Azp., Erra.)³⁰⁰. Araitz-Betelun, Azpirotzekin eta Errazkinekin bat eginez, *txonkatille* da ohiko aldaera. Aipagarria da, hitz bera izanagatik ere, herskari ahoskabetuna eta *e-z* bukatua erabiltzen dela Azpiroztik mendebalera (alegia, *txonkatille*), Gipuzkoaraino; Larraungo gainerako herrietan, ohikoagoa da herskari ahostunduna eta *o-z* bukatua (alegia, *txongatillo*).

Inguruko hizkeretan, *txurmio* dugu Ultzaman (Ibarra 1995a: 200), Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), baina ez dirudi oso ekialdera hedatzen denik, Erroibarren behinik behin ez baita ageri (O. I.); bai, ordea, Nafarroako ipar-ekialdean —Lesakan, esaterako (A. L.)—. Gipuzkoan barna, *txonkatille* gisakoak adi daitezke, baina *txurmio* edo haren kidekoak badira Hondarribian eta Irunen (Sagarzazu 2005: 62), eta, *OEH*ri begira, Gipuzkoako beste zenbait hizkeratan (Beterri, Irun, Tolosa) ere bada (edo izan da).

zirriku / *erteka* ‘zirrikিতua, zirritua’:

zirriku hitza ageri da Goldaratzen, eta *erteka*, aldiz, Imozko gainerako herrietan (Muskitzen, *erte*). *zirriku* dugu, halaber, Basaburu Nagusi gehiengan³⁰¹ (Orokietan da salbuespena, *erteka* baitago han), Larraun osoan³⁰² eta Araitz-Betelun (*zirriku* eta *xirriku*). Gure hizkeren mugetan, *arteka* dakar Ibarrek Ultzamarako, baina gaztelaniazko “paso estrecho entre dos casas” adierazteko (1995a: 660)³⁰³; Basaburu Txikian eta Leitzan, *zirrikittu* erabiltzen da (B. L.)³⁰⁴, eta, Gipuzkoan, *txirrixku* dago Amezetan (K. E.). *arteka* ezaguna da Nafarroako ipar-ekialdean, hala nola Baztanen (Izeta 1996: 46) eta Malerreka aldean (Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta bada Erroibarren (Ibarra 2007: 17) edota Ipar Euskal Herrian ere (*OEH*).

Aldaerak

azkazal / *azazkal* ‘azkazala’:

azkezal aldaera entzun daiteke Goldaratzen, eta *azkazal* Erason. Imozko gainerako herrietan, aldiz, *azazkal* ageri da. Goldaratzekin eta Erasorekin batera ditugu Basaburu Nagusiko iparraldeko Igoa eta Beruete (*azkezal*, bi herrietan), eta beste aldera, berriz, Itsaso, Arrarats, Udabe, Erbiti,

³⁰⁰ Azpirotzen, adinekoek *txongatille* esateko joera dute, eta gazteek *txonkatille*.

³⁰¹ *txirriku*, Arraratsen eta Igoan.

³⁰² Hona Larraunen jasotako adibideak: *zirrikututa zeoan leioa* ‘zirrikিতuta zegoen leioa’ (Iri.), *zirriketuu* ‘zirrikিতua’ (Ald.), *zirrikিতuta* ‘zirrikিতuta’ (Alb.), *zirrikatue* ‘zirrikিতua’ (Gorr.), *zirrikue* ‘zirrikিতua’ (Erra.), *zirrikuu* ‘zirrikিতua’ (Od.), *zirrikutue* ‘zirrikিতua’ (Ui., Azp.), *zirrikutuu* (Arru.), *zirrikututa* (Bar.), *leioa txirrikitik* ‘leioa zirikিতutik’ (Ui.).

³⁰³ Ez dirudi, beraz, adiera bera dutenik Imotz-Basaburu Nagusiko eta Ultzamako *arteka*-k; izan ere, Imotzen eta Basaburu Nagusian, *itxekerte* erabiltzen da bi etxeren arteko tartea adierazteko.

³⁰⁴ Etxeen arteko bidea adierazteko erabiltzen da *arteka* edo *artaka* Basaburu Txikian (B. L.).

Gartzaron eta Orokieta³⁰⁵. Larraunen eta Araitz-Betelun ere *azkazal* erakoak ageri dira³⁰⁶. *azkazal* gisakoak daude Leitzan ere (B. L.), eta orobat Amezketa aldean (K. E.). *azkazal* aldaerak, aldiz, Nafarroa gehienekoa eta are Ipar Euskal Herrikoa dirudi: Imotzen eta Basaburu Nagusiaren mugetan, bada Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 147) eta Basaburu Txikian (B. L.); Artolaren arabera, forma horixe dago Ihabartik Artzibarreraino, Txulapain eta Gulibar barne (1992: 194); hala da hego-nafarreran eta Ipar Euskal Herrian ere (Camino 2003a: 100), eta Etxaideren datuek erakusten dute aldaera horixe dagoela Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean (1989: 147).

geazi / geezi ‘gerezia’:

Garbia da bi aldaeron banaketa geografikoa: *geazi* erabiltzen da Goldaratzen, eta *geezi* gainerako Imotzen. Goldaratzekin batera doaz Larraun eta Araitz-Betelu³⁰⁷, eta Imotz gehienarekin, berriz, Basaburu Nagusia (*geezi* dago Basaburu Nagusian, eta *geizi* ere bada Itsason). Ere muurriztekoa dirudi *geazi* aldaerak: gure eremuaren mugetan, *ge(r)ezi* ageri da Atetzen eta Ultzaman, Txulapaingo Usin (*EAEL*), Basaburu Txikian (B. L.), Leitzan (B. L.) eta Amezketan (K. E.).

iloba / ileba ‘iloba’:

Goldaratzen, *illoa* izendatzen dira iloba neskak zein mutilak; Imozko gainerako herrietan, baina, *illeba* aldaera ageri zaigu. Nolanahi ere, ez dago adostasun handirik: Muskitzen eta Oskotzen, neskak zein mutilak dira *illebak*; Etxalekun eta Erason, berriz, *illoak* mutilak izan ohi dira, eta *illebak* neskak. Baina herri berean ere desadostasunak izan ohi dira hiztun batzuen eta besteen artean. Aitzitik, Goldaratzen bezala, *illoa* dugu Basaburu Nagusian (Erbitin, *illeba* ere bai), Larraunen eta Araitz-Betelun. *illoa* gisakoak daude, hain zuzen, Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.) eta orobat Gipuzkoan. *illeba* gisakoak, aldiz, Imoztik ekialdera eta hegoaldera ageri dira: Ultzaman (Ibarra 1995a: 677), Txulapaingo Beorburun eta Usin, eta Gulibarko Larunben (Artola 1992: 190, cf. *EAEL*), Sakanan (Erdozia 2004a: 144), Artzibarren (Arana 2004: 85) edota Erroibar-Esteribarren (Ibarra 2007: 70, 46).

³⁰⁵ *azkazal* (Its., Ud., Oro., Arrar.), *atzkazal* (Er., Gar.).

³⁰⁶ *azkazal* (Bar., Ald., Alb., Azp., Erra., Ar.-Bet.), *azkezal* (Arru.). Salbuespen gisa, *azkazal* ere entzun dugu Oderitzen.

³⁰⁷ Errazkinen eta Araitz-Betelun, ‘gerezia’-ren sinonimotzat erabiltzen da *anpolai* hitza ere.

intxaur / eltxaur ‘intxaurra’:

Goldaratzen eta Erason, *intxaur* ageri da; Imozko gainerako herrietan, berriz, *eltxaur*³⁰⁸. Imotz gehienarekin bat heldu da Basaburu Nagusi gehiena ere: *eltxaur* (Arrar., Its., Gar., Oro.) eta *iltxaur* (Its., Er., Gar., Ud., Ig., Oro.). Salbuespena da Larraundik oso hurbil den Beruete: *entxaur* eta *intxaur* bildu ditugu guk, nahiz Ibarrek *iltxaorre* dakarren herri horretarako (1995a: 631). Larraunen eta Araitz-Betelun, *intxaur*, *intxaor* dago. Imotzen eta Basaburu Nagusiaren mugetan, *eltxaur* dago Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 631), Ezkurra ez beste Basaburu Txikiko herrietan (B. L.), eta Txulapainen (Arana 2006: 34, 54). Aldiz, *intxaur* ageri da Leitzan (B. L.) eta Gipuzkoa aldean. *eltxaur* erakoek hedadura zabala dute Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera eta ipar-ekialdera (Etxaide 1989: 100, Apalauza eta Lakar 2001-2003 eta Izeta 1996: 91), eta antzekoak daude Lapurdin eta Nafarroa Beherean (OEH).

ira in / ingiri in ‘igeri egin’:

ire in edo *ira in* egiten dute Goldaratzen, Latasan eta Erason; Imozko gainerako herrietan, *ingit* *itten* (Etxal.) eta *ingiri itten* (Osk., Mus.) bildu dugu. Basaburu Nagusian eta Larraunen, *ira in* eta *ire in* bildu dugu kasu guztietan. Mendebalerago, *irari in* dugu Araitz-Betelun (ikus 8.6.6. atalaren bukaeran egindako oharra). Ondoko Amezketan ere *irari in* ageri da, eta *irari in* nahiz *igari in* ageri da Zaldibiara ezkerreko (K. E.). Gure eremuaren mugetan, *ingiri* gisakoak badira Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 287 eta Ibarra 1995a: 654), eta, iparraldera, *ire in* eta *ieri in* Basaburu Txikian eta *ira in* Leitzan (B. L.). Ez dakigu zein den *ingiri* erakoek hedadura zehatza, baina *ingiritetu* bada hego-nafarreran (Camino 2003a: 99), eta *aingeriken iin* Irañetan eta *ingerike in* Lakuntzan (Erdozia 2004a: 155); murrizta dirudi *ira in* gisakoek hedaturak ere.

izoa / izeba ‘izeba’:

izoa aldaera erabiltzen dute Goldaratzen eta Erason; Imozko gainerako herrietan, *izeba* entzun dugu —*tia*-rekin batera betiere—. *izoa* erabiltzen dute, halaber, Basaburu Nagusi gehiengan; Erbiti eta Gartzaron ditugu salbuespenak, *izeba* baitago han, nahiz *EAE*Lk *izoa* dakarren Gartzaronerako. Orokietan, aldiz, *izoa* ageri da. Larraun eta Araitz-Betelu ibarretan, *izoa* erabiltzen dute; Goldaratz-Erasorekin eta Basaburu Nagusi gehienarekin batera ditugu, beraz. Ultzaman, *izeba* bildu du Ibarrek

³⁰⁸ O. Ibarrek *entxaurre* dakar Etxalekurako (1995a: 631), baina guk *eltxaur* entzun dugu han, eta *eltxaur* dakar, halaber, Moutardek (1975b: 182). Iparraldeko goi-nafarrera tarteko dialektoa dela frogatzen du ezaugarri horrek, Moutarden ustez; hala, Lapurdiko *intzaur*, *eltzaur* eta Gipuzkoako *intxaur* aldaeren tartekotzat hartu du *eltxaur*.

(1995a: 677), *izeba* dago Basaburu Txikian (B. L.), eta aldaera horixe zegoen Txulapaingo Usin ere (*EDEL*). Beste aldera, *izoa* dugu Leitzan (B. L.), eta biak daude Gipuzkoako Amezketan eta Zaldibian (K. E.).

8.6.4. Imotz eta Basaburu Nagusia alde batera, eta Larraun beste batera paratzen dituen lexikoa

Aurreko ataletan esan dugu Imozko hizkera ez dela batere homogeneoa; alabaina, Imozko herri guztiak batera ageri dira atal honetan ikusiko ditugun hemezortzi hitz bikote eta hamaika aldaera bikoteetan. Bikote horien isoglosa-muga Imotz-Basaburu Nagusia ibarren eta Larraun ibarraren artean dago; esan nahi baita badela aldea Imotz-Basaburu Nagusiko eta Larraungo lexikoaren artean. Basaburu Nagusiko herriak bateratsu dabilta sorta honetan, eta Imotzekin batera joan ohi dira gehienetan, baina badugu salbuespen bat: Beruete. Hitz eta aldaera askotan, Basaburu Nagusiko herrien joeratik aldendu eta Larraungoari hurbiltzen zaio Beruete. Oro har, eta salbuespenak salbuespen, Nafarroako eremu zabalean (ekialdean zein ipar-ekialdean) eta, zenbaitetan, Ipar Euskal Herrian ere badauden ale lexiko zenbait Imotzen eta Basaburu Nagusian ere erabiltzen dira, baina, Larrauna orduko, mendebaleragoko aukerak entzuten dira. Larraun ez zaigu, ordea, erabat homogeneo ageri; batzuetan, bada aldea hango herrien artean ere.

Hitzak

aztatu / as(e)matu ‘*asmatu*’:

Imotz osoan erabiltzen dute *aztatu* aditza (Goldarazko adibidea: *aztatuko iñu zertas itz ein?* ‘aztatuko dinagu zertaz hitz egin?’), nahiz eta *azertatu* eta *asematu* ere entzun ditugun Goldaratzan, Erason eta Oskotzen. Basaburu Nagusi gehiena Imotzekin batera dugu, salbuespena baita Beruete: *asmato* erabiltzen dute han, eta ez dute *aztatu* ezagutzen (Igoan, *asemato* ere entzun dugu, *aztatu*-rekin batera). Larraunen, ez dago *aztatu*-rik: *asematu* (Od., Bar., Arru., Ui.), *asemato* (Iri.), *asmatu* (Alb., Gorr., Azp., Erra.) eta *asmato* (Ald.) bildu ditugu han. Handik mendebalera, *asmato* gisakoak daude Araitz-Betelun, eta orobat Gipuzkoa aldean. Basaburu Nagusiaren mugetan, Basaburu Txikian ez dute *aztatu* ezagutzen, baizik eta *asmatu* eta *azertu* (B. L.). Ez dakigu zein den *aztatu* aditzaren hedadura zehatza: bada Sakanako erdialdean (Erdozia 2004a: 55) edota Erroibarren (Ibarra 2007: 24), baina Aezkoan ez (I. C.), baina ez dugu beste berririk.

beitti / ukullu ‘ukuilua’:

Ukuilua *beitti* izendatzen dute Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan, salbu Berueten, *ikullu* soilik erabiltzen baitute han. Bi ibarrotan ezagunak dira *ekullu* (Gol.), *ukullu* (Gol., Era., Er.), *okullu* (Its.) ere, baina forma berriagotzat hartzen dituzte. Larraunen eta Araitz-Betelun, *ukullu* erakoak erabiltzen dira soilik: *ikullu* (Od., Ui., Ar.-Bet.), *ekullu* (Iri., Ald., Alb., Gorr.), *ukullu* (Bar., Arru., Ald., Gorr., Azp., Erra.). Imoztik ekialdera, *estrabille* dugu Ultzaman (Ibarra 1995a: 660), Odietako Latasan (I. C.) eta Erroibar-Esteribarren (O. I.); Muskitzen ere entzun izan dugu hitz hori, baina betiere ohikoagoa da *beitti*. Hain zuzen, *beitti* ezaguna da Basaburu Txikiko Beintza-Labaienen eta Saldiasen, eta *eie* dago Ezkurran eta Eratsunen (B. L.).


bota / erori ‘erori’:

bota aditzak ‘erori’ adiera du Imotz guztian (adiera iragankorraz gain, jakina); esate baterako, ‘asto gainetik erori naiz’ esan nahi du *asto gañetik bota naiz* esaldiak. Imotzen bezala erabiltzen dute Basaburu Nagusi gehienez ere, salbu Berueten: han, *eroe* eman digute, baina, *bota* proposatutakoan, lehenago beharbada forma horixe erabiltzen zutela esan digute hiru berriemailek, nork bere aldetik; nolana ere, *eroe* da gaur egun nagusi. Larraunen, *bota* aditza iragankorra da beti (*zerbait bota*), eta *eroi* (& *eroe*) erabiltzen dute iragangaitzerako; berdina erabiltzen da Araitz-Betelun ere. Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, Ultzama aldean ere adiera iragangaitza du *bota* aditzak, eta hala zen Txulapaingo Usin ere (*EAEL*), baina *eroi* erakoak daude Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta, jakina, Gipuzkoan. Caminoren arabera, *bota* iragangaitza bada Burundan, Ergoienean, Atetzen, Txulapainen, Odietan, Ezkabarten, Anuen, Ultzaman eta Baztanen (2003a: 94), eta bi aukerak dituzte Erroibarren (Ibarra 2007: 38, 50).

ebatsi / ostu ‘ebatsi, ostu, lapurtu’:

ebatsi erabiltzen da Imotz guztian, eta *ostu* (Ast., Od., Ald., Iri., Ui.), *ustu* (Bar., Arru., Alb., Gorr., Azp., Erra.) Larraunen. Imotzen bezala, *ebatsi* entzun dugu Beruete ez beste Basaburu Nagusiko herrietan; Berueten, *osto* esaten dute. Araitz-Beteluk Larraunekin bat egiten du (*ostu, ustu*).

29. irudia



Gure hizkeren mugetan, *ebatsi* dugu Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 295), eta Ezkurra ez beste Basaburu Txikiko herrietan (B. L.). Leitzan, *ostu* eta *lapurtu* biak ageri dira (B. L.), eta *oostu* Gipuzkoako Amezketan (B. G.). *ebatsi* aditzari dagokionez, oso hedatua da Nafarroan: bada ekialdean (Etxaide 1989: 295), ipar-ekialdean (Apalauza eta Lakar 2001-2003 eta Izeta 1996: 71) eta hego-nafarreran (Camino 2003a: 101), eta baita Ipar Euskal Herrian ere. *ostu*, berriz, ohikoa da Gipuzkoan eta Bizkaian (Hurtado 2001: 139)³⁰⁹, hala nola Leintz eta Oñati aldean (Elexpuru 2004: 477).

ertsi / *itxi* ‘hetsi, itxi’:

Imotzen, *ertsi* dugu aukera nagusia (Goldaratzan, *iirtsi* ere bai), eta Larraunen, berriz, *itxi*³¹⁰. Basaburu Nagusian, *ertsi* bildu dugu herri gehienetan³¹¹; Udabe eta Beruete dira salbuespenak, *itxi* bildu baitugu han. *itxi* dugu, halaber, Araitz-Betelun. Basaburu Nagusiaren mugetan, *etsi* dago Basaburu Txikian, eta *itxi*, aldiz, Leitzan (B. L.); ekialdera, *ertsi* dugu Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 285), eta hala zen Txulapainen ere (Arana 2006: 38-39). *ertsi* formak hedadura

³⁰⁹ *oztu* bada Zaldibian, baina ohikoagoa da *lapurtu* (K. E.).

³¹⁰ Hona Larraunen bildutako aldaerak: *itxi* (Iri., Arru., Alb., Gorr., Azp., Erra.), *iitxi* (Od., Bar., Ui.), *itxe* (Ald.), *iitxe* (Iri.).

³¹¹ Hona Basaburu Nagusiko aldaerak: *ertsi* (Its., Er., Gar., Ig., Oro.), *iirtsi* (Arrar.).

zabala du Nafarroan: bada ekialdean (Etxaide 1989: 285), hego-nafarreran (Camino 2003a: 99), Uharte Arakilen³¹², eta Irañetan eta Murginduetan (Camino 2005a: 274). Gainera, Ipar Euskal Herrian ere bada *ertsi* (OEH).

jainkoan paxa / jainkoan gerriko ‘ortzadarra’:

jainkoan paxa esaten zaio ortzadarrari Imotzen eta Basaburu Nagusian (Orokietan, *yinkoan paxa*). Larraunen, *jainkoan gerriko* entzun dugu herri gehienetan (Od., Iri., Ast., Bar., Arru., Ald., Alb.³¹³), baina *ariko irise* eman digute Uitzin eta Errazkinen, *ariko irise* eta *kostilleka* Gorritin, eta *ostilleka* eta *jainkoan zintorona* Azpirotzen (ikus 8.6.5. atalaren bukaeran egindako oharra). Oro har, Larraunekin batera dugu Araitz-Betelu, *jainkoan gerriko* bildu baitugu han ere. Imotzen eta Basaburu Nagusiaren mugetan, *jainkoan paxa* gisakoak ditugu Atetz, Ultzama eta Anue alderdian (Etxaide 1989: 39), eta bestelako formak daude Basaburu Txikian (B. L.). Leitzan, *ostilleka* ageri da (B. L.), eta, Gipuzkoara orduko, *erromako zupi* dugu Amezketan (B. G.) (ikus 8.6.7. atalaren bukaeran egindako oharra); Bähr-ek dio forma horixe dela nagusi Gipuzkoako erdigunean (1972b: 404).

jainkoan paxa hego-nafarreran ere ageri da (Camino 2003a: 101, cf. Ibarra 2007: 152-153). *jainkoan gerriko* formari dagokionez, Urdiainen bada (Erdozia 2004a: 236), baina hedadura murriztekoa dirudi. Berezia iruditu zaigu (*k*)*ostilleka* hitza: Gorritin eta Azpirotzen baino ez dugu guk entzun, baina Etxaidek Albiasun eta Azkaraten bildu du (1989: 39), Erdoziak *ostrilleka* dakar Etxarrirako eta Lakuntzarako (2004a: 236), Leitzan ere badela esan dugu gorago, eta *EAEK ostilleka* bildu du Intzan, eta *estrellaka* Goizuetan. Datua guztiz fidagarria ez bada ere (cf. 6.2.3.), *ostillera* ageri da Intzan 1801ean (Satrustegi 1987b: 181). Bähr-ek *ostrailaka* eta haren aldaeren inguruan egindako azterketaren arabera, Gipuzkoako erdigunean erabiltzen da hitz hori, nahiz eta *erromako zubi* forma gero eta gehiago ari den nagusitzen (1972b: 404).

joale / zintzarri ‘joarea, zintzarria’:

Imotzen, ardi eta behorrei *joaleak* jartzen zaizkie lepotik zintzilik³¹⁴; Larraunen, berriz, *zintzarrik*, *txintzarrik* dira. Nolanahi ere, *joale* ere ezagutzen dute Oderitzen, Iribasen, Arruitzen, Aldatzen eta Albiasun³¹⁵. Imotzekin batera dugu Basaburu Nagusi gehiena: *joale* eta *yoale* bildu

³¹² Uharte Arakilgo adibidea: *ateatzien*, *ataiye ertsiut* (Gaminde 1993: 79).

³¹³ Albiasun, *azariin bodak* eta *azariin pesta* ere bai. Bähr-ek Hondarribirako dakar *azeriaren boda*, eta ‘ortzadar bikoitza’ adiera eman dio (1972b).

³¹⁴ Goldaratzzen, *joalii* da orokorra, baina *falii* ere entzun daiteke bakanka, eta, Muskitzen, *falea* eman digute (cf. Mitxelena 1977 [1961]: 173).

³¹⁵ Oderitzen esan digute denak direla *joalek*, eta *zintzarrii*, berriz, *joale* mota bat dela, *alanbree* eta *kalaxka* diren

ditugu han. Berueten, baina, ardiarenari *zintzarri* esaten diote, eta behiarenari, berriz, *yoale*; Aldatzen bezala, beraz. Araitz-Betelun, *zintzarri* erabiltzen da kasu guztietan. Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko mugan, *yoale* dago Ultzaman (Ibarra 1995a: 643); iparraldean, *yoale* Basaburu Txikian eta *zintzarri* Leitzan, nahiz Leitzan *yoale* esaten dioten *zintzarri* biribilari (B. L.). Araitz-Betelu ondoko Gipuzkoan, berriz, *zintzarri* dugu. *joale* eta haren kidekoak (*yoare*, *goale*...) ohikoak dira Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean.

kalma / kalma & odei ‘hodeia’:

kalma hitzak ‘hodeia’ esan nahi du Imotzen (*kalma at* ‘kalma bat, hodei bat; gazt. calima’), eta, zerua estalita dagoenean, *kalma dao* ‘kalma dago’ edota *kalmatuik dao* ‘kalmaturik dago’ esan ohi da. Larraungo hego-ekialdeko herrietan, baina, bereizi egiten dituzte bi adiera horiek: batetik, hodeiari *odei* (Od., Ast.), *odai* (Bar., Ald.), *orai* (Iri., Arru.) esaten diote, eta, bestetik, zerua estalita dagoela adierazteko bakarrik erabiltzen dute *kalma* (adibideak: *kalma dao* ‘kalma dago’, *kalmatuta dao* ‘kalmatuta dago’, *kalmatzen ai do* ‘kalmatzen ari du’). Astitzen, Oderitzen, Iribasen, Baraibarren, Arruitzen eta Aldatzen bereizten dituzte bi hitz horiek. Larraungo gainerako herrietan, ez dago *kalma*-rik: Albiasun eta Uitzin, *odai* eta *orai* bildu dugu, hurrenez hurren, lehen adieran, eta *lañotuu* eta *lañotue* ‘lainotua’ bigarreanean; Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen, berriz, *laño* dugu lehen adieran (*lañoak dai* ‘lainoak, hodeiak daude’), eta *lañotuta dao* ‘lainotuta dago’ bigarreanean; ez dago, beraz, *odai*-rik (ikus 8.6.5. atalaren bukaeran egindako oharra). Araitz-Betelun ere *laño* dugu bi adieretan. Basaburu Nagusiari dagokionez, Imotzekin batera doaz herri gehienak: hala, *kalma* erabiltzen dute, hodeia izendatzeko nahiz zerua estalita dagoela adierazteko, Itsason, Udaben, Erbitin, Gartzaronen, Orokietan, Arraratsen eta Igoan; Berueten, bi berriemailek esan digute batetik *odaie* ‘hodeia’ eta bestetik *kalma* ‘zeru estalia’ bereizten dituztela haiek, eta beste berriemaile batek, berriz, *kalma* eta *odaie* ‘hodeia’, eta *kalma* ‘zeru estalia’ erabiltzen dituela berak. Gogoan izan behar da Aldaztik oso hurbil dagoela Beruete, eta beste adibide batzuetan ere ikusi dugu ohikoa dela bi herriok bat egitea. Beraz, honela laburbil dezakegu orain arte esandakoa: Larraungo hego-ekialdeko herrietan eta Berueten, bereizi egiten dituzte *odai* ‘hodeia’ eta *kalma* ‘zeru estalia’; Larraungo Albiasun eta Uitzin, *odai*, *orai* ‘hodeia’ eta *lañotue*, *lañotuu* ‘zeru estalia’ bereizten dituzte; Imotzen eta Basaburu Nagusian, dena da *kalma*; eta, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun, dena da *lañoa*.

Inguruko hizkerei dagokienez, *kalma* bada Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 626 eta

bezala. Aldatzen, beste bereizkuntza bat egin digute: behiena da *joalee*, eta ardiarena *zintzarrii*.

Etxaide 1989: 37), eta ‘hodeiez estalitako zerua’ adierazten du (O. I.); bestalde, hitz hori bazen Txulapainen ere, ‘hodeia’ adieran (Arana 2006: 62). Leitzan, Larraungo bereizkuntza bera egiten dute (B. L.). Ez dirudi inguruko gainerako hizkeretan ezagutzen dutenik *kalma* hitza, baina bai hurbileko Sakanan, ‘zerua hodeiez estalirik dagoenean’ adieran (Erdozia 2004a: 167-168). Bestalde, *laño* ‘hodeia & zerua estalita’ dugu Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan.

lankar, langar / lankar, langar & lanbro ‘langarra, lanbroa’:

Euri xeheari *langar, lankar* esaten zaio Imotzen. Larraunen ere erabiltzen da hitz hori, baina *lanbro* ere ageri da han gauza bera adierazteko. Imozko Etxalekun ere bildu dugu *lanbro*, baina lainoak botatzen duen euri fin-fina izendatzeko erabiltzen dute han (*lankarra* baino finagoa da betiere). Basaburu Nagusian ere entzun dugu *lanbro* (*langar* eta *lankar*-ekin batera): Itsason, Gartzaronen, Arraratsen eta Berueten, hain zuzen. Araitz-Betelun, (*ebi*-)*lanbro* bildu dugu. Gure hizkeren ingurumarian, Ultzamarako *lankar* eta *langar* dakartza Ibarak (1995a: 647), eta ez dago *lanbro*-rik (O. I.); Basaburu Txikian, *langar* da ohikoa, eta *lanbro* ere bada, baina itsasotik heldu den lainoa izendatzeko erabiltzen da³¹⁶ (B. L.). Araitz-Beteluko mugan, *lanbro* oso ohikoa da Amezketan edota Zaldibian, langarraren adieran (K. E.). *lankar* eta *langar* Nafarroako eremu zabalean dira ezagunak (cf. Iribarren 1984: 311-312).

leertu / artasitu ‘lehertu, zartatu, hautsi’:

Imotzen, egurra edo lurra *lertu, zartatu, autsi* egiten da; Larraunen, *artasittu* aditza erabiltzen dute hori adierazteko. Imotzen ere ezagutzen dute *artasittu*, baina beste esanahi bat du: eultzikoa egitea hain zuzen, eta *artasi* esaten zioten eultzikoa egiteko tresnari. Adiera bera bildu dute, gainera, Txulapaingo Osinaga herrian ere (Agirre 1925: 140). Basaburu Nagusian, *lertu* gisakoak dira nagusi, baina *artasittu* ere ezaguna da iparraldeko herrietan. *artasi* eta *artasittu* oso ezagunak eta erabiliak dira Araitz-Betelun, Larraungo adieran betiere. Gure hizkeren ingurumarian, *artasi(tu)* erakoak ezagunak dira Leitzan (B. L.), baina ez dirudi halakorik dagoenik gainerako hizkeretan. *OEH*ren arabera, Gipuzkoan, Larraunen, Sakanan eta goi-nafarreran dago *artesi, artasi*.

maingi / makur ‘maingua, herrena’:

“maingu” hitzaren *maingi* aldaera erabiltzen da Imotzen eta Basaburu Nagusian (Arraratsen, *perdexka in* ere erabiltzen dute). Larraunen, baina, *makur*³¹⁷ jaso dugu Astitz, Oderitz, Iribas,

³¹⁶ Adiera horixe jasotzen du *OEH*k Sakanan eta Bizkaiko zenbait hizkeratan, eta Baztanen ere bada (Izeta 1996: 117).

³¹⁷ Adibideak: *makur(re) eitten do orrek* ‘makur(ra) egiten du horrek’ (Alb.), *makurre auke* ‘makurra dauka’ (Alb.).

Baraibar, Uitzu eta Albiasu herrietan; *maingi* Arruitzen eta Aldatzen; *makur*, *urgun* eta *kojo* Gorritin; eta *urgun* eta *kojo* Azpirotzen eta Errazkinen. Larraunen baino ez dugu entzun *makur*, adiera horretan. Araitz-Betelun, *erren*³¹⁸ eta *urgun* jaso dugu; *mainki* ere bada han, baina ‘besamotza’ esan nahi du. Inguruko eskualdeetan, *maingi* dago Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 256), *maingu* Basaburu Txikian (B. L.), eta *urgun* Leitzan (B. L.). Gipuzkoan, *errena* da ohikoena Amezketan eta Zaldibian (K. E.); beraz, Gipuzkoari loturik dakusagu Araitz-Betelu (ikus 8.6.6. atalaren bukaeran egindako oharra). *maingu* hitza oso hedatua da Nafarroan (Etxaide 1989: 256), eta bada Ipar Euskal Herriko zenbait hizkeratan ere (*OEH*). *urgun* hitzari dagokionez, Larraunen, Gipuzkoako Tolosaldean eta Beterin, Irun aldeko hizkeretan eta Bizkaiko zenbait hizkeratan ageri da *OEHn*.

malluke / mallu ‘mailua’:

Mailu arruntari *malluke* esaten diote Imotz osoan, baina, Larrauna ezker, *mallu* nagusitzen da. *malluke* ez da erabat ezezaguna, ordea, Larraunen: Oderitzen, Arruitzen, Aldatzen eta Albiasun ere ezagutzen dute, mailuaren adieran (baina *mallu* da ohikoena), eta, Baraibarren, mailu txikia izendatzeko erabiltzen dute. Basaburu Nagusi gehiena Imotzekin batera doa, baina iparraldeko herriak dira salbuespena, *mallu* bildu baitugu han, baita Orokietan ere. *mallu* dago, halaber, Larraundik mendebalera, Araitz-Betelun, eta baita iparraldera ere, hala nola Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.). *malluke*-ri dagokionez, eremu murriztekoa delakoan gaude, baina bada beste hizkera batzuetan ere, hala nola Bergara aldean (Elexpuru 2004: 412).

paratu / jarri ‘paratu, jarri’:

Imotzen eta Basaburu Nagusian du muga gure eremutik ekialdera eta ipar-ekialdera hedadura zabala duen *pa(a)tu* aditzak. Imotz eta Basaburu Nagusi guztian aditu dugu guk, Larraunen ez bezala; han, *jarri* erabiltzen da³¹⁹. *jarri* ageri da Larraundik mendebalera ere, Araitz-Betelun eta Gipuzkoako hizkeretan. Nolanahi ere, *paatzen* ‘paratzen’ entzun genuen behin Gaintzan, nahiz *jarri* nagusitua den. *pa(r)atu* ohikoa da Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean, Basaburu Txikian eta Leitzan ere bada (B. L.), eta bazen Txulapainen (Artola 1992: 216). Gainera, ezaguna da Ipar Euskal Herriko zenbait hizkeratan ere (*OEH*). Nolanahi ere, gure eremuan behinik behin, adinekoek (eta zenbait helduk) baizik ez dute erabiltzen *patu* forma, *jarri* eta *yarri* forma orokorrak hedatzen ari baitira³²⁰.

³¹⁸ Adibidea: *errena itte’o* ‘herrena egiten du’ (Gai.).

³¹⁹ Gamindek Oderitzen jasotako lekukotasun batean, baina, *paatu* ageri da: *jana paatu dut berotzen* (1993: 92).

³²⁰ Ikus *paratu* aditzari buruzko xehetasun interesgarriak in Perurena 2007: 129-131.

pa(t)xaon / tximillo ‘basakarana; patxarana egiteko erabiltzen den fruitua’:

Patxaran-edaria egiteko, *patxaona* (Gol.), *paxaona* (Era.), *patxaana* (Osk., Etxal., Mus.) fruitua erabiltzen dute Imotzen, eta horixe erabiltzen dute Basaburu Nagusian ere: *patxaona* (Ud., Ig., Arrar.), *paxauna* (Its.), *paxaune* (Arrar., Beru.), *patxaana* (Er., Gar., Oro.). Larraunen, aldiz, *tximilloa* izendatzen dute fruitu hori, eta *aan-tximilloa* Araitz-Betelun. Gure eremuaren mugetan, *patxaran* dugu Ultzaman, Esteribarren eta Erroibarren (O. I.), eta Basaburu Txikian (B. L.); Leitzan, Araitz-Beteluko formaren antza duen *antxumeloa* erabiltzen dute (B. L.), eta *baxakan* erakoak daude Amezketan eta Zaldibian (K. E.). Ez dakigu zein den *tximillo* hitzaren hedadura zehatza: *OEHk* Larraungo eta Azpeitiko lekukotasuna dakar, baina ez dugu beste berririk.

sartan / danbolin ‘gaztainak erretzeko tresna; danbolina’:

Gaztainak *sartanean* erretzen dituzte Imotzen eta Basaburu Nagusian. Larraunen eta Araitz-Betelun, berriz, *danboliñe* erabiltzen dute horretarako, salbu Arruitzen eta Aldatzen, han ere *sartan* baitago; gainera, *sartan* ere ezaguna zaie Iribasen eta Albiasun, nahiz orokorra *danbolin* izan. Gure hizkeren ingurumarian, *sartan* bada Basaburu Txikian, baita Leitzan ere, nahiz *danbolin* nagusitzen ari den (B. L.). Gipuzkoa aldera, *danbolin* erabiltzen dute, baina hitz hori bada Nafarroako ekialdean ere, hala nola Erroibarren (Ibarra 2007: 41). *sartan* eta haren aldaerak Burundako, Etxarri Aranazko, Larraungo, Bortzirietako, Ultzamako, Erronkariko aldaeretan, eta Nafarroa Behereko, Zuberoako, Gipuzkoako zein Bizkaiko zenbait mintzotan ageri dira *OEHko* datuetan; beraz, gure eremuko hizkerez gaindi ere ezaguna da.

tripota / odolki ‘odolkia’:

Odolkiari *tripota* esaten diote Imotz osoan, eta *oolki*, berriz, Larraunen. Basaburu Nagusi gehienez ere *tripota* bildu dugu; Beruete da salbuespena, *oolki* esaten baitute han. *oolki* dugu, halaber, Araitz-Betelun. Inguruko hizkeretan, *tripota* gisakoak ditugu Ultzaman (Ibarra 1995a: 667) eta Gulibarko Larunben (Camino 2003a: 247), eta *odolki* Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta orobat Gipuzkoan (Hurtado 2001: 141), baina *odoloste* erakoak daude Euskal Herriko mendebaleko

hizkeretan (*OEH*; cf. Elexpuru 2004: 457). Nafarroako beste hizkera batzuetan ere bada *tripota*, hala nola Artzibarren (Arana 2004: 152), Erroibarren (Ibarra 2007: 135), Aezkoan edota Zaraitzun (I. C.), eta Sakanan (Erdozia 2004a: 275); Ipar Euskal Herrian ere bada, gainera (*OEH*).

txirrin / iñaa, enaa ‘enara’:

txirriñe deitzen diote, Imotzen³²¹, enara hegaztiari; Etxaleku da salbuespena, *iñarea* eman baitigute han. Basaburu Nagusian, *txirriñe* dugu Beruete ez beste herri guztietan, *axarikearra* eta *axerikiarra* baitaude han. Larraunen, aitzitik, *enaa* eta *iñaa* erakoak jaso ditugu³²², eta *txaunkiar* Aldatzen. Araitz-Betelun, *enara* baliatzen da. Gure eremutik ekialdera, *txirrin* dugu Atetzen eta Ultzaman (Pagola 1992-II: 216), eta, iparraldera, *enara* Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), Gipuzkoa aldean bezala. Goi-nafarrerako hitzat hartu du *OEHk zirrin*; gure eremuaz haratago, antzekoak daude Irañetan eta Dorraon (Erdozia 2004a: 147), baina *iñere* da Sakanako erdialdeko hitza (Erdozia 2004a: 147).

zarre / eskubere ‘eskuarea’:


Lan-tresna horri *zarre* deitzen diote Imotzen eta Basaburu Nagusian; Larraunen eta Araitz-Betelun, aldiz, *eskubere* erabiltzen da³²³. Gure eremuko hizkeren inguruan, *zarrastatu* ‘rastrillar’ dago Ultzaman (Ibarra 1995a: 651), eta Izagirrek *zárria* dakar ibar bererako (ikus, *OEHn*, “zarre” sarrera); *sarre* zegoen Txulapainen ere (Arana 2006: 93; cf. Agirre 1925: 140). Basaburu Txikian, *arraztelu* da ohikoena, baina *zarre* erabiltzen da Saldiasen (B. L.); Leitzan, aldiz, *eskurea* da belarrarentzat erabiltzen den tresna, eta *arraztelu*, berriz, bestelakoak biltzekoa (B. L.). Ez dakigu non duen muga *zarre* hitzak: gorago esan dugunez, Ultzaman bada, baina ez dirudi ekialderago erabiltzen denik, ezta Nafarroako ipar-ekialdean ere (*arraztelu* erakoak baitaude Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean). Iribarrenek Ollarango Artetarako dakar *zarre* (1984: 557; cf. Bidador 1992: 294), eta Erdoziak Irañetarako (2004b: 511), baina ez dugu beste berririk. *eskubere* gisakoek, ordea, Gipuzkoa aldeko kutsua dute; hala, *OEHren* arabera, Bizkai-Gipuzkoetan ageri dira. Eremu horrekin bat egiten dute, beraz, Larraunek eta Araitz-Beteluk.

³²¹ Oskotzen eta Muskitzen, hala ere, esan digute ez direla gauza bera *golondrina* eta *txirriñe*; *golondrina* zuri-beltza izaten da, eta *txirriñe*, berriz, beltz-beltza.

³²² Honako aldaera hauek bildu ditugu Larraunen: *iñada* (Od.), *iñaa* (Bar., Iri., Alb.), *iñe* (Iri.), *eiñaa* (Arru.), *enaa* (Ui., Gorr., Erra.), *eanao* (Azp.).

³²³ Honako aldaera hauek jaso ditugu Larraunen: *eskobere* (Od., Iri., Erra.), *eskubere* (Iri.), *eskuare* (Bar., Alb., Azp.), *eskuere* (Ald., Ui., Gorr.), *eskoare* (Bar., Arru.). Araitz-Betelun, berriz: *eskubere* (Arri., Bet., Gai., Azk.), *eskobere* (Uzt., Gai.).

30. irudia



Aldaerak

altzur / aitzur 'aitzurra':

Imotzen eta Basaburu Nagusian, *altzur* eta *aitzur* aldaerak jaso ditugu, salbu Gartzaronen, *aitzur* entzun baitugu han (baina *EAELk alzur*re eta *alzur andia* dakartza Gartzaronerako); Larraunen, *aitzur* esaten dute, eta antzekoak daude Araitz-Betelun: *atzur*, *aitzur*, *atxur* eta *atxor*. Gure eremuaren mugetan, *altzur* gisakoak ageri dira Ultzaman (Ibarra 1995a: 635), Txulapainen (Agirre 1925: 140, Arana 2006: 6, cf. *EAEL*) eta Basaburu Txikian (B. L.); Larraungo eta Araitz-Beteluko mugetan, *aitzur* eta haren kidekoak ditugu Leitzan (B. L.) eta Amezketan (K. E.). *l*-dun aldaerak Nafarroako eremu zabalean ageri dira: Arakilgo Urritzolan eta Sakanako erdialdean (Erdozia 2004a: 10), Malerreka aldean (Apalauza eta Lakar 2001-2003) edota hego-nafarreran (Camino 2003a: 100) badira.

bulkatu / bultzatu 'bulkatu, bultzatu':

bulkatu eta *bulketu* aurki daitezke Imotzen eta Basaburu Nagusian. Larraunen eta Araitz-Betelun, *bultzatu*, *bultzato*, *bultzetu* da aldaerarik erabiliena, baina *bulkatu* ere entzun dugu Oderitzen, Baraibarren, Aldatzen eta Albiasun (*bultzatu*-rekin batera betiere). Inguruko hizkeretan, *bulkatu* dago Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta *bultzatu* Gipuzkoan. Badirudi Nafarroa Garaian hedadura zabala duela *bulkatu* aldaerak: bada Sakanan (Erdozia 2004a: 83), Artzibarren

(Arana 2004: 40), Aezkoan (Camino 1997: 602), Erroibarren (Ibarra 2007: 39), Baztanen (Izeta 1996: 64) edota Malerrekan (Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta Itzarbeibarren ere bazen (Arana 2002: 27).

goaiñik / oanddio ‘oraindik’:

Imotzen eta Basaburu Nagusian, *goaiñik* aditzondoa bildu dugu kasu guztietan, salbu Berueten, *oanddio* bildu baitugu han. Itsason ere *goaiñik* bildu dugu, baina *oainddio* ere entzun dugu kasu bakar batean. Hain zuzen, *oanddio* erako formak entzun ditugu Larraungo eta Araitz-Beteluko herrietan: *uanddio* (Iri.), *oanddo* (Ald., Gai., At.), *oanddio & uandio & oandio* (Gorr.), *oainddo* (Uzt.).

-tio ablatibo-atzizkia Gipuzkoako Goierri eta Tolosaldean erabiltzen da (Hurtado 2001: 82-85), baina soilik *oanddio* aditzondoarekin erabiltzen da gure eremuan; alegia, ez da deklinabide-atzizki emankorra, gurean arrotzak baitira ***etxetio* eta ***emendio* erako formak (ikus 8.3.8.). Nolanahi ere, Gipuzkoako eremu horri loturik ulertu behar da Berueteko, Larraungo eta Araitz-Beteluko *oanddio* aldaera.

itxe / etxe ‘etxea’:

itxe aldaera bildu dugu Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta *etxe*, aldiz, Larraunen eta Araitz-Betelun³²⁴. *itxe* aldaerak hedadura zabala du Nafarroa Garaian, gure eremutik hegoaldera, ekialdera eta iparraldera hain zuzen: Atetz-Ultzaman, Anuen³²⁵, Uharte Arakilen³²⁶, Ihabarren (Artola 1992: 215), Irañetan (Erdozia 2004b: 490), Txulapaingo Beorburun (Artola 1992: 216), Goizuetan eta Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 163), Basaburu Txikian (B. L.) edota Nafarroako ipar-ekialdean (ikus, besteak beste, Apalauza eta Lakar 2001-2003) ageri da; alabaina, *etxe* dago Artzibarko Arrietan eta Esteribarko Ilurdotzen (Artola 2006: 409), baita Leitzan ere (B. L.). Salaberrik toponimiaz egindako lan batean, *itxe* ageri da Zizur Txikian, Antsoainen, Itzan, Ollaranen, Txulapainen, Gulibarren, Atetzen eta Arakilen; *etxe* eta *itxe* biak daude Arangurenen, eta *etxe* dago Oibarren, Urraulbeitin, Ibargoitin, Elortzibarren eta Orban (1991: 624-625). *itxe* ez da Nafarroako aldaera eskusiboa, ordea, Gipuzkoako iparraldean ere bai baita: Getarian, Zarautzen, Orion, Igeldon, Pasaian, Lezon, Erreterian eta Hernanin, hain zuzen (Camino 2000b: 79), eta baita Oiartzunen ere (Fraile eta Fraile 1996: 32). Gainera, *Elk Aian*, Zumarragan, Hondarribian eta

³²⁴ Nolanahi ere, Gamindek *itxe* bildu du Oderitzen (1994: 245): *ekartzen badezi oi, itxea iyamain dot* ‘ekartzen badidazu hori, etxera eramanen dut’.

³²⁵ Aritzuko adibidea: *itxera etortzen diren bezala yartzen dire* (Gaminde 1994: 239).

³²⁶ Uharte Arakilgo adibidea: *itxea noye, jatea* (Gaminde 1993: 79).

Irunen bildu zuen (*EI* 1926-1927: 51). Mitxelenak dioenez, *e* bokala itxi egin da kontsonante palatalaren eraginez, eta *i* bihurtu (1977 [1961]: 67-68)³²⁷; eragin beraren ondorioz sortuak dira beste zenbait bikote ere, hala nola *itxi / ertsi*.

izautu / ezautu ‘ezagutu’:

izautu (& *izaotzen* Arraratsen) aldaera erabiltzen dute Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan (baita handik eratorritakoak ere, hala nola *izaune* ‘ezaguna’), baina *zautu* aferesiduna bildu dugu Gartzaronen (*eztut motiboik zautzeko yendia* ‘ez dut motiborik ezagutzeko jendea’, *ez dizut zautzen* ‘ez dizut (zaitut) ezagutzen’), ekialderagoko Ultzaman bezala. Orokietan, *izautu* zein *zautu* entzun dugu. Larraungo herri batzuetan ere entzun dugu *i*-dun aldaera (*izaoto* Oderitzen, eta *izauto* Baraibarren eta Aldatzen), baina *ezautu* eta *ezaoto* erakoak ageri dira, oro har, Larraunen eta Araitz-Betelun. Berueten ere *e*-duna ageri da (*ezautu*, *ezaoto*). Gure eremutik iparraldera, *izautu* erabiltzen dute Basaburu Txikian, eta biak ageri dira Leitzan (B. L.); Gipuzkoara orduko, aldiz, *ezautu* ageri da Amezketan (B. G.). *izautu* aldaeraren hedadurari dagokionez, Baztan-Bidasoan, Lapurdin eta Irundik Donostiara bitarteko hizkeretan bada (Zelaieta 2004: 236)³²⁸; ekialdeko euskaran, *e*-dun aldaerak daude (I. C.), baina *OEhk i*-dunak ere badakartza Zaraitzu eta Erronkari ibarretarako; halaber, *i*-dunak dakartza *OEhk* Oltzako aldaeran eta Lapurdin.

jauntzi / jantzi ‘jantzi’:

jauntzi aldaera erabiltzen da Imotzen eta Basaburu Nagusian (*yauntzi* dugu Muskitzen, Erbitin, Gartzaronen, Orokietan, Arraratsen eta Igoan, eta *yauntze* Berueten); Etxaideren datuetan, *beztittu* ageri da Muskitzerako, eta *beztittu* eta *jantzi* Etxalekurako (1989: 302). Larraunen, *jantzi* erabiltzen da herri guztietan, baita handik mendebalera ere, Araitz-Betelun. Basaburu Nagusiarekin bat eginez, *yauntzi* dugu Ezkurra ez beste Basaburu Txikiko herrietan, eta *yantzi* Leitzan (B. L.); *beztittu*, aldiz, Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 302), ekialderago bezala (Ibarra 2007: 33). *jauntzi* gisakoak arruntak dira Malerreka aldean ere (Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta halakoak dakartza *OEhk* Ipar Euskal Herrirako.

³²⁷ Hona Salaberriren oharra (1991: 625): “Datu hauek ikusita balirudike *etxe* > *itxe* hersketa gertakari berri samarra dela, eta ondar mendean edo burutu dela, baina hor daude, beste aldetik, Antsoain zendeako *Berriozarko* 1653ko *Ychandia* eta Berriobeitiko 1711ko *Ycheondoa*, eta beraz ustezko aspaldikotasun ez hori zalantzan gelditzen da”.

³²⁸ Baina *zautu* aferesiduna ere bada Baztanen (Maite Lakarrek ahoz esana).

konten / kontentu ‘pozik’:

konten nao ‘kontent nago’ entzuten da maizenik Imotzen eta Basaburu Nagusi gehianean; Beruete da salbuespena, *kontento* jaso baitugu han. Bestalde, Imotzen *konten* nagusi bada ere, *kontentu itxea!* ‘kontentu etxera!’ adibidea bildu dugu Latasan. Larraunen, *kontentu nau* bildu dugu kasu guztietan, eta horixe dugu Araitz-Betelun ere. Ez daukagu nahi adina datu bi aldaera horiei buruz, ordea. *konten* aldaerari Nafarroako ekialdeko eta ipar-ekialdeko usaina hartzen diogu, baina ez gaude ziur noraino iristen ote den: Aritzuko (Anue) adibide batean ageri da (Gaminde 1993: 77), bada Erroibarren (Ibarra 2007: 85), Aezkoan eta Zaraitzun (I. C.), eta Malerrekan (Apalauza eta Lakar 2001-2003); Gipuzkoan, Oiartzuna orduko *konten* ageri zaigu (I. C.). Aitzitik, *kontentu* erabiltzen da Leitzan eta Basaburu Txikian (B. L.). Badirudi, beraz, Larrauna eta Leitzara orduko desagertzen dela *konten* aldaera.

koopillo / koapillo ‘korapiloa’:

koopillo aldaera entzun daiteke Imotzen, nahiz eta *koapillo* ere entzun izan dugun, behin edo beste, Goldaratzen. Basaburu Nagusian, *koopillo* (Its., Oro.), *koopillu* (Er., Gar.), *koapillo* (Ud., Beru.) eta *koapillu* (Ig., Arrar.) aldaerak bildu ditugu. Larraunen eta Araitz-Betelun, *koapillo* ageri da herri guztietan. Gure eremuko hizkeren ingurumarian, *koopillo* dugu Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 194-195), eta Basaburu Txikian (B. L.), eta *koapillo* Leitzan (B. L.) eta orobat Gipuzkoan. *koopillo* erakoek hedadura zabala dute Nafarroan: ekialdean (Etxaide 1989: 194-195), Malerreka-Bortzirriak-Baztan aldean (Zelaieta 2005: 299) edota hego-nafarreran (Camino 2003a: 101)³²⁹. Gainera, aldaera hori ezaguna da Ipar Euskal Herrian ere (Camino 2003a: 101).

lintsuse / intsuse ‘intsusa lorea’:

lintxuse, *lintsuse* aldaera darabilte, Imotzen eta Basaburu Nagusian, intsusa lorea adierazteko; Larraunen eta Araitz-Betelun, ordea, *intxuse*, *intsuse* erabiltzen da (salbu Oderitzen, han ere *lintxuse* jaso baitugu), eta baita handik mendebalera Amezketan ere (K. E.). Imotzen eta Basaburu Nagusian bezala, *lintsuts*, *linsus* dugu Ultzaman (Ibarra 1995a: 634), eta *intsuse* Leitzan (B. L.). *l-*dun aldaerak daude hego-nafarreran (Camino 2003a: 99, cf. Ibarra 2007: 93) eta Sakanan (Erdozia 2004a: 197), eta Iribarrenek Nafarroako ipar-ekialdean eta Odietan bildu ditu halakoak (1984: 319). *OEHn* ikusi dugunez, *l-* gabeko aldaerak daude Gipuzkoako Tolosaldean eta Bizkaiko zenbait hizkeratan.

³²⁹ Nahiz *korropillo* ere baden Erroibarren (Ibarra 2007: 86).

malubi / maduri, maruri ‘marrubia’:

malubi entzun dugu Imotzen; Larraunen, aldiz, *ma(d)uri* (Ast., Od., Iri., Arru., Bar., Ald., Alb., Ui., Gorr., Azp.) eta *maruri* (Erra.) aldaerak jaso ditugu. Polimorfismo handiagoa dago Basaburu Nagusian: *malubi* (Its., Ud., Er., Gar., Oro.), *mauri* (Ig.) eta *maluri* (Arrar., Beru.) bildu ditugu guk, eta Etxaidek *marurii* dakar Berueterako (1989: 97). Mendebalerago, Araitz-Betelun, *marrubi* erabiltzen da (ikus 8.6.6. atalaren bukaeran egindako oharra). Gure eremuko hizkeren inguruan, *malubi* dago Atetz-Ultzaman (Ibarra 1995a: 631) eta Txulapainen (Arana 2006: 72), *maduri* Basaburu Txikian (B. L.), eta *mauri* Leitzan (B. L.). *malubi* aldaerari dagokionez, hego-nafarreran bada (Camino 2003a: 101), eta, gure eremutik ekialdera, badirudi Erroibarreraino behinik behin ezaguna dela (Ibarra 2000: 72 eta 2007: 97); Iribarrenek Deierri, Zaraitzu eta Odieta eskualdeetarako dakar (1984: 330), eta Erdoziak Irañetarako (2004a: 204). *maruri* gisakoei dagokienez, berriz, ezagunak dira Nafarroako ipar-ekialdean (Etxaide 1989: 97). Azkenik, *marrubi* ageri da Sakana gehiengan (Erdozia 2004a: 204)³³⁰ eta Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan (K. E.)

ogei / ogai ‘hogei’:

ogei eta *oei* aldaerak entzun ditugu Imotz eta Basaburu Nagusi guztian; Larraunen, aldiz, *ogai* bildu dugu Azpirotz ez beste herri guztietan³³¹. Azpirotzen, hain zuzen, Araitz-Betelun ere erabiltzen den *obei* aldaera jaso dugu. Etxaideren datuetan, *ogai* ageri da Berueterako ere (1989: 365), baina guk *oei* entzun dugu han. Gure hizkeren ingurumari guztian, *oei* ageri da (Atetz, Ultzama, Basaburu Txikia), eta *obei* Leitzan (B. L.). *obei* aldaerak hortxe du muga noski, Araitz-Betelutik mendebalera *oei* erabiltzen baita, hala nola Amezketan eta Zaldibian (K. E.).

ortots / ostots ‘ostotsa, trumoia’:

ortots aldaera aurki daiteke Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta *ostots* Larraunen eta Araitz-Betelun. Inguruko hizkeretan, *ortots* dugu Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 648), Basaburu Txikiko Saldiasen eta Beintza-Labaienen (B. L.), eta Txulapaingo Usin (*EDEL*), eta *trumoi* edo haren aldaerak Leitzan (B. L.), Basaburu Txikiko Eratsunen (*ostots*-ekin batera) eta Ezkurran (B. L.), eta Amezketan (K. E.) (ikus 8.6.7. atalaren bukaeran egindako oharra). *ortots* aldaerak hedadura

³³⁰ Burundan, ordea, *aulubi*, *ailubi* eta *albitxogorriya* ageri dira (Erdozia 2008: 337).

³³¹ Zenbait hizkeratan, *ei* > *ai* bilakabidea gertatu da, hala nola Bizkaiko eta Nafarroako zenbait hizkeratan (Camino 2003a: 85). Gure eremuan, gisa horretako *ogai* ‘hogeia’ eta *odai* ‘hodeia’ adibideak soilik erabiltzen dira; horregatik, egokiagoa iruditu zaigu lexikoko aldaeratzat hartzea, nahiz baduen lotura bilakabide fonologikoarekin.

zabala du Nafarroan: bada ekialdean —Erroibarreraino— (Etxaide 1989: 30), Ihabartik Artzibarreraino (Artola 1992: 197), Irañetan eta Murginduetan (Camino 2005a: 274), hego-nafarreran (Camino 2003a: 101) edota Baztanen (Izeta 1996: 144). *ostots*-ek, aldiz, eremu txikiagoa harrapatzen du: Sakanako erdialdean bada (Erdozia 2004a: 236), eta, *OEH*ko datuen arabera, baita Arakilen, Erroibarren, Baztanen eta Zuberoan ere.

8.6.5. Larraungo hego-ekialdea eta Larraungo ipar-mendebala elkarrengandik banatzen dituen lexikoa

Larraungo herriak ez doaz beti batera lexiko-kontuetan. Hitz eta aldaera multzo honetan, Larraungo hego-ekialdea eta Larraungo ipar-mendebala bereiziko ditugu nagusiki. Honako herri hauek hartu ditugu hego-ekialdeko zat: Madotz, Oderitz, Astitz, Mugiro, Iribas, Arruitz, Alli, Baraibar, Lekunberri, Aldatz, Etxarri eta Albiasu; eta gainerako hauek ipar-mendebaleko zat: Gorriti, Uitz, Azpirotz (Lezaeta auzoa barne) eta Errazkin. Nolanahi ere, ez dago beti banaketa zurrunik egiterik; izan ere, Gorriti eta Uitz ipar-mendebaleko herrietatik bereiz ageri dira zenbaitetan; Albiasu hego-ekialdeko zat hartu dugu, baina ipar-mendebalari hurbiltzen ari zaio; eta Errazkin Larraungo beste herrietatik aldentzen da askotan, eta Araitz-Beteluri lotzen zaio. Hamahiru hitz bikote eta bederatzi aldaera bikote dira guztira, eta, oro har, ekialderagoko eskualdeei (Imotz, Basaburu Nagusia, Atetz, Ultzama, eta baita Basaburu Txikia ere) lotzen zaizkie Larraungo hego-ekialdeko herriak, eta mendebaleragokoei (Araitz-Betelu, Leitza, Gipuzkoako hizkerak), aldiz, ipar-mendebalekoak, betiere kontuan izanik ale lexiko bakoitzak hedadura jakin bat duela.

Hitzak

aparte / urruti ‘urruti’:

Hurbil ez dagoena *aparte* dagoela esan ohi dute Larraungo hego-ekialdean (salbu Aldatzen), eta, ipar-mendebaleko herrietan, *erruti* (Ald., Azp., Erra.) eta *urruti* (Gorr., Ui.) aditzondoak bildu ditugu adiera horretan (baina *aparte* ere ez da ezezaguna han). Imotzi eta Basaburu Nagusiari dagokienez, *aparte* erabiltzen dute (Muskitzen, *aparta*), eta baita ondoko Basaburu Txikian ere (B. L.). Araitz-Betelun, aldiz, *erruti* dago, eta hala da Leitza (B. L.) eta Gipuzkoako Amezketan (K. E.) ere. Nolanahi ere, *aparte* ere ez da ezezaguna adiera horretan Gipuzkoako zenbait hizkeratan, hala nola Zaldibian (K. E.).

asenai / azkure ‘hazkurea’:

as(e)nai forma ageri zaigu Larraungo hego-ekialdean, eta *azkure*, berriz, ipar-mendebalean. Nolanahi ere, Uitzin, Azpirotzen eta Errazkinen, *azkure* bildu badugu ere, *asenai* ere ezagutzen dutela esan digute (Azpirotzen, *asanai*), eta, gaur egun *azkure* erabiltzen badute ere, baliteke *asenai* izatea (ez hain) antzinako forma. Imotzen, *asenai* bildu dugu, eta, Basaburu Nagusian, *asanai* (Its., Er., Gar.), *asenai* (Ig., Beru., Ud., Gar.) eta *asnai* (Arrar., Oro.). Larraungo mendebalean bezala, *azkure* dugu Araitz-Betelun ere, eta orobat ondoko hizkera gipuzetan (K. E.). *asnai* bada Basaburu Txikian (B. L.) eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 667), baina *azkure* eta *azkanai* ditugu Leitzan (B. L.). *asnai* erakoak Nafarroako hainbat hizkeratan ageri dira, hala nola Aezkoan (I. C.), Lesaka aldean (A. L.) edota Sakanako erdialdean (Erdozia 2004a: 40)³³², baina *axkurealdi* dago Erroibarren (Ibarra 2007: 22).

atari / ate ‘atea’:

atari entzun dugu Larraungo hego-ekialdeko herrietan eta Uitzin; ipar-mendebalean, aldiz, *ate* sumatu dugu, nahiz biak entzun ditugun Albiasun. Imotz eta Basaburu Nagusia Larraungo hego-ekialdearekin batera doaz, eta Araitz-Betelu, berriz, Larraungo ipar-mendebalarekin. Gure ibarren mugetan, *atari* dago Atetz-Ultzaman eta Txulapaingo Usin (*EDEL*), baina *ate* Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta orobat Gipuzkoan. *atari* hitzak kutsu nafarra du: horixe erabiltzen da gure eremutik ekialdera eta orobat Nafarroako ipar-ekialdean. Nolanahi ere, *ate* erabiltzen den mintzoetan, *atari* ere bada, baina ‘sarrera’-edo esan nahi du (adibidez, *eliz-atari*).

aztal / opo ‘orpoa’:

aztal esaten zaio oin-orpoari Larraungo hego-ekialdeko herri gehienetan: hala bildu dugu Oderitzen, Iribasen, Arruitzen eta Aldatzen. Iribasen, *aztal* hitzarekin batera, *oztopoldo* ere jaso dugu, eta Baraibarren *ostopolo*. Bestalde, ñabardurak ñabardura, Albiasun, Uitzin³³³, Gorritin³³⁴, Azpirotzen eta Errazkinen³³⁵, *opo* jaso dugu. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *aztal* dugu, eta, Araitz-Betelun, *opo*. Gure eremuko hizkeren mugetan, *aztal* ageri da Ultzaman (Ibarra 1995a: 670)

³³² Burundan, ordea, *azkura* erabiltzen dute (Erdozia 2008: 337).

³³³ Bi hiztunekin aritu gara Uitzin; batak *aztal* darabil, eta besteak *opo*.

³³⁴ *aztal* beste gorputz-atal bati esaten diote Gorritin, orpoaren gaineko atalari hain zuzen, atzekaldean. Bereizkuntza bera egin digu Berueteko hiztun batek ere; hark *ankazpi* izendatzen du oin-orpoa, baina bestela *aztal* jaso dugu Berueten ere. Bestalde, Erdoziaren hitzetan, *aztal* hitzak orkatiletik belauera bitarteko hanka zatia, atzekaldekoa, adierazten du Sakanan (2004a: 54); Gorritin eta Berueten bezala, beraz. Izetak ere horixe dakar Baztanerako (1996: 53). Azkenik, *OEhk* ere badakar adiera hori, eta Sakana aldeko, Baztango eta Lapurdiko lekukotasunak dakartza.

³³⁵ Errazkinen, aziendaren hankazpiari esaten diote *aztal*, inoiz ez pertsonenari.

eta Basaburu Txikian (B. L.), eta *opo* Leitzan³³⁶ (B. L.) eta Gipuzkoan. *aztal* hitza ohikoa da Nafarroan: bada Esteribarren eta Erroibarren (Ibarra 2007: 24), Aezkoan eta Zaraitzun (I. C.), Lesakan (A. L.), Itzarbeibarren (Arana 2002: 16), eta abar. Gainera, *aztal* ezaguna da Ipar Euskal Herrian ere, hala nola Nafarroa Behereko Gamarten (G. T.). *opo*-k, berriz, mendebaleragoko kutsua du; Sakanan ere baliatzen da (Erdozia 2004a: 232).

barruti / komunal, larre, erri-larre ‘herriarena den lur-eremua; larrerako, egurra ateratzeko, edota fruitu- eta fruta-arbolak ustiatzeko erabiltzen da batik bat’:

Larraungo hego-ekialdeko herrietan (salbu Albiasu) eta Uitzin, *barruti* hitza erabiltzen da lur-eremu komunala izendatzeko. Gaur egun ez da halako lurrik hainbeste erabiltzen; nolana ere, badirudi Larraungo alderdi horretakoa dela *barruti* (adiera horretan betiere). Ipar-mendebaleko herrietan, bestelakoak erabiltzen dituzte lur-eremu mota hori izendatzeko: *komunala, larree, erriko larree*, eta abar. Larraungo hego-ekialdean bezala, *barruti* dugu Goldaritzen, baina hitz hori ez da ezaguna adiera horretan ez Imozko gainerako herrietan, ez Araitz-Betelun, ezta Gipuzkoako Amezketan³³⁷ ere. Basaburu Nagusian bada *barruti* hitza, baina beste adiera bat du: Udaben, Orokietan, Igoan, Berueten eta Arraratsen esan digute lur-eremu partikularra izaten zela, norberarena, eta lur zati txarra izaten zela, maldatsua eta sasiz eta otez betea; *barruti* horiek larrerako erabiltzen zituzten gehien-gehienean. Adiera bertsua eman digute Erbitin eta Gartzaronen ere, baina, han, komunala izaten zen *barruti* delakoa, baina ez lantzeko aproposa. Bestalde, *komune, partzela* edota *komunal* izendatzen da, Basaburu Nagusian, herriarena den lur-eremua. Guk dakigula, *barruti* hitza ez inguruko hizkeretan ez beste ezeinetan ez da erabiltzen Larraungo eta Goldarazko adiera berean. Leitzan eta Basaburu Txikian, ezaguna da hitza, baina Basaburu Nagusikoaren adieran (B. L.). Gogoan izan, azkenik, Araitz-Betelun eta Larraungo herri batzuetan, belarrak egiteko lurak direla *barrutiak* (ikus, 8.6.3. atalean, *euntze / soro*).

bigo / (zurezko) sarde:

Bi puntako zurezko tresna, belarra iraultzekoa, da *bigoa* Larraungo hego-ekialdeko herrietan (Albiasu barne); tresna hori *sarde* edo *zurezko* (edo *zuresko*) *sarde* izendatzen dute Larraungo ipar-mendebalean. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *bigo* bildu dugu, eta *aztisarde* Araitz-Betelun. Basaburu Nagusitik iparraldera, *belar-sarde* erabiltzen dute Basaburu Txikian, eta antzekoak daude Leitzan ere (B. L.). Mendebalerantz, *txardango* eman digute Gipuzkoako Amezketan (B. G.). *bigo*

³³⁶ *aztal* ere bada Leitzan, baina oinaren atzeko aldea adierazten du (B. L.).

³³⁷ Amezketan, aziendak bazkatzeko zelaiari esaten zaio *barruti* (B. G.).

hitzari dagokionez, Nafarroako eremu zabalean bildu du Iribarrenek (1984: 87); bada, halaber, Esteribarren eta Erroibarren (Ibarra 2007: 35), Txulapaingo Osinagan (Agirre 1925: 140) edota Ollaranen (Bidador 1992: 293).

iratzarri / esnatu ‘iratzarri, esnatu’:


iatzarri eta *eatzarri* bildu dugu Larraungo hego-ekialdeko herrietan (salbu Albiasun), eta *esnaatu* (Alb., Erra.) eta *esenatu* (Ui., Azp.) erakoak ipar-mendebalekoetan. *iratzarri* gisakoak daude Imotzen eta Basaburu Nagusian ere: *iatzarri* (Gol., Era., Etxal., Er., Gar., Oro.), *itzarri* (Osk.), *etzarri* (Mus., Oro.), *eatzarri* (Its., Ud., Arrar., Ig.), *eatzarre* (Beru.). Larraundik mendebalera, *esnato* dugu Araitz-Betelun, eta *esnatu* Amezketan (B. G.) eta orobat Gipuzkoan. Gure eremutik ekialdera, *itzzerri* eta *etzarri* ditugu Ultzaman (Ibarra 1995a: 662), eta antzekoak daude handik ekialdera ere (Etxaide 1989: 298-299). Iparraldera, *esnatu* da nagusi Leitzan eta Ezkurran, *iatzarre* eta *ernatu* daude Eratsunen, eta *ernatu* Saldiasen eta Beintza-Labaienen (B. L.); hegoaldera, *iratzarri* erakoak erabiltzen dituzte Arakilen eta Sakanako erdialdean, baina *esenatu* Burundan (Erdozia 2004a: 110). *esnatu* hitza Euskal Herriko erdigunean erabiltzen da: Hurtadok dioenez, horixe ageri da Tolosaldean eta Goierrin, baina *itxarri* gisakoak daude mendebalera orduko (Hurtado 2001: 140).

kider / kirten ‘kiderra, kirtena’:

kier (Od., Iri., Bar., Ald., Arru.) eta *kiar* (Iri., Bar.) aldaerak bildu ditugu Larraungo hego-ekialdeko herrietan (adibidez, *aizko-kierra*, *sega-kiarra*), eta *kerten*, aldiz, ipar-mendebalekoetan. Albiasun, biak jaso ditugu, eta, Uitzin, *kerten* da orokorrena, baina zenbait hiztunek *kierra* eta *kertena* bereizi egiten dituzte (*kierra* motzagoa da, eta ez du heldulekurik izaten; bai, ordea, *kertenak*). Ñabardurak ñabardura, Larraundik ekialdera, *kier* esaten dute Imotzen (Muskitzen, *kinder*)³³⁸ eta Basaburu Nagusian (*kier*: Its., Er., Gar., Oro., Arrar., Ig.; *kiar*: Ud., Beru.). Mendebalerantz, Araitz-Beteluk Larraungo ipar-mendebalarekin bat egiten du, *kerten* baitago han ere.

³³⁸ Oskotzen, gainera, *kindder* esaten diote frutak arbolari eusteko izaten duen makilatxoari.

31. irudia



Gure ibarren mugetan, *kider* dugu Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 663), eta Basaburu Txikian (B. L.), *kirten* dago Arantzazu-Betelu ondoko Gipuzkoan (K. E.), eta biak ageri dira Leitzan (B. L.). Irañetan, *kider* ageri da (Erdozia 2004a: 134), eta aldaera bera dugu Ihabarren (Camino 2003a: 248). *kider* hitzari dagokionez, Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean, eta Ipar Euskal Herrian erabiltzen da (cf. Etxaide 1989: 179).

lantxurde / antziar 'antzigarra':

Negu aldeko goizetan izaten den ihintz izoztuari *lantxurde* deitzen diote Larraungo hego-ekialdeko herrietan; ipar-mendebalekoetan, berriz, *a(i)ntziar* erabiltzen dute, baita Albiasun ere. Oderitzen, beste zerbait da *antziarra*: kazkabar xehea, hain zuzen. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *lantxurde* jaso dugu; Beruete da salbuespena, *antziar* jaso baitugu han, ondoan dituen Larraungo herrietan bezala. Larraundik mendebalera, *antziar* dugu Arantzazu-Betelun, eta berdin ondoko Gipuzkoako Amezketan eta Zaldibian (K. E.). Gure eremutik ekialdera, *lantxurde* dugu Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 647), *mukuts*, *bisotz* eta *antziar* Basaburu Txikian (B. L.), eta *antziar* Leitzan (B. L.). Badirudi, beraz, iparraldetik, Basaburu Nagusian duela muga *lantxurde* hitzak. Ekialderantz eta ipar-ekialderantz hedadura zabala dute, ordea, *lantxurde* eta haren kidekoek (cf. Iribarren 1984: 311-312): Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2007: 90), Aezkoan (I. C.) edota Baztanen badira (Izeta 1996: 118), eta baita Sakanan ere (Erdozia 2004a: 186). *antziar* hitzari

dagokionez, Araitz-Betelu ondoko hizkera gipuzetan ageri da, baina ez dakigu, mendebalerantz, noraino iristen den, Deba aldean *lantxurda* erabiltzen baitute (Zuazo 2006a: 151), eta antzekoak Azkoitian (Del Castillo eta beste 2001: 78).

manatu / aindu ‘manatu, agindu’:

manatu dugu, oro har, Larraungo hego-ekialdeko herrietan (salbu Aldatzen), eta *aindu*, berriz, ipar-mendebalekoetan (Albiasu eta Aldatz barne³³⁹). Nolanahi ere, bi formak entzun ditugu Baraibarren. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *manatu* erabiltzen dute³⁴⁰, eta *aindu* Araitz-Betelun. Gure hizkeren ingurumarian, *manatu* dago Basaburu Txikian (B. L.) eta Txulapainen (Arana 2006: 72), *aindu* Gipuzkoan, eta biak Leitzan (B. L.). Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean, eta hego-nafarreran eta Ipar Euskal Herrian (Camino 2003a: 101) erabiltzen da *manatu* hitza.

mutil / morroi ‘morroia; besteren etxeko lanak egiten dituen mutila’:

Morroiarri *mutill* esaten zaio Larraungo hego-ekialdean, eta *morroi*, aldiz, ipar-mendebalean (Albiasu barne). *mutill* jaso dugu, halaber, Imotzen eta Basaburu Nagusian (Igoan, *motill*). Mendebalera, *morroi* eta *morroe* ditugu Araitz-Betelun. Gure ibarren mugetan, *mutil* dago Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 229), *morroi* eta *mutil* biak ageri dira Basaburu Txiki gehienean (B. L.)³⁴¹, eta *morroi* Leitzan (B. L.) eta Gipuzkoako Amezketan (B. G.). Etxaideren datuetan ikus daiteke *mutil* ageri dela Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean (1989: 229); gainera, Ipar Euskal Herrian ere bada (*EDEL*). *morroi*, berriz, giputzago ageri da geronen begietan.

pitxera / txarro ‘pitxera’:

Ura *pitxeran* ateratzen dute mahaira Larraungo hego-ekialdeko herrietan (salbu Albiasun); Albiasun eta ipar-mendebaleko herrietan, *txarroa* erabiltzen dute. *pitxera* bildu dugu, halaber, Imotzen eta Basaburu Nagusian. Araitz-Betelun, *txarroa* erabiltzen da gaur egun, baina, Gaintzako berriemaile batek argitu digunez, aspaldi, *pitxaa* deitzen zioten ur-ontzi horri, eta *txarroa*, berriz, beste ontzi klase bat izaten zen, portzelanazkoa eta kiderrarekikoa. Gaur egun, baina, *txarro* hitza erabiltzen da harako *pitxaa* izendatzeko, eta *pitxaa* hitza baztertuta gelditu da. *pitxera* eta haren tankerakoak Euskal Herri guztian barna ageri dira (cf. *OEH*). *txarro* hitzari dagokionez, berriz,

³³⁹ Aldatzen, *aindo* jaso dugu.

³⁴⁰ *aindu* ere bada Imotzen, baina beste adiera bat du (gazt. prometer). Hona Goldarazko adibide bat: *omeste diru aindu zioten Ameiketaa ez joateatik* ‘honenbeste diru agindu zioten Ameriketara ez joateagatik’.

³⁴¹ B. Lizarragak *morroi* bildu du Ezkurran, *morroi* eta *mutil* Saldiasen eta Eratsunen (Eratsunen, berria da *morroi*), eta *mutil* Beintza-Labaienen.

eremu jakin batean sortutako berrikuntza delakoan gaude: Gipuzkoako Amezketan ere erabiltzen dute, *pitxar*-ekin batera (B. G.), eta ezaguna da Leitzan ere (B. L.); alabaina, ez da Gipuzkoa osoan erabiltzen, Zaldibiara orduko, esate baterako, soilik *pitxar* ageri baita (K. E.).

piztu, biztu & ixiki / piztu, biztu ‘piztu’:

piztu, biztu eta *ixiki* entzun ditugu Larraungo hego-ekialdean; ipar-mendebalean (Albiasu barne), berriz, ez dute *ixiki* ezagutzen, eta *biztu, piztu* darabilte kasu guztietan³⁴². Imotzen ere *piztu, biztu* nahiz *ixiki* erabiltzen dituzte³⁴³. Basaburu Nagusiari dagokionez, *biztu* eta *ixiki* bildu ditugu Itsason, Berueten eta Arraratsen; *bixtu* Orokietan; *ixiki* Udaben; eta *biztu* Erbitin, Gartzaronen eta Igoan (*bizto*). Araitz-Betelun, *piztu, pizto* eta *bizto* (Gai.) bildu dugu. Badirudi, iparraldetik, Basaburu Nagusian duela muga *ixiki* hitzak, ondoko Basaburu Txikian ez baitute ezagutzen (B. L.). Nolanahi ere, Irañetan *ixiin* ageri da, eta *izerai* Sakanako erdialdean (Erdozia 2004a: 156), eta *ixin* dugu, halaber, Ihabarren (Camino 2003a: 248). *biztu* eta haren tankerakoak orokorrak dira euskaraz; *ixiki*-ri dagokionez, ez dakigu zehazki non erabiltzen den (batetik, *OEHk* Gipuzkoako, Nafarroako hainbat hizkeratako edota Nafarroa Behereko lekukotasunak dakartza, eta, bestetik, *eraxegi* ‘encender’ adibidea ageri da *RS* lanean 1596an, Lakarra 1996: 207).

Aldaerak

ausin / osin ‘asuna, osina’:

ausiñ erabiltzen dute Larraungo honako herri hauetan: Oderitz, Iribas, Aldatz, Arruitz eta Uitz. *osiñ*, aldiz, beste hauetan entzun dugu: Baraibar, Albiasu, Gorriti, Azpirotz eta Errazkin. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *ausiñek* bildu dugu, eta Araitz-Betelun, berriz, *osiñek*. *ausin* erabiltzen da gure eremutik ekialdera dauden Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995a: 633). Iparraldera, aldiz, *usiñ* dugu Basaburu Txikian, eta *osiñ* Leitzan (B. L.). *osin* dugu, halaber, Gipuzkoako Amezketan (K. E.), baina ez da aldaera hori Gipuzkoa osoan erabiltzen, *asun* erakoak ere bai baitira han, Bizkaian bezala. *ausin* Nafarroako beste hizkera batzuetan ere baliatzen da, hala nola Irañetan eta Murginduetan (Camino 2005a: 274), eta Lapurdin ere ez da ezezaguna (*OEH*), baina bestelako formak ageri dira Nafarroako ekialdean (ikus Etxaide 1989: 85).

³⁴² Honako aldaera hauek entzun ditugu Larraunen: *biztu* (Iri., Bar., Ui.), *piztu* (Od., Ald., Arru., Alb., Ui., Gorr., Azp., Erra.), *bizto* (Ald.), *ixiki* (Od., Iri., Bar., Arru.) eta *ixike* (Ald.).

³⁴³ Ez dago garbi, ordea, ea alderik baden *ixiki* eta *piztu, biztu* hitzen artean. Goldaritzen, esate baterako, *argii ixiki, ziarroa ixiki* eta *argezarii ixiki* esaten da, eta *labii bixtu, telebisioa biztu*; Oderitzen, *argii ixiki, labee ixiki, ziarroa piztu* eta *suu piztu*; Iribasen, *argii ixiki* eta beste guztiak *biztu*; Baraibarren, *argizarii ixiki* eta beste guztiak *biztu*.

bakotx / bakoitz ‘bakoitza’:

bakotx aldaera dugu hego-ekialdeko herrietan (Albiasu barne); *bakoitz*, aldiz, Uitzin, Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen entzun dugu. Larraundik ekialdera, *bakotx* bildu dugu Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta aldaera horixe zegoen Txulapainen ere (Arana 2006: 16). Basaburu Nagusitik iparraldera, *bakotx* dago, halaber, Basaburu Txikian, eta biak ageri dira Leitzan (B. L.). Larraundik mendebalera, *bakoitz* dugu Araitz-Betelun eta orobat Gipuzkoan. *bakotx* aldaerak hedadura zabala du Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian (OEH).

eke / kei ‘kea’:

eke aldaera ageri da Baraibartik eta Etxarritik ekialdera, eta *kei* Albiasun, Uitzin, Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *eke* erabiltzen dute, eta *kei* Araitz-Betelun. Gure eremuaren mugetan, *eke* dago Ultzaman (Ibarra 1995a: 662) eta Basaburu Txikian (B. L.), eta forma horixe zegoen Txulapaingo Usin eta Beorburun ere (Artola 1992: 191). *kei* dugu, aldiz, Leitzan eta Areson (Olano 1998: 75), baina aldaera horrek hortxe du muga noski; izan ere, Gipuzkoako Amezketan, *ke* erabiltzen dute (B. G.), baita Zaldibian ere (K. E.)³⁴⁴. *eke* aldaera Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean ageri da: Aezkoan eta Eugin (Camino 1997: 202), Erroibarren (Ibarra 2007: 82), Baztanen (Izeta 1996: 72), Zaraitzun eta Erronkarin (OEH), eta abar. OEHk, gainera, badakartza Nafarroa Behereko zenbait lekukotasun.

ezpata / ezpa(a) ‘ezpara, beltzuntza, eulitzarra’:

Larraungo hego-ekialdeko herrietan (salbu Baraibarren), *ezpata* edo *ezpatuli* esaten diote euli mota horri; ipar-mendebalekoetan, berriz, *ezpa(a)* eta *uli-ezpa* ageri dira, baita Baraibarren eta Albiasun ere. Bestalde, *ezpore* jaso dugu Oderitzen. Larraungo hego-ekialdearekin bat egiten du Basaburu Nagusiak, baina kontuak ez daude hain garbi Imotzen: *ezpata* bildu dugu Goldaratzen eta Erason, *abea* Etxalekun, eta *txingur ealdune* Muskitzen (Oskotzen ez dugu lortu intsektu horren izenik). Mendebalera, *ezpa* dugu Araitz-Betelun. Gure eremuko herrien ingurumarian, *ezpata* dago Basaburu Txikian (B. L.), *ezpata* eta *ezpada* Leitzan (B. L.), eta *ezpa* Gipuzkoako Amezketan (K. E.). Mendebalerantz, ez dakigu noraino iristen den *ezpa* aldaera; izan ere, *ezpara* eta *ezpata* ditugu Azkoitian (Del Castillo eta beste 2001: 55), edota *espate* Bizkaiko Leioan (Gaminde 2001a: 117). Ez da erraza aldaeron banaketa geografikoa argitzea: *ezpa*-k eremu murriztekoa dirudi, *ezpata*

³⁴⁴ Ez dugu nahasi behar mendebaleko hizkeretan gertatzen den *-e + -a > -eia* bilakabidearekin. Lekeition, esate baterako, *meya* ‘mehea’, *keya* ‘kea’, *teya* ‘tea’ gisakoak sortu dira *-e-z* bukatutako hitzari *-a* mugatzailea gehitzean (Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994: 38), eta hala sortua da Bergara aldeko *keia* ere (Elexpuru 2004: 357). Gurean, mugatzailea erantsi gabe ere erabiltzen da *kei*.

Euskal Herriko mendebaleko hizkeretan ere ageri da (*OEH*), *abe* erakoak ezagunak dira Erroibarren (Ibarra 2007: 3), Zaraitzun (Arana 2001: 113) edota Itzarbeibarren (Arana 2002: 3), eta *ezpore*, *azpore* eta *aizpore* ditugu Sakanan (Erdozia 2004a: 116), eta *ezpare* Aezkoan eta Ipar Euskal Herrian (I. C.), edota baita Bizkaiko Jataben ere (Gaminde 2001b: 166).

gae, gai / bae, bai ‘gabe’:

gae eta *gai* aldaerak entzun daitezke Larraungo hego-ekialdeko herri gehienetan; ipar-mendebalean, *bae* eta *bai* entzuten dira, baita Baraibarren eta Albiasun ere. Imotzen, *gai* dugu sistematikoki Goldaratzen; gainerako herrietan, berriz, forma laburtua ageri da sistematikoki *duikai* & *duikae* ‘dударик gabe’ adibidean, baina, gainerakoan, *gabe* zein *gai* ageri dira. Basaburu Nagusiari dagokionez, *gabe* sumatu dugu Udaben, Erbitin, Gartzaronen eta Orokietan, eta *gae, gai*, berriz, Arraratsen, Berueten eta Igoan. Araitz-Betelun, *bae* erabiltzen da (batzuetan, baita *bare* ere); Larraungo ipar-mendebalean bezalatsu, beraz. Gure hizkeren inguruan, *gabe* ageri da Ultzaman (Ibarra 1995a: 406), Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta *b(a)e* erakoak Gipuzkoan. *be* eta *bai* daude, halaber, Sakanan (Erdozia 2004a: 58). *bae* aldaerak hedadura handia du Euskal Herri osoan, zaharra baita: Bizkaian, Gipuzkoan, Itzarbeibarren, Aezkoan edota Erronkarin erabili izan da (*OEH*).

lengusi / lengusu ‘lehengusua & lehengusina’:

lengusi aldaera erabiltzen da, neska zein mutilentzat, Larraungo hego-ekialdeko herrietan; ipar-mendebalean (Albiasu barne), *lengusu* izendatzen dituzte denak. Salbuespena da Azpirotz: *lenguse* darabilte han kasu guztietan³⁴⁵. Imotzen eta Basaburu Nagusian gutxienez ere bada *lengusi*; Udabe dugu salbuespena, *lenguso* erabiltzen baita han. Mendebalera, *lengusu* dugu Araitz-Betelun. Gure hizkeren mugetan, *lengusi* dugu Ultzaman (O. I.) eta Basaburu Txikiko Beintza-Labaienen eta Saldiasen, eta *lenguse* Eratsunen eta Ezkurran, Leitzan bezala (B. L.). Nafarroako ekialdean ezaguna da *lengusi*, hala nola Erroibarren (Ibarra 2007: 92) eta Aezkoan (I. C.), baina ez da ageri Nafarroako ipar-ekialdean. Gipuzkoa aldean, *lengusu* erabiltzen da.

³⁴⁵ Pentsa liteke *i > e* bilakabidearen ondorioz sortua dela *lenguse* hori, baina ez zaigu iruditzen hala denik, Azpirotzen ez baitu indar askorik bilakabide horrek. Gainera, pluralean *lenguseak* esaten dute; *i > e* bilakabidearen ondoriozkoa balitz, ****lengusek** beharko luke hango hizkeran.

litxu / letxu 'letxuga, uraza':

litxu aldaera bildu dugu Larraungo hego-ekialdeko herrietan, nahiz *letxu* ere ezagutzen duten batzuek, hala nola Baraibarren. *litxu* ageri da, halaber, Imotzen eta Basaburu Nagusian, baina bi aldaerak jaso ditugu Berueten. Larraungo ipar-mendebalean, aldiz, *letxu* erabiltzen dute, baita Araitz-Betelun eta handik mendebalera ere. Ez dugu ezagutzen bi aldaeron banaketa geografiko zehatza zein den, baina baditugu zenbait datu *litxu*-ri buruz: Iribarrenek Odietan eta Lantzen bildu du (1984: 318), eta *OEHK* Arakilgo eta Ultzamako lekukotasunak dakartza (mailegua izanik, segur aski eremu txikikoa izango da, baina ez dugu aski datu). Gainera, *litxu* ezaguna da Nafarroako ipar-ekialdean, hala nola Sunbillan (A. L.), Oitzen (Apalauza eta Lakar 2001-2003) eta Baztanen (Lakar eta Telletxea 2003-2004).

ooldio / gooldio 'goroldioa':

Larraungo hego-ekialde gehiengan, *ooldio* (Iri., Bar., Arru.) eta *odoldio* (Od.) aldaerak entzun ditugu; ipar-mendebalean, berriz, *gooldio* dago, baita Aldatzen eta Albiasun ere. Imotzen, *ooldigo* (Gol.), *ooldio* (Er., Osk., Etxal.), *gooldio* (Etxal.) eta *musgo* (Mus.) aukerak bildu ditugu. Basaburu Nagusiari dagokionez, *kooldio* bildu dugu Itsaso eta Orokietan ez beste herri guztietan (Itsason eta Orokietan, *gooldio*); bestalde, *gooldio* zein *kooldio* entzun daitezke Gartzaronen. Mendebalera, *gooldio* dago Araitz-Betelun. Gure eremuko hizkeren ondoan, *gooldio* eta *kooldio* daude Basaburu Txikian, eta *gooldio* Leitzan (B. L.) eta Gipuzkoako Amezketan (K. E.). Haratago, *oldiyo* dugu Sakanako erdialdean, baina *goroldie* Irañetan eta *gooldiyue* Lakuntzan (Erdozia 2004a: 229). Ez dago garbi zein den halako bikoteen azalpena: bi aldaera ote dira, edo *g*-duna ote da zaharragoa eta *g*-gabea berriagoa? Tankera horretako gertaeren gainean aritu zen Mitxelena bera (1977 [1961]: 253), eta konponbide zaileko auzia dela ondorioztatu zuen.

solemu / solamu 'solomoa':

Larraungo hego-ekialdean (baita Uitzin eta Albiasun ere), *solemu* esaten dute; ipar-mendebalean, berriz, *solamu*. Badakigu Imotzen eta Basaburu Nagusian ere *solemu* erabiltzen dutela, salbu Igoan, *solomu* bildu baitugu han. Larraungo ipar-mendebalean bezala, *solamu* dago Araitz-Betelun ere. *solamu* ezaguna da Leitzan (Olano 1998: 72) eta Gipuzkoako Amezketan (K. E.), eta *solomo* erabiltzen dute Basaburu Txikian (B. L.). Gure eremutik ekialdera, ez dago ez *solemu* ez *solamu*-rik Ultzaman eta Esteribar-Erroibarren (Ibarra 2007: 129), eta ez dirudi ekialderago ere badenik. Biak ere eremu murrizteko aldaerak direlakoan gaude.

Horiez gain, beste atal batzuetan aztertu ditugun hitz eta aldaera zenbait aipatu beharrean gaude atal honetan ere. Izan ere, Larraungo hego-ekialdea eta ipar-mendebala banatzeko ere balio dute honako aldaera eta hitz hauek (hego-ekialdeko aukera jarri dugu ezkerrean, eta ipar-mendebalekoa eskuinera): *amañi / amandre* (ikus 8.6.2.), *landar / are* (ikus 8.6.2.), *erreka & ugalde / erreka* (ikus 8.6.2.), *euntze / soro (/ barruti)* (ikus 8.6.3.), *oinaztura / tximista* (ikus 8.6.3.), *jainkoan gerrikoa / arko iris, (k)ostilleka* (ikus 8.6.4.), eta *odei, kalma / laino* (ikus 8.6.4.).

8.6.6. Larraun eta Araitz-Betelu elkarrengandik banatzen dituen lexikoa

Larraungo herriak batera ageri zaizkigu atal honetan ikusiko ditugun hogeitaz hitz bikote eta hamahiru aldaera bikoteetan. Ekialderago ere badauden zenbait ale lexiko Larraunen ere badaude, baina aldatu egiten dira Araitz-Betelura orduko. Hala, Gipuzkoako edota Euskal Herriko erdiguneko hizkeretara nabarmen lerraturik ageri da Araitz-Beteluko hitz eta aldaera sorta honetan, eta Larraungo herriek ekialderagoko hizkeretik loturari eutsi diote. Nolanahi ere, Errazkinek (eta Azpirotzek, kasuren batean) Araitz-Betelurekin bat egiten du askotan. Imotz eta Basaburu Nagusia Larraunekin batera ageri dira kasu guzti-guztietan.

Hitzak

aitagutxi, amagutxi / aita-ponteko, ama-ponteko ‘aitabitxia, aita-pontekoa; amabitxia, ama-pontekoa’:

Bataioko aitabitxi-amabitxiak izendatzeko, *atteutxi* eta *amautxi* gisakoak ditugu Larraun osoan³⁴⁶, eta *atte-punteko* eta *ama-punteko* Araitz-Betelun. Imotzen eta Basaburu Nagusian, Larraunen antzera esaten dituzte³⁴⁷, eta baita Basaburu Txikian (B. L.) ere. *atteutxi* eta *amautxi* gisakoak ohikoak dira Nafarroako ekialdean (Aezkoaraino) eta ipar-ekialdean (Etxaide 1989: 217, 219), eta baita Irañetan eta Murginduetan (Camino 2005a: 274) edota Uharte Arakilen (Erdozia 2004a: 8-9) ere. *atte-punteko* eta *ama-punteko* gisakoek, berriz, Gipuzkoa aldeko kutsua dute; forma horiexek daude, hain zuzen, Amezketan eta Zaldibian (K. E.). Gainera, antzekoak daude Sakanako erdialdean ere (Erdozia 2004a: 8-9, 19). Alabaina, *amabitxi* eta *aitabitxi* ere erabili izan

³⁴⁶ Hona Larraunen bildutako aldaerak: *atteutxi* (Iri., Bar., Arru., Alb., Ui., Azp.), *atautxi* (Od.), *attautxi* (Ald.), *aitautxi* (Gorr.), *attegutxi* (Erra.); *amautxi* (Od., Arru. Ald., Alb., Ui., Gorr., Azp.), *amaautxi* (Iri., Bar., Arru.), *amagutxi* (Erra.).

³⁴⁷ Hona Imozko aldaerak: *atteutxi* (Gol., Er., Osk., Mus.), *attiutxi* (Gol., Etxal.), *attigutxi* (Gol.); *amautxi* (Gol., Er., Etxal., Osk., Mus.). Basaburu Nagusikoak: *atautxi* (Its., Er., Gar., Beru., Ig., Oro.), *aitutxi* (Arrar.); *amautxi* (Its., Er., Gar., Oro., Beru.), *amatxi* (Ig., Arrar.).

dira Bizkai-Gipuzkoetan (*OEH*); areago, biok ageri dira Getxoko gaur egungo hizkeran (Hualde eta Bilbao 1992: 81, 82).

aitzurko / jorrai ‘aitzur txikia’:

aitzurko izendatzen da aitzur txikia Larraunen; Araitz-Betelun, berriz, *jorrai*. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *altzurko* erabiltzen da; *OEH*k hitz horrexen lekukotasunak dakartza Ultzamarako eta Erronkarirako, eta, gure ustez, eremu murrizteko hitza da. Gure mugetan, *jorrai* ageri da Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta Gipuzkoako Amezketan (K. E.). Alabaina, Euskal Herriko hainbat hizkeratan ageri da *jorrai* (ikus *OEH*), hala nola Nafarroa Behereko Gamarten (G. T.).

aizkoldo / aizko ttiki ‘aizkora txikia’:


Aizkora txikiari *aixkoldo*, *aizkoldo* esaten zaio ia Larraun gehiengan (Aldatzen, *aixkolko*), Errazkinen izan ezik, han *aizko ttiki* esaten baita (Gorritin, biak entzun ditugu). Araitz-Beteluri loturik ageri zaigu, beraz, Errazkin, *aizko ttiki* baita Araitz-Beteluko hitza. Larraun gehiena, aldiz, Imotzi eta Basaburu Nagusiarik atxikirik dugu hitz horri dagokionez: Imotzen, *aixkolto* (Er., Osk.) eta *aixkolko* (Etxal., Mus.) entzun dugu; Basaburu Nagusian, berriz, *aixkolto* (Its., Ud., Arrar.), *aizkolto* (Er., Gar.) eta *aixkulto* (Ig., Beru.). Gure eremuaren mugetan, *aizkora ttiki* ageri da Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta *aizkoa txiki* Amezketan (K. E.). Sakana aldean, *aixkolto* dugu erdigunean, eta *aizkora txiki* Uharten eta Ergoienean (Erdozia 2004a: 10).

alor / soro ‘ereiten den lur-eremu itxi eta partikularra’:

Ereiten eta lantzen den lurrari *alor* esaten zaio ia Larraun guztian; salbuespenak dira Gorriti eta Errazkin, han *lur-soro* eta *soro* bildu baitugu, hurrenez hurren. Eremuko gainerako hizkerari dagokienez, *alor* nagusitzen da Imotzen eta Basaburu Nagusian³⁴⁸, eta *soro* Araitz-Betelun.

³⁴⁸ Gogoan izan belarrak egiteko erabiltzen den lur-eremu itxi eta partikularra ere badela *soro*, Goldaratz ez beste Imozko herrietan eta Basaburu Nagusian (ikus, 8.6.3. atalean, *euntze / soro*).

32. irudia



Gure hizkeren mugetan, *alor* dugu Atetzen eta Ultzaman, eta Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.). Badirudi Nafarroa Garai gehiengan eta Ipar Euskal Herrian erabiltzen dela *alor* (Camino 2003a: 100); *soro*, berriz, Araitz-Betelu ondoko Amezketan bada (K. E.), eta orobat Gipuzkoan. Azkenik, Irañetan ere bada *soro* adiera horretan, baina baita *alor* ere (Camino 2005a: 275).

añar / *txilar* ‘ainarra, txilarra; gazt. brezo’:

Larraunen (salbu Errazkinen), *aña(a)r* esaten diote zuhaixka mota horri; Errazkinen eta Araitz-Betelun, berriz, Gipuzkoa aldeko kutsua duen *txillar* erabiltzen dute³⁴⁹. Larraundik ekialdera, *añaar* dugu Imotzen eta Basaburu Nagusian (Oskotzen, *añarraka*), salbu Muskitzen, han *illarraka* bildu baitugu; Arraratsen, *añar* bai, baina *isats-iñarra* ‘ainarraz egindako isatsa edo erratza’ dugu. Gure eremuko hizkeren ingurumarian, *añar* dago Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 632), Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta *txillar* Gipuzkoako Amezketan (K. E.). Ez dirudi, ordea, *añar* hitzak Ultzamatik ekialdera hedadura handia duenik, *larre* baitago, esate baterako, Erroibar aldean (Ibarra 2007: 90)³⁵⁰. *OEHN* ikusi dugunez, Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait hizkeratan ere bada *añar* (*inar*, *iner*...), eta Euskal Herriko erdigunean ageri zaigu *txilar*. Bestalde, Iribarrenek *chilarra* dakar Nafarroako ipar-ekialderako, eta *ilarraca*, *illarraca* Gares eta Iruñerriko, hurrenez

³⁴⁹ Errazkinen, ordea, *illar-isatsa* deitzen diote txillarrez egindako erratzari.

³⁵⁰ *illarraka* ere bada han, baina ‘seta de brezo’ esan nahi du, Ibarren hitzetan (2007: 70).

hurren (1984: 182, 294, 295), baina Baztanen behinik behin bada *añar* (Lakar eta Telletxea 2003-2004).

a(g)otz & lasto / lasto ‘agotza, lastoa’:

aotza eultzitako garia da Larraunen (salbu Errazkinen), eta *lastoa*, berriz, eultzi gabea³⁵¹. *a(g)otza* bildu dugu, halaber, Imotzen eta Basaburu Nagusian. Aldiz, *lasto* dugu Errazkinen eta Araitz-Betelun. *aotz* hitza ezaguna da gure hizkeren ingurumarian: Ultzaman (Ibarra 1995a: 648), Txulapainen (Agirre 1925: 137), Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.) bada, baina ez da ageri Araitz-Betelutik mendebalerako hizkeretan. Areago, Nafarroako eremu zabalekoa da *a(g)otz*: bada Erroibarren (Ibarra 2007: 5) edota Sakanan (Erdozia 2004a: 6) ere. Nolanahi ere, bai Gipuzkoan bai Bizkaian ere erabili izan da hitz hori, eultzitako lastoaren adieran (*OEH*). Ez dugu Ipar Euskal Herriko berri handirik, baina, Garazi aldeko Gamarten (Nafarroa Beherea), ‘gariaren kuskia’ da *aotza*, eta ‘gari landarearen zangoa’, aldiz, *lastoa* (G. T.).

barne, barren / barrun ‘barne’:

barne eta *barren* erakoak entzun ditugu Larraunen³⁵² (salbu Errazkinen), eta *barrun*, aldiz, Errazkinen eta Araitz-Betelun³⁵³. Imotzen eta Basaburu Nagusian, Larraunen bezala erabiltzen da³⁵⁴. Gure eremuaren mugetan, *barne* gisakoak daude Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 273), Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta *barruun* Gipuzkoako Amezketan (B. G.). *barne* erakoak ohikoak dira Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean (Etxaide 1989: 273), Sakanako erdialdean (Erdozia 2004a: 61) eta Ipar Euskal Herrian (*EAEL*); *barru* gisakoak, aldiz, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban ageri dira, baita Burundan ere (Erdozia 2008: 337). Nolanahi ere, berezia da Errazkingo eta Araitz-Beteluko *barrunen* forma pleonastikoa; eremu murrizteko berrikuntza delakoan gaude, ez baitago halakorik, esan bezala, ondoko Amezketan, ezta Zaldibian (K. E.) ere³⁵⁵.

³⁵¹ Gorritin ere badakite *aotza* zer den, baina Gorriti ez omen zen oso egokia garia lantzeko, lainoa izaten baita han, eta, garia ezagutu badute ere, ez zen eultzikorik egiten, eta, beraz, ez zuten agotzik ateratzen.

³⁵² Adibideak: *etxe barnen* (Alb., Gorr.), *etxe barrenen* (Iri., Gorr.), *etxe barnin* (Bar.), *etxe barrenin* ‘etxe barnean’ (Arru.), *barnea* ‘barnera’ (Ald., Od.), *barrende(k) kanpoa* ‘barrenetik kanpora’ (Iri.), *barreanean* (Azp.).

³⁵³ Adibideak: *etxe barrunen* ‘etxe barnean’ (Ar.-Bet.), *barrungo illea* ‘barneko ilea’ (Bet.), *barrungo zikiñe* ‘barneko zikina’ (Gai.), *errota barrunea* ‘errota barnera’ (Bet.), *sartu barrone* ‘sartu barnera’ (Bet.), *barrundi zuritu* ‘barnetik zuritu’ (At.), *etzaio pasatzen barrungo aldea* ‘ez zaio pasatzen barneko aldera’ (In.).

³⁵⁴ Imozko eta Basaburu Nagusiko adibide batzuk: *itxe barrenin* (Gol.), *itxe barreanean* ‘etxe barnean’ (Im.), *barrungo aldin* ‘barneko aldean’ (Gol.), *barnin gai* ‘barnean gaude’ (Arrar.), *barnan* ‘barnean’ (Its.), *denak sartzen tzazkiu goaiñ barna* ‘denak sartzen zaizkigu orain barnera’ (Ud.).

³⁵⁵ *zurepechoaren varrunean* adibidea ageri da Goldaratzen 1835 aldeko testuetan, baina gogoan izan egilea madoztarra zela.

esperatu / itxoin ‘itxoin’:

espeatu bildu dugu Larraun guztian (adibidez, *espean neok* ‘esperoan nagok’ Oderitzen, *gure lanak espea dezake* ‘gure lanak espera dezake’ Iribasen, eta *espea zazo* ‘espera ezazu’ orokorra), eta *itxoin*, *atxoin* Araitz-Betelun. *espeatu* dugu, halaber, Imotzen eta Basaburu Nagusian. Gure eremuaren mugetan, *esperatu* ageri da Ultzama aldean, eta Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta *etxoin* Gipuzkoako Amezketan (B. G.) eta orobat Gipuzkoan. Badirudi Nafarroa Garaian hedadura zabala duela *esperatu*-k, baina Araitz-Betelun du muga hitz horrek. Azken ohar gisa, *esperatu* erabiltzen den tokietan, indarrez sartzen ari da *itxoin*, gazte eta helduen artean batez ere, baina baita zenbait adinekorengan ere.

goraintzi / eskumin ‘goraintzi(ak), eskumuin(ak)’:

goantzik emateko ohitura dago Larraun osoan, nahiz eta *eskumiñ* ere indartsu sartu den, ipar-mendebaleko herrietan batik bat. Esate baterako, behin, Errazkingo hiztun batek esan zigun oso arraroa zela *goraintzi* Errazkinen entzutea —begibistakoa zen berak *eskumin* hobesten zuela—, baina, gure saioa bukatuta, elkar agurtzen ari ginela, *eman goantzik attei* bota zuen. Araitz-Betelun, *eskumiñ* besterik ez da erabiltzen; Larraundik ekialdera, *goantzik* dago Imotzen (Muskitzen, *goraintziek*) eta Basaburu Nagusian. Handik iparraldera, *goraintzi* dugu Basaburu Txikian (B. L.), eta biak daude Leitzan (B. L.). Nafarroa Garai gehieneko hitza da *goraintzi*, eta bada Euskal Herriko mendebalean eta Ipar Euskal Herrian ere (*OEH*); *eskumin*, berriz, Euskal Herriko erdiguneko hitza da.

idin edo beien aurre / itzule ‘idiaren edo behiaren aurrea, itzul-lana’:

Nekazaritzari lotutako “lanbide” edo zeregin horretan aritzen zenari *idin aurrekoa* edo *beien aurrekoa* esaten zaio Larraunen (*are-aurrekoa* ere bai, Errazkinen). Lurra goldatzean eta areatzean, behiaren edo idiaren aurrean mutiko edo neskato bat jarri izaten zen, hark aurrera egin zezan laguntzeko; euliak kentzea ere bazen *beien aurrekoa*-ren eginbeharra. Imotzek eta Basaburu Nagusiak Larraunekin bat egiten dute, baina hori *itzulean* aritzea da Araitz-Betelun (Errazkinen ere bada hitz hori). *itzule* dago Araitz-Betelu ondoko Amezketan ere (K. E.), eta adiera horretan ageri da *itzuli!* esapidea Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.); *OEH*ko datuak aintzat harturik, Euskal Herriko erdiguneko terminotzat har daiteke *itzule*. Datu eskas dugu gure eremutik ekialderako hizkerez, baina *altzineko(a)* gisakoak daude Erroibarren (O. I.).

igande / jai 'igandea':

Larraunen (salbu Errazkinen), *iande* esaten diote asteko azken egunari; *jaie* ere bada, baina ez du zertan igandea izan, aste barneko jai-eguna ere izan baitaiteke. Araitz-Betelun eta Errazkinen, ia ez dute *igande* erabiltzen, eta *jai* darabilte igande eguna adierazteko; adibidez, *jaieti jaiea bizarra kendu* 'jaitik jaira (igandetik igandera) bizarra kendu' (In.). Larraunekin batera ditugu Imotz eta Basaburu Nagusia (Oskotzen eta Muskitzen, *iende*), eta baita Leitza eta Basaburu Txikia (B. L.) ere. Badirudi Nafarroa gehienez orokorra dela *igande* (Etxaide 1989: 54); *jai-k*, berriz, Gipuzkoa aldeko kutsua du (cf. Hurtado 2001: 135-136).

iruetan ogei & lauetan ogei / irurogei & larogei 'hiruretan hogeia, hirurogei; lauretan hogeia, laurogei':

Larraun guztian entzun ditugu *iru(e)tan oei / ogai / obei* eta *lau(e)tan oei / ogai / obei* gisakoak³⁵⁶, baita Errazkinen ere. Nolanahi ere, ipar-mendebaleko herrietan batez ere, *irurogai* eta *larogai* erakoak nagusitzen ari dira, gazte eta helduengan batik bat, baina baita adineko hiztunengan ere. Esate baterako, Errazkingo hiztun batekin saio bat hastekotan ginela, hiztunak esan zigun medikutan izan berria zela, eta hark esan ziola belarri batetik *iruetan ogai* baino gehiago galdua zuela. Gero, inkestan atera zen gai hori, eta esan zuen *irurogei* behar zuela Errazkinen, arraroak zirela beste horiek. Araitz-Beteluri dagokionez, *irurobei* eta *lauobei* entzun dugu kasu guztietan. Imotzek eta Basaburu Nagusiak Larraunekin bat egiten dute (-etan oei); Ibarrek *iruroei* eta *laroei* dakartza bi ibar horietarako (1995a: 331), baina bestelakoak bildu ditugu guk. Hain zuzen, Nafarroa Garaian eremu zabala harrapatzen dute -etan hogeia gisakoek: gure eremuaren ekialdeko, hegoaldeko eta iparraldeko mugan badira, hala nola Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995a: 331), Txulapainen (Arana 2006: 56, 68), eta Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.); gure mugez haratago, ohikoak dira Nafarroako ekialdean³⁵⁷ eta ipar-ekialdean (Etxaide 1989: 367-368). Gainera, forma horiek ezagunak dira Ipar Euskal Herrian ere (EAEL). Aitzitik, *irurogei* erakoak ageri dira Araitz-Betelutik mendebalera (Gipuzkoan), betiere kontuan izanik aztergai dugun eremu osoan dagoela halakoak gero eta gehiago erabiltzeko joera, -etan hogeia egituraren kaltetan.

-etan ehun egiturari dagokionez, berriz, kontuak ez ditugu hain garbi. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *iruun* 'hirurehun' gisakoak jaso ditugu gehientsuenetan, baina badugu salbuespen bat

³⁵⁶ Ikus, 8.6.4. atalean, *ogei / ogai*.

³⁵⁷ Zaraitzun eta Erronkarin, aldiz, aldaera kontserbatzaileak erabiltzen dituzte (*irurogei*, *laurogei*, eta *borzogeia* eta *borzogeitabat* berrixeagoak bildu zituen Bonapartek Zaraitzuko Jaurrietan, eta *iror ogei ta zortzi* Estornes Lasak Erronkarin); ikus Camino 1997: 175.

Imozko Latasan: *lauetan eun* bildu genuen han, hizkera arduragabea. Larraunen, Uitzin baino ez dugu entzun, hizketa laxoan, *iruetan eun*.

kalpar / ile 'ilea':

Pertsonen nahiz animalien ileari *kalpar* esaten zaio Larraunen (salbu ardiena, *ille* baita). Araitz-Betelun ere bada *kalpar*, baina irain kutsua du, ile zikina edo gaizki orraztutakoa adierazten baitu. Imotzen eta Basaburu Nagusian ere *kalpar* da ohikoena (ardiena *illa* da Etxalekun, Muskitzen, Gartzaronen, Erbitin eta Orokietan; gainerako herrietan, *ille*). Gure eremuaren mugetan, *kalpar* bada Ultzaman (Ibarra 1995a: 668), eta ezaguna da Amezketan (B. G.) edota Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.) ere, baina kutsu txarra du han; Sakanan, ile luzea adierazten du (Erdozia 2004a: 167). *ille* ohikoa da euskal hizkera askotan, baina eremu murriztekoa dirudi *kalpar*-ek: ez da ageri Ultzamatik ekialdera, eta, dirudienez, ez dago beste ezein hizkera nafarretan³⁵⁸.

kerak / tankera 'antza':

Larraunen, batoren eta bestearen arteko antza adierazteko, *kerak* hitza erabiltzen da. Hona adibideak: *atteen kerak ttek* 'aitaren kerak ditik' (Od.), *motill oi keretaa ezautu ot* 'mutil hori keretara ezagutu dut' (Iri.), *Azpiroz ta Errazkiñek kerak geigo izaen due izketan* 'Azpirotz eta Errazkinek kerak gehiago izanen dute hizketan' (Alb.), *amaan kerakoa da* 'amaren kerakoa da' (Bar.), *amaan kerak dauzke* 'amaren kerak dauzka' (Ald.). Alabaina, *tankera* ere ezagutzen dute, ipar-mendebaleko herrietan gehienbat (baina ez hiztun guztiek). Bestalde, *keantza* ere entzun dugu Uitzin: *atteen keantza guzik dazke orrek* 'aitaren kerantza guztiak dauzka horrek'. Araitz-Betelun, baina, *tankera* erabiltzen dute, eta ez *kerak*: *alakon tankera artu nion* 'halakoren tankera hartu nion' (Gai.). *tankera* dago Amezketan ere (K. E.). Larraundik ekialdera, Imotzen, *kerak* eta *karak* aldaerak entzun ditugu: *atteen karak tto* 'aitaren kerak ditu' (Era.). Baina bestelako esapideak ere erabiltzen dituzte imoztarrek; adibidez, *ematen dio amari* 'ematen dio amari; amaren antza du' (Osk.). Basaburu Nagusiari dagokionez, orokorra *kerak* da, baina bestelakoak ere entzun ditugu: *amaan iruittuu da* 'amaren iruditua da' (Its.), *arren irudik ttu* 'haren irudiak ditu' (Gar.), *bere ze irudi dun bateana o besteana* 'begira zer irudi duen batengana edo bestearengana' (Gar.), *atteen planta* 'aitaren planta, antza' (Arrar.), *atteen trazak* 'aitaren trazak, antzak' (Arrar., Ig.). Ez dakigu zein den *kerak*-ren hedadura, baina ez dirudi oso zabaldua dagoenik. Gure ustez, Gipuzkoa aldean *tankera* da nagusi gaur egun, baina Tolosaldean *kerak* bazen XIX. mendea baino lehenago (OEH).

³⁵⁸ Bergara aldean bada, baina 'buruan ilea alde desberdinetara irteten den unea' adiera eman dio Elexpuruk (2004: 342).

laka / lakari ‘lakaria; neurri zaharra, batik bat errotetan erabilia’:

Banaketa ez da oso garbia: Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen (salbu Errazkin), *laka* neurria erabiltzen zuten, baina ez dute herri guztietan ezagutzen, eta, horrez gain, ez dago garbi zein ote den haren esanahia. Izan ere, herri batzuetan esan digute neurririk txikiena izaten zela *laka*; beste batzuetan, berriz, errotariak alea ehotzearen truke beretzat hartzen zuen saria zela esan digute. Hain zuzen, bi adiera horiexek bildu dituzte bai *OEHk* eta bai Iribarrenek ere (1984: 309). Nolanahi ere, Larraundik ezkerrera, *lakaie* bildu dugu Araitz-Betelun eta Errazkinen, neurri jakin hori adierazteko. *lakari* erabiltzen da, halaber, Gipuzkoa aldean (cf. *OEH*), baina ez dirudi eremu zabaleko hitza denik. Orokorragoa da, aldiz, *laka* (ikus Apalauza eta Lakar 2001-2003, Ibarra 2007: 89 edota Elexpuru 2004: 386).

latz / lakatz ‘latza, lakatza’:

Leuna ez dena *latza* da Larraunen; Araitz-Betelun, berriz, ohikoagoa da *lakatz*. Nolanahi ere, Uitzin eta Gorritin ere ez da erabat arrotza *lakatz* aukera, nahiz eta ohikoagoa den *latz*. Izan ere, *lakatz* eta *latz* ezagunak dira ondoko Leitzan (B. L.). Imotzen eta Basaburu Nagusian, *latz* bildu dugu kasu guztietan. Ez dakigu noraino iristen den *lakatz*: ez dirudi ezaguna denik gure eremutik ekialdera, eta, mendebalera, Amezketan bada (K. E.), baina eremu murriztekoa dirudi³⁵⁹.

meta / zuatz ‘meta, zuhatza’:

Belar edo iraztor lehorrez egindako pilei *meta* deritze Larraun gehienez (Errazkinen izan ezik), eta *zuatx*, aitzitik, Errazkinen eta Araitz-Betelun. Azpirotzen ere bada *zuatx*, baina metari erditik sartzen zaion ziria izendatzeko erabiltzen dute; adiera hori *OEHk* ere jaso du, Gipuzkoako Azpeitian eta Tolosaldean. Bestalde, Errazkinen, *zuatx* da orokorra, baina *meta* esaten diote edozein bazterretan pilatutako belar multzoari (baina ziririk gabe, besterik gabe metatuta dagoena). Imotzen eta Basaburu Nagusian, *meta* darabilte, Nafarroa gehienez bezala. Gure eremuaren mugetan, *meta* dugu oro har, baina *zuatx* ageri da Gipuzkoako Amezketan (K. E.), eta baita, mendebalerago, Zaldibian (K. E.), Azkoitian (Del Castillo eta beste 2001: 126) edota Bergara aldean (Elexpuru 2004: 629) ere. Ipar Euskal Herrian, *meta* ageri da Nafarroa Behereko Gamarten (G. T.).

³⁵⁹ Bergara aldean ere bada *lakatz*, baina beste esanahi bat du (Elexpuru 2004: 386).

mixto / poxpolo ‘pospoloa’:

Larraunen, *mixtoak* erabiltzen dira sua pizteko; Araitz-Betelun ere ezaguna da hori (gainera, *Mixtonea* izeneko etxea bada Gaintzan), baina *poxpoloak* erabiltzen da gero eta gehiago, baita Errazkinen ere. Egoera bertsua dugu Leitzan ere, *poxpolo* erabiltzen baita han gero eta gehiago (B. L.). Hain zuzen, *poxpolo* ageri da Gipuzkoan, hala nola Amezketan (B. G.; cf. *OEH*). Imotzen eta Basaburu Nagusian, *mixto* da nagusi, baita Basaburu Txikian ere (B. L.), eta badirudi forma horixe dagoela handik ekialdera ere (cf. Ibarra 2007: 102 eta Arana 2001: 199). Euskal Herriko erdigunekoak dirudi *poxpolo* hitzak, Euskal Herriko mendebaleko hizkeretan ere ezaguna baita *mixto* (*OEH*).

plantatu / aldatu ‘landatu’:

Larraunen (salbu Errazkinen), baratzeko landareak *plantatu* egiten dira (beste aukera batzuk ere badira: *planta jarri*, *planta sartu*...). Errazkinen eta Araitz-Betelun, aldiz, *aldatu* erabiltzen da adiera horretan. Larraungo herri batzuetan ere bada *aldatu*, baina beste esanahi bat du: hazia erein, eta, landarea jaiotzen hasten denean, landare hori beste toki batera transplantatzea, hain zuzen. Larraundik ekialdera, *plantatu* da nagusi Imotzen eta Basaburu Nagusian, nahiz *aldatu* ere baden Goldaratzen eta Itsason, Larraungoaren adieran betiere. Araitz-Betelun bezala, *aldatu* dugu Amezketan (K. E.) eta Leitzan (B. L.), baina *landatu* gisakoak ageri dira Imoztik ekialdera, hala nola Ultzaman edota Erroibarren (O. I.).

zakar / itsusi ‘itsusia; itxura fisikoari loturiko ezaugarria’:

Larraunen, *zakar* adjektiboa erabiltzen da ‘itsusia’ adierazteko. Araitz-Betelun, aldiz, *zakar*-ek izaera txarresten du, eta *itsusi*-k, berriz, itxura fisikoa. Halaxe erabiltzen da Gipuzkoako Amezketan ere (K. E.). Imotzen eta Basaburu Nagusian, *zakar* da ohikoena itxura fisikoa txarresteko. Dena den, indar handiz sartzen ari da *itsusi* herri guztietan; bati baino gehiagori entzun diogu gauza bera adierazten dutela bi hitzek, baina *zakar* “gehiago” dela *itsusi* baino. *zakar* beste hizkera nafar askotan ere bada, baina izaera baldarrekoaren adieran batez ere; nolana ere, Basaburu Txikian eta Leitzan, itsusiaren adieran erabiltzen da (B. L.).

Aldaerak

aitz / araitz ‘haritza’:

Haritz arbolari *aitz* esaten zaio Larraun osoan, eta baita handik ekialdera ere (Imotzen, Basaburu Nagusian eta handik ekialdera); *araitz* dugu, aldiz, Araitz-Betelun. Ez dakigu, ordea, noraino hedatzen den *araitz* aldaera; Amezketan, behinik behin, *aitz* erabiltzen da (B. G.). Aztertzen ari garen eremuan, Araitz-Beteluko aldaera eskusiboa da *araitz*; *OEHn*, baina, aldaera horixe heldu da Burundako eta Etxarri Aranazko hizkeretarako. Hain zuzen, Erdoziak *areitz* dakar Dorraorako (2001: 373) eta *araitz* Altsasurako (2004a: 28), eta Mitxelenak, Campionen bitartez, Olaztin, Dorraon, Arbizun eta Betelun aurkitu zuen aldaera hori (1977 [1961]: 192).

berant- / berand-:

Larraun guztian entzun daiteke *beantetseik nau* ‘berantetsirik nago’ egitura, beste hauekin batera: *beantetsita* (Bar., Erra.), *beantetsiik* (Alb.), *beanditsik* (Ast., Ui.), *beandutsik* (Iri.), *beandetseik* (Od., Iri.), *beandututa* (Ui., Azp.), *beanduetsita* (Gorr.), *luzetetsie* ‘luzetsia’ (Ui.) eta *beantzen do* ‘berantzen du’ (Alb.). Beraz, *t*-dun aldaera ez ezik, *d*-duna ere ageri zaigu Larraunen. Araitz-Betelun, *d*-duna erabiltzen da beti (*beandututa*), mendebaleragoko hizkeretan bezala. Imotzen, *beantets(e)ik nau* erabiltzen da herri guztietan, eta honako forma hauek bildu ditugu Basaburu Nagusian: *beantetsik* (Its., Er., Arrar.), *beantetseik* (Oro.), *beantatsi(i)k* (Gar., Ig.) eta *beantetsi* (Beru.). Ondoko Basaburu Txikian eta Leitzan, *be(r)antetsi* ageri da, eta *luzantetsi* ere bada Leitzan (B. L.). Gure eremutik ekialdera, *berantesik egon* dugu Ultzaman (Ibarra 1995a: 654), eta antzekoak daude Esteribarren eta Erroibarren (O. I.). Bestalde, Nafarroako ipar-ekialdean eta orobat Ipar Euskal Herrian, ohikoa da *berant* aditzondoa. Beraz, berezia eta esanguratsua iruditzen zaigu, *berant* aditzondoa ez (*be(r)andu* erabiltzen baita gure eremu guztian), baina *berantetseik*, *berantetsita* agertzea Imotzen, Basaburu Nagusian eta are Larraunen (Errazkinen ere bai, gainera); baliteke hitz elkartua delako agertzea *t* hori, edo baliteke halaber antzina hedatuago izatea *berant* aditzondoa bera gure eremuan ere.

berendu / merendu ‘askaria; gazt. merienda’:

Arratsalde-erdiko otorduari *beendu* esaten zaio Larraun guztian, eta *meendu*, *meindu* Araitz-Betelun. Nolanahi ere, *beendu* ere bildu dugu Intzan (Apalauza eta Arraztio 2003-2005). *beendu* dugu, halaber, Imotz eta Basaburu Nagusi guztian, eta biak ageri dira Basaburu Txikian, eta *atsaldekoa* Leitzan (B. L.). Atetzi eta Ultzamari dagokienez, *merendu* dakar Ibarak (1995a: 288),

baina *berendu* ere ageri da Etxaideren datuetan (1989: 167). *berendu* aldaera ohikoa da Nafarroako hizkera askotan, hala nola Esteribar-Erroibarren, Aezkoan, Sakanan, Malerrekan, Bortzirietan edota Baztanen (Etxaide 1989: 167).

bi orduak / ordubiak:

bi orduk da nagusi Larraunen (salbu Errazkinen eta Gorritin), eta *ordubik* Gorritin, Errazkinen eta Araitz-Betelun. Larraunen antzera esaten da Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta baita Basaburu Txikian ere (B. L.). Leitzak, aldiz, Araitz-Betelurekin eta orobat Gipuzkoarekin bat egiten du (B. L.). *bi orduk* gisakoak Nafarroako ekialdean eta ipar-ekialdean erabiltzen dira, hala nola *bioronak* Erroibarren (Ibarra 2007: 114) edota *bi orduk* Malerreka aldean (Apalauza eta Lakar 2001-2003). Gainera, antzekoak daude Nafarroa Behereko Gamarten ere (*bionak*, G. T.).


buuxik, puuxik / goaizik ‘guraizeak’:

buuxik, *buuxek* dugu aldaerarik ezagunena Larraunen (Baraibarren, *muuxik*). Araitz-Betelun, *goaizik* eta *goaxik* entzun dugu; *buuxik* ere bada, baina, Gaintzan azaldu digutenez, ardi-ilea mozteko guraizeei esaten zaie *buuxik*, ez besteei (hala ere, hiztun batzuek guraize mota guztiei esaten diete *buuxik*). Imotzen, *buuxik*, *piuxik* (Lat.) eta *puixak* (Mus.) formak bildu ditugu, eta, Basaburu Nagusian, *puuxik*, *puixik*, *puixak*. Antzeko formak ageri dira gure hizkeren ingurumarian: Ultzaman (Ibarra 1995a: 659), Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.). Araitz-Betelutik mendebalera, baina, *goaizik* dugu Amezketan (K. E.), eta orobat Gipuzkoan (cf. Hurtado 2001: 139). *buuxik* erakoak gure eremutik ekialdera ere erabiltzen dira, Esteribarreraino gutxienez (Etxaide 1989: 185), eta antzekoak daude Ihabarren, Gulibarren, Irañetan edota Unanun (Camino 2005a: 274). Nafarroako ipar-ekialdean, aldiz, *aixtur* ageri da Malerreka aldean (Apalauza eta Lakar 2001-2003) eta Ipar Euskal Herrian (G. T.).

erde / lerre ‘lerdea’:

Larraunen, *erde* aldaera dugu lerdea izendatzeko (adibidez: *erde daiola dao* ‘lerdea dariola dago’, Azp.), baita Imotzen eta Basaburu Nagusian ere. Araitz-Betelun, *lerde* erabiltzen dute, ondoko Amezketan eta orobat Gipuzkoako zati batean bezala. Gure eremutik ekialdera eta iparraldera, *erde* dugu Atetzen eta Ultzaman (Etxaide 1989: 170) eta Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.); areago, *erde* da Nafarroa Garaiko aldaerarik ohikoena (Etxaide 1989: 170, cf. Camino 2003a: 101). Aldaera horrek Araitz-Betelun du muga, beraz.

33. irudia



erdi / ebi 'euria':

erdi edo *iuri* egin ohi du Larraunen, baita Imotzen eta Basaburu Nagusian ere. Araitz-Betelun, ordea, kutsu giputza duen *ebi* aldaera entzun daiteke; *ebi* dugu, hain zuzen, Gipuzkoako Amezketan eta Zaldibian (K. E.), edota Orion (Iturain eta Loidi 1995: 32). *EAEL*ren arabera, *ebi* dago Gipuzkoako Alegian, Asteasun, Ataunen, Azpeitian, Donostian eta Hernanin, eta baita Zuberoan ere (cf. *EI* 1984: 115). Nafarroa Garairako, oro har, *erdi*, *iuri*, *eguri*, *iguri*, *uri* eta *auri* aldaerak dakartza Etxaidek (1989: 31).

ollatasi / ollategi 'oilategia':

Oiloek ukuiluan izaten duten lekuari *ollatasi* esaten diote Larraunen (*Azpirotzen*, *ollatasi*)³⁶⁰, eta *ollatei* edo *ollatoki*, aldiz, Araitz-Betelun. Nolanahi ere, Larraunen berean gero eta maizago entzun daiteke *ollate(g)i*. Larraundik ekialdera, *ollatasi* dugu Imotzen eta Basaburu Nagusian; aldaera hori ezaguna da Basaburu Txikiko Beintza-Labaienen (B. L.), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2007: 111), Artzibarren (Arana 2004: 126) eta are hego-nafarreraz (Camino 2003a: 97), eta baita Sakanako erdialdean eta Irañetan ere (Erdozia 2004a: 230); ez dirudi hortik kanpo erabiltzen denik.

³⁶⁰ Gorritin, baina, *kota* erabiltzen dute, Gipuzkoako eta Bizkaiko hizkera batzuetan bezala (cf. *OEH* eta Elexpuru 2004: 477).

o(r)e, o(r)antza, o(r)a-mai, o(r)atu / orre, orrantza, orra-mai, orratu ‘orea, orantza, ora-mahaia, oratu’:

/r/ fonemadun aldaerak edo batere gabeak erabiltzen dira Larraun osoan: *ore* eta *ori* ‘orea’, *o(r)antza* ‘orantza’, *o(r)a-mai* ‘ora-mahaia’ eta *o(r)atu* ‘oratu’. Araitz-Betelun, berriz, /f/ fonemadunak darabiltzate (alegia, dardarkaria dutenak): *orre, orrantza, orra-mai* eta *orratu*. Imotzen, Basaburu Nagusian eta Nafarroa gehiengan, Larraunen bezala ebakitzen dira adibide horiek (*orantza* dakar Etxaidek Nafarroa gehienerako, 1989: 156). Araitz-Betelutik mendebalerako hizkera giputzetan, *orrea* eta *orremai* adibideak ditugu Leaburu-Gazteluko testu batean (*EAEL*, 102. testua), eta halakoak ezagunak dira Amezketan (B. G.) eta Zaldibian (K. E.). Azkenik, *OEHk* aldaera dardarkaridunaren lekukotasunak dakartza Euskal Herriko zenbait lekutarako: goi-nafarrera, Gipuzkoa, Lapurdi, Aezkoa³⁶¹.

prest / presto ‘prest’:

prest nao ‘prest nago’ gisakoak entzun ditugu Larraun guztian, eta *presto nao*, aldiz, Araitz-Betelun (*presto dau aparie* ‘prest dago afaria’). Imotzen eta Basaburu Nagusian ere *prest* erabiltzen da (edo bestelakoak: *prestatuik, prestatuta*, eta abar), eta hala da Basaburu Txikian eta Leitzan ere (B. L.). Gipuzkoan, *prest* eta *pronto* aukerak ditugu Amezketan (B. G.) eta Zaldibian (K. E.).

tanta / tanto ‘tanta’:

tanta aldaera da Larraungo aukera orokorra (*ur tanta at*), Gorritin eta Errazkinen izan ezik. Hala, *tanto* ageri da Gorritin, Errazkinen (*olio ttantto at* ‘olio ttantta bat’) eta Araitz-Betelun. Imotzen eta Basaburu Nagusian, *tanta* darabilte, Nafarroa Garai gehiengan bezala. *tanto* aldaerak kutsu giputza du (cf. *OEH*): Araitz-Betelu ondoko Amezketan eta Zaldibian bada (K. E.), eta baita Leitzan ere (B. L.).

txopin / txotin ‘zotina’:

Larraun osoan entzun dugu *txopiñ* (Od., Iri., Arru., Alb., Gorr., Azp. Erra.), *txupiñ* (Bar., Ald., Ui.) aldaera. Imotzen, *txupiñ* (Era.) eta *txopiñ* (Gol., Osk., Etxal.) entzun ditugu, eta, Basaburu Nagusian, *txopiñ* (Its., Er., Gar.), *txumiñ* (Arrar., Beru.) eta *txomiñ* (Beru.). Bestalde, gaztelaniatiko *ipo* eman digute Igoan eta Muskitzen. Araitz-Betelun, ordea, *txotiñ* da ohikoa. Gure eremutik iparraldera, *zopin* eta *txopin* ditugu Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta, mendebalera, *zotiñ*,

³⁶¹ Gaur egun, baina, /r/ erabiltzen da Aezkoan (I. C.).

txotiñ daude Gipuzkoako Amezketan eta Zaldibian (K. E.). Ekialderantz, *-p*-duna gutxienez Erroibarreraino (Ibarra 2007: 143) eta Aezkoaraino (I. C.) iristen da, baina *xotin*, *zotin* eta *xetin* daude Zaraitzun (Arana 2001: 283, 285, 302).

uli / elbi ‘eulia’:

Eulia izendatzeko, *uli* jaso dugu Larraunen (Gorritin eta Errazkinen, *euli*). Araitz-Betelun, *elbi* erabiltzen da, nahiz eta *manduli* ‘mandeulia’ ere baden (eta ez *mandelbi*). Imotzen eta Basaburu Nagusian, *uli* bildu dugu. Nafarroa gehianean erabiltzen da (*e*)*uli* aldaera (ikus Artola 1992: 192, Camino 2003a: 101). *elbi* aldaerak, aldiz, kutsu giputza du: bada Araitz-Betelu ondoko Amezketan eta Zaldibian (K. E.), edota Orion (Iturain eta Loidi 1995: 32). Azkenik, *EAE*Lko datuen arabera, *elbi* ageri da Gipuzkoako Alegian, Asteasun, Ataunen, Bidanian, Donostian eta Hernanin, eta *uli* Nafarroa gehianean, Lapurdin eta Nafarroa Beherean.

Horiez gain, badira Larraun eta Araitz-Betelu banatzen dituzten beste aldaera eta hitz batzuk; beste atal batzuetan ikusi ditugu, baina berriz gogoraraziko ditugu (Larraungoa emango dugu lehenbizi, eta Araitz-Beteluko ondoren): *are / arre* (ikus 8.6.2.), *irazor / garo* (ikus 8.6.2.), *banaar / baba beltz*, *baba txuri* ‘babarruna’ (ikus 8.6.3.), *ira in / irari in* ‘igeri egin’ (ikus 8.6.3.), *euntze*, *soro / barruti* (ikus 8.6.3.), *baso* ‘mendia’/ *baso* ‘basoa’ (ikus 8.6.3.), *maduri / marrubi* ‘marrubia’ (ikus 8.6.4.), eta *makur*, *maingi / erren* ‘maingua, herrena’ (ikus 8.6.4.).

8.6.7. Nafarroa eta Gipuzkoa elkarrengandik banatzen dituen lexikoa

Nafarroako hizkerak askotarikoak eta nabarrak dira, baita Gipuzkoakoak ere. Atal honetan, batez ere Araitz-Betelurekin muga egiten duten Gipuzkoako hizkerak hartuko ditugu aintzat (Amezketan, batez ere), eta bi eremuok —alegia, Araitz-Betelu eta Amezketan— alderatuko ditugu. Nolanahi ere, ale lexikook mendebaleragoko hizkeretan egiaztatzen ahalegindu gara, hala nola Goierri aldean. Gipuzkoarako emango ditugun aleak gero eta ohikoagoak dira Araitz-Betelun, gazteen artean batik bat. Hogeita bi hitz bikote eta bost aldaera bikote dakartzagu guztira:

Hitzak

atija / doministiku ‘doministikua’, *atorra / alkandora*³⁶² ‘atorra, alkandora’, *axuri / arkume* ‘axuria, arkumea’, *bearrik / eskerrak* ‘bearrik, eskerrak’, *deus / ezer* ‘deus, ezer’, *eskuin / eskubi*

³⁶² *atorra* ere bada Gipuzkoako zenbait lekutan, baina beste adiera batean; Ataunen, esate baterako, lehengo aitonek erabiltzen zuten *atorra* izendatzeko erabiltzen dute (Larraitz Garmendiak emandako informazioa).

‘eskuina’, *galtzin & kisu* (Er., Gar.) / *kare* ‘karea’, *iote / karnabal* ‘ihotea’, *jolasean (aritu) / izketan (aritu)* ‘hizketan, solasean (aritu)’, *jostatu & jostaketan ibili / jolastu* ‘jostatu, jolastu’, *kisu & kisuskille / ieltso & iel(t)sero* ‘igeltsoa, igeltseroa’, *laister egin / korrika egin* ‘lasterka egin, korrika egin’, *nekazari / baserritar* ‘nekazaria’, *(g) oatze / oia* ‘ohea’³⁶³, *ongarri / ximaur & gootz* ‘ongarria, ximaurra’, *osatu / zikiratu* ‘osatu’, *pella / koniflora & goniflora* ‘azalorea’, *urri / setienbre & garoil & irail* ‘iraila’, *zata / abarka*³⁶⁴ ‘abarka’, *zortziko / txakur txiki* ‘zortzikoa; garai bateko dirua’, *zurgin / arotz* ‘zurgina’.

Aldaerak:

*apez*³⁶⁵ / *apaiz* ‘apaiza’, *bezala / bezela* ‘bezala’, *guzi / guzti* ‘guztia’³⁶⁶, *ongi, obeki / ondo, obeto* ‘ongi, hobeki’, *piper / pipar* ‘piperra’.

Horiez gain, beste atal batzuetan ikusitako hitz bikote zenbait ekarri nahiko genuke hona, Nafarroa eta Gipuzkoa banatzeko ere balio baitute: *matel & matail / masail & matrail* ‘masaila’ (ikus 8.6.2.), *jainkoan gerriko & jainkoan paxa / erromako zubi* ‘ortzadarra’ (ikus 8.6.4.), eta *ortots & ostots / trumoi* (ikus 8.6.4.).

8.6.8. Ondorioak

Mugimendu handia dago, ezaugarri lexikoei dagokienez, aztertzen ari garen eremuan. Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko hizkerak ez dira homogeneousak lexikoaren aldetik; alegia, ez dituzte hitz eta aldaera berak erabiltzen herri guztietan. Hori laburbiltzen saiatuko gara orain.

Hitz baino aldaera gehiago eman ditugu, baina kopuru hazia osatzen dute guztiek ere, eta kontuan hartzekoak dira, gure ustez.

Araitz-Beteluko euskara da, lexiko-kontuetan behinik behin, hizkerarik homogeneousena: ez dugu nabarmentzeko moduko ezberdintasunik topatu hango herrien artean. Aitzitik, isoglosa nabarmenak aipatu ditugu Imotz, Basaburu Nagusi zein Larraun ibarren baitan (8.6.2., 8.6.3. eta

³⁶³ Baina Zegaman ere bada *oatze* (Azurmendi 1998: 97).

³⁶⁴ Amezketan, *zata* hitza ere bada, baina emakumeentzako plastikozko oinetako bereziak izaten ziren, etxean ibiltzeko (B. G.). Ataunen, bestalde, beste oinetako klase bat izaten zen *zata* (Larraitz Garmendiak emandako informazioa).

³⁶⁵ Baina Badaion bada *Apezetxea* oikonimoa (Elosegi 1971-1972: 137).

³⁶⁶ Ez da osotara nafarra, *guzi* eta *guzti* erabiltzen baitira Ataunen eta Zegaman (Azurmendi 1996: 79 eta Azurmendi 1998: 42).

8.6.5. ataletan): Imotzen, hiru eremu bereizi ditugu; Basaburu Nagusian ere, hiru (ez hain nabarmenak), eta bi Larraunen.

Imotzi dagokionez, Atetz eta Ultzama ibarrei eta oro har handik ekialderagoko eta hegoalderagoko hizkerei loturik sumatu dugu Muskitz herria; beste muturrean, Larrauni begira dugu Goldarazko hizkera; eta tartean gelditzen dira Imozko gainerako herriak, Basaburu Nagusiarekin batera eskuarki. Kasu gutxi batzuetan, ordea, alderantzizko joera sumatu dugu: gure eremutik ekialdera ohikoak diren *ugalde* eta *oñazture* hitzak, esate baterako, ohikoak dira Goldaratzen, baina *erreka* eta *tximiste* ageri dira gainerako herrietan (ikus hitz bikote horiei buruzko azalpena 8.6.2. eta 8.6.3. ataletan).

Basaburu Nagusiko datu lexikoei begira, ibarra ez da homoginoa, herri guztiak ez baitoaz beti batera. Hala, zenbaitetan, Atetzi eta Ultzamari begira sumatu ditugu ekialdeko herriak (Erbiti, Gartzaron eta Orokieta), Basaburu Txikiari begira iparraldekoak (Igoa, Arrarats eta Beruete), eta tartean besteak (Imotzekin batera). Gainera, hitz eta aldaera multzo batek erakusten du Basaburu Nagusitik urrundu eta ondoko Larrauni (eta Leitzari, kasu askotan) begiratzen diola Berueteiko lexikoak: *attun*, *antziar*, *asmato*, *entxaur & intxaur*, *eroe*, *ezautu*, *ikullu*, *itxi*, *kontento*, *oanddo*, *odai*, *oolki*, *osto*, *xorgatille & txorgatilloa*, *zintzarri*. Alabaina, Basaburu Nagusiko hiru eremu horiek ez dira Imozkoak edo Larraungoak bezain garbi eta irmoak; esate baterako, iparraldeko herriak Basaburu Txikiko hizkerei lotuta daudela esan dugu, baina ez dago hitz multzo handirik, kasu bakan batzuetan baino ez baita gertatzen. Garbiagoa da, ikusi dugun bezala, Berueteiko kasua, Basaburu Nagusitik bereiz eta Larrauni loturik ageri baita kasu askotan.

Larrauni dagokionez, hego-ekialdea eta ipar-mendebala banatu ditugu. Hego-ekialdeko herriek handik ekialderagoko hizkerekiko kidetasunak dituzte (Imotz, Basaburu Nagusia, Atetz, Ultzama), eta mendebaleragoko eskualdeei lotzen zaizkie, aldiz, ipar-mendebalekoak (Leitza, Araitz-Betelu, Gipuzkoako hizkera batzuk). Larraundarrek berek garbi dakusate bi eremuon arteko desberdintasuna: hego-ekialdeko herritarrek diote Araitz-Betelun bezala hitz egiten dutela ipar-mendebalekoek; alderantziz, ipar-mendebalekoek diote oso desberdina dela hego-ekialdekoen hizkera, eta han dena *-i* eta *-u* egiten dutela. Bi eremuon artean batera eta bestera sumatu dugu Albiasu: hego-ekialdekotzat hartu dugu, baina ipar-mendebaleko aukerek gero eta indar handiagoa dute han. Bestalde, berezia da Errazkingo kasua. Izan ere, oraindik orain Larraungo euskararen

ezaugarri batzuei eusten badie ere, gero eta gehiago hurbiltzen ari zaio Araitz-Betelukoari: *aldata* ‘landatu’, *aizko ttiki*, *baa beltza*, *barrun*, *barruti* ‘pentzea’, *garo*, *jai* ‘igandea’, *laiño* ‘hodeia’, *lakaie*, *ordubik*, *tanto*, *txillar*, *txonkatille*, *zuatz*.

Desberdintasunak desberdintasun eta aldeak alde, zenbait hitz eta aldaeratan multzo trinkoa osatzen dute, zeinek bere aldetik, bai Imotz-Basaburu Nagusiak bai Larraunek (ikus 8.6.1., 8.6.4. eta 8.6.6. atalak). Esan bezala, Imotz eta Basaburu Nagusia batera doaz gehienetan, baina, zenbaitetan, ekialdera (Ultzama) edota iparraldera (Basaburu Txikia) jotzen du Basaburu Nagusiak, Imotzek baino gehiago betiere (ikus, batik bat, 8.6.2. eta 8.6.4. atalak).

Beste ondorio bat ere badakar gure azterketak: gure eremua zatitzen duten isoglosa lexikoak bertikalak dira. Alegia, aldaketak ekialdetik mendebalera gauzatzen dira, edo, alderantziz, mendebaletik ekialdera. Hala, ekialdetik hasita, Imotzen eta Atetz-Ultzamaren artean ezarri dugu lehenbiziko isoglosa gunea; Muskitzen bigarrena; Goldaritzen hurrengoa; Imotz-Basaburu Nagusiaren eta Larraunen arteko muga beste bat; (Albiasu-)Uitzi-Azpirotz-Errazkin lerroan hurrengoa; Larraun eta Araitz-Betelu ibarren muga beste bat, eta Nafarroaren eta Gipuzkoaren artean azkena. Badirudi, gainera, isoglosa lexiko bertikalak daudela Imoztik ekialdera eta hegoaldera ere; horixe ondorioztatu du Caminok hego-nafarrera aztertzean (2003a: 91-92).

Isoglosa bertikalek sortzen dituzten gune horiek ez dira erabat trinkoak, hala ere. Esate baterako, Muskitzen kokatu dugu isoglosa bat; horrek adierazten du Muskitz ekialdera begira dagoela zenbait hitz eta aldaeratan, Atetz eta Ultzama ibarrekin batera, eta mendebalari begira daudela, bestalde, Imozko gainerako herriak eta Basaburu Nagusia. Baina Etxaleku, Oskotz, Erbiti, Gartzaron eta Orokieta Muskitzekin batera doaz zenbait kasutan, eta isoglosa horren barnean daude, beraz. Gauza bertsua gertatzen da Larraungo Albiasu herriarekin: Larraun bitan banatzen duen isoglosaren arabera, hego-ekialdeko herriekin batera kokatu dugu Albiasu; alabaina, zenbaitetan, ipar-mendebalekoekin bat egiten du. Horrek guztiak adierazten du hizkerak continuum batean daudela, aldaketak gradualki gertatzen direla, eta zaila dela isoglosa trinko-trinkoak ezartzea, edozein hizkera-eremutan, eta are gehiago gurea bezalako eremu batean.

Horrez gain, isoglosa guztiak ez daude maila berean, edo, bestela esanda, ez dute nortasun bera: batzuek Euskal Herria bitan zatitzen dute, beste batzuek eremu txikiagoak banatzen dituzte, beste zenbait oso “tokikoak” dira, eta abar.

Gure kasuan, ikusi dugu, alde batetik, eremu zabalak banatzen dituzten zenbait isoglosa lexiko gure eremuan daudela. Hala, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko zati handi batean (Nafarroako ekialdea, ipar-ekialdea edota hego-nafarreraren eremua) ere badauden zenbait item lexikoren muga Atetz-Ultzamaren eta Imotz-Basaburu Nagusiaren arteko mugan dago, nahiz Basaburu Nagusia Imoztik aldentzen den batzuetan (*aitatxi, altzin, anitz, etxola, gauinare, gibel* eta (*katap*)*urtxintxe* hitzak, eta *bearri, bida, edeki & ideki, gut(t)i, igen* eta *neskato* aldaerak); Muskitzen eta Imozko gainerako herrien artean beste batzuen (*amatxi, eskalapoin*³⁶⁷, *iratze, kanebita, kukuso, oroitu, sobera, txilko* eta *yautsi* hitzak, eta *ameka, bago, deitzi, erran, iruzki (& iduzki)* eta *matel* aldaerak); Goldaritzen eta Imozko gainerako herrien artean beste batzuen (*erteka & arteka, pentze, arotz, oian* ‘mendia’, *oronbata, sagarroi, urrin* eta *irri (egin)* hitzak, eta *azazkal, eltxaur & eltzaur* aldaerak); Imotz-Basaburu Nagusia eta Larraun ibarren artean beste batzuen (*ebatsi, ertsi, joale (& joare), maingu* eta *tripot(a)* hitzak, eta *bulkatu, jauntzi, konten(t), koopillo* eta *ortots* aldaerak); Larraungo hego-ekialdearen eta ipar-mendebalaren artean beste batzuen (*aztal, kider, manatu* eta *mutil* ‘morroia’ hitzak, eta *bakotx* aldaera); eta, azkenik, Larraungo eta Araitz-Beteluko mugan beste batzuen (*alor, barne & barren* eta *iruetan ogei & lauetan ogei* hitzak, eta *berant-, bi orduk* eta *uli* aldaerak). Ale horiek guztiak oso esanguratsuak dira: hedadura zabalekoak dira, eta ez dira ageri zehaztutako eremutik mendebalera; bai, ordea, ekialdera eta iparraldera, Ipar Euskal Herriraino. Jakina, Ipar Euskal Herria ez dugu behar bezala ezagutzen, eta datu bakan batzuk ibili ditugu eskuartean, baina joera nagusi batzuk deskribatzen ahalegindu gara.

Beste kasu batzuetan, Ipar Euskal Herrira ez, baina Nafarroako eremu zabalera (gure eremutik ekialderako hizkerak, hego-nafarrera, Nafarroako ipar-ekialdea, Sakana³⁶⁸) hedatzen diren hitz eta aldaerak aurkitu ditugu gure eremuan: *aitagutxi & amagutxi, altzur, agotz, asenai, atari* ‘atea’, *berendu, buuxik & puuxik, eke, erde, esperatu, ileba, ingiri in, itxe, izautu, jainkoan paxa & jainkoan gerriko, langar & lankar, lengusi, lintsuse, litxu, malubi & maduri & maruri, mandar, martux (& martots, martxutx...), oñazture* eta *ugalde*. Ale horien muga ere gure eremuan dago (ikus

³⁶⁷ Gipuzkoan ere erabili izan da (OEH).

³⁶⁸ Zenbaitetan, multzo horretatik kanpo dago Sakana, batez ere Irañetatik mendebalerako herriak.

ale bakoitzaren hedadura aurreko ataletan), eta item esanguratsuak dira guztiak ere. Kontuan har, nolana ere, denek ez dutela hedadura bera.

Hedadura murriztagoko hitz eta aldaerak ere topatu ditugu gure azter-eremuan: batetik, gure eremu osoan edo zati handi batean, eta besteren batean (Sakanako erdialdea, Arakil, Leitza, Areso, Ultzama, Nafarroako ipar-ekialdea, Gipuzkoako hizkera batzuk...) ageri diren ezaugarriak ikusi ditugu: *izoa*, *leurri*, *matail* eta *obi*. Bestetik, gure eremuko ekialdean (Imotz, Basaburu Nagusia, eta, batzuetan, Larraungo hego-ekialdea) eta beste eskualderen batean (Leitza, Areso, Arakil, Basaburu Txikia, Sakanako erdialdea, Atetz, Ultzama, Anue, Txulapain, Nafarroako ipar-ekialdea edo Nafarroako beste batzuk) daudenak ditugu: *aitzurko* & *altzurko*, *aizkoldo* & *aixkolto* & *aixkolko*, *armimau*, *ausin*, *aztatu*, *bana(b)ar*, *biga*, *bota* ‘erori’, *gatzakoi*, *ira in*, *kalma*, *kalpar*, *landar*, *matxutx*, *ollatasi*, *ooldio*, *sartan*, *soro* ‘pentzea’, *txirrin*, *txopin*, *txurmio*, *zakar* ‘itsusia’, *zarre*. Azkenik, beste batzuk gure eremuko mendebalean (Larraungo ipar-mendebala, Araitz-Betelu) eta beste hizkeraren batean (Leitza, Areso, Arakil, Sakanako erdialdea, Gipuzkoako zenbait hizkera) aurki daitezke, mendebalerantz betiere: *aldatu*, *artasi*, *arre*, *baa beltz*, *ezpa*, *irari in*, *jai* ‘igandea’, *kei*, *orre* & *orra-mai*, *ostots*, *solamu*, *soro* ‘alorra’, *tximillo*. Hitz eta aldaera horien guztien hedadura ez da bera; batzuek hedadura zabalagoa dute, beste batzuek murriztagoa, eta abar, baina kasu gehienetan ez dira ageri zehaztutako eremutik kanpo.

Are murriztagoa da orain emango dugun multzoko hitz eta aldaeren hedadura: guk dakigula, gure eremuko zenbait herri edo ibarretan soilik erabiltzen dira (kasuren batean, baita inguruko beste herri edo ibarren batean ere), eta, alde horretatik, esan daiteke aski eksklusiboak direla: *amika* (Im. gehiena, Bas. Nag., Larr., Ar.-Bet. eta Egiarreta), *araitz* ‘haritza’ (Ar.-Bet., Sakanako batzuk), *atxoin* ‘itxoin’ (Ar.-Bet.), *axarikearra* & *axerikiarra* (Beru.) & *txaunkiarra* (Ald.) ‘enara’, *aztisarde* (Ar.-Bet.), *barrunen* ‘barruan’ (Ar.-Bet.), *barruti* ‘pentzea’ (Azp., Erra., Ar.-Bet.) & *barruti* ‘lur komunala’ (Gol., Larr. hego-ekialdea, Ui.), *geazi* (Gol., Larr., Ar.-Bet.), *keantza* ‘antza’ (Ui.), *makur* ‘maingu, herren’ (Larr.), *matuste* (Gol., Ald.), *obei* (Azp., Ar.-Bet., Leitza), *oztopoldo* & *ostopolo* ‘orkatila’ (Iri., Bar.), *patxaon* (Im., Bas. Nag.), *presto* (Ar.-Bet.), *solemu* (Larr. hego-ekialdea, Im., Bas. Nag., Leitza), *xongatillo* (Gol., Beru., Larr.), *zirriku* (Gol., Bas. Nag., Larr., Ar.-Bet.). Ondorio gisa, oso hitz eta aldaera eksklusibo gutxi dago gure eremuan, eta ez dute, gainera, pisu handirik. Lexikoaren azterketa honetan ikusi ditugun ezaugarri gehienak beste hizkera batzuetan ere badaude; batzuek besteek baino hedadura zabalagoa edo urriagoa dute, baina ia guztiak beste eskualde

batzuetara ere hedatzen dira. Esan nahi baita, ez dagoela Imotzen bakarrik erabiltzen den ale lexikoen multzorik, edo Larraunen bakarrik erabiltzen denik, esate baterako. Nolanahi ere, urriak badira ere, badira han-hemenka ezaugarri eskusibo zenbait, ikusi dugunez.

Beste item lexiko batzuek banaketa geografiko “bitxia” dute: *amañi* (Ud., Beru., Gol., Etxal., Larr. hego-ekialdea, Erronkari eta Zuberoa), *armiarmo* (Beru., Od., Iri., Ald. eta Ipar Euskal Herriko hizkera batzuk), *baso* ‘mendia’ (Od., Ui., Gorr., Sakana eta Bergara aldea), *etxoala* & *etxoala* (Beru., Aezkoa, Mezkiritz eta Bergara), *ezpata* ‘ezpara’, *iraztor* (Im. eta Larr. gehiena, Sakana, Gipuzkoako batzuk, Leitza eta Erroibar), *lakatz* (Ar.-Bet., Amezketa, Bizkaia), *malluke* ‘mailua’ (Im., Bas. Nag., Bergara), *ogai* (Larr. gehiena, Arakil eta Ultzama). Hitz eta aldaera horien gaineko gure ezaguera oso mugatua da; zalantzarik gabe, banan-banan aztertzeoak lirateke guztiak, beste inon ere badiren edo ez zehaztu ahal izateko. Baina, beste datu argigarriak ezean, “bitxitzat” hartuko ditugu. Gauza bera esan genezake hitz eta aldaera eskusiboen multzoaz.

Bestalde, Euskal Herriko erdigunean erabiltzen diren zenbait ale lexiko ere badira gure eremuan. Orain emango ditugun aleak ez dira Euskal Herriko erdigunetik ekialdera edo mendebalera erabiltzen, eta asko berrikuntzak dira, baina ez denak (ikus hitz edo aldaera bakoitzaren hedadura aurreko ataletan): *aldatu* ‘landatu’, *ama-ponteko* & *aita-ponteko*, *amona*, *antziar*, *attuna*, *babarrun*, *barru(n)*, *ebi*, *elbi*, *eskumin*, *esnatu*, *ganbara*, *garo*, *geiegi*, *itxoin*, *itzule*, *jai* ‘igandea’, *katagorri*, *(k)ostilleka*, *laban*, *lakari*, *lanbro* ‘langarra, euri xehea’, *lerde*, *mantal*, *masust*, *morroi*, *oando*, *odolki*, *osin*, *poxpolo*, *tanto*, *triku*, *txarro*, *txilar*, *tximist*, *urgun*, *zilbor* eta *zuatz*. Ale horietako batzuek beste batzuek baino hedadura zabalagoa dute; esate baterako, oso eremu murriztekoak dira *txarro* edota *urgun* hitzak, eta hedadura zabala dute, betiere Euskal Herriko erdiguneaz ari garela, *amona* edo *garo* hitzek. Gure eremuari dagokionez, zenbat eta mendebalerago egin, agerikoagoa da erdiguneko hizkeren isuria (Larraungo ipar-mendebala, Araitz-Betelu). Aldaketa gradualak da, ez bat-batekoa: zenbat eta ekialderago, orduan eta urriagoa da Gipuzkoa aldeko eta Euskal Herriko erdiguneko isuri hori.

Zazpi isoglosa gune finkatu ditugu, eta isoglosa horien guztien nortasuna edo garrantzia desberdina dela erakutsi. Ondorioa garbia da: jauzi lexikoa nabarmena da Atetz-Ultzamako hizkeratik Imozkora, Muskiztik Imozko gainerako herrietara, eta baita Goldaraztik Imozko gainerakoetara ere, baina jauzia ez da hain nabaria Imoztik Larrauna, Larraungo hego-ekialdetik

ipar-mendebalera, Larraundik Araitz-Betelura, eta Araitz-Betelutik Gipuzkoara. Arestiko eremu horietan, jauzia bada, baina apalagoa; isoglosak ahulagoak dira. Alegia, 8.6.1., 8.6.2. eta 8.6.3. ataletako ezaugarriek eremu zabalagoak banatzen dituzte (ikus, bestela, Nafarroako eremu zabalean eta are Ipar Euskal Herrian erabiltzen den lexikoaren zerrenda); Euskal Herria osorik hartuta, atal horietako item lexikoak esanguratsuagoak dira dialektologiaren ikuspegitik, gainerako ataletakoak baino.

Beraz, alde bateko zein besteko eraginak batzen dira gure azter-eremuan. Alde batetik, Euskal Herriko erdiguneko eta Gipuzkoako hizkeretan ere badiren zenbait ezaugarri badela ikusi dugu; Larraungo ipar-mendebaleko herrietan eta Araitz-Betelun, batik bat, baina baita Basaburu Nagusian eta Imotzen ere, hein txikiagoan betiere. Baina, beste alde batetik, gure eremuko hizkerek ekialderagoko, hegoalderagoko eta iparralderagoko bereizgarri asko dituzte; zenbaitetan, ezaugarri horien muga gure eremuan berean dagoela ikusi dugu, gainera. Ikusi dugu gure eremuko hizkerek (zeinek bere neurrian) Ipar Euskal Herriarekin, Nafarroako ekialdearekin (Atetz, Ultzama, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar, Aezkoa), ipar-ekialdearekin (Baztan, Malerreka, Bertizarana, Bortziriak), hegoalderagoko hizkerekin (Txulapain, Arakil, Sakanako erdialdea) edota hego-nafarrerarekin bat egiten dutela maiz. Baina eragin horiek ez dira modu berean gauzatzen herri edo hizkera guztietan: Araitz-Beteluk eta Larraunek (ipar-mendebaleko herriek batik bat) Gipuzkoatiko eragin nabarmenagoa dute gainerako hizkerek baino, eta Basaburu Nagusiak eta Imotzek, berriz, nabarmenago egiten dute Nafarroako beste eskualdeetarantz. Ekialde-mendebal norabidean eginez, beraz, garbia da hizkeren aldakortasuna. Aldakortasuna graduala da: ekialde, ipar-ekialde, hegoalde nahiz iparralderagoko isuria nabariagoa da Muskitzen, Imozko gainerako herrietan baino; Imotzen eta Basaburu Nagusian, Goldaritzen baino; Imotzen, Larraunen baino, eta abar. Halaber, Gipuzkoako eta Euskal Herriko erdiguneko mintzoetara lerratzea Araitz-Betelun da nabariena; Larraunen ere bada, baina neurri apalagoan; Imotzen ere bai, baina Larraunen baino urriago, eta abar.

Aldakortasun gradual horretan, giltzarri dira hizkera batetik besterako trantsizioa islatzen duten bost herri: Muskitzek nabarmen egiten du Atezko eta Ultzamako hizkerara, baina ez da osotara hangoa, Imotzen badauden baina Atetz-Ultzaman ez dauden ezaugarri asko ere bai baititu; Imotz ibarraren beste ertzean, Goldaratzek Larraungo hizkerarako trantsizioa erakusten du; Beruetek Basaburu Nagusiko eta Larraungo (eta Leitzako) hizkeren arteko zubi-lana egiten du;

Albiasuk Larraungo hego-ekialdetik ipar-mendebaleranzko bidea marrazten du; eta, azkenik, larraundarra den baina Araitz-Betelura nabarmen lerraturik dagoen Errazkin dugu.

Azkenik, aztergai dugun eremuan polimorfismo handia dagoela ondorioztatu dugu. Polimorfismo hori ibarrak osotasunean hartuta ikus daiteke, baina baita herriak edota hiztunak berak banaka hartuta ere. Alegia, hiztun berak *ermiarma* eta *armiarma* biak erabil ditzake solasaldi berean, edota *euzki* eta *iuzki*; eta, herri berean, gerta daiteke hiztun batek *kooldio* ahoskatzea eta beste batek, berriz, *gooldio* (horixe gertatu zaigu, esate baterako, Gartzaronen), eta abar. Areago, polimorfismo horren arrazoi nagusia fonologian dakusagu guk; batik bat Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraun ibarretan, bokal- eta kontsonante-mugimendu handia dago (ikus tesi honen 8.1. eta 8.2. atalak), eta horrek polimorfismora garamatza ezinbestean. Jakina, hizkera horiek guztiak Euskal Herriaren erdigunean egoteak ere eragin duke polimorfismo hori. Azterketa honetan, hitz eta aldaera bikote jakin batzuk eman ditugu, eta horien arabera banatu ditugu eskualde eta ibarrak, baina, aldi berean, hitz eta aldaera horien aldaera ugari dagoela ikusi dugu (ez kasu guztietan), eta guk zehatz-mehatz azaldu dugu herri bakoitzean zer bildu dugun.

9. DATUEN ANALISI DIALEKTOLOGIKOA

9.1. Gure eremuko ezaugarri banatzaileak eta ezaugarri bateratzaileak

Nafarroako ipar-mendebaleko lau ibarretako euskaran ageri diren ezaugarri nagusien berri eman dugu aurreko ataletan. Ondorio nagusia da ibarrotako euskara ez dela homogenea; batetik, badira ibarrak berak zatitzen dituzten ezaugarri banatzaileak, eta, bestetik, ibarretik ibarrera ere badira zenbait isoglosa. Badira, halaber, herri guztiak batzen dituzten ezaugarri bateratzaileak. Atal honetan, gure eremuan eta haren ingurumarian sumatu ditugun hizkuntza-eten nagusiak non diren azalduko dugu lehenik, aurreko ataletan emandako ezaugarrietatik abiatuta; ezaugarri banatzaileetan ezarriko dugu arreta, beraz. Ondoren, gure eremuko herri guztietan ageri diren ezaugarriei erreparatuko diegu —ezaugarri bateratzaileei, alegia—, eta ezaugarriok dialektologian duten garrantzia balioetsiko dugu. Gure eremua banatzen zein elkarrengana biltzen duten ezaugarrien antzintasuna eta hedadura aintzatetsiko dugu; alegia, berrikuntzak, hautuak eta ezaugarri zaharrak bereiziko ditugu, eta ezaugarriak hedaduraren arabera antolatuko ditugu eremuz eremu.

Atal honetatik kanpo utzi ditugu 8. atalean aipatu ditugun baina orain dugun helbururako garrantzirik ez duten zenbait ezaugarri: a) gure eremuan oso bakanka eta sistematikotasunik gabe ageri direlako —alegia, gure eremuan bete-beteko ezaugarriak ez direlako—, b) koherentzia geolinguistikorik ez dutelako —alegia, haien hedadura geografikoa gainerako ezaugarrienarekin bat ez datorrelako—, edota c) Euskal Herrian han-hemenka barreiaturik ageri direlako eta horrenbestez eremu gardenik eratzen ez dutelako. Hona baztertu ditugun ezaugarrien zerrenda:

1. Monoptongazioa (ikus 8.1.10.).
2. *-ee-* > *-ei-* bilakabidea (ikus 8.1.13.).
3. *o-u* > *u-u* eta *u-e* > *u-u* bilakabideak (ikus 8.1.14.).
4. Kontsonante sudurkariaren aurretik *o* > *u* bihurtzea: *unek*, *uneaño*, *ungi*, eta abar (ikus 8.1.14.).
5. Bokal-epentesiak eta -anaptixiak (ikus 8.1.17.).
6. Hitz hasieran herskari ahostunak edo ahoskabeak erabiltzea (ikus 8.2.8.).
7. Lehen graduko *ok* erakusle plurala (ikus 8.3.2.).
8. Hirugarren graduko *ube*, *obe* erakusleak (ikus 8.3.2.).
9. Hirugarren graduko erakusle singular deklinatua: *arrek*, *arrekin*, *arregana...* (ikus 8.3.2.).

10. Soziatiboko *-(a)ikin* morfema: *limonaikin* ‘limoiarekin’ (ikus 8.3.6.).
11. Ablatiboko *-tik* eta *-ti* morfemak (ikus 8.3.8.).
12. Motibatiboko *-gatik* eta *-gati* morfemak (ikus 8.3.9.).
13. Adlatiboko *-ara*, *-era* forma berranalizatuak (ikus 8.3.10.).
14. Balio semantikorik gabeko *-n* morfema (ikus 8.3.12.).
15. Muga-adlatibo kasuaren bi balioak (ikus 8.3.14.).
16. *-onem* > *-oin*: *arrazoña* (ikus 8.3.15.).
17. *-onem* > *-obe*: *arrazobe*, *arratobe* (ikus 8.3.15.).
18. *-kal* atzizkia: *etxekalin* (ikus 8.3.23.).
19. Bigarren pertsona pluraleko *zae* eta *zai* ‘zarete’ adizkiak absolutiboan (ikus 8.4.3.).
20. Bigarren pertsona pluraleko *-zui*, *-zii* morfemak ergatiboan eta datiboan: *dozui* & *dozii* ‘duzue’, *zaizui* & *zaizii* ‘zaizue’, eta abar (ikus 8.4.4.).
21. Bigarren pertsona pluraleko *-zuu* morfema ergatiboan eta datiboan: *duzuu* ‘duzue’, *zaizuu* ‘zaizue’, eta abar (ikus 8.4.4.).
22. Hirugarren pertsona pluraleko *-i* morfema ergatiboan: *dui* ‘dute’, eta abar (ikus 8.4.5.).
23. Hirugarren pertsona pluraleko *-u* morfema ergatiboan: *duu* ‘dute’, eta abar (ikus 8.4.5.).
24. *ziraion* ‘zitzaion’ gisako adizkiak (ikus 8.4.10.).
25. *zitzion* ‘zitzaion’ gisako adizkiak (ikus 8.4.10.).
26. *emaan* gisako formak geroaldian (ikus 8.4.12.).
27. *eonko* gisako formak geroaldian (ikus 8.4.12.).
28. Komunztadura-eza aditzean (ikus 8.4.14.).
29. Adizki trinkoen iraganeko *-ea-* (ikus 8.4.16.).
30. Aditzoinaren arrastoak (ikus 8.4.22.).

Ezaugarriok gure analisitik kanpo zergatik utzi ditugun azalduko dugu segidan. Askotarikoak dira arrazoiak, askotarikoak baitira ezaugarriak berak ere; gure eremuko ezaugarri banatzaileak dira haietako asko, baina ez dute baliorik analisi dialektologikoa gauzatzeko. Banan-banan aztertuko ditugu.

Lehenik, bada Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian hedadura zabala eta definitua duen ezaugarri bat: 1) kontsonante sudurkariaren aurretik *o* > *u* bihurtzea. Ipar Euskal Herria eta Nafarroa Garaiko ipar-ekialdea da bilakabide horren eremua; gure eremuaren mugetan den Basaburu Txikian ere

bada, eta adibide bakan batzuetan entzun dugu gure eremuan; Arraratsen, hain zuzen. Ezin esan dugu, beraz, gure eremuko bete-beteko ezaugarria denik; euskal dialektologian ezaugarri garrantzitsua da inolaz ere, baina sistematikotasunik gabeko ezaugarria da gure eremuan (tantaka ageri da nolabait), eta horregatik erabaki dugu analisitik kanpo uztea. Ezin ukatu dugu, ordea, ezaugarri horrek Basaburu Nagusiko iparraldeak Basaburu Txikitik jaso duen eragina agerian uzten duela.

Hedadura geografiko definitua dute, halaber, lau ezaugarri hauek: 1) *eonko* gisakoak, 2) aditzoinaren arrastoak, 3) *-kal* atzizkia, eta 4) *arrazoña*. Nafarroa Garaiko erdiguneko berrikuntza dira *eonko* gisako formak, eta gure eremuko ekialdeko herri batzuetan ere bildu ditugu lekukotasun bakan batzuk, baina ezin har ditzakegu gure eremuko ezaugarritzat, oso gutxitan agertzen baitira. Aditzoinaren erabilerari dagokionez, Euskal Herriko ekialdean iraun duen ezaugarri zaharra da; gure eremu osoan badira zenbait aztarna, baina ez da bete-beteko ezaugarria. *-kal* atzizkia, berriz, Nafarroa Garaiko ekialdean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ageri da gutxi gorabehera, eta Larraunen ere entzun dugu, baina oso-oso kasu gutxitan. Azkenik, Nafarroa Garaiko eta euskara nafar-lapurtarreko berrikuntza da *-onem* > *-oin* egitea, eta bilakabide horren ondoriozko adibide bat (*arrazoña*) entzun dugu gure eremuko Muskitzen, Itsason eta Orokietan, baina ez da atzizki emankorra inondik ere. Beraz, kasu honetan ere, eremu geografiko aski definitua eta hedatua duten lau ezaugarri topatu ditugu gure eremuko zenbait lekutan, baina lekukotasun sakabanatuak dira gure eremuan, sistematikotasunik gabeak, eta analisitik baztertuko ditugu horrenbestez; hizkeren arteko aspaldi bateko edo guztiz gauzatu gabeko harremanen zantzuak dira izatekotan, baina katea etena da ezaugarri horiei dagokienez.

Gipuzkoako iparraldeko eta Nafarroako iparraldeko zenbait hizkera biltzen ditu ezaugarri honek: 1) balio semantikorik gabeko *-n* morfema. Ezaugarri banatzailea da gure eremuan, baina haren hedadura geografikoa ez dator bat gainerako ezaugarrien hedadurarekin; deskribapenean aintzat hartu dugu, baina ez digu balio analisi dialektologiko orokorra egiteko, gainerako ezaugarrien ondoan jarrita ez baitu koherentzia geolinguistikorik. Ezaugarri hori baliatzen duten hizkerek mikroeremu bat osatzen dute (oro har, Nafarroako iparraldeko eta Gipuzkoako iparraldeko hizkera batzuk biltzen ditu ezaugarriak), baina ez dago soilik mikroeremu horretan erabiltzen den beste ezaugarririk; ez da ezaugarri esanguratsua, horrenbestez.

Analisitik kanpo utzi dugu, halaber, gure eremu osoan ageri den ezaugarri bat: 1) *ok* erakusle plurala. Erakusle horrek hedadura aski zabala du Nafarroan Garaian eta Nafarroa Beherean, eta Gipuzkoan ere bada; aski orokorra da, beraz.

Bestalde, badira Euskal Herrian han-hemen barreiatuak ageri diren lau ezaugarri: 1) *arrek* gisako erakusle deklinatuak, 2) ablatiboko *-tik* eta *-ti*, 3) motibatiboko *-gatik* eta *-gati*, eta 4) komunztadura-eza aditzean. Hala, gure eremu osoan ageri dira *arrek* erako erakusleak, baina Euskal Herrian han eta hemen barreiatuak ageri den ezaugarria da; ezin identifikatu dugu eremu geografikorik ezaugarri horren arabera. Ablatiborako eta motibatiborako eman ditugun atzizkiak ere (*-tik & -ti*, *-gatik & -gati*) Euskal Herrian han eta hemen ageri diren ezaugarriak dira, eta bietatik bildu dugu gure eremuan ere. Badirudi *-tik* eta *-gatik* berriagoak gero eta gehiago hedatzen ari direla bazter guztietan, baina, esan bezala, han eta hemen sakabanaturik ageri dira bietariko formak, eta ez dira, beraz, dialektologiako analisi batean aintzat hartzeko moduko ezaugarriak. Aditzaren komunztadura-ezari dagokionez, aspaldiko berrikuntza da, eta, Araitz-Betelun bezala, bada Euskal Herriko beste hainbat mintzotan ere, han eta hemen; ezaugarri horrek ez du, hortaz, balio handirik analisi dialektologikorako. Halaber, Nafarroa Garaian barreiatuak eta eremu gardenik osatu gabe ageri den ezaugarri bat ekarriko dugu hona, arestikoak baino eremu murrizagokoa: 1) soziatiboko *-aikin*. Gure eremuko zenbait herritan eta Nafarroako beste batzuetan ageri da, baina ez dago lotura geografikorik haien artean, eta analisitik kanpo utziko dugu ezaugarri hori ere horrenbestez.

Euskal Herrian barna hainbat hizkeratan barreiatuak ageri dira beste hiru ezaugarri hauek ere: 1) monoptongazioa, 2) *o-u > u-u* eta *u-e > u-u* bilakabideak, eta 3) bokal-epentesiak eta -anaptixiak. Bilakabide horien ondorioz sortutako zenbait adibide bildu dugu gure eremuan, baina ez dira arau sistematikoak, eta antzeko adibideak ageri dira beste hizkera askotan ere. *o-u > u-u* eta *u-e > u-u* bilakabideen kasuan, Gipuzkoako hizkeren oihartzuna sumatu dugu gure eremuaren mendebalean, baina oso adibide gutxi dira, eta ez da, beraz, bilakabide indartsua eta emankorra. Horregatik, analisitik kanpo utzi ditugu ezaugarri horiek ere.

Gure eremuko hizkerak deskribatzean, balio dialektologikorik ez duten bi ezaugarri aipatu ditugu: 1) hitz hasieran herskari ahostunak edo ahoskabeak erabiltzea, eta 2) muga-adlatibo kasuaren bi balioak. Gure hizkeretan ezaugarriok nolako agerpena duten argitu nahi izan dugu 8.

atalean, baina ezin hartu ditugu dialektologiako analisisia egiteko ezaugarritzat, ezin hartu baitira guztiz datu dialektaltzat.

Azkenik, herri bakar batean edo eremu txiki-txiki batean bildutako hamar ezaugarri baztertu ditugu: 1) *ube*, *obe* erakusleak (Berueten eta Betelun bilduak), 2) adlatiboko *-ara*, *-era* forma berranalizatuak (Larraungo eta Araitz-Beteluko herri batzuetan), 3) *arrazobe* eta *arratobe* (Arrar., Alb.), 4) *zae* eta *zai* adizki zaharrak (Larr. hego-ekialdeko herri batzuetan), 5) bigarren pertsona pluraleko *-zui*, *-zii* morfemak ergatiboan eta datiboan (Larr. hego-ekialdean), 6) bigarren pertsona pluraleko *-zuu* morfema ergatiboan eta datiboan (Beru.), 7) hirugarren pertsona pluraleko *-i* morfema ergatiboan (Larr. hego-ekialdean), 8) hirugarren pertsona pluraleko *-u* morfema ergatiboan (Beru.), 9) *ziraion* gisako adizkiak (Etxal.), eta 10) *zitzion* gisako forma berriak (Larr. eta Bas. Nag. iparraldean). Ezaugarri horien hedadura ez da bera, batzuek hedadura zabalxeagoa baitute beste batzuek baino, eta ez dira ia ageri inguruko beste hizkeretan; aski eksklusiboak dira, baina oso-oso eremu murrizta dute, eta ez ditugu analisisian aintzat hartuko. Nolanahi ere, esate baterako, Larraungo hego-ekialdeko herriek beren artean duten batasuna —fonologikoa, hein handi batean— irudikatzeke balioa badute *zae* eta *zai* adizkiek, eta *-zui*, *-zii*, *-i* aditz-morfemek.

Hedadura motza du, halaber, adizki trinkoen iraganeko *-ea-* erroak; Araitz-Betelun bildu dugu, eta, itxuraz zaharra den arren, ez dirudi ingurumari hurbilean erabiltzen denik. Azkenera dakartzagun bi ezaugarriak ere eremu murriztekoak dira; gure eremutik kanpo ere ezagunak dira inguruko zenbait hizkeretan, baina hedadura txikiko eta horrenbestez garrantzi apaleko ezaugarriak dira analisi dialektologikoa egiteko: 1) *-ee-* > *-ei-*, eta 2) *emaan* gisakoak.

Aitortu beharra dugu kasu batzuetan zail suertatu zaigula erabakitzea ezaugarri bat baztertu beharrekoa edo aintzat hartu beharrekoa ote den. Koherentziaz jokutzen ahalegindu gara, eta goragoko lerroetan azaldu dugu zer dela-eta erabaki dugun zenbait ezaugarri analisi dialektologikotik kanpo uztea. Kontrako egitekoa gelditzen zaigu orain; alegia, analisisirako aintzatetsi ditugun ezaugarrien berri ematea eta ezaugarriok analisisian sartu izana justifikatzea.

6.1. atalean hausnartu dugu dialektologia-lan bat egiteko aukeratu beharreko hizkuntza-ezaugarrien gainean, Zuazo eta Camino ikertzaileen ekarriari begira batez ere. Ezaugarrien antzinatasunaz, hedadura geografikoaz, sistematikotasunaz, eksklusibotasunaz eta emankortasunaz

jardun dugu atal horretan, eta ez ditugu ideia horiek berriz errepikatuko, baina gogorarazi nahi dugu berrikuntza sistematikoek izan behar dutela dialektologia-lan baten ardatza, eta halaxe jokatu nahi dugu guk ere. Nolanahi ere, gure eremuko hizkerak erdigunean kokaturik daudela gogoan hartuz, irizpideak zertxobait malgutu behar direla iruditzen zaigu, eta, oroz gain, koherentzia geolinguistikoa duten ezaugarriak aintzatetsi ditugu. Jakina, koherentzia geolinguistikoaz gain, beste baldintza batzuk ere kontuan hartu beharrekoak dira, hala nola arestian aipatu ditugun antzinatasuna, sistematikotasuna edota emankortasuna (ikus 6.1. atala).

Ezaugarriek eremu geografikoak osatzen dituzte, handiagoak edo txikiagoak, makroeremuak edo mikroeremuak; ezaugarri bakoitzak badu bere eremua, baina denek ez dute balio bera. Gure ustez, ezaugarri bat analisi dialektologiko batean esanguratsu da baldin eta beste ezaugarri batzuen ondoan jarriko koherentzia geolinguistikoa badu; alegia, eremu geografiko bera —eremu handiagoa edo txikiagoa— partekatzen duten ezaugarriak behar ditugu. Ezaugarri batzuek oso eremu gardenak osatzen dituzte: Ipar Euskal Herria, Hego Euskal Herria, ekialdea, mendebala, Nafarroa Garaia, Gipuzkoa, Euskal Herriko erdigune zabala, Nafarroa Garaiko alderdi bat, Gipuzkoako alderdi bat, eta abar. Halako eremu gardenak eratzen dituzten ezaugarriak aintzat hartzekoak dira zalantzarik gabe, betiere lanaren helburua zein den kontuan izanik, ez baita gauza bera Euskal Herri osoko hizkerak aztertuz lan egitea edo eremu jakin batean lan egitea. Alegia, Euskal Herri osoa edo eremu zabal bat aztertzea baldin bada helburua, eremu geografiko zabaleko ezaugarriekin lan egingo dugu; aitzitik, azertu beharreko eremua txikiagoa baldin bada, eremu geografiko txikiagoko ezaugarriak ere kontuan hartzekoak dira.

Beste ezaugarri batzuek, ordea, eremu nabarragoa izan ohi dute. Gorago esan dugu zilegi iruditzen zaigula han-hemen barreiatu ageri diren ezaugarriak baztertzea, ez baitute analisi dialektologikoa askorik laguntzen. Baina ezaugarri batzuek, itxura batean banaketa nabarra izanik ere, eremu linguistikoak finkatzen lagundu dezakete, beste ezaugarri batzuen ondoan jarriko koherentzia erakusten duten heinean. Gure eremuko ekialdeko herrietan ageri diren bi ezaugarri aipatuko ditugu adibidetako: 1) $-e + -a(k) > -ia(k)$, eta 2) mugatzailea ezkutatzea (ikus biak 8.1.2. atalean). Hain zuzen, biok ageri dira Euskal Herriko beste hizkera batzuetan, sakabanaturik, eta, alde horretatik begiraturik, ez lirateke esangura handiko ezaugarriak. Baina bi ezaugarriok banatzaileak dira gure eremuan; ekialdeko herrietan ageri dira —beste aukera batzuk baliatzen baitituzte mendebaleragokoek—, eta handik ekialdera eta hegoaldera hedatzen dira, jarraitutasunez

eta koherentziaz. Gainera, badakigu beste ezaugarri batzuek ere banaketa geografiko bera dutela (ikus 9.1.1.1.), eta, horregatik, zilegi deritzogu bi ezaugarri horiek ere aintzatesteari eremu hori —alegia, gure eremuaren ekialdea eta handik ekialderako eta hegoalderako zenbait hizkera biltzen dituen eremua— definitzeko.

Banaketa geografiko nabarra du, halaber, Muskitzen bildu dugun sozietiboko *-ki* atzizki zaharrak, Ipar Euskal Herriko hizkera batzuetan ere ageri baita, esate baterako (ikus 8.3.6.). Baina ezaugarri hori Muskitzen eta ondoko Atetzen, Ultzaman eta Txulapainen gorde izanak badu garrantzia, banaketa geografiko bera baitute beste ezaugarri batzuek ere, eta badu, horrenbestez, koherentzia geolinguistikoa; gainera, agerian gelditzen den beste gauza bat da *-ki* erabiltzen duten hizkerak ez daudela Euskal Herriko erdiguneari begira ezaugarri horri dagokionez, *-kin* hedatu baita erdigune horretan. Horregatik, betiere Euskal Herri osoa aintzat hartuz banaketa nabarreko ezaugarriak direla aitorturik, gure analisi dialektologikoan aintzatesteko moduko ezaugarritzat joko ditugu halakoak.

Beste kasu batzuetan, gerta daiteke ezaugarri bat eremu jakin batekoa izatea, baina haren erabileran aldea izatea alderdi batetik bestera, ingurune fonologikoaren arabera. Hala, Hego Euskal Herriko hainbat hizkeretan ageri da $a > e$ asimilazioa; leku guztietan ez du indar bera, eta ez dugu ingurune fonologiko beretan aurkituko hizkera guztietan. Gure eremu osoan bildu dugu bilakabide hori, baina ingurune fonologiko batzuetan ageri da ekialdeko herrietan, eta beste batzuetan, aldiz, mendebalekoetan (ikus 8.1.3.). Gure eremuaren ekialdean ageri den ingurune beretan ageri da, gainera, bilakabide hori ekialderagoko eta hegoalderagoko hizkeretan (Ultzama, Atetz, Anue, Odieta edota Txulapain); beraz, ezaugarria banatzailea da gure eremuan, eta ekialderagoko eta hegoalderagoko hizkerekin biltzen ditu gure eremuko ekialdeko herriak. Gorago ere esan dugunez, badugu ezaugarri sail bat eremu horretantxe ageri dena; beraz, ingurune fonologiko jakin batzuetan bilakabide hori agertzeak badu koherentzia geolinguistikoa gainerako ezaugarrien ondoan paraturik, nahiz berez zabalagoa izan $a > e$ bilakabidearen erabilera-eremua. Gogoan dugu, esate baterako, Bizkai aldean badirela gure eremuko ekialderako eman ditugun forma bertsuak, ezin ukatua da hori, baina bi eremuen arteko etena handia da, eta ez du zentzurik bi eremuon artean nolabaiteko interakzioa dagoela (edo egon dela) aldarrikatzeak; nolana ere, gure eremuan dakarren banaketari begira, iruditzen zaigu gure analisiari ez dakarkiola kalterik ezaugarri hori lanerako erabiltzeak.

Bilakabide beraz ari garela, batez ere Basaburu Nagusiko iparraldean, Goldaratzen, Larraunen eta Araitz-Betelun ingurune fonologiko jakin batzuetan ageri dela ikusi dugu 8.1.3. atalean. Ondorioz, forma berezi-bereziak sortu dira eremu horretan, handik kanpora hedadura urria dutenak, gainera. Mikroeremu horretan badira beste ezaugarri bereizgarri batzuk ere (ikus 9.1.1.4. eta 9.2.7.), eta ezaugarri horiekin batera jartzekoak iruditzen zaizkigu $a > e$ asimilazioaren ondorioz sortutako forma berezi horiek ere, koherentzia geolinguistikoaren ideia gogoan hartuz betiere.

Mikroeremuak osatzen dituzten zenbait ezaugarri ere aintzatesi dugu atal honetan, koherentzia geolinguistikoaren ideiare jarraituz. Hain zuzen, Nafarroa Garaiko alderdi batean ageri da bigarren pertsona pluraleko *-zte* morfema ergatiboa eta datiboa (*duzte, zaizte...*): Imotzen, Basaburu Nagusian, Gulibarren eta ekialdeko Arakilen. Egari zor, ez dago soilik eremu horretan erabiltzen den beste ezaugarririk, eta, balio semantikorik gabeko *-n* morfema baztertzeko erabili dugun irizpideari jarraituz (ikus gorago), baztertzekoa litzateke *-zte* morfema ere. Baina guk ez ditugu pare-parekotzat jotzen *-n* morfema eta *-zte* morfema; izan ere, ez dago soilik *-zte* morfemaren eremu geografikoan ageri den beste ezaugarririk, baina eremu horrek ezaugarri multzo handia partekatzen du, nahiz ez izan soilik eremu horretako ezaugarriak. Alegia, beste ezaugarri askotan (Nafarroa Garaiko ezaugarriak, Nafarroa Garaiko erdigunekoak...) bat egiten dute eremu horretako hizkerek, eta, horregatik, bidezkoa iruditzen zaigu *-zte* morfema ere aintzatestea, bai baitu koherentzia geolinguistikoa gainerako ezaugarriekin.

Bakanka agertzen diren ezaugarriak baztertu egin ditugula esan dugu gorago, baina bakanka agertuta ere sistematikotasuna baduten ezaugarriak aintzat hartuko ditugu, ordea. Esate baterako, euskaraz hitz gutxi batzuetan ageri da *-rtz-* kontsonante talde zaharra; gure eremuko ekialdean, *bertze, ertze, ortzegun* eta *ortzillera* aleak bildu ditugu (ikus xehetasunak 8.2.7. atalean). Ñabardurei erreparatuz, *bortz* falta da herri guztietan, eta Orokietan baizik ez dira erabiltzen *bertze* eta *ertze*, baina sistematikotasunez beti. Alegia, gure eremuko ekialdean, *-rtz-* ez da ageri dauden aukera guztietan, baina agertzen denetan sistematikotasunez ageri da. Gure eremutik ekialdera hedatzen da *-rtz-* ezaugarri zaharra, eta badira beste ezaugarri batzuk gure eremuko ekialdea ekialderagoko hizkerekin lotzen dutenak; bada, beraz, koherentzia geolinguistikoa, eta aintzat hartuko dugu, horrenbestez, *-rtz-* kontsonante taldea.

Azkenik, ohar bat egin nahi dugu nor-nork eta nor-nori-nork sailetako adizkiak nahasteari buruz (ikus 8.4.13.). Badakigu jakin gaur egungo euskaran maiz nahasten direla bi sailetako adizkiok (euskaldun berriei, esate baterako, neketsu suertatu ohi zaie *ikusi dizut / ikusi zaitut* bereiztea), baina, herri-hizkerei erreparatuz, iruditzen zaigu badela banaketa aski koherentea sailok nahasten dituztenen eta nahasten ez dituztenen artean. Badirudi azken mendean finkatutako aldaketa dela; gure eremuari dagokionez, nor-nori-nork saileko adizkiek guztiz ordezkatu dituzte nor-nork-ekoak Araitz-Betelu ez beste hiru ibarretan (salbuespena da Errazkin ere). Handik mendebalera, bi sailak ongi bereizten dituzte Gipuzkoako hizkeretan; Araitz-Betelura eta Errazkina, beraz, ez da iritsi Nafarroa Garai gehienez zabaldu den joera, eta jatorrizko bereizkuntzari eutsi diote, Gipuzkoan bezala. Gure ustez, Araitz-Betelun eta Errazkinen Gipuzkoako ereduak duten eraginaren isla da gertaera hori, eta horregatik aintzatetsi dugu gure azterketan.

Ezaugarriak baztertzeko eta aintzateste oinarritzko irizpideak azalduz, analisi dialektologikoari ekingo diogu. Gure eremuko ezaugarri banatzaileak eta bateratzaileak zein diren azalduko dugu lehenik.

9.1.1. Ezaugarri banatzaileak

9.1.1.1. Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdea, eta gainerako herriak elkarrengandik banatzen dituzten ezaugarriak

Ibarrak 1995ean aurreratu zigunez eta gerok geroztik berretsi dugunez (2007, 2008a, 2008b), Muskitz Imozko gainerako herrietatik bereiz ageri da zenbait ezaugarritan. Oro har, ondoko Atetz eta Ultzama ibarrekin eta baita handik ekialdera zein hegoaldera dauden hizkerek bat egiten du Muskizkoak, eta Imozko, Basaburu Nagusiko eta handik mendebaleragoko hizkeretatik saihesten da horrenbestez. Zenbaitetan, Muskitzekin batera doaz Oskotz eta Etxaleku imoztar herriak, eta baita Basaburu Nagusiko Erbiti, Gartzaron eta Orokieta ere. Ildo horretatik, Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdea eta eremuko gainerako herriak bereizten dituzten ezaugarrien berri emango dugu atal honetan (alegia, Etxaleku-Gartzaron lerroaren bi aldeak bereiziko ditugu). Ezaugarri guztiok ez dute denek garrantzi bera, ezta hedadura geografiko bera ere; aurrerago balioetsiko dugu ezaugarri bakoitzaren pisua, baina ezaugarrien zerrenda dakargu lehenik. Hala, gure eremuaren ekialdea hogeita bat ezaugarritan urruntzen da gainerako herrietatik (gehi hitz eta aldaera lexikoak, bereiz aztertu baititugu 8.6.2. atalean)³⁶⁹:

³⁶⁹ Zenbaitetan, aipatutako ezaugarria ez da ageri gure eremuaren ekialde osoan; parentesi artean adierazi dugu zehazki non ageri den ezaugarri bakoitza (parentesirik erantsi ez dugunean, eremuaren ekialde osoari dagokion ezaugarria

1. Bokal geminatu gutxiago ageri da, bokal arteko kontsonanteak egonkorragoak diren heinean eta azentuera desberdina erabiltzen duten heinean, ez baitituzte singularra eta plurala bereizten ez azentuaren ez bokal luze/soilen arabera.
2. $-e + -a > -ia(k)$.
3. Mugatzailea ezkutatzea: *soldaduek* (Mus.) / *soldaduk* (Gain.).
4. $a > e$ asimilazioa, honako ingurune hauetan: a) konpletiboko $-(e)la > -le$ (Mus.), b) *eta > te* juntagailua (Mus.), eta c) morfema barnean, aditzetan batez ere.
5. $e > a$ bokal-irekitze urriagoa (Mus.). Zenbait adibide eremu osora hedatu dira (*asarre*, *baztar*, *izardi*), baina beste zenbait ez dira Muskitza iritsi, baina bai eremuko gainerako herrietara: *musker* / *muskar*, *izter* / *iztar*, *maizter* / *maiztar*, *puzker* / *puzkarra*. Gainera, $a > e$ asimilazioaren ondorioz, kontrako bilakabidea ageri da adibide hauetan Muskitzen: *bizer* / *bizar*, *bizker* / *bizkar*, *iller* / *illar*, *illergi* / *illargi*, *inder* / *indar*, *izer* / *izar*, *muxer* / *muxar*, *uzterri* / *uztarri*, *ziller* / *zillar*.
6. $-tuko > -tiko$ palatalizazioa (Mus.): *artiko* ‘hartuko’, *allatiko* ‘ailegatuko’, *kendiko* ‘kenduko’, eta abar.
7. $-tuar$, $-duar > -tiar$, $-diar$ palatalizazioa: *arti ar* ‘hartu behar’, *eskati ar* ‘eskatu behar’, *kendi ar* ‘kendu behar’, eta abar.
8. $-e-nd-u- > -au-$ disimilazioa: *ittau* ‘egiten dugu’, *ibiltzaute* ‘ibiltzen dute’, *pastauzu* ‘pasatzen duzu’, eta abar.
9. Goranzko diptongoak: [ea] & [ja], [je], [oa], [jo], [ju] eta [we].
10. Sinkopa eta aferesia gainerako herrietan baino bizkorxeagoak dira: *atra* ‘atera’, *bedratzi* ‘bederatzi’, *karri* ‘ekarri’, *kusi* ‘ikusi’, eta abar.
11. Asimilaziozko palatalizazioa urriagoa da kontsonanteetan: *aite* ‘aita’, *zerbait ee* ‘zerbait ere’, eta abar.
12. [j] ebakera (Bas. Nag. iparraldea eta Mus.): *yakin* / *jakin*.
13. Bokal arteko kontsonanteak egonkorragoak dira.
14. $-rtz-$ kontsonante talde zaharraren arrastoak: *bertze*, *ertze*, *ortzegun*, *ortziller(i)a*.
15. Deklinabidean, singularraren eta pluralaren arteko sinkretismoa → ekialdeko azentuera.
16. Soziatiboko $-ki$ morfema (Mus.): *elurreki* / *elurrekin*.

dela eman nahi izan dugu aditzera).

17. Ablatibo pluraleko eta mugagabeko *-taik* morfema (Im. ekialdea): *amar euntaik / amar euntatik*.
18. Bigarren pertsona pluraleko *-zie* morfema ergatiboan eta datiboan (Mus.): *duzie* ‘duzue’, *dizie* ‘dizue’.
19. NORI saileko *-ki-* erroa iraganean (Mus.): *zaikiden* ‘zitzaidan’, *zaikion* ‘zitzaion’, *zaikizun* ‘zitzaizun’, eta abar.
20. *dire & ziren / dee & zeen* ‘dira, ziren’ adizkiak.
21. *-ki* aditz-atzizkia.
22. Hitz eta aldaera lexiko multzoa (ikus 8.6.2.).

Lehenik, gure eremuaren ekialdera iritsi diren eta eremuko gainerako herrietara iritsi ez diren berrikuntzei erreparatuko diegu. Hala, batetik, Nafarroa Garaiko erdigunean sortutako bi berrikuntza ageri dira gure eremuaren ekialdean, Muskitzen batez ere: 1) $u > i$ palatalizazioaren ondorioz sortutako *-tuko > -tiko* bilakabidea, eta 2) *-e-nd-u- > -au-* disimilazioa. Bestetik, gure eremutik ekialdera (Aezkoako mugaraino, gutxi gorabehera) eta batzuetan hegoaldera (Gulibar, Txulapain) ere badiren hiru berrikuntza ditugu: 1) *-ea(k) > -ia(k)*, 2) $a > e$ asimilazioa ingurune jakin batzuetan (*bizker* eta halako formak barne)³⁷⁰, eta 3) $u > i$ palatalizazioaren ondorioz sortutako *-tuar > -tiar* bilakabidea. Gure eremuaren ekialdean ageri dira, halaber, goranzko diptongoak; nafarreraren zenbait hizkeratan ageri den berrikuntza da. Azkenik, Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko zenbait hizkeratako hiru berrikuntza ditugu: 1) bigarren pertsona pluraleko *-zie* morfema ergatiboan eta datiboan, 2) sinkopa eta aferesia, nahiz gure eremuaren ekialdean ezaugarri ahulak diren beste eskualde batzuekin alderatuta, eta 3) euskara nafarrean eta nafar-lapurtarrean ageri den *-ki* aditz-atzizkia. Eremuko gainerako herrietan ageri ez diren bederatzi berrikuntza identifikatu ditugu, beraz, gure eremuaren ekialdean, eta Nafarroa Garaia, Nafarroa Garaiko alderdi bat (erdigunea), edota Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herriaren zati bat dira berrikuntzon eremua.

Bigarrenik, gure eremuko gainerako herrietara iritsi diren zenbait berrikuntza ez da gure eremuaren ekialdera iritsi, edo oso ahul iritsi da, edo bilakabidea ahultzen hasten da han. Berrikuntzok ez dira gure eremutik ekialdera ageri, oro har. Hala, Euskal Herriko erdigunetik gure eremura hedatutako zortzi berrikuntzatan, bereiz ageri zaizkigu gure eremuko ekialdeko herriak: 1)

³⁷⁰ Hego Euskal Herriko ezaugarria da $a > e$ asimilazioa, eta Muskitzerako eman ditugun ingurune fonologikoetan ere ageri da beste eremu batzuetan (Bizkai aldean, esate baterako); baina, inguru hurbileko hizkerak aintzat hartuz, Muskitz ekialderagoko eta hegoalderagoko hizkerekin lotzeko baliagarri zaigu ezaugarri hori, ingurune foniko horietan ez baitute asimilaziorik egiten Muskitzen mendebaleko eta iparraldeko mugetan.

bokal arteko kontsonanteak galtzearen ondorioz sortutako bokal geminatuak, 2) mugatzailea ezkutatzea, 3) $e > a$ bokal-irekitzea, 4) asimilaziozko palatalizazioa, 5) [x] ebakera, 6) bokal arteko kontsonante igurzkariak galtzeko joera, 7) *-st-* kontsonante taldea, eta 8) ablatibo pluraleko eta mugagabeko *-tatic* morfema. Zortzi ezaugarriok hedadura zabalzea dute mendebalerantz, Bizkairaino iristeraino. Alegia, forma zaharragoek iraun dute, oro har, gure eremuaren ekialdean (horren erakusgarri garbia dira [j] ebakera, *-rtz-* kontsonante taldea edota *-taik* morfema).

Bestalde, Muskitza ez dira iritsi Nafarroa Garaiko erdigunean sortuak diruditen *dee* eta *zeen* adizki berriak.

Beraz, arestiko bederatzi berrikuntza horiek ez dira gure eremuko ekialdeko herrietara iritsi, baina bai, ordea, gainerako herrietara; berrikuntza negatiboak dira gure eremuaren ekialdean (alegia, berritu ez diren ezaugarriak). Hasierako zortziak dira garrantzitsuenak dialektologiaren ikuspegitik, zera erakusten baitute: gure eremuaren ekialdera ez dira iritsi mendebaleragoko zenbait berrikuntza, ekialderagoko aukerek iraun baitute.

Ez dugu ahaztu nahi ekialdeko azentuera erabiltzen dela gure eremuaren ekialdean, eta bestelako ereduak ageri direla gainerako herrietan, Euskal Herriko erdialdeko hurbilagokoak. Bi azentuera-ereduon ezberdintasun nagusia da ekialdean azentuerak ez duela balio bereizlerik, eta bai, aitzitik, erdialdeko ereduetan.

Azkenik, itxuraz arkaismoa den *-ki-* erroa ageri da Muskitzen iraganeko NORI adizkietan, gure eremuko gainerako herrietan ez bezala. Ezaugarri zaharra da, halaber, Muskitzen gorde duten *-ki* soziatiboko morfema; Muskitz Nafarroako erdiguneko hainbat hizkerarekin lotzeko eta Euskal Herriko erdigune zabaletik saihesteko balio du ezaugarri horrek. Bi ezaugarriotan, beraz, gordetzaile ageri zaigu Muskitz, eta Nafarroako erdiguneko hizkerekin bat egiten du, gainera.

9.1.1.2. Ekialdeko ibarrak (Imotz eta Basaburu Nagusia) eta mendebaleko ibarrak (Larraun eta Araitz-Betelu) elkarrengandik banatzen dituzten ezaugarriak

Gure eremuko ekialdeko ibarrak eta mendebalekoak elkarrengandik bereiz ageri dira ezaugarri sorta honetan. Ezaugarri morfologikoak dira batik bat, eta denek ez dute ez garrantzi bera ez hedadura bera ere. Oro har, Euskal Herriko erdigunetik hedadutako ezaugarri zenbait iritsi dira

Larrauna eta Araitz-Betelura, eta ekialderagoko hizkeren joerarekin bat eginik ageri zaizkigu, aldiz, Imotz eta Basaburu Nagusia. Gainera, Nafarroa Garaian hedatutako zenbait berrikuntza bada Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan, baina ez Larraunen eta Araitz-Betelun. Zenbait kasutan, mendebaleko herriekin batera doaz Imozko Goldaratz eta Basaburu Nagusiko Beruete, eta, beste kasu batzuetan, Imotz eta Basaburu Nagusia ibarrei loturik ageri zaizkigu Larraungo hego-ekialdeko herriak. Hogeita bederatzia ezaugarri aipatuko ditugu (gehi hitz eta aldaera lexikoak, 8.6. atalean aztertu baititugu):

1. Hitz hasierako *oa-* > *goa-* / *oa-*: *goatze* / *oatze*, *goartu* / *oartu*, *goain* / *oain*.
2. Hiatoa hausteko [g] epentesia: *oligoa* / *olioa*, *arregoa* / *arreo*, eta abar.
3. *d* > *r* kontsonante-aldaketa: *bide* / *bire*, *auda* / *auro*, *lodi* / *lori*, eta abar.
4. *-nt-* / *-nd-* kontsonante taldeak: *emanta* / *emanda*, *inta* / *inda*, eta abar.
5. *ore* & *ue* / *ue* ‘hura’ hirugarren graduko erakusle singularra.
6. *oketan* / *otan* gisako erakusle plural deklinatuak.
7. Instrumentaleko *-s* / *-z* morfemak: *oñes* / *oñez*, *telefonos* / *telefonoz*, eta abar.
8. Destinatiboko *-tako* & *-tzat* / *-tzat* morfemak: *amaandako* & *amaantzat* / *amaantzat*.
9. Adlatiboaren gainean eraikitako *onata* / *onutza* gisako erakusleak.
10. *-tto* / *-txo* atzizki txikigarriak: *zulotto* / *zulotxo*, *gurutzetto* / *gurutzetxo*, eta abar.
11. Galdetzaileak: “nor” / “zein”.
12. Partizipioa eratzeko morfemak: *-rik* gailen / *-ta* gailen.
13. Lehen pertsona singularreko *-da* (> *-de*, *-e*) / *-t* morfemak datiboan: *zai(d)e* / *zait*.
14. Bigarren pertsona singularreko *y-* / *Ø-* morfemak: *yaiz* / *aiz*.
15. Bigarren pertsona pluraleko *-zte* / *-zui*, *-zii* & *-zue* morfemak ergatiboan eta datiboan³⁷¹: *duzte* / *duzui* & *duzue*, *zaizte* / *zaizui* & *zaizue*.
16. Hirugarren pertsona pluraleko *-te* / *-e* morfemak ergatiboan eta datiboan: *dute* / *dui* & *due*, *zaiote* / *zayi* & *zaie*.
17. *ttute*, *zittuten* / *ttui* & *ttue*, *zittuin* & *zittuen* adizkiak.
18. Nor-nori-nork saileko *-it-* / *-zki-* pluralgileak: *ttiot* / *dazkiot*.
19. Geroaldiko *-en* / *-go* morfemak: *emain* / *emango*.
20. “Joan” aditzaren forma trinkoak singularrean: *n(o)aie* / *nii* & *noa*.
21. “Joan” aditzaren forma trinkoak pluralean: *goazi* / *goaz*.

³⁷¹ Gogoan izan *-zie* morfema ageri dela Muskitzen (ikus aurreko atala).

22. “Egon” aditzaren forma trinkoak: *daude, gaude, zaude / dai, gai, zai*.
23. “Egon” aditzaren iraganeko adizkiak: *neon, zeon / negoan, zegoan*.
24. “Eduki” aditzaren forma trinkoak: *daukit / dauket*.
25. Kausa-perpausetako morfema: *-lakos / -lako*.
26. Denbora-perpausetako morfema: *-larik (& -nean) / -nean*.
27. “Uste + *-en & -ela*” / “Uste + *-ela*” egiturak.
28. Nominalizazioak: “Utzi + *-tzea*” / “Utzi + *-tzen*”.
29. “Nola zaio (izena)?” / “Nola du izena?” egiturak.
30. Hitz eta aldaera lexiko multzoa (ikus, batez ere, 8.6.4.).

Gure eremuko ekialdeko ibarrak eta mendebalekoak elkarrengandik bereizten dituzten hogeita bederatzia ezaugarrien artean (gehi ezaugarri lexikoak, bereiz aztertu baititugu 8.6. atalean) badira hainbat berrikuntza, eta horrixerregarri diogu lehen-lehenik. Imotzen eta Basaburu Nagusian, bada Nafarroa Garaiko erdiguneko berrikuntza sail bat (nahiz guztion hedadura ez den bera), Larrauna eta Araitz-Betelura iritsi ez dena, nahiz Larraungo hego-ekialdeko herrietan ere badiren ezaugarri horietako batzuk. Zazpi berrikuntza dira: 1) hitz hasierako *oa-* > *goa-*, 2) hiatuetako [g] epentesia, 3) *ore* erakuslea, 4) *oketan* gisako formak (Baztan ondoko Ipar Euskal Herriko herri batzuetara ere iritsi dira), 5) instrumentaleko *-s* morfema, 6) nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea, eta 7) *daukit* gisako adizki trinkoak. Zalantzarik gabe, zazpi berrikuntzon artean bada aldea garrantziari dagokionez; esate baterako, nafarreraren ezaugarritzat jotzen dira nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea eta instrumentaleko *-s* morfema, eta eremu txikiagora hedatu da, aldiz, [g] epentesia (ezaugarri hori ahula da, gainera, gure eremuan, bai Nafarroako gainerako hizkerekin alderatuz gero behinik behin). Hurrengo atalean mintzatuko gara sakonago halako kontuez (ikus 10. atala).

Nafarroako eremu txikiagora zabaldu da, bestalde, Imotzen eta Basaburu Nagusian ageri den aditz-morfema bat: bigarren pertsona pluraleko *-zte* ergatiboan eta datiboan³⁷².

Nafarroa Garaian eremu zabalagoa harrapatzen dute beste hiru berrikuntza hauek: 1) partizipioetako *-nt-* kontsonante taldea, 2) bigarren pertsona singularreko *y-* morfema, eta 3) *n(o)aie* gisako adizki trinkoak singularrean. Hirurok ageri dira, hain zuzen, Imotzen eta Basaburu Nagusian (*y-* morfema Larraungo hego-ekialdean ere bada, gainera). Nafarroa Garaian ez ezik, Ipar Euskal

³⁷² Gipuzkoako zenbait tokitan (iparraldean, batik bat) ere bada *-zute*, baina bilakabide beregainak direlakoan gaude (ikus 8.4.4.).

Herrian ere bada Imotzen eta Basaburu Nagusian ageri den ezaugarri berri bat: 1) *goazi* erako adizki trinkoak pluralean.

Aldiz, Larraunen eta Araitz-Betelun badira ekialdeko ibarretan ageri ez diren zenbait berrikuntza, Gipuzkoatik edota Euskal Herriko erdiguneko hizkeretatik hedatuak: 1) $d > r$ kontsonante-aldaketa, 2) *zein* galdetzailearen nagusitasuna, eta 3) “nola du izena?” egitura. Alabaina, gaur egungo mintzoan ez da emankorra $d > r$ bilakabidea; eta “nola du izena?” egitura ezaguna da Imotzen eta Basaburu Nagusian ere (Euskal Herriko hainbat tokitan ageri da, gainera).

Aditz-morfema berri bat bada Imotzen eta Basaburu Nagusian, Euskal Herriko erdigune zabalean ageri dena: 1) hirugarren pertsona pluraleko *-te* ergatiboa eta datiboa. Larraunen eta Araitz-Betelun, aldiz, morfema zaharragoak iraun du (*-e*).

Berrikuntzen zerrenda amaitzeko, bada eremu murrizteko berrikuntza bat gure eremuaren mendebalean: 1) *dai* gisako adizki trinkoak.

Berrikuntzez gain, bada gure eremua bitan zatitzen duen hautu sorta bat; halakoetan, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa Garaiko hautuarekin bat egiten dute Imotzek eta Basaburu Nagusiak, eta Euskal Herriko mendebalarekin eta erdigunearekin, berriz, Larraunek eta Araitz-Beteluk. Zazpi hautu ditugu: 1) destinatiboko *-tako* / *-tzat* morfemak³⁷³, 2) *onata* / *onutza* gisako erakusleak, 3) *-tto* / *-txo* atzizki txikigarriak, 4) partizipioko *-rik* / *-ta* morfemak, 5) geroaldiko *-en* / *-go* morfemak, 6) “*uste + -en*” / “*uste + -ela*” egiturak, eta 7) “*utzi + -tzea*” / “*utzi + -tzen*” egiturak. Ohar gisa, kontuan hartzekoa da Imotzen eta Basaburu Nagusian ere badela destinatiboko *-tzat* morfema, eta ezaguna da, halaber, “*uste + -ela*” egitura. Bestalde, Euskal Herria bitan zatitzen duten beste bi ezaugarriren berri eman beharrean gara, gure eremua ere bitan zatitzen baitute: 1) kausa-perpausetako *-lakos* / *-lako* morfemak, eta 2) denbora-perpausetako *-larik* (& *-nean*) / *-nean* perpausak. Hain zuzen, *-lakos* eta *-larik* (& *-nean*) daude Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta *-lako* eta *-nean* Larraunen eta Araitz-Betelun.

Azkenik, ezaugarri zaharrei erreparatuz, batetik, Imotzen eta Basaburu Nagusian bada Nafarroa Garaiko erdigunean iraun duen ezaugarri bat: lehen pertsona singularreko *-da* (> *-de*, *-re*,

³⁷³ Euskal Herriko mendebalean ere bada *-tako*; zaharra da, beraz, baina *-tzat* ere aski zaharra da, aspaldiko testu zaharretan ageri baita, eta, hortaz, zilegi da bi morfemok hautuak direla pentsatzea (cf. 8.3.7.).

-e) morfema datiboan. Nafarroa Garaiko erdigunekoak dira, halaber, *(di)ttute* eta *zittuten* adizkiak (*ditue* eta *zituen* baino berriagoak dira, baina *dituzte* eta *zituzten* baino zaharragoak, itxuraz); gure eremuko ekialdeko ibarretan ageri da —alegia, Imotzen eta Basaburu Nagusian—. Bestetik, Euskal Herriko mendebaleko testu zaharretan aspalditik ageri den ezaugarri bat ageri da gure eremuaren mendebalean: *negoan* eta *zegoan* adizki trinkoak.

9.1.1.3. Araitz-Betelu eta gainerako herriak elkarrengandik banatzen dituzten ezaugarriak

Gipuzkoako mugara iritsi aurreko azken ibar nafarra dugu Araitz-Betelu. Ez dago hizkuntza-jauzi handirik Larraundik Araitz-Betelura; aski bereizgarria da Larraungo fonologia, baina morfologia-kontuetan batera doaz, oro har, bi ibarrok. Nolanahi ere, zenbait ezaugarritan gainerako herrietatik bereiz ageri zaigu Araitz-Betelu, eta hari loturik ageri da maiz Errazkin larraundar herria. Hamaika ezaugarri aipatuko ditugu³⁷⁴:

1. *f > p* kontsonante-aldaketa.
2. Motibatiboko *-gatio* / *-gati(k)* morfemak.
3. *-onem > -oi* / *-ore*, *-ure*: *arratoi*, *arrazoi* / *arratore*, *arrazore*.
4. *-ka* / *-kan* modu-atzizkiak: *bueltaka* / *bueltakan*, eta abar.
5. *-n bat* / *-on bat* egiturak: *bakarren bat* / *bakarron bat*, eta abar.
6. Aditzondo errepikatuen deklinabidea: mugagabea edo partitiboa / absolutiboa.
7. *zat* / *zait* (& *zai(d)e*).
8. Nor-nori-nork eta nor-nork sailak bereiztea / nahastea: *ezautzen zattot* / *izautzen dizot*.
9. Zenbait adizki pleonastiko iraganen: *ziozun* / *ziñion*.
10. *zaku* / *zaiu* ‘zaigu’ eta *zitzakun* / *zitzaiun* ‘zitzaigun’ erako adizkiak.
11. Hitz eta aldaera lexiko multzoa (ikus 8.6.6.).

Lexikoko ezaugarriak alde batera utzita, gainerako ezaugarrien garrantzia neurtzen saiatuko gara. Batetik, berrikuntzei erreparaturik, Araitz-Betelun badira Gipuzkoan eta oro har Euskal Herriko erdigunean sortuak diren zenbait berrikuntza: 1) *f > p* kontsonante-aldaketa, 2) motibatiboko *-gatio* morfema, 3) *zat* gisako formak, eta 4) iraganeko adizki pleonastikoak. Ohar gaitezen adizki jakin batzuetara mugaturik daudela *zat* gisako formak; alegia, ez dutela

³⁷⁴ Araitz-Beteluri dagokio ezkerreko jarritako ezaugarria, eta gainerako eremuari, berriz, eskuinera jarritakoa.

emankortasun handirik. Horrez gain, $f > p$ bada eremuko gainerako ibarretan ere, baina ahulago betiere; gaur egun ez da batere ezaugarri emankorra, baina Araitz-Betelun Gipuzkoako formek izan duten garrantziaren erakusgarri da.

Bestetik, badira Nafarroa Garaiko erdigunean sortutako bi berrikuntza, Araitz-Betelura iritsi ez direnak, baina gure eremuko gainerako hiru ibarretan ageri direnak: 1) *-kan* modu-atzizkia, eta 2) *-on bat* egitura. Bi ezaugarri hedadura geografikoari dagokionez, eremu zabalagoa hartzen du *-kan* atzizkiak *-on bat* egiturak baino, baina Nafarroako erdigunetsuan ageri dira biak ere. Ez dakigu zehazki zein den *arratore* eta *arrazore* formen hedadura, baina badira Nafarroa Garaiko hainbat lekutan (Imoztik Eugiraino); Araitz-Betelun, mendebaleko eta erdialdeko hizkera askotan bezala, *arratoi* eta *arrazoi* erabiltzen dituzte³⁷⁵.

Gainerako berrikuntzei dagokionez, Hego Euskal Herrian hedadura handia du nor-nori-nork eta nor-nork sailak nahasteko joerak, baina Araitz-Betelun oraindik ere jatorrizko bereizkuntzari eusten diotela ikusi dugu.

Ezaugarri hautatuetan, partitiboa eta mugagabea ageri dira nagusiki Araitz-Betelun aditzondo errepikatuetan, mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan bezala, nahiz badiren absolutiboaren aztarna batzuk; gure eremuko beste hiru ibarretan, berriz, absolutiboa ageri da.

Ezaugarri zaharrei dagokionez, Gipuzkoako kutsua dute *zaku* eta *zitzakun* forma datiboek; hango testu zaharretan ageri dira, baina gaur egun ez dira ia erabiltzen. Araitz-Betelura hango arrastoa iritsi da, beraz.

Atal honen osagarri, azken urteotan Araitz-Betelun sartzen ari diren zenbait ezaugarri aipatu nahi ditugu. Gazteen eskutik heldu da aldaketa; aldaketa-prozesua bukatu gabea da artean ere, baina zenbait helduk eta adinekok ere baliatzen dituzte segituan aipatuko ditugun zenbait ezaugarri, eta horregatik dakartzagu atal honetara. Kontuan izan behar dugu, nolana ere, ezin esan daitekeela Araitz-Beteluko euskararen ezaugarriak direnik; aldakortasun-giroa sumatzen da, baina zikloa ez da amaitu³⁷⁶. Sei ezaugarri dira:

³⁷⁵ Gogoan dugu Euskal Herriko mendebalean badirela *-oe* eta *-oa* ere.

³⁷⁶ Ezaugarri horiek berak aipatu genituen gure eremuko lau ibarretako euskararen gainean argitaratutako artikulu batean (2008b), batez ere gazte batzuen mintzoaren ezaugarri zirela ohartarazirik; Zuazo ikertzaileak, baina, Araitz-Beteluko hizkeraren ezaugarritzat jo ditu guk aipatutako ezaugarriok (2008), eta jokabide ausartegia deritzogu,

1. *ondo / ongi, obeto / obeki* aditzondoak.
2. “Izan” aditzaren *-e- / -a-* erroak: *gea / gaa, zea / zaa, zeate / zaate*.
3. “Edun” aditzaren *-e- / -u-* (> *-o*) erroak: *det / dot, dezu / dozo*, eta abar.
4. Iraganeko adizkietako *zend- / ziñ-*, *gend- / giñ-*: *zendun / ziñun, gendun / giñun*, eta abar.
5. “Joan” aditzaren forma trinkoak: *nijoa / nii & nie*, eta abar.
6. “Etorri” aditzaren forma trinkoak: *nator / eldu naiz*.

Gipuzkoan sortutako berrikuntzak dira sei ezaugarri horietatik hiru: 1) “izan”-en *-e-* erroa, 2) “edun”-en *-e-* erroa, eta 3) “joan”-en *nijoa, dijoa* eta *dijoaz* adizki trinkoak. Batez ere Euskal Herriko mendebalean eta erdigunean erabiltzen dituzte *ondo* eta *obeto* hautuak, baina forma horiek badute sarbidea Araitz-Betelun ere. Gainera, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko berrikuntza ditugu *eldu naiz* erako formak; gure eremu osoan ageri dira halakoak, baina berrikuntza horren ordeztan *nator* erakoak erabiltzen dituzte Araitz-Beteluko zenbait hiztunek³⁷⁷. Azkenik, Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko ezaugarritzat jo daitezke *ziñ-* eta *giñ-* duten adizkiak, eta Gipuzkoa eta Bizkai aldekotzat, aldiz, *zend-* eta *gend-* dutenak.

9.1.1.4. Basaburu Nagusiko iparraldea, Larraungo hego-ekialdea eta Araitz-Betelu gainerako herrietatik banatzen dituzten ezaugarriak

Batez ere fonologian, ezaugarri bereziak ageri dira Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraungo hego-ekialdean eta Araitz-Betelun. Atal honetara bildu ditugun ezaugarriak eremu murriztekoak dira, eta hedadura txikia dute gure eremutik kanpo; Nafarroa Garaiko mendebaleko ezaugarritzat har daitezke, nahiz guztion hedadura geografikoa eta indarra ez den bera herri guztietan. Nolanahi ere, gure eremuko ezaugarri dira, eta kolore berezia eransten diote hango mintzoari. Zenbaitetan, ezaugarri oihartzuna sumatu dugu Goldaratzen, Basaburu Nagusiko gainerako herrietan eta Larraungo ipar-mendebalean ere, baina gorago aipatutako eremuan dira betiere bizkorren. Zortzi ezaugarri aipatuko ditugu:

ezaugarriok berriki sartuak baitira Araitz-Betelura (eta ez dituzte gazte guztiek erabiltzen, gainera), eta ezin esan daiteke —momentuz, behinik behin—, beraz, besteak ordezkatu dituztenik, hiztun gehienek besteak erabiltzen baitituzte gaur egun. Besterik da etorkizunean zer gertatuko den, baina ezin aurre hartu diogu gertatzeko dagoenari edo gertatzeko dagokeenari (cf. 5.2.2.).

³⁷⁷ Gogoan har 8.4.21. atalean bukaera aldera egindako oharra.

1. Izenari mugatzailea eranstean sortzen diren bokal-asimilazioak: *-ii & -ee, -ii eta -uu*.
2. *a > e* asimilazioa, zenbait ingurunetan: a) *mendee* erakoak, b) *azare et* erakoak, eta c) *besti et* erakoak.
3. *u > o* bokal-irekitzea.
4. *i > e* bokal-irekitzea.
5. Diptongo eta hiatoetako bilakabideak: *eu > iu, eo > io* eta *ea > ia*.
6. Singularra eta plurala bereiztea: a) bokal luzeen eta bokal soilen arabera, eta b) azentueraren arabera (erdialdeko azentuera).
7. “Joan” aditzaren forma trinkoak: *nii & nie* ‘noa’, *dii & die* ‘doa’, eta abar.
8. “Egon” aditzaren forma trinkoak (pluralean): *gai* ‘gaude’, *zai* ‘zaude’, *dai* ‘daude’.

Eremu murrizteko berrikuntzak dira ezaugarri horietatik gehienak: 1) *-ee, -ii eta -uu* bokal-asimilazioak (Araitz-Betelun ez), 2) ingurune jakin batzuetako *a > e* asimilazioa, 3) *eu > iu, eo > io* eta *ea > ia*, 4) *nii* saila, eta 5) *gai* saila. Ezaugarri horiek ez dira gure eremuko eksklusiboak; inguru hurbileko zenbait hizkeratan ere ageri dira, baina hedadura txikia dute nolnahi ere (esate baterako, gure eremuan eta Sakanan ageri dira *eu > iu, eo > io* eta *ea > ia* bilakabideak). Bestalde, Nafarroa Garaiko mendebalean hedadura gehixeago dute bi berrikuntza hauek: 1) *u > o* bokal-irekitzea, eta 2) *i > e* bokal-irekitzea. Azkenik, erdialdeko azentueraren barnean sailkatzen da eremu horretako azentuera-eredua (singularra eta plurala bereizteko ahalmena du).

9.1.2. Ezaugarri bateratzaileak

Badira gure eremuko lau ibarretako herri guztietan ageri diren ezaugarriak, eta ezaugarri horiei erreparatuko diegu, hain zuzen, atal honetan. Pentsatzekoa denez, ezaugarri guztion hedadura geografikoa ez da bera, baina hedadura zabaleko ezaugarriak dira oro har, gure eremutik kanpo ere erabiltzen direnak; ez dago, beraz, soilik gure lau ibarretan erabiltzen den ezaugarri eksklusiborik. Hogei ezaugarri ikusiko ditugu:

1. *a > e* asimilazioa.
2. Asimilaziozko palatalizazioa kontsonanteetan.
3. *neone* saileko izenordain indartuak.
4. Ergatibo pluraleko *-ak* morfema.
5. Prolatiboko *-tako* morfema.

6. Erdal maileguetako *-on* > *-on*: *balona, melona, marrona*, eta abar.
7. *-gi, -ki* modu-atzizkiak: *ongi, obeki*.
8. Berezko *-a*-ren egonkortasun-eza.
9. Bigarren pertsona pluraleko *-te* morfema absolutiboa: *zaate* ‘zarete’.
10. “Izan” aditzaren *-a*- erroa: *gaa, zaa, zaate*.
11. “Edun” aditzaren *-u*- erroa (> *-o*-): *dut & dot, duzu & dozo*, eta abar.
12. Iraganeko adizkietako *ziñ-* eta *giñ-*: *ziñun, giñun*, eta abar.
13. “Ibili” aditzaren adizki trinkoen forma berranalizatuak orainaldian: *naalle, daalle*, eta abar.
14. “Heldu + izan” egitura: *eldu naiz* ‘nator’.
15. Partizipio analogikoak.
16. “Egin” aditz-indartzailea.
17. *-enik* ezezko perpausetan.
18. *bait-* partikulaz osatutako kausa- eta erlatibo-perpausak.
19. *Al* galdera-partikula.
20. “Ezin + aditz nagusia + aditz laguntzailea” hurrenkera.

Lehenik eta behin, berrikuntzei erreparatuko diegu. Hala, badira Euskal Herriko erdigune zabalean erabiltzen diren zenbait berrikuntza: 1) asimilaziozko palatalizazioa (ikus 9.1.1.1. ataleko oharrak), 2) *neone* saileko izenordain indartuak, 3) bigarren pertsona pluraleko *-te* morfema absolutiboa, eta 4) partizipio analogikoak. Euskal Herriko erdigunean baina eremu murrizagoan sortuak dira, halaber, batetik, *al* galdera-partikula, nahiz ez den oso-oso erabilia Imotzen eta Basaburu Nagusian, eta, bestetik, berezko *-a* galtzea, gure eremu osoan bildu duguna baina ez, aitzitik, beste hizkera batzuetan bezainbesteko maiztasunez. Euskal Herriko erdiguneko eta mendebaleko berrikuntzak dira “egin” aditz-indartzailea eta ezezko perpausetako *-enik* morfema, kontuan izanik aditz nagusiaren aurretik ere joan daitekeela “egin” gure eremuan eta Nafarroa Garaiko beste hainbat lekutan (*itten da lertu* gisakoak). Hego Euskal Herriko zenbait hizkeratan ageri da, aldiz, berrikuntza hau: 1) *a* > *e* asimilazioa (ikus 9.1.1.1. eta 9.1.1.4. ataletako oharrak).

Bestalde, euskara nafarraren berrikuntza bat ageri da gure eremuko lau ibarretan: 1) *-on* > *-ona*. Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko berrikuntzat har daitezke bi ezaugarri hauek: 1) “ibili” aditzaren forma trinko berranalizatuak (*naalle, daalle...*), eta 2) “heldu + izan” egitura.

Ezaugarri hautatuei dagokienez, Euskal Herriko mendebalean, erdigunean eta Nafarroako mendebalean ohi denez, *-ak* morfema erabiltzen da gure eremuan ergatibo pluralean, eta Anue aldean hasten da *-ek* agertzen; badirudi, ordea, azken bi mendeetan gailendu zaiola *-ak* morfema *-ek* morfemari. Badira, bestalde, Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko hizkeretan ohikoak diren hiru ezaugarri: 1) prolatiboko *-tako* morfema, 2) *-gi*, *-ki* modu-atzizkiak, eta 3) iraganeko *ziñ-* eta *giñ-* (ikus 9.1.1.3. ataleko oharra).

Ezaugarri zaharrak ere badira gure eremuan; beste euskalki batzuetan berriro dituzten ezaugarriak dira, baina era zaharrek iraun dute gure eremuan: 1) “izan” aditzaren *-a-* erroa (ikus 9.1.1.3. ataleko oharra), 2) “edun” aditzaren *-u-* erroa (ikus 9.1.1.3. ataleko oharra), 3) erlatibozko eta kausazko *bait-* perpausak, eta 4) “ezin + aditz nagusia + aditz laguntzailea” hurrenkera. Ezaugarriok ohikoak dira gaur egun Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian³⁷⁸.

9.2. Gure eremuko ezaugarriak hedadura geografikoaren arabera antolatuz

Lanean zehar, garrantzi handia eman diogu gure eremuko hizkeretan agertzen diren ezaugarrien hedadura geografikoari; alegia, uneoro saiatu gara argitzen ezaugarriok zein hedadura duten espazioan, ezaugarriok noraino iristen diren edo nondik etorriak diren.

Atal honetan, zenbait taula osatu ditugu gure eremuan ageri diren ezaugarriekin; ezaugarriak hedadura geografikoa aintzat hartuz multzokatu ditugu, eta haietako bakoitza gure eremuko zein ibarretan ageri den eta zeinetan ez adierazi dugu. Zortzi multzo osatu ditugu guztira:

- Euskara nafarraren ezaugarriak
- Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarriak
- Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko ezaugarriak
- Euskal Herriko erdiguneko eta mendebaleko ezaugarriak
- Euskal Herriko erdigune zabaleko ezaugarriak
- Euskal Herriko erdiguneko eremu murrizteko ezaugarriak

³⁷⁸ Zuberoan gutxienez bada “ezin + aditz nagusia + aditz laguntzailea” hurrenkera, XIX. eta XX. mendeetan (ikus 8.5.9.).

- Nafarroa Garaiko mendebaleko ezaugarriak
- Beste ezaugarri batzuk

Analisitik kanpo utzi ditugu 9.1. atalaren sarreran adierazitako ezaugarriak, deus gutxi laguntzen baitute euskal hizkeren sailkapen orokorrari eta, azken batean, gure eremuko hizkeren sailkapenari begira.

9.2.1. Euskara nafarraren ezaugarriak

Euskara nafarraren ezaugarri bereizgarritzat jotzen direnak badira gure eremuan, baina bada aldea ibar batetik bestera. Bost ezaugarri ikusiko ditugu:

	Imotz	Basaburu Nag.	Larraun	Araitz-Betelu
Instrumentaleko -s	Bai	Bai	Bai (ipar-mendebalean, -z-rekin batera)	Ez
Erdal -on > -ona	Bai	Bai	Bai	Bai
2. pertsona singularreko y-	Bai	Bai	Hego-ekialdean	Ez
Nor-nori-nork saileko -it- pluralgilea	Bai	Bai	Hego-ekialdean	Ez
noaie ‘noa’, goaie ‘hoa’ eta doaie ‘doa’ singularreko adizkiak	Bai (salbu Goldaratzen)	Bai (salbu iparraldean)	Ez	Ez

Berrikuntzak dira bost ezaugarriok, eta nafarreraren ezaugarri definitzaile eta eksklusibotzat jotzen dira, nahiz guztion eremua ez den bera. Esate baterako, Nafarroako iparraldeko herrietan (Bidasoaldean), instrumentaleko -s morfema falta da, eta nor-nori-nork saileko -it- pluralgilea Irun-Hondarribia alderaino hedatu da. Nolanahi ere, Nafarroan sortuak dira bost ezaugarriok, eta euskara nafarraren hizkera ia guztietara zabaldu dira.

Gure eremuari dagokionez, nafarreraren bost berrikuntzak ageri dira Imotzen eta Basaburu Nagusian; salbuespen dira Goldaratz eta Basaburu Nagusiko iparraldeko herriak, “joan”-en forma trinkoetan *nii*, *yii* eta *dii* singularreko adizkiak erabiltzen baitira, nahiz *noaie*, *goaie* eta *doaie*

formak guztiz ezezagunak ere ez diren. Larraunen, berriz, ez dago *noaie* erakorik; gainerako lau ezaugarriak bai, ordea, baina gauzak aldatzen hasten dira ipar-mendebaleko herrietan. Hala, han dagoeneko ez dituzte erabiltzen ez instrumentaleko -s (aztarnak badiren arren), ez bigarren pertsona singularreko *y-* morfema, ez nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea. Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun, beraz, bost ezaugarri nafar eskusiboetatik bakarra ageri da: erdal *-on > -ona*.

9.2.2. Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarriak

Euskara nafarraren baitan, baina, dena ez da bat. Bonapartek berak sei azpieuskalki bereizi zituen iparraldeko goi-nafarreran (ikus 7.1.), eta gaur egungo ikertzaile nagusiek ere azpieuskalkitan banaturik dakusate nafarrera. Hala, lau azpieuskalki bereizi ditu Zuazok (2008: 97-98): erdigunekoa (Muskitz, Ultzama, Atetz, Anue eta Odieta), ipar-sartaldekoa (Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Goizueta, Beintza-Labaien eta Saldias), sortaldekoa (Esteribar eta Erroibar) eta hego-sartaldekoa (Arakil eta Sakanako erdialdea). Bestalde, trantsizio-hizkeratzat jo ditu Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi, Aezkoa eta Burunda. Nafarroako hizkeren nolakotasunean sakondu nahian, gaurgero itzaliak diren hainbat hizkera nafar aztertu ditu Caminok, eta, besteak beste, erdiguneko azpieuskalkiaren mugak zehatzago paratu ditu (2003a: 149-152): Ultzama, Atetz, Anue, Lantz, Odieta, Txulapain, Gulibar, Arakil³⁷⁹ eta Itza ibarrek osatzen dute erdiguneko azpieuskalkia, haren arabera³⁸⁰.

Atal honetan, euskara nafarraren erdiguneko azpieuskalkian ageri diren zenbait ezaugarriak erreparatuko diogu. Izan ere, lanean zehar ikusi dugunez, gure eremuan badira alderdi horretako hainbat ezaugarri, Imotzen eta Basaburu Nagusian batik bat. Guztion hedadura eta garrantzia ez da bera, baina Nafarroako erdigunea da haien eremua, eta ezaugarriok gure eremuan zein neurritaraino ageri diren balioetsiko dugu. Hamalau ezaugarri zenbatu ditugu:

³⁷⁹ Zuazok Sakanako erdialdearekin batera paratu du Arakil, baina Caminok erakutsi du egokiago dela Arakil nafarreraren erdiguneko azpieuskalkia osatzen duten hizkerekin paratzea (ikus Camino 2005a eta 2006).

³⁸⁰ Zenbait hizkera ez daude aski dokumentaturik, eta ezin kokatu ditugu ziurtasun osoz azpieuskalki jakin batean; Ezkabarte, Olaiibar eta Antsoain ibarrez edota Iruñerriaz ari gara.

	Imotz	Basaburu Nag.	Larraun	Araitz-Betelu
<i>u > i</i>	Ekialdean	Ez (Erbitin, bakan)	Ez	Ez
<i>oa- > goa-</i>	Bai	Bai	Urriago	Are urriago
<i>-e(nd)u- > -au-</i>	Ekialdean	Ekialdean	Ez	Ez
[g] epentesia	Ahul	Ahul	Ahulago	Are ahulago
<i>ore erakuslea</i>	Bai (salbu Gol.)	Ekialdean	Ez	Ez
<i>oketan gisakoak</i>	Bai	Bai (salbu iparraldean)	Ez	Ez
<i>-ore eta -ure: arrazore & arrazure, arratore & arrature</i>	Bai	Bai	Bai (salbu Errazkinen)	Ez
<i>-kan modu-atzizkia</i>	Bai	Bai	Bai	Ez
<i>-on bat</i>	Bai	Bai	Bai	Urri
1. pertsona singularreko -da	Bai	Bai	Ez (salbuespenak salbuespen)	Ez
<i>ttute eta zittuten</i>	Bai	Bai	Ez	Ez
Nori saileko -ki- erroa iraganean	Muskitzen eta Oskotzen	Ez	Ez	Ez
<i>daukit</i>	Bai	Bai (salbu Beru.)	Hego-ekialdean	Ez
<i>dee eta zeen</i>	Bai (salbu Mus.)	Bai	Bai	Bai

Gorago aurreratu dugunez, ekialdetik mendebalera goazen heinean, nafarreraren erdiguneko ezaugarrien kopurua eta indarra apalduz doaz. Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan ageri da ezaugarri kopuru handiena, Muskitzen batik bat. Hala, gainerako herrietan falta diren hiru ezaugarri ageri dira eremu horretan: 1) *u > i*, 2) *-e(nd)u- > -au-*, eta 3) nori saileko *-ki-* erroa iraganean (Mus.). Berrikuntzak dira hiru ezaugarrietatik bi, eta arkaismoa dirudi *-ki-* erroak (garrantzi apalagoa du horrenbestez ezaugarri horrek). Kontrako joera erakutsi du gure eremuak, aldiz, *dee* eta *zeen* erako adizkietan; izan ere, Nafarroako erdigunekotzat jo daitezkeen forma horiek ageri dira Muskitz ez beste herri guztietan.

Honako sei ezaugarri hauek, berriz, Imotz eta Basaburu Nagusi osoan ageri dira, eta ez dira ageri edo oso ahulak dira Larraunen eta Araitz-Betelun: 1) *oa-* > *goa-*, 2) [g] epentesia, 3) *ore* erakuslea, 4) *oketan* gisakoak, 5) lehen pertsona singularreko *-da*, eta 6) *ttute* eta *zittuten* adizkiak. Hain zuzen, berrikuntzak dira *-da* morfema eta *ttute* eta *zittuten* adizkiak ez beste ezaugarri guztiak, eta Nafarroako erdigunea da beren eremua, baina ezaugarri bakoitza banaka aztertzea da: esate baterako, Nafarroako erdigunetik kanpo ere badira *goa-* duten adibideak eta *oketan* erako formak. Nolanahi ere, multzo berera ekarri ditugu guztiok, hedadura idurixea duten heinean eta Nafarroako erdigunean sortuak diruditen heinean. Bestalde, [g] epentesia duten zenbait adibide bildu ditugu Imotzen eta Basaburu Nagusian, baina bilakabidea ez da beste hizkera batzuetan bezain indartsua (Ultzaman, esate baterako, askoz hedatuago dago). Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretara, beraz, Nafarroako erdiguneko hainbat ezaugarri berri iritsi dira, eta bi ezaugarri gorde dituzte hango hizkerekin batera.

Badira Araitz-Betelu ez beste hiru ibarretan ageri diren hiru ezaugarri: 1) *daukit* saila (Larr. ipar-mendebalean ez), 2) *-kan* atzizkia, eta 3) *-on bat* egitura. Ezaugarrian hedadurak iradokitzen duenez, Nafarroako erdiguneko berrikuntzak dira hirurak, eta badute garrantzia, beraz. Bestalde, Nafarroako erdiguneko hizkera batzuetan ageri dira *-ore* eta *-ure* bukaera berriak (Imoztik hasita Eugiraino), eta gure eremuko Errazkinaino iristen da ezaugarria (salbuespen da Araitz-Betelu, beraz).

Beraz, Araitz-Beteluko da Nafarroako erdiguneko ezaugarri kopuru txikiena bildu duen hizkera (nahiz batzuetan ezaugarri batzuen oihartzuna sumatu dugun: *oa-* > *goa-*, [g] epentesia, *-on bat* egitura); Larraungoa dator ondoren; eta Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdera iritsi da ezaugarri kopuru handiena. Ezaugarrietako gehienak Nafarroako erdigunean sortutako berrikuntzak dira, eta garrantzitsuak dira, horratik, dialektologikoki.

9.2.3. Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko ezaugarriak

Bada ezaugarri sail bat Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria alde batera, eta gainerako hizkerak beste batera ezartzen dituen. Ezaugarrian eremua ez da bera kasu guztietan; zenbaitetan, ez dira ageri Nafarroa osoan, eta, beste zenbaitetan, ezta Ipar Euskal Herri osoan ere. Nolanahi ere, oro har mintzaturik esan daiteke Euskal Herria bitan banatzen dutela. Gure eremua Euskal Herriaren erdigunean egonik, espero izatekoa da alde bateko zein besteko ezaugarriak agertzea; batzuetan,

gainera, gure eremua zatitzen dute ezaugarriok.

Atal honetan, Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko hogeita bost ezaugarri ikusiko ditugu, eta gure eremuko zein ibarretan ageri diren azalduko dugu. Ikusiko dugunez, Imotzen eta Basaburu Nagusian dago eremu horretako ezaugarri kopuru handiena.

	Imotz	Basaburu Nag.	Larraun	Araitz-Betelu
Sinkopa eta aferesia	Batez ere ekialdean	Batez ere ekialdean	Ez	Ez
[j] ebakera	Muskitzen	Bai (salbu hegoaldean)	Ez	Ez
-rtz-kontsonante taldea	Ekialdean	Ekialdean	Ez	Ez
Ekialdeko azentuera (+ singularraren eta pluralaren arteko sinkretismoa)	Muskitzen	Ez	Ez	Ez
onata gisako erakusleak	Bai	Bai	Ez	Ez
Destinatiboko -tako	-tzat-ekin batera	-tzat-ekin batera	Ez	Ez
Ablatibo pluraleko eta mugagabeko -ta(r)ik	Ekialdean	Ez	Ez	Ez
Prolatiboko -tako	Bai	Bai	Bai	Bai
-rik partizipioa gailen	Bai (baina -ta ere bada)	Bai (baina -ta ere bada)	Ez	Ez
-tto atzizki txikigarria	Bai	Bai	Urri	Ez
Aditzondo errepikatueta absolutiboa erabiltzea	Bai (mugagabearekin eta partitiboarekin batera)	Bai (mugagabearekin eta partitiboarekin batera)	Bai (mugagabearekin eta partitiboarekin batera)	Ez (salbuespenak salbuespen)
-gi, -ki modu-	Bai	Bai	Bai	Bai

atzizkiak: <i>ongi</i> , <i>obeki</i>				(azkenaldian, baita <i>ondo</i> eta <i>obeto</i> ere)
2. pertsona pluraleko -zie	Muskitzen	Ez	Ez	Ez
“Edun”-en <i>-u-</i> erroa	Bai	Bai	Bai	Bai (azkenaldian, baita <i>-e-</i> ere)
Geroaldiko -en	Bai	Bai	Hego-ekialdean	Ez
<i>ziñ-</i> eta <i>giñ-</i> iraganean	Bai	Bai	Bai	Bai (azkenaldian, baita <i>zend-</i> eta <i>gend-</i> ere)
<i>goazi</i> ‘goaz’, <i>zoazi</i> ‘zoaz’ eta <i>doazi</i> ‘doaz’ pluraleko adizkiak	Bai	Bai	Ez	Ez
<i>naalle</i> ‘noa’ saila	Bai	Bai	Bai	Bai
“Heldu + izan”	Bai	Bai	Bai	Bai
<i>-ki</i> aditz- atzizkia	Ez (salbu Etxal.)	Ekialdean	Ez	Ez
Kausazko -lakos	Bai	Bai	Hego-ekialdean	Ez
Denborazko -larik	Bai (salbu Gol.)	Bai (salbu Beru. eta Ig.)	Ez	Ez
“Uste + <i>-en</i> ”	<i>-ela</i> -rekin batera	<i>-ela</i> -rekin batera (salbu Beru., <i>-ela</i> baitago han)	Ez	Ez
Kausazko eta erlatibozko <i>bait-</i>	Bai	Bai	Bai	Bai
“Ezin + ad. nag. + ad. lag.”	Bai	Bai	Bai	Bai

Ekialdetik mendebalera osatuko dugu ibilbidea. Hala, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa Garaiko zazpi ezaugarri ageri dira Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdean: 1) sinkopa eta aferesia, 2) [j] ebakera, 3) *-rtz-* kontsonante taldea, 4) ekialdeko azentuera, 5) ablatibo pluraleko eta mugagabeko *-tarik* (Im. ekialdean), 6) bigarren pertsona pluraleko *-zie* morfema (Mus.), eta 7) *-ki* aditz-atzizkia. Kontuan izan, hala ere, sinkopa eta aferesia ez direla adibide askotara hedatu gure

eremuan, eta *-rtz-* hitz bakan batzuetan baizik ez dela ageri. Zazpi ezaugarriotatik hiru, gainera, ezaugarri zaharrak dira ([j] ebakera, *-rtz-* kontsonante taldea eta *-tarik* morfema): ezaugarriok gure eremuaren ekialdean iraun dute, Nafarroako erdiguneko gainerako hizkeretan bezala, eta ezaugarri berriagoak hartu dituzte, aitzitik, gure eremuko gainerako herrietan. Azentuerari dagokionez, eremuko gainerako herrietan ez bezala, gure eremuko ekialdeko herriek ekialdeko azentuera baliatzen dutela esan dugu; azentuera-eredu horrek ez du balio bereizlerik, ez baitituzte deklinabideko singularra eta plurala bereizten azentuaren arabera.

Mendebalerantz eginez, Imotz eta Basaburu Nagusi osoan ageri dira zerrendako zazpi ezaugarri: 1) *onata* gisakoak, 2) destinatiboko *-tako* (& *-tzat*), 3) partizipioetako *-rik* gailen, 4) *-tto* atzizki txikigarria, 5) *goazi*, *zoazi* eta *doazi* pluraleko adizkiak, 6) denbora-perpausetako *-larik* (salbu Gol., Beru. eta Ig.), eta 7) “uste + *-en*” (& “uste + *-ela*”). Haututzat har daitezke ezaugarri horietako gehienak; salbuespena da *goazi* saila, berrikuntza baita. Larraunen eta Araitz-Betelun, Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaleko aukerak nagusitu dira; gure eremua bitan zatiturik ageri da, beraz, ezaugarri sorta horretan.

Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean ageri dira bi ezaugarri hauek: 1) geroaldiko *-en*, eta 2) kausa-perpausetako *-lakos*. Larraun osoan ere erabiltzen da ezaugarri hau: 1) aditzondo errepikatueta absolutiboa erabiltzea. Araitz-Betelun, ordea, Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaleko aukerak nagusitu dira (alegia, *-go*, *-lako* eta aditzondo errepikatueta mugagabea edo partitiboa erabiltzea).

Azkenik, eremuko lau ibarretan erabiltzen dira zortzi ezaugarri hauek: 1) prolatiboko *-tako*, 2) *ongi* eta *obeki*, 3) “edun”-en *-u-* erroa, 4) iraganeko *ziñ-* eta *giñ-*, 5) *naalle* saila, 6) “heldu + izan”, 7) erlatibozko eta kausazko *bait-*, eta 8) “ezin + aditz nagusia + aditz laguntzailea”. Ezaugarrien garrantzia ez da bera, ordea: hautuak dira haietako gehienak, baina berrikuntzak dira *naalle* saila eta “heldu + izan” egitura, eta ezaugarri zaharrak, berriz, *bait-* perpausak eta “ezin + aditz nagusia + aditz laguntzailea” hurrenkera.

Bestalde, gogoan izan behar da, 9.1.1.3. atalean ere aipatu dugunez, azken urteotan Gipuzkoako zenbait ezaugarri zabaltzen ari dela Araitz-Betelun, nahiz aldaketa guztiz gauzatu gabea den oraindik: 1) *ondo* eta *obeto*, 2) “edun”-en *-e-* erroa, 3) iraganeko *zend-* eta *gend-*, eta 4)

9.2.4. Euskal Herriko erdiguneko eta mendebaleko ezaugarriak

Aurreko atalari loturik ulertu behar da honako atal hau. Izan ere, Euskal Herria bitan zatitzen dute zerrenda honetako ezaugarriek ere: erdigunea eta mendebala ditugu batetik, eta Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria, bestetik. Ezaugarriei erdigunetik eta mendebaletik begiratuko diegu, ordea, oraingoan. Hautuak dira zerrenda honetara dakartzagun ezaugarri asko; horregatik, aurreko atalean errepikaturik aurkituko ditugu, baina, arestian esan bezala, erdigunetik eta mendebaletik begiratuko diegu atal honetan. Badira, halaber, berrikuntza zenbait, eta baita gordetako ezaugarriren bat ere. Azken batean, Euskal Herriko erdiguneko eta mendebaleko ezaugarriak gure eremuan zein neurritan ageri diren neurtu nahi dugu atal honetan. Hona hamazazpi ezaugarriak:

	Imotz	Basaburu Nag.	Larraun	Araitz-Betelu
<i>e > a</i>	Bai (Muskitzen, urriago)	Bai	Bai	Bai
<i>-st-</i>	Bai (salbu ekialdean)	Bai (salbu ekialdean)	Bai	Bai
Ergatibo pluraleko -ak	Bai	Bai	Bai	Bai
Ablatibo pluraleko eta mugagabeko -tatic	Bai (salbu ekialdean; han, -tatic)	Bai	Bai	Bai
onutza gisako erakusleak	Ez	Ez	Bai	Bai
-txo atzizki txikigarria	Ez	Ez	Urri	Bai
-ta partizipioa gailen	Ez	Ez	Bai	Bai
Aditzondo errepikatueta partitiboa eta mugagabea erabiltzea	Bai (absolutiboarekin batera)	Bai (absolutiboarekin batera)	Bai (absolutiboarekin batera)	Bai
<i>ondo, obeto</i>	Ez	Ez	Ez	Azkenaldian
<i>zend- eta gend-</i>	Ez	Ez	Ez	Azkenaldian

³⁸¹ Gogoan har 8.4.21. atalaren bukaeran egindako oharra.

iraganean				
Geroaldiko -go	Ez	Ez	Ipar-mendebalean	Bai
negoan ‘nengoen’ eta zegoan ‘zegoen’	Ez	Ez (salbu Beru.)	Bai	Bai
nator saila	Ez	Ez	Ez	Azkenaldian
“egin” aditz-indartzailea	Bai	Bai	Bai	Bai
“Uste + -ela”	-en-ekin batera	-en-ekin batera (salbu Beru., -ela baitago han)	Bai	Bai
-enik	Bai	Bai	Bai	Bai
“utzi, eman + inesiboa”	Ez	Iparraldean	Ipar-mendebalean	Bai

Gure eremu osoan ageri diren ezaugarriak erreparatuko diegu lehenik. Euskal Herriko erdigunean eta mendebalean ageri diren lau berrikuntza badira gure eremuan: 1) $e > a$, 2) ergatibo pluraleko *-ak*, 3) “egin” aditz-indartzailea, eta 4) *-enik*. Hondarreko bi ezaugarriak dira esanguratsuenak; $e > a$ bilakabidea aski ahul ageri baita gure eremuan, ekialdeko herrietan batez ere, eta ergatibo pluraleko *-ak* aski zabalduz baitago euskara nafarrean ere (Anuetik ekialdera hasten da trantsizioa). Gogoan izan aurreko ataletan “egin” aditz-indartzaileaz esan duguna, eskualdetik eskualdera bai baita aldea haren erabileran.

Ia eremu osoan ageri dira, halaber, lau ezaugarri hauek, salbuespen baitira ekialdeko herriak: 1) *-st-* kontsonante taldea, 2) ablatibo pluraleko eta mugagabeko *-tatik*, 3) aditzondo errepikatuetan partitiboa eta mugagabea erabiltzea (Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo ipar-mendebalean, absolutiboa ere ageri da), eta 4) “uste + -ela” (Imotzen eta Basaburu Nagusian, *-en* ere ageri da). Ezaugarri horiei begira, badirudi Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko aukerak atzera egiten ari direla gure eremuan, nahiz oraindik orain eremu horretako ezaugarriak eusten dieten Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan.

Imotz eta Basaburu Nagusia alde batera, eta Larraun eta Arantz-Betelu beste batera paratzen dituzten ezaugarriak ikusiko ditugu orain. Hiru ezaugarri dira: 1) *onutza* gisakoak, 2) *-ta* partizipioa gailen, 3) *negoan* eta *zegoan*. Euskal Herria bitan zatitzen duten hautuak dira arestiko lehen bi

ezaugarriak, eta Gipuzkoako zein Bizkaiko testu zaharretan maiz ageri diren adizkiak dira, ordea, *negoan* eta *zegoan*. Adizki horiek Larraunen eta Araitz-Betelun iraun dute, eta Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaleko hizkeren oihartzuna dakusagu hor, baina ezaugarri zaharrak dira, Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaleko hizkera askotan berrituak dituztenak, gainera.

Araitz-Betelun ageri da Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaleko ezaugarri kopuru handiena. Hiru haututan, Larraungo ipar-mendebala ere hari loturik ageri zaigu, eta, horrenbestez, Euskal Herriko erdialdeari eta mendebalari loturik: 1) *-txo* atzizki txikigarria, 2) geroaldiko *-go*, eta 3) “utzi, eman + inesiboa”. Aurreko atalean esan bezala, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko aukerak ageri dira, aldiz, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean (alegia, *-tto*, *-en* eta “utzi, eman + adlatiboa/absolutiboa”).

Azkenik, azkenaldian Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaleko hiru ezaugarri hedatu dira Araitz-Beteluko hizkerara, nahiz ez diren bete-beteko ezaugarriak hango hizkeran: 1) *ondo* eta *obeto*, 2) *zend-* eta *gend-*, eta 3) *nator* saila³⁸².

9.2.5. Euskal Herriko erdigune zabaleko ezaugarriak

Multzo honetara dakartzagun ezaugarriak Euskal Herriko erdigune zabalean ageri dira, eta bete-betean harrapatzen dute gure eremua; zenbaitetan, baina, gure eremuan bertan dago ezaugarrioren muga, eta gure eremua banatu ere egiten dute ezaugarriok kasu batzuetan. Guztion hedadura geografikoa ez da bera; gutxi gorabehera, Lapurdiraino hedatzen dira ekialderantz, eta Gipuzkoako erdiguneraino edo, batzuetan, Bizkaiko ekialderaino mendebalerantz. Jakina, ezaugarri bakoitza banaka aztertzekoa da, baina horixe da, alde-aldera, beren eremua. Hamabi ezaugarri zenbatu ditugu:

³⁸² Gogoan har 8.4.21. atalaren bukaeran egindako oharra.

	Imotz	Basaburu Nag.	Larraun	Araitz-Betelu
Bokal luzeak	Bai (ekialdean, urriago)	Bai (ekialdean, urriago)	Bai	Bai
Asimilaziozko palatalizazioa	Bai (Muskitzen, urriago)	Bai	Bai	Bai
[x] ebakera	Bai (salbu Muskitzen)	Hegoaldean	Bai	Bai
Bokal arteko kontsonante igurzkariak galtzea	Bai (ekialdean, ahulago)	Bai	Bai	Bai
Erdialdeko azentuera	Bai (salbu ekialdean)	Bai (salbu ekialdean)	Bai	Bai
<i>neoni</i> saila	Bai	Bai	Bai	Bai
Destinatiboko -tzat	- <i>tako</i> -rekin batera	- <i>tako</i> -rekin batera	Bai	Bai
<i>zein</i>	Ez	Ez (salbu iparraldean)	Bai	Bai
2. pertsona pluraleko -te absolutiboa	Bai	Bai	Bai (salbu hego-ekialdeko herri batzuetan)	Bai
3. pertsona pluraleko -te ergatiboa eta datiboa	Bai	Bai	Ez	Ez
Partizipio analogikoak	Bai	Bai	Bai	Bai
“Nola izena?” du	Goldaratzen	Bai (salbu ekialdean)	Bai	Bai

Eremu osora zabaldu diren hiru ezaugarri ikusiko ditugu lehenik: 1) bigarren pertsona pluraleko *-te* absolutiboa, 2) partizipio analogikoak, eta 3) *neoni* saila. Beste bi ezaugarriek baino eremu murrizxeagoa dute *neoni* saileko izenordainek: ekialderantz, Basaburu Txikian hasten dira aldatzen (*neune*, *neurre*...), eta, mendebalerantz, Goierriko mendebalean (*neu* saila).

Orain emango ditugun ezaugarrien muga gure eremuaren ekialdean dago; ez dira ezezagunak, baina ahultzen edo apaltzen hasten dira Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdean, eta are ahulagoak

dira handik ekialdera. Mendebalerantz, Bizkaiko alderdi batzuetaraino iristen dira, oro har. Bost ezaugarri dira: 1) bokal luzeak, 2) asimilaziozko palatalizazioa, 3) [x] ebakera, 4) bokal arteko kontsonante igurzakariak galtzea, eta 5) erdialdeko azentuera. Ezaugarri berritzaileak dira lehen lau ezaugarriak, baina ez dira, jakina, garai bereko berrikuntzak; esate baterako, aski berria da [x] ebakera, eta antzinagokoa dirudi asimilaziozko palatalizazioak.

Gainerako ezaugarriek alde batera kokatzen dituzte Imotz eta Basaburu Nagusia, eta beste batera Larraun eta Araitz-Betelu; gure eremuan dago, beraz, ezaugarrion muga ere. Batetik, Larraunen eta Araitz-Betelun ageri dira Euskal Herriko erdigune zabaleko hiru ezaugarri hauek: 1) destinatiboko *-tzat*, 2) *zein* galdetzailea, eta 3) “nola du izena?”. Nolanahi ere, Imotzen eta Basaburu Nagusian ere ezaguna da *-tzat*, eta gero eta gehiago erabiltzen dute, gainera; baina *-tako* morfemarekin batera ageri da betiere. “Nola du izena?” egiturari dagokionez, egitura zaharragoak ageri dira Imotz eta Basaburu Nagusi gehienez (“nola zaio izena?”); nolanahi ere, Euskal Herri gehienez nagusitzen ari dira “nola du izena?” gisako egiturak, baita gure eremuan ere, eta, ez da, beraz, oso ezaugarri esanguratsua.

Bestetik, Euskal Herriko erdigune zabaleko aditz-morfema berri bat bada Imotzen eta Basaburu Nagusian: 1) hirugarren pertsona pluraleko *-te* ergatiboa eta datiboa. Morfema zaharragoak iraun du, ordea, Larraunen eta Araitz-Betelun (*-e*).

9.2.6. Euskal Herriko erdiguneko eremu murrizteko ezaugarriak

Gipuzkoatik abiatutako eta batez ere Gipuzkoan zabalduko ezaugarri sorta bat dakargu atal honetara. Zenbaitetan, Gipuzkoako mugak gainditu eta beste eremu batzuetara ere zabalduta dira ezaugarriok, hala nola Nafarroako mendebaleko hizkeretara. Batzuk ezaugarri zaharrak dira, eta beste batzuk berrikuntzak; berrikuntzen artean, badira aspaldi samar sortu eta gerora garatu ez direnak, eta badira, halaber, gaur egun ere emankorrak direnak. Ezaugarri bakoitza behar bezala balioetsi behar da, beraz. Hamaika ezaugarri bildu ditugu:

	Imotz	Basaburu Nag.	Larraun	Araitz-Betelu
<i>d > r</i>	Ez	Ez	Bai	Indartsuago
<i>f > p</i>	Bai	Bai	Bai	Indartsuago
Motibatiboko -gatio	Ez	Berueten	Gorritin	Bai
Berezko galtzea <i>-a</i>	Bai	Bai	Bai	Bai
<i>zat</i> ‘zait’	Ez	Ez	Ipar- mendebalean	Bai
“Izan”-en <i>-e-</i> erroa	Ez	Ez	Ez	Azkenaldian
“Edun”-en <i>-e-</i> erroa	Ez	Ez	Ez	Azkenaldian
<i>ziozun</i> ‘zenion’ <i>gisako</i> adizki pleonastikoak	Ez	Ez	Ez	Bai
<i>nijoa,</i> <i>dijoa,</i> <i>dijoa</i> adizki trinkoak	Ez	Ez	Ez	Azkenaldian
<i>zaku</i> ‘zaigu’ eta <i>zitzakun</i> ‘zitzaigun’	Ez	Ez	Ez	Bai
<i>al</i> galdera- partikula	Ahul	Ahul	Bai	Bai

Araitz-Betelun ageri da Gipuzkoako ezaugarri kopuru handiena. Lehenik, azkenaldian sartutako hiru berrikuntza aipatuko ditugu: 1) “izan”-en *-e-* erroa, 2) “edun”-en *-e-* erroa, eta 3) *nijoa* erako adizki trinkoak. Ezaugarriok, baina, ezin jo ditugu Araitz-Beteluko euskararen bete-beteko ezaugarritzat, ez baitituzte hiztun guztiek egoera guztietan erabiltzen, berriki sartuak diren heinean. Baina Araitz-Beteluk harreman handia izan du aspalditik Tolosaldeko hizkerek, eta hango euskararen eragin handia jaso du; joera hori areagotzen ari da, gainera, gazteek hango mintzamoldera egiten baitute maiz. Bestalde, eremuko gainerako herrietan baino indartsuagoak dira Araitz-Betelun bi berrikuntza hauek, baina indarra galdua dute, ez baitira hitz berrietara hedatu: 1) *d > r*, eta 2) *f > p*. Zaharragoak dirudite *zaku* erako adizki datiboek; gero eta gutxiago erabiltzen dira hizkera gehienetan, baina Araitz-Betelun halako formak bildu ditugu gaur egungo mintzoan. Batez

ere Goierri indarra duen beste berrikuntza bat ere bada Araitz-Betelun (Berueten eta Gorritin ere bildu dugu): 1) motibatiboko *-gatio*. Eremu handixeagoa harrapatzen dute Gipuzkoan *ziozun* erako adizki pleonastikoek, eta halakoak ohikoak dira Araitz-Betelun ere, eremuko gainerako herrietan ez bezala.

Bestalde, Larrauna ere hedatu da berrikuntza hau: 1) *zat* (Larraungo hego-ekialdera ez). Tolosaldean, Goierri, Urola aldean eta Nafarroako mendebaleko zenbait herritan ageri dira halako formak.

Azkenik, eremu osoan bildu ditugu bi berrikuntza hauek: 1) berezko *-a* galtzea, eta 2) *al* galdera-partikula. Berezko *-a* galtzea Gipuzkoako ipar-ekialdean eta Nafarroako Bortzirriak aldean da bizkorren, baina gure eremura ere iritsi da. *al* galdera-partikulari dagokionez, aski zabaldua dago Gipuzkoa osoan, eta gure eremuan ere erabiltzen da; nolahi ere, ahul samar ageri da Imotzen eta Basaburu Nagusian.

9.2.7. Nafarroa Garaiko mendebaleko ezaugarriak

Multzo honetara dakartzagun ezaugarrien eremua Nafarroako mendebala da, baina denek ez dute hedadura bera. Gure eremuaren mendebalean ageri dira batez ere, eta, handik kanpo, baita Nafarroako mendebaleko beste hizkera batzuetan ere (Basaburu Txikian, Leitzan, Areson, Goizuetan eta are Sakanan ere kasuren batean). Bederatzi ezaugarri bildu ditugu:

	Imotz	Basaburu Nag.	Larraun	Araitz-Betelu
-ee ‘-ea’, -ii ‘-ea, -ii’ eta -uu ‘-ua’	Goldaratzen (salbu -ee)	Bai (-ee iparraldean soilik)	Hego-ekialdean	Ez
a > e, ingurune fonologiko hauetan: a) mendee gisakoak, b) azare et gisakoak, eta c) besti et gisakoak.	Goldaratzen	Bai (salbu ekialdean)	Bai	Bai
u > o	Batez ere Goldaratzen	Bai (salbu ekialdean)	Bai	Bai
i > e	Ez	Iparraldean	Hego-ekialdean batez ere	Bai (ingurune jakin batzuetan)
eu > iu, eo > io eta ea > ia	Mendebalean	Bai	Bai (ahulago)	Bai (ahulago)
Izen singularra eta plurala bereiztea: a) bokalaren luzeraren arabera, eta b) azentueraren arabera	Bai (salbu Muskitzen)	Bai	Bai	Bai
nii & nie ‘noa’ gisako adizkiak	Goldaratzen	Iparraldean	Bai	Bai
“Egon”-en trinkoak pluralean: dai ‘daude’, zai ‘zaude’, eta abar.	Goldaratzen	Iparraldean	Bai	Bai
“Utzi, eman + absolutiboa”	Bai	Bai	Hego-ekialdean	Ez

Fonologiako ezaugarriak dira bederatziotatik zazpi (“utzi, eman + absolutiboa” egitura eta singularraren eta pluralaren arteko bereizkuntza dira salbuespenak), berrikuntzak, eta eremu murrizta harrapatzen dute: gure eremuaren mendebalean eta Nafarroako mendebaleko zenbait

hizkeratan ageri dira (gorago zehaztu dugu). Ondorio nagusia da bokalei eragiten dieten bilakabide ugari dagoela Nafarroako mendebalean; bilakabideok eremu jakina dute, aski bereziak dira, eta kolorea ematen diote aipatutako eremuari. Gipuzkoako mugara orduko eta Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdera orduko desagertzen edo aldatzen dira ezaugarriok.

Singularraren eta pluralaren bereizkuntzari dagokionez, aski berezia da Nafarroako mendebalean; gogoan izan bai Hualdek (1997a) bai Gamindek (1998a) hego-mendebaleko goi-nafarreran txertatu dituztela gure eremuko herriak, eta baita Sakanako erdialdea, Arakil, Burunda eta Basaburu Txikia ere (ikus 8.3.1. atala).

Azkenik, “eman” eta “utzi” aditzekiko nominalizazioetan, absolutiboa ageri da Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu ez beste gainerako herrietan; gure eremuko ezaugarri aski eskusiboa da, Sakanako herri batzuetan ere ezaguna dena, baina adlatiboa ageri da gure eremutik ekialdera, eta inesiboa, aldiz, mendebalera. Gure eremua bi aukeron tartean dago nolabait.

9.2.8. Beste ezaugarri batzuk

Aurreko ataletan sailkatu ezin diren ezaugarriak dakartzagu atal honetara. Eremu geografiko gardenik ez dutelako, Euskal Herrian banaketa nabarra dutelako edota gainerako ataletan definitu ditugun eremuekin bat egiten ez dutelako bereizi ditugu. Nolanahi ere, aipatzeko moduko ezaugarriak direlako ekarri ditugu hona, ikusiko dugunez. Ezaugarri bakoitzak bere eremua du, eta kasu bakoitzean zehaztuko dugu eremu hori zein den. Zortzi ezaugarri dira:

	Imotz	Basaburu Nag.	Larraun	Araitz-Betelu
-ea(k) > -ia(k)	Ekialdean (batez ere Mus.)	Ekialdean	Ez	Ez
Mugatzailea ezkutatzea	Bai (salbu Mus.)	Ez	Ez	Ez
a > e, ingurune hauetan: a) -(e)la > -le, b) eta > te, eta c) morfema barnean	Ekialdean	Ekialdean	Ez	Ez
Goranzko diptongoak	Ekialdean	Ekialdean	Ez	Ez
emanta erako partizipioak	Bai (salbu Gol.)	Bai (salbu Beru.)	Ez	Ez
Soziatiboko -ki	Muskitzen	Ez	Ez	Ez
2. pertsona pluraleko -zte ergatiboa eta datiboa	Bai	Bai	Ez	Ez
Nor-nork eta nor-nori nork sailak nahastea	Bai	Bai	Bai (salbu Errazkinen)	Ez (salbuespenak salbuespen)

Lehenik, Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdean ageri diren ezaugarriei erreparatuko diegu. Euskal Herriko hainbat mintzotan ageri da $-ea(k) > -ia(k)$ bilakabidea (Gipuzkoako ipar-ekialdean, Nafarroako ekialdean edota Ipar Euskal Herriko hizkera batzuetan), baina gure analisisian aintzatestekoa iruditzen zaigu, hain zuzen, bukaera horixe ageri delako gure eremutik ekialdera ere, Atetz-Ultzamatik hasita Aezkoaraino³⁸³, gutxi gorabehera. Beste ezaugarri batzuetan ere, gure eremuko gainerako herrietatik saihesten dira gure eremuko ekialdeko herriak, eta ezaugarri horietan ekialderagoko mintzoei loturik ageri dira; beraz, beste ezaugarri horien ondoan paraturik, $-ia(k)$ bukaerak badu koherentzia geolinguistikoa, eta horregatik ekarri dugu atal honetara. Arrazoi beragatik ekarri dugu gure analisisira mugatzailea ezkutatzea: Euskal Herriko hainbat hizkeratan ageri da, baina ezaugarri hori banatzailea da gure eremuan, Muskiztik mendebalera ageri baita; Muskitzen eta handik ekialdera, aldiz, ez dago halakorik. Eta arrazoi bertsua eman genezake ingurune fonologiko jakin batzuetan ageri den $a > e$ asimilazioaz: gure eremu osoan bildu dugu

³⁸³ Aezkoan ahula da, ordea (Camino 1997: 310).

asimilazio hori, baina haren erabileran bada aldea alderdi batetik bestera, eta, hain zuzen, gure eremutik ekialdera usu agertu ohi den inguruneetan agertzen da gure eremuaren ekialdean ere (Euskal Herriko beste eskualde urrunagoetan ere halakoak badirela ahaztu gabe, hala nola Bizkaian). Bestalde, eremu aski definitua du gure eremuaren ekialdean ageri den berrikuntza batek: hain zuzen, nafarreraren zenbait hizkeratan ageri dira goranzko diptongoak. Azkenik, Muskitzen sozietiboko *-ki* morfema zaharra agertzeak adierazten du Muskitza ez dela iritsi gure eremuko mendebaleko herrietara Euskal Herriko erdigunetik zabaldua den *-kin* morfema; alegia, Muskitzek ekialderagoko hizkerekin bat egin du ezaugarri hori gordetzeari dagokionez, eta modu berean jokatu du beste ezaugarri batzuei dagokienez ere.

Bestalde, *-zte* morfemari dagokionez, Imotzen, Basaburu Nagusian, Goizuetan, Gulibarren eta ekialdeko Arakilen ageri da; alegia, aurreko ataletan identifikatu ditugun eremuetako eraginaz gain, beste alderdi batzuetako indarrak ere bildu dira Imotzen eta Basaburu Nagusian, ezaugarri horrek agerian uzten duenez. Atal honen hasieran azaldu dugunez, eremu hori batera doa beste ezaugarri batzuetan ere, nahiz ez diren ezaugarri eskusiboak, eta horregatik iruditzen zaigu zilegi dela ezaugarri hori ere analisi honetan aintzatestea.

Nafarroa Garaian eremu zabalxeagoa harrapatzen dute *emanta* erako partizipioek: Nafarroako ipar-ekialdean, erdigunean eta are gure eremuko Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan (salbu Goldaratzen eta Berueten) ageri dira. Lapurdiko eta ondoko eskualdeetako *eman (e)ta* erako denborazko egituretatik eratorriak dirudite *emanta* erako partizipio modalek, eta aski berriak dirudite. Larraunen eta Araitz-Betelun, aldiz, mendebaleragoko formak ageri dira (*emanda* erakoak).

Azkenik, Hego Euskal Herriko hainbat mintzotan erabiltzen dituzte nor-nori-nork saileko adizkiak nor-nork sailekoen lekuan, Nafarroa Garaian batik bat; ikusi dugunez, Larraungo Errazkin herrian du muga ezaugarri horrek (mendebalerantz, esan nahi baita), nor-nork saileko formei eutsi baitiete handik mendebalera. Ezaugarri horretan Araitz-Betelu eta Errazkin Gipuzkoako joerarekin batera agertzeak agerian uzten du, beste ezaugarri batzuekin batera, Gipuzkoara begira egon dela eta dagoela alderdi horretako mintzoa.

10. GURE EREMUKO HIZKEREN SAILKAPENAZ

10.1. Zer den hizkerak sailkatzea

Gure tesian, hizkuntza-ezaugarriak aztertzeari eman diogu garrantzi handiena (hedadura, antzinatasuna, sistematikotasuna, eta abar), baina hizkerak sailkatzeaz arituko gara orain. Hizkerak definitzea eta sailkatzea ez da gauza bera, baina bi jardunok elkarren osagarri izan daitezke. Caminok dioenez, “sailkapenak eta definizioak usu idealizazioak izan ohi dira” (2009a: 321). Izan ere, ikertzailearen esku gelditzen da hizkuntza-ezaugarri batzuk aintzatestea eta beste batzuk kontuan ez hartzea; alegia, ikertzaileak erabakitzen du zein ezaugarri aukeratuko duen lanerako, dela hizkera jakin bat definitzeko edo deskribatzeko, dela hizkera hori gainerako hizkeren artean sailkatzeko. Orain arte, gure eremuko hizkerak aztertzen —definitzen— aritu gara, eta horretarako irizpideak finkatuta gelditu dira 6. atalean, baita lan osoan zehar ere.

Hizkerak sailkatzeko, irizpide bat baino gehiago erabil daiteke. Hizkerak multzokatzea edo eremuka biltzea da hizkerak sailkatzea; dialektologian, dialektotan eta azpidialektotan bildu ohi ditugu hizkerak. Oro har, honako baldintza hauek bilatzen ditugu dialektoak edo azpidialektoak osatzeko (Camino 2009a: 324-325): “baitezpadako da talde berera biltzeko gai diren osagaiek ezaugarri espezifiko batzuk partekatzea, eta ahalaz, ezaugarriok bere-berezkoak edo eskusiboak izatea; bestalde, geografiaren iragazkia esan ohi dena asetzea ere bilatu nahi izaten da, hau da, talde barreneko kideen ezaugarritzat jotzen direnak, taldeko mintzo, dialekto edo hizkuntza guztienak izatea ere baldintza garrantzizkoa da (...)”.

Hori horrela izanik ere, maiz zailtasunak izaten ditugu baldintza horien arabera dialektoak definitzeko, erdiguneko eremuetan batez ere. Euskararen kasuan, hain zuzen, ezaugarri espezifikoek multzo sendoak ageri dira saihetsetako eremuetan —mendebaleko eta ekialdeko hizkeretan—, baina ez dago halakorik erdiguneko eremuetan —euskara nafarrean, erdialdeko euskarari eta euskara nafar-lapurtarrean—. Horregatik, zailagoa da erdiguneko dialektoen mugak zehaztea, eta zaila da, halaber, soilik dialekto horietan ageri diren ezaugarriak topatzea, eta are dialekto horietako hizkera guztietan ageri direnak topatzea ere.

Lantegi zaila egokitu zaigu, beraz; izan ere, erdigunean daude gure eremuko hizkerak, eta, horregatik, ez da aise erabakitzea zein dialektotan sailkatu behar diren. Batetik, Nafarroako euskarari begira jarri beharko dugu nahitaez, euskara nafarrean ageri diren ezaugarriak gure

eremuan ageri diren edo ez, eta baita zein neurritan ageri diren ere argitze aldera. Horretarako, euskara nafarra zer den definituko dugu lehenik. Bestetik, gure eremuko hizkerak Euskal Herriaren erdigunean egonik, baitezpadakoa zaigu erdigune horretako hizkerari eta handik gure eremura sartutako eraginari ere erreparatzea. Eragin hori zenbaterainokoa den neurtuko dugu, horrenbestez. Azkenik, gure eremuko hizkerak sailkatzeko proposamen bat emango dugu, azken urteotan ikereremu horretan egin diren urratsen osagarri.

10.2. Euskara nafarra definitzen

Bonapartek bi euskalkitan banatu zuen Nafarroako euskara: hegoaldeko goi-nafarrera eta iparraldeko goi-nafarrera³⁸⁴. Nolanahi ere, Bonapartek berak aitortu zuen bi euskalkion artean ez zegoela alde handirik, eta, horrenbestez, zilegi zatekeela biok euskalki bakar batean biltzea (Zuazo 2008: 97). Gerora ere, nafarrera euskalki bakartzat hartu dute hainbat ikertzailek (Azkuek, Caminok edota Zuazok, esate baterako). Caminoren hitzak dakartzaguz (2003a: 146):

Nafarrera iparreko eta hegoko bi euskalkietan banatze hori, ez da asetzeko modukoa eta bereziki, Iruñetik goiti Nafarroako erdialdean huts egiten du delako muga horizontalak; ezker-eskuin beharko luke lerratu isoglosen multzo horrek, nafarrera iparreko eta hegoko bi zatietan banatzeko, baina Nafarroa Garaia gehienez zehar beharko luke lerratu, ez Andimendi inguruan, Erroibar / Baigorri aldean edo Aezkoa / Garazi bitartean soilik. Alta, Nafarroako erdigune euskaldunean, goitik beheitikoa da isoglosa multzoaren norabidea, Mitxelenak proposatu zuen legez (1972: 113), Ibarrak (1995a) eta Zuazok (1998a) erakutsi duten bezala eta lexikoki ageri den bezala (Camino 1999).

Euskalki bakarra izanik ere, nafarreraren baitan bada aldea hizkera batetik bestera. Aldaketak ez dira oso nabariak, eta gradualki gauzatzen dira espazioan zehar: ertzetako hizkerak alderatuz gero, aldaketak badirela ohartzen gara, baina inon ez dago jauzi bortitzik. Ertz batetik bestera goazela, hizkuntza aldioro koska bat aldatuz doala sumatzen dugu, baina hizkerak continuum linguistiko bat osatzen dute, eta horregatik da hain zaila euskalkiaren mugak non dauden zehaztea (cf. 4.2.2.).

Bonaparte bera ere ohartu zen desberdintasun horietaz, eta, hain zuzen, sei azpieuskalki bereizi zituen iparraldeko goi-nafarreraren baitan, eta hiru, aldiz, hegoaldekoan. Printzeak, baina, ez zuen esplizituki azaldu zein hizkuntza-ezaugarritan oinarritu zen banaketa hori egiteko; jakina da

³⁸⁴ Biotatik kanpo utzi zituen Erronkari (zubererarekin batera paratu baitzuen), Zaraitzu (ekialdeko behe-nafarrerarekin), Aezkoa eta Luzaide (mendebaleko behe-nafarrerarekin), Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi (lapurterarekin), eta Etxarri Aranatz, Ergoiena eta Burunda (gipuzkerarekin).

batik bat aditzaren morfologiako datuak erabili zituela euskalkien, azpieuskalkien eta aldaeren sailkapena egiteko, baina ez zuen argi azaldu zehazki zein ezaugarriren arabera den hizkera bat gipuzkera, nafarrera edota lapurtera. Baditugu, ordea, hark lanerako erabilitako irizpideen zantzu bakan batzuk; bere laguntzaileei bidaltzen zizkien gutun eta ohar sakabanatuetan, hain zuzen. Ildo horretatik, 7.1. atalean azaldu dugunez, Etxenikeri bidalitako gutunetan irakur dezakegu printzea hiru ezaugarritan oinarritu zela Basaburuko, Larraungo eta Araizko hizkerak nafarreran edo gipuzkeran sailkatu behar ote ziren erabakitzeke, baina gaur egungo ikuspegitik ez dirudi hiru ezaugarriok egokienak direnik horrelako erabaki bat hartzeko (ikus Urkixo 1910, Irizar 1981a, Ibarra 1995a: 28-29, Zuazo 2008: 94-95).

Gaur egungo ikerketetan, ahalegin handia sumatzen da euskalkiak, azpieuskalkiak zein hizkerak definitzen dituzten ezaugarriak aurkezteko orduan. Hor ditugu, esate baterako, Zuazoren lanak, euskalki guztien mugak ezarri baititu hainbat ezaugarritan oinarrituz. Ertzetako euskalkiak, hala nola mendebalekoa edota zuberera, aski ongi definiturik daude, ezaugarri eskusibo ugari biltzen baitira halako eremuetan (cf. 4.2.2.), baina artean ere zail suertatzen da, esate baterako, euskara nafarra definitzea, erdigunean kokaturik dagoen heinean. Eta gure eremuan berean sortzen da, hain zuzen, zailtasunetako bat: behin baino gehiagotan eztabaidatu da euskara nafarreraren baitako hizkeratzat hartu behar ote diren, edo, aitzitik, erdialdeko euskarara guztiz lerraturik ote dauden.

Guk gai horrixe heldu nahi diogu atal honetan, eta, horretarako, euskara nafarra zer den definitzen ahaleginduko gara lehenik. Zenbait galdera datozkigu burura: Zein ezaugarrik definitzen dute nafarrera? Aski ote da nafarreraren ezaugarri eskusibo definitzaile jakin batzuk soilik aintzatestea hizkera bat nafartzat jotzeko? Ala, aitzitik, zilegi ote da gaitasun sailkatzaile apalagoko ezaugarriak lagungarri izatea lantegi horretarako? Alegia, parametro berak erabili behar al dira ertzetako euskalkiak —ezaugarri eskusibo ugariko eremuak— eta erdigunekoak —ezaugarri eskusibo urriko eremuak— sailkatzeko?

Nafarrera definitzen duten ezaugarri eskusiboek baldintza hauek bete beharko lituzkete: a) nafarreraren bakarrik agertzea, b) nafarreraren baitako hizkera guztietan agertzea, eta c) nafarreraren eremuan sortuak izatea. Ez da aise baldintza horiek betetzen dituzten ezaugarri nafarrak aurkitzea, baina gutxienez bost ezaugarri jo daitezke nafarreraren ezaugarritzat:

1. Instrumentaleko -s morfema
2. Erdal *-on* > *-on*
3. Bigarren pertsona singularreko *y*- morfema
4. Nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea
5. “Joan” aditzaren *noaie*, *goaie* eta *doaie* forma trinkoak singularrean

Berrikuntzak dira bost ezaugarriok, eta Nafarroa Garaia da, oro har, beren eremua. Baina, nolahi ere, guztiok ez dute hedadura geografiko bera: esate baterako, Nafarroako ipar-ekialdean (Bortziriak, Baztan, Malerreka, Bertizarana) ez dago instrumentaleko -s morfemarik, eta Gipuzkoako ipar-ekialdeko zenbait tokitara ere hedatu dira *y*- morfema eta *-it-* pluralgilea. Horrek ez du, ordea, esan nahi Nafarroako ipar-ekialdeko hizkerak nafarreratik kanpo daudenik, ez eta Gipuzkoako ipar-ekialdeko hizkerak nafarreraren baitan daudenik ere; ezaugarri nafarrak dira, Nafarroan sortuak eta Nafarroa gehienez barreiatuak, baina badira salbuespenak, hizkeren eta are hizkuntza-ezaugarrien mugak ez baitira estatikoak eta finkoak.

Gaur egun, ordea, oraindik ez dago erabateko adostasunik euskara nafarreraren ezaugarriak zein diren determinatzeko orduan. Esate baterako, Zelaietak dio ez duela garbi ikusten nafarreraren ezaugarritzat jo behar ote den instrumentaleko -s (2008: 188): haren ustez, ezaugarri hori Bidasoaldean ez agertzea aski da nafarreraren ezaugarria ez dela esateko. Baina, gorago esan dugun bezala, ia gauza ezina da hedadura geografiko berbera duten bi ezaugarri topatzea; beti bada salbuespenen bat, eta, gure ustez, ezaugarri hori Bidasoaldean ez agertzeak ez du esan nahi ezaugarri hori nafarreraren ezaugarri bereizgarritzat har ezin daitekeenik, ez eta Bidasoaldean ezaugarri nafar hori ez izateagatik hizkera horiek nafarreratik kanpo daudenik ere. Gainera, holakoak maiz gertatzen dira dialektologian: ez dago zalantzarik nafarreraren baitan kokatua dela Aezkoako mintzoa, nahiz nafarreraren ezaugarri bereizgarrietako bat, nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea, falta izan.

Beste ezaugarri batzuekin badugu zalantza. Izan ere, nafartzat jo izan dira aferesia eta sinkopa, baina Ipar Euskal Herriko hainbat hizkeratan ere badira; egia da bilakabideok badutela indarra Nafarroako hainbat lekutan, baina ezin hartu dira, aitzitik, ezaugarri nafar eksklusibotzat, Ipar Euskal Herrian ere bai baitira. Nafartzat jo izan da, halaber, *u > i* bilakabidea, baina salbuespen gehiegi ditu egiazki nafartzat hartzeko (ikus 8.1.7.): Nafarroako erdiguneko ezaugarria da, eta Ipar

Euskal Herriko zenbait hizkeratan ere ageri da zenbait ingurune morfologikotan (*-tuko* > *-tiko*). Sakana aldean eta Nafarroako erdiguneko mintzo batzuetan ageri den nor-nori saileko iraganeko adizkietako *-ki-* erroa ere nafartzat jo du berriki Zuazok (ikus 2008: 106-109), baina ezaugarri gordea dirudi (ikus 8.4.10.), eta duen hedaduragatik ezin har daiteke nafarreraren ezaugarri eskusibotzat: Nafarroako erdigunean bildu izan da, baina galbidean da hizkera gehienetan (nahiz bizirik dirauen Sakanako erdialdean), eta ezaugarri ezezaguna da Aezkoan, Bidasoa aldean, Baztanen edota Goizuetan (cf. 8.4.10.).

Nafarreraren bereizgarritzat aurkeztu ditugun bost ezaugarriek hedadura geografiko aski koherentea dute, baina nafarreraren baitako hizkera guztietan agertzen ote dira? Ultzaman eta Erroibar-Esteribarretan, esate baterako, bostak ageri dira; Sakanako erdialdean, bostetatik hiru ageri dira herri guztietan (*-s* morfema, *-on* bukaera eta *y-* morfema)³⁸⁵, *-it-* pluralgilea Etxarri ez beste herri guztietan erabiltzen dute, eta soilik Arruazun eta Uharten *noaie* erako adizkiak (gainerako herrietan, *nua* & *nue* eta *niyue* erakoak ageri dira); Aezkoan, bostetatik lau ageri dira (ez baitago *-it-* pluralgilerik); Bortziriak-Malerreka aldean, instrumentaleko *-s* ez beste lau ezaugarriak ageri dira. Gure eremuari dagokionez, 9.2.1. atalean ikusi dugu nafarreraren bost ezaugarriak ageri direla Imotzen eta Basaburu Nagusian (salbuespen bakarra da *nii* eta *dii* adizkiak baliatzen dituztela Goldaritzen eta Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan, nahiz *noaie* eta *doaie* ere ez diren guztiz ezezagunak; gainera, *goaie* ‘hoa’ ageri da bi eremuotan); Larrauna orduko, *noaie* erako singularreko adizkiak ez beste lau ezaugarriak ageri dira hego-ekialdeko herrietan, eta, ipar-mendebalean, ezaugarri bakarra ageri da bete-betean —*-on* bukaera, alegia—; Araitz-Betelun, Larraungo ipar-mendebalean bezala, *-on* bukaera da bost ezaugarri nafarretatik erabiltzen duten bakarra.

Nafarrera definitu nahian soilik bost ezaugarri definitzaile horiek aintzatetsiko bagenitu, zera ondorioztatuko genuke: alde batetik, maila berean leudeke Ultzama, Erroibar-Esteribar, Imotz eta Basaburu Nagusia, nafarreraren bost ezaugarriak badituzten heinean; bestetik, gorago adibidetako erabili ditugun beste hizkera horiek —Sakana, Aezkoa, Bortziriak eta are gure eremuaren baitan dauden Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu— ez lirateke “hain nafarrak”, ezaugarri nafarren bat edo beste falta baitute. Garbi dago, gure ustez, datu gehiago behar ditugula Nafarroako hizkeren kokagunea zehazteko; alegia, goragoko galderetako bat erantzunez, bost ezaugarri horiek ez dira aski nafarrera definitzeko, eta ezaugarri horiez gain hizkera bakoitzean beste zein ezaugarri

³⁸⁵ Baina badira *y-* morfemaren albuespenak (ikus 8.4.2.).

ageri den aztertu beharko dugu, hau da, nafarreraren baitako hizkeretan zein ezaugarri-konbinazio ageri den.

Ildo horretatik, Caminok proposatu du Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian ageri diren ezaugarri supradialektalak ere aintzat hartzea nafarrera definitzeko (2009a: 349):

Nafarreraren barreneko eskualde guztietan edo gehienetan erabiltzen diren ezaugarri ugari dago, nafarreraren barrenean ezaugarri bateratzaileak direnak, baina nafarreratik kanpo ere baliatzen direnak. Nafarroa Garai guztiko edo gehieneko ezaugarri ez eskusiboek arestian aipatu ditugun bost ezaugarri nafar eskusiboekin batera osatzen duten konbinazioaren berezkotasunari ere begiratzen baldin badiogu, eta baldintzatat geografiaren iragazkia ezartzen badugu, hau da, ezaugarriak dialektoaren eremu guztian edo gehienez erabiliak izatea, nafarrera dialektoaren definiziora hobeki hurbil gaitzke. (...)

Usu Euskal Herria bi puska eginik uzten duten ezaugarriak baditugu euskaraz, Nafarroa Garaia Ipar Euskal Herriarekin eta ekialdeko mintzoekin batera biltzen dutenak. Ez dira nafarreraren tasun bereizgarriak, baina nafarreraren ideia hurbiltzen laguntzen dute, nafarrera guztian edo gehienez ageri baitira: nafarreraren ezaugarri bateratzaile ez eskusiboak dira, Bizkai-Gipuzkoetan eta Araban aurkituko ez ditugunak, baina Nafarroa Garaian bezala, Ipar Euskal Herrian ere hedadura zabala dutenak. (...)

Zuazok ere, Euskal Herriko euskalkiak definitzeko ahaleginean, garrantzia aitortu die ezaugarri supradialektalei (2008). Zehatzago, euskalkiez gaineko eremuak definitzen dituzten ezaugarrien berri eman du, eta, hain zuzen, Euskal Herriaren mendebala eta erdialdea, eta Ipar Euskal Herria eta euskara nafarra bereizten dituzten ezaugarriak hizpidera ekarri ditu (2008: 207-218). Hona haren hitzak (2008: 183):

Oso barruan sartuta daukagu hizkuntzan den ezaugarri berezi bakoitza euskalki jakin bati lotuta dagoela, baina gauzak ez dira beti eta ezinbestean horrela. Asko eta asko dira euskalki batean baino gehiagotan gauzatzen diren ezaugarriak, euskalkien ohiko mugak gainditu eta eremu zabalagoetan betetzen direnak.

Alegia, ezaugarri eskusiboez gain eskusiboak ez diren baina Nafarroa Garai eta Ipar Euskal Herri gehienez ageri diren ezaugarri supradialektal bateratzaileak ere aintzatestea bide egokia izan daiteke nafarrera definitzeko (Camino 2009a: 351):

Nafarrerari era zabalago honetan so eginez gero, Nafarroako eremu handienez koherentzia

geolinguistikoa erakusten duten eta elkarrekin agertu ohi diren ezaugarri-multzo zabal bat azaleratuko da gure begien aitzinera: ezaugarri eskusibo eta bateratzaileak diren bost ezaugarri nafarrekin batera, Ipar Euskal Herrian hedadura zabala duten, baina Nafarroa gehiengan ere erabiltzen diren beste ezaugarri nafar ez eskusibo batzuk konbinatzen dira (...). Ezaugarriok Nafarroa Garaian elkarrekin agertzeak bere garrantzia du, inolaz ere.

Nafarrera euskalkia definitzeak nafarrera osatzen duten hizkeren berri ematea dakar ezinbestean. Horretarako, aukera egokia iruditzen zaigu eremuka lan egitea; alegia, goitik hasi beharrean behetik hastea, hizkerak edo hizkera multzoak definituz. Dialektoak azpidialektotan banaturik egon ohi dira, eta badirudi errazagoa dela azpidialektoak definitzea, dialektoak baino: hedadura txikiagoa duten heinean, azpidialektoak sendoagoak dira nolabait, ezaugarri gehiago baitituzte batera. Alegia: hizkerak lotuago daude azpidialektoka, dialektoka baino.

Teorian, nafarreraren baitan azpieuskalki bat identifikatzeko, bi baldintza bete beharko dira: a) azpieuskalki horretan nafarreraren ezaugarriak agertzea, hein handi batean behintzat, eta b) azpieuskalkiak bere-berezko ezaugarriak izatea. Hortik aurrera, azpieuskalki bakoitzak beste ezaugarri-konbinazio batzuk izango ditu (ekialdeko ezaugarriak agertuko dira, edo Ipar Euskal Herrikoak, edo Euskal Herriko erdigunekoak, eta abar), eta kasu bakoitzean zehaztu beharko da zein diren konbinazio horiek, baina baitezpadakoa iruditzen zaigu gutxienez bi baldintzok betetzea.

Nafarreraren azpieuskalkiez ari garela, ipar-ekialdeko azpieuskalkia aski ongi definiturik dago azken urteotako lanei esker; tesi oso bat eskaini dio eremu horri Zelaieta ikertzaileak, eta azpieuskalkiaren mugak zehazten lagundu du (2008). Bestalde, aski beregaina eta berezia da Sakanako mintzoa, eta Zuazok hego-mendebaleko azpieuskalkia osatu du hango mintzoekin, Arakil barne harturik. Badirudi, ordea, egokiagoa dela Arakil nafarreraren erdiguneko azpieuskalkira biltzea, bai baitira hainbat hizkuntza-ezaugarri ibar hori Sakana erdialdetik urruntzen eta horrenbestez Nafarroako erdigunera hurbiltzen dutenak (ikus Camino 2003a, 2005a eta 2006; cf. Apalauza 2008a: 154).

Gaurgero itzaliak diren Nafarroako hainbat hizkera eta artean ere bizirik diren beste hainbat aztertuz, hego-nafarrera azpieuskalkia osatzen duten hizkeren berri eman du Caminok (2003a). Hala, hari esker badakigu hego-nafarrera osatzen dutela artean bizirik diren Aezkoako, Erroibarko eta Hego Esteribarko, eta itzaliak diren Artzibarko, Eguesibarko, Goñerriko, Ollarango, Gesalazko,

Oltzako eta Garesko hizkerak. Hala, nafarreraren ezaugarriez gain, hego-nafarrerak baditu bereberezko ezaugarriak eta ezaugarri ia eksklusiboak; beraz, gorago eman ditugun bi baldintzak betetzen dira. Ezaugarri horiez gain, beste hainbat ezaugarri ageri dira hego-nafarreran: ekialdekoak, Euskal Herriko erdialdekoak, Nafarroa Garaiko erdigunekoak edota mendebalekoak (urri), hedadura zabalagoa edo motzagoa dutenak, berriagoak edo zaharragoak direnak; ezaugarri horiek guztiak konbinatuz osatu dira hego-nafarrera azpieuskalkiaren barreneko mintzoak³⁸⁶.

Caminoren lanei esker dakigu, halaber, hego-nafarrera hainbat ezaugarritan saihesten dela Nafarroako erdigunetik; tamalez, ez ditugu alderdi horretako hizkera guztiak behar bezala ezagutzen, joan den mendean desagertu baitziren haietako batzuk, eta gehienetan, gainera, ez dira aski dokumentaturik gelditu (Ezkaarte, Olaibar eta Antsoain ibarrez edota Iruñerriaz ari gara), baina aski ziur esan dezakegu erdiguneko azpieuskalkia osatzen dutela Ultzama, Atetz, Anue, Lantz, Odieta, Txulapain, Gulibar, Arakil eta Itza ibarrek (2003a: 149-152)³⁸⁷.

Zuazok egindako azken sailkapen orokorrean (2008), nafarreraren erdiguneko azpieuskalkian ageri da Imozko Muskitz herria, eta hartatik bereiz eta erdialdeko euskalkiaren baitan, aldiz, Imozko gainerako herriak eta Basaburu Nagusia. Horren harira gaineratu nahiko genuke Muskitz Imozko (eta, orobat, gure eremuko) gainerako herrietatik aldentzen duten ezaugarriak ez direla euskara nafarrerarenak, baizik eta euskara nafarreraren atal bateko hizkerenak (ikus, batez ere, 9.1.1.1.); hortaz, ez gaude ziur guztiz zuzena ote den euskalki-muga Muskitzen ezartzea, azpieuskalki-muga baita izan.

Garbi dago aldaketa-giroa badela Muskitz aldean; zehatzago, Etxaleku-Gartzaron lerroan ezarriko genuke guk muga (nahiz Muskitzen den bereziki nabarmena). Baina bi euskalkiren muga —alegia, nafarreraren eta erdialdeko euskalkiaren muga— lerro horretan kokatzeak esan nahiko luke handik mendebalera ez dagoela nafarreraren ezaugarri eksklusiborik eta haien ordeztu erdialdeko euskalkiarenak ageri direla, eta hori ez da horrela. Izan ere, Imotz eta Basaburu Nagusi osoan ageri dira nafarreraren bost ezaugarriak (baita Larraungo hego-ekialdean ere, ezaugarri bat ez beste guztiak ageri baitira); gainera, nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiko hainbat ezaugarri ageri dira bi ibarrotan, nahiz eta azpieuskalki horretako ezaugarri kopuru handiagoa dugun bi ibarrotan

³⁸⁶ Zuazok bizirik diren hizkerak aintzat hartu ditu euskalkiak sailkatzeko; hortaz, Esteribar, Erroibar eta Aezkoa (trantsizio-hizkera) sartu ditu berak sortaldekoa deritzan azpieuskalkian (2008: 97-98), eta sailkapenetik kanpo ageri dira gainerako hizkerak (Artzibar, Eguesibar, Goñerria, Ollaran, Gesalatz, Oltza eta Gares).

³⁸⁷ Ikus gorago Arakilgo euskarari buruz emandako oharra.

ekialdean, mendebalean baino. Horrextan datza, hain zuzen, Etxaleku-Gartzaron lerrotik ekialderako eta mendebaleko hizkeren arteko alde nagusia (ikus 9.2.2.). Horregatik, guk uste dugu zuzenagoa dela esatea euskara nafarraren baitan daudela bai Imotz bai Basaburu Nagusia, euskara nafarraren ezaugarri eksklusiboak badituzten heinean, baina azpieuskalki banatan banaturik ageri direla Etxaleku-Gartzaron lerrotik bi aldeetara gelditzen diren hizkerak.

Gure eremuko hizkerez aritzean, ezinbestean aipatu beharra da Euskal Herriko erdiguneko hizkeren eragina. Ereku osoan bildu da eragin hori; zehazki, erdiguneko eta mendebaleko, erdigune zabaleko eta erdigune murrizteko hainbat ezaugarri aipatu ditugu aurreko atalean (9.2.4., 9.2.5. eta 9.2.6.). 10.3. atalean mintzatuko gara erdialdeko euskalkiaren eraginaz, baina hemen gogoratu nahiko genuke Euskal Herriko erdialdearen eragina apalagoa dela Imotzen eta Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun baino, eta are apalagoa Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdean. Hautuak dira gure eremua banatzen duten Euskal Herriko erdialdeko ezaugarri gehienak —ezaugarri supradialektalak dira—, baina badute garrantzia, gure ustez: haien hedadura geografikoa koherentea da gure eremuaren ekialdea eta mendebala banatzen duten beste ezaugarri batzuenarekin, hala nola nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiko ezaugarrienarekin (gorago aipatuak). Horixe da, beraz, gure eremuaren ekialdearen eta mendebalaren arteko beste aldeetako bat; alegia, ezaugarri supradialektalei begiratu, Euskal Herriko erdialdearen eragina bizkorragoa da Etxaleku-Gartzaron lerrotik mendebalera, ekialdera baino.

Honaino, beraz, zera esan dezakegu: zilegi da Etxaleku-Gartzaron lerrotik ekialderako hizkerak nafarreraren erdiguneko azpieuskalkian txertatzea. Izan ere, gorago eman ditugun baldintzak betetzen dira eremu horretan: batetik, nafarreraren ezaugarri eksklusiboak biltzen dituzte, eta, bestetik, badituzte erdiguneko azpieuskalkiaren bere-berezko hainbat ezaugarri. Imozko eta Basaburu Nagusiko gainerako herrietan ere betetzen dira bi baldintza horiek, baina beste konbinazio batzuk ere ageri dira eremu horretan: batetik, nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiaren ezaugarri batzuk falta dira; bestetik, lerro horretatik ekialdera ageri ez diren Euskal Herriko erdiguneko (eta mendebaleko) ezaugarri supradialektal batzuk ageri dira; eta, azkenik, Nafarroako mendebalean ageri diren beste ezaugarri batzuk ere ageri dira (ikus 9.2.7.). Horregatik, beste multzo batera bildu beharrak dira eremu horretako hizkerak, gure ustez. Baina zein multzotara? Zein beste hizkerarekin bilduko ditugu Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebaleko herriak? Ba al dugu nahikoa ezaugarri

Nafarroako mendebalean beste azpieuskalki bat badela aldezteko? Zein izango lirateke ezaugarri horiek?

9.2.7. atalean, Nafarroako mendebalean ageri diren bederatzi ezaugarriren berri eman dugu. Salbuespenak salbuespen eta aldeak alde, Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebala, Larraun, Araitz-Betelu, Leitza, Areso, Basaburu Txikia (batez ere mendebaleko herriak; alegia, Ezkurra eta Eratsun), Goizueta eta Arano da bederatzi ezaugarrien eremua. Ez gaude erabat ziur ezaugarriok aski ote diren nafarreraren baitan beste azpieuskalki bat definitzeko, baina eremu horretan sortutako berrikuntzak dira, fonologikoak gehienak, eta kolore berezia ematen diete arestian aipatutako hizkera horiei. Nafarroako mendebaleko ezaugarri horiek nafarreraren ezaugarriekin batera ageri dira, baina ez neurri berean hizkera guztietan, bai baita aldea herri edo ibar batetik bestera. Hona datuak:

–Imozko mendebala: bostak ageri dira (salbu *noaie* eta *doaie* singularreko adizkiak Goldaratzen, nahiz ez diren guztiz ezezagunak)

–Basaburu Nagusiko mendebala: bostak ageri dira (salbu *noaie* eta *doaie* singularreko adizkiak iparraldeko herrietan, nahiz ez diren guztiz ezezagunak)

–Larraun: hego-ekialdean, lau ageri dira (salbuespen dira *noaie*, *goaie* eta *doaie* singularreko adizkiak), eta, ipar-mendebalean, bakarra (-*on* bukaera)

–Araitz-Betelu: bakarra ageri da (-*on* bukaera)

–Basaburu Txikia: lau ageri dira (salbuespena da instrumentaleko -*s* morfema)

–Leitza eta Areso: bakarra ageri da (-*on* bukaera)

–Goizueta: hiru ageri dira (salbuespen dira instrumentaleko -*s* morfema, eta *noaie* eta *doaie* singularreko adizkiak)

–Arano: bakarra ageri da (bigarren pertsona singularreko *y*- morfema)

Beraz, nafarreraren ezaugarriei begira, guztiz nafar ageri zaizkigu Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebala; ia guztiz nafar, berriz, Larraungo hego-ekialdea eta Basaburu Txikia; aski nafarra da Goizueta ere, eta, azkenik, Larraungo ipar-mendebalean, Araitz-Betelun, Leitza, Areson eta Aranon ageri da ezaugarri nafarren kopuru apalena (nafarreraren ezaugarri bakarra dute).

Baina ezaugarri horiek beste eremu batzuetako ezaugarriekin konbinaturik ageri dira, eta, gure ustez, hizkeron kokagunea definitzeko, baitezpadakoa da konbinazio horiei erreparatzea. Hala, Goizuetan eta Basaburu Txikian, nafarreraren ezaugarriez gain, badira Nafarroan ohikoak diren hainbat ezaugarri (Zelaieta 2008: 89-115), eta Bidasoaldearekin bat egiten dute maiz; baina, bestalde, Euskal Herriko erdialdeko beste ezaugarri batzuk ere ageri dira. Aranon eta Areson, berriz, ezaugarri nafar gutxiago ageri da, eta Euskal Herriko erdialdeko gehiago (Zubiri eta Perurena 1998, Olano 1998). Batez ere Goizuetan, Basaburu Txikiko mendebalean eta Leitzan, Nafarroako mendebaleko eremu txikiko ezaugarriak ere ageri dira (ikus 9.2.7.).

Gure eremura etorritik, Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebalean (Etxaleku-Gartzaron lerrotik mendebalera), bost ezaugarri nafar eskusiboekin batera, nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiko hainbat ezaugarri ageri da, nahiz ez ekialdeko (Etxaleku-Gartzaron lerrotik ekialderako) herrietan bezainbeste (ikus 9.2.2.). Bestalde, Euskal Herria bitan (alegia, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria / erdialdea eta mendebala) banatzen duten ezaugarri supradialektaletan, ekialdearekin baturik dakusagu Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebala gehien-gehienean (ikus 9.2.3). Mendebaleragoko eragina ere nabari da, ordea, Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebalean (Euskal Herriko erdigune zabaleko ezaugarriak dira batik bat; ikus 9.2.5.), baina eremu horretako —Euskal Herriko erdiguneko— ezaugarri batzuk falta dira, Larraunen eta Araitz-Betelun badirenak: alegia, Imotzen eta Basaburu Nagusian, apalagoa da Euskal Herriko erdiguneko eta mendebaleko ezaugarrien eragina. Azkenik, Nafarroako mendebaleko ezaugarriak ere badira Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebalean (ikus 9.2.7.). Horra, bada, Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebalean ageri diren hizkuntza-ezaugarrien konbinazioa.

Gorago esan bezala, ez gaude ziur azpieuskalki bat osatzeko adina baldintza betetzen ote duten Nafarroako mendebaleko hizkerak, baina ezin uka daiteke hainbat ezaugarri partekatzen dutenik: batetik, badituzte nafarreraren ezaugarri eskusiboak, nahiz baden aldea hizkera batetik bestera; bestetik, badituzte Nafarroako mendebalekotzat jo ditugun ezaugarriak; eta, azkenik, agerian dago Euskal Herriko erdialdeko (eta mendebaleko) hizkeren eragina, nahiz ez hein berean hizkera guztietan. Horiexek dira Nafarroako mendebaleko hizkeren ezaugarri nagusiak. Hortik aurrera, konbinazio bat baino gehiago ageri dela ikusi dugu: Bidasoaldeko ezaugarriak badira Goizuetan edota Basaburu Txikian, eta nafarreraren erdiguneko azpieuskalkikoak, berriz, Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebalean.

Euskal Herriko erdialdeko euskararen eragina Nafarroako mendebal osoan sumatzen dela esan dugu, baina horretan ere bada aldea bazter batetik bestera. Hain zuzen, ezaugarri nafar eksklusibo gutxien ageri den hizkeretan da agerikoen erdialdearen eragina: Areson, Aranon, Larraunen (ipar-mendebalean batez ere) eta Araitz-Betelun. Gure eremuaren baitan diren Larraun eta Araitz-Betelu ibarrei erreparatuz, badituzte Nafarroako mendebaleko ezaugarriak, baina nafarreraren ezaugarri gehienak falta dituzte (baita nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiarenak ere), eta, gainera, Imotz eta Basaburu Nagusia ibarrekin alderaturik, ezaugarri kopuru hazia(goa) bildu dute Euskal Herriko erdialdeko euskaratik. Horregatik, bereiz aztertuko ditugu hurrengo atalean.

10.3. Erdialdeko euskararen eragina: Larraun eta Araitz-Betelu

Erdialdeko euskararen eragina nabaria da aspalditik Euskal Herriko hainbat lekutan. Azken urteotan, gainera, eragin hori bereziki nabaria da herriko euskara ahuldurik suertatu den alderdietan. Esate baterako, Nafarroa Behereraino iritsi da Euskal Herriko erdialdearen isuria, bai azpiegituren bai hizkuntzaren aldetik; izan ere, ekialdean ez dago, gaur egun, harreman-sare eraginkorrik, eta, beraz, urria da handik heldu den eragina (Camino 2009b: 165):

Euskal Herriko ekialdeko eremu honen hizkuntza-erakarpena ahulagoa da egun baxenabartarrentzat. Euskal Herriko erdiguneko tasun linguistikoak ekialderat datoz, Arberoa eta Amikuzen gaindi, lehen baino hein handiagoan, joera horri ekialde honek hizkuntzaren aldetik lehen zeukan indarrak eta galgarik egun ezartzen ez diolako; izan ere, jendez, lanez, biziz eta *uskaraz* husten ari da egun ekialde hau, ez du bilgune gisa edo baturik jokatzeko indarrak eta eraginik, zatiturik dago: Baiona, Donapaleu, Oloroe, Pabe edo Iruñea dira bilgune ekonomiaren aldetik; ez dugu esan nahi batere gabe gelditu direnik, baina lehengo aldean, erlatiboki indar ekonomiko eta demografiko gutiago dute Maulek eta Zuberoak.

Hain zuzen, erdialdeko euskararen —Gipuzkoakoan, bereziki— oinarriturik eraikia da euskara estandarra, eta harrezkero areagotu egin da eremu horretako eragina bazter guztietan. Baina euskara batua hedatu aurretik etorria da, nolana ere, Euskal Herriko erdialdeko euskararen eragina. Gogoan dugu Larramendiren lanetatik aurrera euskara giputzak hartu zuen haizaldia eta indarra, eredu bilakatu baitzen. Batez ere literaturaren eta Elizaren bitartez, Gipuzkoako euskarak goraldi nabarmena izan zuen Euskal Herrian, eta horrek arrastoa utzi zuen hizkuntzan ere.

Aurreko atalean esan dugunez, Nafarroako mendebal osoan sumatzen da eragin hori. Gure eremuari dagokionez, esparru osoan badira Euskal Herriko erdialdeko eta are mendebaleko ezaugarriak (ikus 9.2.4. eta 9.2.5.), baina alderdi horretako ezaugarri kopuruak gora egiten du nabarmen Larraunen eta Araitz-Betelun. Horregatik, Larraun eta Araitz-Betelu Imoztik eta Basaburu Nagusitik bereiz paratu beharrak direla uste dugu, ez baitira nafarreraren baitako bete-beteko hizkerak. Izan ere, batetik, nafarreraren ezaugarri eskusibo gehienak falta dituzte (salbu Larraungo hego-ekialdeak), baita nafarreraren beste eremu batzuetako ezaugarriak ere; bestetik, ezaugarri sorta handikoa bildu dute Euskal Herriko erdigunetik eta mendebaletik, nahiz ezaugarri supradialektalak diren, ez definitzaileak; nolana ere, aldi berean, eremu horretako ezaugarri asko falta dituzte.

Erdialdeko euskalkia zail da definitzen, erdigunean egonik ez baitauka ezaugarri eskusibo askorik; Gipuzkoaren eta Nafarroaren artean ez dago isoglosa askorik, eta, horregatik, Araitz-Betelu eta Tolosaldeko hegoaldeko herriak ez daude elkarrengandik oso urruti hizkerari dagokionez. Ezaugarri gutxitan saihesten da Araitz-Betelu alderdi horretatik, baina ezaugarri horiek euskara giputzaren ezaugarri definitzaileak dira: gogoan ditugu, besteak beste, “edun” aditzaren *-e-* erroa, “izan” aditzaren *-e-* erroa edota “joan” aditzaren *nijoa*, *dijoa* eta *dijoaz* adizkiak. Gainera, Tolosaldean eta Goierrin ohikoak diren hainbat ezaugarri ere falta da Araitz-Betelun, hala nola ablatiboko *-tio* (*oaindio* aditzondoa da salbuespen bakarra), *-a-*dun adizki pleonastikoak datiboan (*dioa* ‘die’, eta abar), edota *zare* ‘zaude’, *gare* ‘gaude’ saileko adizkiak “egon”-en forma trinkoetan; eta baita Euskal Herriko erdialdean eta mendebalean hedatutako beste batzuk ere (*dan* eta *dala* formak, esate baterako). Badakigu ezaugarri horietatik batzuk ezagunak direla Araitz-Betelun (“edun” eta “izan” aditzen *-e-* erroa, *nijoa* erako adizkiak edota *dan* eta *dala* formak), hango hiztun batzuek bai baitute aldaera giputzak erabiltzeko joera, baina ezin esan dugu hango hizkeraren ezaugarri direnik, ez une honetan behinik behin. Nolanahi ere, euskara giputzarekiko zaletasuna eta horrenbestez Euskal Herriko erdialdeko formak erabiltzeko joera agerikoak dira Araitz-Betelun.

Gainera, historian zehar izandako harreman sozioekonomikoek zein gaur egungoek agerian uzten dute Larraunek eta bereziki Araitz-Beteluk lotura berezia izan dutela Gipuzkoarekin —Tolosaldearekin, batez ere—, elkarren muga-mugan dauden heinean eta Tolosa erakargune indartsua (izan) den heinean (ikus 2.4. eta 2.5.).

Imotzen eta Basaburu Nagusian ere bildu da Euskal Herriko erdialdearen eragina, Iruñea-Tolosa ardatzean kokaturik dauden heinean, baina harremana askoz ere lausoagoa izan da, azalekoagoa. Horregatik, aurreko atalean esan dugunari jarraituz, Imotz eta Basaburu Nagusia nafarreraren baitan kokatu beharrak direla iruditzen zaigu, Larraundik eta Araitz-Betelutik bereiz. Zalantza dugu Larraungo hego-ekialdearekin; izan ere, nafarreraren bost ezaugarri eksklusiboetatik lau ditu hango euskarak, eta, gainera, nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiaren ezaugarri batzuk ere iritsi dira eremu horretara, baina hango hizkera hainbat ezaugarritan saihesten da Imozko eta Basaburu Nagusiko hizkeretatik, Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaleko ezaugarri gehiago dituen heinean (ikus 9.2.4. eta 9.2.5.). Nolanahi ere, Larraungo hego-ekialdea eta Imotz-Basaburu Nagusia elkarrengandik bereizten dituzten Euskal Herriko erdialdeko ezaugarriak supradialektalak dira; hortaz, betiere gogoan izanik ezaugarri supradialektal horiei begira Larraungo hego-ekialdea Imotz-Basaburu Nagusia baino erdialdekoagoa dela, euskara nafarraren ezaugarri eksklusibo ia guztiak (bat izan ezik) eta euskara nafarraren erdiguneko azpieuskalkiko beste batzuk izatea aski baldintza iruditzen zaigu Larraungo hego-ekialdea ere euskara nafarraren baitan kokatzeko, Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebalarekin batera.

Alegia, honelako barne-banaketa dakusagu guk gure eremuan: alde batera daude Imozko mendebala, Basaburu Nagusiko mendebala eta Larraungo hego-ekialdea, euskara nafarraren baitan, eta beste alde batera daude, aldiz, Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu, euskara nafarretik kanpo. Bestalde, bi multzoon artean batera eta bestera ageri dira Goldarazko eta Basaburu Nagusiko iparraldeko hizkerak —Beruete, batez ere—: Goldaratzek Larraungo eragina bildu du, eta Beruetek, berriz, Larraungoa eta are Basaburu Txikikoa; tarteko hizkerak dira.

Baina erdialdeko euskalkian kokatu behar ote dira Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu? Horrek esan nahiko luke eremu horretan erdialdeko euskalkiaren ezaugarri eksklusibo nagusiak ageri direla, baina ez da halakorik. Lehenago ere esan dugunez, ezaugarri eksklusibo gutxi ageri da erdialdeko euskalkian. Zuazok, esate baterako, bi ezaugarri aipatu ditu (2008: 141):

1. [x] ahoskera
2. *Al* galdera-partikula

Egia esan, Euskal Herriko erdialdeko euskalkiko eta mendebaleko euskalkiaren —garai bateko bizkaieraren— ekialdeko ezaugarria da [x] ahoskera, nahiz erdialdetik hedatua dela irudi duen. Edonola ere, bi ezaugarriok ageri dira bai Larraunen bai Araitz-Betelun (eta baita, salbuespenak salbuespen, Imotzen eta Basaburu Nagusian ere).

Erdialdeko euskararen atal nabarmena osatzen du euskara giputzak, eta hiru ezaugarritan bereizten da nagusiki (Zuazo 2008: 144):

1. “Edun”-en *-e-* erroa
2. “Izan”-en *-e-* erroa
3. *nijoa*, *dijoa* eta *dijoaz* erako adizkiak “joan” aditzaren forma trinkoetan

Ezaugarri horiek ezinbesteko baldintza dira hizkera bat giputzat jotzeko, baina halakorik ez dago ez Larraunen ez Araitz-Betelun, nahiz eta, lan honetan behin baino gehiagotan adierazi dugunez, ezaugarri horiek ez diren guztiz ezezagunak Araitz-Beteluko euskarari; ez dira, ordea, bete-beteko ezaugarriak, hiztun gehienek giputzak ez diren formak erabiltzen baitituzte. Beraz, momentuz, ez dugu argudio sendorik ikusten Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu erdialdeko euskararen baitako hizkeratzat hartzeko: hizkera bat euskalki batean sailkatzeko, baitezpadakoa da hizkera horrek gutxienez euskalki horren ezaugarri eksklusiboak biltzea, eta baldintza hori ez dute betetzen ez Larraungo ipar-mendebalak ez Araitz-Beteluk.

Baina, gorago ere esan dugunez, Euskal Herria bitan banatzen duten ezaugarri supradialektalei begira, Larraunek eta Araitz-Beteluk nabarmen egiten dute mendebalera, eta Nafarroako ekialderagoko hizkeretatik saihesten dira, horrenbestez (ikus 9.2.4., 9.2.5. eta 9.2.6.). Gainera, aspalditik heldu den joera delakoan gaude, Gipuzkoako eta Bizkaiko testu zaharretan ageri diren ezaugarri batzuk ere ageri baitira Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun, hala nola *negoan* eta *zegoan* aditz-formak, edota *zaku* & *zitzakun* erako adizki datiboak. Gauza ageria da ekialdeko ezaugarriak atzera eta mendebalekoak aurrera egiten ari direla: oraindik orain instrumentaleko *-s* morfemaren edota geroaldiko *-en* morfemaren adibideak entzun daitezke Larraungo ipar-mendebalean, baina *-z* eta *-go* nagusitzen ari dira ia osotara.

Bestalde, Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu nafarreratik kanpo eta Euskal Herriko erdialdeko euskalkiaren baitan kokatzeak esan nahiko luke hango euskarak lotura handiagoa duela Errenteriarekin, Oriorekin, Azpeitiarekin edota Urretxurekin, Nafarroako beste eremu batzuekin duen baino; Albiasu eta Beramendi hizkuntzaren aldetik urrutiago leudeke Albiasu eta Andoain dauden baino, esate baterako; eta horrek ez du errealitatea islatzen.

Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu ez daude, beraz, Euskal Herriko erdialdeko beste hizkera batzuen dinamika berean: batetik, erdialde horretako ezaugarri eskusiboak falta dituztelako; bestetik, erdialdeko euskalkiko beste ezaugarri batzuk ere falta dituztelako (Tolosaldekoak, Goierrikoak); eta, azkenik, Nafarroako mendebaleko ezaugarriak (ikus 9.2.7.) badituztelako, euskara nafarraren ezaugarri eskusibo bat ere badutela (-*on* bukaera) ahaztu gabe. Baina egia da, halaber, Gaintzako eta Amezketako hizkerak elkarrengandik hurbilago daudela Gaintza eta Ultzamako edozein herri dauden baino: Gaintzaren eta Amezketaren artean badira desberdintasun nabariak, euskara giputzaren ezaugarri bereizgarriak falta baitira Gaintzan —nahiz ez diren guztiz ezezagunak—, baina beste ezaugarri batzuetan bat egiten dute bi herriok (nagusiki Euskal Herriko ekialdea eta mendebala bereizten dituzten ezaugarri supradialektaletan), eta, aitzitik, Ultzamarekin alderatuz, ohartuko gara nafarreraren eta nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiaren ezaugarriak falta direla Gaintzan, eta ekialdea eta mendebala banatzen dituzten ezaugarrietan ere jokabide desberdina izan dutela bi eremuok. Garbi dago, beraz, Araitz-Betelu eta orobat Larraungo ipar-mendebala ez daudela gainerako hizkera nafarren dinamika berean.

Horregatik, Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu nafarreraren eta erdialdeko euskalkiaren zubi-hizkeratzat hartzea iruditzen zaigu egokiena, argi utzirik Euskal Herriko erdialdetik asko dutela baina ez daudela euskalki horretan bete-betean sarturik. Azken batean, hizkuntza-ezaugarrien konbinazioaren ikuspegitik, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun badira nafarreraren eta erdialdeko euskalkiaren ezaugarriak, baina baten zein bestearen ezaugarri asko falta dira aldi berean; bestalde, ezin ahaztu dugu Nafarroako mendebaleko ezaugarriak ere badituztela eta horrenbestez badutela lotura Imotz, Basaburu Nagusia, Basaburu Txikia, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranorekin.

10.4. Gure eremuko lau ibarretako hizkeren kokapena: gure proposamena

Aurreko ataletan esan dugunari jarraituz, honako banaketa hau proposatu nahi dugu gure eremuko hizkerak kokatzeko. Lehenik, hizkuntza-muga nabaria dago Etxaleku-Gartzaron lerroaren bi aldeetara, baina bi aldeok elkarrengandik banatzen dituzten ezaugarriak ez dira euskalki-mailakoak, azpieuskalki-mailakoak baizik: nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiaren baitan dakuskigu lerro horretatik ekialderako herriak (Ultzama, Atetz, Odieta, Anue, Txulapain, Arakil eta Itza ibarrekin batera), eta azpieuskalki horretatik kanpo, berriz, gainerakoak. Hain zuzen, nafarreraren erdiguneko azpieuskalkian txertatzeko bi baldintza ezinbestekoak betetzen dituzte Etxaleku-Gartzaron lerrotik ekialderako herriek: batetik, badituzte nafarreraren ezaugarri eskusiboak, eta, bestetik, badituzte erdiguneko azpieuskalkiaren berezko ezaugarri nagusiak. Horrez gain, Euskal Herria bitan banatzen duten ezaugarri supradialektalei dagokienez, gehien-gehienean ekialdearekin bat eginik ageri zaizkigu herri horiek.

Bigarrenik, lerro horretatik mendebalerako hizkeretan, dena ez da bat. Hala, honako ezaugarri-konbinazio hau ageri da Imozko mendebalean, Basaburu Nagusiko mendebalean eta Larraungo hego-ekialdean: batetik, nafarreraren ezaugarri eskusibo guztiak ageri dira (Larraungo hego-ekialdean, Goldaratzen eta Berueten, *noaie* eta *doaie* singularreko adizkiak falta dira, baina nafarreraren bost ezaugarriak ageri dira gainerako herrietan); bestetik, nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiaren ezaugarri ugari ere badira —nahiz ez Gartzaron-Etxaleku lerrotik ekialdera bezainbeste—, batez ere Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebalean; gainera, Euskal Herria bitan banatzen duten ezaugarri supradialektalean, ekialdearekin batera ageri zaizkigu gehien-gehienean —Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebala batez ere—, baina Euskal Herriko mendebaleko eta erdialdeko ezaugarri zenbait ere badela ahaztu gabe; eta, azkenik, Nafarroako mendebaleko ezaugarri bereizgarriak ere ageri dira eremu horretan (ikus 9.2.7.). Euskara nafarraren eta euskara nafarraren atal batzuetako hizkeren ezaugarriak badituzten heinean, iruditzen zaigu euskara nafarraren baitan kokatu beharrak direla Imozko mendebala, Basaburu Nagusiko mendebala eta Larraungo hego-ekialdea. Baina nafarreraren zein ataletan, ordea? Lanean zehar ikusi dugunez, Nafarroako mendebaleko euskarak baditu bere-berezko ezaugarriak, eta badirudi, beraz, baldintza hori aski dela Nafarroako mendebalean azpieuskalki bat badela ondorioztatzeko. Izan ere, hizkera horiek badituzte nafarreraren ezaugarri eskusibo definitzaileak, eta badituzte halaber Nafarroako mendebaleko bederatzi ezaugarri definitzaile. Teorian eta objektiboki, bi baldintza horiek aski lirateke Nafarroako mendebaleko hizkerak azpieuskalki bat osatzen dutela aldarrikatzeko.

Nafarroako mendebaleko gainerako hizkerari erreparaturik, batetik bestera aldea badela ondorioztatu dugu. Hizkera bat azpieuskalki batean txertatzeko, nahitaezko baldintza da euskalkiaren ezaugarriak ere izatea. Nafarroako mendebaleko hizkeren artean, baldintza hori betetzen dute Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebalak, Larraungo hego-ekialdeak, Basaburu Txikiak eta Goizuetak, eta ez dute baldintza hori betetzen Larraungo ipar-mendebalak, Araitz-Beteluk, Leitzak, Aresok eta Aranok. Beraz, Nafarroako mendebaleko ezaugarriak badituzten arren, hondarreko bost eremuak ezin sailka ditzakegu Nafarroako mendebaleko azpieuskalkiaren baitan, ez behintzat bete-betean. Eta zilegi ote da Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebala, Larraungo hego-ekialdea, Basaburu Txikia eta Goizueta azpieuskalki batera biltzea? Badakigu jakin eremu horretan ere dena ez dela bat: Imotzen eta Basaburu Nagusian, nafarreraren ezaugarriez gain, badira nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiaren ezaugarriak ere, Larraungo hego-ekialdea Euskal Herriko mendebalari eta erdialdeari loturik ageri da zenbait ezaugarri supradialektaletan —Imotz eta Basaburu Nagusia baino lotuago betiere—, Goizuetak baditu kidetasunak Bidasoaldearekin, eta, Basaburu Txikiari dagokionez, Nafarroako ipar-ekialdeko azpieuskalkian (Bidasoaldean) kokatu ditu Zelaietak Beintza-Labaien eta Saldias, eta haietatik bereiz, aldiz, Ezkurra eta Eratsun (2008: 115-116, 224)³⁸⁸. Badirudi egokia dela Zelaietak dakarren banaketa³⁸⁹, eta guk ere Bidasoaldeari loturik paratuko ditugu, beraz, Saldias eta Beintza-Labaien, eta Nafarroako mendebalari loturik, aldiz, Eratsun eta Ezkurra. Bestalde, Nafarroako mendebaleko ezaugarriei erreparaturik, hizkera batetik bestera ere bada aldea: esate baterako, hizkera guztietan bada $u > o$ (eta, gainera, Malerrekako Zubietaraino iristen da ezaugarri hori), baina $i > e$ Imotzen falta da; edota diptongoetako eta hiatuotako $eu > iu$, $eo > io$ eta $ea > ia$ bilakabideak falta dira Goizuetan eta Basaburu Txikian.

Nolanahi ere, hizkeratik hizkerara aldea baden arren, Imozko mendebalak, Basaburu Nagusiko mendebalak, Larraungo hego-ekialdeak, Basaburu Txikiko mendebalak (Eratsun eta

³⁸⁸ Zelaietak nafarreratik kanpo kokatu du Goizueta, hango euskara Saldiasen eta Beintza-Labaienen aldean hain nafarra ez dela argudiatu (2008: 90-93). Izan ere, Goizuetan badira Saldiasen eta Beintza-Labaienen ageri ez diren zenbait ezaugarri Euskal Herriko erdialdekoak (eta mendebalekoak) direnak (2008: 91), baina esan beharra dago ezaugarri supradialektalak direla gehienak; bestalde, Saldiasen eta Beintza-Labaienen ezaugarri nafar gehiago dagoela dio Zelaietak (2008: 92-93), baina, salbuespenak salbuespen, ezaugarri horietatik gehienak ez dira nafarreraren definitzaileak. Horregatik, ez dugu guztiz garbi ikusten Goizueta nafarreratik atera behar ote den, baina aitor dugu ez dugula alderdi hori sakonki ezagutzen, eta izango da, beraz, gu baino pertsona egokiagorik halako erabakiak hartzeko.


³⁸⁹ Basaburu Txikiko eta Leitzako hizkerak sakon ezagutzen dituen Bittorio Lizarraga adiskideak berretsi digu Saldias eta Beintza-Labaien alde batera eta Eratsun eta Ezkurra beste batera paratu beharrak direla.

Ezkurra) eta Goizuetak badituzte ezaugarri komunak: euskara nafarraren ezaugarri eksklusiboak (denak edo gehienak), Nafarroako mendebaleko ezaugarri eksklusiboak, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa Garaiko ezaugarri supradialektal zenbait eta, halaber, Euskal Herriko Erdialdeko eta Mendebaleko ezaugarri supradialektal zenbait. Alegia, nafar dira ezaugarri nagusietan, baina nabaria da Euskal Herriko Erdialdeko eta Mendebaleko hizkeren eragina. Horixe da Nafarroako Mendebaleko Azpieuskalkia izendatu dugunaren baitan dauden hizkeren errealitatea.

Azkenik, Erdialdeko euskalkiaren eta nafarreraren —zehatzago, nafarreraren Mendebaleko Azpieuskalkiaren— arteko zubi-hizkeratzat hartu ditugu Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu, eta zaku berean sartzekoak izan litezke, beharbada, Leitza, Areso eta Arano ere. Hain zuzen, euskara nafarraren ezaugarri eksklusibo gehienak falta dira eremu horretan, baita Erdialdeko euskalkiarenak ere; ezin sailkatu ditugu, horrenbestez, ez batean eta ez bestean, ez bete-betean behintzat, akats metodologikoa izango bailitzateke. Nafarroako Mendebaleko ezaugarriak hein handi batean ageri dira eremu horretan —alegia, badituzte azpieuskalkiaren ezaugarriak—, baina euskalkiarenak —nafarrerarenak— falta dituzte, eta ezin hartu ditugu, horrenbestez, nafarreraren baitako hizkeratzat. Azken batean, euskara nafarrean sortutako berrikuntza gehienak ez dira Nafarroako Mendebaleko azken herrietara iritsi —edo galduak dira—, eta horrek adierazten du gainerako hizkera nafarretatik bereiz ibili direla. Erdialdeko euskararen eragina handia da, gainera, alderdi horretan, baina ez daude Euskal Herriko Erdialdeko gainerako hizkeren dinamika berean: hango ezaugarri eksklusibo nagusiak falta dituzte, hango hizkeretan ohikoak diren beste ezaugarri lokalago batzuk ere falta dira, eta, horrez gain, badituzte Nafarroako Mendebaleko ezaugarriak. Baina, aldi berean, Euskal Herriko Erdialdeko eta Mendebaleko ezaugarri supradialektal ugari ageri da, eta eragin hori aspalditik etorria dela erakusten digute beste ezaugarri batzuek ere, hala nola Gipuzkoako nahiz Bizkaiko testu zaharretan ageri diren zenbait aukerak (*zaku* erako adizki datiboak, *negoan* eta *zegoan* adizkiak...).

Hiru eremu nagusi bereizi ditugu, beraz, gure iker-eremuan: Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdea (nafarreraren Erdiguneko azpieuskalkiaren baitan), Imozko eta Basaburu Nagusiko Mendebala eta Larraungo hego-ekialdea (nafarreraren Mendebaleko azpieuskalkiaren baitan), eta Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu (nafarreraren Mendebaleko azpieuskalkiaren eta Erdialdeko euskalkiaren arteko zubi-hizkerak).

34. irudia: Gure eremuko hizkeren banaketa



Baina xehetasun gehiago ere eman daitezke. Joera nagusi eta orokor batzuk hauteman ditugu orain arte; baina, lupa pixka bat hurbilago paratuz gero, ñabardura ugari egin daiteke. Esate baterako, kokapen berezia dute Goldaratz eta Beruete herriek. Izan ere, tarteko hizkerak dira dauden eremuaren baitan: Imotzen eta Larraunen arteko trantsizioa marrazten du Goldaratzek, eta Basaburu Nagusiaren eta Larraunen artekoa, berriz, Beruete (Basaburu Txikiaren arrastoa ahaztu gabe, lexikoan batez ere). Lanean zehar ikusi dugunez, Goldaratz hainbat ezaugarritan saihesten da Imozkotik, eta Larrauni hurbiltzen zaio, eta Beruete ere Basaburu Nagusiko gainerako ezaugarrietatik aldendu eta Larrauni atxikirik ageri zaigu. Ezaugarri fonologiko eta lexikoak dira batez ere; hain zuzen, aski fonologia berezia du Larraungo hego-ekialdeko euskarak (gogoan ditugu *-ii*, *-ee* eta *-uu* bukaerak), eta hango formek oihartzun handia dute Goldaratzek eta Beruete. Azken batean, mikroeremu bat osatzen dute Larraungo hego-ekialdeak, Goldaratzek eta Beruete, hainbat ezaugarri partekatzen dituzten heinean, eremu txikiko ezaugarriak izanik ere. Nolanahi ere, Goldaratzko eta Beruete euskara ez da guztiz Larraungoaren iduria (esate baterako, *duzte* ‘duzue’ dugu Goldaratzek, eta *dozii* ‘duzue’ erakoak, berriz, Larraungo hego-ekialdean); horregatik diogu tarteko hizkerak direla.


Mendebalerantz eginez, eremu eta hedadura txikiko ezaugarri gutxi batzuk identifikatu ditugu Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun, gure eremuko gainerako hizkeretan falta direnak: 1) *-ara*, *-era* adlatiboko atzizki berranalizatuak (ikus 8.3.10.), 2) nor-nori-nork saileko adizkietan, *-a-* erroa (ikus 8.4.7.), 3) adizki trinkoen iraganeko *-ea-* (ikus 8.4.16.), eta 4) *negoan* eta *zegoan* adizkiak (ikus 8.4.18.). Adizki zaharrak dira *negoan* eta *zegoan*, Gipuzkoako eta Bizkaiko testu zaharretan usu agertzen direnak, baina hango hizkeretan galduak direnak; Leitzan, Ezkurran eta Eratsunen ere erabiltzen dituzte, baina ez dirudi beste ezein hizkeratan ageri direnik. Zaharra dirudi, halaber, trinkoen iraganeko *-ea-* ezaugarriak; ez da ageri inguruko hizkeretan, baina bada Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun. *dazkio* erako adizkiei dagokienez, Leitzan ere badira, eta badirudi Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun sortutako berrikuntza dela *leioara* gisako forma berranalizatuak erabiltzea. Lau ezaugarriok ez dute garrantzi handirik sailkapen orokorrerako, baina lagungarri dira eremu txiki bateko hizkerak definitzeko (Larraungo ipar-mendebala, Araitz-Betelu, Leitzan); beste ezaugarri batzuetan ere bat egiten dute hizkera horiek, nahiz ez guzti-guztietan, eta, besterik gabe, beste mikroeremu bat eratzen dutela gaineratu nahi dugu.

Ezaugarrien hedadura geografikoaren araberako banaketa gauzatu dugunean (ikus, bereziki, 9.2. atala), ohartu gara zail dela ezaugarri guztiak modu zurrunean multzoka sailkatzea, ia gauza ezina baita hedadura berbera duten bi ezaugarri topatzea. Nolanahi ere, joera orokorreari begiratu, aski multzokatze egokia eta koherentea atera zaigulakoan gaude. Baina oraingoan ere lupa pixka bat gehiago jaitziz gero eta xehetasunei erreparatu gero, ohartuko gara zenbait ezaugarri ere mikroeremuak eratzen dituztela. Esate baterako, Imotzen, Basaburu Nagusian, Goizuetan, Gulibarren eta ekialdeko Arakilen ageri da *duzte* adizkia. Hain zuzen, badira eremu horretako hizkerek partekatzen dituzten beste ezaugarri batzuk, baina ez dago, ordea, soilik hizkera horietan ageri den beste ezaugarririk, *duzte* formaz beste. Baina ez diogu, ez horratik, datu horri ezikusiarrena egin; izan ere, datu horrek agerian uzten du 9.2. atalean definitu ditugun dinamiketan mugitzeaz gain beste dinamika batzuetan ere mugitu direla Imotz eta Basaburu Nagusia. Ez dakigu berrikuntza horren fokoa nagusia zein izan ote zen; Irurtzun aldean hedatutako berrikuntza baten aurrean gaude, eta beharbada ildo horretatik jo beharko genuke ezaugarri horren nondik-norakoak ezagutzeko, baina ez gaude guztiz ziur. Nolanahi ere, hizkera horiek ezaugarri horretan bat egitea ez da batere kontu hutsala, gure ustez.

Ezaugarriek eratzen dituzten mikroeremuen beste adibide bat badugu gure eremuan. Hain zuzen, diptongoetan gertatzen diren *eu > iu*, *eo > io* eta *ea > ia* asimilazio eta disimilazioak (ikus 8.1.8.) Imotzen, Basaburu Nagusian eta Sakanan ageri dira (Larraunen eta Araitz-Betelun, indar apalagoa dute); horra Irurtzun aldean eratu den beste mikroeremu bat.

Horrekin guztiarekin erakutsi nahi dugu, euskalkiak, azpieuskalkiak edo hizkerak sailkatzen hasten garenean, nahi adina xehetasun eman daitekeela eta horren arabera makroeremu, eremu eta mikroeremu anitz aterako zaizkigula. Betiere, eremu bakoitza definitzeko hautatzen ditugun ezaugarriek balio dialektologikoa izango badute, ezaugarriok koherentzia geolinguistikoa erakutsi behar dute elkarren artean, eta dialektologialariak erne eta fin ibili behar du horrenbestez.

35. irudia: Euskara nafarraren azpieuskalkiak



11. ONDORIOAK

11.1. Gure eremua aztertzearen garrantzia

Nafarroako ipar-mendebaleko euskara aztertzea izan da tesi honen helburua. Euskal dialektologian, ezezagun samarra izan da eremu hori orain arte, eta horretan behinik behin pauso bat aurrera egin dugulakoan gaude. Batez ere Ibarren lanei esker, bagenekien zerbait Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretako hizkerez, baina hutsune handia zegoen Larraungo eta Araitz-Beteluko euskarari dagokionez. Hizkera guztiok xeheki ezagutu, bildu eta aztertu ditugu; betea da, hortaz, eremu horretako hizkuntza-datuoen hutsunea. Datuon azterketa dialektologikoa egin dugu guk, baina ikergaia ez dago agorturik, eta bildutako informazioa etorkizunean beste ikerketa batzuk egiteko baliagarri izatea nahiko genuke.

Gure eremua osatzen duten lau ibarretako hizkuntza-datuak bildu ditugu batez ere, baina inguruko herrietako datuak ere baliatu ditugu; zenbaitetan, gerok jaso ditugu datuok, eta, beste zenbaitetan, beste biltzaile batzuek jasotako datuak erabili ditugu. Azken batean, dialektologiaren ildo kontrastiboa aintzat hartuz lan egin dugu, baitezpadakoa baita, hizkera baten azterketa dialektologiko egokia egiteko, aldameneko hizkerak ere ezagutzea eta aintzatestea. Hala, Ultzamako, Atezko, Basaburu Txikiko, Leitzako, Aresoko, Txulapaingo, Arakilgo, Gulibarko eta Tolosalde hegoaldeko mintzoak uneoro izan ditugu gogoan, gure eremuan ageri diren hizkuntza-ezaugarriak mintzo horietan badiren edo ez ikusteko, eta baita mintzo horietan gure eremuan ageri ez den ezaugarriak baden edo ez ikusteko ere.

Iruñea-Tolosa ardatzean kokatuta daude gure eremuko herriak, Euskal Herriaren erdigunean, eta kokagune horrek guztiz baldintzatu du herrietako biztanleen bizimodua, eta, horrekin batera, baita hizkuntza ere. Iruñea eta Tolosa lotzen zituen bide zaharrak salerosketa-harreman ugari bideratu zituen Erdi Arotik hasita, eta bide horretan gora eta behera ibilitako bidaiari eta merkatariek arrastoa utzi dute gure eremuan.

Gure eremuko hizkerek beste hizkera nafar batzuk eta baita hizkera giputzak ere izan dituzte aldamenean, eta, izatez hizkera nafarrak badira ere, Gipuzkoa aldeko hizkuntza-ezaugarrien eragina nabaria da hango mintzoetan. Bidegurutzean dira, nolabait esateko, tesi honetan aztergai izan ditugun lau ibarrak. Dialektologikoki, beraz, arras interesgarria da erdigune linguistikoko hori

aztertzea, alde bateko zein besteko eraginak zenbaterainokoak izan diren neurtzeko aukera ematen baitu.

Ildo horretatik, hainbat ikertzailek gure eremuan ezarri dituzte zenbait euskalkiren edota azpieuskalkiren mugak. Bonapartek berak iparraldeko goi-nafarreran sailkatu zituen ikergai izan ditugun lau ibarrak: batetik, Imoztik hegoaldera ikusi zuen iparraldeko goi-nafarreraren eta hegoaldeko goi-nafarreraren arteko muga, eta, bestetik, Araitz-Beteluko mugetan ikusi zuen iparraldeko goi-nafarreraren eta gipuzkeraren arteko marra. Berrikiago, Zuazok gure eremuaren baitan kokatu du euskara nafarreraren eta erdialdeko euskararen arteko marra —Muskitzen, hain zuzen—, nahiz eta, gaur egungo dialektologiaren ideiei jarraituz eta Bonaparteren dialekto-muga zurrun eta zorrotzei buruzko ideia gaingintuz, dialektoen artean trantsizio-guneak badaudela nabarmendu duen; hain zuzen, trantsizio-gunetzat jo ditu Imotz —salbu Muskitz— eta Basaburu Nagusia, gaur egun erdialdeko euskalkiari begira daudela nabarmendurik.

Ezin ukatua da, beraz, gure eremua aztertzearen interesa. Alde batetik, orain arteko dialektologian aski ezezaguna izan den eremu bateko euskara ezagutzera emateko aukera izan dugulako, herriz herri hango mintzoak entzuten eta biltzen eman dugun denborari esker. Bestetik, dialektologiaren muinean bete-betean murgiltzea ekarri digulako: erdiguneko hizkerak aztertzeak dakartzan zailtasunez jabetu gara, horretaz hausnartu dugu, eta hizkera horien azterketa dialektologikoa egin dugu, gure ustez gure helburuetara hobekien egokitzen den metodologia eta irizpideak baliatuz. Izango dira, zalantzarik gabe, hobetu beharreko arloak, baina gaiaren gaineko ikuspegi berri bat ekarri dugu tesi honen bitartez.

11.2. Dialektologia eta beste ikergai batzuk uztartu beharra

Gaur egun, ezin ulertu dugu dialektologian jardutea beste diziplina batzuk aintzat hartu gabe. Dialektologiak dialektoak ikertzea du xede, baina dialektoak hiztunek erabiltzen dituzte, eta hiztuna erabat lotuta dago bere ingurune sozialari. Horregatik, dialektoak aztertzeak beste hainbat arlo ere aztertzea dakar ezinbestean. Ikergaia zenbat eta gehiago zabaldu, orduan eta zehatzago eta sakonago egingo dugu azterketa dialektologikoa bera ere.

Gure ikerketan, hizkuntza-kontuez haratago, beste eragile soziogeografiko batzuk ere aztertu nahi izan ditugu, eta ondorio nagusia da bat egiten dutela dialektologia eginez erdietsi ditugun

ondorioek eta beste alderdi batzuk aztertuz erdietsitakoek. Alegia, dialektologia eta beste ikergai batzuk uztartzeak on dakarkio ikerketari, elkarren osagarri baitira arlo guztiak.

Gorago aipatu dugu kokapen geografikoak nolako garrantzia izan duen gure eremuko herrietako euskarari, baina beste ezaugarri geografiko batzuek ere hainbat argibide eman digute. Esate baterako, Imoztik hegoaldera eta ekialdera euskara aldatzen hasten dela ondorioztatu dugu ikerketa dialektologikoan (zehatzago, Etxaleku-Gartzaron lerroan ezarri dugu nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiaren muga; handik ekialdera eta hegoaldera hedatzen da azpieuskalki hori), eta, ezaugarri geografikoei so eginez gero, ohartuko gara euria ere bakanago egiten duela eremu horretan, handik iparraldera baino euntze gutxiago ageri direla hango paisaian, lurraren jabegoaren egitura ere aldatzen hasten dela, eta abar (ikus 1.1.). Alegia, hizkeren banaketa bat dator ezaugarri geografikoekin.

Datu demografiko eta ekonomikoei begira, lau ibarretako herrietan gero eta jende gutxiago bizi dela ikusi dugu (salbu Lekunberrin): hango jendea beste gune batzuetara joaten da lan egitera, gainbeheran baitira nekazaritza eta abeltzantza, duela gutxi arte jarduera ekonomiko indartsuenak izanik ere. Alegia, beste erakargune batzuk bilatu behar izan dituzte hango biztanleek, eta horrek beste hizkera batzuk ezagutzea eta haiekin harremanetan egotea ekarri du. Demografiak eta ekonomiak, beraz, hizkeren arteko harremanak —eta, azken batean, norabidea— baldintzatu dituzte.

Atal oso bat eskaini diogu harreman sozioekonomikoak aztertzeari. Arretaz aztertu dugu lau ibarretako jendea nondik nora ibili den eta norekin egon den harremanetan, eta ondorioztatu dugu harreman horien guztien isla direla hizkuntza-gertaerak ere. Hala, goldaraztarrek gainerako imoztarrek baino harreman sakonagoa izan dute Larraunekin; Muskitzek harreman berezia izan du Gulibar, Txulapain eta Atetz ibarretako jendearekin; Beruetek ondoko Aldatzekin; Basaburu Nagusiko iparraldeko herriek Basaburu Txikiarekin; Basaburu Nagusiko ekialdeko herriek Ultzama aldearekin; Errazkinek eta orobat Larraungo ipar-mendebaleko herriek Araitz-Betelurekin; eta Araitz-Beteluk Tolosa aldeko gipuzkoarrekin (ikus 2. atala); eta hori guztia hizkuntzan islatzen da.

Oharmen-dialektologiako datuei dagokienez, hiztunen pertzepzioa eta hizkeren banaketa bat heldu direla ikusi dugu. Datuok kontuz aztertu beharrak dira, hiztunak bizitzan izandako

esperientziek eta harremanek baldintzatuta egoten baitira sarri, baina gure eremuan hiztunek hizkeren gainean dituzten usteak aztertzeko egin dugun saioak ekarri digun ondorioa da hiztunen oharmena ere lagungarri izan daitekeela dialektologian.

Azken batean, dialektologiako ikerketa batean, hizkuntza-datuek dute lehentasuna eta garrantzia, baina agerikoa da ikerketa zehatzagoa eta osoagoa izango dela hizkuntza-datuok hizkuntzaz kanpoko datuekin uztartuz.

11.3. Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako euskararen banaketa

Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko hizkerak ez dira linguistikoki homogeenak; horra tesi honen ondorio nagusietako bat. Araitz-Betelu da ibarrik homogeenoa, ez baitago hango herriak banatzen dituen isoglosa nabarmenik; aitzitik, isoglosa nabariak identifikatu ditugu gainerako hiru ibarren baitan, bai fonologian, bai morfologian, bai lexikoan.

Zehatzago, hiru eremu bereizi ditugu Imotzen, beste hiru Basaburu Nagusian, eta bi Larraunen. Imotzen, gainerako herrietatik bereiz ageri dira ertzetako bi herriak: Muskitz eta Goldaratz. Oro har, gainerako herriak baino lotuago ageri zaigu Muskitz Nafarroako erdiguneko hizkerekin eta orobat ekialderagokoekin; izan ere, batetik, han badira Nafarroako erdiguneko eta ekialdeko zenbait berrikuntza, gainerako herrietan ageri ez direnak, eta, bestetik, Muskitza ez da iritsi Euskal Herriko erdiguneko berrikuntza sail bat, eta bai, aitzitik, Imozko gainerako herrietara (ikus 9.1.1.1. eta 8.6.2., cf. Apalauza 2008a: 145-147). Lanean zehar ikusi dugunez, Oskotz eta Etxaleku ere Muskitzi loturik ageri dira maiz. Goldaratz dagokionez, hedadura txikiagoko zenbait isoglosak Imozko gainerako herrietatik bereiz paratzen dute; isoglosa fonologikoak dira batik bat, Nafarroako mendebaleko beste hizkera batzuetan ere hedadura badutenak, hala nola Larraunen, Basaburu Nagusiko iparraldean, Araitz-Betelun, Leitzan, Goizuetan edota Basaburu Txikiko mendebalean (ikus 9.1.1.4., 9.2.7. eta 8.6.3., cf. Apalauza 2008a: 147).

36. irudia: Imotz ibarraren banaketa



Basaburu Nagusian, hiru eremu bereizi ditugu, baina ez dira Imozkoak bezain nabarmenak. Hala, batetik, ekialdeko herriak —Gartzaron, Erbiti eta Orokieta— Muskitzi, Nafarroako erdiguneari eta orobat Euskal Herriko ekialdeari loturik daude hainbat ezaugarritan (ikus 9.1.1.1.). Bestetik, Berueteko euskara ere Basaburu Nagusiko gainerako herrietatik aldentzen da zenbaitetan (baita Arraraskoa eta Igoakoa ere, hein txikiagoan betiere); Goldaratzen kasuan ikusi dugun bezala, batez ere isoglosa fonologikoek bereizten dute Beruete gainerako herrietatik, eta Goldaratzekin, Larraunekin, Araitz-Betelurekin, Basaburu Txikiko mendebalarekin, Leitzarekin edota Goizuetarekin batera paratzen dute horrenbestez (ikus 9.1.1.4. eta 9.2.7.).


37. irudia: Basaburu Nagusia ibarraren banaketa



Azkenik, bi eremu aski garbi ikusi ditugu Larraunen: hego-ekialdea eta ipar-mendebala. Hego-ekialdean dakusagu Albiasu herria, baina badirudi ipar-mendebalerantz egiten ari dela; lexikoan, esate baterako. Nolanahi ere, ezaugarri nagusietan hego-ekialdeko hizkerari loturik dago Albiasu, eta horregatik uste dugu zuzenagoa dela hizkera horiekin batera paratzea. Larraungo bi eremuak banatzen dituzten isoglosak fonologikoak dira batik bat; hain zuzen, hego-ekialdeko herrietan bokal-mugimendu handia dago, eta ezaugarri horiek Goldaratzekin, Basaburu Nagusiarekin eta Nafarroako mendebaleko beste hizkera batzuekin batera kokatzen dute Larraungo hego-ekialdea (ikus 9.1.1.4. eta 9.2.7.). Gainera, ezaugarri fonologiko horiek indar berezia dute Larraungo hego-ekialdean, eta inguruko herrietan ageri ez diren aldaerak sortu dira horrenbestez (bigarren pertsona pluraleko *-zui* eta *-zii* morfemak, edota hirugarren pertsona pluraleko *-i* morfema: *dozui* & *dozii* ‘duzue’, *zaizui* & *zaizii* ‘zaizue’, *dui* & *dii* ‘dute’); halako bokal-ezaugarriek berezitasuna ematen diote, beraz, Larraungo hego-ekialdeko euskarari. Lexikoan ere bada aldea Larraungo bi eremuon artean: oro har, mendebaleragoko hizkeretan (Araitz-Betelu, Leitza, Gipuzkoa) ageri diren zenbait ale lexiko badira Larraungo ipar-mendebalean ere, baina ekialderagoko aukerak baliatzen dituzte hego-ekialdekoetan (ikus 8.6.5.). Nolanahi ere, ezaugarri fonologikoez aparte, Larraun aski homogoneoa da gainerako ezaugarrietan —ezaugarri morfologikoetan, alegia—; oro har, Imotzen eta Basaburu Nagusian ageri ez diren zenbait ezaugarri

ageri dira Larraunen, eta ezaugarri horiek Euskal Herriko erdiguneko eta mendebaleko beste hizkera batzuekin lotzen dute (ikus 9.1.1.2.). Larraunek, beraz, lotura handiagoa du Euskal Herriko erdigunearekin, Imotz eta Basaburu Nagusia ibarrek baino. Larraundik Araitz-Betelura ere bada aldea, ordea; ez dira isoglosa indartsuak, baina Araitz-Beteluk ondoko Gipuzkoara gehiago egiten du Larraunek baino (ikus 9.1.1.3. eta, lexikoan, 8.6.6.). Gainera, Araitz-Beteluri loturik eta Larraundik bereiz ageri da zenbait ezaugarritan Larraungo Errazkin herria; gero eta gehiago, hango hizkerara lerratzen ari da.

38. irudia: Larraun ibarraren banaketa



Alegia, hizkerak ekialdea-mendebala norabidean aldatzen dira gure eremuan: zenbat eta mendebalerago, orduan eta Euskal Herriko erdialdeko eragin handiagoa, eta, alderantziz, zenbat eta ekialderago, orduan eta Euskal Herriko ekialdeko eragin handiagoa.

11.4. Nafarroako mendebaleko euskara: ikuspegi berri bat

Orain arte, batez ere lau azpieuskalki definitu izan dira euskara nafarraren baitan (argibide gehiago 10.2. atalean): ipar-ekialdekoa (Bidasoaldea eta Baztan), hego-nafarrera, erdigunekoa eta hego-mendebalekoa (Sakanako erdialdea). Nafarroaren mendebaleko ertzean dauden hizkerari dagokienez (gure eremuko hizkerak tartean), argitu beharreko auzia zen euskara nafarretik kanpo

ala haren barnean sailkatu behar ote diren, eta, horrez gain, halaber, argitu beharra zegoen, hizkera horiek nafartzat hartuz gero, nafarreraren zein ataletan sailkatu behar ote diren.

Gure eremuko hizkerak sakonki aztertu ondoren, gure ondorioa izan da euskara nafarrean sartu beharrak direla Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraungo hego-ekialdea, eta euskara nafarraren eta erdialdeko euskalkiaren arteko zubi-hizkeratzat jo beharrak direla Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu. Batez ere euskalkien ezaugarri definitzaileetan oinarritu gara erabaki hori hartzeko: Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean, euskara nafarraren bost ezaugarriak ageri dira (salbuespenen bat tarteko), eta Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun, aldiz, ezaugarri horietatik bakarra ageri da. Erdialdeko euskalkiaren ezaugarri definitzaile urriak ere ez dira, ordea, bete-betean erabiltzen Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun, eta ez litzateke metodologikoki zuzena hizkerok erdialdeko euskalkian txertatzea; horregatik, bi euskalkien tarteko hizkeratzat edo zubi-hizkeratzat jotzea iruditu zaigu egokiena.

Baina auzia ez da hor amaitzen. Izan ere, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean, dena ez da bat: Etxaleku-Gartzaron lerrotik ekialderako hizkerak ezaugarri sail bat partekatzen dute, lerro horretatik mendebaleko hizkeren bestelakoa. Hizkuntza-muga nabarmena sumatu dugu lerro horretan; jauzi linguistikoa handi samarra da, baina ez, nolana ere, lerrotik bi aldeetarako hizkerak euskalki banatan sailkatzeko adinakoa: zuzenagoa deritzogu mintzok azpieuskalki banatan paratzea, nafarreraren baitan betiere. Izan ere, lerro horretan aurkitu ditugun ezaugarri banatzaileak ez dira euskalki-mailakoak (bi aldeetara ageri baitira euskalki nafarraren berezko ezaugarriak), azpieuskalki-mailakoak baizik: lerrotik ekialderako herrietan badira Nafarroako erdigunean hedatu diren hainbat ezaugarri, gainerako herrietan ageri ez direnak, eta, aldi berean, lerrotik mendebalerakoetan badira Nafarroako mendebaleko hainbat ezaugarri, gainerakoetan ageri ez direnak. Horrenbestez, azpieuskalkien ezaugarri definitzaileei begira ondorioztatu dugu zilegi dela Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko hizkerak nafarreraren erdiguneko azpieuskalkian txertatzea (Ultzama, Atetz, Odieta, Anue, Txulapain, Arakil eta Itza ibarrekin batera), Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdean bai baitira azpieuskalki horren ezaugarri nagusiak, eta beste azpieuskalki batean barneratzea, berriz, Imozko eta Basaburuko mendebala, eta Larraungo hego-ekialdea (ikus 10. atala). Hain zuzen, eta hemen dator berritasuna, nafarreraren mendebaleko azpieuskalkian txertatu ditugu arestiko hizkera horiek: hizkera horiek, Nafarroako mendebaleko beste hizkera batzuekin batera, badute Nafarroako mendebalekotzat jo daitekeen

ezaugarri sail bat; bere-berezko ezaugarriak dira, eremu horretan sortuak eta eremu horretako eskusiboak (ikus 9.1.1.4. eta 9.2.7.), eta hizkera horiekin azpieuskalki bat osatzeko ahala ematen dute, gure ustez.

Mendebaleko azpieuskalkia egiaz nafarreraren baitako beste azpieuskalki bat ote den zalantza ibili dugu buruan, baina datuek gure proposamena berresten dute: hizkera horiek badituzte euskara nafarraren ezaugarri definitzaileak, eta badituzte, halaber, euskara nafarraren gainerako hizkeretan ageri ez diren beste ezaugarri batzuk; mendebaleko azpieuskalkia definitzen duten ezaugarriak, hain zuzen. Objektiboki, bi baldintza horiek aski dira Nafarroako mendebaleko hizkerak beste azpieuskalki batera biltzeko. Oraingoan, honako hizkera hauek dakusagu azpieuskalki horretan: Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebala, Larraungo hego-ekialdea, Basaburu Txikiko mendebala (Ezkurra eta Eratsun) eta Goizueta. Azpieuskalki horren ezaugarri nagusiak badituzten aldetik, azpieuskalkiaren partaide lirateke, halaber, Larraungo ipar-mendebala, Araitz-Betelu, Leitza, Areso eta Arano; baina euskalki nafarraren ezaugarri nagusiak falta dira hizkera horietan, eta ezin hartu ditugu, horrenbestez, nafarreraren baitako hizkeratzat, eta zubi-hizkeratzat hartu ditugu, dagoeneko aipatua dugun bezala.

Ezaugarri supradialektalek ere gure ikuspegia indartzen dute: Nafarroa eta Ipar Euskal Herria alde batera, eta Euskal Herriko erdialdea eta mendebala beste batera jartzen dituzten ezaugarri hautatuei begira, ekialdeari loturik ageri dira Imotz eta Basaburu Nagusia (eta, zenbaitetan, baita Larraungo hego-ekialdea ere), eta mendebalari loturik, aldiz, Larraun eta Araitz-Betelu. Horrek areago indartzen du Araitz-Betelu eta Larraungo ipar-mendebala zubi-hizkeratzat hartzearen ideia.

Honetan datza, beraz, nafarreraren mendebaleko azpieuskalkia osatzen duten hizkeren ezaugarri-konbinazioa: batetik, badituzte euskara nafarraren bost ezaugarri definitzaileak; bestetik, badituzte Nafarroako mendebaleko zenbait ezaugarri definitzaile; eta, azkenik, ekialdeari begira daude Euskal Herria bitan banatzen duten ezaugarri supradialektaletan, nahiz baden Euskal Herriko erdialdeko hizkeretarako isuria ere. Jakitun gara, ordea, auzia itxi gabe dagoela oraindik: batetik, Basaburu Txikia ez dugu behar bezala ezagutzen, eta, bestetik, ezta Malerrekako hegoaldeko herriak ere (Zubieta). Baliteke, hizkera horiek guztiak behar bezala ezagututa eta aztertuta, mendebaleko azpieuskalkia deitu dugunaren mugak aldatu behar izatea, baina etorkizuneko lanek erabakiko dute hori.

Nafarroako mendebaleko zubi-hizkerari dagokienez, erdialdeko euskalkiaren eta euskalki nafarraren tarteko hizkerak dira Larraungo ipar-mendebala, Araitz-Betelu, Leitza, Areso eta Arano: bi euskalkion ezaugarri definitzaile gehienak falta dituzte, baina, bestalde, badituzte Nafarroako mendebaleko ezaugarri definitzaileak, eta mendebalerantz egiten dute Euskal Herriko ekialdea eta mendebala banatzen dituzten ezaugarri supradialektaletan. Azken batean, erdialdeko euskalkitik hurbilago daude gainerako hizkera nafarrak baino.

Horra, beraz, gure azter-eremuan dakusagun banaketa: batetik, Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdea (nafarreraren erdiguneko azpieuskalkian); bestetik, Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebala, eta Larraungo hego-ekialdea (nafarreraren mendebaleko azpieuskalkian); eta, azkenik, Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu (nafarreraren mendebaleko azpieuskalkiaren eta erdialdeko euskalkiaren arteko zubi-hizkerak).

Aldaketak gradualki gauzatzen direla aipatu dugu behin eta berriz lan honetan. Halaxe dakusagu guk kontua; euskara aldatuz doa ekialdea-mendebala norabidean, baina aldaketa graduala da betiere. Gradueltasun horretan, giltzarri diren bost herri identifikatu ditugu gure eremuan: Muskitz (Atetz, Ultzama, Gulibar, Txulapain, Arakil eta Itza ibarren, eta Imotzen arteko trantsizioa irudikatzen du), Goldaratz (Imotzen eta Larraunen tarteko hizkera da), Beruete (Basaburu Nagusiaren eta Larraunen tartekoa), Albiasu (Larraungo bi eremuen trantsizioa marrazten du) eta Errazkin (Larraun eta Araitz-Betelu ibarren tarteko hizkera, gero eta gehiago Araitz-Betelurantz lerratua).

Nafarroako mendebaleko euskararen gainean argi pixka bat egitea izan da gure asmoa; proposamen bat ekarri dugu, ikuspegi bat, baina ikergaia ez da amaiturik. Etorkizuneko lanek gure proposamena osatzen —eta zuzentzen— eta areago finkatzen lagunduko dute; oraindik ere ez ditugu behar bezala ezagutzen gure eremuaren ingurumarian diren zenbait hizkera (Basaburu Txikia, muga nafarraren ondoko hizkera giputzak, eta are Malerrekako hegoaldea), eta guztiok ezagutzeak Nafarroako mendebaleko hizkeren gaineko ikuspegia zabaltzen eta zehazten lagunduko du, ezbairik gabe.

11.5. Gure eremuko hizkeren etorkizunaz

Gure eremuko herrietan bizirik den euskara biltzea eta aztertzea izan dugu xede; aldaera estandarren eta gaztelaniaren eraginetik ahalik eta urrutien dagoen mintzo dialektala, hain zuzen. Hainbat ikertzailek aipatu izan dute dialektologiak ez lukeela arkeologiarik egin behar; alegia, dialektologiaren helburua ez da galtzear diren hitz, aldaera eta hizkuntza-egitura ihartuak biltzea. Aitzitik, gaur egungo egoera islatu beharko luke ikerketa dialektologiko batek (iraganekoa ahaztu gabe betiere), eta gu ere horretan ahalegindu gara.

Badakigu jakin herri-hizkerak aldatzen ari direla, bai gure eremuan bai besteetan ere; toki batzuetan, nabariagoa da aldaketa, eta, horrez gain, hizkera guztiak ez dira modu berean aldatzen, baina aldatu denak aldatzen dira. Hizkera batzuek ondoko hizkeren ezaugarriak hartzen dituzte, beste batzuek aldaera estandarrenak, eta abar. Batik bat gazteen eskutik etorri ohi da aldaketa, eta hala da gure eremuan ere. Baina gazteen hizkera aztertzea zeregin konplexua da oso: artean finkatu gabea da, bukatu gabea nolabait, eta, gainera, gure eremura etorritz, gazteen euskararen egoera eta nolakotasuna ez da bera toki guztietan. Hala, Imotz eta Basaburu Nagusia erdaldunagoak dira Larraun eta Araitz-Betelu baino, eta herri-hizkerak desagertzen ari dira han. Imoztar eta basaburuar gazteek erabiltzen duten euskara oso hurbil dago hizkuntza estandarretik, eta, ondorioz, hizkera dialektalak zokoratzen ari dira, galtzen. Egoera ez da beste eskualde batzuetan bezain tragikoa, ordea; oraindik orain hiztun kopuru altu samar bat gai da hango hizkera emateko, baina egia da, halaber, hiztunek adinean behera egin ahala, hiztun kopuru hori murriztu egiten dela. Hiztun adinekoak hiltzen ari dira, eta hurrengo belaunaldian oraindik ere bizkor dago herri-hizkera, baina berrogei urtetik beherakoen —gutxi gorabehera— hizkera nabarmen estandarriagoa da, nahiz baden aldea hiztun batzuetatik beste batzuetara.

Larraunen eta Araitz-Betelun, gazteek ohitura handiagoa dute elkarrekin euskaraz egiteko, eta herri-hizkerak baliatzen dituzte gehien-gehienean, baina, 5.2.2. atalean ikusi dugunez, ez denek modu berean, eta gai dira egoeraren edo solaskidearen arabera hizkuntza-ezaugarri batzuk edo beste batzuk erabiltzeko. Ondoko hizkera gipuztek indar handia dute bi ibarrotan, Araitz-Betelun batez ere; lanean zehar ikusi dugu araitzarrak eta larraundarrak aspalditik egon direla gipuzkoarrekin hartu-emanen, eta joera hori indartzen ari da gaur egun. Larraungo ipar-mendebalean, oraindik orain ezaugarri nafar batzuen arrastoa sumatu dugu (instrumentaleko *-s* morfema, *-en* geroaldiko morfema, eta abar), baina Euskal Herriko erdialdeko (eta mendebaleko) aukerak nagusitzen ari dira.

Zehazki, Larraungo ipar-mendebaleko hizkera Larraungo gainerako hizkeretatik urruntzen ari da; esate baterako, errazkindarrei “mami-janzale” esaten zaie hango ingurumarian, hara joan eta “zer duu jateko? Mami!” erantzuten baitzuten errazkindarrek (Larraungo gainerako herrietan bezala, beraz; alegia, *-ii*). Gaur egun, ordea, *-ii* bukaerarik ez da han, *-ie* nagusitu baita osotara.

Larraunen eta Araitz-Betelun, beraz, Imotzen eta Basaburu Nagusian baino nabariagoa da Euskal Herriko erdialdeko hizkeren eragina; adineko hiztunengandik hasita da nabaria, eta joera hori areagotuz doa gazteen eskutik, haien hizkera eredu giputzerantz eta baita eredu estandarerantz ere lerratuz baitoa.

Ez dakigu zer gertatuko den etorkizunean, baina agerikoa da herri-hizkerak abiada bizian galtzen ari direla Imotzen eta Basaburu Nagusian; Larraunen eta Araitz-Betelun, herri-hizkerak badu indarra, baina aldatzen ari da (gazteen eskutik, batez ere), hizkera giputzen, euskara batuaren eta are gaztelaniaren eraginez.

Gainera, gure lau ibarretako herriak ahulak dira demografikoki eta ekonomikoki, eta hango biztanleek beste gune batzuk bilatu dituzte beren beharrak asetzeko (lana, aisia, hezkuntza, zerbitzuak...); horrek, jakina, eragin betea du hango hizkeran. Etorkizunean ikusiko da, beraz, hizkerok norantz egiten duten.

Egoera ikusita, beraz, arriskutsu deritzogu gazteen hizkera gure dialektologia-ikerketan aintzatesteari; arriskutsu, edo, hobeki esanda, gure helburutik urruti gelditzen dena. Horregatik, gure eremuko herrietako hizkerak aztertu nahirik, gehienetan baztertu egin dugu gazteen hizkera, eta adinekoen eta helduen mintzoan ezarri dugu arreta.

11.6. Azken hitza

Iritsi gara bukaerara. Euskal dialektologian ikertu beharra zegoen eremu batean aritu gara lanean, eta hauxe izan da emaitza. Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko euskara ez da, hemendik aurrera, (hain) ezezaguna izango euskal ikerketetan. Euskararen ikerkuntzan ekarpen bat egitea izan da gure asmoa, baina ez dugu zalantzarik gurea osatuko, aberastuko, eta, batzuetan, zuzenduko eta hobetuko duten lanak etorriko direla aurrerantzean. Gorago ere esan dugunez, gure eremuaren inguru hurbileko zenbait hizkera sakonago ezagutzeak

eta ikertzeak Nafarroako mendebaleko euskararen errealitatea hobeki ulertzen lagunduko du; zehatzago, Basaburu Txikiak, Malerrekako hegoaldeaz eta muga nafarraren ondoko gipuzkoar herriez (Bedaio, Amezketa, Altzo, Alegia, Abaltzisketa, Orexa, Lizartza...) ari gara.

Mende honetako euskararen lekukotasuna izan da gure lanaren oinarria, baina iraganari begira ere jarri gara zenbait kasutan. Ez dugu berri handirik gure eremuko euskara zaharraz, testu zahar gutxi baitugu, eta gehienetan, gainera, ez dugu nahi adina argibide testuon jatorriaz, baina ez dugu horratik ikerketaren ikuspegi diakronikoa baztertu: gure eremuan dauden testu urriak aztertuz eta hurbileko nahiz urrutiagoko hizkeretako testuak ere aintzat hartuz, eta are euskararen hizkuntzalaritza historiko orokorraren irakatsia baliatuz, zenbait ondorio diatopiko erlatibo erdietsi dugu gure eremuko euskara zaharrari buruz, eta horrek aztergai izan ditugun hizkeren gaineko ikuspegia aberasten lagundu digu. Jakitun gara, ordea, ez direla hizkera baten alderdi diakronikoa lantzeko baldintzarik egokienak, baina saiakera bat egin dugu, eta, ikerketa diakronikoek aurrera egin heinean, saiakera hori osatzeko moduan izango gara.

Erdigune linguistiko batean kokatuta dagoen eremu bateko errealitatea eman nahi izan dugu ezagutzera, eta bide batez erakutsi nahi izan dugu ez dagoela metodologia bat eta bakarra erabiltzerik hizkera guztiak aztertzeko. Hizkuntza-ezaugarriak ez dira modu berean sortzen, hedatzen edota finkatzen ertzetako eta erdiguneetako hizkeretan, eta uste dugu hori aintzat hartu behar dela dialektologian. Ikerketa bakoitzak, gainera, bere helburua du, eta, helburua zein den, halako irizpide metodologikoak erabili behar dira; guk gure eremuaren kokagunea zein den, han zein ezaugarri ageri den, eta, azken batean, gure helburua zein den kontuan hartuz, gure ustez egokienak ziren irizpideak baliatu ditugu, eta horren arabera lan egin dugu. Horretan ere izango da, segur aski, zer zehaztua eta zer findua, baina guk gure ahalegina egin dugu.

BIBLIOGRAFIA

- Abad, F., 1983, "Variedades dialectales y literarias de la lengua", in F. Abad eta García Berrio, A. (koord.), 1983, 285-313.
- Abad, F. eta García Berrio, A. (koord.), 1983, *Introducción a la lingüística*, Alhambra: Madril.
- Agirre, J., 1925, "Velle (sic) de Juslapeña", *Anuario de la sociedad de Eusko-Folklore* 5, 131-140.
- Agirrebeña, A.; Maiz, B.; Muniozguren, F.; Sarasua, A. eta Zabaleta, M., 2007, *Zarautz hizketan*, Zarauzko Udala: Zarautz.
- Agirrebeña, A.; Alberdi, I.; Mendiguren, X. eta Sarasua, S., 2007, *Beasaingo euskara. Herriko hizkeraren azterketa eta ahozko ondarearen bilketa*, Beasaingo Udala.
- Agirretxe, J. L.; Lersundi, M. eta Olaetxea, O., 2000, *Pasaiako hizkera*, Pasaiako Udala.
- Aldai, G., 1999a, "Hegoaldeko Goinafarrera zaharra: aditz laguntzaileekiko ezaugarri zenbait", *FLV* 81, 263-274.
- ___, 1999b, "Notas sobre la última edición de los *Refranes y Sentencias* de 1596", *FLV* 82, 383-392.
- Aleman Astitz, S., 2008, "Berdetik horira", *Euskera* 53-1, 15-33.
- Allen, H. B. eta Linn, M. D. (arg.), 1986, *Dialect and language variation*, Academic Press: Orlando.
- Allières, J., 1981, "Dialectologie", in Euskaltzaindia (arg.), 1981, 273-281.
- Altadill, J., 1912, *Geografía General del País Vasco-Navarro*, Bartzelona.
- ___, 1917, "Geografía histórica de Navarra. Los despoblados", *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra* 110-119, 175-181.
- Altuna, A., 2008, "Euskea zarra", *Mailope* 148.
- Altuna, P., 1992, "Ochoa de Arin-en *Doctrina Christiana*-ren (1713) hizkeraren laburpena", *Euskera* 37-2, 573-589.
- Altuna Otegi, F., 1995, "Pleonasmo baten historiaz: *debea* 'dute' bezalako adizkien inguruan", *ASJU* XXIX-1, 219-244.
- ___, 2006, "Nafarrerazko *Romance bazquenze a la deuocion de Maria Santissima* (1656)", *ASJU* XL, 47-80.
- Alvar, M., 1977, *Atlas plurilingües. Metodología*, Comisión Española del ALE: Madril.
- ___, 1979, "Lengua, dialecto y otras cuestiones conexas", *Lingüística Española Actual* I/1, 5-29.
- ___, 1983, *Estructuralismo, geografía lingüística y dialectología actual*, Gredos: Madril.
- ___, 1991, *Estudios de geografía lingüística*, Paraninfo: Madril.
- ___, 1995a, *Por los caminos de nuestra lengua*, Universidad de Alcalá de Henares.
- ___, 1995b, "La lengua, los dialectos y la cuestión de prestigio", in M. Alvar, 1995a, 56-68.

- ___ (arg.), 1996a, *Manual de dialectología hispánica: El Español de España*, Ariel: Bartzelona.
- ___, 1996b, “Aragonés”, in M. Alvar (arg.), 1996a, 263-291.
- ___ (zuz.), 2000, *Introducción a la Lingüística española*, Ariel: Bartzelona.
- Amorrtortu, E., 2003, “Hizkuntz aldakortasuna eta identitatea”, in Mendebalde Kultura Alkartea, 2003, 157-165.
- Ander-Egg, E., 1995, *Técnicas de investigación social*, 24. arg., Lumen: Buenos Aires.
- Andersen, H., 1988, “Center and periphery: adoption, diffusion, and spread”, in J. Fisiak (arg.), 1988, 39-83.
- Apalauza, A., 2005, *Hizkuntza-aldaketa Goldarazko hiztun-erkidegoan*, Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria lortzeko lana, EHU: Gasteiz [lan argitaragabea].
- ___, 2007, “Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako lexikoaren azterketa”, *ASJU* XLI-1, 163-224.
- ___, 2008a, *Imozko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 2008b, “Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu”, *FLV* 107, 63-104.
- ___, 2010, “Nafarroako ipar-mendebaleko lau ibarretako lexikoaren azterketa”, Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarra, Euskaltzaindia [prestatzen].
- ___ eta Lakar, M., 2001-2003, *Malerrekako ahozko tradizioa*, Malerrekako Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako ikerketa-proiektua [lan argitaragabea].
- ___ eta Lakar, 2005, *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Malerrekako Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___ eta Arraztio, K., 2003-2005, *Araitz-Beteluko ahozko tradizioa*, Araizko eta Beteluko Udalek, eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako ikerketa-proiektua [lan argitaragabea].
- ___ eta Arraztio, K., 2007, *Araitz-Beteluko ahotsak. Ahozko tradizioaren bilduma*, Araizko eta Beteluko Udalak, eta Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Arakama, J., 1994, “Uharte-Arakilgo dotrina”, *ASJU* XXVIII-2, 569-613.
- Arana, A., 2001, *Zaraitzuko hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Hiria: Iruñea eta Alegia.
- ___, 2002, *Izarbeibarko hiztegia*, Hiria eta Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 2004, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Artzibarko aldaera. Hiztegia*, Hiria: Donostia.
- ___, 2006, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Txulapaingo aldaera. Hiztegia*, Hiria: Donostia.

- Aranburu, P. J.; Bidegain, M.; Idiakez, A. eta Rezola, I., 1994, *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere "Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858)"*, V. Gerriko ikerlan-sariketa: Lazkao.
- ___, 1998, *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825) Goierriko euskal idazle ezezaguna*, VII. Gerriko ikerlan-sariketa: Lazkao.
- ___, 1999, *Jose Otxoa Arin (1672-1743). Gipuzkera literarioaren aitzindari*, VIII. Gerriko ikerlan-sariketa: Lazkao.
- Aranzadi Zientzia Elkarte, 1984-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (I eta II), Donostia.
- ___, 1990, "Euskararen mugei buruzko txostena. 1980. urte ingurukoa", in Aranzadi Zientzia Elkarte, 1990, XXXI-XXXVIII.
- Ardaiz, I., 1980, *Navarra. Elementos para su estudio regional* (bi liburuki), Eusko Ikaskuntza: Burlata.
- Arraztio, K., 2010, "Datibo osagarri bitxiak Araitz-Beteluko hizkeran", in B. Fernández, P. Albizu eta R. Etxepare (arg.), 2010, 187-194.
- Artiagoitia, X.; Goenaga, P. eta Lakarra, J., 2002, *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, ASJUren gehigarriak XLIV, EHU: Bilbo.
- Artiagoitia, X. eta Lakarra, J. (arg.), 2008, *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, ASJUren gehigarriak XLI, EHU: Bilbo.
- Artola, K., 1985, "Ezkabarteko euskara, Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan", *Hizkuntza eta Literatura* 4, Eusko Ikaskuntza, 95-112.
- ___, 1992, "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)", *FLV* 60, 187-227.
- ___, 2001, "Olaizko euskal eskuizkribuak", *FLV* 88, 485-519.
- ___, 2006, "Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (1 - sarrera eta lehen galdera-sortak)", *FLV* 103, 393-428.
- ___, 2007, "Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (2 - inkestaren azken galdera-sortak)", *FLV* 104, 5-31.
- ___ eta Tellabide, J., 1990, "Euskararen muga 1980. urtean", *FLV* 56, 247-260.
- Astiz Arregi, A., 1960, *Goldaraz'ko bersolariaren kontu eta bersoak. Andres Astiz Oderiz*, Principe de Viana: Iruñea.
- Atwood, E. B., 1963, "The methods of American dialectology", *Zeitschrift für Mundartforschung* 30, 1-29.
- Aurrekoetxea, G., 1992, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro* 5, 59-109.

- ___, 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, EHU: Bilbo.
- ___, 2003, “Euskalkiak estandarren uholdepean (Arratiako kasua)”, in Mendebalde Kultura Alkartea, 2003, 167-177.
- ___, 2004a, “Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikusuntu teorikotik begirada bat)”, *Uztaro* 50, 45-57.
- ___, 2004b, “Iparraldeko hizkeren sailkapena (1): Lexikoa”, *ASJU XXXVIII-1*, 287-331.
- ___, 2006, “Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak”, *ASJU XL 1-2*, 133-160.
- ___, 2008, “Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran”, *Euskalingua* 12, 17-26.
- ___ eta Videgain, X. (arg.), 1992, *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*, Iker 7, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Azkarate, M. eta Altuna, P., 2001, *Euskal morfologiaren historia*, Elkar: Donostia.
- Azkue, R. M., 1935, *Euskalerraren Yakintza I*, Espasa Calpe: Bilbo.
- ___, 1969 [1923-1925], *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca: Zalla-Bilbo.
- Azurmendi, J. M., 1996, *Ataungo euskara*, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea: Lazkao.
- ___, 1998, *Zegamako euskara*, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea: Lazkao.
- Baleztena, D., eta Astiz, M. A., 1944, *Romerías navarras*, Casa de Regino Bescansa: Iruñea.
- Bähr, G., 1972a, “Estudio sobre el verbo guipuzcoano”, *RIEV* 22, 245-269.
- ___, 1972 [1931]b, “El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa”, *RIEV* 22, 397-414.
- Beola, A., 1995, “Mugimendu demografikoen garrantzia euskara eta euskalkien hedapenean”, in R. Gomez eta J. Lakarra (arg.), 1995, 419-425.
- Bergs, A. T., 2006, “Spreading the word”, in M. Flippula eta beste (arg.), 2006, 5-30.
- Bidador, J., 1992, “Noticias y restos del euskera de Val de Olla”, *FLV* 60, 277-295.
- ___, 2001, “Ultzamako beste euskal testu bat (1796)”, *FLV* 88, 521-527.
- Bisang, W., 2004, “Dialectology and tipology. An integrative perspective”, in B. Kortmann (arg.), 2004, 11-45.
- Bloomfield, L., 1983 [1914], *An introduction to the study of language*, John Benjamins publishing company: Amsterdam eta Philadelphia.
- Bonaparte, L. L., 1881, “Observaciones sobre la ley de la afinidad de las vocales en el vascuence de Lizaso, valle de Ulzama, provincia de Navarra”, *Revista Euskara* IV, 65-67.
- ___, 1882, “Observaciones acerca del vascuence de Betelu”, *Revista Euskara* V, 120-121.

- Bottiglioni, G., 1986 [1954], "Linguistic geography: achievements, methods, and orientation", in H. B. Allen eta M. D. Linn (arg.), 1986, 5-19.
- Breton, R., 1979, *Geografía de las lenguas*, Oikos-tau: Bartzelona.
- Britain, D. eta Cheshire, J. (arg.), 2003, *Social dialectology*, Impact: Amsterdam eta Philadelphia.
- Camino, I., 1995, "Abiaburu bat aezkeraren azterketarako", in R. Gomez eta J. Lakarra (arg.), 1995, 59-160.
- ___, 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___ (arg.), 1998a, *Nafarroako hizkerak*, UEU: Bilbo.
- ___, 1998b, "Hitzaurrea", in I. Camino (arg.), 1998a, vii-xi.
- ___, 1998c, "Zer dago dialektologiaren gibelean?", in I. Camino (arg.), 1998a, 111-144.
- ___, 1999, "Goñerriko hizkera (I)", *ASJU XXXIII-1*, 5-78.
- ___, 2000a, "Goñerriko hizkera II", *ASJU XXXIV-1*, 137-196.
- ___, 2000b, "Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeke", in K. Zuazo (arg.), 2000, 51-81.
- ___, 2001, "Goñerriko hizkera (III)", *ASJU XXXV-2*, 445-509.
- ___, 2002, "Aitzin-solas", in A. Arana, 2002, XIII-XVI.
- ___, 2003a, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 2003b, "Hego-nafarreraren egituraz", *FLV 94*, 427-468.
- ___, 2004a, "Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian", *Euskera 49-2*, 67-102.
- ___, 2004b, "Nafarroa Behereko euskara", *FLV 97*, 445-486.
- ___, 2005a, "Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna", *FLV 99*, 265-286.
- ___, 2005b, "Euskal dialektologia *FLV* aldizkarian", *FLV 100*, 525-557.
- ___, 2006, "Irañetako eta Arakilgo mintzoaren gurpilean", *FLV 101*, 55-68.
- ___, 2008a, "Dialektologiaren alderdi kronologikoaz", *FLV 108*, 209-247.
- ___, 2008b, "Nafarroa Behereko euskara zaharra", *ASJU XLII-1*, 101-169.
- ___, 2009a, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar: Donostia.
- ___, 2009b, "Mugako hitzun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan", *FLV 111*, 153-218.
- ___, 2010, "Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak", *Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarra*, Euskaltzaindia [prestatzen].
- ___ eta Gomez, R., 1992, "Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)", *ASJU XXVI-2*, 453-581.
- ___ eta Lakarra, J., 1993, "Berriain osatuz", *ASJU XXVII-3*, 1029-1048.

- Campbell, L., 1985, "Areal linguistics and its implications for historical linguistics", in J. Fisiak (arg.), 1985, *Proceedings of the Sixth International Conference of Historical Linguistics*, Benjamins: Amsterdam, 25-51.
- Cañamero Redondo, A. eta beste, 1983, *Enciclopedia histórico-geográfica de Navarra*, Haranburu: Donostia.
- Casas Torres, J. M. eta Abascal Garayoa, A., 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*, Príncipe de Viana erakundea eta EEP: Zaragoza.
- Chambers, J. K. eta Trudgill, P., 1980, *Dialectology*, Cambridge University Press: Cambridge.
- Chambon, J. P., 1996-1997, "Aspects de l'oeuvre linguistique de Georges Straka: chronologie relative et histoire des faits phoniques", *Orbis* 39, 97-126.
- Colman, F., 1988, "What *is* in a name?", J. Fisiak (arg.), 1988, 111-137.
- Cook, S. W., 1980, "Temas éticos en la realización de investigaciones en relaciones sociales", in C. Seltiz eta beste, 1980, 277-344.
- Coseriu, E., 1954, *El hombre y su lenguaje*, Gredos: Montevideo (Madril).
- ___, 1977 [1954], "La geografía lingüística", in E. Coseriu, 1954, 103-158.
- ___, 1978 [1957], *Sincronía, diacronía e historia*, Gredos: Madril.
- ___, 1981 [1958], "Los conceptos de *dialecto, nivel y estilo de lengua* y el sentido propio de la dialectología", *Lingüística Española Actual* III/1, 1-32.
- ___, 1981 [1973], *Lecciones de lingüística general*, Gredos: Madril.
- ___, 1986 [1951], *Introducción a la lingüística*, Gredos: Madril.
- Dalbéra, J.-Ph., 1992, "Dialectologie et morpho-phonologie", in G. Aurrekoetxea eta X. Videgain (arg.), 1992, 135-149.
- De Paiva Boléo, M., 1962, "A vida e obra de Karl Jaberg", *Revista Portuguesa de Filologia* X, 419-449.
- Dees, A., 1988, "Propositions for the study of Old French and its dialects", in J. Fisiak (arg.), 1988, 139-148.
- Del Castillo, V.; Giralt, B. eta Romo, J. A., 2001, *Azkoittiko euskerie*, Barriketatik. Donostia, J. A., 1956, "Euskal-erriko otoitzak", *Egan* 2, 34-52.
- Dorian, N., 2001 [1999], "Linguistic and Ethnography Fieldwork", in J. Fishman (arg.), 2001, 25-41.
- Elxepuru, J. M., 2004, *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta*, Bergarako Udala.

- Elordieta, A., 2010, “Aditzaren bikoizketa foku-topikoa denean”, in B. Fernández, P. Albizu eta R. Etxepare (arg.), 2010, 37-54.
- Elordieta, G., 2010, “Euskal azentuaren bilakaera: hipotesiak eta proposamenak”, Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarra, Euskaltzaindia [prestatzen].
- Elosegi, J., 1971-1972, “Aralar-mendi ta Aralar inguruko leku-izenak”, *Anuario de Eusko Folklore* XXIV, 103-215.
- ___, 1972, “Abalzizketa y valle de Araiz a fines del siglo XVIII”, *BRSVAP* 1972-1, 49-57.
- Epelde, I., 2003, *Larresoroko euskara*, EHUko tesi argitaragabea.
- ___, 2004a, “Lapurdikoko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz”, *FLV* 96, 271-303.
- ___, 2004b, “Larresoroko gaur egungo euskara”, *Euskera* XLIX-2, 663-677.
- Erdozia, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 2004a, *Sakanako hiztegi dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea eta Bilbo.
- ___, 2004b, “Irañetako euskara”, *FLV* 97, 487-517.
- ___, 2005, “Sakanerak”, *FLV* 98, 59-77.
- ___, 2006, “Sakaneren gainean egindako azterketak argitze aldera”, *FLV* 101, 43-53.
- ___, 2008, “Sakanako lexikoaren inguruan”, *Euskera* LIII-2, 313-343.
- Erize, X., 1997, *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Erizkizundi Irukoitza*, 1926, “Gipuzkoa’k erizkizundiari erantzun diona”, *Euskera* 7. urtea, 3-4, 46-58.
- Erizkizundi Irukoitza*, 1927a, “Napafoa’k erizkizundiari erantzun diona”, *Euskera* 8. urtea, 3-4, 164-178.
- Erizkizundi Irukoitza*, 1927b, “Gipuzkoa’k erizkizundiari erantzun diona”, *Euskera* 8. urtea, 1-2, 3-30.
- Erizkizundi Irukoitza*, 1928a, “Napafo’ak erizkizundiari erantzun diona (Yafaipena)”, *Euskera* 9. urtea, 1, 35-58.
- Erizkizundi Irukoitza*, 1928b, “Napafo’ak Erizkizundiari erantzun diona (Yafaipena)”, *Euskera* 9. urtea, 2, 110-123.
- Estornés Lasa, B., 1960, *Geografía histórica de la lengua vasca (Siglos XVI al XIX)*, Auñamendi: Donostia.

- Etxabe, K. eta Garmendia, L., 2003, *Zaldibiako euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak*, Zaldibiako Udala: Zaldibia.
- ___, 2004, *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*, Ordiziako Udala eta Hitzaro: Ordizia.
- Etxaide, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- ___, 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza: Donostia.
- Etxebarria, J. M., 1985, “Gaintzako euskeraren alderdi fonetiko batzuk”, *Eusko Ikaskuntza* 4, Aingeru Irigarayri omenaldia, 125-142.
- Etxebarria, J. M., 1988, “Materiales para un diccionario vasco dialectal”, *Litterae Vasconicae* 4, 203-237.
- Etxegorri, P., 2003, “Jeruntzeko üskara: ekialdeko euskara”, *FLV* 93, 247-286.
- Euskalerrria Irratia, 1994, *Nafarroako euskaldunen mintzoak II*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Euskaltzaindia (arg.), 1981, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, *Iker* 1, Euskaltzaindia: Bilbo.
- ___, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- ___, 1999, *Euskal Herri Hizkeren Atlas (EHHA)*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- ___ (arg.), 2008, *Euskalgintza XXI. mendeari buruz*, *Iker* 19, Euskaltzaindia: Bilbo.
- ___ eta Nafarroako Gobernua, 1990, *Nafarroako Herri Izendegia (NHI)*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Eusko langile bat, 1937-07-13, “Bedayo’ko berrikeratza”, *El día*.
- Fernández, B., 2001, “Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: Ergatiboaren Lekualdatzetik Datiboaren Lekualdatzera”, in Fernández, B. eta Albizu, P. (arg.), 2001, 147-165.
- Fernández, B. eta Albizu, P. (arg.), 2001, *Kasu eta komunztaduraren gainean. On case and agreement*, EHU.
- Fernández, B.; Albizu, P. eta Etxepare, R. (arg.), 2010, *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, *ASJU* LII, EHU: Bilbo.
- Fernández, B. eta Rezac, M., 2010, “Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea: *ari nai diyot* eta *kanta egin nazu* bidegurutzean”, in B. Fernández, P. Albizu eta R. Etxepare (arg.), 2010, 113-149.
- Fishman, J. (arg.), 2001, *Handbook of language and ethnic identity*, Oxford University Press: Oxford.

- Fisiak, J. (arg.), 1988, *Historical dialectology: regional and social*, Mouton de Gruyter: Berlin, New York eta Amsterdam.
- Flippula, M. eta beste (arg.), 2006, *Topics in dialect variation*, Joensuu Unibertsitatea: Finlandia.
- Floristán Samanes, A., 1978, *Urbasa y Andía. Solar de los navarros*, Diario de Navarra: Iruñea.
- Fraile, I. eta Fraile, A., 1996, *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala: Oiartzun.
- Francis, W. N., 1983, *Dialectology*, Longman: Londres eta New York.
- Gaminde, I., 1985a, *Aditza ipar goi nafarreraz I*, UEU: Iruñea.
- ___, 1985b, *Aditza ipar goi nafarreraz II*, UEU: Iruñea.
- ___, 1985c, *Aditza ipar goi nafarreraz III*, UEU: Iruñea.
- ___, 1985d, “NOR-en ahalezko oraina eta JOAN, IBILI eta EGON aditzen alokutiboak (Nafarroan)”, *FLV* 46, 215-264.
- ___, 1990, “Nafarroako barietate batzutako perpaus denborazkoez”, *FLV* 56, 165-204.
- ___, 1993, “Nafarroako nominalizazioez”, *FLV* 62, 75-94.
- ___, 1994, “Nafarroako menperagailuez”, *FLV* 66, 227-250.
- ___, 1995, “Larraungo Alli herriko azentu ereduaz”, *FLV* 68, 23-35.
- ___, 1998a, *Euskaldunen azentuak*, Bilbo, Labayru ikastegia.
- ___, 1998b, “Nafarroako azentu ereduaren sailkapena”, in I. Camino (arg.), 1998, 23-48.
- ___, 1999, *Bakio barbarik berba*, Labayru ikastegia: Bilbo.
- ___, 2000, *Zamudio barbarik berba*, Labayru ikastegia: Bilbo.
- ___, 2001a, *Leioa barbarik berba*, Bizkaiko Foru Aldundia, Leioako Udala eta Eusko Jaurlaritza: Bilbo.
- ___, 2001b, *Jatabe barbarik berba*, Jatabeko Udala, BBK, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza: Bilbo.
- ___, 2001c, *Arrieta barbarik berba*, Arrietako Udala, BBK, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza: Bilbo.
- ___, 2001d, *Mungia barbarik berba*, Mungia Udala eta Mungia Euskaldunduz: Bilbo.
- ___, 2001e, *Meñaka barbarik berba*, Meñakako Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia: Bilbo.
- ___, 2003, *Zaldibar barbarik berba*, Zaldibarko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia: Bilbo.
- ___, 2004, *Berango barbarik berba*, Berangoko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia: Bilbo.
- ___, 2006, *Lezama barbarik berba*, Zorritzetan Kultura Alkartea: Lezama.

- ___, 2009, “Hiztunen generoaren eta adinaren pertzepzioaz”, *BAT* 71, 151-164.
- ___ eta Hualde, J. I., 1995, “Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa”, *ASJU* XXXIX-1, 175-197.
- García Mouton, P., 1990, “El estudio del léxico en los mapas lingüísticos”, in F. Moreno Fernández (arg.), 1990, 27-75.
- ___, 1996, “Dialectología y geografía lingüística”, in M. Alvar (arg.), 1996a, 63-77.
- García-Sanz Marcotegui, A., 1985, *Demografía y sociedad de la Barranca de Navarra (1760-1860)*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Garmendia, L., 2003, *Zaldibiako hizkeraren azterketa soziolinguistikoa*, EHUko lan argitaragabea.
- ___, 2008, “Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskaran: ikuspegi soziolinguistikoa”, in *Euskaltzaindia* (arg.), 2008, 101-111.
- Garmendia Larrañaga, J. eta Zabala, F., 2007, *Tolosa hiriko monografía historikoa*, Eusko Ikaskuntza: Donostia.
- Gartzaron Zudaire, I., 2005, “Hezkuntzaren historia. Imotz Harana, Nafarroa (1890-1936)”, *Sancho el Sabio* 23, 105-139.
- Goenaga, P., 2002, “Euskal gramatika puntu batez: ahalaz eta ezinaz”, in X. Artiagoitia, P. Goenaga eta J. Lakarra (arg.), 2002, 261-275.
- Goldaraz Lizaso, J., 1995, “Galbarioac uscaraz ofrecimentua (*Etsain* herrian aurkitua)”, *FLV* 69, 363-381.
- Gomez, R., 1991, “Erronkarierazko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa”, in J. Lakarra (arg.), 1991, 375-426.
- ___, 1997, “Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz”, *ASJU* XXXI-2, 363-391.
- ___, 2001, “Objektu-komunztadura XIX eta XX. mendeetako euskal gramatikan”, in B. Fernández eta P. Albizu (arg.), 2001, 167-194.
- ___, 2005, “De re etymologica: vasc. -(r)antz”, *Iker* 17, 273-280.
- ___, 2007, *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*, EHU: Bilbo.
- ___ eta Lakarra, J. (arg.), 1995, *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, *ASJU*ren gehigarriak XXVIII, Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- ___ eta Sainz, K., 1995, “On the origin of the finite forms of the basque verb”, in J. I. Hualde, J. Lakarra eta L. Trask (arg.), 1995, 235-274.
- González González, M., 1991, “Metodología de los atlas lingüísticos de España”, *Iker* 7, 151-177.

- Gorrotxategi, J. (arg.), 2003, *Basque and (paleo)hispanic studies*, EHU.
- Haddican, B., 2006, “On Egin: Do-support and verb focalization in central and western basque”, in A. Eilam, T. Scheffler eta J. Tauberer (arg.), *Penn Working Papers in Linguistics* 12.1, Proceedings of the 29th Annual Penn Linguistics Colloquium, 109-121.
- Hernández Campoy, J. M., 1999, *Geolingüística. Modelos de interpretación geográfica para lingüistas*, Murtziako Unibertsitatea: Murtzia.
- ___, 2003, “Complementary approaches to the diffusion of standard features”, in Britain, D. eta Cheshire, J. (arg.), 2003, 23-37.
- Hjelmslev, L., 1976 [1969], *El lenguaje*, Gredos: Madril.
- Hock, H. H., 1988, “Historical implications of a dialectological approach to convergence”, in J. Fisiak (arg.), 1988, 283-328.
- Holmer, N. M. eta Abrahamson, V., 1968, “Apuntes vizcaínos”, *ASJU* II, 87-141.
- Homobono, J. I., 1985, “Aisiaren alderdi sozialak. El ocio en la sociedad vasca”, in J. Intxausti, 1985-1, 225-255.
- ___, 1989, “Romería de San Urbano de Gaskue. Expresiones de religiosidad, sociabilidad y reproducción de identidades colectivas”, *CEEN* 54, 407-502.
- ___, 2006, “Presentación: formas de religiosidad e identidades”, *Zainak* 28, 11-23.
- Hualde, J. I., 1987, “Proto-Basque Yod”, *FLV* 49, 29-40.
- ___, 1991, “Sincronía y diacronía de las vocales geminadas en vasco”, in J. Lakarra (arg.), 1991, 615-624.
- ___, 1995, “Reconstructing the Ancient Basque Accentual System: Hypotheses and evidence”, in J. I. Hualde, J. Lakarra eta Trask, R. L. (arg.), 1995, 171-188.
- ___, 1997a, *Euskararen azentuerak*, Gipuzkoako Foru Aldundia eta EHU: Donostia eta Bilbo.
- ___, 1997b, “Aitzineuskararen leherkariak”, *ASJU* XXXI-2, 411-424.
- ___, 1997c, “Zerbait gehiago euskal azentubideen historiaz”, *ASJU* XXXI-2, 425-445.
- ___, 2000, “Bizkaiko kostaldeko hizkerak atzo, gaur eta bihar”, in K. Zuazo (arg.), 2000, 12-25.
- ___, 2006a, “Estado actual en las investigaciones sobre la acentuación en lengua vasca”, *Oihenart* 21, 149-177.
- ___, 2006b, “Analogy and other types of non-phonetic change in Bizkaian Basque”, *ASJU* XL, 449-470.
- ___ eta Bilbao, X., 1992, “Study of the basque dialect of Getxo”, *ASJU* XXVI-1, 1-117.

- ___ eta Elordieta, G., 1993, “Arau lexikoen eta lexiko-ostekoen ezberdintasunaz: bokalen asimilazioa Lekeitioko euskaran”, *ASJU* XXVII-2, 361-369.
- ___; Elordieta, G. eta Elordieta, A., 1994, *The Basque dialect of Lekeitio*, *ASJU*ren gehigarriak XXXIV, EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia: Bilbo eta Donostia.
- ___; Lakarra, J. eta Trask, R. L. (arg.), 1995, *Towards a history of the Basque language*, Johns Benjamins publishing company: Amsterdam eta Philadelphia.
- ___ eta Gaminde, I., 1997, “Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue”, *ASJU* XXXI-1, 211-245.
- ___; Olarrea, A. eta Escobar, A. M., 2001, *Introducción a la lingüística hispánica*, Cambridge University Press.
- ___ eta Lujanbio, O., 2008, “Goizuetako azentuera”, in *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, X. Artiagoitia eta J. Lakarra (arg.), 2008, 377-394.
- Hudson, R. A., 1981 [1980], *La sociolingüística*, Ediciones Anagrama: Bartzelona.
- Hurtado, I., 2001, *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*, IX. Gerriko ikerlan-sariketa: Lazkao.
- Ibarra, O., 1992, “Ultzameraz idatzitako bi dotrinaren edizioa eta azterketa”, *ASJU* XXVI-3, 915-976.
- ___, 1994, “Ultzamako barietatearen aditzaren berezitasunak: isoglosa nagusienak”, *FLV* 66, 236-285.
- ___, 1995a, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 1995b, “Cispamplonés hizkeraren inguruan”, *ASJU* XXIX-1, 267-318.
- ___, 1996a, “Bonaparteren sailkapena eztabaidatuz”, *FLV* 71, 71-86.
- ___, 1996b, “Erroibarko lexikoaren gainean”, *Euskera* 41-3, 929-973.
- ___, 1996-1997, “Dialektologiaren metodologiaz ohar batzuk”, *Huarte de San Juan* 2-3, 43-56.
- ___, 1997, “Euskararen eraginaren aztarnak Erroibarko gaurko hizketan”, *Oihenart* 15, 61-122.
- ___, 1998, “Ultzamako hizkeraren deskribapena”, in I. Camino (arg.), 1998, 67-102.
- ___, 1999, “Xuarben (Ultzama) aurkitutako sermoiak”, *Huarte de San Juan* 4, 77-99.
- ___, 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa: Iruñea.
- ___, 2003, “Isoglosen aldaketa Nafarroako hainbat hizkeratan”, in J. Gorrotxategi (arg.), 2003, 348-364.
- ___, 2006, “Lexikoaren hedapena goi-nafarreraren hiru ibarrotan: Erroibar, Esteribar eta Anue”, *ASJU* XL 1-2, 487-498.

- ___, 2007, *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea.
- Intxausti, J., 1985, *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto* (bi liburuki), Euskadiko Kutxa.
- Intza, D., 1921, “Naparro’ko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran”, *Euskera* II, 3-35 or., eta *Euskera* III, 65-92 or.
- ___, 1957, “Larraun eta bere euskalkia”, *Euskera* II, 91-105.
- ___, 1974, *Naparroa-ko euskal esaera zaharrak*, Nafarroako Foru Aldundia: Iruñea.
- Iñigo, P.; Salaberri, P. eta Zubiri, J. J., 1995, “-ki aditz-atzizkiaren gainean”, *FLV* 69, 243-295.
- Iribarren, J. M., 1984, *Vocabulario navarro*, Nafarroako Gobernua eta Príncipe de Viana: Iruñea.
- Irigarai, A., 1961, “Catecismo manuscrito en euskara alto navarro”, *Euskera* VI, 161-179.
- Irigarai Imaz, J., 1985, “Sentencias referentes a localidades de varios valles navarros”, *Hizkuntza eta Literatura* 4, Aingeru Irigarayri omenaldia, Eusko Ikaskuntza, 389-396.
- Irigoien, A., 1981, “Haur ola zirola. Elementos deícticos en lengua vasca”, in *Euskaltzaindia* (arg.), 1981, 365-402.
- Irizar, P., 1981a, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca I*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala: Zarautz.
- ___, 1981b, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca II*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala: Zarautz.
- ___, 1981 [1949]c, “Los dialectos y variedades del vascuence”, in P. Irizar, 1981a, 95-125.
- ___, 1985, “Aparición y desaparición de las formas verbales en -ako-, -eko- en el alto-navarro meridional”, *Hizkuntza eta Literatura* 4, Aingeru Irigarairi omenaldia, Eusko Ikaskuntza, 257-290.
- ___, 1991a, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- ___, 1991b, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- ___, 1992a, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (estudio dialectológico) I*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea eta Bilbo.
- ___, 1992b, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (estudio dialectológico) II*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea eta Bilbo.
- ___, 1992c, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea.
- ___, 2008, *Morfología del verbo auxiliar vasco (compendio/índice/index)*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Ithurri, J., 1895, *Grammaire basque. Dialecte labourdin*, Imprimerie A. Lamoignon: Baiona.

- Iturain, I. eta Loidi, L., 1995, *Orioko euskara*, Orioko udala.
- Ivić, P., 1962, “On the structure of dialect differentiation”, *Word* 18, 33-53.
- Izagirre, K., 1966, “Ultzamako euskeraren gai batzuk”, *BAP* 23, 403- 467.
- ___, 1967, “Tolosako euskeraren iztegirako gaiak”, *BAP* 23, 157-188.
- ___, 1970, *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y otras zonas colindantes*, *ASJU* IV, Donostia.
- Izeta, M., 1996, *Baztango hiztegia*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Jaberg, K., 1959, *Geografía lingüística. Ensayo de interpretación del “Atlas lingüístico de Francia”*, Granadako Unibertsitatea.
- ___, 1995 [1940, 1954], *Estudios de geolingüística. Sobre problemas y métodos de la cartografía lingüística*, Granadako Unibertsitatea: Granada.
- Jimeno Jurio, J. M., 1970, *San Miguel de Aralar*, Nafarroako Foru Diputazioa: Iruñea.
- ___, 2007, *Diccionario histórico de los municipios de Navarra*, Udalbide, Pamiela eta EKE: Iruñea.
- Kamino, P. eta Salaberri, P., 2007, *Luzaideko euskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea eta Bilbo.
- Kerejeta, M. J., 1991, “Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610”, in J. Lakarra (arg.), 1991, 161-183.
- Knörr, H., 2001 [2000], “Astronomy and Basque Language”, *FLV* 88, 403-415.
- ___ eta Zuazo, K. (arg.), 1998, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Eusko Legebiltzarra: Gasteiz.
- Kortmann, B. (arg.), 2004, *Dialectology meets typology. Dialect grammar from a cross-linguistic perspective*, Mouton de Gruyter: Berlin eta New York.
- Krause, M.; Lublinskaja, V. eta Sappok, C., 2006, “Russian speaker’s dialect image. A perceptual study”, in M. Flippula eta beste (arg.), 2006, 31-44.
- Labov, W., 1966, *The social stratification of English in New York City*, Center for Applied Linguistics: Washington.
- Lakar, M. eta Telletxea, A., 2003-2004, *Baztango ahozko tradizioa*, Baztango Udalak eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako ikerketa-proiektua [lan argitaragabea].
- ___, 2006, *Baztan solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Baztango Udala eta Nafarroako Gobernua.
- Lakarra, J., 1984, “Bizkaiera zaharreko ablatiboaz”, *ASJU* XVIII-1, 163-193.
- ___, 1986, “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* XX-3, 639-682.
- ___, 1987, “Oikiako Dotrina (1759)”, *ASJU* XX-2, 515-564.

- ___ (arg.), 1991, *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJUren gehigarriak XIV, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ___, 1996, *Refranes y sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- ___, 1997a, “Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri”, *ASJU XXXI-2*, 447-535.
- ___, 1997b, “Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa”, *ASJU XXXI-2*, 537-616.
- ___, 2005, “Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco”, *Palaeohispanica 5*, 407-470.
- ___, 2006, “Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco”, *ASJU XL 1-2*, 561-621.
- ___, 2008a, “Temas para un prólogo: forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco”, *Oihenart 23*, 277-347.
- ___, 2008b, “Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar)”, in X. Artiagoitia eta J. Lakarra (arg.), 2008, 451-490.
- Larrañaga, J., 1998, *Antzuolako hizkera*, Antzuolako Udala.
- Leizaola, F., 1985, “Toponimia del valle de Atez (Navarra)”, *Hizkuntza eta Literatura 4*, Aingeru Irigarayri omenaldia, Eusko Ikaskuntza, 405-421.
- ___, 1991, “Metodología para la realización del atlas lingüístico de Euskalerrria -EAEL-”, *Iker 7*, 647-658.
- Lekuona, M., 1956, “Tolosa’ko euskera”, in *Libro-Homenaje a Tolosa. VII centenario 1256-1956*, Tolosako Udala: Tolosa, 167-177.
- Linn, M. D., 1983, “Informant selection in dialectology”, *American Speech 58-3*, 225-243.
- Linzoain, E., 1979, *La Trinidad de Erga (Aguinaga)*, Nafarroako Foru Diputazioa: Iruñea.
- Loidi, A., 1996, “Santa Catherina pastoralaren XIX. mendeko bi eskuizkribu”, *ASJU XXX-2*, 497-604.
- López Morales, H., 1983, *Introducción a la lingüística actual*, Ed. Playor: Madrid.
- ___, 1994, *Métodos de investigación lingüística*, Biblioteca Filológica-Ediciones Colegio de España: Salamanka.
- Lüdtke, H., 1977, “Isoglosas atlánticas en la geografía fonética del portugués: apuntes de teoría dialectológica”, in M. Alvar, 1977, 153-156.
- Makazaga, J. M., 2009, *Elgoibarko hizkera*, EHUko doktoretza-tesia [lan argitaragabea].

- Malanca de Rodríguez Rojas, A.; Prevendello, N. L. eta Toniolo, M. T., 1981, “Actitud del hablante frente a su lengua. Resultado de una encuesta realizada en la ciudad de Córdoba (Argentina)”, *Lingüística Española Actual* III, 33-47.
- Mańczak, W., 1963, “La nature des archaïsmes des aires laterales”, *Lingua* 13, 177-184.
- ___, 1988, “Bartoli’s second *norm*”, in J. Fisiak (arg.), 1988, 349-355.
- Manterola, J., 2006, “-a euskal artikulatu definituaren gainean zenbait ohar”, *ASJU* XL, 651-676.
- Martínez Álvarez, J., 1996, “Leonés: las hablas asturianas”, in M. Alvar (arg.), 1996a, 119-133.
- Martínez Areta, M., 2004, “El acento proto-vasco”, *ASJU* XXVIII-1, 135-206.
- ___, 2006, “Aitzin-euskararen kontsonantismoa”, *FLV* 103, 451-472.
- Martí, S. eta Feliu, F. (arg.), 1995, *Problemes i mètodes de la història de la llengua*, Quaderns Crema: Bartzelona.
- Medina López, J., 1996, “Geografía lingüística y dialectología de Canarias: veinte años del ALEICan”, *Lingüística Española Actual* XVIII/1, 113-135.
- Meillet, A., 2001 [1924], *Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan*, Koldo Mitxelena Katedraren argitalpenak, EHU: Bilbo.
- Mendebalde Kultura Alkartea, 2003, *Ahozkoasuna aztergai*, Bilbo.
- Mitxelena, K., 1964a, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi: Donostia.
- ___, 1964b, “La interpretación de las diferencias dialectales”, in K. Mitxelena, 1964a, 43-67.
- ___, 1972, “A note on Old Labourdin Accentuation”, *ASJU* VI, 110-120.
- ___, 1976a, “La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas”, *Revista española de Lingüística* 6, 309-324.
- ___, 1976b, “Acentuación alto-navarra”, *FLV* 23, 147-162.
- ___, 1977 [1961], *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- ___, 1981, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* XV, 289-313.
- ___, 1983, “Euskalkien ageriko aurpegia”, *Euskera* 28, 245-252.
- ___, 1986 [1963], *Lenguas y protolenguas*, Salamankako Unibertsitatea eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.
- ___, 1988a, *Sobre historia de la lengua vasca*, *ASJU*ren gehigarriak X, Donostia.
- ___, 1988 [1957]b, “Las antiguas consonantes vascas”, in K. Mitxelena, 1988a, 166-189.
- ___, 1988 [1971]c, “Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos”, in K. Mitxelena, 1988a, 711-728.
- ___, 1990 [1964], *Textos arcaicos vascos*, Gipuzkoako Foru Aldundia eta EHU: Donostia.

- ___, 1991, “De dialectología vasca”, *FLV* 58, 179-203.
- Montes, J. J., 1970, *Dialectología y geografía lingüística. Notas de orientación*, Instituto Caro y Cuervo: Bogotá.
- ___, 1986, “Dialectología y sociolingüística: algunas ideas sobre sus interrelaciones”, *Lingüística Española Actual* VIII/1, 133-140.
- ___, 1988, “La definición de ‘dialecto’”, *Lingüística Española Actual* X/1, 55-59.
- Montoya, E., 2004a, *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 2004b, “Urdazubi eta Zugarramurdiko euskararen norabidea”, *FLV* 96, 249-269.
- Moreno Fernández, F. (arg.), 1990, *Estudios sobre variación lingüística*, Universidad de Alcalá de Henares: Salamanka.
- ___, 2004, “Los estudios dialectales sobre el español en España (1979-2004)”, *Lingüística Española Actual* XXVI/2, 65-100.
- Mounole, C., 2004, “Zubererazko herskariak azterketa akustikoa” *ASJU* XXXVIII-1: 207-248.
- ___, 2006, “Quelques remarques à propos de l’histoire des périphrases basques”, *ASJU* XL 1-2, 723-738.
- ___, 2007, “Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria”, *ASJU* XL-1, 67-138.
- Moutard, N., 1975a, “Étude Phonologique sur les Dialectes Basques (I)”, *FLV* 19, 5-42.
- ___, 1975b, “Étude Phonologique sur les Dialectes Basques (II)”, *FLV* 20, 141-189.
- ___, 1976, “Étude Phonologique sur les Dialectes Basques (III)”, *FLV* 22, 9-54.
- Muñoz Garrigós, J., 1988, “Dialectología y lexicografía: notas sobre el dialecto murciano”, *Lingüística Española Actual* X/1, 73-80.
- Nafarroako Gobernua, 1997, *Nafarroako toponimia eta mapagintza. Basaburua-Imotz*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 2005, *Esnea: prozesua eta ohiturak*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Navarro Correa, M., 1982, “Valoración social de algunas formas verbales en el habla de Valencia”, *Lingüística Española Actual* XIV/1, 97-105.
- Navarro, J.; Navarro, J. eta Andueza, M. L., 2008, *Lizarraga Ergoieneko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- Nuño Álvarez, M. P., 1996, “Cantabria”, in M. Alvar (arg.), 1996a, 183-196.
- Olano, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena*, Nafarroako Gobernua, Aresoko eta Leitzako Udalak: Iruñea.

- ___, 2000, “Gipuzkoa ondoko bi hizkera nafar: Areso eta Leitzako paradoxa”, in K. Zuazo (arg.), 2000, 121-147.
- ___, 2005, *Aio, Leitze! Leitzako euskararen hiztegia. Etnografia, corpusa, dialektologia*, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea.
- Olza Zubiri, M., 1979, *Psicosociología de una población rural vasca*, Príncipe de Viana: Iruñea.
- Ondarra, F., 1981, “Primer sermón en vascuence navarro (1729)”, *FLV* 38, 107-141.
- ___, 1982, “Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi”, *FLV* 40, 387-401.
- ___, 1984, “Zegamako Doctrina Christiana (1741)”, *ASJU* XVIII-2, 3-62.
- ___, 1989, “Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)”, *FLV* 53, 97-144.
- Oñederra, M. L., 1990, *Euskal fonologia: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*, EHU: Leioa.
- ___, 2004, *Fonetika Fonologia hitzez hitz*, EHU: Bilbo.
- Ormaetxea «Orixe», N., 1918, “El acento vasco”, *RIEV* 9, 1-15.
- Ormaetxea, J. L., 2006, *Aramaioko euskara (azterketa dialektologikoa)*, EHU.
- ___, 2008, “Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa”, *FLV* 108, 249-262.
- Pagola, R. M., 1992, *Euskal fonetika Nafarroan I eta II*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- ___, 1995, “Nafarroako hizkerak”, R. Gomez eta J. Lakarra (arg.), 1995, 255-296.
- ___, 2008, “Nafarroako hizkeren lexikora hurbilketa”, in Euskaltzaindia (arg.), 2008, 269-280.
- Peña Santiago, L. P., 1973, *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa*, Txertoa: Donostia.
- ___, 1984, *Aralar. Montaña vasca. Travesías y cumbres a través de una geografía humanizada*, Elkar: Donostia.
- ___, 1986, *Navarra. De caminos, batallas y bandidos*, Txertoa: Donostia.
- Perurena, P., 2007, *Dakiguna ikasten*, Alberdania: Irun.
- Peters, H., 1988, “On the state and possible aims of Middle English word geography”, J. Fisiak (arg.), 1988, 397-416.
- Petyt, K. M., 1980, *The study of dialect. An introduction to dialectology*, Blackwell: Londres.
- Pikabea, J., 1993, *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*, EHU eta Kutxa Fundazioa: Donostia.
- Pilch, H., 1988, “Dialectology in historical grammar”, in J. Fisiak (arg.), 1988, 417-442.
- Pinker, S., 1994, *The language instinct*, William Morrow & Company, Inc: AEB.
- Pope, J.; Meyerhoff, M. eta Ladd, D. R., 2007, “Forty years of language change on Martha’s Vineyard”, *Language* 83-3, 615-627.

- Preston, D. R., 1989, *Perceptual dialectology. Nonlinguists' views of areal linguistics*, Foris: Herbehereak.
- Pringle, I., 1986 [1983], "The concept of dialect and the study of Canadian English", in H. B. Allen eta M. D. Linn (arg.), 1986, 217-236.
- Radford, A. eta beste, 2000 [1999], *Introducción a la lingüística*, Cambridge University Press.
- Ramírez, A. G., 1996, "Dialectología y sociolingüística", in M. Alvar (arg.), 1996a, 37-48.
- Recondo, J. A., 2010, *El Camino Real de Tolosa a Pamplona. Tolosatik Iruñerako Errege-bidea*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Euskarabidea eta beste batzuk.
- Sagarzazu, Tx., 2005, *Hondarribiko eta Irungo euskara*, Alberdania: Irun.
- Salaberri, P., 1991, "Toponimia, dialektologiaren ikerbide", *Iker* 7, 619-645.
- ___, 1994, "Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaras*", *FLV* 65, 7-40.
- ___, 1998, "Arabako mugako nafar hizkeren inguruan", in I. Camino (arg.), 1998, 49-87.
- ___, 2000, "Iruñerriko eta inguruko ibarretako euskararen gainean", *Euskera* 45-3, 881-920.
- ___, 2004, "Artatzako euskal testua", *FLV* 97, 537-554.
- ___, 2008, "Gorritik horira. Erantzuna", *Euskera* 53-1, 35-40.
- ___ eta Urrizola, R., 2008, "Hiriberri Arakilgo predikuak I. Transkripzioa eta azterketa", *FLV* 108, 263-290.
- Salaberry, B., 2002, "Mugerreko euskara: hurbilketa bat. Euskara batuaren eragina euskalkian", *Lapurdum* VII, 353-355.
- Salaburu, P., 1984, *Hizkuntzaren soinu-egitura (Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonologia)*, bi liburuki, Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.
- Salvador, G., 1965, "Encuesta en Andiñuela", *Archivum* 15, 190-255.
- ___, 1987, *Estudios dialectológicos*, Paraninfo: Madril.
- San Sebastian «Latxaga», J. M., 1973, *Aralar 'ko San Migel*, Donostia.
- Sánchez Carrión, J. M., 1972a, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*, Príncipe de Viana erakundea eta Nafarroako Foru Diputazioa: Iruñea.
- ___, 1972b, "Sobre una forma inédita de la primera persona del singular transitivo, en Urrizola-Galain (Ulzama)", *FLV* 11, 153-156.
- ___, 1974, "ESAN / ERRAN en el área lingüística alto navarra", *FLV* 17, 261-264.
- ___, 1981, "La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio antropolingüístico de una comunidad euskaldún", *FLV* 37, 19-98.

- ___, 1987, *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, Elkar: Donostia.
- Santazilia, E., 2009, “Luzaideko hizkuntz bariazioa”, *FLV* 111, 219-248.
- Sapir, E., 1986 [1921], *El lenguaje. Introducción al estudio del habla*, Fondo de cultura económica: Mexiko, Madril eta Buenos Aires.
- Sarasola, I., 1990 [1983], *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, Gipuzkoako Foru Aldundia eta EHU: Donostia.
- Satrustegi, J. M., 1975, “El cebo para la caza del zorro en un documento vasco del siglo XVIII”, *FLV* 20, 237-246.
- ___, 1981, “Nueva contribución al fondo de textos antiguos vascos”, *ASJU* XV, 75-104.
- ___, 1987a, “Textos dialectales en documentos religiosos vascos (IV): Goldáraz”, *FLV* 50, 317-331.
- ___, 1987b, *Euskal testu zaharrak I*, Euskaltzaindia: Iruñea.
- ___, 1988, “Textos dialectales en documentos religiosos vascos (V): Larráinzar”, *FLV* 52, 267-289.
- ___, 1990, “Texto vasco del Padrenuestro en versión del s. XVI”, *FLV* 55, 37-47.
- ___, 1992, “Cuatro promesas matrimoniales inéditas, en euskera del s. XVI”, *FLV* 59, 55-69.
- ___, 1995, “Ultzamako euskal testu argitaragabeak”, *FLV* 70, 525-540.
- ___, 1996, “Goizuetako udal ordenantzak”, *FLV* 72, 297-313.
- ___, 1999, “Arakil aldeko euskara”, *FLV* 81, 343-358.
- Schouten, M. E. H. eta Van Reenen, P. Th., 1989, *New methods in dialectology*, Foris: Holanda eta AEB.
- SEI erakundea, 2002, *Lekunberriko euskararen kale erabileraren neurketa*.
- Seltiz, C. eta beste, 1980, *Métodos de investigación en las relaciones sociales*, Rialp: Madril
- Solís, G., 1993, “Lizarragako euskararen azterketa”, *FLV* 62, 95-123.
- Taeldeman, J., 1989, “Typology of dialects transition in Flandes”, in M. E. H. Schouten eta Ph. Van Reenen (arg.), 1989, 155-163.
- Thomas, A. R., 1988, *Methods in dialectology*, Multilingual matters LTD: Clevedon, Philadelphia.
- Torres Luna, M. P., 1971, *La Navarra húmeda del noroeste. Estudio geográfico de la ganadería*, Instituto de Geografía Aplicada del patronato “Alonso de Herrera”: Madril.
- Trask, R. L., 1995, “On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque”, in J. I. Hualde, J. Lakarra eta R. L. Trask, 1995, 207-234.
- ___, 1997, *The history of Basque*, Routledge: Londres.

- Trudgill, P., 1974, *The social differentiation of English in Norwich*, Cambridge University Press: Britainia Handia.
- ___, 1983, *On dialect. Social and geographical perspectives*, Basil Blackwell: Oxford.
- ___, 1986, *Dialects in contact*, Basil Blackwell: Oxford.
- ___, 1988, “On the role of dialect contact and interdialect in linguistic change”, in J. Fisiak (arg.), 1988, 547-563.
- Ugalde, A., 2003, “La población rural de Navarra”, in *Libro blanco de la agricultura y el desarrollo rural*, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa: Madril [www.libroblancoagricultura.com/libroblanco/jautonomica/navarra/comunicaciones/a_ugalde.pdf]
- Ulayar, E., 1987, “Juan Miguel Gastesiren bi *Mayatzeko illabetia: Mariaren Illabetia* (Marie Santisimeren Devocioa) 1850-1854”, *FLV* 49, 53-63.
- Ulibarri, K., 2008, “Orozkoko euskararen azterketa diakronikorantz hurbiltze bat”, *ASJU* XLII-1, 191-207.
- Urabaien, L., 1926, “Estudios de geografía humana. Una interpretación de las comunicaciones en Navarra”, *RIEV* XVII, 289-328 eta 529-564.
- ___, 1959, *Una geografía de Navarra*, Libe: Iruñea.
- Urgell, B., 2006, “Para la historia del sustantivo verbal en vasco”, *ASJU* XL 1-2, 921-948.
- Urkixo, J., 1908, “Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV* 2, 215-221 eta 655-659.
- ___, 1910, “Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV* 4, 233-297.
- Urrizola Hualde, R., 2007, “La copla de Etxaleku”, *FLV* 104, 59-66.
- Várvaro, A., 1995, “Monogènesi o poligènesi del canvi lingüístic: ¿una oposició inconciliable?”, in S. Martí eta F. Feliu (arg.), 1995, 13-37.
- Veny, J., 1978, *Estudis de geolingüística catalana*, Edicions 62: Bartzelona.
- ___, 1991, “Fronteras y áreas dialectales”, *Iker* 7, 197-245.
- Videgain, X., 1991, “Lexikoaren bilketaren baldintza zenbait”, *Iker* 7, 559-576.
- Voitl, H., 1988, “The history of voicing of initial fricatives in Southern England: a case of conflict between regional and social dialect”, in J. Fisiak (arg.), 1988, 565-600.
- Zelaieta, E., 2004, “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)”, *FLV* 96, 223-248.

- ___, 2005a, “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)”, *FLV* 99, 287-306.
- ___, 2005b, “Baztan-Bidasoako hizkeren ekarpena (Dialektologiatik ikasgelara)”, *Euskera* II, 765-783.
- ___, 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia: Iruñea eta Bilbo.
- Zuazo, K., 1988, “Bizkaieraren ezaugarriez gehiago”, *ASJU* XXII-2, 367-377.
- ___, 1989a, “Zubereraren sailkapenerako”, *ASJU* XXIII-2, 609-650.
- ___, 1989b, “Euskara ote da bizkaiera?”, *RIEV* 34:1, 75-90.
- ___, 1995a, “Bonapartez geroztiko euskal dialektologia”, in R. Gomez eta J. Lakarra (arg.), 1995, 13-43.
- ___, 1995b, “Burundako hizkera”, in R. Gomez eta J. Lakarra (arg.), 1995, 297-364.
- ___, 1997, “Oiartzungo hizkeraren kokagunea”, *FLV* 76, 397-425.
- ___, 1998a, “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 78, 191-233.
- ___, 1998b, “Nafarroako euskal hizkerak”, in I. Camino (arg.), 1998, 1-21.
- ___, 1998c, “Arabako euskara”, in H. Knörr eta K. Zuazo (arg.), 1998, 126-189.
- ___, 1999a, “Arabako euskararen kokagunea”, *FLV* 80, 165-184.
- ___, 1999b, “Baigorriko euskara kokatzeari buruz”, *Lapurdum* 4, 247-277.
- ___ (arg.), 2000, *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia: Gasteiz.
- ___, 2003, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar: Donostia.
- ___, 2006a, *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*, Badihardugu Euskara Elkartea: Oñati.
- ___, 2006b, “Deba ibarreko euskara zaharra”, *ASJU* XL, 1005-1030.
- ___, 2008, *Euskalkiak. Euskararen dialektok*, Elkar: Donostia.
- ___, 2010, *Sakanako euskara. Burundako hizkera*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Zubiri, J. J. eta Perurena, P., 1998, *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, Nafarroako Gobernua, Goizuetako Udala eta Aranoko Udala.